





NAGORE ETXEBARRIA ETXEBARRENA  
AINARA APRAIZ OLIDEN  
Labayru Ikastegikoak

**JUAN IGNAZIO ASTIGARRAGA**  
**(1783-1854)**  
**SERMOITEGIA**

*XVIII. eta XIX. mendeetako*  
*euskal oratoria sakratua*





NAGORE ETXEBARRIA ETXEBARRENA  
AINARA APRAIZ OLIDEN  
Labayru Ikastegikoak

JUAN IGNAZIO ASTIGARRAGA  
(1783-1854)  
SERMOITEGIA

*XVIII. eta XIX. mendeetako euskal oratoria sakratua*

LABAYRU IKASTEGIA  
BASAURIKO UDALA  
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA

BILBAO  
2007

Egitasmo honen oinarri diren eskuizkribuak Frantziskotarren Arantzazuko Komentuko Artxiboak utzi dizkigu esku-zabalez, baita euren erreprodukzioa egiteko baimena eman ere.

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan dute.

© *Argitaraldi honena*: Labayru Ikastegia - Basauriko Udala - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa

Labayru Ikastegia  
Aretxabaleta, 1-1.a  
48010 BILBAO  
Tel. 94 443 76 84 - Faxe 94 443 77 58  
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Diseinua: Ikeder, S. L.  
Fotokonposizioa: Ikur, S. A.  
Silutegia: Baster, S.L.L.

Lege Gordailua: BI-1342-07  
ISBN: 978-84-89816-15-2

Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoez beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*-aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimen barik.

## AURKIBIDEA

Agurra .....	11
Aurkezpena .....	13
Sarrera .....	17
I. Frai Juan Ignazio Astigarraga (1783-1854) .....	18
II. Eskuizkribuen azterketa .....	25
1. Jatorriaz .....	25
2. Egituraz .....	26
3. Hizkeraz .....	34
3.1. Arlo fonetikoa .....	35
3.2. Morfologiazko berezitasunak .....	36
3.3. Sintaxiaren gaineko oharrak .....	40
3.4. Hiztegia .....	44
3.5. Estiloa gogoan .....	96
III. Gure argitalpena .....	100

## SERMOITEGIA

Aurkezpen fitxategia.....	105
1. <i>Borrón del Descendimiento</i> .....	115
2. <i>Descendimiento del Señor</i> .....	127
3. <i>Satisfacción de obra quinta. Condición para una buena Confesión</i> .....	141
4. <i>La Porciúncula</i> .....	151
5. <i>Borrón. Sobre la Comunión santa y sacrílega</i> .....	155

6. <i>Inbidiaren ganeko doktrina</i> .....	163
7. <i>[Laugarren Mandamentua I]</i> .....	166
8. <i>Borrón del Sexto Mandamiento de la Ley de Dios</i> .....	177
9. <i>Sermón del Juicio particular</i> .....	191
10. <i>Introduc[c]ión para la Misión</i> .....	201
11. <i>Sermón del Perdón</i> .....	211
12. <i>Tercer Mandamiento. Sobre el santificar las fiestas</i> .....	233
13. <i>Sermón sobre la Palabra Divina</i> .....	246
14. <i>[Elixa Santuari]</i> .....	254
15. <i>[Examina Konzienziako]</i> .....	262
16. <i>[Jesusen Pasioa]</i> .....	265
17. <i>Sermón de la Resurrección del S(eñ)or</i> .....	275
18. <i>Sermón de las penas q(u)e se padecen en el Infierno</i> .....	282
19. <i>Sermón segundo de Ánimas</i> .....	294
20. <i>Sermón del Dulcísimo Nombre de María</i> .....	299
21. <i>De Pec[clato mortali</i> .....	307
22. <i>[Humildadia]</i> .....	315
23. <i>Número de pecados</i> .....	319
24. <i>[Pekatuén okasinotik urteiteko gogo santua]</i> .....	328
25. <i>[Jangoiko errukiorra]</i> .....	336
26. <i>[Pekatuan il eta betiko galduak gelditu ez gaitezán]</i> .....	344
27. <i>[Induljenziak]</i> .....	348
28. <i>Número de pecados, días y auxilios</i> .....	356
29. <i>[Zeruko Ogijau]</i> .....	367
30. <i>[Misino santuko konsejuak]</i> .....	378
31. <i>[Jaunaren miserikordija I]</i> .....	384
32. <i>[Misterioa Jangoikoaren Semia Mariaren entrañetan Espiritu Santuen obraz gizon egin zanekoa]</i> .....	390
33. <i>Integridad. Cuarta circunstancia de la Confesión</i> .....	394
34. <i>Sermón de no callar los pecados</i> .....	405
35. <i>Doctrina. [Maria Santisimiar benetako debozino bat]</i> .....	419
36. <i>[Konbersinoa]</i> .....	423
37. <i>Sobre el número de los pecados. Sermón o borrón</i> .....	432
38. <i>Sermón sobre cuán vana sea la penitencia de la hora de la muerte para el pecador que ha vivido anegado en un sinnúmero de pecados</i> .....	446
39. <i>La Ascensión del S(eñ)or</i> .....	458
40. <i>Sermón de la Pasión del Señor I</i> .....	462
41. <i>Sermón de Pasión II</i> .....	481
42. <i>Sermón del Patriarca S(a)n Fr(ancis)co</i> .....	485
43. <i>Decimonoveno después de Pentecostés. [Amarren primiziak]</i> ...	488

44. <i>Decimosexto domingo de Pentecostés. [Ogi milagrozkoren igandea]</i> .....	490
45. <i>Regina Martirum</i> .....	492
46. <i>[Santuen exenploak]</i> .....	497
47. <i>[Errege justo baten gobernoa]</i> .....	500
48. <i>[Jangoikoen pazientzia ta miserikordia]</i> .....	507
49. <i>[Biraldu eban bere Semia gizona erremedietara]</i> .....	512
50. <i>[Esker geztoz]</i> .....	515
51. <i>Llagas</i> .....	518
52. <i>[Induljenzien ganian]</i> .....	526
53. <i>Dominica septima post Pentecostes. [Amarren primiziak pagatzea]</i> .....	529
54. <i>[Purgatorijoko arimak]</i> .....	532
55. <i>[Konpesiño on bat]</i> .....	534
56. <i>[Eskergeztokeria]</i> .....	536
57. <i>[Esker onak]</i> .....	538
58. <i>[Konzepziño Garbikoa]</i> .....	541
59. <i>[Jesukristoren etorrerako festa]</i> .....	543
60. <i>[Luxurijan]</i> .....	546
61. <i>[Amudiozko Sakramentua]</i> .....	549
62. <i>[Mariaren debozioa]</i> .....	553
63. <i>[San Juan Bautista I]</i> .....	556
64. <i>Varias ideas para rogativas en tiempo de aflicción u otras que pueden presentarse</i> .....	562
65. <i>[San Juan Bautista II]</i> .....	568
66. <i>[Pekatuen pisua]</i> .....	569
67. <i>[San Luis]</i> .....	571
68. <i>[Pekatuan dagoanaren itxusitasuna]</i> .....	578
69. <i>[Zuben eskergeztokeria]</i> .....	582
70. <i>[Sakramento Penitenzijako]</i> .....	591
71. <i>[San Luisen bizitza ta birtuteak]</i> .....	594
72. <i>[Linboa]</i> .....	597
73. <i>La gravedad del pecado y sus efectos</i> .....	600
74. <i>Cuán dificultosa sea la conversión del inveterado pecador</i> .....	608
75. <i>[Jangoikoen Justizia]</i> .....	616
76. <i>[Limosnako obligazinoa]</i> .....	624
77. <i>[Gorrotoa]</i> .....	629
78. <i>[Esker andiak]</i> .....	638
79. <i>[Seigarrengoen kontra]</i> .....	641
80. <i>[Limosnia]</i> .....	650
81. <i>[Jangoikoaren miserikordia II]</i> .....	654

82. [Errosarioko deboziñoa] .....	659
83. Devoción de María .....	662
84. [Konfesio on baterako bostgarren kondizioa] .....	672
85. [Laugarren Mandamentua II] .....	676
86. [Purgatorioko animak] .....	689
87. [Miserikordiaren ganian] .....	695
88. [Errosarioko debotoak] .....	698
89. [Gloriako Bildots santua] .....	700
90. [Naigabiak Amarenak] .....	704

## AGURRA

Basauriko Udalak ez dau hau lehenengo bider Labayru Ikastegiarekin batera egitasmorik egiten dauena, aurrerago be atera genduan-eta bion artean *Basauriko toponimia* liburua. Gaur aurkezten dogun lanau, ostera, apartekotxutzat daukagu, gure herriaren lehen, orain eta geroaren ganeko gogoeta sakona eragiten deuskulako basauritarroi.

Aspaldi erdaldundu jakun Basauriko uria barriro euskalduntzen hasita gagoz urteokaz, geroago eta euskereagazko zaletasuna izetuago doala ume eta gazteakan. Hontsura arte San Migeleko auzotegia genduan euskeraren bizileku bakarra, gaur hareek zuztarrak zabalduaz-zabalduaz joakuz herri osora.

Basauriko Udala osotzen dogunok sinisturik gagoz ahalegin guztiak egin behar doguzala gure herriaren nortasun linguistikoari eusteko, gure bertoko euskerea berreskuratu, ezagutu eta zabaltzeko, lehen zana, orain eta gero be izan daiten.

Eta honetara dator, etorri be, Labayru Ikastegiko ikertzaileak prestau daben esku artean daukazun *Juan Ignazio Astigarraga (1783-1854). Sermoitegia* obreau.

Juan Ignazio Astigarraga Basauriko San Migeleko semea dogu. Astigarraga fraile frantziskotarra izan zan eta misionari nekaezina. Euskal Herriko herririk herri ibili zan urtean-urtean misinoginen, eta horretako hainbeste sermoi idatzi eban ondo polito. Gure frailea idazle ugaria eta ona izan zan, ale honetara batu diran haren 90 sermoik erakusten deuskuen moduan. Gehienak Basauriko orain berrehun urteko euskeraz idatzita dagoz, gure herriko berbakera zaharraz. Badaukagu zer ikasi eta zer irakatsi eurretan.

Horretara ba, esan behar dogu euskal hizkuntza eta literaturaren historiak Juan Ignazio Astigarraga basauritar idazle barria ezagutu dauela lan honi eskerrak.

Benetan poz handiz hartu genduan hasierarik egitasmo hau, eta pozago gagoz orain behin ha amaiturik ikusita. Behar eskerga egin dau Labayru Ikastegiak euskerearen eta, batez be, Basauriko euskerearen mesederako. Orain geuri jagoku ondare horri jaube egitea.

*Rafael Ibarгүйen*  
Basauriko Udaleko alkatea



## AURKEZPENA

Idazle ezezagun baten lana plazaratzen dogu oraingoan liburu apain honetan. Gaur euskera nekez bizi dan herri batekoa: Basaurikoa, edo zehatzago esanda, Basauriko San Migelekoa; euskera biziaren muga dagoan herria, euskera biziak tradizinoz daukan bazterreko ibarra, Ibaizabal-Nerboi ibar barrena.

Basauriko San Migelekoa genduan Juan Ignazio fraile frantziskotarra, jaiotzaz eta euskal hizkuntzaz. Juan Ignazio Astigarraga jaio zan denporan, XVIII. mendearen 80garren hamarkadan, eleizate txikia eta nekazari girokoa zan San Migel, eta euskalduna bete-betean; albo-herriak izango ziran legetxe.

Zimendua jaioterrian hartu baeban be, eskolatu frantziskotarren babespean egin zan. Segurua ez bada be, Bilbon egin zituan ikasketak. San Frantziskoko Komentu Inperialean egin eben predikari eta konfessore 1814an. Urte latzak igaro zituan, bai artean, eta bai geroago be: Napoleonen gerra hurretik bizi eban, eta hainbat geroagora karlista-gerratea be bai. Bilboko egotaldi horretan ondo ezagutu izango eban Pedro Astarloa predikari eta idazle ezaguna, *Urteko Domekak* sermoi-liburu bikotxaren egilea. Berau izango eban buru be, komentu horretan goikarguetan luzaro egon zanez.

Baina predikari-lana gehienbat Zarauzko Misionari Kolegioan garatu eban. Han erakutsi eban burua Astigarragak sermolari bikain lez ezeze, idazte kontuan be. Gaur euskal idazletzat autortzen badogu, sermolari izan zalako da oinarrian, ez literatura-senak idaztera bultzatu ebalako. Ofizioak bihurtu eban idazle eta ofiziorako erabili eban idazkuntza. Beste bere lankide askogaz be antzera gertatu zan, batzukaz gehiago, beste batzukaz gutxiago. Sermolari guztiak be ez ziran hain idazle finak

agertu. Asko orduan be bestek idatzitako liburuakaz edo izkribu-pleguakaz balietan ziran, eta gehienez be halako zirriborro batzuk ontzen ebezan euren usu eta gozamenerako. Baina gure basauritarra behargin fin, zorrotz eta nekaezina agertu zan: asko predikau eban, misino asko emon zituan, eta idatzi be asko egin eban. Maisuak be ez zituan txarrak, zaharragoak zein gazteagoak. Bere misino-beharretan lankide hurreko eban Juan Mateo Zabala bilbotarra be (bera baino sei bat urte gazteagoa) euskalzale fina zan gaztetarik. Ondo ezagutu izango zituan aurretiko eta sasoiko idazle eta euskalzale puntarengoak: Mogel osaba-lobak, Pablo eta Pedro Astarloatarrak, Iztueta, Iturriaga eta beste. Baina Astigarragak, komentuan bertan, baeban maisu zaharrago eta itzal handikoa: Pedro Antonio Añibarro arratiarra, beste guztiak baino idazle oparoagoa izan zana.

Ez da mira egitekoa beraz Astigarraga be besteon artean sermoiegile-idazle ugaria gertatu izana, orain artean bere izenaren gerizarik euskal literaturan izan ez bada be. Merituak ez ditu falta. Argitara dakargun liburu mardul honetan 90 sermoi bildu ditue prestatzaileak; orduko beste batzuen aldean idazle oparo bihurtzen dabenak.

Nondikoa da idazle honen eta bere obraren ezagupidea? 2005ean argitarara emon eban Labayru Ikastegiak Arantzazu EFrekin batera Nagore Etxebarriak prestatuiko *Frantziskotarren artxiboak. Euskarazko sermoi eta antzeko eskuizkribuen katalogoa (XVIII-XX)*. Katalogo horretan agiri ziran idazle eta sermoitegiak oinarritzat hartuta atondu zan ikerketa-egitasmo hau: Astigarraga sermolariaren eskuizkribuak transkribatu eta, aztertu ondoren, argitaratzekoa. Katalogo horretan agiri ziran idazleen artean bikainenetarikoa zan Juan Ignazio Astigarraga (1783-1854), bai edukinez, bai hizkera-kalidarez, bai neurritz. Basauriko Udalari aurkeztu jakon egitasmoa, harek onartu, eta holantxe hasi zan Labayru Ikastegiaren eta Udalaren arteko alkarlana.

Lan meritugarria egin dabe prestatzaileak. Testua modu bitara eskitzen dabe batetik: gaurko grafiaz paperean eta jatorrizkoan CDan. Orain artean lehenengoz hartu da bide bikotxori euskal testu zaharren argitarakuntzan. Sarrera-azterlana be ez edozelakoa: zehatz eta sakon azterturik opatu deuskuez, ez bakarrik idazlearen bizitza-zertzelada; horrezaz gainera eta batez be, testuaren hizkera bere osotasunean: morfosintaxia dala, lexikoa dala, eta estiloa bera.

Labayru Ikastegiarentzat pozgarri da Basauriko Udalgaz egin dan lankidetzeta hau; hori barik ezina izango zan ikerkuntza hau. Eskertzekoa da, aldi berean, BBK Fundazioak emoten deuskun etenbako babesa, lau hau eta honen taiuko beste batzuk argitaratzeko.

Euskal gizartea, euskal hizkuntza eta euskal literatura izango dira, azken baten, mesedetuak obra barri honi eskerrak. Ale barri ezezagun bat irabazi dau honegaz gure kultura ondareak.

*Adolfo Arejita*  
Labayru Ikastegiko  
Hizkuntza arloko zuzendaria



## SARRERA

Euskal hizkuntza eta literaturaren historia elizgizonek eginda dago zati handi-handi baten, eta zentzuaren kontrakoa bada ere, hark duen hutsunerik handiena ere eurekin zorretan dagoelako da. Hutsune hori betetzera dator gure ahaleginau.

XVIII. eta XIX. mendeak gure hizkuntza eta literaturaren euskarriak dira, eta haietan erlijioa jabe, idazlan zein idazleei eurei begiraturik. Hegoaldean, katiximaren argitalpenek (Otxoa de Arin, Arzadun, Basterretxea...) eta gerotxoago Larramendiren deiaz ernaturiko elizgizon banaka batzuen idatziek (Kardaberaz, Mendiburu eta Ubillos) gorpuztu dute XVIII. mendeko langintza. XIX. mendekoa, erdirainokoa behintzat, Mogel osaba-ilobak, Añibarro, Astarloa anaiak, Frai Bartolome, Lizarraga Elkanokoa, J.M. Zabala eta beste sortatxo bat idazlez osaturiko belau-naldiaren eskuetatik etorria zaigu, ugariagoa hori hura baino, baina hala ere, erlijio liburuak oro har.

Baina bada sasoi horretan, izen handiko idazleonek parean, beste izenbako elizgizon askok eta askok jorratu zuten arlo aberatsa zeinda hondino ezezaguna euskal hizkuntza eta literaturarentzat. Arlo hori prediku generoa edo, inguruetakoko hizkuntzek esaten dioten lez, oratoria sakratua dugu.

Mende horietan zehar batez ere ibili ziren erlijio ordena diferentee-tako misiolariak —frantziskotarrak indartsuen— Euskal Herriko herririk herri predikuginen, jendearen aurrean esaten zituzten euskarazko sermoiak kontu handiz jagoten zituztela beti. Eskuizkribuon ostean dauden fraideek hizkuntza dute euren lanabesa, eta lanabesa gehienetan ederto erabiltzen dakite: oratoriaren errekurtsuak bide direla euskararen eza-gutza sakona eta erabilera arteza ageri dute. Piloak izan ziren euskal fraideok eta eskerga haien beharra.

JAREIN bilduma honen barruan zehaztu dugun “XVIII. eta XIX. mendeetako euskal oratoria sakratua” azpiatalaren bitartez, gure hizkuntzak ezinbestekoa duen berreskuratze-lan horri hasiera apala eman nahi diogu. Hala, euskal idazle horien izenak ilunpetatik argitara ekarriko ditugu, idatzi zituzten euskarazko sermoiak pitean-pitean argitaratuz.

Juan Ignazio Astigarraga Belarrinaga Basauriko San Migeleko semea duzue zerrenda luze horretatik lehenengo idazlea.

## I. FRAI JUAN IGNAZIO ASTIGARRAGA (1783-1854)

XIX. mendeak urte gogorrak ekarri zituen Europara, Penintsulara eta Euskal Herrira. Industria Iraultzaren ondorioz ezinegona zabaldu zen gizarte maila guztietara: ekonomia berriak hankaz gora ipini zuen ordu-ra arteko sistema zaharra, arlo sozialean gaztazkak gaztazken gainean sorraraziz, eta politikoa nazionalismoa bermatuko zuen monarkia konstituzionala absolutistaren kontra garaile eginez.

Hala jazo zen erlijio esparruan ere. Aurrereko mendearen azken urteetan izan zen Iraultza Frantsesak ezarria zen eliz politika berria, eta oste-ko hamarkadetan horrek –Iparraldean arinago eta Hegoaldean Konbentzioko Gerratearen ondoren– ordena erlijiosoei makina bat astinaldi jasinarazi zien: komentuak itxi ziren, ondasunak desamortizatu eta erlijiosoak esklaustratu. Esklaustrazioek fraideak herrietara sakabanatu edo erbestera eragotzi zituzten, fraideok bakoitzak bere burua salbu ikusten zuen tokira jotzen zutelarik.

Kontestu historiko horretan kokatu behar dugu gure Juan Ignazio Astigarraga fraide frantziskotarra, bai bera eta bai bere obra.

Denbora haiek hain gorabeheratsuak izanik, batek pentsa lezake sasoi hartako edozein fraideren gaineko biografia osatu nahi izanez gero, lanak izango lituzkeela. Baina ez da hala, Zelestino Solaguren ikertzaile frantziskotarrak urte luzeetan behar eginik, hil aurretioxan amaitu zuen eta laster argitaratuko den *Los franciscanos vasco-cántabros en el siglo XIX. I Vicisitudes. II Nomenclator bio-bibliográfico* obrari<sup>1</sup> eskerrak, non bildurik utzi zizkigun mende horretako fraiderik gehien- en bio-bibliografiak.

Juan Ignazio Astigarraga bizkaitarra dugu, Basauriko San Migelen jaioa 1783ko martxoaren 10ean, eta bertan hila ere bai, mendearen

---

<sup>1</sup> Liburu hau eratu orduan, obra hori argitaratu barik egon da hondino. Badakigu baina, tomo bikoia dena eta XIX. mendeko 1.500 bat fraide frantziskotarren biografiak dakartzana.

erdialdean, 1854ko azaroaren 25ean. Hona hemen bataioko eta ehorzketako agiriak transkribaturik, idazkiak zaharraren zaharraz irakurtzen oso zailak baitira.

Bataioko agiriak hala dio:

[El día once de Marzo de mil setecientos y ochenta y tres yo Don Juan de Yragorri Cura y Beneficiado de esta Anteyglesia de San Miguel de Basauri bauticé en la Yglesia Parroquial de ella un niño, que nació a las siete de la noche del día antecedente diez que se contaron, según declaró la Comadre y le puse por nombre Juan Ygnacio, hijo lexítimo de Ygnacio de Astigarraga, natural de Sornosa y Manuela de Belarrinaga natural de Larrabezua y vecinos de esta citada Anteyglesia; Abuelos Paternos Ygnacio Astigarraga, natural del lugar de Aya en la Provincia de Guipuzcoa, y María de Muniez, natural de Guericayz, y vecinos que fueron en la dicha de Guericayz: Maternos Santiago de Belarrinaga, y Xacinta de Ugalde naturales, y vecinos de la referida de Larrabezua; siendo Padrino, Miguel de Yruretagoiena, natural de la dicha de Larrabezua, y Maria Antonia de Bilbao, natural y ambos residentes en esta de Basauri a quienes advertí el Parentesco espiritual que contrajeron, y en fée firme. Juan de Yragorri.]

Eta hala ehorzketakoak (galdera-ikurra ezarri diegu zuzenak ez diren datu biri):

[El día veinte y cinco de Noviembre de mil ochocientos cincuenta y cuatro, murió Fray Juan Ygnacio de Astigarraga, Presbitero Franciscano, Cura Servidor de esta Parroquial, de edad de setenta y dos años natural de esta, hijo legitimo de Ygnacio de Astigarraga natural de Munitivar (?), y de Maria (?) de Belarrinaga natural y vecinos de estas, recibio los Santos Sacramentos y mando dos honras misas de San Gregorio y Apostoles, su cadaber fue sepultado en el cementerio de esta Parroquial de San Miguel de Basauri y que conste firme. Juan Francisco de Perea.]

Antza San Mamesko nobiziatuan jantzi zuen abitua. 1807-1808 urteetan Bilboko San Frantziskoko komentuan predikatzaile-ikasketak burutzen ziharduelarik, esklaustrazioak hartu eta Bizkaitik kanpora joan behar izan ei zuen. Haren aztarna galdurik dago 1814ra arte. Urte horretan Bilboko San Frantzisko komentuan egon zena badakigu, predikari eta konfessore egin zuten eta.

Hiru urteren buruan, 1817an, Zarauzko Misiolari Apostoliken Kolegiara sartu zen eta harik gutxira hasi zen herri guztietatik barra-barra misioinen. Hain izan zen predikari ugaria ezen, herri-misioetarako jardunen berri ematen duen liburuan 1819tik 1839rako ia urte guzti-guztietan haren izena ageri den. Euskara bereziki erabiltzen zuen hizkuntza, eta Bizkaitik batez ere, baina baita Gipuzkoatik eta Nafarroatik ere ibili izan zen, bere sermoitegira baturiko eskuizkribuen euskalkiek erakusten duten bezala. Sarritan Juan Mateo Zabala idazle ospetsua izaten zuen misiotarako laguna.

1840an Zabala hil eta Zarauzko kapelautza hutsik geratu zenean, Astigarraga bera hautu zuten Komunitatearen goardatzaile berrizat, gutxi iraun bazuen ere kargu horren buru, 1833tik hasi eta urte horretara bitartean gauzatuz zetorren Lehenengo Esklaustrazio handia deritzagunak ez zuelako komenturik hustu bakorik utzi.

Juan Ignazio Astigarraga, beste batzuekin batera, komentuaren ingurumarietan gelditu omen zen apur baten, baina laster sorterrira egin behar izan zuen, biziko bazen. Basauriko San Migeleko parrokiara lekutu zuen bere burua zerbitzari lez, eta hantxe eman azken urteak.

Hona hemen, jaiotza- eta heriotza-datuotatik at, Astigarragaren bizitzari buruz Solagurennek berbarik berba pilatu zituen zertzeladak:

“Notable misionero apostólico del colegio de San Juan Bautista de Zarauz. Era tío de los padres Estarta, Juan Francisco (1802-1838) y Mariano (1804-1878). No se sabe en qué noviciado tomó el hábito franciscano; pudo ser en el de San Mamés. En 1807 fue declarado idóneo para la predicación. Por esos años de 1807-1808 se hallaba cursando la pasantía en el convento de San Francisco de Bilbao, donde le alcanzó el cierre del convento y la esclaustración que sobrevino entonces. Durante los años de la esclaustración parece que residió fuera de Vizcaya, pues no figura en las listas de esclaustrados residentes en la provincia. En 1814 se reintegró al convento de San Francisco de Bilbao y fue instituido predicador y confesor. Tres años más tarde, por octubre de 1817, se incorporó al colegio de misioneros de Zarauz y pronto comenzó a desplegar una notabilísima actividad en la predicación de misiones populares. Entre los años 1819 a 1839, según anota el Libro Becerro del colegio de Zarauz, su nombre aparece casi todos esos años, dando seis, ocho, diez o más misiones de quince días cada año. Predicaba casi siempre en Vizcaya, y siempre o casi siempre en euskera, pero lo hizo también alguna que otra vez en Guipúzcoa y en la zona “vasconga-



da”, como la llamaban, de Navarra. En sus desplazamientos misioneros por Vizcaya tuvo por compañeros de predicación a los padres Juan Mateo Zabala, Juan Obieta, Domingo Uriarte, Buenaventura Echezarraga y Juan Domingo Unzueta. Se conserva una carta suya autógrafa de 1831, dirigida a su sobrino el P. Mariano desde Gautéguiz de Arteaga, dándole instrucciones para preparar la próxima misión que iba a dar en Lejona; por lo demás, el P. Mariano, cuando aún vivía su hermano Juan Francisco en Zarauz, no dejaba nunca de enviar cariñosos saludos para su tío Juan Ignacio. Cuando en 1840 quedó vacante la guardiana de Zarauz por muerte del P. Juan Mateo Zabala el 6 de febrero de ese año, el capítulo conventual del colegio, siguiendo las instrucciones del comisario apostólico de Roma, eligió el 10 de mayo al P. Astigarraga nuevo guardián de la comunidad. Poco le duró el cargo; a finales de ese año la comunidad tuvo que disolverse al consumarse la esclaustración general. Es posible que el P. Astigarraga, como otros frailes de Zarauz, quedase algún tiempo en las cercanías del convento, pero pasó pronto a su pueblo natal, Basauri. En Basauri, consiguió, al parecer bastante tempranamente, un puesto de servidor en la parroquia. Consta que en 1846-1847 contribuyó con una limosna para la reconstrucción del santuario de Aránzazu. Falleció en su pueblo natal, en la fecha arriba indicada. En el convento de Zarauz se conservan manuscritos algunos sermones suyos en euskera”<sup>2</sup>.

Horrezaz ostean, informazio gehiago daukagu Juan Ignazio Astigarragaren gainekoa, beste iturri batzuetatik etorria baina.

Badira egun San Migelen Astigarragatarrak oraindik ere. Horietarik anaia bik luzatu digute eurek eginiko genealogia lan batetik gure fraideari buruz zuzendu duten zenbait datu<sup>3</sup>.

<sup>2</sup> 2005ean bilduma honetan bertan argitaratu genuen *Frantziskotarren artxiboak. Euskarazko sermoi eta antzeko eskuizkribuen katalogoa (XVIII-XX)* obraren biografiak, Solagurennek eman zigun informazioa erabilirik moldatu genituen. Hor transkribatu dugun testuori, Juan Ignazio Astigarragaren gainean bidali zigun fitxa osoa duzue. Beraz: Zelestino Solaguren, “Los autores de los sermones manuscritos. Identificación y biografías o notas biográficas”, 2001, 32 or., (argitaragabea).

<sup>3</sup> Miguel eta Julio Astigarraga dira anaiok, fraidearen anaia zen Domingo Astigarragaren habetik etorriak. Gure egitasmo honen berri izan zutenean, gurekin hartu-emanetan jarri ziren, aztertuko genuen idazlea euren arbasoa zela eta. Haren aztarna hondino ere bazegoela jakin genuenean, poza hartu genuen, are gehiago eurek eginiko genealogia ikerketa baten Juan Ignazioren datuak ere ondo zehazturik zeuzkatela esan zigutenean. Hala bada, gure esker ona agertu gura diogu biografia hau hornitzen eman diguten laguntziazatik.

Astigarraga anaia biok esana da –eta gorago ezarri dugun bataioko agiriak ere halaxe dio–, Juan Ignazioren sustraiak ez daudela Basaurin. Izan ere, aitaren aita gipuzkoarra zen, Gipuzkoako Aia herritik Bizkaira etorria; aita, Ignazio Astigarraga Muniez, Zornotzakoa, eta ama, Manuela Belarrinaga Ugalde, Larrabetzuko zituen.

Bederatzi neba-arreba izan ei zituen: euretariko hiru, zaharrenak, Larrabetzun jaiok ziren, eta enparaduak, Juan Ignazio ere barruan dela, Basauriko San Migelen. Neba-arreben artean seigarrena zen bera.

Baditugu bere bizitzari buruz esan beharreko beste pasarte bi, erlijio alderdiarekin zerikusi zuzen-zuzenik ez badute ere. Bata da lagun izan zuen Bediako abadearen testamentuan egin zuen bitarteko lana, eta bestea bere testuamentuaren berri ematea.

Bai bateko, bai besteko atalak Astigarraga anaiek euren liburuan idatzita dauden modu-moduan transkribatuko ditugu<sup>4</sup>. Hona hemen lehenengoa, Kanuto Enderika Bediako abadearen testamentuak ekarritako desadostasunean esku hartu zueneko:

“Le vamos a ver, en primer lugar, actuando en la liquidación del testamento de don Canuto de Enderica, ‘cura de la Colación de San Juan Bautista de Vedia’.

Don Canuto vivía en Bedia, bien atendido por su criada ‘María Joaquina de Andonegui, de estado célibe’ a quien había dejado en su testamento ‘todos los bienes muebles y enseres existentes en su casa’. (...); ‘más como en este estado se suscitaron ciertas dudas sobre la inversión que debía darse al dinero y hubo diversidad de opiniones en las consultas tomadas’ decidieron resolver la cuestión y salir del paso con el parecer de Fray Juan Ignacio de Astigarraga.

Era éste, como hemos dicho, cura en Basauri, y se le encargó ‘para con su acreditada honradez y procederes religiosos decidiese el negocio según y como mejor le dictase su conciencia...; con vista del testamento y demás conocimientos que a bien tuvo adquirir, resolvió se la entregasen [a María Joaquina de Andonegui] ocho onzas de oro de dinero’. Todo ello y más queda recogido en un curioso documento de carta de pago, fechado el 29 de octubre de 1844 (...) ante el escribano Juan Bautista de Uriarte”.

---

<sup>4</sup> Miguel eta Julio Astigarraga, *Los Astigarraga-Urquiza. Siglo XIX*, 2004, (argitalpen mugatua). Lehenengo pasarte, 1.7.5. or., eta bigarrena, 1.7.6. eta 1.7.7. or.

Hurrengo atalean Juan Ignaziok eginiko testamentuaren zatirik garrantzitsuenak ipini ditugu. 63 urte zituen hura sinatu zuenean, 1846ko apirialen 17an.

“En el nombre de Dios Todopoderoso, Amén. Notorio sea a cuantos el presente vieren como yo Fray Juan Ignacio de Astigarraga natural de esta anteiglesia de San Miguel de Basauri, Prelado que fui del extinguido Convento de Padres Misioneros de San Juan Bautista de la villa de Zarauz, en la provincia de Guipúzcoa, y fuera servidor igualmente de esta expresada anteiglesia, hallándome sano y en mi cabal juicio, memoria y entendimiento natural gracias a la Divina Providencia, creyendo como firme y verdaderamente creo en el Altísimo e Incomprensible Misterio de la Santísima Trinidad, Padre, Hijo y Espíritu Santo, que aunque tres personas distintas tienen unos mismos atributos y son un solo Dios verdadero, y en todos los demás misterios que tiene, cree y confiesa nuestra Santa Madre Iglesia Católica Apostólica Romana, en cuya verdadera fe y creencia he vivido, vivo y prometo vivir y morir como viel católico cristiano.

Temeroso en la muerte, cosa tan natural e indispensable a toda criatura humana así como incierta su hora, a fin de que cuando llegue ésta no me coja desprevenido sin disposición testamentaria, y evitar con maduro acuerdo todo lo concerniente al descargo de mi conciencia así como los pleitos y contiendas que en su defecto podían suscitarse, formalizo este mi testamento última y postrera voluntad en la forma siguiente:

Lo primero y ante todas cosas encomiendo mi alma a Dios nuestro Señor y el cuerpo a la tierra de que fue tomado y quiero y es mi voluntad que cuando su divina Majestad fuere servido llevarme de esta vida a la eterna, se me hagan el entierro y demás funciones fúnebres en la Parroquia de esta anteiglesia con arreglo a mi clase, amortajado mi cuerpo con el Santo hábito de mi Instituto.

Declaro que no tengo deuda alguna por donde me conste y adierto que de todos mis haberes será heredera mi sobrina Ángela de Astigarraga y Ugarte que actualmente se halla en mi casa y compañía.

Mando a la Santa Casa de Jerusalén redención de cautivos cristianos y demás órdenes forzosas, la cantidad de cuarenta reales de vellón, con cuya limosna les excluyo y aparto del derecho y acción que pudieran tener y pretender a mis bienes.

Mando a mi sobrina Sor Francisca de San Buenaventura de Astigarraga, Religiosa en las Clarisas del convento de San Antonio de la villa de Durango, la cantidad de doscientos ducados de vellón, para sus necesidades religiosas, y la encargo me tenga presente en sus oraciones.

Es mi voluntad que después de mi fallecimiento se celebren en sufragio de mi alma mil misas de estipendio de seis reales cada una a discreción y voluntad de los testamentarios que más adelante dejaré nombrados y les suplico procuren celebrarlas con la brevedad que les fuese posible.

Nombro por mis testamentarios a mi sobrino Don Mariano de Estarta, Religioso exclaustado del convento de Nuestro seráfico Padre San Francisco extramuros de la villa de Bilbao, y a Don Francisco Antonio de Perea, vecino de esta expresada anteiglesia de San Miguel de Basauri, y les faculto a los dos juntos y a cada uno insolidum, para que después de mi fallecimiento se apoderen de todos mis bienes, créditos, derechos y acciones y vendiendo los que a bien tuvieren, cumplan y ejecuten con cuanto dejo dispuesto y ordenado a cuyo fin les faculto en forma prorrogándoles para el efecto todo el tiempo que necesiten además del señalado por la Ley.

Y después de cumplido y pagado cuanto dejo dispuesto y ordenado, del remanente que quedase de todos mis bienes, créditos, derechos y acciones, instituyo y nombro por mi única y universal heredera a la citada mi sobrina Ángela de Astigarraga y Ugarte, para que los herede con la bendición de Dios y la mía, y la encargo me encomiende a Dios en sus oraciones”.

Azken-nahi edo testamentuon ageri den Frai Mariano Estarta ilobari aipamentxoia eginez amaitu gura dugu ataltxoau, Euskal Herriko Frantziskotarren XIX. mendeko historian ospe handiko gizona izan zen eta.

Juan Ignazio Astigarragaren iloba horrek, esklaustrazioen ondoren deseginik gelditu zen Kantabriako probintzia berriz eraikitzeko ardura hartu zuen, eta horretan eman zuen eman ere hainbat urte. Aldi luze horri Izanberrikuntza esaten zaio, eta Estarta bera izan zen Hegoaldean aldi horren protagonista nagusia, Iparraldean Frai Jose Areso izan zen gisa.

## II. ESKUIZKRIBUEN AZTERKETA

### 1. Jatorriaz<sup>5</sup>

Orain dela urte bi argitaratu genuen *Frantziskotarren artxiboak. Euskarazko sermoi eta antzeko eskuizkribuen katalogoa (XVIII-XX)*<sup>6</sup> obran du azterketa honek oinarri, bai Astigarraga, bai beste egile asko hori dela medio irten baita argitara.

Aita Villasantek aspaldi emana zigun Frantziskotarren komentuetako artxiboetako euskarazko eskuizkribuen berri eta altxor horren ikerketak gure hizkuntza eta literaturari ekar lizkiokeen mesede handiak jakinarazi.

Labayru Ikastegia horrekin erabat sinesturik, eskuizkribu-ondare hori katalogatzeko proiektuari esetsi zion gogotsu, Frantziskotarren Ordenarekin batera, eta bost urtean baino gehitxoago buru-belarri horretan ibili eta ostean, 5.817 eskuizkribu fitxatu eta 147 egile izendun –eta 512 egile ezezagun edo izenbako– identifikatu genituen.

Behin katalogoa amaiturik, eurok aztertzea genuen hurrengo zeregina, eta hala egin dugu egin ere. Lehenengo-lehenengo katalogoak erakutsitako egileen artean onenak hautu genituen azterketa banakoak atontzeko asmoz. Hartarako idazlearen eskuizkribuak zehatz aztertu genituen, dela hizkuntza zein literaturaren ikuspegitik, dela corpusaren tamainaren aldetik.

Egile izendunen artean dugu gure Juan Ignazio Astigarraga, eta denetarik berau lehenengo apartatu duguna. Hona hemen horretarako azalpenak. Haren biografian ikusi dugun lez, Astigarraga ez zen edozein izan, kargudun fraidea eta Probintzia mailan izen handia izan zuen. Bes-tetik, eta bere idazle-lanari begiraturik, bizkaieraren ia desagerturik dagoen Nerbio Goieneko hizkera erabili zuelako, eta baita idazle ugaria izan zelako ere, nabarmendu dugu garaitiko guztietarik.

Eta egiaz idazle oparoa izan zen gure Astigarraga, 90 sermoi bildu baitugu gorago aipatutako frantziskotarren eskuizkribu ondare osoa kontuz-kontuz zehatu ondoren. Ahaztu barik eduki behar dugu eskuizkribuok hornitzen duten sermoitegia ez dela egileak josita utzi zuen sermoi-liburua, geuk eginiko pilotxoa baino. Horregatik, bada, baliteke inoiz arean gehiago ageri izatea ere.

Guztira hiru komentutako artxiboetako sermoiak dira: Zarauzkoak gehienak, 75 eskuizkribu, Arantzazukoak 13 eta Bermeoko artxibokoak

<sup>5</sup> Argibide gehiagorako ikus “Aurkezpen fitxategia”, testuen transkripzio aurreko ataltxoa.

<sup>6</sup> Nagore Etxebarria, *Frantziskotarren artxiboak. Euskarazko sermoi eta antzeko eskuizkribuen katalogoa (XVIII-XX)*, Jarein bilduma, Bilbo: Labayru Ikastegia-BBK, 2005.

2 besterik ez. Zarauzkoak dira ondoen elkarri loturik daudenak, hau da, 96, 104 eta 110 zenbakidun karpitetara baturik daude jarraian ia denak. Arantzazuko artxibokoak, berriz, askoz mehatzago, 37, 39, 45, 48, 49, 51, 52, 53, 56, 71 eta 131 karpitetan sermoi banatxo. Bermeoko biok ere karpeta bana dute, 74 eta 81a.

Testuok esku artean erabili eta lasterrean konturatuko da irakurlea Astigarragak erabili zuen euskalkia sarritan ez dela oso uniforme edo zehatza. Bizkaieraz bai, baina gipuzkerazko aditzak barra-barra bestee-kin nahasturik ikusten dira; baita bestetara ere, gipuzkeraz ari dela berezko duen bizkai hizkera nondik-nahi agertzea. Dena den bizkaieraz idatzitakoak dira erdiak baino gehiago, 50, besteak gipuzkeraz, 60. sermoia izan ezean, hori nafarreraz taxutua dago.

Neke handiak hartu ditugu gure fraideak izenpetu gabe utzi zituen sermoiei izena ezartzen. Hogeik baino ez dakarte sinadura eta gainerako hirurogeita hamarrak geuk identifikatuak dira, Astigarragaren idazkeraren analisi kontuzkoa eginez. Egilearen corpora ahalik eta osoen aurkezteko egin dugun beharrau, egitasmoaren ekarpenik zindoenetarikoa bat dela uste dugu.

## 2. Egituraz

Atal honetan egingo ditugun azalpenekin batera, txukunen idatzitako eskuizkribuetarik baten irudia ekarriko dugu. Ez dira sermoi guztiak maila berekoak, ez hizkuntzaren erabileran, ez edukiaren egituraketan, ez luzeran, ezta euren kontserbazio egoeran ere. Ohikoena bost edo sei orrialdekoak izatea izan arren, badaude orrialde batekoak ere, denboraren zehar zatika apurtu, galdu edo erre egin direlako; beste batzuk, ordea, nahiz eta osoak izan, zirriborroz beterik daude, han zuzenketak, hor eransketak, eta inoiz paper-hegalaren bat sitsak janda ere. Hasierarik atzenerainoko idazkera jagona eta orri guzti-guztiak dituzten sermoiak ez dira asko, zoritxarrez, Astigarragaren kasuan ere.

Adibide lez dakargunau gure bildumaren 17. sermoia<sup>7</sup> dugu. Sermoi hori eredu ona da, edukia zehatz antolaturik eta egileak sinaturik egonaz gainera, noiz eta non predikatua izan zen ere baitakar. Bost orrialde ditu eta bizkaiera garbiaz idatzita dago, esan gura da, gipuzkeraren interferentziarik gabeko bizkaieraz.

Hala, bada, erlijio-konposizio mota honetako idatzien egitura aztertuz bide batez, gure fraidearen grafia ezagutzeko era ere izango dugu.

---

<sup>7</sup> Sermoi horren erreferentzia osoa hau da: Zar-104/1 (Zarauzko artxibokoa, 104 karpitaren lehenengo eskuizkribua).

a) Eskuizkribuaren izenburua, zer herritan eta zein urtetan esana izan zen eta egilearen sinadura.

→ *Sermón de la Resurrección del S(eñ)or. // Predicado en la villa de Miraballes año de mil ochocientos y diec[i]séis. // Fr. Ignacio de Astigarraga.*

b) Latinezko zita hurrengo. Bibliatik harturiko esaldiren bat, jorratuko den ebanjelioaren gaineko esaldi adierazgarriren bat.

→ *Christus resurgens ex mortuis iam non moritur; mors illi ultra non dominabitur. Pauli ad Romanos, cp. 6, v. 9.*

c) Sarrera berbak. Lehenengo paragrafoan entzuleei sermoia- ren gaia adierazi die, mamia laburbildu. Bigarrean hitzaldia puntu bitan banandu duela azaldu du. Paragrafo biotan predika- tzailearen hitzek Elizaren autoritate birenak gogora dakartzate (San Leon Aita Santua eta San Paulo), mezuaren egiaztapen gisa. Sarrerako hitzok Ama Birjinaren bitartekotasuna eskatzen amaitu dira.

→ *San Leon Aita Santuak dirausku poztu biar dogula (...) // Bai, neura Kristinauak. (...) Lelengo, bada, eztozu biar pekatu- ra biortu; bigarren, urten biar dozu pekatuaren pelleburuetatik (...) // O Jesus ona! O gura Salbagilia! (...) Auxe da biotz osua- gaz eskatuten dautsuguna, bitartekotzat ifiniten dautsugula berorren Ama, zeñnek estauskun ukatuko; eta onetarako, poz andi bategaz esan dagijogu[n] Angeruagaz: Abe Maria.*

d) Garapen atala, “Lenengo puntuba”. Mezuaren gunea ga- ratu du, helburua zein den zehaztu: “Eztozu biar pekatu- ra biortu”.

→ *Ze atsegin andija artuko neunkian, Kristinaubak, egija- gaz esan al banaixue San Pablo Apostoluak Erromatarrai esaten eutsena (...).*

e) Garapen atalaren jarraipena, “Bigarren punta”. Gorago finkaturiko helburua jadedesteko nolako bideak hartu behar dituz- ten azaldu die entzuleei: “Urten biar dozu pekatuaren pellebu- ruetatik”.


→ *Jesukristo gura Jaunaren Erresurrezinoa ez bakarrik izen zan beti biziteko, baita bere ez erijotziaren antzik artuteko (...).*

f) Amaiera zuzena du sermoiak. Fraideek ez zuten gehienetan euren idatzietan izenik jartzen baina jarri egiten zutenean, aka- buan eta Frantziskotarren Ordenako O.S.C.R.E. (*Omnia Subju- ciuntur Correctioni Scrae Romanae Ecclesiae*) siglarekin nahas- tean egiten zuten gehienetan.

→ *Amen. O.S.C.R.E. Frai Ignacio de Astigarraga.*

Hona hemen eskuizkribuaren facsimilea:

a)

















### 3. Hizkeraz

Zarauzko Misiolari Apostolikoan Kolegioan egin zen Juan Ignazio Astigarraga misiolari, eta han zeuden Añibarro zahar eta Juan Mateo Zabala gazteagoaren moduko maisuakandik ikasi zuen, hurrean, hizkuntza misioinen jarduteko ondo erabiltzen. Eskuratu ditugun datuetatik jakin dugu Zabala izan zuena misio-lagun sarritan, eta seguru antzean hura ere berbalagun Astigarragak izango zituen hizkuntzaren gaineko kezketan.

Ondo polito ikasi zuen aldean zekarren bere umetako euskaraz idazten, baina aurrera denbora emanik, alberrietako euskara-moduak ere ikasi nahi eta behar izan zituen, eta horietan ere bere burua duin agertzen jakin zuen: bizkai euskaraz kanpora, gipuzkeraz jardun zuen, eta bakanago baita nafarreraz ere.

Euskalki bakotxaren lexiko zein ezaugarri morfosintaktiko berezkoak ondo ezagutu behar izaten zituzten misioetan ibiltzen ziren fraideek. Hizkuntza bera, euskara, zuten ofiziorako tresnarik baliotsuena. Berbek argiak, zehatzak baina batez ere “ulergarriak” izan behar zuten, aurrean zituzten entzuleakana mezua helduko bazen. Horregatik, edonora joanean ere, Bizkaiko, Gipuzkoako zein Nafarroako edozein herritara mugituz gero, paperean idatzitako sermoi hura ahoz esan orduan, bertako hizkerara bihurtzeko gaitasuna behar zuten, gaur bapatean, bihar bi edo hiru aldaketatxo eginik... Astigarragak badakar 38. sermoian gaitasun eta ezagutza horren inguruko honako ohar hau, hala dio: “Nota, el *leitequean* de Viscaya, es *ditequean* de Guipuscoa”.

Bizkaiera eta gipuzkeraren arteko nahastea bada Astigarragaren sermoitegiaren ezaugarri garrantzitsua, ez bakarrik gipuzkera bizkaieratua erabiltzean, ezpada bizkaieraz ari denean ere Gipuzkoako euskararen eragina izatean. Batera nahiz bestera ibili, erregistro bietan ageri dira interferentzia nabarmenak. Ez da holan, baina, eredu formaletatik, edo ikasietatik, ihes eginik naturaltasunez etxeko euskaraz jarduten duenean. Halakoetan bizkaieraren berbakera zaharragoa darabil, arkaismoz jositako jario arinagoa eta jatorragoa, gure iritzian.

Dena den, eta euskalkien nahaste hori albo batera botata, Astigarragaren hizkerak ororen buruan herriaren euskararen ditu zuztarrak, bai lexikoan, bai egituretan. Euskara bizitik alden du egiten den bakarretan, erlijioari lotutako konzeptuak ematerakoan da, orduantxe puristagoa azaltzen baita, eta berenberegi hitz arruntari dautsala maila jasoko sinonimoa ipintzen du.

Gure fraidea sermolari fina ere bazen, idazten nekaezina. Hogei urtean, urtean-urtean baten ere huts egin barik, misioinen ibili zen ser-

moiak sortzen eta atontzen misio-egun horietarako. Ondo azpimarratzeko moduko ezaugarria hori, gainerakoetarik bereiztu egiten duelako; berak beste idatzi zuenik ez dago asko.

Beraz, Juan Ignazio Astigarraga idazle ona, oro har, eta oparoa dela esan behar dugu. Hizkuntza naturaltasunez erabili eta edukia zehatz azaltzen jakin zuen bere prediku bizi, argi eta zuzenetan. Horren seinale dugu sermoitegi mamitsuau.

Gure beharra hurrengoko txataletan sermoion idazkera aztertzea izango da. Hizkuntzari alderdi guztietatik oratuko diogu, batzuetan bes-teetan baino geldialdi luzetxoak eginez: lexikoa aratu dugu gehienbat, morfosintaxiaren ezaugarriak bereizgarrienak bildu ditugu, eta arlo fonetikoari azal-azaletiko iruzkina baino ez diogu egin.

Hemen aurkezten dugun Astigarragaren euskararen deskripzio xume honek aurrerago hausnarketa sakonagoak izan ditzan da gure gogoia.

### 3.1. Arlo fonetikoa

→ Bokalak

a) Harmonia bokalikoa (hauxe gehienetan)

/-ea/ > /-ia/: *bidian, nastian, fuertiakaz, humildadia, esatiarrik.*  
 /-ia/ > /-ija/ eta /-ije/: *guztija, geijago, loijak, balijau, pekatarijek.*  
 /-ua/ > /-uba/ (ez beti): *suba, eskuba, grilluba.*

b) Maileguen amaierako /-u/ eta /-o/ bokalen arteko alternantzia: *apostolu / apostolo, proximu / proximo, kristau / kristao, justo / justu.*

→ Kontsonanteak

a) Neutralizazioak eta nahasteak afrikari eta frikari txistukarietan; ia beti “ts” eta “s” grafiak darabiltza bizkar-hobietako zein goi-hobietako fonemetarako (gaurkotu bako transkripziotik hartutako adibideak): *gorputsa, batsuec* baina *iracatsi, dautsan*; eta *jacusenac, sensun* baina *zuan, izango.*

b) Bustidura edo palatalizazioa, /il/ > /ll/ eta /in/ > /ñ/: *billaka, ibilli, illundu, fraille, milla, zebillenian*; eta *baña, gañian, añ, deboziñoa, egiñeko, oraiñ.*

c) Kontsonante epentetikoak, /b/ eta /y/: *zuben, zituben, deuskuben*; eta *jaijgunerako, bijeramuneko, ebanjeliyoa.*

- d) Ordezkapena, /f/ > /p/ (gutxitan baina): *pinez* (< *finez*), *konpenserua* (< *konfeserua*), *potarikako* (< *botarikako*).

### 3.2. Morfologiazko berezitasunak

→ Deklinabidea

- a) Ablatibo zaharra: *-(r)ik*
- “... *denporarik* denpora erakutsirik Ogi milagrokoa...”. (5.)
  - “... *basamurturik* urten euren prometiduko errijan sartu artian...”. (29.)
  - “... bere denpora gutzijen, *gaztetzuterik* zar egin artien...”. (36.)
  - “... onelako gauzak *batik* bestera jaijetan igoroten dituezanak...”. (12.)
  - “... *pekatu rik* urteiteko, zeñtzuetan jausi zarian miserije?” (36.)
  - “*Arik* egun gitxi barru...”. (29.)
  - “... ekandu deungiak *egunerik* egunera artuko dau”. (17.)
  - “... eldu zintek ez estadure *zeiñetarik* urteitia kasi inposible egin lekizuen...”. (36.)
  - “... *egunerik* eta egunera gogortuagorik...”. (26.)
  - “Diferent[z]lijau ondo *artuterik* gezto artutera dagoanau...”. (29.)
  - “... zelan urtengo dozun jaube gogor *oneganik*...”. (17.)
  - “... resolbidugizu urteitia estadu *orretarik*...”. (36.)
  - “... eta *gaurrik aurrera* aterarik zañetatik pekatuaren arantza guztiak...”. (2.)
  - “... osatuteko pekatarije bere arimeko *gatxetarik*...”. (36.)
  - “... jakin daigun *onik* aurre zelan gorderik egongo garian...”. (20.)
  - “... *amarrerik* [olgeire eztoa gitxi, asko baño; *berrogeirik* laro-geira alanbere”. (33.)
- b) Prosekutibo zaharra: *-ti*
- “... bein *pekatueti* urten ezkeru...”. (17.)
  - “... bizitzak emongo deuskun *erremedijoti*, *eriotzati* librau ko gaituzenetik iges egin?” (13.)
  - “... pekatuaren menpeko edo *azpiti* urten dozulako”. (17.)
  - “... onetarako dendako atiak edo tranpia zabaldu rik *kanpoti* badauke...”. (12.)
  - “... ardura andijagoa artu biar dozu Jangoikoen *bidietati* ibiliteko...”. (17.)



- “... eta *emeti* Azkenengo Juizioko instantera artian...”. (75.)
  - “... baña Jeremiasen *aoti* dirauskuna da, madarikatuak diriala beraganik iges dabiltezan semiak...”. (17.)
  - “... ez bide onetik ezpada *eskandalokoti* suintzat izatia jazo leki-zun nai zenduna...”. (75.)
  - “Nai itsasoan sartzen gariala, nai *munduti* zabaltzen gariala...”. (12.)
  - “... eta *orregaiti* bere, biortu zanian Aste Santu onetan beragana...”. (17.)
  - “... arako persona neuk laztan *dodaneti* alde egitia...”. (3.)
- c) Muga-adlatibo zaharra: *-gino*
- “Ontzi andi batek *erdigiño* beterik egon arren...”. (23.)
  - “... sepultura ta tenploko *belogiñoakoak* sentimentoz beteko zirala...”. (1.)
  - “... plaza *agirigiñoakoetan* ez da besterik entzuten...”. (8.)
  - “... *orangino* inder ta abilidadiak pekatuetan emonik?”. (23.)
  - “... ondo luze etsera *artegiñoakoa* egiten jatzula...”. (25.)
  - “... arako pekatari luxurijako pekatu loi bere *zenzunginokoa* kenduten dautsenian...”. (79.)
  - “... zenbat *pekatugino* parkatuko deutsen neurrija...”. (23.)
  - “... zure begirakuna eta gorpetzeko *mobimentoginokoa* ondo eskribidurik dagoz”. (79.)
  - “... ezaututeko *noragiñoakoa* izan aleitekian Jaunaren miseri-kordia...”. (25.)
  - “... ainbeste peste, gose ta gerra, mendijak, bidiak, plazak ta *etxeginokoa*”. (79.)
- d) Artikulu hurbila
- “... nik *kateoorrefek* urraturik, zauriok osaturik deskantsu emongo deutsuet...”. (49.)
  - “Nik zuri izatia, osasuna eta ondasunak emon *deutsudazanonek*; nik zure amudioz Kurtze gogor onetan agoninan sartuta il gure izan *nenduonek*...”. (11.)
  - “*Janarijonek* osasun osoagaz manteniduten zituzen...”. (13.)
  - “... lur edo *soloau* madarikatua izango da...”. (17.)
  - “... euren buruai pekatu *loijau* dala medijo...”. (79.)
  - “... gura dozu ikusi zeura burua estadu *negargarrijorretan?*”. (36.)

## → Aditzak

## a) Aditz trinkoak

## EGIN

– “Negar *dagigun*, suspirioak bota *dagiguzan*”. (41.)

## ENTZUN

– “... ez *dantzuzu* Jangoikoak erreguz...”. (10.)

## ERAXEGI

– “... ago zabalik zelan *daxakon* bazagoz begira”. (8.)

## ERETXI

– “... zubei esan baño lenago, *deretxat* ondo izango dala esatia...”. (52.)

– “Gitxi *deretxo* oraindio oni...”. (83.)

– “... ezta gain gatz zeinde eurei *deretxoen*...”. (34.)

## ERION

– “... negar-malkoa *zeriola* dirautso aitari...”. (10.)

## EUKI

– “Zer[k] *zauzka* orren preso...”. (74.)

## IKUSI (&lt; EKUSI)

– “Bertan *dakusguna* ezta beste gauzarik pekatu...”. (20.)

– “... gaur *dakusdana* ikusirik...”. (9.)

– “Onelan *dakust*, N(eure) K(ristinaua)k, gaur mundu guztia Zeruko bidetik erratu...”. (25.)

– “... alkarren odolagaz eskuak bustirik *dakusgu*...”. (26.)

– “... bada Jangoikoak ondo *dakus* zeuen onerako”. (39.)

– “... lastimagarriturik lurrian jausirik *zakusdana*!”. (41.)

## IRAUTSI

– “... berak *zirautsen* pekatuak egitera bazetozan...”. (23.)

– “... *eztirautsut* ezer baña gero zerbait esango deusut gauza orren ganian”. (12.)

– “Bai zuri, gorrotoduna, *dirautsu* Jang(oikoa)k parkatu daiozula...”. (11.)

– “...baki[zu] zer *dirautsazu[n]?*”. (11.)

- “Jangoikoak berak *dirautso* Abraan Santuari...”. (23.)
  - “Guztiak, Jauna, biotz osoagaz *dirautsue*...”. (11.)
- b) Geroaldiko inperatiboa
- “Baña ondo begiratu *eikezu* zelan etorri jatzun gogoratasunori...”. (8.)
  - “Barau egiten dozunian (...) ez *zaitekez* agertu lagun artera arpegi tristeturik, burua beraturik...”. (30.)
  - “... lotsa-bildurrak kendurik guztiak ondo konpesau *eikezuz*...”. (34.)
  - “Egunian-egunian bere errosarijo santua errezetia ezegatik bere aztu *ezpekizu*...”. (35.)
- c) *Eroan* eta *joan* aditz laguntzaileak
- “... eta egunerik egunera su geijago edo inder geijago artu *daroa*...”. (22.)
  - “Egingizu gaisoak egin *daroiena*...”. (3.)
  - “... Jangoikoaren amodijorik bagarik humildiaren papelak egin *daroezanak*...”. (22.)
  - “... eta ak ondarretik urten ez *daroiana* legez...”. (23.)
  - “... non igoro *daroadazan* ordurik onenak...”. (3.)
  - “... alantxe ondasunak itsutu *daroiez* aberastasunak...”. (25.)
  - “Ez dago birtuterik geijago gugaz erruki eukitera Jangoikoa ekarri *daroanik*...”. (22.)
  - “Ikusi *daroazue* zelan gaisorik dagozanak...”. (3.)
  - “... ifiniten dau konfesoriak bere prudenzijak esan *daroijon* penitenzija...”. (3.)
  - “... nire ardi-bandara etorri *doazan* otso, leoi eta beste aberi garratzak baño bere garratz ta sendoagoa?”. (37.)
- d) Aditz nominalizatuen ezezko esaldietako indargarria: *ezeite*
- “... bere begiak zarratzen dituz zu ikusi *ezeitiarren*...”. (2.)
  - “... euretara biortu *ezeiteko*...”. (3.)
  - “Eztozu egingo bere pekatur[lik] penitenzija kunplidu *ezeitiagaz*...”. (3.)
  - “Eta berak bezeru bat galdu *ezeitiagatik*...”. (12.)
  - “... ta sarri jazo leiteke onango esturaren baten lagundu *ezeitia*...”. (12.)
- e) *Erein* aditz faktitiboa
- “Zegaitik il *erañ* zituzan ogeta amar milla Israeldar”. (23.)

- “... arako limosnaren bidetik Zeruko atiak idigi *erain* biarrian...”. (25.)
  - “Nok sinastu *erain* euskijon Dinari...”. (17.)
  - “Onek negarrari emon *erañ* eutsan, onek odolezko izardia botarazi eutsan...”. (73.)
- f) Iraganaldiko baldintza
- “... gogoan dituela emen munduan galdu zituan ondasun andiak eta ezaturik an ain erraz irabazi *eukela* Zerua...”. (18.)
  - “Ez beñtzat, bada, jausi zana legez, bestia bere jausi *zeitiekian*”. (34.)
- g) Geroaldi kutsuko denborazko subjuntiboa
- “... agindurik bera il *zeitianian* enterrau leijela...”. (80.)
  - “... ikusi *dagizenian* ezerzitu ikaragarri bat legez bere aurrian...”. (18.)
  - “... ta ikerez beterik geldituten dira entzun *dagijonian* predikadore bateri...”. (79.)
- h) *Ze* ezezko adberbio zaharra
- “... aurkituten ez badozuz, *zegidazu* siña[stu]...”. (38.)
  - “... eta etxea galdu *zeleion* bildurraz urratu zuan”. (51.)

### 3.3. *Sintaxiaren gaineko oharrak*

→ Perpaus erlatiboak

NON

- “... eraman zeben Kaifasenera *non* zeuden Eskriba eta Farisioak Konsejuan alkargana bilturik...”. (16.)
- “Urteiten dau enbra lotsa gitxiko ta desonesta batek dantza gezto batetik, *non* saltu ta brinkoka bere gorputz guztija izarditu ta galdu daben...”. (37.)
- “... eta joan zan Infernuko bodegara, *non* edango daben Dragoi itzelaren beztuna...”. (37.)

NO(I)Z

- “Zu zara arako munduko soberbijoak *noz* euren ondasun-aberastasunian geijago esperantza ifinirik bizi dirian”. (37.)

## ZEIN

- "... bostgarren kondezinoa, *zein* dan Satisfazinoa...". (3.)
- "... eztau izen biar kozineruaren kondezinkoak, *zeinek* baka-  
rrik begiratuten daben maijen dagozanai emongo deuten gus-  
tua...". (3.)
- "... ifiniten dau konfesoriak bere prudenzijak esan daroijon  
penitenzija, *zein* txikija izen arren pekatuak merezidu daudien  
parian...". (3.)
- "... ifiniten dautsezala erremedioak, *zeintzuek* jagon dagijen  
ekandu geztoti...". (3.)
- "... Garizumakoa izanik apartekoa, *zeñean* iñoz baño geiago  
konsagratu biar eran Jangoikoaren serbitziora...". (10.)
- "... eta *zein*egaz eternidade baten egon bi[ar]ko daben orditu-  
rik...". (37.)

→ Konparazio-perpauak

## BAIXEN

- "Guraso ta nagosiak geiago biar due, zerbitzalle ta umiak bai-  
xen; aberatsak, pobriak *baixen*: tratulariak ta komertziantiak,  
nekazari utsak *baixen*. Errazago da garbitzen askoren alkonda-  
ra, olagizonena *baixen*...". (15.)
- "... a *baixen* erreztasunagaz jausiko lurrera...". (37.)
- "... eta gero berak uste eben *baixen* ain erraz ez jazo-  
rik...". (23.)

## ZEINDA

- "... ez zan berez añ errespetogarria, *zeñda* dirian gure ele-  
xak...". (12.)
- "... ez zirian zelebretan añ misterio andiak, *zeñda* zelebretan  
dirian gure altareetan...". (12.)
- "... zu Sakramentuen mantenimentuagaz ez bazara ariman ain-  
beste lodituten *zeinde* beste asko...". (24.)

→ Denbora-perpauak

## APENAS

- "*Apenas* Apostolu Santuak Jerusalemen Espiritu Santuen graziaz  
beterik asi ziran predikatzen...". (7.)
- "Bada, *apenas* Apostolu Santuak Espiritu Santuen argiz izan  
zirian argituak...". (7.)

- “Baña *apenas* zauri one[e]k osatu dirian...”. (7.)
- “... *apenas* gaixo batek artuta agonina larri baten ostian azkenengo arnasa emongo daben...”. (9.)

## EZKERO

- “... mundua egin baño lenago añ andia ziñana, zeñda mundua egin *ezkero*...”. (1.)
- “... eta urrengoko goxian eguna baño lenago urteiteko gauba egin *ezkero*...”. (12.)

## ORDUAN

- “... zer billatu dabe eriotzan, anbeste urtian kudizia eta bani[da]deko lo gogorretik *irazartute-orduan?*”. (25.)
- “... gero *kunplieta-orduan* inpedimenturen bategatik ezin kunplidu badau...”. (3.)
- “... ez ondo aitutarrik zer egiten daben pekatu *egite-orden*...”. (21.)

## → Ondorio-perpausak

## HAIN / HALAKO / HAINBESTE... EZE(N) / ZE

- “... dirausku *ain* dirala andijak Jangoikoaganik artu doguzen grazija ta mesediak *eze*, egin arrik guk alegin guztija, alperrik izango da guztija...”. (29.)
- “*Añ* da gauza biarra gurosoari zor jakon sokorrua *eze*, S(a)n(to) Tomas Jakintsuak esaten deusku...”. (7.)
- “*Alako* moduan zabaldu da pekatuau *eze*, esa[n] leike...”. (8.)
- “Baña kontu daigun *anbesteko* subak artu ebela zure soñekoa *eze*, zuk alegina eginda bere ezin inondik amatau dozu...”. (8.)
- “... *ain* andijak izen dira *ze*, entzuten izen daben guztijak bide guztijetan arritu ta bildurturik geratuten izan dira”. (20.)

## HAIN... ZEINDA

- “... izanik *añ* biarra salbauko bazare, *zeñda* bera bagarik galdu biarko dozuen?”. (34.)

## → Kausazko perpausak

## -(E)NA LEGEZ

- “... Jesukristo barriro il ezeiteko resuzitau *dana legez*...”. (17.)

- "... bada sarriten medikuek agindu biar izaten *dab[e]na legez...*". (3.)
- "... guzurrak arinak *diriana legez*, ez kunplietia penitenzija pekatu beniala izengo da...". (3.)
- "... atsedenari Sabaltum] dei egiten *eutseena legez*, andik etorri zan deskansuzko egunari Zapatua dei egitia...". (12.)
- "Bera iru egun one[el]tan gorputzian ilik egon *dana legez*, egon gara gu bere pekatubagaz ilik...". (17.)

## ZERREN

- "Nere Aita, arren parkatu egiezu, *zerren* ez dakien zer egiten duen". (11.)

→ Helburuzko perpausak

## ZEIN (subj.)

- "Neure bezerua zan, *zein* beste bategana joanik galdu neijan...". (12.)
- "Maldezinoiau zuben ganera jausi *zeñ* daidin...". (17.)
- "... begira ostera euretara biortu *zein* zaitez...". (17.)
- "Bildur zare konpesoriak pekatu ori agertu *zeñ* dakizun?". (34.)

## -(E)N AMODIOZ (subj.)

- "... gosez il ez *nadin amodioz*, arren, alogereko bat legez artu naiala". (10.)
- "... erre *etzaiten amodioz* auzoko bat etorriko balitxatzu irazartuten...". (27.)

## -TARRIK / -TEARRIK

- "... pekatarija *aberastutarrik* bere anditasun guztil[ja] gitxiturik ostija konsagraðu baten...". (29.)
- "Zerutik Lurrera ni *salbetarrik* etorri zan...". (31.)
- "Aginduten dautsu guzurra esateko ekandua *kendutiarrik...*". (3.)
- "... berari lagundu *ezeitarrik...*". (3.)
- "... ezpada denporia *igarotiarrik...*". (8.)
- "... eta eurek negarrez esango deuskue, onelakoak *batutiarrik...*". (8.)

→ Perpaus kontseziboak

ARRIK

– “... izen *arrik* engañadurik, jan baudién gura lélengoko gurasoak fruta eragotzija...”. (29.)

### 3.4. *Hiztegia*

#### A

ABARKA

→ ABARKA-JOSTE: “Gizonak bazaree, jaijegunerako gorde daroazuez abarka-jostea...”. (12.)

→ ABARKA-PIKETA: “... abarka-piketan puska bat, josten beste ainbeste...”. (12.)

ABAZUZA: “... aberijak ilten euskuzala, abazuze, arri bildur, trumoi ta erraio-zentella...”. (37.)

ABELETXE: “Bai, nigatik abeletxe pobre batian jaio ziñan...”. (1.)

ABERE: “... ez zeure aberijak, ezta zeure etsian dagoan kanpotarrak bere...”. (12.) / “... etzaitte il aberija bat legez...”. (37.)

ABISU → ABISU EMON: “... onelan lenago abisu emon eta emendatuten ez badira...”. (75.)

ABONDO: “... bere seme edo oñekoai emongo eutsiela zorioneko erri bat gauzak ugari ta abondo izango zituena...”. (23.)

ADABAU: “Jauna, nezesidadia neunkan: bijeramunerako zarrak adabetan egon nintzan...”. (12.)

ADI: “... zer egiten dozue or Zerura adi arri bat eginik?”. (39.)

ADIERAZO (< ADIEROZO): “... gaur kantau dan ebanjelijoak berba gitxi adierozoten dau...”. (20.)

ADIKATU: “... adikatu edo neke handiz bete biotza...”. (18.)

ADIN: “... ta beste ganeko kriadura ezauera ez adin bageko guztiak...”. (28.) / “... borondatea badezue, baña adin edo podererik eztezue...”. (40.) / “... eta aurrera bururik g[eli]ago altzetako adin bagarik itxiko dituan...”. (75.)

→ ADINEKO EGON: “Eta dei egitekoa adineko egon arren bere, erantzun leikezu...”. (38.)



ADU

→ ADU GEZTO: “Zeñ diferentiak egun one[elk] igaro dituzuben adu gezto-koetatik!”. (48.)

→ ADU ON: “... benetan zara zorionekoa, eta inbidijagarrija da zura adu ona...”. (37.)

AGERTU: “... etorri ziran askoren artian etorririk ere iltzaillia, bereala eldu ziola iltzallari eta agertu pekatua...”. (1.)

AGINDU → AGINDUA EGIN: “Egizu zure aldetik Jangoikoaren agindua...”. (1.)

AGINDUPE → AGINDUPE: “Pake andi baten genduzkan etsaiak bere agindupean...”. (2.)

AGINDUPEKO: “... ezauturik galdeetatik Herodesen agindupekoa zala...”. (16.)

AGINTASUN: “... eta erriko guztien ganian agintasuna daukelako...”. (7.)

AGINTZA: “Defuntu santuak emen munduan anbeste agintza egiñagatik penetan zagozenak...”. (72.)

AGIRI → GAUZA AGIRIA IZAN: “Gauza agirija da sarri-askotan erriko buruak gizon artez...”. (85.)

AGONINA: “... sartuko da laster agoniñan...”. (9.)

AGUR → AGUR EGIN: “... jolas ta fiesta pekatuzkoai agur eginik...”. (8.)

AHAIDE / AHAIDA: “Igualmente, bazara ezkondua, egingo dozuz pekatu bi (...) Aida bazara, bardin...”. (33.)

AHALA: “... artu ala baño geijago ifiniten bajako”. (37.) / “... ta parka eskaturik ije eroan ala emon eustan...”. (80.)

AHAZTU → AHAZTURIK BIZI: “... zeñ mesede onen mesedez azturik bizi geran...”. (1.)

AHO (< AGO) → AHOTAN HARTU: “... agotan artu bage gitxi gorabeherarik...”. (33.)

AHUSPEZ: “... baita ere auspaz lurrian jarri zela...”. (40.)

AIDE / AIRE: “... agertu ereiten eutsela aidian zorigeztoko erriaren ganian...”. (75.)

AITOBE: “... zeure aitobe Nabukok legez eta Ezekiassek legez?”. (37.)

AKORDU: “... ez guk are[el]n akordu edo gomutarik artzia baño?”. (72.)

ALBAIT: “Allegatu zaitzeze albait erreberenziarik andienakin Jaun orren buru sagradura...”. (1.) / “... ta guazen albait ondoen erakutsitze-ra...”. (68.)

- ALBERREINU: "... pobreza ta errielta franko barruan, burla ta barre albe-  
rreinuak kanpoan...". (47.) / "... bere pekatu andijak ifini zuan albe-  
rreñu guzien burlagarritua...". (80.)
- ALBERRI: "... alberri guztietako elexa guztiak desiertu eginik geldituten  
dira...". (12.)
- ALBOROKE / ALBOROKA (< ALBROKA) → ALBOROKEA EGIN: "... ez-da errietan  
ganaduren batzueen albrokia egitia bere...". (12.)
- ALDE → ALDERAKO: "... pasio ta eriotzako merezimentu neurribagiak gure  
pekatuen zorren alderako". (3.)
- ALDERATU: "... eta bildurturik bestien jauskeriagaz, ez bakarrik pekatuen  
okasiñotik alderatuten da...". (22.)
- ALGARA: "... zantzo z ta algaraz zelebretan ditubenak...". (8.)
- ALKONDARA / ARKONDARA: "... arkondara, gona, frakak konpondu-  
tia...". (12.)
- ALOGEREO (< ALOGERAKO): "... onelako otsain ta alogerakoak zuben etse-  
tatik...". (8.)
- ALPER → ALPERREKO: "... ta izango dira alperrekoak ta pekatuz beteriko-  
ak...". (3.)
- ALPERRERIA: "... baña zeura alperrerijaz jazo bajatzu, pekatu...". (3.) /  
"Emen pekatu egiten daroe arako alperrerijaz ardurarik artu ezeitia-  
gatik uts egiten dabenak...". (12.)
- ALPERRIK → ALPERRIKO: "... bere promesak, bere negarrak, guztiak alpe-  
rrikoak...". (28.)
- ALTARA → ALTARA-AURRE: "... zeuen esturetan Marijaren Altara-aurre-  
tan?". (83.)
- ALTZAGARRI (< ALTZAIARRI): "... esija ifiniten, onetarako egurra ekarri, kon-  
ponduten, altzajarrija egiten ordu bat...". (12.)
- AMARRADU: "... kordel fuertiakaz amarradue...". (21.)
- AMATADU: "... eta kandela deungaro amataduaren usain gezto txikija ezin  
sufridu euenak puska baten...". (18.)
- AMITU: "... ikusi eben esku batek kenduten eutsela amitua...". (55.)
- AMODIO → AMODIOZ: "... gosez il ez nadin amodioz, arren, alogereko bat  
legez artu naiala". (10.) / "... zure amodioz burua arantzaz josirik,  
bulerra idigirik...". (11.)
- AMORE: "Eta denpora onetan, noz geijen egozan erretan euren bijotzak  
Jangoikoen amorien...". (39.)

- AMORRU: "... plazara edo merkatura zerbait saldutera joanik lauziri geijago artuko deben amorrugaz...". (12.)
- ANABAKA: "... ondo pozik jango zituben laguñekoak ateretan zituben sustrai ta anabakak...". (27.)
- ANAITU: "... Jangoikoarekin anaitutera eta bat izatera". (1.) / "... beragan anaitu ziran birtute guztiak...". (63.)
- ANBAR → ANBAR-USAIN: "... perla, arri prezioso eta anbar-usainez beterik?". (12.)
- ANEGA: "Nik eun anega gari...". (59.)
- ANTZA: "Eginik Jangoikoak gizona bere iduri ta antzera...". (1.)
- ANTZEMON: "Gizon nai enbra errespetokoak, bera nagosi bada, antzemon biar dabe...". (8.)
- ANTZU / ANTZO: "... ardi antzoa izan ez zintez...". (1.)
- APAL: "... auzoko idi txordo ta apalaren inderrak gogoan dozuezala...". (12.)
- APARTATU: "... pekatuak anbete Jangoikoaganik apartatu zuan gizona...". (1.)
- APARTEKO: "Beste Santoen orazioak Jangoikoen atsegín andikoak izan baziran ere, nere Aitarenak apartekoak izan ziran...". (4.)
- ARANTZA → ARANTZA-PUNTA: "... ala azitzen ziran bere biotzian dolore oien arantza-punta zorrontzak...". (45.)
- ARATU: "... kontuan ifiniten dituz erri atako guztijak aratu daijen agiri bada...". (17.)
- ARDURA → ARDUREA HARTU: "Suagaz dagoan ikaztobijari arduria artu biar dautsezu...". (12.)
- ARGAL: "... edo gorputz argalekoa dalako edo nekazalia dalako eta biar egitia galarazoten deusalako...". (3.)
- ARGI
- ARGI EGIN: "... Eguzkiak zeruan argi egiten duan bezala...". (14.)
- ARGI-IZAR: "O Luzifer goixeko argi-izarrak baño argia izan ziñana!". (28.)
- ARGI-ZUZI: "... argi zuzi batek legez argi egingo dau beti erreten eta inoz akabadu bage leku negargarriatan...". (18.)
- ARGIRO: "Eta nik gaur ain argiro berba egitia ontzat artu biar deustazue...". (38.)

ARGITZAILA: "... bada jaio da ura izar eder Fr(anzis)ko Elixaren argitzailia...". (14.)

ARIN → ARIN-ARINKA: "... ta gero arin-arinka mantillia galtzarpian artu[ta]...". (12.)

AROTZIA → AROTZIAN: "Pek(a)tu egiten dabe bere argintzan, arotzian, errementaritzan...". (12.)

ARPEGI

→ ARPEGI ONA EGIN: "Ez, ezpada ala[n] gauziari arpegi ona egiten deutzazunian baño...". (8.)

→ ARPEGI ILUNA IFINI: "... eta osterantzakoa bada, gitxienez arpegi iluna ifini biar dabe...". (8.)

ARRAIA: "Eskapau bada, donzellak, oi[l]loak arraijaganik egin daroena legez...". (85.)

ARRASTAKA: "... baita bere ugazabak arako otsainak arrastaka domeka ta jai guztijetan erabili daro[el]nak...". (12.)

→ ARRASTAKAK EGIN: "... anbeste izardi eta arrastaka egin zebena...". (19.)

ARRATE: "... arrate edo zabalik, edo bigundurik dagozanak ifinitia...". (12.)

ARRATSARTE → ARRATSARTEKO: "... begiratugizu arratsarteko bizija dozula...". (37.)

ARRIK: "Eta ezautu arrik Berak gugaitik egin dituan obra batzuek...". (29.) / "Zelan zeura pekatuak ondo konfesadu arrik...". (29.)

ARRO: "Eguzkiak, Illargiak, Izarrak, arroak, aitzak ta bestiak, sepultura ta tenploko belogiñokoak sentimentero beteko zirala...". (1.)

ARTAJORRA → ARTAJORRAN: "... nai soloan artajorran, laijetan...". (12.)

ARTAZURITZALE: "... arako neguko gaubetan alkargana, edo guralak, edo ezpatariak, edo artazuritzaleak baturik...". (8.)

ARTE: "... guriak Jangoikoa dan arte guzian...". (5.)

→ ARTEAN: "... ta beste grazija eriotzako orduan, artian gaiztoa izanagatik...". (38.)

→ EZIN ARTEK HARTU: "... eta alan guztia larriturik inondik bere ezin artek arturik...". (9.)

→ -RA ARTEAN: "... orregaitik pekatuan eriotza aurrera artian biziteko bildurrik ez dozu...". (26.)

ARTEGI: "... eta zere bizker ganian arturik, ekarri gozu[z] zure artegira...". (2.)

ARTERIK: "... arterik bakarleku batera eroanda, an guztijak arrika il dagi-jela...". (12.)

ARTEZTASUN: "Jauna, zuk ondo dakutsu gure testigentzaren arteztasuna...". (9.)

ARTO → ARTO-GARI: "... beste alde bateti eurek kenduko deutsue zure kamarako arto-garije...". (24.) / "... au da nekazaliak arto-gariz kamari[alk] beterik daukazanian...". (64.)

ARTXU: "Dira artxo batzuk birtutiaren una jaten daudena...". (33.)

ASAGO: "Ez gaitez an joan erri asagoetara kastigatzale one[e]n bila...". (10.)

#### ASE

→ ASE ETA BETERIK: "... orre[e]k ase ta beterik ibilli deitien...". (64.)

→ ASE-ASE EGIN: "... pekatuz bijak ase-ase egiten diriala gurasoak lo dagozan artian...". (24.)

ASKO → ASKO IZAN: "Jesusen dei amodiotsuak asko ez badira zuben biotzak biguntzeko...". (1.)

#### ASMU

→ ASMUAU HARTU: "... domekan artuten dozuez asmuak etxeko bazterrak konponduteko...". (12.) / "Baña, Jauna, zetarako biralduteko asmuak artuten dozuz?". (66.)

→ ASMUETAN IBILI: "... aurrera igaroteko asmueta[n] ebiltzenian...". (28.)

ASPERTU: "Asperu pekatuz, negaturik apartatu gaitezen Jesusen odolen pisutik...". (1.)

ASTEGUNDU: "Ozta meza bat entzunik, eta ez gitxitan uts egiñik, jaijak astegunduten dira...". (12.)

ASTI → ASTI HANDIKO: "Asti handiko gizona da, ezta belurik...". (12.)

ASTILLA → ASTILLAK EGIN: "... jaiegunian surterako mukurra ta astillak egitia...". (12.)

ASTUNTASUN: "... lotu zaite pisko bat pasu onetan zure pekatuen astuntasuna ikusteko...". (73.)

ATARI: "... ezpada mundu guztija salbatzeko iriki dezube ataria...". (2.)

ATREBIMENTU: "Zertan geldituko da zure atrebimentu zorua!". (1.)

- ATSEDON (< ATSadON): "... ta zazpigarrenian atsadongo dozu, deskansua artuko dozu...". (12.)
- ATXURLARI: "... atxurlari[en] oñetan soberbo erituak humillatu ditu...". (47.)
- ATZAPAR: "... kateak urraturik bere atzapar artetik iges egin ta salbatzen zirala...". (4.)
- ATZEN: "Fediak erakutsiten deusku munduaren atzenian...". (9.)
- ATZENEZ: "Atzenez bere despedi[da]ko Amari egin zion itza...". (90.)
- ATZERA: "... izen zirielako atzeriak sinestuten bere Erresurrezinoko testimoniadora...". (39.)
- ATZEREAGO: "... oiek guziok baño atzereago ikustean Jangoikoaren mesedetara...". (5.)
- ATZERAKUNTZA: "O atzerakuntze madarikatua, ainbeste arima Infernuan sartu dozuna eta sartuten zagozana!". (36.)
- ATZETASUN: "... biortuko daben Berba Santua entzuteko enfadu ta atzetasuna baño?". (13.)
- AULKI / AURKI: "... eldu zan josirik edukitzera mundu guzti aulkizat idukiko oñak...". (2.)
- AURKITU: "... ordu atan Jangoikoen aserrerik libre aurkitu zaitezten...". (38.) / "... onelan aurkitu daigun bere pasinoaren frutua...". (40.)
- AURRE: "... berbia emoten deusut ez geiago ofensarik aurre egiteko...". (11.) / "... guztijok arturik debozino egijazko bat goazan aurre". (30.) / "Aurre obiak izatiagatik?". (38.)
- AURRENEAN: "... igara zitzaion konbit aurrenien erakutsi zuan poz ta atsegiña...". (23.)
- HONIK AURRE: "... jakin daigun onik aurre zelan gorderik egongo garian...". (20.)
- AURREBIDE → AURREBIDEA EMON: "... arako besteai jai-domeketan luzero bear egin dagijela konsejua, aurrebidea ta gantza emoten dautseenak...". (12.)
- AURRERANTZEAN: "Nere gauzak orañ artian legez, aurrerantzian ere zuretzat izango dirade guztiak...". (27.)
- AURRETU: "Zer aurretuten dozu ibilijegaz orain artian legez...". (36.)
- AUZI: "Bide ona da osasun, diru ta denporia, auzi, inbidija, gorrot[an] bizitia...". (24.)

- AUZILARI: “Zer zugaz, auzilaria, gorrotoan anbeste urtian zagozana?”. (9.) / “... bengatibo, auzilari eta enbidijosoak berba edo espresino pikantietan...”. (20.)
- AUZO: “... eta sokorrituak izan ditezen erriau konpontzen duen auzo edo bezino guztiak...”. (4.) / “... zure auzoai eskandalua...”. (28.)
- AUZOTEGI: “... ez ni bakarrik, baita auzotegikoak...”. (30.)
- AZALETIKO: “... ezta beste gauzarik ezpada gauza azidental edo azaletiko bat...”. (33.)
- AZERTAU: “Bada, auxe berau azertauko da zugaz...”. (17.) / “... gura Salbadorien jaijetzarik 1683garren urtian azertau zana...”. (20.)
- AZKENDU: “Baña noz a[z]kenduko neunke, esan bear banitu mundutarrak sarturik onango pekatu andijetan...”. (37.) / “... eta onegaz azkenduko doktrina...”. (85.)
- AZPILDU: “... pañuelua zuritu ta azpildutia...”. (12.)
- AZPIRA: “... atea, burdija, azpiria manaturik badagoz...”. (12.)

## B

- BAGE: “... ontzi loradunak eta beste serbitzijo bagetarako guztijak dira masa bat...”. (31.)
- BAGEAN: “... edo orañdio bete bagian zagozan...”. (28.)
- BAIEZKO: “... bere amaren bajezkoagaz joan zan erromerija ikustera...”. (17.)
- BAKAN: “... sarri konpesatzen diranak, bakan egiten diranak baño...”. (15.)
- BAKAR: “... nai mendi bakarretako atx-bitartetan bizi nai izan dagizula...”. (34.)
- BAKARLEKU: “... arterik bakarleku batera eroanda”. (12.) / “... gose, otz, lo onik ezin egiña, bakardade...”. (15.)
- BAKARTADE / BAKARDADE: “... zer bakartade illunean utzitzen nozun!”. (1.)
- BAKARTU: “... alargundurik eta bakarturik legez geldituta...”. (27.)
- BAKE → BAKE(Z) SANTOZ: “... munduan bakez santoz eta Zeruan betiko gloriar...”. (6.)
- BAKEGILA: “... Jangoiko ta gizonen bitarteko edo bakegillaren billa...”. (73.)

BAKETU: "... biotzeko samintasun bat ezin sosegadu edo baketu dituen a ipintzen die...". (5.)

BALIAU: "Ondo dakigu, Jesus maitia, baliau zaitekiala gu baño instrumentu obiakoagaz...". (27.)

BANA → BANAZ-BANAZ: "Gaur artian zure doloriak banaz-banaz etorri zaizkitzu...". (90.)

BANAKATU: "... ta bere Dizip[ul]loen eskuetatik banakatu edo partitu ziozkan gizon urai...". (70.)

BANDA → ARDI-BANDA: "... nire ardi-bandara etorri doazan otso, leoi eta beste aberi garratzak baño bere garratz ta sendoagoa?". (37.)

BANDO

→ BERE BANDO: "... eta nok bere bando urteiteiaren esperantza guztia galdurik...". (75.)

→ -(R)EN BANDO: "... Santurik geijen al daben bat pekadorearen bando...". (35.) / "Au da nik pekatarijen bando esan al neikian guztija...". (38.)

BARATZ: "Bai, Fr(an)z(isko)ren erlijioko baratz ederretik ateratzen dira anbeste seme santo...". (14.)

BARAUR / BARAU: "... baraur, orazio, naiz beste guziak utsak dira au gabe...". (67.)

→ BARAUR EGIN: "... nigatik baraur egin...". (1.)

BARBERU / BARBERO: "Mediko edo barberoak kontrako erremedio eman dio...". (60.)

BARDINDU: "... munduko andiak pobriak azpiratu gurarik, pobriak arefe[k]kaz bardindu gurarik...". (26.) / "... gere pekatuakgatik merezi doguzan kastigu andiagoak, proximuen gure kontrako oker gitxi batzukaz bardindu gura deuskuz...". (77.)

BARREGI: "... gauza itxusia ta beltza, barreg[el]ia, grazian dagoan animaren parian...". (68.)

BARRIZTETA: "... miraririk andijenak ta miragarrijenak barrizteta...". (12.)

BARRUN → BARRUNEAN: "... oi bigunen barrunian olanda ta gasazko izara pinez ingaraturik...". (74.)

BASABEHI: "... basabei kosoak kortan baño geijago...". (12.)

BASAMORTU (< BASAMURTU): "... beren errirako bidian Egiptotik basamurtuan bizi izan ziranian...". (5.)



## BASO

→ BASO-BEHAR: “Baita bere baso-biarrian bai inustia, landarak atara ta ifinitia...”. (12.)

→ BASO-MENDI: “... eta baso-mendiak erriaz guztiak galduko ditutana...”. (75.)

BASTUKERIA: “... plaza agirigiñoakoetan ez da besterik entzuten izen txarrrak, bastukeriak...”. (8.)

## BAT

→ BAT EGIN: “... eta bata bestiagandik añ diferentia ziranak Jangoikoa-ren amodioak bat egin zituan...”. (1.)

→ BAT IZAN: “... eta añ bat izatera ezen, ez dago munduan gauza añ batik gizona ta Jangoikoa diran baño...”. (1.)

→ BATXU: “... pekatu guztijak batxu bere itxi bage konfesetara...”. (33.)

BATZARLEKU: “... geu are[e]k joan biar daben batzarlekuetara joango ez bagina...”. (7.)

BAZTER: “... zure edertasuna galdurik bazterren burlegarri egiñik ipiñiko zinala?”. (10.)

BEGI → BEGIZ EZIN IKUSI: “Nik neure proximua begiz ikusi ezin dodana legez...”. (11.)

BEGIRA → BEGIRA EGON: “... zer egun larrian begira zauden!”. (1.)

BEGIRAKUNA / BEGIRAKUNE: “Emon berba labanak, eskuka, begirakuna...”. (8.) / “Arako dantzatan egin zituzan begirakuna, bere postura gezto, pensamentu ta eskuka loijakaz...”. (37.)

BEHAR: “Konsiderazioau gauza biarra, Jangoikoren mesedetara eskerro-nekoak izateko...”. (1.)

→ BEHAR-BEHARREKO: “... ze[n]tzuek ain biar-biarrekoak izen ez arren...”. (3.)

→ BEHAR-LAN: “... one[e]k guztijo[k] bear-lanak dira, eta denpora luzean bear egiten badozue...”. (12.)

→ BEHARREN EGON: “... anbat obeto erantzun biarren zagoze...”. (38.)

BEHARGILA: “... atxakija frankua etxake falta onelango biargiliei...”. (12.)

BEHAZTUN: “... non edango daben Dragoi itzelaren beaztuna...”. (37.)

BEHERATU → BEHERATURIK: “Barau egiten dozunian (...) ez zaitezke agertu lagun artera arpegi tristeturik, burua beraturik...”. (30.)

BEHINGO → BEHINGOAN: “Anbeste zirian denpora gitxian nere Aitagana etorri ziran semiak eze, beingoan beterik Porziunkulako konbentoa...”. (14.)

BEHINTZAT → EZ BEHINTZAT: “... eta on[e]n modukoak gogortasunagaz artu biar al doguz? Ez beintzat...”. (34.)

BELEGITU: “Onelan, ibiliko dira gizonen etxura bagarik guztiak galdurik eta bellegiturik...”. (75.)

BEKOROTZ: “... kakarraldoa bekorotzian legez Seigarrengoan bizi zarenak...”. (8.)

#### BELAUN

→ BELAUNA INKATU: “... eta lotsagarritzko libertadera jarririk pekatu guztiai belauna inkatu diezue...”. (69.)

→ BELAUN-IKARA: “... sendatu zuben biotz ta belaun-ikarak...”. (48)

BELAUNBIKO: “Eta ez bakarrik belaunbiko paratu zela dirausku...”. (40.)

BELTZUNA / BELTZUNE: “... urtzen ditue bestiak egindako orolbatu eta beltzuna guziak...”. (16.)

BELU: “Asti handiko gizona da, ezta belurik...”. (12.)

BENTURA → BENTURAZ / MENTURAZ: “... bada, benturaz jazo liteke, mediku piadoso baten modura osatu al bazaiz gauza suabeagaz zu osatutia”. (3.) / “... menturaz zura pekatuak baino txikerragoakaz...”. (21.)

BENZIDU: “... benzidu eban amodioak...”. (41.)

BERAGATIK: “Beragatik, N(ere) A(adiskidia)k, ez bakarrik saif[al]tu biar gera prestaera santoz...”. (5.)

#### BERBA

→ BERBA LABAN: “Emon berba labanak, eskuka, begirakuna...”. (8.)

→ BERBA GARRATZ: “... begira etorriko dala denporia berba garratz zure kontra egingo dabena...”. (12.)

→ BERBA TROPE: “... eta bai erantzun eutsan berba tropiakaz...”. (80.)

BERBAIKUNTZA: “... bakotxak bere berbaikuntzan entendietan eutsala...”. (7.)

BERBERTATIK (< BERT-BERTATIK): “... edo ametatako aleginak bert-bertatik egiten badozue...”. (8.)

BEREANEZ: “... dirialako one[e]k guztiok bereanez peliburusoak”. (8.) / “Eta gizon gaixoau bereanez argia bazan ere...”. (34.)

BERENBEREGI: "... ez itxirik berenberegri egun oneitarako astegunian egin al leijena...". (12.)

BERESI → SASI-BERESI: "... len arako pekatuzko sasi-beresi eginda egon ziranak...". (87.)

BERO → BEROAK HARTU: "... otz, bero ta izardiak artu ditut...". (1.)

BERRITAZIO: "... egin biar due konfesio deungaro egiñen berritazio oso bat...". (15.)

BERTATIK (< BERTATI) → ETA BERTATIAN: "... Jesukristo gere Jaunak il-da bertatian egin zuan lana izan zan...". (72.)

BESARTE: "... bere juramentoagaitik bere aitaren besartetik eroan ebenian Diabruak...". (31.)

BETETU (< METETU): "... ez etxia zorraz me[te]tuteko bildurrik...". (73.)

BETUNDU: "... birtutez edertuko urregorritzko txaplaz kanpotik eta barrutik amudijozko oraziñoz betundua...". (83.)

BIDE

→ BIDEAK HARTU: "... eta bidiak artu andiagoak aurrerantzian egiteko...". (8.)

→ BIDE-LAGUN: "... eta exenploak bide-laguntzat emoten deuskuz...". (46.)

→ BIDERA EKARRI: "... ots bildurgarri bat bere bidez ekarteko pekatariak graziaren bidera...". (1.)

BIDEBAGE: "Tratuetan egin oi dira irabazi bidebagiak...". (33.)

BIDEBAGEKO: "... eta beste bidebageko gastuetarako franku izaten dozuenak...". (7.) / "... lapurreta andiak, irabazi bidebagekoak, saldu-erosietan engañu andiakoakaz aberastu da...". (9.)

BIGIRA / BEGIRA: "... jolasera, bigirera, gaubelara, pasiora, komedia-ra...". (8.)

BIHORKERA: "... komulgatu-ta lasterrian zurekin gertatu da[la] Jangoikozko biorkera santoa?". (5.) / "... bere konbersino edo biorkerarako grazija...". (31.)

BIHORTU: "... azkenengo ordura artian Jangoikoagana biortzia utzitzen dezuenak...". (14.)

BIHOTZ → BIHOTZ GOGORREKO: "Ez det uste onelako biotz gogorrekorik zuben artian egon leitiala...". (1.)

BIHOZKETA

→ BIHOZKETA ETA ATSEKABE: "... guztijak edo geijenak bijozketaz ta atsakabez beterik baixen...". (79.)

- BIHOZKETEA EMON: "... zure auzoai eskandalua, etsekoai sentimentu ta biozketia emoten dozuna...". (28.)
- BIHOZKETEA HARTU: "Ez da erraz erakutsiten zelako biozketia artuko zuan amak ikusirik...". (77.)
- BILATU: "... zer billatu dabe eriotzan, anbeste urtian kudizia eta bani[da]deko lo gogorretik irazartute-orduan?". (25.)
- BILDU (< BILTU): "... eta berriz biltu Kaifasen salara eriotzara Jesus kondenatzeko...". (16.)
- BILDUR → BILDURREN BIDEZ: "... beragatik gauza onak egitera bere etorten zan bildurren bidez...". (8.)
- BILDURGARRIZKOTU: "... gizon-da animaliaz bat bere itxi bage guztia bakarturik eta bildurgarrizkoturik gelditu diñian...". (75.)
- BILKUNTZA (< BILKUNTZ): "Da bide ona parekatu nai ezik gorrotokoa, bilkuntz eta juntamentu...". (1.) / "... ezpada Kristau fededun guztien bilkuntza baño...". (14.)
- BILOZTASUN: "... nik erakotsiko dot zuen billoztasuna munduko erreinu guztijaren aurrian...". (33.) / "Zuk igon Kurtzeko billoztasunetik...". (89.)
- BIRAOTI: "Semiak bere aitaren bidien jarrai dabil, ama biraotija...". (30.)
- BIRLOBA: "... nondik eztakizula ondatuko diriala, eztiriala birlobetara elduko...". (12.)
- BIRRINDU: "... guztiori birrindu ta gizonen antzik ere bagarik ikusita bere...". (2.)
- BITARTE: "Meza bitarteetan izaten dira pekaturik andijenak...". (12.)
- BITARTEAN: "Mundutarrak dinoe abadia etsian egon etzala, sakristauak jaigi gure ez ebela, eta bitertian il zala...". (37.)
- BITARTEKO: "... bitarteko ipinirik Ama dolorez beterikoa...". (2.)
- BITORIA → BITORIA IRABAZI: "... onela bitoria irabazitzen ziotela...". (2.)
- BIZI-ALARGUN: "... anbeste bizitza gezto, anbeste bizi-alargun eta beste zorigaiztokeria guztiak...". (7.)
- BIZILAGUN: "... zure bizilagun guziak, zar-da gazte...". (69.)
- BIZILEKU: "... eta gizona egiten da Jangoikoaren semetik Diabruaren bizileku ta menpeko". (2.) / "... eta ifini eben bere bizilekua Sikengo urijen ondoan...". (17.) / "... baita bere zu bere bizileku izan zaitez zure dau...". (61.)

BIZIRO: "... gura izan gauza bat ain biziro, eta ezin izatia...". (18.)

BIZKAR

→ BERE BIZKARREAN IZAN: "... eta eurek erriak galtzen badabe, euren bizkarrian izango dabe...". (7.)

→ BIZKARREAN JASO: "... gere pekatuak zure bizkerrian jaso...". (1.)

BOGADA → BOGADEA EGIN: "Pekatu da m(or)tala, bogadea, txabonadurea egin...". (12.)

BOLA → BOLAN: "... bolan, pelotan ta konbersaziño ganorabakoetan mutil ta gizonak elexa aurrian egotia...". (12.)

BOLIADA: "... Kristinauak gabiltz itsaso peligrasoko tormenta andijetan, bere bolieda andijak sarri-askotan izbazerreko atxetara botaten gaituezala...". (20.)

BULAR → BULARRA HAUSI: "Alperrik negar egingo dozu, alperrik bulerra ausiko dozu...". (11.)

BURLA (< BURLE)

→ BURLA EGIN: "... anbeste bider deiturik, beste anbeste burle egin dabentzako...".

→ BURLA ETA BARRE: "... ba nik bere orain burla ta barre egingo dot zure deijetara...". (38.)

BURLAGARRI → BURLAGARRI EGINIK: "Guztien burlagarrri ta oñazpiko eginik ikusi arren ere...". (2.) / "... ikusiri[k] gelu]ndela Infernuaren burlagarrri eginik...". (32.)

BURLAZAR: "Nok esan euskijon Goliat gigantiari arako burlezar etorri...". (37.)

BURU

→ BERE BURUA BANATU: "... zeri eskuba ezarri ez dakiala ibilli oi da, bere burua banatzeko arri[s]kuan...". (15.)

→ BURU ARGIKO: "Emen er[e] buru argikoak berdinian...". (15.)

→ BURU PISUKO: "lenago egingo du buru pisukoak baño...". (15.)

→ BURUA NEKATU: "... ez dot bere onetan burua nekatu biar...". (8.)

→ BURUAK EMON: "... onelako gauza loa buruak emoten deuskunian pekatu egiten al dogu?". (8.)

BURUBAGE: "... nere pensamentu arro ta burubagiak, orra nolako prutuak eman dituen...". (1.)

**D**

DAINU: "... parkatu dagiozuzela proximuari berak egiñeko dañu ta injuriak...". (11.)

DAMU → DAMU IZAN: "Jangoikoaren gaurko konbit amudiosoa despreziadu biar izana ondo damu izango dozue...". (34.)

DAMUARI: "... gure pekatuen damuarik proponitzen degula...". (1.)

→ DAMUARIZ: "Il bitez bai ordu onian, baña zu ofendidu zaituen damuariz...". (11.)

DANDILIKA: "Dandilika iru untze gogorretik parkatu diozula dirautsu...". (11.) / "... onelan geratzen zala gura osasun egijazkoa dandillika edo esegirik...". (40.)

DANTZA → DANTZA-ERROMERIA: "... batzar peliburuen, dantza-erromerijetan, konbit andijetan?". (37.)

DARDAR → DARDAR IKARATU: "... zegatikan guztiak sentimentua erakutsiko deben euren betiko galdu aurrian, dardar ikaratu...". (75.)

DEADAR → DEADARKA: "... obligazinoa berez zuri biotzian deadarka egin dagizula dagoalako...". (3.)

DEI → DEIKA: "Zuri deika, zuri erreguka dagokizun artian...". (11.)

## DENPORA

→ AURRERA DENPORA EMON: "... eta negarrok, aurrera denporia emonik, elduko litekez Zeruetafino eldutera...". (18.)

→ DENPORA LUZEKO: "Irugarrena, bere aziendia izango da denpora luze-koa...". (85.)

→ DENPORA-BITARTE: "Jesusen orazinoko denpora-bitartean zur ebillen Judas traidoria...". (41.)

→ DENPORARIK DENPORA: "... denporarik denpora erakutsirik Ogi milagrozkoa...". (5.)

## DESKANTSU (&lt; DESKANSU)

→ DESKANTSU(A) EMON: "... zauriok osaturik deskantsu emongo deusuet...". (49.)

→ DESKANTSU(A) EUKI: "... etzeunkie eukiko egunez sosigurik ez gaubien deskansurik...". (21.)

→ DESKANTSU(A) HARTU: "... ta zazpigarrenian atsadongo dozu, deskansua artuko dozu...". (12.)

- DESKUIDU → DESKUIDUZ: "... baña deskuiduz nozbait au egitia ezta izango pekatu mortala...". (85.)
- DESTAINU (< DESTAIU) → DESTAINUZ: "... ez deutsugu destaiuz esaten...". (8.)
- DINGILIZKA: "... iru beatzetik mundua dingilizka deukazuna...". (2.)
- DIRU → DIRU-MOLTSO: "... onetarako eskatuten ez diru-moltsorik, ez ondasun andirik...". (30.)
- DOARIK: "... graziaren jantzi barria doarik artutera...". (11.)
- DOA-DOARIK: "... doa-doiarik, zorion askoren promes bagarik". (9.) / "... doa-doiarik daukazu guztia...". (73.)
- DOE: "Zeruko doe santoak billatzen debena...". (62.)
- DOILOR: "Jentilgiñoak birtute andiko gauzatat au ezautu dabe, gauza dollortzat...". (11.)
- DOILORDUN: "Biotz dollordunena da proximuena okeretik bengaia art[z]ia...". (11.)
- DONTZELLATASUN: "Jaun onek nai du bere Ama izan zaitian dontzellatasunik galdu bage...". (32.)
- DRAGOI (< DRAGOA): "... zapaldu duala oñ azpian gizona engañatu zuan dragoa beldurgarria...". (1.)
- DUIN: "... zeñ kastigu andiaren duin egiten diran...". (5.)

## E

- EBAGI: "... eridurik eta ebagiz beterik gelditu diriala...". (75.)
- EBATU: "Topaurik bein baten Judeguak gizon bat egurra ebatuten, eroan eben gizonori...". (12.)
- EDERGARRI: "... eta egin edergarri guzi oekin kriaturarik miragarrien bat...". (68.)
- EDERRIKUSI: "... iñoren ederrikusiarri begiratu bage...". (27.)
- EDOZEINBERE / EDOZENBERE: "... nai beste edozeinbere denporetan elexa aurrian dantzetan atrebiduten ziranak...". (3.) / "Beste edozeinbere gauza bai, baña ez da posible arako urlija denporan...". (34.)
- EGARRI: "... bere alabia bestiagaz ezkondu din egarrijagaz...". (37.)
- EGIA → EGIARA (< EGIRA): "Baña egira, laster datorkizula denpora mundutik joan biarrekoa...". (1.)

- EGIKERA: “Nozbait itxigijozue obra edo egikera deungai”. (20.) / “... gizonaren obra edo egikerai lagun egiten dautsen[a]...”. (33.)
- EGINAHAL (< EGINAHALA) → EGINAHALAK EGIN: “Munduko aita batek bere semia ondo ipiniteko eginala guztiak eginik uste izanik eskerronekoa izango jakola...”. (73.)
- EGOKERA: “... bada euren egokera geztokain erlijio santuen arerioai bidia emoten deutse...”. (12.) / “... negargarrizko egokeria zeñetara ekarri daroien arima bat desonestukerijak...”. (79.) / “Neurribageko glorija izango da onik aurreko egokera zebentzat...”. (86.)
- EGUN → EGUNEAN-EGUNEAN: “Egunian-egunian bere errosarijo santua errezetia ezegatik bere aztu ezpekizu...”. (35.)
- EKANDU: “... ebagi ta erre biar dituz pekatuaren okasinoak, peliburuak eta ekandu zar geztokak...”. (3.)
- EKUSI: “... ekusirik euren alabak konbenientziak dituela...”. (7.)
- ELEZTUN / ERRAZTUN: “... orrako beso eta eskuok eleztunez apaindu...”. (9.) / “Galdu duanak erraztun bat...”. (15.)
- EMALARI: “Nola ez gera esker obekoak erakutsiten Zeru ta Lurreko zorion guztien emalariakiko?”. (1.)
- ENBARAZU → ENBARAZU EGIN: “... neguko denporarik otzenian sukalde-bazterrian ikusirik enbarazu andija egiten deutsuenak...”. (85.)
- ENBRA: “... izan bazan enbrak enbretara, edo gizonak gizonetara...”. (8.) / “Urteiten dau enbra lotsa gitxiko ta desonesta batek dantza geztok batetik...”. (37.) / “... ainbeste enbraren erdijan berba loi ta desonestu...”. (37.)
- ENGAINU → ENGAINUZ: “... engañuz uste izanik libre nenguala...”. (89.)
- EPAKI → EPAKI EMAN: “Onek, emateko epaki edo sententzia...”. (15.)
- ERABILDU: “... denpora berean guardianak arturik tunika eten bat et kordoe erabildu bat...”. (51.)
- ERAGOTZI: “Biarrak dira iru modutekoak eragotzijak, ta dira gorputzeko bearra...”. (12.) / “... justezijako ministroak dauken obligazioa eskandaluak eragotzitia...”. (85.)
- ERALGI: “... uruna eralgi, labasua, ta ogi erretia...”. (12.)
- ERANTAU: “... ta eztago nok erantau zaizen mezarako...”. (12.)
- ERBESTETU: “... igon zuan Kurutze orretara eta kendurik indarrak, erbestetu zituzan...”. (2.)



EREGI: "... eregi Jangoikoari oraziñoko etxe santuak...". (27.)

EREMU: "Ez degu joan bearrik bakarleku eta mendi eremuetara birtute oiek ikusten...". (71.)

#### ERETXI

→ EDER ERETXI: "Mundu guztien aurrian len eder eretxi deutzazu...". (34.)

→ ERETXI BATEN: "Eta eretxi baten neke andiko gauzia bada...". (11.)

→ GOGOR ERETXI: "... baita gosez il biarrari gogor eretxirik...". (10.)

ERIA: "Ikusten dana da aste erdijan merkatu, erija edo b[leste] onelakoren bat danian...". (12.)

ERKINDU: "... agertuko deutzazu asi gaztetasunetik eta zartzaroz erkindu artegiñoko egin zituan pensamentuak...". (9.)

ERNE → ERNEA IZAN: "Koroa orren errorik prinzipalena zure biotzian ernia da...". (1.)

ERMU: "... probinzija ta erreinu zabalak ermu biortzen badituz...". (2.)

ERORI → LUZE-LUZE ERORI: "... eta erori zan berak gorputzetik potarikako orol-putzuan luze-luze...". (16.)

ERPE: "... eta erpe gogor artian ja guztiz galdurik!". (2.)

ERPIL → ERPILAK HAUSI: "... laijetan, mokillak (erpillak) austen, nai beste onen modura dan moduan dala...". (12.)

ERRAIO → ERRAIO-ZENTEILA: "... aberijak ilten euskuzala, abazuze, arri bildur, trumoi ta erraio-zentella...". (37.)

ERRAMA → ARTE-ERRAMA: "... mando baten ganian enredetan dira uliak arte-errama baten...". (85.)

#### ERRAZOI (< ERRAZOE, ERRAZOA)

→ ERRAZOIZKO: "... eta arako konfesorik bere ofizijoz ag[il]nduriko gauza errazoazkoak...". (3.)

ERREGE → ERREGE-ETXE: "Errege-etxiak, nobenoak ta milloiak kendu zitzaizozkon". (44.)

#### ERREGU

→ ERREGUKA: "Zuri deika, zuri erreguka dagokizun artian...". (11.)

→ ERREGUZ: "Ez dantzuzu Jangoikoak erreguz...". (10.)

ERREKA → ERREKA ATERA: "Antzinatik esanda zeukan (...) negarrez errekek aterako zitala...". (1.)

ERREMENTARITZA → ERREMENTARITZAN: "Pek(a)tu egiten dabe bere argintzan, arotzian, errementaritzan...". (12.)

ERREPARADU / ERREPARATU: "... ta gura izanik erreparadu euren Jangoikoa-ri egiten eutsen injurija". (37.) / "... erreparatzen dio elixako ate barruan egoan Ama Santisimaren imajinari...". (48.)

ERRESKA → ERRESKAN: "... eta pekatu egin daroe arako karobiginak jai bi erreskan badatoz...". (12.)

ERRETXINA: "... elixako funzio bateko argiak eskasak ta biarbada erretxinak naiko zinduzke...". (53.)

ERRIERTA (< ERRIELTA): "... pobreza ta errielta franko barruan, burla ta barre alberreinuak kanpoan...". (47.)

ERRONDA → ERRONDAN IBILI: "Guztia da dantzia, guztia jolasa, piestia, begiria, errondan ibillitia...". (8.)

ERRU → ERRUA EZARRI: "... saritzat legez, ezpada bestiari errua ezarriten deutsagu ...". (7.)

ESAKUNA / ESAKUNE: "... euren esakunakaz gerra egiten deutse Jangoikoa-ri...". (34.)

ESALA / ESALE: "Lenengo pekatu egiten dabe emen arako berba loi esaliak...". (8.)

ESAN

→ EZIN ESANEZKO: "Zazpi egunean ango negarrak andiak, ezin esanezkoak izandu ziran...". (1.)

→ ZER ESAN EZ ZER PENSATU JAKIN EZ: "... miraritzen gera, zer esan ez zer pensatu ez dakigula...". (1.)

ESETSI: "... eta kontrara jazo jakola ikusten dabenian negarrari esetsiten deutso...". (73.)

ESKANDALU / ESKANDALO → ESKANDALO-MODU: "... pekatu eta eskandalo-modu guztiak, tratu lukreriaz betiak...". (81.)

ESKAPA → ESKAPAN JOAN: "... bere jentiagaz batera Efraingo basamurtu itzalt[s]lura eskapan joiela...". (85.)

ESKAPOLOT (< ESKAPALOT): "... edo merezimentuko eskapalot ederrian gordeta dagozan graziak...". (52.)

ESKEKO → ESKEKO IFINI: "Baña izaten diriana legez fameliako gurasoak euren exenplo txarrakaz umiai ez bakarrik ariman (...) eskeko bidian ifinten dituezanak...". (7.)

ESKER → ESKER-MODU: "... ze esker-moduak eman diozkagun zere Semia-ri artu dituguzan mesedeakgatik...". (2.)

ESKERGA: "... ikusi dagizenian ezerzitu ikaragarri bat legez bere aurrian, euren astuntasun ta pisu eskergiagaz...". (18.)

ESKERGALDU: "Ez da asko zu eskergaldu etzeitezen?". (2.)

ESKERGALDUKO: "... ikusirik bere mesederi andienetara eskergaldukoak gerala...". (5.)

ESKERGEZTOKERIA: "O gizonaren gogortade ta eskergeztokeria!". (1.)

ESKERGEZTOKO: "... esker onakin erantzun biarrian, aien modura eskergeztokoak izaten bagera...". (69.)

ESKERRONEKO: "... zeñegatik izan biar geran eskerronekoak...". (45.)

ESKOI → ESKOAKO ALDE: "... merezi izan dezagun bere eskoako aldean betiko egotia...". (2.)

ESKOLA → ESKOLA-MAISU (< ESKOLA-MAIXU): "Au emon zan eskola-maixuai erakutsiteko doktrina santua...". (47.)

ESKU

→ ESKUA EZARRI: "... zeri eskuba ezarri ez dakiala ibilli oi da...". (15.)

→ ESKUA(K) EUKI: "... nola nik eskurik euki nezake openditzeko?". (1.) / "Nola euki ditzakegu eskuak openditzeko anbeste mesede artu ditudanak...". (1.)

→ ESKU-BARRU: "... eta Lurra esku-barruan ezkututzen dezun Jangoiko anditzako...". (2.)

→ ESKU-OIN: "... azotetz aserik, esku-oñak josirik...". (11.)

→ ESKUPE: "Urten dozu Demoninoen eskupeti konfesiñoen bitartez...". (17.)

ESKUALDE: "... ... Jangoikoaren Semia bere eskubiko eskualdetik eserita...". (16.)

ESKUBI → ESKUBIKO: "... Jangoikoaren Semia bere eskubiko eskualdetik eserita...". (16.)

ESKUBIDE: "Orrenbeste eskubide zu galduteko emon badeutsazu bere...". (75.)

→ ESKUBIDEA EMON: "... eskubidia emoten eutsela kaltegiillari gorroto izateko...". (77.)

ESKUKA: "Emon berba labanak, eskuka, begirakuna...". (8.)

ESTIMAZINO → ESTIMAZINOA EMON: "... eta zuekaz jazo dana biar dan estimazinorik emoten ezpadautsezue Jangoikoaren berba ta predikazi-noari...". (13.)

## ESTU

→ ESTU ETA LOTURIK: "... pekatuen katiar ondo lotu ta esturik bizi diria-  
nen grillubak ausi ta urraturik...". (34.)

→ ESTUKA: "... estuka esaten due...". (74.)

→ ESTU-LARRI: "Deituko deutse euren estu-larrian...". (75.)

→ ESTU-LARRIAK HARTU: "... denporia baño lenago eriotzako estu-larriak  
artuta galduko zara...". (34.) / "... aditzen eman naiko derana zein  
estu-larri andiak artuko duan arako pekatari bere denpora guztien  
pekatuz ondaturik...". (38.)

ESTURA: "Au izan da beti Jangoikoak bere Elixarekin egin duana, estura  
andienetan egon izan danian...". (14.)

ETEN: "... denpora berean guardianak arturik tunika eten bat eta kordoe  
erabildu bat...". (51.)

ETORRERA: "... poztu biar zera bere etorreran...". (10.)

ETORRI: "Jesusen buru sagradua zulatzerano etorri da...". (1.) / "... ins-  
tante guztietan etorriko zan bizitza galtzera...". (45.)

→ BEREZ ETORRI: "Berez eskura dator errazoia...". (36.)

ETXAGUNTZA: "... ondo oraindio gogoan daukadan etsaguntze baten jazo  
jatana legez...". (80.)

## ETXE / ETSE

→ ETXE ONEKO: "... nai ezik isten daben, eta orra ni añ etxe oneko semia  
gosiak il biar nau!". (10.)

→ ETXE-GALTZE (< ETSE-GALDUTE): "... onan kenduko dira jokoak, etse-gal-  
dutiak, ordikerijak, birao...". (12.)

ETXEGALTZAILE: "... eta orra non nere anaia etxegaltzalia agertu dane-  
ko...". (10.)

ETXUN (< ETXIN): "... onan bere serbitzija etxiten dirianai...". (3.) / "...  
pekatarijau negaturik fedez beterik Jaunaren oñetara etxuten  
bada...". (23.)

EURI → EURI-ZAPARRADA: "... indar ta gozotasuna artu dagijen nozipenian  
Zerutiko euri-zaparrada bat?". (13.)

EUSKALDUN: "... ia erlijioño bagarik ikustean, au guri Euskaldunoi egitea  
parerik bageko errukia...". (10.)

EZAGUERA (< EZAUERA): "... ezauera ikaragarri onegaz bildurturik pekatue-  
tatik iges egin genezen...". (2.)

- EZAGUTU: "... eta ezagutu gagizuz zere zerbitzailletzat...". (2.)
- EZAIN: "... eskandalu ta luxurijaren gauza ezain ta zantarrak...". (13.)
- EZAINTRASUN: "Eta egin-da lasterrian ezautu dabenak bere ezañtasuna...". (73.)
- EZARRI: "... eta Dabidek Goliat baño errazago ezarriko zaitu". (37.) / "... zuen etxia sustraitik ezarriko dauela...". (85.)
- EZAUGARRI: "Auxe da birtute karidadekoaren ezaugarririk andiena...". (11.)
- EZEREZ: "... eta izatea duan guztia ezerezetatik egin zuana...". (2.) / "... gure ezerezia bere begi santuak ipini dituzen ezker...". (27.)
- EZETU / EXETU: "Pekatu onagaz ezetu zan Prinzipionen amoria lenen ganera...". (17)
- EZKONGE / EZKONGA: "Seme ezkongea bi daukadaz da...". (3.)
- EZKONGEI: "... seme ezkongei bi zituzana...". (3.)
- EZPAN → EZPAN-JATE: "Zeñ ai tristiak, ezpan-jate eta desdixak!". (75.)
- EZPATARI: "... arako neguko gauetan alkargana, edo guralak, edo ezpatariak, edo artazuritzaleak baturik...". (8.)

## F

- FABRIKATU: "... Zeru ta Lurra fabrikatuko esku ta oñak josi zituben...". (1.)
- FAMILIA: "... emakume ta famelijakin kontatu bage...". (70.)
- FAMILIARI ESTADU EMON: "Orain auzi gezoetan, orain fameliari estadu emon biarrian...". (28.)
- FIADORE → FIADORE URTEAN: "Ez neunke zure fijedore baiezkuaren urtean gura...". (17.) / "... baiña ezto urteitan fijedore urteko dauela osasunegaz...". (36.)
- FIN: "Bada, fiñak, langillak euren obligazioetan...". (30.)
- FIRU: "... firu batetik dindillako Infernura jausteko zorian egonagatik...". (81.)
- FORMATU: "Da ori Espiritu Santoren birtutez zure erraietan formatu zana?". (1.)
- FRAGO: "... non etorri zan egitera gazte odolbiziko ta frago batek egin eta asmau aleikezan pekatuak...". (81.)

FRANKU: "... eta beste bidegabeko gastuetarako franku izaten dozue-nak...". (7.) / "... atxakija frankua etxake falta onelango biargiliei...". (12.) / "... pekatua franku, birtute gitxi...". (13.)

## G

GAILUR: "... argi egiten zebela mendi baten gallurrian fundaturiko erri eder...". (63.)

GAILUTASUN: "Jaten eben, baña ez len lezko gustu ta gogoagaz, eta alan ez eben aurkituten ezpada gallutasun enfadugarri bat baño...". (13.)

GAINKO / GANEKO → ETA BESTE GANEKOAK: "... gure lapurreta eta beste ganeakoak...". (32.)

GAINERA / GANERA

→ HONEZAZ GAINERA: "Onezaz gañera, obra ta exenplo miragarriak frutu onen lagungarriak para dizkitzut...". (1.)

→ -(R)EN GANERA: "Pekatu onegaz ezetu zan Prinzipionen amoria lenen ganera...". (17.)

GAINEZ / GANEZ → GANEZ EGIN: "... artu ala baño geijago ifiniten bajako (...) ganez egiten eztabenik...". (37.)

GAIXOKA → GAIXOKARIK: "Aspaldijen gaixokarik ibili da...". (37.)

GAIZKILA / GAIZKILE: "... munduan izan dan gaizkillerik andiena beze-la...". (1.)

GAIZKITU: "Añ laster gai[z]kitu da orrako Maiso Santo...". (16.)

GALANT: "... ezta ori atxakija galanta!". (12.) / "... eta beste lapur galant asko urte luzietan ibillirik...". (23.)

GALARAZO (< GALA(RA)ZO): "... eta beste batzuk euretara ostera biortutia galazoteko...". (3.)

GALDA (< KALDA): "... barru ta kanpo su gorizko kalda bizi baten...". (18.)

GALDATU (< KALDATU): "... emetik erraijetara, kaldatu, gorituko ditu arte-rija guztijak...". (18.)

GALDE → GALDEA(K) EGIN: "... galde bat egin biar dizut...". (2.) / "... asi zan galdeak egiten bere doktrina eta Dizipuloen ganian...". (16.)

GALDU: "... lapurra dala, ordia, dala, galdua dala...". (7.) "... zegatikan guztiak sentimentua erakutsiko deben euren betiko galdu aurrian, dardar ikaratu...". (75.)

→ EZ GALDUKO BAI GALDUKOAN IBILI: "... ije ez galduko bai galdukoan dabilzenian...". (9.)

→ GALDU-GORDEAN IBILI: "... onziren bat galdu-gordian dabilenian...". (12.)

GALDUBAKO: "... eta pekatuen urijolapian galdubako erremediorik izango ez dozu...". (23.)

GALDUBEHAR: "... lastimaturik bere galdubiarrez, dekretatu zuan gizona erremediatzia...". (1.)

GALTZAI: "... eta lastima tristez topau oi ditue, mediku ta gaisoren galtzairako...". (3.)

GALTZAIBIDE: "... eta prisako galtzaibideko pauso arinetatik birtuteren errasturik bage". (25.) / "... bere galtzaibide deunge onetati atera...". (48.)

GALTZARPE → GALTZARPE: "... ta gero arin-arinka mantillia galtzarpian artu[ta]...". (12.)

GANORABAKO: "... ta konbersaziño ganorabakoetan mutil ta gizonak elexa aurrian egotia...". (12.)

GANTZ → GANTZA EMON: "... arako besteai jai-domeketan luzero bear egin dagijela konsejua, aurrebidea ta gantza emoten dautseenak...". (12.)

#### GARI

→ GARI-BURU: "... gari ebaten ebiltzezan guztijan lurrera jausten zirian gari-buruak batu leizela beretzako...". (80.)

→ GARI-EBATZAILE: "... bere gari-ebatzaillai esaten eutsela...". (80.)

GARRATZ: "... nire ardi-bandara etorri doazan otso, leoi eta beste aberi garratzak baño bere garratz ta sendoagoa?". (37.)

#### GATX

→ GATX EGIN: "... alde egin dagijela axe gezto ta janari lenago gatx egin izen dautseenetati...". (3.) / "... eta al daben gatx guztia nondi egingo deuten bizi izan da...". (9.)

→ GATX ERDI: "... konpesoria bakarrik engañoauko bazendue, gatx erdi izango liteke...". (34.)

→ GATX ETORRI: "Zer gatx etorriko zitzatzun gizona galduagatik?". (1.)

GAUBELA: "... jolasera, bigirera, gaubelara, pasiora, komediara...". (8.)

#### GAUR

→ GAURGANIK: "... gaurganik asten dozuela eta onetarako bizitza on bat artzen dozuela...". (20.)

- GAURRIK AURRERA: “Begira, Jauna, gaurrik aurrera zure amodioa besterik nai ez dodala...”. (89.)
- GAUZA → GAUZA BEHARRA IZAN: “Konsiderazioau gauza bearra, Jangoikoren mesedetara eskerronekuak izateko...”. (1.)
- GAZTE → GAZTE-DENPORA: “Zeguan Agustino bere gazte-denporan pekatuaren okasio”. (74.)
- GEI / GAI: “Au izango da nere sermoiaren geia punto labur bitan...”. (63.)
- GEITU / DEITU: “Geitu dautsu txistu amoroso bategaz Pastore Dibinuek legez...”. (36.)
- GELDI → GELDI-GELDIKA: “... eta geldi-geldika untzurri geztoa ormiari oratu oi jakan bezala...”. (47.)
- GERIZA (< GEREXIA): “... jakin daigun onik aurre zelan gorderik egongo garian bere Uzen Santuaren gerexiaren azpijan...”. (20.)
- GERRA → GERRA EGIN: “... gerra biziago bat egiteko...”. (48.)
- GIBERRI: “... izan bazan abere, patari, giberriren bategaz...”. (8.)
- GINARRA (< GIÑERRA): “... arrastaka lurrian giñerra zar bat legez erabillitia?”. (24.)
- GITXI → GITXI GORABEHERA: “... eta amabi izan baziran, esango dozu amabi determinaduak, agotan artu bage gitxi goraberarik...”. (33.)
- GITXIENDU: “A ezin jaramon leijo, sinpleturik, gitxiendurik sein biorturik dago...”. (85.)
- GIZATASUN: “Egiten dau bere gizetasun edo humanidade dibinizaduagaz janari bat...”. (29.)
- GIZONAGANATU: “... ifiniten dabenak, baita Jangoikoa bere gizonaganatuten dabenak...”. (80.)
- GOGO
- BERE GOGORA: “Baña zuek gure dozue predikadu dagijen zeuen gogora...”. (13.)
- GOGOIA HARTU: “... bigarrengo, alango gauzaren bat egiteko gogoia artuagaz...”. (8.)
- GOGOAK EMON: “... gogoak emon deust ezingo dala izan añ Santu andia zeñda munduak antzekotzat daukan...”. (34.)
- GOGOAN ERABILI: “... gauza loi Seigarrengoren bat norberen guraz gogoan erabilijagaz...”. (8.)
- GOGOTAN HARTU: “... pekatu dirian gauzak gogotan arturik...”. (8.)



- GOGOTARA HELDU: "... ez belarriak entzun eta gogotara ere eldu ezin-go diran zorion neurribagiak...". (2.)
- GOGORATASUN: "Baña ondo begiratu eikezu zelan etorri jatzun gogoratasunori...". (8.)
- GOGORAZINO: "... biztuten da zure biotzean pentsamentu edo gogorazino geztoa...". (8.)
- GOGORTADE: "Sekula munduan ikusi ez ziran gogortade guziak ikusiko zirala...". (1.)
- GOI → GOI HARTU: "Goi artu zion Jesusek pekatuari...". (2.)
- GOITI-BEHEITI (< GOITI-BETI): "Eta zuk milagroez biztuko zaituezan esperantzia goiti-beti gorputzeko bizitzia galduko ez zeunkena legez, gixiagio egin biar dozu arimakoa...". (38.)
- GOMUTA: "Ze itzala dan eriotzaren gomuta!". (38.)
- GOMUTA EGIN: "Gomuta egizue zelako gatzak irago zituzan...". (40.)
- GORDE → GORDE-EZKOR: "Alperrik esan naiko deutsu gogorra edo gordezkorra ziniala...". (9.)
- GORDEKIZUN: "... edo kenduten dala gauza sagradurik edo Elexiaren gordekizunera dagoanik...". (33.)
- GORRO → GORROAK EGIN: "... isten deutsez begijak, egiten deutseez txu ta gorro andijak...". (40.)
- GORROTO → GORROTOZ: "... pekatuari zion gorrotoz, desegiteko Diabruaren obran...". (5.)
- GORROTODUN: "Zegatik gaur natorren prediketara gorrotodunen kontra...". (11.)
- GORU (< GURU) → GORUETAN: "Baite bere goruetan, kaltzerdiginan...". (12.)
- GORULA (< GURALA): "... arako neguko gaubetan alkargana, edo guralak, edo ezpatariak, edo artazuritzaleak baturik...". (8.)
- GOSE: "... etorri ziran otso gosiak bildots mantsuagana bezala...". (16.)
- GOSETE (< GOSETA): "... goseta andi bat erri atan sartu zan...". (10.)
- GOZAMEN: "... bere ondasunen gozamenian anbat lasterren sartziagatik iltzia deseatzen dienak...". (7.)
- GRILLU: "... pekatuen katiuz ondo lotu ta esturik bizi dirianen grillubak ausi ta urraturik...". (34.)
- GRINA → GRINA GAIZTO: "... biztu eban zantarkeriarako grina geztoak...". (81.)

GUARDIA → GUARDIAPE: "... ifini eben soldadu gezto batzuen guardijapian...". (40.)

GURA → BERE GURAZ: "... gauza loi Seigarrengoren bat norberen guraz gogoan erabilijaz...". (8.)

GURARI: "Añ gurariz beterik bere aitaren etxian azi zan seme oni...". (10.)

GUSTATU: "... baña Jangoiko bat bera bakarrik izanik i[n]mortal edo ilezkorra, eriotzia gustatzera elduko zala...". (40.)

GUSTU / GUSTO

→ GUSTU EZ: "... orra non sartuten jaken ogi miragarri onen gustu ez bat...". (13.)

→ GUSTUA ASMAU: "... ezin asmau dautsee lengo lezko gusturik...". (13.)

→ GUSTUA EGIN: "... sentimentuak alde batera botarik gustuau egin biar didazu". (19.)

→ GUSTU-AMES: "... eta geriza bezala igaroko zitzaizkizun gusto-amesak...". (2.)

→ GUSTU-ATSEGIN: "... baita gustu-atsegiñak, anbeste bider aberia zantarrakaz egin zituen lotsagarritzko pekatu...". (9.)

→ GUSTU-NAHI: "Olgaugizue, gustu-naijak gorputzari emongiozue...". (8.)

GUZTI: "... guztia gatx izengo dabela bere azpitik urteitia...". (17.)

GUZURTAU / GEZURTATU: "... posible izengo da guzurtauko dogula obra-kaz geura ezpanakaz konfesetan doguna?". (20.) / "... eta zuk gezurtatu nai dezu Jesusen esana...". (2.)

## H

HALANBERE: "... amarrerik [o]geire eztoa gitxi, asko baño; berrogeirik larogeira alanbere...". (33.)

HAGIN → HAGINA EZARRI: "... gero ukutu, jausi jakon deseotan eta akabuan agiña ezarri eutsan". (17.)

HAINBAKO: "... izan bazirian ezkondu edo añbakoakaz...". (8.)

HARAGI → HARAGI-ZATI: "... jausten dira aragi-zatijak lurrera, egiten dira zulo andijak gorputzian...". (40.)

HARGINTZA → HARGINTZAN: "Pek(a)tu egiten dabe bere hargintzan, aroztzian...". (12.)

- HARRI: "... edo euri, arri edo txingorrek laboriak galduteko peliburuan...". (12.) / "... aberriak ilten euskuzala, abazuze, arri bildur...". (37.)
- HARRI BAT EGINIK: "... zer egiten dozue or Zerura adi arri bat eginik?". (39.)
- HARRI ETA HATX: "... arri eta atxak puskaturik...". (56.)
- HARRI-MENDI: "... mundu guztitik zabaldurik, arri-mendi guztiak ura legez bigunduten ditu...". (75.)
- SU-HARRI: "... su-arria izan ur one[e]k emon zituana...". (64.)
- HARTU: "Artu biar izan zituban ogeta amairu urteko neke, izardi, dolore, pena ta eriotza gogorra...". (1.)
- HARTZEKO: "... eukirik maiordomo onek artzeko gitxi bat...". (11.)
- HASERRE: "... eta Juez aserriari esango deutse...". (9.)
- HASERREA HARTU: "... eta aserre geiago pekatuen kontra artzen ez dezu?". (1.)
- HASERREA JAIGI: "Eta alan jaigi zan Jangoikoaren aserria euren ganera...". (13.)
- HASERREKUNTZA (< ASERRAKUNTZA): "Eta auxe bakarrik asko izan bazan Aitaren aserrakuntza guztia beraganatzeko...". (2.)
- HATSITU: "... onelakoetan ezaututen da biotz atsitua...". (8.)
- HATSITURIK EGON: "... eta beste pekatu loiz atsiturik zagozana...". (37.)
- HATX → HATX-BITARTE: "... nai mendi bakarretako atx-bitartetan bizi nai izan dagizula...". (34.)
- HAUSI: "... lenengo zura amistade loa ausi bage urreratuten zara Mai Sa[n]tu orretara?". (29.)
- HAUSI ETA URRATU: "... pekatuen katiak ondo lotu ta esturik bizi diria-nen grillubak ausi ta urraturik...". (34.)
- HAZUR → HAZUR-HARAGI: "... ezta agiri alde guztietatik azur-aragi ba-ño...". (40.)
- HERIOTZA → HERIOTZA-ORDU: "Aurkiturik konfesore bat pekatari bategaz eriotza-orduan...". (3.)
- HERRATU: "Atoz bada, pekataria, atoz ardi erratua...". (2.)
- HERRIALDE: "... salbo atera zituan bere errialdera...". (69.)
- HESI → HESIA IFINI: "... esija ifiniten, onetarako egurra ekarri, konpondu-ten...". (12.)

HILAURRE → HILAURREAN: "Tobias Santuak bere illaurrian agindurik bera il zeitianian...". (80.)

HILEZKOR: "... espiritual eta imortal edo ilezkorra...". (18.)

HILGARRI / HILKARRI: "Guk egin dituguz iltze ilgarri orre[elk]". (2.) / "... gose ta peste ilkarriz bete ziranian...". (67.)

HILIK → HILIK PARAU: "... ta bart txarraldijagaz ilik parau da...". (37.)

HILKOR: "... gorputz ilkor onetan gauden artian...". (5.)

HILORDU: "Etorri zitzaion Jakob Santoari bere illordua...". (19.)

HILORO → HILOROZ: "... ta alan illoroz edo beste modutan serbietan zozanak...". (12.)

HODOI: "... agertuko dala Jesukristo gure Jauna odoi zuri eder baten jarririk...". (9.)

HONDAR → HONDARRERA JOAN: "Ontzi andi batek erdigino bete arren (...) laster joan oi da ondarrera...". (37.)

HONTSU: "... ez dalako asko onsubengo konpesiotik onerako examina...". (15.)

#### HOTS

→ HOTS EGIN: "Ots egiten du ollarrak...". (16.)

→ HOTSAK EGIN: "... arteko zuri Berak egindako txistu ta otsak despreziatu ziñuelako...". (1.)

HOTZ → HOTZAK HARTU: "... otz, bero ta izardiak artu ditut...". (1.)

HOZKA → HOZKA EGIN: "... sugarrastak oska egineko guziak begiraturik fede biaz metalezko sugarrasta oni...". (50.)

HUN: "Dira artxu batzuk birtutiaren una jaten daudena...". (33.)

HUNTZORRI: "... eta geldi-geldika untzorri geztoa ormiari oratu oi jakan bezala...". (47.)

HUR: "... ekandu eta pekatuaren okasino proximu edo urrekoa zeinetan bizi dan...". (33.)

HURREN: "... zeuk ondoen deritxazuna eginik urren biortzen zeranian eskatu eikiozu...". (84.)

HUSTASUN: "... elduko litekez Zeruetagino eldutera, dakusgun ustasun guztija estaldutera...". (18.)

#### HUTS

→ HUTS EGIN: "Penitentzia onetara uts egitia, gauza grabian izenik, da pekatu mortala...". (3.) / "... ezetan bere utsik egin bagarik...". (28.)

- HUTS IZAN: "... baraur, orazio, naiz beste guziak utsak dira au gabe...". (67.)
- HUTSEGITE: "... pekatu beniala baño ez tala egin dogun utsegitia edo faltia...". (33.)
- HUTXA → HUTXA-BALDA: "Alegra zaite, neure biotza, troxak gariz betiak, utxa-baldak diruz ganegituak...". (28.)

## I

- IBAI → IBAI-BARREN: "... negar egingizu Babiloniako ibai-barreentan...". (25.)
- IBILERA: "... bere gaztetako ibillera peliburuzkoetan eskuka loiak...". (9.)
- IDUN: "... sierpiek euren idun ta bulerretan...". (18.)
- IDURI: "Eginik Jangoikoak gizona bere iduri ta antzera". (1.) / "... presentatu zitzaon iduri bat...". (9.)
- IFINI: "Nik ifiniko neurritik igoroten bazaree...". (23.)
- IGARTU: "Bai, ikusiko dira gizonak igaturik legez euren juizio aurrian...". (75.)
- IGES → IGESKA IBILI: "... lotsagarriturik Jangoikoagandik igeska zebillenan...". (1.)
- IGON → GORA-GORA IGON: "Ezin geiago egin neike, ezin, nire aserria goragora igongo da...". (7.)
- IGORO / IGARO: "... onelako gauzak batik bestera jaijetan igoroten dituzanak...". (12.)
- IKARA (< IKERA)
- IKARA-IKARA EGON: "Arriturik, gogorturik ta bildurrez ikara-ikara egoteko...". (8.)
- IKARAREN BILDURREZ: "... pekatuen ikeraren bildurrez Jangoikoak bere aserrea erakutsita gaixoturik...". (34.)
- IKARAZ BILDURRAK HARTU: "... guztiak ikaraz bildurrak artu ditu...". (47.)
- IKAREAK HARTU: "... eta zure aotik urtengo dabena, ikariak artuten nau...". (89.)
- IKAZTOBI: "... karobja ta ikaztobiari suba emotia...". (12.)
- ILINTI: "... Samaritania etzan izango santia, ezpada Infernuko ilintija...". (13.)

ILUNPE: "Pekatuén ilunpean jarririk, betiko eriotzaren azpian eserita zeudenok...". (14.)

INARDUN (< IRARDUN): "... baña eztauko ardu[ra]rik beste bera legez alde-ratuten ez diranen kontra murmurazi(...) irarduteko...". (22.)

INDAR → INDAR BARRIAK EMON: "... an buruan eta biotzian indar barriak emon ta erretan egon oi dirianak...". (8.)

INONTZ: "... bere arimia Zerutiko grazijaren inontz santuz bustirik...". (22.)

INUSI: "Baita bere baso-biarrian bai inustia, landarak atara ta ifinitia...". (12.)

#### IRABAZI

→ IRABAZI BIDEBAGE(KO): "Tratuetan egin oi dira irabazi bidebagiak...". (33.) / "... zure interesak irabazi bidebagekoz egiñak...". (81.)

→ OKER-IRABAZI: "... estura ta larririk andienak artu dagiela, bere oker-irabaziak biortu nai daizala...". (28.)

IRAGO → "... bere Seme laztan ta maitegarriak irago biarko zuan eriotza gogorra...". (2.) / "... pekatuaren menpeko edo azpiti urten dozulako eta bizi barrira irago zarialako...". (17.)

IRAKURRI: "... irakurri ezazuz begiok Kurutze onetara...". (2.)

IRARGI: "... eguzkijaren klaridadiak eta irargijarenak, guztijak konbidetan gaituez...". (21.)

IRATO (< IRETO): "... anbeste gazte ireto zirian lotsagarritzko Seigarrengo nasteen ebiltzezanian...". (23.)

IRAZARTU: "... bakarrik berau asko izango litzateke irazartzeko pelka]tue-  
ren loo astunetik...". (18.) / "... erre etzaiten amodioz auzoko bat  
etorriko balitxatzu irazartuten...". (27.)

IRAZEKI (< IRAZAKI): "... amoriozko su santu baten irazakitsera...". (35.)

IRRIME: "... ain irrimeloturik...". (2.)

#### IRUDI

→ IRUDI BATEN: "... eta irudi baten, zarra zalako esan giñaike Dabiden pekatua andiagoo zala...". (64.)

→ IRUDIAN: "Jangoikoak Apostoluen irudijan egiten dau telleru edo lapikogin batek...". (31.)

ISIO: "... ain modutan isio bada sua nigan...". (40.) / "... batetik isiorik Jangoikoaren amudioan, ta bestetik ain pena andijetan aurkiturik...". (86.)

- ITANDU (< ITENDU): “Itendu eutsen zeñ zan, ea bazan Elias...”. (69.)
- ITOMENDI: “... ez dira lasterka ta itomendiz egiten, eta bai astiro, ondo begiratuta...”. (15.)
- ITSASMENDI: “... ikusirik euren ganera datorkiela itsasmendi andia azpijan arturik ondatuko dituzana...”. (9.)
- ITSUAURREKO (< ITXUAURREKO): “... itxuaurreko ta itxua putzura erori oi diran bezela...”. (84.)
- ITXI → NAHI EZIK ITXI: “... o zenbat alogerekok nire aitaren etxian ogia nai ezik isten daben...”. (10.)
- ITXORON / ITXARON: “... ikusirik ainbeste miserikordijegaz itxoron dautsezula?”. (36.)
- ITXURA / ETXURA: “Onelan, ibiliko dira gizonen etxura bagarik...”. (75.) / “Añ beldurgarria da pekatuak animan paratzen duan etxura...”. (68.)
- ITZAL (< ITZEL): “Baita, sarriten aurkituten dira pekatu itzel ikaragarriak...”. (33.)
- ITZALDU: “Bildurtu ta itzaldu bai, errezu batzuk egin bere bai...”. (8.)
- ITZALGARRI (< ITZELGARRI): “... dragoe itzelgarriakin gerra egin deutzazu...”. (11.)
- ITZEL (< ITZAL): “... aitu ze andijak dirian zuen pekatuak eta itzalak ari-man eurekaz eginiko zaurijak...”. (3.)
- ITZU: “... eta onan, animaliarik it[z]uena bezela lau oñian orroaka bere lagun guziak bildurtzen zituala...”. (68.)
- ITZUGARRI: “... bere eskuak erpa itzugarrikoz...”. (68.)
- IZAITE / IZATE: “Emon euskun izaitia, atera genduzen pekatuen katiaperik...”. (17.)
- IZARDI → IZARDIAK HARTU: “... bideetan izardiak eta nekiak artu...”. (1.)
- IZARDITU: “... non saltu ta brinkoka bere gorputz guztija izarditu ta galdu daben...”. (37.)
- IZBAZTER: “... bere bolieda andijak sarri-askotan izbazterreko atxetara botaten gaituezala...”. (20.)
- IZEN / UZEN: “Uzen santu batzuk dagoz ain andijak ze...”. (20.)
- IZENTADU / UZENTADU: “... zein ezpanakaz ezin uzentadu eben izen oni datorkijon errespeto andija dala medijo...”. (20.)
- IZOZTU → GOGOR-GOGOR IZOZTURIK: “... mututu eta gogor-gogor izozturik geratu biar gerala!”. (2.)

IZPI → IZPIRIK BAGE: "... asko fede bagarik erlijinoen izpirik bage, bane-riaz itsuturik...". (26.)

## J

JAGOLA / JAGOLE: "... izan zaitez gure jagola ta kapitana gerra gezto one-tan...". (3.)

JAI → JAI-DOMEKA: "Lenengo bada, jai-domekak ondo gordetako ezta bea-ririk egin biar...". (12.)

JAIEGUN: "... jaijegunerako gorde daroazuez arkondara, gona, frakak konpondutia...". (12.)

JAJETZA: "... gura Salbadorien jaijetzarik 1683garren urtian azertau zana...". (20.)

JAKIN → ZIERTU JAKIN: "... jakinik ziertu osaturik geldituko dala...". (24.)

JAN: "Bai, sugiak janeko miñak emoten daben baño min geiago emongo deutse bere lengo gustuak...". (9.)

→ JAN-GAUZA: "Onelango egunian saldu nai erosi lei jan-gauzia, arto, ogi, okela, ardao...". (12.)

JANTZI → JANTZI-MODU: "... askorentzat lakio izateko jantzi-moduetan eta kostunbre lotsagarritzkoetan!". (81.)

JARAMON → JARAMONIK EGIN EZ: "... eta aren modura dei egin arren, jara-monik egingo ez deutsu...". (23.)

JARRAI → JARRAI IBILI: "Semiak bere aitaren bidien jarrai dabil...". (30.)

JARRO: "Baña bai, pitxer, jarro, azkora, atxur, kodaña...". (12.)

JATSI: "... eta Infernuak bere aoa idigirik jatsi biarko dozuenak...". (11.)

JAURT → JAURT EGIN: "... bein lantzarekin jaurt egiten eutsela...". (11.) /  
"... jaurt egiten dautso arrija, joten dau bekokijaren erdijsa...". (37.)

JAUSKERA: "... eta bildurturik bestien jauskeriagaz...". (22.)

JAZO: "Bestela, zugaz jazoko da arako gorputzian gaisorik egon...". (24.)

JENERO: "... jenero ain ona eztana nasturik ontzat emanian...". (33.)

JO: "... kosirik erijotziak, joten dau Infernuko ondarretan...". (37.)

JOLAS: "Alkarregaz fiestara, andik etera, jolasera...". (8.)



**K**

- KABILA: "... jaiegunian lasto ta kabillia balkoitik kamarara eroan ta pletgia (sabaira)...". (12.)
- KABU → -(R)EN KABUAN: "... egunen kabuan guztijak bat eginik denpora andija emoten badozue...". (12.)
- KADERA: "... lankiari kaderea ifiniten beste erdi...". (12.)
- KAINABERA (< KAÑABERA): "... [ez] kañabera argala bezela ba[te]tik bestera doblauko diranak...". (7.)
- KAKARRALDO: "... kakarraldo bekorotzian legez Seigarrengoan bizi zarenak...". (8.)
- KALTE: "Otsoak egindako kalte guziak nik osatu dizkitzut...". (1.)
- KALTEGILA: "... eskubidia emoten eutsela kaltegiillari gorroto izateko...". (77.)
- KALTZAIDU: "... baña arako kaltzaiduagaz sua ateraten ebenak zijorrakin urak emoten ditu...". (64.)
- KALTZERDI → KALTZERDIGINEN (< KALTZERDIGINAN): "Baite bere goruetan, kaltzerdiginan...". (12.)
- KAMARA: "... jaiegunian lasto ta kabillia balkoitik kamarara eroan ta pletgia (sabaira)...". (12.)
- KANA → KANAKO: "... kodaña ta kanako gauzak saltzia eta ainbat andijagoa...". (12.)
- KANPOTAR: "... ez zeure aberijak, ezta zeure etsian dagoan kanpotarrak bere...". (12.)
- KAROBI: "... karobija ta ikaztobiari suba emotia...". (12.)
- KAROBIGIN: "... eta pekatu egin daroe arako karobiginak...". (12.)
- KARRA → KARRA EGIN: "Karra egiten eban ama tristiak bere sabeleko fruitu gozua...". (18.)
- KARRERA: "... Eguzkiak karrera gelditzen du beren amodioz...". (68.)
- KASTIGATZALE: "Ez gaitez an joan erri asagoetara kastigatzale one[el]n billa...". (10.)
- KATE (< KATEA) → KATEAPE: "O zenbat pekatari pekatuen kati[al]pian zeudenak baliatu diran induljenzionegaz...". (4.) / "... atxakija onegaz bere katiapian euki gure zaituzena...". (38.)
- KIRATS (< KIRETS): "... igaro biarko dabe presondegi itzaltsu atan kirets edo usain gezto...". (18.)

KISKALDU (< KISKELDU): "... edo gurarijak zura bijotza kiskeldutera bada-roa...". (20.)

KIZKORTU → ULEAK KIZKORTU: "... eukirik ordu luziak ispilluan inoren laki-jo izateko apain ta ulliak ki[z]kortuten...". (79.)

KODAINA (< KODAÑA): "... jaiegunian azkora, atxur ta kodañiari astia bear ja[ken] ifini...". (12.)

KONBENIENTZIA: "... ekusirik euren alabak konbenientziak dituela...". (7.)  
/ "Beste askotan, alabai konbenientziak agertu arren...". (7.)

KONBIT: "... igara zitzaion konbit aurrenien erakutsi zuan poz ta atsegi-ña...". (23.)

→ KONBITEZ: "Diabruaren konbitez engañadurik jan beben gure guraso-ak fruta eragotzia...". (61.)

KONDENAGARRI: "... nere azoteak, nere tormentuak zure kondenagarr...". (1.)

KONTAU → EZIN KONTALA: "... mantenimentutzako eta beste ezin kontalako...". (1.) / "... eta mundu guztitik zabalduarik ezin kontala pekatari...". (4.) / "... beste ezin kontala induljenzia konpesau ta komulgetan zarian bakoitxeko...". (27.)

KONTENTU: "... munduko olgura, erromerija ta bisitetan arako banketetan kontentuz beterik ibili zariana...". (37.)

#### KONTU

→ ALKAR KONTUA IFINI: "... alkar kontua ifiniten daud[e] domekan urlija mezatara urtengo dabela...". (12.) / "... egun askoz aurretik alkar kontuan ifinirik egongo dirianak?". (83.)

→ ISIL-KONTU: "... eta an isil-kontu andijetan egoten dira mezan...". (12.)

→ KONTU EGIN: "Kontu egin daigun bada, N.K., Jangoikoak daukala...". (31.)

→ KONTU HANDIKO: "Ikustsen baditugu Israeldarrak zeñ kontu andikoak izan ziraden eskerrak ematen...". (5.)

→ KONTU HARTU: "Gurasoak umiai gaztetan kontu hartuko baleuskioe, ez litzake onelakorik...". (7.)

→ KONTUAN SARTU: "... ezpada jakitia bere pekatuen kontra aserraturiko Jangoikoagaz kontuan sartu biar dabela...". (9.)

→ KONTURAKO: "Konturako, dirautsu konfesoriak egun bijan barau egin dagizula...". (3.)

- KONTUZKO: "... Kristaoak egiten duan bere biotzaren billakuntza kontuzko bat". (15.) / "Bai zeatzak eta kontuzkoak izan biar du examinañak...". (15.)
- KOMUN → KOMUN ETA JENERAL: "Añ komun eta jeneral egin da Elixia Amaren kontra itz egitia...". (53.)
- KOPAU: "Zenbat bidar zuri gurasoak emon dautsu bere aora eroango eban kopau...". (85.)
- KORRITU: "... bizimodu santu onen amodioz urturik korritzen du pozik Kurutzeren oñetara...". (14.)
- KOSI / KOSIDU: "... nondik aik bijak kosiko dituezan dabiltezanak...". (12.) / "... en fin, artu edo kosten daude preso...". (17.) / "... eta kosidu balegijoe estadu onetan erijotziek...". (21.)
- KOSO: "... basabei kosoak kortan baino geijago...". (12.)
- KOSTALA: "... baita bere kostala guztira begira bage, ara eroan dagijela aginduko ez leukianik...". (24.)
- KULPAGE / KULPAGA: "Nork du nere seme Isaak kulpagia!". (1.)
- KUTXILLO: "... ebagi ta sa jau kutxillogaz...". (3.)

## L

- LABASU: "... uruna eralgi, labasua, ta ogi erretia...". (12.)
- LABORE / LABORA: "Kanpo ederrak galdurik, laboriak ostikopean zapaldu rik...". (10.) / "... edo euri, arri edo txingorak laboriak galduteko peliburuan...". (12.)
- LAGUN
- LAGUN EGIN: "Bere begi ta belarrijaren penai lagun egingo deutse usain gezto edo kirets ezin [sufridu] leijen batek...". (18.)
- LAGUN IZAN: "... penan ere lagun izan zeitala...". (1.) / "... lagun zaki-guz, bada, zu gure aldetik eukirik eztago arerijoen bildurrik...". (3.)
- LAGUOINEKO (< LAGUÑEKO): "... laguñekoak gorde edo zainduten biraldu eban...". (10.)
- LAIJA → LAIATAN: "... nai soloan artajorran, laijetan...". (12.)
- LAKIO: "... urrutu dagiguzen gi[z]on one[e]lek ifini nai deuskuzen lakijokak...". (13.)

- LAMEDOR: “Eta mediku lamedorak baño errezetetan eztakijena gaiso gitxi osatu oi daroiana legez...”. (3.)
- LAN: “... eta neura sermoiaren lana gaurko arratsalde onetan izango dana...”. (31.) / “Au erakustia izango da nira sermoiaren lana...”. (70.) / “... zein dan nire sermoiaren lana...”. (83.)
- LANAK EGIN: “... presondegitan preso sartuteko lanak egingo zituela...”. (7.)
- LANKA: “... maija, aurkija, lankea, idijen askea, atea, burdija...”. (12.)
- LAPIKOGIN: “... arako lapikoginak bere esku artian egiten ebellen lapiko ausija...”. (28.)
- LAPURRERIA: “... ainbeste inbidija, lapurrerija eta beste pekatu loiz atsiturik zagozana...”. (37.)
- LAPURRETA: “... nik mandamentu orretan lapurreta andijak egin ditut...”. (3.) / “... gure soberbiak, gure engañoak, gure lapurreta eta beste ganekoak...”. (32.)
- LARREGI: “... menturaz zura pekatuak baino txikerragoakaz (...), pagetan euren konfijentza larregija?”. (21.)
- LARRI: “... zer egun larrian begira zauden!”. (1.) / “O zein larri andiak artuko daben ordu triste atan...”. (9.)
- LARRI ETA IKARA: “... arren, libradu gagizuz larri ta ikara gogor onetatik...”. (37.)
- LASTER → ETA LASTERREAN: “Eta egin-da lasterrian ezautu dabenak bere ezañtasuna...”. (73.)
- LASTIMA → LASTIMA TRISTEZ: “... baña bai ere, lastima tristez, zeñ gitxi egiten degun...”. (1.)
- LASTO: “... jaiegunian lasto ta kabillia balkoitik kamarara eroan ta plegetia (sabaira)...”. (12.)
- LAUZIRI: “... plazara edo merkatura zerbait saldutera joanik lauziri gejago artuko deben amorrugaz...”. (12.)
- LAZTAN → LAZTAN IZAN: “Orren kulpa guzia orrera igoteko, gu laztan izatia besterik izan ez da...”. (1.) / “Ez dozuleko laztan, munduko olgurak naijago dozuzela arimako zorionak baño...”. (24.)
- LAZTANDU: “... Jesusen oñ sagradu eriotzak otzitukoak laztandu ditza gun...”. (1.)
- LEGE → LEGEA IZAN: “... animaliak ogi pizkagatik añ lege andia badie beren nagosiai..”. (1.)

LEGORTU: "... pekatuz legorturik zeuden animetan santutasunezko frutuak ematen ditue...". (14.)

LEHENGUSU / LEHENKUSU: "... etorri zan enpeñatzera Joab bere lenkusu eta aitaren jenerali[al]kin...". (19.)

LEI: "... eguzkijaren berotasunak leiya urtu ta kenduten dabena lege...". (85.)

LEIDU: "... ain modutan leidu ereitzen dizte beren paltak eze...". (14.)

LEKU → LEKU EMON: "... baña grazia[r]li leku emonik Santo andi bat izan...". (69.)

LIMOSNA → LIMOSNA EGIN: "... pobriai limosnarik egin ezaz gañera...". (68.)

LO

→ LO GOGORREAN EGON: "Subak artuko baleu zure auzoko etsia lo gogorrian bertakoak dagozala...". (27.)

→ LOA BOTA: "Famelijako alabak, loa bota alde batera, irazarri zaitez...". (85.)

→ LOA GALDU: "... nigatik baraur egin, loa galdu, bideetan izardiak ta nekiak artu...". (1.)

→ LOTAKO: "Egia da lotako amesak onetarako biderik ez emonik...". (8.)

LOKARRI: "... zantarkeriako lokarri edo kordelakin...". (81.)

LOKATU: "... dardar ikaratu, lokatu diriala guztiak eta jausten asiten diria[la] lenago guztiz jausi baño...". (75.)

LORATEGI: "... santidadezko jardin ta lorategi izatera itzuli zituan...". (67.)

LOTSA

→ LOTSA ONEAN: "... eta esan bear deutse lotsa onean, eztirala aek egunak bear egitekoak...". (12.)

→ LOTSA-BILDUR: "... lotsa-bildurrak kendurik guztiak ondo konpesau eikezuz...". (34.) / "... bestetik lotsa-bildurrez atzeratuten eben...". (34.)

LOTU: "... baña one[eli] bere eskuak lotu eutsezan...". (11.)

LOZORRO: "Esnatu zaite noizbait pekatuaren lozorrotik...". (2.)

LUKURRERIA: "... kudizia ta lukurrerian...". (69.)

LUR → LUR JO: "... ez dezala onelakoak Jangoikoen Tribunalian miserikordiarik alkantzau: lur jo dezala onelakoak eta beti bizi dedilla bere etsaien mendian...". (11.)

**M**

- MAHASTUI: “Begira, p(ekatari)a, zer frutu eman duan zere biotzeko mastuiak...”. (2.)
- MAILUKO: “Eta lenengoko eskua untze gogorrekin malluko pasatu zienian...”. (40.)
- MAIORAZGIA: “... gure guraso santoakgandik arturiko maiorazgia eterno-rakoakin gordetia gure erriak”. (47.) / “... urlija maijorazgija beste etxe batera aldaturik...”. (79.)
- MAIZTER (< MAIZTAR): “... bere nagosiak botatzen zuanian ma[i]ztarren artian mantenitzeko...”. (59.)
- MANATU: “... lankea, idijen askea, atea, burdija, azpiria manaturik bada-goz...”. (12.)
- MAKALDU: “... sei eguneko bearragaz mak[a]ldu izango zirian gorputzak...”. (12.)
- MAKAR: “... jatsi zan Zerutik gizonen makarrak kendurik berriz Zeruko bidian ifintzera...”. (34.)
- MANDATARI → MANDATARI GEZTO: “... zartzako urtiak beste gazte askoren lotsagarritzko pekatuak estaltzen, izpia ta mandatari gezto egirik...”. (81.)
- MENDI → MENDI-BASO: “... soro eder eta mendi-baso galantak guri istia-rreren...”. (19.)
- MESEDE: “Ez det ikusi nere mesedetara eskergeztokeria besterik...”. (1.) / “... Jangoikoren mesedetara eskerronekuak izateko...”. (1.)
- MESEDEA(K) HARTU: “Nola euki ditzakegu eskuak openditzeko anbeste mesede artu ditudanak...”. (1.)
- MINBERA: “... igaro zuala eriotzarik minbera ta gogorrena...”. (2.) / “... gustu minberaz beteriko batzuegaitik guztija galdu nai izatia...”. (30.) / “... gizonak irago al leikian pasinorik minbera ta krue-lena...”. (40.)
- MINGOR: “... azote eta mingorrez beterik igoro...”. (9.)
- MIRARITU: “... miraritzen gera (...) ikusirik zure obra miragarriak...”. (1.)
- MIRARIZKO: “... Israelgo errijari emon eutsen ogi mirarizkoaren...”. (29.)
- MOKIL → MOKILAK HAUSI: “... laijetan, mokillak (erpillak) austen, nai bes-te onen modura dan moduan dala...”. (12.)

- MUKER → MUKERRAK HARTU: “Eta mukerrak arturik, barrura sartu nai ezik kanpotik gelditu zan...”. (27.)
- MUKUR → MUKURRA EGIN: “... jaiegunian surterako mukurra ta astillak egitia...”. (12.)
- MUN → MUN EGIN: “... guzur bakoitxeko lurrian mun egin dagizula...”. (3.)
- MUNDU → ASKO MUNDUAN LEGEZ: “Egoan andra alargun bat, asko munduan legez...”. (3.)
- MURMURETABIDE → MURMURETABIDE EMON: “... zuek askori murmuretabide emonik, one[le]k inozko alditan etorri oi diriala...”. (38.)

## N

- NABARBEN: “Bago zuben artian añ nabarbenik, Jangoikoaren egite onen zer esan daukanik?”. (23.)
- NAGITASUN: “... zeura nagitasun geztoz dala medijo...”. (24.)
- NAHASTE: “... baña leku santuau loitu ezeitiarrik isten ditudazan naste zantarrak...”. (8.)
- -(E)GAZ NAHASTE: “... eta are[le]k Infernura badoaz, zuk bere e[ul]rekaz naste joan gure dozu?”. (12.) / “... bere grazija ta alegiñagaz naste urtengo dogu pekatutik...”. (23.)
- NAHASTU → NAHASTURIK: “... eta nasturik dantzan dabilitzezarian...”. (8.)
- NAHI
- NAHIAK EGIN: “Orduan geiago zuri najjak nondik egingo zizkitzun ibiltzen etzan?”. (7.)
- NAHIEN IZAN: “... bakoitzak determinatzen duala anima ura berak naiien duana...”. (4.)
- NAHIZ BETERIK HAZI: “Zuben umiak azigizuez naiz beterik...”. (7.)
- NAHITANAHEIZ: “... geuk onetara inderrik egin bagarik naitanaiez legez emongo deuskula Zerua...”. (83.)
- NAHITANAHEIZEAN: “Zegatik bada, ez dozu alde egiten naitanaiezian pentsamentu loiak etorri biar jatzuzan parkazinotik?”. (8.)
- NAHITASUN: “... beragan naitasunak guziak ipinita deuzkana...”. (5.)
- NASA: “Onelan, Diabruak arako one[le]ntzat dagozangiñokoak bere nasa geztoan artuten dituz...”. (22.)

NASAITU: "Pekatariaik nasaitu badira bere, Jangoikoen bidiak len legez estuak dira...". (8.)

→ NASAITURIK EUKI: "Enbrak bazaree, aste guztijan etsia korta bat legez nasaiturik eukiko badozue bere...". (12.)

#### NEGAR

→ NEGAR ERION: "... urten eben kanpora eta begietatik negar eriola esan eutsan...". (10.)

→ NEGAR-ANPULU: "... negar-anpulluok elduko litekez uriola andi bat egi-tera...". (18.)

→ NEGAR-MALKOA ERION: "... negarrez aitaren oñetan, eta negar-malkoa zeriola dirautso aitari...". (10.)

→ NEGARRAK GORDE: "... anaia Benjamin ikusi zuanian ezin negarrak gorde izan bazituan...". (1.)

→ NEGARREZ DESEGINIK: "... negarrez deseginik adoratzen du...". (48.)

#### NEKE

→ NEKEAK HARTU: "... bideetan izardiak ta nekiak artu...". (1.)

→ NEKEZKO: "... arako otseinak egin daroiena ta alogerekoak, zein dan beti nekezko biarra...". (12.)

NEURRI → NEURRI BAGE: "... orregatikan neurri bage dirade andiagoak artuagatik ezautzen ez dituguzanak...". (5.)

NEURRIBAGE(KO) / NEURRIGABE(KO): "... jakindurian neurribagia...". (1.) / "... miserikordian neurrigabekoa danak...". (1.)

NEURRIBAKO: "Esan dautsut len bere neurribakoa dala bere miserikordija...". (17.)

#### NOIZ / NOZ

→ NOIZIK NOIZERA: "Eta legez onez aztu ta otzitutera zoazenian, noixik noixera biraldu...". (27.)

→ NOZIK BEHINEAN (< NOZIPEHINEAN): "... ta gozotasuna artu dagijen nozipenian Zerutiko euri-zaparrada bat?". (13.)

## O

#### ODOL

→ ODOL-BOTATE: "... anbeste fede falta, erreboluzino, odol-botate guttia...". (26.)



- ODOL-ERREKA: “Zugandik jatsiriko odol-errekak asko izan badira pekatariarik andienak santututeko...”. (89.)
- ODOL-IZARDI: “... garbitu eban bere odol-izardia...”. (41.)
- ODOLBATU (< OROLBATU): “... urtzen ditue bestiak egindako orolbatu eta beltzuna guziak...”. (16.)
- ODOLBIZIKO: “... non etorri zan egitera gazte odolbiziko ta frago batek egin eta asmau aleikezan pekatuak...”. (81.)
- ODOLUSTU (< OROLUSTU): “Gure pekatuak ipini due Kurutze orretan zauri bat eginik, orolusturik...”. (2.)
- ODOLUTSITUTE: “... ondo-ondo pentsetan ez zala izan Jesusen odolutsitua tormentu ta eriotzaren bildurratik...”. (41.)
- OGI → OGI-ERRETE: “... uruna eralgi, labasua, ta ogi-erretia...”. (12.)
- OGITUKO: “... etorririk eta biraldurik zuben ogituko ta umiak misiño santura...”. (10) / “... besterik biralduten badozue, seme-alaba, otsain edo ogitukorik...”. (27.)
- OGOLDI: “... esa[n] leike arako ogoldiagaz Jangoikoak gizonak ondatu zitubengan legez...”. (8.)
- OIN → OIN-ESKU: “... nai genduzke gaurrik aurrera iltze oriekin josi gere oñ-eskuak...”. (2.)
- OINAZPIKO → OINAZPIKO EGINIK: “Guztien burlagarri ta oñazpiko eginik ikusi arren ere...”. (2.)
- OINEKO: “... bere seme edo oñekoai emongo eutsiela zorioneko erri bat gauzak ugari ta abondo izango zituena...”. (23.)
- OKER: “... euren pekatuen okerrian atseginez betiak ibilliko dira?”. (11.) / “Okerririk etorriko zitzaion beldur andi gabe...”. (74.)
- OKER EGIN: “Parkatu nere oker egiñak”. (5.) / “... oker egiñok damurturik ondu zaitez...”. (34.)
- OKERRERA EKARRI: “... esaten zion okerrera ekarri nai zuan etxeko andreari...”. (1.)
- OKERKERIA: “Okerkeria onek obligatu zuan Jangoikoa kondenatu biar izatera...”. (1.)
- OLAGIZON: “Errazago da garbitzen askoren alkondara, olagizonena bai xen...”. (15.)
- OLANDA: “... oi bigunen barrunian olanda ta gasazko izara...”. (74.)
- OLGAU: “... bere alabia bestia gaz ezkondu din egarrijagaz biralduten dabenak, joan dilla ta ondo olgau dagijela...”. (37.)

OLGURA: “Begira, zuek pekatari munduko olgura, gustu loi eta dibersino pelibururik inoz urten bage bizi zareanok...”. (18.)

ON: “Nik orren on guztietan sentimentua artuten dodana legez...”. (11.)

→ ON EGIN: “Bada janarik on egingo badau, gustuz jan edo artu bear da...”. (13.)

ONDASUN

→ ONDASUN-ABERASTASUN: “... euren ondasun-aberastasunian geijago esperantza ifinirik...”. (37.)

→ ONDASUN- EMOLA: “Eta nor ezpada Marija da gure ondasun-emollia?”. (83.)

ONDASUNTEGI: “Begira pekatariak, zeñ ondasuntegiak zuben pekatuen parkaziñorako!”. (27.)

ONDRA: “Zure ondrarik andiena dago munduko ondra guztiai alde batera itxitean...”. (11.)

ONDRATU: “... alako moduan ondratu banau...”. (1.)

ONDU: “... eta zenbat galduago ikusten duan, anbat geiago nondik onduko duan alde guzietatik alegiña egiten dabil...”. (48.)

ONENBESTERATU: “Nork sekula onelakorik usteko zuan, Jangoiko Zeru ta Lurraren Egilia onenbesteratuko zuala gizonaren amodioak...”. (1.)

ONGARRI: “... askorentzat izango litzateke bildurgarrija, baña bai bere guztiz ongarrija...” (23.)

ONGILA: “Animaliaginokoak beren ongilletara ekusten degun añ eskerro-nekoak ezen...”. (1.)

ONURE: “... bere etseko ondasunak eta erriko onure ta probetxu guztiak...”. (9.)

OPA

→ OPA EGIN: “Au da Jangoikoak aparteko probidenziaz opa egiten digun deia...”. (69.)

→ OPA IZAN: “... berrogei egunekoak doktrina baktzeko eta beste berrogeikoak sermoi baktxerako opa deuskuz...”. (27.) / “... prometidu edo opa izan euskun...”. (34.)

→ OPAKA: “... ezpada betiko bizitzia opaka jagotzuen Jesus maitiagana...”. (9.)

OPATU: “... enemigoari opatu edo eskiñitzen eutsezan tenplo ta altareak...”. (27.)

- ORBAN: "... bata da zure pekatuaren errua ta orbana...". (3.)
- ORBEL → ORBELA BATU: "... landarak atara ta ifinitia, orbela batu, karobi-ja ta ikaztobiari suba emotia...". (12.)
- ORDIKERIA: "Zenbat propositu itxiko dautsazula ordikerija, maldezino, juramento...". (36.)
- ORROA (< ORROE) → ORROAK ATERA: "... entzunik arako itsasoak aterako dituan orroe arrigarriagaz...". (75.)
- OSAGARRI: "... bere arimako osasunerako biar dirian osagarrijak...". (3.)
- OSASUNGEI: "... Jangoikoaren odolezko osasungei edo medizina...". (2.)
- OSKOL: "Bada zuen artean oskolako biotz gogorrekorik?". (11.)
- OSO → OSOZKO: "Zenbat pensamento loi borondatezko edo deseo osozko arintzat daukeezanak izan doaz astunak?". (33.)
- OSTATU → OSTATUA EMON: "... beste pensametuai bere ostatua emonik...". (24.)
- OSTEAN → -(A)Z OSTEAN: "... Apostolu ta Elexa Ama Santiak domekaz ostian...". (12.)
- OSTERANTZEKO: "Baña osterantzeko gauza artezetan beti daukazu obligazioia...". (85.)
- OSTIKOPE
- OSTIKOPEAN: "Kanpo ederrak galdurik, laboriak ostikopean zapaldu-rik...". (10.)
- OSTIKOPEKO: "... ostikopeko aultsa balixen ere gutxiagotzat estimatzen zuala...". (51.)
- OSTIKOPERATU: "... preso ipini Aita Santoa, ostikoperatu erlijinoa...". (47.)
- OTSEIN (< OTSAIN): "Erriak eta sazerdotiak, uezaba ta otsañak, pobre ta aberatsak...". (10.)
- OTSEIN MUTIL-NESKATILA: "... ez zeure alabak, ez zeure otsein mutil-neskatillak, ez zeure aberijak...". (12.)
- OZTA: "Angeru baten garbitasun guztia ozta asko izango da bear legez berba egiteko onen ganian...". (8.)

## P

- PAGU: "Au da gizonen pagua!". (1.)
- PAKEGILA → PAKEGILA EGINIK: "... Jangoikoren pakegilla eginik...". (50.)

PANPARROI / FANFARROI: "... zeuek semiak fanfarroi bizi ta janziten zareenak...". (85.)

→ PANPARROI AGERTU: "... eta beste lapur galant asko urte luzietan ibillirik, plaza ta kalietan panparroi agertuten dira...". (23.)

PAREBAGEKO / PAREGABEKO: "Alabatu zaiz[ela] Zeru ta Angeruak mesede parebageko onegatik...". (1.) / "Humilla eta guztijen artien paregabea izan zan Maria...". (22.)

#### PARTE

→ PARTE EMON: "... parte emon eutsen euren uazabari maiordomo onen gogortasuna...". (11.)

→ PARTE IZAN: "Justo zan etsaiakin kulpan parte izan zana...". (1.)

→ PARTEZ: "... ez baka[rrik] alan Jangoikoa dan partez...". (11.) / "Baña nik bere, ministroa nazan partez...". (37.)

PARTEDUN: "... egin eztitezan euren penitentiaren pekatuetan partedunak...". (3.)

PASTATU: "... nekatu naiz zu zaintzen, nik pastatu zaitut Zeruko doktrinarekin...". (1.)

PATARI: "... izan bazan abere, patari, giberriren bategaz...". (8.)

PAUSU → PAUSUAN-PAUSUAN: "Pausuan-pausuan ikusiko dogu klaruago arturik egijau...". (29.)

PAZIENTZIA (< PAZIENZIA) → PAZIENTZIA HARTU: "Pazienzia pizka bat artu egizu...". (11.)

#### PEKATU

→ PEKATU-MODU: "Eta beste pekatu-modu guztiak izan ditu...". (9.)

→ PEKATUPE: "... gu pekatuperik ateratzeko izan zirian lllaga preziosak...". (14.)

PEKO: "Berorren oñetan nagoala berorren kontra etorri jatan juzgu edo peko gezto bat...". (34.)

PELIBURU → PELIBURUZKO: "... edo beste batzar peliburuzkoren baten sartuten zarian guztijan...". (3.)

PELOTA → PELOTAN: "... bolan, pelotan ta konbersaziño ganorabakoetan mutil ta gizonak elexa aurrian egotia...". (12.)

#### PENA

→ PENA-NEKE: "... apenas pena-nekiak igarotzeko pazienziatz inderrik egon ez oi danian...". (14.)

- PENAZ: "... ta tentazinoen inderrez penaz zagozana...". (83.)
- PENTZUETAN (< PENZUETAN): "... milagro penzuetan ifini biar dozun asmue-  
tatik jagon zaizala...". (38.)
- PERSEKUZINO → PERSEKUZINO-MODU: "... preso artutiak, azotiak, eriotza ta  
persekuzino-moduak...". (7.)
- PILO → PILOA EGIN: "Gizon guztijaren gaiztokerijak ta diabru guztijaren  
malizijak batera pillo andi bat eginik...". (37.)
- PISU: "Itsu da gizonaren entendimentua gaurko misterio erakutsiteko,  
pisuago bere mingaña esplikatzeke...". (1.)
- PITXER: "Baña bai, pitxer, jarro, azkora, atxur...". (12.)
- PIZKO
- PIZKO BAT: "... esperantza pizko bat zure biotzian ifini arren...". (9.)
- PIZKO BAT GARRENEAN: "Arik pizko bat garrenian...". (21.)
- PLATER → PLATER-JARRA: "... beste batzuk plater-jarrak...". (31.)
- PODERIO → PODERIOZ: "Ondo gomutatugizue zelan anbeste milagoren  
poderioz atera zituben zuben gurasoak...". (25.)
- PRESO → PRESO HARTU: "Bai, nigatik preso artua, desanparatua, burla-  
tua...". (1.)
- PRESONDEGI: "... eta ber[e] pekatuak katiatz betarik presondegi batian ipi-  
ni beben bere...". (10.)
- PRESTAERA: "... zelako prestaerak egiten ez dira?". (12.)
- PRESTAKUNTZA: "... ezbada doazalako prestakuntze onakaz...". (24.)
- PRINTZIPAL (< PRINZIPAL): "Koroa orren errorik prinzipalena...". (1.)
- PROBANTZA (< PROBANZA) → PROBANTZA EGIN: "... milla kontu atera ta arra-  
patzen due, eta egin probanza...". (15.)
- PRISA → PRISEA ERAKUTSI: "... debozinoz entzuterako prisa andija erakutsi  
zeunkie...". (12.)
- PUSKA → PUSKA BATEN: "... eta kandela deungaro amataduaren usain gez-  
to txikija ezin sufridu euenak puska baten...". (18.)
- PUSKATU: "... azotez aserik, birrindu ta puskaturik...". (11.)
- PUTZ → PUTZ EMON: "... eta Diabruak putz emonik...". (8.)

## S

SAIN: "... okela, ardao, orijo, sain, tabakorri...". (12.)

SALDU → SALDU-EROSI: "... irabazi bidebagekoak, saldu-erosietan engañu andiakoakaz aberastu...". (9.)

SAMIN: "Adanen frutu saminak ekarri zigun eriotza...". (1.)

SAMUR: "Eta zuek umetxu samurrak, bildur zuei beste ainbeste jazo ezta kizuen...". (37.)

SARE: "... pekatuen egon leitekezan guztiak graziazko sare onetan atrapetara...". (27.)

SARRAIERA (< SARREIERA): "... ala pekatuen munduan sarreierak bere [er]remedioakin...". (83.)

SARRI → SARRI-ASKOTAN: "Gauza agirija da sarri-askotan erriko buruak gizon artez...". (85.)

SASTEGI: "Zure biotza zantarkeriazko sastegi loi bat baño loiagoa izan da...". (81.)

SENDAGARRI: "Eta egiaz, zer janari sendagarri ta osagarriagorik...". (5.)

SENDOTASUN: "... guztirako sendotasunak justiziakoak izan biar ditube...". (7.)

SENIPARTE: "... eta gazteenak aitari senipartia eskatu eutsala...". (10.)

SENTIDU → SENTIDUEN KAPAZ IZAN: "... sentiduen kapaz ez dirian kriaturak legez, arriak eta atxak legez gogorturik...". (25.)

SENTIMENTU: "Ze sentimentua zuria ordukoa (...) ikusirik anbeste denpora eta grazia galdu dozula!". (9.)

SENTITIAKE / SENTITIAKA: "Onelakoen etxian, etxeakoak sentitiake, nai etxeakoak etxian edo inguruan diriala...". (8.)

SEPULTURA → SEPULTURA-GANE: "... autsez ta zilizioz betiak sepultura-ganetan etxunik negarrez ta llantuan...". (10.)

SERBIDU → HILOROZ SERBIDU: "... ta alan illoroz edo beste moduten serbietan zoazanak...". (12.)

SINISEZGARRI: "Zorakerija andija, benetan sinisezgarrija!". (2.)

SINPLEKERIA: "... zeuen gura[so] zar tristiaren konsuelura igarogizuez pazienzija ta amoriagaz euren sinplekerijak...". (85.)

SINPLETU: "Jauna, nere ama sinpletua dago...". (7.) / "A ezin jaramon leijo, sinpleturik, gitxiendurik sein biorturik dago...". (85.)

SITS → SITSAK JAN: "... nira galak sitsak jan zituala...". (18.)

SOINULARI: "Zerua galduteko peligro andian bizi dira soñular[ilak...". (8.)

SOKORRU

→ SOKORRU-DEADAR: "... aditu are[e]n sokorru-deadarrak...". (72.)

→ SOKORRU-DEI: "... ez genduke biarko are[e]n sokorru-deirik...". (72.)

SOLDADESKA: "... euren poderio ta interesak enpeñau ditube zubei soldadeska guztiak baño gerra biziago bat egiteko...". (48.)

SOLDADU → SOLDADU-PATRULLA: "... eta ezauturik Judas traidoria urrian zala bere soldadu-patrulla madarikatuakin...". (40.)

SOROTS → SOROTS EGIN: "Meza bitarteetan izaten dira pekatuak andijenak; orduan sorots eginik, gurasoak ezpadagoz loikeriak, andi eskandaluak...". (12.)

SOSEGADU: "... biotzeko samintasun bat ezin sosegadu edo baketu dituen ipintzen die...". (5.)

SOSEGU

→ SOSEGU EUKI: "... etzeunkie eukiko egunez sosigurik ez gaubien deskansurik...". (21.)

→ SOSEGUAN SARTURIK: "Nik ezaututen dot pekatari asko bizi dirala pekatuan sarturik sosegu andi baten...". (37.)

SU

→ SU GORI: "Infernuko su goritara, asetu dedin are[e]kaz tormentoz emen pekatuzko atsegiñez asetu zana...". (9.)

→ SURTARAKO: "... jaiegunian surterako mukurra ta astillak egitia...". (12.)

SUBITUKO: "... eta beste asko ustebageko eta subituko eriotziak atrapatuta...". (28.)

SUGARRASTA: "... agindu zion egiteko metalezko sugarrasta bat...". (50.)

SUKALDE → SUKALDE-BAZTER: "... eta biarbada guraso zar tristiari neguko denporarik otzenian sukalde-bazterrian...". (85.)

SUNDA (< SUNDE): "... eta Seigarrengorako sunde kirestsua...". (8.)

## T

TABAKORRI: "... tabakorri eta onelango gauza biar-biarrekoa...". (12.)

- TANGA → TANGA BAT: “Askok erantzun daroa tanga baten baño lekurik emon ez eutsala...”. (8.)
- TAPADA: “... konzienzijaren tapadak, guztijetatik deika egon urten deijela pekatutik...”. (30.)
- TEILERU: “Jangoikoak Apostoluen irudijan egiten dau telleru edo lapikogin batek lur zati bategaz egiten dabena...”. (31.)
- TENTAGARRI → TENTAGARRI EGINIK: “... Jangoiko eta bere erriaren tentagarrri egiñik zabellenian...”. (23.)
- TESTIGANTZA: “... euren testigentzakak ontzat ematen dabeela Legiak esan dabena...”. (9.)
- TRAIZIO → TRAIZIO EGIN: “... indar gabe gelditu bazan bere nagusiari traizio egiteko...”. (1.)
- TRANGA: “... atiak itxirik tranga gogorrekaz daukazenetan...”. (8.)
- TRESABI: “... tresabia pobre batian, animalia bien erdian...”. (1.)
- TRISTE → TRISTERIK: “Zein tristerik gere amoriak ipini zaituz[n]!”. (2.)
- TRISTETU → TRISTETURIK: “Barau egiten dozunian (...) ez zaitekez agertu lagun artera arpegi tristeturik, burua beraturik...”. (30.)
- TRISTEZA: “... eta zure estura ta tristeziak kenduko deutsu zenzuna...”. (37.)
- TROXA: “Alegra zaite, neure biotza, troxak gariz betiak”. (28.) / “... troxak beterik daukaguz!”. (80.)
- TRUKADA: “... semetzat artu bazuan ere, eta onetan gu guziok, zer pena trukadau egitian artuko zuan...”. (90.)
- TXABONADURA → TXABONADUREA EGIN: “Pekatu da m(orta)la, bogadea, txabonadurea egin...”. (12.)
- TXAPLA: “... birtutez edertuko urregorrizko txaplaz kanpotik eta barrutik amudijozko oraziñoz betundua...”. (83.)
- TXARRALDI: “Aspaldijen gaixokarik ibili da ta bart txarraldijagaz ilik parau da...”. (37.)
- TXARRAPOZ: “... meza uts egitiak eztautse emoten anbeste pena, ezpada, lauziritxu geijago artu ez[el]itiak baiño txarrapoza kudiziosa geztoak...”. (12.)
- TXATAR: “Bide onetatik obligatuko dezu graziaren txatar santoak zure biotzian ernetzera...”. (77.)
- TXIKER: “... menturaz zura pekatuak baino txikerragoakaz...”. (21.)



- TXIMISTA → TXIMISTA BEZALA: "... eta tximista bezela instante batean ikusten da...". (14.)
- TXINGAR: "... au ez da arako zure jantzian jausi zan txingerra bai-xen...". (8.)
- TXINGOR: "... edo euri, arri edo txingorrek laboriak galduteko peliburuan...". (12.)
- TXISTU → TXISTUAK EGIN: "... arteko zuri Berak egindako txistu ta otsak despreziatu ziñuelako...". (1.)
- TXIT: "... txit da gitxia artzen duen frutua". (5.) / "... txit gitxi berari jarraitu gure deutsenak...". (10.)
- TXITO: "... baña txito probetxu andikoa ondo begiraturik...". (37.)
- TXITOKO: "... garbitu eta jagon zuan ardura txitoko bateaz...". (2.)
- TXORDO: "... auzoko idi txordo ta apalaren inderrak gogoan dozueza-la...". (12.)
- TXU
- TXU ETA GORROAK EGIN: "... egiten deutseez txu ta gorro andijak...". (40.)
- TXUA BOTA: "... ta txu euren ao madarikatutik bere aurpegira bota ziozkazanagaz...". (40.)

## U

- UASI (EBATSI?): "... gox ta arratsaldeari beste zati batzuek kenduten badeutsezuez, beti igoroten zaree ta uasten dozuez jaiak...". (12.)
- UGARI: "... pozik emoteko ugari zuri debozinoz eskatuten deutsuenai...". (35.) / "... bere gari-ebatzaillai esaten eutsela ugaritxuago gari-buruak jausten itxi leijela...". (80.)
- UGAZABA (< UEZABA): "... uezaba ta otsañak, pobre ta aberatsak...". (10.)
- UGAZABANDRA (< UEZABANDRA): "... euren etxeko uezabandra ta señorak ballitzen...". (38.)
- UKAKIZUN: "Andija[k] baziran bere soldaduen trabajuak, andijago izan z[ir]lan S(a)n Pedro[ren] ukakizunak...". (40.)
- UKATU: "... eskatuten badeutsazue, konbenidu jatzue[n] gauzarik uketuko ez deutsuela...". (83.)
- UKUTU / IKUTU → UKUTU EGIN: "Jauna, ukuturik bere ez daukat egin...". (8.)

## UR

- UR EGIN: "... ez zara joaten auzokoari urik egitera...". (64.)
- URA LEGEZ: "Berba batian, ura legez pekatuak...". (8.)
- URAK EMON: "... baña arako kaltzaiduagaz sua ateraten ebenak zijorra-kin urak emoten ditu...". (64.)
- UR-KORRONTA: "... edo ezarririk euren pasino geztoaren ur-korronta bildurgarriak insensatu...". (18.)
- URIOLA / UIOLA (< UIULA): "Gaitzezko ur[i]ljolagaz ondatu dezute mun-dua...". (2.) / "O ujula geztoa!". (8.)
- URKA: "... nai katia ta urkia iduretik dozuzela zabiltzela...". (34.)
- URKAMENDI: "... Urljagaz barbarik egiten badozu urkamendira erremedi-jo bagarik eroango zaituzela...". (17.)
- URLIA: "... urlija etxetan sartu eztila...". (3.)
- URRATU: "Guazen ere biotzak penaz urratuak Madalenaren antzera...". (1.)
- URRE → URREGORRIZKO: "... zein bakarrik Aita Santuak bere buruan urra-gorrizko plantxa baten ifini edo eskribidurik erabilten eben...". (20.)
- URREGINTZA → URREGINTZAN: "Pek(a)tu egiten dabe bere argintzan, aro-zian, errementaritzan, urregintzan...". (12.)
- URRIKI: "Etorri zaiteze Jesusen urriki santora...". (1.)
- URTEIKERA: "... ain gitxi eta kontaduak pekatarijen pekatutik urteike-rak...". (36.)
- URTU: "... gure amodioz urturik gizon egin zanen neurribageko merezi-mentuetatik...". (4.)
- USADIO: "Baña pekatuzko usedijoa da, eta kendu biar dana...". (12.)
- USAIN
- ERRE-USAINA ASMAU: "... erre-usaina asmetan dozue...". (8.)
- USAIN-HATSA BOTA: "... ez zuben etxe ta kamaretan usain-atsa botatzen ez d[u]lan it[z]lik...". (57.)
- USIKADA: "... euren benenoz beteriko usikedakaz kastigadu zeijen mur-muradoriaren pekatu ta geztokerija...". (18.)
- USTE
- USTERIK GITXIEN: "... eta usterik gitxien dozuenian, erre-usaina asme-tan dozue...". (8.) / "Ustirik gitxien dauenian urtengo dabe sustrai atatik pekatuaren landara barriak...". (36.)

- USTE-USTE BAKO: "... erraijo, zenteilla, ta uste-uste bako eriotzakaz bildurtuten dira...". (79.)
- USTEBAGEKO: "... eta beste asko ustebageko eta subituko eriotziak atrapauta...". (28.)
- USTELZALE → OKELA USTELZALE: "Ez siñastu, sai okela ustelzalia lege[z], zuen aragijaren billa ezkontzako berba gozoakaz datozenetara...". (85.)
- USTI → USTI IZAN: "... bada, usti izaiten dabe...". (33.)
- UZO: "Nolako pena ez zan izango Ama Santisimarena, ekustean eriotzaren animalia uzoak bere Semiari bizitza kendu ziola?". (1.) / "... orduan inoz baño uzoago ta okerrago erakutsi zatxakoz...". (1.)

## Z

- ZABAR: "... eta nola zure bizitza santoak lotsatzen duan gure bizitza zabarra!". (67.)
- ZABARTASUN: "... beren zabartasunaz alperturik denporia galdu...". (7.)
- ZAGI: "Alperrik izengo da bere zagiko ardaoa...". (33.)
- ZAGITA: "... Jangoikoen erruki eta justiziaren zagitakin urraturik...". (25.)
- ZAHAR → ZAHAR ETA GAZTE (ZAR-DA GAZTE): "... zure bizilagun guziak, zar-da gazte...". (69.)
- ZAHARTZA: "Zartzan apartauko naz, guztiai itxiko deutset...". (28.)
- ZALDUN: "Gurasoak alabiari galarazot[en] badautso zaldu[n] bategaz berba egitia...". (12.)
- ZAMA: "... zeñ gorroto andia deutsan pe[k]latuari, zeñ bildurgarriak bere zamak!". (68.)
- ZANTAR: "... otsein zikin ta zantar[rakaz] etzan...". (8.)
- ZANTARKERIA: "... plaza agirigiño koetan ez da besterik entzuten izen txarrak, bastukeria, baita zantarkeria eskergak...". (8.)
- ZANTZO → ZANTZO ETA ALGARA: "... zantzo z ta algaraz zelebretan ditubena...". (8.)
- ZAPALDU → OSTIKOPEAN ZAPALDU: "... ostikopian zapaldu gure erlijio santoko Sakramento Beneragarria...". (10.)
- ZAPATARITZA → ZAPATARITZAN: "Pek(a)tu egiten dabe bere argintzan, aroztian, errementaritzan, urregintzan, zapataritzan...". (12.)

ZARANKADA: “Jaiegunian errotarako zarankada artoa garandu bearko da...”. (12.)

ZAUNKA → ZAUNKA EGIN: “... ez dalako nai nork zuben pekatuben kontra zaunka egin dezeen...”. (53.)

ZEKOR: “... arako zori gogorrezko metalezko zekorra...”. (23.)

ZELATA → ZELATAKA: “Ez dira gitxi zuen arteko askok zelataka...”. (8.)

ZEMAKUNTZA: “... añ zemakuntze andiak eta kastigu bildurgarriak begozan...”. (61.)

→ ZEMAKUNTZEA EGIN: “... eta zugaz jazoko dala arako Profetaren agotik Israelgo errijen kontra egin eban zemakuntzia...”. (12.)

ZEMATU: “... eta zematurik Jangoikoen Erri Santua egin eban pekatua izango zala bere azkenengoa...”. (37.)

ZENTZUN (< ZENZUN): “Non da gure zenzuna?”. (37.)

ZENTZUNBAGE / ZENTZUNBAGA (< ZENTZUNBAGA): “Au da, pek[ata]ri zenzunbagia, pekatu bakotxagaz egiten dezuna...”. (2.)

ZIERTU / ZIERTO: “Bada, sarri ta ondo konfesetan bazara, señaile ziertu Zerurako zarena...”. (24.)

→ ZIERTO ETA EGIAZKO: “... gizonak egin oi dituben pensamentuak munduko gauzen ganian ez dirade ziertu ta egiazkoak...”. (63.)

ZIGOR (< ZIOR): “Iltze bedeinkatua urratu badezu ere, ez Aaronen zijorra...”. (2.)

ZITAL: “Menpeko edo esklabo zital ta gezto bat bezala...”. (2.) / “Jangoiko benetako bat esklabo zital bat bezala...”. (40.)

ZOR

→ ZOR-HARTUREN: “... orain tratu andietan, zor-arturenen arduretan sartuta nago...”. (28.)

→ ZORRAK IZAN: “Maiordomo onek zor andiak eutsezan bere uazabari...”. (11.)

ZORAMENDI: “O mundutarren zoramendia!”. (9.)

ZORIGALDU: “Andia da, itsasoa bezela, zere zorigaldua!”. (2.)

### 3.5. *Estiloa gogoan*

Batzuek diote oratoria edo predikuaren generoak hizlariak, auditorioa aurrean dela, ahoz esateko atontzen dituzten testuak aztergai ditue-

la; beste batzuek, ordea, oratoriak berba ondo egiteko behar den eza-gutza ematen digula uste dute. Batera zein bestera oratoriaren generoa ulertua izan, iritzi biak leku berera datoz haren helburua zehaztean: entzuleak konbentzitu egitea.

Greziar eta erromatarren bereizketa da oratoriaren barruan erakus-te-, eztabaidatze- eta auzi-generoak sailkatzea. Ostean etorri zitzaigun gaur egun gehien erabiltzen den izendatze eta banaketa berria, klasi-koek eginikoari behar besteko zehatza iritzi ez eta. Hala, oratoriaren adierazpenak oratoria sakratua, politikoa, auzi-oratoria eta eskola-oratoria ei dira.

Oratoria sakratuari erlijio oratoria ere esaten zaio, eta lehengo erre-toriko askoren ustean bera zen gainontzeko agerpenetarik artistikoena, poetikoena eta ederrena.

Gauza jakina da oratoria sakratuaren ardatza Jaungoikoaren berba dena, eta Eskritura Santu, Elizako Aita Santu eta, teologia eta liturgian duena eustarri.

Halere, zelako sermoia taxutu gura duen hizlariak, halako ildotik eramateko trebetasuna erakutsi behar du, eta horretara, nahiz eta testu-rik gehienek gai eta argudio bertsuak izan eta iturri jakin batzuetatik edan, sermolari bakoitzaren itzala sermoiari bere nortasuna ezartzean duen jasaren arabera izango da.

Juan Ignazio Astigarragak eroso azaltzen du bere burua sermoiginen. Sarri-askotan konposizio tipo diferenteak hartu eta *collage* horretatik denetariko sermoi eredu bat sortzen du: alderdi morala, dogmatikoa eta apologetikoa nahastean dituen sermoi tipoa.

Hainbeste argudio mota erabiltzeak ez dio batere enbarazurik egiten edukiaren garapena mailarik maila naturaltasunez jartzeko orduan. Lehentxoago, eskuizkribuen egituraz jardun dugun puntuan esan dugun lez, Astigarragak eduki banaketa klasikoari jarraitzen dio ia beti: sarrera, garapena eta ondorioa.

Baina atal honetan edukiari barik, gurago dugu idazlearen estiloari edo edukiaren janzkerari begiratu, erabiltzen dituen baliabide estilistiko-ak eta irudiak zeintzuk diren asmatu.

- a) Sarreran gaiaren aurkezpena egiten du, Elizako Aita Santuen izen pisu handikoak erabiliz. Azalpenak baino baieztapenak dira hasierako berba hauek, tonu epela dariola dabil sermolaria.

**Adib.** *Jaugoikoaren Lege Santuko Irugarren Aginduak dirausku jai-ja[k] gorde dagiguzela. Begira zelan atxina esaten eutsen Jaugoikoak*

*Israeltarrai (...). Eta errazoaandijagaz, bada egun onetan, domekaz biraldu dituz Jangoikoak zorionik andijenak ta miragarrijenak, Aita S(a)n Leon gloriosoak dirauskuna legez (...). (12.)*

- b) Baieztapenak jaurti eta gero, baiztapen horiek entzuleei zirrararik eragin ez ote dieten beldurrez, deika hasten zaie haien arreta beragana ekarri guran. Tonua oraingoan kexa-hitz, galdera erretoriko eta dei-hitzetara bihurtu da.

**Adib.** *Baña, ai pekatarija, zer da esaten dozuna? Oraingino Jangoikoak parkatu dautsulako alan aurrera izango dala? (...) Orra, N.K., nira Jangoikoaren justizijaren sentef[n]zija (...). (31.)*

- c) Azalpenen aldia da. Lehenagoko denborak eta oraingoak berdindu egiten ditu maiz, Eskritura Santuko pasarteak eta entzuleen bizimoduko irudiak elkarri lotzeko asmoz ikusten dugu. *Comparatio* izeneko erretorika errekursoaz baliatzen da behin eta berriro horiek irudiok emateko; batzuetan azalpen baldarrak suertatzen dira, besteetan gogapen landuagoak edo jasoagoak. Beragatik zutabe bi egitea ebatzi dugu: lehenengoan, herri-bizimoduari dagozkion irudiak, adibideak eta esaerak plegatu ditugu; bigarrenean, irudi poetikoak.

## **Adib.**

### *Herri-bizimoduari loturiko irudiak*

- “Errazago da garbitzen askoren alkondara, olagizonena baixen”. (15.)
- “Or, gizonak, alkarregana baturik egoten zaree zeufe[n] idijaren indarrak erakusten eta nok sartu zaizen elexan, basabei kosoak kortan baño geijago”. (12.)
- “Arrastaka lurrian giñerra zar bat legez erabillitia?”. (24.)
- “Baña Kristinauak, Jangoikoa zarra da, eztautsezue aotik atzik sartuko”. (7.)
- “Gizon bat zelan lelengo lapurretian bere lapurrerija eskuen dabela arturik justezijak kastigetan daben”. (37.)
- “Zure biotza zantarkeriazko sastegi loi bat baño loiago izan da”. (81.)
- “Itxuaurreko ta itxua putzura erori oi diran bezela”. (84.)

- “Berba batian, ura legez pekatuak”. (8.)
- “Ez siñastu, sai okela ustelzalia lege[z], zuen aragijaren billa ezkontzako berba gozoakaz datozenetara”. (85.)
- “Eskapau bada, donzellak, oi[l]loak arraijaganik egin daroena legez”. (85.)

*Irudi poetikoak, landuagoak*

- “Eta igaro diriala guztijak odoi arteko eguzkija joan oi dan baño arinago”. (18.)
- “Itsasoan doian barkua baño arina[go]”. (18.)
- “Egaz doian txorija baño bere lenago”. (18.)
- “Aixiaren inderrak arinka daroazan lañoak baño ariñago igoroten diran”. (30.)
- “Gaztetasuneko mintegian Jangoikoen landara santu eginik”. (27.)
- “Ez-da bere arako lapikoginak bere esku artian egiten ebellen lapi-ko ausija gura badau bazterrera edo ostera moldan sarturik obia-go atera egin oi dabena legez”. (28.)
- “Dira lainotxu batzuk kenduten dituenak birtutiaren argitasunak, igual zein laño txikijak, aunke guztiz eztaben kenduten eguzkija-ren argitasuna; baña beti, baña alan bere beti kenduten dautse bere edertasuna. Dira artxu batzuk birtutiaren una jaten daudena, dira sitsak legez”. (33.)
- “Eta geldi-geldika untzorri geztoa ormiari oratu oi jakan bezala”. (47.)
- “Firu batetik dindillako Infernura jausteko zorian egonagatik”. (81.)
- “Eguzkijaren berotasunak leija urtu ta kenduten dabena legez”. (85.)
- “[Ez] kañabera argala bezela ba[te]tik bestera doblauko diranak”. (7.)

d) Azken epaia, eta aginduak egiteko unea. Joan dira lehengo harridura eta galdera erretorikook, sermolariak gogor azaldu behar du, tinko, entzuleak irabaziko baditu.

**Adib.** *Asi zaitetz zu bere Zerurako lanak egiten: nekatu zaitte lengo pekatuen arantza eta sariak zure biotzetik kenduten (...).* (26.)

### III. GURE ARGITALPENA

JAREIN bilduman ale honek estreinekoz dakar CDa erantsirik. Papezko euskarria eta euskarri digitala elkarren osagarritzat dauzkagu, batean eta bestean jarri den informazioa ere bat delako azken baten.

Arteragoko aleetako testu zaharrak transkripzio literala edo jatorrizkoa eginik argitaratu ziren, ezelako grafia aldaketarik egin barik. Oraingo honetan, berriz, bide bikoitzari jarraitzea ebatzi dugu, eta betiko transkripzio literalaren ondoan, transkripzio gaurkotua edo berriztua burutu nahi izan dugu haren betegarri, eta irakurleen mesedegarri.

Hala, libururako atondu ditugu eskuizkribuen transkripzio gaurkotuak, egungo grafia-sistemara bihurturik dauden testuak; eta testu zaharrak, sermoien transkripzio literalak, ordea, CDra irauli dira. Eskuizkribuen facsimileak eurak ere horien alboan ipini ditugu ikertzaileen kontsultarako.

Berba bi transkripzio-jardueraren gainean.

Liburuan plazaratu ditugun transkripzioek hurrengo grafia-aldaketak hartu dituzte:

- “que”, “qui” > “ke”, “ki”
- “gue”, “gui” > “ge”, “gi”
- “ge”, “gi” > “je”, “ji”
- “c” > “k” (“ca”, “co”, “cu”, “-c”)
- “v” > “b”
- “mp” > “np”
- “mb” > “nb”
- “ch” > “tx”
- “sch” > “x”
- “ss” > “x”
- “ce”, “ci” > “ze”, “zi”
- “tc” > “tz”
- “iy” > “ij”

CDak dakartzan transkripzioetan / eta // lako barrak jarri ditugu, eskuizkribuetako lerro eta orrialde amaieren adierazgarri, hurrenez hurren.



Bestalde, transkripzio jatorrizkoan zein gaurkotuan irizpide bereberri jarraitu diegu puntuazioa zuzentzean, letra larriak finkatzean eta testuen iruzkinak bideratzen dituzten oin-oharrak antolatzean.

Hiru arlo horietan ordu luzeak eman ditugu, sermoiok hamaikatxo biderrez orrazten, puntuazio kontuetan batez ere. Puntuazio trabesak esaldien zentzua alda lezake, edo oraindik okerrago dena, ilundu; eta kontrara ere bai, puntuazio zehatzak testua argituaz gainera, irakurketa gozoagotu ere egiten du.

Saiatu gara eskuizkribuetan egileak eginiko edozein zirriborro, zuzenketa, aldaketa eta beste, ahalik eta argien oin-oharretara ekartzen dagokion azalpena ere emanik.

*Nagore Etxebarria*  
Egitasmoaren arduraduna



# **SERMOITEGIA**



## Aurkezpen fitxategia

Juan Ignazio Astigarragaren sermoitegi hau ez da egileak berak prest utzitako sermoi-liburu josia, ezpada frantziskotarren Arantzazuko Komentuko Artxiboetako katalogoan bilduta dauden euskal eskuizkribu guztietarik egile horrek sinatutako sermoiekin zein letratik ezagutuak ditugunekin geuk eginiko sermoi-pilaketa. Hala, euren transkripzioa orduko sermoiok aurkeztu gura ditugu, bakoitzaren deskribapena egiteko erabili ditugun zehaztasunak hurrengo taula honetara baturik.

IZENBURUA	JATORRIA	EUSKALKIA	ORRIALDEAK	EGILETASUNA	LEKUA / URTEA
1. <i>Borrón del Descendimiento</i>	Ara-37/29	Gipuzkera	9	Letratik ezagutua	
2*. <i>Descendimiento del Señor</i>	Ara-37/35	Gipuzkera (nahas.)	9 [+1 amai.]	Letratik ezagutua	
3. <i>Satisfacción de obra quinta. Condición para una buena Confesión</i>	Ara-39/27	Bizkaiera	6 [+1 amai.]	Izenpetua	
4. <i>La Porciúncula</i>	Ara-45/39	Gipuzkera	4	Letratik ezagutua	
5. <i>Borrón. Sobre la Comunión santa y sacrílega</i>	Ara-48/35	Gipuzkera	5 [+1 has.]	Izenpetua	1835
6. <i>Inbidiaren ganeko doktrina</i>	Ara-49/41	Gipuzkera (nahas.)	2 [+2 amai.]	Letratik ezagutua	

7. <i>[Laugarren Mandamentua I]</i>	Ara-51/31	Bizkaiera (nahas.)	11 [+1 amai.]	Letratik ezagutua	
8. <i>Borrón del Sexto Mandamiento de la Ley de Dios</i>	Ara-51/47	Bizkaiera	9 [+2 has., +2 amai.]	Izenpetua	
9. <i>Sermón del Juicio particular</i>	Ara-52/2	Bizkaiera	10 [+2 has., +1 amai.]	Letratik ezagutua	
10. <i>Introducción para la Misión<sup>1</sup></i>	Ara-53/3	Bizkaiera (nahas.)	9 [+1 has., +2 amai.]	Letratik ezagutua	Durango, 1838
11. <i>Sermón del Perdón</i>	Ara-56/140	Bizkaiera	10 [+16 amai.]	Izenpetua	
12. <i>Tercer Mandamiento. Sobre el santificar las fiestas<sup>2</sup></i>	Ara-71/8	Bizkaiera (nahas.)	10 [+1 amai.]	Izenpetua	
13. <i>Sermón sobre la Palabra Divina<sup>3</sup></i>	Ber-74/27	Bizkaiera	6 [+1 has.]	Izenpetua	
14. <i>[Elixa Santuari]</i>	Ber-81/30	Gipuzkera	8 [+1 amai.]	Letratik ezagutua	
15. <i>[Examina Konzienziako]</i>	Zar-96/5	Gipuzkera	3	Letratik ezagutua	
16. <i>[Jesusen Pasioa]</i>	Zar-96/7	Gipuzkera	10	Letratik ezagutua	
17. <i>Sermón de la Resurrección del Señor<sup>4</sup></i>	Zar-104/1	Bizkaiera	5	Izenpetua	Miraballes, 1816

<sup>1</sup> Oharra: "Encargada por el Se(ñ)or Obispo de León en la Villa de Durango. Año de 1838".

<sup>2</sup> Oh.: "En lengua vascongada".

<sup>3</sup> Oh.: "En vascuence".

<sup>4</sup> Oh.: "Predicado en la Villa de Miraballes, año de mil ochocientos y diec[i]séis. O.S.C.R.E.". sigla horren esanahia hau da: *Omnia Subjuciantur Correctioni Scrae Romanae Ecclesiae* ("Dena Eliza Ama Santa Erromatarren irizpidearen menpe jar-zen da").

18. <i>Sermón de las penas q(u)e se padecen en el Infierno</i> <sup>5</sup>	Zar-104/2	Bizkaiera	9	Izenpetua	
19. <i>Sermón segundo de Ánimas</i>	Zar-104/3	Gipuzkera	5	Izenpetua	
20. <i>Sermón del Dulcísimo Nombre de María</i> <sup>6</sup>	Zar-104/4	Bizkaiera	5	Izenpetua	Miraballes, 1816
21. <i>De Pec[c]ato mortali</i>	Zar-104/5	Bizkaiera	8	Izenpetua	
22. <i>[Humildadia]</i>	Zar-104/6	Bizkaiera	4	Letratik ezagutua	
23*. <i>Número de pecados</i>	Zar-104/7	Bizkaiera	4 [+6 amai.]	Izenpetua	
24. <i>[Pekatu en okasinotik urteiteko gogo santua]</i>	Zar-104/8	Bizkaiera	7 [+1 has.]	Izenpetua	
25. <i>[Jangoiko errukiorra]</i>	Zar-104/9	Bizkaiera	5 [+2 has.]	Letratik ezagutua	
26. <i>[Pekatuan il eta betiko galduak gelditu ez gaitazan]</i>	Zar-104/10	Bizkaiera	4	Letratik ezagutua	
27. <i>[Induljenziak]</i>	Zar-104/11	Gipuzkera (nahas.)	7 [+1 amai.]	Letratik ezagutua	
28. <i>Número de pecados, días y auxilios</i>	Zar-104/12	Bizkaiera	5 [+1 has.]	Letratik ezagutua	
29. <i>[Zeruko Ogijau]</i>	Zar-104/13	Bizkaiera	7 [+2 amai.]	Letratik ezagutua	

<sup>5</sup> Oh.: "O por mejor decir, borrón".

<sup>6</sup> Oh.: "Predicado en la Villa de Miraballes. Año de 1816".

- |  |            |                       |                          |                      |
|--|------------|-----------------------|--------------------------|----------------------|
| 30. <i>[Misino santuko<br/>konsejuak]</i>  | Zar-104/14 | Bizkaiera             | 5 [+1 amai.]             | Letratik<br>ezagutua |
| 31*. <i>[Jaunaren<br/>miserikordija I]</i>   | Zar-104/15 | Bizkaiera             | 4                        | Letratik<br>ezagutua |
| 32. <i>[Misterioa<br/>Jangoikoaren<br/>Semia Mariaren<br/>entrañetan<br/>Espiritu Santuen<br/>obraz gizon<br/>egin zanekoa]</i>  | Zar-104/16 | Gipuzkera             | 3 [+2 has.]              | Letratik<br>ezagutua |
| 33. <i>Integridad.<br/>Cuarta<br/>circunstancia<br/>de la Confesión</i>  | Zar-104/17 | Bizkaiera             | 6 [+2 amai.]             | Letratik<br>ezagutua |
| 34. <i>Sermón de<br/>no callar<br/>los pecados</i>   | Zar-104/18 | Bizkaiera             | 5 [+3 has.,<br>+3 amai.] | Letratik<br>ezagutua |
| 35. <i>Doctrina.<br/>[Maria<br/>Santisimiari<br/>benetako<br/>debozino bat]</i>  | Zar-104/19 | Gipuzkera<br>(nahas.) | 4                        | Letratik<br>ezagutua |
| 36. <i>[Konbersinoal]</i>  | Zar-104/20 | Bizkaiera             | 7 [+2 amai.]             | Letratik<br>ezagutua |
| 37. <i>Sobre el número<br/>de los pecados.<br/>Sermón o borrón</i>   | Zar-104/21 | Bizkaiera             | 5 [+2 has.,<br>+3 amai.] | Izenpetua            |
| 38. <i>Sermón sobre<br/>cuán vana sea<br/>la penitencia de<br/>la hora de la<br/>muerte para el<br/>pecador que<br/>ha vivido<br/>anegado en<br/>un sinnúmero<br/>de pecados<sup>7</sup></i> | Zar-104/22 | Bizkaiera             | 8 [+1 has.,<br>+3 amai.] | Izenpetua            |

---

<sup>7</sup> Oh.: "O.S.C.S.R.E.".



39*	<i>La Ascensión del S(eñ)or</i> <sup>8</sup>	Zar-104/23	Bizkaiera	3	Izenpetua	
40.	<i>Sermón de la Pasión del Señor I</i> <sup>9</sup>	Zar-104/24	Gipuzkera	9 [+2 has., +1 amai.]	Izenpetua	1818
41.	<i>Sermón de Pasión II</i> <sup>10</sup> (Legajoa)	Zar-104/25	Gipuzkera (nahas.)	1 [+2 has., +2 amai.]	Izenpetua	Aia, 1823
42.	<i>Sermón del Patriarca S(an) Fr(ancis)co</i> (Legajoa)	Zar-104/26	Gipuzkera	1 [+1 has.]	Izenpetua	1834
43*	<i>Decimonoveno después de Pentecostés. [Amarren primiziak]</i>	Zar-104/28	Gipuzkera	2	Letratik ezagutua	
44*	<i>Decimosexto domingo de Pentecostés. [Ogi milagrozkoren igandea]</i>	Zar-104/28	Gipuzkera	2 bis	Letratik ezagutua	
45.	<i>Regina Martirum</i>	Zar-104/29	Gipuzkera	6	Letratik ezagutua	
46.	<i>[Santuen exenploak]</i>	Zar-104/32	Bizkaiera	3 [+1 has.]	Letratik ezagutua	
47.	<i>[Errege justo baten gobernoa]</i>	Zar-104/33	Gipuzkera (nahas.)	4	Letratik ezagutua	
48.	<i>[Jangoikoen pazientzia ta miseriakordia]</i>	Zar-104/34	Bizkaiera (nahas.)	4	Letratik ezagutua	
49*	<i>[Biraldu eban bere Semia gizona erremedietara]</i>	Zar-104/35	Bizkaiera	2	Letratik ezagutua	

<sup>8</sup> Oh.: “Con la aclción de gracias al S(eñ)or por habernos librado Su Majestad del cautiverio de Napoleón Emperador”.

<sup>9</sup> Oh.: “En vascuence, año de 1818. O.S.C.S.R.E.”.

<sup>10</sup> Oh.: “Predicado en Aia, año de 1823”.

50*. <i>[Esker geztoz]</i>	Zar-104/37	Gipuzkera	4	Letratik ezagutua
51. <i>Llagas</i>	Zar-104/40	Gipuzkera	4 [+1 amai.]	Letratik ezagutua
52. <i>[Induljenzien ganian]</i>	Zar-104/43	Bizkaiera	1 [+2 amai.]	Letratik ezagutua
53*. <i>Dominica septima post Pentecostes. [Amarren primiziak pagatzea]</i>	Zar-104/44	Gipuzkera	4	Letratik ezagutua
54*. <i>[Purgatorijoko arimak]</i>	Zar-104/46	Bizkaiera	1	Letratik ezagutua
55*. <i>[Konpesiño on bat]</i>	Zar-104/47	Bizkaiera	1 [+1 amai.]	Letratik ezagutua
56*. <i>[Eskergezto-keria]</i>	Zar-104/50	Bizkaiera	2	Letratik ezagutua
57*. <i>[Esker onak]</i>	Zar-104/51	Gipuzkera (nahas.)	2	Letratik ezagutua
58*. <i>[Konzepziño Garbikoa]</i>	Zar-104/52	Bizkaiera	2	Letratik ezagutua
59*. <i>[Jesukristoren etorrerako festa]</i>	Zar-104/54	Gipuzkera	1 [+2 amai.]	Letratik ezagutua
60*. <i>[Luxurijan]</i>	Zar-104/55	Nafarrera (nahas.)	4	Letratik ezagutua
61*. <i>[Amudiozko Sakramentua]</i>	Zar-104/56	Bizkaiera	4	Letratik ezagutua
62*. <i>[Mariaren debozioa]</i>	Zar-104/57	Gipuzkera	3	Letratik ezagutua
63. <i>[San Juan Bautista I]</i>	Zar-104/58	Gipuzkera	3 [+3 tart., +1 amai.]	Letratik ezagutua
64*. <i>Varias ideas para rogativas en tiempo de aflicción u otras que pueden presentarse</i>	Zar-104/59	Bizkaiera (nahas.)	4 [+1 amai.]	Letratik ezagutua

65*. [ <i>San Juan Bautista II</i> ]	Zar-104/60	Bizkaiera	1	Letratik ezagutua	
66*. [ <i>Pekatuena pisua</i> ]	Zar-104/61	Bizkaiera	2	Letratik ezagutua	
67. [ <i>San Luis</i> ]	Zar-104/62	Gipuzkera	7 [+1 amai.]	Izenpetua	1838
68. [ <i>Pekatuena dagoanaren itxusitasuna</i> ]	Zar-104/63	Gipuzkera	4	Letratik ezagutua	
69*. [ <i>Zubena eskergeztokeria</i> ]	Zar-104/63 bis	Gipuzkera (nahas.)	4 [+2 amai.]	Letratik ezagutua	
70*. [ <i>Sakramento Penitentzija</i> ]	Zar-104/64	Gipuzkera (nahas.)	1 [+1 amai.]	Letratik ezagutua	
71*. [ <i>San Luisen bizitza ta birtuteak</i> ]	Zar-110/12	Gipuzkera	2 [+1 amai.]	Letratik ezagutua	
72. [ <i>Linboa</i> ]	Zar-110/13	Bizkaiera (nahas.)	3	Letratik ezagutua	
73. [ <i>La gravedad del pecado y sus efectos</i> ]	Zar-110/14	Bizkaiera	7 [+1 amai.]	Letratik ezagutua	
74. [ <i>Cuán dificultosa sea la conversión del inveterado pecador</i> ]	Zar-110/15	Gipuzkera	7 [+1 amai.]	Letratik ezagutua	
75. [ <i>Jangoikoen Justizia</i> ]	Zar-110/16	Bizkaiera	7 [+2 amai.]	Letratik ezagutua	
76*. [ <i>Limosnako obligazioa</i> ]	Zar-110/17	Bizkaiera	4	Letratik ezagutua	
77. [ <i>Gorrotoa</i> ]	Zar-110/18	Gipuzkera (nahas.)	8	Letratik ezagutua	
78. [ <i>Eske andiak</i> ]	Zar-110/19	Gipuzkera	3	Letratik ezagutua	
79. [ <i>Seigarrengeon kontra</i> ]	Zar-110/20	Bizkaiera	6	Letratik ezagutua	
80*. [ <i>Limosnia</i> ]	Zar-110/22	Bizkaiera	3 [+1 amai.]	Letratik ezagutua	

81*.	[ <i>Jangoikoaren misericordia II</i> ]	Zar-110/23	Gipuzkera (nahas.)	4	Letratik ezagutua
82*.	[ <i>Errosarioko deboziñoa</i> ]	Zar-110/24	Bizkaiera	4	Letratik ezagutua
83.	[ <i>Devoción de María</i> ]	Zar-110/26	Bizkaiera	7 [+2 amai.]	Letratik ezagutua
84.	[ <i>Konfesio on baterako bostgarren kondizioa</i> ]	Zar-110/27	Gipuzkera	5	Letratik ezagutua
85.	[ <i>Laugarren Mandamentua II</i> ]	Zar-110/29	Bizkaiera	6 [+3 amai.]	Letratik ezagutua
86*.	[ <i>Purgatorioko animak</i> ]	Zar-110/30	Gipuzkera	3 [+2 amai.]	Letratik ezagutua
87*.	[ <i>Misericordia- ren ganian</i> ]	Zar-110/31	Gipuzkera (nahas.)	4	Letratik ezagutua
88*.	[ <i>Errosarioko debotoak<sup>11</sup></i> ]	Zar-110/33	Bizkaiera	2	Letratik ezagutua
89*.	[ <i>Gloriako Bildots santua</i> ]	Zar-110/37	Bizkaiera (nahas.)	2 [+3 amai.]	Letratik ezagutua
90*.	[ <i>Naigabiak Amarenak</i> ]	Ara-131/4	Gipuzkera	4	Letratik ezagutua

1. *Izenburua*. Lehenengo ataltxoan modu bitako izenburuak daude, batetik sermoiek eurek ekarrikoak, eta bestetik geuk testuei ipiniak direnak. Bigarren horietariko eskuizkribuak izenburu barik etorri eta besterik ezean geuk erantsi behar izan diegu izena, sermoion edukina ondoen islatzen duen testu barruko esaldiren bat-edo hautuaz. Bestetarik bereiztearren, kako karratuen artean sartu ditugu.

Halakoak asko dira, egia esanda. Hasierako orriak —zein amaiera-koak— falta dituzten eskuizkribuak dira horiek gehienetan, azken mende bion zehar zatika erre, apurtu edo galdu izan direlako sarri. Osoak ez direnok, izenburuekin batera datorren zenbakiak izartxoak alboan duela ageri dira taula honetan. Baña badira, halere, inausi bako sermoi izengabeak ere, ez baitzen usu idazkietan izenburua beti ezartzea.

<sup>11</sup> Oh.: "O.S.C.S.R.E.".

Astigarragak berak ipiniko izenburuetan *borrón* berba irakurriko duzue pitean-pitean. Horrek eskuizkribuen erredakzio edo atontze maila zenbaterainokoa den erakusten digu, hots, zirriborroa edo gutztiz orraztu gabe dagoen seinale.

Taula honen oin-oharretara eraman ditugu izenburuei loturik datozen aparteko azalpenak.

2. *Jatorria*. Lehenago ere aipatu dugun *Frantziskotarren artxiboak*. *Euskarazko sermoi eta antzeko eskuizkribuen katalogoa* obrara<sup>12</sup> jo behar dugu oraingoan ere, eskuizkribuen jatorriari dagokion kodea handixik hartua baita. Hasierako laburdurek jatorrizko artxiboei erreferentzia egiten diete, hala, *Ara* Arantzazuko artxiboa da, *Ber* Bermeokoa eta *Zar* Zarauzko komentuko artxiboa. Osteko zenbaki multzo biek eskuizkribu hori zenbatgarren karpetatan eta horren barruan berau zenbatgarrena den adierazten digute hurrenez hurren.

3. *Euskalkia*. Sermoirik gehienak bizkaieraz idatzi zituen baina gipuzkerazkoak ere nahikotxo dira. Bat eta bakarra nafarreraz. Euskara batera zein bestera erabili, igarri-igarrian du euskalkien nahastea, eta arrazoia den moduan nahaste hori gipuzkeraz jardutean are nabarmenagoa da, berezkoa duen bizkaiera nondik-gura irteten baitzaio. Denetari-ko hizkera horrezaz mintzo izan denetan, (*nahas.*) laburdura erantsi diogu euskalkien zehaztapenari.

4. *Orrialdeak*. Orrialdeen kopurua aldakorra suerta liteke, eransketen orrialdeak ere kontuan hartuz gero. Eransketok hasierako orrietan nahiz amaierakoetan datoz, eta edukinari erreparatzen badiogu, modu askotakoak daudela ikusiko dugu: sermoiari berari eginiko luzapena izan liteke, atalen baten edo batzuen berridazketa, beste amaiera bat, edo beste sermoi baten hasiera... Horregatik, ahal denik eta zehatzen orrialde-kopurua ematen saiatu gara.

5. *Egiletasuna*. Lan honen ekarpen garrantzitsutzat daukagu J.I. Astigarragak izenpetu gabeko eskuizkribuei eman diegun egiletasuna, haren letrakera eta idazkeraren azterketa dela medio. Horri eskerrak, Astigarragaren sinaduradun 20 sermioen gainera, 70 eskuizkribu gehiago metatzea izan dugu. Identifikazio lanaren ondorioz etorritako azken horiek *Letratik ezagutua* azalpenaz zehazturik daude.

---

<sup>12</sup> Ikus 5. oharra.

6. *Lekua eta urtea*. Sermoiok non eta noiz esanak izan ziren batzen duen daturik nekez ageri da, banakek baino besterik ez dakarte holako xehetasunik.

## BORRÓN DEL DESCENDIMIENTO

*Ego si exaltatus fuero a terra omnia trabam ad te ipsum.*

Ioan 12, 32

Gaur Elix A Ama Santak paratzen digu begien aurrian sekula munduan ikusi dan ikusgarririk andiena, lastimagarriena. Antzinatik esanda zeukan Jangoikoaren profeta batek, (Abakuk), Jesusen eriotzan akabatuko zirala gizonen urriki guziak; sekula munduan artian ikusi ez ziran gogortade guziak ikusiko zirala; arriturik mendigiñokoak gizonaren beren Jangoikoakiko gogortadez sentimentua erakutsiko zuela; gogortade onek Kalbarioko mendian negarrez erreka aterako zituala; Siongo bidiak, Jerusalemgo plaza ta kaliak negar egingo zuela. Au ikusi zan Jesusen eriotzan, bada, ez bakarrik sentimenteren kapaz ziran kriaturak, baita ere kapaz ez ziranak sentimentuau erakutsiko zuela; Eguzkiak, Illargiak, Izarrak, arroak, aitzak ta bestiak, sepultura ta tenploko belogiñokoak sentimenteren beteko zirala.

Nolako pena ez zan izango Ama Santisimarena, ekustean eriotzaren animalia uzoak bere Semiari bizitza kendu ziola? Noren penarekin konpara dezakegu, Ama maitia, zure pena? Ez dago pena, dolore, ez sentimenteren zuriarekin konpara dezakegunik. Ixildu bitez emen beren Semeren de[s]grazietan munduan ikusi diran guraso guzien penak, zerren ez dan izan munduan geiago<sup>1</sup> maite bere Semia izandu duanik Mariak Jesus baño, ez da eze[r] izan maitegarriagorik Jesus baño. Ez da izan munduan eriotza gogorragorik Aita Eternoak bere Semiari arrerazi ziona baño, Kurtze gogor baten azotez aserik, zauriz estalirik. O zeñ pisua, Jauna, gure pekatuen kaltia! Nork emen eman lezakian mundu guztian aditzeko besteko ots bildurgarri bat bere bidez ekarteko pekatariak graziaren bidera, erakutsirik beren peligro ikaragarriak? Nork itz egin lezakian Moisesek bezela, arako Jangoikoagandik artu Legia eta bere erriari itz egin zionian, guztiak arriturik, bere presentzia ezin sufriturik beragandik ertentze[n] zan argiaz ezin begiraturik?

Jesusen eriotzara artaño ez zan munduan ikusi eriotza sentimenteren geiagorik Jakob Patriarkarena baño. Eriotza artan, ez bakarrik bere

---

<sup>1</sup> Geuk zuzenduta: *gesaigo* > *geiago*.

seme Jose ta anaiak, baita ere Egipto guziak bi illabetian bere sepulkroan negar andiak egin zituzten. Ez zan Egipto guzian suspirioa besterik ikusi. Betuliarrak beste añbeste egin zeben bere ongille Judit famosa il zanian. Zazpi egunian ango negarrak andiak, ezin esanezkoak izandu ziran. Onela munduak erakutsiten digu gure ongillak ondartzeko biderik onena beren eriotzan sentimentera erakutsitzia dala. Orañ bada, mundua añ sentimento andikoa erakutsi bada bere ongille aparteko batzuen mesedetara, nola ez gera esker obekoak erakutsiten Zeru ta Lurreko zorion guztien emalariakiko? Nola gure biotzak ez du sentimento geiago erakutsitzen aren pena, neke ta trabajuetan?

Josek Egipton bere anaia Benjamin ikusi zuanian ezin negarrak gorde izan bazituan, ark igaro biarko zituen penak akordatzian, zenbat geiago negar egin biar ez degu, Jesusek bere Pasio Sagraduan igaro biar izan zituben penak akordatzean? Munduko trabajuetarako añ bigunak izanik, nola espiritukoetan añ gogorak ta arrizkoak? Urrikitu gaitian Erredenzioko Misterio onetan, bada, onetarako Elixia Ama Santak paratzen digu gaur begien aurrian. Zeruak eta Lurrak luto andiarekin zelebratu bazuan, arrazoa da guk ere negarrez zelebratzea. Kurtze orretatik Jesusek egiten dizkigun dei amodiotsu ta lastimagarriak onetara konbidatzen gaitu; onetara Kurtzeren oñetatik Ama Santisimak, esaten digula bere debotoai lagun diozagula bere bakardadian beren Semeren sentimentera; onetara Jose ta Nikodemus gizon noble ta piadosoak.

Guazen, lagun diozagun aien antzera Jesus Kurtzetik jasten. Esan diozagun zeñ kalte andiak gure pekatuak egin dituen Jesusen gorputz sagraduan. Ofrezitu gaitzen, esaten diogula baldin ezerk paltarik Ama Santisimari egiten badio, guk degun gauzaren batek, Bera zerbitzia onetan izango dala gure atseginik andiena. Guazen ere biotzak penaz urratuak Madalenaren antzera, eta arturik aren modura Jesusen oñ sagradu eriotzak otzitukoak, laztandu ditzagun, gure bulerren kontra estutu ta benera ditzagun, merezi dezagun onela Madalenaren saria, gure pekatuen parkazioa. Negar dezagun Jerusalengo alabak baño fruto geiagokin; ez konpasio naturalez, eta bai gure pekatuen damuarik proponitzen degula enmienda. Eta baldin zuetarikoren batzuk allegatu bazerate, ez onelako afektoz, ezpada kuriosidadez Jerusalendar asko Jesusen Pasiora bezela, bide batez baño ezpada ere, etorri zaitezte Jesusen urriki santora. Aiek andik Jesus il zanian ikusi zituben ikusgarri miragarriakin biortu ziran bezela Jerusalenera bulerrak golpeka pekatuen damuz, ala zuben ere aren modura etorri zaitezten zuben pekatuen kontrizioz bularrak urraturik, kontrizioz Jangoikoagana biorturik ta zuben animak sa[[bazioko prendaz ingaraturik. Ala bada, nere sermoiaren gaia bi puntotan parako dizuet. Lelekoan, zeñ asko kosta zitzaion Jesusi Erreden-



zioko obra santtoa; bigarrenian, zeñ gitxi egiten ta zeñ azturik mundurik geiena bizi dan. Abe Maria.

#### TESTUS UT SUPRA

#### Viva Jesús y María con S(a)n José

(\*)<sup>2</sup> Itsu da gizonaren entendimentua gaurko misterio erakutsiteko, pisuagoa bere mingaña esplikatzeke. Gauza biarra ezpalitz erakutsi[ti]a misterio andiau gizonak ondo bizitzeko, obetuago izango litzateke bere bakarrian konsideratu ta adoratzia, esplikatzia baño. Eta egiaz Kreazio-ko Misterio erakutsiteko Angeruen<sup>3</sup> mingaña asko ezpada, zer biarko ez da Erredenziokoa esplikatzeke? Itz bat bakarrik asko izan zan mundua bere ikusgarri miragarriakin Jangoikoak egiteko; onetarako ez zuan agortu bere jakinduriaren kutxa, ez zuan kansatu bere besoa munduau fabrikatzean, ez zuan onetarako nekatu, ez gaixotu biarririk. Ordea, gu erredimitzeko, gu pekatuen mendetik atera ta salbatzeko, artu biar izan zituban ogeta amairu urteko neke, izardi, dolore, pena ta eriotza gogorra. Nork au biar bezela erakutsiko du? Isillik egotia zerbait onen ganian esan bage, deitzot traizioa misterio oni egitia dala; itz egitia Angeruak<sup>4</sup> biar bezela erakutsi ezin duenen gañian, atrebimentua. Oker bi oietatik libratzeko, pentsatzen det gauzarik onena izango dala Jangoikoari humildadez eskatzia Zeruan berarekin batera dauden Santo ta Angeruak eman diezela, Misterionen anditasunak eskatzen duan moduan, nik nola ondo erakutsi ezin izateaz kendu al diozakedan gloria.

Eginik Jangoikoak gizona bere iduri ta antzera, ipini zuan Paradisuko Jardi[n]lan zorionez aberasturik, gizonak euki zezakian glo[r]iarik andienian. Eta orra zenbat geiago artu zuan Kriadoriagandik, obligaziorik andienak zor zizkanian, altxatu zan gizona guziarekin; maitetasun geiago erakutsi biar izan zionian, traiziorik andiena egitera etorri zan. Okerkeria onek obligatu zuan Jangoikoa kondenatu biar izatera, ez bakarrik Paradisutik ateratzen zuala, baita ere Infernuko penetara. Justo zan etsaiakin kulpian parte izan zana, penan ere lagun izan zeitiala. Ikusirik Jangoikoak gizona bere kulpagatik galdua, ura Jangoikoa poderioan bezela miserikordian neurrigabekoa danak, begiraturik ez berari egindako injuriari, bai bere urrikiari, lastimaturik bere galdubiarrez, dekretatu zuan gizona erre-mediatzia ta bere Seme Bakarren bidez pakiak egitia. Nola, ordea, erre-mediatu ere? Alako moduan etorri zan pakiak egitera ezen, nai izan zuan

<sup>2</sup> Non kokatu argi eta dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Erredenzio-tik etorri zaizkigun mesedeak*.

<sup>3</sup> Geuk zuzenduta: *Angeruen angeruaren* > *Angeruen*.

<sup>4</sup> Idem: *Angerauak* > *Angeruak*.

ez bakarrik parkatu eta bere adiskida egin, baita ere gizonarekin bat izatera, eta añ bat izatera ezen, ez dago munduan gauza añ batik gizona ta Jangoikoa diran baño. Nork sekula pensatuko zuan, pekatuak anbeste Jangoikoaganik apartatu zuan gizona onelako moduan pakiak egitera etorriko zirala? Ez bakarrik etorri zan biltzera gizona berarekin, ez etxe batian, ez mai batian ta grazia batian bat izatera, baita ere persona batian biltu ziran; etorri ziran Jangoikoaren naturaleza ta gizonarena bat izatera, alako moduan eze, eriotzak ere ez zituan apartatu, (sepulturan ere bat egirik ego[n] ziran). (\*)<sup>5</sup> Ez dago Jangoikoa baño altuagorik, ez Lurra<sup>6</sup> baño bajuagorik, zergatik lurretik sortua izan zan, eta bata bestiagandik añ diferentia ziranak Jangoikoaren amodioak bat egin zituan.

Nork esan zion Adani guzia billuzik, lotsagarriturik Jangoikoagandik igeska zebillenian, etorriko zala Jangoikoarekin anaitutera eta bat izatera? Erremedio miragarria, sekula gizona onelakorik eskatzen atrebitu etzana! Erremedio onegatik asko zor diogu, ez gitxiago gu erremediatzia nai izan zuan modu miragarriagatik. Zure obrak, Jauna, era guztietara dira miragarriak, gizona bera konsideratzian zer esan ez dakiala ipintzen duenak. Guztiak erakutsitzen digue zure gloriaren anditasuna. Orre[gatik]<sup>7</sup> ez gaitu, Jauna, anbeste miraritzen Zuk gu erremediatu nai izatiak, baizik ikusteak nolako modu miragarrien erremediatu ginduzun, bada, eukirik milla bide errazagoak gu erremediatzeko, neketsuenak artu nai izan zinduzan. Alabatu zaiz[ela] Zeru ta Angeruak mesede parebageko onegatik. Zer gizonen premia zinduken anbeste neke ta doloreekin erremediatu nai izateko? Zer gatx etorriko zitzatzun gizona galduagatik? Ez zindun gloria gitxiagorik izango, e[z] zinduzan añgeru<sup>8</sup> gutxiagok alabatuko. Ikustean, Jauna zorion guztien iturria zerana, gaitx guztietatik libre zerana, jakindurian neurribagia, mundua egin baño lenago añ andia ziñana, zeñda mundua egin ezkeru, gizon da Angeruak salbatuakgatik hondra geiago izango ez zinduana, blasfemoak kondentua[k]gatik gloria gitxiago izango ez zinduana, Zu, Jaun andiori, ez premiaz, bai urriki ta karidatez orrenbeste gizonen onagatik sakrifikatzen, miraritzen gera, zer esan ez zer pensatu ez dakigula ikusirik zure obra miragarriak.

<sup>5</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Onela Lurra ta Jang[oicoa]*.

<sup>6</sup> Ostean aldatuta: *gizona > Lurra*.

<sup>7</sup> Ostean erantsita.

<sup>8</sup> Alternantzia: *angeru / añgeru*.

(\*)<sup>9</sup> Izanik gu zure etsaiak, zure Zeruko anditasuna utzirik, munduko destierro onetara<sup>10</sup> karidadez etorri zinala ekusteak ta konsideratzeak<sup>11</sup>, gure jantxi mortalidadezkoz jantxi, gere pekatuak zure bizkerrian jaso, eta berakgaitik anbeste padezitzen ikusteak bildurtzen gaitu. Bai, nigatik abeletxe pobre batian jaio ziñan, tresabia pobre batian, animalia bien erdian, Jesus ta Maria beste lagunik gabe toki pobre orretan gure amodioz orolezko bataioz bataiatu zortzigarren egunian; nere amodioz Egiptora desterratu, nigatik izan zinan persegitua ta gaizki tratatua, nigatik baraur egin, loa galdu, bideetan izardiak ta nekiak artu. Onela, nere kulpakgatik nik merezituko kastiguak Zuk sufritu biar izan zinduzen. Bai, nigatik preso artua, desanparatua, burlatua, azotatua, juez infameren aurrera presentatua izan ziñan, eta azkenez lapur biren erdian, munduan izan dan gaizkillerik andiena bezela, afrenta andian kruzifikatua, zure dizipuloakgandik ukatua, zure Aitagandik desanparatua. Nor[k] sekula onelakorik usteko zuan, Jangoiko Zeru ta Lurraren Egillia onenbesteratuko zuala gizonaren amodioak? Eta nork siñastu, fediak erakutsiko ez baligu? Añ izan zan gaitxa misterioa sinastzia Elixan ezen, onetarako Espiritu Santoak jatxi biar izan zuan eta milagroren poderioz etorri zan siñastzera, ta munduak len zorakeriatzat artu zuan misterioau, munduko Erregeak blasoitzat artzera, misterio onen defentzalle izatia gloritzat<sup>12</sup> artu zeben. O karidadez beteriko Jangoikoa! Bada, añ modu miragarrian gizonak salbatu nai zinduzan, Moises Santoari Jangoikoa errebelatu zionian Jangoikoa gizon egitera etorriko zala, miseriakordiazko obra onezaz mirariturik poz ezin esanezkoz ots andiak egin zituan, beste gauzarik ezin azertaturik Jangoiko miseriakordietsua, sufridoria ta biguna. Onela, misterio onen mesederen eskerrak ematen zizkan Jangoiko urrikitsu onek gugatik egin zuenetik ikusten da zeñ asko zor diogun; baña bai ere, lastima tristez, zeñ gitxi egiten degun, zeñ mesede onen mesedez azturik bizi geran pekatarririk geienak.

## SEGUNDA

Ezin Jangoikoak mesede andiagorik egin zezakigun, ezin grazia eman zezakigun misterio onen bidez eman ziguna baño. Ezingo due esan Angeruak berakgaitik onelakorik egin zuala Jangoikoak. Orra zeñ

<sup>9</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Bai, miraritzen gaitu, Jauna, gu zure...*

<sup>10</sup> Geuk zuzenduta: *munduko destierroko munduko destierro onetara > munduko destierro onetara.*

<sup>11</sup> Ostean erantsita: *etorri zinala ekusteak > etorri zinala ekusteak ta konsideratzeak.*

<sup>12</sup> Geuk zuzenduta: *gloritzak > gloritzat.*

obligazio andia esker onakin erantzuteko. Baña, o gizonaren gogortade ta eskergeztokeria! Metalik gogorrenak suarekin biguntzen dira, baña gizonaren biotza metal ta arri guziak baño gogorragoa, ez du biguntzen ez Jangoikoen karidadezko suak, ez Infernuko llama gori guziak. Erakutsirik Zuk, Jauna, gizonai diezun amodioa<sup>13</sup>, anbeste ontasun ta miserikordia, zeñek ontzat emango du, Zu nok amatu ez egotia, zure benefizioz nor akordatu ez egotia, nork Zu ofenditu egotia? Zer<sup>14</sup> amaten<sup>15</sup> duzu, amaten ez zaituanak? Zure mesediai esker onakin erantzuten ez daki, norenai ondo erantzungo die? Nola amatuko<sup>16</sup> ez degu alako moduan amatu gaituana? Eta amatu eza Jaunau kulpa andia bada, zer izango da Bera openditzia, bere Mandamentuak ausitzia? Nola euki ditza[ke]lgu eskuak openditzeko anbeste mesede artu ditudanak, kurtze batian ikusi ta josi artian? Jangoikoa neretzat añ on ta maitegarria izan bada, añ frankua bere gauza guziak nere eskuetan para dituana, alako moduan ondratu ban[al]u bere aberastasun guziak nere eskuetan ipini arte; anbeste mesedezko katiuz obligatuta banauka, nola nik eskurik euki nezake openditzeko? Modu onetan Jose Patriarka Santoak Egipton zerbitzen zeguanian esaten zion okerrera ekarri nai izan zuan etxeko andeari<sup>17</sup>: Nere nagusiak, zure senarrak, gauza guziak zu ez bestiak, nere eskuetan para ditu. Nola nik traizio egingo diot onenbeste mesederekin hondratu nuan nagusi jaunari? Urrutik nigandik onelakorik. Ala gorde zan, ta etxeko andrak bere borondatera jarri ez zalako asko erakutsirazi bazion ere kartzela gogor batian katiuz loturik ipiñi artian, Jangoikoak ekarri zuan Egiptoko Prinzipal izatera. Ala bada, guk ere esan ta egin biar degu, mesederen anditasunak ikusirik esan biar degu: Nola posible izango da openditzia, Berak guri egindako mesediak, ez bakarrik kendu biar badizkigu<sup>18</sup> ez bakarrik borondatia, baita ere indarrak? Joserren nagusiak ipini zuan bere eskuetan zeukan guzia, Jangoikoak para du zure eskuetan daukan guzia<sup>19</sup>. Ikusi ezazu zenbat geiago dan Jangoikoak daukana, Joserren nagusiak zeukanetik: anbat geiago artu dezula, ark artu zebenetik.

Ezpaere esan, zer interes<sup>20</sup>, zer aberastasun dauka Jangoikoak zure eskuetan para ez duanik? Zerua, Lurra, Eguzkia, Ilargia, Izarrak, Itxaso,

<sup>13</sup> Ostein erantsita: *Erakutsirik zuk, Jauna, gizonai* > *Erakutsirik zuk, Jauna, gizonai diezun amodioa*.

<sup>14</sup> Ostein aldatuta: *Nor* > *Zer*.

<sup>15</sup> Geuk zuzenduta: *amatzien* > *amaten*.

<sup>16</sup> Ostein aldatuta: *zerbituko* > *amatuko*.

<sup>17</sup> Edo, *andeari*?

<sup>18</sup> Ostein zuzenduta: *dizkigu* > *badizkigu*.

<sup>19</sup> Ostein aldatuta: *gauza guziak* > *daukan guzia*.

<sup>20</sup> Idem: *azienda* > *interes*.

Ibai, txoriak, arraiak, arbole, animalia, eta guzia batian ikustiarren. Zerua-  
ren beian dagoan guzia zure<sup>21</sup> eskuetan para du. Ez bakarrik Zerua-  
ren beian dagoana, baita ere Zerua-  
ren goian dagoana, zeña dan Gloria. Ez  
bakarrik au, baita ere Jangoikoa bere  
milla modutera ematen zaku, Aita  
bezela, Maisua bezela, Salbatzalle,  
Mediko, mantenimentutzako eta beste  
ezin kontalarako. Oiek guziok  
Jangoikoak gure eskuetan para baditu,  
nola degu eskurik Bera openditzeko?  
Jose Egipton indar gabe gelditu  
bazan bere nagusiari traizio egiteko,  
nagusien faboreaz, nola dezu zuk,  
pekataria, borondate ta indarririk  
Zerua ta Lurra zure eskuetan para ditue-  
na? O eskergeztogoa animalia guziak  
baño! Animalia[gi]n[okoak] beren  
ongilletara ekusten degun añ eskerronekoak  
ezen, bein baño geiagotan  
b(...)bezela, askotan beren buruak  
galtzeko zorian bere nagosiak<sup>22</sup>  
defenditziagatik<sup>23</sup>, historiak erakutsitzen  
digun bezela. Nola gu añ eskergeztogoa-  
koak? (Zeñ izango litzate openditzen  
atrebitu litekena, Zerua ta Infernua  
bere begien aurrien irekiak ekusiko  
balitu?) Dio S(a)n Anbrosiok gau guz-  
tia txakur batek negarrez eman zuala,  
lapur geztoak bere nagusia il ta utzi  
zuen tokian, ta urrengo goixian defuntua  
ekustera etorri ziran askoren  
artian etorrikerik ere iltzallia,  
bereala eldu ziola iltzallari eta agertu  
pekatua. Orañ bada, animaliak  
ogi pizkagatik añ lege andia badie  
beren nagosiai, ez da lotsatuko  
gizona ikustean animaliak bentaja  
andia eskerronekoa izatean egiten  
diola? Animalia ura nagosien  
iltzalleren kontra ala aserratu  
bazan, nor aserratuko ez da  
Jesukristoren iltzalen kontra? Eta  
nork zure pekatuak, ezpada bizitza  
kendu zioen Jesusi<sup>24</sup>? Zure pekatuak  
preso artu zeben, zure pekatuak lotu,  
zure pekatuak azotatu ta kurtze  
batian para zeben. Nola bada,  
Jesusen iltzalle, zure pekatuen  
kontra aserratzen ez zera? Zure  
pekatuak illik zure Ongillia,  
nola zure biotzian beraganako  
amodio geiago, ta pa(...) eta aserre  
geiago pekatuen kontra artzen ez  
dezu? Zer geiago egin zuana baño  
egin zezakien? Ai zure urrikaria,  
pekataria, beste biderik artzen  
ezpadezu! Jangoikoa pekatua  
kentzeko kurtze batian ilten,  
eta zu iñoz<sup>25</sup> baño [geiago] pekatu  
egiten! O okerkeria gizona!  
Zertan geldituko da zure atrebimentu  
zorua?

<sup>21</sup> Geuk zuzenduta: *zuri* > *zure*.

<sup>22</sup> Alternantzia: *nagusi* / *nagosi*.

<sup>23</sup> Ostein erantsita: *ekusten degun bezela, askotan beren buruak galtzeko zorian bere nagosiak defenditziagatik* > *ekusten degun añ eskerronekoak ezen, bein baño geiagotan b(...) bezela, askotan beren buruak galtzeko zorian bere nagosiak defenditziagatik*.

<sup>24</sup> Geuk zuzenduta: *ezpada bizitza kendu zioen bizitza Jesusi* > *ezpada bizitza kendu zioen Jesusi*.

<sup>25</sup> Idem: *izñoz* > *iñoz*.

Ez dago neke, trabajo, ez izardirik, Zeruko Artzai maitiak zu bere artaldira eramateko egin ez duanik, eta zuk? Zenbat eta txistu geiago egin dizun otsoen agin artetik atera ta beraganatzeko, orduan inoz baña uzoago ta okerrago erakutsi zatxakoz. Baña egira, laster datorkizula denpora mundutik joan biarrekoa, ordu triste eriotzakoa, eta orduan nai-ko dezu presaka erremediatu orañ egiten zaudenen palta guzia; baña zure esker geztoz kejuririk<sup>26</sup> Zeruko Artzaia, arteko zuri Berak eginda-ko txistu ta otsak despreziatu ziñuelako, miserikordiazko atiak itxiak topatzia gerta ez dakizun beldur izan biar zera. Ez da munduan izan artzai añ kuidadutsurik bere ardiak zañtzeko, Ni zuetzat izan naizan bai-xen<sup>27</sup>. Esango dezu: Ogeta amairu urtean artzairik onenak bere ardiak zaintzen baño obetuago nekatu naiz zu zaintzen, nik pastatu zaitut Zeruko doktrinarekin (ardi antsoa izan ez zintez); onezaz gañera, obra ta exenplo miragarriak frutu onen lagungarriak para dizkitzut. Otsok egin-dako kalte guziak nik osatu dizkitzut, nere zañetako orola zure osagarri ta baltsamo eginik, zu gordetzeko otz, bero ta izardiak artu ditut, eta guzia batian esatiarren, nere orol guzia kurtze baten eman det. Orregatik ere, ez det ikusi nere mesedetara esker geztozeria besterik; bada, alako izan da zure bizitza ezen, pekatua beste gauzarik ez det ikusten; ez dezu izan pensamiento bat ere zure torpezetatik apartatzeko, kostunbre okerrai utzirik santuagoak artzeko, ez pekatuen okasio ta arri lában<sup>28</sup> gañetik alde egiten. Justo da, bada, ni ere erretiratu nadin zugandik beti-ko, eman dezazula zure obraren saria, zuk zerbitu dezunak izan bitez nere odola<sup>29</sup>, nere azoteak, nere tormentuak zure kondenagarri, beti burlatu, beti despreziatu besterik egin ez dezulako.

Ai pekatuan bizi zerana, zer egun larrian begira zauden! Orañ zure-kin Jesus artzai amodiosoa bezela portatzen da; baña orduan, zure kontra. Orduan bere lлага preziosoak, bere iltziak izango dira plumak zure kontrako sententzia eskribitzeko, eta geiago dana, orduan Jesukristok akusatuko zaitu, ta bere orolari egindako injuria bengatuko du. Orduan Jesukristo bera, anbeste zugatik enpeñatu zana zu salbatzeko, izango da zure biotza urratuko duan[a] beren sentenziaren ezpata biziaz. Zuade ardi madarikatua, zure eskandaluakin beste asko ere galdu dizkidatzuna! Zuade Infernuko otsoen agin artera! Orañ arte aren pastuetatik ibilli zera, izan zaitia bada, orañ bere pasto eternidade guziko. Ai Jauna, ez dakiola Jangoikoari orrelakorik nai izan, ordea zeuk ez [ez]azu nai izan.

<sup>26</sup> Osteen erantsita: *baña kejuririk* > *baña zure esker geztoz kejuririk*.

<sup>27</sup> Osteen erantsitako esaldia.

<sup>28</sup> Horrela, tilde eta guzti.

<sup>29</sup> Alternantzia: *orol* / *odol*.

Egizu zure aldetik Jangoikoaren agindua. Zer da zuk orañ arte egin dezuna? Bide ona da eskandaluan eman dezun bizitza?... Da bide ona parekatu nai ezik gorrotokoa, bilkuntz eta juntamentu, desonestidadia besterik ikusten ez dana? Ikusi dezu zer zugatik egin duan Jesusek? Ikusi dezu zeñ eskerronekua izan biar zeran? Zen begira, zerren zai zaude? A nere K.M.! Noiz arteraño egongo gera gogortuak Jangoiko baten deietara? Noiz arteraño izango gera eskergeztokoak? Ezautu dezagun noiz edo non beragandik artu ditugun mesediak, iriki diozkagun gure biotzeko atiak. Au da eskatzen diguna, amodio onekin pagatu diozkagun gure zor guztiak. Zer onetara esaten dezube? Orandik ere gogor zaudete? Orandik ere zuben animak eman nai ez dizkatzube? Jesusen dei amodiotsuak asko ez badira zuben biotzak biguntzeko, asko izan bere Amaren negar ta suspirioak. Begira Kurtzeren oñian nola dagoan; nork poztu ez daukala bere Semiari negar[rez] begiak bustirik esaten dio: Nere Seme maitea, onela utzitzen nozu? Zenbat obetuago izango ez zan, neronek eraman banitu Zuk eraman dituzun neke ta oñazi guziak! Ai ene Semia, zer bakartade illunean utzitzen nozun! Zu ziñan nere Aita, nere poz ta atsegin guzia, eta orañ gelditzen naiz umezu[r]tz<sup>30</sup>, guraso gabe, alargun, esposo gabe, neke ta penaren artian illik, bizitza gabe. Norgana itzuliko ditut nere begiak? Nork poztuko nau anbeste penaren erdian? Poztuko nau Aita Eternoak! A bere justiziaren ezpata zorrotzak il du nere seme Isaak kulpagia! Poztu nue Angeruak, ai, negarrez daude beren Egillia illik ekustean! Poztuko nue gizonak; berak dira beren pekatuakin nere Semeri bizitza kendu dioena, berak dira nere biotza illundurik larritasunian para duenak. Ezagutu nai ez due nere Semiak egin duten mesediak.

Ai, onenbeste penaren erdian, nork leukian konsuelo bakar bat, nork leukian nere Semia Kurtzetik jatxia, nere besartian laztan gozoz asetzeko! Aita Eternoa, ez da izango konsuelo bakarrau anbeste penaren erdian emango didanik? Ez da izango nitzaz urrikituko danik? Bai, Ama penaz ingaratukoa, aditu ditu Jangoikoak zure dei ta negarrak. Orra non biraltzen dizkitzun gizon urrikiorrak zure gusto santoa pozik beteko dizuenak. Ea gizon onak, allegatu Ama urrikiorregana, eskatuizkatzue lizenzia obra piadoso orretarako, eta Ama maitiorrek ez bakarrik emango dizue lizenziaori, baita ere eskerrak ematen dizkitzuela esango dizue, Dabid Errege Jaunak Saulen gorputza enterratu zuenai esan ziena: Jaun orrek pagatu dizuela berarekin egiten dezuben obra santoa, baita ni ere akordatuko naiz zubekin, emango dizuet lan orrek merezi duen saria. Ea bada gizon urrikiorrak, igo ezazue arbola orretara eta ja-

---

<sup>30</sup> Jatorrizkoan: *humezu[r]tz*.

txi ezazue arbola orretan dagoan frutu bedeñkatu ori, onela kendu dedin<sup>31</sup> Adanen frutu saminak ekarri zigun eriotza. Igo Kurtzeko mendi orretara, ikusi dezagun noraño allegatu dan Jaunaren guganako amodi[ola ta gure pekatuen gogortadea.

## RÓTULO

Asi ezazue, Jangoikoaren Ministroak, egiteko andi ori; kendu ezazue Kurtzeren gañian dagoan ol ori, leitu dezagun zeñ dan gizon ori. Bada, alako moduan ikusten degu zauri, azote ta kolpe gogorrakin desfiguratu ezen, ol orretan leituko ez bagendu zeñ dan gizon ori, ez ginduke jakingo dala Jesus Nazarena, Juduen Erregia. Zerutiko probidenzia(...) Pilatosek paratzeko agindua da rotulo ori, ta Juduak alegin guziak egiñagatik, ezin kendu izan zebena. Eramanzaiozue Amari. Orra, Martiri guzien Erregina, non biraltzen dizun zerorren Semiak, ez Asuerok Esterri bezela erreinu erdian tituloa, ezpada osoarena; nondik ikusten degun nai duala Zu izan zeitian zero, lur, gizon ta angeru guzien Erregiña.

## CORONA DE ESPINAS

Allegatu zaitzeze albait erreberenziarik andienakin Jaun orren buru sagrada, eta kontuz kendu arantzazko koroe ori, eta erakutsi Elixako jente guziari. Orra, gizon geztoa, zure pekatuen anditasuna, bada, etorri dira Zeruare[n] Jabearen burua zulatutera. Koroa orren errorik prinzipalena zure biotzian ernia da, zure biotzetik Jesusen buru sagradua zulatzerano etorri da. Zorioneko zu, pekataria, erro pekatuzko oriek ebakiten ikasten badezu, erakutsi Amari eta esan zeroen ferborerik andienagaz: Ara emen, Ama maitia, zure Semeren burua urriki gabe urratu duen koroa; nere pensamentu arro ta burubagiak, orra nolako prutuak eman dituen. Proponi dezagun guziak humildadeko birtutetik, bere burua urriki gabe zulatu deben arantzak kendu, ta orandaño zorrak ondo pagaturik beste bizitzarik artzia.

## CLAVOS

Jangoikoaren Ministroak, ateraizkiotzue iltze gogor oriek. Baña, a nere pekatuak, zeñ gogor josirik<sup>32</sup> eduki dituzuben Jangoikoaren

<sup>31</sup> Geuk zuzenduta: *dedik* > *dedin*.

<sup>32</sup> Ostean aldatuta: *Baña, a zeñ sendo josirik* > *Baña, a nere pekatuak, zeñ gogor josirik*.



eskuak! Libratu, atera lenbiziko eskubiko iltzea, etorri dedin anbat lasterren gure gañera bere bendizioa; atera eskerreko ori ere, etorri ditezen guregana guretzat gordeta dauzkan zorionak; igaro oñ orietako bildurgarrizkora, bada, ekusten det zapal[du] duala oñ azpian gizona engañatu zuan dragoa beldurgarria. Ja libre gera Zeruko bidia ibilliteko, ja ezingo digu ezertxo ere egin bere furia guziak. Eraman Amari. Orra, Ama urrikitsua, Zeru ta Lurra fabrikatuko esku ta oñak josi zituben instrumento bildurgarrizkoak. Badakit, Ama, zure biotza zulatua naiago zinduala ta Zu ikusiak naigabez betetzen zaituela. Kenduzaizkiotzute Birjiña maitorri, negarrez desegin ez dakigun.

### BAJAN EL CUERPO

Gizon bedeinkatuak, akabatu ezazue asi dezuben Obra Santoa; betor bera arbole orretatik Adan berri ori, bada orra igo badu, izan da Adan zarraren katiak urratzeagatik. Orren kulpa guzia orrera igoteko, gu laztan izatia besterik izan ez da; Kurtze orretara igo badu, gutzaz Jangoikoaren bitarteko bakiak egiteko izan da. Betor bere Amagana<sup>33</sup>, ea ezautzen duan bada edo ez beren Semeren gorputza. Zer Zuk, Ama Santisima, esaten diguzu? Da ori Espiritu Santoren birtutez zure erraietan formatu zana? (\*)<sup>34</sup> Baietz esaten diguzu, baña añ zulaturik, añ urraturik ekusten det ezen, ez nuke esango, nere amodioak ala dala esango ez balit. Ai nere Semia! Nork orrela ipini zaitu? Au da gizonen pagua! Onetarako nekatu zera gizonai zorion guziak ekarten? O burua! O eskuak! O buler ta gorputz sagradu! O pekatuak, zubez izan zerate animalia uzokak Jesusi bizitza kendu diozuenak! *Fera pesima*. A nere Seme maitea! Non, non da zure edertasuna? Nola dauzkatzu eguzkia baño argiagoko begi oriek? Nola anbeste mirari egindako esku oriek? Gizonen amodioak modu orretan para bazaituzte, berai mesediak egitiarren onela ipini bazera, ondo urrikigabeak izango dira biotz guztiaz mai[ta]tzen ez bazaituzte. Aspertu pekatuz negarturik apartatu gaitezen Jesu[sen] odolen pisutik<sup>35</sup>. Zer esaten dezube?<sup>36</sup> Ez dezubela nai?<sup>37</sup> Orol guziaren pisua

<sup>33</sup> Geuk zuzenduta: *Betor bere eramán bere Amagana > Betor bere Amagana*.

<sup>34</sup> Amaitu gabe daudela eta, ez ditugu eransketa hauek transkribatu: *Añ lastimagarrik ikusten du ezen, bere amodio guzia biar...* [Aurrerago:] *Zer amodiozko kejak ematen dizka(...)*. [Aurrerago:] *Zer jueza...*

<sup>35</sup> Osteen erantsitako esaldia.

<sup>36</sup> Idem.

<sup>37</sup> Idem.

zuben animen gañera ekarri nai dezubela?<sup>38</sup> Ez det uste onelakorik zuben artian<sup>39</sup>...

Atozte, bada, pekata(ria)k, pekatuen kaltiak ikustera, ikusi zer egin duen gure pekatuak Jesusen gorputz orretan! Zure pekatuak gorputz dibinoa zatitu duenak, zure gaiztakeriak erori due gorputz ori lurrera; zure pekatuakgatik Aita Eternoaren justizia guzia etorri da bere Semeren gañera. Ez zera orañdik aspertzen? Ez diozu nai utzi Jangoikoaren ase-reak<sup>40</sup> bere Seme maitearen gañera ekarri duen pekatuak. (Zugatik dira, bada, guziak). Eta orandik ere añ itxuba! Zer diozube? Pekatuban gelditu nai dezubela? Jangoikoaren odolaren kaltiari beldur ez diozuela? Kontbertitu nai ez dezubela? Jesusen odolian parte izan nai ez dezubela? Ez det uste onelako biotz gogorrekorik zuben artian egon leitiala, eta bai ezaturik lenago Bera billatzera allegatu eta damaturik biotzak urraturik. Bada...

Konsiderazioau gauza biarra, Jangoikoren mesedetara eskerronekuak izateko. Modo ondradu onetan p(...) diskurritzen zuan Jose galai gazte santoak Egipton pekatutik libratzeko, bere etxeko (...) biartu nai izan (...).

---

<sup>38</sup> Idem.

<sup>39</sup> Idem.

<sup>40</sup> Geuk zuzenduta: *aserrgu* > *aserreak*.

## DESCENDIMIENTO DEL SEÑOR

*Spiritus oris nostri, Christus Dominus captus est  
in peccatis nostris. Lam. 4, 20*

Jangoikoak berak esan eta Fediak erakutsiko ez baligu Jangoi[ko] benetekoak igaro zuala eriotzarik minbera ta gogorrena, ez litzateke aurkituko misterio arrigarriau nork<sup>1</sup> sinastu leijen. Isaias Profeta Santuari agindu zionian Jangoikoak eskribitu ta predikatzeko bere Seme laztan ta maitegarriak irago biarko zuan eriotza gogorra, uste izan zuan ez zala aurkituko misterio arrigarriau sinastu naiko zuanik, eta ala esan zion: Jauna, nork siñastuko<sup>2</sup> du nire esana? *Domine quis credit audituy nostro?* Eta benetan federik ezpagaunka, nor[k] (txorakeria anditzat idukiko ez luke gere siñesteau), Jangoiko gauza guztijen eskubidia duana gugatik kurutze gogor baten minberaturik il dala? Eta nor eskandalizatuko ez litzate ikusijaz ta entzunagaz, ura Jangoikoaren Seme Benetakoa, Aita Eternoagaz izate bat ta Jangoikotasun bat duana, Zeru ta Aingeruak edertasunagaz jantzi zituana, eta izatea duan guztia ezerezetatik egin zuana, ez bakarrik il zala, baita ere Berak iragoko eriotza izan zala gizonik geztoenak, lapurrik okerrenak, irago alezakean baizik desondragarriagoa? Ala uste izan zebeñ Judu ta Jentilak, norentzat Jesus kruzifikadua txorakeria ta eskandalua, S(a)n Pablok esaten digun bezela. Orregatik esaten digu San Juan Kris(os)t(o)m(ok) ain dala gaitx misterio au gizonari adierazoten emotia, zeñ siñastuko bazan Eleixa Santan, Zerutik Spiritu Santua bialtzia biar izan zala, eta bestela nork sinastuko zuanik izango ez zala. Bada, guk artu degun ezkeru Jangoikoaren Spiritu Santuau Batioan, siñastu biar degu Elexa Santarekin batera misterio andiau. Ikaragarria, arrigarria bada ere, konfesatu biar degu Kurtze orretan madarikatu eginik dagoanori, dala ura Jangoiko Aingeruak lurreraño makurturik Zeruan adoraten duena. Lotsari andi orretan lapur gezto bat bezela<sup>3</sup> oin-eskuak josirik<sup>4</sup> gogortasun parebagiagaz dakusgunori, dala

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Ostean zuzenduta: *nok > nork*.

<sup>2</sup> Idem: *siñastu > siñastuko*.

<sup>3</sup> Alternantzia: *bezela / bezala*.

<sup>4</sup> Ostean erantsita.

Zeru-Lurrak eta izatia deben guztiak egin zituzana. Menpeko edo esklabo zital ta gezto bat bezala azotez estaldurik, orolutsiturik (erreka bat bezala) dakusgunori, dala berez bedeinkatua, eta Aingeruak badeinkatu<sup>5</sup> eta zorionekotu zituzana. Zein tristerik gere amoriak ipini zaituza[n]<sup>6</sup>!

O amodio Jangoikoena, baña, zein karo kostarik (...) <sup>7</sup>! Nork sekula usteko zuan triste guztien konsolagarria konsuelo bierrera etorriko zala? Eta nork sinastu ain galdurik, ain lastimagarri eginik, Adanen seme-alabak iku[s]irik, nork konsuelo puska bat eman ez zuala ikusiko zala? O benetan bere benetako Adanen seme-alabaren gogortasuna! Esanzadazute erri onetako gizonik geztoen bat, bere okerkeria andiakgatik ikusiko bagendu billoizik, oroldurik, zatitu, puskatu ta Kurtze orretan josirik, ez litzateke izango gaur sermoian daguanik bere biotza negarrez urratuko ez lukenik. Eta gere begien aurrian gogorkia Jangoikoa ikusirik, geijenak dituez beren biotzak arriturik, beren eskuak pekatuzko azotez beterik Jesus berriro azotatzeko. Baiña<sup>8</sup> (Jangoiko andia, bai Jesus laz-tangarria), itsuturik pekatariak beren pauso geztoetik irten nai ez-da, ukatzen bazaituez ere Jangoikotzat, emen gaur grazian dauden Kristao onakin batera, Kurutze orretan gaizkin bat<sup>9</sup> bezala ikusi arren ere, konfesatuko zaitut, bedeinkatuko zaitut. Guztien burlagarri ta oñazpiko eginik ikusi arren ere, errege guztien Errege, agintari guztien Agintari, Aingeru santuen Egilla ta Ongillatztat konfesatu ta adoratzen zatut. Arantzaz zulaturik, azotez aserik, burutik beatzetaraño zauri ikaragarri bat eginik, guztiori birrindu ta gizonen antzik ere bagarik ikusita bere, sinastu ta konfesatu det, zerala Jaun andi Zeru zabalak artu ezin zatuzana<sup>10</sup>, iru beatzetik mundua dingillizka deukazuna, eta Lurra esku-barruan ezkutatzen dezun Jangoiko anditzako. Ordea, Jangoiko andi Jesus amorosoa, galde bat egin biar dizut: Nork edo zerk Zeru altutik, gloria ta zorionez beteriko erritik ekarri zatu mundura, miseriaz beteriko destierru onetara? Zer mesede zor diozute Adanen seme-alabai orrenbeste amorio zuk erakusteko? Zerk obligatu zenduzan orrela zatitu ta birrindurik eriotza ikaragarri[er]regaz ilteratzeko? Emen bai mirariz bete biar gerala! Emen-txen bai arritu, mututu eta gogor-gogor izozturik geratu biar gerala! Bada<sup>11</sup>, ge[er] pekatuak ekarri due Zerutik Lurrera gere pekatuen katea

---

<sup>5</sup> Idem.

<sup>6</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>7</sup> Idem.

<sup>8</sup> Ostean aldatuta: *Bai* > *Baiña*.

<sup>9</sup> Ostean erantsita.

<sup>10</sup> Geuk zuzenduta: *zerala Jaun andi Zeru zabalak artu ezin zatuzana zerala > zerala Jaun andi Zeru zabalak artu ezin zatuzana*.

<sup>11</sup> Ostean erantsita.

ta sokak urratzera<sup>12</sup>. (Gere pekatuak zauritu, zatitu ta birrindu due. *Vulneratus est propter iniquitates nostras, et atritus est propter scelera nostra*. Gere pekatuak ipini due Kurutze orretan zauri bat eginik, orolusturik, gizonen irudi bagarik, ain itxusi ta galdurik zeñ, ezin inork ezagutu lezake. O pekatuaren zauri ikaragarria<sup>13</sup>! O gere zauri enfermedaderen usteltasun bildurgarria<sup>14</sup>! Bada, zauri au sendatuko bazan<sup>15</sup>, biar izan zan Jangoikoen odolaz eginiko mediziña.)

Baña<sup>16</sup>, noiz sekula gizonak usteko zuan berak pekatuaz eginiko zauri bildurgarriak sendatzien<sup>17</sup>, Jaungoikoa bizitza galtzera etorriko zala? Eta<sup>18</sup> nor sekula siñi[s]tu zuan Zeruko medikua(...) es bakarrik jaxtiko zala gizon gaixoa bitatzera, baita ere bere gaitx guztiak arturik bere bizkarrian, odolagaz osatuko zuala<sup>19</sup>? Bai, Jauna, Zeuk, zare[n] neurribagako<sup>20</sup> ontasunagaz, bete dozuz gizonaren esperantza guztiak. Baña, Jauna, zergatik anbeste interes eta ardua gizonaren zorionagatik artzen dezu? Ez ziñan añ andi, ain jakintsu eta ain Jangoiko izango, berez gizona galduagatik? Besteren batek<sup>21</sup> konturik artuko zizun galtzen itziagatik? Ez, Jauna. Ordea, (...) ainbesteraño urrikaritu zan zere biotz samurra gu ain nekegarri ikusiaz ze, ezin sufritu izan zenduan gu erremedio bagarik itxitea, anbeste kostako bazizatzun ere. Baña, Jesus laztana, esanzadazu<sup>22</sup>, ez zeukan beste modurik gu pekatupetik libratzeko? Bai, K(ristaoa)k, bazeuzkan beste modu asko gu Diabrua[re]n mendetik ateratzeko; ordea, nai izan zuan<sup>23</sup> igaro eriotza itzaltsuan, aditzen ematiarren pekatuaren astuntasuna, ezauera ikaragarri onegaz bildurturik pekatuetatik iges egin genezen. Baña itsuturik pekatariak bere gurari zitalez, ez du ezautu nai zer prezio eman biar izan zuan Jesusek bera pekatuperik ateratzeko; orregatik etorri oi da pekatari tristiau Jesus urratu ziozkan katiakaz berriz bere burua lotu ta estera<sup>24</sup>. Itsumendi ika-

<sup>12</sup> Ostein aldatuta: *estu due > urratzera*.

<sup>13</sup> Idem: *indarrigarria > zauri ikaragarria*.

<sup>14</sup> Ostein ezabatutako esaldia.

<sup>15</sup> Ostein aldatuta: *zauri ta enfermedade oek osatuko baziran > zauri au sendatuko bazan*.

<sup>16</sup> Ostein erantsita.

<sup>17</sup> Ostein zuzenduta: *sentziarren > sendatzien*.

<sup>18</sup> Ostein erantsita.

<sup>19</sup> Ostein aldatuta: *osatzien Kurze gogor orretaratuko zala > odolagaz osatuko zuala*.

<sup>20</sup> Idem: *kabubagako > neurribagako*.

<sup>21</sup> Geuk zuzenduta: *Besterenbatek > Besteren batek*.

<sup>22</sup> Ostein erantsita: *Baña, esanzadazu > Baña, Jesus laztana, esanzadazu*.

<sup>23</sup> Idem.

<sup>24</sup> Geuk zuzenduta: *estzera > estera*.

ragarria benetan! Zorakeria eskerria! Iltzen du Jesukristok pekatua bere eriotziaz<sup>25</sup>, eta piztzen du gizonak eriotza au bere borondatiaz<sup>26</sup>. Kentzen dio Jesusek Demoninoari gizonagan zeukan nagusitasuna, botatzen du mundutik, izten du loturik ta esturik; eta gizonak ematen dio Jesusek kenduriko eskubidea bere etsairik andienari. Jangoiko batek galtzen du bizitza gizonari bizitza ematiarren, eta gizonak galtzen du bizitza pekatuari bizitza ematiarren. Jangoiko batek egiten du len Demoninoaren menpeko zan a gizona bere seme, eta gizona egiten da Jangoikoaren semetik Diabruaren bizileku ta menpeko. Anditasun ikaragarria pekatuena, bada, Jangoiko bat il bear izan zan bera goitu ta benzieta; baña andiagoa da gizon onen itsumendi ta gogortasuna, bada, bere guraz biortzen da Jangoikoak bere eriotziagaz azpiratu ta benziduko pekatua.

Orra, nere Kristoak, nere gaurko sermoiaren gaija: 1.<sup>o27</sup> Jesukristoren eriotzan ezautzen da pekatuaren anditasuna; 2.<sup>o28</sup> Eta eriotza onetan<sup>29</sup> pekatua biortzen dan gizonen txorakeria. O Ama doloz bete! O Martiri guztien Erregina! Lotsaturik, nere begiak zeugana altxatzeko indar bagarik nator, Andrea, zure aurrera, zeren nere pekatuak ekarri dioten zere Seme laztan maitagarriari eriotza. Nere pekatu andiak izan dira Kurutze orretan ain gogorki zure Semia josi duen iltze gogorak. Au onelan izanagatikan ere<sup>30</sup>, badakit Ama samur ta urrikaritsua zerana, zere errukian esperantza ipinirik, al dedan humildaderik andienagaz zeure oñetan auzpaz lurria[n] jarririk, nere biotza urraturik, nere pekatuak dirala medijo zure Semiari eriotza ain gogorra eman biarra ta zu bere paltaz ain bakarrik, tristeza ta deskonsueloz beterik nator zugana. Artu nazazu, eta nirekin batera gaur emen zure soledadian laguntzera etorrita dauden Kristoak. Onela, gaur zuri emen lagundurik, eta laguntasunau dala medio zure Semeren grazia, Zeruko prenda segurua arturik Pasio Santuko frutuak<sup>31</sup>, Santu ta Aingeruakin merezi dezagun Zeruko gloriak kantatziak. Abe Maria.

---

<sup>25</sup> Idem: *eriotziaaz > eriotziaz*.

<sup>26</sup> Idem: *borondatiaaz > borondatiaz*.

<sup>27</sup> Ostein erantsita.

<sup>28</sup> Idem.

<sup>29</sup> Idem.

<sup>30</sup> Idem.

<sup>31</sup> Idem: *arturik Pasio Santuko frutuak > Zeruko prenda segurua arturik Pasio Santuko frutuak*.

## PUNTO PRIMERO

Zeñ andia pekatuen pisua<sup>32</sup>! O pekatuaren anditasuna<sup>33</sup>! Guztiok Adanegan il ginian beragan pekatu egin genduenian, esaten digu S(a)n Pablok. Ez due neurririk pekatu oneganik etorri zitzaizkigun kalteak. Berak itxi zitzaizkigun Zeruko atiak, aserratu zuan Jangoikoa gutzaz, eta iriki geretzat Infernua; kondenatu genduzan Infernura, eriotzara, ipini genduzan Demonioaren menpean eta ekarri zizkigun geugan dauzkagun negar ta zizpuruak. Añ argal, kaden ta erkin geratu zan gizona, ain izan ziran kruelak, ain gogorrek pekatu onek egin zituzan zauriak, ze ez zeguan zauri one[elk] osatzeko sendagarri ez medizinarik. Zeukan Demoniuak gizonau presondegi ta kartzela ustel baten aiñ sendo gorderik, ain irrimeloturik, ze ez zeguan gizon ez Angeruen<sup>34</sup> artian indarrik andik ateratzeko. Etorri zan Moises Lebita bere legiagaz, ordea ezin atera al izan zuan pekatuen kartzela artatik, bada, legea ona izan bazan ere, santua ta Jangoikoak emana izan bazan ere, ez zeukan indarrik gizonau libratzeko, esaten digu S(a)n Pablok. Etorri zan Aaron Sazerdote nagosia sakrifizioakaz, baña onek ere ezin osatu al izan zituzan pekatuak gizonagan ipiniko zaurijak, bada S(a)n Pablok esaten digun bezala, atzinako auntz, zezen ta beste animalia guztien orolak<sup>35</sup> ez zirala asko pekatuaren zaurijak kentzeko. Alperrik botako ziran orol oneaz batera Añgeru guztien santidadia eta Santu guztien merezimentuak; ain zan andia gizonak pekatuaren birtutez arturiko zorra, ze guzti-guztiok ez ziran elduko zorrau pagatzera. Pake andi baten genduzkan etsaiak bere agindupean, ez zeguan Zeru-Lurreko kriatura artian indarrik bere azpitik ateratzeko. Ah gizon gaixoa! Andia da, itsasoa bezela, zere zorigaldua! Nork osatuko zatuz? Ez dago inondik ere zure gaitx orrentzako erremediorik.

Atera nai zeukian Jangoikoak gizona Demonioaren azpitik, egin nai zuan bere seme laztan; ordea, ez zeguan nork kitatu Jaunaren justiziarri pekatuagaz gizon onek eginiko zorra. Zebillen ardura andi bategaz Jangoikoa begira, ea agiri bazan gizonagaz bere artean bitarteko izen al lizatekenik, baña ez zeguan, eta orregatik, esateko muduan, estutu ta larritzen zan. Ikusirik Jangoikoak ez zeguala iñondik ere modurik bere irudira eginiko gizonau bere zorigeztotik ateratzeko, asi zan pensazen ea nola biortuko zion gizon oni galdu zuan zoriona. Zer egin nezake,

---

<sup>32</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>33</sup> Idem.

<sup>34</sup> Alternantzia: *aingeru* / *angeru*.

<sup>35</sup> Idem: *odol* / *orol*.

esaten zuan (bere artian Jangoikoak), ain laztan dedan gizonau erremediatzeko? Legea ez da indarrrik, sakrifizioak asko ez dira, orandaño biralduko Patriarka, Profeta, eta beste nere zerbitzailla guztiak ez due indarrrik pekatuaren kateak urratzeko, ezin kendu izan due pekatua. Zer egingo det, bada, gizonau ez galtzeko? Zer uste dezue, Kr(istaoa)k, egingo duela? Ze asmo pekatua mundutik kentzeko artuko duela? Nork sinastu lezake? Nori sekula ere burura etorriko zitzaion? *Mitam filium meum dilectum*, esaten du: Biralduko det nere Seme laztana. Ordea Jangoiko andia, zergatik ero zertarak[o] biraldu nai dezu Zerutik zere Seme Jangoiko andia? Izango ete da kastigo arrigar[ir]len bat gizonakin egiteko? Zuri egineko esker geztoak Lurra Urjolakin estaldu ta ondatzeko? Zerutiko suagaz Sodoma ta Gomorra bezala erretzeko? Ez Kristaoak, ez; ez du onetarako biraltzen bere Semia, baizikan mundua salbatzeko.

Eta nola uste dezute bialtzen duala Semeau? Jangoiko bati datorkiozan anditasunagaz? Zeruko Erregeri datorkiozan gloriagaz? Ez Krista[o]lok, ezpada pekatuzko aragiaz jantzirik, gere pekatuak bere ganian dituzala eta oekgatik madarikatu eginik, menpeko gezto bat bezala azotatzeko, zauritu, oroldu ta iltzeko Kurutze orretan dakusgun bezala. Orra, pekataria, zer biar izan dan zere pekatua mundutik kentzeko; orra zer medizina biar izan dan zere zaurijak osatzeko. Atozte, pekatari, Kurtze orren oñetara, eta kontuz begirazazute zer egin dezuten zeben pekatuaz. Gaitxezko urijolagaz ondatu dezute mundua, eta kenduko bazan, Jangoiko batek ondatu biar izan zuan neke, pena eta tormentuzko urjola garratsetan, zeintzuek animaraño irago zaiozka. Zu pekataria, arroturik Jangoikoaren kontra, eta Jangoikoa zere arrokeria kentzearren, humildurik eriotzagiño, egin zenduzan Jangoikoak bere seme eta zu, iges eginik Jangoikoagandik, egl[i]n ziñan Demonio(are)n agindupeko. Irtengo bazenduan nagosi onen azpitik eta biortuko baziñan Jangoikoen seme izatera, Jangoikoak egin biar izan zuan gizonaren seme, eta igon bear izan du Kurutze orretara, ortxe urratzeko Demonioak zere kontra zeukan eskriturako karta. (Begirazazu Kurutze orretara, eta ortxe ondo ezautuko pekatuaren anditasun eskergia.)

Ezin kalte andiagori[k] egin eukion<sup>36</sup>. Ez da, N.K., inon bere obeto ezautzen pekatuaren gogortasuna, Jangoiko baten eriotzan baixen. Andiak dira pekatuak munduari ekarri diozkan kaltiak: Lur guztia uragaz estaldu bazuan, zortzi animari bakarrik parkatzen ziotela; Zerutik biraltzen badu sua, garra geztoakin<sup>37</sup> errijak, irriak, probinzija ta erreinu zabalak

<sup>36</sup> Osteen erantsitako esaldia.

<sup>37</sup> Osteen ezabatuta: *erre garra geztoakin* > *garra geztoakin*.



ermu biortzen badituz, guztiak dira pekatuaren sariak. Ordea, zer due oek guztiok zerikusi Jangoi[ko] baten eriotzaren parean? Eta etzan au pekataria zalako, ezpada pekatarien irudia artu zualako. Eta auxe bakarrik asko izan bazan Aitaren aserrakuntza guztia beraganatzeko, Kurutze orretan dakutsuen muduan<sup>38</sup> ilteko, begira gizona, pekatuen anditasuna, begira zugan zer egin dezaken biortzen ezpazera. Bai, K(ristao)ak<sup>39</sup>.

Goi artu zion Jesusek pekatuari, ordea pekatuak ere goi artu zion Jesusi. Il zuan Jesusek pekatua, baña il zuan pekatuak Jesus; etsai andia Jesus pekatuarentzat, ez txikiagoa pekatua Jesusentzat. (Etsai bi one[eln artian egin zan alkar ikusi ezin duen etsai bien artien izaten dana. Irtezen due biak peleztera eta biak alkarri emaniko golpiakin ilik gelditzen dira. Bitoria karua, bada; irabaziko bada, galdu biar da zañetako orol guztia, galdurik bizitzia eriotzarik lotsagarrienagaz.)

Zer izan gugaz, Jesus laztana Aitagaz bitarteko sartu ez balitz? Guztiok ardiak mendian erraturik bezala galduko giñean; ordea zuk, Jesus ona, artzain arduratsuak bezala irten zendun Aitaganik gure billa, eta zere bizker ganian arturik, ekarri gozu[z] zure artegira. (Zein galdurik, zein sarnaz beterik, zorren pisu andiagaz azpiraturik eta Infernuko otso amurratuaren ortz<sup>40</sup> eta erpe gogor artian ja guztiz galdurik!). Zeure esku, oñ eta gorputzeko zaurijak ondo esaten digue pekatuaren anditasuna; andijagoa gure gogortasuna. Bada, bere guraz dijoa eriotzagaz<sup>41</sup> Jesusek irabaziko<sup>42</sup> bito[ria]<sup>43</sup>.

## SEGUNDA PARTE

Jesukristok ez bakarrik atera genduzan Demoninoaren agindupetik, baita ere igaro genduzan bere Erreinura, esaten digu S(a)n Pablok. Onetarako, igon zuan Kurutze orretara eta kendurik indarrak, erbestetu ziztuzan, onela bitoria irabazitzen ziotela. Kurutze orretan il zuan eriotza, kanpora bota pekatua, azpiratu Infernua, iriki Zerua eta len Jangoi-

<sup>38</sup> Alternantzia: *modu / mudu*.

<sup>39</sup> Ostein erantsitako esaldia.

<sup>40</sup> Ostein aldatuta: *agin > ortz*.

<sup>41</sup> Idem: *pekatuagaz > eriotzagaz*.

<sup>42</sup> Geuk zuzenduta: *irabaziko Jesusek irabaziko > Jesusek irabaziko*.

<sup>43</sup> Ostein aldatutako atala: *Zeure esku, oñ eta gorputzeko zaurijak ondo esaten digue zenbat neke, pena, izardi gu irabazteko eman zenduan; andijagoa gure gogor(...) ta amodioa, eta gure zenzun laburrak ezautu alezaken baixen andi-goa bada, izanik Aingeruak lurrerano makurturik adoretzen zaituzana, ipi(...) gu irabazitirik ainsteste min gogorren erdijan. Emetik esautzen da pekatarien txorakeria, bada, fediak erakutsirik pekatuaren astuntasuna, ez nai izatia irten pekatutak > Zeure esku, oñ eta gorputzeko zaurijak ondo esaten digue pekatuaren anditasuna; andijagoa gure gogortasuna. Bada, bere guraz dijoa eriotzagaz Jesusek irabaziko bito[ria].*

koa(re)n etsai giñanak, ez bakarrik egin genduzan Jangoikoaren adiskida, baite ere bere seme ta ondasun guztien erederu. Orra ze mesede miragarriak egin zizkigun Jesusek bere eriotziagaz; orde[a], negargarria da gizonaren itsumendia! Bada, ez bakarrik emon ez<sup>44</sup> dizka Jaunari eskerrak egin diozkan mesede pareba[gi]lakgatik, baita ere ilundu nai du Jesusen bitoria andia, berriz pizturik Jesusek eriotzarekin il zituzan etsaiak. Au da, pek[ata]ri zenzunbagia, pekatu bakotxagaz egiten dezuna. Jesusek galtzen du bizitza [...]rtzearren, eta zuk piztzen dezu pekatua zere anima iltzarren. Jesusek ken[tzen] d[io] Demonioari zugan<sup>45</sup> zeukan nagusitasuna, eta zu egiten zera be[re] agindupeko. Jesusek urratzen<sup>46</sup> dio Demonioari zere kontra zeukan eskriturako karta, urratzen du, jostsen du Kurutze orretan, eta zuk egiten diozu berriro<sup>47</sup> eskritura berrija. Jesukristok bere zañetako orologaz kentzen dizkizu animako zauriak, eta zuk pekatuagaz kentzen dezu zuganik Jangoikoaren odolezko osasungei edo medizina, zapaltzen dezu, zikitzen dezu anima, irikitzen dezuz lengoak baixen andiagoko zauriak. Jesusek, madarikatu eginik, zu zorioneko egitzearren galtzen du bizitza, eta zuk naijago dezula<sup>48</sup> diozu madarikazioa, bedeinka[zioa]<sup>49</sup> baixen. Jesusek esan zuan Kurutze orretara igoten zuanian gauza guztiak eramango zituzala, eta zuk gezurtatu nai dezu Jesusen esana, naijago duala etsaiar(...) bes(...) baixen. (...) zer duan Moisesek Er(...) zuan (...)la, ala(...)beni zala zu Kurutze altu (...)n, zeu(...)a (...)ituzanik (...)din, eta bai guztiak iduki (...) bizitza. Or[de]a, pekatari geztoak, ez dizu zuri begiratu nai, bere begiak zarratzen dituz zu ikusi ezeitiarren. Naijago du Infernuko suge madarikatuak bere pozoi geztoakin il dezan, Kurutze orretara zeugana elduagaz betiko bizitzia iduki baixen. Zorakerija andija, benetan sinisezgarrija! Astuntasun bildurgarrija!

Kristinaua<sup>50</sup>, nun da zure fedia? Nun zure errazoia? Eta nun zure zenzuna? Jangoiko bat daukazu Kurutze orretan begien aurrien josirik, azotaturik, zauriturik, odolutsiturik eta illik; eta orregatik ere, geijagotzat iduki nai dezu Demonioa<sup>51</sup> iskintzen dizun gusto zitel bategatik, ikusirik Jangoikoak ain[beste] iskintzen dizula. Benetan diot, ez dezu ez federik, ez zenzunik, ez errazoaren apurrik. Badakizu, Kristaoa, zer

<sup>44</sup> Ostein erantsita.

<sup>45</sup> Ostein ezabatuta: *zer zugan > zugan*.

<sup>46</sup> Ostein aldatuta: *kentzen > urratzen*.

<sup>47</sup> Ostein erantsita.

<sup>48</sup> Ostein zuzenduta: *dezu > dezula*.

<sup>49</sup> Idem: *zoriona > bedeinka[zioa]*.

<sup>50</sup> Geuk zuzenduta: *Kristinagua > Kristinaua*.

<sup>51</sup> Ostein erantsita.

deritxada[n] gertatzen dala zugaz<sup>52</sup>? Ondo aitu ezazu: deritxat, bada, zakusdazala Jaun orren eta Demoninoen artean. Biok egiten due alegin guztia zu erosteko. Alde batetik, Jaun orrek Kurutze orretatik besoak zabalik deitzen dizu, eta zu beraganantz eramateko ifintzen dizu begien zer zugatik egin duan. Begirazazu, Kristaoa, Kurutze onetara, esaten dizu, eta ikusi ezazu nere zukanako amodioa. Ain modutan galdu zinan ze, ez zeguan nork zu atera zinaizan<sup>53</sup>, Nik zure erruki artu ez banu, zu pekaturik ateratzeko ez nuan biraldu Añgerurik, ez Serafinik, ez Kerubirik; Neu guztien Jaun ta Jangoikoa izanik, jatxi nintzan Zerutik Lurrera eta egin nuan orandik gurosorik onenak semerik maitagarrienagatik egin ez duana. Zugatik jaijo nintzan abeletxetxu baten, esaten dizu; zugatik bizi nintzan ogeta amairu ur[tean] neke, pena, gose<sup>54</sup>, egarri, otz, bero, izardi ta pobrezia artian. Zugatik artu ditudaz bost milla azote ta geiago; zugatik zulatu dizte arantza gogorrez koroiaz burua, zugatik nere gorputza zauri andi bat eginik ipini dizte; zugatik irago dolorez Kurutze lotsagarri onetan; zugatik eman det nere zañetako odola guztia, eta zugatik galdu nuan bizitza eriotza ikaragarrienagaz. Nai badituzuz egi onen testiguak, irakurri ezazuz begiok Kurutze onetara<sup>55</sup>. Testi[go] dira nere gorputza estaltzen duen zauriak, testigo nere buruko koroia, testigo joserik nauken iltze gogorak; testigu nere gorputz zatitu, birrindu ta orolez ustua, eta testigu esekirik naukan Kurutze gogorrau. Zer geijago egin nezakian zugatik eta ez det egin? Au guztiau gutxi da zere biotz ori irabazitzeko? Ez da asko zu eskergaldu etzeitezen<sup>56</sup>? Zu niganatzeko? Bada, ezpazara nigana etorri gura eskerroneko, atoz, gitxienez, beti-betiko zorioneko izatiarren. Nere eriotzagaz iriki dizkizut pekatuagaz zuk zarraturiko Zeruko atiak, antxe dauzkate<sup>57</sup> zerezat gorderik, ez begiak ikusi, ez belarriak entzun eta gogotara ere<sup>58</sup> eldu ezingo diran<sup>59</sup> zorion neurribagiak, azkenbageko<sup>60</sup> poz<sup>61</sup> ta asegiñak. Atoz, bada, nigana Jangoikoare[n] Seme, Zeruko Prinzipe ta ondasun guztien Jabe.

<sup>52</sup> Osteen zuzenduta: *zer deritxada[n] gertatzen dala Jaun orregaz ta zugaz pekatu egiten dozunian?* > *zer deritxada[n] gertatzen dala zugaz?*

<sup>53</sup> Osteen aldatuta: *zegin* > *zinaizan*.

<sup>54</sup> Osteen erantsita.

<sup>55</sup> Osteen ezabatuta: *Kurutze onetara, eta (...)gurro ikusi dezuz* > *Kurutze onetara*.

<sup>56</sup> Osteen aldatuta: *Ez da asko zu eskerronekoa izateko?* > *Ez da asko zu eskergaldu etzeitezen?*

<sup>57</sup> Idem: *daukadaz* > *dauzkat*.

<sup>58</sup> Osteen erantsita.

<sup>59</sup> Osteen aldatuta: *alezake(...)*n > *ezingo diran*.

<sup>60</sup> Osteen zuzenduta: *azkenbage* > *azkenbageko*.

<sup>61</sup> Geuk zuzenduta: *poztz* > *poz*.

Beste aldetik deitzen dio Demoninoak, eta egiten ditu Demonionek beragana eramate alegin andiak. Ezingo dizu egin mesederik, beti egingo dizu al duen gaitxik<sup>62</sup> andiena; ordea eskiniko dizkizu, beragana joaten bazera, gurari zital batzuek, ondasun bertatiko<sup>63</sup> batzuek, eta geriza bezala igaroko zitzaizkizun gusto-amesak. Emetik eriotza zorigalduko bat, beti-betiko su ikaragarri bat, nun Jangoikoa Jangoiko dan arteko, eternidade guztian bizi biarko dezun. Orañ bada, noren alegiñak izan biar due indar geijagokoak zure biotza irabazitzeke? Anbeste mesede egindakoak<sup>64</sup>, ala al duan gaitx guztia zuri egindakoak galtzearren<sup>65</sup> egiten duanak? Noren deiatara<sup>66</sup> entzun naijago dezuz, zere Egilla ongillarenak, ala gai[z]killarenak? Nork esango ez du, Jaun onen lenengo deira etorriko ez zerala, utxirik etsai geztoa? Au egiten ez badezu, andija da zure zenzun falta<sup>67</sup>. Bada, erantzuten diozu Jaunari ez dezula nai izan bere zerbitzailla, naiago<sup>68</sup> dezula zere anima ipini Demoninoaren eskuetan eta nagusi<sup>69</sup> obetzat ezautzen dezula. Egin zinaio desprezio andiagorik au baxen Jesusi? Ai Kristaua, andijago da orrekin Jesusi zuk ematen diozun pena, Kurutzian josi duenak baixen! Noiz artian, Kristaoa, (esaten dizu Jesusek), nox artian izango zera nire etsaia? Noix artian ibiliko zera nigandik igeska? Noiz artian nai dezu Nik itxaotia? Noiz artian iduki nai nozu Kurutze onetan? Noiz ero noiz ez da elduko nigana bioritzeke denpora? Atoz bada, pekataria, atoz seme galdua, atoz ardi erratua, ama on batek baixen naiago dizun Jangoikoagana, eta berriz igesik ez dagizun sartu zaite nere biotz zugatit urratuan. Gaur, pekataria, gaur bigarrera itxaon bagarik, atoz, etzaitez gortu nire dei amorosoetara. *Hodie si vocem Domini audieri*. Atoz besoak zabalik dagoan artian, bada, ez dago zure bear dalako, baixikan zu Zeruko ondasunez aberastu nai zaituzalako.

Atozte guztiok Ja[un]naren mendira, ikustera zein ikaragarria dan pekatuaren pisua. Guazen guztiok Krutze orren oñetara, bitarteko ipinirik Ama dolorez beterikoa. O Ama bakarra, Ama naigabe[z] belterikoa<sup>70</sup>! Ondo daki[gu] gera pekatuak zure Semeri bizitza kendu diotela. Ondo dakigu merezi ez degula zeure seme izatia; ordea, ikusirik<sup>71</sup> zere Semiak

<sup>62</sup> Osteen aldatuta: *mesederik* > *gaitxik*.

<sup>63</sup> Osteen zuzenduta: *bertiko* > *bertatiko*.

<sup>64</sup> Idem: *egin dakizunak* > *egindakoak*.

<sup>65</sup> Osteen erantsita: *zu galtzearren* > *zuri egindakoak galtzearren*.

<sup>66</sup> Osteen zuzenduta: *deiak* > *deiatara* (< *deiaktara*).

<sup>67</sup> Osteen aldatuta: *zoramena* > *zenzun falta*.

<sup>68</sup> Geuk zuzenduta: *naiajago* > *naiago*.

<sup>69</sup> Alternantzia: *nagosi* / *nagusi*.

<sup>70</sup> Osteen zuzenduta: *naigabeterikoa* > *naigabeteriakoa*.

<sup>71</sup> Osteen aldatuta: *beste aldetik dakigu* > *ikusirik*.

Amatzat eman zinizgula<sup>72</sup> pekatari<sup>73</sup> andiak izan arren ere, zere urrikian<sup>74</sup> konfianza ipinirik, geure pekatuak garbiturik, zere Semiari gere biotzak eman nai diozkagu, sepultura berri bat<sup>75</sup> non deskan[saltu izan dezan<sup>76</sup>. Alaxen izango da, zu bitarteko paratzen bazera.

Betor gere biotzetara<sup>77</sup>, Jangoiko ta gizon egiazkooi, beragaz batera etorri ditezen gure animetara<sup>78</sup> on guztiak. Jaunaren zerbitzalliak, igonzazute Kurutzeko arbole orretara eta jatxizazute<sup>79</sup> or dagoan frutu bedeinkatuori, kendu ditzen mundutik Adanen arboleko frutuak<sup>80</sup> eka-  
rri zizkigun gatx guztiak.

## ERROTULUA

Kenduzaiozute Kurutze orren goian dagoan oleri, non eskribiturik dagoan Kurutze orretan dagoanori dala Juduen Errege, eta eramanzaiozute Amari. Artzazu, Ama penaz ingaratua, bada gitxi eretxirik zere Semiak<sup>81</sup> zu gere amatzako itztiari, nai du ere izan zaitian gere Erregi-  
ña<sup>82</sup>, zaindu gagizuzan etsai gogorretatik; artuzazu, Andre, Zeruko Erre-  
geak ematen dizun opizioa eta ezaugutu gagizuz zere zerbitzailletzat, ba izanik zu gere agintari<sup>83</sup>, ez degu iñoren bildurrik.

## ARANTZAZKO KOROA

Kenduzai[o]zute, gizon urrikiorrak, Jaunaren burua ain erruki gabe zulatu duan arantzazko koroiori<sup>84</sup>, eta erakutsi zaiguzute guztioi, ezagutu dezagun gere pekatuen anditasuna. Begira, p(ekataria)<sup>85</sup>, zer frutu eman duan zere biotzeko mastuiak, Jaun orrek landaratu, atxurtu, garbitu eta

<sup>72</sup> Idem: *zaizkigula* > *zinizgula*.

<sup>73</sup> Ostein ezabatuta: *Eta pekatari* > *Pekataria*.

<sup>74</sup> Ostein aldatuta: *onetan* > *zere urrikian*.

<sup>75</sup> Idem: *sepultura bat nor* > *sepultura berri bat*.

<sup>76</sup> Ostein zuzenduta: *non deskan[satu] zure Semiak izan dazen* > *non deskan[saltu izan dezan*.

<sup>77</sup> Idem: *biotzera* > *biotzetara*.

<sup>78</sup> Idem: *animen* > *animetara*.

<sup>79</sup> Ostein aldatuta: *eratzazute* > *jatzizazute*.

<sup>80</sup> Ostein ezabatuta: *Adanen atzinako arbole bateko frutuak* > *Adanen arboleko frutuak*.

<sup>81</sup> Ostein erantsita: *gitxi eretxirik* > *gitxi eretxirik zere Semiak*.

<sup>82</sup> Ostein zuzenduta: *gere amatzako, ta gu zere semetzako artu gaizuzala nai du* > *gere amatzako itztiari, nai du ere izan zaitian gere Erregiña*.

<sup>83</sup> Ostein ezabatuta: *agintari ta zerbitzaille* > *agintari*.

<sup>84</sup> Ostein zuzenduta: *arantza bildurgarrizko koroiori* > *arantzazko koroia*.

<sup>85</sup> Ostein erantsita.

jagon zuan ardura txitozko bateaz, uste izan zuan santidade ta birtutezko masti gozoak emango zituzala; ordea sasi ta arantza geztoak, Jesu(kristo)ren burua zulatzeko<sup>86</sup> baixen izan ez diranak eman dituz. Eramanzaiozute Erregina penaz beterikoorri, koroe orretan ezaugutu dezan ze andiak diran gure gatzak<sup>87</sup>. Orra, Andrea<sup>88</sup>, ze esker-moduak eman diozkagun zere Semiari artu dituguzan mesedeakgatik. Ordea, ezautzen degu gere pekatua, propon[iltzen]<sup>89</sup> eta gaurrik aurrera aterarik zañetatik<sup>90</sup> pekatuaren arantza guztiak, emango deguz<sup>91</sup> birtutezko frutu gozoak.

## ULTZEAK

Jaunaren Ministroak, aterazaiozute bere eskuko<sup>92</sup> iltze gogorra, libratu orrako eskua, Zeru-Lurra eta izatia duen guztiak ezerezetatik<sup>93</sup> egin leizana<sup>94</sup>; artu dezagun bere bendizio santua, eta Bera bitartez mere[zi] izan dezagun bere eskoako aldean betiko egotia. Ezkerrekoa. Atera ezkerrekoori ere, artu dezagun esku orretan guretzat gorderiko aberastasanak; onela aberasturik, paga diozkagun pekatuakaz arturiko zorrak, kendurik gere ganetik zor oen pisua; altxa dezagun burua, buru onen azpitik ipinirik Jaunorrek ezkerria, artu dezagun Jesuseganik betiko laz-tana. Aterazaiozute ere orrako iltze bildurgarri oñ santu oriek anbes-te nekezko pauso gu irabazitzeke eman zituanak<sup>95</sup>. Iltze gogor ta sendua benetan<sup>96</sup>, bada, eldu zan<sup>97</sup> josirik edukitzera mundu guztia aulkitzat<sup>98</sup> idukiko oñak, Demonioa, Eriotza ta Infernua zapaldu zituzanak. Eraman Bera Amagana. Orra, Andrea, nolako iltzerekin<sup>99</sup> josi duen gere pekatuak zere Semia. Guk egin dituguz iltze ilgarri orre[elk]<sup>100</sup> eta zula-

<sup>86</sup> Ostein zuzenduta: *Jesu zulatzeko > Jesu(kristo)ren burua zulatzeko.*

<sup>87</sup> Idem: *pekatuaren pisua > ze andiak diran gure gatzak.*

<sup>88</sup> Ostein aldatuta: *Begira gere Ama ona > Orra, Andrea.*

<sup>89</sup> Ostein erantsita.

<sup>90</sup> Ostein aldatuta: *eta atera nai ditugu sustraitik > eta gaurrik aurrera aterarik zañetatik.*

<sup>91</sup> Idem: *aurrerantzian emango (...)gu(...) > emango degu.*

<sup>92</sup> Ostein zuzenduta: *eskuako > eskuko.*

<sup>93</sup> Geuk zuzenduta: *ezereszetatik > ezerezetatik.*

<sup>94</sup> Ostein aldatuta: *zituzana > leizana.*

<sup>95</sup> Ondo lotzerik izan ez dugula eta, ez dugu zuzenketa hau transkribatu: *eman zituanak > eman z(.)ak josirik dauzkan ori.*

<sup>96</sup> Idem: *Iltze gogor ta sendua benetan > Iltze egiaz gogor ta sendua egiaz.*

<sup>97</sup> Ostein erantsita.

<sup>98</sup> Ostein zuzenduta: *aurkitzat > aulkitzat.*

<sup>99</sup> Ostein aldatuta: *burrinakin > iltzerekin.*

<sup>100</sup> Ostein erantsita: *iltze orrek > iltze ilgarri orrek.*

tu degu<sup>101</sup> zere Semeren gorputze urriki gabe. Ondo ezauturik gere pekatua, nai genduzke gaurrik aurrera<sup>102</sup> iltze oriekin josi<sup>103</sup> gere oñ-eskuak, gauza deungetara juan ez gaitazan ta bide txuzenetatik bildur santu batega[z] pauso egin dezagun.

#### GORPUTZ ERESTIA<sup>104</sup>

Betor azkenez<sup>105</sup> Kurutze orretatik gugana Adan berriori, kendu dezagun gaurrik aurrera Adan zarraren irudia, berrizta dezagun Paradisuan galdu zana. Betor, betor gorputz aiñ birrindu, zatitu ta itsurik gere pekatuak ipinikoori, bada, gizonen irudirik ez badu ere, ortxe degu Jangoikotasuna ondasun guztiakaz gu aberastseko. Eramanzaizute bere Amari. O pena parebakoa, Martirien zuria Erregina andia<sup>106</sup>! O nola dautzugun zere pena ta zizpuru artian, esaten dezun *fera pesima devoravit filium meum Josef!* Pekatuaren abere uzoak<sup>107</sup> il du nere Seme biotzeko bakarra. Berak lotu du kattia ta soka gogorrakin, berak zatitu, zauritu ta orolutsitu du. O<sup>108</sup> ene Semea! Zer gatx egin diozute gizonai modu orretan ipintzeko, gizonik geztoena baño gogorrago kastigadurik? Badakit gizonen amorioak egin duala au guztiau zugan, eta guztia biar izan dala, irtengo bazuan pekatupetik. Baña<sup>109</sup>, ai ene Semea, zein ilunik, lutuz estaldurik izten nozun!

#### JENTIARI ERAKUSTEA

Kenduzaiozute aren Birjiña penaz ingaratukoorri bere Semeren gorputza, eta erakutsi gizonai. Begira, pekatari zenzunbagia, zer egin dezun Jangoiko bategaz. Zu, pekataria, izan zera orrela il dezuna zere pekatu andiakaz. Zuk zatitu diozkazu bere aragijak; zuk orolutsitu dezu pekatuzko azotiakaz. Eta orandik ere beste anbeste egiteko goguakin zaude? Esnatu zaite noizbait pekatuaren lozorrotik; begirazazu noraño eldu dan zere gogortasuna, eta arritu ta bildurturik ezaugera oneaz esanzaiozu zeure biotz guztitik: N(er)e J(esu)k(rist)o Jauna.

<sup>101</sup> Ostean ezabatuta: *eta oriekin guk zulatu degu > eta zulatu degu.*

<sup>102</sup> Ostean zuzenduta: *aurre > aurrera.*

<sup>103</sup> Ostean erantsita.

<sup>104</sup> Albo oharra: *Burnia = Fierro.*

<sup>105</sup> Ostean erantsita.

<sup>106</sup> Ostean zuzenduta: *Martirien Erregina andia zuria > Martirien zuria Erregina andia.*

<sup>107</sup> Geuk zuzenduta: *uzuoak > uzoak.*

<sup>108</sup> Ostean erantsita.

<sup>109</sup> Idem.

## [AMAIERAKO ERANSKETAK]

Egiaz iltze sendua, bada eldu ziñan<sup>110</sup> josirik idukitzera mundu guztia aurkitzat<sup>111</sup> idukikako oñak, Infernua, Eriotza ta Diabrua zapaldurikoak. Iltze bedeinkatua urratu badezu ere, ez Aaronen zijorra, ez Legeko Olak, ez Israelarren mana gordetzen zuan kutxa, baizikan Jangoikotasun guztija gorderiko Jesusen gorputza: *Ado.<sup>te</sup> bede(...)*.

Jangoiko bat zere pekatuak kendu, betiko zorione[z] betetziarren (...). Au guztiau gutxi bada zere biotza irabazitzeko, au gutxi bada zu niganatzeko, etorri nai ez badezu nire amoriagatik, atoz gutxienez zere interesagatik. Atoz gaur, pekataria, bigarko utxi bagarik.

Naijago du Infernuko su geztoari begiratu ta il betiko, Zuri begiraturif[k] betiko bizi baixen. Jaunaren ministroak, Zeruko Errege andiaren sazerdotiak... Iltze zorionekoak<sup>112</sup>! Zebek zerate Jesusen gorputzian iru leiyo mundu guztia an salbatzeko iriki zindutenak<sup>113</sup>.

Anbat lasterren ausi ta urratu iltze gogor gorputz santu anbeste penaz ta dolorez daukanori. (\*)<sup>114</sup> O iltze gogor baña ger[e] itzal zorionekoak<sup>115</sup>! Urratu badizube ere, ura arka santo, ez Aaronen zijorra, ez Legeko Olak<sup>116</sup>, ez Israelarren mana ogi mirarizkoa gorde zuana, baizikan Jangoikoaren poderea, Aitaren jakituria, Jangoikotasunaren gozotasuna adoratzaren zaituet. O iltze zorionekoak! Bada, zebek<sup>117</sup> iriki dituzube Noe egiazkoorren Arka orretan iru leiyo, nun ez zortzi anima Noenen Arkan bezala, ezpada mundu guztija salbatzeko iriki dezube ataria; ez sazerdote nagusia bakarrik, baite ere mundu guztia altara orretara sartzeko.

<sup>110</sup> Ostean aldatuta: *zan* > *ziñan*.

<sup>111</sup> Alternantzia: *aulki* / *aurki*.

<sup>112</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>113</sup> Idem.

<sup>114</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Eta garbiturik odol-la kendurik, sei(...)* (...) *esku garbiak oroldu ez ditezan emanzaiozute...*

<sup>115</sup> Ondo lotzerik izan ez dugula eta, ez dugu zuzenketa hau transkribatu: *O iltze gogor baña ger[e] itzal zorionekoak* > *O iltze bedeinkatua zarenak ger[e] itzal mesede guri.*

<sup>116</sup> Ostean ezabatuta: *ez Legeko Olak gorderik zeuzkana* > *ez Legeko Olak.*

<sup>117</sup> Ostean zuzenduta: *zek* > *zebek*.



**SATISFACCIÓN DE OBRA QUINTA.  
CONDICIÓN PARA UNA BUENA CONFESIÓN**

*Facite fructus dignos paenitentiae.* Lc. 3, 8

Konfesino on bat egiteko bostgarren biar dan gauzia da konfesoriak aginduten daben penitenzija ondo kunplietia. Penitenzija oni dei egiten jako Satisfazinoa, beragaz pagetan deusalako pekatarijak pekatu egin ebanian artu eban zorra. Baña au zelan dan obeto ezagutu dagizun, jakin biar dozu pekatu mortal bakotxian dagozala gauza bi: bata da zure pekatuaren errua ta orbana; beragaitik merezidu dozun Infernuko suba, bestia. Konfesino ondo egin batek kenduten dau pekatuaren errua, baña ez beti erru onegatik merezidu daben pena guztija. Egiten dabena da, eztila izan penau<sup>1</sup> beti-betiko Infernuan pagau biar dabena; eta pena onen zorra erremedio bagarik pagau biar da edo munduan edo purgatorioan, Zeruan sartuko bad[a]. Satisfazinoa da modu bikoa: bata, penitenzija kunplietako dauken gogoa, ta bigarrena, gogoan artu eban moduan kunplietia edo obraz ifinitia. Eta alan, joanik konfesetara eta konfesaurik zure pekatuak penitenzija kunplietako intenzino firmiagaz, eroanik beste lau konfesino onerako biar dirian kondezinoak, zure konfesinoa ona izengo da, gero beste motibu justuren bategatik kunplidu ez arren. Igual zein juramento egingo bazendu pobre bateri lau erreal emoteko, gero emoteko denporan inpedimenturen bat<sup>2</sup> eukirik, prometidu zeuntsena juramentoagaz pobriari emoteko, juramento egijazkoa izango liteken; alan konfesoriak emoniko penitenzija prudentia kunplietako intenziño osoagaz konfesadu danak, gero kunplietia-orduan inpedimenturen bategatik<sup>3</sup> ezin kunplidu badau, konfesino egijazkoa egingo dau. (\*)<sup>4</sup>

---

<sup>1</sup> Osteen ezabatuta: *neke edo penau > penau.*

<sup>2</sup> Geuk zuzenduta: *inpedimenturembat > inpedimenturen bat.*

<sup>3</sup> Idem: *inpedimenturembategatik > inpedimenturen bategatik.*

<sup>4</sup> Atal horretako albo oharrak: *Gogozkoa edo intenziozkoa ta obrazkoa.* [Aurrerago:] *Satisfaziñoko gogozkoa, bigarrehna obrazkoa.* [Aurrerago:] *Ain da biarra kunplietako gogoa, zeinda bera bagarik ezin leijen konfesino ona.*

Baña konfesetara joanik zeuri pekatuakgatik emoten deutsuen penitenzija prudentia, zuk konfesoriarri baijetz esan arren, kunplietako gogorik zeura biotzian ezpadaukazu, al duzun moduan, sakrilejijo bat egingo dozu, gero damaturik kunpliduko bazendu bere. Au<sup>5</sup> onelan ifinirik diñot, eta alan deungaro konfesetan<sup>6</sup> dira<sup>7</sup> arako penitente inoren azientia biortuteko gogorik eztabenak, okasino kenduten eztabenak, pekatuaren peliburutik alde egiten eztabenak ezauturik lenago alako peliburuan egonik pekatuan jausi diriala, eta arako konfesoriak bere ofizijoz ag[li]nduriko gauza errazoazkoak egiteko gogorik eztabenak, falta jakelako konfesino on bat egiteko biar dan bostgarren kondezinoa, zein dan Satisfazinoa. Alperriko gastua egingo leuke gaixo batek, eta gaisoak badauko obligazinoa<sup>8</sup> medikuak aginduten dautsen erremedijoa artuteko, min ta garratza izen arren bere, gorputzeko osasuna artzeko; askoz geijago dago penitentia obligadurik obedidutera, bere arimako osasunerako biar dirian osagarriak garratzaigoak izen arren, biar badira bere osasunerako. Eta alan, inozko denporan ezpadaukazu gogorik<sup>9</sup> konfesoriak ifiniten deutsun penitenzija kunplietako, obeto izango eztozula<sup>10</sup>, artez esangiozu, eta alan sakrilejijo bat gitxiago egingo dozu<sup>11</sup>. Baña (...) <sup>12</sup> ezta pekatu izango, bai nozbait konbenidu dan gauzia<sup>13</sup>, ezauturik ezingo dozula kunplidu zuri ifinitera joatzun penitenzija, esatia ezingo dozula, eta alan al badau, beste gauza biortu dagizula; bada, benturaz jazo liteke, mediku piadoso baten modura osatu al bazaiz gauza sua-beagaz zu osatutia<sup>14</sup>, erremedijo garrat[z]ak alde batera itxirik. Eta esan dot al bazaiz osatu, bada sarriten medikuek agindu biar izaten dab[el]na legez, gaisoa osatuko bada, ebagi ta erretia aragi ustela, alan konfesoriak osatuko badau zure arimia, ebagi ta erre biar dituz pekatuaren okasinoak, peliburuak eta ekandu zar geztoak.

<sup>5</sup> Jatorrizkoan: *Hau*.

<sup>6</sup> Ostein zuzenduta: *konfetan > konfesetan*.

<sup>7</sup> Ostein erantsita: *Eta alan deungaro konfesetan dira > Au onelan ifinirik diñot, eta alan deungaro konfesetan dira*.

<sup>8</sup> Idem: *Eta gaisoak badauko obligazinoa > Alperriko gastua egingo leuke gaixo batek, eta gaisoak badauko obligazinoa*.

<sup>9</sup> Idem: *Eta alan ezpadaukazu gogorik > Eta alan inozko denporan ezpadaukazu gogorik*.

<sup>10</sup> Idem: *eztozula > obeto izango eztozula*.

<sup>11</sup> Geuk zuzenduta: *egingo eta alan sakrilejijo bat gitxiago egingo dozu > eta alan sakrilejijo bat gitxiago egingo dozu*.

<sup>12</sup> Ostein erantsita.

<sup>13</sup> Ostein zuzenduta: *bai konbenidu dan gauzia nozbait > bai nozbait konbenidu dan gauzia*.

<sup>14</sup> Ostein ezabatuta: *bera zu osatutia > zu osatutia*.

Konfesoriak izen biar dau medikua lezkoak, begiratuten dabela geijago geroko probetxura gaisoaren instante atako gustu emaitera baño; eztau izen biar kozineruaren kondezinoak, zeinek bakarrik begiratuten daben maijen dagozanai emongo deuten gustua. Eta mediku lame-dorak baño errezetetan eztakijenak gaiso gitxi osatu oi daroiana legez, alan konfessore bakarrik gauza suabiak baño penitentiari penitenzijaz aginduten eztautzenak, gitxi pekatuak ta arimeko zaurijetatik osatuko dau (...)<sup>15</sup>. Pekatari asko ibili oi doa onango mediku bigunen billa, eta lastima tristez topau oi ditue, mediku ta gaisoren galtzairako. *Facilitas absolvendi, facilitas peccandi* (Ben.<sup>10</sup> 14, ex Belarmino). Gorputzeko dolore andijakaz gaisorik ibiliten dana ez oi da kontentetan edozein medikugez, billatuten dau jakintsuena, eta zegatik ezta ifiniko ardurau arimeko gaisorako? (\*)<sup>16</sup>

(\*)<sup>17</sup> Trentoko Batzar santuak irakasten dausku gauza biterako ifiniten dala penitenzija: bata, len eginiko pekatuak kastigadu eta pagetako; bestia, ostera, euretara biortu ezeiteko edo biortutia galazoteko. Eta edozeinbere penitenzijetan begiratu biar dira gauza bi oneik. Alan bere<sup>18</sup>, batzuk lenengo izaiten dira lengo pekatuen kastigurako, eta beste batzuk euretara ostera biortutia galazoteko. Esan deusuet konfesino egijazko batek parkatuten dabela arako pekatuagatik merezidu izan eben errua, eta konfesadu ezpalitz ondo, eternidade baten pagau biarko ebena Infernuan; baña eztau beti parkatuten pekatuaren erruari datorkijon penia, emen munduan edo purgatorijoan pagetia datorkijona. Eta pena au pagetako, ainbeste neke kostatagarik, ifiniten dau konfesoriak bere prudenzijak esan daroijon penitenzija, zein txikija izen arren pekatuak merezidu daudien parian; orregatik da birtute andikoa, Sakramento Penitenzijakoaren birtutez artuten dabelako J(esu)k(risto) meritu santuen indar, onan pagetan diriala arako purgatorijoan suz beterik pagau biarko litekezan penak, arik eta ondo garbitu artian orban guztijetatik. Penitenzija onetara uts egitia, gauza grabian izenik, da pekatu mortala. Konturako, dirautsu konfesoriak egun bijan barau egin dagizula, zortzi egunian meza entzun dagizula, eta illian bein konfesau zaitezala; onelelk iru aginduok bakotxa berian dira gauza grabiak, eta orregatik faltetan dozun bakotxian pekatu mortala egingo dozu. Baña konfesoriak

<sup>15</sup> Osteen erantsita.

<sup>16</sup> Ondo irakurtzerik izan ez dugula eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Asko gera (...) pe(...) gorputzan min duzutenak.*

<sup>17</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Gaixorik zeudenian... (...) balio andiko bat konpeseroa obligatua dagoan bezela penitenzia paratzera, ala (...) modutako penitenzia erakutsitzen digu Trentoko.*

<sup>18</sup> Geuk zuzenduta: *Alambere > Alan bere.*

aginduko gauzia ezpada grabia, arina baño, edo astuna izanik gauza txikijen uts egiten badozu, izengo da pekatu beniala; esaterako, aginduko baleutsu errosarijo bat<sup>19</sup>, sei edo zortzi abemarija errezadu bagarik itxiko bazenduz. Baita bere pekatu beniala izango da konfesoriak esaten badautsu pekatu mortalen beian aginduten eztautsula; kont[ul]rako, aginduten dautsu ilian bein konfesadu zaitzala, eta beste bein barau egin dagizula, baña barua eztautsula aginduten pekatu mortalen beian. Emen falta egiten badozu konfesinoaren ganian, konfesetan etzareala ilian bein, falta bakotxeko egingo dozu pekatu mortal bat konfesinoaren ganian, baña barauen ganian, geijenez bakotxako ezta izango pekatu benial bat baño. (\*)<sup>20</sup>

Ezin badozu kunplidu penitenzija obra gaizto andirik zeuri egin bagarik, etzaitu obligaduko; esaterako, konfesoriak aginduten deutsu Maria Santisimiaren fiesta bezpera guztijetan barau egin dagizula, eta zuri jazoten jatzu egun atan gaisorik egotia edo neke andiko biarren bat; etzaitu obligetan. Eztozu egingo bere pekatur[ik] penitenzija kunplidu ezeitiagaz, zeure erru bagarik aitzu jatzunian, baña zeura alperrierijaz jazo bajatzu, pekatu. Eta baldin joaten bazara beste konfessore bategana esatera zeure konfesoriak emoniko penitenzija beste gauza baten biortu dagizula, konfesadu biar dozu lengo konfesino guztija.

Eta erraz jakin daikezu, emen munduan kunplidu nai ezpadozu penitenzija purgatorijoan, baita emen munduan bere, or(...) jazo lekizu; bada, Jangoikoak pagarazoten dituz pekatuak emen mundu(...), bestian bere. Baña kontu penitenzija kunplietako gogoia eukitiagaz, eta (...)tuten badozu ezingo dozula kunplidu, eskatu beste bat konfesoriari emon dagizula. Penitenzija kunplidu biar da konfesoriak aginduten dabenian; eta ezpadautsu agindu noz, ainbat lasterren. Konfesoriak aginduten daben penitenzija kunplidu biar da ondo, eta alan agindurik zuri konfesoriak meza entzun dagizula, bazterretara zeure borondatez adi zagozala, gorputza elehan baña biotza plazan dozula entzuten badozu, eztozu ondo kunpliduko penitenzija. Urtian lau bider konfesa zaitiala aginduten badautsu, ta konfesino geztok egiten badozuz, eztozu penitenzijarik kunpliduko, eta egingo dozuz lau pekatu andi sakrilejijokoak. Eztozu kunpliduko bere penitenzija, obligazinoz edo botoz zeuk egin bearreko daukezuzen gauzakaz. Konturako, aginduten dautsu datorren aste guztijen egunian meza bat entzun dagizula, eta jausten da jai konzienzijan bian jagon biarreko bat, bada, egun atan bi entzuten

<sup>19</sup> Osteen zuzenduta: *sei edo zortzi] errosarijo > errosarijo bat.*

<sup>20</sup> Atal horretako albo oharrak: *Ses. 14, cap. octavo.* [Aurrerago:] *Principalmente.* [Aurrerago:] *Penitenzia bi modutako[k] dira, grabia ta txikia.*

ezpadozuz, eztozu konfesoriak emoniko penitenzijagaz kunpliduko. Oraindañokoa izan da pekatu pasatuen doktrin[a]<sup>21</sup>.

(\*)<sup>22</sup> Beste penitenzija bat dago dei egiten jakona medizinala; eta au da emoten dana aurrentzian jausi ez tin edo alde egin dagijen pekatuti. Eta medikuak gaisoari, ije osaturik daukenian agin[du] daroijona legez, alde egin dagijela axe gezto ta janari lenago gatx egiten izen dautseene-tati, ostera zein barrien barriz jausi ez tin, alan konfesoriak bere ifini biar dau arduria, eragotziten dautsezala penitentiari pekatuaren okasinoak, zein ostera biortu ez tin lengo pekatu edo andijagora, ifiniten dautsezala erremedioak, zeintzuek jagon dagijen ekandu geztoti. Onangoak dira arako konfesoriak aginduten deutsezanak: urlija etxetan sartu ez tilla, personiagaz bakarrian berbarik ez dagijela, beste pekatuan jausten bada onango edo alango penitenzija egin dagijela. Eta pekatua zeingaitik penitenzija emoten dautsun grabia bada, ez kunplietia pekatu mortala izango da. Konturako, esaten dautsu konfesoriak urten dagizula arako etxe okasino daukezunerik, zeinetan sart[ut]en zarian bakotxian edo eskuz, obraz edo pensamentuz pekatu mortala egiten dozun, bada konfesorien aginduak emen obligetan zaitu pekatu mortalen beian. Aginduten dautsu guzurra esateko ekandua kendutiarrrik, guzur bakotxeko lurrian mun egin dagizula; guzurak arinak diriana legez, ez kunplietia penitenzija pekatu beniala izengo da. Beste penitenzija medizinal batzuek dagoz, zein[nt]zuek ain biar-biarrekoak izen ez arren, dira guztiz konbeniduak, gure badau pekatarijak urten negargarrizko estadirik. Onelakoak ifiniten jakez pekatuen ekandu zitala daukenai, euren peliburua kentzeko eskubide baga. Esaterako, mutil, gizon edo enbra batek dauko ekandu zitala bere aragijagaz pekatu egiteko; ekandu geztoau daukanak ezin apartadu leike daukan peliburua, bada au dago beragaz bat eginik bere aragijan, eta alan, ez izanik ain biar-biarrekoak oni ifiniten jakozan penitenzijak, aldatu edo gitxitu leijoz konfesoriak. Ara klaruago: deritxo konfesoriarri mutil onen ekandua kenduteko modurik onena dala astian birriten barau ereitia; aginduten dautso, bada, penitenzijau, eta asirik barau egiten dakus ezin aurrera igoro al litiakala, edo gorputz argalekoa dalako edo nekazalia dalako eta biar egitia galarazoten deutsalako; onek eskatu leijo konfesoriarri emon dagijola beste penitenzija bat baruen orde. Peniten[zija] osagarri edo medizinalak kunpli-

<sup>21</sup> Osteen zuzenduta: *Orainginoko doktrinia da pekatu igoroakgaitik emon doiana > Oraindañokoa izan da pekatu pasatuen doktrin[a]*.

<sup>22</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez ditugu eransketa hauek transkribatu: *Beste penitenzija bat dago pekatuarek bidaiek itxiteko ifintzen da, zeineri jakintsuak dei egiten diote[n] medizinala. [Aurrerago:] Len eginiko pekatu (...).*

du biar dira ezetan bere aldatu bagarik edo gitxitu bagarik, diriala guztiz biarrak pekatu[rik] urtengo badabe. Bada, bakarrik Satisfazinoak edo lengo pekatuakgaitik ifin[iten] dirianak, konfesoriak piedadiagaz penitenzija txikijago bat [ifini] leijo, eta geijenez izango da penitentia denpora luzarogol[an] purgatorjoan egotia. Baña penitenzija osagei edo m[e]ldizi[n]alotan, erruki ta piedadia da krueldade andi bat, eta emen konfesoriak eztauko beste erremedijorik penitentiarentzat, ebagi ta sa jau kutxilloagaz, edo biraldu Infernura. Medikuek aragi ustelian egiten dabena: edo ebagi, erre ta kauterijau, edo ilten itxi. Alan konfesoriak okasinozko pekatuetan eta lengo ekandu zitelezkoeta[n] egin biar dau beste ainbeste.

Eta geijago dirautsut, jakinda egon biar dozula, konfesoriarri aitzu bajako bere zuri okasinotik urten dagizula agindutia, zeuk egin biar dozu, eta al dozula egiten ezpadozu, zagoz pekatu mortal baten kenduten eztozun denpora guztijen okasinoori. Bada, borondatezko peliburuan egotia beti da pekatua. Esaterako, dakizu esperientzijas urlija etxetara, Urlijagaz bakarrik egotia edo beste batzar peliburuzkoren baten sartuten zarian guztijan, ezautu dozu pekatuan jausi zariala; bada, zu etxe orretan sartutia personorregaz bakarrik edo batzar peliburuzko orretan borondatez sartutia, beti da pekatu eta zuk konfesoriarri aitzu arren andik urten dagizula zuri penitenzijas ifinitia, zeuk egin biar dozu, eta al dozula egin bagarik zagozan artian pekatuan sarturik zagoz. Penitenzija oneek ez kunplietia da pekatua berez, diferentia zuk egiten dozun obrarik. Orregatik, badaukazu penitenzija bakarrik ez egoteko Juan Josegaz eta austen badozu, etzara ondo konfesaduko bakarrik beragaz pekatu egin dozula esanagaz, edo peliburuan pekatuako parau ziniala; esan biar dozu bere konfesoriarren penitenzijan uts egin zendula, bada pekatua da diferentia. Obligadurik bazagoz proximuari hondria, aziendia edo famia biortutera edo beste justizijazko obligazinoren batera, konfesoriak agindu ez arren, zeuk egin biar dozu, obligazinoa berez zuri biotzian deadarka egin dagizula dagoalako, eta egin al dagizula ez eginik konfesetan zarian artian, zure konfesinoak dira pek[a]tuzkoak. Bada, konfesorria engañau arren, ezingo dozu alan Jangoikoa, eta alan egiteko ustirik eztozunian esangiozu konfesoriarri ta sakrilejijo bat gixia[go] egingo dozu. (\*)<sup>23</sup>

(\*)<sup>24</sup> Aurkiturik konfessore bat pekatari bategaz eriotza-orduan, sarri jazo oi dana legez, konfesadu eban zer biortu eukela kantidade bat edo

<sup>23</sup> Atal horretako albo oharrak: B.<sup>n</sup>... [Aurrerago:] *Berdin esan biar dizut justiziako obligazioetan edo err(...)koetan.*

<sup>24</sup> Idem: E... *vuelta.* [Aurrerago:] *Zenbat atxakia okas[i]oetatik urteiteko, zenbat eskusa pagatzeko.*

ostu ebala. Konfessoriak agindu eutsan biortu leijela, baña berak zinoian ezin leijela, baeukezala seme bi akomodetako eta are[el]ntzat biar ebala, bada, pagetan beban guztija, azienda bagarik gelditu ziriala; esan leijola beste erremedijorik beukan edo ez, eta [el]rantzunik konfessoriak edo pagau edo kondenau bako erremedijorik ez egoala, esan enbra onek: Bada, gurago dot Infernuan buelta bat geijago emon ta semiak<sup>25</sup> ondo akomodaturik itxi. Eta onegaz batera oien bazterrera begiratuten ebela il zan, eta arimia Infernuko demoninoak eroan eben. Esango dozue nezije andija zala kondenau gura izenagaz, eta neuk bere zeuekaz alan dinot, baña nezijago izango zan konfessoriak aginduten eutsena pageu leijala esan ta gogo bagarik konfesau ta komulgau bazan, eta lengo pekatuen beste sakrilejijozko andi bi egin bazituzen. Eta egingo ezpad[ozue] aginduten jatzuena, esan eztozuela ak legez, ta joan zaiteze beragaz Infernura eta kondenaduko bazar(.), pena gitxiagoa Infernuan izengo dozue.

Erraz jakinik egongo zaree, N.E., inoren gauzia biortu al dagizuela biortuten ezpadozue, eta pekatuti al dozuela alde egin egiten ezpadozue, zeben konfesinoak dira ta izango dira alperrekoak ta pekatuz beterikoak, ta zuen orazinoak frutu bagiak. Gauza gogorra da, esan daroe askok, arako persona neuk laztan dodaneti alde egitia, proximuari hondria biortutia, injurija parkatu biar izatia, arako joko ta dibersinorik alde egitia, non igoro daroadazan ordurik onenak. Baita neuk bere dinot zeu[el]kaz gogorra dala munduaren amadoriarentzat; baña gauza gogorragoa da Infernuan betiko erretan egon biar izatia. Gauza gogorra munduaren amadorientzat; baña ez Kristoren serbitzailentzat, bada, bere majestadiak emoten dauen grazijak onan bere serbitzijora etxiten dirianai, guztiz arinduten dautse karga onen astuntasuna. Eta au da grazija bat sekula inori Jangoikoak ukatuten eztautsena, norbera onetarako preparentan bada. Eta arako deseo biziATEGAZ salbadu gure daudienak, okasinotik alde egiten daudiena legez, biortu inoren aziendia, gixitu banidadie eta janzi dezenzijagaz; zuek bere bardin egin zinaije, gure bazendue, eta onelan eldu ezaututera ze dulzia dan Jangoikoa ta arina bere kargia ifini euskuna. Baña lenago igaro biar da satisfazinoaren ur garratzetatik, baña gustuz arturik osasuntsuetati, (egiten dozuezala) edo kunprietan dozuezala arintasun andiATEGAZ arako penitenzija alan len eginiko pekatuegatik<sup>26</sup> emoten jatzuezanak, baite bere aurrera biortu ez zaitzezanak ifiniten jatzuezanak, konfessoreaganik.

<sup>25</sup> Geuk zuzenduta: *semian* > *semiak*.

<sup>26</sup> Ostein zuzenduta: *pekatuetatik* > *pekatuegatik*.

Benetan osatu nai dozu?<sup>27</sup> Gura dozu, bada, osatu?<sup>28</sup> Egingizu gaisoak egin daroiena<sup>29</sup>.

Ikusi daroazue zelan gaisorik dagozanak artu daroegan erremedio-rik min ta garratzenak osasunagatik; bada, au biar dozue egin, zeuen ari-meko gatxetarik osatuko bazaree. Gogorra baderitxazue zeuen pekatue-gatik emoten jatzuen penitenzije, akordau zaitezze gogorragoa dala Infer-nuen zeuen pekatuak baño txikijegoakgatik kondenadu askok egiten dabena frutu bagarik; gogorrek diriala baderetxazue, aitu ze andijak dirian zuen pekatuak eta itzalak ariman eurekaz eginiko zaurijak, eta zauri andijak beti biar dabe erremedio andijagoa. Pekatua, Kristinauak, gaur ain da andija eta ainbeste Jangoikoa aserratuten dabena, zeinde atxinako denporan; eta Berari emon biar jakon satisfazinoa, bardina zein ordukoa. Eta Elexiak gaur bigundu arren atxinako denporarik ona peka-tuakgatik emoten zan penitenzija, baño bere espiritu ta arimia bat, eta gure dau emon daijogun Jangoikoari satisfazinoa geure pekatuena, pekatuai datorkiezan penitenzijakaz. Ezautu biar dozue eztagoala kon-fesoriaren eskuan berak gure daben lezko penitenzija ifinitia, ezpada begiratu biar dau pekatuaren zirkustanzijetara eta penitenten kondezi-noetara. Egin biar dabe sazerdotiak, (dino Trentoko Batzar santuak), ifi-ni satisfazino osasuntsua, euren espiritu ta prudenzijak dirautsen moduan, begiraturen dabeela ondo penitenten zirkustanzija ta pekatua-ren astuntasun edo txikitasunera, egin ezitzezan euren penitentiaren pekatuetan partedunak, penitenzija txikijak ifiniten dituezala pekatu andijakgatik. Konzilijo Santu onetako berbetati ezautu biar dozue ezta-goala sazerdotiaren eskuetan gitxitu eta askotutia penitenzija bere gure daben moduan, askok usteko dozuena legez, ezpabere begiratu biar dogu pekatuaren anditasunera ta pekatarijen zirkustanzijetara. A, ondo begiratu bazeunkia, Elexiaren asijeran ifiniten ziran penitenzijak pekatuakgatik oraingo penitenzijaren parian! (\*)<sup>30</sup>

Ikusiko baldin bazendue atxineko kanon penitenzialak aginduten dabela jaijetan dantza egiten eban guztijak, nai beste edozeinbere den-poretan elexa aurrian dantzetan atrebiduten ziranak, iru urtian peniten-zija egin biar izate[n] ebela, eta gaur pekatu publiko ta itzelenakgatik onenbeste ez gitxiago bere aginduten eztala, gozu andiz ta zorioneko-ztat emongo zinatekez, ikusirik ain biguntasun andija zuebekaz euki

<sup>27</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>28</sup> Idem.

<sup>29</sup> Idem.

<sup>30</sup> Atal horretako albo oharrak: *Gorrote andikoa*. [Aurrerago:] Ses. 14, c. 8.



darogulako. Etzeunke<sup>31</sup> eukiko gogortzat jaijegunian ta elexa aurrian dantza egitiagatik iru eguneko barua aginduko baleutsue. Eta nongo dantzarijari ezarri oi joako onango penitenzija? Kontentaduko nintzateke onango dantzari izan dirianakaz, eztauken ezkeru animu ta espiritu-rik ainbeste egiteko, aurrerantzian artu dagijen bizitza barri bat, propositu firme bategaz ez geijago onango batzarretara biortuteko. Bada, au gitxienez egin biar dozue, gure badozue pagau zeuen pekatuen zorra Jangoikoen justizijari. Onan eginik mereziduko dozue izatia osatuak, pekatuaren zaurijetatik arkanzetan dozuela grazijau arako Jangoiko andijaganik Sakramento Penitenzijakoren birtutez.

Guazan gefulre Ama errukitsuagana<sup>32</sup>: Ea Ama gozua, akordau zaite negarrezko erri onetan gagozanokgatik, desterradurik Zeruko palazijo eder orretati, alde guztijetatik tentazinoen axe geztoak ingeraturi[k], ainbeste arerijo gogorren erdijan, izan zaitez gure jagola ta kapitana gerra gezto onetan; lagun zakiguz, bada, zu gure aldetik eukirik eztago arerijoen bildurrik. Onetarako obligadu gura zaituguz Angeruen salutazino gozuagaz, guztijok makurturik esaten deutsugula: Abe Maria. (\*)<sup>33</sup>

#### [AMAIERAKO ERANSKETA]

(\*)<sup>34</sup> Baña Elexa Ama Santia gauza one[e]n ganian beti da bat, eta orregatik pekatu oneri datorkijon zorra beti pagau biar da<sup>35</sup>. Nik bada-  
kit konpesero guztiak ontzat eman biar dirala, orregatik ere badakit ani-  
mako on geiago ekarriko dizkiguna billatu biar dala, pekatu zarren pu-  
tzu ta zaurietatik aterako gaituana<sup>36</sup>. Beti euki eikezu, pekatarija, konfe-  
soriak emoniko penitenzija kunplietako gogo eta borondatia; bada, asko  
dira borondatiau euki ezagatik egiten dirian konfesino geztoak, eta guz-  
tiz garratzak Jangoikoak ondo<sup>37</sup> konfesadu gure eztabenen kontra egi-  
niko kastiguak. Baña alde batera itxirik, asko esango deusuet exenplo  
edo kastigu bat zeuen eskarmenturako izan dedin. Egoan andra alargun  
bat, asko munduan legez, seme ezkongei bi zituzana. Gaisotu zan  
andrau; gaisoturik eldu zan eriotzako peliburura. Peliburu onetan aurki-

<sup>31</sup> Geuk zuzenduta: *Eztzeunke* > *Etzeunke*.

<sup>32</sup> Idem: *errukutsiaganana* > *errukitsuagana*.

<sup>33</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *O zenbatek eriotzako orduginokoetan konfesadu bagarik gelditu oi dirian, kondenetan dirialla] arako alarguna legez.*

<sup>34</sup> Hasiera oharra: *Agindu liezake* = *Se le puede mandar*.

<sup>35</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>36</sup> Idem.

<sup>37</sup> Ostean zuzenduta: *deungero* > *ondo*.

turik, agindu eutsen medikuak ilteko prestau zeilla konfesino baten bitartez; dei egin eutsen konfesoriarri; dei eginik asi ziran konfesinoan eta eldurik Zazpigarren Mandamentura: Jauna, esan eutsan, nik mandamentu orretan lapurreta andijak egin ditut. Konfesorriak esan eutsen: Ba, z[e]l[u]gaz eukirik guzti-guztija biortu biar dozu. Jauna, bada, zelan izango da? Seme ezkongee bi daukadaz da, zelan geldituko dira? Lenago da zure animia ta jaubiari...

## LA PORCIÚNCULA

Induljenziak ez dirade beste gauzarik, ezpada Elix A Ama Santak bere Santuen merezimentuko kutxa santoen gordeta dauzkan aberastasuna[k], beren bidez errazago pagatu ditzen beren pekatoai datorkien zorra. Ez da izango erririk, gitxienez<sup>1</sup> goberno onekoak badira, erriko komen(...)ri datozkiozan interesik ez duanik, premiñetan interes oekin baliatu eta sokorrituak izan ditezen erriau konpontzen duen auzo edo bezino guztiak. Eta munduak bere premiñetan baliatzeko, interes oiek euki oi dituen bezela, ala Elix A Santak ditu interes andiak bere semiak premietan sokorritu ta aberastzeko. Aberastasun oiek dira Santuen merezimentuko kutxan<sup>2</sup> gorde zizkigun interes espiritualak, berekin baliatu nai duen pekatariak, beren bidez pekatuen zorrak pagaturik aberastu ditezen. Au da Elix A Ama Santak erakutsitzen diguna, Jesukristoren bikarioa Aita Santo Klemente Seigarrenak eta beste askok mundu guztitik bere dekretoen bidez salbaduri[k] aditzen ematen diguen bezela. Zorion guzti oek datozkigu Jangoikoren Seme Jesus gure amodioz urturik gizon egin zanen neurribageko merezimentuetatik, zeñek ez eukirik zer zorrik pagatu bere pekatuakgatik, guri aplikatzen zizkigun bere bizitza, pasio ta eriotzako merezimentu neurribagiak gure pekatuen zorren alderako, baldin berekin baliatu nai baginduan. Eta ez bakarrik Jesusenak, baizikan bere Ama eta beste Santo askorenak gorde zizkigun santo merezimentoko kutxan<sup>3</sup>.

Elixako Santorik andienak Elixaren le[nen]goko egunetatik baliatu ziran Santuen merezimentuko aberastasunaz pekatari argalari aplikatzeko. Merezimento onezaz baliatu zan S(a)n Pablo, pekatari argal bati aplikatu eta Komunio Santora errezibitzeko. Au berau egin zuben Elixaren aurreko beste obispo santo askok ezauturik biarbada bere pekatuak zetorkien penitentzia osoa paratzen bazaien, egingo ez zu[be]lla, eta biarbada guztiari utxi ta galduko zirala; onela, santu merezimentuko kutxatik aterarik eta pekatari argalari aplikaturik, salba zitezen beste modutan biarbada galduko ziranak.

---

<sup>1</sup> Ostean aldatuta: *batez ere* > *gitxienez*.

<sup>2</sup> Ostean erantsita.

<sup>3</sup> Geuk zuzenduta: *txakan* > *kutxan*.

(\*)<sup>4</sup> Au da Elexak erakutsitzen diguna, eta au berau nere Aita S(a)n Fr(anzis)kok. Doktrina onetan ondo aditua nere Aita Franzisko, gaur presentatzen zaku Porziunkulako induljenziaz pekatariak konbidatze[ko]. Zeguan nere Aita Fr(anzis)ko bein batian Porziunkulako hermita pobrian, bere ordenako Elixirik prinzipalenak izan biar zuanian orazioan, guztia Jangoikoen amodioan sutua; eta orra non bere oraziorik andienian zeguala agertu zitzaion Jesukristo bere Amagaz lagundua, esaten ziola eskazaiola nai zuan mesede guztia. Bere humildadiak atzeratzen bazuan ere, Ama Santisimaren enpeñuz obligatua animatzen da Fr(anzis)ko, baita ere dijoa mesediak eskatzera. Ordea, zer mesede uste dezue eskatzera dijoala? Bakarrik beretzako fortuna, aberastasun, jakinduria edo beste mundutarrak anbeste egarrigaz deseatu oi dituen mesederen batzuk, eta munduan zorioneko izateko nai izaten dituenak? Ez, ezpada bere buruaz azturik, bere pentsamentu guztiak ez dirade besterik, ezpada no[n]di pekatariai mesedeak egingo dizkan; eta guztia animen salbazioan egarriturik, eskatzen dio Porziunkulako induljenzia, bere bidez baliaturik pekatariak bere pekatuen zorrak pagatzeko, guztiak garbiak eta aberastuak irten ditezen.

Fr(anzis)ko nere Aitak erregutzen dio Jesusi, Ama Santisima enpeñatzen Franziskoren orazioan, eta Jesusek aditurik, Ama Santisima eta Franziskoren eskarietara dator bien esana egitera eta Porziunkulako induljenzia pekatarien onerako ematera. Zer ikusgarri miragarria ikustea Fr(anzis)ko Porziunkulako hermitan, Salomon denpora baten baño indar geiagogaz, belauniko jarririk, besoak kurutzez jasorik, bere begiak eta biotza fijo Zeruan zitala, eskatzen Jaunari: Jangoikoaren esana da ez diriala izango alperrikoak pobre<sup>5</sup>... Parkatu, arren, zure erri oni eta aditu pekatarienek<sup>6</sup> elixa onetan pekatuen damuari egingo dizkitzuen orazioak. Antxinetik esan zuan bere Profeta Santo baten bidez pobreren orazioak adituko zitala; eta berak esanda zeukan bezala, etziran izan alperrikakoak emen nere Aita pobre, humil eta desinteresatuenak, baizikan igo zuan Zeruko tronura eta adituak izan ziran. Eta egiaz, nola adituko ez zituan Fr(anzis)ko gizon justo ta santoenak, beste interesik sekula Jangoikoaren Semiak pekatarien salbaziorako mundura etortzeko, eta bere Ama Santisima Porziunkula elixan ondratzia besterik pentsatzen ez zuanenak? Adituak izan baziran Salomonenak, justo zan aditzea Franziskorenak. Salomonek eskatu zion miseria ta pobrezatik libratzeko, baña

<sup>4</sup> Hasiara oharra: *Ojo*.

<sup>5</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>6</sup> Geuk zuzenduta: *pekatari > pekatarienek*.

nere Aitak, ez onela, eskatzen dio libra zezala munduko interes eta abe-rastasunetik peste gezto batetik bezela. Emanzadazu pobreza; au izango da nik esposatzat<sup>7</sup> artu nai dedana, zuk Zerutik gure amodioz errerik jaxi ta etorri[ri]k erakutsi zinidan bezela. Au izango nere eta nere semen-ren maiorazgoa.

(\*)<sup>8</sup> Jangoikoak dioanez, Justuen orazioak badirade giltza batzuek Zeruko atiak irikitzen dituenak graziazko euri santoak gureganatzeko; izanik nere Aita justoen artien eskojitua, bere orazioak obligatu biar zeben euri santook ematera. Beste Santoen orazioak Jangoikoen atsegin andikoak izan baziran ere, nere Aitarenak apartekoak izan ziran. Egia da<sup>9</sup>. Beste Santo asko beren salbazioa eskatuaz kontento ziran eta proximoenegaz akordatzen baziran, etzan izaten anbeste egarrigaz. Baña nere Aitarena, beti apartekoa, pekatarien salbazioa besterik izan etzan eta beti bere buruaz azturik, proximoen salbazioan enpeñatua, aurrera zijoan, ez bakarrik kontentatzen zala Elixaren orduko premiarako eskatuaz, baixikan geroko denporetan izango zituanaz. Ondo zekien nere Aita Fr(anzis)kok Kristoren esposa Elix Ama Santak geroko denporetan ere premiak izango zituala, eta pekatari argalak beren pekatuen zorrak pagatzeko induljenziaren biarra izango zebela. Orregaitik, denpora guztiko pekatarien premiari<sup>10</sup> lagundu nairik, Ama Santisimak onetarako esku ematen ziola, bere laguntzeaz batera merezitu izan zuan Porziunkulako induljenzia ematia, ez bakarrik Porziunkulako elixarako, baizikan baita ere bere ordenako elixa guztietarako.

O zenbat pekatari pekatuen kati[a]pian zeudenak baliatu diran induljenzionegaz, eta katiak urraturik salbatu! O zenbat itxuturik munduko kodizia ta banerietan, eternidadeaz azturik eskandaluan bizi ziranak, beren animako begiak irikirik, Madalena bezela negarturik, induljenzia onezaz poztuta Zeruan dauden! Zenbat anima purgatorioko tormentu itzeletan zaudenak sufrajio oen bidez Zeruan dauden! Zorioneko Fr(anzis)ko nere Aita mait[ila], añ graziak andiak zuri ematia Jangoikoren Semiak merezi izan dezulako. Baita ere gu zorionekoak, konbit onegaz baliaturik, gure animak aberastu<sup>11</sup> eta purgatoriokoak andik ateratzia merezitzen badegu. Zer esaten dezue onetara, Terzera Ordenako nere Aitaren seme-alaba graziazko iturri santo onetatik igeska zabiltzenak?

<sup>7</sup> Osteen zuzenduta: *esposatzak* > *esposatzat*.

<sup>8</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Beti izan dira...*

<sup>9</sup> Osteen erantsitako esaldia.

<sup>10</sup> Osteen erantsita: *Orregaitik pekatarien premiari* > *Orregaitik denpora guztiko pekatarien premiari*.

<sup>11</sup> Osteen aldatuta: *libratu* > *aberastu*.

A(...)tu, arren, denpora dezuen artian. Bestela, etorriko da eguna, nai izan arren, ezingo dezuena eta len egin eza negarturik bizi biarko dezuena.

Ikusirik Infernuak Franziskoren induljenzia Porziunkulako parerik bagia añ gerra andia egiten ziola, anbeste pekatari pekatuen katiapean zeukanak, kateak urraturik bere atzapar artetik iges egin ta salbatzen zirala, gerra bizi bat egin zion. Baña Jaunaren laguntzeagaz etsaiak azpiraturik, induljenzia onen kontrako golpeak guztiak izan ziran induljenziau famatuagoa egiteko, denpora berian geiago ta geiago enpeñatzen zirala induljenzia irabazitera obispo, arzobispo, kardenal ta Aita Santogi[n]okokak. Eta induljenziau ez bakarrik izan da famatuena, baizikan baita ere seguruena. Eta zergatik uste dezue dala seguruena? Duelako pribilejio bat beste induljenziak izan ez duena. Jesukristok berak nere Aitari emana dalako, anbeste milagrogaz probatua dalako eta mundu guztitik zabalduarik ezin kontala pekatari Zeruko portuan sartu dituelako.

Eta<sup>12</sup> egiaz, zer induljenzia seguruagorik Jesusek berak emana baño izan leiteke? Egia da agindu ziola nere Aitari bere bikario Aita Santuagana presentatzeko; baño au ez da besterik, ezpada erakutsitzia induljenzia onetarako pauso ta bideak Jangoikoagandik irtenak zirala baño. Au da Jangoikoren Semiak munduan zeguanian egin zuana; eta au berau egiten du nere Aita Franziskogaz, Jangoikoren Semiak beragana zetozen erren ta gaixoak osatzen zituengan, esaten: Zuadete, erakutsi zaitezte sazerdotiai<sup>13</sup>.

Eta induljenziau ez da bat bakarra; baizikan baita ere, zenbat bider bisitatzen dan, anbeste induljenzia egun onetan irabazitzen dirade, lenengo ondo konpesatu ta komulgaturik. Bisita bakoitzeko kostunbre da Santisimoren ezta ezer<sup>14</sup>, sei paternoster ta sei abemaria errezatzia, federen amenturako, herejiaren destruziorako ta prinzipie katolikuen arteko bakerako. Eta induljenzia oek aplikatu beitezke, biar dirade Purgatorioko animen sufrajorako, bakoitzak determinatzen duala anima ura berak nai den duana; eta baldin au Zeruan balego, Jangoikoen eskuetan paratzen duala, zeñi berak aplikatu nai dion.

---

<sup>12</sup> Ostean erantsita.

<sup>13</sup> Geuk zuzenduta: *sazerdotiaeri* > *sazerdotiai*.

<sup>14</sup> Esaldi iluna.

## BORRÓN. SOBRE LA COMUNIÓN SANTA Y SACRÍLEGA

*Substantia enim tua dulcedinem tuam, quam in filios  
habes ostendebat, et deserviens uniuscuiusque voluntati  
ad quos quisque convertebatur. Sap. 16, 21*

Nai izanik erakutsi guri jakintsuak nola izan biar degun eskerronekoak Jangoikoakiko<sup>1</sup>, esaten digu añ dirala andiak bere eskuetatik artzen ditugun mesedeak ezen, alegin andiak egin naijagatik ezingo dala gure entendimento laburra igon anditasun oiek diran bezela ezautzera, gorputz ilkor onetan gauden artian; eta emen munduan ezautzen ditugunak asko ta andiak badirade ere, orregatikan neurri bage dirade andiagoak artuagatik ezautzen ez dituguzanak. Baña non geiago ikusten diran mesede oiek, eta aparteko amodio bat gizonakiko, izan zan Sakramento Altareko beneragarrian; bada, emen artu zuan aparteko indar bat bere kari[da]diaren suak, arteko guziak bentajaten zituana eta beragan guziak sartzen zituana. Emen agertu zan<sup>2</sup> amodiozko itsas andian, itxasoak, ibai ta erreka guziak bezela. Beste Sakramento guzietan ematen zaku Jangoiko ta bere grazia gauza naturalen birtute edo bidez, konturako: Batajoan, uraren bidez; Konfirmazioan, Krisma Santoren bidez, eta ala besteetan. Ordea Altareko Sakramento beneragarrian, bitarteko bage ematen zaku Jangoi(ko)a berbera. Emendik ikusten da, nai izanagatik gizonak jakin emen ematen zaiona dala askoz geiago berak ezautu al dezakean baño eta añ andia ezen, Jangoikoak berak bere jakituria ta poderio guziarekin ezin eman zeikegun gauza andiagorik emen artzen deguna baño, zerren emen ematen diguna Jangoikoa berbera dan. (\*)<sup>3</sup> Jangoikoak sakramento onetan gizonari eman ziozkan aberastasunez miraritu[rik] Trentoko Konzilio santoa, itz oiekin esplikatzan da: emen Jangoikoak agertu zituala bere aberastasunaz beteriko kutxak, artian gorderik egon ziranak. Ezin gauza andiagorik eman dezakegu Jangoikoak. Ordea, anbestekoa izanagatik, txit da gitxia artzen duen frutua, biotzeko epeltasunare[ki]n presentatzen dalako. Au da txit palta andia,

<sup>1</sup> Ostean zuzenduta: *Jaungoikoaki[n] > Jaungoikoakiko*.

<sup>2</sup> Geuk zuzenduta: *zauan > zan*.

<sup>3</sup> Albo oharra: *Trentoko*.

ordea neurri gabe negargarriago ezin kontala pekatariena, biotz pekatuz beterikoz ta anima loituakin presentatzen diralako. Jang(oi)ko andia, pentsatziak berak bakarrik bildurtze[n] n[a]u. Beragatik, sermoaren gaia punto labur bitan erakutsiko dizuet: lelekoan, zeñ zorionekoa anima garbi ta fedez beterik sakramentuau artzen duan Kristaoa; bigarrenian, zorigaizto anima pekatuz betia artzen duanarena.

(\*)<sup>4</sup> Jangoikoaren Semiak mundura etorteko iduki zuan motiboa izan zan galdu ta desegitia Diabruaren obra geztoa. Diabruaren obrau izan zan (...)atua, ta bere bidez munduan sartu zan eriotza. Enbidiaz beterik Lu[zifer] gizonari etorri jakan zorionez, eta ezin bere soberbiak iñondik sufridurik zorion au, zebillen alde guzietatik asmu billa nondik edo nola galeraziko zion. Gorroto geztoz beterik, pentsatu zuan biderik onena gizona galtzeko izango zala Jangoikoaren aserrian paratzia, ausi ereinik Jangoikoaren agindua. Asmo gezto oiez beterik asi zan tentatzen Eba gure Ama, esaten ziola: Zergatik zuk, Eba, jaten dituzun ezkerro jardin orretako frutu guziak, bakarrik baratzen erdian dagoanari utzitzen diozu? Jangoikoak eragotzi zigulako, era[n]ltzuten dio. Eta Diabruak: Ei, ez esan ori, janazu ta janarekin izango zera Jangoikoa besteko; jakin dezu zer dan ona eta txarra. Sinasturik Ebak etsaiaren engañiozko promesari, uste izanik biarbada Jangoikoa beste izango zirala, erortzen tentazioan, pasatzen da arbole aren azpira, kuidoaz begiratzen dio, gustatzen zaio, eta eskua ezarririk artu eta jaten du. Eta ez kontento izanik berak bakarrik janaz, eramaten dio bere lagunari, gere leleko Aita Adani, eta onek ere nonbait bere lagunari sentimentorik ez ematjarren, artu ta jaten du. Ausiten due Jangoikoaren mandamentoa, fruta artatik ez, beste gañekoak b(...)no agindu ziena; aserratzen da Jangoikoa eta pekatuaren penan sutxitzen dira Zeruko atiak, eta galtzen gizona. Betiko eriotzara sentenziaturik gelditzen da. Jangoikoaren jakinduri[a]k ikusi zuanian gizona galdurik, pekatuari zion gorrotoz, desegiteko Diabruaren obrau, para zuan bere Elixan beste fruta bat egiaz kenduko ziona etsaien frutak ekarri zion gaitxa. Au da Jesusen Gorputz ta Orol sagradua, gure betiko bizitza ta osasuna. Konbidatzen gaitu zorionez beteriko Zeruko Ogi miragarri onekin, egiarekin prometitzen digula gezurrarekin etsaiak<sup>5</sup> gure gurasoai eskañi zieon(...), izango zirala Jangoiko, jaten bazuten. Eta gure gurasoak, Jangoikotasunian parte idukitziagatik, (engañioz izan bazan ere) jan bazeben fruta eragotzia, ara emen non eskañtzen digun zorionezko fruta au, Jangoikoaren dibinidadiaren parte egiten gaitubenau<sup>6</sup> ondo janik. Jan dezagun, bada, fede bizi, anima garbi ta prestaera

<sup>4</sup> Hasiera oharra: *San Juan*.

<sup>5</sup> Geuk zuzenduta: *gezurrarekin etsaiak gezurrakin > gezurrarekin etsaiak*.

<sup>6</sup> Ostean zuzenduta: *gaitubenai > gaitubenau*.



santoz prestaturik, Jesusen Gorputz sakramento onetan ikusten deguna; eta onela janik, gure gorputzetan munduko ogiak osasunarekin janaz egiten duana, au berau egingo du gure animetan Zeruko Ogi Santo onek, esaten digu S(an)to Tomasek.

Eta egiaz, zer janari sendagarri ta osagarriagorik Zeruko Ogiu baño artu dezakegu gere animako argaltasunak sendatzeko? Nork biar bezela erakutsiko du norañokoa dan bere birtutia? Ez da iñor biar bezela au erakutsi dezakeanik. Orregatikan ere, ezer zerbait sakramento onen ezauera iduki dezakezuben, esango dizuet S(an)to Tomas Billanuebako ta S(a)n Juan Krisostomorekin, Jangoikoak Sakramento Santoau bere Eli-xan ipinitzean ez zuala izan beste pentsamentorik gizonak Zeruko tesoroz aberastzia baño. Zer uste dezu bere karidade neurribagiak egiten duala gizonari dion amodioa erakutsitzeko? Sakramento Santo onen birtutez egiten du Ogi Jangoikozko bat, guk bera janarekin Jangoiko izate-ra biortzen gaituana ezin esanezko modu miragarri batean. O zorionez beteriko Sakramento beneragarria, eta Jangoikoaren gizonakiko amodio neurrigabia! Emen erakutsitzen diguzu zure gizonakiko amodioa. Zerk, Jauna, orrenbesterantzen zaitu, autsa baño ere utsago dan gizon orrela aberastu ta ondratzeko? Zer da gizonagandik esperatzen dezuna? (\*)<sup>7</sup> Eta zer, Kristaok, gugandik artzen duan saria Jesus maiteonek? Nola lotsatzen ez gera añ epelak ezautzean? Kendu ditzagun epeltasunak eta saiatu gaitian gaurrik aurrera prestaera obiakin errezipitza, Israeldarrak desiertoan Zeruko mana, janari santua artzeko prestatu oi ziran bezela. Eta aiek ondo prestatuak artu zuben denpora guzien ez gose, ez gaixo, ez beste trabajorik izan ez zuben bezela, ala guk ere ez gose, ez gaixo, ez trabajorik, eta bai alde guzietatik zoriona besterik ez degu ezautuko. Zorioneko anima, anima garbi ta pedez<sup>8</sup> beterik artzen zaitunena. Nor[k], Jesus gozoa, euki lezakian Angeruen garbitasuna, Serafinen amodioa ta Santoak izan zituben prestaerak, eta merezi dituzun besteko eskerrak eman leikezuzan[ak]<sup>9</sup>?

Au da, Jesus maitia, zure mesedeak gizonagandik eskatzen debena, asko agiri ezpada ere<sup>10</sup>. Beragatik, N(ere) A(diskidia)k, ez bakarrik sai[a]tu biar gera prestaera santoz artzera Sakramento beneragarriau, baita ere ber[a] ondo arturik saiatu esker santoak ematera; zerren gizonak

<sup>7</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *O amodio neurri...*

<sup>8</sup> Alternantzia: *fede / pede*.

<sup>9</sup> Ostean erantsita: *ta Santoak izan zituben prestaerak? > ta Santoak izan zituben prestaerak, eta merezi dituzun besteko eskerrak eman leikezuzan[ak]?*

<sup>10</sup> Ostean zuzenduta: *Au da, Jesus maitia, gizona gandik deseaten dezuna > Au da, Jesus maitia, zure mesedeak gizonagandik eskatzen debena, asko agiri ezpada ere.*

ez dan posible aberasgarri andiagorik artzia, ez Jangoikoak bere podero guziarekin tesoro andiagorik guri ematia. Nola au ala izanik ikusten gera añ otzak eskerrak emateko? Eskr(itura)k San(toa)k esaten digu zeñ kuidado andikoak izan ziran<sup>11</sup>. Ikustsen baditugu<sup>12</sup> Israeldarrak zeñ kontu andikoak izan ziraden<sup>13</sup> eskerrak ematen, bada, guk kuidado geiagokoak izan biar degu, zerren guri egiten digun mesedea andiagoa dan aiena baño. Aik artu zuben ogiak bakarrik gorputzeko osasuna ematen zuan, guriak animakoa; aien ogiak berrogei urtian iraun zuan, guriak Jangoikoa dan arte guzian. Ezin aberasgarri andiagorik eman dezakegu au baño Jangoikoak. Izan dezu iñoz Apostoloren inbidia santorik Jesusekin<sup>14</sup> bizi, ibilli ta itz egitia merezi izan zebelako? Bada, zuri egiten dizuna andiagoa da. Ez da kontentatzen bakarrik zurekin bizi, ibilli ta itz egitearekin, baita ere nai du zu izan zaitian bere bizilekua, eta Bera zure mantenimentua. Iñoz ipini zera pentsatzen komulgatu-ta lasterrian zurekin gertatu da[la] Jangoikozko biorkera santoa? Bada, ondo komulgatu bazera, esan dezakezu egiarekin ez zerala autsa, ez lurra, ezpada Jesukristo berbera, bere ezurren ezur, aragiaren aragi. S(a)n Juan Krisostomok esaten dizu: O Jangoikoaren gizonakiko amodio neurribagia! Nori gogoratuko zitzai, Jangoikoari ezpada, modu miragarri onetan gizona aberastsia! Bedeinka milla bidar, milla bider bedeinka izan dedilla gure Jangoikoa maitia! Orra, K(ristao)ak, zeñ andiak ondo presaturik komulgatzen danaren zorionak! Eta anbestekoak badira zorion oiek, ala dira ere zorigaiztoko desditzak pekatuan komulgatzen diraden animen gañera datozenak.

## SEGUNDA

Jakin nai badezu nolako prestaera eskatzen zien Israeldarrai sakripizioko aragiak jateko Jangoikoa[k], ikusiko esaten ziela ez zetiala atrebitu anima loiakin artzen, eta baldin alakorik egiten bazeben, galduak izango zirala. Eta Israeldarrak sakripizioko aragiak jaten ala atrebitzen baziran, galduak gelditzen baziran, izanik sakripizioko aragi aiek iduri bat bakarrik izango sakramento arenak; zer kastigu mereziko ez due Kristao geztoak anima loiakin atrebitzen badirade? Ondo ezautuko balebe Kristao geztoak zeñ kastigu andiaren duin egiten diran, iñolaz ere ez lirake atrebituko pekatuan komulgatzen. Añ aserrea ikusiko luke Jangoikoa ezen, ikusiko luke ezpata billuzakin beren atrebimentua kastigatze-

<sup>11</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>12</sup> Ostean zuzenduta: *ditugu* > *baditugu*.

<sup>13</sup> Ostean aldatuta: *ibilli ziran* > *izan ziraden*.

<sup>14</sup> Idem: *berarekin* > *Jesusekin*.

ko; bere aserreren suzko errekek bere aotik ertetzen duala ikusiko luke beren pekatua kastigatzeko, eta bai ibilliko lirake nondik esker onakin erantzungo dien Jangoikoak gizonari<sup>15</sup> aparteko mesede miragarriren bat egin dion guzian, beti erakutsi da kuido andikoa mesede aien saritzako esker ona eskatzen. Jangoikoak bere Erria Faraonen mendetik atera zuanian Egiptotik, milagroko libertade aren saritzako agindu zion urtero pesta andi bat zelebratzeko. Ala ikusten ziran Israeldarrak zazpi egunian mendian arbolaren erramazko txaboletan, zeñek akordarazitzen ziren beren gurasoekin egin zuan milagroa, beren errirako bidian Egiptotik basamurtuan bizi izan ziranian. Onela piztutzen ziran Jangoikoen amodioan, eta artzen zituben indar santuak Jangoikoaren aginduan ibilliteko. Gosez ilteko zorian egon ta Zeruko Ogiarekin<sup>16</sup> mantenitu bazituban milagroa, agindu ziren basu eder batian gordetako Zerutiko Ogia, denporarik denpora erakutsirik Ogi milagrokoa, euren ondorengoak jakin leijen zela euren gurasoak milagroa mantenuak izan ziran eta andik artu leijen esku(...)ten Jangoikoak, eta bere aginduetara fielak izaten. Beste onenbeste egin eben basumurtu inguru atako erregeak, euren kontra generatu jakezanean ta milagroa are[elk] guztiak galdurik bitoriaz ikusi ziranian. Agindu eutsen Aaroneri eskribietako milagroko bitoria guztiak. Onela beti egarri andikoa erakutsi da.

Orañ bada, ikusirik batetik Jangoikoa añ enpeñatua gu zorionez betetzeko, ta bestetik guri eman al digun zorionik andiena bere Gorputz Santoa sakramento onetan izanik; emendik guk okasioa artu biarrian fede bizi anima garbiaz errezibitzeko, pekatuz beteriko animaz allegatzen bagera, zer injuria ez dio egingo? Ta beragatik, zer kastigo ez degu mereziko? Ez da zer mirariturik kastiguak Jangoikoak biraltziaz, ikusirik bere mesederik andienetara eskergaldukoak gerala. Eskergeztokeria onek obligatu zuan Isaias Santoa gizonaren kontra kejtzer<sup>17</sup>. O gauza negargarria beti gizona zure mesedetara eskergeztokoa izan biarra! (Au izan zan sentimentoz beteriko itzak Isaias Profeta Santoari atera zizkana, testigutzat arturik Eguzkia, Ilargia ta munduko elemento guziak, oiek guziok baño atzereago ikustean Jangoikoaren mesedetara. Arrazoiaren kapaz ez diran kriatura ta elementoak beren modura eskerronekoak dira. Eta bakarrik gizona, kriaturarik nobleena, beragatik beste guziak egin zituana, Jangoikoaren idurikoa, beragan naitasunak guziak ipinita deuzkana; añ eskergeztokoa ikustea, Jangoikoren biotza minberatzen

<sup>15</sup> Ostean erantsita: *Jangoikoak gizonari > eta bai ibilliko lirake nondik esker onakin erantzungo dien Jangoikoak gizonari.*

<sup>16</sup> Geuk zuzenduta: *Ogirakin > Ogiarekin.*

<sup>17</sup> Ostean erantsitako esaldia.

duan gauza. Arritu zaiteze, Angeruak, gizonaren Jangoikoakiko laburkeriaz!) Jangoikoa gizonaren amodioz bere janari eginik eta gizona fineza miragarrizko onetara eskergeztokoturik, bildur izan zaitia onela eratzuten diozuna, zugatik esan ez dezan bere dizipulo traidoriagatik esan zuana: Ai, ai aren zorigaiztokoa pekatuzko tokian para nualako, obeago izango zan jaijo izan ez balitz! Aspaldian pekatuan komulgatzen zerana, bildur izan biar zera orrela artzen dezun odol orrek indar geiagorekin eskatu ez deion Jangoikoari zure kontrako, Kainenak bere anaia Abelen kontra eskatzen zuan baño. Aditu bazuan Abelena, adituko du Jangoikoak bere Semerena, eta ez da izango txikiagoa zure gañera etorriko dana aren gañera etorri zana baño. Odolorrekin eskribituko da zure kontrako sententzia, S(a)n Pablok esaten dizun bezela. Jan ta edaten duanak anima loiazaz Jesusen Gorputza, jan ta edaten duala bere kondenzazioa. Ezin artu dezakezu pozoi ilgarriagorik pekatuan komulgatzea baño. Ez da ikusten pekatuak Kristaoren biotza okerrerako geiago gogortzen duanik, pekatuan komulgatzea baño. S(a)n [Juan] Ebanjelistak esaten digu, apenas Judas oker komulgatu zan, eta noiz bere lagunak Zeruko Ogi Santoak eman zien graziaren amodiozko labe gori eginik zeuden, orduan ixillian kanpora erten zala eta ezin bere biotz pekatuzkoan eukirik gorderik, presaka Eskriba ta Farisioakgana joan zala, bere Maisua eriotzarako entregatzera. (Zeñ argiro!) Emendi ikusten da zeñ diferentia diran Komunioaren frutuak: ondo errebitzen duenak, ezin gorderik beren biotzian amodio ta konsolaziozko beroa paratzen ditu; baño deungaro komulgatzen diranak, biotzeko samintasun bat ezin sosegadu edo baketu dituen ipintzen die. Ez dira bizi oiek; ez dago munduan gauzarik, ez ondasunik, ez atsegiñik beren biotzak sosegatuko dituanik. O estadu negargarria! Alperrik, onela komulgatzen zerana, asmu billa ibilliko zera nondik ixilduko dezun konzienziaren arrak zure biotzarik ematen diozkan taupadak Jangoikoa ez dan bidetik<sup>18</sup>. Ez dago beste erremediorik zure pena ori ixiltzeko, lengo okerrak damaturik, konfesio on baten bidez ondo garbitu ta komulgatzea baño.

Ez dago beste biderik zure biotzeko pekatuzko laño orrek ipiniko bildurra kentzeko, konfesino santo batetik ondo garbiturik komulgatzea baño. Jesus maitiak bakarrik bigundu ta dulzuraz beteko dau zure biotza. Au da biderik onena, ezin beste bidetik sosegauko zara. Pekatuzkotik ibilliten bazera, ezingo zera ez munduan, ez eternidadian ezingo zera izan zorionekoa. Zeñ konsueloz betiak ikusiko diran Kristao onak beren denporan Komunio Santorako, nondi egunian baño egunian obetuago

<sup>18</sup> Osteen erantsita: *zure biotzarik ematen diozkan taupadak > zure biotzarik ematen diozkan taupadak Jangoikoa ez dan bidetik.*

prestatuko ziran kuidaduz bizi izan ziranak! Zeñ arrabia ta desesperazi-ñoa, Judas mudura<sup>19</sup> pekatuzko traizioz komulgatzen ziranak! Zeñ izango da, pekataria, zuri tokatu zitzatzuna! Konsuelozko ala des[es]peraziozkoa? Zeuk ikusi nola bizi zeran, nola errezibitzen dezun, eta zeuk nik baño obetuago erabakiko dezu zer orduan jazo biarko jatzun. Jangoiko andia, nere amodioak sakramento orretan para zinduzena nere suplikak aditzeko, aditu, arren, pekatarririk andionenak. Damutua nator zure oñetara, ezaturik zuri emandako sentimentuak, biar bezela allegatu ezeitiagatik. Parkatu nere oker egiñak, egin zure graziarekin pekatari onekin zure amodioanerrerik ibilliko dan kriatura on bat.

O nere anima! Nola atrebitu ziñan? Zure amodioz abrasaurik, zure Ogi Jangoikozko egin zan Jangoiko maitia. Itxutu nintzan, Jauna; arren, miserikordia nere miseriaz! Egin, Jauna, sekula geiago Zu openditu ezeiteko<sup>20</sup> grazia, beste pentsamento gabe zu amatu ta zerbitzia baño. Nere penarik andiena da nik nai nukian bezela ta Zuk merezi dezun bezela amatu ezin izatia. Nork eman lezakedan nere animako sentidu [eta] potentzia guziakin zu amatzia, zuk merezi dezun bezela! Ez, arren, nere anima ezeitia gaurrik aurrera Jesus maitia ez dan amodiotan okupatu; ez det nai ere bisita[tu], (...)etarako ez izanik. Bete, Jauna, nere deseoa emen Lurrean, gero betiko zuria izan nadin (...).

#### [HASIERAKO ERANSKETAK]

Ori da, Kristaoa, Jesusen mesederik andienari egiten diozun pagua! Orrela erantzuten diozu<sup>21</sup> Jesusen odola zure amodioak sakramento orretan daukana[ri]! Uste al dezu mesede orien konturik eskatuko ez dizula?

Jangoikoak gizonari... Ala ez dakizu zeñ egarri andikoa dan mesederen sari onak eskatzen? Baldin ezpadakizu, ikusi Eskritura Santotik.

Eskergeztokeri onen sentimentua erakutsitzen digu Jangoikoak Isaias Santoren bidez, testigutzat arturik Zeruak ta Lurra, elemento guziakin batera. Arrazoaren kapaz ez diran kriaturak beren modura eskerronekoak badira, sentimento andia Jangoikoak artzen du, ikustean gizona arrazoaren kapaz dana, eta Jangoikoaren idurikoa, mesederik andienetara añ eskergeztokoa. Arritu Zeruak, arritu Ang[e]ruak gizonaren okerrez!

<sup>19</sup> Alternantzia: *modu / mudu*.

<sup>20</sup> Osteen zuzenduta: *openditzeko > openditu ezeiteko*.

<sup>21</sup> Idem: *pagatzen dezu > erantzuten diozu*.

Jakin nai badezu nola prestatu biar zeran Jangoikoa errezibitzeko, eta zeñ oker andia dan ondo prestatu gabe komulgatzea, Libru Santoak ondoen erakutsiko dizue. Jangoikoak bere Israelgo erriari sakripizioko aragiak jatera joan biar izaten zebeñian, onela esaten zien: Ez bedi inor ere alle[*gatu*]...

Zeñ sentimentu andikoa erakutsitzen dan Jangoikoa gizonen bere mesedetarako eskergeztokeriagatik, Isaias Santoen bidez esaten digu, arako testigutzat kriatura guztiak, baita ere elementoak paratzen dizkigunian!

Ala ikusten ditugu deungaro komulgatzen diranak: baldin fedia guztiz galdu ez badue, sekula egun on bat igaro bage bizi dira. Ez dira bizi onelakoak. Alperrik, bada, onela bizi zeranek beste bidetik konsuelorik billatuko dezue, bizitza berri baten bidez zebeñ Jangoikoarekin ondo ipinitzetik. Au da gure biotza poztzen duena.

## INBIDIAREN GANEKO DOKTRINA

Ez da Zeruan, ez Lurrean<sup>1</sup> kalte geiago egin duan bizio infamiagorik inbidiak baño. Inbidia da tristeza desordenatu bat proximuaren onarena, iruditurik inbidiosoari besteren onak bere onaren kaltian diriala. Beti etorri oi da inbidiau soberbiatik. Inbidiau da Zeruan Angeruzko irugarren partia Infernu[ra] botarik<sup>2</sup>, mundura jatsi ta emen munduan Adan gure Aita galdu zuana, jausierazorik desobedientziako pekatuan, nondik etorri zitzaizkigun gure okerrak guztiak. Kainen inbidiak ill zuan<sup>3</sup> edo inbidia onek illa izan zan Abel justua Kaingandik; bere anaiaren inbidiak saldu zuan Jose justoa; Saul Erregeren inbidiak persegitu zuan Dabid; inbidiak Daniel kondenatu zuan leoi bildurgarrien<sup>4</sup> agin artian beren pastu izatera. (\*)<sup>5</sup>

Inbidiak Fariseoenak kendu zion bizitza Jesusi; Juduenak ill arrika S(a)n Esteban, eta inbidiak ill zituan Martiri Santo guztiak, padezituera zi konfessore eta birjinai. Eta azkenez, inbidiak sakeatu zuan Jerusalem, onek Erroma, eta onek erre ta betiko galdu Troiako erri famatua, dio S(a)n Agustinek.

Inbidiau iru modotakoa izan leite: edo proximuaren interesena, aren ondra ta dignidaderena, baita ere birtuterena. Iru inbidia modo oiek munduan egin dituan kaltiak, ez da posible biar bezela erakutsitia. Ez dira ere txikiak gure denporetan egiten dituenak. Ez dago zulorik, ez Zeru ez Lurrian kalte oiek egiten ez dituenik. Ez dago erririk, ez etxerik, ez baserririk gitxi edo geiago bere mendian su Infernuko onek erreten ez dua[nik]. Ikusiko dogu bere auzo ondo bizi dala, eta inbidia onek irudi erazoten dio nonbait bere kaltian dala. Ikusten da dignidadiak eta ofizioak hondraduak irabazi dituala, edo jakintsuago edo birtuosoago; bada, emendik bere proximuaren onian gozatu biarran, ezin bere inbidiak ontzat eraman eta nondik aren kreitua eta estimazioa gitxituko

<sup>1</sup> Geuk zuzenduta: *Lurraren > Lurrean.*

<sup>2</sup> Ostein aldatuta: *Bizio infamiau da, Zerutik Angeruzko irugarren partia Infernura botarik > Inbidiau da Zeruan Angeruzko irugarren partia Infernura botarik.*

<sup>3</sup> Idem: *Inbidia au zala > Kainen inbidiak ill zuan.*

<sup>4</sup> Geuk zuzenduta: *bildurgarrian > bildurgarrien.*

<sup>5</sup> Atal horretako amaiera oharra: *Graziazko legian.*

duan beti adi da. Onen bat badatorkio<sup>6</sup>, pena artzen du; kalteren bat<sup>7</sup> baldin bada, poztzen da. Emendik desabentziak familietan, gorrotoak, murmurazio ta oker guztiak<sup>8</sup>. Eta guztia itz batian, inbidia dagoan biotzian<sup>9</sup> ez dago gauza onik, ez bakerik, bere biotza samindurik, ill baño ere lenago Infernu eginik.

Zer erremedio billatuko degu oien gaixoa osatzeko? Erremedioak badira, Jaunari graziak artu baldin badituz baña, zeñ da espirituko gaixo mortalau osatzeko prestatzen dana? Zeñ da tentazio onen kontra indar egiten duana? Zeñ Kristau biolentatu biolentzia santoz? Zeñ da proximuaren onian gozaten dana, edo onetara indar bere biotzari egiten diona? Gauza bi oiek dira biarrak inbidiosoaren biotza karidateko bidera ekarteko; orde, gitxi dira biolentatzen diranak bitoria ta koroa santuau irabaziteko. Ikusten ditugu: konpesatzen dira, komulgatu bere merezidu duen baño geiago; baña nola espirituko gatxau kentzeko aleginik ez dan egiten, bularretik dijoazan gaixoak bezela eriotzara, ala tisioko espiritualak ere betiko galtzaira.

Oiek salbatuko badira, gaurko ebanjelioak esaten diguna biarko da. S(a)n Juanen dizipuluakin eguin zituan bezelako edo andiagoko milagroak biar dira. Ezta peligroso milagroren biarrekoa<sup>10</sup> salbatuko bada, bada onelaxe bizi dira inbidiosoak. Proximuaren onian atsegin artuzazu, bere trabajuetan urrikitu eta bide onetatik, bere on guztietan Jangoiko[alk parte egingo zaitu eta trabajuetatik gordeko zaitu; bada, au disponitzia zure biotza Jangoikoalk] ekarteko aren onak zuregana eta libratzeko trabajuetatik. Au da ere zure munduko bizitza gozatsua izateko, munduan<sup>11</sup> bakez santoz eta Zeruan betiko gloriáz. Amen.

#### [AMAIERAKO ERANSKETA]

*Cum audisset Ioannes in opera Christi, dixit:*

*Tu esqui venturur es an alium exspectamus?* Mt. 11, 2-3

S(a)n Mateok gaurko ebanjelioan esaten digu S(a)n Juan Bautista karzela illun batian preso zeguala. Eta zergatik? Jangoikozko zelo santo

<sup>6</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu zuzenketa hau transkribatu: *Onen bat badatorkio > Aren on guztiai pena emate...*

<sup>7</sup> Geuk zuzenduta: *kalterenbat > kalteren bat.*

<sup>8</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu zuzenketa hau transkribatu: *Emendik desabentziak familietan, gorrotoak, murmurazio ta oker guztiak > Beti dago prest murmulrazioj...*

<sup>9</sup> Ostean erantsita: *Inbidia dagoan biotzian > Eta guztia itz batian, inbidia dagoan biotzian.*

<sup>10</sup> Ostean zuzenduta: *biarreko > biarrekoa.*

<sup>11</sup> Geuk zuzenduta: *munduak > munduan.*



batekin, Zeruko ordenaz, Herodes Errege desonestuari predikatu ziolako bere bizitza eskandalosoa, bere kuñada Filipo bere anaiaren emaztiakin, Herodiasegaz, egiten zuan senar-emazte batzuk bezelako bizi eskandalosoa. Ezin sufriturik S(a)n Juan Bautistaren erreprentioak, emendatu biarrian, okertuagorik gelditu zan. Amaren sabeletik erten duan Santorik andiena preso ipini ta illarekin. Preso kartzelan zeguala Santo andia, aditu zituben bere dizipuloak nolako milagroak egiten zituban Jesusek Jordango ibai barrenian, eta obserbatu zien inbidia pizkaren batek beren biotzak zerbait gaixotu zituela. Eta beren inbidia aurrera igarorik, kalte geiago egin baño, maña santo batekin biraldu zituzan Jesukristogana, bere partez galdetzen ea bazan Jesus Mesias mundua erredimituko zuana, edo besteren bat esperatuko genduan. Ezauturik Jesusek Juan Bautistaren dizipuloen espirituko gaitxa edo inbidia pizka, eta beren maixoak gaitx onetatik osatzia besterik nai ez zula itzik erantzun, osatu zituan<sup>12</sup> bere edo Jesusgana etorri ziran gaixo guztiak eta onegaz, beste gabe, osaturik inbidiaren gaitxetik biraldu zituan S(a)n Juanegana, esanik esan zeioela Juan Bautistari zer milagroak ikusi zituzten. (Eta ikusirik ebanjelio santoak ematen didan bidia inbidiaren ganian itz egiteko, doktrinatzat esango dizuet zer dan inbidia eta zer kaltiak dakazan pekatu onek). S(a)n Juan Bautistak bere dizipuloak inbidiako pekatutik libratzeko artu zuan kuidadotik ezautzen da zeñ kaltegarria dan inbidiazko pekatua. (\*)<sup>13</sup>

Ez dago munduan inbidiak beste kalte egin daben pekatuak. Ozta Jangoikoak Zeruan Angeruak doe miragarritzkoz apandurik kriadu zituzan; orra non bakotzak Jangoikoagandik artu ebenagaz kontentu ez izanik, gerra bizi bat sortu eban eta betiko galdu irugarren partia. Jatsi zan Lurrera eta galdu eban Adan; ill eban bizi[ol] infame onek Abel; inbidiak Jose justoa Egiptora saldu eban; inbidiak Dabid persegidu; inbidiak Daniel leoiakgana kondenadu graziazko legian; inbidiak Jesusi bizitza kendu eutsan, inbidiak S(a)n Estebani. Ez dago erririk, etxe ez familiarik onek galduta eztaukanik. Eta ze erremedio onetarako? Ez bat bakarrik baño: proximuaren onian kontentu artutia baño. Zeñ da au egiten dabena? Aren trabajuetan artutia gauza bi one[elk: bere erremedioak eta gure biotza gozatuten dabenak.

<sup>12</sup> Ostean zuzenduta: *zituben* > *zituan*.

<sup>13</sup> Atal horretako amaiera oharra: *Asunto. Por sermón, la muerte.*

## [LAUGARREN MANDAMENTUA I]

*Honora patrem tuum et matrem tuam,  
ut sic longævus super terram.* Ex. 20, 12

Jangoikoak bere Lege Santuko Laugarren Mandamentuan esaten digu gurasoak hondratzeko: Hondrazazu zure aita, baita bere ama, zoriotsua Lurraren gañian izan zaitian. Obetuago mandamento santoua gordetzeko, ondo izango lenengo erakutsitzia gurasoak iru modutakoak izan litekezala: naturalak, guri izatia eman ziguenak; espiritualak, Sakramento eta doktrinaren bidez animako janaria eman diguenak; baita bere politiko edo agintaritasuna Lurraren ganian dabenak, au da, justiziakoak. Iru guraso one[el]i zor diegun errespetoren gañekoa izango gaurko nere doktrinia. Eta asirik lenengo izatia eman ziguenetik, esan biar dizuet, lau dirala gure on[el]enganako obligazioak. Eta one[el]k dirade: amodioa, errespetoa, obediencia, eta premian ekusirik mantendu biarra. Obligazio oen kontra asko modutan uts egin leiteke.

Lenengo uts egiten debe obligazio onen kontra arako seme-alaba, gurasoai gaitxen bat<sup>1</sup> gertaturik, azaletik ez izan arren ere, beren violetzian atsegin artzen deben umiak<sup>2</sup>, baita arako seme-alaba gurasoen gorrotoan bizi diranak; eta pekatu baldin bada proximuari gorroto izatia, askoz da andiagoa gurasoari izatia. Pekatu egiten debe bere arako seme-alabak, alde batetik gaitxik nai izan ez arren, beste aldetik, beren ondasunen gozamenian anbat lasterren sartziagatik iltzia deseatzten dienak. *Juc.<sup>o</sup> 11 Condenada.* Pekatu mortala egiten debe bere seme-alaba beti gurasoai arpegi illuñarekin begiratzten dienak, bada, ez da asko barrunetik maite izatia, baita bere erakutsi biar diegu azaletik maite ditugula.

Itzaz pekatu egiten debe arako seme-alaba gurasoai pitian-pitian sentimientozko errazoiak<sup>3</sup> esaten diozkanak: lapurra dala, ordia dala, galdua dala eta beste one[el]n moduko arrazoe astunak. Gurasoen faltaren murmuratzailliak, justizian aurrian gezurrak asma[tu] eta negar eraziten deutseenak, eta beste modu onetako naigabez beterik beren bio-

<sup>1</sup> Ostean erantsita.

<sup>2</sup> Jatorrizkoan: *bume*.

<sup>3</sup> Alternantzia: *errazoi / arrazoe*.

tzak minberaturik ifintzen dituenak; pekatu egiten debe bere gurasoen-ganako aginduetara desobedientiak diranak, izanik izan biar deben bezela beren aginduak justo ta errazoazkoak. Bai, justo ta errazoazkoak izan biar dabe gurasoen umeenganako<sup>4</sup> aginduak, eta onelakoak ezpada, ez daukee obligaziorik obeditzeko; bada, agintaritasuna umenganako<sup>5</sup> Jangoikoak eman badioe, ez bera ofenditzeko, ezpada bere Lege Santua gordetzeko, eta umiak<sup>6</sup> Zeruko bidian paratzeko eman die. Alperrik da seme-alabak konfesetia pr(...).

Pekatu egiten debe seme-alabak biralduarik gurasoak opizio edo estudioren bat<sup>7</sup> ikastera, beren zabartasunaz alperturik denporia galdu, etxia pobretu eta gurasoak sentimentoz betetzen dituenak. Pekatu egiten debe seme-alabak gurasoen borondateren jakituria bage ezkontzeko itzak edo bidiak egiten dituenak; eta alabere geiago, borondateren kontra ezkontzen diranak, izanik gurasoen borondatea errazoazkoa. Bada, izanik estadu artzia añ gauza astuna, bere bidez zorion edo zorigaitzotz familia<sup>8</sup> ta ezkonduak gelditu oi dirana, onetan kontu andi bategaz ibilli biar da. Baña, zenbat txorakeriako ezkontza egiten ez da gaurko egunian? Eta zergatik? Gurasoen bendiziño bage egiten dirialako pekatuko bidetik. Emetik datoz anbeste sentimento fameliatan, anbeste murmura-zio errietan, anbeste bizitza gezto, anbeste bizi-alargun eta beste zorigaiztokeria guztiak. Au<sup>9</sup> da seme-alabak egiten dozuena estadu santu baterako biar dirian pausuak eman ezeitiagaz. Baña gurasoak bere askotan erruak izaten ditue, bada, ekusirik euren alabak konbenientziak dituela, datorkiena emon ezeitiagatik urte luzeetan denpora galtzen dabela, martiri egiñik euki oi ditue. Bai, asko guraso ez dira gurasoak, ezpada tirano gogorak, eta one[e]n paltaz<sup>10</sup>, ez gitxitan, alabak biar ez dirian bidiak artzen ditue. Gauza onen ganian, ala seme-alabetan nola gurasoetan, pekatu asko ekusten degu.

Pekatu egiten debe bere mandamento onen kontra seme-alabak gurasoak premiñan<sup>11</sup> egonda laguntzen ez dienak; ez bakarrik gorpetzeko<sup>12</sup> premiñetan, baita bere animakoetan. Gaixo bada zure gurasoa, al dozun ondoen amodioz beterik lagundu biar diozu, barberu [eta]

---

<sup>4</sup> Ikus 2. oharra.

<sup>5</sup> Idem.

<sup>6</sup> Idem.

<sup>7</sup> Geuk zuzenduta: *estudiorenbat* > *estudioren bat*.

<sup>8</sup> Alternantzia: *familia* / *famelia*.

<sup>9</sup> Jatorrizkoan: *Hau*.

<sup>10</sup> Alternantzia: *falta* / *palta*.

<sup>11</sup> Idem: *premia* / *premiña*.

<sup>12</sup> Idem: *gorputz* / *gorpetz*.

medikuek aginduko erremedioak garbiro ta kontuz emonik; ardura andi bat artu biar dozu, zure gurasoa Sakramento Santo bage il ez dakizun, baita kontu andi bat artu biar dozu testamentoa egin biar izanik, egin bage joan ez dakizun. Bada, oek<sup>13</sup> egin ezeitiagatik<sup>14</sup> oker andiak señideren artian izaten dira. Añ da gauza biarra gurosoari<sup>15</sup> zor jakon sokorrua eze, S(a)n(to) Tomas Jakintsuak esaten deusku azkenengo premiñan zure [gura]so eta seme-alabak egongo balira, lenago lagundu biar [dio]zula zure gurasoari, seme-alaba eta emaztiari b[aña].

Seme-alaba gurasokin gogorrek, zer erantzuten dezue onetara? Zuben buruak eta umeenak<sup>16</sup> baneriaz jantziteko eta beste bidebageko gastuetarako franku izaten dozuenak; baita biarbada zuben guraso zar gaixoari artua eskusaz ematen diozuenak, billozik eta erdi eskian ekusi arren, ez lotsa, ez errukirik ez dezuenok, obligaziño onegaz kunplitzen dezue? Zuben umiak<sup>17</sup> azigizuez naiz beterik, zuben gurasoak gelditu bitez premiaz beterik, eta ekusiko dezue nola Jangoikoak zuben umeetatik<sup>18</sup> aterako dituen zijor gogorrek zuben gurasoakganako erruki paltia ondo kastigatuko ditubenak. Askok esaten dau: Jauna, nere ama sinpletua dago. Bai, nai badau. Zu txikitan sinpleturik egon ziñanian, zure amak gogortasunik erakutsiten eutsun? Orduan geiago zuri<sup>19</sup> najjak nondik egingo zizkitzun ibiltzen etzan? Asko biderretan, arpegia lotsatutzen zuala, auzokora zuri najjak egitearren gauzaren billa joaten zan. Baña zu ez, zure ama gaixoaren premia kentzeko etzara joaten auzokora, baita bere askotan etsian<sup>20</sup> eukita, biotz gogorrekoa zera. Bai, gurasokin gogorra, bildur izan biar zera.

Bada, Jang(oiko)a guztiz dago aserria onelakoen kontra. Beñ esaten deusku gurasokin gogorra, fama geztokoa izango dala, amaren biraoak seme gogorreko etxe ta ondasunak sustraitik galduko dituala. Beste bein, zuben pekatuen errukirik izango ez dabela, zubez gurasoentzat errukibagiak izan zarian legez, ala Jangoikoa zuben pekatuen errukibagia izango dala; zuben umeetan<sup>21</sup> fortuna geztokoak izango zareela. Jangoikoak ume<sup>22</sup> geztoen kontra egin dituen kastiguak guztiz asko ta

<sup>13</sup> Geuk zuzenduta: *auk* > *oek*.

<sup>14</sup> Idem: *eziagatik* > *ezeitiagatik*.

<sup>15</sup> Alternantzia: *guraso* / *guroso*.

<sup>16</sup> Ik. 2. oh.

<sup>17</sup> Idem.

<sup>18</sup> Idem.

<sup>19</sup> Ostean zuzenduta: *zure* > *zuri*.

<sup>20</sup> Alternantzia: *etxe* / *etse*.

andiak dira. Zegaitik Absalon añ desgrazia andian il zan? Bere aita Dabid Santuen kontra jaiki zalako. Zegaitik anbeste desgraziaz egunero ilten dira? Gurasoen kontra bizi izan dirialako. Zegaitik zuri zure seme-alabiak anbeste sentimentu ematen dizu? Zure gurasoari sentimentuak eman zinizkalako. Nai dezu, ba, zuk izan zure<sup>23</sup> umeetan<sup>24</sup> atsegin andikoa? Nai dezu zuri umiak<sup>25</sup> erruki artu dagizun? Gurasoakin errukiorra izan zaite. Nai dezu zure pekatuakin Jangoikoa miserikordiosoa izan dedin? Miserikordiosoa gurasoakin izan zaite. Au esaten deutsu zuri Jangoikoak. Eta, nor izango gaurrik aurrera gogorra izango dana? Arren bada, alantxe egingizu, eta Zeruko Aitaren zorionak zeugan izango dituzu.

Eta munduko izatia emon<sup>26</sup> diguenai anbeste errespeto zor badiegu, animako<sup>27</sup> bizitza ematen diguenai gitxiago ez diegu. Oek dira sazerdotiak. Beti Jangoikozko gizon santuak izan dira guztiz errespeto andikokak. Alan ere, Aita S(a)n Fr(anzis)koa añ izan zan errespeto andikoa sazerdoterentzako, ez eben iñoiz bere gauza gaitx pentsatu nai izan; eta ez bakarrik kontentatu zan errespetoau berak izanarekin, baita bere, bere seme guztioi ala izan giniekela agindu zigun. Santu onen exenplora egin eben asko ta askok. Baña gaurko egunian geiago injuriatzen dan estadurik ez da. Orregaitik ez da zetan anbeste<sup>28</sup> miraritu. Bada, sazerdoten kontrako injuria<sup>29</sup> eta persekuziñoau ez da sazerdoterentzat lenengokoa. Apenas Apostolu Santuak Jerusalemene Espiritu Santuen graziaz beterik asi ziran predikatzen, ez bakarrik Jerusalemendarrai, baita bere amazazpi naziñotar diferenteai, orduan Jerusalemene zagozanai, guztiak bere linguajien adituta asko miraritu baziran bere, orregaitik ez zirian paltá izan Judegu geztoak, ordirik goxeko bederatziatan berba egiten ebela esaten ebenak: Oraindik bederatziak ez dira, esaten eben, eta oraingo ja dagoz ordirik. Zer<sup>30</sup>? Baña falso testimoninoau ez zan izan besterik ezpada askoz andiagoai itxaon biar eutsen abisu bat<sup>31</sup>. Eta gorputzeko bizitzia emon euskunai añbeste zor bade[ul]tseegu, askoz geiágo zor deutsagu arimako bizitzia emoten deuskuenai. One[elk] dire

<sup>21</sup> Ik. 2. oh.

<sup>22</sup> Idem.

<sup>23</sup> Ostean ezabatuta: *zure gura* > *zure*.

<sup>24</sup> Ik. 2. oh.

<sup>25</sup> Idem.

<sup>26</sup> Ostean zuzenduta: *emo* > *emon*.

<sup>27</sup> Idem: *anika* > *animako*.

<sup>28</sup> Ostean erantsita.

<sup>29</sup> Idem: *Bada injuria* > *Bada, sazerdoten kontrako injuria*.

<sup>30</sup> Idem.

<sup>31</sup> Ostean zuzenduta: *eutsen bat* > *eutsen abisu bat*.

sazerdotiak. Kristinau on guztiak beti izan dire sazerdoteentzako errespeto andikoak. Alan, nire Aita S(a)n Franziskua ez bakarrik izan zan bera sazerdoteentzako errespeto andikoa, beti bere guztiak bera legez izan zeitezan gure izan eban. Orregaitik, bere seme izango ginian guztioi errespeto andikoak oneentzako izan gitezala agindu euskun bere testamento santuan. Ez ginaiela gure izan begiratu sazerdoten dirausku<sup>32</sup>, Jesusen gorputz eta odola baño, eurak Zerutik artu eta bestiai emoten deusena. Alan egin dabe Kristinau on guztiak. Au berau Jangoi-koak kontu andiagaz aginduten deusku.

Baña anbestekoa bada bere agindu santuau, ez dago gaur estadurik zeñi gerra geiago egiten jakon. Ondo daki Diabruak sazerdotiai lotsa ta errespetoa galdurik erlijinoari bere galduko jakola, eta au dala erlijino santua mundutik kendu ta libertade pekatuzko bat sartuteko biderik onena. Orregaitik Infernuak anbeste gerra egiten deus<sup>33</sup>. Baña, añ andiak diriala baderitxagu bere gure denporako sazerdoten kontrako persekuziñoa, ez dogu miraritu biarrik<sup>34</sup>. Jesusek bere Elexa Santua ifini eben lenengotik Infernuak beti gerra bizi bat egin deutso persekuzi-noen erditik<sup>35</sup>.

Bada, apenas Apostolu Santuak Espiritu Santuen argiz izan zirian argituak; apenas S(a)n Pedrok Pazkoa Espiri[tu] Santuan goxian guztia Jangoikoturik, bere lelengoko sermoiagaz anbeste mille arime Jesukristoren federa biortu zituzan, amar jeneraziñoko jentiarri bakotxak bere berbaikuntzan entendietan eutsala, arriturik guztiak ifiniten zituala; orregaitik bere, etzirian falta izan gizon gezto batzuk aren kontra murmure-tako, esaten ebela: Oraindik goxeko bederatzia ez dira, eta orra non dagozan ardaoz betiak. Ze injuria andiagorik? Ze falso testimonio gezto-agorik au baño?

Baña one[e]k guztiok izan biar eben abisu bat Apostoluentzako, andik laster andiagoak izango zituela esaten eutsena. Eta alan jazo jaken. Bada, aren urrengo izan zirian preso artutiak, azotiak, eriotza ta persekuziño-moduak. Orregaitik exer[zitu] guztiak benzidu zituben<sup>36</sup>, beste arma bagarik pobreza eta pazienza baño. Arma one[e]k bakarik, beste exerzitu bagarik, mundu guztia ekarri eben Jesukristoren

<sup>32</sup> Esaldi iluna.

<sup>33</sup> Osteen ezabatuta: *Orregaitik Infernuak anbeste gerra egiten deus, eta gaur iñoz baño geiago > Orregaitik Infernuak anbeste gerra egiten deus.*

<sup>34</sup> Geuk zuzenduta: *biari > biarrik.*

<sup>35</sup> Osteen erantsita: *gerra bizi bat egin deutso > gerra bizi bat egin deutso persekuzi-noen erditik.*

<sup>36</sup> Osteen aldatuta: *Baña guztiak benzidu zituben > Orregaitik exer[zitu] guztiak benzidu zituben.*

Kurutze Santua adoretara, gizonen libertade eta Diabruaren adorazioa kendurik.

Nok esango eban arako Grezia, Zenon ta Epikuro Jakintsuen soberbiaz arroturik egoana, arako Erroma munduko agintari ta kapitana zana, anbeste guzurrazko siñaskeraz beteta egoana, anbeste bitoriagaz soberbiaz beterik egoana; Apostolu triste batzuen bidez beste arma bagarik, beste siñaskerak kendurik Kristoren fedia siñastutera etorriko zala? Bide onetati arako errege, enperadore, eta munduko konkistadoriak et[or]ri zirian Jesusen erlijio santu eta bere sazerdotiak errespeto andiz begiraturera; onelan zabaldu zan Jesusen erlijio santua. Baña gaur, Infernuak inoz baño geiago gerra bizi bat egiten deutso, sazerdoteren kontra persekuzio gogor bat biraldurik. (\*)<sup>37</sup>

(\*)<sup>38</sup> Nok esango euskun, orain urte gitxi darian, guk Españan anbeste ikusi biarko genduala? Komunitade osoko sazerdotiak kanpora botarik<sup>39</sup>, anbeste sazerdote desterraurik, bide, plaza eta mendietan illik, presondegietan, kalobozo usteletan ekusiko genduzala? (Onetara etorri da, España, zure sazerdote[n]ganako errespetoa. Eta au ez erejutzat buruak daukezenetatik, ezpada erlijioa maite dabela ago betian esaten dabenakgandik.) Plaza, kalle eta batzar guztietan beste konbersazinorik esanda, ezpada sazerdote guztiak il biar dabela España zorioneko izateko. Nonbait, España, zure lurra sazerdoteen odolagaz busti biar da, zorioneko izango bazera. Nonbait, anbeste Santuk euren izardi eta predikazioagaz gatx andiren batzuk egin deutzuz. Baña ori egitera bazatoz bere, orregaitik bere zorion andiagorik izango ez dozu, zure pekatuen saria bizkarrian izango dozu. (\*)<sup>40</sup>

Bai<sup>41</sup>, kastigu andiak Españak (...)re denporan izan baditu bere pekatuen (...) aita semien kontra, semia aitiaren kontra alkar ilten ikusi badituzu, pekatuen sariak izan dozuz. Orregatik ere<sup>42</sup>, ez dogu ezautu gura Jangoikoen kastigua izan dogula gure pekatuakgatik; ez dogu urten gura pekatutik; ez deutzagu begiratu gura kastigu one[li] pekatuen saritzat legez, ezpada bestiarri errua ezarriten deutzagu. Pekatuai isten ez badeu-

<sup>37</sup> Amaitu gabe daudela eta, ez ditugu eransketa hauek transkribatu: *Nai badegu gorde dagigun...* [Aurrerago:] *Nonbait gure pekatuak eregi ditu Jerusalemen...*

<sup>38</sup> Ondo lotzerik izan ez dugula eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Alan guk ere gure pazientiagaz birtutiagaz igaroten badoguz, gerra andia egin jako (...) baliauko da. Nok siñastu ereño eutsen gure gurasoai egunetan erlijioan...*

<sup>39</sup> Ostein aldatuta: *desterraurik > kanpora botarik*.

<sup>40</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: (...) *agertu dira apostolu barriak, seigarrengoa libre da. Zuen alabak (...), zuben emaziaki[n] nai debena egitia, gorroto...*

<sup>41</sup> Ostein erantsita.

<sup>42</sup> Ostein aldatuta: *Baña > Orregatik ere*.

tsagu, andiagoak etorriko dira eta bakian geldituten ez bagera<sup>43</sup>, orandik andiagoak izango dira guri biralduko deuskuzan kastiguak, beste denpora bateko Israeldarrai legez, Jangoikoen Mandamentuetatik urten ebelako.

Kastigau zituben peste ta gerraz; kautibo euren buruak Jerusalendarrak ikusi zituben, eta anbeste kastigu ta guzti bere, euren bide[ari] jarraituten eutsen. Alan, guztia aserraturik Jangoikoa are[e]n kontra, esan eutsen Isaias Profetiaren bidez: Uste dozue orandio nik ez dodala kastigu geiago? Bai, zuben pekatuen saritzat kenduko deusuedaz profetak egiazkoak, etorriko jatzuez nobedadez beteriko profeta guzurrezkoak, eta zubek one[le]i jarraiturik galduko dozue zuben erlijioa, ta betiko galduko zaree. Au da, Kristinauak, Españari ija jazo egin jakona, eta ezaututen ez badogu, erremedio-ri bagarik, sazerdote<sup>44</sup> ta erlijino bagarik geldituko da. Au da Infernuak gura dabena, ta bildur naz beriagaz urten ez dagien. Falso testimoniñoen urrengo pausuak izan zirian, kastigu, azote eta ganeko penak. Onela neke, pena eta trabajuen bidez etorri zirian mundu guztian ipintzera Jesusen erlijino santua. Orduan izan zan arako munduko errege eta agintari guztiak Ebanjelioko ministroai errespetorik andienen bat artzera etorritzea. Baña, ai! Erlijio santo onen milla ta zort[z]iraungarren urtian, au(...)retu biarrian, biortu gera<sup>45</sup> Elexa Santiak orduan izan zituban persekuzino-moduak igarotera. Erlijio santu onen ministroak dira guztiz persegiduak; paseoetan<sup>46</sup>, tertulia eta bazter guztietan one[e]n kontrako burlak, injuriak eta beste pentsau al ditekezan gaiztakeriak esaten dira<sup>47</sup>, nondi ondra ta errespeto bage ipiniko dituezan asko bizi dira<sup>48</sup>. (Baña persekuzinoau ez da onetan gelditu, baita bere ikusi dira preso artuak, desterratuak asko ta asko, batzuk bidian, beste batzuk karzelan, eta ez gitxi plazetan<sup>49</sup> illak.)

Onetara etorri da, N.K., zuben denporako sazerdote[e]ntzako errespeto; eta ez<sup>50</sup> au Judio ta Herejuakgandik, ezpada Kristoren erlijioa maite dabela esaten dabenakgandik. Esaten dabe erlijioa maite dabela, baña sazerdote bat ekusi baño, euren arpegian erakutsiten dabe Diabru bat ekusi naiago dabela. Au gure begiakin ekusita, sazerdoteren<sup>51</sup> defensasara urten bage ni gelditzia ondo deretxazue? Ez, N.K. Erlijioak pade-

<sup>43</sup> Ostein erantsita: *Eta bakian geldituten ez bagera > Pekatuai isten ez badeutsagu, andiagoak etorriko dira eta bakian geldituten ez bagera.*

<sup>44</sup> Geuk zuzenduta: *sazerdota > sazerdote.*

<sup>45</sup> Ostein erantsita: *biortu gera > au(...)retu biarrian biortu gera.*

<sup>46</sup> Ostein aldatuta: *leku guztietan > paseoetan.*

<sup>47</sup> Ostein zuzenduta: *gaiztakerien bidez > gaiztakeriak esaten dira.*

<sup>48</sup> Ostein erantsita: *errespeto bage ipiniko dituezan > errespeto bage ipiniko dituezan asko bizi dira.*

<sup>49</sup> Geuk zuzenduta: *plazaetan > plazetan.*

<sup>50</sup> Ostein erantsita.

<sup>51</sup> Ostein aldatuta: *gure > sazerdoteren.*



zi[du] dau, asko eskandalizau dira eta onen defensara atera biar naiz. Alde batera itxirik liburu benenoz beterikoakaz egiten daben gerra bizia, sartu gaitian gere begiakaz ekusi eta belarriakaz entzuneko gauzatara. Bai, Lutero ta Kalbinok euren erejiakin kalte andiak Elixari ekarri beu-tsezan, anbeste obispo eta gizon santoen doktrinaz bere zauriak osatu-tera etorri zan. Baña apenas zauri one[e]lk osatu dirian, orra non filoso-fia barri bat Ebanjelio Santuen kontra agertu dan. Maliziaz beterik, aza-letik fedia ukatu bage, erlijijñoa zimentutik galtzera asi da. Zer Aita Santu Erromako Jesusen bikarien kontra esan ez da? Jesusganik artu dau [dau]kan anditasun guztia, kentziagaitik beste obispo eta sazerdote bat baño geiago ez dala erakutsi dabe. Zer anbeste obispogaz egin ez debe? Zer anbeste komunidadegaz? Eta one[e]lk, Kristinau ontzat emongo dire? Ez<sup>52</sup>, ezpada Jesusen erlijino santuen arerio batzuk, eta one[e]n ordeko libertadeko lege bat ifini gure dabenak. Gure mundua ja denpora gitxi-rako da. Baña, zer izango zan ondoren etorriko ziranakin? Ze kastigu andiagogaz<sup>53</sup> kastigauko genduzan onegaz baño? *Super quo percutiam vos ultra?* Gosia, gerra, pestia biraldu deutsuedaz, Isaiasen bidez esaten eutsen Jangoikoen erriari<sup>54</sup>, baña onegaz gaiztotuagorik gelditu zare<sup>55</sup>. Ze kastigu andiagogaz kastigauko<sup>56</sup> zaituet? *Super quo*. Orañdik bat andiagoa gelditzen jat. Sazerdotiak kenduko deutsuedaz, eta profeta fal-tsoak biraldurik, lege berriari zubek jarraiturik, kenduko deutsuet zuben erlijijñoa. Ezin geiago egin neike, ezin, nire aserria gora-gora igongo da. Zuben eskandaluakgaitik kenduko deutsuet erlijijñoa.

Bedeinkatu dagigun Jangoikoen miseriakordia, bada, beste kastigugaz kastigau bagaitu bere, oraindik ez dogu onelakorik ekusi. Eta onetarako bidia batzuk emon badabe bere, zubek ondo firmiak izan zaree<sup>57</sup>, eta norbait deskuidatu bada bere, ez deusagu biar izan gaitxik; ezpada erli-jijño santuak erakutsiten deuskun bidetik eskaturik Jangoikoari, begira-turik biarbada onela gure pekatuakgaitik izan dala, karidadia euki biar dogu. Eta justizia biar bada, orduan onian egin bedi, baña ez bakotxak bere eskutik. Ezin ontzat emon neike onelako doktrina geztorik.

Justiziakoai bere amodio, errespetu eta obediencia zor diegue, diral-ako errien gurasoak eta erriko guztien ganian agintasuna daukelako.

<sup>52</sup> Idem: *Eta one[e]lk gustiok zer dire? > Eta one[e]lk, Kristinau ontzat emongo dire? Ez.*

<sup>53</sup> Idem: *geiagogaz > andiagogaz.*

<sup>54</sup> Ostein zuzenduta: *Jaungoikoari > Jaungoikoen erriari.*

<sup>55</sup> Horrela, tilde eta guzti.

<sup>56</sup> Ostein aldatuta: *biral[duko] > kastigauko.*

<sup>57</sup> Ostein zuzenduta: *Eta onetarako bidia emon daben batzuk izan badira bere, gi-txi ekusi da erri onetan konfesaurik > Eta onetarako bidia batzuk emon badabe bere, zubek ondo firmiak izan zaree.*

Eta ez bakarrik arefe[n] agindu justuak egiten ez baditugu kastigatu giñai-kezalako, baita bere Jangoikoak alantxe agintzen digula[ko]. Jangoikoa-gandik datorkie potestadia, eta onefe[n] potestadiari obeditu ezeitia, Jangoikoen ordenazinoari obeditu ezeitia. *Qui potestati resistit Dei ordinationi resistit*. Doktrina onetati dator pekatu egitia arako gizon asko ta askok, agindurik justiziak andik etsera joan ditezela, obeditu biarrian, al balebe edozer gauza esan ta egiteko zorian justiziaren kontra egiten dabenak. Bada, justiziakoak Jangoikoen Legia erriai gorde ereiteko ipiniak dira. Orregatik izan biar dabe firmiak, [ez] kañabera argala bezela ba[te]tik bestera doblauko diranak.

Ezta asko eurek onak izatia, baita bere bestiak zuzentze(...)nak egin biar dira; errietatik Jangoikoen opensak kend[u] egin biar da, eskandaluak, jokoak, nondi anbeste lapurr[eta], anbeste bizitza gaizto, anbeste murmurazino. Eta onetarako gaubak, egunak, adiskida ta biarbada anaijiakaz aserratuko bada bere, guztirako sendotasunak justiziakoak izan biar ditube, zegaitik lenago dan Jangoikoari zor deutsen errespetoa eta arimiari biar deutsen amodioa. Erriko interesakgaitik ondo begiratu biar da, zegaitik ez arefe[n] jaubiak, ezpada administradoriak dirian, eta eurek erriak galtzen badabe, euren bizkarrian izango dabe.

Onelan, batzuk ondo agindurik eta bestiak obetuago obedidurik, guztiok Zeruko Aitarekin zoriontsuak izan gaitian. Nondi dator au? Ez gitxitan sazerdoteetati. Geuk gere estadua jagongo<sup>58</sup> bagendu, geu arefe[k] joan biar daben batzarlekuetara joango ez bagina, exenploagaz eta konfesonarian esponetiagaz egingo (...).

Erakutsi ereiteko Jangoikoak bere erria[ri] emon al leikion kastigurik andiena, erlijinoa kenduko eutsela esatia izan zan. Alan Isaiasen bidez esaten eutseñ<sup>59</sup>: *Super quo percutiam vos ultra?*

#### [AMAIERAKO ERANSKETAK]

Beti Infernuak sazerdoteren persekuzinoti gerra bi[zil] bat egin dautso; ondo daki Diabruak, sazerdotia[i] errespeto galdurik, laster erlijinoren gorrotoan ifiniko diriala, eta onefe[k] kendurik, pekatuzko libertade bat sartuko dala munduan; orregaitik dira Infernuak ifiniko aguazilak onefe[n] errespeto-galtzalliak. Eta gorpetzeko izatia<sup>60</sup> emon deuskuben gurasoai amodio eta errespetoa<sup>61</sup> zor badautsegu, Sakramento Santo eta doktrinaren bidez arimakoa emoten deuskuben sazerdotia[i] gitxiago zor ez deutsegu.

<sup>58</sup> Ostein zuzenduta: *jagon* > *jagongo*.

<sup>59</sup> Ik. 55. oh.

<sup>60</sup> Ostein aldatuta: *manteni[mentua]* > *izatia*.

<sup>61</sup> Geuk zuzenduta: *errespetoba* > *errespetoa*.

Baña izaten diriana legez fameliako gurasoak euren exenplo txarrakaz umiai<sup>62</sup> ez bakarrik ariman, baita bere ondasunetan kalte egiten deutseenak, ondo izan alitekezanak, eskeko bidian ifinten dituezanak; alan errietan askotan izaten dire, ez bakarrik eskandaluak emoten ditueanak, baita bere askotan interesetan askori perju[il]zio egiten deutesenak: dirutan artu, papelatan pagau.

Nok esango eban, orain anbeste urte danian, gure errietan onelako gauzarik izango zala? Nok gauza onen ganian predikadu biarko ebela? Nok siñastu sazerdote beneragarrienak kartzela, kalobozoetan sartuko zituela, anbeste destierro ekusi biarko ebela, traiziñoz bideetan<sup>63</sup> ilgo zituela, plaza publikuetan gaizkillatuz batzuk legez ilgo zituela? Au da zubek ekusi dezubena. Onetara<sup>64</sup>...

Bai, S(a)n Pedrok, S(a)n Andresek eta euren lagun Apostoluak, arrantzailliak, beste filosofia, beste liburirik Jesusena baño, mundu guztiko arime(...) arrantzalle egin zirian, one[e]k filosofo andiak, erreinu...

#### CUARTO MANDAMIENTO

Baña, basaerritar boluntario errealistak, gure guresuak Apostoluak-gandik arturiko fedian firme bagagoz, orrako Faraon geztoen sol[da]duak, Inglatierrako txakur geztoak, gu erlijjiño bage itxi gure gaituenak, zuben oñetan jausiko dira. Guztiok, bada, firme.

Nok siñastu ereingo eutseen gure gurasoai, oraingo euren seme-alabak Apostoluak-gandik artuko erlijjiño santo onen kontra jaigiko ziriala; sazerdote [eta] ministro guztien kontra gerra egingo ebela; kartzela, kalobozo, presondegitan preso sartuteko lanak egingo zituela; destierruak eta eriotza gogorrek plaz[er] eta bideetan egingo zituela, gorde gure izatiagatik anbeste arduragaz eurekgandik artu genduen erlijjiñoau<sup>65</sup>? Ez da au ikusi, ez da entzun, ta entzuten bere ez da, sazerdote guztiak kendu ta ill artian gauza onik izango ez dala? Nonbait, gure gurasoak etzirian izan zorionekoak erlijjiño santu onegaz. Nonbait, Españako lurra sazerdoteren odolagaz busti biar dau zubek zorioneko egiteko.

Au doktrinia gaurko jakituria Lurreko iz[al]tia, ez Zerukoa dabena erakutsi dabena; au da anbeste odol bota erein dabena, zorigaitzo famelia osoak egin dituenak, guztien errua erlijjiñoari bota gureko jakola.

<sup>62</sup> Ik. 2. oh.

<sup>63</sup> Geuk zuzenduta: *bedetan* > *bideetan*.

<sup>64</sup> Ostein erantsita.

<sup>65</sup> Geuk zuzenduta: *gorde gure izatiagatik anbeste arduragaz eurekgandik artu genduen erlijjiñoau gorde gure izatiagatik?* > *gorde gure izatiagatik anbeste arduragaz eurekgandik artu genduen erlijjiñoau?*

Gurasoak umiai<sup>66</sup> gaztetan kontu artuko baleuskioe, ez litzake one-lakorik. Beste askotan, alabai konbenientziak agertu arren, berari lagundu ezeitiarrik, galdu ta pekatuko bideetan ifiniten ditubez.

Apostoluakgandik gure guras(oa)k artuko fedian<sup>67</sup>... Baña, gizonak, fedian firme bagagoz, orrako Faraon geztoen soldaduak, guri fedia kenduten da(...) <sup>68</sup>, eta aren arrotasun ta soberbiak zuben oñetan humillauko ditu.

---

<sup>66</sup> Ik. 2. oh.

<sup>67</sup> Ostean erantsita: *gure guras(oa)k > gure guras(oa)k artuko fedian*.

<sup>68</sup> Idem: *Faraon geztoen soldaduak > Faraon geztoen soldaduak, guri fedia kenduten da(...)*.

## BORRÓN DEL SEXTO MANDAMIENTO DE LA LEY DE DIOS

*Omnis immunditia nec nominetur in vobis.* Eph. 5, 3

Loikeririk zuben artian entzun bere ez bedi.

Jangoikoaren<sup>1</sup> Lege Santuko Seigarren Mandamentua[k] aginduten deusku ez aragizko pekatuak egiteko; eta Bederatzigarrenak, ez inoren ezkontzarik loituteko. Mandamento onetan ez bakarrik eragotziten jaku berba utsek diñoena, baita bere loikerian sartuten dirian beste guztiak, nai berbaz, eskuz, ta beste ganekoak. Poz andiagaz itxiko neuskio arratsalde onetako doktrina oni eta jarraitu beste bati, zerren ez dan erraz aditzelleren biotz eta belarriak ofendidu bage au erakutsitia. Angeru baten garbitasun guztia ozta asko izango da bear legez berba egiteko onen ganian. Baña alde batetik, neure ofizioz onetara obligadurik eta beste aldetik, ezaturik au dala arako sarea geztoa ezin kontala arima, estadu ta kondiziño guztietakoak beraganatu ta preso ezin bere mallak urraturik daukazena, Jangoikoaren laguntzeagaz batera alegiña egingo dot al dodan garbitasun guztiagaz berba egiteko.

Eta enaz ni geldituko zubei erakutsiten arako pekatu andi ezagunak, bada, onefelk itsubak bere bakutsa pekatu mortalak diriala; bakarrik esango deusuet onelangoen ganian, agertu biar diriala konfesiñoan. Zelango lagunagaz egin zirian<sup>2</sup>: izan bazirian ezkondu edo añbakoakaz, izan bazirian senide edo aidiakaz, zenbatgarreneko graduan zagozen; izan bazan kastidateko botodunagaz; izan bazan abere, patari, giberriren bategaz; izan bazan enbrak enbretara edo gizonak gizonetara; edo egin badozue zeuroen buruagaz, eta andik zer jazo jatzuen. Bada, ez dira gitxi urte luzeetan euren buruakaz pekatuan egon oi dirianak, beñ baño geiagotan erantzuten deuskuela, eurek onelakoak zikintasanak pekatutzat ez eukezala. Itxirik, bada, onelako obrazko pekatuak, asiko naz pentsamentu eta berbazko pekatuetatik.

Lenengo, bada, datoz gogoz egiten dirian pekatuak. Modu bitera edo era bitera, bada, egin leiteke gogo edo pentsamentuz pekatu: lenen-

---

<sup>1</sup> Geuk zuzenduta: *Jangoikoaeren* > *Jangoikoaren*.

<sup>2</sup> Idem: *tzirian* > *zirian*.

go, gauza loi Seigarrengoren bat norberen guraz gogoan erabilijagaz; bigarrengo, alango gauzaren bat egiteko gogoan artuagaz. Egiten dabe, bada, lenengo pekatu Seigarrengo mortala borondatez edo euren guraz gauza loiak gogoan darabiltzezanak, gogoan darabildana egiteko asmurik euki ez arren bere. Jauna, esango deustazue biarbada, onelako gauza loa buruak emoten deuskunian pekatu egiten al dogu? Ez, ezpada ala[n] gauziari arpegi ona egiten deutzazunian baño. Seigarrengo gauza loiak burura ez etortia ez dago geure eskuan. Sobra bere gure ez diriala burura etorten dira. Onelako gauza loiak datorriguzanian, alegiñak egiten badoguz burutik kenduteko, ez pekatua, ta bai irabazia daukag[ua]. Gaur Zeruan koroe ederrez apañdurik dagozan dontzella<sup>3</sup> garbiak oneko gogoera loiak izan dituben, baño gogoak emonez batera kentzeko indar eginik, kalterik bage eta on askogaz apañdurik gelditu zirian. Au berau egiten badogu, are[le]n irudiko koroe ederragaz apañduak izango gara. Baia kendu biarrian, ardurarik kenduteko artu ezeitiarren gauza loi onetan bazagoze, pekatu egin dozue. Ara emen au obe-toago ulertuteko irudi bat. Zagoze neguko gau batian sutondoban lau edo bost lagun, eta ustirik gitxien dozuenian, erre usaina<sup>4</sup> asmetan dozue, norbaiten soinekoren bat erreten dagoala; jaigiten zaree guztiok, beingoan, zuben soñekoai kontuz begiratuten deutzazue eta danentz zeurea erretan dagoana. Eta orra non dakutsun zeureari daxakola. Zuk orduan amatetan badozu, edo amatetako aleginak bert-bertatik egiten badozuz, ezin iñok zure erru imini lei artean erre dana. Baña amatetako alegiñak egin biarrian ago zabalik zelan daxakon bazagoz begiraz, ikusi zendunik eta aurrekoa zure errua izango da. Baña kontu daigun anbesteko subak artu ebela zure soñekoa eze, zuk alegina eginda bere ezin inondik amatau<sup>5</sup> dozu; bada, orduan bere ez da izango zure errua alegiñak egin dozuzelako. Beste onenbeste jazoten da, bada, Seigarrengo pentsamentu edo burutaziño txarrakaz. Buruak emoten deutsu bear ez dan gauzia, eta Diabruak putz emonik, biztuten da zure biotzean pentsamentu edo gogoraziño geztoa. Orañdik au ez da pekatu, au ez da arako zure jantzian jausi zan txingerra baixen; orañdik ez deutzazu biotzean lekurik emon. Eta S(a)n Agustiñek dinoana, ez dago pekatu borondaterik ez dan lekuan. Zuk orduan biotza Jangoikoagana eregit[ialga]z, edo Maria Santisima, S(a)n Jose edo beste onelakoren bategaz kentzeko alegina egin badozu, garbi izango zara. Baña ondo

---

<sup>3</sup> Idem: *dontzalle* > *dontzella*.

<sup>4</sup> Idem: *osiaña* > *usaina*.

<sup>5</sup> Idem: *amautua* > *amatau*.

begiratu eikezu zelan etorri jatzun gogoratasunori eta ze ardura artu dozun kentzeko, bada, egin ez badozu, pekatu egin zenduan. (\*)<sup>6</sup>

Askok erantzun daroa tanga baten baño lekurik emon ez eutsala; gero beiñgoan kendu ebela. Ez da ardura orregaitik, pekatu egin zenduan; polboriak bere tanga baten baño suari ukutu ezagatik, beingoan su artu ta kalte andiak egiten dituz. Eta ezta atxakia ona suari ukutu erain deutesnentzako pizko baten baño ukutu ereñ ez eutsala; beste onenbeste da Seigarrengoan. Bada, Adanen seme-alabak polboria baño polboriako gara Seigarrengorako; eta polboriak gorputzetan egiten dabena ta geiago egiten dau pekatu onek arimetan. Ondo da gero bere alegina egitea, baño beñ onik bein egin zenduan kaltea. Jauna, ez neunkan nik gauza txarrik egiteko gogorik, diño bestiak. Ezta ardura orregaitik, bada Seigarrengo pekaturako ez da biar euki pekatu egiteko gogorik; asko da borondatez gauza txarra gogoan erabillitia, kenduteko ardurari[k] artu bage. Jauna, ez neunke nik onelakorik etorri dakiden. Zegatik bada, ez dozu alde egiten naitanaiezian pentsamentu loiak etorri biar jatzuzan parkazinetik<sup>7</sup>? Nai ezpadozu pentsamento orre[e]k etorri daki[zul]zan, alde(...) <sup>8</sup>.

Baña zuk ez dozu nai alde egin Urlia edo Berendiaren ondolik<sup>9</sup>.

Alkarregaz fiestara, andik etsera, jolasera, bigirera, gaubelara, pasiora, komediara. Zelan bada, orrela gureko dozu pentsamentu txarrik ez eukitia? Itxi alkar[re]gazko pausu ta okasiñoai. Zer egiten dozu subak erre<sup>10</sup>...? Baña au esaten bajatzu, beingoan gauza txarrik egiteko gogorlik ez dozuela erantzuten dozue, erretan azurretaraño egon arren bere pentsamentu loietan. Nonbait ez dago<sup>11</sup>... Beste askok ordu luzetan lekurik ezkutuenetan ta biarbada gau osoetan alkarregaz egon arren bere, andiena egiten ez badozue, ta bera baño biarbada Jangoikoen begietan ofensa andiagokoak egin arren bere, pentsamentutxu bat izaten ez dozuela erantzuten deuskuzue. Nok sinastuko deustu<sup>12</sup>? Nonbait zubez ez aragizkoak, ezpada angerutxuren<sup>13</sup> batzuk zare[e]? Zubei, non-

<sup>6</sup> Ondo irakurtzerik izan ez dugula eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Alan biar litzat(...) eta beragatik onetarako okasinoetatik apartau, baño zuk ez (...)*.

<sup>7</sup> Ostein aldatutako esaldiak: *Jauna, ez neunke nik onelakorik etorri dakiden. Baña ez dozu kendu gura pentsamentu (...)ek etorri (...) sustraia > Jauna, ez neunke nik onelakorik etorri dakiden. Zegatik bada, ez dozu alde egiten naitanaiezian pentsamentu loiak etorri biar jatzuzan parkazinetik?*

<sup>8</sup> Ostein erantsitako esaldia.

<sup>9</sup> Idem.

<sup>10</sup> Idem.

<sup>11</sup> Idem.

<sup>12</sup> Idem.

<sup>13</sup> Geuk zuzenduta: *angerasuren > angerutxuren*.

bait, Santubei baño mesede andiagoak Jangoikoak egin deustubez. Bada, are[elk okasiñoen igeska, mendi bakarretan eta urte luzeetan egonda bere, pentsamentuak, tentaziño gogorak, eta zubek borondatzeko pelibururik andienetan ezertxu bere ez. S(a)n Jeronimok Erromako konbenientzetatik iges eginik, berrogeta urtiak leze artian<sup>14</sup> arriagaz bulerra austen, eta orregaitik bere tentaziño andiak zituela; azurrak ta azala besterik ezeukala, ta orregaitik bere aragiak gerra bizi bat egiten eutsela. S(a)n Pablok, Irugarren Zerugiño igotia merezidu izan ebenak, beste anbete dirausku. Eta zubek zuben dantzetan, begiretan, jolasetan ta beste anbete okasiñotan beti, ta ezertxu bere [e]z. Nonbait zuben gorputzak Santuenak baño bestelakoak dira, orrenbeste okasinotan ezertxu bere ez sentietako. Baña ezin onelakorik sinastu leikezue. Zubek guztiok zenbat gitxiago sentietan dozuen, anbat eta peliburu andiagoan zagoze. (\*)<sup>15</sup>

Beste gazte askok uste izaten dau pekaturik ez dagoala<sup>16</sup>... Asko dira bere, pekatu eg[iln] nai izanagatik erari[k] izen(...) (...) (...)delako obra<sup>17</sup>. Egiten dabe bere pekatu Seigarreneko mortala, arako gazte askok bestiaz gaz pekatu egin gure izan arren bere, edo erarik ez dabelako, bestiak lagunduko ez deustalako, edo beste one[e]n irudiko gauzaren bategaitik, egin bage geldituten dirianak. Baita arako alargunak euren ezkontzan izan zituben eskubideak gogora etorrita euren atsegiñetan egon oi dirianak. Beste onenbeste esan biar da ezkongeiakgaitik, gogoraturik gero izango dituben eskubideak, kenduteko alegiñak egin biarrrik, biarbada, an buruan eta biotzian indar barriak emon ta erretan egon oi dirianak. O zenbat dirian biotzeko atiak pekatu<sup>18</sup>...! Zubek guztiok onelako gauzakaz erreten egon arren bere, ez dozueta ezer sentietan esaten deuskuzue. Baña ez da posible ori izatia. Eta sentietan ezpadozuez pentsamento loi zuben kastidadiaren lapurrak, da zuben biotzeko atiak beti zabalik daukazuezalako. Bada, ondo itxiko bazenduez, sentiduko zendukeez.

Berba batian<sup>19</sup>, ura legez pekatuak<sup>20</sup>. Pentsamentuzko pekaturak kentzeko ardura bagarik oker bizi dirianakaz jazoten da<sup>21</sup>, arako

<sup>14</sup> Osteen aldatuta: *batian* > *artian*.

<sup>15</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Baña alde egiteko esaten bajatzue, ezin dozueta esaten dozue, baña ezin sinastu legikezue; soñekoa erretako pelibururen bat ikusten dozuenian, zer egiten dozue?*

<sup>16</sup> Osteen erantsitako esaldia.

<sup>17</sup> Idem.

<sup>18</sup> Idem.

<sup>19</sup> Geuk zuzenduta: *Berbatian* > *Berba batian*.

<sup>20</sup> Osteen erantsitako esaldia.

<sup>21</sup> Osteen aldatuta: *Zubekaz jazoten da* > *Pentsamentuzko pekaturak kentzeko ardura bagarik oker bizi dirianakaz jazoten da*.



etxe<sup>22</sup> beti ardura bagarik atiak zabalik euki darozanagaz jazoten da[na]. Onelakoen etxian, etxekoak sentitiake, nai etxekoak etxian edo inguruan diriala, lapurrak sartuten dira eta gauzak ostu arren bere, ez noz kendu eutsezan, ez noz sartu zirian jakiten ez dabe. Baña orregaitik, lapurrak kendua beti falta. Ez onelan arako etxe lapurren bildurrez atiak itxirik tranga gogorrekaz daukezanetan. Onelakoetan golpe andiak emon, barrukoak irazartu, bildurtu ta bere ez dira sartzen; atien ta trangaren defensagaz, barruan dagozanen indarragaz, lotsatu ta bildurturik iges egiten dabe. Alan, zubek bere biotzeko atiak Jangoikoen bildurrezko trangakaz eta birtutezko indarragaz bazengoze, Santuak egoten diriana legez, edo ardura onekoak legez, sentidu arren, bildurturik pentsamentu lapur kastidaderenak iges egingo leuke. Baña atiak zabalik dagoz; ez da ardurarik artuten eta noznai sentitiake sartuten jatzuez.

(\*)<sup>23</sup> Pekatu egiten dabe bere gazte askok, pekatu dirian gauzak gogotan arturik, pekatu izango ez balirian kondiziñopean esaten dabenak: nik pekatu ez balitz, edo ezkondua banintz, au ta beste egingo neunke. Zetako da orrelako gogoera burubageko ta pekatuz betiak zuk artu ta orrelan ibilitia, zuk ondo badakizu orrelako gauzarik egin ezin zinaiela? Orrelako gauzak dire zuretzako brasa gori batzuk azurretarño pekatuen erreten zaukezana. Beragaitik gerra bizi bat egin biar deutzazue. Pekatu[an] bizi dira bere<sup>24</sup> arako denporaren batean pekatuen kostunbre ta okasiñoan bizi izanik eta konfessore on baten bidez okasiño azaletikoa kendu arren, euren gogoak ta biotzak erreten, nondi aren gauzak jakin dituzen, aren erregaluren bat eskuan artu, ta beste onelako zantarkerietan bizi dirianak. Baita bere arako lotan ames loiak etorri dakiezan gure izaten dabenak. Egia da lotako amesak onetarako biderik ez emonik, pekatu ez diriala; baña gure izatia au etorri dakion, beti pekatu da. (\*)<sup>25</sup>

## SEGUNDA PARTE

(\*)<sup>26</sup> Erakutsirik nortzuk dirian pentsamentuz pekatu egiten dabenak, guazan orañ ikustera berbaz nortzuk egin daren. Mandamentu santu onek ez bakarrik esaten deusku garbiak pentsamentuetan izateko, baita bere berbeetan. Lenengo pekatu egiten dabe emen arako berba loi

<sup>22</sup> Ostein zuzenduta: *etxealde* > *etxe*.

<sup>23</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Beste askok pekatu ez balitz egingo leuken atxakian. Au edo beste pekatu ez balitz, nik ta bestialk egin...*

<sup>24</sup> Ostein aldatuta: *Pekatu egiten dabe bere* > *Pekatu[an] bizi dira bere*.

<sup>25</sup> Atal horretako amaiera oharra: *Esan dot*.

<sup>26</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Eitekezan artazurietan, laietan...*

esaliak, nai pekatu aurrekoari ereiteko gogoagaz, nai anbagarik, burlaz baño ezpada bere, besteren aurrian esaten ditubenak; dirialako one[elk] guztiok bereanez peliburusoak. Bigarren, berba labanegiak edo lazta-negiak aurrian daguana gauza loirako<sup>27</sup> irabazi edo ekartearren esaten ditubenak. Bada, beti onelakoetan ezaututen da biotz atsitu, eta Seigarrenorako sunde kirestsua. Irugarren, arako neguko gaubetan alkar-gana, edo guralak, edo ezpatariak, edo artazuritzaleak baturik, batek gauza loi bat esan, bestiak andiagoa erantzun, gauzarik loienak, Jangoi-koaren ofensarik andienak barrez, zantzoz ta algaraz zelebretan ditubena. Laugarren, kanta loiak, nai bakarrian dala, nai besteren aurrian kantetan ditubenak. Eta geiago gazte arteko jolasi[an] eta nasturik dantzaz dabiltezanian. Zerua galduteko peligro andian bizi dira soñular[il]ak, txit gitxitan peka(...) izaten diriala<sup>28</sup>. Beste onenbeste esan biar dogu dantza nastuakgatik, batez bere gure denporetan ikusten dirianak, bada, euren pensamentuak eta sentiduak geldituten dira justo ez danera igaro bagarik. Borondatezko peligrak berean ez dira pekatuak<sup>29</sup>. Bostgarren, arako ipuin zikin esaliak, azaletik kontuz edertu ta apañdurik, gauza loirik esan ez arren bere, besteak adituteko grazia obian esaten ditubenak, bada, beti erakutsiten da<sup>30</sup> berba ederren azpian gordeta egon oi dan sugea. O zenbat gazte garbiak zirianak, onelakoak edo lanian edo beste modutan batuta, len onelakorik ez ekienak galdu dirian! Jauna, nik ipuin, soñu ta kanta one[elk] ez ditut esaten aurrekoak galdu ditezen amodioz, ezpada denporia igarotiarrik. Gizon ondraduak, Kristinau onak, orrelako bagarik denporia emoten dabe<sup>31</sup>. Dana dala, orre[elk] guztiok besteri pekatu ereiteko bideak dire. Eta beste motiburik ez balego bere, bakarrik berau<sup>32</sup> asko zuk orri itxi biar izateko. Eta itxiten baldin ezpadozu, instrumentu orre[elk] ausi, erre edo entregetan ezpozuz, alperrik konfe[se]tara etorriko zara. (\*)<sup>33</sup> (\*)<sup>34</sup>.

<sup>27</sup> Osteen zuzenduta: *loira > loirako*.

<sup>28</sup> Osteen erantsitako esaldia.

<sup>29</sup> Osteen aldatutako atala: *Baita onetarako txistu, alboke edo beste instrumentu soñukoak Diabruen aguazil eginik, Jangoiako irabaziko arimak nondi Infernurako dituen ofizioz legez dabiltezanak > Beste onenbeste esan biar dogu dantza nastuakgatik, batez bere gure denporetan ikusten dirianak, bada, euren pensamentuak eta sentiduak geldituten dira justo ez danera igaro bagarik. Borondatezko peligrak, berean ez dira pekatuak*.

<sup>30</sup> Osteen erantsita.

<sup>31</sup> Osteen erantsitako esaldia.

<sup>32</sup> Geuk zuzenduta: *bera au > berau*.

<sup>33</sup> Atal horretako albo oharra: *Kalte asko*.

<sup>34</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Betoz Seigarrenogakgatik gaur Infernuan dagozanak, itendu zegatik dagozan. Eta erantzungo dabe bide...*

Betoz berba loi esaliak, itendu begi zelan asi zirian ekandu orretan, eta erantzuten dabe: Jauna, ni gaztetan otsain gezto bategaz ibilliten nintzan eta berak onetara ekarri nenduan. Gurasoak bere egin biar dabe alegiña euren etsetatik onelako otsaïak botateko<sup>35</sup>. Infernuan dagozanai itendu zegatik joan zirian eta eurek negarrez esango deuskue, onelakoak batutiarrrik; zegatik arako fameliako mutil eta neskatilla gaztiak euren gorputzetan gu[s]tu zikinetan bizi dira aspaldiko urteetan, otsein zikin ta zantar[rakaz] etzan ta ibillirik onelako zantarkeriak erakutsi eutsezalako. Au da, Kristinauak, dakusguna; ez deutsugu destaiuz esaten, beste gauzarik gure ofizio[alk ez deusku erakutsiten. Orregaitik gurasoak kontu estu bat Jangoikoari emon biarko deutse; otsaïñ geztoak onetarako libertaduak, Jangoikoen bildurbagekoak, etsean euki oi daroezalako, Infernu eskolan ondo erakutsirik. Kendu, arren, onelako otsain ta alogerakoak zuben etsetatik, artu Jangoikoen bildurrekoak. (\*)<sup>36</sup>

Eta ez bakarrik berba loi esaliak, baita bere borondatez entzuten egon dirianak pekatu egiten dabe, zergatik borondatez eta atsegiñez entzuten deusela ezauturik, bide geiago emoten jake onetarako. Gizon nai enbra errespetokoak, bera nagosi bada, onelakoetan antzemon biar dabe, eta osterantzakoa bada, gitxienez arpegi illuna ifini biar dabe. Beste ganeko guztiak, al badabe onelako etse ta lagunetatik alegiña, iges egin biar dabe, eta beste modutan ogia ezin irabazi badabe onelakoenetan bizi dirialako, arpegi illuna beti; ezipabere, Jesukristok bere arpegi illuna egingo deutse egunen batian, eta entzun biarko dabe ez dituzela bere seme ez alabatzat ezaututen. [Gurutzea] Baña, ze lastima andia! Alako moduan zabaldu<sup>37</sup> da pekatuau eze, esa[n] leike arako ogoldiagaz Jangoikoak gizonak ondatu zitubenan legez, edo ija aren zorian dagoala. Zer beste gauzarik ikusi, entzun eta asmetan da munduan, ez bakarrik gazteen artian, baita bere zarren artian, pekatu onen eskandalua eta garra, Sodomak legez, Zeruraño bere justizia eskatuten dabena baño? O Seigarrengoa, o sarea geztoa, o pekatuzko ujula geztoa<sup>38</sup>! Nor izango da zure olatu artetik<sup>39</sup>...?

Mundu onetan<sup>40</sup> desonestukerian ikusirik, nor izango da salbauko dana? S(a)n Pablok Korintoarrai ardura andiagaz zirautsen: Etzaitkeze batu desonestuakaz, bada, orre[e]k ez dabe Zerurik izango. Eta modu onetan beste Efesoarrai, Galatakoai dirautse; zeñek esan gure daben zeñ

<sup>35</sup> Ostein erantsitako esaldia.

<sup>36</sup> Atal horretako amaiera oharra: *Egin... eskuz...*

<sup>37</sup> Ostein aldatuta: *erbestetu > zabaldu*.

<sup>38</sup> Ostein erantsitako esaldia.

<sup>39</sup> Idem.

<sup>40</sup> Geuk zuzenduta: *onelan > onetan*.

nekez salbau litekezan desonestoak, ez salbau ezin litekezalako, ezpada guztiz gatx egiten jakelako, pekatuko lagunai itxirik, benetan Jangoikoa gana bi[ol]rtutia. Bai, onelan aspaldian eskandaluan zagozana, ija Infernura jatsiteko azkenengo eskalera zagozela dirausue Beda benegarriak. Esperientziak au erakutsiten deusku: desonestuak Jangoikoa gana biortuten ez diriala. Bildurtuten dira predikadorien sentenziakaz, arritu eriotzia gogoratuten jakenian, itzaldu Jangoikoen Juiziora presentau biarrak, baña orregatik ez itxi pekatuari. S(a)n Juan Bautistak bildurtuten eban Herodes desonestua, beragatik gauza onak egitera bere etorten zan bildurren bidez, baña ez itxi Herodias[lek] bere koñetari. Bildurtu ta itzaldu bai, errezu batzuk egin bere bai, baña itxi [ez] pekatuko laguna; berbak emon, negar egin eta gure izen bere bai, bai[a] pekatu katiä ausi ez. Alan ikusten deguz misino baten ostian parrokiaren ondolan konfesau bazirian, len baño barri pekatuetan. Ara emen onelakoen konfesiño guztiak non utsak dirian, ez damurik, ez propositurik ez daukelako. Ai pekatari biotz-biotzekoak! Ai katiäpe gogor onek azpijan zaukezanak! Ez jat besterik geldituten zuekgaitik galdutzat emon ta negar egitia. O Jangoiko maitea! Urratu, arren, anbeste desonestoren katiak!

Pekatu bat sobra bada Jangoikoen Tribunalian galduak izateko, deungaro urteiteko, zelan urtengo dabe beren pekatuez ganetik anbesteren pekatuak euren bizkerrian arturiko desonestoak? Zer esaten dozue onetara, banidadez beterik, erdi billozik, lekurik agirijenetan presentetan zarean gazteak, askorentzat pekatuak sarea eginik? Zer onetara, zuek aspaldiko urteetan errian eskandalu emoten dozuenak? Zer zuk, ezkondu anbestegaz tratu desonestoan aspaldian zagozana? Bada, one[e]k guztiok dire zubenak<sup>41</sup>; one[e]k guztiokaz laster illik, laster itzalgarriturik eriotza baten bidez, laster zuben ondasun ta lagun pekatuak itxirik presentau biar dozue arako Jangoiko Zeruak dardar bere aurrian dagozanen aurrera. Zu desonestoa entzuten zagozana, zugaz dot, eta federik badozu, erantzungidazu zer izango dan zugaz orrelan bizi izanik.

Bai, ibilli zaitez oraingo modara. Bide guztian esan, esan, esan alkarri esan oi daroazuezan gauzak, zuek pekatuetan erre[rik] ikusten zaituen guztiak eskandaluz ipinigizuez; itxozue, onenak emon dozuez. Barre pekatukoen ondorengo negarrak laster azpian artuko zaituez. Zenbat bideetan, ja mandoan, pekatuak andienai eder deretxazuela! One[e]k guztiok, eta one[e]n moduko beste asko, pekatu mortalak dira. Baña zuek eder deretxazuela eskrupulo bagarik egin daroazuez; konfesetan zaree, baña zuben konfesiñoak ez Zerurakoak, bai Infernurako-

<sup>41</sup> Idem: *zuebanak* > *zubenak*.

ak dira. Olgaugizue, gustu-naijak gorputzari emongiozue, nekatu zaitez, gustu samin bat kunplietako ganak galdu ta nekatu zaitez, baña begira laster negarrez esan biarko dozuela: nekatu giñan aixiaren indarragaz joan oi dirian arinago igoro jakuzen gusto saminetan; orra non eurekgaitik galdu garian.

Jauna, guk ez dogu onetan gauza deungarik egiten, mandoan joan, buztertu ta ibilli arren, edo eskuokaz azaletik ukutu arren, ez dogu guk gauza txarrik gure. Ez dogu pekatuik nai. Baña ori guzurra da. Bakizu zuk esaten deutsula doktrina santuak garbia izateko pentsamentuetan, berbata[n] ta beste<sup>42</sup> garbi izateko bide guztietan. Baña zuk gure dozu ez din beste pekatuik<sup>43</sup> obrazkoa baño. Eta dantzatan, jolasetan, eta jolas eta fiesta osteko bideetan, zenbat pekatu egiten ez dozue? Emon berba labanak, eskuka, begirakuna ta beste zuek ondo dakizuezan baña leku santuau loitu ezeitiarrik isten ditudazan naste zantarrak. A gurasoak! A gaitzak! Ez da posible onelako bideetatik salbetia. Zeruan dagozan Santuak eta ara orain zuzenbide egin nai dozuenok, ez da posible nik esatia zubei bide onetatik Zerurako izango zareela. Mundua okertu bada, Jangoikoaren Legia, bere Ebanjelio ta Zeruko bidiak lenak dira. Pekatariak nasaitu badira bere, Jangoikoen bidiak len legez estuak dira. Onelangoan ta beste askotan egiten dira pekatu ikaragarriak, eta bidiak artu andiangoak aurrerantzian egiteko. Alanda guzti bere, ez dozue siñastu gure ez gazteak, ez gurasoak. Eta barriz onetan ez dozue atxakiarrik gurasoak, bada, zuek alan ibilli ziñian. Negarrez etorri oi zaree lenen parkazinorik izango ete dozuen, ez ikusirik zuben umiak zube denporan legez edo deungago dabilzela; ez dozue ardurarik artuten. Gaztiak bere itsuturik, zuben buruak galdu artian ez. Ai bada, zenbat gauza gordetan dodazan isillik ez zuek ofendietarrik!

Ez dira gitxi zuen arteko askok zelataka, ezkonduen eskubideak asmau gurarik egiten dozuezanak; eta gurasoak gela baten beste oiak eukiagaz, eta humiak lau-bost urterik aurrera beintzat, zuekaz eratzonagaz. Bada, orduan pekatua zer dan ezpadakie<sup>44</sup> bere, gero begiak argiturik ekandu txarrak artu daroez, eta beñ baño geiagotan etorri joakuz, zelan kostunbre txarrak gatzetxutan artu zitubezan eta izin inondik bere kendurik negar egiten dabe. Au guztiau da gurasoen errua.

Ezkonduen artean bere pekatu askoz izaten da. Baña kontentu izango naz bakarrik esanagaz on[e]li, pekatu mortal andia dala fameliarik ez izateko lanak egitea; eta ez pobrezia gaitik, ez osasunagatik, ez bizitzia-

<sup>42</sup> Osteen aldatuta: *obretan* > *beste*.

<sup>43</sup> Geuk zuzenduta: *pekatari* > *pekatu*rik.

<sup>44</sup> Idem: *ezpadekia* > *ezpadakie*.

gaitik onelakorik ezin leikeela. Lotsa izaten dira ez egiteko, bai konpetetako, eta beragaitik urte luzeetan, eta biarbada bizi guztian, alantxe Diabruen mendean bizi dira. Eta alan, ill ta galdutera etorten dira. O Seigarrengo pekatua, eta ze kalteak egin dozuzen ta egiten zagozan! Arriturik, gogorturik ta bildurrez ikara-ikara egoteko da ikustea zelan daukan mundua gaurko egunian. Ez deutso inori bere parkatuten, ez gazte, ez zar, ez ezkondu, ez aïnbakoari; humeginokoak dakusguz pekatu onetan sartuak. Bideetan, kaleetan, plaza agirigiñoakoetan ez da besterik entzuten izen txarrak, bastukeriak, baita zantarkeria eskergak. Eta zer ez da ikusten? Bakarrik eurak eginagaz kontentu izango balira, gatxerdi izango leiteke. Baña zelan desonestoak Diabruen ministro madarikatuak dirian, euren sarea beste asko atrepetako, lekurik agirienetan, arima geiago atrapauko dabenetan bota edo ezarri biar dabe. Mundua añ galdua badago eta Infernuak pekatariak betia, Seigarrengo pekatuakgatik dala.

Orregatik bere, zer egiten dogu orrelako pekatu zantarrak kentzeko? Baña zer diñot nik, zer egiten dogun? Zer ez dogu egiten begitagiño pekatu onetan sartuta egoteko? Guztia da dantzia, guztia jolasa, piestia<sup>45</sup>, begiria, errondan ibillitia. Ezkonduen artien zeloa, inbidia, bizitza geztoak, eskandalua; humen jantziteko, aziteko, estaturako biar dana ez gitxik onetan gastetan dabe. Kristi[nauak], kontuan jausi gaitian, ez dagi gun aragijan ereiñ, usteltasuna artuko daigun; erein daigun birtute ta santidadian, (...) bizitzia merezidu daigun. Aurrera joateko biar dot... Jaun miserikordiosoa, zer esango deutset gaur nik desonestoai? Salbauko dozuzela, ala betiko galduko dozuzela? Ez Jauna, zeuriak dozuz. Zure odol guztia emon dozu; konpesauko ditubez, negar-anguluak biotzetik aterarik Madalena legez zure oñetan konfesauko dire. Gazteak euren pentsamentuak aspaldian gordeta daukezanak konpesaurik, berba loi guztiai gerra eginik, jolas ta fiesta pekatuzkoai agur eginik, ezkonduak euren matrimonioan izan dituezan okerreginak negarturik, agur pekat[ul]ai egingo deutse eta Diabruen kateai.

#### [HASIERAKO ERANSKETAK]

Ifinirik beñ batian S(a)n Agustin pekatu onek bere errian egiten zitzuzan kaltiak, pentsetan ipini zan zer egingo ete eban kalte one[elk] bere erritik kenduteko. Esaten eban bere artian: ni pekatu one[n] kontra prediketari asiten banaz, nire kontra jaiki(...)err(...)uetan poderoso<sup>46</sup> ta

<sup>45</sup> Alternantzia: *piesta* / *fiesta*.

<sup>46</sup> Ostean zuzenduta: *poderosorik* > *poderoso*.

okerrenak. Isillik banago, (...)doaz e(...) loiak. Bai, nai badau nik emon dagiden onen kontra eta salbadu (...) batzuk, pekatu onetan gogorturik dagozanak nire kontra (...). Auxe berau gogoan arturik, nik gaur berba (...) <sup>47</sup>. Dantza nastuen ganian ez deustubet ezer bere esan, ez dot bere onetan burua nekatu biar. Zubek nik baño bere obetuago ekusten dozube zeñ oker andiak emetik datozkiozan zuben biotzai; zubek dakizube one[e]k <sup>48</sup> dirialako <sup>49</sup> oker batzuk zuben biotzak Seigarrengorako gaixotuten ditubenak. Zubek dakutsube Kristinau benetan garbi dirianak bildur deustela, ez dala Santurik ontzat emoten ditubenik; dantzarien sariak Santuben eriotzak izan zirala; S(a)n Juan Bautistagaz jazon zan legez, dantzarako apizinoa daukenak garbiak izaten ez dirala. Eta ill aurrian neuk ezautu dot onela(...).

Ez dakit nik gauza txarra ze gauzogatik esan gureko dozuen. Zuben iturri edo bide-bazterretan, guraso ardu[ra]bakiak oian, ta zuben sukaldetan, zuben gela ta oiginoakoetan ordu luziak egin arren bere, andiena egiten ez bada ze, ez eskuagazkorik, berba-pentsamentuetan erretan egon arren, ez dago ardurarik. Orretarako esan ez dagoala Seigarrengorik. Ni ixilik egoten banaz, aurrera jarraituko deutse pekaturia <sup>50</sup>. Nik berba egiten badot, batzuk deungaro berba eginagatik, beste askok itxiko deutse euren eskandaluai, kontua atera <sup>51</sup>...

Baña alde batetik, ezauturik neure ofizioz onetara obligatua nagola <sup>52</sup>...

Seigarrengoa ikusten gagozan kalte guztiak ekarri deuskuzana, Ele-xaren arerio guztiak inoz baño geiago alegin guztiak egiten ditubezala <sup>53</sup> mandamentu santua albaleie kenduteko, eta barrerau urraturik konzienziaren greska bagarik animalia legez bizi gure izateko, inoz baño geiago deretxat Ebanjelio Santuko predikadoriak eskandalu onen <sup>54</sup> kontra gogor egiteko. Bakit biarbada nor onegatik deungaro esan paltako ez dala. Baña bakit bere S(a)n Pablok esaten deustala gizonai gusto emon

<sup>47</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>48</sup> Ostean zuzenduta: *orre[e]k > one[e]k*.

<sup>49</sup> Geuk zuzenduta: *dirialakola > dirialako*.

<sup>50</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>51</sup> Idem.

<sup>52</sup> Ostean aldatuta: *neure ofizioz dudala > neure ofizioz obligatua nagola...*

<sup>53</sup> Ostean erantsita: *Elexaren arerio guztiak alegin guztiak egiten ditubezala > Ele-xaren arerio guztiak inoz baño geiago alegin guztiak egiten ditubezala*.

<sup>54</sup> Ostean zuzenduta: *eskandaluaren > eskandalu onen*.

nai badeutset<sup>55</sup>, Jangoikoaren sierbo izango ez nazala. Beragatik, alde batera itxirik al dodan<sup>56</sup> garbitasunik andienagaz alegiña egingo dot aparteko gauza zantarrik esan bage, zerbait mandamentuau espliketako. Eta ez naz ni geldituko... Eta ez naiz ni geldituko...

Gazte<sup>57</sup> askok ezkontziak gero emon aleikiozan<sup>58</sup> eskubidiak borondatez gogoan erabiliagatik, uste dabe ez dala egiten pekaturik. Alargun askok estaduan izan zituben atsegiñak gogoan artuta oker biziagatik, ez dabe izaten eskrupulorik. O<sup>59</sup> eta zenbat dirian euren biotzeko atiak pekaturako zabalik eukiagatik pekatu ez baliran legez bizi dirianak! Onelako guztiak Zerua maite badozube, lenak ondo konpesino jenera-larekin garbiturik aurrera bizitza on bat egin biar dabe...

Pentsamentozko atiak zabalik beti darabildezanak zenbat eta geiago pekatu onetan galduagorik bizi dirian, anbat biotzian kalluak eginik; ez dabe izaten kezkarik eta jazoten jake arako etxe beti arduralbalgarik atiak zabalik izten ditubenai jazoten jakena, noiznai lapurrak sartu. Baña bildur santoz bizi diri[a]nai lapurrak etorri eta altu joagatik, trangakaz atiak euki oi dituezalako ezer egin bagarik joaten dira. Alan...

#### [AMAIERAKO ERANSKETAK]

Jauna, ukaturik bere ez daukat egin...

S(a)n Pa(blo)k ezaturik onelako lagunetatik etorri oi dirian kalteak, Korintoarrai, Efesoarrai eta Gala[ta]koai esaten eutsen alde egin leiela. Eta onelako ekandu zitalak dituenak, diño Beda beneragar[ri]ak, Infernuko atzenengo eskalera maillan, kondenetako erremedio barik peliburuan. Eta benetan, mundu guztia pekatu onetan ondaturik, Noenen denporan legez, ozta justu ezaututen ez danian badakusgu, nor da salbauko dana? Ikusten doguz onelako ekanduetan dagozanak nozbait negar egiten dabela, baña ez emendatu. Itzaldtu ta arritu, proposituak bere artu bai, baña ez itxi okasino one[eli]. Beragatik jazoko jake arako Herodesi jazo jakona. Indar andiagaz prediketetan eutsan S(a)n Juan Bautistak bere koñetagazko eskan-

<sup>55</sup> Ostein aldatuta: *gizonaren gustua egin gura badot > gizonai gusto emon nai badeutset.*

<sup>56</sup> Ostein zuzenduta: *Beragatik al dodan > Beragatik alde batera itxirik al dodan.*

<sup>57</sup> Ostein aldatuta: *Ezkongei > Gazte.*

<sup>58</sup> Idem: *emongo deutsezan > emon aleikiozan.*

<sup>59</sup> Ostein erantsita.



daluen kontra; bildurtuten zan baña etzan emendatu, ezpada Jangoikoak onduteko biraldu euts[an] Profetaren kontra jaiki zan. Alan, ikusten dituguz bere misinoetan negarrez datozela, baña berbak emon arren, Herodes legez andiagoak egitera biortuten dira. Ai pekatari biotz-biotzekoak! Ai pekatuorren katiape orretan zagozenak! Zenbat eskandalo ez dozue emoten mando ganean alkarregaz batera zabiltzenok? Konfesetan zaree eskandalu orre[e]kaz? Eta itxiten deutzazue? Ez, ezpada Herodesen antzera aurrera zuben eskandaluak. Ez dakit; bada, bide obeagorik artuten ezpadozue, ni libre naz esanagaz galduko zareeala.

Asko dire zuben artian (...), andienak egiten ez badozuez, ze beste ganekoak eukiagatik ezertxu bere ez dozuela egiten (...).

Azkeno bis[il]tan Bizkaiko erri batian, buruten sartu gure izan eutsian Obispo Jaunari Bizkaiko dantzak garbiak ziriala, pekatuen usainik ez egoala; baña bakit Obispo Jaunak negar egin ebala engañadu nai izan ebelako. Alperrik Infernuak euki dituz dantzaren apostoluak; dantzaren frutuak baakigu zer diran; dantzan gitxitan biotza garbi ibiltzen da, are[e]n ondoan<sup>60</sup> ikusten dira zer biotzian erabilli daben. Andik bideetan, baso ta etsetan Jangoikoaren opena andiak, eskandalu ta desgrazia famelietan. Beragatik, dantzarien saria Erodiasena izango da. Dantzaren saria S(a)n Juan Bautistaren degol[l]azinoan edo eriotzan ikusten da.

Beste anbeste dantzaren ganian esan biar dogu...

Dantzak dira pekatuak, eta aren bidiak berean ez dirala gauza agiria da.

Dantzaren frutua, S(a)n Juan Bautistaren eriotzia...

Dantzarien saria Erodiasena izango da.

Gurasoak bere euren humiak garbia[k] izan ditezen nai badabe, otsañ onak eukitera egin biar dabe. Asko dira famelietan gurasoak garbiak izanagatik, zuben humiak garbi ez dira bizi otsañ zantarrakgatik...

O sarea malla guztietakoa!

---

<sup>60</sup> Ostean zuzenduta: *doan* > *ondoan*.

O Seigarrengoa! O ujula<sup>61</sup> geztoa! Zeñ izango da ojula onetatik iges egingo dabena? Urijola onetatik iges egin da salbau gura badozue, S(a)n Pablok Korintoarrai<sup>62</sup>, Efesoarrai eta Galatakoai esaten eutsena egin biar dozue. Onelakoakaz ez batu bere, ez maijan jarri bere. Eta beti zantarturik dantza nastuetan atsiturik, pekatuz errerik, biotza, eskuak, mina ta sentidu guztiak, kakarraldoa bekorotzian legez Seigarrengoan bizi zarenak, zubek Zerurako ustirik baukezue, Zerutan antzik bagarik Seigarrengo enzun-de gero arnasa(...).

---

<sup>61</sup> Alternantzia: *ujula / ojula / urijola*.

<sup>62</sup> Ostean aldatuta: *Efesoarrai > Korintoarrai*.

## SERMÓN DEL JUICIO PARTICULAR

Viva Jesús

*Statutum est hominibus est.* Hebr. 9, 27

Fedeko egia da jaijo garianok eriotzatik igaro biar izatia, eta andik zuzen Jang(oiko)en Tribunalera, gure obraren saria artzera, arako sententzia betiko zorioneko edo zorigaitzoko egingo gaituana. Juizio ikaragarriau izan zan S(a)n Bizente Ferrer gloriosoak bere denporan erabili eben ezpata bizi ago bikoa, zeinegaz ebagi zituzen ez bakarrik pekatuen lakatz geztokak, baita bere sustraiak, bildur santu bat pekatarien biotzetan ifinirik, pekatuzko bizitzatik Jangoikozkora biortuten zituzala. Eta beste denpora baten Jonas Profetiak bere predikazioen indarragaz arritu eta ikaraz beterik ifini zituzan<sup>1</sup> legez Ninibetar guztiak; ain modutan eze guztiak, asi Erregeandik azkenengo mendekorañoako guztiak, zar-da gazte, gizon ta emakume diranak, euren buruak autsez beterik soñeko zoragarritzkoa zakura biorturik, iru egunian ezer jan ez edan bagarik, guztiak negarturik, penitentzia onegaz Jangoiko errukitu eta miserikordiara biortuten ebela. Alan, S(a)n Bizente gloriosoak bere denporan prediketari sartzen zan erri guztiak Jangoikoen Juizioen predikaziñoagaz ikaratu eta bildurturik, pekatutik atera eta Jangoikoagana biortuten zituan. Ez da ba, zer mirariturik izango! Ni ez Jonas, ez S(a)n Bizente ez izen arren, pekatari bat baño, Jangoikoak gaur instrumentutzat artu nauen ezkeroko zuei Juizio ikaragarritzkoan zer jazoko jatzuen erakutsiteko; gure izatia nik orduan<sup>2</sup> S(a)n Bizentek gure izen ebena, zuek pekatutik atera eta Jaunagana biortu gure izatia, onetarako esaten deusuedala, ak orduan legez, bildur izan zaitiela, bada, urrian da Jangoikoen justiziako eguna.

Orregaitik, alde batera itxirik Juizio jenerala, erakutsiko deusuet Juizio partikularra, eta emen bakotxari artuko jakan kontu estua. Bai, K(ris-tau)ak, barriro esan biar deusuet bildur izen zaitezala, zegaitik urrian dan Juizio partikularreko egunau, eta ain ur eze, ez dakigu gaur izango

<sup>1</sup> Geuk zuzenduta: *zituzan zan > zituzan.*

<sup>2</sup> Ostein ezabatuta: *gure izatia nik zuek orduan > gure izatia nik orduan.*

bada. Bada, ez jakinik nox artian bizi izen gintekezan, ez noz ilgo garian, eta fediak erakutsirik il-de lasterrian Jangoikoagaz kontuan sartu biarko gariala, ez dakigu gaur izango bada. Pentsamentu bildurgarria, bakarrik beronek anbeste erri eta uri, gizon ta emakumez utsiturik, mendiak Santu-Santaz bete zituzana. Pentsamentua, S(a)n Jeronimo andia Erromako ondasun andi eta agintaritasunak itxirik, basamurtu baten angeruzko bizitza bat egitera biortu ebena; anbeste zaldun gazte euren gurasoen ondasunotara euken<sup>3</sup> deretxo guztiak itxirik, euren soñekoak mortaja biorturik, munduari agur eginik, euren borondategiñoko besteren eskuetan itxirik, erlijioño estuetan sartu zituzana. Pentsamentua, anbeste dama ta donzell[la] banerietara eta zoragarrizko jantzieta itsuturik egozanak, ordu luziak ispilluan apaindu ezinik euren buruak igaroten zituenak, ulliak ebagirik, buruak motziturik, munduak opa eutsezan konbenientzia guztiai betiko agur eginik, konbento estuetan Jangoikozko bizitza bat egitera ekarri zituena, eta emen euren begietako negarragaz Madalena biorturik, merezidu izen eben lengo pekatuak parkatu jakezala entzutia. Azkenez, bildurgarrizko pentsamentua, anbeste errege, erregiña, duke, konde, markes, maiorazgo, merkatari, aberats, solda[du] eta beste ganekoak, pekatuzko bizitziari itxi erainik, bizitza santura ekarri zituzana.

Benetan<sup>4</sup> Kristinao, berez begiraturik eriotziari aiñ gogorra bada bere<sup>5</sup>, orregatik ez da ainbestekoa. Eriotzau gogor egiten dabena da, Jangoikoagaz kontuan arako Juizio ikaragarrikzkoan sartu biar izatia. Zuk<sup>6</sup>, dama eta neskatillia, anbeste kontu zeure gorputzari deutzazuna, ondo begiratuten badozu orrako arpegi eguzkiaganik baltzi[tu] ez zaizen gordetan dozunari<sup>7</sup>; orrako beso eta eskuok eleztunez apaindu ta arg[il]turik darabiltzuzenak, lurrak jango dituzala; oi bigun eta ederrian gorputz orri deskantsu emoten deutzazuna, laster zure oi biguna sepultura triste baten biortuko dala. Pentsamentu onek bakarrik bildurtuko zaituz. Baña eriotzia bildurgarri egiten dabena ez da au anbeste, ezpada jakitia bere pekatuen kontra aserraturiko Jangoikoagaz kontuan sartu biar dabela; arako Jangoikoa bere pentsamentu azkeneginoko guztiak dakiozanagaz juizioan sartu biar izatia. Jangoiko andi, begirakuna betegaz Zeruak dardar ikaratuten dozuzena! Jangoiko argi, Eguzkia, [I]rargia eta izarrak zure aurrian ilunak dirana! Jangoiko santu, Añgerugiñoko

<sup>3</sup> Ostean zuzenduta: *gurasoetara euken ondasunotara* > *gurasoen ondasunotara euken*.

<sup>4</sup> Ostean aldatuta: *Bai* > *Benetan*.

<sup>5</sup> Ostean zuzenduta: *gogorra egiten bajazu bere* > *gogorra bada bere*.

<sup>6</sup> Ostean aldatuta: *Bai* > *Zuk*.

<sup>7</sup> Ostean zuzenduta: *dozuna* > *dozunari*.

kriaturetan faltak ikusten dozuzena! Zer ni lezko pekatariagaz jazoko da? Job Santua bildur bada, Dabid Erregiak beragaz kontuan sartu ez zaitiala eskatuten badeutsu, zer pekatariakaz jazoko da? Zer zugaz, auzilaria, gorrotoan anbeste urtian zagozana?... O mundutarren zoramendia!

Fediak erakutsiten deusku munduaren atzenian, denpora guztiak igoro<sup>8</sup> ditezanian, agertuko dala Jesukristo gure Jauna odoi zuri eder baten jarririk, majestade andiko Juez eginik, anbeste Añgeru ta Santuen erdian, onentzako pozgarri eginik eta geztoentzako arrigarritzoturik (eta biorturik onakgana egin dituz betiko zorioneko, eta gaiztoak zorigaizto-ko). Baña egun bildurgarrizkoau jazo baño lenago, erakutsiten deusku S(a)n Pablok beste juizio aparteko bakotxagaz egingo dabela, eta au, ilten dan instantian. Bai, K(ristau)ak, apenas gaixo batek artuta<sup>9</sup> agoni-na larri baten ostian azkenengo arnasa emongo daben, orra non antxe bertan kontu estu bat artuten asiko jakan. Eta arako marinelak itsas andian sarturik, ije ez galduko bai galdukoan dabilztenian, ikusirik euren ganera datorkiela itsasmendi andia azpijan arturik ondatuko dituzana, larritu eta ikaraz beterik, zer jazoten jaken ez dakiela egon oi diriana legez; alan zu bere, pekataria, Jangoikoen Juizio aserriaren ur gaziak zure ganera datozala ikusi dagizunian, ikaraz larriturik, zer jazoten jatzun ez dakizula egongo zara. (\*)<sup>10</sup>.

A pekatari tristia! Nogana orduan biortuko zara? Larri ordu atan nori deituko deutzazu? Anbeste pekaturako bidia emon deutsezuenai? A! Pentsamentuak berak bildurtuko zaitu. Ordu atan Jangoikoen miserikordiak esperantza pizko bat zure biotzian ifini arren, Berari egineko pekatuen anditasunak larrituko zaitu. Poztuko zaitu alde bateti arako Jangoikoen erruki andiak, zeinegaz pekatu guztiak parkaturik, Zerura bere kurutze kastiguko lekuti eroan eben; eta bildurtu, bere dizipulo Judasegaz egin eban kastiguak. Animo pizko bat artuko dozu (Jangoikoen miserikordiaren anditasuna gogora ekarririk) Manases Erregiagaz, munduan izan danik pekatarririk andionegaz euki eban errukia pentsamentuan arturik; eta bildurtuko zaitu arako Salomonegaz, Jangoikoen adiskide andia lelengo izanik, zer beragaz jazo zan ez jakitiagaz. Esperantza eta bildur one[e]n bitartian, betiko Gloria[n] edo Infernuan (artian norako) izango zarian ez dakizula, itsas andien erdien marinela baño bildur geiagotan sarturik egongo zara. Eta benetan<sup>11</sup>, Santuak bildur badira,

<sup>8</sup> Alternantzia: *igoro / igaro*.

<sup>9</sup> Ostein zuzenduta: *arturik > artuta*.

<sup>10</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Esan egidazu, anbeste urtia[n] zure konetaz lenko...*

<sup>11</sup> Ostein aldatuta: *Bai > Eta benetan*.

Arsenio Abad Santua bere bizi guztian kontu aserriau pentsamentutik kendu bagarik bizi izanik, bildurtuten bazan eriotza aurrian, ze bildur euki biar ez dabe pekatuan bizi izan diranak? O zein garratz egingo jakazan pekatari oni len ain gozo egin jakazan gustuak! Bai, sugiak janeko miñak emoten daben baño min geiago emongo deutse bere lengo gustuak; anbeste pekatu egin zituzanak<sup>12</sup> eta anbeste sakramento deungaro errezibidukoak bere kontrako exerzitu andi bat eginik ifiniko jakaz, eta larriturik zer jazoten jakan ez dakiela egongo da orduan.

Esperantza eta bildurren bitartian estuturik, sartuko da laster agoniñan, eta onek bere inderrak guztiak kendurik, ifiniko dau gorputza arime bagarik<sup>13</sup>. Etorriko dire zure senidiak zure gorputz eriotziak ain itzelgarriturik ifini dabena ikustera; kontuz begiratuکو deutsee, sentimentu eta negarra erakutsiko dabe, biarbada asiko dira zure arimia Jangoikoari enkomendetan. Baña onek guztiok, zer balioko deutsue il-de lasterrian Jangoikoak artuko juizioan ondo urten ez badozu? O Jaun ona, eta ze ondo ezautuko daben orduan pekatariak zenbat balioko eutsan bizitza santu batek! Ze zorionekotzat emongo dan, emen munduan bizitza santu bat eginik, kontu estu Juiziokoak artu dabena! Baña pekatari andiak begiraturik atzera, ikusi dagizenian bere pekatuzko mendiak, begiraturik aurrera, Jangoikoen Juizio aserria, larrituko da, gureko dau emon dakion penitentzia egiteko denporia; baña guztia alperrik<sup>14</sup>. Ze sentimentua zuria ordukoa, (Jangoikoak librau zaizela), ikusirik anbeste denpora eta grazia galdu dozula! Zenbat emon gureko zendukian orduan, orain alperrik galduten dozun ordu bat eukitiarrik konfesiño on bat egiteko! Milla bizitza, milla mundu, eta ondasun guztiak pozik emongo zendukez kontrizino egiazko bategatik. Ondo gogoan daukat pekatari batek bere eriotza aurrian esaten eustanak. Begiraturen eutsen bere lengo pekatuzko mendiari, ezaututen eben laster il biar ebala, eta alan guztia larriturik inondik bere ezin artek arturik, bere besoak gora eregiten zituala esaten eustan: Ai Jauna! Zein beste modutan begiraturen deutsadan gaur munduari, orain artian begiratu izan deutsadan baño! Zein zoroa izan nazan! Il biar dot, larri nago; baña Jangoikoak alan gurata biziko banintz, gaur dakusdana ikusirik, mendiko atx bien erdira neure pekatuen penitentzia egitera joango nintzateke. Onantxe esaten eus-

<sup>12</sup> Osteen zuzenduta: *zituzana* > *zituzanak*.

<sup>13</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu aldaketa hau transkribatu: *Esperantza eta bildurren bitartian estuturik, agoniña larri baten sartu ta ilgo zera. Anbeste pena eta trabajuren erdian, apenas ilko zeranakiñ olgantzak, komedia, banerñila zere...*

<sup>14</sup> Osteen zuzenduta: *baña ikusirik guztia dala alperrik, egongo da guztia larriturik, guztia naigabeturik* > *baña guztia alperrik*.

ten gogoan ondo sartuta daukadan pekatari batek, bere eriotziak oraindiodio gazte zala artuta. (\*)<sup>15</sup>

Eta<sup>16</sup> ez egizu uste izan, pekataria, Jang(oikoare)n Juizioan zu sententziazeko denpora luzerik igoro biarko danik, emen munduan izan oi dan legez<sup>17</sup>. Munduko justiziako tribunaletan sententzia astun bat<sup>18</sup> emoteko beti igaro oi dira denporak, alan testiguak examinetan, zeinda presoari entzuten, eta legiak agin[du] oi dituen gauzak egiten; baña Jangoikoenian instante batian au guztiau egingo da. Bai, ez dozu onetan zetan ifini dudarik. Egunaren erdian zeure arpegia espilluaren<sup>19</sup> aurrian ifinirik, zeure arpegiko mantxak erakutsiko leuskizuzan baño bere obetuaigo erakutsiko deutsuz zeure falta ta pekatu guztiak, eta naitanaiezia esan bia[r]ko dozu zeuriak izan ziriala erruak. Baña au obetoago erakutsiteko, ondo izango da nik erakutsitia nortzuk izango diran Juizioa egingo dabenak eta zelan izango dan. Juizio onetara etorriko dira zure pekatuak, Jangoikoaren Lege Santua, zure konzienzia eta Diabruak<sup>20</sup>. Lelengojagiko da zure kontra Jangoikoaren Lege Santua; kexau ta kerellauko da Jesusen aurrian, Berari egiñeko kalte guztiaren satisfazkiñoa emon dagiozula. Eta alan jaigirik zure kontra Lege Santuau, esango deutso Jesuseri: Jauna, ni naz Lege Santua zukanik ain ederrik eta garbirik aterra nintzana. Nik pekatari oni erakutsi deusat Zu zariala guztien Jangoikoa, zukanik bere zorion guztiak artu dituana, eta orregatik Zu gauza guztien ganian maite izen zaizala, zure Izen Santuen kontra gauza deungarik esan biar ez ebela. Alperrik esan naiko deus gogorra eta gordezkorra ziniiala. Asko eta askok<sup>21</sup> onek<sup>22</sup> izan dituen graziak baño gitxiago<sup>23</sup> emonik, ondo jagon zatue. Testigu dira gaur Zeruan zure zorionak gozetan dagozan Santuak eta munduan gaur bizi dirian Justuak; baña pekatari onek (guztiak azpiraturik) zure graziara gorturik, egin dau nai dabena, guztira esker geztoakaz erantzunik. Blasfemadu dau zure Izen Beneragarrien kontra, zuk ondo gordetako jaijak pekatuan igaro ditu,

<sup>15</sup> Atal horretako albo oharra: *Illten zarianian*.

<sup>16</sup> Ostein erantsita.

<sup>17</sup> Ostein zuzenduta: *Jang(oikoare)n Juizio orretarako, denpora luzerik igoro biarko danik > Jang(oikoare)n Juizioan zu sententziazeko denpora luzerik igoro biarko danik*.

<sup>18</sup> Ostein erantsita: *sententzia emoteko > sententzia astun bat emoteko*.

<sup>19</sup> Alternantzia: *ispillu / espillu*.

<sup>20</sup> Ostein zuzenduta: *Juizio onetako testigu eta akusadoriak izango dire zure pekatuak, Jangoikoaren Lege Santua, zure konzienzia eta Diabruak > Juizio onetara etorriko dira zure pekatuak, Jangoikoaren Lege Santua, zure konzienzia eta Diabruak*.

<sup>21</sup> Idem: *askori > askok*.

<sup>22</sup> Idem: *oneri > onek*.

<sup>23</sup> Idem: *gitxiagori > gitxiago*.

gurasoai lotsia ausirik beti sentimentupean euki ditu; guraso izatera igorrorik fameliaren doktrinaren ardurarik artu bagarik, pekatuko bidian ikusirik, jaramonik egin bagarik itxi ditu. Gorrotoan sarturik proximuri ezer bere parkatu gura ezik eta al daben gatx guztia nondi egingo deutsen bizi izan da. Seigarrengoan pentsamentuko atiak zabalik, obrazkoai parkatu bagarik, abereegiñoakaz, guztia gizon baño abere geiago zala esan geinkiala, orain artian bizi izan da. Zazpigarrengoan, lapurreta andiak, irabazi bidebagekoak, saldu-erosietan engaño andiakoakaz aberastu da. Zortzigarrengoan, testimonio falsoak guzurraz beterikoak, askori ondasunak, kreitu eta ondra guztiak. Eta beste pekatu-modu guztiak izan ditu.

Au izan da, Jauna, (esango deutsa Legiak Jangoikoari) pekatari onen bizimodu guztia: gauza onik egin bagarik, pekatuz itsuturik. Justua da, Jauna, berori eta bakotxari bere obran saria emoten dakiena. Emon, bada, pekatari oni, gazte libria, ezkondu eskandalosoa, alargun desonestoa, aberats kudiziosoa ta biotz gogorrekoa<sup>24</sup>..., bere pekatuen saria, berorren arrigarrik sententzia. Au da, pekataria, Legiak zure kontra jaigirik esango dabena. Baukezu zer erantzunik, zeinegaz guzurtau al ziñaikian Legiak zure kontra esaten dabena? Zer diraustezu zuk zure bizi guztian gauza on bat egin ez dozuna? Zu, gizon ta emakume munduak ontzat eta kreitu onian zaukezana, baño zeure biotzian anbeste isilleko pekatu urte luzetan agertu bagarik, Jangoikoaganako baltzitu ta zauriturik zagozana, erantzun egiozu, zer erantzunik badeukazu. Apenas Legiak egin izango daben pekatariaren kontrako akusaziñoa, orra non agertuko diran Zazpi Diabru bere kontra, euren testigentzakaz ontzat ematen dabeela Legiak esan dabena. Jaigirik lelengo Soberbijarena, esango dau: Beti pekatariau izan zan humildaderik erakutsi ez ebena; soberbijaz beterik inori parkatu gura ezik, emazte eta seme-alabai sentimentuzko bizitza emoten eutsena; guztiai agindu gurekoa, eta agintaritasun bidebakoakaz auxi geztoak arturik, bere etseko ondasunak eta erriko onure ta probetxu guztiak bere eta besteren tripan sartu ta ondatu dituzana, kontu ez añ zuriakaz besteren ondasunak beraganatu dituzena. Au ta geiago Soberbijarenak esanik, agertuko da Luxurien diabrua. Eta onek bere, jaigirik Juezen aurrian, agertuko deutzaz asi gaztetasunetik eta zartzaroz erkindu artegiñoako egin zituan pensamentuak, bere gaztetako ibillera peliburuzkoetan eskuka<sup>25</sup> loiak, bere buruagaz eta besteren gorputzagaz egineko obrazko pekatu, baita gustu-atsegiñak,

<sup>24</sup> Osteen erantsita: *pekatari oni > pekatari oni, gazte libria, ezkondu eskandalosoa, alargun desonestoa, aberats kudiziosoa ta biotz gogorrekoa...*

<sup>25</sup> Geuk zuzenduta: *eskukaz > eskuka.*



anbeste bider aberia zantarrakaz egin zituen lotsagarritzko pekatu, eta biarbada iñoz ondo konfesau ez dituanak; baso eta soloetako lanetan bere, lagun artian konbit eta batzarretan, besteri barre ereingo eutsan atxakiagaz esan zituana eskandaluko gauzak ekarriko deutzaz aurrera, one[e]k ziriala medio galdu zirian proximuak. Eta guztia berba baten esatiarren, espilluan bere buru ifinirik, bere gorpetzeko<sup>26</sup> faltak erakutsiko leuskiozan baño bere argiagorik, an zuri, Seigarrengoan añ eskandaloso izan ziñana, erakatsiko<sup>27</sup> deutzaz guztiak, Zazpi Diabruak, bakotzak bere Pekatu Kapitalen kontrako pekatuak Jaunaren aurrian, pekatari tristiaren aurretik erakutsirik.

Azkenian, guztiak alkargana erabatera baturik jaigiko dira eta Juez aserriari esango deutse: Jauna, zuk ondo dakutsu gure testigentzaren arteztasuna. Ezaututen dozu bere ez giniala gu, Zu legez pekatari onegatik eriotzara anbeste zauri, azote eta mingorrez beterik igoro; doadoarik, zorion askoren promes bagarik, gustu-atsegin axia legez igaroten jakazan gauzakgatik Zu alde batera itxi eta gu serbidu gaitu; ondo ekien onek gure zorionak eriotziagaz igaroko jakazana, eta ondoren betiko zorigaiztoko izan biarko ebena. Artu ditu munduan guk aginduako gustu-atsegiñak. Orain falta da Zuk betiko tormentuak emotiak, bere pekatuen zariak. Zuria izan bada Zuk egin zendulako, zeure bizitza galdurik Zeruko atiak idigi zeuntsezalako, guriak izan biar dau, pekatuakaz Zeruko atiok itxirik gure aginduak egin dituelako. Betor bada, Jauna, bere pekatuen saria betiko zorigaizto egingo daberen sententzia onen ganera.

O zein larri andiak artuko daberen ordu triste atan pekatariaren biotzak! Begiratuko deutso Angeru Guardiazkoari, baño bere bizian aztuta bizi izan zalako aztuko da pekatariagaz; eta ondo egin gura izan arren, ez ikusirik pekatari onetan obra onik, arpegi illunagaz begiratuko deutso. Joango da Zeruko Santu-Santa guztietara sokorru billa, baño erakutsirik one[e]k, bere eskandaluak ziriala medio, Zeruan eurakaz batera egon biar eben asko galdu zituala, esango deutse joan dedilla bere pekatuakaz bete eben anbeste lagun artera, Infernuko su goritara, asetu dedin are[e]k kaz tormentoz emen pekatuzko atsegiñez asetu zana. Bior-tuko da Mariagana; plegaria andiak egingo deutzaz, esaten deutzala, arren beragaz Ama errukitsua, arerijoen eskuetati librau ko dabena izan dedilla. Baña alperrik guztia; negaturik, desesperaziñoz beterik esan biarko dau: Ai ene larria, zein andia zarian niretzako! Niriak dira erruak. Askotan deitu eustan, ez neutsan erantzun gura, eta orra non eldu dan

<sup>26</sup> Alternantzia: *gorputz* / *gorpetz*.

<sup>27</sup> Idem: *erakutsi* / *erakatsi*.

ordu larriau, beragana biortuten ez banintzan jazoko jatala esan eustanau. O pena andia niria, Infernuak berak baño pena geiago emoten deustana, Amarik onena betiko galdu biar izatia! Nor enpeñauko da, Ama enpeñetan ez bada?

Ikusirik Mariagan bere laguntasunik ez daukala, azkenez biortuko da Jesusgaña. Esango deutso: Posible izango da ni er[re]medio bagarik galdu biar izatia? Zure zauriak, zure azotiak eta beste Pasino Santuko merezimentu miragarriak ni salbetako beste inder eukiko ez debe? Bai, orrenbesterako eta geiagotarako inder dabe eurekaz baliau gure izen dabentzako, baño ez arako eurekaz baliau deitjala anbeste bider deiturik, beste anbeste burle egin debentzako. Gortuko naz zure deietara<sup>28</sup>, gogortuko naz zure negarretara, eta itxirik nire miseriardiaren atiak, emongo dot zure kontra anbeste bider lenago nigana biortuten ez baziñan, emongo neuntzula esan neuntsuna. Onelan, guztia aserraturik, bere begiak zentella bizira biorturi[k], bere aoa suzko errekaturik, bere min santua ezpata bizi eginik, emongo dau arako sententzia betiko zorigaiztoko egingo dabena, (esaten deutsal: Zoaz niganik, madarikatuori, nire arerio eginik zure pekatuakaz irabaziko lekura, Infernuko surtara. Eta onegaz batera, arako aberats kudiziosoa leg[ez]) eroan eben baño lenago eta prisa geiagogaz eroango dabe Infernura. O sententzia arrigarria, beti-betiko, Jangoikoa Jangoiko zan arteko, eternidade guztirako Jangoiko bage egon biarra! Pekatuan zagozenak, arren, añbat lasterren atera zaiteze pekatutik; arren, anbat lasterren biortu zaiteze Jaun amoroso, ez zuen eriotzia, ezpada betiko bizitzia opaka jagotzuen Jesus maitiagana. Bai Jesus ona, bai Jesus lastana, ondo ezaututen dogu Zuk gugaz orain kontuan<sup>29</sup> sartu gaitian gure bazendu, zer erantzunik ez daukegula eta len zuri egiñeko pekatuak negaturik etorri gaitian zugana gure dozula, onelan ez gure kastigua, ezpada zure bedeinkazioa merezidu izan dagigun. Pekatariak izan gara; bai Jauna, zu aserratu zaitugu, baño gaurrik aurrera damaturik guztiok zugana biortuten gara. Esperantzia dogu Zu gugaz errukituko zariala eta ez Juez aserria, ezpada Aita amoroso izango zariala; esperantza onegaz fede bizi[z] beterik gatoz zugana, eta artu gagizuz arako Seme Galdua artu eban legez bere aitak, jantzi egiguzu graziaren soñeko garbia kendurik pekatuzko jantzi geztok.

An soberbiarenak, zure gogortasunagaz, zure emaztiari, hume ta otsainari emoneko gogortasun ta bizitza geztok; an inbidia ta gorrotoarenak, zure auziak, zure prozesook, zure testigu guzurrazkoa; an luxuriak, zure pentsamentu, deseo, obra ta eskandaluak, askori eragineko

<sup>28</sup> Ostean zuzenduta: *deitara* > *deietara*.

<sup>29</sup> Ostean erantsita.

negarrak, eta an beste ganekoak<sup>30</sup>. Onelan, eginik zure kontrako akusazinoa batuko dira.

[HASIERAKO ERANSKETAK]

San Bernardo juizioau nolakoa izango dan konideratzen zegoan okasio batian, presentatu zitzaon iduri bat, Demonioa bera akusatzen bazegoan bezela, esaten ziola Jesus Juez dibinoari: Jauna, au da Bernardo eta ohea bere obrak examina itzatzu ondo. Onen bistan, guztia bere onetik irtenik jarri zan eta beregan jarri zanian, esaten zion bere buruari: a Bernardo miserablea, ba[[]din juizio onen iduru edo pensamentuak ainbeste larritu bazaitu, zer izango zuzaz orduan, edo zer eranzungo diozu Demonioak Jaunaren aurrean egingo dizkizun karguaz<sup>31</sup>?

Gazte libria, ezkondu eskandalosoa, alargun desonestoa, aberats kodizioso eta biotz gogorrekoa, anbeste Jaunaren dei ta guzti bere pekatuai itxi gure ez deutzazuna; zer erantzungo deutzazu orduan? Zeure pekatuak, zeure eskandaluak agoa tapaurik geldituko zara. Eta denpora berian, nox bildurtuagorik zagozan, orduan agertuko dira beste Zazpi Diabru, zazpi Pekatu Ka[p]italak, bakotxa berian zure kontra. An Soberbiarenak erakutsiko dituz...

[AMAIERAKO ERANSKETAK]

Bai, alan da, pekataria. Nire amodioak obligadu eban Jangoikoa zure Aita Adan parkatutera, Noe Patriarka Santua Uriolati libretara, Lot Sodomako sutatik, Daniel leoien agin artetik; eta nire amodioak guztiak. Amodio berau erakutsi deutzut, askotan deitu, konbidau eta erregutu deutzut, baña beste anbeste biderretan burlatu nozu, blasfemadu nozu; orregaitik ez zure (...), bai (...).

<sup>30</sup> Osteen aldatutako atala: *An soberbiarena, eta bere bidez zure emaztiari, zure fameliari, zure auzoai egineko, zuoi egineko gogortasun eta pekatuak, inbidia zala medioko deungaro egiñak; an kudiziagaz batuko irabazi bidebageko ondatsunak, an bestiari egiñeko kaltiak; an luxuriazko pensamentuak, an berba desonestuak, an deseok, an ipuñak, an eskugazkoak, an zure gorputz]gazkoak; an bestiari kenduko kreituak, an auzo eta erriko eskandaluak > An soberbiarenak, zure gogortasunagaz, zure emaztiari, ume ta olsainari emoneko gogortasun ta bizitza geztoak; an inbidia ta gorrotoarenak, zure auziak, zure prozesook, zure testigu guzurrazkoa; an luxuriak, zure pensamentu, deseo, obra ta eskandaluak, askori eragineko negarrak, eta an beste ganekoak.*

<sup>31</sup> Beste esku batek idatzitako atala.

Orduan, biarbada konsideratziak zu baixen pekatari andiakoekin errukitsu ta miserikordiosoa izan zala, poztuko zaitu; baña, zu baixen askoz obeagoak kondenatu zirala pentsatziak] bildurtuko zaitu. Poztuko zaitu Madalena salbatu zala (...)le izatiak, eta bildurtuko zaitu Judas Apostolo[a] izanagatik kondenatu zala. Poztuko zaitu Manases Erregia munduan izan pekataririk andiena salbatu zala, eta bildurtu Saul kondenatu zala.

Esperantza ta bildur one[e]n bitartian...

## INTRODUC[C]IÓN PARA LA MISIÓN

Viva Jesús

*Convertimini ad me, et convertar ad vos.* Zach. 1, 3<sup>1</sup>

*Primero*<sup>2</sup>.– O ze denporak gure aldikoak, N(eure) K(ristau)ak! Bete-betian atrapetan gaitu Isaias Profeta Santuak Israelgo erriari bere pekatuakgatik etorri biar jakazala esan e[ult]sezan kastiguak. Jangoikoak desegingo dau bere erria, atsakabe eta kastiguaren indarrez bakartuko dau guztia. Erriak eta sazerdotiak, uezaba ta otsañak, pobre ta aberatsak, ezkondu ta libriak sari bardiña izango dabe, zegaitik guztiak bardin Jangoikoa ofendidurik, guztiak kastigu bardiñak artuko ditu. Isaias Santoa[k] Jangoikoaren ordenaz Israelgo erriari bere pekatuakgatik etorri biar jakazan kastiguak esatian, nonbait ikusten zeunden errionetako pekatuak, bada, Españari<sup>3</sup>, Jangoikoaren erri maite oni, gure aldian etorri biar jakazan kastiguak ikusten zengozan. Bada, posible ez da zuk egi-ten deuskuzun irudia baño ederragorik egitia.

*Segundo*.– Bostgarren urtera goaz Jangoikoak gerra gogorregaz kastigetan gaituala. Ikusi doguz gure kanpo ederrak, etxeak sa(...) galdurik<sup>4</sup>, laboriak ebagi ta ostikopian zapaldurik, bertako semiak illik; guztiok pobrezarik andienara ekarri gaitu, ez dogu ikusten miseria ta pobrezazko ikusgarri bat baixen. Ez gaitzezan joan erri asagoetara kastigatzale one[e]n billa. Pekatutik erneriko gizon Jangoiko bagiak agertu dira gure errietan, eta azturik gure gurasoak Apostoloakgandik arturiko Lege ta Doktrina Santoa, erejia ta eskandaloaren maixu egin dira: ipini di[tu]lbe eskola gaiztoak, azi ditube euren irudiko dizipuloak, eta zabaldurik erri guztietatik euren doktrina okerrak, etorri dira Erlijiño Santoa gure eskue-tatik kendu gure izatera. One[e]k il ditue gure anaiak, zuben semiak, sazerdotiak, erre erri ta elexak, ostikopian zapaldu gure erlijio santoko Sakramento Beneragarria.

<sup>1</sup> Geuk zuzenduta: *Isaice 24 > Zach. 1, 3.*

<sup>2</sup> Ostean erantsitako atalburuak.

<sup>3</sup> Ostean erantsitako esaldia: *nonbait Españari > nonbait ikusten zeunden errionetako pekatuak, bada Españari.*

<sup>4</sup> Ostean zuzenduta: *Kanpoak galdurik > Ikusi doguz gure kanpo ederrak, etxeak sa(...) galdurik.*

*Tercero.*— O España, España! Erri katoliko ederra, orañ arte guztian Jangoikoaren masti santoa izan zerana, bere eskuakin ipiñia, bere izardiarekin bustia! España, fediareen defenzalle ederra, Elixaren porziñorik onena, Zeruko anbeste grazia santoz aberastua! Nork esango zuan zure edertasuna galdurik bazterren burlegarri egiñik ipiñiko zinala? Nondik etorri jatzuz kalte guzti onefe]k? Ai! Nok neure buruari eman leion ura, nere begiai negarra, gau ta egun negar egiteko zuri etorri jatzuzan kaltiak! Baña, zer gitxiago etorri biar jatzun zure Jangoikoz aztu bazera? Naitenaiezian etorri biar jatzuzan kalte guzti onefe]k, Espiritu Santuak Jangoikoagandik apartetan<sup>5</sup> dirian erriai etorri biar jakazanak. Bada, bere esana da: Adituten ez badozuz nire d]eliak, gordetan ezpadituzu nere Mandamentuak, jausiko dira zure ganera kastigu andiak.

*Cuarto.*— Eta guk, Españolak, aditu ditugu Jangoikoaren deiak? Gorde ditugu Jangoikoaren Mandamentuak? Beste lekutara joan bagarik esan begie, Durango, zure eskandaluak, zure oker guztietarako lizenzia pekatuzkoak, gau ta egun, ixillik eta agirian Jangoikoari egiten deutzazuzen opensak<sup>6</sup>. Pekatu onen ke ta garrak igon dabe Zeruraño eta deardarka dagoz eskatuten zure kontra bengal]za. Bai, Jangoikoak Zeru altotik egin dau Españara begirakuna bat eta ikusi ditu bertako pekatuak. Ikusi ditu erriak kostunbre santoz galdurik, gizonik andi ta aberatsenak erlijjiño bagarik, sazerdotiak deboziño otziturik, enbrak modestia ta onestidarez azturik, askoren animen lakio eginik, moda guzti ta baneriarekin<sup>7</sup> beren etsiak pobreza ta tranpaz beteten dituela. Ikusi ditu ezkonduak eskandaluan, gurasoak beren umeren<sup>8</sup> arduraz azturik, seme-alabak lotsabageturik, eta justiziak biar dan besteko arteztasunik ez duela. Nola bada, ez dira (...) ? Iku]s]i dau geiago; ikusi dau erregerik justuena gizon Jangoiko bagiakgandik, Dabid Santua denporan legez, guztiz persegidua, bere birtutiai jarraitu biarrian, erriak eta soldaduak, guztiz urrutik birtutetatik bizi diriala, ixillian ta agirian, berbetan ta obretan eskandalua besterik erakutsiten ez dabela. Pekatu onen anditasunak igon dau Zeruraño, aserratu dabe Jangoikoa, eta bere aserrian atera dau bere ezpata ago bikoa eta kastigadu dau bere erri Españako maitia. *Et ideo iratus est furor domini in Populum suum*. Pekatu guzti onen sariak dira gure solo eta kanpoetan ikusten diran kaltiak; onek erre ditu erri ta elexak, il zuben semiak eta sazerdotiak, eta onek ostikopian zapaldu gure Sakramento Altarako Beneragarria.

<sup>5</sup> Ostean aldatuta: *etorri]i* > *apartetan*.

<sup>6</sup> Ostean zuzenduta: *openak* > *opensak*.

<sup>7</sup> Idem: *guztiai ta banerai* > *guzti ta baneriarekin*.

<sup>8</sup> Jatorrizkoan: *bume*.

*Quinto.*— O neure Jangoiko amuditsua, ze errazoa andiagaz asarratua ikusten zaitudan gure kontra! Zeñ justua zuk biraldu deuskuzun kastigua! Gure pekatuak, Jauna, guztia merezidu dabe, autorten dogu zure aurrian. Ordu onian kastigadu gaixuz, ez dogu gitxiago merezi. Baña, Jauna, akorda zaite zure aserrian bere miserikordia egiten dakizula. *Etiam cum iratus fueris misericordia recordaberis.* Alan egin zendun Manases Errege oker guztietan parerik bagiagaz, eta ber[el] pekatuak katiatz beterik presondegi batian ipini beben bere, orregatik ezautu ebe-nian bere pekatu andiak ala ipini ebela, kontriziñoz beterik negarrez propositu santuak egiten ikusi zenduanian, errukitu zinan eta salbadu zenduan. Alan egin zenduan Ninibetarrakaz, noz kastigurik andienak bere ganera etorri biar ziran, orduan biraldu zenduan Jonas Profeta Santoa, noren predikazinoaz guztia bildurturik etorri ziran penitentzia egite-ra sekula munduan anbestekorik ikusi ez zan bestekoa, asi Erregegan-dik eta atzenengo pobrerik mendekoginokoak, iru egunian ezer jan ez edan bagarik, autsez ta zilizioz betiak sepultura-ganetan etxunik negarrez ta llantuan, miserikordia arkantzatu eben. Alan bada, Durango, Niniberi pekatuan zuk jarraiturik, are[eli] negarrian ta penitentzian jarraiturik, miserikordia egun Jangoikoak opa deusuzan onetan irabazitera prisa artugizu.

*Sexto.*— Andia izan bazan Ninibegaz egin eban miserikordia, ez zan txi[kila] Seme Galduen irudia esaten deuskuna. Jesukristok, S(a)n Lukasen bidez, esaten deusku aita batek seme bi izan zituala eta gazteenak aitari senipartia eskatu eutsala. Aitak oker gastauko ebala igarten beban bere, eman biar izan eutsan. Arturik semiak seniparteko diruak, iges egin eban erri asagoetara eta an emakume zantarrakin gastau zituzan. Apenas diruak gastau ta miserian ikusi zan, goseta andi bat erri atan sartu zan eta gosez ilteko zorian ipini zan; baita gosez il biarrari gogor eretxirik, uazaba billatuten asi zan, eta uezabak, opiziorik ez ekialako, laguñekoak gorde edo zainduten biraldu eban. Añ gurariz beterik bere aitarren etxian azi zan seme oni, gosiak illik laguñekoak zaintzen bizi biarra gogor egiten jakan. Eta alako egun batian, bere miseriar[el]n erdian kontuak ateraten asi zan, eta esaten eban bere artian: o zenbat alogerekok nire aitaren etxian ogia nai ezik isten daben, eta orra ni añ etxe oneko semia gosiak il biar nau!

*Séptimo.*— Ondo ezaututen dot neuria dala erru guztia, ondo gogon sarturik daukat neure aitak zelako errekuak egin eustazan, ez neiala alakorik egin. Nire galdubiarren sentimentuz aita negarrez isten nebala iges egin neban etxetik. Beragatik etorri jatazan kaltiak ondo merezidurik daukadaz. Aitari emaneko sentimento ta guzti bere, nik ondo dakit zeñ bigunak dirian nere aitaren erraiak. Urtengo dot, bada, erri gosez

beteriko onetatik nere aitaren etserako, eta esango deutsat, arren, semeztzat artzia merezi ez badot bere, gosez il ez nadin amodioz, arren, alo-gereko bat legez artu naiala. Sentimentu one[e]k az etorren seme galduau bere aitaren etserako, eta orra non bere aitak etse ingurura eldu orduko erreparetan dautsan. Ur teten da semiagana, etxun semia negarrez aitaren oñetan, eta negar-malkoa zeriola dirautso aitari: Aita, pekatu egin dot Zeruaren aurrian zure kontra, ez dot nik merezi zuk ni etxian artzia seme, orregatik errukiz, gosez il ez neitian, arren, artu nagizu. Baita aitak esku bat az jasoten ebala ta bestiaz besartiaren kontra estuturik dirautso: Erdu, ene semia. Eta apenas etxe inguruan sartu, dirautse otsaiñai: Agudo, ekarri nere seme oni jantzirik onenak, zapata barriak, eleztuna bere atzamarrian, eta txalik gizenen bat illik piesta andi bat egin dagigun; bada, nere semia galdu zan ta agertu da, il zan ta biztu da.

*Octavo.*— Pesta andi onetan aita ebillela agertu zan semerik zarrena, etseko erederora, eta etsian sartu baño lenago asmau zituanian ango soñuak, ango dantzak, eta esaten eben: zer da gaur gere etxian iñoz ez legez gertatzen dana? Eta zer ete ziran soñu ta fiestak jakin artian, kanpoko aldetik gelditu zan, eta orra non bere otsañ bat agertu ta itendurik zer ete zan, erantzun eutsan: Ez dakizu zergatik diran fiesta andiok? Zure anaia agertu da, eta zure aitak ikusi dabenian datorrela etxe ingurutik, bidera urten deutso eta pozen pozez negaturik ekarri dau etsera; eta orandio sartu baño lenago esan deusku jantzi barriak arentzat ekarteko, zapata ta eleztunez apañduteko, txalik gizenen bat il fiesta andi bat egiteko, eta zure anaiaren etorrerako fiestan gabiltz. Seme zarrenak otsa-ñagandik au entzutian sentimento artu eban, eta sartu nai ezik kanpoan gelditu zan; baita jakinik aitak zer igoroten zan, urten eben kanpora eta begietatik negar eriola esan eutsan: Erdu, nere semia, etsera; nere [e]txeko ondasunak zuriak izan dira ta izango bere, zuk beti nire agindura egon zara eta erdu barrura. Orduan semiak aitari: Ez jauna, ez naiz sartuko barrura. Nik beti ondo lagun egin deutsut, beti neke ta lan guztiak neurriak izan dira, orregatik bere sekula ez deustazu emon bildostxu bat neure lagunakin piesta bat egiteko; eta orra non nere anaia etxe-galtzalia agertu daneko, txalik gizenena il ta fiesta andi orre[e]k egiten dozuz? Ez natxatzu etxian sartuko. Orduan berriz aita: Ai nere semia! Zer gitxiago egitia zure aitak nai zenduan? Zure anaia, nere semia, nik aspal-dian galdutzat neukana agertu da; ezin gitxiago egin neunkian. Erdu, bada, zureak izango dira guztiak; poztu biar zera bere etorreran, ez dozu probetxurik au galduarekin. Onela, bigundurik sartu zan etxian, alkar laztandu eben, eta atseginez piesta au akabatu zan. Eta zer deritxazue Jesukristok begien aurrian ipiniten deuskun Seme Galduagazko aitaren erruki oni?



*Noveno.*– Ez besterik ezpada irudi bizi bat Jangoikoak beragana biortuten diran pekatari galduenena beragana biortuten danian. Zugaz dau, pekataria, aspaldian zure Aita Zerukoan etxetik iges eginda zantarkeria lotsagarritzkoetan bizi zareana<sup>9</sup>, zuri pekatuz lotsagarritu orri esaten deutsu, zure oker eginak damaturik eta [a]jurrera bizitza santu bat egiteko proposituz bazoaz, dirautsu, zure oker guztiak azturik, artuko zaitu- la eta Seme Galduarekin aitak egin ebana egingo dabela. (\*)<sup>10</sup> Ez nere K(ristau)ak, ez zaitube<sup>11</sup> orandik Aita Zerukoak aitzu<sup>12</sup>, eta zuben<sup>13</sup> pekatuakgatik bere ziorragaz kastigetaz bazaitue<sup>14</sup> bere, zuben miseriaz errukiturik nere laguna ta neu zuegana biralduten gaitu, bere erri<sup>15</sup> esko- jidura beste denpora baten Profeta Santuak biralduten zituan legez. Eta ez uste izan gatozela zuben kontra aserraturik, eta bai biotz errukiorra- kin zuben pekatuen gaixoetatik osatu nairik; ez zuben pekatu ta mise- riaz zuben kontra aserratuteko, eta bai zenbat gaixoagorik billatuten zai- tuguen, anbat erruki geiago izateko, pekatuai itxi nai badiozube. Jangoi- koak biralduten gaitu zubekana obediencia santuaren bidez, Zeruan zuben ipiniteko... Ea bada, neure biotzeko pekatariak, beragatik N.arra[k] zuben artian<sup>16</sup> egon aleitekian galduena izanagatik bere, baliu zaiteze Jangoikoak egun onetan opa deutsuen graziagaz bizitza barri baterako. Onelan, S(a)n Pablo Apost(olo)ak exortetan zituben Korintoa- rrak: Ez arren, zirautsen eurei, ez arren alperrik galdu, neure anaiak, Jan- goikoak miserikordiaz biralduten deustuben graziau. Eta baldin zuben pekatuen anditasunak bildurturik bazeukez, akordau zaiteze zeñ andia dan Jangoikoen miserikordia; ez dago bere miserikordiak desegin ezin leikian pekatuak, andiak izan arren. Eta obetuago<sup>17</sup> zuben biotzetatik kenduteko pekatuak ipini aleikian bildurra. Eskubide andiakaz gatoz zuben erritik urten bagarik parkatuak gelditu zaitezen; eta onegaz bate- ra, Elixia Ama Santiak bere induljenzia andiak opa deustubez zuben pekatuen zorra pagetako, zuben aldetik egiten badezu[e] alegin santu bat irabaziteko, etorririk eta biraldurik zuben ogitako ta umiak<sup>18</sup> misiño

<sup>9</sup> Ostean erantsita: *zantarkeria lotsagarritzkoetan* > *zantarkeria lotsagarritzkoetan bizi zareana*.

<sup>10</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Ze mis...*

<sup>11</sup> Ostean aldatuta: *gaitu* > *zaitube*.

<sup>12</sup> Alternantzia: *aztu* / *aitzu*.

<sup>13</sup> Ostean aldatuta: *gure* > *zuben*.

<sup>14</sup> Idem: *bagaitu* > *bazaitue*.

<sup>15</sup> Ostean erantsita.

<sup>16</sup> Ostean zuzenduta: *Zuen artian* > *Beragatik N.arra[k] zuben artian*.

<sup>17</sup> Ostean erantsita.

<sup>18</sup> Ikus 8. oharra.

santura. Eta Jangoikoen erruki ta miserikordia pekatariakgazko andia ta ezin esanezko izanagatik, orregatik bere konfiantza geifelgiz galdu ez zaitzan<sup>19</sup>, esan biar deutsuet Jangoiko beraren partez, Jangoikoak egun onetan opa deutsuben eskubidea pekatue[ta]tik libre geldituteko galduten badozube, eskergeztokeria orren saritzako jazo lekizuela betiko galtzea. Zergatik diñoan Jangoikoak: Nik pekatariari, salbau dedin amodioz, opa deutsadan grazia ta eskubideau alperrik galduten dabena, dudarik gabe galduko da.

Jangoikoaren miserikordiazko konbit eta bere justiziaren sentenziaren aurrian, zeñ zuben artian atzeratu eta betiko galtzeko zorian ipiniko da, pekatuak ondo konpesauaz, bizitza barri bat artu ezeitiagatik? Esan egidazu: gaixo andi bategaz ilteko zorian egon bazina, eskubide osoagaz zeuk nai dozunian osasuna artzeko, atzeratuko zenduka osasuna artzia egun batetik bestera? Ezetz diraustazu. Zegatik bada, aspaldian gaixorik animan egonik, betiko ilteko zorian, eta Jangoikoak zeure eskuan ipiñirik osasuna, geroko isten dozu? Ez dantzuzu Jangoikoak erreguz, zurekin erreguturik, esaten deutsula: Erdu nigana, pekatuen karga pisupian bizi zareana, Nik arinduko dot karga pisuori, Nik kenduko deutsudaz zure gaixo guztiak, Nik garbituko ditut zure pekatuak? Zer dei errukiorragorik? Ez dirautsu: Nik parkatuko deusat onenbeste edo anbeste egin dabenari. Ez dino: Nik parkatuko deusat Seigarrengoan argaltasunen bat izan dabenari, baña ez abere zantarrakaz, ezkonduakaz oker bizi izan danari. Ez diño onelakorik, ezpada bete-betian damuturik erraiak zubekganako bigundurik, parkatuak geldituko zareala. Ez uste izan pekatuz betia egonagatik Aita Zerukoa zugazko aiztu dala, eta zeure pekatuakgatik aspaldian kastigetari bazaitube bere, zuben miseriaz errukiturik, neure lagun ona ta neu zubekgana biralduten gaitu, beste denpora baten Profeta Santuak biraldu oi zituen legez bere erri Israelgora, bide okerretatik apartaurik bide santuetan ipiniteko.

Egia da gu baño obiagoakaz balia zeitekiala erri oni bere borondatiak erakutsiteko. Baña beti Jangoikoak gauza utsakaz, munduak antzekotzat ez deukazanagaz baliau izan dana legez gauzarik andienetarako, arrantzalla simple batzukaz, munduko jakituria, poderio ta anditasuna deseginik mundu[a] konbertietako, ala gugaz bere, nonbait, balia gura da zuen santifikaziñorako. Ez uste izan gatzela zuben kontra aserraturik, ezpada amaren semerik maitenaganako izan oi dituben erraiak bigundurik; zenbat gaixoago, zenbat galduago, orduan bigunagoturik benetan osatu nai dabenentzako.

---

<sup>19</sup> Ostean erantsita: *ezin esanezko izanagatik > ezin esanezko izanagatik; orregatik bere konfiantza geifelgiz galdu ez zaitzan.*

Biortu, bada arren, egun onetan zuben Jangoikoagana, bere aserrian bizi zaren pekatariak; misiñoko egunak dira onetarako onenak. Itxi, bada, pekatuak; erontzi aspaldiko pekatuzko jantzi zar lotzagarriak eta jantzi Zeruko jantzi santuz. Biortu zaiteze nigana, diño Jangoikoak, ta ni biurtuko nai[z] zuebakgana. Ez al dira asko orangiñoko pekatuak, gure pekatuakgatik biraldu deuskuzan peste, gerra, eriotza ta beste plaga deunga guztiak? Baietz uste dot, eta au da ere Elix A Ama Santiak zubekgandik esperetan dabena; onetarako biralduten deustube misiño santuau. Españolarik geiena, guztia ez esati[ar]ren, ia erlijiño bagarik ikustean, au guri Euskaldunoi egitea parerik bageko errukia.

Ze amodioz betia Ama Elix A Santa zuekganako denpora ontan! Ez bakarrik parkatu nai deustubez pekatuak, baita bere aberastu induljenziakin. Induljenziak dira aberastasun batzuk Elix A Ama Santak Santuen Komuniñoko kutxan gordeta daukazanak, errazago pagetako pekatariak Jangoikoari egiñako zorra, eurakaz balia nai dabena. Bi modutakoak dira induljenziak: parzialak, pekatuen zorren partia pagetan dabena, eta plenariak, au da pekatuaren zorren pena guztiak pagetan dabena. Lau induljenzia plenaria dira orañ irabazi zinaiezanak: lelegokoa, edozenbere misiñ[ol]ko egunetan konpesau ta komulgaugaz; bigarrena ta irugarrena, Komunio jeneraleko egunian; laugarrena, Animen egunian. Onezaz gañera... Biortu zaiteze Jangoikoagana zuben biotz-biotzetik; misinozko denporia da onena onetarako. Itxi pekatuak, erontzigizue aspaldiko pekatuen ekandu zantarrezko jantzi lotsagarriak eta jantzi zaiteze Zeruko jantzi santoz. Konbertidu zaiteze nigana, dino Jangoikoak, eta Ni ere konbertiduko naz zubekgana. Animadu zaiteze, aspaldian lotuta zaukezan pekatuzko katiak urratu egizubez. Durango, urten, arren, pekatutik, itxigiozu zure bide pekatuzkoai<sup>20</sup>, zure isilik eta agirian egindako eskandaluai, nondik etorri jakuzan ikusten ditugun kastigu ta azote guztiak. Elix A Ama Santiak ere onetara exortetan zaitube, opa deutzuezala borondate andi bategaz Zerutiko aberastasun andiak.

*Décimo.*— Lau induljenzia plenaria denpora santo onetan irabazi zinaiez: lelegokoa, edozenbere misinoko denpora edo egunetan, edozenbere elixatan konpesau ta komulgaugaz; bigarren ta irugarrena, Komunio jeneralako egunian, bat egunatarako, bigarrena eriotzako artikululu edo peligrurako, biotzez ezin bada, aoz Jesus ta Maria Santisimaren izen gozoak esanaz; laugarrena, animaren funziñoa egiten danian. Eta egun onetan elixa onetako altara guztiak pribilejiozkoak izango dira; eta au irabazi leike beste edozenbere elixetan konpesau ta komulgau-

---

<sup>20</sup> Osteen zuzenduta: *pekatukoai* > *pekatuzkoai*.

gaz, baña induljenzia au irabaziteko elixau bisitau biarko da, eta onetarako asko izango Sakramentoren estazino santua arimen sufrajorako egitia. Sazerdotiak bere irabazi... Beste induljenzia parzial asko irabazi ziñaike, eun egunekoa doktrina bakotxeko; berr[e]un egunekoa, zuben otsañ edo umiak<sup>21</sup> biralduten badozuez. One[lek] guztiok Aita San N.N. arimen onerako eta pekatari gaixoak animetako emonak dira. Obispo N. ere... Beragatik, etorri... Badakit denpora estuak diriala, baña badakit erriak premia andietan dagozala, eta biderik onena Jangoikoaren zijorra altzetako, kostunbre zantarrak errietatik kendutia eta pekatuetatik urtenda Jangoikoagana biortzia.

Ea bada, esperan[za] santua daukat ala egingo dozuela. Aurrera... Abe Maria.

#### [HASIERAKO ERANSKETAK]

*Convertimini ad me, et convertar ad vos.* Zach. 1, 3<sup>22</sup>

Biortu zaiteze nigana eta ni biortuko naiz zubekgana, esaten zion antxina Isaias Santoak Israelgo erriari. Eta zer itz obeagorekin baliatu ninteke Garizumako denpora santo onetan zubei esaten, Profeta Santo onen itzakin<sup>23</sup> baño? Denpora guztiak Jangoikoa amatu ta serbitzekoak badira ere, orregatik Garizumakoa izanik apartekoa, zeñean iñoz baño geiago konsagratu biar geran Jangoikoaren serbitziora, beragatik<sup>24</sup>, gaur guztioi baña geiago urte guztian pekatuan bizi zeranoi, esan biar dizuet Profeta Santoak Israelgo erriari esaten ziona, biortu zaitezela denpora onetan, len pekatuan zaudenoi. Zarauzko erria, aspaldian Jangoikoaren aginduetatik igesi bizi zerana, biortu za[i]zela esaten dizu Jangoikoak, eta baldin biortzen bazera, Bera ere zugana biortuko dala; baña len bezela aurrera badaramazuz bere ofensak, bere justiziaren ziorra zure ganera etorriko dala. Bai, Zarauzko erria, pekatuan eta eskandaluan bizi zerana, bete-betian arrapatzen zaitu Isaias Santuak Israelgo erriari pekatuakgatik naiztanaizezian etorri zizkan amenazak eta okerrak. Jangoikoak desegino du erria, atsakabe...

Eta zer gitxiagoa etorri...

Kanpo ederrak galdurik, laboriak ostikopean zapaldurik...

<sup>21</sup> Ik. 8. oh.

<sup>22</sup> Geuk zuzenduta: *Isaie 24 > Zach. 1, 3.*

<sup>23</sup> Ostean erantsita: *onekin > onen itzakin (< onekin itzakin).*

<sup>24</sup> Idem.

Etsiak errerrik, erriak sakeaurik, bertako semiak illik, pobrezarik andienara biorturik, begiak negar egiteko besterik geldituten ez jakula. Eta berba batian<sup>25</sup> esatierrik guztia, anbestekoak dira ikusten gagozan okerrak eze, guztia da odol-errekea, guztia presondegia; guztien gañetik, besteren aizearria. Erlijiñoa ostikopeturik ikustea, donzellak loiturik, esposoak euren esposa garbiak ezin gorderik, Jerusalem denporan ikusi zana legez ikusten gara; alako m[ol]duan eze, iltia izan geunkala, mesede oker<sup>26</sup> guzti one[e]k ekusi ezeitiarrik bizi gara.

Anbestekoak dira gure egunetako okerrak, ikusi ezeitiarrik onenbeste erlijiño ta estaduan ikusten gagoz[an]lak, esan ginaike Makabeo Santuagaz<sup>27</sup>, obeago dala iltia, gauza oker one[e]n erdian bizitia baño bere.

#### [AMAIERAKO ERANSKETAK]

Beste onenbeste gugaz egin nai dabela erakutsiten deusku Jesukristok Seme Galduaren irudijan...

Baña non obetuago Jesus konbidetan gaituan miserikordiara da Seme Galduen irudian...

Errege<sup>28</sup> eta bere birtutia, bere exenplo santuak asko badira bere, erreinu guztia bere antzera birtutez betetako txit gitxi berari jarraitu gure deutsenak, eta ezin kontala eskandalu ta Jangoikoaren opensan bizi dirianak. Pekatu onen anditasuna...

Ez dau gitxiago erakutsiten Jangoikoak gurekin egin nai daben miserikordia, Jesukristok ipiniten deuskun irudi onek. Jesukristok S(a)n Lukasen bidez...

Ez uste izan Aita Zerukoak aztuta zeukezala, añ gitxi gu zuben<sup>29</sup> miseria ta argaltasunaz aserratuko gerala. Ez, artuko zaituguz errukiturik; Jesukristok Seme Galduaren irudian ipiniten deuskunari jarraiturik Jangoikoak biralduten gaitu zubekana, zuben bere bitarteko aserriak kendurik bakegilla izateko...

Etorri gogo santuz<sup>30</sup> sermoietara. Jangoikoarena danak, diño Jangoikoak bere berbak entzuten dituela. Zerurako bat<sup>31</sup> izango danen seña-

<sup>25</sup> Geuk zuzenduta: *berbatian* > *berba batian*.

<sup>26</sup> Ostean erantsita: *iltia mesede oker* > *iltia izan geunkala mesede oker*.

<sup>27</sup> Geuk zuzenduta: *Santuakaz* > *Santuagaz*.

<sup>28</sup> Ostean erantsita.

<sup>29</sup> Geuk zuzenduta: *zuren* > *zuben*.

<sup>30</sup> Idem: *gogoz santuz* > *gogo santuz*.

<sup>31</sup> Ostean erantsita.

lerik onena gogoz Jangoikoaren berbak entzutia dala diño; eta gauza zantarrak entzuten ja egarri dabenak, Ynfernurako izango diranen seña-lia. Jakintsu ta letradu andia izanagatik etorri zeitekez sermoietara, entzun eikezuz Jangoikoaren berbak; zu beste jakintsuren aotik ez izanagatik mesede andia artuko dozu. Jakintsua zan Dabid, libru guztizko onak eukezan, orregatik bere Natan Profetaren sermoia edo berbak entzun artian, ez jakazan iriki bere animako begiak. S(a)n Pablo jakintsua izan zan, orregatik bere jakituria guztia asko etzan izan Jangoikoaren berba bizia entzun artian. Jangoikoaren berbiak illak animan<sup>32</sup> biztuteko birtutia dauke. Ezekiel Profeta Santoak azur siku utsezko kanpo batian Jangoikoaren berbia predikadu eban, eta orra non bizitziaren espiritua sartu zan eta biztu ziran.

S(a)n Pablo Apostoluak Korintoarrai esaten eutsena esango deusuet zubei: Nere anaia, ez arren galdu Jangoikoak opa deusuen grazia. Eta bard[in]...

Onela biurturik, egizue alegina induljenzia santuak irabazteko. Induljenziak dira Jang(oikoa)k bere Elexako Santuen Komuniñoko kult[txan] gordeta daukazan aberastasunak, eurekaz baliu gura dabenak errazago parkazinoa artuteko. Onetarako, jakin biar da pekatu bako-txian dagozala pekatuen errua ta pekatuen penea. Konfesiño on batek parkatuten dau pekatuen errua, baña ez pena guztia beti. Egiten dabena da penau ez dedilla izan betikoa, eta bai emen edo purgatorioan pagau biar da. Eta luzaro purgator[olan] egon bage errazago pagau daien dira induljenziak.

Induljenzia one[elk] bi modutakoak dira: plenariak ta partikularrak. Induljenziak plenariak dira pekatuen zor guztia pagetan dabenak; partikularrak, penaren partia pagetan dabenak. Berrogei egunekoak, larogei-koak, eunekoak, berreun ta geiagokoak.

Lau dira misiño onetan irabazi zinaizen induljenziak plenariak: lene[n]goa, edozenbere misiñoeko egunetan<sup>33</sup> konpesau ta komulgaugaz, edozenbere elixatan misiñoera etorririk irabazteko debozinoz; bigarren ta irugarrena Komuniño jenera[le]ko egunetan, eta au egin biar da elixa onetan: bata, orañ apliketan jakela, bigarrena, eriotzako orduan Jesusen Izen Santua esanik, eta ezin bada, biotze[z] eginik; laugarrena, arimen funzinoa elixa onetan egiten dani[an], baña orazinoa egin biar da elixa onetan...

---

<sup>32</sup> Idem.

<sup>33</sup> Ostean zuzenduta: *edozenbere egunetan* > *edozenbere misiñoeko egunetan*.

## 11

### SERMÓN DEL PERDÓN

Viva Jesús

*Ego autem dico vobis: Diligite inimicos, benefacite his qui oderunt vos.*  
Mt. 5, 44

Gaur, neure entzula maitiak, nator berba egitera Jangoikoaren Lege Santuko mandamenturik andienen baten ganian. Iñozko alditan biar izan badot Jaunaren grazia prediketako, ez orregatik iñoz bere biarrago gaur baño. (...) Zegatik gaur natorren prediketara gorrotodunen kontra, alkar iñondi bere ezin ikusirik bizi dirianen kontra; nondi alkar galduko daben asmu geztoetan sarturik bizi dirianak bakean ifini nai ditut. Baña, zer biarko ez da onenbestera? Nok bigunduko ditu arriak legez gorrotoan gogortu[ta] dagozan biotzak? Nok siñastu ereingo deutse alkar ezin ikusirik eta gorroto bizian dagozenai, aitzu biar dituela alkarganako sentimentuak, eta parkaturik alkarri egin deutsezan gatx guztiak, amodiozko bizitzan bizi biar dabela? O zein filosofia ikasten gatxa gaurko sermoia, baña gauza biarra salbauko badira!

Beste pekatari modu guztikoak, nai Seigarrengo ondaturik, nai eskandaluan sartuta egon oi diranak, euren okasiñoak ausirik, Madalena eginik, negarrezko iturri eginik eldu oi dira egunero sazerdoteren oñetara. Baña gorrotodunak, ez onelan; euriak arriari baño biguntasun geiago ez emonik, atxak legez gogortuta geldituten dira. Eta nozbait bigunduta geldituten badira, laster atzera euren gorrotoetara biortuten dira. Baña orregatik bere, ikusirik Jangoikoentzat gauza gatxik ez dagoala eta arime bakar batek bere asko balio dabela, beragatik bakarrik egingo dot alegiña. Gizon bengatiboa, enbra gorroto bizian sartuta zeure proximuari parkatu gure ez deutzazuna, Jesukristo da, Jangoikoa bera dirautsuna, eta aginduten deutzuna parkatu dagiozula. Zure Egilliak, zure Erredentoriak, zure Salbatzailliak dirautsu, salbau gure badozu, parkatu dagiozuzela proximuari berak egiñeko dañu ta injuriak. Eta bere agindu santua egiten ez badozu, edo proximuari Jangoikoen amoriakgaitik par[ka]tu gure ez badeutzasu, zeuri bere berak, zure pekatuak sekula bere parkatu ez dagizuzela esaten deutzazu<sup>1</sup>. Eta eretxi baten

---

<sup>1</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Eta biarbada zuri irudi(.).an ba(...).atzu ere, berau da...*

neke andiko gauzia<sup>2</sup> bada bere proximuari injuriak parkatu biarra<sup>3</sup>, orregatik<sup>4</sup> agindu santuau da gure erlijio santuak daukan birtute eta perfekzinorik andieneko agindua<sup>5</sup>. Auxe da birtute karidadekoaren ezaugarririk<sup>6</sup> andiena eta nekerik geijenenekoa. Eta ain neke andikoa bada bere, Jangoikoak dauko au guri eskatuteko eskubidea, ez baka[rrik] alan Jangoikoa dan partez<sup>7</sup>, baita bere gure Aita eta Jueza dan partez.

Aita dan partez, mandamentu onen bidez zorionez betetan gaitualako; eta Jueza dan partez, guk au egiñagaz bakarrik berak bere parkatu gure deuskuzalako, berari pekatuakaz egin deusaguzan zorrak. Agindu santuau lege guztietan fundadua da: alan errazoazkoan ta<sup>8</sup> eskribiduan, zeinda graziazko Lege Santu onetan. Alperrik esan gureko da atxinatxina Judeguai legiak aginduten eutséla<sup>9</sup>: Maite izango dozu zure ongilia, eta gorroto izango deusazu gaizkiliari. Bada, guztiz ederto S(a)n Agustinek erakutsiten daben legzez, etzan Jangoikoa au esaten eutsena; etzan Moises santua Jangoikoen partez onelan berba egiten eutseena, ezpada Fariseo geztoak, Moisesen Lege Santua nastu ta usain getoz bete edo korronpidu ebenak. Uste izen eben gizon gezto are[elk, proximu[a] ametako esaten eutseen mandamentuak eskubide eta libertadea emoten eutséla<sup>10</sup>, arerioai gorroto izateko. Orregaitik, Jesukristok agindu euskunian arerioak maite izateko, eta deungaro egin deuskunai mesede egiteko, ez euskun Lege barririk ipini, ezpada barriztadu eban arako Jangoikoak Moisesen bidez emon eutseena, eta Farisioak maliziaz deungaro erakutsi<sup>11</sup> ebena. *Ego autem dico vobis.*

Alperrik, gizon gorrotodunak, zuben atxakiakaz mandamentu onetati iges egin gureko dozue, eta gorrotozko pekatuaj<sup>12</sup> aurrera jarraitu gureko deusazue; alperrik arerioai parkatu biar izatia kontsejuzko gauzia dala esan gureko dozue. Jesukristoren mandamentua da lege guztietan fundadua. Eta Jangoikoak agindutia bakarrik asko litzateke guk obe-

<sup>2</sup> Ostein erantsita: *Neke andiko gauzia > Eta eretxi baten neke andiko gauzia.*

<sup>3</sup> Idem: *proximuari injuriak parkatu biarra > bada bere proximuari injuriak parkatu biarra.*

<sup>4</sup> Ostein aldatuta: *baña > orregatik.*

<sup>5</sup> Idem: *gauzia > agindua.*

<sup>6</sup> Idem: *pruebarik > ezaugarririk.*

<sup>7</sup> Ostein erantsita: *alan Jangoikoa dan partez > ez baka[rrik] alan Jangoikoa dan partez.*

<sup>8</sup> Idem.

<sup>9</sup> Horrela, tilde eta guzti.

<sup>10</sup> Idem.

<sup>11</sup> Ostein zuzenduta: *erakutsiten > erakutsi.*

<sup>12</sup> Idem: *gorrotoz pekatu > gorrotozko pekatuaj.*



dietako, Legean fundadua ez balitz bere. Zer zara<sup>13</sup> zu, gizon pekataria, Jangoikoari auzia emoteko agindu santu onen ganian?

Asko da, gorrotodun geztoa, zure atxakiak isilduteko, esatia Jangoikoen agindua dala; berak dirautsu ez dala asko gaxik gure ez izatia, eta azaletik agur ederra egitia. *Ego autem etc.* Jauna, ori nire inderrak egin aleijen baño geiago eskatutia da<sup>14</sup>. Bakit nik bere, zure gorput[z] eta aragien inderrak egin alei[k]ian baño geiago dala, S(a)n Juan Krisostomok dirauskuna legez<sup>15</sup>. Baña Jangoikoak ez gorputzeko inderragaz bakarrik aginduten deutsu au egiteko, ezpada bere graziagaz naste, zeñ ez deutsun ukatuko. Orregaitik, arako arerioai parkatu gure ez deutseenak, bakarrik dire aragizko gizonak; baña parkatutera datozenak, espiritualak, Jangoikozko eta graziagaz betiak. Baña Jauna, añ neke egiten jat zeñ, ez da posible ori egitia: nik neure biotzian ezaututen dot oztasun bat<sup>16</sup>, neure biotza onetarako lotuta daukan katia andi bat. Baña orretara erantzun biar deusut, S(a)n Jeronimogaz batera, zure atxakia andi bat dala, Diabruak biralduten deutsun tentaziñoen putz andi bat<sup>17</sup>. Bada, Jangoikoak ori agindu[a]gaz ez deutsu eskatuten ezin zinaien gauzarik<sup>18</sup>. Zeugan dago guztia, zure borondatian, au auxitian. Ez deutsu orretarako aginduten mendi bakarretara bizi izaten joan biarrik, ez diru kantidaderik emon biarrik, ez beste gauzarik. (\*)<sup>19</sup>

Baña Jauna, zer munduak esango dau nigatik? Kristinaua zareala, eta alantxe kristinau ona legez egiten dozula<sup>20</sup>; esango da Jangoikoen agindura firme zagozala, eta zure exenploagaz beste askori aren agindua ondo egiteko bidia emoten deutzazula. Eta onelan pentsetan ezpadau, an konpon[du] dabela, gure dabena esan dagiela, bada zuk munduak esan al daienari begiratu bagarik egingo dozu Jangoikoen agindua. Baña orrelan itxiten badeutsat, munduak biotz gitxikotzat eta ezereztzat eukiko nau, eta onetan neure ondrea ta estimazinoari begiratuten ez deusat. A pekataria! Ori da mundutarren berbakuntzia, ez Zerurako izengo dirriarena. Zure ondrarik andiena dago munduko ondra guztiai alde batera

<sup>13</sup> Ostean ezabatuta: *Eta zer zara > Zer zara.*

<sup>14</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Biotzetik maite izateko. Jauna[k] ez daustu gaxik gur[e]...*

<sup>15</sup> Idem: *Bai zure indar (...) eskatuko balizu...*

<sup>16</sup> Ostean erantsita: *Baña Jauna, nik neure biotzian ezaututen dot oztasun bat > Baña Jauna, añ neke egiten jat zeñ, ez da posible ori egitia: nik neure biotzian ezaututen dot oztasun bat.*

<sup>17</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Ori bere tentazino andi bat da, posible ez diran gauzak Jaun...*

<sup>18</sup> Idem: *Jangoikoaren agindua egitiagatik, zure sentimentua it...*

<sup>19</sup> Atal horretako albo oharra: *Ez da posible.*

<sup>20</sup> Ostean aldatuta: *portetan zareala > egiten dozula.*

itxitean, Jangoikoari zor deutzazun ondriagaitik. Alperrik, bada, atxakia guztiak ekarri naiko dituzuz; Jangoikoen agindua [da] eta egin biar da. *Ego (...)*. Munduarekin ondo eukita ezingo zera Santo izan, munduak mundukoai (...). (\*)<sup>21</sup> Ez bekizu iruditu mandamentoau añ gogorra danik<sup>22</sup>. Egia da, bakarrik begiratuten badogu gure areriogana, ez dogula beragan ikusiko mandamentuau bigundu aleikegun gauzarik, ezpada gure biotza bere kontra garraturik ipiniten daben labadura gezto bat. Baña, zer uste dozue egiten dabela Jangoikoak mandamentu oni, garratasuna kendurik, bigunduteko? Ez besterik, ezpada bera sartuten zeure arerio eta zure bitartian, eta dirautsu, zure begiak areganik alderaturik beragan ipini dagizuzela. Ez dirautsu onegatik ez agatik parkatu dagiozula; ez zure arerioak merezi dabelako, ezpada dirautsu Jangoikoak: Arren, nigaitik parkatu egiozu. Ez dirautsu berari zor deutzazunagatik, ezpada niri zor deustazunagatik. Modu onetan, Jakob Patriarka Santuen semiak obligadu eben euren anaja Jose, traiziñoz txikitxu zanian saldu ebena, eurai parkatutera. Zure aitak eta guriak esaten eutsen: Biraldu<sup>23</sup> gaitu zuri suplike bat bere partez egiteko. Eta da, esan dagizugula, guk, zure anaijeok, zuri egin deutzazunagatik gaiztakeria eta oker egiñak aitzu dagiguzuzala. *Obsecro ut obliviscaris, sceleris fratrum tuorum*. Bere aitarren partez, anaiak esaneko berbakaz añ modutan bigundu zan Jose Santuen biotza eze, bere erraiak guztiak bigundu jakazan; eta bere begietati negarrezko iturriak urtenik, ez bakarrik aztu zan anaijiak egiñeko injuriagaz, eta alan ez bakarrik pa[rka]tu eutsen, baita bere moduren baten eskusau zituen berari egineko gaiztakerietati, eta zorionez bete zituben. (\*)<sup>24</sup> Alan bada, gorrotoduna, ni bere gaur biralduten nau zukan zure Aita Zerukoak, esan daizudala, bere enpenioa dala, eta artu zaitzala zuri proximuak eginiko gatxetatik<sup>25</sup>.

Ez nator bada, pekataria, zugana Munduko Aitarren izenian, ezpada zure Zeruko Aitarren izenian, esatera parkatu dagiozula zuri proximuak egiñeko injuria. Eta Jose Santuaren biotza añ modutan bigundu bazan bera saldu eben anaiantzako, bere Aita Jakob Santuen partez parkaziñoa eskaturik, ez dot uste, pekataria, zuria añ gogorra izango dala, nik zuri Zeruko Aitarren partez parkatu dagiozula erreguturik. Zuk, biarbada,

<sup>21</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Eta zure biotz saminduari gogor irudituten batzitzako*.

<sup>22</sup> Ostein zuzenduta: *Ez [el]gizu uste izan pekataria Jesusen mandamentuau, aiñ gogorra dala > Ez bekizu iruditu mandamentoau añ gogorra danik*.

<sup>23</sup> Ostein aldatutua: *enkargau > biraldu*.

<sup>24</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Alan bada ni bere nator, e...*

<sup>25</sup> Ostein erantsitako esaldia.

asko ta askotan zure Jangoikoa ofendidurik, eta orregaitik bere anbeste zorion arturik, esan dozu zeure artian: Zer emon neio neure Jangoikoari anbeste zorionen mesederako? Ez deutsu bada eskatuten beste eskerrik, ezin erakutsi zinajo amodioaren seinalle andiagorik, bera amodioagatik gatx egin deutsunari parkatutia baño. Ez dakit, pekatari, entendietan badeustazu dirautsudan doktrina santuau; eta baldin aditu ez badeustazu, beste modu baten esplikauko natxatzu. Mundu onetan batek euki aleikian atsegin ta konsuelorik andiena da, siñasturik<sup>26</sup> eta jakinda egotia benetako amodio bategaz maite dabela bere Jangoikoa. Au da guk munduan euki al giñaien zorionik andiena. Bada, jakiñik maite dogula Jangoikoa, dakigu bere, alantxe berak maite gaituzala, eta bere grazian gagozala. Eta jakiteko nik edo guk maite dogula Jangoikoa, ez dago señaile obeagorik, eta sospetxa gitxiagorik, Jaunari deutsagun amodioagatik gure gazkilla ta arerioai parkatuta on egitia baño. Onetara ezin ekarri geinkezan beste gauzak, ezpada Jangoikoen grazia ta bere amodioak<sup>27</sup>. Eta benetan ze gauzak, ezpada Jangoikoaren amodioak<sup>28</sup>. Bada, gure naturelezia berez begiraturik eta grazia bagarik, aren kontra jaigiten da. Ez da bere mundua, zegaitik munduaren doktrinak onetan guztiz kontrakoak dira, ezpada bakarrik onetara jakazana da Jangoikoari deutsagun amodioa; zeñ bitarteko ipiniko ez balitz, ezegaitik ez ginatekez etorriko parkatutera. Emetik dator Jangoikoa dala gu parkatutera jakazana; berari deutsagun amodioa dala arako iturria gure biotzak proximuaganako bigunduten dituana, eta alan, onelan parkatuten deutsanak arerioari, ardura bagarik esan leio: Jauna, nik maite zaitut eta onen señaalerako, parkatuten deutset<sup>29</sup> arerioari.

Eta ze atsegin andiagoko gauzarik, bati bere konzienziak au esatia baño? Nik zer bait egiten dot Jangoikoa beste gauzagatik egingo ez neukiana. Ze poza au bere biotzak esatia! Baña gure gatx guztia dator Jangoikoari begiratu biarran, beti gizonari begiratutetik. Orregaitik dator beti, bestiak guri egiñeko kaltiak beti esaten egotia, eta no[n]di deungaro ez bakarrik berak esatia, baita bere mundu guztiak antzekotzat<sup>30</sup> euki dagien gure izatia. Guk ezin inundik bere igoro dogu bestiak gugaitik deungaro txiki bat esan edo egitia, eta ez dogu begiratu gure, gu beti onenbeste eta milla bider geiago egiten deutsagula Jangoikoari; gure dogu one[e]k guztiok parkatu dagiguzan, eta guk, barriz, gauzarik txi-

<sup>26</sup> Ostein zuzenduta: *siñastu* > *siñasturik*.

<sup>27</sup> Idem: *Zegaitik ez dan gure naturelezia onetara edo parkatutera jakazana* > *Onetara ezin ekarri geinkezan beste gauzak, ezpada Jangoikoen grazia ta bere amodioak*.

<sup>28</sup> Ostein erantsitako esaldia.

<sup>29</sup> Geuk zuzenduta: *deutsek* > *deutset*.

<sup>30</sup> Idem: *antzekotzak* > *antzekotzat*.

kien bat ez dogu igaro<sup>31</sup>, arako anbeste parkatuten deuskun amodioa-gatik. Errazoe andiagaz esango deusku Jang(oikoa)k, arako Eban-jeliok[o] Maiordomoari esan eutsana. Maiordomo onek zor andiak eutsezan bere uazabari; eskatu eutsan, eta guztiz negarrez ikusi ebenian, etorri zan errukiz bere zor guztia parkatutera. Andik lasterrian, eukirik maiordomo onek artzeko gitxi bat, joan zan bestiagana artzekoau eskatutera. Eta ez eukirik zegaz pagadu, esan eutsan: Paziencia pizka bat artu egizu eta guztia emongo deusut. Baña alperrik zan guztia; bada, zenbat geiago pizko<sup>32</sup> bat itxoroteko aginduten eutsan, anbat gogortua-gorik zorrakga[z] kartzelera eroian. Ikusirik gizon triste onen lagunak zer jazoten zan maiordomoagaz, parte emon eutsen euren uazabari maiordomo onen gogortasuna. Eta arako jakin ebenian uazabak maiordomoaren gogortasuna, esan eutsan: Gizon geztoa, nik errukiturik parkatu deusut zor izan deustazun guztia, eta etzan errazoia zuk bere zure anai-jiagaz beste anbeste egitia? Orduan esan eutsen beste an egozanai, aseraturik guztia uazaba onek: Lotu edo estugizue gizon geztoau oñ ta eskutati, eta sartugizue kartzela batian azkenengo marabedia pagau artian. Beste onenbeste egingo dau Aita Zerukoak, batek bestiari biotzeti parkatuten ez badeutso berari egiñeko injuria. Zu, pekataria<sup>33</sup>, anbeste urtian eta biarbada bizi guztian pekatu ta eskandaluan sartuta egonik, gure dozu nik guztia parkatutia, eta zuk zeure anaiari, zeure proximuari, berba txiki bat, ofensa labur bat parkatu gure ez deusazu? One[elk] dira nik zuri aginduko doktrinak eta emoniko exenploak? Zorigaiztokoa zu<sup>34</sup>, pekatari gorrotoduna, Jesusen exenplo onegaz onduten ez bazera. (\*)<sup>35</sup>

Zer izango liteke, sermoi onetan dagozan bakotxari ifiniko baleuskioz<sup>36</sup> bera parkatu biar izan deusazan guztiak? Zer izango litzateke zugaz, zeure begien aurrian ifiniko baleuskizuz anbeste urtian egin dozuzen lotsagarritzko pekatuak, zeintzuekaz anbeste bidar Jangoikoen kontra jaigirik, eta bere biotzera biraldu deutsezan dei santuai erantzun biarrian, zorigaiztoan guztiak botarik, bere Lege Santu guztia ostikopian sarturik erabili dabenagaz? Zer arako gizon inpio edo Jangoiko bagiaz, kutizioso eta biotz gogorrekoagaz? Bada, one[elk] guztiok zuri Jangoikoak sufrietan deusuz. Esan leizu: Eta benetan, zer gauza nobliago-

<sup>31</sup> Alternantzia: *igoro / igaro*.

<sup>32</sup> Idem: *pizka / pizko*.

<sup>33</sup> Ostean ezabatuta: *Zu pekataria, dirautsu Jangoikoak > Zu pekataria*.

<sup>34</sup> Geuk zuzenduta: *zuri > zu*.

<sup>35</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Zuri pekat(ar)i gez(to)a Seiga[rrengoan] ondaturik...*

<sup>36</sup> Ostean zuzenduta: *ifini biarke baleuskioz > ifiniko baleuskioz*.

rik<sup>37</sup>, eta Jangoikoen begietan atsegin geiagokorik, proximuari parkatutia baño? (\*)<sup>38</sup> Ezin batek irabazi leike bitoria andiagorik, biotzeko gorrotoa kendurik, bere borondatia eta proximuari parkatuteko eskura ekartia baño. Jentilgiñoak birtute andiko gauzatzat au ezautu dabe<sup>39</sup>, gauza dollortzat<sup>40</sup>, proximuen kontra bengaia artutia. Eta Jentillak erlijjiño bage errazoiagaz bakarrik au ezautu beben, zer Kristinau garianok, erlijjiño ta errazoiagaz ezautu biar ez dogu? Zer ez, ikusirik gure Jangoiko Kurtzian josi eta il ebenakgatik parkaziñoa eskatuten? Baña Jauna, zetan geldituko da nire estadari datorkion kreitua? Esan egidazu, izan zan Jesus zu baño kreitu gitxiagokoa? Galdu eban kreiturik arerioai parkatutiarekin? Izan zan zu baño estadu gitxiagokoa Dabid Santua? Bere estadari anditasunen bat kendu eutsan, Saul Erregeari, baita bere seme Absaloni parkatuagaz? Ez. Mesede andiak artu bazituan Saulek Dabidegandik, orregatik bere, inbidiaz beterik eriotzaz persegidu eban: bein lantzarekin jaurt egiten eutsela eta, askotan, mendirik mendi<sup>41</sup> sol[da]duakaz il gurarik jarraituten eutsala. Euki zituan Dabidek eskubide ta okasiño andiak ilteko Saul gure izan baleu, baña orregatik parkatu eutsan, gaxik bat bere ez eutsan egin. Eta arako il zala entzun ebian, negar andiak egin zituban. Beste anbes[te] egin eban bere seme Absalonegaz.

Esan egidazue, zer galdu eban<sup>42</sup> Españako Errege Alfonsok, arako Aljaziriko sitioan, ekarri eutsenian moro bat, Erregen traiziñoz ilteko diruak artuta egoana? Jeneral, ofiziale eta tropa guztiak beingoan ilteko aginduko ebalu uste izan eban; baña kontra jazo zan, bada ondo ezauririk Kristinauen obligaziñoau, jantzi eder batekin jazteko, eta aren mantimentuagaz ardurea artzeko agindu eban. Eta ikusirik moro onek Erregeren ontasuna, Maomen erlijjiñoa itxirik, batioa eskatu eban, eta Kristinau egin zan. Galdu eban ezer Errege onek parkatuagaz? Galduko leuke gaur emen kaballero andi batek, besoak zabalik, bere arerioari parka eskatutiagaz? Ez galdu, ezpada irabazi; ez bakarrik Jangoikoentzako, baita bere Kristinau onak dirianentzako. Gorrotodunak dira diabruen antzekoak; are[e]k ez Jangoiko, ez arentzako dirianai parkatu gura ezik,

<sup>37</sup> Idem: *Ez dago gauza andiagorik, nobliagorik > Eta benetan, zer gauza nobliagorik.*

<sup>38</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Eta beste aldetik biotz dollorrekoak dira[n] bezela, ala biotz n[obliagokoak]...*

<sup>39</sup> Ostein erantsita: *Jentilgiñoak ezautu dabe > Jentilgiñoak birtute andiko gauzatzat au ezautu dabe.*

<sup>40</sup> Geuk zuzenduta: *dollortzak > dollortzat.*

<sup>41</sup> Ostein erantsita.

<sup>42</sup> Idem: *Zer galdu eban > Esan egidazue, zer galdu eban.*

erraiak jaten desesperaziñoz beterik bizi dirianak legez, alan gorrotodunak ezin artek arturik, bizi dira. Eta onelan bizi eta illik, beti aren lagun Infernuan egongo dira. Ez bakarrik Zerua irabaziteko, baita ere munduko bakerako da gauza biarra. Eta erlijinoak, baita bere munduaren konserbaziñoak, esaten deusku<sup>43</sup> proximuak guri egiñeko injuria eta gatxetan, ezin guk aren kontrako eskubiderik artu ginaiela<sup>44</sup>. Bakotxak onetarako eskubidea eukiko baleu, bere arerioa berak nai daben modura kastigetako, zenbat desgrazia izango ez litekez munduan<sup>45</sup>? Errietako justiziai kenduko litxekia inderra, eta agintaritasuna, geztoak kastigetako, eta karguak beti izango litzatekez andiagoak, injuriak eskatuten daben baño: gizonik billau eta bajuenak, ostikopian sartuko lefu]kez gizonik justuenak, errazoazko eta noblienak. Eta mundutarrak alkarren gorrotoan itsuturik, euren pasiño geztoak baño beste legerik ezautu bagarik, bakotxak bere aldetik prisa artuko leuke mundua akabetara. Jangoikoen jakituriak ondo ezauturik kalte one[e]k, bakarri[k] beretzat gorde eben gauza onetan Juez izatia. Guri datorkigu arerioa ametia, eta Jangoikoari, proximuak guri egiten deuskuzan kaltiak kastigetia. Eta zuk, pekataria, errazoiu ezauturik, eukiko dozu biotzik añ gauza biarra dan mandamentu baten kontra jaigiteko? Orandik gureko deutzazu bere deretxoa kendu Jangoikoari, zure biotzeko gorrotozko legiari jarraitutiarren?

Bai zuri, gorrotoduna, dirautsu Jang(oikoa)k parkatu daiozula, zuri bere parkatuko deutzazala pekatuak<sup>46</sup>; baña parkatuten ez badeutzazu, ez deutzala zuri bere parkatuko. Zer diraustazu onetara zuk, gorrotoduna? Zer zuk, konpesoriaren oñetan negarrez pekatuen parkaziñoa eske zagozana? Alperrik negar egingo dozu, alperrik bulerra ausiko dozu, zure proximuari parkatuten ez badeutzazu. Jangoikoa dirautsu ez dala

<sup>43</sup> Osteen zuzenduta: *Injuria andia zuk artu arren, ez bakarrik errazoiak berak, baita bere munduaren konserbaziñoak esaten deusku > Injuria andia zuk artu arren pekatuak parkatuteko baita [b]e[re] bakerako (...) bake (...), baita bere munduaren konserbaziñoak esaten deusku > Ez bakarrik Zerua irabaziteko baita [b]ere munduko bakerako da gauza biarra. Eta erlijinoak, baita bere munduaren konserbaziñoak, esaten deusku.*

<sup>44</sup> Idem: *ezin izan gintekezala juez > ezin guk aren kontrako eskubiderik artu ginaiela.*

<sup>45</sup> Idem: *Zenbat desgrazia izango ez litekez munduan lenez ganera, bakotxak eskubidea eukiko baleu bere arerioa berak nai daben modura kastigetako? > Bakotxak onetarako eskubidea eukiko baleu bere arerioa berak nai daben modura kastigetako, zenbat desgrazia izango ez litekez munduan?*

<sup>46</sup> Idem: *Bai zuk proximuari parkatuten badeutzazu, dirautsu Jangoikoak, zuri bere parkatuko deutzazala pekatuak > Bai zuri, gorrotoduna, dirautsu Jang(oikoa)k parkatu daiozula, zuri bere parkatuko deutzazala pekatuak.*

izango miseri-kordiarik, proximuagaz miseri-kordiarik euki gure ez dabenentzako. Jesukristok Konpeseñoko Sakramentean itxi euskun iturri eder bat gure pekatu guztiak, andiak izanagatik, parkatuteko; baña iturriau agortu eban, proximuari parkatu gure ez deusantentzako. Jangoikoak sazerdotiai eskubide eta grazia andiak emon eutsezan, eriotzako orduan negaturik pekatuen parkazinoa eskatuten dabenentzako; baña one[le] bere eskuak lotu eutsezan, proximuari parka gure ez debententzako. Zer esaten dozu, gorrotodun geztoa<sup>47</sup>, gorrotoari gorrotoagaz, maldiziñoari maldiziñoagaz, inbidiari inbidiagaz erantzuten deusazuna? Parkatutian, Jesusen diszipulua izatiak lotsatuten zaitu? Bera bere alantxe, zu bere dizipulutzat ezaututeko lotsatuko dala dirautsu. Diabruari gorrotoan jarraitu gure deusazu: ez Jesusena, ezpada Diabruarena izango zara. Berba erdi bateri, millagaz erantzuten deusazu? Bein egiñeko gaxari, bizi guztian parkatu gure ez deusazu: eternidade bateko zorigaitzokok izan biarko dozu, Jangoikoen arpegirik ekusiko ez dozu<sup>48</sup>.

Nola errezatzen dezu pa[ternosterra]<sup>49</sup>? Ai pekataria<sup>50</sup>! Zuk ondo-ondo ezautuko bazendu, paternosterren orazinoa esaten dozun bakotxian zer Jangoikoari eskatuten deusazun, arituko zinteketz. “Parkatu egigizuz gure zorrak, guk gere zordunai parketan deusaguzan legez” esaten dozunian, baki[zu] zer dirautsazu[n]<sup>51</sup>? Nik neure biotzian sartuta daukadan gorrotoa ezin kendu do[da]na legez, alan zuk bere, zure niretzako gorrotoa kendu eigizu. Nik neure proximia begiz ikusi ezin dodana legez, alan zuk bere, ni begiz zure erreinuan ikusi gure ez naizu<sup>52</sup>. Nik neure arerioa galduteko alegiña egiten dodana legez, zuk bere, ni betiko galduteko alegiña<sup>53</sup> egizu. Nik proximia<sup>54</sup> galduta ikusi gure dodana legez, alan ni bere, Infernuan betiko galdu nagizu. Nik orren on guztietan sentimentua artuten dodana legez, eta aren gaxxetan atsegin artuten dodana legez, alan zuk bere, nizez egizu.

Ea bada, pekataria, zer diraustazu? Norena izan gure dozu? Gorrotoari jarraiturik<sup>55</sup> Diabruena, ala parkaturik Jesusena? Bada zuen artean eskolako biotz gogorrekorik? Bada Jauna, betor onen ganera zure ase-erre guztia; madarikatugizu; betiko kondenaugizu. Baina Jauna, ez dot

<sup>47</sup> Osteen zuzenduta: (...) *mandamentua* > *Zer esaten dozu, gorrotodun geztoa.*

<sup>48</sup> Osteen erantsitako esaldia.

<sup>49</sup> Idem.

<sup>50</sup> Idem.

<sup>51</sup> Osteen zuzenduta: *dirautsazu Jangoikoari* > *baki[zu] zer dirautsazu[n]?*

<sup>52</sup> Idem: *alan zuk bere ni begiz ekusi gure ez naiz[ul]* > *alan zuk bere ni begiz zure erreinuan ikusi gure ez naizu.*

<sup>53</sup> Idem: *galdute alegiña* > *galduteko alegiña.*

<sup>54</sup> Geuk zuzenduta: *proxixua* > *proximia.*

<sup>55</sup> Idem: *jarraituarik* > *jarraiturik.*

uste añ gogorrik izango dala neure entzulen artian. Eta noixbat zure Mandamentu Santua aztu badabe bere, pres[t] dagoz, Jauna, parkatuteko zure amodioagatik. Guztiak, Jauna, biotz osoagaz dirautsue: Zure Pasiño Santuagatik parkatuten deutset neure arerioai, arantzazko Koroi-gatik, zauri-azotiagaitik; zure agoniña eta eriotzagatik parketan deutset<sup>56</sup> arerio gustia[i].

Eta zuk, Jauna, ontasun ta erruki guztien iturria izanik esanda daukazu, onelan egiten dabena parkatuko deutzazuela. Nik bada, orain zure ministroa nazan partez, zeure berbatik ezetu gure deutzut, eta zure izenian miserikordiarra konbidetan ditut. Erdu bada orain, zu pekataria, gorrotoan gaixoturik egon zariana, Jaun onen miserikordiaren iturrira. Erdu, pekatari pekatuzko jantzi urratuakin bizi izan zariana, graziaren jantzi barria doarik artutera. Anbeste pekatugaz zauriturik zagozana, erdu zauri orre[elk] osatutera, Jesusen Gorputz Santuko odolezko baltsamu santuagaz. Zeruko Santuak, munduko Justuak, Elexa onetan aurkituten dirian pekatari guztioi lagun egiguzue bedeinkatuten. Bada, guztiak negarrezko iturri eginik, proposituz beterik dirautsue biotzeti: Neure Jesus etc.

#### [AMAIERAKO ERANSKETAK<sup>57</sup>]

Ez dago beste biderik Zerurako, edo parkatu edo kondenadu. Zeure gorroto orri jarraitutiagatik betiko galdu gure badozu, parkaturik salbau baño, zeuk nai dozuna egingizu. Zeure arimiari betiko kaltiak ekarriagaz zeuriagaz orain urteitiagatik gure badozu, nai dozuna egizu. Eriotzako orduan parkatuko deutzazulako<sup>58</sup> penitentzia falsoagaz Infernuan jo gure badozu, galdu zaite eta zeuk ikusiko dozu. Baña ez, pekataria, etzaitetz izen añ zeure bur[ujen] kaltekoa. Orduan fruturik atera bage gureko dozuna, orain frutu ateraten dozula egizu. Dabid, Jose, S(a)n Esteban eta beste askoren exemploari, arren, jarraitugiozu.

Esangiozu Jesus maite oni: Instante onetatik zure<sup>59</sup> graziaz batera arzen dot propositu firme bat arerio guztiai zure amodioagatik parketako. Eta damu dot anbeste denporan biotza arriturik zure aginduen kontra bizi izatia. Eukigizu, Jauna, nire pekatu andien errukia; ez nagizu alde-ratu zure gloriako erentziati. Lagungidazue Zeruko Santu ta munduko

<sup>56</sup> Idem: *deutsek* > *deutset*.

<sup>57</sup> Atal horretan egileak sermoiari erantsitako hainbat luzapen eta gogeta (batzuk amaigabeak) batu ditugu, bizkaieraz zein gipuzkeraz. Beste esku batek idatzitako zati bat ere badago.

<sup>58</sup> Ostean zuzenduta: *deutzazula* > *deutzazulako*.

<sup>59</sup> Ostean aldatuta: *bere* > *zure*.



justuak anbeste bider ofendidu dodan Jangoikoa bedeinkatuten. Bada, ezauturik neure oker egiñak, proposituz beterik berbia emoten deutsut ez geiago ofensarik aurre egiteko, biotzetik esanagaz: Nere Jesus.

Eta ze atsegin andiagoko gauzarik bati bere konzienziak esatia baño: nik Jangoikoagatik egiten dot gauza bat, beste gauzogatik egingo ez neukiana?

Bada, gure izanik zuri one[elk] guztiok parkatu, zuk zure arerioai parkatutiagatik, parkatute[n] ez badeutsazuz erraz...

Zegatik gure arerioan ez dogun ikusten gure borondatia ari parkatutera ekarri al leikian gauzarik, ezpada berez beti aren kontra eroaten gaitu; ezpada Jangoikoen amodio da onetara eroan oi gaituana. Bai, bakarrik Jangoikoen amodioa da arako iturriko ur santua gure biotz minbertuak bigunduten dituen.

Zuri parkatiagatik dolorezko eginik ondo-ondo Jesus oni begiraturugiozu<sup>60</sup>. Dandillika iru untze gogorretik parkatu daiozula dirautsu, azotetz gorpuzta zauriturik, arantzazko koroiturik, lantza gogorrez bulerra idigirik<sup>61</sup>, ondo dolorezko<sup>62</sup> agoniñan gogorrian sarturik zure pekatuagatik ilda, onelan illik dirautsu parkatuteko. Zer dirautsazu? Bada sermoi onetan parkatu gure ez dabenik? Bada...

Guzurrak asmau deutsula diraustazu? Andiakgoak asmau eutsezan zure Jesus maitiari. Gatxen bat egin deutsula diraustazu? Andiagoak egin eutsezan Jangoiko oni. Ondo<sup>63</sup>-ondo begiraturugiozu. Azotetz aserik, zauriz estaldurik, arantzaz burua zulaturik ifini eben bere a[re]rioak. Baña ez aren gorrotoa, ezpada errukia erakutsiten dau. Neure Aita Zerukoa<sup>64</sup>, parkatu egiezu ni onelan ipini nabena, dirautso. Beste onenbeste eskatuten deutsu zuri. Zer dirautsazu? Parkatu gure ez deutsazula? Bada emen añ gorroto andikorik? Bada, Jauna, betor bere ganera zure aserre guztia, madarikatugizu, betiko kondenaugizu; zeure eta zure Amaren laguntasunetik, zeure Santuen artetik betiko erbestetugi-

<sup>60</sup> Ostein zuzenduta: *Jesus oni zuri parkatiagatik* (< *Jesus oni zuri parkatu gurarik*) *dolorezko eginik begiraturugiozu* > *Zuri parkatiagatik dolorezko eginik ondo-ondo Jesus oni begiraturugiozu*.

<sup>61</sup> Idem: *bulerra lantza gogorrez idigirik* > *lantza gogorrez bulerra idigirik*.

<sup>62</sup> Ostein ezabatuta: *ondo dolorezko eginik* > *ondo dolorezko*.

<sup>63</sup> Ostein erantsita.

<sup>64</sup> Ostein aldatuta: *Jauna* > *Neure Aita Zerukoa*.

zu; diabruakaz batera, zeñtzuen gorrotoari jarraitu deutsen, betiko penaz ipinigizu.

Baña, ez Jauna, ez dot uste zure entzuleren artian añ biotz gogorrekorik izango dala.

(\*)<sup>65</sup>Ea bada, pekataria<sup>66</sup>, Jesusi<sup>67</sup> obeditu ez eta Diabruari jarraitu nai badiozu, idiki dedilla bereala lurra, zabaldu dezala Infernuak bere agoa eta berta[n] irunts zaizala. Eta librau nai badezu, zergatikan parkatu nai ez diezu zure arerioai? Eta zer arpegirekin agertuko<sup>68</sup> zera arerioai parkatzeko agintzen dizun Jaun onen aurrian? Jaunau da agintzen dizue-na: Nik, esaten dizu Jesus maiteak, maitetu dagizuzala zuben arerioak, nik zubei osasuna, izatia eta ondasun guztiak emon nizkizuenonek; nik zubekgaitik agoniña larrian arkitu ta arantzaz koroatua izan nintzanonek; ni zubekgatik bost milla azote eta g[e]iago sufritu ta zubek salbatzarren kurutzean il nintzanonek, nik agintzen dizuet etsaiak amatzeko eta parkatzeko. Au da nik zuben Aitak, zubei, nere semeoi, eskatzen dizuedan mesedea.

Zer diotzue orain pekatari gorrotodunak? Ukatuko diozue eskatzen dizuen mesede au? A zer pena au, nere Jesus ona, zuretzat! Zer nai dezue bada orain, pekatariak? Zubengandik mesedea alkantzetako, zubekgatik egin duen baño geiago egitia? Edo nai dezue ekusi Jesus zuben oñetan Judasenetan egon zan bezela? Orra, bada, non datorren zuben oñetara, Judasen oñeta[n] etxin zan bezela. Bere Ama Santisimak ekusten duenian bere Semia zuben oñetan, negar egingo du; Zeruko Angeruak penaz ta sentimentuz beteko dira eta Zeruak lutuz jantziko dira. Baña or ikusiko nozue, esaten dizue Jesus maiteak. O pekatari gorrotoduna! Baldin orain artian Jesus maitiak esan dizkitzuen itzak asko ezpadira etsaiak parkatzera zubek ekarteko, bigunduko al ditu bere Aita Eternoari Kurutzeko arbolan gizonaren antzik bage zeguala, il baño lenago bere Aitari esan ziozkan itz oiek? Zegoan bai, gure Jesus maitea Kurtzean bere etsaiak burla ta barre egiten zizkiola, eta zer uste dezue egin zuala Aita amoroso onek: madarikatu edo desegindu billauare[elk]? Ongi merezi bazuen ere, etzuen orrelakorik egin, ezpada noiz arkitzen zan Jesus persegituena eta areriaz ingaratuena, orduan bere Aita Eterno-

<sup>65</sup> Ostein ezabatutako esaldi amaigabeak: *Kondenatu nai badezu... Ea bada Jesus maitia, gorrotodun madarikatuak zuri obedidu ez eta... Ea bada nori obedidu nai diozu... Baña gorrotodunentzat fuez aserria...*

<sup>66</sup> Ondo lotzerik izan ez dugula eta, ez dugu aldaketa hau transkribatu: *pekataria > Jesus maitia.*

<sup>67</sup> Ostein aldatuta: *Jesusi > zuri.*

<sup>68</sup> Idem: *begira > agertuko.*

ari parkazioa eskatu zion, esaten ziola: Nere Aita, arren parkatugiezu, zerren ez dakien zer egiten duen.

Orain, pekatari gorrotodunak, ekusirik Jesusen exenploau, ekusirik parkatzen diela arerioai, parkatzen diezue zuben<sup>69</sup> etsai[ai]? Zer diozue? Bai Jauna, erantzungizue. Baña biotz guztitik? Bai Jauna. Alkarrekin paketuko zerate eta adiskidetuko zerate? Bai Jauna. Ea bada, esan dezagun guztiok akaba dedilla gure arteko gorrotoa, sortu dedilla gure biotzeta[n] alkarganako amodioa; eta baldin bere etsaiari parkatu nai ez diotnik bada, ez dezala onelakoak Jangoikoen Tribunalian miserikordiarik alkantzau: lur jo dezala onelakoak eta beti bizi dedilla bere etsaien mendian, alargundu dedilla onelakoen emaztia, umezurtz gelditu ditezala one[e]n umiak, one[e]n izena munduan betiko aztu dedilla. Onelakoa Jaunaren Tribunallean kondenatua urten dedilla.

Baña zube, etsaiari parkatu diozuenak, ez dezue zer bildurtu ta ikaratu. Atozte guztiok Jesus maitiaren oñetara, zubei pekatu guztiak parkatuko dizkitzuen konfiantzarekin. Bada, Beronek esaten dizue: *Dimittite et dimitemini*. Orain biotzetik konfiantza osoarekin...

Erdu pekataria, Jaun oni kontu emotera; eta zuk, Jesus mait(i)a, eta ez errukiaz, ezpa[da] aserre ta koleraz artugizu<sup>70</sup>. Gorrotodun madarikatuak zuri obedidu gure ez eta Diabruari obedidu gura badeutso, idigi dedilla bertan lurra, eta Infernuak bere agoa idigilirik bertan betiko ondatu dedilla. Gorrotodun geztoa, ze lotsagaz, ze arpegigaz agertuko zara egunen batian Jaun onen aurrera? Zelan atrebiduko zara zure pekatuen parkaziñoa Jaun oni eskatutera, zuk zeure arerioari parkatu gura ezik? Jaunau da aginduten deusuna, Jesus maitiau da dirautsuna: Nik esaten deusut zure arerioari parkatu dagiozula. Nik zuri izatia, osasuna eta ondasunak emon deusudazanonek; nik zure amudioz Kurtze gogor onetan agoninan sartuta il gure izan nendunonek; nik zure amudioz arantzaz burua lastimagarriturik ipini dodanonek; nik begiak ilundurik, bulerra zulaturik, esku-oñak josirik, guztiau zauriturik, azotez aserik, birrindu ta puskaturik gelditu nintzanonek dirautsut, parkatu dagiozula zeure arerioari. Au da nik zure Aitak, zuri, neure ainbeste kostako seme-orri, eskatuten deusudan mesedia.

Zer diñozu, pekataria? Ukatu gure deusazu<sup>71</sup> zure Aita onek eskatuten deusun mesede txiki au? Gitxi deritxazu Jaun onek zugaitik egin

<sup>69</sup> Geuk zuzenduta: *zueben* > *zuben*.

<sup>70</sup> Osteen aldatuta: *Ea bada, Jesus maitia* > *Erdu pekataria, Jaun oni kontu emotera; eta zuk, Jesus mait(i)a, eta ez errukiaz ezpa[da] aserre ta koleraz artugizu*.

<sup>71</sup> Geuk zuzenduta: *deuszu* > *deusazu*.

dabenari, zuk Beronegaitik ain gauza txiki bat egin ezeiteko? Gure dozu geiago egin dagien? Gure dozu, Judasen oñetara legez, zure oñetara etxun dedin? Baña orañdio bere parkatu nai ez diozu, gatx egin dizula diñozu. Zuk, barriz, pekatu orrekin gogortasun andiakín Kurutze onetan il dezu. (\*)<sup>72</sup>

Gatx egin deutsal diñozu; zure pekatuakaz geiago egin deutsal. Zure pekatuak Kalbarioko mendian kuretze batian ipini eben; zure pekatuagaitik Judeguakgandik añ nekegarri eginik ipini eben, guztiak burle egin eutsen. Gure izan baleu, guztiak galtzeko eskubidea euken; baña ez aren kastigua, ezpada bere Aitari are[e]n parkaziñoa eskatu eutsen. Eta orregaz zuri bere egin dakizula dirautsazu<sup>73</sup>. Nik zuri (...) zure amodioz zauriz estaldurik, azotez aserik, esku-oñak josirik, begiak illundu, burua makurtu, eta illik nakutsunonek, au da nik zure Aita anbeste kosta zatxataz[an]onek eskatuten deutsaludana.

Eta baldin Jesus onek zure amodioz igoroko penak zure biotz arrizko bigundu ezpadabe<sup>74</sup>, bigundu dagiela Kalbarioko mendian kurutze batien ilten egozanakgaitik<sup>75</sup> bere Aitari egineko eskariak.

Eta<sup>76</sup> zure pekatuakin galduriko bizitza emongo bazizun<sup>77</sup>, Juduakgandik, Kuretze onetan dakutsun bezela, afrenta andian il zan. Eta orregaitik bere, begira, ez areen gaitxa, baizikan parkazioa eskatu zion. Eta exenplo onen aurrian, parkatuko ez diezue? Zer diezue, pekatari gogorrak? Neurekin batera “bai Jauna, parkatzen diegu” esan nai ez dezue. Bada, zubek pekatari gogorrok, nai ez badezue, zubek umetxuok gitxie-nez, neurekin batera: Bai Jauna, esangizue.

Ea bada, Jesus maitia, zure amodioak<sup>78</sup>, zure ontasunak, zure erre-guak, promesak<sup>79</sup>, zure dei eta negarrak obligauko ez badabe pekatari gorrotoduna bere arerioari parkatutera, galdu begi, ondatu begi, kondenu begi zure justezia arrigarriak; zure miserikordiarik sekula izen ez

<sup>72</sup> Orrialdearen amaieran, buruz behera, egileak idatzitako eskutitz baten hasiera dago: *Escoriaza y septiembre 18 de 1824. Mi venerado P(adr)e Guard(iá)n. Venerado P(adr)e mío; recibí su muy apreciable demanda en que me ordena pase a Navarniz a dar principio a la Santa Misión, a la que con...*

<sup>73</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>74</sup> Ostean zuzenduta: *ezpada* > *ezpadabe*.

<sup>75</sup> Geuk zuzenduta: *egokazanakgaitik* > *egozanakgaitik*.

<sup>76</sup> Ostean erantsita.

<sup>77</sup> Esaldi iluna.

<sup>78</sup> Ostean zuzenduta: *amodioakgaitik* > *amodioak*.

<sup>79</sup> Ostean erantsita.

begi eta lurra idigirik, Infernuak bere agoa idigirik, betiko tormentueta-rako iruntsi begi.

Gorrotodun geztoa, ze lotsagaz, ze arpegigaz, ze biotzegaz, ze ari-magaz agertuko zara Jaun onen aurrera zuk<sup>80</sup> eginako injuria eta pekatu andien miseriak eskatutera, Jesus augaitik añ gauza txiki bat parkatu gure izan ez badeutso<sup>81</sup>. Jaunonek dirautsu, Beronek erregututen deutsu parka dagiozula. Baña zu zenbat geiago bigunduten jatzun, anbat geiago gogortuagorik ezetz dirautsazu. Nik zuri izatia, bizitzia eta ondasuna[k] emon deutsudazanonek, zure amodioz burua arantzaz josirik, bulerra idigirik, zauri, azotez galdurik, esku-oñak loturik, begiak ilundurik ta zure amodioz illik nakutsunonek; au da nik, zure Aitak, anbe[s]te kostata zatxatazan semeorri eskatuten deutsudan mesedia. Zer dirau[tsazu]? (...)ts erantzuten deutsazu? Zuri proximuak kalte egin deutsula atxakia(...) emon gura dozu? Ipin zaituz zuri zure pekatuak parkatutiagatik guztientzat [ipin] ebena legez? Ez. Orregaitik, begira zer bere arerioakgaitik bere...

Zu salba zaitian amodioz<sup>82</sup> Kalbarioko mendian Kurutze gogorrian agoniñaz larriturik ilten egoanian, burla beste kontsuelorik emon ez eutsen; eta guztiak galduteko eskubide osoa euki beban bere, bere arerioaganako amodioz, negarrez Aita Eternoari aren parkazinoa eskatu eutsen. Onenbeste exenploren aurrian, zer dinozu? Parkatuko deutsazu? Bai Jauna, zure amodioagatik ori ta geiago egingo dot, erantzungiozu.

Ala nik ere dakarkizuet enpeñu andi bat, ez munduko<sup>83</sup> Aitaren partez...

Ea bada, p(ekataria)k, ez dago beste biderik: parkatu edo kondendatu. Zer diñozue? Parkatzen diezue?

Nox artian, pekataria, nox artian gorrotoan ta parkatu gura ezik biziko zara? Eriotzako ordura artian? Ea bada, Jesus Maitea... Jesusen agoniñak, Jesusen negarrak, Jesusen larriak asko ezpadira...

Zuri bere<sup>84</sup> agoniñako larrian, pekatuak parkaturik, zure besartian artu dagizula Sazerdotiak eskatu daizunian gorrotodunagaitik, ez zure besartian, ezpada demoninoen atzamar gogor artian betiko tormentura-

<sup>80</sup> Geuk zuzenduta: *zuri* > *zuk*.

<sup>81</sup> Esaldi iluna.

<sup>82</sup> Osteen aldatuta: *Zuri parkatutiagatik, eta zu salbetiagatik* > *Zu salba zaitian amodioz*.

<sup>83</sup> Idem: *Zeruko* > *Munduko*.

<sup>84</sup> Idem: *Bai, Jesus maitia* > *Zuri bere*.

ko entregauko dozu. Errukiturik entzun dagizula eskatu dagizunian, belarriak estaldurik zure esku santuakaz ezetz<sup>85</sup> orrelakorik erantzungo deutzazu. Zeruko Patriarka, Santu-Santaren artian sartu dagizula esan dagizunian, Infernuko demoninoen artian sartugizu. Maria Santisimia, Angeru glorioso Migel, Gabriel, Rafael eta ganekoak bere defensarako urten dagioela esaten deutzunian, dragoie itzelgarriakin<sup>86</sup> gerra egin deutzazu. Patriarka, Profeta eta beste Zeruko koruak artu daijela esaten de...

#### SERMÓN DEL PERDÓN

Jauna, ez da posible nik ori egitia. Baña ori da injuria Jangoikoari egitia. Posible ez danik ez dizu eskatzen Jangoikoak, eta bai gauza perfektuak diranak. Posible ez da, ez dozulako ausi nai bere agindura zure borondatia.

Jauna, ez da posible, esaten dezu. Ordea, ez da ori egia: Jangoikoak ez dizu agintzen posible ez danik, eta bai perfektu diranak. Ez da posible, ez dezulako borondatia ausi bere agindura; posible dalako egin due gizon on eta santuak. Arerioai parkatzia da Zerurakoren señaia, gizon espiritualena; eta parkatu nai ez izatia, da gizon karnal ta gogorena, Infernurako izango biar dabenena. Bigundu egizu biotz gogor ori Zerurako izan zaitian; ausi borondatia etsaiaganako<sup>87</sup> eta orrekin bigunduko dezu Jangoikoarena, zuk berari egindako oker andiak parkatu ditatzun. Zuregan dago, zure biotza ausi nai izatian. Ez dizu aginduten onetarako mendietara bizi izaten joan biarrik, ez itsaso peliburusoetan ibilli biarrik. Laster itxi biarko diran interesakgatik sakripizio edo neke oiek mundutarrak artzen ditube, eta bakarrik txikiagoak, biotza ausi ta biguntzeak Zeruagatik nai ez dira.

Ezin batek euki dezake atsegin andiagorik, maite dabela Jangoikoa bere biotzak esatia baño. Ezin gizonak munduan zorion andiagorik au baño euki lezake, zergatik ez munduko legiak, bai Jangoikoaren grazia ta amodioak ez bestek ekarri dezakian gure biotza onetara.

Berau da Jangoikoren Legeko Mandamentorik andienen bat, eta añ andia ezen, berak ondo gorde gabe ezingo dezu iñoz amatuko zure Jangoikoa. Au karidadeko birtuteren ezauga[rrial]. Eta ez ezazu uste izan

<sup>85</sup> Geuk zuzenduta: *ezezt* > *ezetz*.

<sup>86</sup> Ostean zuzenduta: *itzelgarriai* > *itzelgarriakin*.

<sup>87</sup> Ostean aldatuta: *zure etsaiaganako bigundu (...)* > *ausi borondatia etsaiaganako*.

mandamentoa gogorra dala. Ez eiozu bakarrik begiratu proximuak zuri egindako kalte edo okerren aldetik. Alde orretatik, egia da ezingo dauzala eman zure biotzari samintasuneko bidia baño. Begiratugiozu Jangoikoaren agindua dalako etsaia<sup>88</sup> maite izatetik biotzera etorri oi diran gozu aldetik. Ez dizu zuri...

Ezin batek mundu onetan atsegin andiagorik euki dezake<sup>89</sup>. Mundo onetan batek euki al dezakian atseginik andiena da, bati<sup>90</sup> bere biotzak esatia Jangoikoa maite duala. Ez dago<sup>91</sup> gizonaren biotza geiago mundo onetan betetzen duan gauzarik<sup>92</sup>, Jangoikoarekin ondo dala bere konzienziak esatiak baño. Eta Jangoikoa maite duala igarritzeko, ez dago ezaugarri obeagorik etsaiari Jangoikoagatik parkatzia baño, zergatik gure borondatia etsaia parkatzera ezin dualako ekarri etsaiak guri egindako okerrak, ezpada Jangoikoari diogun amodioak eta bere aginduari obeditu naiak. Jangoikoari izan oi diogun amodioa izan oi da beti graziazko iturria, gure borondatia proximuak egindako okerra parkatzera ekarri oi gaituana. Eta benetan ezin atsegin andiagorik<sup>93</sup> au baño izan leiteke batentzat<sup>94</sup> esatia bere biotzak: Nik Jangoikoren agindura sakripikatzen det biotza eta parkatzen neroni emandako sentimentua beragatik, bere amodioz. Baña gure gaitx guzia dator Jangoikoari begiratu biarrian, gure proximuak egin digun okerrari bakarrik begiratutetik. Emendik beti aren kontra jarduntzen egotia eta berak bezela bestiak aren kontra egon nai izatia.

Guk ezin sufritu degu gugaitik bestiak gauzarik txikien bat ere esatia. Gu ordu guzietan gaude Jangoikoa openditzen. Nai degu Jangoikoak guri gure okerrak parka ditzagun. Onetarako esaten digu parka diozagula gure proximuari, bada, gure pekatuak parkatuak gelditu ditezen nai izanik, eta onetarako proximuari parka diozagula biar izanik, parkatzen ez badiogu, ez da etorriko gure ganera parkazioa, baizik Ebanjelioko Ma[io]rdomoari etorri zitzaion kastigua. (\*)<sup>95</sup>

Zuk, pekataria, aspaldiko urtetan zor andiak pekatuakin egin dituzu Jan(goikoa)ri<sup>96</sup>, eta anbestekoak ezen, ez dezu Berak kontu egitean

<sup>88</sup> Idem: *proximua > etsaia*.

<sup>89</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>90</sup> Ostean erantsita.

<sup>91</sup> Ostean zuzenduta: *da > dago*.

<sup>92</sup> Ostean erantsita: *mundu onetan betetzen > mundu onetan betetzen duan gauzarik*.

<sup>93</sup> Idem: *Ezin atsegin andiagorik > Eta benetan ezin atsegin andiagorik*.

<sup>94</sup> Geuk zuzenduta: *ezin atsegin andiagorik au baño izan leiteke batentzat au baño > ezin atsegin andiagorik au baño izan leiteke batentzat*.

<sup>95</sup> Amaiera oharra: *La historia del Evangelio*.

<sup>96</sup> Ostean erantsita.

zerekin pagatu, ez zitxatzu beste biderik gelditzen belaun billozik Jangoikoaren oñetara etxutia, arren graziaz parkatu ditzatzula zutzaz urrikiturik. Pres[t] dago Jangoikoa grazia ori zuri egiteko, baña kondizio one-gaz zuk ere parkatu diozazula zuri oker egin dizunari; eta baldin ezpadiozu parkatu nai, berak ere zuri parkatuko ez dizula, zure urriki falta orregatik. Eta zuk, gorrotoan zaudena, zer diozu onetara? Ez diozula nai parkatu? Bada, ori da esatia Jangoikoari: Ez neroni ere parkatu, nai det galdu lenago, nai det inpernuan pagatu, ari parkatzia baño. Juan zaitia, bada, zorigeztoan.

GRANDEZAS Y ALABANZAS DE LA VIRGEN<sup>97</sup>

Iñor ere eztago, ó<sup>98</sup> Birjina Beatísima, deadar egiten eben Santubak, (1.)<sup>99</sup> espera daikianik bere salbazinoa zure bitartez ezpada, iñor ere alkanzatu daikeana miserikordia zure bitartekotasunaz ezpada...! O Jainkoaren Ama Santa! Zer izango litzateke gugaz largatuko baginduzu zuk, zariana Kristau guztien bizija eta espirituba? Predestinazioen eta biziaren señailea dá<sup>100</sup> eukitea betiro aoan Mariaren izen santuba... Ala nola arnasea dan biziaren señailea gorputzeán<sup>101</sup>, ala eukitea geratezgarriro aoan zure izen santuba, ó<sup>102</sup> Jainkoaren Ama Birjina, ez bakarrik dá<sup>103</sup> biziaren eta alegriaren señailea, ezpada izenak berak prokuratzen dabena. Nire Jainkoaren izena izan dédila<sup>104</sup> nire miinaren azkeneko berbia eta azkeneko berbaera, (2.)<sup>105</sup> urtetian mundu onetatik olibaren adar onagaz aoan, ega egin dagian deskansuko eta bakeko lekura. *Ut illud, velut olive ramum in ore referens, avolem, et requiescam...* Berori dá<sup>106</sup>, ó<sup>107</sup> Jainkoaren Ama!, (dio beste leku baten), guztiz poderosa salbatzeko bekatariak, bear eztabena beste errekomendazinorik Jainkoarentzat, zergatik dán<sup>108</sup> bizitza egiazkoaren Ama. Berorren estalpea dá<sup>109</sup> esanezkizuna, Berorren bitartekotasuna bizitzaren beraren prenda. Berorrek

<sup>97</sup> Beste esku batek idatzitako luzapena: *Iñor ere eztago... zeñek amatzen dituban ainbeste bekatariak.*

<sup>98</sup> Ikus 9. oharra.

<sup>99</sup> Oin-oharra: (1.) *S(a)n German Patriarca de Constantinopla.*

<sup>100</sup> Ik. 9. oh.

<sup>101</sup> Idem.

<sup>102</sup> Idem.

<sup>103</sup> Idem.

<sup>104</sup> Idem.

<sup>105</sup> Oin-oharra: (2.) *Acento.*

<sup>106</sup> Ik. 9. oh.

<sup>107</sup> Idem.

<sup>108</sup> Idem.

<sup>109</sup> Idem.



irakutziko ezpaleusku bidea, ez litzateke izango iñor espirituala, iñork ere ez leuke adoratuko Jainkoa espirituban: egin zán<sup>110</sup> espirituala gizona Jainkoak egin ebeneti Berorre[n] Espiritu Santubaren egontza eta bizi-tegiá<sup>111</sup>. O Jainkoaren Ama! Alerik eztago beterik Jainkoaren ezagueraz Berorregaitik ezpada. O Birjina Santisimea! Batere ez da salbatzen Berorren bitartekotasunagaiti ezpada. O Jainkoaren Ama! Iñor ere libratzen ezta peligroetatik Berorren mesedeagaitik ezpada. O Birjina Ama! Alek ere konsegitzen eztau graziarik bapere Berorren bitartez ezpada. Ó<sup>112</sup> Jainkoaren Birjina maitea! Zú<sup>113</sup> zara konsuelorik dulziena errezipitu doguna Jainkoagandik neure neke guztietan; Zú<sup>114</sup> inutz zerutarra freskatzen ditubana nire bero izekiak: zure miseri-kordien magalean billatzen dau nire biotzak otzaroa, fl[er]eskurea bere leortasunetan eta agortasunetan. Jainkoaren urrengo, Zú<sup>115</sup> zara nire fortaleza, nire sostena eta nire konfianza guztia. Entzuzu, erregutzen deutsut, nire orazinoak. Eztago gauzarik propioagorik neure Jainkoa-amarenik, zeñek amatzen dituban ainbeste bekatariak.

Baña Jauna, zer da nik diñodana? Zer nik eskatute[n] dodana? Illtia nire anaiak? Zure odolagaz eriotzatik librau zinduzanak? Ez, Jauna, orrelakorik. Il bitez bai ordu onian, baña zu ofendidu zaituen damuariz; akabau bitez bai, baña pekatuen sentimenterik. Emongo ditu zuben begiak negarrezko iturriak<sup>116</sup>, deituko deutsagu biotzetik: Arren, Jauna, miseri-kordia gugaz, eta guztiak salbauko dira. Ez d[a] au, neure pekatariak, egingo dozubena? Zer erantzuten dozube? Ojala sentimenturen indarrez ezin erantzungo bazendu! Onelan eginik esperantza bizi bat artugizue, eta ostera pekatuta biortu baño il lenago nairik, etxun gaitian Jesus maitia ofendi[du] dogun samintasunez, esaten dogula: Nere Jesu(kristo).

(\*)<sup>117</sup> Ea bada, pekatariak, ezingo deustubet erakutsi exenplo biziagorik, ez libru obeagorik zuben biotzak arerioen amodio eta parkazino-ra bigunduteko<sup>118</sup>, gure Jesus ta Jangoiko anbeste tormentuen erditik bere Aitari bera il ebenagatik parka eskatuten erakutsitia baño.

<sup>110</sup> Idem.

<sup>111</sup> Idem.

<sup>112</sup> Idem.

<sup>113</sup> Idem.

<sup>114</sup> Idem.

<sup>115</sup> Idem.

<sup>116</sup> Ostean zuzenduta: *Emongo dabe euren biotzak negarra > Emongo ditu zuben begiak negarrezko iturriak.*

<sup>117</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Baña alpe-rrik nekatuko naiz errazua senduagoen billa zuben biotzak parkatuterako...*

<sup>118</sup> Ostean ezabatuta: *ez libru obeagorik zuben arerioenak parkatura > ez libru obeagorik zuben biotzak arerioen amodio eta parkazinora bigunduteko.*

Biotz dollordunena da<sup>119</sup> proximuen okerretik bengaia art[z]ia; noblekoena, okerrak azturik parkatzia. Irabazi<sup>120</sup> ginaien bitoriarik andiena, gorrotoa kendurik parkatzia. Jentilgiñoakoak beti gauza anditzat euki due; eta Jentillak errazoa utsarekin ezautu badebe, zer guk, Kristao gerenok, egin biar ez degu?

Ea bada, pekatari biotzekoak<sup>121</sup>, asko da itsutasunik. Parkatu, arren, Jesusen biotz amudiotsuagatik. Parkatu biotz osoz Jangoikoaren agindua dala, baño bestera begiratu bagarik. Parkatu Jangoiko biziaren Semiagatik, Maria Santisimiarenagatik, Seme Jesusegatik, bere buru sagradu gure amudioz arantzaz koroatuagatik, bere arpegi eder Angeruak beragan ikusten dirianagatik, bere begi eder gure amodioz illunduakgatik, bere esku ta oñ Kurtze gogorrian josiaren amodioagatik. Zuben baiezkoen begira dago Jangoikoaren miseriakordia, onen begira zuben Angeru Guardiakoak, eta onen biarrian dagoz zuben arimak. Autortu<sup>122</sup> dagi-gun, Zeru-Lurraren aurrian, parkatuten deusuguela gure enemigo guztiai bio[tz]-biotzetik. Areleji gure deusagun gatxa etorri dedilla gure arimen gañera<sup>123</sup>. Angeru eta Trinitade Santisimua, Aita Eternoa izatia emon eustana, eta bere Semia erredimidu nenduna, eta Espiritu Santo amadu ninduna testigu izan bitez. Milla bidar bedeinkatuak onelan egiten dozuenak, zubek zare Justuen artian eskuako aldetik Juizioko egunian ikusiko zarenak.

Baña, o pekatari biotz gogorreko eta esker geztokoak, aoagaz bakarrrik eta ez biotzagaz parkatuko deusazuela esan dozuenok! Zubek izango zare ezkerreko aldian ikusiko zarenak, Zeru ta lurragandik madarrikatuak, lurra idigirik eta Infernuak bere aoa idigirik jatsi biarko dozuenak. Bai, Jangoiko justo ta soberanoa, Jangoiko altu ta poderoso! Zu zara Jangoiko bengaikoa, zure esanera obedidu daben guztiak zure asereren subagaz humillau dozuzena, etorri bedi zure aserria euren ganera. Noz artian, Jauna, pekatariak barrez<sup>124</sup>, euren pekatuen<sup>125</sup> okerrian atseginez betiak ibilliko dira? Jaigi zaite, Jauna, zure besoaren sendotasun guztiagaz zure poderioaren justizia egiteko. Gitxitugiozuz euren urtiak; nekatugizuz billoztasun ta miseriaz; probadugizuz persekuzinoko

<sup>119</sup> Ostein zuzenduta: *Biotz dollorrenekua da > Biotz dollordunena da.*

<sup>120</sup> Ostein aldatuta: *Bitoriarik andiena > Irabazi.*

<sup>121</sup> Ostein erantsita: *Pekatariaak > Pekatari biotzekoak.*

<sup>122</sup> Ostein aldatuta: *Esan > Autortu.*

<sup>123</sup> Ostein ezabatuta: *etorri dedilla gure arimen gañera, parkatuten deusagula > etorri dedilla gure arimen gañera.*

<sup>124</sup> Ostein erantsita.

<sup>125</sup> Ostein zuzenduta: *pekatuetan > pekatuen.*

ta kastiguko<sup>126</sup> zubagaz. Idigiko<sup>127</sup> ez baditubez euren begiak zure argira, parkatuko ez baditubez biotzetik proximuak, eta egingo badabe euren penitentsia, galdu bitez, ondatu bitez zure arerioak. Illundu zure<sup>128</sup> argirik ikusi gure ez eben begiak. Aztu bedi munduan euren gomutia. Betor [eura]kgana betiko eriotzia. Baña, ai Jauna...!

Batek esan leike: Jauna, nik ezin baraurik egin neike. Baña ezingo dau esan: Proximua amadu ezi[n] neike. Zuk esan zinait: Jauna, birjini-daderik edo kastida[del]rik gorde ezin naike. Jauna<sup>129</sup>, guztiak saldu eta pobriai ezin emon neike. Baña ezingo dozu esan: Proximua maite ezin neike.

Ez da asko, pekataria, Jang(oikoa)k opa izatia parkaziñoa, zu parkatutera...

Nox artian, bada, pekataria, parkatu gura ezik bizi gurako dozu? Eriotzako ordura artian? Erremediorik izango ez dozun artian? Ez, ezpada orañ denporia dozun artian. Zuri deika, zuri erreguka dagokizun artian. Zure pekatuak Kurtze onetan ipiñi eben, zu betiko eriotzatik librau gure izatiak dakutsun moduan zaritu eban; dotorezko eginik, zu zorioneko egitiagatik ipini zan. Zure betiko agoninatik libretearririk iru orduko agoniñak igaro zituben, eta azkenez kurtze gogor batian il zan. Onelan illik dirautsu, itzalgarriturik zure amodioz erregututen deutsu parkatu dagiozula. Eta zuk, gorrotuduna, zer dirautsazu? Ezegatik parkatuko ez deutsazula erantzuten deutsazu?

Il bedi betiko, Jauna, onelako pekataria. Galdu bedi sekulako onelako gaiztoa. Zure amodioa, zure ontasuna, zure erreguak, zure dei eta negarrak asko ezpadira onduteko, lurra idigirik, Infernuak bere agoa zabalduz irunsi begi. Ze lotsagaz, ze arpegigaz, ze biotzegaz elduko zatxakaz parkazino eskatutera, añ gauza txiki bat egin gura ez badozu? One[elk] guztiok asko ezpadira gorrotudunak onduteko<sup>130</sup>, ill, jo daiela, zure aurrian sekula miserikordiarik ezautu ez daiela, Zeruak brontzezko, lurra arrizko biortu dakiola; bere emaztia alargundu, bere semiak humezurt[z] izan ditezela. Onelakoen izena zure librutik borrau dedilla. Eriotzako orduan sazerdotiak zure besartian artu dagizula esaten deutsunian, ez zure besartian, eta bai Diabruarenian ipinigizu. Errukiturik entzun dagiozula esan dagizunian...

<sup>126</sup> Ostein erantsita: *persekuzinoko* > *persekuzinoko ta kastiguko*.

<sup>127</sup> Ostein aldatuta: *Argi* > *Idigiko*.

<sup>128</sup> Ostein erantsita.

<sup>129</sup> Ostein ezabatuta: *baña Jauna* > *Jauna*.

<sup>130</sup> Ostein erantsita: *asko ezpadira* > *asko ezpadira gorrotudunak onduteko*.

Ez da asko, pekataria, bakarrik nik esatia<sup>131</sup> zuk beste bage egiteko? Nik zugaitik anbeste egin, eta zuk gauza gitxi bat nigatik ez dozu egin-go?

Ez da asko<sup>132</sup>, pekataria, Jaun onek esaltia beste bagarik zuk egiteko? Eta zenbat geiago zugaitik anbeste eginik?

Zure pasinoko trabajuakgaitik, Jauna, parkatugiguzu: zure odolagatik, zure azote nire amodiozkoagatik...

Gitxien emendatu oi diran pekatu baten kontra<sup>133</sup>, Jangoikoa dan partez, gure borondate ta sentidu guzien jabe dalako; Aita dan partez, ez beti gauza bigunak, baita noizbait gogoragoak agindu ditzakegulako; Jueza dan partez, agind[ul]au egiten badegu, Zeruko zoriona[k] prometzen dizkigulako.

---

<sup>131</sup> Ostean aldatuta: *nik > bakarrik nik esatia*.

<sup>132</sup> Ostean erantsita.

<sup>133</sup> Ostean ezabatuta: *pekatu baten kontra, gorrotoren > pekatu baten kontra*.

**TERCER MANDAMIENTO.  
SOBRE EL SANTIFICAR LAS FIESTAS**

Viva Jesús, María y José

*Memento ut diem sabbati sanctifices.* Ex. 20, 8

Jangoikoaren Lege Santuko Irugarren Aginduak dirausku jaija[k] gorde dagiguzela. Begira zelan atxina esaten eutsen Jangoikoak Israeltarrai<sup>1</sup>: Sei egun bear egingo dozu ta euretan egingo dozuz zeure zereginak, ta zazpigarrenian atsadongo dozu, deskansua artuko dozu. Egun onetan biarrik egin biar eztozu ez zeuk, ez zeure semiak, ez zeure alabak, ez zeure otsein mutil-neskatillak, ez zeure aberijak, ezta zeure etsian dagoan kanpotarrak bere. Eta erri aetako berbaikunzan, atsedenari *Saba[tum]* dei egiten eutseena legez, andik etorri zan deskansuzko egunari Zapatua<sup>2</sup> dei egitia. Baña Xto gure Jauna<sup>3</sup> ilen arterik biztu ezkerro, Jaunaren biztuerako egun zoriontsuau, beti geure gogoan erabili gengien<sup>4</sup>, Apostolu Santuak agindu eben zapatuaren ordezkia domekia gordetako<sup>5</sup>. Eta errazoa andijagaz, bada egun onetan, domekaz biraldu dituz Jangoikoak zorionik andijenak ta miragarrijenak, Aita S(a)n Leon gloriosoak dirauskuna legez: Bada domekaz egin eban mundua, domekaz biraldu eutsen Apostolui Espiritu Santua, domekaz biraldu zituzan zorionik andijenak mundura.

Gauza biterako agindu eban Jangoikoak asteko egun bat gordetako: bata da, sei eguneko bearragaz mak[al]ldu izango zirian gorputzak zazpigarrenian arnasa puska bat artu ta inder barrija egin lekijon; bigarrena, munduko zereginetan beti gogoa euki bagarik, Jangoikoagana astian bein bera ondretara altzau leijen. Begiraturik Elexa Ama Santiak bigarren gauza onetara, agindu dau jaijeginak gordetako, meza entzuteko (...)<sup>6</sup>.

---

<sup>1</sup> Geuk zuzenduta: *zelan atxina Jangoikoak esaten eutsen Jangoikoak Israeltarrai > zelan atxina esaten eutsen Jangoikoak Israeltarrai.*

<sup>2</sup> Ostean zuzenduta: *Sapatua > Zapatua.*

<sup>3</sup> Idem: *Jaunak > Jauna.*

<sup>4</sup> Geuk zuzenduta: *ginjen > gengien.*

<sup>5</sup> Ostean zuzenduta: *gordegilzue] > gordetako.*

<sup>6</sup> Idem: *agindu dau jaijeginetan (...)* > *agindu dau jaijeginak gordetako, meza entzuteko (...).*

Eta antxina Jangoikoen erri Israelgoak<sup>7</sup>, zapatuaren ganetik beste jaije batzuk bere aginduten zituzana legez, alan orain Apostolu ta Elexa Ama Santiak domekaz ostian aginduten deuskuez beste jai batzuek. One[el]tariko batzuek dira osoak, domeketan legez obligetan gaituezanak; beste batzuek erdijak, mezia entzun ezkeru biar egin leizenak. Baña domekak ta jai osoak gordetako, gauza bi jagon biar dira, ta onen ganekoa izango da arratsalde oneta[ko] doktrinia. Lenengo bada, jai-domekak ondo gordetako ezta bearrik egin biar. Biarrak dira iru modutekoak eragotzizak, ta dira gorputzeko be[al]rra, saldu-erosija ta tribunaletako zeregiñak. Lelengoko galazorik dagoan bearra da, arako otseinak egin daroiena ta alogerekoak, zein dan beti nekezko biarra. Onelango denpora luzeko biarra egitia beti da pekatu mortala, premina ta lizenzija bagarik egiten bada. Baña ezta ain erraz esaten zenbat denporako biarrak izan biar daben pekatu mortalerako, bada onetan jakintsuak, batzuk batera, bestiak bestera dagoz; baña geijenak datoz esatera erlaxo biko nekezko biarra pekatu mortala izango dala ta andik berakoa pekatu beniola izango dala, doktrinan onela esanik<sup>8</sup>. Emen pekatu egin daroe arako nekezale luzero premina ta lizenzija bagarik egin daroenak<sup>9</sup>. Eta alan, luzeroko izan ezkeru, pekatu mortala izango da domeka ta jaijetan bear egitia, nai soloan artajorran, laijetan, mokillak (erpillak) austen, nai beste onen modura dan moduan dala. Baita bere baso-biarrian bai inustia, landarak atara ta ifinitia, orbela batu, karobija ta ikaztobiari suba emotia... Kontu, ikazkinak, Jangoikoaren eskuba basogino bere elduten da! Basoan egon arren ezin bearrik egin zinaike jaijegunian. Suagaz dagoan ikaztobijari arduria artu biar dautsezu baña beste bearrik ezin zinaike, ta alan illoroz edo beste moduten serbietan zoazanak, zeben tratuetan libertadeori atara bear dozue. Pek(a)tu egiten dabe bere argintzan, arotzian, errementaritzan, urregintzan, zapataritzan ta beste one[el]n moduko biarrak egin daroazenak domeketan<sup>10</sup>. Baite bere goruetan, kaltzerdiginan. Pe(ka)tu egiten dabe arako domeketan ardaoa, laboria ta beste onelako gauzak batik bestera jaijetan igoroten dituezanak. Pekatu da m(orta)la, bogadea, txabonadurea egin nai (...)tia, uruna eralgi, labasua, ta ogi erretia. Pe(ka)tu m(orta)la da burdijak pre[stau], kargak atara eta urrengoko goxian eguna baño lenago urteiteko gauba egin ezkeru

<sup>7</sup> Idem: *Israelgo > Israelgoak*.

<sup>8</sup> Ostein erantsita: *pekatu beniola izango dala > pekatu beniola izango dala, doktrinan onela esanik*.

<sup>9</sup> Ostein erantsitako esaldia.

<sup>10</sup> Ostein zuzenduta: *ta beste one[el]n moduko biarrak oblige(...) domeketan > ta beste one[el]n moduko biarrak egin daroazenak domeketan*.

biar egitia; bada, jaiegunak izenik ogetalau ordukoak, onelan gau[alri lapurreta puska bat, gox ta arratsaldeari beste zati batzuek kenduten badeutsezuez, beti igoroten zaree ta uasten dozuez jaijak, gauza grabian uts egiten dozuela. Eta ez bakarrik bear egiten daudeenak, baita bere arako aginduten dabeena[k] mandamentu onen kontra pekatu egin daroe.

Eta alan, pekatu egin daroe ez bakarrik guraso euren famelijari bear luzerokoa aginduten deutseenak, baita bere ugazabak arako otsainak arrastaka domeka ta jai guztijetan erabili darofe]nak. Seme-alaba ta otseinak eztautsee onetan obedidu bear guraso ta uga[zabai], (...)beinago da Jangoikoa m(...) (...)dua (...). (\*)<sup>11</sup> Ezin agindu leie eta esan bear deutse<sup>12</sup> lotsa onean, eztirala aek egunak bear egitekoak, Jangoiko[ak] erogotzirik dituelako. Baña orregatik, seme-alaba ta otseinak ezaututen badabe ka[l]te andijagoak etorriko jakezala<sup>13</sup> bearrik ez eginagaz guraso ta ugazabaren aginduaren kontra, eztabe egingo pekaturik bear egiñagaz; baña otseinak etse atan ezpadabe aurrerantzeko modu oberik asmetan, billatu bear dabe beste ugezaba Jangoikoen Legi[a] obeto jagon ereingo dautsen bat; eta ezin badabe, biortu gurasoen etxera. Azkenez pekatu mortala egiten dabe arako besteai jai-domeketan luzero bear egin dagijela konsejua, aurrebidea ta gantza emoten dautseenak. Ezta erraz gaurko egunian (esaten), nogino gaurko egunian eldu dan bear jai-domeketan egiteko amurrua. Gizonak bazaree, jaijgunerako gorde daroazuez abarkajostea, jaiegunian arrate edo zabalik, edo bigundurik dagozanak ifinitia; jaiegunian lasto ta kabillia balkoitik kamarara eroan ta plegetia (sabaira); maija, aurkija, lankea, idijen askea, atea, burdija, azpiria manaturik badagoz, jaiegun[il]an konpondu bear ko dira; jaiegunian azkora, atxur ta kodaniari astia bear ja[ken] ifini; jaijgunian surterako mukurra ta astillak egitia. Emakumak bazare<sup>14</sup>, jaijgunerako gorde daroazuez arkondara, gona, frakak konpondutia, pañuelua zuritu ta azpildutia; eta au, ezpada fiestarako, dantzarako ezpada... Eztakit, bada. Jaijgunian errotarako zarankada artoa garandu bear ko da, jaijgunian errotara o[s]terea, eta domekarako Diabruak gogoratuten deutsuez inoz astean gogoan eztaukezuezan guztijak; bada, one[e]k guztijolk] bear-lanak dira, eta denpora luzean bear egiten badozue, pekatu mortala egingo dozue, premina andirik ezpadozue. Baita bere pekatu egingo dozue gauza txiki askotan, egun atan denporia baktzekoa izan ez arren luzea, egunen kabuan guztijak bat eginik denpora andija emoten badozue, konturako, pañuelua zurituten ordu

<sup>11</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Ezin [a]gin[du] (...)*.

<sup>12</sup> Ostean erantsita: *eta esan bear deutse > Ezin agindu leie eta esan bear deutse*.

<sup>13</sup> Geuk zuzenduta: *jatezala > jakezala*.

<sup>14</sup> Ostean zuzenduta: *bazaree > bazare*.

lauren, azpilduten ordu erdi, pasadak artu edo konponduten iru ordu lauren; atea konponduten gizonak ordu erdi, lankiari kaderea ifiniten beste erdi, siliari beste ainbeste, abarka-piketan puska bat, josten beste ainbeste, esija ifiniten, onetarako egurra ekarri, konponduten, altzajarrija egiten ordu bat. One[elk guztijok egunen kabuan bat eginik, denpora luzela] eroaten dabe, ta bakotxian gauza txikerra izan arren, azkenean bat eginik, dira gauza andijak, ta alan pekatu mortala izango da.

A bada, ondo ezautuko bazendue Jangoikoak jaijegunek onelan ausitiari deutsen gorrotoa, alperrik eze, ez zintekeze izango ain errazak! Asko dira kastiguak Jangoikoak mundura biraldu dituzenak pekatu one-gatik, baña alde batera itxirik beste asko, esan dautsuet Jangoikoak Eskritura Santuan dirauskuna. Topaurik bein baten Judeguak gizon bat egurra ebatuten, eroan eben gizonori Moises, Aaron ta beste jente guztijen artera; eta ez jakinik Moise[selk zer gizonagaz egin, itandu euts[an] Jangoikoari zer egingo eban gizon triste agaz, eta dirautso: Ilgizu gizon ori, ataragizu karzelatik ta jente (guztijen aurrian arrika ilgizu) arterik bakarleku batera eroanda, an guztijak arrika il dagijela. Eta alan kastigatua izan zan Jangoikoak agindu eban moduan, bere kastigu ta besteren eskarmenturako. Ain da, bada, andija Jangoikoak bearrari jaijegunian dautsena, ta oraingo Ebanjelijoko Lege suabian ilterik ez agindu arren, an, beste munduan, artuko deutsue kontu estu ta larrija, eta zuen kastigua andijagoa izango da, arako Moise[selk arrika ilteko agindu ebenena baño. Alan bere, atxakija frankua etxake falta onelango biargililai, baña erantzun biar dot zeuen atxakijetara eta atera zeuen engaño anditik. Dator emakume bat konfesetara ta esan daroa: Jauna, egija da ni jaijegin arratsalde batzuetan bearrean josten egon nazala, baña ez nau inok ikusi, atia neure aldetik neukan. Eta esangidazu: Jangoikoak ikusi zenduzan? Ezin ukatu zinai, Kristinau bazara bada, pekatu egin dozu bestek ez ikusi arren. Exemplo txarrik inori emon ez arren, pekatu egin dozu. Jauna, nezesidadia neunkan: bijeramunerako zarrak adabetan egon nintzan. Etzeunkan beste erroparik zer aldatu? Jauna, astegunekoak zan. Bada, ezipazenduan besterik zer aldatu astegunekorik, jantzi jaiegunekoak adabau artian, ta jagon Jangoikoaren Legia. Jauna, eztogu astirik astegunian eukiten orretarako. Bakit au, serbitzailia bazara, nozbait jazoten dala. Ori alan bada, eztirautsut ezer baña gero zerbait esango deutsut gauza orren ganian. Ori orrelan bada, ta gogotik artu bazendun astegunian egiteko, e(...) topauko bazendun edo ez orrenbesterako astija, (...) esan biar da: bada, gogo (...) artuko balebe, aurkit(...). (\*)<sup>15</sup>

<sup>15</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Orregatik ere zenbat atxakia. Andra ekandu zitel bat... serbi(...). Zapaltjari...*



Zapatari, dendari ta jostunak esan daroe: Jauna, berbia emon neuntsan ta egin biarra neunkan, eta bestelan, ezin kunplidu neunkian jaijeguneri zati bat krijeduekaz batera kendu bagarik, ta orregatik goxaldera artian egon ginian bearrian. Eta zegatik berba ori emon zeuntsan? Neure bezerua zan, zein beste bategana joanik galdu neijan. A pekatari galdua! Alan esan ta alan egin daroazue askok gaurko egunian. Jangoikoaren Agindu Santua da bera gauza guztijen artian maite izen daigula; eta onangoai itenduten bajake zer dan gauza guztijen artian Jangoikoa maite izetia, beingoan erantzun daroe: gurago izatia gauza guztijak galdu<sup>16</sup>, bera ofendidu baño lenago. Eta berak bezeru<sup>17</sup> bat galdu ezeitiagatik, irabazi labur bategatik, galduten dau Jangoikoa. A pekatarija! Ondo kastigadua izango da zure pekatua. Ai Jauna! Al daigun bear guztija eginda bere, ozta elduten gara egunian-eguniango ogira. Ondo sinastuten dot nik ori; eta beti alan izan bearke dozula, eta zugaz jazoko dala arako Profetaren agotik Israelgo erriren kontra egin eban zemakuntzia, bere aginduaren kontra bear egiten dozulako. (Jaijeguneko bearra ezta murmurazinoen besteko pekatua.) Jauna, obe da jaijegunian bear egin, murmurazinoan egon baño. Egija da jaijegunian bear egitia ezta murmura-zinoa bazen deungia; baño alan<sup>18</sup>, bata zein bestia pekatu dira, ta egin biar eztirian gauzak. Deungago da amaseiko bat ostutia baño, gizon bat iltia; baño orregatik, ostuten badozu amaseikoa, pekatua izango da. Alan ez [el]gizu murmurau jaijegunian, ez-da biarrik egin bere, bada murmur-etia beti da gauza erogotzija jaijegunian<sup>19</sup>.

Bigarren bear-modua jai-domeketan galazorik dagoana da saldu-erosija, artu-emonia edo tratua; eta alan, egiten dabe pekatu mortala merkataria ta denderu jaijegunetan onango tratuetan dabiltezanak. Baña orregatik<sup>20</sup> dagoz gauza batzuk, jaijeguna izenagatik saldu arren, pekatu ezitiranak. Onelango egunian saldu nai erosi lei jan-gauzia, arto, ogi, okela, ardao, orijo, sain, tabakorri eta onelango gauza biar-biarrekoa; ta nozbait jazo leiteke kanpotar bateri barrualdeti gauzaren bat saldutia pekatu bagarik, ez-da errietan ganaduren batzueen albrokia egitia bere, ez itxirik berenberegi egun oneitarako astegunian egin al leijena, edo zapatata, txapel ta frakaren batzuk saldutia nozbait bere. Baña bai, pitxer, jarro, azkora, atxur, kodaña ta kanako gauzak saltzia eta ainbat andijagoa,

<sup>16</sup> Geuk zuzenduta: *gurago izatia galdu gauza guztijak galdu* > *gurago izatia gauza guztijak galdu*.

<sup>17</sup> Ostein zuzenduta: *beze* > *bezeru*.

<sup>18</sup> Idem: *ala* > *alan*.

<sup>19</sup> Geuk zuzenduta: *gauza erogotzija jaijegunian eragotzija* > *gauza erogotzija jaijegunian*.

<sup>20</sup> Idem: *or[r]legatarrik* > *orregatik*.

onetarako dendako atiak edo tranpia zabaldurik kanpoti badauke. One[e]k ekandu geztook dauke obligazioa errijetako Abade Jaunak kenduteko, ta justezijak lagundu biar dautse; baña atxakija galantak ekarri daroez onetarako. Jauna, esan daroa batek, gure errijan ori saldu-erosijori sarturik dagoan gauzia da. Baña pekatuzko usedijoa da, eta kendu biar dana Aita S(an)tu Benedikto Amalagarrenak erabakija, Obispo ta Abade Jaunak usedijo orren kontra indar eg[il]n biar dabena; eta esan doiana usedijo deu[n]gliari, bernia ebagi. Orra Bilbo ze uri andija dan, ezta onelakorik egin eta andi artu biar dozue exemploa. Jauna, bestiak salduko dau nik salduten ezpadot, edo bestiak bere salduten dabe. An konpon daudeela, eta are[e]k Infernura badoaz, zuk bere e[ul]rekaz naste joan gure dozu? Bada, eurekaz naste joan [ar]ren, etzara gitxiago erreko. Jauna, bada domeketan etorten dira ba[ser]ritarrak. Eta zegatik? Zuk salduten dautsezulako<sup>21</sup>. Eta bakizue ze kall[te]lak egin daroazuezan: orregatik eztira joaten meza nagosi batera; orregatik eztaude entzuten urtian bein doktrina bat eta eztabe jakiten ezer, ab[e]rija batzuk legez biziten diriala; orregatik urtian bein bakarri[k] konfesetan dira. One[e]k ta beste asko one[e]n modura<sup>22</sup> zuegatik datoz Jangoikoen Elex[ara] guztizko bere kaltiak. Ikusten dana da aste erdijan merkatu, erija edo b[este] onelakoren bat danian an diriala, eta alan astegunian zure merkad[ura] eroatera etorriko litekezena. Jauna, nik jai-domeketan salduten ezpadot, zer janik (ezpadot) izango eztot! Ezta ori egija; Jangoikoak ondo ekijen mandamentu ori, zu ifini orduko, zuk biariko zenduna, eta bere agindu santuak egiten bazenduzan, orregatik gosiak ilgo etzenduzala. Zer jan falta badozu ta pobria bazara, Jangoikoak permetietan dau zeura kudizija dala mediyo eta orrelan bazara, zure etsian ezta faltako negarra. Eta jaijetan eginiko tratuagaz aberastu bazara, zukan jausiko da arako Jangoikoak bere Israelgo errijarren ganera ezarri eben sentenzija Mikeas Profetiaren agotik: *Demercede meretricos congregati sunt et usque ad mercedem meretricos revertentur*<sup>23</sup>. Deungaro irabaziko diruak, deungaro irabazikoen pagua izango dabela dino; nondik eztakizula ondatuko diriala, eztiriala birlobetara elduko: ezta faltako zure ondesunentzako seme-alaba, zure erran galduren bat zure irabazija laster ondatuko debenen bat; auzi gezto, lapur, geixo luzekoren bat, edo su abrasadoreren bat hospitaleko bidien itxiko zaituezenen bat.

Irugarren jai-domeketan eragotziko gauzia da tribunaleko bearra. Eta alan, ez juez, eskribau, ez notarijoak premiña andiren bat ez izanik ezin

<sup>21</sup> Idem: *dautsezuelako* > *dautsezulako*.

<sup>22</sup> Ostein erantsita: *One[e]k beste one[e]n modura* > *One[e]k ta beste asko one[e]n modura*.

<sup>23</sup> Albo oharra: *C. 1º, v. 7.*

juramentorik artu leije testiguari, ez emon sentenzijarik, ez testamentorik egin. Erakutsirik zerbaitian noz izen al liteken pekatu jaijeginian bear egitia, ifini biar dot noz izango eztan egun oneitan bear egitia. Bada, Jangoikoak ez [leban] egin gizona jaijeginentzako, ezpabere jaijeginak gizonarentzako. Berba oneitan Jesusek ulertu erein gure deusku, berez jaijetan bear egitia gauza eragotzija izen arren, nozbait orregatik pekatu egin bagarik, biar egin lei. Eta alan, dinot bear egin leijela pekatu egin bagarik proximuaren bizitzia, osasuna, ondasuna, laborea, ganadu edo beste onelako gauzaren bat galduteko peliburuan dagoanian. Norberen etxe edo proximuarena suak artu dagijenian, onziren bat galdugordian dabilenian, edo euri, arri edo txingorak laboriak galduteko peliburuan aurkituten dirianian, onetan bear egin lei, ta sarri jazo leiteke onango esturaren baten lagundu ezeitia benturaz pekatua, berak lagundu ezeitiarrik galduten danian auzoa, bada onetan, karidadian faltetia da gauza astunian. Baite bere biar egin lei karobi, ikaztobija suagaz dagoanian; baña onetan, tranpak egin daroez baserritarak, eta pekatu egin daroe arako karobiginak jai bi erreskan badatoz, nondi aik bijak kosiko dituezan dabiltzezanak, auzoak doarik lagun egin dagijoen, zerbait geijago irabaziko dauen amuruagaz. Baña Kristinauak, Jangoikoa zarra da, eztautsezue aotik atzik sartuko. Balitz astelen edo onan sua emonik domekiak koxitia, ondo; baña bestia, tranpia, pekatua da baña ez beste, ez beren-beregi. (\*)<sup>24</sup>

Jaiegunian gorde biar dan gauzia da meza osoa entzutia. Meza osoa biar dan moduan entzuteko, iru gauza biar dira: lenengo, osoa izan dilla; bigarrena, atenzinoa; irugarrena, debozinoa. Meza osoa izateko, entzun biar dau lenengorik eta azkenengoginokoa, ta alan meza guztija edo zati andiren baten utsegiten dabenak, pekatu mortala egingo dau bere erruz bada. Emen pekatu egin daroe arako alperrerijaz ardurarik artu ezeitigatik uts egiten dabenak; pekatu m(orta)la, arako euren etseko eginenentan sarturik, bera da[n] baño geijago luzetute faltetan dabenak. Guztiz aserre andikoa erakutsiten da Jangoikoa bere Elexako Etxe Santuetan errespeto bage egon oi dirianen kontra. Isaias eta S(a)n Pablaren bidez esaten deusku ez dala iñor sartuko bere Zeruko Etxe Santuan, bere Elexako Etxean errespetoa galtzen duanik. Orregaitik, guztia aserraturik S(a)n Pablo Korintoarren kontra, pekatu onegatik esaten eutseen: *Nunquid domos non havetis aut Ecclesiam Dei cont[er]mnitis?* Pekatari geztoak, Kristinau atrebituak, zelan dozue biotzik Jangoikoen Etxeari horrela

<sup>24</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Baña dagoz (.).zen (.).tzuk bera pekatu bage egin leijenak.*

errespetua galtzeko? Berba egin nai badezue, kanpoak ez deukazuez? Tratuak egin nai badituzue, plaza eta dendak ez dituzue? Banidadea erakutsi nai badezue, kaliak eta pasioak ez dituzue? Ez dirade asko zuen etxiak, bentana ta balkoiak pekatu egiteko, elexara orretarako joan bage? *Nun..* Au ez da beste gauzarik, ezpada mundu guztiari leku estua eretxirik pekatu egiteko, Jangoikoen etxegiñokoagaz baliau nai izatia bera ofendietako.

Eta S(a)n Pablok bere denporan, Elexiaren aurrengo urteetan onenbeste motibo izan beban Korintoarren kontra, gaurko egunian ze motibo ez det izango N.arre[n] kontra emateko? Zenbat ekusten ez dire belaun bat bestien ganian? Zenbat gizon sartzen ez dire, ez Jangoikoa adoratzera, bai begiai gusto ematera? Zenbat emakume ez Jangoikoari gloria ematera, ezpada gloriau kentzera euren jantzi baneriaz beterikoa-kaz, askoren atenzioak Jangoikoagandik alderatu eta eurekganatzera? Zelan ekusten jazu<sup>25</sup>? Zenbat pekatu prozesioetan, eliz zimenterietan? Nik uste det anbestekoak diriala gaur lekurik santuenetan egiten dirian pekatuak, eze nik esaten ditudan guztiak ez diriala ezer, egiten dirianen parian. Eta alan, bildurrak kendurik, kontenplazinoak alderaturik, Elexatik gait[x] one[elk] kentzeko, esan biar deusuet onelakoak diriala Judasen irudira Jesusen traidoriak, bada euren egokera geztoakin erlijio santuen arerioai bidia emoten deutse, ez bakarrik siñatuteko, baita gure kontra emoteko.

Baña injuria andia artzen badau Jangoikoa[k] leku santu oneetan pekatu egitiagaz, askoz andiagoa artzen dau besteri pekaturako bidea emonagaz. Ez nintzateke atrebiduko onenbeste esatera, nik baño lenago S(a)n Juan Krisostomok esan ez baleu. Gizon on ta justuak, emakume garbi pekatu bagiak, arren etorri zaiteze elexara honestidadez jantzirik, eta askoren moduan etorriko bazaree, obeago izango da ez etorritia. Gure denporetan ondo ekusten da, arako S(a)n Jeronimok esan ebana, peligru andiak dagozala askorentzat elexan, plaza ta kaleetan baño. Zenbat[ek] au zeuekan ezautu ez dozube? Zenbat emakume lekurik agirienetan, bestiak ondo ekusiko dabenian, baneriaz beterik ifiniten ez dire? Eta onenbeste eginik kontentu geldituten zaree, erlijioako obligazino andiakin kunplidu bazenduen legez, noiz pekaturik geien egiten dozuen. Onelakoren bat baneriaz jantzirik ekusten dedanian, beingoan gogoratuten jat, arako S(a)n Juan Krisostomori Antiokiako kalia señora batekin jazo jakana. Berak ezaututen eban señora batekin topau zan kalia, eta ekusirik añ banaria[z] beterik joiala, esan eutsan: Nora zoaz emakumia? Elexara Jauna, erantzun eutsen. Elixara eta orren apaindurik,

---

<sup>25</sup> Ostean erantsitako esaldia.

anbeste arreo, perla, arri prezioso eta anbar-usainez beterik? Uste izan det komediara zuazala, ez elexara. Beste onenbeste bada, nik bere zuri, emakume baneriaz jantzita burua erakustsen zatozana, esan biar deusut: Añ apaindurik, zoragarriko jantzi[z] beterik, pekatuen parkaziñoa eskatutera? Noz sekula ekusi da pekaturako serbiduko jantziakin pekatuen parkazioen billa? Baña Jauna, ez nua konpesetara, ezpada meza entzutera.

Eta zer esango genduke Madaleniagatik, Jesusen Pasinoko sakrifizio-ra, pekaturako izan zituben jantziakin joan balitz? Bada, mezako sakrifizioa Kalbarioan egin zana bera da, eta orregaitik anbeste errespetokoa. Arako Salomonen Elexa Santua, zeñean Jangoik(o)a anbeste errespetorekin egoteko aginduten eben, ez zan berez añ errespetogarria, zeñda dirian gure elexak; ez zirian zelebretan añ misterio andiak, zeñda zelebretan dirian gure altareetan; ez jakon opa izaten añ ofrenda andirik, ez Jangoiko gizon egiña aren pekatuen satispazinorako, gureetan legez; ez Jangoikoaren odola, gureetan legez, ezpada animaliena; ez zan iñoz ekusi ofrezietan Jangoikoa Jangoikoari, Jesukristo Aita Eternoari gureetan bezela; ez zan jatsiten Zerutik Lurrera Jangoikoa egunero, gure altareetara jatsi oi dan legez, ezpada laño edo odei zuri bat, Elexaren<sup>26</sup> goiko ingurura. Belengo portaliari, Kalbarioko mendiari eta Sepultura Santuari bere presentziagaz emon edo komunikatu zion birtutia; one[elk guztiok gure[etan] daukaguz. Zelako errespetoarekin egon biar ez degu? Sinastuten dogu egunero Jangoiko jatsiten dala eta gure amodioz beti or daguala, eta orregatik zenbat indezeniaz ekusten ez dira? Ez da zer miraritu Jangoikoak gu kastigatzeagaz anbeste gerra, peste eta ganekokakaz. Gorde daijogun errespetoa eta zorione[ko]lak izango gera. Orrako Angeruak lurrera makurturik Jesus Sakramentaduen aurrian dagozanetik ondo ezaututen da, guk errespeto paltaz egiten diogun injuria. Errege baten aurrera joateko, zelako prestaerak egiten ez dira? Al dan ondoen jantziten da, zelan berba egingo daben aurrenagotik pentsatzen da; eta Jangoikoen aurre presentatzeko, zer egiten da? O gauza itsugarria! Ez da zer miraritu Jangoikoa gure kontra ain aserre andikoa ikusteagaz, anbeste gera kastigu izanagaz, ez erlijioa gugandik alderatu nai izatiagaz.

Ezingo gera joan iñora Jangoikorik ez dan lekura. Ezingo gera bergandik ezkutatu. Igoten badegu Zerura, esaten deusku Profeta Santuak, an topauko dogula gu gloria betetako; jatsiten bagera Infernura, gu kastigetako, bere esku astunaren pisua gugan deskargatzeko. Nai itsasoan sartzen gariala, nai munduti zabaltzen gariala, ezingo gera joan inora

---

<sup>26</sup> Geuk aldatuta: *Elexa-aren* > *Elexaren*.

Jangoikorik ez dan lekura. Eta<sup>27</sup> Jangoikoa leku guztietan egon arren bere<sup>28</sup>, dagoz leku batzuk zenetan aparteko tronuan legez egon oi dan, bere gloria eta gure osasunerako. Leku one[e]k dira elixak, non gordeta daukezan grazia andia gure gaixoen osagarriak gu osatuteko, eta berari gloria emoteko. Emeti dator elexak ondradu biar izatia, bere gloriak eta gure osasunak ala eskaturik, nondi ekusten dogun Elexari errespetoa andi bat gorde biar izatia<sup>29</sup>. Jangoikoak Jerusalemgo Elexa Santua egin ta konsagratzeko euki eban motiboa etzan izan beste gauzata[rako], ezpada bere erriagandik errespetoz adoratua izateko, eta onen bidez zorionez be[te]tako. Baña zelako errespetoakin egoteko aginduten ez eban? Eta izanik orduko tenploa irudi bakar bat gure tenploana, alako<sup>30</sup>errespetoarekin egoteko agintzen beban, zelako ark guretan ez da egon biar? *Cetera ut supra*. Askok esan daroe euren artian “oraudio astija dago”, ta gero arin-arinka mantillia galtzarpian artu[ta] joaten dira, eta mezia igaro bada, lotsaz sartu bagarik, atzera etsera biortuten diriala: Jauna, arin egin neban baña ni eldu orduko igaro zan. Denporaz etserik urten bazendu<sup>31</sup>, astiroago joanda bere entzungo zenduan; ezta ori atxakija galanta. Pekatu mortala egiten dabe plaza edo merkatura zerbait saldutera joanik lauziri geijago artuko deben amorrugaz, azkenera artian egon ta meza uts egiten dabenak; eta lastimarik andijena izan doa: meza uts egitiak eztautse emoten anbeste pena, ezpada lauziritxu geijago artu ez[el]itiak baño txarrapoza kudiziosa geztoak. Bada, orrelan ibili biarko dozue beti eta ezta asetuko zuen kudizija.

Meza ondo entzuteko bigarren gauzia da atenzinoa, au da, euki biar dau meza entzuteko gogoia, eta adi egon ta jakin zetan doian mezia. Orregatik eztabe me[zal]rik entzuten, arako berbaz batera bestera adi, baita bere ordirik joan oi dirianak, nor datorren, nor doian, nor zein lekutan ta zelango jantzijagaz dagozan dibertidurik dagozanak; arako mezara euren galiak ikustiarren eta alkarregaz berba egitiarren joaten dirianak, bada onetan pekatu andijak zitak eta onango gauza geztoak egoten dira. Nok sinastuko leuke, ikusiko ezpagendu, onenbestegiño elduko litzatekezala lotsabagetasuna[k] Elexa ta gauzarik sagraduginokoa, euren pekatuen estalgarri ta kiretsgarritzat<sup>32</sup>? Gurasoak alabiari galazot[en] badautso zaldu[n] bategaz berba egitia, alkar kontua ifiniten daud[e] domekan urlija meztatara urtengo dabela, eta an isil-kontu andi-

<sup>27</sup> Ostein aldatuta: *Orregatik bere > Eta*.

<sup>28</sup> Ostein erantsita.

<sup>29</sup> Ostein aldatuta: *errespetoa (...) > errespetoa andi bat gorde biar izatia*.

<sup>30</sup> Ostein ezabatuta: *eta alako > alako*.

<sup>31</sup> Geuk zuzenduta: *bazendua > bazendu*.

<sup>32</sup> Ostein zuzenduta: *ta kiretsgarritzat artu le... > ta kiretsgarritzat?*

jetan egoten dira mezan barriz, eurek euki dituezan kontu geztoetan, gogoratu bere bagarik non dago[z]lan eta zer egiten etorri dirian. Datoz konfesetara eta gitxi konfesetan dituez on[lek] pekatuok biar dirian zir-kustanzijakaz. O Jangoikoaren pazienzija! Ze isilik igoroten dozuen one[lek] pekatuok! Baña, pekatarija, begira etorriko dala denporia berba garratz zure kontra egingo dabena ta zenbat orain pazienzija andijagoagaz isilik dagoan, anbat garratzago zure kontra jaiki ta kastigaduko zaituzana. Meza entzutera zoazeenian, al dozuela ez eroan umerik<sup>33</sup>, bada ez bakarrik zeuek eztozue entzuten mezea, baite sarriten edo geijenian bestiai bere galarazoten dautsezuee. Emen falta egin daroe arako enbra bana euren umiak<sup>34</sup> ederrik jantzi ta erakustera elexara daroezanak, eta mezarik erdija eurekaz olgetan, bestia negarrak isildu ezinik igoroten dabenak. Itxi, bada, zeuen umiak<sup>35</sup> etxian<sup>36</sup> eta ezin itxi badozue, ta negartijak badira, egon zeuek elexara etorri bagarik eta egin etsean orazinoja.

Irugarren meza entzuteko biar dan gauzia da debozinoia, eta debozinoau da modu bitekoa<sup>37</sup>: gorputzekoa ta a[ri]mekoa. Gorputzagaz egon biar da modu onean, meza [sagra]lduak eskatuten dabena legez. Arimekoa da gogako Jangoikoaren gauza onetan erabilitia, Jesukristoren Pasino Santu jaijekera edo beste onelako gauzaren baten. Ondo da bere meza artean errosarijo edo beste debozino santu batzuk errezetan igarotia. A, Kristinauak! Ondo bazenkije zer dan meza santua, ez jaijegunetan baite asteegunetan bere, debozinoz entzuterako prisa andija erakutsi zeunkie. Bada, Meza Santua da Jesukristok bere Azkenengo Afarian egin zituzan miraririk andijenak ta miragarrijenak barriztetia. Da J(esu)k(risto)ren eriotza balio andikoa, Jangoikoaren ondra andijenerako ta gure probetxurako, odolik bota bage egitia. Zelango debozinoagaz eztozu guk egin biar obra santu ta miragarriju? Aurkituko bagine arako Apostoluekaz batera Afari Santuan bere eskuetan artu, konsagra du ta emon eutsenian, ze biguntasunagaz egingo geunkian? Baña, ai Kristinauak! Egoten zaree debozino onegaz? Ez Kristinauak, geijena emoten dozue zeuen etseko eginenak gogoan dituzuezala, inoren kontua burutan sarturik dozuezala, ta bearbada gauza pekatuz beterikoetan biotza ifinirik; au elexan, ta andi urteiten dozuenian, egun guztija pekatuetan. Meza bitarteetan izaten dira pekatu rik andijenak; orduan sorots eginik, gurasuak ezpadagoz, loikeriak, andi eskandaluak. Gurasoak,

<sup>33</sup> Jatorrizkoan: *bume*.

<sup>34</sup> Idem.

<sup>35</sup> Idem.

<sup>36</sup> Idem: *betxe*.

<sup>37</sup> Ostean zuzenduta: *biteko* > *bitekoa*.

eroan zeuekaz batera meza nagosira zeuen humiak, ezpabere Jaunaren aserrea etorriko da Judeguen ganera etorri zana legez. Eta justezija, jaunak. Zeuek bere gurasoak zaree eta zeuen faltaz galduten badira, zeuei eskatuko<sup>38</sup> jatzue kontua; orregatik, garbitu tabernak, biraldu etsera jentia denporaz, onan kenduko dira jokoak, etse-galdutiak, ordikerijak, birao, maldezino ta loikerijak. Onelan kunplietan badozue Jangoikoen ondrarako guztija egiten dozuela, Jangoikoen aurrian izango dira orretan euki al zinaizen bur[u]lko minak meritu andikoak. Alan, uste dot bere grazijagaz batera egingo dozuela zeuen arimen onerako [eta] beste askorenerako. Aurrera joateko biar dot grazija Jaunarena. Abe Maria.

Gutziz deungaro dirudijen gauzia meza nagos[i] ta aurrian errosarijoa esaten dagozan artian, bolan, pelotan ta konbersaziño ganorabakotan mutil ta gizonak elexa aurrian egotia, barruen dagozanai galarazoten dautsela. Abade Maisu Jaunak, baita bere justezijekoak, biar dituez kendu onelako kostunbre geztoak, ondo agindurik dagoana legez. Or, gizonak, alkarregana baturik egoten zaree zeue[n] idijaren indarrak erakusten eta nok sartu zaizen elekan, basabei kosoak kortan baño geijago. Asiko da sakri[s]tau mezia kantetan, ta orduan arin-arinka sarturik, auzoko idi txordo ta apalaren inderrak gogoan dozuezala igaroten jatzue mezako denporia.

Enbrak bazaree, aste guztijan etsia korta bat legez nasaiturik eukiko badozue bere, domekan artuten dozuez asmuak etxeko bazterrak konponduteko ta eztago nok erantau zaizen mezarako. Esaten dozue: Nor da mezako? D(o)n Fulano. Asti andiko gizona da, ezta belurik; ak ura ta ogija bedeinkatu daizeneko, onik eta eztakit nogiño bere eldu leiteken. Eta alan, zatoze gero arin-arinka ta ikusirik mezia igoro jatzuela, lotsaturik zoaze atzera etsera. Baña dispentsa guztiak beti beragaz daroa<sup>39</sup> legiaren ausite edo kebrantamentua; eta zegaz bestelan bizi daukamentz[al]t, obetuago izango da gordetia. Barauak ateratako dispentsauta dagoanak, berau ateratia beti izango da gauza on eta Jangoikoen atsegiñekoak; modu onetan gauzak saldu al izen arren, al badau saldu bage egotia, obetoago egingo dau saltzearekin baño. Oker andiak eta pekatu ez txikiak beti ekarri dituz jaijetako feria eta saldu-erosiak, ez saltzen dabenentzako, baita bere erosi biar dabenentzako. Ozta meza bat entzunik, eta ez gitxitan uts egiñik, jaijak astegunduten dira, alberri guztietako elexa guztiak desierto eginik geldituten dira, doktrina ez sermoirik entzun bage geldituten dira, etxerako kastuak geituten dira, gizonak

<sup>38</sup> Ostean zuzenduta: *eskatu* > *eskatuko*.

<sup>39</sup> Geuk zuzenduta: *daroana* > *daroa*.



alkargana baturik biziotuten dira, lanerako gogoak kenduten dira, base-  
rri guztiak pobretuten dira, etxe-basoak saldu ta one[e]n humiak kalia  
geldituten dira; eta one[e]k gatz guztiok ez bestegaitik, erriko sisaren  
diruak geitziagaitik. Eta doktrina faltiak erlijioari zenbat kalte ez dakar-  
kio? Orregaitik, al dozuen guztiok etxiak gorde, Elexia jagon, eta one[e]k  
zuen munduko ondasunak, baita arimakoak geituko ditu.

#### [AMAIERAKO ERANSKETA]

Gure egunetan ezta ikusten jai ondradurik, arako guraso onak gor-  
de oi zituan modukorik. Guztia da tratua. Tratu nekazaletan: len gure  
gurasoak zapatuetan domekia obeto gordetako ekarri oi zituban gauzak,  
domeketarako isten dozuez. Domeketan egitiak eta beste etxiak da-  
kar(.)ozuezan ga[u]zak saldu biar dozuez. Astegunetan baño bere itsu-  
tuagorik zakusguz, munduko gauzatan itsuturik; agatik ez dago ez kon-  
pesetako astirik, ez meza nagosira Jangoikoaren berbarik entzuterik.

Erri nagosietan bardin, edo deungago, zuben saldu-erosietan, zuben  
dendetan. Jaija danen irudirik bere ez. Jauna, dispentsaurik gagoz one-  
tarako. Bai, gauza santu guztiak aztueraziteko, dispensak ekarri oi dira,  
baña dispentsa guztiak legiaren erlajaziñoak dira; dispentsako motibo  
bere beñ baño geiagotan diran baño geiago esaten jake dispentsatzalliai.  
Kondiziñoakaz etorten dira, kondiziñorik bere gordetan ez dozube.  
Bakit saldu nai erosi leitekezala bizitzarako biar diranak Elexan b(...) ez  
da gorde (...).

## SERMÓN SOBRE LA PALABRA DIVINA

Jesús, María y Josef

*Via Sion lugent, eo quod non sint.  
Qui veniant ad solemnitatem.* Lam. 1, 4

Negarrez dagoz Siongo bideak, esaten eban Jeremias Santuak, ez datorrelako iñor Elexako fiesta ta gauza santuetara. Eta benetan negar egiteko gauzia da S(a)n Buenabenturak dirauskuna legez, ikustia betetik jentez Infernuko bide zabalak, ta ain gitxi glorijskoetan. Esangidezue, noz egon da mundua gaur beste pekatugez? Noz ikusi dira munduan gaurko beste kostunbre<sup>1</sup> gezto? Noz gaurko beste doktrina falta? Noz<sup>2</sup> ikusi da Elexetan orainbesteko errespeto faltia, asko sartuten dirala errespeto bagarik, banidadez jantzirik, komedije batera legez, eta luxurijaren merkatu batera legez? Kanpo ta kalleetan, bada, ez da entzuten juramento, eskandalu ta luxurijaren gauza ezain ta zantarrak, errespeto faltak semeetan, honestidade ta lotsa enbretan, Jangoikoen bildurrik ez gazteetan, exemplo faltia gurasoetan, pobrien artian humildaderik ez, aberatsak limosna bagarik, prudenzijarik ez zarren artian, arteztasunik ez tratularijetan: pekatua franku, birtute gitxi. Guztija berba baten esatarren, Babelgo Torre bat eginik bizi dira mundutarrak, besteri errespetorik ez dautsela, ezpada bakotzak berak adoretan daben bizi-joari. Hau da gaur munduko estadu borondatezko gaixoz beteriko hospital bat, ije betiko galduteko peliburuen sarturik. O nok ementu leijen Jeremiasegaz!: *Nunquid resina non est in Galaad? Aut medicus non est ibi?* Izango ete da Elexa Santuan erremedijorik ainbeste gatxerako? Ezta go medikurik zaurijok osatuteko? Ilten itxiko jake anbeste gaisori betiko eriotziagaz? Ez neure entzulak, bago erremedijoa Elexa Santuan gaixook osatuteko ta beste guztijen artian da onena predikazinoa; eta medikuak, predikadoriak. Zelan bada, egonik ainbeste mediku ta erremedijo, Elexa Santuan anbeste gaiso<sup>3</sup> Kristinau artian? (\*)<sup>4</sup>

<sup>1</sup> Geuk zuzenduta: *kostenbre* > *kostunbre*.

<sup>2</sup> Idem: *Nok* > *Noz*.

<sup>3</sup> Ostein ezabatuta: *ilten dira anbeste gaiso* > *anbeste gaiso*.

<sup>4</sup> Atal horretako albo oharra: *Jeremice primo*.

Zelan Jangoikoaren berbia izanik erremedijoa, ta aurkiturik ainbeste predikadore, ilten dire ainbeste pekatari pekatuan ta kondenadu betiko? Zelan izanik sarea, dagoz gaur munduan pekatuan sarturik? Zelan izanik argija, bizi dira pekatuaren ilunian? Eta izanik sua, ainbeste oztasun? Gure dozue esan dagizuedan zetan dagoan? Gustu bagarik, epeltasunez beterik askok entzuten dabeelako, ta biar dan estimazinerik emoten ez dautsezuelako; eta au da ainbeste gaiso betiko ilten dituzen gatxa, eta zuekaz jazo dana biar dan estimazinerik emoten ezpadautsezue Jangoikoaren berba ta predikazinoari. Eta au izango [da] erakutsiko dautsuedana.

Benetan K(ristinau)ak, Jangoikoaren berbia izan zan mundua Jesukristoganatu ebena; errege, enperadore jakintsu ta prudentiaganik bitorija irabazi ebena; Jangoiko guzurrezkoak bazterturik, Kurze Santuen estandartia<sup>5</sup> altzau ebena. Jakiturija bageko peskadore triste batzuk predikaturik, Judijo jakintsu, Erromatar, ta Grezijako jakitun andijak, lotsaturik zer erantzun ez ekijeela ifini ta azpiratu zituzan. Eta guztija baten esatarren, Jangoikoaren berbia da pazienezia baxen arma geijago bagarik, pobrezia baixen beste<sup>6</sup> exerzitu bagarik, Idolatra, Jentil ta Pagano guztijak azpiraturik Kristinauen izena mundu guztiti zabaldu ebena. Baña ain indar andikoa bada bere, denpora guztijetan izan da persegi due. Atxinako legian gerra egin eutsen errege ta enperadoriak, gorroto izan aide nagozijak, ta despreziadu beste ganeko erriak. Patriarka ta Profeta Santuak, zeintzuk izan zirian konporta batzuk legez, nondi Jangoikoak biralduten eutsezan mundutarra bere Berba Santuaren urak euren gatxetatik osatuteko, izan zirian preso ifinijak, azotaduak ta erioztara entregaduak.

Apostoluak Santuak predikadu eben doktrina onen kontra jaigi dirian erriak, urriak, probinzijak ta erreinu guztijak. Anbeste neke ta izardigaz predikadu eben, Apostoluen sarija etzan izan besterik ezpada afrenta, burlia ta erioztia baixen. Mundu guztijak Apostolu Santuen kontra jaigirik deadar egiten eben: *Di[s]rumpamus vinculo eorum et projiciamus vinculo*; urrutu dagiguzen gilz]on one[le]k ifini nai deuskuzen lakijoak; kendu dagigun ifini nai deuskuen buzterrija. Eta au da malpekadu gaur mundutar asko ta askok esaten dabena Apostoluen doktrina santua irakasten dabenen kontra. Au ta ez besterik da motibua Jangoikoaren berbiak pekatariak osatu biarrian gaisotuagorik ifiniten dituzena, ta Jangoikoen aparteko ju[l]izijoagatik betiko galdu ta kondenauko dituzena.

<sup>5</sup> Geuk zuzenduta: *estandaritia* > *estandartia*.

<sup>6</sup> Ostein erantsita.

Jangoikoaren Berba Santua izan da beti Jangoikoak artu daben bidia mundua santututeko. Au da arako instrumentua eskojidu ebena pekatuan egozan arimak beraganduteko. Apostoluak dino fedia munduan sartu zala entzutetik, eta sinastu biar dogun fedia ezta entzun ezpada predikazinotik: *fides ex auditu*. Eta Apost(olu)ak fede bakoai bere denporan esan eutsena esan biar deusuet pekatuen sarturik zagozienoi. Eztago nok pekatuti urten dagijen, ez izenik biotza samurtu jakolako Jangoikoen egi santuekaz, ta egi santuok ez dira beste gauzarik, Jangoikoen Berba Santue bere ministroen agoti prediketari deu[s]kuna ezpada<sup>7</sup>. Ezpabere esangidazue, ezta au Jangoikoak egin oi daroena? Zabalduen badoguz Eskritura Santuak dirauskunera, baita esperientziaz irakasten deuskunera, eztozu ikusiko beste modutan urten dabela pekatarijak euren estadu pekatukoti onelan ezpada, Jangoikoaren berba predikazinotik entzun daudenetik. Eta ze desgrazia andijagorik izan liteke pekatari batentzat, pekatutik Jangoikoagana biortuko daben Berba Santua entzuteko enfadu ta atzetasuna baño? Emetik klaru ikusten da Jangoikoaren kastigurik andijena, eta zenetatik bat jagon biar dan, dala predikazinoari gorroto artutia. Ezpabere esangidazue, ze desgrazia andijagorik bera salbadu biar daben gauzarik iges egitia baño? Iges egin gure argaltasunak sendatuko dituzen gauzatik, gure errakuntza emendatuko dituzen bidetik, itsutasunak argituko dituzenetik, bizitzak emongo deuskun erremedijoti, eriotzati librauko gaituzenetik iges egin? Benetan desgrazia andija. Bada, au da predikaziñotik iges dabilenak egiten dabena<sup>8</sup>.

Eta Jangoikoen Berba Santuaren igeska dabilitzezan estadia desgrazia bada, zer esan giñai arako predikadorien burle egitiagatik etorri oi dirianakgatik, eta nozbait donzellatxuren batek beren pekatuen negartasunez beterik sermoirik urteiten badau pekatuen katiatik urteiteko gogo santu batzukaz, orduen ifiniten dautseezala al dituezan inder guztijak proposituti urteiteko? One[elk] blasfemu eginik Jangoiko ta gauza sagraduen, ilgo dira pekatuan; euren glorija geldituten euren konfusinorako Infernuko sepulturan ondaturik. Baña biortu gaitezan, one[elk] Infernuan itxirik, gel[ur]re sermoira. Zer uste dozue<sup>9</sup> izan zala arako gauzia Jangoikoa obligadu ebana erakutsitera bere errijari artu eutsen gorroto? Eskritura Santuak dirausku<sup>10</sup>, Zerutik Jangoikoak mirariz biralduten

<sup>7</sup> Geuk zuzenduta: *ezpada Jangoikoen Berba Santue bere ministroen agoti prediketari deu[s]kuna ezpada > Jangoikoen Berba Santue bere ministroen agoti prediketari deu[s]kuna ezpada*.

<sup>8</sup> Idem: *Bada, au da Jangoi predikaziñoti iges dabilenak egiten dabena > Bada, au da predikaziñoti iges dabilenak egiten dabena*.

<sup>9</sup> Idem: *duzue > dozue*.

<sup>10</sup> Idem: *dirausko > dirausku*.

eutsen ogi mana esaten eutsenari artu eutsen enfadu edo gustu gitxita-suna. Mana dei egiten ogijau jausten Zerutik, eta zan janari bat zeinegaz mantenidu eben desiartuen bere errija, arduria artuten ebala egunian-egunian bakotxak biar eban beste emoteko. Janarijonek osasun osoagaz manteniduten zituzen, ain moduten etzan aurkituten euren artian gaixorik. Baña zer jazo zan? (Asi zirian Zerutiko ogijoneri estimazinerik emon ezeitera) apenas ausi ebeen euren Jangoikoen agindua, ta euren pekatuekaz obligadu eben eurek desanparetara; orra non sartuten jaken ogi miragarri onen gustu ez bat. Zerutiko ogijau lengua lezko zan eta orregatik bere, ezin asmau dautsee lengo lezko gusturik. Jaten eben, baña ez len lezko gustu ta gogoagaz<sup>11</sup>, eta alan ez eben aurkituten ezpada gallutasun enfadugarri bat baño. Eta nobedadia ezaturik esaten eutsen alkarri: *Anima nostra nauceat super isto cibo lebissimo*. “Zer da au!” esaten eben. Zelan gure estanguak ezin artu deusku len ain gozo egiten izen jakun janarijau? Eta alan etorri zirian beste janari baxuagoak gura izatera. Eta alan jaigi zan Jangoikoaren aserria euren ganera. Bada, au guztijau etzan besterik ezpada irudi bizi bat gugaz jazoko zanena; eta egunian-egunian Kristinau askogaz au jazoten da. Jangoikoaren berbia diño S(a)n Agustinek da<sup>12</sup> mana egijezkoa, au da arako Jangoikoak gure arimak manteniduteko ifini eben ogi espirituala; eta<sup>13</sup> arako desiartuen Jangoikoak Zerutik bere errijari biralduko ogijak gorputzeko osasuna emon eutsen legez, alan guri Jangoikoaren Berba Santuak arimako emon biar deusku. Eta benetan gure bizitzia ajustadu ta ona zanian, Jangoikoen bidietati genbiltzenian, Berba Santu onek mantenidu ta konsoletan genduzan ariman, gustuz entzuten gendun, eta bere egarri andi bat asmetan genduan, et[a] geure biotzetan ezaututen genduen bere<sup>14</sup> inder miragarritzko bat. Baña gero, geure<sup>15</sup> pekatuakaz obligau dogunian gera kontra; eztoгу onelakorik ezaututen. Izen arren Jangoikoena berbau, gure biotzetan eztau len lezko inder egiten. Ezta gure arimetan gelditu beste gauzerik, ezpada janari oneganako enfadu andi bat baño, zeinek erazoten deuskun arako Judijoai Zeruko ogi santuen gustu gitxijak erazo ereiten eutsena: *nauceat anima nostra super isto cibo levisimo*. Emeti dator berari jaramonik egin ezeitia, bera entzuteko artu ezeitia edozeñ-bere eskusa, atati iges egiteagatik askotzat eukitia, misinoko denporia guztiz astun egitia. Emetik nozbait etorten badira bakarrik munduek zer esango dauengatik etorritia eta fruturik sermoiti atera ez egitia. Bada

---

<sup>11</sup> Ostean aldatuta: *gogo-barik* > *gogoagaz*.

<sup>12</sup> Ostean erantsita.

<sup>13</sup> Idem.

<sup>14</sup> Idem.

<sup>15</sup> Ostean zuzenduta: *gere* > *geure*.

janarik on egingo badau, gustuz jan edo artu biar da; eta au alan izanik gorputzekoetan, alan da bere arimekoetan.

Alantxe erakutsi eban au Jangoikoak berak bere ondasunez beteko zituzala gose dirian<sup>16</sup> arimak, eta beraganik baztertu arako arime bere ondasunik andijenai estimaziñorik emoten eztautsenak. *Esurientes implebit bonis: fastidios dimisit inanes*. Alan dakusgus askok, sermoiak entzun daroazela, urteiten dabeela onduteko pensamentu bat bagarik; beste asko gustu bagarik euren lagunetan eginik ainbeste konbersino miragarrizko, eurek otz-otzik geldituten diriala, oztasun onegaz ondo erakutsiten dabela<sup>17</sup> diriala Jangoikoaganik madarikatuek. Askok esan daroe: Zer esango deuskue misionistak len guk ez daki[gu]n gauzarik? Eta alan iges egiten dabe sermoietatik. Guztija da soberbija. Alperrik izango da bat jakintsua, beti gitxigez ikasiko dau. Eta gustuz entzuten badau, inder geijago egingo deutso ostian berak dakijena baño. Zegatik ze, Jangoikoaren berbia Zerutiko inotz ta euri santua da eta Zerutiko eurijak frutu obiak emon ereiten dituz ostian bustita emoten dituezanen aldean. Alan bere esan biar dot, zuen jakituriak eztauko ainbeste inder zuen arimai frutu onak emon ereiteko, zeñda dauken Jangoikoak Zerutik biralduten deutsuenak, Jangoikoak eurijau zuegana biralduteko artu daben instrumentua ez izen arren ainbestekoa. Zuk zeure solo, ortu, edo jardinian ure euki arren zegaz busti zeure aza edo landarak, eztozu biar-ko biar dan lezko indar ta gozotasuna artu dagijen nozipenian Zerutiko euri zaparrada bat? *Dedit voci suæ, vocem virtutis suæ*.

Jauna, esaten dabee askok, sermoietarako gustu faltia, ezta sermoirik entzuteko gogorik ez daukagulako, ezpada predikadoriak geure gustura prediketean ez dabelako; bada, bagaunkez guk beste denpora baten Apostoluak legez prediketean dakijen batzuk, arako S(a)n Pablo lezkoa, gure entendimentua argiturik borondatia onera biartuko leukeenak, gustuz entzungo geu[n]kijoe. Onelan eskusetan dira bizitza libre ta pekatuz beterikoan sarturik dagozanak errua ezarri[ri]k Jangoikoari, eurek biar leukeezan lezkoak biralduten. Baña euren burua garbitu biarrian, errutsuago ifiniten dabe. Bada, onelako predikadorerik gaur ezpalego, ze señaile klaruagorik izango liteke Jangoikoa eurekaz aserre dagoala erakutsiteko? Ez litzateke izango au eurekaz kunplietia beste denpora baten Jangoikoak esan eutsena bere errijari? Eztautsuet emon edo biralduko profetarik pekaturik atera al ziñaikezanik, geldituko zaree maisu ta jakintsu bagarik nok nire legia zue[i] erakutsi. Etzenduke eukiko mal-dizinoau zeuen ganian? Baña Jaunari eskerrak ezkara eldu denpora orre-

<sup>16</sup> Geuk zuzenduta: *diriana* > *dirian*.

<sup>17</sup> Ostean ezabatuta: *ondo ezautu edo erakutsiten dabela* > *ondo erakutsiten dabela*.

tara, munduaren malizija andija bada bere. Oraindio Jangoikoak bere Elexan daukez gizon jakintsu ta birtute andikoak, kandeluruan argijak legez argi egiten dabenak, pekatuak erbestetu ta egija argiro erakutsiten dabenak predikadurik santuro fuerte ta arima askoren probetxuagaz. Baña zuek gure dozue predikadu dagijen zeuen gogora, eta zuek entzuten dozuena santu ta inder andikoa izanagatik, ez dauken legez zeuei gustetan jatzena, ori da asko zuek entzun bagarik geldituteko. Eta orretan erakutsiten dozue etzareela Zerurako predestinaduak, eta bai ondo, Jangoikoa Jangoiko izango dan arteko kastigaduak. Bada, Jangoikoa ona, santua, jakiturijen iturrija bada bere, Jangoikoonek ez ditu egingo lege barriek len eginik ez dituzenak; eta mundua predikaziñoti santutu bada<sup>18</sup>, emeti<sup>19</sup> ta ez beste bideti erraz jakinik egongo zaree bere biderra ekarri al ziñaijezala.

Beste asko dira esaten dabenak gustetan jakela predikadore on<sup>20</sup> bateri ent[z]utia, baña esan daroe one[elk]: Zegatik beti bizijoek kontra nokbait eztausku esango gustuko gauzaren bat? One[elk] dira arako Judijoek kondezinoak, zeintzuek euren Profeta Santuai eskatuten eutseen predikadu leijozala gustuko gauzak: *dicite nobis placencia*. Erakutsigiguzue zeuen doktrinia, baña itxi egijozue noz edo bein berba garratzak egitari gure kontra. Esan egiguzue noz edo bein Jangoikoak gu salbetako dauken gogoen<sup>21</sup> ganian, “pekatu egin dot” esate bat asko dala, benetan Jangoikuagana biortuteko, ta salbetako. Zetako burue nekaturen dozue beti banidadiaren kontra, Seigarrengoen kontra? Berba baten: ez dabe entzun gure, ez predikadu dagigun eurek bildurtu aleizen gauzarik. Eta onelan luxuriosoa bildur da entzuten eriotza Juizijo Eternidadien ganeko sermoiek, eta gure dau bakarrik predikadu dagijoen salbazinoaren erraztasune ta beste onelakoak, ta jarraitu arren eriotzako orduara artian, ez dedilla bildurtu, salbauko dala, ardura bagarik berak etsien da auzoan daukezanakaz pekatuari jarraituaren. Eta au prediketean ezipajako, ez dau gure etorri Jangoikoen berbia entzutera. Eta noz edo bein badator, zelan egiten daben predikadoriak jakitarrik etorri oi doa, arako beste denpora baten S(a)n Agustin joan oi zana legez S(a)n Anbrosio[ol]en sermoiak entzutera. Enintzen joaten, diño S(a)n Agustinek, pekatuen bizi nintzanian, sermoian ikestiarren salbazinoko gauzak, ez Jangoikoen gogoko barriak jakitiarren<sup>22</sup>, ezipada kuriosidadez, ezipada

<sup>18</sup> Ostean aldatuta: *da > bada*.

<sup>19</sup> Geuk zuzenduta: *emeteti > emeti*.

<sup>20</sup> Ostean erantsita.

<sup>21</sup> Idem.

<sup>22</sup> Idem.

jakitiarren ze ondo egiten eban S(a)n Ambrosiok. Ez nintzen joaten neure lotsagarrizko pekatuetatik urteitarrren, bere diskursu gozoak entzutiarren. Onela sermoitara datozean ondo esan leijoe arako Jose Jakob Patriarkaren semiak bere anaijai esan eutseena: Etzaree zuek etorri Egip-tora garija erositarrren, ezpada espajak legez erregist[r]etan paraje edo lekuak non dagozan argalena probenzija onetan zeue[k] sartutiarren. *Exploratores estis ut videatis infirmiora Terræ venistis*. Etzaree zuek etorri sermoira Jangoikoaren Berba Santuen ogijagaz mantenidutiarren, ez zeuen arimeko gaxtetatik urteitarrren, ezpada kuriosidadez, S(a)n Agustín konbertidu baño lenago etorri edo joan oi zana legez S(a)n Ambrosioen sermoietara predikadorien faltak esatiarren. Ez neure entzulak, ez dozue zuek etorri biar pekatuz beteriko gogoagaz, ezpada esan biar dozue S(a)n Gregoriogaz naste, askotan Jangoikoa pekadoriak onduteko balijetan dala instrumenturik txikijenakaz, munduak aintzekotzat ez daukezanakaz, guztijak lotsatuteko erakutsirik bere berbiaren ezpatia.

Ea bada Kristinauak, etorri misinoira pensaurik au izango dala zuen azkenengo abisua, bada Jangoikoak ifinirik dauko neurrija ez bakarrik zenbat pekatugiño parkatuko deuten, baita bere zenbat abisu bakotxari biralduko deuten; eta zer dakizue au azkenengoa izango bada? Bakarrik Jangoikoak. Eta au izaten bada azkenengo ta aprobetxadu bagarik geldituten bazara, zer zugez izango da? Orregatik bildur. Esan begije Ninibetarrak<sup>23</sup> zenbat balijo izan eutseen<sup>24</sup> J(...)sen predikazinorik siñastutiak; esan begi Samaritaniak S(...)do urten eutsen Jesusen deijetara (...) ez izenak; esan begi Maria Madaleniak zer irabazi eban Jaunari laster erantzunagaz, Dabid, S(a)n Pablo ta beste askok. Zer gaur izango zan eurekaz aprobetxa ezpalire? Ninibetarrak izango zirian ondatuak; Samaritania etzan izango santia, ezpada Infernuko ilintija; Dabid, Magdalena ta bestiak egon biarko eben gaur Infernuko gar artian. Nik abisetan zaitut gaur Jangoikoen partez. Zer dakizu azkenengo izango bada? Zer dakizu onetara salbazino etorriko bajatzu? Dei egiten deitsu nire ago geztoti. Zer diñozu? Gure dozu Sodomian gelditu? O zenbat gaur Infernuan dagozan onelan Jangoikoaganik abisaurik jaramonik egin ez ebelako! O arimak! O Kristinauak! O pekatarijak! Biotzak urruturik, begijak negarturik eldu gaitian Aita Amoroso onen oñetara!

<sup>23</sup> Geuk zuzenduta: *Ninebatarrak* > *Ninibetarrak*.

<sup>24</sup> Ostean zuzenduta: *eutsen* > *eutseen*.



## [HASIERAKO ERANSKETA]

Siongo bidiak<sup>25</sup> bakarturik ta lutuz jantzirik negar egiten dabee, dirialako gitxi bide one[eltati ibili nai dabenak, negarrez esaten eben Jeremiatsek, gitxi fiestarik andijenetan tenplo edo elexan. Eta Profeta Santuak jente faltiatatik negar egiten, gaur benetan egi lei: ez jenterik ez datorrelako elexetara, bada dakusguz geure begijakaz asko zatozela Jango[i]koaren fiesta ta berbak entzutera, baña bai biar dirian prestakuntzakaz sermoiak entzutera datozela fede gitxi ta...

Plaza eta kalleetara begiratuten badogu, birao, maldezino ta luxurijako<sup>26</sup> gauzak baiño ikusten ez dogu. Elexara begiratu gura badogu, ban[i]ldadez jantzirik, lotsagarri eginik, nor señora, nor otsaina dan ezin ezautu izan oi dago, sartuten diriala komedija edo luxurijaren ferija batera legez. Obedientzजारिक ez semeetan, lotsarik ez alabetan.

---

<sup>25</sup> Idem: *bidiat* > *bidiak*.

<sup>26</sup> Idem: *luxurijako* > *luxurijako*.

**[ELIXA SANTUARI]**

Viva Jesús, María y José

*Vos estis lux mundi.* Mt. 5, 14

Miragarriak izan ziran Simon Onias Sazerdote beneragarrien semiak Jerusalemgo Elixia Santoari egin ziozkan mesedeak<sup>1</sup>, eta anbestekoak erlijio santoen probetxorako eze, berakgaitik merezi izan zuan esatia<sup>2</sup> Eguzkiak zeruan argi egiten duan bezala, ala Simon Onias Sazerdoteren semiak Elixan argi egiten zuala. Egiaz alabantza andia, itz gutxitan anditasun guztia erakutsitzen duana. Eta Simon Oniasen semiak aiñ izen andia merezi izen bazuan, bere opizio onakin Jerusalemgo Elixia argitu zualako, ez du gutxiago merezi nere Aita San Fr(anzis)kok, bere obra santoakin Elixia Santa argiturik bere edertasunera itzuli zualako.

Munduen lenengotikan, beti izan ditu Elixia Ama Santak etsai asko eta andiak, nondi edertasuna kendurik, ilundurik parako deben. Ordea alperrik guztia, zerren noiz bere etsaiak ija galdutzat ematen deben, orduan argiagorik eta ederragorik agertzen dan, (biraldurik Zerutiko gizonak, etsaiak gerra eginik, eta Jaunaren laguntzeaz batera guztiak azpiraturik). Elixia Ama Santari Jangoikoak biraldu diozkan gordetzalderen artian andienen bat izan zan nere Aita Fr(anzis)ko, zeñen<sup>3</sup> pesta gaur zelebratzen degun. Orregaitik nere sermoiaren gaia izango da, aditzen ematia zein ondo kunplitu zuan Fr(anzis)kok Jangoikoak berari emaniko opizioa. Doktrinatzat<sup>4</sup> esango dizkitzuet itz bi Elixaren ganian.

Bederatzigarrengo Fedeko Artikuluak erakutsitzen digu dagoala Elixia Ama Santa. Elixan ez da beste gauzarik, ezpada Kristau fededun guztien bilkuntza<sup>5</sup> baño. Elixia onen buru eta nagusi, ez da besterik Jesukristo ezpada<sup>6</sup>, bera ipini zualako, berak zaindu ta gobernatzen dualako.

<sup>1</sup> Ostean aldatuta: *opizioak* > *mesedeak*.

<sup>2</sup> Ostean ezabatuta: (*beragaitik esatia*) > *esatia*.

<sup>3</sup> Ostean aldatuta: *noren* > *zeñen*.

<sup>4</sup> Geuk zuzenduta: *doktrinatzatz* > *doktrinatzat*.

<sup>5</sup> Idem: *bilkuntzat* > *bilkuntza*.

<sup>6</sup> Ostean aldatuta: (*baño*) > *ezpada*.

(Eta) gu gloriara joango bagiñan, Elixaren buru Jesus onak Zerura igo biar izan zuan. Eta bera Zerura joanik, Elixau buru bage munduan gelditu ez zezan, S(a)n Pedro eta bere ondorengo Erromako obispo izango ziranak Elixaren buru ta nagusizat utzi zizkigun, Elixau zaindu ta gordetzeko biar zituan eskubide guztiak ematen ziozkala. Erromako Obispo, Elixaren buru<sup>7</sup> Aita Santu oni guztiok obeditu biar diogu, eta ain modutan siñastu biar diogu Aita Santo onek federen ganian erakutsitzen digunari eze, berak erakutsiko baligu gauza bat, eta mundu onetako gizon guztiak beste bat, lenago siñastu biar diogu Aita Santoak erakutsitzen digunari, munduko gizon guztiak erakutsitzen digunari baño; zerren Jesukristok eman zion fedeko gauzatan ezin utsik egin izatia.

Lau dira Elixaren onen señaile ezaugarriak, zeintzuetan ezautzen dan berau bakarrik dala egiazko Elixaren. Ezaugarri oiek dira izatia Bat Bakarra, Santoa, Apostolikoa eta Katolikoa. Lenengo Elixaren oni deitzen zaio Bat Bakarra, bat bakarrik dalako bere buru eta fundadore Jesus maitia, bat bere fedia, bat Elixaren onetan sartzeko atia, Bataioa, eta bat adoratzeko dan Jangoikoa. Da Santua bere buru Jesukristo dalako, ez bakarrik santoa, baizik santutasun guztien iturria, santoa[k] Sakramentoak, santoak Legiak, santoa Fedia, eta santoa adoratzeko degun Jangoikoa. Irugarren ezaugarria da izatia Katolikoa; au da guztientzako, guztiak Elixaren onetan sarturik salba litezke[el]zalako. Laugarrena da izatia Elixaren Apostolikua, Apostoluak izan ziralako bere lenengoko arriak, noren gañian sendo fundatu zuan Jesu Kristok, berak zabaldu mundu guztitik erakutsi zien Elixaren Semia, Salbatzalligandik arturikako doktrina santoa. Beste gauza asko esango nituzke Elixaren gañian denpora izanik, ordea ez eukirik onenbesterako astirik, beste egun batera utzitzen det nere sermoiari jarraitziagatik. Eta onetarako biar izanik Jaunaren grazia, lagunadazue guztiok, bitarteko paratzen degula Angeruen Erregiña ta Pekatarien Ama, biotz-biotzetik esaten diogula S(a)n Gabrielen agurra: Abe Maria.

#### TEXTUS UT SUPRA

Urrukiturik Zerua anbete pekatarien galtzaiaz, nozbait eldu ziran Elixarentzako zorionez beteriko egunak, pekatuen laño beltzak kendurik, lengo edertasunera ekarri biar zebenak. Pekatuen ilunpean jarriarik, betiko eriotzaren azpian eserita zeudenok, poztu zaitetze<sup>8</sup>: bada jaio da ura izar eder Fr(anzis)ko Elixaren argitzailia, zeren<sup>9</sup> argiak, ez bakarrik

<sup>7</sup> Ostean ezabatuta: *buru eta > buru*.

<sup>8</sup> Ostean zuzenduta: *zaitete > zaitete*.

<sup>9</sup> Ostean aldatuta: *noren > zeren*.

erbestetuko ditu Elixatik pekatuzko laño beltzak, baizikan ere, zabaldu-rik mundu guztitik bere argiak, ekarriko ditu Kristoren artetira anbeste seme galdu, anbeste erri eta nazio Jangoikoen ezauera bage bizi diranak. Fr(anzis)ko da, izar eder ura, anbeste frutu santokin Elixia Ama Santa edertuko duana; Fr(anzis)ko Elixaren gordetzaille, Jesusen irudiko Santa, erortzera dijoan Elixia edertuko duana. Alperrik Infernua enpeñatuko da gerra bizi bat Elixia oni egitera; gerra onetatik ekarriko dizka zorion andiak, azpiratuagorik gelditzen dala. Alperrik munduko jakintsu Jangoiko bagiak burle egin naiko die; alperrik esango due lutuz jantzirik, alargundurik eta nork begiraturik ez debela gelditu dala, bada noiz oiek galduagotzat ematen deben, orduan ardura gñeliagokin begiraturik, bere Jabe Jesusek bere etsaiak azpiraturik, ederragorik geldituko da. Au izan da beti Jangoikoak bere Elixarekin egin duana, estura andienetan egon izan danian, eta batez ere giago amabigarren sigloan nere Aita Fr(anzis)ko mundura agertu zanian.

Bai K(ristao)ak, Fr(an)z(isko)ren denporan zeguan Elixia Ama Santa etsai geztoen azpian negar egiten zuala, aldamen guztietatik gerra bizi bat egiten zieela<sup>10</sup>; anbeste erejiaren laño beltzez ilundurik, España moro geztoen azpian galdurik, Franzia Albijense, Ubaldense eta beste ereju geztoen azpian ondaturik, Alemania (eta beste gañekoak) zisma gezto baten sarturik; Aita Santo Erromakoa S(a)n Pedroren sillatik iges eginik Federiko Enperadoreren gogortasunez, eta guztia ija galdurik. Orra zein lutuz betia eta negargarria zeguan orduan Elixia Ama Santa. Denpora ilun onetan, birtuteren gerizarik inundik ere ikustsen ez zanian, inbidia, injuria, gorrotoa eta gaiztakeria baño besterik ikusten ez zanian, orduan Jesusek bere Elixaz<sup>11</sup> urrikiturik, deitzen dio nere Aita Fr(anzis)kori, kendurik Elixatik<sup>12</sup> pekatuaren mantxak<sup>13</sup>, lengo edertasunera biurtu zezan. Aditzen du Fr(anzis)kok Jesusen deiau Samuelek bezela, eta bai bere obeditu S(a)n Pauloen gisa. Eta ezauturik Fr(anzis)kok Jesusen beretzako deiau zala, piztutzeko bera munduari erakutsi zion bizimodu santua, munduak añ azturik zeukana; bizimodu santu onen amodioz urturik korritzen du pozik<sup>14</sup> Kurutzeren oñetara. Nola uste dezue, ordea? Guztia biluzik Jesusen irudi bizi eginik, bere Aitaren ondasun andietara zeukan deretxo guztiak utzirik, obispo baten aurrian eta añ pobrerik eze, bere gorputza estaliko bazuan Obispo Jaun onek eman biar izan zion tunika pobre bat; onela, tunika pobriau soka

<sup>10</sup> Ostean zuzenduta: *ziela* > *zieela*.

<sup>11</sup> Idem: *Elixaren* > *Elixaz*.

<sup>12</sup> Idem: *Elixarik* > *Elixatik*.

<sup>13</sup> Ostean aldatuta: *pekatuak* (para *zizkan*) *mantxak* > *pekatuaren mantxak*.

<sup>14</sup> Idem: (*etsitzen da*) > *korritzen du pozik*.

gogor batekin gerrian loturik, sartzen zala mendi bakar baten Bautis[taren] denporan bezela. Zer gauak<sup>15</sup>...

Eme[n] Fr(anzis)kok, Kristo bere Maisu Jaunaren [amodioz] urturik, igaroten zituan berak geien maite zuan Jesusen Pasio Santuko meditazioan. Nolako deiak, nolako eskariak ez ziozkan egingo Fr(anzis)kok Jesusi, arren erremedia zezala Elixar Santa, eta pekatuen illunian eseririk zeudenak bere bide santuetara itzuli zitzala! Mendi bakar onetan (deiturik) Zeruko txoriak konbidatzen ditu berekin batera Jaunaren alabantzak kantatzera. Zein liburu ederrak Fr(anzis)korentzako mendi bakar artan, arako gaubaren isiltasuna<sup>16</sup>, izerren edertasuna, mendien bakartasuna, non iges eginik munduko Egipto gez[oltik, igaroten zituan gau ta egunak lezio, orazio eta beste exerzizio santuetan. O zein pozik egon naiko zuan Fr(anzis)kok mendi bakar artan Jaunaren ontasun, edertasun, anditasun eta miserikordien kontenplazioan! Ordea, etzan egin argia leku ezkutuan gorderik idukitzeko, baizikan kandelero ederrian jarriarik munduari argiteko.

Jatsitzen da Fr(anzis)ko menditik bera, Moises denporan bezela, eta anbestekoak dira beragandik ateratzen diran argiak eze, ez dago nork begiratuko dion argitasunen indarrez erori bage. Agertzen da ikusgarri miragarriari erri, uri, plaza eta kaleetara, begiratzen dio munduak, eta ikusirik Fr(anzis)kogan liburu desengañuz beterikako bat, ain modutan ledu ereitzen diste beren paltak eze, arriturik guztiak datoz Fran(zis)kogana bizimodu santo baten billa. Munduko nagusiak, errege, enperadoriak, pobre ta aberats, zar ta gazte, gizon ta emakumiak, guztiak egiten dira nere Aitaren birtuteen predikadore. Bazter guztietan ez da aditzen beste gauzarik Fr(an)z(isko)ren santutasuna baño. España, Franzia, Alemania eta mundu guztitik, zabaltzen da Fr(an)z(isko)ren fama, eta guztietatik dator nere Aitagaña anbeste Kristoren soldado, bere mendian Jauna<sup>17</sup> zerbitzera. Ain izan zan andia denpora gitxi baten munduak eman zuan buelta eze, arako Italia len pekatuen berezi gezto egin da zeguana, ikustsen da birtute guztien baratz eder eginik. Bai, antzina Israeldarrak<sup>18</sup> Simon Makabeogana joan oi ziran bezala, ala orduan Fr(anzis)kogana juaten ziran; Jesusen deretxoak Fr(an)z(isko)ren banderapian gordetzera.

Anbeste zirian denpora gitxian nere Aitagana etorri ziran semiak eze, beingoan beterik Porziunkulako konbentoa, ezin guztiak arturik, zabal-

<sup>15</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>16</sup> Ostean aldatuta: *ihuntasuna* > *isiltasuna*.

<sup>17</sup> Idem: (*Kristo*) > *Jauna*.

<sup>18</sup> Ostean ezabatuta: *antzina Israeldarrak (antzina)* > *antzina Israeldarrak*.

tzen dira mundutik Aitaren bendizioakin batera. Zein gloria andia izango zan Fr(anzis)korena, anbeste seme santokin aberasturik ikusi zanian! Aberasturik Fr(anzis)ko anbeste semekin, ezauturik predikatzeko kapaz zeudela, aditzen ematen diste Jaunaren borondatiak eta Jesusek dizipuloi bezela, Fr(anzis)kok semiai esaten dioe: Zoazte ene semiak, zabaldu zaiteze mundu guztitik, eta predikatu ezazue, arren atera ditezela pekatuen daudenak. Gitxi biar zan Fr(an)z(isko)ri bere semiak obeditzeko, eta arako<sup>19</sup> urez beterikako lañoak, aixiaren inderrez mundutik zabaldurik, beren euri ederrekin lurra bustirik, frutu gozuak eman ereiten dizten bezela, ala Fr(an)z(isko)ren semiak, Zerutiko doktrinaren euri santoz beterik, graziazko aixe santuen inderrez mundu guztitik zabaldurik, pekatuz legoturik zeuden animetan santutasunezko frutuak ematen ditue. Bai, Fr(an)z(isko)ren erlijioiko baratz ederretik ateratzen dira anbeste seme santo, Elixia aberastzeko asko beste ziranak; eta ez bakarrik birtute, exenplo eta predikazioakin, baizikan Zerutiko jakituria santo batekin, lotsaturik Elixaren etsai Ereju gogorrek, biortzen dira Elixia Santara.

Asko izan ziran Fr(anzis)kok Elixari egin ziozkan zerbitzioak: Ez due neurririk munduak bere santutasunari ematen ziozkan benerazioak, eta anbestekoak baziran ere, pekataririk andienentzat ezautzen zan, guztien mendian bizi naiago zuala bera nagusi izan baño. Ordea, biraldurik Jangoikoak mundura Fr(anzis)ko familia andi baten buru ta nagusi izateko, biartzen da bere semeren agintaritasuna artzera. Emen ama on batek bere bulerreko ugatz gozuarekin bere seme maitiak azitzen dituen bezela, ala nere Aitak birtute guztien doktrinagaz az[t]zen ditu bere semiak; eta ez bakarrik azi, baizikan zaindu artzai on batek ardiak bezala. Zein biguña, zein gozua Fr(anzis)ko bere semerentzako! Urruti beragandik gogortasun guztiak. Urriki, Amodioa eta Karidadia dira bere armak. Oekin baliatzen da bere semiak zaintzeko; eta iñozko aldiren baten, pekatoren batzuegaitik ezautzen badu gogortasuna biar dala, orduan ere biguntasunekin nasitzen du gogortasuna. Zerutiko prudenzia miragarri onekin zaindu zituan Fr(anzis)kok bere semiak. Ordea, nere Aitaren biotzian animak Zerura irabazitzeke, irazakita zeguan sua ezin inundik ere itzali zan (eta ezauturik bere semiak zaindu biarrak kentzen ziola libertadia, mundutik zabaldurik Zerurako animak irabazitzeke), animak zeruratzeko egarri urturik, izten dio kargu oni; eta [e]manik berak zeukan kargua beste bere seme santu bati, Fr(ai) Pedro Kataneori, agertzen dala<sup>20</sup> mundura apostolo berria, bere ponpa, baneria eta pekatu guztiak gerra bizi bat egitera.

<sup>19</sup> Ostean aldatuta: *ala* > *arako*.

<sup>20</sup> Ostean zuzenduta: *da* > *dala*.

Leku estua zan Italia nere Aitaren biotzian gorderik zeguan su andia artzeko. Zabaldu biar du mundu guztitik, eta tximista bezela instante batean ikusten da, ez bakarrik Italian, baizikan ere Alemania, Frantzia, España eta mundu guztian. Arritzen dire pekatariak Zerutiko gizonau ikusiaz (eta estadu eta kondizio guztietako pekatariak etzitzen dira bere oñetan, beren erremedio billa), gizonik galduenak, pekatariarik andienak, lapurrik geztoenak biguntzen zirala<sup>21</sup>. Erri ta uriak gizon ta emakumez utsitzen badira<sup>22</sup>, mendiak santo-santaz bete[tze]n dira. Galairik galante-nak beren gurasoen ondasun andietara deretxo zeukatenak, damarrik biguñenak zoragarrizko jantzietara itsuturik zeudenak, guztiak korritzen Fr(anzis)kogana bizimodu santoago baten billa. Eta guztiak Jesusek Madalena bezela artzen ditu; baña ikusirik mundu guztiak beragana zetorrela, erri ta uriak desierto eginde gelditzera zijoazala, erakutsitzen dio Jangoikoak beste Zerutiko bizimodu bat, estadu ta kondizio guztietakoak artzen zituana, beren estaduakin<sup>23</sup> batera gorde zezakiana. Au da Terzero Ordena beneragarria, pobre ta aberats, errege, Aita Santo, merkataria, soldado, nekezari eta estadu guztiak beragan artzen zituana. Eta bizimodu santua ontzat emanik Kristoren Bikario Aita Santuak, anbeste miragarrizko indulgentziaz aberasturik, korrika dator mundu guztia Fr(anzis)kogana bizimodu santou artzera. O zenbat anima len pekatuan ondaturik zeudenak santutu ziran Irugarrengo Ordena onetan! Ordea, nere Aitaren biotzeko sua etzan onenbestekin itzali. Ok<sup>24</sup> guztiok ezerezat<sup>25</sup> dauzka, galtzen ez badu bizitza bere amodioz Kurutzian galdu zuan Jesusen amodioagatik. Martirioen amodio bizi onek sartzen du ontzian igaroten Marruekosera, emendik Egiptoko Suldan gogorren aurre-ra predikatzen dio Kristoren Lege Santoa, esaten diola, salbatu nai badu, Maomen alkoran itxusia utzirik, artzen ez badu Kristoren egiazko legia. Ordea guztia alperrik, bada uste bazuen ere onekin aserreturik bere kontra ango erregiak iltzeko aginduko zuala, Fr(anzis)koren aurrian Suldan gogorrau ardi bat bezala biguntzen da; eta ez bizitza kendu, baizikan ondasun andiak dira eska[i]ntzen dizkanak. Alperrik, Fr(anzis)-ko, enpenatuko zera (Jesusgaitik) bizitza galdurik marteru izatera. Izango zera bai marteru, baña zu ilko zaituan kutxilloa ez da izango metalezkoa, baizikan Jesusen amodiozkoa, Jangoikoen eskua izango da zure gorputza zulatuko duana; berak irikiko dizkitzu gorputz santo orretan bost miragarrizko llaga Jesusen irudira. Baña oriek ere gitxi izango dira

<sup>21</sup> Osteen aldatuta: *dira* > *zirala*.

<sup>22</sup> Osteen zuzenduta: *dira* > *badira*.

<sup>23</sup> Idem: *estadua gorderik* > *estaduakin*.

<sup>24</sup> Jatorrizkoan: *Hok*.

<sup>25</sup> Geuk zuzenduta: *ezereszat* > *ezerezat*.

zure amodiozko su santua itzaltzeko, eta ezin zure gorputzak su santo ori gorderik, amodioz errerik, etorriko zera bizitza galtzera. O...<sup>26!</sup>  
O...<sup>27!</sup>

Bai K(ristao)ak. Santu miragarriau illko zan baño urte biz lenago sartu zan Alberniako mendian, S(a)n Migel Angeruen ondran (barau) berregoi eguneko bat egitera. Emen, artian oitua zeguan baño Zerutiko graziaren ondasunez aberastuagorik, Santa Kurutze egun aren aldean, ikusi zuan zetorrela Zerutik Serafin bat sei egal ederrekin apaindurik bera zeguan ondora, bere egalak modu miragarri batekin apaindurik eta kurutzian josirik bezala zituala. Ikusgarri miragarri onekin arriturik Fr(anzis)ko, dolarezko ezpataren sentimentoz errerik gelditu zan, ezautzen zuala ez dolarezko ezpataz, baizikan amodiozkoaz ilko zala. Eta anbestekoa izan zan emeti Jesus[en] llagakganako artu zuan amodioa eze, bere gorputzian Jesusen irudira bost llaga preziosokin ederturik agertzia merezi izan zuan. O Fr(anzis)ko Jesusen irudiko santo ederra! Zein argiturik menditik bere agertzen zeran, ez Moises bezela Legeko Olak eskuan dituzula, baizikan zeure<sup>28</sup> esku, oñ eta bulerrian gure erre-denzioko llaga preziosoak dituzula! Bai, negar egiten zenduan mendi bakar orretan, gizonak Jesusen llaga preziosoz azturik egon biarra, misterio miragarri orretan biotza usturik erabili zenduan; orregaitik merezi izan zenduan Zeruko Erregeren sekretoen jaube izatia eta beste Santu guztiai baño misterio geiago erakutsitzia. Alperrik alegina egingo dezu Jesusek zure gorputzian para dizkitzun señaile preziosook gordetzen<sup>29</sup>; zuk llaga prezioso oriek munduagandik estali ezinik, lenez gañera irabaziko dezu baño arako Jangoikoak zure santutasunen ondrarako eta bere gloriarako agertuko ditu. Ala konbeni da, nere Aita maitia, Jesusen Elix Santa edertzeko, gu pekatuperik ateratzeko izan zirian llaga preziosoak, (munduak ain aztuta zeuzkanak) Elixako semeetan pitzzeko, eginik zurekin Jesusek bere irudi bizi bat; onela obetuago kunpli dezazun Jesusek<sup>30</sup> emaniko opizioa. Bai Kristaoak, amodioa izan zan nere Aitari bizitza kendu ziona; anbeste su ezin bere barrunian gorderik, guztia gaixotu zuan eta bere gorputz guztia errerik, animak Zerura iges egin zion. *¡Qué lecciones tan gran[des]*<sup>31!</sup>

Gauza batek emen nere biotza bildurturik paratzen du, eta da, izanik Fr(anzis)ko ain Santo miragarria, anbeste grazia merezi izan zitua-

<sup>26</sup> Ostean erantsita.

<sup>27</sup> Idem.

<sup>28</sup> Ostean zuzenduta: *zere* > *zeure*.

<sup>29</sup> Idem: *gordetzera* > *gordetzen*.

<sup>30</sup> Geuk zuzenduta: *Jesusen* > *Jesusek*.

<sup>31</sup> Ostean erantsitako esaldia.



na, onenbeste santutasuna[z] apañduta egonik; orregatikan, bere erioztzarako urte biz aurretiagotik prestatzera ikustsia. Kristao pekatariak, azkenengo ordura artian Jangoikoagana biortzia utzitzen dezuenak, zeben bizi guztian gauza on batekin bagarik, pekatu-modu guztiaz ondaturik: Zer esaten dezue? Zer pentsatzen dezue? Askoko dala ordu larri artan, apenas<sup>32</sup> pena-nekiak igarotzeko pazienziaz inderrik egon ez oi danian, orduan guztiak zebek uste dezuen bezela gertatuko zitzatzuala. Santurik andienak ala prestatzen badira, pekatari sekula pentsamentu on bat izen ez debenakin ez dakit zer izango dan. Arren Fr(anzis)ko gure Aita maitia, emen gauden guzti edo geienok zure semiak izanik, libra gaitzatu ordu larri artan etsai geztoen aginetatik; zure seme ez danik baldin bada, orregatikan au [e]re zure etxe onetako semeren ongilla eta limosnero izango da. Ondo ezautzen degu, Santo miragarria, zure enpeñurik merezi ez degula, zerren ez diegun jarraitu zure exenploai biar bezela. Ezautzen degu, zu gugatik enpeñatzeko, zure bizitzari jarraitu biar diogula; ezautzen degu bere, ordea, onetarako zure laguntzea biar degula<sup>33</sup>. Eta esperantza degu, zure graziaz batera emen zure exenploai jarrait[u]ri[k], azkenengo orduan Jaunaren aurrian lagundurik, zurekin batera betiko glorian izateko. Amen.

#### [AMAIERAKO ERANSKETA]

Ez da bakarrik oraingoa Elix Santak etsaiak izatia, Jesusen eskuetatik<sup>34</sup> atera zanik eta orain arte guztian gerra bizi bat egin dioe, nondik edertasuna kendurik, ilundu ta galdu duen...

<sup>32</sup> Geuk ezabatuta: *oi apenas > apenas*.

<sup>33</sup> Esaldi horretako oharra: *Zerutiko gizonen laguntzeaz*.

<sup>34</sup> Geuk zuzenduta: *eskatuetatik > eskuetatik*.

## [EXAMINA KONZIENZIAKO]

Examina Konzienziako da, Kristaoak egiten duan bere biotzaren billakuntza kontuzko bat, burura ekarteko azkenengo konfesio ondo eginetik onera egindako pekatuak. Esaten da azkenengo ondo egin danetik onerakoak izan biar duala examinak; ez dalako asko ontsubengo konpesiotik onerako examiña, lenago konfesioren bat edo batzuk<sup>1</sup> deungaro egiñak badaude. Sobra ere badira konfesio okerrak euki oi ditubenak, edo lotsaz itxiagatik, damuari biar bezalakoa ez eukitiagatik, edo beste pekatuzko kostunbre, okasioan bizi izan diralako. Zer egingo dube onelakoak ontsubengotik onerako examina bakarrakin? Ez gauza onik, ta bai bidiak geituzteko Sakrilejioak. Oek, gero erakutsiko dan bezela, egin biar due konfesio deungaro egiñen berriztazio<sup>2</sup> oso bat, examiña kontuzko baten billatzen ditubela denpora guzti artako pekatuak, agertuaz nola ta zenbat bider izandu diran. Bestela ezin salbatuko dira. Baña ez daukanak errazua onik sinistzeko len deungaro konpesatuta daguala, ez du ibilli biar burua nekatzen konpesero ondo ezautzen duanak esan baldin badio.

Examina edo kontu artuteau da agertzeko konpeseroari bere konzienzia, akusatzeko bere burua Jangoikoaren ordezkari parka diozkan pekatuak. Konpeseroa da Jesukristoren ordeko jueza. Onek, emateko epaki edo sententzia, jakin biar du zeren gañian eman; bestela, ondo ibilliko ez da. Lurreko tribunaletan izan oi dira fiskala, akusatzalle, testigo ta beste onetara lagun egin biar duena. Guztiak aditu ta ondo ikusirik ematen da sententzia, edo libertaderako, edo kastigurako. Nola bada, sententzia ona eman dezake ez badago akusazio garbirik? Lurreko tribunaletan iñork ez du obligatzen bere burua akusatzera gaizki eginaren akusadore, testigo edo beste señaleari klarorik ezpada. Ordea, barkazioa nai duben deungaro egillari agintzen dio Jesukristok bere burua agertu dezala garbiro ta zeatz konfesioko tribunalian, sekula iñork ezergatik ere agertu ezingo duan sekreto santoan.

Lurreko tribunalak dira justizia utsekoak bezela, juezak ondo badabiltza; konfesiokoa, tribunal miserikordiazko garbi utsa, egiten bada

---

<sup>1</sup> Geuk zuzenduta: *batzue* > *batzuk*.

<sup>2</sup> Ostean zuzenduta: *berreztazio* > *berriztazio*.

konfesio edo deklarazio garbi bat oker eginaren damuari egiazko batekin. Lurreko justizietan, konturako, eriotza bat egin duanari, zer erakutsi ereiten ez dioe? Preso artu, katiatz loturik, gose, otz, lo onik ezin egiña, bakardade, juez ta karzeleroren gogortasun ta beste onelako zer ez? Ez du balio ukatziak; milla kontu atera ta arrapatzen due, eta egin probanza. Egia esanagatik ez dago parkaziorik, justiziak egin biar du berea, ta kastigatzen due eriotzara. Ez onela konfesioko tribunal bigunian; zuzen, humildade ta damuari santo batekin egiten bada, guztia parkatzen da. Zeñ esker andiak zor diozkagun mesede onegatik Jesukristori!

Egin biar da ere kontuzko examiña, konpeseroa juez izateren ostian dalako medikua, eta mediku bati erakutsi bia[r] dioskagun bezela gorputzeko gaitzak, ezer estali bage, oker ibilli ez gaitian. Jakin biar ditu noizkoak diran gaitzak, zarrak edo berriak, nondi erne edo jaiioak diran. Ala konpeseroak jakin biar du penitenteren pekatua danentz zarra edo berria; nondik jaioa, okasioren batetik, kostunbretik, adiskide deungetatik; gatxa bada, aokoa, eskuko edo beste sentiduren batekoa, aor, itzez edo nolako diran. Eta añ da biarra kontuzko examina au ezen, zabartasunez izten badira pekatoren batzuk, izango pekatu nolako dan bere zabartasuna eta nolakoak diran izten diran pekatuak, mortalak edo benialak.

Bai zeatzak ta kontuzkoak izan biar du examiñak. Esan ezpaere balio andiko gauzatan nola ibilli oi gera[n]; ez dira lasterka ta itomendiz egiten, eta bai astiro, ondo begiratuta. Galdu duanak erraztun bat, zer diligenzia egiten ez du? Eta guztia kontuz ingaratuten du... Suge bildurgarrizko bat gela[n] sartu dala ikusiko bagen[du], zer kuidado egingo ez ginduke billatu te ilteko? Nor oera joango liteke sugia kendu gabe? Orregatik ere zenbat diran... Eta zenbaterañoakoak izan biar du kontuzko examiña onek? Ez dago onetan gauza erabagirik, zerren guzientzat ezin eman leitekean erregela bat fijoia. Geiago biar da bizitza guztiko konfesio jeneraler[al]ko, urte iru edo laurakoan baño. Emen er[e] buru argikoak berdinian, lenago egingo du buru pisukoak baño; sarri konpesatzen diranak, bakan egiten diranak baño. Badira ere opizioak zer geiagotara begiratu daukenak, batzuk bestiakgandik. Guraso ta nagosiak geiago biar due, zerbitzalle ta umiak<sup>3</sup> baixen; aberatsak, pobriak baixen; tratulariak ta komerziantiak, nekazari utsak baixen. Errazago da garbitzen askoren alkondara, olagizonena baixen.

Ori ondo da Jauna, baño askotan kezkaekin gelditzen ondo examinatzen ote naizan. Orretara ezingo dizut erantzun, jakin gabe nolakoa

---

<sup>3</sup> Jatorrizkoan: *bume*.

dan zure bizitza. Uts egin leite geiegiz, baita ere gitxiegi. Geiegiz egiten due konzienziako gauzatan bildur geiegikoak. Siñastuerazitzen die Diabruak konpesio tormentuzko tokiren bat dala, izanik bigun ta miserikordiazkoa. Bizitza kontuzko ta Jangoikoaren beldur santukoak pekatu mortalen batian eroriko balira, zeñendako ezauera ta libertade osoa biar dan, laster ezautuko luke, beragatik oiek buru berotzen ibilli bage, beren konpesero prudenteren agindura obeditu biar due. Au bakarrik da egiazko eskrupulorentzako. Badira eskrupuloserren idurikoak, pekatu andietan egonagatik mobitzen ez diranak. Utsagatik diran gauzogatik galde ta konsulta andiak, eta zor egiazko pagatzeko kuidadorik artzen ez duenak, okasio peliburuzkoetan, banidadeetan, beren estadu pobrian ondo ez datorkion banidadez betiak egonagatik, ez due kuidadorik artzen, ez kompensatu, ez kezkarik artu oietan bai para biar dala atenzioa.

Beste askok urte guziko konpesioaren examina destajuz, examina kontuzko bat bage. Onelakoen konzienzietan zer igaraten nork igarriko die, nolakoak diran jakin gabe? Konpesero artubak bere oñetan dagan konzienziaren berri dakianak, beren bizitzatik laster igarriko du bere tentazioa mortala edo beniala danentz; duda-aldi batzuetan ere, erapakiko du asko nekatu bage. Mediku ezauna gaixoaren berri len ondo dakiana, geienez obiagoa da berririk ez dakiana baño. Etxe baten urte luzeetan bizi dana, gabaz ere erortzeko peliburu andi gabe ibillitzen da; ordea, len berririk ez dakiana, zeri eskuba ezarri ez dakiala ibilli oi da, bere burua banatzeko arri[s]lkuan. Ala konzienziaren etxe illunian sarri sartu dana errazago ibilliko da, dakialako non labañdu ta erori leitian; badaki bere jenio, pasioa, tentazio ta daukan bizimodua. Ordea, au ez dakian konpeseroak jakintsua izanagatik, gauza andirik ezingo du egin.

## [JESUSEN PASIOA]

Viva Jesús

*Recognitate eum qui talem sustinuit a peccatoribus adversum semetipsum contradictionem; ut ne fatigemini, animis vestris deficientes.* Hebr. 12, 3

Jakin<sup>1</sup> nai duanak zein andia dan pekatuaren<sup>2</sup> pisua, betor gaur Kalbarioko mendira, eta emen ondo ikusiko du zein andia dan Aita Eternoak bere Seme Bakar maitegarriari eskatzen dion satisfazioa. Ikusi nai duanak zein itxusirik paratzen duan pekatuak anima, betor ikustera Kurutzeko arbola orretara, eta or ikusiko du zein itxusirik para duan besteren pekatuak berez edertasuna dana. Jangoikoaren aserriari bildurrik ez dionak pekatuari aurrera segitzeko, betor gaur mendi santo orretara, eta or ikusiko du nolako aserria artu zuan bere semien kontra. Betor, eta or ikusiko du zein su andia artu zuan Jaunaren aserriak santidade izatez danen kontra; eta ain andia izan bazan santidadezko frutuak ematen zituan arbola ezian, emendik begiratu beza nolakoa artu dezakian pekatuz beterikako arbola igarrian. Pazienziarik artzen ez dakianak pena, neke eta trabajuetan, betor pazienziaren lezioak artzera mendi santo orretara. O zein leizio andiak ematen dizkigun Jesusek Kurutzeko katreda santo orretatik!

Baña, zertarako uste dezue ematen dizkigula lezio santo oriek? Bakarrik sentimtoa artu eta negar egiteko? Ez bakarrik onetarako, baizikan lezio oriek imitatze. Negar eta sentimento andiak erakutsi zituen Jerusalemgo alabak Kalbarioko mendian, anbeste penaren erdian Jesus nekegarri eginik zijoala ikusi zebenian. Orregatikan, ez ziran izan Jesusen atseginekoak, bada, Jesusen atseginekoak izan baziran, ez zan etorriko Jesus esatera ez zezaela egin negarrik beragaitik, baizikan beren pekatuakgaitik. Nai zuan Jesusek aien negarrak izan zeitian frutuzkoak; eta frutuzkoak izango baziran, biar zeben beren pekatuen gañekoak, ez bakarrik bera an urrikigarri ikusirik erestsen ziztenak. Ondo zekian Jesusek bere penak zirala Jerusalemgo alabaren pekatuak, eta orregaitik nai

---

<sup>1</sup> Ostean aldatuta: *Ezautu > Jakin.*

<sup>2</sup> Alternantzia: *pekatu / pekato.*

zuan pekatuakgaiti negar egin zezaen, onela zekialako frutuzkoak izango zirala.

Alde batetik, atsegin andia ematen badigu bere<sup>3</sup> pentsatzen deguan Jesusek bere eriotzakin Diabruaren mendetik atera eta zeruko bidian ipini ginduela; baña ondo begiratzen badegu, pensamento onek bildurtu biar gaitu, ikusirik zein urruti bizi geran Jesusek egiteko agintzen digunetik. Atsegin andiko gauza izan zan Josias Erregiaren denporan topatu zeben Legeko Librua. Baña leitu ereginik profeta bati errien aurrian, ikusi zuanian errege santo onek zein urruti zeguan bere erria liburu santo ark egiteko agintzen zuanetik, sentimento andi baten indarrez urratu zituan bere jantziak errege onek. Au da, bada, guk egin biar deguna, ikusirik zein urruti gauden Jesusen Pasioko Liburuak egiteko agintzen digunetik: urratu biar ditugu, ez Josias Erregiak bezela geure soñekoak, baizikan geure biotzak. Goazen, bada, ikustera anbat lasterren eta ondoen nolakoak diran Jesusen Pasioko Liburu onek ematen dizkigun lekzioak. Eta onetarako biar izanik Jaunaren grazia, lagun zadazue... Abe Maria

### *Recogitate...*

Jangoikoak Zeruak eta Lurra ezerezetatik egitia, Añgeruak edertu eta Eguzkia, Ilargi ta izarrak argitasunez betetzia ez da miraritzeko gauza. Bada, oiek guziok eta geiago Jangoikoen anditasun[ar]li datorkiozkan gauzak dira. Baña Jangoiko Zerukoa bizitza galtzera etorriko zala, au da gauza bat gizon ez Añgeruk sekula ezin ezautuko debena. Eginik Jesusek arako aparti misterioso, garbiturik bere dizipoloai<sup>4</sup> oñak, utxirik gure osasunerako bere gorputz eta orola Sakramento Altarekoan, eta ezaturik eldu zala denpora bere Aitagana joateko, prestatu nai izan zuan orazio miragarri batekin eriotzara baño lenago, onela erakutsitzen zigula doktrina, nola prestatu biar degun eriotzarako. Baña eriotza onetara prestatu baño lenago, pentsatu zuan bere Amari parte ematia, lizenzia eskatu eta artu bere bendizio santoa. Eta ala joanik Mariaren gelara, esan zion: Nere Ama ona, eldu da arako denpora nere Aita Et(erno)ak dekretatu duana egiteko gizonaren erredenzioa. Arrazoia da nik Aitaren borondatera obeditzia, orregatik nator zuri parte emanik, lizenzia eta bendizioa artzera. Ez dago nok erakutsiteko<sup>5</sup> emen Amarik onenak artu

<sup>3</sup> Ostean zuzenduta: *Egiatz atsegin andi bat artzen degu > Alde batetik atsegin andia ematen badigu bere.*

<sup>4</sup> Alternantzia: *dizipolo / dizipulo / dizipulu.*

<sup>5</sup> Ostean zuzenduta: *Ez dago nork neurtu letzakian > Ez dago nok erakutsiteko.*

zuan naigabe eta pena. Guztia negarturik etxun zan bere Semeren oñetara, esaten zizkala modu onetako itzak: Nere Jaun eta Jangoikoa, egia da, gizon zeran aldetik, zerala nere erraietako semia; baña beste aldetik, ezautzen det zerala Jangoiko Egiazkoa, Zeru-Lurraren Egillia, Aita eta Espiritu Santoakin izate bat eta berdiña dezuna. Emendik ezautzen naiz zure zerbitzari eta mendekotzat; arrazoia da nik Aitaren borondatera obeditzia, nere penarik andiena da zurekin batera ez iltzia. Arren, merezi ez badet zurekin padezitzia, egin nazazu parte zure pena eta nekeetan. Onela Mariak bere sentimentua erakutsirik, eman zion azkeneko laztan eta bendizioa.

O despedida tristia jakitia amarik onen batek bere semiak bere atatik eriotzarako irtetzen duala! Eta Greziako destruzioan, bata bestia-gandik aizpa bi despeditze orduan kautiba joateko, azkenen agur eta laztanian alkar[ri]en besoetan penaren indarrez ilda gelditu baziran, nolako penak ez zituan joko Jesus eta Mariaren biotz<sup>6</sup> bigunak despedida onetan? O Jesus eta Mariaren biotz penaren indarrez<sup>7</sup> zaurituak, arren zeben amodio[al]n zaurituzazue gere biotzak, ez besterik mundu onetan zebek baño amatzeko! Onela<sup>8</sup> utzirik Jesusek bere Ama emakume piadoso batzuen laguntzean, irten zuan apaltegiko etxe zori[o]nekotik Jese-maniko baratzerara, Apostolo guztiak Judas ez ezik beste ganekoak lagun zituala; eta sarturik, arturik lagun Pedro, Juan eta Diego, dizipolorik maitteenak, sartu zan aurreraxiago eta esanik orazio egin zezeela, zeren gau artan tentauak izango ziran, onela prestaturik eta kontuan paraturik, alderatu zan pizka bat berakgandik, eta auzpaz lurrian, arri gogor batian jarririk, asi zan orazio Aitari egitera, esaten ziola: Jauna, posible bada, igaro bedi nigandik kalixau, baña ez bedi egin nere borondatia, baizikan zuria. O Jesus gugatik lurreraño umillatua, zeñ umildaderen lezkino andiak emoten deuskuzun gure pekatu ta gatx guztien iturria kenduteko<sup>9</sup>! Nor mirarituriko ez da ikusiaz Jesus onenbesteraño umillaturik?

Egoxan ordua batian bezela orazio onetan, eta anbeste tristuraren erdian konsuelo pizka bat nai izanik, etorri zan iru dizipuloakgaña baña ló<sup>10</sup> aurkiturik, esan zion Pedrori: Ezin ordu batian orazioa egin izan dezu? Esnatu zaite, zein tentazioan erori ez zaitian. Onela, bere dizipuloak alerta pararik, joan zan bigarrenez orazio egitera lengo arri go-

<sup>6</sup> Geuk zuzenduta: *bioztz > biotz*.

<sup>7</sup> Ondo irakurtzerik izan ez dugula eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Mariaren biotz penaren indarrez > Mariaren biotz (...) amod(...) penaren indarrez*.

<sup>8</sup> Osteen erantsita.

<sup>9</sup> Osteen aldatuta: *nola dago Kristao soberborik zu horrela ikusirik! > zeñ umildaderen lezkino andiak emoten deuskuzun, gure pekatu ta gatx guztien iturria kenduteko!*

<sup>10</sup> Horrela, tilde eta guzti.

gor[r]len gañera esaten ziola len bezela: Aita, posible bada, pasa bedi nigandik kaliz gogor ori, baña ez bedi egin nere borondatia, baizikan zuria<sup>11</sup>. Etorri zan bigarrenez dizipuluakgana, baña orduan ere ló<sup>12</sup> aurkiturik, urrikitu zan dizipulo tristian eta, negar eginik, irugarrenez biortu zan orazio egitera. Zer zuek, zer dozube zuben egillez aztuteko<sup>13</sup>? Angeruak<sup>14</sup>, non zare zuben Egilliari ez erantzuteko<sup>15</sup>? Neure arimia, non dezuz negarrak<sup>16</sup>? Irugarrengo onetan indar geiagokin asi zan Aitari eskatzera, bere eskariak emen geiago doblatzen zizkala, eta orazio onetan len baño luzarago eg[il]nik, agertu zitzaion Añgeru bat esaten ziola ezin pekatuaren zorra ta gizonaren esana beste modutan egin leitekiala, Zeruko atiak idikiak bazirian, bere odolak<sup>17</sup> izan biar ebela giltzak<sup>18</sup>, nola dekretatu zan eriotzako kalix gogorra padezitzia gizonaren osasunerako. Egia da Angeru onen bisitakin konsuelo pizka bat artu zuala, baña beste aldetik ikusirik anbeste tormento itzalgarritzotan sartu biar zuala, guztia larriturik asi zan agoniña baten sartu eta orolezko izardia lurreraño botatzera<sup>19</sup>.

(\*)<sup>20</sup> O ikusgarri miragarria! O amodio neurribagia<sup>21</sup>! Noix sekula medikorik ikusi da, odol ateratzen bere gorputzetik aurrian daukan gaxoa sendatzeko! Baña ez da au Jesusegan miraritzeko: odola ateratzen du gure osasunerako boron[datez] ematen duala, golpe, azote eta iltziak naitanaiez atera baño lenago. Odola botatzen du, gure biotzak obetago lantzeko; eta botatzen du lurreraño, gure pekatuen miserikordia indar geiagokin bere Aitari eskatzeko. Al zuan ondoen izardia kendurik, joan zan irugarrenez dizipuloakgana, eta orduan ere ló<sup>22</sup> aurkiturik, antz andiko itzakin esan zien: Lo eginzazue ardura bage, sosega zaitie. Begira, bada, ez debela zebek bezela lo egiten zeben etsaiak; ja[il]ki zaiteze, lo ori potazazue. Eldu ordua gizonaren Semia etsaien eskuetan entregatua izango dana; urrian da ni salduta naukana. Asi zan dizipulo guztia-

<sup>11</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Ingaratu nabe torm(entu) ta larriak; arren posible bada igaro...*

<sup>12</sup> Ikus 10. oharra.

<sup>13</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>14</sup> Alternantzia: *añgeru / angeru*.

<sup>15</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>16</sup> Idem.

<sup>17</sup> Alternantzia: *odol / orol*.

<sup>18</sup> Ostean erantsitako esaldia: *ezin pekatuaren zorra... izan biar ebela giltzak*.

<sup>19</sup> Alternantzia: *bota / pota*.

<sup>20</sup> Hasiera oharra: *Atrás*.

<sup>21</sup> Ostean aldatuta: *O Jesus nere pekatuen pisuak auzpaz lurreratua! > O ikusgarri miragarria! O amodio neurribagia!*

<sup>22</sup> Ik. 10. oh.



kin batera barazetik irtetzen, eta orra non agertzen dan Judas traidoria. Eskoadroi bat soldado geztoen izpia eginik eta pizka bat aurreturik aiek-gandik zetorren Maisuari laztan ematera, zein zan señalia ura zala preso artuta eraman biar zebeu Maisua; eta eldurik, eman zion laztana, esaten ziola: Jang(oikoa)k salba zaizala, Maisua. Artu zuan Jesusek dizipuloen laztana, esaten ziola: Agur, Judas nere dizipuloa. Zer da orrenbeste jente armadunekin dakadazuna? Adiskidaren salba ta agur[r]akin saltzen dezu anbeste mesede artu dezun Maisua? Andia da zure traizioa, andi-go orandik nere miserikordia. (\*)<sup>23</sup> Orandik denpora dezu nere grazia-kin baliatu nai badezu. Baña ikusirik Judasen biotza gogorturik egoala bere pekatuen neurria beteta, euriak atxari emoten deuten biguntasun baño<sup>24</sup> biortu zan Jesus beren ondoren zetozen soldadoakgana<sup>25</sup> eta galdetu zioen: Noren billa zatoze<sup>26</sup> ona? Jesus Nazarenoen, erantzun zioen. Bada, neu naiz. Eta onekin batera kañalla guzti ura erori zan lurrera. Jesusek ala nai izan, eta andik laster jaikirik, galdetu zioen bigarenez: Noren billa zatoze<sup>27</sup> ona? Erantzun zebeu: Jesus Nazarenoen. Esan dizuet neu naizala; egunero iduki nozute non-nai arrapatu, baña nonbait, orain da zebeu eta Infernuaren denpora. Ni biar banozute, emen naukazute. Preso artu biar banozute, artu nazazute, ordea nerekin daudenai utzizaiozue.

Apenas Jesusek lizenzia eman zioen, etorri ziran otso gosiak bildots mantsuagana bezala<sup>28</sup>, beren arrabia guztia ardi mantsoen kontra deskargatzera. Ezin sufriturik Pedroren Jesuseganako amodioak ain gaizki bere Maisua tratatu biar izatia, asi zan defenditzera eta aterarik ezpata, eman zion golperekin kendu zion belarria. (\*)<sup>29</sup> Ordea, ez zuan ontzat eman Jesusek Pedroren golpia, eta osaturik lelengo Maisuori belarria, biortu zan Pedroren kontra bere lekuan ezpata sartzeko agintzen ziola. Ez dezu nai egin dezadan gizonaren osasuna? Ez dakizu nai izanik Añgeruak norik gorde ditudala<sup>30</sup>? Baña, nola kunplituko dira Patriarka

<sup>23</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Benetan andia, anbeste mesede arturik[k] dizipulo baten...*

<sup>24</sup> Ostean aldatuta: *Baña gogorturik Judas bere Maisuaren graziaza > Baña ikusirik Judasen biotza gogorturik egoala bere pekatuen neurri beteta, euriak atxari emoten deuten biguntasun baño.*

<sup>25</sup> Idem: *dizipuloakgana > soldadoakgana.*

<sup>26</sup> Geuk zuzenduta: *zatoztze > zatoze.*

<sup>27</sup> Idem.

<sup>28</sup> Ostean aldatuta: *Txakur amurratuak bezala > Otso gosiak bildots mantsuagana bezala.*

<sup>29</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Arako Jangoikoa mundua ez arma ta bai humildadeagaz...*

<sup>30</sup> Esaldi iluna.

eta Profetak esan zituenak? Onela, preso arturik soka gogor batekin lepotik, esku eta gorputzera loturik, asi ziran soldado gezto aiek Jesus eramatera, emen jo, or potaka eta ála<sup>31</sup> zeramaten<sup>32</sup> arrastaka bezela, anbeste bidar eroririk azpian zapaltzen zebela. O Aita Eternoa urrikitu zaite, arren, zure Semiaz! (\*)<sup>33</sup> O Jesus Santoa! Etzara zu arako artzai santoa, gu ardi galdu oen billa anbeste penazko pauso eman zinduana? (\*)<sup>34</sup> Nola ain gogorki lotu zaitue pekatariak? Anbeste penaren erdian eraman zeben Anasen etxera<sup>35</sup>, eta ez bazan ere urte artako pontifiza, izanik Kaifasen aitaginerraba, eman nai izan zion gusto au. Eseririk Anas silla eder baten, Jesus zutik bere aurrian mendeko eginik, asi zan galdeak egiten bere doktrina eta Dizipuloen ganian. O Anas, zeñ illunak daukazun be(...) <sup>36</sup>! Eta ezautuko bazendu aurrian daukazun ori dala arako Juez laster bere aurrian zure pekatu orren kontua eskatuko dizuna, zein beste modutan artuko zindukean! Humiltasun andi batekin erantzun zion: Nere doktrina beti izan da agiria, beti predikatu det elixa eta leku<sup>37</sup> agirietan; nik egia zuri esan nai izan arren, ez dezu benturaz sinastu nainko nere esana, eta ala galdetu zaiezu niri aditu didenai. Zer errespuesta humillagorik? Baña guztia alperrik: inbidia eta gorrotoa dauden tokian gauzarik onenak gaitxera artzen dira, eta au zan emen gertatu zana. Ba, ozta itza atera zuaneko, orra non morroe gezto batek, zerbizio andi bat egiten bazion bezela, nagosiari jasorik bere esku astuna deskargatzen duan<sup>38</sup>, eta bere golpiaren indarrez bota zuan lurrera.

Arritu zaitez Zeruak, bildurtu Elem(entoa)k, negar dagigun pekatariak ikusirik gure pekatuak alako moduan<sup>39</sup>! O nere anima, negar eginzazu ikusiaz arako arpegi Añgeruak atsegin artzen duana<sup>40</sup> lastimaturik pekatariaren golpiaz! Jaiki zan Jesus neke andiaz eta, gizon madarikatu onen atrebimentoa gelditu ez zeitian erreprentio bage, esan zion: Gaizki itz egin badet, esanzadazu zergatik, eta ondo esan badet, zergatik

<sup>31</sup> Ik. 10. oh.

<sup>32</sup> Ostein erantsita: *zeramaten > eta ála zeramaten.*

<sup>33</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *O pekataria aspaldian pekatuen soka geztoz loturik bizi zareana, begira zer gogor...*

<sup>34</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Instante guztia luze egiten jakala (...) deg(...).*

<sup>35</sup> Jatorrizkoan: *betxe.*

<sup>36</sup> Ostein erantsitako esaldia.

<sup>37</sup> Geuk zuzenduta: *leko > leku.*

<sup>38</sup> Ostein erantsita: *jasorik bere esku astuna deskargatzen duan > zerbizio andi bat egiten bazion bezela nagosiari jasorik bere esku astuna deskargatzen duan.*

<sup>39</sup> Ostein aldatuta: *Arritu zaitez Zeruak pekatu onen aurrian > Arritu zaitez Zeruak bildurtu Elem(entoa)k negar dagigun pekatariak ikusirik gure pekatuak alako moduan.*

<sup>40</sup> Ostein zuzenduta: *duan > duana.*

horrela golpetzen nozu? Zergatik ordea, Jesus, anbeste humiltasun gizon galdu orrekin? Noizko dituzu Zeruko Angeruak? Noizko arraio, tximista eta kastiguak? Jeroboan Erregiari igartu bazinion besoa zure profeta baten kontra sententzia ematera joan zanian, nola zuri egindakoa neurri bage andiagoa izanik, ez dezu kastigatzen gizon ori? Baña, ai K(ris-tao)ak, emen gertatzen da arako S(a)n Agustinek esaten diguna, ez dala orain bere justiziaren ordua, baizikan bere pazienziarena. Zu etorri zinian gure soberbiaren zauriak osatutera, arerioakganako gorrotoa kendutera, eta alan konbina zan gure zauriak osatuteko<sup>41</sup>.

Anbeste neke Anasenian emanik, eraman zeбен Kaifasenera non zeuden Eskriba eta Farisioak Konsejuan alkargana bilturik, testigo falsoa aurretiz arturik, eriotzara Jesu[s] sentenziatzeko. Eta apenas sartu zan, agertu ziran testigo geztoak eta akusatzen asi ziran. (\*)<sup>42</sup> Testigo gezto aiek esaten zebena Jesusen kontra berez gezurra zala agiria bazan ere, ain izan andia emen Jesusek erakutsi zuan<sup>43</sup> modestia ezik, ezin sufriturik Kaifasek esan zion: Nola ez dezu erantzuten oiek zure kontra esaten debenera? Eta onetara ere ezer ez erantzunik, soberbia andi batekin jaiki zan sillatik Kaifas eta esan zion: Jangoiko bizijaren partez galdetzen dizut, esanzadazula Jangoikoaren semia zeranentz. Aditurik Jesusek Jangoiko biziaren izena, ain ago geztotik bazan ere, erantzun zion: Zuk diozu, eta ikusiko dezu laster Jangoikoaren Semia bere eskubiko eskualdetik eserita. Jesusen errespuesta santoau blasfemiatzat arturik Kaifasek, Jangoikoari ondra andi bat ematen bazion bezala, urratu zuan bere jantzia esaten zuala: Blasfematu du gizon onek, ez degu testigo biarririk. Zer deitzazue zebek<sup>44</sup>?, esan zioen an zeudenai. Eriotzaren duin dala? Eta orduan guztiak asi ziran Jesusen kontra, al zeбен geztokeriak egitera. (\*)<sup>45</sup> Gaiztakeria oetan gauba beranduturik, eldu zan denpora beren etxeetara erretiratzeko. Eta joan ziran deskantsatzera, goixian goixetik jaikitzeo pensamentoz, baña Jesus soldado gezto baten mendian<sup>46</sup> izten zebela, zeintzuek eraman zeбен presondegi ustel batera. Ez due neurririk oiek, gauba artan eman zizkan penak. S(a)n Jeronimo eta beste askok esaten digu, ain izan zirala gau onetan Jesusi soldaduak eman zizkan injuria eta penak ezik, ez dala jakingo Juizioko egunera artian. Ai

<sup>41</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>42</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Bere odolaren anbeste e(...) bere begira luze eretxela egozan Kaij(ase)n Tribunal...*

<sup>43</sup> Ostean zuzenduta: *zeben > zuan*.

<sup>44</sup> Geuk zuzenduta: *zebei > zebek*.

<sup>45</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Anbestekoa izan zan Diabruak gizon gez...*

<sup>46</sup> Ostean aldatuta: *guardian > mendian*.

zeñ diferentiak ziran, Jesus, gau orretan Angeruak Zeru[an] kantatzen zizkizuen kantak, soldado gezto oriek presondegi ustel orretan esaten zizkizuenetatik!

Andiak izan ziran soldaduak Jesusi eman zizkan penak, orregatikan andiagoa izan zan artu zuana arako bere Dizipulo Pedrok ukatu zuanian. Bere Dizipulo maite Taborgo mendian gloriaren testigo izan zanak, bere Elixaren Aita Santutzako eskojituta zeukanak, one[elk] lenago beste guztiak baño, ez bein bakarrik, baita iru bidargiño ukatzen du bere Maisua. O Pedro, zer da gertatzen zitzaitzuna? Añ laster gai[z]kitu da orrako Maiso Santo, puntuan beragaitik pozik eriotza padezituko zinduala esan diozuna? Oroitu zaite zer Maisuak esan dizun promes oriek egiten zeundela esan (.)i(...)nian, ollarrak bi bider<sup>47</sup> soñu egin baño lenago, iru bider ukatuko dezula. Ots egiten du ollarrak, begiratzen dio Jesusek Pedrori; ots egiten du ollarrak eta emen asitzen dira Pedroren negarrak. Ez dago konsuelorik Pedrorentzat, urratu biar zaio bere biotza doloreren indar[r]ez. Irtetzen du Kaifasen salatik, bere okasioko lekurik, onela erakutsitzen zigula nola pekatuko peligurutik iges egin biar degun. O zein doktrina andi eta miragarriak ematen dizkigun Jesusek peliburutik iges egiteko, eta erori diranai, Pedro[k] bezela iges egiten badebe, par-kazioen esperantza idukitzeko!

Jaiki ziran goixian goixetik Eskriba eta Farisioak, eta berriz biltu Kaifasen salara eriotzara Jesus kondenatzeko. Baña ez idukirik aiek eskubiderik iñor eriotzara kondenatzeko, biraldu zebe Pilatos Galileako presidentiagana. Examinatu zuan kontu andi batekin eta ezautu Jesusen inozentzia, baita ere Juduen inbidia geztoa. Eta libratu nairik, ezauturik galdeetatik Herodesen agindupekoa zala, egonik denpora artan erregea Jerusalemenean, biraldu zuan beragana presente onekin, len aserre ziran Pilatos ta Herodes adiskidaturik gelditzen zirala. Poz andi bat artu zuan Hero(dese)k, deseo andiakin zeguan Jesus ikustseko. Bazekian zana berak degollatu zuan S(a)n Juan Bautistaren adiskida andia, uste zuan milagro andiren batzuek egin eraziko zizkala; baña etzan ala gertatu. Ez zion itzik ere erantzun, onela erakutsitzen ziola Juan Bautistaren eriotzan egindako pekatuen sentimentera. Eta ala biortu zuan Pilatosgana jantzi txuri batekin inozente bat bezela.

Bigarrenez ikusirik Pilatosek Jesus, ezauturik bere inuzentzia, libratu nairik Jue[ze]n esku artetik esan zien: Badakizue nola kostunbre dan Juduen legian Pazkuako denporan preso bat libratzia. Nor nai dezue libratu dezadan: Jesus Nazarenu ala Barrabas lapur famatua? Nork usteko ez zuan eskatuko ez zebela Jesus? Baña ez, ez Jesus, baizikan Barra-

<sup>47</sup> Ostean zuzenduta: *iru bidar > bi bider*.

bas libre eman zaiguzu, esaten die. Zer egingo det, bada, Jesusekin, kulparik ezautzen ez badet beragan? Ilzazu, erantzuten die. Ez nai izanik eman eriotza, uste izanik kasti[gu] andi bateki[n] sosegatuko zirala, agindu zuan azotezko sententzia gogorra.

Poz, olgura eta atseginez beterik agertzen dira sei borrego kruel; jaxtitzen debe Pilatosen portalera, kentzen dioe bere tunika, biluxik anbeste jenteren aurrian paratzen debela. Eta loturik bertako arri gogor baten kontra, oetatik bi asitzen dira deskargatzen beren furia guztia; ematen die eman ala guztia arik eta indar guztiak galdu artian. Ezin debe geiago, eta agertzen dira beste bi; ematen dizka azotia azotiaren ganian, golpia golpiaren ganian; urtzen ditue bestiak egindako orolbatu eta beltzuna guziak, irtetzen du aitz batetik urak bezela Jesusen gorputz santotik orolak. Oiek ere nekatzen dira, eta berriz beste bi agertzen dira. Baña oiek ez debe joten Jesusen gorputzik, baizikan bestiak egindako zauriak. Deskargatzen due golpia golpiaren gañian, azotia azotiaren ganian; potatzen ditue Gorputz Santotik lurrera aragi-zatiak, agertzen ditue bere zauri artetik Jesusen ezur santuak. Paratzen debe negargarri eginik. Baña oiek ere ezin geiago egin debe. Zoazte gizon madarikatuak aurrera, asetuzazue zebeu gorroto guztia, baña ezin geiago egin dezue. Bos[t] milla eunda ogeita geiago azoterekin ain galdurik, añ zatiturik, añ indergaturik para zebeu Jesus ezik, soltatu zebeuian lotuta zeguan arri gogor artatik bere oñen ganian egiteko indarririk ez zuan, eta erori zan berak gorputzetik potarikako orol putzuan luze-luze. Atoz pekataria, atoz anbeste urtian pekatuan zaudena. Begiraziozu Jesusi, galdetuzaiozu Isaiasek antzina bezala: Nola, Jauna, ikustsen det zure gorputza orren gorriturik? Eta berak esango dizu: Gerra andi bat izan det pekatuakin. Lagun billa ibilli naiz, ezin topatu izan det iñor, neuk bakarrik bere kontra eman biar izan det; azpiratu eta galdu det. Baña begira berak ere nola para nuan. Galdetuzaiozu Zakariasek bezela: Nor[k], Jauna, orrela zauritu zaitu? Eta erantzungo dizu: Or[r]ela para nue nere adiskida dirala esaten debenak.

Gelditu ziran soldadoen azotiak, baña ez<sup>48</sup> Juduen gogortasunak. Jasotzen debe Pilatosen preso salara jantzi<sup>49</sup> burlezko jantziakin, gorri kolorezko mantua bat, kañabera bat eskuan, arantza gogorrezko koroia buruan, eta bere begi santuak estalirik, golpe andiak ematen dizka, bere buru guzia arantza punta gogorakin urratzen debela. Eta asitzen da orola bere begi, arpegi eta lepotik bera. O Jesus, nonbait andiak dira gure pensamentozko pekatuak! Jakob, Dabid, Isaias, Abakuk, Daniel, Esposa

<sup>48</sup> Osteen erantsita.

<sup>49</sup> Osteen aldatuta: *kentzen > jantzi*.

Santia, ta Jangoikoen Profetak, begira zetan gelditu dirian zuben suplikak, Justoa<sup>50</sup>, Libertadoria preso ipinirik<sup>51</sup>.

Ikusi zuanian Pilatosek añ lastimagarri eginik, uste izan zuan urrikituko zirala Juduak. Eta ala preso zalako leio bate[t]ik erakutsi zion erriarri, esaten ziola: *Hecce homo*. Ara emen zebek anbeste bildur izan diozuen gizona, ez bildurgarri baizikan urrikarri eginik dagoala. Ordea, erri gezto ura ez da urrikitzen, baizikan bere pekatuan gogortu, eta eskatzen du bere eriotza. Kenzazu, kuruzifikatuzazu, betor bere orola gugana eta gure semien gañera. Iltzen ez badezu, Zesar[r]en adiskida ez zara izango. Bildurturik Pilatos Juduen<sup>52</sup> amenazaz, najjago izanik galdu betiko zoriona munduko agintaritasuna baño, eskatzen du jarro baten ura, garbitzen ditu eskuak, esaten duala aren orolian parterik ez duala. Eta azaletiko zeremonia onekin, Jangoikoen oroletik libre bazegoan bezela, ematen du arako anbeste bider kulparik ezautzen ez duala esan duan Jangoikoen eriotzako sententzia.

Leitzen die sententzia, aditzen du pazienza miragarri batekin, kentzen dizka burlezko jantziak, jantzi beriak ezaunago izatiarren, prestatzen ditu iru kurutze, ateratzen ditu lapur bi karzelatik, eta lapur bi oen erdian irtetzen du Kalbariorako prozesio gezto baten. Aditurik S(a)n Juanek bere Maisuak irtetzen zuala eriotzarako, pensatu zuan parte ematia Mariari. O Ama naigabez beterikakoa! Zeñ diferentia dan S(a)n Juanek emen ematen dizun notizia, S(a)n Gabriel Aingeruak beste denpora baten eman zizunetik! Urratu bazituan Job Santoak bere jantziak aditu zuanian desgraziaiz galdu zirala bere semiak, urratu zituan<sup>53</sup> ez jant[z]iak Mariak, baizikan bere errai bigunak.

---

<sup>50</sup> Ostein ezabatuta: *Justoa illik* > *Justoa*.

<sup>51</sup> Ostein erantsitako esaldia.

<sup>52</sup> Ostein zuzenduta: *Juden* > *Juduen*.

<sup>53</sup> Idem: *zuan* > *zitian*.

## SERMÓN DE LA RESURRECCIÓN DEL S(EÑ)OR

*Christus resurgens ex mortuis iam non moritur  
mors illi ultra non dominabitur.* Rom. 6, 9

San Leon Aita Santuak dirausku poztu biar dogula gaurko egunian gauza askogaitik: lenengo, Demoniñoa, pekadua eta erijotzia benzidurik geratu dirialako; bigarrena, linboko presondegijan egozan Santuak urten dabelako; irugarrena, Zeruko atiak zabaldu jakuzelako eta bai bere gura fedia sendatu dalako. On andi edo zorijona<sup>1</sup> eta askoz geijago ekarri euskuzan gura Jesus maitiaren Erresurrezinoak. Baiña guretzat andijena izen zan gu santutia. Il zan Kristo gu pekatuetik ateratiarren, eta urten eban ilen artetik gu santutiarren, dino S(a)n Pablok. *Traditus est propter delicta nostra, et resurrexit propter justificationem nostram.* Jesus onak ilen arterik urten ezpaleu, oraindio bere pekatuetan egongo ginian, ez euskun ezer bere fediak balijoko, eta ondo akabau bagarik geratuko zan gura erredenzinoia. Baina erresuzitaurik Kristo gure burua, guk bere urten genduban ligestarik, eta igaro Ebanjelijoaren eta Jangoikoaren Seme izaitera. Zori andijau ekarri euskun gura Salbadoriak egun onetan, baiña ez dausku ezer bere balijoko bera geure biztutian<sup>2</sup> jarraituten ezpadautsegu. Bera iru egun one[el]tan gorputzian ilik egon dana legez, egon gara gu bere pekatubagaz ilik; orregaiti, Jesukristo barriro il ezeiteko resuzitau<sup>3</sup> dana legez, alantxe guk pekatuetati urten biar dogu ez geijago ostera pekatuan jausteko, dino S(a)n Pablo Apostoluak.

Bai, neura Kristinauak. Bein pekatueti urten ezkerro eta gura bularrin Jesus maitiaren gorputza sartu ezkerro, eztogu biar pekatuen esklabo ostera biortu, bada, bestelan len baiño bere deungago geratuko gara; zegaitik dalako guttiz gatx, S(a)n Paulok dinoiena legez, bein Jangoikogana biortu dirianak eta mirarizko doe Altarakoak artu dituezanak pekatuen jausi ezkerro, ostera benetako penitenzija egitera biortutia. Eta bakizu zegaitik? Apost[ol]u beronek esango deutsu. Gura arimia solo bat legez dala diño; solo edo lur onek Jangoikoaren grazijaren lan onak artu

<sup>1</sup> Geuk zuzenduta: *zorijoneia* > *zoriona*.

<sup>2</sup> Ostein zuzenduta: *biztukeran* > *biztutian*.

<sup>3</sup> Ostein aldatuta: *jaijo* > *resuzitau*.

ezkero, arantza eta sasijak baiño emoten ezpadituz, lur edo soloau madarikatua izango da. Maldezinoiau zuben ganera jausi zeñ daidin, oraingiño baiño ardua andijagoa artu biar dozu Jangoikoen bidietati ibiliteko. Urten badozu Aste Santu onetan pekatuen sepulturarik, begira otera euretara biortu zein zaitez. Axegaitik dino S(a)n P[a]blok, ilen arterik gura izan ebala urten<sup>4</sup>, ez geijago euretara biortuteko. *Christus sur gens ex mortuis yan non moritur ita et vos existimate vos quiden mortuos ese peccato viventes auten Deo*. Orregaitik, nik bere esango deutsuet zelakoak izan biar dozuen emetik aurrera, zuen erresurrezinoa Kristorena lezkua izen dedin. Lelengo, bada, eztozu biar pekatua biortu; bigarren, urten biar dozu pekatuaren pelleburuetatik. Gauza bi one[el]k egiten ezpadozuz, ezta izengo benetakua zura erresurreziñoia.

O Jesus ona! O gura Salbagilia! Ze zorionekoak izango giñatekezan gura pekatuetik urtengo bagendu, Berorrek ilen arterik urten ebena legez! Badakigu geurez ezin gengijena; ezaututen dogu biar dogule berorren grazije gure pekatue sepultura atsiturik urteiteko. Orregaitik, bada, erregututen dautsugu emon daigula berorren grazija leku onetatik urteiteko. Sendatu gagiz berorren adiskidatasunian ez geijago gera arerijoen azpira biortuteko, modu onetan berorrena lezkua izen din gura erresurrezinoa. Auxe<sup>5</sup> da biotz osuagaz eskatuten dautsuguna, bitartekotzat ifiniten dautsugula berorren Ama, zeñek eztauskun ukatuko; eta onetarako, poz andi bategaz esan dagijogu[n] Angeruagaz: Abe Maria.

#### LENENGO PUNTUBA

Ze atsegin andija artuko neunkian, Kristinaubak, egijagaz esan al banaixue San Pablo Apostoluak Erromatarrai esaten eutsena! Mirarizko poz andi bat daukat eta milla grazija emoten dautsadaz Jangoikoari, dirautse, pekatuaren menpeko edo azpiti urten dozulako eta bizi barrira irago zarialako. Bada, au egija izen ezkero, ikusiko zendukedaz Espiritu Santuaren bizileku eginik, Jangoikoaren Seme Jesukristoren anaje eta Zeruko erederu. Aste Santu onetan itxi badozuz zeura pekatuak, zakusdaz eguzkija baiño ederrago. Baña alegrija edo gura onek nauko bildurturik, deritxadalako etzarialako guztijok penitenzijako iturrijan garbitu izango, eta alan urten biarrian zuben pekatuen sepulturarik, barriro sartu izango zarialako iru pekatu mortal ikeragarrizko menturaz egiten dozuezala, loiturik zuben arimia, prezijo bako odola zapalduten dozue-

<sup>4</sup> Geuk zuzenduta: *ilen arterik gura izan ebala urten ilen arterik > ilen arterik gura izan ebala urten.*

<sup>5</sup> Idem: *Auxa > Auxe.*



la bere gorputz santua. Bada, asko etortef[n] dira denpora onetan kura edo maisu jaunaren bildurragaiti, zer esango daudienagaitik dolore, propositu eta esamina faltiagaz.

Baña, ontzat emon daigun pekatuak urten dozula; baña aitu zer dirautsun S(a)n Paulo Apostoluak: Erresuzitau bazara Kristogaz, etzaitz Munduko gauzaren billa ibilli, eta billatu egizuz Zeruko gauzak. *Si con[re]surrexistis cum Christo quæ sursum sunt quærite etc.* Ja onezkerro bizitza barri bat artu biar dozue, eztozue euki biar aurrerant[z]lian alkarregaz gorroto, enbidija, andigura, soberbija, bengantza, ez berba desonestu, ez zikinkerijarik; zegaitik biortuten bazara ostera pekatuak, nekezago al izengo dozu urteitia len baño. Jakinsubak dirauskuna da, jaigi bagara pekatutik ez gaitezala barri[z] biortu; zegaitik benturaz bei[n]goan etorriko da zure ganera bere aserrakuntzia eta ilgo penitenzija egiteko denpora bagea. Eta bakizu zegaitik? Enzungizu. Jangoikoak bere jakiturijagaz ezauturik dauko bakotxari zenbat pekatugiño parkatuko dautsen: bateri amargiño legez, eta beste bat[z]luei geijago, dino San Agustinek. Auxe berau dino Jangoikoak bere Profeta Amosen aoti: Iru pekatu parkatuko dautsedaz Damaskoko urijari, baiña ez laugarrenik. Iru pekatu parkatuko dautsedaz Tirokoari, baina ez laugarrena. Bada, Kristinauak, bakizue au zue[il] azertaduko bajatzue? Bakizue parrokiako denpora onetan parkatu dautsuezan pekatuak azkenekoak izango badiara? Bakizue emongo badautsue denporia penitenzija egiteko? Ai zenbat engañadu dan onelango kontuak atera ezeitiarrik! Pazienzija andijagaz Jangoikoak parkatu eutsezen gizonai Noen denporan, baña eldu zirianian Jangoikoak ifinite[n] eutsen numero edo tasara, beingoan etorri zan Urijolea euren ganera eta ondatu zituzan. Denpora luzian egon zan isillik ikusten zituzala Sodoma eta Gomorrakoen pekatuak, baña bete zanian Jangoikoak ifinite euken medidia, penitenzija egiteko denporarik emon bagarik erre zituzan<sup>6</sup> Zeruko suagaz. Amar bidar parkatu dautsat Pueblo esker deungako oneri, baña amakagarrena ezin parkatu neiho.

Bada, Kristinauak, auxe berau jazo lekizue ostera pekatuak biortuten bazarie: oraingino parkatu dautsu Jangoikoak, igaro zaitu pekatuak grazijera, emon dautsu bere adiskidetasuna, jarri zara beragaz mai baten bere gorputz eta odolagaz konbidetan zaituzela. Mesede oneitara esker deungakoa izen ezkerro, uste dozu Jangoikoak ostera parkatuko dautsula? Andija da bere ontasuna, neurribakoa bere miserikordija, baina aitu S(a)n Pab(lo)k dirauskuna: ez tala posible bere miserikordije artu dabena, ostera penitenzija egitera biortutia. *Ynpossibile est ut semel i[n]lumi-*

<sup>6</sup> Ostean zuzenduta: *zituza > zituzan*.

*nati, qui gustaverunt bonum Celeste rursus renobari ad penitencian.* Orregaitik dino S(a)n Pedrok, oba izengo zenduela ezpazinie eldu Jangoikoaren bidietara, bein eldu ezkerro atzera biortu baño. Bai, Kristinauak. Gizonak egin alekijon injurijarik andijena da Jangoikoari egitia au<sup>7</sup>, bada, obetzat eukitia Diabruja, nor serbietara joan dan, Jangoikoa baño. Orain, bada, gurako zaituz Jangoikoak bere adiskidetasunera<sup>8</sup> artu? Esangidazu, Kristinauak: bazaunkie krijadu bat zeineri egin deutsezuezan mesede guztiz andijek kartzela baterik ataraten dozuela, bere zor guztijak pagetan dautsezuela, zeuen seme bat bera libretarrik preso<sup>9</sup> emoten dozula eta azienda andi baten erederu ifiniten dozula; krijadu onek esker orderako erreko beleutsu zeura etsia, il zura semia eta joan baledi zeura arerijorik andijenagana aldagijen gatx guztija egiten, etorriko balitz atzera esaten artu daizula otsain edo krijadutzat eta fijau deijozula zeura etsia eta ondasunak, len legez artuko zeunka eta fijauko zeuzkijoz zeura ondasunak? Ez neunke zure fijedore baijezkuaren urten gura.

Bada, auxe eta askoz geijago jazoten da gugaz eta Jangoikoagaz. Emon euskun izaitia, atera<sup>10</sup> genduzen pekatuen katiaperik, libradu genduzen erijotzarik emoten ebala onetarako bere Semia gura fijadore, bete gaituz grazija eta ondasunaz, eta euki zaituz bere adiskidatasunian<sup>11</sup>. Baña zuk jaramonik egin bagarik mesede guzti oneri, jaigi zintzen Jaun onen kontra, il zenduban pekatuagaz bere Semia, eta joan zinien bere arerijo andijenaren etsera otsain izaitera eta serbidu dozu urte guztijen; eta orregaiti bere, biortu zanian Aste Santu onetan beragana, etzaituz bota, artu zaitu Aita maita batek legez besoak zabalik eta ifini zaitu bere semien artien. Eta eukiko dozu bijotzik Jaun onen kontra jaigiteko, bere Seme maitia kurze baten barriro<sup>12</sup> josteko, eta gero gurako zaitu artu beragana biortuten bazara? Eztakit. Esan dautsut len bere neurribakoa dala bere miserikordija, baña Jeremiasen aoti dirauskuna da, madarika-tuak diriala beraganik iges dabiltezan semiak: *Vae filii desertores*. Bildur izen zinaitekez dontzailla zoroai esan eutsena erantzun zeñ dagizun: Etzazaudaz, eztautsut neura Glorijako aterik idigiko. *Nescio vos clausa est janua*. Zoaz len serbidu dozun uazabagana.

<sup>7</sup> Geuk zuzenduta: *injuriarik andijena da Jaungoikoari egitia da au > injuriarik andijena da Jaungoikoari egitia au*.

<sup>8</sup> Idem: *adeskidetasunera > adiskidetasunera*.

<sup>9</sup> Ostean aldatuta: *ilteko > preso*.

<sup>10</sup> Alternantzia: *atara / atera*.

<sup>11</sup> Idem: *adiskidetasun / adiskidatasun*.

<sup>12</sup> Ostean erantsita.

Eta Jangoikoa prest egongo bada bere, bakizu eukiko badozu beragana biortuteko eskubiderik? Orain gatz egiten bajatzu pekatura biortu bagarik egotia, gatzago izengo dozu pekatuen jausi ezkeru euratarik urteitia; zegaitik orduan indar gitxiago eukiko dozu demoniñoen kontra pelietako, argalago egongo zara orai[n] baiño, ekandu deungiak egunerik egunera artuko dau, eta Demonioak bere ardura andijagoa artuko dau bere agindutik urten eztagizun. Bakizu ezer azertetan dan pekatu-rik urten ezkeru, ostera beragana biortuten danagaz (au da, pekatura), karzela baten dagoanagaz eta karzeleruagaz jazoten dana? Ikusi edo enzun izan egin izango dozue nozbait, zelan preso arzen daben justezijak lapur edo gizon deungaro egin daben bat, ifiniten daudie karzela baten eta esaten dautse karzeleruari ondo amarrau eta jagon daijala; eztau onek lenengoan ain gogor arzen, baña bein iges egiten badau, zelako alegiñak ostera kosiduteko? Biralduen dituz alde guztijetati gizonak, eskribietan dautse adiskida guztijai, kontuan ifiniten dituz erri atako guztijak aratu daijen agiri bada; en fin, artu edo kosten daude preso eta entregetan<sup>13</sup> dautse lengo karzeleruari. Zer uste dozue egingo dauela karzeleruak? Len baño bigun artuko dauela? Ez, Kristinauak. Len atia giltze bategaz itxiten beeben, orain ezarten dautsez bi; len grillu batzuk euki badituz, orain ezarten dautsez pare bi. Ezarten dautso garriti katia gogor bat eta sartuten dau kalobo[zo] ilun batera. Bada, auxe berau azertauko da zugaz<sup>14</sup>. Urten dozu Demonioen eskupeti konfesiñoen bitartez, eta orra non dabilen Diabrua nondi nora pekatura biortuko zaituzan, eta jausten bazara egingo dau zugaz karzeleruak presoagaz egin dauena: zarratuko dautsuz atiak guztijak, ifiniko dau lotsa andi bat zugan konfesetako pekatua, gogortuko dau zure bijotza damurik artu eztagizun eta len demoniño batek jagoten izan bazaituz, zortzik jagongo zaitu. Orra bada, Kristinau pekatarija, zelan urtengo dozun jaube gogor oneganik. Zelan biortuko zara orain daukazun libertadera? Ai! Ze bildur izan leite ezingo dozula urten ain enemigo gogorren eskuetarik? Eta bakizu zelan jausi bagarik egongo zarien? Pekatuen pelleburuetarik urrun egiñagaz, dino Jesukristo gura Jaunak...

## BIGARREN PUNTUA

Jesukristo gura Jaunaren Erresurrezinoa ez bakarrik izen zan beti biziteko, baita bere ez erijotziaren antzik artuteko. Auxe berau egin biar dozue zuek: urten pekatu-rik ez bakarrik barriro jausi ezeiteko, eta bai

<sup>13</sup> Ostean zuzenduta: *entregeta* > *entregetan*.

<sup>14</sup> Geuk zuzenduta: *zuegaz* > *zugaz*.

bere pekatuaren peligruetarik eskapetako, bada, diño Eskritura Santiak pekatuen okasiño edo peligrua itxiten eztauena bertan jausiko dala. Orregatik dino S(a)n Juan Krisostomok, artu daben grazijan sendo ego-teko, alegin guztija egin biar dabela, zegaitik ze aziten isten badautso ekando<sup>15</sup> deungiari, guztia gatx izengo dabela bere azpitik urteitia, bada, geroago indar geijago artuko dau. Esauk lenengoan azpiratu edo benzidu baleu ekandu deungia, ez eban gero galduko aitare[n] bendezinoia. Beingoan Kain etzan izan deungia: lenengo euki eban bere anajiaren inbidija, eta gero il eban. Benzidu baleu lelengoan anajiari eutsan inbidija, gero ez eban egingo ain pekatu ikaragarrija. Dabid Erregiak itxi balituz begijak Bersabe ez ikusteko, etzituzan egingo anbeste pekatu. Orregaitik dino jaki[n]subak: Badakizu andra deungaren bat bizi dala etxeren baten, etzaitez bere atetara eldu.

Auxe berau dirasku pekatuen ganian bere: Begiratugizu oraingiño ze pekatutan jausi zarian, eta emetik aurrera alegin guztija egin biar dozu pekatuen peligruetati urrin bizi izaiteko. Aberija baiño deungakoak gari-  
la dino S(a)n Juan Krisostomok. Bada, oneik bein lazuan jausten badira eta gero iges egiten badaudie, ez bildurrik euki eurak atzera biortuko dirianik, jausten diriala barrero lazuen. Jauna, ori da gauza gogorra, esango daustazu. Nor egongo da, exenplorako, tabernara bagarik, Urlijagaz berbarik? Esangidazu: esan balegu[il]zue tabernan dagoan ardauek bere-  
noa daukala, Urlijagaz berbarik egiten badozu urkamendira erremediojo bagarik eroango zaituzela, joango zintez<sup>16</sup> tabernara? Egingo zeunka ber-  
ba Urlijagaz? Gauza klarua da ezetz. Eta joan bazintez, guztijak esango leukia zariala zoroa. Bada, gizon askoentzat da berenua<sup>17</sup> tabernia, bada, eztira kontentetan eginagaz euren konbenimintua: alborotetan dituez bazterrak, eskandalizau auzoak berba desonestuekaz, galdu euren fame-  
lija desordenantzan gastetan daudienagaz. Bada, zer bereno andi[al]gorik zure arimia eta bazterrak galduteko? Zer urkamendi andijagorik zuret[z]at Urlijen<sup>18</sup> tratu eta komunikaziñoia baño, zeinegaz tratetan dozun bako-  
txian galduten dozu zeura arima tristia, pensamintu loi, deseo inpuru, tokamintu desonestu, eta menturaz pekatu andijagoakaz? Non da, Kristi-  
nauak, gura errazoa? Sepultura baten ustelduko dan gorputz bat gau ta gaberdi gabiltzaz nondi nora erregalauko dogun, eta arimia bat beti-betiko biziko danentzat, eztogu artuko ardurarik?

Enzungizue zer jazoko jatzuen pelleburuen sartuta zabiltzezanoi. Gizon guztijen Ama Ebak ez eban beingoan jan, ez jateko Jangoikoa[k]

<sup>15</sup> Alternantzia: *ekando* / *ekandu*.

<sup>16</sup> Ostean zuzenduta: *zinte* > *zintez*.

<sup>17</sup> Geuk zuzenduta: *berenua* > *berenua*.

<sup>18</sup> Ostean zuzenduta: *Urlijena* > *Urlijen*.

esan eutsan sagarra<sup>19</sup>: lenengo begiratu eutsan, gero ukutu, jausi jakon deseotan eta akabuan agiña ezarri eutsan. Lenengoan begiratu ezpaleutso, etza[n] gero jausiko. Josen anajiak ezeudien lenengokoan inbidija puska bat baño euki, eta onen asikera indar ez eudielako egin bera kenduteko, etorri zirian saldutera. Baña oneik guztijok aitzutekoa da Dina Jakob Patriarkaren alabiagaz jazo zana. Eldu zan Patriarkau Palestinara eta ifini eben bere bizilekua Sikengo urijen ondoan. Egiten zan Sikengo urijan erromerija, eta eskaturik Dinak lizentzija Sikengo andrak ikustera joateko, bere amaren bajezkoagaz joan zan erromerija ikustera. Ikusi eban neskatillau Sikengo Erregiaren semiak, eta jausirik bere amudijoan, biraldu zituzan krijaduak bere bila. Er[ol]an euden zaldun edo Prinzip[i]onagana, eta jausi<sup>20</sup> zirian pekatuan. Pekatu onegaz ezetu zan Prinzipionen amoria lenen ganera, eta joan jakan Prinzipiau aitari esatera emon legijola emaztetzat Dina edo neskatillau. Joan zan Sikengo Erregia<sup>21</sup> Jakob Patriarkagana eskatuten bere alabia bere semiaren emaztetzat. Enzunik Jakobean semiak euren arrebiagaz jazo zana, esan eutsen ezin izen litekiala Sikengo gizon guztijek zirkunzidau bagarik edo euren aragi ebagi bagarik, bada, zan euren legiaren kontrako gauzia. Etorri zan Sikengo Erregia onetara bere semiaren desioa kunplietarrik. Baña, zer jazo zala uste dozue<sup>22</sup>? Ara non sartuten dirian Jakobean semiak Sikengo errijan aragija ebagi eudenik irugarren egunian, noz egozan Sikendarrak minik andijenagaz ezin erreparaurik, eta pasetan dituez kutxillo guztijak, gizon-da enbra, zar-da gazte, guztijak bat bere itxi bagarik, emoten dau-tse sue etxe guztijai eta geratuten da Siken desierto eginik. Nok pensauko eban Dinaren erromerijak one[elk] gatx guztijok ekarriko zituzala? Nok sinastu erain euskijon Dinari, oneik kaltiok ekarriko zituzala bere buruera onek? Bada, auxe berau jazoko jatzula dirautsuet zubei, Kristinauak, pelleburutik urten gura ezpadozue. Itxi egijozube, gurasoak, zuen umiai nondigura ibiliten, gura daben ordura artian eta eurak gura daudien lagu[ne]kaz, eta ikusiko dozue Jakob baiño zotin andijagoak eukiko dozuezala. Eta a<sup>23</sup> izengo da benetako erresurreziño! Berorri gagoz grazijaren eske, Jesus ona, berorren Lege Santuan bizi izaiteko; bakigu berorren grazija bagarik ezin ezer ginaijena. Berorren grazijagaz batera biziko gara berorren bildur santuan, eta elduko gara azkenian berorren arpegi ederra ikustera betiko atsegin, poz eta kontentuban. Amen

<sup>19</sup> Idem: *ez jateko ez eutsan sagarra* > *ez jateko Jangoikoa[k] esan eutsan sagarra*.

<sup>20</sup> Geuk zuzenduta: *jaisi* > *jausi*.

<sup>21</sup> Idem: *Erregiak* > *Erregia*.

<sup>22</sup> Idem: *daude* > *dozue*.

<sup>23</sup> Jatorrizkoan: *ba*.

**SERMÓN DE LAS PENAS Q(U)E SE PADECEN  
EN EL INFIERNO**

*Discedite a me maledicti in ignem æternum.* Mt. 25, 41

Gutziz gitxi ta kostaduak dira munduan berba itzaltsuak fede bizi bategaz sinatzen dituenak. Alderatu zaiteze nigandik, madarikatuok, betiko Jangoikoa Jangoiko dan artio, Infernuko presondegiko surtera. Eztago dudarik N.E., sinastuko bagendukaz fede bizi bategaz, bakarrrik berau asko izango litzateke irazartzeko pel[ka]tuaren loo astunetik eta biortzeko gizonak Jangoikoagana bere Lege Santuaren bide artez edo ziurretatik. Sinastuko bagenduke kondenaduak diralla betiko madarika-tuak Jangoikoagandik, alan animan baita bere gorputzian, zelan izango litzateke posible bizi izaitia bildur santu bat bage, apa[r]tatzen gaituala pekatuaren egikeretatik, damuarijaren inder edo sendotasunagaz gura biotzetatik urteiten dabeela negar eta sentimentuz beteriko zizpuruak, ain gaizki trata dogulako gura Jangoikoa maitia? Zelan, asko azpiraturik euren soberbija ta arrotasunagaz, beste asko munduko ondasunaren gurari edo kodizijagaz, ainbeste lujurijaren gustu zikinakaz, eta gustijak eroan edo ezarririk euren pasino geztoaren ur-korronta bildurgarriak insensatu edo burua galdurik, munduko maxima madarikatuakaz eta Diabruaren tentazino geztoakaz azpiraturik, irago leike<sup>1</sup> bizitzia bildur bage eternidadeko penaren? Zorionekotzat emongo nintzateke gaurko egunian, zuen begijaren aurrian biar dana legez esplikadu ta ifini al banegiz Infernuko su gori ta itzaltsuetan anima desbenturaduak, beti padezidu ta inoz akabadu bage dagozanak, bildurturik pena itzaltsu oneikaz itxi dagizuen pekatua eta jarraitu birtutia. Erdue, bada, neugaz!, esango dot S(a)n Bernardo gloriosoagaz, jatsi gaitezan bizirik gura konsidera[zi]noiagaz leku itzaltsu atara, gero il gaitianian, jatsi ez gaitezan urteiteko esperantza bage. Ifini daigun gura bizilekua, Job Santuaren exenplora, leku ilun ta itzaltsuaren erdijan, ezautu daigun zerbait zer leku atan igaroten dan. Nira gogoa, zuek bildurtutia fundamentu bageko ponderazioakaz, guztija izango da Jangoikoaren Libru Santu edo Eskrituran fundadukoa.

---

<sup>1</sup> Geuk zuzenduta: *leek* > *leike*.

Bai, Kristinauak. Iragoten dira Infernuan<sup>2</sup> pena-dolore ikaragarriak, ez bakarrik gorputzian, baita bere animan, eta eztira akabaduko eternidade guztijan, au da, Jangoikoa Jangoiko dan artian. Ezagutu dagizuen obeto zelango tormentu ta pena ikaragarriak kondenaduak Infernuan igaroten dituezan euren gorputzetan, gura dot ifini zuen begijaren aurrian, arako Jangoikoa[k] bere Israelgo erri deungaren ganian ifini euen kastigu bildurgarrija bere<sup>3</sup> beso poderosoaren indarragaz. Atara eben Egiptotik bere miserikordija neurribagiagaz errukiturik, mirari andijaren inderrez emon eutson bere<sup>4</sup> Lege Santua majestade guztiz andi bategaz; desiertu itzaltsu batetik eroan zituan ainbeste urtian, zorion ta mesedez betetan zituela. Baña beti a erri geztoa aitzurik bere Jangoikogandik artu dituan miserikordija neurribagiak, jaigiten da bere kontra, eta murmuratuten dau Jangoiko eta, bere kapitai ta kaudillu Moiseseln kontra: *Cur eduxisti nos de Egipto ut moreremur insolitudine? Anima nostra jan nauseat super isto cibo levissimo*. Aserraturik bere errijaren kontra, ekarten ditu Arabijako desiertutik bereno ikaragarritz beteriko sierpezko exerzitu andi bat, eta bota edo ifinten ditu Israeltarrak non desiertuen egozan txabola edo kanpamentuetara, euren benenoz<sup>5</sup> beteriko usikedakaz kastigadu zeijen murmuradoriaren pekatu ta geztokeri-ja. Ustibagako sierpe ikaragarrijaren etorrieriagaz, (...)en aoti benenoa ta begijetati sua botaten eudiela, ikaraturik eskapau gura daude Israeltarrak euren desiertuko txabola ta bizilekuetatik; baña alperrik, bada, segido ta koxurik sierpe ikara[garril]jak eztautse itxiten. Batzuk ezkutau gura dabe, baña alperrik, bada billaturik, aurkituten ditue, uste izan arren seguru zegozala; beste askok ikusirik ezin eskapau eudiela, euren kontra emoten daude, baña ezin daude, bada, euren gorputzak inguru arturif[k] arefe[k] sierpe ta plaga bildurgarriak lazuz estu batzuk legez, kenduten dautse, pena andijak emoten dautseezala, euren bizija. Sokorru billa deadar andijak egiten ditu andra batek, arrabija andi bategaz ikusirik zelan usigiten deusian sierpiak, baña ze doloria! Guztija alperrik, ezin dau sokorridu bere senarrak, bada, aurkiten da bere emaztia legez suerte igoalian. Karra egiten eban ama tristiak bere sabeleko frutu gozua, bere semia libretara, baña aurkiturik bidian bere semiak legez sierpiak, entregetan dau bere bizija sug[e] itzaltsuen eskuetan. Semiak karra egiten eben euren aita libratzera, eta ingeraturik bidian sierpearen aginetan

---

<sup>2</sup> Ostein erantsita.

<sup>3</sup> Geuk zuzenduta: *bero* > *bere*.

<sup>4</sup> Ostein erantsita.

<sup>5</sup> Alternantzia: *bereno* / *beneno*.

ilten dira. Guztija berba baten esatarren, desierto guztija egoan estaldu-rik sierpiaren aginka ta beneno mortalagaz ileko Israelarren gorpu defuntuz. Ezta entzuten Israelgo kanpaña ta txaboletan beste gauzarik, ezpada negar ta llantua; baña guztijan zan alperrik, zergaitik sierpe geztoak aserraturik, Jangoikoaren justezijako ministroak legez<sup>6</sup>, guztija betetan eban bildur, llantu, konfusino eta erijotzaz. Sierpiek dakusdez euren oñetan, sierpiek besoetan, sierpiek euren idun ta bulerretan, sierpiak euren ao ta begijetan, eta sierpiak euren gorputz guztijen. Ezin librau dira arefelk tristiak euren eleginagaz. *Quam ob rem, misit Dominus ignitos serpentes.*

Aurkitu giñai gauza negargarrijagorik au baño? Bada, au guztijau ezta ezer Infernuan iragoten<sup>7</sup> diran penakaz gorputzian; antz edo irudi bat da Israeltarrak desiertuan igaro<sup>8</sup> eudiena euren gorputzetan, an igaroten dituenakaz kondenaduak, Jangoikoak euren gorputzak kastigetako egin eben suegaz. Apenas sartu da Infernuan, orra non suga-bibora batzuk legez elduko diran bere gorputzera, euren sentidu guztijak benenoz beteta dolore ikaragarritzakoak emoten dijoezala. Kristinau[al]k, ondo kon sideradugizue aurkitu<sup>9</sup> al balezake onelako tormenturik: arako begi gauza loijetarako ain argi izan zituanak, eta ezetan errepar[al]u bage bere ari miaren erijotza emoteko zirian gauzatara zabalik euki zituanak eta biotza pekatuz bete, arako begi Jangoikoaren tenplo santugiño etorten ziranak gustu loijak artzera. Are[el]k begijak, dinot, sarturik iluntasun itzaltsu baten eta betiko gaubian, eztabe ikusiko kondenaduaren gorputz negargarrijak baño, eta Diabruaren figura bildurgarrijak baño. Eri jotzaren geriza bildurgarrijak, eternidadeko kastigu, desesperazino ta suzko negar- anpulluak izango dira ikusiko dituanak. Oi ze pena bildurgarrijak!

Euren belarri munduan murm[ur]jaziora makurturik izan zituanak, gauza torpe, kanta loi, berba zikin ta desonestidadez beterikoak ain gustu andijagaz entzuten zituanak: gorturik pobriaren deadar edo eskakizunera, umezurtzen<sup>10</sup> desanparura eta alargun tristiaren soledade edo bakartasunera; itxirik predikadorian abisu santuetara, konfesore, guraso ta nagusijaren agindura, bere adiskidaren konsejo santuetara, an eztabe entzungo beste gauzarik kattia bildurgarrijen soñu itzaltsua, kondenadu

<sup>6</sup> Osteen zuzenduta: *Jangoikoaren ministro justezijako legez > Jangoikoaren justezijako ministroak legez.*

<sup>7</sup> Idem: *iragoko > iragoten.*

<sup>8</sup> Alternantzia: *irago / igaro.*

<sup>9</sup> Jatorrizkoan: *haurkitu.*

<sup>10</sup> Idem: *humezurtz.*



desbenturaduaren alaridua, euren desesperazio ta blasfemija bildurgarri-jak baño. Entzungo ditu gurasoaren maldezioak euren semiaren kontra, euren amore larregijagatik juan ziralako Infernura; entzungo ditu semiak aitari egiten deutsezan maldezioak, euren exenplo gezt[ol]agaz ifini zitua-lako presondegi edo karzela ilun ta larriz beterikoatan. Madarikatuko daude enbrak arako memento euren senarretara entregadu zituana; eta gizonak alperrik egon dira negar garratza egiten deudiela eure[n] emaz-tearen kontra, kriadu edo otsañak uezabaren kontra, one[elk] otseñen kontra, basalloak Erregeren kontra, eta erregiak basalloen kontra, kria-turak Kriadoriaren kontra. Guztija berba baten<sup>11</sup> esatarren, kondenadua-ren belarriak eztabe entzungo beste gauzarik, allaridu itzaltsu, zispuru desesperadu, negar konsuelo bageko, madarikazinoz beteriko kexa bil-durgarriak alibijo bage, desperetan erremedio bage, inoz urteiteko esperantza bage. O ze tormentua! *Væ sonant qui torquent. Væ sonant qui torquentur.*

Bere begi ta belarriaren penai lagun egingo deutse usain gezto edo kirets ezin [sufridu] leijen batek. Arako pobre Jangoikoaren kontra altzau edo eregi zana bere burua ekusi ebelako miserijan sarturik; arako aberats edo aida nagosi<sup>12</sup> larregi usain gozua billatu zituanak, eta kandela deungaro amataduaren usain gezto txikija ezin sufridu euenak puska baten; aberatsa delikadu-gezoak bisitatzera inoz eldu ezin zana geso tris-tiak konsoletara, aberats eta pobrone[elk] ain deungaro usau ebelako Jangoikoak ifini zituan estadia, igaro biarko dabe presondegi itzaltsu atan kirets edo usain gezto ezin sufridu leijena. *Erit ei pro suavi odore fetor*<sup>13</sup>. Bija ta azufria (dira Eskritura Santuaren berbak), azartuko da inor emendatutera? Ainbeste gorputzek botako dituezan izardi ta usa[i]n gaiz-toak, eta euren loikerija guztijak botako dituen arnasa ustelak tormen-tuz beteko daudee kondenaduen usañaren sentidue. Euren ao ain deli-kadu erakosten eudena, golosina edo gurari guztijak emon eutsena, barau bat egiteko ainbeste eskusa ifiniten ebena Ama Elexa Santuak aginduten eutsenian bere; ain berba loijak bere denporan esan zituana, ain konseju geztoak emon zituana; ainbeste murmurazino geztogaz pro-ximuari honria, estimazino ta kreitua kendu eutsana, egonda bein ega-ri ikaragarrizkoagaz guztiz sikaturik, beste bein dragoi madarikatuaren biaz tunagaz garratzu ta mindurik, zein izango dan bere eguniango man-tenimentua alan Jangoikoaren just[i]jak disponietan dabela. Oi ze gau-

<sup>11</sup> Geuk zuzenduta: *berbaten* > *berba baten*.

<sup>12</sup> Alternantzia: *nagusi* / *nagosi*.

<sup>13</sup> Albo oharra: *Isaia c. III, v. 24*.

za negargarrija! (\*)<sup>14</sup> *Fel draconum vinun eorum, et venenum aspidum insanabile*<sup>15</sup>.

Bere esku, bere gorputz ta proximuenari ainbeste injuriya eginekoa, inoren aziendia ainbeste bidar kendukoa, ainbeste pobreri limosnia ukatukoa; bere esku ainbeste karta gezto eskribidukoa, bere esku bere onestidadiaren prezijoa ainbeste bider arturikoa, ainbeste sentenzija injusto emonikoa, ainbeste probanza ta pedimentu gezto firmaurikoa; bere esku ainbeste soiñeko indezenzijaz beteriko ebagikoa, ainbeste biar gezto eginikoa, ainbeste joko gaizto jokatukoa: au eskua, dinot barrero, ainbeste gusto loietara akostunbradua (ikusiko da), o ze dolorial, estaldurik ar itzaltsuz, jantzirik llama ta su itzaltsuz, eta izango da gogoratu ginaijen gauza guztijen artien andijen bat, pensau aleijen artian andijena. Bere gorputzeko aragi ainbeste delikadezagaz<sup>16</sup> tratadukoak, argi-zuzi batek legez argi egingo dau beti erreten eta inoz akabadu bage leku negargarriatan. Subak, Jangoikoaren instrumentuak kastigetako gizonaren geztokerijak bere anditasunari eginiko injurijak, erreko ditu bere gorputzeko zanak guztijak, iragoko da azurretara, emetik errajetara, kaldata, gorituko ditu arterija guztijak, adikatu edo neke andiz bete biotza, eta kondenadu zorigeztokoa egongo da<sup>17</sup> barru ta kanpo su gorizko kalda bizi baten, igual zein arraña ur barruan egoten dana legez. Begijak ikusiko daude sua, miñak gustau sua, oñak zapaldu sua, eskua ukutu sua, eta Infernuko su onetan artuko ditue dolore, sentimentu, angustija eta naigabetasun andijak; eta guztija berba baten esatiarren, eztau gorputzak izango parterik zeinetan eztituan igaroko dolore andijak, baña alan bere geijago arako gorputzeko partiak zeintzuek geijago makurtu edo entragadu ziran pekatuaren gelara, nondik datorren murmuradoriak...

O su bildurgarrija! Ai nok ifini leijen ondo grabau edo eskribidurik neura entzularen biotzetan! *Inteligite hec qui obliuicimini Deum*. Begiratugizue ondo au, Jangoiko aitzurik bizi zarianok. Begira, zuek pekatari munduko olgura, gustu loi eta dibersino pelibururik inoz urten bage bizi zareanok. Ondo ezaturik, errez eukiko dozue su Jangoikoak bere jakiturija<sup>18</sup> andijagaz kastigetako munduko pekatuak ifinirik daukanorrek emongo deutsela zuen gorputzai ainbat kastigo geijago, zenbat eta zuek

<sup>14</sup> Ostein ezabatutako latinezko zita: *Nocte et die non es tindetur; in sempiternum ascendet fumus ejus*.

<sup>15</sup> Albo oharra: *Deut. cap(u)t 32, v. 33*.

<sup>16</sup> Geuk zuzenduta: *delikadezatagaz > delikadezagaz*.

<sup>17</sup> Ostein erantsita.

<sup>18</sup> Geuk zuzenduta: *jakitira > jakiturija*.

gustu geijago emon deutzazuen gorputzai. Zuek desonestuak, loikerijaren gose ezin aseko andijagaz bizi zarenak, zuen begi madarikat[ul]okaz ikusten dozuen pastu guztija zikindu ta nondi alkanzauko dozuen, lazu armau ta donzalla inozente ta malizija bagiak galdu, ta zeu[e]n malizija andijagaz, otsoak ari inozentiak leg[e]l[z], presa egin ta anima galdu, ta eskandaluko arri eginda isten dozuezanak, errez jakinda<sup>19</sup> egongo zare, zuen gorputzak aparteko tormentuak igoroko dituela, eta ainbat andijagoak, zenbat andijago izan ziran gusto loijak. Murmuradore desbenturaduak, zuen min madarikatukaz ainbeste honra, estimazino ta fama kendu dozuenak, tinu baga berba egl[il]ten dozuela Errege, Obispo, Sazerdote, erlijioso, donzella onesta, ezkondu birtuosa, alargun erretirada, ta beste estadu ta persona guztijaren kontra, eztozuela isten eragon bage ez gauza sagradu, ez profanurik, on ez gatxari, mundu guztijaren juez baziña legez. Errez jakinda egongo zare, zuen min madarikatuak, zeintzuekaz ainbeste gatx munduan egin zenduen, izango dirala kastigatuak eternidade bateko mordaza suz beterikoakaz. *Per quæ quis peccat, per hæc, et punietur*<sup>20</sup>. Pekatari ardura bage malizijaren bide zabaletik lastima negargarri engañadurik zoazenak, gelditu puska bat zuen pausuak, biortu zaiteze atzera, bada, bestela zoaze zuzen Infernura. Begira... Euki entendidurik predikadu dodazanak eztirala neura burutik aterako gauzak, Eskritura Santuak esaten deutzuez nik esan ditudan guztijak eta askoz geijago: dira Espiritu Santuak diktatuko egijak. Emetik ezautuko dozue, ondo gogatu edo meditadu badagizue, zelango penak gorputzian igaroten dituan kondenaduak Infernuan. Eta gorputzian igaroten<sup>21</sup> dituen Infernuan kondenaduak penak asko ez baldin badira pekatuari itxi ta birtutiaren partiduari zuek segiduteko, ezautugizue dago[alala] arimarentzat bere penak gorderik eternidade baterako. (\*)<sup>22</sup>

Noa berba egitera erri fede santuaren ganian ondo informaduko bategaz. Eta alperrik denporia emotia izango liteke ni kantsetia erakusten zuek ondo sinastuten dozuezan<sup>23</sup> fedeko misterijo santuak, au da, krijadu edo eginik Jangoikoak arima razionala, iraungo dabela eternidade<sup>24</sup> osoan; euki ebela a[s]leria, baña eztuela izango azkenik; arimau Jangoikoaren pribilegijoz dala bere gauzaetan libria, espirituala, imortala eta apaindu edo janzija guztiz noblegaz, zeintzuekaz Jangoikoaren

<sup>19</sup> Osteen zuzenduta: *jakin > jakinda*.

<sup>20</sup> Albo oharra: *Sap. cap. 11*.

<sup>21</sup> Alternantzia: *igaro / igoro*.

<sup>22</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Bigarren puntua*.

<sup>23</sup> Geuk zuzenduta: *dozuezezan > dozuezan*.

<sup>24</sup> Idem: *eternedida > eternidade*.

akordetan dan, ezaututen dauen eta amadu gauza guztijaren ganian mundu onetan, bestian ikusi ta gozetako eternidade batian. Arima razionalau, zein ezaututen dozuen dala libria, espiritual eta imortal edo ilezkorra ez ebelako ondo usau mundu onetan libertadia, ausirik Jaunaren mandamintuak, ez gura izanik biortu Jangoikoagana gorturik bere dejetara, eta aurkiturik erijotzak estadu onetan, izan doa erbestetu edo deserradua apelezinoko sentenzijagaz Infernuko kaloboza itzaltsuetara, non egon<sup>25</sup> biarko daben bere potentzija guztijakaz sarturik betiko pena itzaltsu<sup>26</sup> aretan.

Memorijak ispillu eder batek bere aurpegiko orbanak ifini o[i] dituana legez, alan ifiniko dautsez bere falta andijak, bere entendimintuak, Jangoikoaren perfezinoak, eta gura izanik bere borondatiak bera maitatu ta ezin izanik iragoko ditu tormento andijak. Esango deutso zelan bere ondasun, edertasun, jakituria, nobleza ta ganeko doi naturalak artu zituala eurekaz Jangoiko obeto serbietako, eta ezauturik eurekaz pekaturako balijatu zala eta igaro dirala guztijak odoi arteko eguzkija joan oi dan baño arinago, itsasoan doian barkua baño arina[go], nondi igaro dan señalerik etsi bage, egaz doian txorija baño bere lenago, eta bakarrik geratu dala arako an eternidade baten bera mortifikaduko dauena. Esango dau: Ai zorigeztokoa niria! Baña guztija alperrik. Jangoikoak emon eustezan munduan dezentzjaz igaro, proximuari on egin eta erraz Zerua arkantzetako, bañ[a] nik ondasun oneikaz eztot egin besterik, indezenzian bizi, proximua ez sokorridu, bera eskandalizadu, Zerua galdu<sup>27</sup> eta leku itzaltsu tormentuz beterikoau irabazi baño. A nira zorigeztokoa! Orain ondo gogoan dot arako gala eta moda guztijetara zelan nengoan makurturik, al neban guztija euretan gastau nebala, zor asko egin, fame-lijta ta etxia galdu nebala; eta orain ezaututen dot, baña alperrik, guztija banidadia zala, nira galak sitsak jan zituala eta nira gorputz eurakaz ain apaindurik proximuari pekaturako serbidu eutsena, ar itzaltsuz beterik sepultura baten dagoala. O zorigeztoko banidadia, ze karu kostatzen jatan! Ai, mundutar ne(...) beste denpora baten legez engañaturik bizi zarenak, ezautuko bazendue ondo ze zorigaizto biortuko diran zuen olgurak, ze bestelakoa izango litekean zuen bizitza!, esango dau. Onelan, tormentuz beterik egongo da kondenaduaren arimiak, gogoan dituela emen munduan galdu zituan ondasun andijak eta ezauturik an ain erraz irabazi eukela Zerua galdu ebalako.

<sup>25</sup> Idem: *egongo* > *egon*.

<sup>26</sup> Idem: *itzaltsue* > *itzaltsu*.

<sup>27</sup> Idem: *galdua* > *galdu*.

Baña andijak badira tormentuak munduko ondasunen galtzeieria emoten dautsezanak, zer izango eztira bere sentimentuak, arako ikusi dagizenian ainbeste doi ta grazija sobrenatural alperrik galdu zituanak? Ze sentimentua, ze dolore konsuelo bagia anbeste sakramento, ainbeste sermoi, ainbeste konfesino, ainbeste komunio alperriko, ainbeste dei, ainbes[te] grazija, ainbeste konseju, konzienzijaren err[el]mordimentu bere erruz galdurik ikusi dagizenian! Ainbeste ondasun sobrenatural artu bera salbadu zeeitian, eta orregaitik Infernuan kondenadurik egon biar izatia! Eztago nok ezautu daijen biar dan moduan pena negargarrijau. Orain dot gogoan, baña alperrik (esango dautsa memoriak), arako misinon santuan<sup>28</sup> erraz konfesadu nintekiala eta urten pekatuturik; zelan idigirik ifini eban nira biotza eta zelan konfesetako puntuan parau nintzan, baña batetik lotsiak, bestetik okasio geztoari itxi biar izaitiak atzeratu ninduan konfe[se]tako go[go] atatik. Eta jarraiturik neura biritza deungari, g[e]lro zartuten nintzanian biortuko nintzala Diabr[uak] ifiniten eustan buruan, uste onegaz gogorturik pekatuan il naz.

Neuria da errua, eta alan errazoa da nik onelan pagetia. Baña zelan izango, Jangoiko justua, oneik penok eternidade baten igaro al izatia? A nire zorigeztokoa! Gogo[al]n dot pekatu eginik laster ifiniten eustezala presente orain igaroten ditudan<sup>29</sup> penak urten neijan pekatutik, baña ez neuntzan emoten lekurik Jangoikoaren dei amorosoari, ez neban nai urten arako persona niretzat pekatutako okasino zagananik. Galdu nituan alan doi edo grazija naturalak, baita bere sobrenaturalak, zeintzubahaz gura izan eban nira salbazinoa. Orregaitik tristezaz beterik, galdu biar dot desterradurik erri miserija ta iluntasunez beteriko onetan, non eztan entzuten konziertuko gauzarik, ezpada deskonziertu bildurgarri bat inoz akabaduko eztana. *Ece pereio in terra aliena pre tristicia*. Onelan, konsuelo bage biarko dozue egin negar, denpora gitxi barru<sup>30</sup> balijau nai ezpadozue Jangoikoak orain bere miserikordija andijaz emoten dautsuezan grazija andijakaz. Nor nira entzularen artian izango a pekatari desbenturadua, nira gaurko desengañuak libradu biarrian, tormentu andijagotan ifiniko daudiena? Ez, Jauna, zegizu zuk onelako desgazija permitidu, egizu balijatu ditela zura iturri kadaltsuekaz eta garbitu bere zaurietatik.

(\*)<sup>31</sup> Eta nor izango da kapaz erakusteko biar dana legez bere pekatu andijak, ikusi dagizenian exerzitu ikaragarri bat legez bere aurrian, euren

<sup>28</sup> Osteen zuzenduta: *santua* > *santuan*.

<sup>29</sup> Idem: *nagoan* > *ditudan*.

<sup>30</sup> Idem: *bage* > *barru*.

<sup>31</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Zelako bildurra eztau...*

astuntasun ta pisu eskeragiagaz? Au izango dala dirausku S(a)n Efrenek, uste dogun baño pena andijagoa. *Yn inferno obiavit damnatis horrenda ila facies suorum delictorum*. Ze sustua emongo dautsen pekatarijari arako sakrilegijoko pekatuak, desonestuak aberijakin eginikoak eta mandamentu guztijaren kontra eginikoak! Orain gogoan ditut arako bisita peliburuzko, dantza, paseo, komedija ta konbersazino, eta esaten nendula mundua igaroteko gauza biarrak zirala, euretan pelibururik pekatuako ez egoala. Baña gauza aretatik arturiko okasio izan zan arako pekatua, eta atatik bestia; eta onelan, gauza gitxitzat despreziadu nituan gauzak ifini nabe zorigetoko leku onetan. Eta memoriak ainbeste pena emoten badautso ari-miari presente ifinirik emen egin zituan faltak, begira, eztira izango txikijagoak bere zenzun edo entendimentuak emongo dautsezanak.

## SEGUNDO PUNTO

Alperrik izango da andija Jangoikoak pekatarijak kastigatuteko ifini eban sua<sup>32</sup>. Baña ze su, ze demonio, ze tormentu andijagorik pekatari batentzat ezautila lezkorik, iturri eta erreka guztijak urtenik itsasutik, ezin paradu dirana legez euren ama itsasora, nondik urten eudian eldu artian, onela arimiak ezautilik Jangoikoagandik urten ebela, eta makurtu edo inklinadurik dagoala Jangoikoagana joatera, bere pekatuaren presa gorrak isten ezteutsela?

Kristinauak, esangidazue: Zare aragizko ala brontzekoa? Bada, baldin gura ezpadozue izan aragizko bigunak, eta gura badozue izen brontzeko edo diamantezkoak, zergaitik eztozu gura erakutsi zuen Jangoikogana inklinazio zein dan zeuen zentro edo ama, brontziak bere ama edo zentro dautsena zein dan Lurra? Eta brontzia bere Ama Lurretik kanpora airian instante baten ezin egon bada, zelan posible izango da zuek Jangoikoanik kanpora egotia eternidade baterako? O ze zenzun laburrekoak garian ainbeste inportetan dauen gauzan, izanik ain prudentiak laster itxi biar doguzan gauzaetan! Bulerreko umetxu batek negar konsuelo bage egiten badau puska baten bere amagandik kanpora dagoanian, zelako negarrak eztira izango kondenaduarenak Jangoikoagandik eternidade baterako desterraduak izan ditianian? Duda bagarik<sup>33</sup> pena geijago emongo dautso Infernuan Jaungoikoaren perfezino andijak ezautila ta ezin gozau izatiak, Infernuko tormentuak baño; eta alan, pena geijago dauko aberats abarientu Ebanjelijokoak Lazaro gaisoa Zeruan ikustiagaz, bertako tormentuakaz baño. Bai, Kristinauak.

<sup>32</sup> Geuk zuzenduta: *suak* > *sua*.

<sup>33</sup> Ostean aldatuta: *bage* > *bagarik*.

Au da ainbeste arima kondenaduaren estadu negargarrija, zuekaz batera berba egin ta ibili izango dirana, ainbeste enbra bana ta desonestarena, dei eginik Jangoikoak gortu ziralako bere abisu santuetara, ez eudielako gura izan eldu Sakramentu Penitentzizako ur santuetara; onelako ainbeste soberbijoarena, munduko anditasun ta pobriaren intsensoa arroturik artuten dabena; arako ezkondu ta enbra libriarena, korteku alper eta osioso bateri adi dagoanena, eta abisadurik bere konfesorianik, amistade zikinen kordela galdu edo urratu gura eztabena, matrimoninoak loitu bizitza txarra senar-emaztian artia[n] ifinirik, eskandaluz bete bazterrak. Zuena izango dala, dinot barrero, a leku itzall[a], enbrak, eztozuelako gura egin Jangoikoaren ministroaren agindua, eta gero erremedijorik eztagoanian gurako dozue konfesorik estaldu dagijen eskandalua? Urrutu, bada, kordela, ezpabere zuen konbersinoa ezta izango egijazkoa, artez zoaze Infernura; eta zuena, gizon libre ta ezkonduak, aberats nai pobriak, zuen berba zikin, promes finjido eta diruagaz famelijako donzella inozente asko galdu ta pekatura bidian isten dozuezana, Jangoiko ondo amadu ta bizitza santu baten biziko litekezan asko Infernura biralduten dozuezalako. Eurak, eztago dudarik pagau biarko dituezala euren pekatuak ain prezijo bil ta bajuan, euren onestidadia, euren joiarik preziosoena saldu ebalako. Baña zuena, gizon pekatarijak, aparteko kastigua izango.

Oi ze doloria gaur mundua[n] jasetan dana! *Et nulus est qui recogitet [in] corde*. Eztago nok fede bizi bategaz sinastu dagijen gauza negargarriju. Bai, Kristinauak. Borondatiak instante baten gurako milla bidar igon zerura eta beste ainbeste bider Jangoikoaren esku astunak ezarriko dau Infernura; gurako dau amadu eta ikusi Jesukristoren humanidade santua, baña ezingo dau; gurako dau egon Birjinaren laguntasunian, ezingo dau; Angeru ta Santuaren aurrian, baña alperrik. Ze pena andijagorik au baño, gura izan gauza bat ain bizi, eta ezin izatia? Gurako da eskapadu tormentu ta Demoninoaren laguntasunetik, presondegia edo kartzela bildurgarriatik; gurako dau azkenian il, baña alperrik, ezingo dau. Berba baten<sup>34</sup>: memoriya, entendimentua, borondatia, gustu-sentidu guztijak egongo dira beti gerra gogor baten, suzko llama gori baten, elementoa[k] kontrarijoak, sua ta ura, lurra ta asia, egon doazana legez, deskansu, konsuelo bage, eta emongo dabe azkenian Jangoikoaren kontra desesperadurik, baña guztija alperrik. O su bildurgarrija! Nor izango da ondo konsideradurik, arriturik geratuko eztana? Non da, bada, gura fedia? Zelan au ezaturik ain prisa andijagaz doaz Infernura? Ea bada,

---

<sup>34</sup> Geuk zuzenduta: *Berbatan > Berba baten*.

Jauna, gefiltu edo amentadugizu gura fedia, biziroago ezautu dagiguzen zura su bildurgarriak, bildur santu onegaz ondo gogoratu dagigun penaren eternidadia pekatarijak igaro biariko dabena.

Egijagaz esan nekike orain biar dodala fedieren grazija inoz baino obeto erakutsiteko pena Infernukoren eternidadia. Santu ta jakintsuak munduaren asjeratik ona esan daben guztija eternidadiaren ganian, apenas elduko da gerizi batera ango penaren luzebiagaz konparadurik. Alperrik, esango deuskue pekatari bat kondenadua<sup>35</sup> izan zanik ona, aitzu zirala arako jauregi edo palazijo andijak bera bizi izan ziranak, euren zimienturen señallerik geratuten ezala; alperrik, berak ikusi zituan ziudade guztijak, erreinu ta inperijo guztijak. Alperrik, igaroko da mundua eta auts biortuko dira bertako ondasun guztijak, baña oneik igaro arren, euren eternidadiaren penak orduan asiko dira. Alperrik, esango deusku kondenaduak milla urterik baten botako baleu negar-anpullu bakar bat, eta Jangoikoak bere probidentzijaz gordeko baleu negar-anpullu bakarra sikatu bagarik, izanik Kain lelengo munduan kondenadu zana, apenas oraindio botako zituan zazpi negar-anpullu. Orregaitik oneik negar-anpulluok denporiagaz elduko litekez, aunke belu, erreka andi bat egitera, milla urtian bein anpullubakaz bat botiagaz, eta emonik aurrera lekua<sup>36</sup>, elduko litekez itsaso andi bat egitera negar-anpulluok; eta denpora geijago emonik, negar-anpulluok elduko litekez uriola andi bat egitera, mundu guztija estaldutera; eta negarrok, aurrera denporia emonik, elduko litekez Zeruetagino eldutera, dakusgun ustasun guztija estaldutera. Goazan aurrerago<sup>37</sup> eta ifini dagiguzen geura<sup>38</sup> gogoan Zerutaginoko beste kontau ezin leizen beste uriola eskerga, bada, au guztijau igarorik bere, kontu egin begi pekatarijak orduan sartu dala, orduan asten dala bere eternidadia, eta ain pena andijak igaroten dituela zein lelengoko sartu zan egunian.

Baña, zer da nik erakutsi gura dodana? Azaldu eternidadia, bada, onetarako itxirik gefu]ra entendimentuko begijak, idigi dagiguzen arimakoak eta fede bizi bategaz entzun daigun Jangoikoak dirauskuna. Entzun ni[k] esan dodana; begira nira obrari, nazino urrunetan bizi zarenok; begira, pekatarijak, dala guztiz zabala pekatarijak dabilten bidia, arri labraduzkoa dala dino Eklesiastikuak<sup>39</sup>, baña euren azkena Infernua, sekulako erijotzia. Nik akabaduko dot zuen deseoa madarikatuakaz, eta

<sup>35</sup> Ostein zuzenduta: *kondenadu* > *kondenaduba*.

<sup>36</sup> Edo, *denporia*?

<sup>37</sup> Ostein zuzenduta: *aurrego* > *aurrerago*.

<sup>38</sup> Idem: *gera* > *geura*.

<sup>39</sup> Albo oharra: *Cap. 21, v. 11*.



egingo dot eztila akabadu zuek erreko zaituzan sua eternidade baten. Posible izango da, Jauna, ain gogor kastigaduko dozula gizona? Bada, Jauna, aunke nazan lurra eta autsa zeura aurrian, ontzat artugizu berba bat egitia zeura aurrian. Nik berba egin dot zura uzengan eta zura Eskritura Santuak konfi[r]metan dabe guztija. Baña daukat bildur andi bat zeura azkeneko sentenzija ikaragarrija emoteko euren kontra; baña da gauza justua, zeu zarena legez, zuri eginiko injuriak pekatarijak pagetia, eta alan zeura ministro nazan partez, esaten dautset: Zoaze, madarika-tuok, eternidade batera Infernura gorpuz-da arima igarotera: Posible izango da, neura Jangoikoa? Murmuradore eskandaloso, desonestu, seme desobediente, guraso exemplo deungakoak, bira[ollari maldizientek, non parauko dira?

Entzun dozue sentenzija arrigarrija Jangoikoarena, bada, begira zer barriro esaten dautsuen: *Quis poterit habitare de vobis [c]um igne deborante?* Nor izango da<sup>40</sup> zuetarik llama gori bizi baten egongo dana? Izango zare lotsaz pekatuak itxita<sup>41</sup> konfesadu baño lenago, eternidade baten an egon gura dozuenak? Bai, zuek duda bage izango zare. Izango dira arako zura Mai Sagradura konzienzija loijagaz eldutera atrebietan diranak? Bai, zuek bere izango zare. Izango dira arako enbra buruarin txori baten ploman euren meritua ifiniten daudienak, euren obligazinoa aizturik nok ikusiko atzera ta aurre[ra] dabilzenak? Bai, one[e]k izango dira. Izango dira inoren gauzia jaubiaren borondatiaren kontra gordetan daudienak? One[e]k guztijok, eta one[e]n modura beste askok, jo[a]n biarko daude<sup>42</sup> leku itzaltsu atara.

Pekatarijek, zer esaten dozue? Zer uste dozue zer dala eternidadia? Zer esaten dozue, galdu gura dozuela? Bada, Jaunaren partez emoniko abisuekaz beragana biortu gura ez<sup>43</sup> badozue, edo betiko galdu gura badozue, itxigidazue negar egin dagidan dolorez beterik nira arimia zuen desgrazijaren ganian. Baña biortu gura badozue, zen begira zagoze? Zegaiti pekatua isten eztozue? Zelan, makurturik Jaunorren oñetara, eztautsezue eskatuten egin dagijala zuekaz miserikordija? [Gurutzea] Ea bada, Jaun Amo[rosoa]...

<sup>40</sup> Ostean zuzenduta: *Nor izan al liteke* > *Nor izango da*.

<sup>41</sup> Jatorrizkoan: *bitxita*.

<sup>42</sup> Ostean zuzenduta: *dau* > *daude*.

<sup>43</sup> Ostean erantsita.

## SERMÓN SEGUNDO DE ÁNIMAS

Viva Jesús

*Sancta et salubris est cogitatio pro defunctis exorare,  
ut a peccatis solvantur.* II Mach. 12, 46

Pentsamentu santo eta osasungarria dala illakgatik orazio egitia, pekatuetatik libratu deitian, esaten digu Makabeo Santuak. Onela itz egin zuan gizon piadoso onek, diru pillo andi bat Jerusalengo Elexara, gerra santu baten il ziran soldaduen animen sufragiorako, biraldu zuan okasio baten. Iarraiturik, bada, nik gaurko egunian gizon santo onen exenploari, esan biar dizuet txit atsegin andiko gauza dala purgatoriooko anima gaixoen sufragiorako orazioa egitia. Au da ere Elexa Ama Santak erakutsitzen diguna, asi bere aurrenengo egunetatik eta orain artian, fedeko egitzat siñastu eta konfesatzen degula. Eta alde batetik, benturaz askori uste izen arren purgatorioaren izatian ganian ezer esatia, zeren guztiok fedeko egi onen ganian ondo zimendaturik eza[r]tzen zaituezan, orregatik beste aldetik, ikusirik denpora onetan egi santo onen kontra-ko doktrinak zabaldu dituela gizon Jangoiko bageko asko[k], Kristao on askoren sentimentuz, esan biar dizuet, illagatik orazio egiteko kostunbre au beti Ama Elexa Santuak euki duala, bere aurrenengo egunetatik eta orain artian.

Argitu nai balitue, bada, gizon Jangoiko bagekoak beren begia[k] Eskritura Santuak erakutsitzen digunera, ikusiko luke, beste profeta askoren artian, Isaias Santoak esaten digula, garbituko dituala Jangoiko-ak Siongo alabaren mantxak suzko espirituaren berotasunagaz. *Ablue[ri]t Dominum sordes filiarum Sion, in spiritu ardoris, in spiritu incendis; in spiritu combustionis.* Eta oni deitzen diogu purgatorioa. Alperrik, bada, Kalbino, Lutero eta aren gaurko dizipuloak<sup>1</sup> fedeko egi santo onen kontra. Eta zer? Nori siñastu biar diogu? Munduen asieratik Abel justoagandik eta orain artian Lege guztietako Santoak esan eta erakutsiko doktrinari, ala Kalbino, Lutero lotsagarritzko pekatuetan mundua igaro eta pekatuan il ziranai? Nor, bada, Hereju ez danik, onen kontra

---

<sup>1</sup> Geuk zuzenduta: *dizipuluoak* > *dizipuloak*.

ezer esatera atrebiduko da? Jangoikoak esaten digu, edozeinbere gauza bere adiskidarik txikienagatik egiten deguna beragaitik egiten degula. Eta izanik purgatorioko animak Jangoikoen adiskide maitiak, zer atsegin andia, gozo gauzarik orazio, limosna eta sufragioakin enpeñatzia baño, arren, anbat lasterren presondegi artatik libratuak izan deitien?

Zer gauza oker ikustsen debe gure etsaiak onetan, gure kontra añ gorrotoz beterik itz egiteko? Ez da Jangoikoen atsegin andiko gauza presoak bisitatzia? Ez da obra miserikordiazkoa tri[s]tiak konsolatzia? Eta zer gauza tristiagorik purgatorioko animak baño? Ez digu Jesukristok esaten aien konsueloan berak konsueloa artzen duala? Miserikordiazko obra oek ez dira Juizioko egunian gure betiko suertia zorioneko egin biar debenak? Baña zertako nekutzen naiz, onén<sup>2</sup> alegin guztia ezpada besterik, nondik Kristao askoren gogotik kenduko pekatutik atera biar gaituen gauzak? Eriotza, Infernua, Purgatorioa, Eternidadia, Juizioa. Onela, eurak itsu izan eta besteren itsu aurreko jarririk, guztiak Infernuko pozura erortzeko. Au ikusi eta aditu dezue, biarbada, gaur emen zauden askok; baña esker milla Jangoikoari, ekarri gaituelako Jaunaren egiak libertade santo batekin predikatzeke. Orregatik bada, sermoe onen geia izango da aditzen ematia anima santoi purgatorioko presondegi[a]n ematen dien penarik andiena dala, Jaunari dioen amodioa dala medio, aren arpegia ikusi nai eta ezin ikusiak, eta emen munduan utzi zituen aztuera eta eskergeztoak. Lagunadazue onetarako biar dedan grazia eskatzera, arturik bitarteko Angeruen Erregiña: Abe Maria.

Egiaz andiak dira anima santuak purgatorioan Jangoikoaren justiziarren mendian igarotzen dituen penak; baña orandik beren pena lenez ganera geien azitzen debena da Jangoikoari dioen amodioa eta emen munduan itxi zituen senide eta adiskidiaren aitzuera, eta eskergeztokeria. Bai, K(ristao)ak. Arako anima santuak Jangoikoari dioen amodio, arako anbat lasterren bere arpegi ederra ikusi nai eta ezin ikusia da pena bat gure entendimentuak ezin ezautu eta gure miñak gitxiago erakutsi al leijena. Andia izan zan Dabid[en] seme Absalonen pena, bere aitak bere arpegia ez ikustserako desterratu zuanian artu zuana, eta anbesterañokoa eze<sup>3</sup>, ezin sufriturik anbeste denporan aitaren arpegia ikusi bage egotia, etorri zan enpeñatzera Joab bere lenkusu eta aitaren jenerali[a]kin, esaten ziola: Zoade nere aitagana, eta esanzaiozu aitari nire pekatuak bere arpe[gi]ja ikustserik merezi ez badu, ni iltzeko agindu dezala; bada, pena geiago ematen dit<sup>4</sup> bizirik aitaren arpegia ikusi bage

<sup>2</sup> Horrela, tilde eta guzti.

<sup>3</sup> Idem.

<sup>4</sup> Osteen erantsita.

egon biar izatiak, bizitzau galtziak baño. Anbestekoa zan bere pena. Eta seme gezto desobediente bati anbeste pena ematen bazion aita lurekoen arpegia ikusi bage egon biar izatiak, nolakoa ez die [e]mango anima purgatoriokoai Aita Zerukoen arpegia ikusi bage egon biar izatiak? Ondo ezautzen debe berak egunen baten ikus[i]lko debela baño ez orduau noix izango dan jakinik, esperantza bizi eta deseo andiau dira arentzako ezpata bizi bat penatzen dituen. Eta arako Israeldarrak Babilonian kautibo zeudenian, beren lanetatik libratzen zituen bakotxian joan oi ziran bezela ibai-bazterretara, ango ur-korronteren soñuakin beren biotzak urraturik negar obetuago egiteko, gogora ekarririk arako beren uri eder Jerusalengoa, nondik desterratuak zeuden, pena geiago ematen zioela beren erriaren esperantza eta ikusi naijak, ango agintari guztien gogortasun, grillu ta kati guztiak; ala, anima santuak ain biziro ekarririk bere gogora Zeruko uri eder Jerusalem egiazkoa, nondik<sup>5</sup> desterraturik dauden, one[e]k ematen dieoe aparteko pena andi bat, ango suak baño milla bidar martirio andiago bat ematen dioena, obetuago esan dezakela Israeltarrak baño, arako sentimentuzko itzak ibai-bazterretan negarrez jarririk esan oi zituenak. *Super flumina Babilonis, il[l]ic sedimus, cum recordaremur tui Jerusalem.*

Eta egiaz, zer du zerikusi Israelgo erriak kautibo zeuaneko pena eta nekiak, anima santoak purgatorioko kalobozo usteletan sarturik, Jaunaren justizia arrigarriak bere esku poderoso eta astunakin modu miragarri baten padezierazotzen dizten penarekin? Anima gaixoak il ziranian, Gloriako bidian bide egitera asi ziran; eta orra, noiz zorionez beterikako erri onetan sartzia uste izan zeben, atiak itxita<sup>6</sup> aurkitu ziran, gelditzen zirala Zeruko erri nobletik kanpora, purgatorioko presondegian Jaunaren justiziak kartzela ilun artan prestatuko suzko espirituaren<sup>7</sup> gar biziakin garbitu zitezen beren pekatuen mantxa guztiak, zeren ezingo dan uri eder garbi artan sartu eguzkiak bezela argi egiten ez deben animarik. Bai, K(ristao)ak. Ija sartzeko zorian zeuden, eta ango atetan, orra non paratu zuan bere borondate santuzko muralla gogor aurrera sartzen utxitzen ez zioen bat. Eta emen zenbat urrago dauden, anbat eta penagorekin dira atormentatuak. O zein martirio andia anbeste tormentoren erdian egon biarra, laster zorioneko izateko esperantzaz beterik eta zorionau noix ikusiko duen ordua jakin bagarik!

Penau egiaz andia da, eta nire zenzun laburrak ezautu eta mingañak erakutsi aldezakian baño andiagoa. Ordea, onezaz gañera martirio berri

<sup>5</sup> Ostein zuzenduta: *non* > *nondik*.

<sup>6</sup> Geuk zuzenduta: *uitxita* > *itxita*.

<sup>7</sup> Ostein zuzenduta: *espiritua* > *espirituaren*.

bat ematen die emen munduan utxi zituen anbeste seme-alaba, señide eta adiskidaren aztuera eta eskergeztokeriak, ikusirik anbeste penaren erdian ez debelako arduraren apurrik artzen karzela artatik libratzeko. Karidadiaren birtutiak, zeñ dan birtute guztien anima, agintzen badigu gure irudiko guztiak maite izateko beren neke eta penetan parte arturik, nola ez gaitu obligatzen aiek sokorritzera, ikusirik an daudenak dirala gure guraso, senide eta adiskidiak, gu azitzen, doktrinatzan eta al zebe on guztia egiten lagundu ziguela? Bai, K(ristao)ak. Presondegia artan daudenak dire orañdik atsegin<sup>8</sup> artzen zebeak gure konbinientzietan, bere netan baño. Berak ziguen amodioak emen gurekin zeudenian, ez zioen sosegatzen izten gu ikusi bage egoteko; gu mantel[nt]zeko anbeste neke eta izardian erdien igaroten zebe eguna, eta bakarrik beren besartian artuakin laztan gozuak emateko, beren nekiak azturik eta kontentuz beterik gelditzen ziran. An daudenak dira arako guraso maite gu ondasunez betetzarren, etxe zabal, soro eder eta mendi-baso galantak guri istiarren anbeste izardi eta arrastaka egin zebeak; arako bein baño geia gotan aien animakin ez aitzeko esan ziguenak, eta esakuntze santook, ezin biotza urratu bage aditurik, negar egitera, deskantsatuko bagiñan, bazter baten sartzera obligatzen ginduenak. O guraso tristiak! O anima bedeinkatuak!

Eta zeñ arrazoe andiakin esaten diguzuen sentimentoz beterik penazko leku orretatik: *Quare persequimini me sicut Deus et carnibus meis[s] saturamini?* Nola gure kontra orrela gogortu zerate, guk utxirikako ondasunakin atsegin ez beterik mantentzen zeratela? Zer gaitx egin dizugute, anbeste urtian penaren erdian, emendik libratzeko ardura bage bizi izateko? Bai, ene semia; arako zure aite maite anbeste konseju santo eman zizunak, arako eriotza aurrian beregana deiturik testamentoko<sup>9</sup> aginduak ondo kunplitzeko anbeste enkargu eman zizunak, eta zuk biotza urraturik eta begiak negarrezko iturri eginik baietz erantzun ziñuenak, alaxe esaten dizu purgatorioko tormentoaren erditik. Onelaxe zuri ere, alaba, arako ama gozo dote-arrio andiak, zerekin mundua ondo pasa izan zinaien, utxi zizunak. Onela il zan zure gurasoa, esaten zizula: Agur, agur nere semia, agur nire alaba, ez arren nitzaz aztu. Nolako negarrak ordukoak zuriak! Zer promes andiak aren sufragiorako! Baña, zer egin zan zure negar eta promesak? Zein lastima andia zuria! Laster aztu ziñan, zuri utxiko ondasunetan itsuturik eta promes guztiak azturik. Onelako promesetan ez anbeste fiatzeko, eta

<sup>8</sup> Geuk zuzenduta: *atse egin* > *atsegin*.

<sup>9</sup> Ostean zuzenduta: *testamento* > *testamentoko*.

testamento azken borondatietan prudentiangoak izateko, Eskritura Santuak ematen digu exenplo eder bat Jakob Patriarka Santo eta bere seme on Jose Santuen artian.

Etorri zitzaion Jakob Santoari bere illordua, eta ill aurrian deiturik bere Seme Joseri, esan zion: Eldu nik mundu onetatik beste erri ezezaunera joan biarreko eguna; nere borondatia da ez enterratia emen Egipton, ezpada arako nire aurrekoak enterratuta dauden sepulturara. Antxe nai det deskantsatu dezeen nire ezurrak. Orregatik bada, ene semia, zure begietan graziaz badet, nai det zuk ardurau artzia. Guztia negaturik erantzun zion ondo zegoala. Baña orregatik ere, zar bedeinkatua bere semiaren baiezkokin ez orandik deskantsu biar bezelakorik, esan zion: Berriz juramento egindazu alaxen egingo dezula. *Jura ergo michi*. Aita onen pretentsiora nonbait Josek, santua bazan ere, erantzungo zion: Ondo izango da, Jauna, izanik ni seme guztien artien zugatik geien egin dedana, orain nire esanera siñastu ez ta juramentoa eskatutzia, deskonfientza ori niri erakutsitzia.

Baña alperrik; aita santuak bere juramentoari jarraitzen zion, esaten ziola semiari: Egia da, nere seme ona, nere denpora guztian zugandik atsegin andiak baño beste gauzarik artu ez dedala; baño, zer nai dezu, nere semia, nire biotza bestela sosegatzen ez bada? Orregatik etzaitez, nere seme maitia, aserratu. Eta juramentu egidazu. Seme askok aztu daroez gurasoen aginduak, onak dirala uste izan arren, eta onek obligatzen n[al]u zuri juramento eskatzera. *Jura*. Ene semia, sentimentuak alde batera botarik gustuau egin biar didazu. *Jura*. O zeñ doktrina andia Patriarka Santo onena! O zenbat semek, ez bakarrik baiezkokin emanik, baizikan ere juramentoz obligaturik, urte luzeetan eta biarbada bizi guztian kunp[ll]itu bage bizi diran! Orregatik, gauzarik onena al debentzako, besteren mendian gelditu bage emen egitia. Obetuago urtengo dozu purgatorioan sartu ezeitiaz, obra onen birtutez an sartu ta, bestek andik ateratzeko mendian geldituaz baño. Ea bada, noizbait bigundu gaitian aren karidadian, egin dezagun gaurrik<sup>10</sup> aurrera alegina purgatorioko animentzat karidadia egiteko. Eta zuek, anima gaisoak, poztu zaitzeze, bada, gaur emen batu diran orazio eta sufragioakin kitaturik Jaunaren zor guztiak, ausirik orko katiak sartuko zerate betiko Gloria[n]. Amen.

---

<sup>10</sup> Idem: *gaurri* > *gaurrik*.

## SERMÓN DEL DULCÍSIMO NOMBRE DE MARÍA

*Donavit illi nomen, quod est super omne nomen.*

Phil. 2, 9

Uzen santu batzuk dagoz ain andijak ze, alperrik kansauko dira gizonak erakutsi edo espliketari euren propietade, erendenzia eta prerrogatiba andijak, bada, ezta kapaz gizonaren jakiturija adierozoteko eurari datorkijoezan anditasunak. Dagoz, noa barrero esatera, ain uzen sagra-du eta erreberentzia andijagaz esan biar dirianak ze, inoz esan biar doguzenian, bijotza Jaunari altzau bagarik ezin esan ginaizenak. Onelan izen zan Antxinako Legian Jaungoikoaren Uzen Santua, zein bakarrik Aita Santuak bere buruan urragorritzko plantxa baten ifini edo eskribidurik erabiliten eben, jakin leijen zelako errespetoagaz esan biar zan, bada, uzen onetan egozan sarturik euren erlijio santuko misteriorik geijenak. Onelakoak dira, neura K.M., grazijazko Lege Barrijan Jesus ta Marija Santis[il]miarenak. Errez esan ginaike uzen santu bijok diriala gura erlijio santuko milagrorik andijenak, bada, ezautu albaginaiz oneitan sartuten dirian misterio andijak, jakin edo ezautuko geunduz Ebanjelio Santuan sartu edo kontenietan dirian doktrinarik andijenak. Jesusen Uzen Santua, zein dan uzen guztijetarik andijena, ain da majestade andikoa ze, Zeru, Lur ta Infernuginaioak lurreraio makurturik adoretan dabe uzen miragarriau. Onen urrengokoa da Marija Santisimiaren Uzen Santua, zein J[es]usena apartau ezkeri eztago uzen andijalgorik ta gozoagorik, eta bai bere probetxu andijagorik Zeru ta Lurrian Marija guztiz santieta baño, nondi arima piadosoak euren estutasun espiritual ta korporaletan aurkituten dituezan dei eginik bijotzeko debozino andijagaz.

Bai, Kristinauak; gau[r] zelebretan dogu bijotzeko alegria andi bategaz Jangoiko eta bere Ama maitiagana konsagretan gariala arako egun ditxosoaren memoria, egun konsoladoria irallen amabigarrena gura Salbadorien jaijetzarik 1683garren urtian azertau zana, zeinetan Kristinauren exerzituak arkanzau eban bitorija konpleto bat Turkuen exerzituaganik Marija Birjiniaren anparuen azpijan. Soberbijaz beterik exerzitu Turkuak, Alemaniako armen kontra euki zituen aziertu faborabliakaz, formau eben plan soberbijo bat euren konkistak luzetu ta amentetako ustijagaz, Danubio ta Ringo erreka erriberak baño aurrenago amenazeta[n] eudiela Kristiandade guztija; ta pasaurik Ungriako erreinuti

berreun milla soldadu konbatiente<sup>1</sup> edo gerrerugaz, zerkau eben Viena-ko korte inperiala. Andija izen zan bertako abitadore ta bez[no]aren bildurra, zein laster zabaldu zan Kristiandade guztitik, ikusirik ain peligru andijan Erreinu Katolikuaren lekurik fuertiena. Andijak zirian estatusun onetan Kristinauak Zeruari egiten eutsezan boto, suplika ta oraziñoak: arren, sokorridu leijala estatusun atan. Sazerdote, religioso, errege ta basalloak egiten zituezan suplikak andijak<sup>2</sup> exerzitu guztijaren Jaunari, bitorija guztijen Jangoikoak permit[id]lu ze leijan jaustia Kristinau guztijaren fortalezia<sup>3</sup> fiera enemigoen eskuetan.

Eta Jangoikoak artzen dabena legez olgura andija bere sierbo humilidiaren oraziño ta supliketan, espezialidadez ifinten badaude bitarteko ta enpeñu bere Ama onek ifini ebena legez, arkanzau eutsen bitorija, ta ain andi ta glorijoso, zein inoz eztan arkanzau andijagorik ta Kristinauai odol gitxiago kostatzen jakenik. Irallen<sup>4</sup> amabigarrenian, eldurik<sup>5</sup> Poloniako Erregia bestuerio on bategaz, ent[z]unik lenengo sakrifizio santuko mezia ta komulgadurik jeneral bijak lenengo deboziño andi bategaz, arturik euren defensore ta anparutza[t] Birjina miragarri Jangoikoaren Ama presentau zirian Turkuen exerzituaren aurrera. Asirik lenengo<sup>6</sup> eurek atake furijoso bat derrotatu eben Turkuen exerzitu guztija, eun milla ta geijago ilten zituezala, euren ekipaje, muniziño, artelerija, zeintzuek igoten eben eunde larogeigaz<sup>7</sup> kañoagino, guztijak bertan itxiten zituezala; berba baten<sup>8</sup>, galduten zituezala estandarerik prinzipalginokoak, zeintzuek biraldu zirian Erromara Aita Santo Inozenzio Amaikagarrenagana, zeinek gobernetan S(a)n Pedroen Elexia, zeinek lelengo ondo informadurik zor eutsela bitorijau Marija Birjiniaren bitarteko edo enpeñuari, agindu eban zelebra zitela Marija Santisimiaren Uzen Santuen fiesta, zein lenago probinzija askotan egoan sarturik kostunbre santuau, festibidade onetarako señaletan ebala Marija Birjiniaren jaijetzarik urrengo domekia. Au<sup>9</sup> da, neura enzulak, gaur zelebretan dogun egun andi ta ditxosoaren motibu justua. O<sup>10</sup> zeñ justo, tierno, dulce ta konsueloz

<sup>1</sup> Ostein zuzenduta: *konbatientegaz* > *konbatiente*.

<sup>2</sup> Ostein ezabatuta: *andijak zirian por zierto* > *andijak*.

<sup>3</sup> Geuk zuzenduta: *permit[id]lu ze leijen jaustia Kristinau guztijaren fortalezia jausi leiten* > *permit[id]lu ze leijen jaustia Kristinau guztijaren fortalezia*.

<sup>4</sup> Jatorrizkoan: *Hirallen*.

<sup>5</sup> Ostein zuzenduta: *eldu zan* > *eldurik*.

<sup>6</sup> Idem: *lenen* > *lenengo*.

<sup>7</sup> Geuk zuzenduta: *laregeiguz* > *larogeigaz*.

<sup>8</sup> Idem: *berbaten* > *berba baten*.

<sup>9</sup> Jatorrizkoan: *Hau*.

<sup>10</sup> Ostein erantsita.



beterikoa! Marija, o uzen santu ta beneragarrija! Uzen onegaitik esan ginaike proporzioz beste denpora baten S(a)n Pablok Jesusen Uzen Santuagaitik esaten ebena: *Nomen quod est super omne nomen*. Uzen andi, uzen errespetable, Zerurik biralduko uzena beste uzenen artian andijena, ta generazino guztijak benerau ta zelebrazuko debena.

Baña, nor izango da kapaz uzen santu onetan sartuten dirian anditasun guztijak espliketako? Nor, Angeruaren miñagaz berba egin albalei, izango da kapaz espliketako uzen santu onetan sartuten dirian pribilegijo andi, e[s]zelenzija ta<sup>11</sup> prerrogatiba partikularrak? S(a)n Gabriel Angeruak Enkarnazinoko Misterijo Santuaren enbajadiagaz etorri jakonian Birjina miragarrijoni, ez eben saludau bere uzengaz, ezpada *Ave, gracia plena*, Jangoikoak salbau zaizala, grazijaz betia, nira San Bernardino glorijosoak dinoiena legez. Ta bakizue zegatik? S(a)n Gabriele bere isiltasunagaz gura ebelako benerau Marijaren uzen soberanua, zein ezpanakaz ezin zuentadu eben izen<sup>12</sup> oni datorrijon errespeto andija dala medijo. Da Angeruak berbak faltetan bajakez eta ezin aurkitu bada-be uzen santuau biar dan errespetoagaz espliketako, zer egingo dabe gizonak, zeintzuek euren torpedadia dala medijo apenas dakije berbaz? Eta nik, berba ta konzeptoetan miserablionez, zer egingot? Berba egingot Angeruaren jakiturija espliketako asko eztan asunto baten? Edo isilduko naz benzidurik, asunto onetan arkituten dodazan difikultadiakaz?

Ez, joango naz neura Ama Birjina ederragana, da<sup>13</sup> eskatuko dauset emon dagijela<sup>14</sup> espiritu da birtutia nira berbai, tenplo santu onetara etorri dirian Birjina miragarrijonen debotoai bere Uzen Santuaren glorijaren ganian<sup>15</sup>, jakin daigun onik aurre zelan gorderik egongo garian bere Uzen Santuaren gerexiaren azpian, bere gloriya geijagorako eta arimen probetxu espiritualerako. Grazijau eskatuten dautsut onetara obligetan zaitudala Angeruaren berbakaz: Abe Maria.

*Dedit illi nomen, quod est super omne nomen.*

Arako uzen altu, andi ta ponposoak ainbeste mundutarrak estimetan dituezanak, eta zeintzuekaz<sup>16</sup> banidadia ta soberbilja] sostenietan dau-dienak, ondo aiturik fede eta errazoiaren argijagaz, munduko banidadiaren gerixa batzuk baño eztira. Ezta onelakoa Marija Birjiniaren Uzen

<sup>11</sup> Idem.

<sup>12</sup> Alternantzia: *uzen / izen*.

<sup>13</sup> Osteen erantsita.

<sup>14</sup> Osteen zuzenduta: *dagijola > dagijela*.

<sup>15</sup> Ez ote du zer edo zer falta?

<sup>16</sup> Osteen aldatuta: *eurakgaz > zeintzuekaz*.

Santua Uzen Santua beti geratuten da fiel Kristinauren bijotzetan milla ta zortziraungarren urtian, eta geratuko siglu guztija igaro artian, izen beneragarriau lelengoko egunian geratu zan lezko errespeto andijagaz. Izen alde guztijetati miragarrije, Zerutik jatsija eta Jangoikoak bera gura Erregiña andija ifinija. Izen Elexako Padrinuen artien beste egillarik ezaututen eztabena Aita Eternua baño, bada, Santa Ana glorijosiak ifini eutsen Jangoikoaren Ama oneri Aingeruare[n] inspiraziñoez. Izen ain andi ta miragarrije ze, gaur kantau dan ebanjelijoak berba gitxi adierozoten dau beragaitik esa[n] aleijen guztija esanagaz: *Et nomen Virginis Mariae*. Eta Eskritura Sagradiak sartu zituzana legez Jangoikoaren semia-gaitik esan al[elizen gauza guztijak esanagaz, eretxola Jesus, alan Jangoikoaren Amagaitik esan aleizen e[s]zelenzija guztijak dagoz esanik, deretxola Maria. Zer izango litike gu Adanen seme desterraduokaz, ezpagauka Birjina miragarriau! Ze andijak izango litikez, nira Jangoiko ona, Adanen semiak batuko gendukezan odoi astun ta ilunak! Noz mundutararak egozan geien entregadurik idolo edo guzurrazko jangoikoaren irudijai kultu ta benerazinoa emotera, agertu zan Marija goxaldeko izerra legez, kendu edo galdutera gizonaren errore edo iluntasunak, eta emotera grazijaren egun argija. Jaijoten da Birjina ederrau, eta bere jaijekerriagaz poztuten dituz gizonak, poztuten dituz Aingerubak, eta alegrija ta olguraz betetan dituz generazino guztijak. Guztijak batuten dira ikustera Jaunak Lurrian egin dituzen mirarijak<sup>17</sup>. Zeru-Luur, gizon-da Aingerubak arrituta geratuten dira ikusirik Jaunak munduari ekarri dautsazan ondasunak. Jaijoten da Birjina ederrau, eta jaijetza onegaz kenduten dau pekatuaren gau iluna eta dakarrijo gizonari grazijaren egun argija. Ikusten da Jakoboen izar ederrau munduan eta egiten dituz bakiak Jangoiko ta gizonen artian. Asten dira idigiten ainbat milla urtian zarraturik egozan Zeruko<sup>18</sup> atiak eta kenduten ara igoitia galazoten eben enbarazu guztijak. Urrututen da gizonare[n] kontra eskribidurik egoan erijotzako eskrituria eta bere orde z moten jako betiko bizitzia<sup>19</sup>. Nok, bada, Ange-ruare[n] miñagaz berba egin albalei bere Marija Birjiniaren anditasunak? Munduko nazino ebanjelijoaren doktrina santuagaz argitu zarienok, etzenduan zubek ikusi au<sup>20</sup> argi miragarriau? Eta nogaitik uste dezue etorri jatzuela zorionau? Marija Birjiniagaitik, zein izenik Birjina mantxabagia jaijekeran, da jaijo ezkeru, emon euskun justezijako eguzkija, zei-

<sup>17</sup> Geuk zuzenduta: *Guztijak batuten dira ikustera Jaunak Lurrian egin dituzen mirarijak ikustera > Guztijak batuten dira ikustera Jaunak Lurrian egin dituzen mirarijak.*

<sup>18</sup> Ostein erantsita.

<sup>19</sup> Ostein aldatuta: *grazi[a] > betiko bizitzia.*

<sup>20</sup> Ikus 9. oharra.

ñek kendurik maldezinoia emon euskun bendezinoia, eta desterradurik erijotzia ekarri euskun betiko biz[ilt]z[ia].

Marija, dino S(a)n Bernardok, da arako izer ederra<sup>21</sup> mundu guztija argitasunez jantzi eta bañetan dabena, noren klaridadiak igoten dau Zerubetagiño eta, penetraurik abismo edo iluntasunak, erre edo urtuten dituz bijotzak Jaunaren amudijoan. Munduonetan gagozan artian, Kristinauak gabiltz itsaso peligrasoko tormenta andijetan, bere bolieda andijak sarri askotan izbazerreko atxetara botaten gaituezala, no[n] peligratan daben gura bizitza espirituala sarri askotan. Eztaiguzen, bada, apartadu edo kendu geura begija[k] izar eder onetarik, galduak izen zein gaitez. Tentazinoko asiak persegietan[n] badautsu, eta bazoaz galdutera munduko tribulaziño eta estutasunakaz, altzaugizuz izar eder oni. *Respice stell[am] voca Mariam*. Soberbija ta arrotasunaren subak erretan bazatu, munduko ondasunaren enbidija edo gurarijak zura bijotza kiskeldutera badaroa, izar eder oni aitu egijozu. *Respice estell[am] voca Mariam*. Zeura pekatu andijaren memorijak bildurtuten bazatu, zura pekatuaren grabeda[dia] eta numeruak zura konzienzija ikaturik badauke, Jangoikoaren Juizijo ikaragarrizkoan memoria edo akorduak zura bijotza desmaiju ta desesperaziñora eroan gura badabe, aitugijozu izar eder oneri. *Respice estell[am] voca Mariam*. Bizitza onetako peligro guztijetan, mundu onetako estropezu guztijetan, pensaugizu Marijagan, joan zaitez beragana, eta ziertutzat eukigizu beragandik begijak apartetan ezpadozuz, bere gerixiaren azpijan gordeta egon gura badozu, bildurrik zetan euki eztozu[la]. Zorijoneko esperenzija batek irakatsiko dautsu errezoa andijagaz datorkijola Marijaren<sup>22</sup> uzen ederrau, da esatia dala miserikordijosia; itsasoko izarra, Elexiak kantetan dabena legez, eta gau ilunian argi egiten daben zuzi ederra edo suzko kolumnia munduko iluntasun onetan argi egi[ngo] deuskuna, arteztu daiguzen Zeruko [bil]diak.

Baña ze doloria, Kristinauak, eta ze sentimentua eztau erakutsi biar arima fiel guztijak, ikusirik mundurik geijena[k] gurago dabela pekatu ta desordenantziaren iluntasuna, izar eder onen argitasuna baño! *Dilixerunt[t] homines magis tenebras quam lucem*, diño S(a)n Juanek. Mundu guztija dago ain estadu negargarrizkoan, pekatuaren egikerako ke astun eta itzalt[s]uak baño botaten eztituela. Bertan dakusguna ezta bestez gauzarik pekatu, iluntasun, aragi eta soberbija baño. Desonestidade, anbiziño, enbidija eta alkarren ikusiezin edo gorrotua apoderadu dira munduko Kristinauaren parte andi bategaz. Askok eztauke beste jangoikorik

<sup>21</sup> Ostean ezabatuta: *arako izer ederra zeinek > arako izer ederra*.

<sup>22</sup> Ostean erantsita.

interesa baño, eztautse ardua asko badakardeze, arimako galtzeijegaz izen arren; esan lei eurakgaitik eztiriala munduan bizi pekatu egiteko ezpada. Baña, pekatarijak, noz artian atzera egongo zaree pekatu rik urten da Jangoikoagana biortuteko? Zegaitik gurago dozue bizi sarturik pekatuaren sepulturetan, betiko galdutako peligro ikeragarritz[k]loan? Alabadugizue Birjina Marijen izen miragarrija, dei egijozue bijotzeko debozino egijazko bategaz, eta argituko dira zuen entendimentuak Zeruko argijagaz, bada, Bera da munduko iluntasunak kenduten dituzan eguzki ederra, S(a)n Ildefonsok dirauskuna legez. O Marijaren izen andi, dulce ta miragarrija, ezin dei egin leijona dei egiten dauksen arimeko probetxu<sup>23</sup> bagarik<sup>24</sup>! Debozino ta konfianziagaz dei egiten badautsezue, eztautso lekurik emongo bildurrari zura erijotzako orduan. Ain da birtute andikoa Marija Birjiniaren uzena ze, Zeruak alabetan dabe, mundua alegrijaz betetan da, Aingeruak pozez betetan dira, argal da gexoak osatu, itsuak argitu, eta en fin, pekatarijen bijotz gogorrek bigundu.

Orregaitik, gura erlijino santu-santuko lenengotik fiel Kristinauak ez eben apartetan Jesusen Uzen Santua Marija Birjiniarena<sup>25</sup>, eta ez eben esaten bata bestia bagarik, ondo ezauturik izen santu oneitan aurkituten zituezan ondasunak. Eta au<sup>26</sup> da bere gaurko egunian Kristinau debotoaren kostunbra<sup>27</sup> santua, non aurkituten dituezan munduan mesediak eta erijotzako orduan esperanza miragarrijak. Zeruko atiak izen santu one[el]tara idigiten dira, Noeen argia idigi jakona legez uso ederrari arka onen aurrera presentau zanian erinotzen orriagaz. Baña, Kristinauak, ondo jakinda zagoze: gura badozue euki erijotzako orduan zuen aoan, euki biar dozue orainganik zuen bijotzian kostunbra santuau, gaurganik asten dozuela eta onetarako bizitza on bat arzen dozuela, jagoten dozuela Jangoikoaren Lege Santua.

Orregaitik, errez bildur izango dira arako pekatari euren bizijo eta ekandu deungetan sarturik dagozanak, eztautsela balijoko euren akaberengo orduan uzten sagraduoi dei egiten badautse bere, gura eztabelako izen aprobetxadu, denpori[a] euki daudenian. Bai, Katolikuek, bildurta ta arritu zaiteze, bada, ezpazaree bizi biar dan moduan, gordetan ezpadozuez Jaunaren mandamintuak, eta bakotxak bere estaduko obligazinoiak, eta gurasoak euren famelija, ta otsainenak, noren kitudadu faltiaz gaz ainbeste pekatu ta eskandalu eregiten dan, eztautsue, ez, ezer ser-

<sup>23</sup> Geuk zuzenduta: *prubetxu* > *probetxu*.

<sup>24</sup> Ostein erantsita: *arimeko probetxu bagarik* > *dei egiten dauksen arimeko probetxu bagarik*.

<sup>25</sup> Ostein ezabatuta: *Marija Birjiniarena bagarik* > *Marija Birjiniarena*.

<sup>26</sup> Jatorrizkoan: *bau*.

<sup>27</sup> Alternantzia: *kostunbre* / *kostunbra*.

biduko Jesus da Marija Santisimiaren uzanak; bada, Jesus eta Marijak etzituezan ifini euren uzan santuetan ain indar andijak, euren obligaziorik kunplidu baga eurakaz balijo gura daudientzat. Ez, Kristinauak, eta biarbada ezingo dozuez azertadu ordu estuatan.

Zelan, bada, azertauko dituz Jesus da Marija Santisimiaren uzanak arako persona laszibo ta desonestuek, euren bizitzia ezpada izen pekatu kontinuada bat baño, euren pensamentu, berba eta egikera edo aizin loijetan loituten dabela eurakaz zapalduten daben luurra eta eskandalizadu mundua? Zelako bizitzia, alako erijotza. *Sicut vita, finis ita*. Bildur izaiteko maldizientia ez titen il maldeziñoka, Demoninoari deika, desonestua bere berba desonestuetan eta torpietan, bengatibo, auzilari eta enbidijoso berba edo espresino pikantietan, eta beste pekatarijek enredauta dagozan pekatuzko katietan, azertau leiteke, benturaz, onelakoak esatia erijotzako orduan Jesus da Marijaren izen santuak, baña ain oztasun andijagaz eta indiferenzija andijagaz, beregaz benturaz euren kondenziñoko errezero bildurgarri bat isten dabela.

*Yntel[ligite hęc qui obliviscimini Deum*. Begiratugijozue ondo egi ikaragarri joni, Jangoiko bildur baga bizi zarienak. Nozbait itxigijozue obra edo egikera deungai. Ikasigizue obra onak egitera, egizuez bakiak Jangoikoagaz; zuen obra onak esan begije [b]eneretan dozuela zuen bijotzian, berbakaz esaten dozuen Marija Santiaren izen [be]neragarrija. Bada, Marijak esan gura dau esperanza firmia eta Erregiña (...)n erreinetan dabena. Bai, Katolikuek.

Inori bere ez, Berorri baño obeto ez datorkijo Birjiña soberana andija, Erregiña ta gura Señora eta anparuen<sup>28</sup> titulu andija, bada, Jangoikoaren Amaren kalidadian, ez bakarrik sujetau zan berorrigana mundu guztija, baita bere mundu guztijaren Jaubiak prestau eutsun obedienzija. Eta, neura enzulak, posible izengo da guzurtauoko dogula<sup>29</sup> obrakaz geura ezpanakaz konfesetan doguna? Esan ginaike Marija dala gura Erregina, Jangoikoaganik ifinija, ezpado[gu] gura bizi bere obedientzijaren bian? Esan ginaike Marija dala Señora Erregiña andija arako pekatari euren guraz pekatuen okasiñoen sartute dagozanena, euren proximuaren kontra bijotza injuriaz beterik daukeenena, inoen aziendia jaubien borondatiaren kontra gordetan dabena, egija enbro-lau, okultau ta bere enredoakaz desfiguretan dabena? Jaunak permitidu eztaijela. Orrelan bizi bazaree, zetarako esango dozue Marija dala zuen Señora ta Abogada? Ze probetxu atarako dozue bere izen santua

<sup>28</sup> Ostein aldatuta: *Soberaniaren > gura Señora eta anparuen*.

<sup>29</sup> Ostein zuzenduta: *doguzela > dogula*.

ezpanakaz bakarrik esanagaz? Bildur izen zaitekeze esan eztaizun bere Semiak erri ingrato bateri esan eutsena, aunke kanpotik debotua: *Populus hic labiis me honorat cor autem ejus longe a me est*. Errijonek ezpanakaz<sup>30</sup> honretan nau, baña bere bijotza urrin dago nigandik. Kristinauak, eztaijogun emon lekurik ain reprensino eta amenaza ikaragarritzkoari, ezpada izanik humilde, deboto, kasto eta karitatiboak, izango da guratzat izer ederra munduko iluntasunian argi egingo deuskuna, arteztu daiguzan Zeruko bidiak.

Sarri dei egin daijogun entzun bidi bere izena leku guztijetan, one-lan desagrabijau daigun Marijaren Izen Santua Hereje, Infiel eta partikularmente oraingo denporetan Kristinau deungak, euren min madarrikatuaren beneno ikara[ga]rrizkoagaz egin dautsen injurija andijetatik; bada, ondo dakizuena legez, ain andijak izen dira ze, entzuten izen daben guztijak bide guztijetan arritu ta bildurturik geratuten izen dira. Bai, Birjiña ederra, ain izen dira zura izen beneragarrija[k] artu dituzen afrentak. Baña, Birjiña ederra, eztautsut eskatuten e[ul]ren benganza justua, ezpada emon daijozuela grazija ezautu daijen euren pekatu andijak, eta eginik konfesino egijezko bat aurkitu dagijen grazija zura aurrian, beneradurik munduan zura izena, alabadu daigun Zeruan Eternidade baterako guztijok. Amen, ala izen dilla.

---

<sup>30</sup> Geuk zuzenduta: *ezpanakgaz* > *ezpanakaz*.

## DE PEC[C]ATO MORTALI

*Scito et vide, quia malum et amarum est. Reliquisse te Dominum  
Deum tuum, et non esse timorem mei apud te. Ier. 2, 19*

Ziertutzet dauket, neure entzulak, egotia ainbeste pekatu, eskandalu, bizijo eta desordena munduen<sup>1</sup>, eta bizitia pekatarijek ain atzera<sup>2</sup> penitenzije egiteko, egoke[r]la deunga atatik urteiteko ta Jangoikoagana biortuteko<sup>3</sup>, datorrela ez ondo aitutarrik<sup>4</sup> pekatu mortala egiten danian. Bada, aitu<sup>5</sup> balegije pekatarijek pekatu mortal batek ariman egiten dituzen kaltea[k] ikaraga[rri]zkoak<sup>6</sup>, elitekez jausiko ain zenzuna<sup>7</sup> andi[al]gaz pekatuetan. Pekatu mortalen ezeintasune ezautu eudien guztijek, ezautu balaude<sup>8</sup> au<sup>9</sup> ezaintasunau pekatu egin baiño lenago, posiblia<sup>10</sup> ez-tzan<sup>11</sup> izan ekartia pekatu egitera euren<sup>12</sup> borondatia munduko gauzagaiti, eta euki badau ezauerau pekatu egin-da laster<sup>13</sup>, urten artian pekatu minutu bakotxa egin jako siglu bat baiño geijago edo luziago. Baña da lastima andija, txito<sup>14</sup>, Kristinau asko<sup>15</sup> artian jazoten<sup>16</sup> dana, bada, dautsie bildur gitxiego pekatu bateri, beste edozein bere gatx txikienari<sup>17</sup> baino, izenik pekatua gatx guztietarik andijena. Ikusten dogu zelan

<sup>1</sup> Geuk zuzenduta: *egotia munduan ainbeste pekatu, eskandalu, bizijo eta desordena munduen* > *egotia ainbeste pekatu, escandalu, bizijo eta desordena munduen*.

<sup>2</sup> Ostein aldatuta: *deskuidadurik* > *atzera*.

<sup>3</sup> Ostein erantsita: *penitenzije egiteko* > *penitenzije egiteko, egoke[r]la deunga atatik urteiteko ta Jangoikoagana biortuteko*.

<sup>4</sup> Ostein aldatuta: *konsideretarrik* > *aitutarrik*.

<sup>5</sup> Idem: *konsideradu* > *aitu*.

<sup>6</sup> Idem: *estragu andijek* > *kaltea[k] ikaraga[rri]zkoak*.

<sup>7</sup> Idem: *fazilidade* > *zenzuna*.

<sup>8</sup> Ostein zuzenduta: *baudien* > *balaude*.

<sup>9</sup> Jatorrizkoan: *hau*.

<sup>10</sup> Geuk zuzenduta: *posibliba* > *posiblia*.

<sup>11</sup> Ostein zuzenduta: *ezta* > *eztzan*.

<sup>12</sup> Ostein aldatuta: *bere* > *euren*.

<sup>13</sup> Idem: *egin ezkeru* > *egin-da laster*.

<sup>14</sup> Idem: *por zierto* > *txito*.

<sup>15</sup> Ostein erantsita.

<sup>16</sup> Ostein aldatuta: *(...)tetan* > *jazoten*.

<sup>17</sup> Idem: *gatxeri* > *gatx txikienari*.

eskapetan daudien<sup>18</sup> sierpe bateganik bildur eta ikara<sup>19</sup> andije dautsiena pobrezari, gaiso eta erijotziari, eta izenik pekatue oneik guztijok baino gatx andijagoa, konparazino bagarik, dakusgu eztaudiela gure urten gatx atati. Gauza negargarrija, por zierto, izenik gizona[k] ain<sup>20</sup> kuidadu andikoak gorputzako gatxetatik urteiteko, ain itsu izen biarra gizonak ainbeste inportetan jaken asunto baten<sup>21</sup>. (\*)<sup>22</sup> Ikusten dogu bere zelan mundutarrak sentietan daudien munduko gauzak galdutia<sup>23</sup>, emazte eta semien erijotzie, azienden desgrazije, ganaduben galtze[il]ja<sup>24</sup>, topetan daudiela euren erremedio ezetan erreparau bagarik. Eta eztogu ikusten alan egiten dala<sup>25</sup> edo sentietan dala, Jangoikoa galduten danian kulpa eta pekatua dala medijo, zein dan arimiaren erijotzia, grazijaren galtzaija eta kulpiaren daiñu eternua, izenik ain fasil erremedioja. Oneik guztijek datoz<sup>26</sup>, neure entzulak, ez ondo aitutarrik<sup>27</sup> zer egiten daben<sup>28</sup> pekatu egite-orduen. Espiritu Santuek dino arime guztijen kaltiak<sup>29</sup> datozala ondo aitu<sup>30</sup> egin ezeiteti ze dañu edo kalte<sup>31</sup> etorriko jakon pekatuetati. *Desolatione desolata est omnis terra quia null[us] est qui recogitet corde*. Herem. 12. Bi[sta] andi eta kuidadu geijagokoak munduko kargurako<sup>32</sup>, eta itsu satorra lezkoak pekatuen jausteko, arrisgetan daudiela eternidade bat. Itsu borondatezkoak, idigi begijek. Erreparau<sup>33</sup> eta aitu-gizu, pekatarijek, dala gauza txarra eta garratza zuretzako itxi biar izaitia zeura Jangoikoa. *Scito et vide*. Aurrera segietako biar dot grazija. Abe Maria.

<sup>18</sup> Ostein zuzenduta: *dau* > *daudien*.

<sup>19</sup> Ostein aldatuta: *orrore* > *ikara*.

<sup>20</sup> Jatorrizkoan: *bain*.

<sup>21</sup> Ostein erantsita: *ain itsu izen biarra gizonak ainbeste inportetan jaken asunto baten* > *izenik gizonak ain kuidadu andikoak gorputzako gatxetatik urteiteko, ain itsu izen biarra gizonak ainbeste inportetan jaken asunto baten*.

<sup>22</sup> Esaldi horren albo oharra: *Elgu(...)* bide Astarloa: *eta alanbere ze nagi...*

<sup>23</sup> Ostein zuzenduta: *gauza temporalen galtzaije* > *munduko gauzak galdutia*.

<sup>24</sup> Ostein erantsita: *azienden desgrazije* > *azienden desgrazije, ganaduben galtze[il]ja*.

<sup>25</sup> Ostein zuzenduta: *eztala egiten* > *egiten dala*.

<sup>26</sup> Ostein aldatuta: *originetan dire* > *datoz*.

<sup>27</sup> Idem: *es konsideretarrik* > *ez ondo aitutarrik*.

<sup>28</sup> Idem: *daudien* > *daben*.

<sup>29</sup> Idem: *dañuek* > *kaltiak*.

<sup>30</sup> Idem: *konsiderau* > *aitu*.

<sup>31</sup> Ostein erantsita: *dañu* > *dañu edo kalte*.

<sup>32</sup> Ostein aldatuta: *enpliotarako* > *kargurako*.

<sup>33</sup> Ondo lotzerik izan ez dugula eta, ez dugu aldaketa hau transkribatu: *erreparau* > *aitu*.



Ai Katolikuek, ondo kon sideradu bagengi pekatu egiten dogunien, ez bakarrik Jangoikoaren kontra eta bai bere geura<sup>34</sup> arimai akarrietan dautsaguzan dañuak, bildur izen<sup>35</sup> ginategz bakarrik ordu baten egoten pekatuan! Aitu, bada, ze estragu egiten dauen pekatu batek ariman. Dinot, ezautuko bagendu ondo arimiari akarrietan dautsaguzan dainuak, aun bagine sentimentu bakoak bere, egingo gaunk(e) negar, Dabid eta bere soldaduek guztijek egin eudiena legez<sup>36</sup>, botaten zituezala euren negar- anpullu guztijek entzun eudienien, arien bere itxi bagarik, zelan Amalezitak sarturik Sike[melko] ziudade ederrenien eta emonik sue ziu- dadiari, eroan zituezan kautiba bertako enbra eta donzellak, lelengo sakiaririk<sup>37</sup> ziudadia. *Planserunt Donec deficerent lacrimæ*. Onetarako imajinau daigun ze dolore eta sentimentu<sup>38</sup> izengo elitike Indijetako mer- katari batena, igororik ogei edo ogeta amar urte sarturik ainbeste kuida- du, afan eta peligruetan aberastutarrik, eta urtenik Espainerako ondatu balekijo barkue diru eta Indijetako alaja montosoakaz? Eukiko leuke llanturik egiteko negar au desgrazijau biar dan moduen? Gauza klarua da eleukela eukiko termi[no]rik manifestetako bere sentimentue, bada, askoz geijago, konparazino bagarik, galduten dau pekatu mortala egiten dauenak, dinoiena legez S(a)n Basiliok. Jangoikoak berak dino bere Profeta Ezekiel<sup>39</sup> santuti, justu edo bere adiskiderik andijena jausten bada pekatu mortal bakar baten, eztala geratuko bere amastadiaren memori jerik pekatuen dagoan artian. O sentenzija gogorra! Infernua bera baiño bere gogorragokoa dala dino S(a)n Juan Krisostomo[k] Jan- goikoen aborrezimintuan jausitia, pekatua dala medijo.

Gura daude entendidu au<sup>40</sup> ondo. Kon siderau daigun gizonik san- tuena, kontu egin daigun legoala birtutez adornadurik, Jangoikoen amo- rien abrasadurik; konbertidu balituz gura Fede Santure infiel guztijek, penitenzijera pekadore guztijek, eta padezidu bali[tuz] Jangoikoen amo- riaren santu guztijek erabatera igoro dituezan trabajuek, eta egin balituz bere santu guztijek batera egin dituezan milegroak, pekatu mortal bakar baten konsentidu balegi, bere obra eta meritu guztijek eleuskijoe ezer serbiduko. Baliz S(a)n Antonino abad bat gau guztijek orazinoan igoro- ten jakozana, S(a)n Jeronimo bat bere buler guztije arri baten golpiekaz

<sup>34</sup> Ostein zuzenduta: *gera* > *geura*.

<sup>35</sup> Idem: *bildurtu* > *bildur izen*.

<sup>36</sup> Geuk zuzenduta: *egin eudiena legez Dabid eta bere soldaduek guztijek egin eudiena legez* > *Dabid eta bere soldaduek guztijek egin eudiena legez*.

<sup>37</sup> Ostein zuzenduta: *sakiarik* > *sakiaurik*.

<sup>38</sup> Alternantzia: *sentimentu* / *sentimintu*.

<sup>39</sup> Ostein erantsita.

<sup>40</sup> Ikus 9. oharra.

urruturik leukena, S(a)n Pedro Alkantara bat penitenzije eta kontenplazinoko<sup>41</sup> portentu marabiloso bat, gizon serafin bat zana legez nire Aite S(a)n Franziskue gure erredentzinoko llagakaz selladue edo distingidue, S(a)n Pablo bat irugarren Zerugino arrebatadue, instante beratan zeintan konsentidu leijien pekatu mortal baten, elaeuskijoe balijoko euren obra on eta grazije guztijek, eta kosidu balegijoe<sup>42</sup> estadu onetan erijotziek, erremedio bagarik kondenauko litikez. O pekatuen estragu bildugarrije eta ze pekatarijen itsutasun andije! O pekatari entzuten daustienak, aberatsik denporaren baten birtute eta grazijen, segietan zenduen zeuen jornadie, eternidadeko porture seguru Jangoikoen grazijen axe faborabliagaz mundu onetako itsasoti. Baie, ze tenpestade andije a<sup>43</sup> okasinoa jausi erein eutsuena pekatuen, kenduten dautsuela<sup>44</sup> grazije eta meritu guzti-guztijek! Esangidezue, pekatarijek: Non dire ainbeste urtien egin dozuezan obra onak, ainbeste konfesino on, ainbeste limosna, komunino eta adoradu dozuezan sakrifizijo santu? Jaune, galdu dire. O perdidе dolorosoa, eta eztago nok negar egin leijen galtzei onen ganien! Katolikuek, idigi begijek eta aitu ondo zer galduten dozuen pekatuegaz.

Guztije galdu zendun guzurregaz juramento falsoa egin zendunian, edo dudiagaz egijegaz egiten zendula; guztije galdu zendun pensamintu torpe, benganza eta proximuari aziendia kenduteko desioagaz. Oneik guztijok galdu zenduzen pekatu egin zendunien obra, berba eta pensamintuagaz. *Quæ perfecisti destruxerunt*. Pekatu mortalagaz arimia galduten dozunian, gatx geijago egiten dozu eguzkija bera galdu bazengi baino, Zerua bera ezarri bazengi baino, Angeruen naturalezia galdu bazengi baino; bada, dino S(an)to Tomasek geijago dala grazijaren parterik txikerrena, munduko naturaleza guztijek baino, eta oneik guztijok galduten dozuz pekatuegaz. Eta ainbeste galdu badozu grazijen parterik txikerren bat galdu dozunian, zer galdu izengo dozu Jangoiko guztije galdu dozunien?

Eta zer geijago galdu dozu pekatu egin dozunian? Galdu dozu Jangoikoa, bere grazije, amistedie; galdu dozuz birtute infusuak, Espiritu Santuen doiek, eta bai bere espiritu santue bera; galdu dozu izaitie Jangoikoen seme adoptiboa, eta probidenzije paternala bere seme eskojiduekaz daukena; galdu dozu deretxoa Zerureko euki dozune grazija dala mediante; galdu dozuz Espiritu Santuen konsolazinoiek, zeure

<sup>41</sup> Ostean zuzenduta: *kontenplazinoen > kontenplazinoko*.

<sup>42</sup> Geuk zuzenduta: *balegijeo > balegijoe*.

<sup>43</sup> Jatorrizkoan: *ba*.

<sup>44</sup> Ostean zuzenduta: *dauela > dautsuela*.

Angeru Guardiēn kariñue, Jesukristo eta justuen ondasunen partizipazi-noie. Egon litik(e) galtzai andijegorik? Konsideradu dozuez oneik des-grazijok? Bada, guztijek galduten dire pekatuegaz. O ze ditxe andije izengo zan zuretzat egon bazintz Jangoikoen grazijen! Bada, izengo zintzen Espiritu Santuen abitazinoe, Jangoikoaren jardin eder bat eta palazijo<sup>45</sup> bere majestadiena. Au<sup>46</sup> izen zintzen pekatu egin baino lenago, eta guztije galdu zendun pekatuegaz. Ai<sup>47</sup> bazintz orduen langoa! Orduen zintzen Jangoikoen adiskide, eta orain enemigoa: len aituten eutsuen Angeruek kariñu andijegaz, eta orain zagoz Diabruen esklabu; len zintzen Espiritu Santuen tenploa, non errezibietan zituzen zure orazino, sakrifizio eta inzensoak, eta orain zara Diabruaren kalabozo orrible bat. O ze nobedade bildurgarrija! Koroia biortu da kattia gogor baten, amarretan zaituzala kattia infernal onegaz Infernuko kalabozo baten. Ja ezin artu zinai golpe andijagorik, bada jausi zara lekurik altueneti, Jangoikoen adiskidetasuneti Diabruen katiapera.

Posible izengo da, neura entzulak, izen al izenik Jangoikoaren Seme eta Zeruko Herederu, Santisima Trinidadiaeren tenplo eta Angeruaren alegrija, izen biar izaitia enemigoaren esklabu, deseredaduek Zeruko erreinuti eta Diabruaren kueba infernal? Ez onetan ifini dudarik, bada, S(a)n Pablo Apostoluak dino daukezala Diabruak sujetu eta preso pekatarijek bere borondatera. Bada, ze sentimentuk izen biar dau zueinak? Zer et[z]eunkie emongo<sup>48</sup> libretarrik, bazengoze preso nazino salbaje baten bien? O zenbat emongo zeunkian! Etzeunkie itxiko adiskidarik enpenau bagarik ifini daizela bere balimintu guztijek libretarrik prisinoi atarik; etzeunkie eukiko egunez sosigurik, ez gaubien deskansurik, arik eta konsegidu artian zeuen libertadie. Bada, zelan izenik zure estadue lamentu andijegokoa pekatuen zagozan artien, eztozu ifiniten kuidadu eta diligenzije geijago urteiteko? Ala bizi zara konfijentza falso bategaz, erijotzako orduan egingo dozule penitenzije egijezkoa? Bakizu eukiko badozu denporarik orduen eta, denporia euki arren, egongo bazara disposizinoan konfesino egijezko bat egiteko<sup>49</sup>, gauza deungaro irabazijek biortuteko? O zelan engainetan zaituzan konfianza orrek! Zenbat dagozan Infernuen pagetan betiko Luziferren zeboorregaz jausirik! Usti dozue eukirik orain denporia penitenzija egiteko eta egonik obligazinoan pekatarijek urteiteko euren estadu negargarrizkorik, Espiritu Santuek

<sup>45</sup> Osteen ezabatuta: *bere palazijo* > *palazijo*.

<sup>46</sup> Ik. 9. oh.

<sup>47</sup> Jatorrizkoan: *Hai*.

<sup>48</sup> Osteen zuzenduta: *et[z]eunkiemongo* > *et[z]eunkie emongo*.

<sup>49</sup> Osteen erantsita.

aginduten dauena legez eztagijela dilatau bere konbersinoa egun bate-rik eta bestera, zein jausi din bere ganera Jangoikoen indignazino justue, euki dozuela eskuen erijotzako orduen konbersinoa, inbokaurik S(a)n Josepe eta Marije Santisimien uzena? Ondo da eukitia oneik denpora atarako patroï eta abogadutzet, baie euren bizi guztije konfijentza onegaz enplia daudienak pekatu kontinuadu baten, dagoz seguru orduen entzungo dautsiela? Munduen gura dauenak euki adiskida egijazko bat Erregeganako, prokuretan dau beragaz denpora guztijen ondo eukitia, eta oneik guztijokaz bere konsegietan badau bere pretensino, emoten da ditxosotzat. Eta pekatarijek euren bizi guztijen eukirik aserre alan Errege Zeruetakoa eta bai bere kortesanu guztijek, gura dituz estutasun atan euki bere disposi[zi]noan. Izan leite, baina peligru andija korrietan dau; eta izenik arimeko salbazinoa asuntorik grabiena, eta erratuten badau erremedio bakoa, eztau ondo obretan, denporia dauken artian ifiniten ezpadituz medijo guztijak salbazinoa arkanzetako.

O neura enzulak! Zuen engañue dator, S(a)n Anbrosiok dinoiena legez, ez ondo konsideretarrik jausi zarien estaduti. Eztago gauza dolorosoagorik arima pekatuen dagoan batentzat<sup>50</sup>, akordatia baino Jangoikoen adiskidetasunerik jausi dala enemigoen kautiberijora. Ze dolore andijagorik arima batentzat ikustia instante baten bere arimia esklabu ez Diabruaren<sup>51</sup> bakarrik, eta bai bere pekatuaren! Eta izanik alan pekatua zein Demoniñoa ain gauza abominabliak zer izengo dan pekatarija, bada esklabua beti da kondezino deungagokoa! O arima pekatu mortalian zagozana! Ikusi bazengi zeura ezaintasuna, ze sentimintu eta doloria izango liteken zuria! Igoal zein gorputzari faltetan<sup>52</sup> jakonien arimia geratuten dan bizitza bagarik itzel eta deskoloridurik, denpora gitxi barruen<sup>53</sup> atsa botaten dauela, alan arimia grazijaren bizitza bagarik geratuten da itzeldurik Jangoikoaren aurrerako. Sinestuten dozue au<sup>54</sup>, bada eztino bestek ezpada S(a)n Bernardo batek. O pekatari ainbeste pekatue ametan dozuenak! Sentidu bazengije kiretsa zuen arimiak botaten dauena, zelan ifiniko zeunkian diligenzija urteiteko estadu negargarriko orretarik! Egije da eztogula guk sentiduten gura arimiaren kiretsa gorputzekoena legez, baije sentiduten daude Angeruek.

S(a)n Antonino Florenzijeko[ak] dakar exemplo bat: joanik monje santu bat jornada largu baten, agertu jakola bere Angeru Guardiizekoa

<sup>50</sup> Osteen zuzenduta: *arima batentzat* > *arima pekatuen dagoan batentzat*.

<sup>51</sup> Geuk zuzenduta: *Diabruerearen* > *Diabruaren*.

<sup>52</sup> Osteen zuzenduta: *faltan* > *faltetan*.

<sup>53</sup> Idem: *barrue* > *barruen*.

<sup>54</sup> Ik. 9. oh.

gizonen figuran, zeinegaz joanik denpora luzian topau eudien gizon il bat bidian kirets andije despedietan euela, eta paseta-orduan bere ondoti tapau zituzan monje onek surrak, baiña ez Angeruak. Arik pizko bat garrenian, topau eudien zaldun eder bat kaballo eder baten ganian bere jantzi guztijetati uzain eder bat botaten<sup>55</sup> eudiela; paseta-orduan zaldunau zarratu zituzan Angeruak surrak, eta ez monje santuak. Estrañau zan monjiau Ang[e]ruen ademanagaz, eta ezauturik pensamintue esan eutse[n] Angeruek: Gu ezkaituz ofendietan gorputzeko kiretsak, garielako espirituek, baina bai arimekoak. Eta doiena legez or topau dogun zalduna pekatu mortalien, ezin sufridu izen dot bere kiretsa; eta da guretzako andijegoa oneitan aurkituten dogun atsa, zueintzat gorputzetakoa baiño. Ara eme[n] ze ats andija dan arima pekatu mortalien dagoanena. Arimiarentzat igoal da Jangoikoa galdutia, dino S(a)n Agustinek, zein gorputzentzat arimia galdutia. Esangidezue, Katolikuek, ikusi bazengije gizon bat bere axe eta arnasiagaz botaten dituzela eta il bere aurrian presentetan dirian guztijek, itxoron zeuskijo ikusirik datorrela zugana? Eta jakinik au<sup>56</sup>, parauko zintikez konbersazinoian beragaz? Ezta posible. Eta izengo da posible berba desonestu baten axiagaz, juramento falso baten, maldezino grabe eta murmurazino grabe baten arnasiagaz kendutia zeura arimiari bizitzia? Izengo da posible joatia zu konkursu eta konbersazino desonestuetara, non konsentimintu loi, tokamintu eta ainbeste indezenzjegaz ilten dozun zeura arimia? O neura Jangoikoa! Non da gizonaren juizijoa gauza loi baten konsentietan dozunian, ziertu bazenki bertan ilda geratuko zariela? Konsentiduko zeunke proximua gauza grabian onra edo aziendan kalltejtuten dozunian, pensauko bazendu erremediojo бага ilgo zariala? Egingo zeunke? Deretxat ze ezetz; bada, ze dolore izengo ezta munduko gustu loi eta azienda simple bategaiti galdu biar izaitia arimia? Altzau balegizue falso testimoniño bat zeure odolena kontra, gaisotu eta il egingo zintikez menturez; eta zabiltz gustu andijegaz zeure pekatuen sanbenitoagaz? Zenbat zuetariko izengo liti-ke bildur defuntu bategaz gau baten bakarrik geratuten? Eta etzarie bildur etzaten eukirik arimia ain loi? Zenbat pekatari triste eztago Infernuen, menturaz<sup>57</sup> zura pekatuak baino txikerragoakaz, zueik legez pensaurik eukiko eudiela denporia penitenzija egiteko eta ilik gau atan, pagetan euren konfijentza larregija?

Ezaututen dozu zeura pekatuen grabedadia eta tormentu andijek preparaute daukezanak Jangoikoak, pekatue dala mediante bera ofendidu-

<sup>55</sup> Geuk zuzenduta: *batan* > *botaten*.

<sup>56</sup> Ik. 9. oh.

<sup>57</sup> Ostean zuzenduta: *mentura* > *menturaz*.

ten daudien[en]tzat? Preguntatu kondenaduai zek daukezan ain amarrarik Infernuko kalobozaetan<sup>58</sup>, eta erantzungo daude eztaukezala bestek ezpada pekatu mortalak. Eta ezpabere, aitu daijogun Jaun dibinu oneri. O neura Jesus ona! O neura bizitziaren prendie! Bada, gizon eginik gura izen zendun jaijo, kruzifikadu, Judijoakganik erreprobadu: zeura enemi-goakgana entregadue, kordel fuertiakaz amarradue eta bildots mansoa legez erijotzara entregadue; golpe eta injuriljalkaz aflijidue, arantza gogorragaz koronadue, azotadue eta kañaberiagaz eridue; kurze baten unze gogorragaz josi edo klabadue lapur famoso bijen erdijen, eurek baiño bere traidore andijegotzat tratadue. Eta zegatik, neura Jesus amorsoa, gura izen zendun tratadu zengijezen ain piedade bagarik? Ez bes-tegaitik ezpada libretarrrik pekatu rik? Pekatue galdutarrrik izen zirian guztijek? Eta jakinik nik au<sup>59</sup>, atrebiduko naz pekatu egiten zura kontra eta errenobetan zeura pena eta injurijak? O gizonaren gogortasuna zuretza-ko, bada, oneik guztijok egiten dautsuez pekatu egiten daudienien! Posible izengo da eukitia guk atrebimentue ofendietako zu, zeinen amorian exetuten dirian zeruetako Serafinek, Kerubin eta birtute zelestial guztijek? Krijatura guztijak dirauske zu amadutia. Zeruko hermosuriak, eguzkijaren klaridadiak eta irargijarenak, guztijak konbidetan gaituez. Eta zer egiten dogu guk, ez beste gauzarik ezpada zu ofendidu? O neura Jaun miserikordijazkoa, eukigizu gugaz miserikordije, bada, urratuten dira dolerez gura bijotzak! Neura Jesukristo Jauna etc.

---

<sup>58</sup> Alternantzia: *kalabozo* / *kaloboza*.

<sup>59</sup> Ik. 9. oh.

## [HUMILDADIA]

Humildadia, dirausku S(a)n Bernardok dala birtute bat bera ezerez-tzat ta guztijen artian azkenengotzat ezautu ereiten dabena. Emeti dator humilla izatia dala, Jangoikoen amodijoz gitxiagotzat eta guztijak baño geztoago ta pekatari andijagotzat euki dagijen gure izatia. Orregatik, benetan humilla danak atsegin artuten dau bere ostikopekotzat legez eukitia. Zerutiko jakiturija da norbera bestiak baño deungagotzat euki dagijen gure izatia. Bada, onelan uste dabena Jangoikoa ta beraugatik proximua maite izango ditu, eta iñozko alditan ikusi edo entzun arren proximuaren faltaren bat, ezta joango auzokora proximuren faltia esate-ra, eta bai ezaturik bera bere argala dala, eta aren besteko peliburuan aurkitu balitz, uste izanik anbeste edo andijagoan benturaz jausiko zala, bestia baño argalagotzat ezaututen da; eta bildurturik bestien jauskeria-gaz<sup>1</sup>, ez bakarrik pekatuen okasiñotik alderatuten da, baita bere proxi-mu jausijen pekatuz errukiturik, parkatu dagijontzat bere erreguekaz Jangoikoaren bitarteko ifiniten da. Alan bada, birtute au ez ba[ka]rrik da bestien artien andijena, baita bere biarrena, dalako berau santidade guz-tijen sustraija, eta berau bagarik salbau ezin giñatekezena. Jesusek dirauskuna legez: *Nisi conbersi fueritis et eficiamini sicut parvuli isti non intrabitis.*

Ez dago eskusarik humildia ezin izen leitela emon leijenik. Estadu guztijetan, zar-da gazte pobre ta aberatsetan izen leite bat humildia. Ondasun andijen jaubiak izan zirian lege naturalian Abraan, Isaak eta Jakob, Errege ta Sazerdotia Melkisedek, baña orregatik zenbat aberatsa-go izan zirian, ainbat eta humillagoak zirian. Bat izatiarren errege andi ta aberatsa, Dabid Santua izan zan; baña bere santidadiak humildadian sustraijak ezarri zituzan, guztija bere emolle Jangoikoari opa izaten eutsela ta bere anditasunak geijago humildadian sendatzeko bidia emoten eutsala. Eta atxinekoan ain humildadez beteriko andijak izan baziran, Ebanjelijokoan geijago dira onetan argi egin dabena. España<sup>2</sup>, Frantzia ta beste erreinu guztijetan ikusiko doguz ainbeste errege andijak izan zirianak, eta euren koroiak humildadez beterik Jesusen oñetan ipini dituezanak, ondo ezaturik guztijek zor eutsazala, arako Zeru ta Lurra-

<sup>1</sup> Geuk zuzenduta: *jauskerariagaz > jauskeriagaz.*

<sup>2</sup> Jatorrizkoan: *Hespaña.*

ren Errege izanik exenplo miragarritzkoagaz arantzazko koroiz jantzirik, eurek betiko koroiaz<sup>3</sup> edertuak izen zitentzako. Orain bada, ain errege andi izan zirianak euren anditasunari begiratu bagarik ain humilldiak izan bazirian, eskusarik ezin emon leije humillak izen ezeiteko pobre dirianak. One[e]k, euren estaduak agindurik obeto humillak izateko, es badira humillak ezpada soberbijoak, ez dira izengo Jangoikoen gogokoak, eta bai bere g(...). Asko<sup>4</sup> dira munduan one[e]tarikoak eta gitxi benetan humillak dirianak. Beste asko humiltzat euki dagijezan ibili oi dira azaletiko gauza humildaderen antzekoak egiten, hipokresiaz ta soberbijaz beterik, euren barruan Diabrua baño baltzago izanik. Soberbija onen sustraija da euren buruai lar gure izatiak, eta euren frutuak Luzifer ta bere aingeru lagun geztoben antzekoak, bestiak aintzekotzat ez artu ta eurek lezkorik ez dagoala uste ereiten deutesnak; eta alan, izango da euren sarija betiko negarra, euren maisu Luziferregaz batera itxirik humildadien bide santuari, pekatuzkoari jarraitu eutselako. Soberbija ta arrokerijari Jangoikoak deutesen gorrotoa ondo ikusten da beragatik Zeruan egineko kastigu bildurgarrijan, bada, ozta ezautu zaneke Zeruan, orra non lekurik emon bagarik erbestetu zituzan, betiko Infernua saritzako emoten eutseela. Eta ez bakarrik gorroto deutso bizio geztu oni Jangoikoak, baita bere munduak. Eztago nok sufridu daijen gizon artoa: batzar baten bada, berak guztija berba egin biar dau; berari<sup>5</sup> entzuten ez bajako, aserratuten jako. Bera jakintsu, prudenta ta nagositzat eukitia da bere egarrija, izanik arro, soberbijo lagun artera agertu biar ez leukiana; eta alan, nondi onelakoakganik iges egingo daben ibili oi dira gizon prudentiak, eta iñozko alditan desas[t]reren bat emon ezeitiarren batuten badira, erraijak kiskelduten beraganik alde egin artian egon oi dira. Guztijak, tontogiñoakoak, ezautuko dabe one[e]n paltia<sup>6</sup> baña ez berak iñoz bere, eta egunerik egunera su geijago edo inder geijago artu daroa. Jangoikoak gorde gaizela bizio geztu onetatik.

Ez dira onelan humilldiak. Oneek euren buruak atzenengotzat ezauturik, a[ul]rrengotzat ezaututa estimaduak izen oi dira Jangoiko ta gizonakganik. Beti Jang(oiko)ak bere sekretoko misterio asko ta andijak erakutsi deutsez, ez soberbijo ta arroai ezpada humillai. Pobre ta humilla izan nire Aita S(a)n Fr(anzis)ko, baña orregatik Jangoikoak bisitadu ta ondradua izan zan; sarri Jesusen laguntasuna bere amaren besartian merezidu izen eben, bere arimia Zerutiko grazijaren inontz santuz bus-

<sup>3</sup> Ostean zuzenduta: *koroigaz* > *koroiaz*.

<sup>4</sup> Jatorrizkoan: *Hasko*.

<sup>5</sup> Ostean zuzenduta: *bera* > *berari*.

<sup>6</sup> Alternantzia: *falta* / *paltia*.



tirik, ainbeste frutu emoteko prestetan ebela. Humilla izan S(a)n Juan Bautistia, eta orregatik Angeruen laguntasuna desiertu[ra] sarturik merezidu eben. Humilla eta guztijen artien paregabekoa izan zan Maria, eta au izan zan Jangoikoen Ama izatera ekarri ebena.

Ez dago birtuterik geijago gugaz erruki eukitera Jangoikoa ekarri daroanik, humildaderen birtutia baño. Alperrik bat pekatari andija izango da, benetan humilletan bada, bere pekatuak erbesteturik grazijaz edertu ta Jangoikoen adiskida izatera biortuko da. Alan egin dau Jangoikoa pekatari asko ta andijakaz. Pekatari andija izan zan Akab Erregia, baña humildatu zaneke, orra non Jangoikoari erraijak bigunduten jakozan eta bere pekatuak aiturik bakiak beragaz egiten dituzan. Ninibetaren pekatuak asko ta andijak zirian, ta ain andijak ze, euren pekatuen garrak Zerugino eldurik, euren kastigura Jangoikoen justizijari deituten eutsen: zemakuntze andijak biraldurik, Jonas Profetiaren bitartez, zar-da gazte, gizon ta emakume, pobre-aberatsai, beragana biortuten ez bazirian egun gitxi barruan penitenzija egiazkoen bitartez, galduko zituzala; negarrez guztijak etxuten dira, euren pekatuen damuz buruak autsez beterik, iru egunian ezer jan ez edan bagarik, eta orra non aserriak aiturik, parkatu eutseen bere aurrian humillatu zirialako. Eta ez neuskijo azkenik emongo, esan biar banituz Jangoikoa egineko miserikordija andijak pekatari humillai.

Baña, non dira one[elk]? Nortzuk dira azkenengotzat eukijak izan ditezan poztuten dirianak? Ai! Obeto topau giñaikez azaletikoak, humildadiaren errasturik ez, Jangoikoaren amodijorik bagarik humildiaren papelak egin daroezanak, estimaduak izen ditezan, Santu ta Santatzat euki dagijezan, euren biotzak urruti Jangoikoaganik eukirik. Onelan, ez onak ezpada Diabrua bera baño geztogoak dira, hipokresija edo birtute finjidu[z] beterik, eta etorriko jake eguna alperrik negar egin biarko debena, arako Ebanjelijoko Fariseoagaz batera Infernuan euren buruak ikusi dagizenian. An ikusiko dituez, arako eurek emen aintzekotzat artu etzitzezanak eta pekataritzat euki zituezanak Publikanuagaz<sup>7</sup> batera eskoako aldean, eta eurek ezkerrekoan; one[elk] emen arro ta soberbijo izan zirialako, euren azaletiko obra onakaz barrutiko humildade bagarik bizi izan zirialako, eta bestiak euren begijak humildaderen indarrez Zerura altzetan atrebidu bagarik, euren miserijen errukija euki leijela eskatu eutselako. Asko dira, Kristinauak, ez bakarrik estadu batekoak, baita bere guztietakoak, bizimodu txarrik ez egin alde batetik ta, munduak ontzako igoroarren, beste aldetik humildaderen errasturik ez dabenak, eta euren proximuakaz karidade gitxi dabenak.

<sup>7</sup> Ostein zuzenduta: *Publikanugaz* > *Publikanuagaz*.

Neskatilla batek bere buruari puskatxu bat traza obekoa dala bere auzokoak baño, uste dau bestiakgatik burle egiteko eskubidea daukala ta bestiak baxen traza ohea beragandik daukala. Andra ezkondu bat illian bein konfe[se]ltan bada, meza nagosietara, bezpera ta beste deboziñoko gauzetara badabil, beste eztabiltzanen faltak atera ezinik ibiliko da, onelan bere exenplo onagaz irabazten dabena guztija galduten dabela. Gizon bat taberna ta okasinoko lekuetatik iges eginda munduan<sup>8</sup> ondo biziko da, baña eztauko ardu[ra]rik beste bera legez alderatuten ez diranen kontra murmurazi(...) irarduteko. Onelan, Diabruak arako one[le]ntzat dagozangiñokoak bere nasa geztoan artuten dituz. Alegina bada, Kristinauak, K(atoliku)ak, humillagoak izateko egin biar dogu, zein Diabruak proximuen karidade faltaz ez gagizen engañadu. Ze gauza daukagu guk gure proximuak baño geijago, Jangoikoaganik artu ez dogunik? Eta Jangoikoaganik artua bada bestiak dauken baño geijago euki alginajena, zegatik arrotuko gara geuganik datorren gauzia bailitzen? Jangoikoak dino berak arro ta soberbijoak beratuko dituzela ta humil ta biotz bigunekoak eregiko dituzela. Jesus amorosoak Infernua azpirateko artu zituzen armak etzirian gaur mundutarrak erabili daroezanak; eztago arma sendoagorik Infernuari gerra egin ta bildurtuteko, humildadiarena baño, eta eztago gaur munduan gauzarik berau baño aitzuagorik. Eta orregatik, ardura bage dabil gaur Diabrua mundutik, dakijelako zein arma galduakaz bizi dirian mundutarrak, irabaziten deutsela bitorija ez arako munduak pekatari anditzat daukezanai, baita bere arako munduak santutzako emoten dituzanai.

---

<sup>8</sup> Geuk zuzenduta: *munduaren* > *munduan*.

## NÚMERO DE PECADOS

*Super tribus sceleribus et super quatuor non convertam.* Am. 1, 3

Gutziz arriturik, bildur ta ikaraz beterik nator arratsalde onetan pulpitura gure Fede Santuko misterio arrigarri<sup>1</sup> baten ganian berba egitera. Zeruko angeru bat gizonaren irudija arturik jatsiko balitz gaur pulpitura nire sermoia prediketara, askorentzat izango litzateke bildurgarrija, baña bai bere guztiz ongarrija. Bai, K(ristao)ak. Nik ondo dakit asko pekatari gaurko egunian bizi diriala pekatuan sarturik urteiteko gogo bagarik, esperantza andijak Jaunaren miseriordijan ifinirik. Orregatik bada, ainbeste esperantza daben ezkerro Jaunaren miseriordijan, erakutsi nai neuskijoe bere justizia, euren aurrian bere kastiguak ifinirik. Egija da andija dala Jaunaren ontasuna, neurribagia bere miseriordija. Alperrik izango dira, asko ta andijak pekatarijen miserijak, gizon guztijen gaizta-kerija ta diabru guztijen malizija; alperrik gizon baten baturik ifiniko one[elk] guztijok. Eta al balitz geijago pekatari batek eukiarren, pekatarijau negaturik fedez beterik Jaunaren oñetara etxuten bada, errukiturik besoak zabalik artuko dau, ta bere pekatu igoroak gatzik egingo ez deusela diño Jangoikoak berak. Ze ona, ze milla bidar errukitsua dan Jangoiko gure maitegarrija! Eta benetan bere miseriordija ez balitz ain andija, zer izango zan gaur emen gagozan guztiokaz? Galdu[elk] izan biarko genduen. Egijau autortu biar dogu Jaunaren gloriya geijagorako. Baña orregatik, erakutsi biar deusuet bere justizija, zegatik beti erabilli oi daroien miseriordijagaz batera. Bere miseriordija, pekatarijak bere burua pekatuz beterik ikusirik konfientzia galdu ez dagijen, barriz bere justezija esperantza larregigaz pekatuetan ondaturik eriotzak artu ez dagijen, da kastiguen bildurrez bide zuzenetara etorri dedin.

Ez dau gure J(angoi)koak pek(atari)a galdu dedin, beti bere erraia[k] zabalik daukez artuteko<sup>2</sup>. Biortu zaite, pekatarija, esaten deutso Jangoikoak pekatarijari bein bere biotzeko deijekaz, beste bein predikadore ta konfesorien konseju ta esanakaz. Eta zein da g[e]l[e]jenez pekatarijen erantzueria? Arako Jangoiko nire amodiyoak Zerutik Lurret(...) ta kurtze

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Geuk zuzenduta: *arrigarren* > *arrigarri*.

<sup>2</sup> Ostean erantsitako esaldia.

gogor bategiñokoan ainbeste igorotera obligadu ebenak, ez dau nai ni galduterik: denporia dago oraindik, aprobetxau biar natxako denporiari, gaztetasun, ondasun ta gurarijai; zartzaroan egingo doguz kontu orre[el]k. Onelan pensetan dau, onelan sinastu, onelan berba egin ta onelan bizi; eta gero berak uste eben baixen ain erraz ez jazorik, kontu one[el]k gaizto urtenik, eriotziak artu ta jausten da pekatarija sepulturara pekatutik urten bagarik. Benetan andia Diabruaren tentaziñoa<sup>3</sup>! O zenbat arima<sup>4</sup>! Esan egidazu<sup>5</sup>. Oi ze zoramen andija ainbeste pekatarijena! Baña erdu ona, pekatarija. Zer da zuk uste dozuna? Ain isillik dagoalako orain, uste dozu beti isillik egongo dala? Bada, begira orain artian isillik ego[n] bada bere, laster erakutsiko deutsu bere aserria. (Eta bakizu zegatik?) Bearbada urrengo egin al daizun pekatuaren begira dago zu kastigetako. Eta bakizu zegatik? Amos Profetaren aotik dirautsu Jangoikoak: Iru pekatu parkatuko deutsadaz Damaskoko urijari, iru Tirokoari, iru Gazakoari, baña ez laugarrenik. Laugarrena egitera badator, jausiko da bere ganera nire justezija. Bada, auxe berberau dirausku guztijoi: Onenbeste pekatugiño parkatuko deutsuet, baña ez geijago. Nik ifiniko neurritik igoroten bazaree, galduek izengo zaree.

Itsutasun andia pekatariena, miserikordiagaz Jaunaren ontasunagaz<sup>6</sup> balia gura izatia bere aserrean biziteko<sup>7</sup>. Gauza arrigarrija beintzat pekatari batena, pekatutik urten ta ostera barriro biortutia, ez jakiñik nox artian biziko dan, ez nox ilgo dan, ez zenbat pekatugino parkatuko jakazan. Bein berak ifiniko neurritik igoroten bada, erremedio bage zori gaiztoko izatia dauko. Neurrijau ez da guztijetan bardiña: batzuei geijago, beste batzuei gitxiago parkatuko jake. Kontu dagigun bada, pekatarija, zuri Jangoikoak ifiniko neurrija dala ogeta amar pekatu mortal; niri bakarrik amar. Kontu egizu ogeta bederatzi egin dozuzela; nik bere bai, bederatzi. Igoro zara bat geijago egitera, eta eldurik ogeta amarrera bete dozu neurrija; nik bere beste egin dot, eldu naz amarrera, ta bete dot neurrija. Oraindio gugaz Jangoikoak eukiko dau miserikordija, bere grazija ta alegiñagaz naste urtengo dogu pekatutik. Baña igaro<sup>8</sup> zinian zu beste bat geijago egitera, ta neurri[ti]k igaro zara; nik bere bai beste bat. Igaro gara neurritik: bada agur, guriak egin eben; alperrik nekatuko gara, naitanaiez Infernurako gara. Oi ze doktrina bildurgarrija! Baña Zeru-Lurrak lenago faltauko dabena Jangoikoen berba one[el]k baño.

<sup>3</sup> Idem.

<sup>4</sup> Idem.

<sup>5</sup> Idem.

<sup>6</sup> Geuk zuzenduta: *ontsasunagaz* > *ontasunagaz*.

<sup>7</sup> Ostein erantsitako esaldia.

<sup>8</sup> Alternantzia: *igoro* / *igaro*.

*Super tribus sceleribus damasci.* Jangoikoak Abraam Patriarka Santuari egin eutsezan promes asko ta andijen artian bat izan zan esatia, bere seme edo oñekoai emongo eutsiela zorioneko erri bat gauzak ugari ta abondo izango zituena, baña bere semiak erri atara igaro orduko laurun urte igeroko ziriala. Eta zegatik uste dozue ain iraupide luzia emon eutsela, izenik ain maite Abraan ta bere semiak? Jangoikoak berak dirautso Abraan Santuari: Gaur erri atan bizi dirianak nauke guztiz aserraturik, baña ezta oraindio bete euren pekatuen neurrije; neurrijau bete orduko laurun urte igaroko dire, eta orduan ango errija zuen semeren eskuetatik kastigauko dot eta bertako ondasun ta errija euren izengo da. *Necdum enim completæ sunt iniquitates amorreorum usque ad presens tenpus.* S(a)n Agustin Elexako jakintsu andijak dirausku, berba onetati argiro ikusten dala Jangoikoak bakotxari zenbat pekatugino parkatuko deutsen neurrija. Bildur izen zaitez orregatik, pekatarija, pekatu egiteko; eta len sartuta<sup>9</sup> bazagoz, urtengizu ainbat lasterren luzetu bagarik, zein neurrija bete ta eriotziak artu zagizen.

Ez uste izan orain pazienza andiaz<sup>10</sup>... Ixillik egoan denpora luzian pazienzija andijagaz Jangoikoa Noe Patriarkaren denporan, ikusten zitu zala mundutarren pekatu andijak. Biraldu eutsezan mandatarijak esaten eutseela, arren biortu zitezala bide onetara, baña burle ta barre eginik ez eben nai izan. Eta beste abisurik izen ezpalebe bere arako arka santua egiteko agindu eutsena baño, urijoliagaz mundua ondatu baño lenago au<sup>11</sup> berau asko izan biar zan pekatuak itxirik Jangoikoaganatuteko. Baña eun urtiak kunplidu baño lenago euren neurrija bete ebenian, orra non zeruak lañoz betetan dirian, asten da eurija gau te egun berrogei egunian, urijak, erriak, etxaguntza ta mendijak urak artuten dituz, eta munduko mendirik altuena baño hamabost onian geijago urak igonik, guztijak ondatuten dira. Estura atan dei egiten deutse sokorru billa, baña alperrik; bada, bete zan neurrija. Auxe da, pekatarija zugaz jazoko dana. Arefelk orduan legez pekatuan egonik, are[eli legez urten deizula ainbeste bidar esanik, guztira barre eginik pekatuan ibilli nai badozu, ibillijan neurrija beteko dozu: pekatuaren urijoliak azpijan artuko zaitu, eta aren modura dei egin arren, jaramonik egingo ez deutsu eta pekatuen urijolapian galdubako erremedijorik izango ez dozu.

Kastiguaren bildur andi bat<sup>12</sup>... Beste onenbeste jazo jaken Sodoma-tarrai. Asi zirian lotsagarritzko pekatugiñen, pazienzija andijagaz luzero

<sup>9</sup> Osteen zuzenduta: *sartu* > *sartuta*.

<sup>10</sup> Osteen erantsitako esaldi amaigabea.

<sup>11</sup> Jatorrizkoan: *bau*.

<sup>12</sup> Osteen erantsitako esaldi amaigabea.

itxoron eutseen; baña guztira bildurra galdurik aurrera joa[n] zan euren pekatu esan ezin leizen lezko lotsagarrijakaz, eta onelan neurrija beterik, biraldu eben Zerutiko suba, bakarrik famelija parkaturik ganekoak suatan erretan zituzala... Ontzi andi batek erdigiño beterik egon arren, ez daroa ondatuteko pelibururik erakutsiten eta bildur bage batik bestera ibilli oi doa. Baña ganez egin artian ontzizau betetan bada, ontzizau ondarrara joango, zegatik ez dagoan neurririk, artu ala baño geijago betetan bada ganezta ta galduten ez danik. Ez uste izan, pek(atari)a, orandik gaztia zariala osasunagaz zagozalako, pekatuen neurria bete ez dozula<sup>13</sup>. Hauxe jazoten da pekatarijakaz: Jangoikoak ifiniko neurritik igaroten badira, ondatuko dira. Kontu egizu bada, pekatarija, zu zariala arako len esaneko neurrija, ontzija, ogeta amar pekatugiño parkatuko deusuna. Kontu egilizu hamabost pekatu eginik zagozala; oraindio arako ontzija erdigiño beterik itsasoan ondatuteko peliburu bagarik dabilena legez, alan zu bere zabiltz pekatuko okasinoetan, nondi laster beteko dozun neurri ori. Eldu zinan ogeira, andik laster ogeta bostera, eta ibilijan-ibilijan neurritik igaro zara; eta ontzija ganezturik ondora legez, eriotziak arturik galdu zara, eta hak ondarretik urten ez daroiana legez, alan zuk bere urtego ez dozu.

Orregatik bildur izan zaite, pekatu andijak eginik zagozana, pekatu bat aurrera egiten zein beragaz eurija beterik eriotziak artu ta galdu etzitian. Eta baderitxazu oraindio pekatu andirik egin ez dozula, zu bere bardin bildur izan zaitekez, zegatik guztijetan ez dan neurri bardina: ez dakizu lelengoko pekatu mortala izango bada zuretzat azkenekoa, askori jazo jakona legez. Bada, arako angeruak kriatura ain ederrak grazijan sortuak izan zirianak, betiko galduteko asko izan zan pekatu bakar bat egitia; beragaz neurrija beterik eta penitenzija egiteko lekurik emon bagarik, jausi zirian betiko Infernura. Nor ezta arrituko angeru one[le]n kastiguagaz? Nor izango da oraindio ardura bagarik aurrera ibili nai dabena? Ai angeru zorigeztokoak pekatu bakar bategatik betiko Zeruko palazijo ederretik Infernuko kalobozu usteletara ondatuak izan zinianak! Ze karu urteniko pekatua izan zan zuena! Bai, pekatarijak. Emen munduan pekatari bat lapurreta bat bakarrik eginik, nozbait justezijak artu ta preso ifini daroa, eta beste lapur galant asko urte luzietan ibillirik, plaza ta kalietan panparroi agertuten dira; baña one[le]i bere ibilijan-ibilijan neurrija beterik, elduten jake euren denporia justezijak arturik ondo pagarozoten deutseena. Alantxe da Jaunaren justezija bere moduren baten: batzuk gitxigaz neurrija beterik, beste askok askogaz, azkenez guztijak bere justezijen eskuetararuten dira. Orregatik nik esan biar dau-

<sup>13</sup> Ostean erantsitako esaldia.

tsuedana da bildur izen zaitetzala, ez bakarrik pekatu andijak eginda zagozanak, baita bere zuen ustez ainbeste egin ez dozuela deretxazue-nok. Bada...

[AMAIERAKO ERANSKETAK<sup>14</sup>]

Nork esan zeiekian arako Amos Profeta Santuak aitutzen dituen pekatariak, berak esaten ziozkan pekatuak egitera bazetozan, allegatzen baziran, erremedio<sup>15</sup> bage betiko galduak izango zirala? Uste izan ez bazeben ere, alaxen, Profeta Santo onek esan zien bezela gertatu zitzaien. Iru pekatu parkatuko dizkitzuet, esaten zien, baña ez laugarrenik. Laugarrena egitera allegatzen bazerate, galduak izango zerate. Eta zergatik iru pekatu bai eta laugarrenik ez galdetzen badidazute, erantzungo dizuet S(a)n Basilioarekin: *Judicia Dei abisus multa*, Jangoikoaren gure bururako ez diran erabagi bildurgarriak alaxen dekretatu dualako. Zergatik asko pekatariak pekatu asko ta andiak parkatzen dizka, eta beste askori gitxigatik kastigatzen ditu? Zergatik askori zartzarora artian itxaoten diete, eta beste asko gaztetasunian kastigatzen ditu? Zergatik illerazi zituan Jangoikoak ogeita amar milla Israeldar zorigaztoko metalezko txekorra adoratu zebile[n]ak, eta parkatu zion Aaroon Sazerdote nagusiari, adorazio ura eragotzi biar izanik eragotzi bage utzi zuanari? *Judicia Dei abisus multa*, Jangoikoaren...

Zergatik parkatu zion arako Erregerik gezto eta eskandalosoenari, arako Manases deungiari, Amorreoen pekatu guztiak baño geiago bakarrik berak egin zituanari, eta erlijino santugiñokoa bere erritik erbestetu zuanari; eta kastigatu ditu ainbeste asko gutxiago egindakoak? *Judicia Dei...* Zergatik Pilatosek kastigatu zituzan eriotzagaz, illerazi zituzan Galileoarrak, eta arako Siloeko torreak azpian artu zituan emezortzi gizonak, galdetu zien Jesusek Dizipul[ul]ai, eta bizirik gelditu ziran beste asko? Uste dezue au dala, bizirik gelditu diranak obiagoak diralako? Ez, dirautse Jesusek Apostolul[ui]. *Sed ut manifestentur operadie*. Zergatik Ninibetarrai ez zien eman berrogei eguneko epea, terminua baño penitentzia egiteko, bitarte onetan biortzen ez baziran galtzeko ustiagaz, eta zuri ematen dizu ainbeste urtekoa? Zergatik Sodomatarrak erre zituben erri ta guzti beren Seigarrengo pekatu lotsagarriakgatik, eta zuri itxoten dizu ainbeste denporan? *Judicia Dei abisus multa*, Jangoikoaren gure gogorako ez diran erabagi bildurgarriak alaxen dekretatu dualako.

<sup>14</sup> Lehenengo atala gipuzkeraz idatzita dago.

<sup>15</sup> Geuk zuzenduta: *erremedu* > *erremedio*.

Zergatik Datan, Abiron eta Kore lurak bizirik iruntsi zituban beren nagusien kontra jaiki ziralako? Zergatik Absalon il zuan bere aitaren kontra jaiki zalako, eta zu anbeste bider jaikirik zure guraso eta beste nagusien kontra, zaukaz kastigatubagia? Zeñ zara zu onen ganian kontu Jangoikoari artzeko? S(a)n P(a)blogaz, J[e]rem[ilak esan leioke bere egiliari: Zergatik onelakoa egin nozu? Jangoikoen egiteak txuzenak dira eta gure buruko ez diran bildugarriak. Orregatik bildur santo bateaz beneratu itzazu Jangoikoen erabagiak, eta pekatuari bildur santo bat artu eiozu. Nork esan ziekian anbeste neskatz zure denporan beren dibertietik anbeste dantzarekin guztiak izarditurik etxera joan ta gau beratan konpesatzeko lekurik eman bage il ziranai, beren dantzatik anbeste pekatutik Jangoikoari kontu eman biar izatera etorriko zirala? Munduak, onelakoren bat gertatzen darian, bakit zer esaten duan. Bakit esaten duala barberuari deitu zioela, kuriari konpesatzeko, baña batek erratu zuala, kuria etxean ez zeguala. Baña ez, ez dirade one[e]k munduak kasualidadetzako ematen dituanak, ezpada Jangoikoaren erabagi bildugarriak. Beren dantzarekin, beren eskukakin eta beste onelako okasiotan izaten diran pekatuakin bete zeben neurria, eta atrapatu ditu Jangoikoen justiziak, eta negarrez daude betiko galduak.

Nork esango zion arako Goliat soberb[il]oari, Jangoiko eta bere erriaren tentagarri egiñik zebellenian, bere soberbiakaz, bere fantasiakaz, bere arrotasunaz pekatuan neurria beteko zuala, eta artzaintxo gazte Dabiden eskuetan bere indarrak eta bizitza galdutera etorriko zela, eta anbeste desgraziaz bere pekatuaz saria pagatzera etorriko zala? Eta nor[k] esan dizu zuri, mutil indartsu eta sendua, mundua desafiatzen beti adi zerana, zure inderrian esperantza ipinirik Jangoikoarekin konturik atera bage, gau ta gau erdi beñ errondan, beste bein desafioan, eta ez gitxitan Seigarrengoan sartuta zabiltzena, zure indarrak, zure desafioak, zure Seigarrengo atsegiñak azturik, laster pekatuen neurri bete ta eriotzak sepultura baten gorputza eta Infernuan anima ikusiko ez dezula? Iñor[k] esan dizu noiz artian biziko zeranik, edo noiz ilko zeranik? Oian gaixorik edo bideren batian konpesatzeko astirik bage ilko zeranik? Zergatik bada, egunen batian naiko dezuna eta orain egin dezakezuna ez egitiarrik, guztiori damaturik egon biarko dezuna ezaturik, geroko itxi bage orain egingo ez dezu? Añ burubagia izango zera? Jakinik eta zuri Jesusek esanik lapurra[k] gabian ustirik gitxien etxeoak duenian sartzen dabezala, ala zu bere eriotzak arrapatuko zaituala, egingo ez dezu? Zua de aurrera, ibilli zaite, pekatuan ondatu, Jangoikoaren abisuari burla eginzaiozu, gogortu zaite Faraon denporan bezela; eta Errege oni gertatu zitzaion bezela, noiz bitoriarik andiena artzia, orduan munduko gloria galdurik, bere exerzitu ta guzti, bizitza eta animak galtzia, ala zuri



bere gertatuko zaitzu arrotasunian Jangoikoen eskuak arrapatu-rik betiko humillaturik kondenatzia...

Noizbait ez zaizu allegatu zorionezko ordu bat kontuan eroriko zere-na, eta zure animako begiak idikirik, pekatuko okasio eta bideai utsirik Jangoikoenetan sartuko zerena? Zabilta dantza nastuetan erromerietan, konbit andiak eta are[e]n ondoren naiko besteko pekatuak egin zaizue; eta ekusiko dezue, arako Baltasarri gertatu zitzaiona gertatuko zaizu. Poz, olgura eta atseginenez beterik kastigu andiren bildurrik bage zeguan Baltasar Erregia anbeste dama bere gusto eta atsegiñak konplitzeko zeu-kazanen erdian, arako Nabuko bere aitak Jerusalemgo elixan kendu zituan baso sagraduetan guztiak edaten zebela. Baña orra non gitxien uste zuan denporan ekusi zuan, bere konbit aurreko orman esku bildur-garrizko batek sententzia arrigarizko bat eskribitzen zuala. Guztia larri-tzen da, eta bildurraz ikaturik eskritura artan zer sententzia zeguan ezin leiturik, baita anbat lasterren jakin nairik, deitzen dio Daniel Profeta-ri. Eta Profeta onek eskritura artan zer sententzia zeguan esan zionian, bere pekatuen neurria bete zala, bere pekatuak obra onak baño pisu geiago zeukela, eta bere egunak akabaturik egun artan galduko zala aditu zuanian, etzan izan gizon bat baño geiago; igara zitzaion konbit aurrenien erakutsi zuan poz ta atsegiña. Eta konbit ura negarrez desegi-ñik, etorri zan egun artan bere bizitza galdurik pekatuen saria betiko kondenazio artzera. Onela gelditu zan Baltasarren konbit atseginaz asia, eta onela geldituko dirade zuriak pekatuz asetzen asirik. Au izango da zure olguraren saria.

Munduko dantzak, erromeria eta konbitak beti ekarri oi due bigera-mu txarra. Konbit batian il zuan Dabiden seme Absalonek bere anaia Amon, eta etorri zitzaizkan Errege santu oni anbeste naigabe. Konbit batian il ziran Job Santuaren semiak. Konbit batian dekretatu zan Profeta-rik andienen eriotzako sententzia; bai, dantza batian ostian, dantzaren saria izan zan S(a)n Juan Bautistari lepua ebakirik, guztia odoldurik pos-tretzako plater batian presentatzia. Orregatik, dantza eta konbitetatik sekula ez da etorri gauza onik. Gurasoen negarrak, errietako eskandalu eta bazterretako zer esanak, nondik? Pekatuko okasinoetatik, dantzeta-tik, jolasetatik, batzar geztoetatik... O Jangoiko maitea, arren, zure gra-zia santuagaz erremedia itzatzu anbeste zure ofensa, kendu eiozu Dia-bruari eskubidea! Eta zubek pekatariak, zuben biotzak irazakerik Jauna-ren amodioz eta pekatuen gorrotoz, egiazko proposituz beterik guztiok negaturik ez lenago akordatzea, atozte Jaun[aren] oñetara...

Erromeria batian galdu zan Dina, eta andik etorri ziran anbeste erio-tza; eta erromerietan galtzen dira gaurko egunian anbeste neskati-lla.

Konbit batian il eben Profetarik andiena: dantza baten saritzako Erodesek presentatu zion Herodiasi S(a)n Juan Bautistaren burua guztia odol-durik postretzako maira. Konbit batian il eben Absalonek Amon bere anaia, eta jolas batian beñ baño gei[a]gotan ikusi daroe. Konbit batian il ziran Job Santuen seme-alabak. Eta komedia batian ikusi ziran Zaragozan gau baten erre ta illik anbeste milla anima. Eta zenbat anima galtzen ez dira?

(\*)<sup>16</sup> Nok esango eutsen Amos Profeta Santuak aitaututen dituzan pekatariak<sup>17</sup>, berak zirautsen pekatuak egitera bazetozan, ja etzala eurentzat geiago parkaziñorik izango eta betiko galduak lotuko ziriala? Bai, alantxe izan zan, eta alantxek esan eutsén<sup>18</sup> garbiro Jangoikoak Profeta onen bitartez. Iru pekatu parkatuko deusadaz, ziñoian, baña laugarrengou ezteutset ezelan bere parkatuko. Eta zegatik artetakoak bai, eta laugarrengorik ez? *Judicia Dei abisus multa*, deadar egiten dau S(a)n Basiliok: Jangoikoaren gure bururako eztirean erabagi bildurgarriak. Zegatik batzuei parketan deutse, eta bestiai ez? Eta biarbada izanik batzuenak okerrago ta andiagoak? Zegaitik il erañ zituzan ogeta amar milla Israeldar, arako zori gogorrezko metalezko zekorra<sup>19</sup> zinarduela, eta barriz parkatu eutsan Haroneri, zekorrau egiteko are[e]ji<sup>20</sup> eskubidea emon eutsenari? Zegaitik parkatu eutsan Manases Judeako Errege gezto anbeste eriotza gezto egin, Jangoikoen legia erri atatik kanporatu ebeneri? Eta guztia batean esatiarren, arako Errege gezto onen parian Amoreoen pekatu guztiak ezer izen ez ziranari? Zegatik kastigadu zituzan eriotziagaz Pilatosek illerazo zituzan Galileoarrak, eta Siloeko torreak zapaldu zituzan amazortzi gizonak, eta parkatu eutsen an egozan beste askori, izanik bizirik gelditu zirianak askoz geztoagoak ilda gelditu zirianak baño, Jesukristok ez ebaneti ikustsen dana legez? *Judicia Dei...* Zegatik Ninibetarrai ez eutsen emon berrogei eguneko epea baño pekatuen penitentzia egiteko, bitarte orretan egiten ez beben, uri ta guzti, erri ta guzti galduak izateko, eta zubei emoten deusue anbeste urtekoa?

Zegatik Sodomatarrak erre zituzan euren Seigarrengogaitik erri ta guzti, eta zuri anbeste urtian eskandaluan bizi zareana, añ pazientzia andiagaz itxoroten deus? Zegatik ondatu zituzan Datan, Abiron ta Kore lurak eta aoa Infernuak idigirik irunsi zituzan euren agintariaganako

<sup>16</sup> Atal horren buruan: *Viva Jesús, María y José. Sermón sobre el número de los pecados. Fr(ay) Juanes Ygnatius ab Astigarraga.*

<sup>17</sup> Ostean aldatuta: *erriai* > *pekatariak*.

<sup>18</sup> Horrela, tilde eta guzti.

<sup>19</sup> Ostean aldatuta: *zezen* > *zekorra*.

<sup>20</sup> Ostean erantsita.

deungaro esanagatik, eta zuri parkatu deutsu anbeste bider zure nago-siagoen kontra, zure gurasoen kontra, zure ugazabaren kontra eta Jangoikoaren kontra jaigirik? Zegaitik Absalon ta beste asko kastigau ditu, eta zuri parkatu deutsu? *Judicia Dei*... Bago zuben artian añ naberbenik, Jangoikoaren egite onen zer esan daukanik? Balego onelakorik, erantzungo deusat S(a)n Pablogaz: Nor zara zu Jangoikoari arpegi artuteko? J(e)remiak esan leio bere egilliari: Zegatik onelakoa egin nozu? Jangoikoen erabagiak artezak dira eta gure bururako ez dirian bildurgarriak.

Zenbat eta zenbat il oi dirian gure artia[n] deungaro pekatuen neurria beteta! Guztiz ederto ikusten da zeñ modutan betetan dan gure pekatuen neurria, Angeruak Zakariasi erakutsi eutsenetik adarra baten irudiagaz. Ikusi izango<sup>21</sup> dozue zelan erra(...) edo beste onelako ontziren bat...

(\*)<sup>22</sup> Ez uste izan, pekataria, Jangoikoa eginala guztia egitera obligata dagoala. Bada, Jangoikoak eginala guztiak egin biar balituz, zuk pekatu egin zenduan ordu berean il-da kondenaduko zenduzan; baña ez deutsu onelakorik egin, ezpada pazienzia andiagaz itxoron deutsu. Beragatik orañ artian itxoron deutsuna legez jazo lei gaur zuri bizitzia kendu ta galdutia. Zegaitik bada, añ...

Zegatik Goliat soberbioa bere indar andietan esperantza guztia ifinita eukana Jangoikoen erria azpiratuteko, humillau eban artzain gazte Dabiden oñetan, bere inderrak ta bizitzia galdurik, eta zuri parkatu deutsu, orangeñoko inder ta abilidadiak pekatuetan emonik? Zegatik Baltasar Erregia konbit batian betiko eriotzara kondenau eban, eta zuri anbeste konbitetako pekatuak orandio parkatu edo itxoroten deutsu? Zegatik arako neskatillia, arako damia dantza baten ondoan ezetarako lekurik emon bagarik il eban, eta zuri geiago eginik parkatu deutsu? Zegatik batik bestera batel batian ibai bat igorotzen anbeste gazte ireto zirian lotsagarrizko Seigarrengo nasteen ebiltzezanian, eta zuri anbeste parka[tu]...?

<sup>21</sup> Geuk zuzenduta: *izan izango > izango*.

<sup>22</sup> Atal horren buruan: *Colegio y 18 de febrero de 1825. Mi venerado S(eñ)or Rector. Muy Señor mío: Enterado de su última dem(a)nd(a), digo que con motivo de tener que pasar a Vitoria nuestro donado con el rocinante a por cera y otros efectos, será bueno que busque por esa una caballería que conduzca el cajón con su Santo Cristo y alguna otra poca de ropa.*

## [PEKATUEN OKASINOTIK URTEITEKO GOGO SANTUA]

Jesús, María y José

Posible balitz aurkitutia ain iturri on ta osasuntsua, iturriko ur au edatera elduten dirian guztijak euren gaixo ta gatx guztietatik garbituko litukezana, neure ustez ez litzateke aurkituko gaixorik iturri atako urak edatera joan gurako ez leukenik; eta ez bakarrik gureko leukinik, baita bere kostala guztira begira bage, ara eroan dagijela aginduko ez leukianik, jakinik ziertu osaturik geldituko dala. Ain estimagarrija da gorputzeko osasuna. Eta izanik gauza ziur ta dudagabia Sakramento Santuetara datozen gaixo guztijen osasuna, etorririk biar dirian dispozizino santuakin, gitxi dira ariman gaixotuak ur santua artutera datozenak, eta au doadoarik emonda bere. Ez jatzu bada, pekatarija, onetarako eskatuten dirurik, ez ondasun emon biarrik; ez dozu onetarako irago biar bide luze aldats neketsurik, ez itsas peliburuskorik irago biarrik. Baña orregatik bere, ze nagi onetara; egunerik egunera, asterik aстера, illerik illera au atzeratzen da. Ta asko dira urte luzeetan eldu bagarik dagozanak, eta beste asko ain Demoninoagandik itsutubak, ze munduaren esamenagatik, eze sekula elduko ez litzatekezanak; ta elduten dirian baktotxian elduko ez balira, obago egingo leukianak, zergatik osatu biarrian gaixotuagorik urteiten daben, ez eurek artuten doazen sakramentuaren ur santuak ez daukelako indarririk, ez bada doazalako prestakuntze onakaz, doazalako pekatuen okasinotik urteiteko gogo santu bage. (\*)<sup>1</sup>

Pekadari oraindio zure bizi guztijan pekatuan sarturik zagozana, erdu Jangoikoak bere Profeta Santuen aotik egiten deusun konbitera: egarri bazera ta siketurik bazagoz pekatuakaz, ur santuokaz zure arimako zauri guztijak garbitu ta freskaturik, bizitzako frutu santuak emotera. Bestela, galdua zera<sup>2</sup>. Elixako Santu, Te[ol]logu ta Jakintsurik g[el]ijenak dirauskue, diriala geijago Kristinauren artian kondenetan dirianak salbetan

---

<sup>1</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez ditugu eransketa hauek transkribatu: *Gutxi dira etorri nai duenak*. [Aurrerago:] *Eta batetik Fediak erakutsi ta zuek sinasturik neurri gabe estimagarrijagoa dala animako osasuna, bestetik ezauturik Sakramentoen iturriko ur santuak dirala birtute andikoak animako gaixo guztietatik osatuteko, ta onek darfoja emonik*.

<sup>2</sup> Ostean erantsitako esaldia.

dirianak baño. Eta one[el]n artian salbetan dirianak, geijen dira sarri konfesadu ta komulgatzen<sup>3</sup> dirianak, eta geijen kondenatzen dirianak, euren nagitasunez konfesatzia atzer[al]tzen daudienak. Orregatik, arratsalde onetan esango deusuet zelako dañuak dakazan konfe[sal]tzia atzeratuten daudienak, eta zelako kaltiak zeuen atxakijakaz atzeratuten dozuezanak. (\*)<sup>4</sup>.

Bai, K(ristinauak). Sakram(entu)ak artzia atzeratzen badozu, buru kondenatzeko peliburuan ifiniko dozu<sup>5</sup>. (Lelengokoa da arako betiko kondenatzeko ifinitzen duen peliburue, zeñetan geijenian elduten dirian onelakoak<sup>6</sup>), bada, geijenian onelakoak<sup>7</sup> pekatu mortal bagarik ez dira aurkituten. Nik dakidana da, onelakoak pekatuetan jausten diriala ta konfesatzera datozanian asko aiztuten jakeela. Urte guztijen birao ta maldizinoak egiteko ardura bagarik, jolaz desonestuak esan nai entzuteko bildur bagarik, gauzarik zikiñenetara irri ta barre egiten daudiela, ta gurasoak izanagatik, euren seme ta alabaren aurrian izanagatik, bere begijakaz dakusela bere seme-alabak... Ta orregatik ez dau begiratuten onetan falta egiten daudela; ta konfesatzera datorrenian, izango da bere seme ta alaba errijan zenbat eskandalu emoten daudiena, ta erantzuten dau gurasoen obligazinoakaz kunplietan dabela. Aita izango da etorre-ra deungakoa, exemplo txarra bere famelijari emoten deusena. Baña konfesetan justu bat billitzen, alabia urteak dakazan jai santuetan ibiliko da gox meza bat arinka entzun ta meza nagosi bitartian auzoko mutillakaz erodiana bat eginik luxurijan ondaturik; arratsaldean plazan eta bazterretan dantza nastu, jolas desonestuetan; gaubian idigiten dautsela ate edo bentania arako eguerdi artian edo arratsaldean berba emon dautsenari<sup>8</sup>, pekatuz bijak ase-ase egiten diriala gurasoak lo dagozan artian. Eta orregatik ez dago pekatuak bat bere; eta one[el]k guztijok sarri gurasoa konfesetan ez dalako, ta bere seme-alabak onetara biralduten ez dituezalako. Bada, alperrik, eze sarri konfesaduko balira alan gurasoak, baita bere bere umiak<sup>9</sup>... Kristinau[al]k, idigi begijak. Norako dozuez ustijak? Orre[el]k Zeruko bidiak? Infernuak ta are[el]k bere guztiz zabalak.

<sup>3</sup> Ostean aldatuta: *kondenatuten* > *komulgatzen*.

<sup>4</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Emendik ezagutuzazue gutxiten konfesatzen zeratenok nolako peliburuen jarririk zauden kondenatzeko*.

<sup>5</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>6</sup> Geuk zuzenduta: *zeñetan onelakoak geijenian elduten dirian onelakoak* > *zeñetan geijenian elduten dirian onelakoak*.

<sup>7</sup> Ostean erantsita.

<sup>8</sup> Geuk zuzenduta: *arratsaldean berba emon dautsenari berba* > *arratsaldean berba emon dautsenari*.

<sup>9</sup> Jatorrizkoan: *bume*.

Emetik doktrina faltia, zelako prestakuntzakin konfesetara eldu biar daben jakin ezeitia, dolore, propositu ta okasinoko gauzak kendu gabe konfesino geztoak egitia, euren pekatuaren ezaueria eskatzia izanik gauza biarra zelan prestau biar dan Sakramentoetarako<sup>10</sup>, eta alan elduten dirianian, datoz dolore ez propositu bagarik biarbada pekatu asko itxiten daudiela. Bada onelakoak, gauza agirija da ez deusiela eskatuten euren pekatuak ezaututeko grazijarik, ta izanik ain gauza biarra bere grazija bere pekatuak ezau[tu]teko, geldituten dira guztiz epel gusturik asmau bagarik Sakramentoetan dagozan ur santu ta gozuetan. Markantzio Jakintsuak esaten deusku, aurkiturik gizon gazte bat bein baten guztiz tentua<sup>11</sup> zana desonestidarearen bizijora, eskatu eutsela konfesore bateri konsejua andik aterateko, eta agindurik matrimonioko estadia artu leijala, eldu zan gizon gazte au estadu onetara; baña andik egun gitxi barruen, il jakon bere esposa, ta len legez aurkiturik ten[ta]zino betetarik peliburu andijan len baño bere pekatu geijago egiteko, joan zan<sup>12</sup> beste konfesore bategana bere pekatuak garbitu ta konseju barriak artzera, zeinek agindurik sarri konfesatu ta komulgetia, eginik onelan, gelditu zan bere biotzian sosegu andi bategaz, onelan bere tentazinoak kendurik<sup>13</sup>. Egizu zuk bere, gizon gaztea; artugizu indar, anima zaitez, zu tentazinoz ondaturik zagozana, ta Jangoikoak lagunduko deustu, ta aterako zara orrako pekatu zikin orretatik, zeñetan ondaturik zagozan Jangoikoaren arerijo eginik.

Madalena Santiak negar egiten eben, sepulturera joanik ez ebenian aurkitu bere Maisuaren gorputza; ta Santa andijonek onelan negar egiten beben uste ebelako soldaduak kendu izango ebela, zuk errazoa andijagoagaz negar egin deikezu, bada, ez bestek ezpada zeuk kenduten dozulako zeuganik Jangoikoa, atzeraturik Sakramento Santuak artetik, zeura nagitasun geztoa dala medijo. Eta orain, gaurrik aurrera sarri eldu zaitez, onelan lengo faltaren satisfazinoa emoten deutzazula, esaten deutzazula orain artian deungaro eldu zariela; ta gaur propositu artugizu, sarri ta ondo konfesaturik, bere gorputz santua zure amoriak Alta-

<sup>10</sup> Ostean aldatutako esaldia: *Bigarren dañua da gelditutia onelan konfesadu ta komulgetia atzeratuten daudienak, ezauera bagarik bere denpora guztijan > Emetik doktrina faltia, zelako prestakuntzakin konfesetara eldu biar daben jakin ezeitia, dolore, propositu ta okasinoko gauzak kendu gabe konfesino geztoak egitia, euren pekatuaren ezaueria eskatzia, izanik gauza biarra zelan prestau biar dan Sakramentoetarako.*

<sup>11</sup> Ostean zuzenduta: *tentu > tentua.*

<sup>12</sup> Ostean erantsita.

<sup>13</sup> Esaldi horren albo oharra: *Exemplo.*

rako Sakramentoan daukana artuteko, ta bere amodijoari amodijoagaz pagetan dautsazula onelan errezibidurik<sup>14</sup>.

Ez [el]gizu euki ixilik konfesadu bagarik pekatua, joan zaite sarri ondo konfe[se]tara<sup>15</sup>. Bestela, zugaz jazoko da arako gorputzian gaisorik egon ta denporaz osatutera joan ezagatik jazoten jakena: gaiso denpora luzekoagaz, argaldurik ije erremedioak non gorputz egin ta sustrairik ezarri ez eukirik, erremedioetan gastau, ta osasunik artu ezin ta iltzia. Auxe da arimeko gatxetan bere jazoten<sup>16</sup> dana. Baña anitz aldiz konfesatzeko atxakija faltatzen ez da<sup>17</sup>. Ezau[tu]ten daude euren artian: Urlija denpora edo egunian joango naz konfesetara. Dator egun au, orduan esaten daude: Au lan edo bestia dot eta au kendu dagidanian libre egongo naz, orduen bada, ez naz atzeratuko. Orduen bere ezta faltako atxakijeren bat edo adiskideren bategaz<sup>18</sup> egon biar dozula; beste egun bat izentetan dozu zure biotzian, eta onelan igoroten dira urtiak bein baño konfesadu bagarik. Ta bitartian eriotziak artzen badituz, orduan batetik kalenturiaren nekiak, bestetik eriotzaren bildurrak, emetik testamento egin biarrak; dolore bagarik, propositu bagarik egiten da erdi konfesino bat, eriotziak artu ta Infernura. Zertako dituzuz<sup>19</sup> orduan, munduan itxi zenduzen ondasunak, zure seme ta alabak ondo etxaguntze andijetan ifinijak, biarbada are[elk] ondo ifiniteko arrastaka ibili munduan zure arimaren akordu bage urtian bein konfesetan ziñala, berian deungaro, orrela betiko galdu bazara? Are[elk] aterako zaituez andik? Arek pagauko dituz zure tratuetan deungaro irabazijak? Oi ze itsutasuna onena! Esangidazu: nor da arako personia urte oso batek dituzen iruraun ta irurogeta bost egunian egonik kalenturiagaz bakarrik egun baten osasun osoa artuko dabena, ona izan arren bere berari emoten deutesen erremedioja? Ez dakit, inor ez neure ustez. Eta zuk, egonik urte osoan anbeste arimako gaxogaz, egun baten gure dozu pekatuaren kalenturak kendu, indar andijakaz gelditu, pekatu egin ezpazendun legez? Ezta kit. Andija Sakramentoen indarra, ez dago gatxik berak osatu ez leikianik. Baña lengo grina geztoak indar andija egiten dabe; geitxuago egin-

<sup>14</sup> Atal horretako albo oharra: *Goixian jaigiten zeranian, altxazaiozu zure biotza Jalijnkoari.*

<sup>15</sup> Ostein erantsitako esaldia.

<sup>16</sup> Geuk zuzenduta: *jozetan > jazoten.*

<sup>17</sup> Ostein erantsitako esaldia.

<sup>18</sup> Geuk zuzenduta: *adiskiderembategaz > adiskideren bategaz.*

<sup>19</sup> Idem: *ditukozuz > dituzuz.*

da bere, zer egin dago. Orregatik kontu sarri konfesadu ta komulgetia-gaz. (\*)<sup>20</sup>

Bada, sarri ta ondo konfesetan bazara, senalle ziertu Zerurako zarena. Eta onelan, Sakramento Santuetara urreratzen dirianen glorija oraindio andijago izango dala asko martiruen<sup>21</sup> baño, dirausku Maria Jesus Agredako beneragarriak. Eta biziko zara bildur santu baten sarturik, zeinñetan geijenian pekatu bagarik bizi oi dirian onelakoak. Au<sup>22</sup> zeuek bere esaten dozue, itenduten deusuenian onelakoren bategatik<sup>23</sup>: Urlilja] gizon santu ta exenplo oneko bat da. Eta obeto jakin dagizuen, esan biar dautsuet oraindio eztodala aurkitu pekatariik len deungaro bizi izan zanik, sarri konfesadu ta komulgetara eldu badira, kostunbre geztotik urten ez dabenik; eta au ez beste konsejugez ez naz balijetan, anbeste pekatari miserijan sartuak aurkituten dodazanak aterateko euren pekatuen kattia geztotetik. Eta onelakoak nozbait argalak legez jausten badira pekatuen baten<sup>24</sup>, bildurtu ta negaturik datoz euren pekatuen beneno guztija sakramentoan garbitu ta sendatutera. Baña arako pekatuan sarturik denpora luzian konfesatu bagarik dabiltezanak, gogorturik arduara bagarik bizi dira; ta konfesetara nozbait elduten badira, arrija legez elduten dira dolore bagarik, eta pekatuan gogorturik eriotziak artu ta kondenetara joan oi dira. Eta onezaz ganera, beste modutan purgatorif[ol]an sarturik zure lengo pekatuakgatik pagauko dozuz; konsueloz beterik zeure biotzian biziko zara emen munduan, ta bestian zorionekoa eternidade batian. (\*)<sup>25</sup>

Baña sarri konfesadu ta komulgetako esaten bajatzue, atxakija franko ez da zuentzako falta izaten. Baten, jauna, esan daroa, anbeste lanetan sarturik nago ta ezin nekike. Eta esangidazu, zure arimako salbazioaren lanak ez dau izan biar lelangokoak? Gaisotuten bazara edo auxiren bat badozu, ez dozu onetarako denpora ta astija, ez dautsazu beste batera emoten zeure etxeko lan ta gauza guztijaren kargua. Alabaren bat<sup>26</sup>

<sup>20</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez ditugu eransketa hauek transkribatu: *Onelakoak beti dira proposituginan, ta beti ausitzen*. [Aurrerago:] *Onelako egunian joango naiz; baña ez da elduten egun ura*. [Aurrerago:] *Anitz aldiz konfesatu ta komulgatzen (< komekatzen) bazera, zugandik pekatua urrutik ibiliko da*.

<sup>21</sup> Geuk zuzenduta: *marteruena > martiruen*.

<sup>22</sup> Jatorrizkoan: *Hau*.

<sup>23</sup> Geuk zuzenduta: *onelakorenbategatik > onelakoren bategatik*.

<sup>24</sup> Idem: *pekatuenbaten > pekatuen baten*.

<sup>25</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Experentziak aditzen ematen digu: arako gizon ta emakuma illian-illian konfesatzeko arduara duenak geijenero pekatu mortal gabe bizi dira; ta nozbait argalak bezala erortzen badira, negaturik beingoan datoz konfesatzera*.

<sup>26</sup> Geuk zuzenduta: *Alabarenbat > Alabaren bat*.



ezkonduten badozu, ez dozu artuten ondo pensetako astija? Bai, jauna. Bada, guzurra ta a bere andija da konfesetako sarrijago denporarik ez dozula. Jauna, dino bestiak, ni kanpotikoa naz, legoa bat edo biko errikoa. Eta etzara zu urtian asko aldiz joaten urlija errira ta festetara? Bada, munduarentzako billatuten dozu denporia, ta ez arimiarentzat? Eta zegatik? Ez dozuleko laztan, munduko olgurak naijago dozuzela arimako zorionak baño. Jauna, dino bestiak, nire uezabak edo uezabandriak ez daust emoten denporarik sarri konfesetako. Ai ze... ta falso testimoninok eregiten dautsuezan batzuetan onelakoak zue! Bada, nire ustez, gixi dira uezabak euren otsainai sarri konfesatzera etorten ez deutsenak itxi nai. Eta, zuek uezabak, onelakoak bazaree, uste izanik lan asko denporatan egingo leuskizuela, eta biarbada esaten dautsezuela orretara soldata galanta pagetan dautsezuela, jakingizue ezin lanik egun orretan erañ zinaijoela; ta uste badozu zuri egiten deutsuela, bildur bagarik asi ditezala, beste alde bateti eurek kenduko deutsue zure kamarako artogarije, kenduko deutsue zapata, pañuelo ta garriteko. Ta orrelan Jangoiok zure kodizija kastigatuko dau. (\*)<sup>27</sup>

Baña bakit neuk, aurkituten diriala guraso ta uezaba asko esaten dautsienak euren alaba ta otsaiñai: orrenbeste pekatu daukezue, bai pekaturik asko bere dozue. Baña one[elk] dira Demonioa baño<sup>28</sup> bere deungakoak, euren exenplo geztoagaz demonioak euren lazu guztijakaz baño gerra geijago egiten deutsienak. Esangidazu: sarri konfesetako, konfesino batetik bestera peka[tu] barrijak egin biar diriala uste dozue? Nor da arako gaixo-jagolia, medikuak agindu daben<sup>29</sup> erremedioa gaixoari emoteko il artian emongo ez deutsena? Zuk jaten badozu, au egiten dozue, il etzaitian; ta konfesetan bazara, konfesetan arimako bizitzia artuteko len ilde bazagoz, eta pekatuen ez bazagoz, bizitzarako indar barrijak artzeko.

Jauna, dino bestiak, ez nendun ezer aurretuten sar[ri] konfesaduagatik, ta itxi neuntsan. Baña ori da tentazino geztoa zeinegaz engañetan zaituzen. Ez dozue nozbait esaten<sup>30</sup> persona argalen bat ikusten dozue-nian, ez dakit Urlijak zer jaten daben, Jesus, ain galdua? Eta asiko ez jan ez edan ezer bere egitera, jaten<sup>31</sup> dabenak lodituten ez dabelako,

<sup>27</sup> Atal horretako albo oharrak: *Baña bestiak?* [Aurrerago:] *Eta maizago konfesatzeko agintzen bazaie? Atxakija frankuak izaten dira.*

<sup>28</sup> Geuk zuzenduta: *baña > baño.*

<sup>29</sup> Idem: *aginduen daben > agindu daben.*

<sup>30</sup> Ostein zuzenduta: *entzun > esan > esaten.*

<sup>31</sup> Idem: *jan > jaten.*

etzaunkie esango burutik parau dala? Etzeuskijo esango: gizona, janak lodituten ezpazaituz bere, gitxienez bizitzia emoten deutsu; etzaitez izen zoroa, jangizu, ezpabere, eriotzaren sententzija dozu? Bada, zu Sakramentuen mantenimentuagaz ez bazara ariman ainbeste lodituten zeinde beste asko, orregatik jagoten zaituz pekatuetarik, zeintzuek artutiari itxi bazeuskijo, pekatuen ilgo zinatekez...

Zu mutil gazte, zu neskatxa zara pensamentu desonestuak gerra andija egiten deitsuena, zoaz, kofn]fesore on bat billatugizu, erakutsigiozu zeure biotz guztija, konfesatu zaite sarri, bestela, beti ibiliko zara katia gezto orren azpija[n].

#### [HASIERAKO ERANSKETA]

##### DOCTRINA SOBRE LA FRECUENCIA DE LOS SACRAMENTOS

Emetik dator zuen doktrina falta guztija, zelako prestakuntzakin konfesetara eldu biar dozuen jakin bage zuen bizi guztijan ustia, examina, dolore, propositu egijazko bagarik ez okasiotik atera gabe anbeste konfesio ta komunio pekatuz beteriko egitia. Ordu erdi baten Jangoikoari bere pekatu andijaren ezaueria emon, erregututen ez ifinitia; beste kristinau askok gauza santuai artzen dautsen amudijorik ez erakutzia, eta alan epeldurik ur epela legez, ez on ez deungarako egotia, epeltasun onetan eriotziak artu ta galdutia. Bai, Kristi(nau)ak; onelan, sarri konfesadu bagarik bizi zaree pensamentu guztijai lekua emoten deutsezuela, berai gerra egin biarrian, ongi etorri izan zaitezala zeuen biotzian esaten deutsezuela, eta estadu arturik zeu[e]n lagunaz, beste pensamentuai bere ostatua emonik. Bai, Kristinauak; alperrik estadia artuko dozue zuen aragijaren mobi[me]ntuak kentzeko ustijagaz, bada, orrela kostunbretan bazare, an bere pekatuak franku egingo dozuez. Markantzio.

Bai, pekatari pekatuan [on]daturik zabiltzena ta bere Sakramento Santuak artzia despreziatu dozuna; entzun biarko dozu arako sententzija betiko demoniakaz batera Infernuan sartuko zaituzena. Onetarako etorriko dira Jesukristoren Iturri Santu ta Odol Sagradua injuriatzen dabenak. Jauna, ez dilla orrelakorik gertatu, ez dagijela nai izan orrelakorik Ja(ngoiko)ak. Jangoikoak gura dau zu salbetia, baña gure dau bere Berak zu salbetako itxi zituzan erremedioakaz balijatu zaitezana. Zer da zuk onetarako egiten dozuna? Salbetako bide ona da bere Izen Santua arrastaka lurrian giñerra zar bat legez erabillitia? Bide ona da osasun, diru ta denporia, auzi, inbidija, gorrotolan] bizitia, injuriya parkatu nai izan ezeitia, ez berbarik egin nai izatia? Bide ona da luxuriya, dantza, komedija, banidade ta modetan denpora emotia urte guztijan, ta arima-

ko zauri andijak garbituteko Sakramentoakgaz inoz ez balijau ezeitia?  
(\*)<sup>32</sup>

O mundutarren itsumen andija! Ez, K(ristinauak), one[e]k dira zuzen  
Infernura eroango zaituzenak. Gura dozu salbadu? Garbitugizuz Sakra-  
mento(...)...

---

<sup>32</sup> Atal horretako albo oharrak: *Antes de Markantzio*. [Aurrerago:] *Goixian-goixian  
altxazaijozu zure [bi]ltza, itxi lengo bidiai*.

## [JANGOIKO ERRUKIORRA]

*Misericordiae Domini, quia non sumus consumpti.* Lam. 3, 22

Alperrik gizonaren entendimento laburrak alegiñak egin naiko ditu ezaututeko noragiñokoa<sup>1</sup> izan aleitekian<sup>2</sup> Jaunaren miserikordia, ezingo da gorputz ilkor onetan dagoan artian etorri au biar dan legez ezaututera, esaten deusku S(a)n Lorenzo Justinianok. Eta benetan, nok erakutsiteko Jaunaren ontasuna, ordu ta instante guztietan, ez bakarrik justuai, baita bere pekatariak anbeste mesederekin konbidetan dituana, onak zorionez beterik eta gaiztoak kastiguz bildurturik, guztiak baxotza bere jakituriaren bideetati beraganatuteko artuten dabena? Zer da au guztiau besterik, ezpada esatia ez dabela nai pekatarien eriotzea, ezpada Jaunagana biorturik zalbadu nai izatia? Miserikordia andia izan Jangoikoak bere Israelgo erriarekin egin ebana, arako bere pekatu andiatatik Sodoma legez erreta al izanik, bere miserikordiagaz<sup>3</sup>, justiziari itxirik, Babiloniara kautibo eroanik, da bere pekatuak ezautu erein eta salbaziñoko bidian ipinitzeko<sup>4</sup>. Orregaitik, Israelek miserikordiau ezauturik bedein katuten dau Jangoikoa, esaten dabela: Zure miserikordiari eskerrak, Jauna, betiko galdu ez gozuzelako. *Misericordiae Domini quia non sumus consu(m)pti.* Bada, guk<sup>5</sup> ondo mereziduko kautiberioko kastigu onekin ezauturik gure bide erratuak, guztiok zure mandamentuetatik urten da galduko giñan erremedio bage, salbau gozuz. Au berau da, pekataria, Elexa Ama Santiak zurekin eg[i]ñ nai dabena: ezautu ereinik<sup>6</sup> zure pekatuakgaitik antzinatik, gure izan baleu Jangoikoak galduko zenduzala; ezauturik bere zureganako erruki eta miserikordia, pekatuko bideai itxirik, salbaziñoko bideetara biortu zatezan.

<sup>1</sup> Ostean zuzenduta: *noginokoa* > *noraginokoa*.

<sup>2</sup> Geuk zuzenduta: *alleitekean* > *aleitekean*.

<sup>3</sup> Idem: *miserikordiaagaz* > *miserikordiagaz*.

<sup>4</sup> Ostean zuzenduta: *Sodoma legez erreta guztia betiko galtzeko zorian ipinirik, bere miserikordiagaz* (< *miserikordiaagaz*), *justiziari itxirik, Babiloniara kautibo eroanik, bere pekatuak ezautu erein eta salbaziñoko bidian ipini ebana* > *Sodoma legez erreta al izanik, bere miserikordiagaz, justiziari itxirik, Babiloniara kautibo eroanik, da bere pekatuak ezautu erein eta salbaziñoko bidian ipinitzeko*.

<sup>5</sup> Idem: *guri* > *guk*.

<sup>6</sup> Idem: *ezauturik* > *ezautu ereinik*.

Ezpabere, esan egidazu pekataria, zuk egiñeko pekatu andiagatik ez infernu bat, baita bere asko merezidu izanik, nori zor deutzazu oraindik munduan eta salbaziñoko bidian<sup>7</sup> egotiarri, ezpada Jangoikoen erruki eta miserikordia andiari? Zegaitik bere justiziak anbeste kondenaunik, zu etzaitu kondenaunik anbeste bider merezidu izanik? *Quia non defecerunt miserationes ejus*. Bere zureganako miserikordia oraindio agortu ez dalako. Ai pekataria, eta ondo ezautuko bazendu, ez bakarrik galdu ez-zaituala, zuk ondo merezidurik, baita bere anbeste grazia biraldutzen deitsula beraganatuteko, amodioz urturik geldituko ziñateke! Pekataria, zer grazia andiagorik biraldu aleikezu, gaur Elexa Ama Santiak misaño santu onen bidez opa deitsuna baño, zure bide erratuak emendatu eta gloriako bidian ipiniteko? Noiz biarbada itsutuagoturik eta zure pekatuen sarea betiko galdu biar zaituenak ezarriten<sup>8</sup> zabilizan, orduen zuri, beste denpora baten bere Israelgo erriari legez, errukiturik<sup>9</sup> biralduten deitsu misino santuko grazia; eta grazionegaz baliau biarrian, Jaunaren deietara burliagaz erantzuten<sup>10</sup> badiozu, Jangoiko bere Berba Santuaren bengadore arrigarriak zure agotik juzgauko zaitu. *Sermo quen locutus sum ille iudicabit eum*.

Eskritura Santuak egiteonen irudi eder bat emoten deusku. Eta da, gure izanik Ezekias Erregiak biortu bere erreinura pekatuakaz otzituta egoan Jangoikoaganako amodio eta bere Lege Santuari zetorkion errespetoa, agindu eban egiteko Israel guztian misinoak. Eta prestaurik sazerdotiak onetarako euren doktrinakaz, zabaldu zirian Judeako erreinuko<sup>11</sup> erri<sup>12</sup> guztietatik, errege santo onek agindu ebana lez. Kale ta plaza, eta kantoiak, guztiak pulpitu biorturik, antz andiko boz eta berbaone[kaz]<sup>13</sup> dirautse: Zetan pentsetan dozue, Israelgo semiak? Ea, biortu zaitze zuben bide geztotetik zuben Jangoikoagana; sobra bide geztotai jarraitu deitsazube. Pekatu orren bideetan gogortu etzaiten, bildurra artugizue. Zuben gurasoak Jangoikoagandik anbeste milagroen bidez artu eben Lege Santura, arren, aiñbat lasterren biortu zaitzeze. Zuben gurasoak zorioneko egin zituben Jangoikoen agindubai obedidugiozue. Zuben pekatuko lizenziaz aztutera etorri zaren miserikordiaren gomutera (pentsamentua)<sup>14</sup> biortu zaitzeze. Aztu jatzue zeñ ona eta errukiorra dan?

<sup>7</sup> Geuk zuzenduta: *bidiean* > *bidian*.

<sup>8</sup> Ostein aldatuta: *ipinillen* > *ezarriten*.

<sup>9</sup> Ostein erantsita.

<sup>10</sup> Ostein zuzenduta: *erantzunik* > *erantzuten*.

<sup>11</sup> Idem: *erreinura* > *erreinuko*.

<sup>12</sup> Ostein aldatuta: *uri* > *erri*.

<sup>13</sup> Ostein zuzenduta: *berbakaz* > *berbaone[kaz]*.

<sup>14</sup> Kakook geureak dira.

Ondo gomutatugizue zelan anbeste milagroren poderioz atera zituben zuben gurasoak Faraon Egiptoko errege gogorren mendetik, zuben aitaren arerioak itsasoan ondaturik, zuben gurasoak, milagroez oñik busti bage igarorik, desiartuen Zer[ul]tiko ogiagaz mantendurik, eta beste ezin kontala milagrotik. Ara emen Israelgo erriari bere misionistak predikadu eutsena. Onelan, Jangoikoen gloria eta euren proximuen oñian biotzak berotu [ta] urturik, Jangoikoen erruki eta justiziaren zagitakin urraturik ango pekatarien biotzak, Israel guztiak<sup>15</sup> atenziñoz entzuten eutseen. Baña, zer izan euren frutua? Askok, Jangoikoen berba onen euri santuagaz euren biotzak busti eta bigundurik, joan zirian Jerusalenera boto santuak, ofrenda eta sakripizioak opa izatera. Baña beste askok, zer egin eben? Biarbada emen zagozen asko ta askok egingo dozuena: atenziño gitxigaz entzun eta Jangoikoen partez misiño[l]ste arefe[k] esaten eutsezan berbaetara burla ta barre egin. Alan izan bere euren saria. Bada, errukiturik Jangoikoa, pekatuak ezaturik, negarrez Jerusalemgo elexara joan ziranakaz, salbadu ziran; eta burla ta barre egin ebenak, pekatuen gogorturik kondenadu ziran. Au da zubetako askorekin jazoko dana.

O Jangoiko errukiorra, zure miseriakordia neurribagiari, arren, onelakorik gerta ez dakiola! Ze sentimentua ez litzateke izango<sup>16</sup> arako pekatariena, itxiko balitu Jangoikoak añ eskubide andiz, idigi nai izanik Zeruko atiak, zuben gaiztakeriaz itxiko bazenduez? Ze desgrazia zubena, gogorturik zuben biotzak bere deietara, agortuko bazenduez bere miseriakordiarene iturriak, zuben pekatuen zauriak<sup>17</sup> osatuteko asko bestekoak? Anbeste urteko pulpitu eta konpesonarioko exerzizioak erakutsia<sup>18</sup> nago asko arime galtzen diriala, m(undua)n<sup>19</sup> bizi oi dirialako euren arime eta Jangoikoagaz azturik, pekatuen ekanduetan ondaturik, salbetako beste doktrina, erri eta famelie ez gitxitan<sup>20</sup>, jakin ezeitiagatik, anbeste guraso ardurabageko, ume<sup>21</sup> desobediente, gazte lotsabageko<sup>22</sup> bazterrak beterik<sup>23</sup>, biraoz, blasfemiaz, indezentekeria, atrebimentu, inbidia eta gorrotoz guztia unditurik. Ez da ikusten pobreetan humildaderik. Guazan pobreetara eta ez dogu ikusiko soberbia ez besterik; aberatsan

<sup>15</sup> Ostein zuzenduta: *guztiak* > *Israel guztiak*.

<sup>16</sup> Idem: *ez da izango* > *ez litzateke izango*.

<sup>17</sup> Ostein ezabatuta: *zauriak eta geiago* > *zauriak*.

<sup>18</sup> Ostein zuzenduta: *erakutsita* > *erakutsia*.

<sup>19</sup> Ostein erantsita.

<sup>20</sup> Ostein zuzenduta: *famelieta* > *famelie ez gitxitan*.

<sup>21</sup> Jatorrizkoan: *bume*.

<sup>22</sup> Geuk zuzenduta: *lotsabagezkoz* > *lotsabagekoz*.

<sup>23</sup> Ostein zuzenduta: *beterik* > *bazterrak beterik*.

biotzeko gogortasuna, kudizia eta tratu bidebagekoa, ondasun deungaroro irabazia ez besterik; ezkonduen artian amodio faltia, bizitza geztoa, eskandalua eta Infernu bizia. Onelan dakust, N(eure) K(ristinaua)k, gaur mundu guztia, Zeruko bidetik erratu eta prisako galtzaibideko pauso arinetatik birtuteren errasturik bage, pekatu ta bizioz betia; ez modu obia-goan, Jeremias Santuak añ galdua ikusirik negar andiak mundutarren galdu biarragaz egin zituania baño.

Zegatik uste dozue ikusten dogula gaur mundua añ galdua, pekatuzko Babilonia biortua? Da Elexa Ama Santari zuben gatzak osatuteko beste biar dirian erremedioak falta izanagatik<sup>24</sup>? Edo zuben gatzakeriaz aseraturik, zubez betiko Jangoikoak galdu nai izanagatik? Ez, Kristinauak; andiak badira bere zuben beraganako pekatuak, ez dira bere errai bigunak zubezganako orañdik gogortu. Iñoz baño prest dago gaur Jangoikoa zuben pekatuakaz aztu eta bakiak eginik zubez salbetako; iñoz baño ugariagoko konbit miserikordiazkoagaz deituten deustube. Dago beste askoren artian zuben pekatuakaz fedia otzitu, esperantzia epeldurik, Jangoikoen agindurik santuenegiñokoak bide batez legez arturik, bere deirik santuenetara sentiduen kapaz ez dirian kriaturak legez, arriak eta atxak legez gogorturik, Jangoikoen Berbaren euririk andi eta santuenak zuben biotzetara igoro bagarik, bustiten bazare bere, azalatik barruraino igoro bagarik geldit[ut]en zareelako, arako Israeldarrak Jangoikoen mesedeetara esker geztokoak legez gelditu zareelako.

O mundu alde guztietati galdua! O pekatari Jaunaren deitara gortuta bizi zareanak eta biarbada iñok irazartuterik ere nai ez dozuenak, zeñ peliburusoia eta negargarria zuben estadia! Zer uste dezue egin aleikia-la Jangoikoak añ estadi negargarrizkotik atera eta salbetako? Biraldu deustuz kastiguak zure pekatuen sariak diriala ezaututeko asko bestekoak, uste izanik emendatuko zareala; baño ez emendatu, ezpada, gaizto-agoturik erremediau nai izan zaituen medikuen kontra jaigi zara. Jerusalemarrak euren pekatuen sarirako Babilonian ezautu beben bere, zure miserikordiari Jaunak eskerrak pekatuan galtzen itxi ez deuskuzalako esanik, gloria eta alabantzak kantetara obligadu bazituan bere, kontrara erantzun deustue gaurko Kristinauak, Jerusalemarrak baño zugandik maitiagoak, zure odolaren sariak amodioz errerik añ prezio karuan erosiak.

Pekataria, munduko Babilonian pekatuen kautibo zagozana, begiratu egizu Israelitak Egipton baño kautiboago negarrezko balle onetan bizi

---

<sup>24</sup> Idem: *Da Elix A Ama Santari faltau (...) jakozelako zuben gatzak osatuteko biar dirian erremedioak? > Da Elix A Ama Santari zuben gatzak osatuteko beste biar dirian erremedioak falta izanagatik?*

zareala, eta munduko<sup>25</sup> desiertuti Israeldarrak euren errira bide egiten ebena legez, Gloriako errirako bidian bizi zareala. Ondo begiratugizu zure pausuak badira edo ez Gloriarako, edo Infernurakoak izan badira. Jarri zaitea konsideraziño onetan, eta damaturik zure bideak erratuak izan diriala, negar egingizu Babiloniako ibai barrenetan, Israeldar kautiboak Jerusalem akordaugaz egiten eben legez. Orrako zure buruari geiago nai izatia zure salbazinoari baño; orrako kudizia anbeste jolas zure onestidadiaren lazuak ifeni deutzazunak, musika, konbit, komedia eta beste anbeste pekatu bideak dira Babiloniako ibaiak, non desterraturik zure arimia Jerusalem Zerukoti, kautibo ifini<sup>26</sup> dozun zure a[ri]mi[a] tristia betiko galduteko zorian. Munduko glorian eta zuben buruen estimaziñoen billa zabiltenak, Zeruko bidetatik erraturik begiratugizue zeñ igarakorrak eta denpora gitxikoak dirian, zetan gelditu ziran Alexandro, Dario eta beste munduko konkistadore guztienak: guztiak igaro ziran. Ai K(ristinau)ak! Añ burubagiak izango gara, anbeste nekatuko gara, prometidu baña emon ez egiten d[el]uskuzan gauzakgaitik?

Munduko aberatsak anbeste neke-susturekin irabazi zituben onda[s]lunetan, zer billatu dabe eriotzan, anbeste urtian kudizia eta bani[da]ldeko lo gogorretik irazartute-orduan? Zer probetxu atera dabe arako limosnaren bidetik Zeruko atiak idigi erain biarrian, pekatuko bidiak Jangoikoen opensarako enpleau ez dituela ezaututean? Zer egin zan arako Ebanjelioko aberatsagaz, urte luzeetako ondasunak zituala, atsegiñez beterik kontuak ateretan egoan denporan? A zoroa, a burubagia! Zertako dituk ondasun orrefelk, gaur Infernuan ikusiko baaz? Zer beste asko onen lagun pobreentzako biotz gogorrekoagaz? Zer balioko deute<sup>27</sup> bere deungaro irabazi eta deunga gastaduko diruak? Entzun S(a)n Pablori: aberats izan gura dabenak, diño, tentaziñoan jausi oi diriala eta Diabrue[n] lazu geztoan. Arako Tobias Santua, torre altu bateko elaien abiati jausiriko loiak itsutu ebena legez, alantxe ondasunak itsutu daro ez aberastasanak, justuen begietan sats loi pizka baño geiago ez dirianak. Zuk pekataria, munduko interesen inbidiak itsutu zaituana, osatu gura dozu<sup>28</sup>? Arako angeruak argia Tobiaseri emoteko artu eban erremedioa artugizu. Arraiñ andi baten biotzeko beaztunagaz igotzirik osatu zan, angeruak esan eutsana legez; alan zuk bere munduko aberats andien biotzeko beaztunera begiratu.

<sup>25</sup> Ostein aldatuta: *bide > munduko*.

<sup>26</sup> Alternantzia: *ifeni / ifini*.

<sup>27</sup> Horrela, tilde eta guzti.

<sup>28</sup> Ostein zuzenduta: *Zuk pekataria, munduko interesen inbidiak zaroazana, osatu gure bado[zu]? > Zuk pekataria, munduko interesen inbidiak itsutu zaituana, osatu gura dozu?*



Galdetu munduko amadoriai, inoz billatu badue anbeste antsiakin topatzen gauzaetan satisfazio osorik; eta erantzungo deutseet S(a)n Agustin eta Dabid Profeta Erregiaz, ezetz besterik, beste gauzarik engañua ez bada. Azaletik gustuaren irudia, baña biotzian, beti min ematen deutesen beaztuna. Gustu da, asko mundutarrentzat, gorputza burdinaz edo kortsez estuturik Diabruaren martiri eginik erabilitia; gusto gau batian axe, inontz eta leien bein gaubak igorotia, Seigarrengo Mandamentuak eragotziten daben gusto bategaitik. Baña munduak gustutzat kontetan dituben gauza one[e]k, berez begiraturik, neke andi batzuk besterik ez dira.

#### [HASIERAKO ERANSKETA]

Pekataria izan Madalenia, eta ez bakarrik pekataria, baita bere S(a)n Bizente Ferrerek esaten deuskuneti, amabi urtian eskandaluan bizi izanik Jerusalem guztiari pekaturako bidea emon eutsana; baña izan zan<sup>29</sup> beretzako miserikordia. Ikusirik bere aizta Martak añ bizitza galduan bizi zala, errukiturik bizimodo obeago batera biortu zeitian gure izanik, konbidau eban Jesukristoren sermoi batera<sup>30</sup>; eta lagundurik<sup>31</sup>, entzun zituban<sup>32</sup> Jesusen aotik pekatuak arimiari dakarriozan kaltiak, Juizioaren gogortasuna eta betiko penaren tormentua, munduaren desengañua. Erakutsi eban zeñ maitegarria dan Jangoikoa, bere ontasuna eta miserikordia neurribagia, beti pekatariak pekatuak negarturik joan gure beben, besoak zabalik pakiak egiteko topauko ebela. Jesusen berbak Madaleniarentzako izan zirian zagita bizi batzuk, bere biotza ebagirik amodiozko<sup>33</sup> su bizian sartu ebenak<sup>34</sup>. Bai, Madalena; eguzkiaren berotasunak leia bigundu oi daben<sup>35</sup> baño bigunagoturik Jesusen berbak zure biotza, ondo urtu zinian, eta Jesusen amodioan urturik zure biotz guztia, negar egiten zenduan konsuelorik bage. E[st]ali<sup>36</sup> zure mantua-gaz arpegia satisfaziño geiagoz negar egiteko, eta akabadurik sermoia, karra etsera, ondo luze etsera artegiñokoa egiten jatzula, gorroto santu

<sup>29</sup> Osteen aldatuta: *eban > zan*.

<sup>30</sup> Osteen zuzenduta: *Jesukristok egin biar eban sermoi batera > Jesukristoren sermoi batera*.

<sup>31</sup> Osteen ezabatuta: *eta lagundurik sermoiara > eta lagundurik*.

<sup>32</sup> Osteen zuzenduta: *zeban > zituban*.

<sup>33</sup> Osteen ezabatuta: *negarre[z] amodiozko su bizian > amodiozko zu bizian*.

<sup>34</sup> Geuk zuzenduta: *ebana > ebenak*.

<sup>35</sup> Osteen aldatuta: *eban > oi daben*.

<sup>36</sup> Osteen zuzenduta: *el[st]alirik > el[st]ali*.

bateaz zure gala<sup>37</sup>, eleztun eder eta gorputzaren apañgarri guztiak, anbeste arima galtzeko izan zirian sarea geztoak.

Emen negar egiten dau, ezin aspertu da, ez dago nok konsuelorik emongo deutsan. Ai Magdalena, zer da zuk egin dozuna! Zer zure arimiagaz, zer zure Jangoikoagaz! Guztia galdu zara, Zeruko Aitaren arerio egin zara! Zer zugaz izango da? Posible izango zan añ itsuba, añ eskerbagekoa izango ziñala? Zure senide guztien afrentagarria, zer esperetan dozu? Jang(oiko)a galdu dezu, Lurrak bere ganian eukitia merezi ez dozu. Ez geiago pekatu<sup>38</sup>. Baña, nok lenetatik erremediatuko nau<sup>39</sup>?

Emen Madaleniak, erremedioa gurarik, negar egiten dau, eta bere pekatuak deskonfiantza andia emon gure bade[ultse bere, neure Aita da, diño, nik openditu dodana. Berak esan dau miserikordian neurribagia dala. Billatuko dot. Baña, non? Neure Jangoiko maitea, non topauko zaitu nire arimiak? Erakutsi dozu non topau al zinaikedan? *Indica michi ubi cubes in meridie?* Kalle, plaza ta kantoietatik billatuko dot non aurkitu al naiketan. Farisioen etxean konbidadu dagoala dirautse; ara joango naz, eta bere oñetara etxunik, parkatu artian jaigiko ez naz. O Magdalena pekatari nagien lotsagarri santia! Bere oñetan etxuten da erakutsi dagion zelan emendatu bere bizitza galduko pausu erratuak. Jesusen oñ santuak negarragaz bustitzen ditu, bere ezpanakaz laztandu eta artian anbesteren pekatuak izan zan ulle ederreko sareagaz sikatu. Emen Madaleniak, ez berbiagaz bai negarragaz, dirautso Jesuseri: Non dira, Jauna, zure antzinako miserikordiak? Ara emen, Jauna, zeñ okasino ederra datorkizun pekatari onegaz usetako. Erratu badot, negar, suspirio eta sentimentuagaz konpesetan dot. Galduen bidia, gaixo[e]n osasuna zara; osatu nagizu, zure bide santuan ipini nagizu, ez naz jaigiko parkatu artian. Au da Magdalena Santiaren oraziñoa parkatua eguala entzun artekoa. Bere begiakaz (pekatu egin ebenak, bere negarrakaz garbituten ditu); bere ulliagaz, bere ezpan ta beste guz[ti]akaz pekatu egin beban, guztiakaz balietan garbituteko egin zituban pekatuak.

Zelan ez eben Jesusen biotz errukiorra bigunduko onenbeste negar, suspirio eta sentimentuagaz? O penitenziaren ispillu ederra! Parkatuak dira zure pekatuak, dirautso Jesusek. O berba gozo eta graziosoak Zeruan Angeruak poztuten dituzunak! Arako Maab Jerikoko enbragaldua, kordelarekin mural[lati] pekatuak etxera asko sartu zituana, beste kordel batekin Josuen espiak Jerikoko urian murallatik libre atera zitualako ango sutatik salbadu ebana legez, alan Magdalena bere peka-

<sup>37</sup> Ostein ezabatuta: *gala guztiak > gala*.

<sup>38</sup> Ostein ezabatutako esaldia.

<sup>39</sup> Idem.

tuetarako izan zituben instrumentuakin penitentzia egiñik, bere pekatuen parkazinoa eta salbazinoa merezidu izan eban. Zorionekoa arako eguna, ordua eta instantia zuk, Madalena, pekatuari itxi zeuntsana.

Zuk, Madalena, loitu badozu bere zure gorputza anbeste gustu-atseginegaz, zoaz bakian, parkatu guztiori; bada, nik zure gustu-atseginen penea pozik, zure amodioz, nere gorputzian anbeste azoterekin pagauko dot. Zuk esku eta oñak zurituten zenduzan eurakaz pekatu egiteko; baña zoaz pakian, nik zure pekatuen zorrerako pozik esku ta oñak Kurtze gogor baten josiko ditut, dirauts[o] Jesusek. Zuk oi bigun eta ederrian zure pekatuak abija geztoan kontentuz lo egiten izan dezu; zoaz, parkatua zagoz, nik Kuretze gogorreko oi estuan<sup>40</sup> esku-oñak josirik, pagauko ditut pozik zuk pekatuko oi bigun orretan merezi izan dozu zen penak eta zorra. O amodio neurribagia! O miserikordia ezin esanezkoa, Jesus, biotzekoa zuria!

Zugaz pekataria, anbeste urtian pekatuko oian lo egin dozuna, dau Jesus maite onek, gustu badozu Madalenaren exenplora irazartu. Jarraitu badeutsazu pekatuan, jarraitugiozu negarrian. Nor da añ biotz gogorrekoa, zorioneko Madalenaren suspirioak eta Jesusen beraganako miserikordiak bigunduko ez debena? Eta one[elk] guztiok gitxi badira, erdu Jesusek Kuretze onetatik egiten deutsun konbitera: beronen llagak, zauriak eta beste gorputz zauritu onetan dakutsuzan ikusgarri negargarrikoak, konbidetan zaitue.

---

<sup>40</sup> Ostean aldatuta: *bigun* > *estuan*.

## [PEKATUAN IL ETA BETIKO GALDUAK GELDITU EZ GAITEZAN]

Errukiturik Daniel Profetia anbeste bere errien ganeko kastigu, gerra ta miseriaz, ezaturik azote guzti one[elk] ziriala erriko pekatuen sariak, guztia Jangoikoen amodioan urturik erregututen eutsan Jangoikoari, esaten eutsala: Entzungizuz, Jauna, gure erregu eta suplikak; alderatugizu, Jauna, zure aserria, begiratu egiguzu begi errukitsuakaz. Ez luzetu, gure<sup>1</sup> Jangoikoa, zure amodioagatik gure kastigua. Begiratugizu zuria dala erriau eta zuriak guztiok garijala, eta zuriak izatia onra anditzat daukagula; alderatugizu gugandik zure aserria, erakutsigiozu zure errukia eta kendu beragandik zure kastigua.

Profeta Santu onek ezaturik bere erria anbeste kastigu eta azoteren bean<sup>2</sup> ifini ebana etzala besterik pekatuen saria baño, guztia sentimenez beterik añ modutan negar egiten beban, Jangoiko eta bere erriaren bitarteko ipinirik, ez dogu guk gitxiago negar egin biar, ikusirik gure erria denpora onetan orduan Jangoikoarena kautibo egon zanian baño. Are[elk]<sup>3</sup> Jangoikoaren Legia ausi ebelako, bere Mandamentuak ostikopian sartu zituelako, anbeste estura eta larrian ipini zituan Jangoikoak berak ipini gaitu gu bere, Jangoikoaren agindu santuetatik urterik pekatu eta libertadekoetara igaro garijalako. Zegatik bada, ezaturik pekatuak anbeste azote ekarri deuskuela, azoteau guganik kendu ereiteko erakutsiko ez deusaguz aren sentimentuak? Zegatik ez dogu autortuko guriak diriala erruak, onelan ezautu eta negar eginik, pekatuak itxirik Jangoikoak bere eskua altzau dagigun eta pekatuakgaitik galdu doguzan munduko eta arimako zorionetara biortu gagizen? Anbeste estututen gaituezan gerrak, gure gorpetzeko gatzak, haziendan izan doguzen kaltiak, fameliako sentimento eta desfortuna guztiak izanik gure pekatuen sariak, Jangoikoagana biortu biarrian estura onetatik libradu gagizela, ezarri gure deusaguz auzo baten inbidiari eta beste Jangoikoak gure pekatuak kastigetako eregi dituzan jente edo denpora txarrai; baña ezegaitik bere egiari, geure pekatuak: ez orrako anbeste urtian aragi biortuta daukaguzan ekandu gezto[ali], ez anbeste konfesiño ta komunino sakrilegiozko-ri, ez orrako etse ta famelietako anbeste eskandaluri. Eta oneek ez bes-

<sup>1</sup> Ostein aldatuta: *zure* > *gure*.

<sup>2</sup> Ostein zuzenduta: *bein* > *bean*.

<sup>3</sup> Geuk zuzenduta: *Are[eli]* > *Are[elk]*.

terik ez izanik anbeste gu eta gure erria estuten daben azotia, onelakotan begiratu bere gure ez dogu, eta geugan dagoan gatxa besteri ezarri-rik, kendu biarrian bizitza obiagoagaz, Jangoikoagana biorturik, erraz kenduak giñaien kalte eta azotia, egunerik eta egunera gogortuagorik, kastigu geiagorako lanak eta Jangoikoak betiko azutera obligetan gaituanak besterik egiten ez dogu.

Zegaitik ikusten ditugu anbeste erlijioen kontra jaigiriko gizon? Siñasturik zuk erlijioan, berak aginduten deusuna egiten ez dozulako. Jaijeginak ondo gordetan ez dozuzalako; orduan ozta meza bat entzunik, goixian ta arratsaldian, baita gaubian, pekatu ez beste gauzarik egiten ez dalako. Zegatik elexatan anbeste errespeto falta? Zegaitik sazerdoteren kontra aiñ persekuziño andia? Gure artian bere birtute gitxi eta falta asko ikusten dalako. Anbeste negar ereiten deuskun iturrija, anbeste fede falta, erreboluzino, odol-botate guztia, ez da besterik pekatua ezpada. Jangoikoa aserratuta daukagu, bere aginduak ostikopean sartu doguz, ez beste modutan Jangoikoen Erri Israelgoak denpora batean legez baño; eta beragaitik onduten ez bagera, bildur izan biar gara are[eli] jazo jakena jazo ez dakigun, Jangoiko eta bere erlijio guztia guri kendurik beste erreinu batera ero[an] ez dakigun. Pekatuan il eta betiko galduak gelditu ez gaitezan.

Baña begiratuten da pekatua gatx guztien artian andiena dala? Pekatuak Jangoikoaganik apartetan gaituala? Artuten deusagu biar dausagun legezko bildurrik? Iges egiten dogu bere pelliburu eta okasinoetatik? Siñastu gure dogu betiko zorigaiztoko egiten gaituala? Esperantza guztiak kenduten deuskuzala? Ez graziarik, ez Zerurik, ez salbaziñorik zer itxoron isten ez deuskula? Pekatuan ilten bagara miserikordiarik ezin izen giñaiela? Maria Santisimiaren errukitik, Santuen laguntzetik, Elexa Amaren bere Semiagazko sufragiotik, Jesukristoren odol santuen frutu eta merezimentu guztietatik alderatu betiko egiten gaituela? Eta beti-betiko bizitzako libruko asientutik gure izenak kendurik, eriotzako libruen betiko negar egiteko ifinten gaituela? Zeruko herenziatik deseredadu, Infernuko auzo eta Diabruaren lagun eginik, betiko arrabia, desperaziñoa eta ez beste fruturik, ez saririk emoten ez deuskula?

Au da, Kristinauak, pekatuen saria. Eta orregaitik bere, egunian anbeste bider edateko ura egarri zareanen legez zubek ikusirik, alde egin dagizuela esaten bajatzue, burla ta barre eginik, gustu-atsegin pekatuzkoetan arraña uretan legez ikusirik, zar, gazte, libre, ezkondu, pobre, aberats, ofizio eta estadu guztikoak, asko fede bagarik erlijioen izpirik bage, baneriaz itsuturik obligaziño guztiak azturik, emetik ondo begiratu ze erentzia, ze zorion izan zinaien pekatu orren saritzako; eta bildur- tu zeñ zuben suertia betiko negarra, betiko ulua, betiko suspirio eta

garraxia izen ez dedin. Baña oni bildurrik artuten jako? Pekatuak zorigaiztoko egiten gaituala pentsetan da? Jesukristo gugaz aztuten dala, Aita errukitsutik Juez aserre biortute[n] dogula siñastu gure da?

Geienian pekatuan bizi dana pekatuan il oi dala. Zelako bizitzia, alal-koa eriotzia izango dala dirauskue egiak; pekatua igoroten dala, baña pekatariak betiko iraungo dabela fediak dirausku. Baña, zenbatek betiko zorioneko izatiazko<sup>4</sup> bidiai itxirik, zorigaiztokoai jarraitzen ez deutse? Pekatuan iltiak zorion guztietatik pekatariak agur ereinik, zorigaizto guztietan ifiniten ditu. Mundu guztia pekatuan ondaturik, prisako betiko galdu gurarik euren zoriona, aragien gustu-atsegin, kodizia, gorroto, gerra bizi baten alkar il gurarik, alkar jan gurarik, alkarren odolagaz eskuak bustirik dakusgu; munduko andiak pobriak azpiratu gurarik, pobriak arefelkaz bardindu gurarik, sazerdotegiño koetan falta ez gitxi, guztiak bakotxa bere estadian pekatuak, laztana, birtute, santidade eta Jangoikoa baño dakusguz. Zer dago zer miraritu munduau añ galdurik pekatuan gogorturik, ikusirik Jangoikoa añ aserre gure kontra egotiaz? Kastigu bildurgarria, baña guztiz justua Jaunarena geure bizker ganian dakusgu. Alde guztietati Jangoikoa añ aserre guk ikusirik, eukiko dogu biotzik aurrera onelan biziteko eta beste prestaera geiago bagarik erioziari itxoteko?

Zuk pekataria, onelakorik jazo ez dakizun gure ez dozu, orregaitik pekatuan eriotza aurrera artian biziteko bildurrik ez dozu; orduan penitentzia egingo dozula, orduan pekatuari itxiko deutzazula diñozu. Bizitziari itxitera zoazanian bizitzia ondu gure izatia, erioztara artian pekatuari itxi gure es izatia dala zuk ondo dakizu; eta au ez besterik pekatuan il ta galduak izango dirianen seña lia dala jakinda egon zaitez. Judasek bere ezautu eban bere pekatua erioztako orduan; Antioko erregiak negar andiak egiten zituban, promes andiak Jangoikoari egiten eutsezan. Baña biak kondenau zirian. Jauna, ez dau gure Jangoikoak pekataria pekatuan il dedin, ezpada beragana biortu ta salba dedin. Zegatik bada, gure ez dozu biortu beragana, itxi pekatuak eta artu bizitza barri bat, zeñ dan Jangoikoak gura dabena eta zuk biar dozuna? Zetako da Jangoikoak gure izatia eta zuri onetarako graziak biraldutia, zure gaiztakeriak aurrera eroan gura badozuz? Salba zaitez graziak one[e]k biralduten deutzuz, baña zuk eurekaz baliu gure ez da aurrera bazoaz, Jangoikoak gure dabenen kontra, zeuriagaz urtengo dozu. Jangoikoaren borondate salbetakoen kontra kondenauko zara.

---

<sup>4</sup> Zalantzakkoa.

Ez da asko Jangoikoak gure izatia, geuk bere gure<sup>5</sup> izan biar dogu, eta onetarako pausuak emon biar doguz. Ez da asko artoa eta garia artuteko nekazaliak gure izatia, onezaz ganetik lanak egin biar dira: izardia bota biar da, azia erein biar da. Asi zaitez zu bere Zerurako lanak egiten: nekatu zaite lengo pekatuen arantza eta sariak zure biotzetik kenduten, konpesiño santu baten bidez ereigizu zure animan salbaziñoko azia, eta [alurrera ondo jorraturik pekatuen bedarrak biotzetik ateraten izarditu zaite. Eta arako nekazaliak artu oi daben legez, alan zuk bere.

---

<sup>5</sup> Ostein erantsita.

## [INDULJENZIAK]

*Venite ad me omnes qui laboratis, et onerati estis, et ego reficiam vos.*

Mt. 11, 28

Arako mundua iñoz baño galduagorik egoanian, pekatuben laño beltzak besterik ikusten etzanean, birtute ta santidade guztiz erbesteturik, justu gitxi batzuk bestiak, kudizia, gorroto ta gaztakeria baño ikusten etzanean, pekatu onen zaurietatik<sup>1</sup> osatu biar zituben erremedioz azturik; ez eskatu, ez billatu ta añ gitxi onetarako gogorik ere ez ebe-nian, ikusirik (Aita Zerukoak) erremedio bage galdutera joazala, (euren galdu biarren lastimaz errukiturik) noixik noixera biraldu zituzan Profeta Santuak, euren bizitza santo, milagro ta predikazinoagaz gorde<sup>2</sup> zitezen Jangoikoen ezauerara eta salbazinoko bidean<sup>3</sup>. Baña ikusirik Profeta Santuen bidez biralduko erremedio guztiak gitxi ziriala, gure galdu biarrezko lastimaz errukiturik biraldu eban bere Seme bakar maitia, erakutsiten euskula<sup>4</sup> zelan (mundu onetako) ukatu biar ginian munduko gustu-atsegin eta deseo loietara, eta bizitza garbi ta santuen bidez irabazi biar genduala bere etorrera santuen frutua betiko gloria, zeñetarako egin genduzan. Bere predikazioren itzak Jangoikoen Semerenak lezkoak, ao biko ezpatak legez pekatarien biotzak urratzekoak, bere amodioa damuturik etozenentzako anbestekoa, (ze besoak zabalik, biotza samurturik aitarik onenen bere semiaganako lezkoa).

Eta pekatuz beterik egonagatik iñok esperantzarik galdu zeleen, pregoi jeneral bat bota eban, konbidetan dituzela erraiak zabalik: Pekatuen kateapeetan zagozenok, erdue nigana, nik urratuko deutsubedaz kateorre[elk, nik osatu pekatuen zauriorre[elk. Entzun zan munduan Jesusen<sup>5</sup> predikaziñoko<sup>6</sup> pregoe santuau, zabaldu zan mundu guztitik bere Apostoloen bidez; jausi zirian (gizonak artian) enemigoari opatu edo eskiñitzen eutsezan tenplo ta altareak, eregi Jangoikoari oraziñoko

<sup>1</sup> Ostein zuzenduta: *zauriak* > *zaurietatik*.

<sup>2</sup> Ostein aldatuta: *etorri* > *gorde*.

<sup>3</sup> Ostein zuzenduta: *bidera* > *bidean*.

<sup>4</sup> Ondo lotzerik izan ez dugula eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Arteko Profetak erakutsi euskun baño moral santuagoa, birtute piñag[ola*.

<sup>5</sup> Ostein erantsita.

<sup>6</sup> Ostein zuzenduta: *predikaziño onen* > *predikaziñoko*.



etxe santuak, eta azpiraturik Infernua Zeruak bitoria irabazi eban, anbeste santoren odolaáz<sup>7</sup> aberastuten zala. Anbeste zorion Jangoikoaren Semiak bere etorre[ra] santuagaz irabazi beuskazan ere, izanik añbeste-koa gizonaren argaltasuna eta añ andiak okasiño ta tentazinoak, etorri zan gizonau barrien barri bere Jesusegandik arturiko fede ta karidadian otzitutera; bete zan lurra lengo modura pekatuz ta maliziaz, inbidia, kudizia ta Seigarrengoz; faltau zan doktrina ta exemploa umeetan<sup>8</sup>, geitu<sup>9</sup> malizia gazteen artian, zarrai jarraitu eutsen sepulturaño eskandalo ta pekatuak. Eta Lege Santu guztien kateak urraturik, etorri zan Jesusen Esposa Elexa Ama Santia edertasuna galdurik, lutuz beterik, alargundurik eta bakarturik legez gelditutera. Baña Jangoikoaren ontasuna gizonag(...) neurribag[ial], orañdio bere etorri zan errukitutera, eta biraldu dituz<sup>10</sup> gizon santuak Zerutiko doez betiak, erlijiño santuen fundadoriak, zelan Elexako nezesidadiak eskatu, alan erremedioak biralduen deutsezala lengo edertasunera biortzeko, euren bizitza ta milagroakaz Jesusek erein eben fedia eta karidadia biztuteko eta bere bidez erriak Zeruko bidian ipinteko. Eta onetarako beti, edo geifelnian, baliau da ez munduak<sup>11</sup> antzekotzat daukazan gizonakaz, ezpada instrumenturik bajue-nakaz, obetuago ezautua izan dedin biralduen ditubenen gloria ta anditasuna, ondo erakutsi ebena legez arrantzalle pobre batzuekin mundua Infernuagaz batera benzitu ebenian. Eta zorionez Jangoikoak gure merezimento bage, (eta bai palta askogaz,) onetarako artu gaituben ezkerro, beragan esperantzia ipinirik eta guri palta jakan guztia Berak beteko dabela esperantzaturik, asiko gera Apostoluen antzera predikaziñoen sarea pekatarien gañera biraltzera eta Jaunaren izenian pekatuen egon leitekezan guztiak graziako sare onetan atrapetara.

Ondo dakigu, Jesus maitia, baliau zaitekiala gu baño instrumentu obiakoagaz. Orregatik bere, gure ezerezian bere begi santuak ipini dituzen ezkerro iñoren ederrikusiarri begiratu bage, guztiai bardin berba egingo deusagu: zar ta gazte, gizon nai emakume, erraseru batetik guztiok igaroko zaituguz; bada, onetarako etorri gera erri noble onetara, alan gure izanik bertako kabildu beneragarriak, justiziako jaun prestu eta auzo noble ta onraduak. Eldu zan arako Jangoikoak erri onetako eta inguruetakoz galdurik gaur pekatuan dagozanentzako miseriakordiazko

<sup>7</sup> Horrela, tilde eta guzti.

<sup>8</sup> Ondo lotzerik izan ez dugula eta, ez dugu eransketa hau trankribatu: *Faltau zan doktrina ta exemploa humeetan > ikusi zan umetan.*

<sup>9</sup> Ostein aldatuta: *aurreratu > geitu.*

<sup>10</sup> Geuk zuzenduta: *biraldituz > biraldu dituz.*

<sup>11</sup> Ostein erantsita: *ez munduak antzekotzat daukazan gizonakaz > baliau da ez munduak antzekotzat daukazan gizonakaz.*

denporia<sup>12</sup>. Beragaitik ez bildurtu, ezpada poz santu batek artu biar ditzuz zuben biotzak. Gatoz bada, len ondo bizi zarienoi indar barriak artu ereitera, birtuteko bidian lenez ganera sendatutera. Mutil eta neskatille gazte on zarenoi, gurasoen obedientziari jarraiturik, okasiño peliburuzkoai alde eginik, gaztetasuneko mintegian Jangoikoen landara santu eginik, Jangoikoak zor deustuben estaduban erri santu bat izan zaitien. Gatoz guraso onak, zuben umiak<sup>13</sup> ondo aziten dozubenoiz Zeruko zorionak opa izatera.

Bakit bere erri onetan eta inguruetan izango diriala, Jangoikoz azturik, pekatuz beterik bizi diran pekatari galduak. Bakit onele[tarik] asko Jangoiko biotz samurrekoari, justizia utsagaz miserikordia bagarik begiraturen deusten pekatariak izango diriala; eta esperantza guztia galdurik, Kainek denporan legez, desesperadurik esango dabenak, andiangoak diriala euren pekatuak Jangoikoak bere miserikordiaz gatzatu aleike[z]anak b[añ]o. (...) galdurik dagozan pekatariak, bada, esan biar deu(...) bakarrik eurek gatzatu Jangoikoaren Tribunal miserikordiazkoan berba egin dala eta eurek betiko galdu ez ditezen amodioz, misino santuau erri onetara biraldu dabela<sup>14</sup>; ekusirik aspaldiko urteetan euren biotzera biralduriko dei guztiak euren pekatuetatik libretako asko ez diriala, eta beti gaurrik bijarko atzeratuten izan dabela, euren pekatuen neurria bete ta galdu ditezen lenago ondu ditezentzat biraldu gaitubela. Eta dirausku eurek galdu ez ditezen pena andi bat dabela, eta alan gaxo nekatuak artu oi dirian errukiz deitu ta artu dagiguzela; Zeruko mediku santuen partez esan dezagula etzala etorri Zerutik Lurrera justuen billa, pekatari galduen baño, Artzain Zeruko Jesus maitia ardi galduen billa etorri zala. Ardi galduak, pekatuen aspaldian ernegauta Zeruko bidetik igeska ibilli zirianak, poztu zaitez: Zeruko artaldi santura sarzkeko zorionezko ordua eldu jatzue.

Askori pekatuak bidia emon deutsezuenak, iñoren ondasunak gieraturik aspaldian daukezuezanak, au da zuben bakiak egiteko denporia. Guraso ardurabagekoak Zerurako Jangoikoak emoniko umiak<sup>15</sup> pekatuak dozuezanok<sup>16</sup>, ez galdu esperantzarik: bide orre[le]i itxirik, lenak damaturik etorri gure badozue, ez dago pekatuak garbitu ezin

<sup>12</sup> Ostean ezabatuta: *Eldu zan arako denporia Jangoikoak erri onetako eta inguruetak galdurik gaur pekatuan dagozanentzako miserikordiazko denporia > Eldu zan arako Jangoikoak erri onetako eta inguruetak galdurik gaur pekatuan dagozanentzako miserikordiazko denporia.*

<sup>13</sup> Jatorrizkoan: *hume*.

<sup>14</sup> Ostean aldatuta: *gaitu > dabela*.

<sup>15</sup> Ikus 13. oharra.

<sup>16</sup> Ostean zuzenduta: *dozuenok > dozuezanok*.

ziñainenik. Zer miserikordia andiagorik au baño? Eta zeñ izango da bere miserikordiazko deietara ukatuko dana? Esan egidazu. Subak artuko baleu zure auzoko etsia lo gogorrian bertakoak dagozala, eta iñok ez irazartutiagatik guztiak erreko balira etxiagaz batera, baita suau aurrera igarorik zu bizi zarian etxera, lo gogorrian zagozala, erre etzaiten amodioz auzoko bat etorriko balitxatzu irazartuten, esaten deutsula: Urlia, arren, laster gara, bestela galdua zara; egongo ziñatekez soseguz oian, bestiaren deiari begiratu bage, erretako zorian? Ezétz<sup>17</sup> diraustezu. Bada, jakinda egon zaite zure auzoko asko, zure adiskide ta lagunak, aspaldiko urteetan su Infernukoak pekatuaren lozorroan artu ta erre ditubela; eta subau zure etxera bere igororik, pekatuen lozorroan zu egonik erretako zorian, datorkizu misiño santua amudioz pekatuaren lozorrotik irazartuten, su Infernukoak artu ta erre zaizen baño lenago. Eta zu izango zara, deionetara irazartu ezeitiagatik, añ itsuba galdu gurako dozuna? Ez, pekataria, ez; ez, arren, orrelakorik. O zenbat zugaz batera pekatuan ibilli zir[ia]nak biar bada galdu dirian, eta zuri miserikord(...) deusun!

Orain Jesusek galdu etzaitian amodioz egiten deusun deira erantzuten ezpadozu, zure arimako etxia aspaldian pekatuen lozorroan dagoana Jangoikoen justiziaren subak artu ta erre deitianian esango deustazu. Aspaldian pekatuan zagozana, zen begira zagoz, bada? Entzun dozu gogoz ez dagoala pekatuak andiak izanagatik parkatuko ez danik, au dala Jangoikoak izentaduko denporia aspaldian ixillik konpesau bage daukazuzan pekatuak konpesau ta garbituteko. Eta dakizu bere, beste erri askotan zu besteko pekatariak, eta biarbada andiangoak, guztiak garbitu ta konsueloz gelditu diriala. Zegatik guk ez dogu sinastu biar erri onefeltakoetan onenbeste frutu? Eskueutsiagokoa izango dala, beste erri batzuetan baño miserikordian, sinastu biar al dogu? Ez orrelakorik, arren, pekatari biotzekoak. Ez deusagu egin biar kalterik bere miserikordiari. Errai bigunetakoa da Jangoikoa, alan erakutsiten deusku bere Eskritura Santuko milla lekutan; eta askogaz luzetu ezeitiarrik, ipiniko deusuet Jesukristok berak S(a)n Lukasen bidez erakutsiten deuskun aita onen Seme Galduagazko<sup>18</sup> iduria.

Jesukristok Ebanjelista santu onen bidez dirausku aita batek seme bi izan zitubela, eta gazteenak senipartia eskatu eutsala. Aitak, biotzeko penaz izan bazan bere, emon biar izan eutsan senipartia. Eta seme onek arturik ondasun seniparteko andiak, erri asagoetara iges egin ebela, non lagun geztoakin baturik luxuria ta zantarkeria guztietan galdu zituzen.

<sup>17</sup> Ik. 7. oh.

<sup>18</sup> Geuk zuzenduta: *Semegaldauagazko* > *Seme Galduagazko*.

Apenas seme galdu onek seniparteko ondasun guztiak galdu zitubene-ko, orra non erri atan gose andi bat sartu zan eta gosez ilteko zorian geratu zan, barre ta burla egiten eutsela len dirua ondo eukanian ondo esaten eutsen guztiak. Baita, gosez iltiari gogor eretxirik, uazaba zerbie-tan joan zan. Eta ugazaba onek, lanik egiten ez ekielako laguñekoak zañduten biraldu eban. Añ ondo ta gurariz beterik bere aitaren etxian bizi izan seme galdu oni, neke andia egiten jakon gosiak illik laguñeko-ak zainduten bizi biar izatia; bada, anbestekoa zan bere gosia eze, ondo pozik jango zituben laguñekoak ateretan zituben sustrai ta anabakak. Baña au bere ezin egin iz[an] eban, zoliago bera baño ebiltzelako lagu-ñekoak. Añ ondo aziko seme galduau anbeste miseriaz beterik ikusi zanian, noxbait kontuan jausi zan eta bere artian penaz ta sentimentuz esaten eban: Zenbat alogerekok nire aitaren etxian ogia gura ezik isten daben, eta orra ni etxeko semia gosiak il biar nau erri asagoetan! Ondo ezaututen dot erruak guztiak neuriak diriala; gomutian daukadaz, aitak iges egitean niri esaneko berbak, baita ez dodala merezi aitaren aurrera joatia, zerren sentimento andiak eman diodazan. Orregatik bere, ezau-tzen dot zeñ errai bigunetakoa dan nire aita. Jaigiko naz, bada, eta joan-go naz aitaren aurrera, esango deusat ez dodala semeren izenik mere-zitzen; orregatik bere, semia legez ezpada ere, esango deusat, arren, alogerekotzat<sup>19</sup> legez artu naiela.

Pentsamentu onegaz urteiten deu Seme Galdua[k] aitaren etserako, eta etse ingurura eldu zaneke aitak ikusi ta ezautu ebenian, arinka urten eben semeau artutera. Baita semiak, Aitaren oñetan auspaz etxunik, guz-tia negarrez dirautso: Aita, pekatu egin dot Zeruauren aurrian zure kon-tra. Eta aitak semia alan ikusirik, dirautso: Erdu ene semia. Eta esku bategaz altzetan lagun eginik eta bestiagaz laztandurik, dirautso: Erdu ene semia etxera. Eta apenas etxian sartu zan, otseinai dei egiten deu-tse, esaten deusela: Agudo, ekarrigiozuez seme oni jantzirik onenak, zapatarik barrienak; ipinijozue eleztuna bere atzamarran, apañdugizue, eta txalik gizenen bat ekarririk ilgizue. Poztu gaitian, bada, semiau il zan ta biztu da, galdu zan ta agertu da.

Onenbeste pozez atsegindurik ebillela aita Seme Galdu ta otsaiña-kaz, agertuten da bere semerik zarrena, etseko erederua, zeñek lanen batetik etorri biar eban, eta arako anbeste bulla asmau ebanian, kanpo-ko aldetik etsera bage gelditu zan, jakin artian bere etsian zer ete ebi-llen. E[ta] orra alako batian non agertzen dan ots[aiñ] (...) dirautsa(...): Urlia, zer da gurian orrenbeste bullarako? Otsañak erederuari: Ez daki-

<sup>19</sup> Ostean zuzenduta: *alogerkotzat* > *alogerekotzat*.

zu zer jazoten dan? Zure anaia etsegaltzalle desond[rag]larria agertu da, eta anbesteko izan da zure aitak artu daben poza eze, agertu daneko arinka joan da besoak zabalik artutera; eta ekarri etsera agindu deusku jantzi dagigula, apañdu eleztunagaz eta txalik gizenen bategaz<sup>20</sup> fiesta andi bat dagigula, eta fiesta onetan gagoz. Onetara erederuak: Ori egin dau nire aitak? Bai, bestiak erantzun eutsan. Eta mukerrak arturik, barrura sartu nai ezik kanpotik gelditu zan. Eta au aitak jakinik, kanpora urtenda dirautso: Zer da, ene semia, kanpotik barrura sartu nai ezik egiten dozuna? Orduan semiak: Beti nik etseko ardura guztiak izan ditut, neke ta trabajuak, otz eta beroak, orregatik bere, ez deustazu iñoz emon lagunakaz meriendetako bildostxu bat bere; eta zure seme nire anaije<sup>21</sup> etsegaltzallia agertu<sup>22</sup> daneko, ez bakarrik jantzi ta apañdu, baita bere txalik gizenenegaz fiesta andie egiten dozu? Ez naz, bada, etxera sartuko. Orduan aitak begiak eta biotza negarrez zitubala: Ai nere semia, zu beti izan zera neria! Nere gauzak orañ artian legez, aurrerantzian ere zuretzat izango dirade guztiak; baña, zer nai dezu nik besterik egitia nere seme zure anaiagaz? Zure anaia da nere semia; konbeni da zu poztzia galduta egoan anaia bat artzian. Erdu barrura; zure gauzak orañ artian legez, aurrerantzian bere izango dire zuriak. Onela biotza samurturik, ekarri eban etxera, eta guztiak atseginez zelebradu eben fiestau. Eta zer uste dozue onegaz Jesusek esan gure deuskula? Pekataririk andienen bat onduten danian, Aita Zerukoagana doianian guztia damurturik, aurrerantzian obiago izateko deseoz Zeruan Jesukristok Angeruekin batera artzen duen poza.

Zu, bada, pekataria, aspaldian Seme [Galdua] legez bizi izan zara, eta orañ kontuan jausirik b(...).

Lau dire misino onetan irabazi aleikezan induljenziak, eta one[elk] dira: lelengokoa irabaziten da misinoko edozeñbere egunetan konpesau ta komulgaurik; bigarren ta irugarrena, Komunio Jeneraleko egunian, emen nai beste edozeñ elexetan konpesaurik, baña komulgetara ona etorri biarko da; laugarrena, Arimen funzinoko egunian, eta egun onetan altara guztiak dira pribilegiokoak. Misinoko doktrinotara asistietan daben<sup>23</sup> guztientzako, eu[n] eguneko induljenziak; berreunekoak, besterik biralduten badozue, seme-alaba, otsain edo ogitukorik, Aita Santu Inozentio Amargarren ta Amaikagarrenak aginduten deuskun legez. Obispo Jaunak bere, berrogei egunekoak doktrina bakotzeko eta beste

<sup>20</sup> Geuk zuzenduta: *gizenenembategaz* > *gizenen bategaz*.

<sup>21</sup> Idem: *anaieje* > *anaije*.

<sup>22</sup> Idem: *argertu* > *agertu*.

<sup>23</sup> Ostean zuzenduta: *dabe* > *daben*.

berrogeikoak sermoi baktotxerako opa deuskuz. Onezaz ganera, beste ezin kontala induljenzia konpesau ta komulgetan zarian baktotxeko ondo misino entzunik urte guztian barruan, au da zazpi urte eta... Baña onetarako gauza biarra da, eukitia Bulda Kurtzekoa.

Begira pekatariak, zeñ ondasuntegiak zuben pekatuen parkaziñorako! Beste modutan urte luzeetan purgatori[olan] pena bizien artien padezietan igaro biarko zendukezanak, onelantxe ondo-ondo misinora etorriarik ondo konpesaurik egin zinaikie. Ia bada, gurasoak, zubetati<sup>24</sup> azi biar da exenploak. Gurasoak egiten dabena egin oi dabe umiak<sup>25</sup>; emon exemplo bizi bat, eta au izango da bere zuben umen<sup>26</sup> azieran izan dozuezan faltaren parkaziñorako. Eta zubeak, barriz, gaztiak, esperantza dot, eta ez nazala engañoauko deritxot, ondo etorriko zarena uste izanagaz. Erririk geienetan gaztiak dira exenplorik andienak emoten deuskuezanak, alan zubeak bere egizue. Lanak bere Jangoikoaren laguntzeagaz egingo dire, eta arimeko lan onakaz batera poz geiagoz egin deut(...) (...)Ezi(...).

#### [AMAIERAKO ERANSKETA]

Eskojidu eban beretzako aparteko erri bat, emon eutsan Lege Santu bat zorioneko izan zaitian<sup>27</sup>, egin beragaz milagro andiak, itxaso idigirik ibaiak sikaturik, Zerutik ogia biraldurik eta beste ezin kontala miserikordiazko obra eurekin eginik. Zeruko bidian zuzen ibilteko biraldu eutsezan noixik noixera Profeta Santuak.

Gure Jangoiko onak miserikordian aberatsak munduko fabrika ederrau ezerezetatik egin-da lasterrian, Adanen<sup>28</sup> pekatuen bidez galdurik ikusi ebenian, pekatuen laño...

Arako mundua Jangoikoak añ eder egin-da lasterrian, Adanen pekatuen bidez galdutera joianian...

Arako mundua Jangoikoak añ eder ta miragarriarik egin ebenian, baña andik laster Adanen desobedientziaz jausten asi zanian...

Alan egin eban Josias<sup>29</sup> Erregiaren denporan.

<sup>24</sup> Geuk zuzenduta: *zuebetati* > *zubetati*.

<sup>25</sup> Ik. 13. oh.

<sup>26</sup> Idem.

<sup>27</sup> Ostean erantsita: *emon eutsan Lege Santu bat* > *emon eutsan Lege Santu bat zorioneko izan zaitian*.

<sup>28</sup> Geuk zuzenduta: *Adanes* > *Adanen*.

<sup>29</sup> Ostean aldatuta: *Ezekias* > *Josias*.

Jangoikoak mundua añ eder ta miragarririk egin ebanetik lasterrian, Adanen pekatuagatik jausten asi zanian, alde guztietatik ja pekatu ta eskandalua besterik ikusten etzarian, birtute ta onestidadez erbesteturik...

Eta lege onez aztu ta otzitutera zoazeanian, noixik noixera biraldu<sup>30</sup>...

Ala egin eben Josias Erregeren denporan. Ikusirik bere erri guztia betiko galduteko zorian, biraldu zien Jeremias Profeta erriau Jangoikoa-ganatzeko. Au berau Ezekias Erregeren denporan.

Jangoikoak gizonaren amodioz Zeruak eta Lurra egin zitubanian, baña gizononek eskergeztoz bere agindua ausi ta beragaitik Zerutik erbeste ta betiko eriotzako mendian gelditu zanian<sup>31</sup>, pekatuen laño beltzak, kudizia, gorroto ta eskandaluak besterik ekusten etzarian, beren erremedioz azturik, ez eskatu, ez billatu, añ gitxi gogorik ere pekatutik irteiteko ez ebenian, Aita Zerukoak ikusirik guztiak erremedio bage galdu biar zebela, erri aparteko bat besteren artetik beretzako eskojitu zuan eta eman lege bat zorioneko egingo zuana; eta iñoz aztutzero bazetozan, noixik noixera Profeta Santoak biraldu zizkan, beren ex[eln]ploar(...) (...) berriak arturik gorde zitezen salbazioko bidean. Ala egin...

---

<sup>30</sup> Ostean zuzenduta: *Eta lege onez aztu ta otzitutera zoazenerako > Eta lege onez aztu ta otzitutera zoazeanian, noixik noixera biraldu.*

<sup>31</sup> Idem: *erbestetuta gelditu zanian > erbestetu ta betiko eriotzako mendian gelditu zanian.*

## NÚMERO DE PECADOS, DÍAS Y AUXILIOS

Viva Jesús

*Omnia in mensura, et numero, et pondere disposuisti.* Sap. 11, 21

Arriturik S(a)n Pablo Apostolua Jangoikoaren juizio gure entendi-  
mentu laburrak ezin ezautu leikezanak kontsideretean, zelan asko ta  
asko beingo batian<sup>1</sup> ondo aditurik Apostolu onen<sup>2</sup> berbaren dei santuak  
biortuten zirian Fede Santura eta beste asko entzunagatik len legez  
euren pekatuetan geldituten zirian, zelan batzuetara bere miserikordia  
zabalduten zan, beste asko justiziaren mendian geldituten ziriala, bildu-  
rrez ikaratu ta zer jazoten jakon ikara onen bildurrez ezin igarririk, ber-  
ba one[elk] esan zituzan: O Jangoikoaren jakituriaren aberastasun neurri-  
bagia! Zeñ a[ll]tuak ta gure entendimentu laburrak iñoz bere ezin ezautu  
aleikezanak dirian zure juizioak eta ezin zuzendu leizenak zure bidiak!  
Nor izango da gauza one[elk] ezautu aleikezana! Edo zeñ izan konseju  
one[elk] berari emon eutsezana! Eta benetan, Apostolu onek onetako  
euki zituan errazoiak<sup>3</sup> zeuek bere ezautuko dituzube, ondo gomutera  
ekarri nai badozube<sup>4</sup> zelan Jangoikoak Eternidadetik gauza guztiak  
ordenau zituben, ipiniten zitubala gauza guztiak añ ondo erabagirik,  
guztiak baktotxa bere denporetan jazoko zirian moduan bata bestiaz  
nastau bagarik, gizon ta ange[er]u, pentsamentu, berba ta beste ganeko  
kriatura ezauera ez adin bageko guztiak aurretik gero izango zirian  
moduan ezaturik.

Eta benetan, nor arrituko ez da ikusirik Jangoikoak gizon guztiak  
egin zitubela ezauera eta eskubidiagaz eurek gure ebena, ona edo txar-  
ra, egiteko; eta ordu eternidadeko atatik ezautuko ebela baktotxa zetan  
geldituko giñean eta ze sentenziak artu biarko genduzan! Nor izango da  
misterio one[elk] ezautuko ditubena! Zeñ da jakin aleikiana zegaitik Jan-  
goikoak batzuk Kristindaderen erdijan jaijo genduzan, beste asko Fedet-  
tik guztiz urrun egin zituzan denpora berean? Zegaitik umetxu<sup>5</sup> askok

<sup>1</sup> Ostean erantsita: *zelan asko ta asko > zelan asko ta asko beingo batian.*

<sup>2</sup> Ostean aldatuta: *Jangoikoaren > Apostolu onen.*

<sup>3</sup> Geuk zuzenduta: *errazoiak > errazoiak.*

<sup>4</sup> Ostean zuzenduta: *badituzube > badozube.*

<sup>5</sup> Jatorrizkoan: *bumetxu.*



euren ama gezto askok bere erraitan galduteko alegin guztiak eginda bere, orregaitik Batio Santu artu ta salbetan dirian, beste ama on askok erregu asko eta alegin guztiak egin dabena, euren umiak damuari gogo linborako batiatu bagarik galduten jakezan denporan? Zegatik batzuk Ja[n]goikoen berba batekin<sup>6</sup> ondo ta salbetan dirian, grazione[el]kaz beste asko ondu biarrian gogortuagorik geldituten dirianian? Zegatik batzuk ondo asi baña deungaro akabau zirian Judas legez, eta deungaro asi zirianak ondo akabau zirian S(a)n Pablo legez? Zegatik<sup>7</sup> pekatari askori graziara biortuteko bidiak emoten deutsezan Dabidi jazo jakona legez, eta beste [askori] negarrez Jangoikoari deituta bere ukatuten deutsezan Esau ta Antiokori jazo jakena legez? Zegatik askori ondu<sup>8</sup> artian itxoron deutsen, eta beste askori onduko<sup>9</sup> ez diriala jakinda bere urte luzetan<sup>10</sup> munduan itxiten deutsen? (Zegatik askori pekatu asko izanagatik grazia andiak biraldu ta salbetan dituzan, eta beste asko<sup>11</sup> ustebageko eta subituko eriotziak atrapauta leलगoko pekatuagaz galduten dituzan?) Esan egidazue, neure entzule maitiak: bago zuben artian bat au ezautu aleikianik? Ez<sup>12</sup>. Beronegaitik guztiz bildurtu biar gariala dirausku S(a)n Juan Krisostomo andiak; eta geiago jakinik bere jakituria, guri jazo biar jakuzan gauza guztiak erabagita daukazala, neurturik guk egingo doguzan pekatuak biziko garian urte, egun ta ordugiñoakoak, baita guri emongo deuskuzan grazia guztigiñoakoak, neurriau betetan jakun instantian artuko gaituben zorion edo zorigaitzoko sentenziak. Nor izango da gure artian gauza arrigarriau ondo gogoraturik bildur[tu]ten ez dana, eta pekatuz betia egonta bere aurrera jarraitu gureko deusana? Auxe da, bada, arratsalde onetan zubei erakutsitera natorrena, gauza arrigarria biotza dardar ikaratu bagarik ezin pentsau leikiana: biziko garian egunak, zenbat pekatugiño parkatuko deuskuzan neurria eta baxotxari emongo deuskuzan graziak. Iru gauza ondo bildurgarriak.

Ez, neure Kristinaua. Ez dau Jangoikoak egiten denporaz gauzarik eternidade batetik alan egitia dekretadu ez ebenik; gure urtiak munduan igaroko doguzenak ondo neurturik eta orduginokoak kontauri[k] daukez. Gure bizitziak ondo urte laburrak ditu, eta neurtuak, eurek bete azkeitiño agur munduari, agur adiskide ta senide guztiai eginik naitanaiezian joan biarko dogunak, eta neurriau ez da guztietan bardiña, ba-

<sup>6</sup> Osteen zuzenduta: *berbagaz* > *berba batekin*.

<sup>7</sup> Geuk zuzenduta: *Zegatirik* > *Zegatik*.

<sup>8</sup> Osteen aldatuta: *emandutu* > *ondu*.

<sup>9</sup> Idem: *emandutuko* > *onduko*.

<sup>10</sup> Osteen erantsita.

<sup>11</sup> Idem.

<sup>12</sup> Idem.

tzuk gitxiago, beste batzuk geiago izango dabena. Berangatik bildurrez bizi biar zara pekat[al]ria, bada, ez izanik neurriau guztiet[an] bardina, ez jakinik neurriau bete badozu, zen begira zagoz, pekataria? Zer da zu poztzen zaituena, pekatuak orren ardura gitxigaz zaukazana<sup>13</sup>? Jangoikoen miserikordien pozak? Eta non itxiten dozu bere justizia ta pekatuari dautsan gorrotoa? Urren egin daitezun pekatua izango da biarbada zure neurria beteko dabena. Eta bakizu zegaitik? Jangoikoak berak dirautsu bere Profeta Amos Santuaren bidez: Iru pekatu parkatuko deutsadaz, diño, Damaskotarrai, iru Tiroko erriari, iru Gazakoai, baña ez laugarrenik. Laugarrena egitera igaroten badira, galduak izan biar dabe. Bada, pekataria, au berau zuri bere dirautsu: Onenbeste pekatugiño parkatuko deutsudaz, baña ez geiagorik. Neurri onetatik aurrera igaroten bazatxataz, galduko zaitut. Arrigarritzko gauzia beintzat zuria, au ezautu ta jakinik, añ ardura bage pekatuan egon gure izatia. (\*)<sup>14</sup>

Kontu dagigun bada, pekataria, Jangoikoak zuri eta niri ipiniko neurria dala, zuri amar pekatu eta niri bakarrik iruren neurria ipini deuskula. Kontu egizu ja bederatzigino bete dozula, eta nik bi; orañdio bat geiago egitera igaro ziniala ta neurriau bete dozula, baita nik bere neurre gaztakeriagaz irugino igaro nazala; eta zuk eta nik Jangoikoak ipiniko neurria bete dogula. Orañdio Jangoikoak aurrera<sup>15</sup> ez geiago egitera animetan bagera, gugaz erruki izango dabela dirausku. Orañgiño egina-ko pekatuak garbituteko beste grazia biralduko deusku. Baña neurri onetatik igoroten bagera, zu amaika pekatugiño-ko neurrira ta ni laugarrengora pasetan bagera, guriak egin eban, galduak izan biarko dogu. Alperrik itsaso bete negar egitera etorriko gara; Jangoikoa<sup>16</sup> ez da bior- tuko guri ipiniko neurria ausitera, eta beragaitik, Berak ipiniko neurritik igaro giñialako, ezin pekatuau biar dan legez garbiturik galduak betiko izan biarko dogu. Gauza arrigarria onelakori[k] zu ta nigaz egitia, Jangoiko maitiari nai ez dakiola. Doktrina beintzat<sup>17</sup> bildurgarria, baña Zeruak eta Lurrak one[el]k baño lenago faltauko dabena.

Zegatik Jangoikoa[k] au onelan egiten daben, zegatik askori zartzarora artian itxoron, beste asko edaderik onenian mundutik kenduten daben itendu gura badozu, Errege Profeta Santuagaz erantzungo deus- tut: *Judicia Dei abisus multa*; Jangoikoen gure gogoak ezin ezautu lei-

<sup>13</sup> Ostein erantsita: *Zer da orren ardura gitxigaz zaukazana?* > *Zer da zu poztzen zaituena, pekatuak orren ardura gitxigaz zaukazana?*

<sup>14</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Au jak[i]nik, aspaldian pekatuen...*

<sup>15</sup> Ostein zuzenduta: *aurre* > *aurrera*.

<sup>16</sup> Idem: *Jangoiko* > *Jangoikoa*.

<sup>17</sup> Idem: *bentzat* > *beintzat*.

kezan jakituriak alan egitia erabagi dabelako. Zegatik Ninibetarrai baka-  
 rrik berrogei eguneko denporia emon eutsen beragana biortuteko, eta  
 zuri orrenbeste urtian itxaroten deutsu? Zegatik Sodoma, Gomorra ta  
 beste inguru atako pekatari loiak ezetarako denpora bagarik suagaz erre  
 eta ondatu zituzan, eta zuri are[e]n moduko pekatu loietan orain artian  
 eta anbeste urtian itxoroten deutsu? *Judicia Dei abisus multa*. Jangoiko-  
 en zure bururako ez diran jakituriak alan erabagi ebelako. Zegatik  
 ang[e]ru baten bidez Zenakeriko exerzituti eunda larogeta bost milla sol-  
 dado gau batian illerazi zituban, Jangoikoen Izen<sup>18</sup> Santuari errespetoa  
 galdu eutselako; eta zuri anbeste blasfemiagaz orain artian ostikopian  
 erabiliagaitik parkatu deutsu? *Judicia...* Zegatik Absalon zagitaren gol-  
 piagaz biotza urraturik kastigadu eban, eta zuri anbeste orañginoko zure  
 Aitari egiñeko desobedientzia eta biozketa andiak parkatu? *Judicia...* Eta  
 azkenez, pekataria, zegatik zuri emoten deutsu bizitzia zure pekatuen  
 penitentzia egin dagizun, eta beste asko zuk baño pekatu gitxiago euki-  
 rik, denporarik emon bage mundutik garbitu zituban? *Judicia...* Bada,  
 zer erantzunik onetara ezpadaukazu, zegaitik egunian baño egunian  
 pekatu geiagotan sarturik eta urteiteko gogo bagarik bizi gura dozu?  
 (\*)<sup>19</sup> Pekatari gaiztoa, ondo pentsaugizu, bada, ez dozu eskriturarik bizi-  
 tza luzia izateko Jangoikoak emanik. Ondo begiratugizu, bada, gaur iltia  
 zuri jazo leikezu eta pekatu orreetan aurkiturik Infernura botatia. Begi-  
 ra batzuk ilten diriala jaijo orduko, beste asko edaderik onenian, eta  
 guztiak usterik gitxien dabenian.

(\*)<sup>20</sup> Baña, zer da onetara pekatariak erantzuten daben[a]? Ez beste-  
 rik ezpada arako Felix presidentiak S(a)n Pablori erantzun eutsana<sup>21</sup>:  
 Egia da zuk diraustazuna, sinasten det<sup>22</sup>; ondo ezaututeot il bear doda-  
 na, eta Jangoikoagana biortuteko daukadan premiña neure ekandu gaiz-  
 tuak galduteko. Bai, bizitza barri on batian sartu biar dot Jangoikoaren  
 justizia arrigarrien zijorrak artu baño lenago. Bai, Pablo, guztia ezautu-  
 ten dot, baña orain lan asko daukat esku artian eta arek daroa[s]t buru

<sup>18</sup> Geuk zuzenduta: *izan > izen*.

<sup>19</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Zegatik Jan-  
 goikoagana?*

<sup>20</sup> Idem: *Baña dantzat, diraustazu, okasiño obeago baten begira zagozala zure  
 eskuetako lanak kendu da...*

<sup>21</sup> Ostean aldatutako esaldiak: *Zer diño, bada, onetara? Zetara gogoa artuten dozu?  
 Atxakia eta atzera. Baña zuk ez besterik arako Felix presidentiak S(a)n Pablori  
 erantzun eutsana > Baña, zer da onetara pekatariak erantzuten daben[a]? Ez  
 besterik ezpada arako Felix presidentiak S(a)n Pablori erantzun eutsana.*

<sup>22</sup> Ostean erantsita: *Egia da zuk diraustazuna > Egia da zuk diraustazuna, sinastu-  
 ten det.*

ta gogo guztia. Erraz orain itxiko deutzazu; denpora obeago batian, lanak esku artetik kendu ta libre geldituten nazarian, neuk arduratu-ko dot zuri deituteko. *Quod nunc a[d]tinet vade tempore autem oportuno acers[ilam] te*. Auxe beratu da, pekataria, zuzaz jazoten dana. Ezaututen dozu zeñ premiña andia daukazu pekatuko bizitza aspaldiko orri itxi ta bizitza santu barri bat artuteko Jangoikoaren justiziako zijo gogor-arak artu baño lenago. Bildurtuten<sup>23</sup> zaitu bere juizio arrigarriak predikadoren agotik entzutean; baño, arako Felix presidentiak S(a)n Pablorigeuz, zue bere niri dirautazu, lan eta asunto garbietan endredautazagozala, orain orretarako etzagozala, zeure gauza orre[elk] garbitu ta eskuartetik kendu dagizuzenian, orduan deituko deutzazala, orduan Jangoikogazko lanak edo bakiak egingo dozuzela. Eta nok esan deutzazure lanak kendu artian biziko zaria, eta zure senide, adiskide ta lagun askori jazo jakona lege zuri jazoko ez jatzula? Orain auzi geztoetan, orain fameliari estadu emon biarran, orain tratu andietan, zor-arturenen arduetan sartuta nago, Jauna; one[elk] kendu dagidezarian, salbazio bideak artuko ditut, deituko deutzat konfessore on bateri eta garbituko dot konzienziaren loi guztiak. *Tempore...* Au da zue dinozuna.

Bestiak, barriz, diño: Orain edaderik onenian, osasunik sendoenian nago; denporiari emon biar deutzat beria, olgau biar dot, munduari aprobetxau biar natxako, dantzai, kortejuai, joko, begira, tertulia ta komediai aprobetxau biar natxake. Zartzan apartauko naz, guztiai itxiko deutzat; orduan baneria ta galak baztertuko ditut, orduan estamiñaz jantzi ta bizitza birtutekoari jarraituko deutzat<sup>24</sup>. Ondasun andien jaube naz, banketetan zoragarritzko gala ta banerietan zerbait gastauagatik asko sobrauko jat; gero, Jauna, arako zartzan limosnak egingo dot, orduan neure pekatuak garbituko ditut munduari exenplo ona emonagaz, bizitza on bati jarraituagaz. Ze kontu dira orre[elk]? Ez zu zorioneko egingo zaituenak, ezpada arako Ebanjelioko aberatsak atera zituenak, eta gauatan eriotziak atrapau ta kondenau zarienak; kontu atseginak ateraten egoan bere ondasunen gurariak<sup>25</sup> poztuten ebela eta buruari zirautsela: Alegria zaitu, neure biotza, troxak gariz betiak, utxa-baldak diruz ganeztuak; ondo jangizu, atsegin ez betia bizi zaitu. Kontu onetan egoala, orra non dantzuen: A zoroa, a burubagia! Gau onetan ilgo az. Zer baliauko deube ondasun orre[elk]? Gaur Infernuko ondarretan egon biarko dot. Eta alan jazo jakon. Zue bere jarraituozue kontu orre[elk] ateraten<sup>26</sup>

<sup>23</sup> Ostean zuzenduta: *bildurtute > bildurtuten*.

<sup>24</sup> Geuk zuzenduta: *deutsek > deutset*.

<sup>25</sup> Ostean aldatuta: *kontuak > gurariak*.

<sup>26</sup> Geuk zuzenduta: *ateretan > ateraten*.

aberats galduari, bizitza luze baten kontuak ateragizuez. Zu enbra buruariña, gizon libertinua, jarraitugiezu pausu orre[eli]<sup>27</sup>. Zeure bizitza orregaz galdugizuz asko arime, zure miñagaz eta sentiduakaz; exenplo on bat emon bagarik bizitza guztia igoro<sup>28</sup> eta arako eriotzaren golpiak artu zaizenian, ez munduak, ez zure pekatuko lagunak Jangoikoen justiziaren ago biko ezpatiak azpian artu zagizanian, esan biarko dozu: ai zeñ zoroa izan nazan! Zeñ berandu konturatu pekatu gitxiagogaz eta obra on geiagogaz prestau nitekian! Baña guztia alperrik, zegaitik pekatuen neurriak azpian artu zaituen. (\*)<sup>29</sup>

Edozeñ neurri edo medida iru estadutan, orañdio ondo guztiz bete bagarik, ondo beterik, baita bere ganezturik konsiderau ginaiena legez<sup>30</sup>, alan pekatari bakotxa pekatuakgazko neurri onetan, orañdio<sup>31</sup> bete bagekuan, neurria betian, baita bere neurri igoro ta pekatuz ganezturikoan ezautu giñake. Neurriau bete ez dabenak, ez da beteko bere, dire arako Jangoikoren graziari lagundurik, guztijak parkatuak eta santuenak. Modu onetakoak dira arako S(a)n Pedrok, S(a)n Pablok, Agustinok eta beste askoren modukoak. Bigarren neurria bete ebenak dira arako Kain, Saul, Antioko, Judas eta aren modura neurria beteta galduko diranak, Jangoikoen miserikordiaz desanparadukoak. Irugarrenak dira, arako neurri bete ta aurrera igarorik, egarri diranian ura edaten daben moduan, pekatuak andienetan, guztiari eder deretxela, lotsa biarrian gauza andiren bat egiten baleben legez, zenbat eta ezañago ta agirijagoetan, anbat eder eretxirik Jangoikoen eskuetatik urtenik, euren pekatuen eskuetan munduen eskandalu bizi eginik, bizi ta eriotziak arturik, aparteko tormentaz Infernuaan kastigaduak izango dirianak.

Guk<sup>32</sup> ondo dakigu pekatariak gariala, guztiok Jangoikoa pekatu mortalakaz ofendidu dogula, eta beragaitik erakutsi deusuedazan iru estadutik batian gagozala. Estadua zeñ izan leitekian lelengoko, bigarren edo irugarrenean, ez zenbat pekatu bakotxari neurritzako ipini deuskun, (ez-da bere arako lapikoginak bere esku artian egiten ebellen lapiko

<sup>27</sup> Idem: *zabiltz zabiltz jarraitugiezu pausu orre[eli] > jarraitugiezu pausu orre[eli]*.

<sup>28</sup> Alternantzia: *igaro / igoro*.

<sup>29</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Ai bada, pekatariak, zuben munduko interesetan arimakoetan baño ardura geiago artuta bizi zareanak, orrelan neurria beteta eriotziak...*

<sup>30</sup> Geuk zuzenduta: *Edozeñ neurri edo medida iru estadutan (konsiderau ginaijena legez), orañdio ondo guztiz bete bagarik, ondo beterik, baita bere ganezturik, konsiderau ginaiena legez > Edozeñ neurri edo medida iru estadutan, orañdio ondo guztiz bete bagarik, ondo beterik, baita bere ganezturik, konsiderau ginaiena legez.*

<sup>31</sup> Idem: *orañdio orañ > orañdio*.

<sup>32</sup> Ondo lotzerik izan ez dugula eta, ez dugu zuzenketa hau transkribatu: *Guk (< Orain, bada, guk) > Zuk*.

ausija gura badau bazterrera edo osteria moldan sarturik obiagoa atera egin oi dabena legez, gu bere beñ baño geijagotan Jangoikoen molda santuan grazia galdurik, edo bazterre[ra] galdutzat bota edo molda graziakoan barriro sarturik, bere basu eskojidu egingo gaituben. Estadu onetan gagoz Jangoikoen begijetan zer izango garian ez dakigula, ze gogo artu dabena ausi garianian, molda barrian sartuta bagago[z] edo ez<sup>33</sup>). Beste aldetik, Berak diraus[t]<sup>34</sup> Berari gogoak emoten deutesenen errukituko dala, eta gura ez dabenen miserikordiarik izango ez dabela<sup>35</sup>. *Cujus vult miseretur et quem vult indurat*. Egi arrigarria, misterio gure entendimentuak ezin ezautu leikiena! Nork esan dizu neurria bete ez dozula<sup>36</sup>? Eta bete badozu bere, laster bete ezin zeinkiala<sup>37</sup>? Nor arrituko ez da au ondo pentsaurik, guri jazo leikigula eta onetarako asko eskubide emon deutsagula ezaturik? (\*)<sup>38</sup> Nok esango eutsen arako Damasko[ko] pekatariari edo erriari, iru pekatu egin eta ardura bagarik bizi zirianian laugarrengoagaz neurria bete ta galduko ziriala? Beste onenbeste zeñda are[eli] zuri jazo leikezu<sup>39</sup>.

Nik orain artian, dirautse, pekataria, pazienza andi bat artu dot, anbeste pekatu nire kontra egin badozue bere etzaituedaz galdu nai izan. Baña orain, dirautse, jakinde egon zaitezene neure Profe[ta] Amosen bidez, ez deutsuedala geiago parkatuko; bat bakarrik egitera igoroten bazare, ez deutsuet bere penitentiariarik egiteko lekurik emongo, ez naz zubekgana biortuko eta pekatuen il biarko dozue. *Super tribus*. Nok esango eutsen Edon, Moab, Tiro, Judea ta Israeldarra, len eginde eukezan pekatuari bat geiago ezarri edo egiñagaz miserikordia bagarik geldituko ziriala? Nok pekatari guztiai egiau euren biotzetan ondo sartu leijoen? Eta nok sinastuko leuke gauza arrigarriau, Espiritu Santuak erakutsiko ez baleusku bere Eskritura Santako Libruan? *Haec dicit Dominus super tribus sceleribus eo quod abjecerit legem Domini, et mandata ejus non custodierit*. Nor izango da Jangoikoari itenduten atrebiduko dana, zegatik iru pekatu parkaturik, laugarrena zegatik ezetz esango deutsana? Gitxi parkatuten badituz, zegatik asko egiten ez dituen? O gizona, esan-

<sup>33</sup> Parentesien artekoa zirriborraturik dago.

<sup>34</sup> Ostean erantsita: *Berak diraus[t]* > *Beste aldetik, berak diraus[t]*.

<sup>35</sup> Ostean aldatutako esaldia: *gogoak emoten deutesenen errukituko dala, eta ezpa-dautso, eta ez dautsana gogortuko dabela pekatuan* > *gogoak emoten deutesenen errukituko dala, eta gura ez dabenen miserikordiarik izango ez dabela*.

<sup>36</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>37</sup> Idem.

<sup>38</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Nok esan deultsu beste askori jazo jakona...*

<sup>39</sup> Ostean erantsitako esaldia.

go deutsut S(a)n Pablogaz, nor zara zu ori kontuori Jangoikoari artuteko? Bakizu zegatik Angeru desobedienteai pekatu bakar bat bere neurritzako ipini eutsen? Eta bera<sup>40</sup> egin eben instantian Infernura jausi zirian? O Luzifer goixeko argi-izarrak baño argia izan ziñana! Zelan jausi ziñan instante batetik bestera, añ ditxa ta zorionetik anbeste desditxa ta tormentuzko leku orretara? Soberbiako pekatu batek onetaratu beban Angerurik ederrena, zer izango da zugaz, pekatu guztietan sartu ta ondaturik aspaldiko urteetan bizi zareana? Zer ze[u]re serbitzalliagaz, libre ta ezkonduakaz, etxe ta auzokoakaz, aspaldian katiaturik bizi zareana? Nok esan deutsu neurri pekatuena edo bete, edo ganeztu, edo bere bezperetan zagozala?

Ai, ai zure errukiena! Asko mille parkatu badeutsu orain artian, berak bildurtu biar zaitu geiago<sup>41</sup>, urrengo egin al ziñaikena izan leitekialako neurrija bete ta galduko zaituena. Esan egida[zu], arren, egin al daizuna jakingo bazendu azkenengoa izango litzakeala, atrebiduko zinateke? Ezetz badiraustazu, nok zuri esan deutsu, nok eskrituraren bat emon deutsu, azkenengoa izango ez dala ta beragaitik galdu biarko dozula?

(\*)<sup>42</sup> Bai, pekatariak. Jangoikoak eternidade bateti neurtu zituzana legez<sup>43</sup> gure bizitzako egunak eta egingo genduzan pekatuak, alan ezautu zizan bere guri emongo euskuzan graziak. Egia da Jangoikoa miseri-kordiosoa dala eta inori bere salbetako besteko graziak ukatuten ez deutsezala. Baña begiratu biar dozue bere, ondo erantzuten deutsenai bere grazietara emon eta biralduten deutsez grazia barriak, zeñtzuekaz birtuterik birtutera, eskalerarik eskalerara legez igoten daben santidadeko mendira; eta kontrara, arako bere lengo grazietara erantzun biarran pekatuekaz erantzuten deutsenai, ukatuten deutsez euren esker gezto-ren saritzako. Au da Ebanjelio Santuan dirauskuna. *Omni habenti dabitur*. Eta Jangoikoak ezin kastigu andiagorik biraldu leiyo grazia one[elk atzeratutia baño. Au bere justiziaren ezpatarik zorrotzena. Ai arefe[n] zorigaiztokoak eurek, alde egiten badot!, diño Jangoikoak. Au alde egitiau da bere graziak ukatutia. Ezin iñor eldu leiteke Jangoikoagana, Berak deituten ez badeutso, bere graziak biralduten ez badeutsez, eta one[elk ez biraldurik naitanaiezian galdu biar dau. Orregatik diño: Nik neure eskua luzeturik pekatarieni, nik asko biderretan deiturik eta erre-

<sup>40</sup> Osteen zuzenduta: *beragaitik > bera*.

<sup>41</sup> Geuk zuzenduta: *berak geiago bildurtu biar zaitu geiago > berak bildurtu biar zaitu geiago*.

<sup>42</sup> Ondo lotzerik izan ez dugula eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Eta ez bakarrik*.

<sup>43</sup> Geuk zuzenduta: *Jangoikoak eternidade bateti (ezautu zituzana bezela) neurtu zituzana legez > Jangoikoak eternidade bateti neurtu zituzana legez*.

guturik, erantzun ez begiratu bere gura izan deust<sup>44</sup>; bada, nik atzeratuko deustadaz graziak, ez deusa[dall]ako geiago deituko. Ez naz geiago beragaz errukituko, aitzuko naz sekula betiko. *Non adan ultra misereri domuy Ysrael sed oblibione oblibiscar*. Nai beste<sup>45</sup> negar egin dagiela, estura ta larririk andienak artu dagiela, bere oker-irabaziak biortu nai daizala, bere arerioai gure izan daijoela, bere Seigarrengoak gorputza kastigaurik pagau gure daizela, bizitza barri ta santu bategaz erreparau dagizela. Guztia alperrik egingo dau; bere bizkarrian izango ditu nire aserriaren golpe guztiak, eta niri negarrez ta uluz deitu arren, ez deutset entzungo, guztira gortuko natxako, guztira gogortu, ez naz aren Aita sekula izango, galdu biarko dau. Jangoikoren grazien neurria bete zan, au bagarik ezin salbau leiteke. Arrituten dau pentsamentu onek, eta geiago ikusirik pekatariakaz alan egin dabela. Kain, Akaz ta Jesabel, Saul, Absalon ta Judas, eta ez beste askotan alan jazo zan, Fediak dirausku. Alan jazo jakon Antiokori; berari jazo jakonak ikaratuten dau bat.

Entzun zer jazo zan beragaz. Entzunik zelan Jerusalendarrak<sup>46</sup> bere kapitairik prinzipalena Nikanor ta Timoteo benzidu zituezala, suturik guztia koleraz garra eriola, etorren bere exerzitu ikaragarrikoagaz jor-nada doblietan Jerusalem guztia suari emoteko, topetan eban guztia ilteko eta ango esposa ta alabak loituteko ustigaz. Baña apenas pentsamento gezto one[eli] leku emoten deustsen, joten dau bere biotza Jangoikoen ezpatiak, bere erraiak erretan jakaz gorputzian Jangoikoen golpe one-gaz. Eta ezaturik pekatuen saria ebela Jangoikoak kastigau ebala, promes andiak egiten deutsez Jangoikoari: Salomonen Elexia aberastuko ebela, bera predikadore biorturik Jangoikoen Izen Santua mundutik zabalduko ebela, eta beste ezin kontala promes. Baña guztia alperrik; bere promesak, bere negarrak, guztiak alperrikoak. Bere munduko egu-nak bere pekatuen neurria bete dau, ez dau izango graziarik, galdu biar dau. O Jangoiko andia! O biotzeko pekatariak, nogaz (...)te one[elk] guz-tiok? Zubekaz eta nigaz. Urte asko da deike dagokigula, baña gu egu-nian baño egunian deungago; aserratuta daukagu. Eta gaur ni pekatari onen bidez<sup>47</sup> zubekgana etorririk, askorentzako azkenengo graziaren konbitera, ze pentsamentu artuten dozue? Zelan basamurtuak, mendie-

<sup>44</sup> Ostein zuzendutako esaldia: *Nik neure eskua luzetu deustat pekatari-  
oni, dino Jangoikoak, nik asko biderretan deitu eta erregutu deustat; orregaitik bere, ez  
erantzun, ez begiratu bere gura izan deust > Orregaitik diño: Nik neure eskua  
luzeturik pekatari-  
oni, nik asko biderretan deiturik eta erreguturik, erantzun ez  
begiratu bere gura izan deust.*

<sup>45</sup> Ostein aldatuta: *Gura da[n] beste > Nai beste.*

<sup>46</sup> Ostein zuzenduta: *Jerusalendarak > Jerusalendarrak.*

<sup>47</sup> Ostein erantsita.



tako atx-bitartiak topetan ez dogun pekatuen katiak urra[tu]ten ez doguz, Jangoikoa deike dagokigun artian, zeñ atzeratu ez daiguzan graziak, bete ez dagiguzan pekatuen neurria? Bai, Jauna, gaurganik etxungo naz zure oñetara, orañganik bizitza barriaren proposituagaz negarrez eskatuko deusut miserikordia. Zuk, Jauna, Jerusalem ikusirik negar egiten bazenduan, ez anbeste erreta ikusiagatik, ez bertako ume<sup>48</sup>, jente ta zure<sup>49</sup> Profeten eriotziagatik, ezpada bere erre euren erdien euki ta artu gure izan ez ebelako<sup>50</sup>. Negar egizu orain bere erri onegatik, pekatuen neurriak artu baño lenago, misino santu onetan zure bizitzari ondo arpegi emonik zure graziagaz baliatu ta salbau ditezan.

#### [HASIERAKO ERANSKETA]

(\*)<sup>51</sup> Eta ez bakarrik Apostoluak S(a)n Pablok, baita geuk bere arri-tuteko motiboak topauko dituguz, ondo pentsau nai badegu nola Jang(oikoa)k eternidadetik gauza guztiak ordenadu zituben, guztiak ipiniten zitubela añ ondo erabakirik<sup>52</sup>, bakoxta bere denporan jazoko zirian moduan, bata bestiagaz nastu bagarik, gizon ta Angeruen pentsamento ta berbahiñoakoak, baita beste kriatura mutugiñoakoak, ezetan bere utsik egin bagarik.

Eskritura Santuan ifiniko gauza guztiak, dirausku Fediak, gure onerako ifiniak diriala; orregaitik<sup>53</sup> Anti[olk]ori jazo jakona edozeñbere pekatari jazo joko, pekatuen neurritik igaroten bada. Ukatuko deutse graziak, eta beragaitik nai negar dagiela, nai... Bai, pekataria, urte asko da zuri deika eta erreguka jagotzula, eta beste anbeste da zu bere deietara gortuta bizi zareala; deike dagoan artian, bada, neurria bete baño lenago, arren...

Irugarrenak dira, arako pekatuen neurria beteta eta aurrera igarorik, egarri dirianian ura edaten daben baixen gozo, pekatuak egiten dituenak, eta euren pekatu<sup>54</sup> ezaiñak lotsatu biarrian, zenbat eta ezaiñago eta agiriago, anbat eta ederrago eretxirik euren eta bestearen arimak galtzen bizi dirianak. Ai! Bai<sup>55</sup>, zuk ondo dakizu pekatuan bizi zareana; ez daki-

<sup>48</sup> Ikus 5. oharra.

<sup>49</sup> Geuk zuzenduta: *zuren* > *zure*.

<sup>50</sup> Idem: *ezpada bere erre euren erdien euki ta artu gure izan ez ebelako* > *ezpada euren erdien euki ta artu gure izan ez ebelako*.

<sup>51</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Baña ondo begiratu gura badogu...*

<sup>52</sup> Ostean aldatuta: *e(...)*durik** > *erabakirik*.

<sup>53</sup> Ostean zuzenduta: *oregaitik* > *orregaitik*.

<sup>54</sup> Idem: *pekatua* > *pekatu*.

<sup>55</sup> Ostean erantsita.

zu<sup>56</sup> neurri igaroan edo orañdio bete bagian zagozan. Zegatik bada, orrelan zure arimia ikusirik<sup>57</sup>, eta beste aldetik Jangoikoak zuri esanik gura dabenen errukia izango dabela eta nai dituenak kastigauko ditubela, bizimodu peliburuzko orretan bizi gura dozu? Nok esan deutsu neurria bete ez dozula, edo pekatuai jarraiturik urrengoko pekatuagaz bete ez zinaikela? Nondi dakizu beste askori jazo jakona zuri jazo ez lekizula? Zer egingo ez eben Damaskotarrak iru pekatu eginda bildur bagarik aurrera igaroteko asmueta[n] ebiltzenian, jakin balebe urrengokoagaz neurria be[te]ta galduko ziriala?

(\*)<sup>58</sup> Nik orain artian pazienza andiagaz itxoroten deutsut; ainbeste pekatuagaz ofendidu banozu<sup>59</sup> bere, galdu gure etzaitut. Orandik deike najagotzu, orañdik konbidetan zaitut, denporia ta graziak ugari biraldu ten deutsudaz. Baña begira: nire deietara gorturik, nire konbitera esker-gaiztoko egiñik, zure pekatuai aurrera jarraitu eta neurria betetan badozu, nik galduko zaitut, nire karguetara zer erantzunik ez dozula mututurik, larriturik betiko galdua izan biarko dozu. Au da Jangoikoak dirautsuna. *Eo quod abjecerit legem Domini et mandata ejus non custodierit.*

Eta ez bakarrik, pekatu andietan bizi zariana, bildur izan biar dozu, baita zu bere gitxi egin dozula deretxazuna, zegaitik neurria ez dan guztietan bardiña. Pekatu bakar bat izan zan Luzifer eta bere angeru lagunak egin ebena, eta bera asko izan zan euren neurria betetako, eta beragaitik Angeru ederretetik Diabru itzalgarri biortuteko. Pekatu bakar bat izan zan arako S(a)n Gregoriok dirauskun umetxuak<sup>60</sup> egin ebena, eta beragaitik galdu zana. Eta zu ez pekatu bakar batian, ezpada aspaldiko urtietan pekatuak ugari egiten zabiltzena, zure etxe eta auzoan borondatezko okasiño gordetan dozuna, zure auzoai eskandalua, etsekoai sentimentu ta biozketia emoten dozuna, zer erantzuten dozu onetara? Dozu eskrituraren bat Jangoikoak emana, edo errebelazinoren bat, zeuk gura dozun artian orrelan bizi ta gogoak emoten deutsunian beragana biortu ta salbauko zareanena? Ez dozu ikusten zure etxian eta auzoan zu baño gaztiagoak il diriala, eta biarbada zure pekatuko lagun izan zirianak, eta zuk okasiñoa emonagaitik betiko galduta dagozanak? Noiz artian añ burubagia? Munduko gauzaetarako laster itxi biar dozuzen interesetan añ prudentia, añ diligentia, eta bakarrik zure arime tristesarentzako añ aitzua, añ galdua: nok onelakorik sinastu leike?

<sup>56</sup> Ostein ezabatuta: *baña ez dakizu > ez dakizu.*

<sup>57</sup> Ostein zuzenduta: *orrelan bizi izanik > orrelan zure arimia ikusirik.*

<sup>58</sup> Esaldi horren hasiera oharra: *Jang(oikoa)k...*

<sup>59</sup> Ostein aldatuta: *baño > banozu.*

<sup>60</sup> Ik. 5. oh.

## [ZERUKO OGJAU]

Gura izanik guri irakatsi Jakintsuak<sup>1</sup> nola izan biar dogun Jangoiko-aganako eskerrone[koalk, dirausku ain dirala andijak Jangoikoaganik artu doguzen grazija ta mesediak eze, egin arrik guk alegin guztija, alpe-rrik izango da guztija: ezin gura zenzun edo entendimentuak ezautu lei-ke Jangoikoak gizonari dautsan amudijua gorputz ilkor edo mortal onetan gagozan artian. Eta ezautu arrik Berak gugaitik egin dituan obra batzuek, ala bere dira neurri bage asko geijago guri agertuten ez jakuzenak<sup>2</sup>. Baña, non geijen erakutsi eban bere amudijoa guganako, izan zan Sakramento Santu Altarakoan, bada, emen<sup>3</sup> bere karidadiaren indarrak artu eban su geijago, bada, berta[n] sartuten zituala<sup>4</sup> beste guztijetan baño mirari andijagoak. Beste Sakramentuetan emoten jaku guri Jangoikoa edo bere grazija beste gauzaren bitartez: Bautismoan uraren bitartez, Konfirmazioan Krisma Santuen bitartez, baño Sakramento Altar[alkoan bat egiten gara Jesukristogaz berberagaz, inoren bitarte bage. Orregatik bada, gura badogu jakin<sup>5</sup> Sakramento onetan emoten jakuna, ikusiko dogu ez bakarrik dala gura entendimentu laburrak ezautu aleijana baño geijago, baita bere Jangoikoak bere jakituriya neurribagiagaz ezin eukian emon doi andijagorik gizonarentzat Sakramento onetan emoten jakuna baño. Orregaitik esaten deusku Trento[ko] Konzilio santuak emen erakutsi euela bere beso poderosoaren indar edo sendotasuna gizonaganako<sup>6</sup>, ain mirariz erakusten zituala bere amoriaren<sup>7</sup> ondasun guztijak. Baña oneik ondasun[ok] gura badogu aprobetxau dagigun, biar dogu eldu artutera disposizino santu batzukez, bada, beste modutan zorioneko egin biarrian, zorigeztokoak egingo gaitu. Diferent[z]ijau ondo artuterik gezto artutera dagoanau, gura neuke euki dagizuen beti; baita bere misinoi santo onetako denporan, ikusirik batzuen zorionak, besteen zorigeztoak, eldu zaitezen disposizino santu batzukez.

---

<sup>1</sup> Geuk zuzenduta: *Jankintsuak* > *Jakintsuak*.

<sup>2</sup> Ostein aldatuta: *guk ezautu al daiguzenak baño* > *guri agertuten ez jakuzenak*.

<sup>3</sup> Idem: *non geijen* > *bada, emen*.

<sup>4</sup> Ostein zuzenduta: *bada, emen sartu zituan* > *bada, berta[n] sartuten zituala*.

<sup>5</sup> Ostein aldatuta: *Eta ezautu gura badogu* > *Orregatik bada, gura badogu jakin*.

<sup>6</sup> Ostein erantsita.

<sup>7</sup> Idem.

Bai, N.K. Jangoikoaren Semiak mundura etorteko euki eban motibua, etzan izen beste gauzarik [ezpada] kendu edo galdutia Diabruaren obrak, dino S(a)n Juan Ebanjelistiak. Oneik<sup>8</sup> Diabruaren obra geztok etziran izen beste gauzarik ezpada pekatua bere enbidijagaitik munduan sartu zana, eta emetik erijotzia. Enbidijaz beterik Diabrua egonik, ikusi ebenian gizona ain zorionez beterik ifini ebenian Jangoikoak, ezin sufri durik one[n]beste zorion gizonagan, gura izen eben ezarri ain ditxa andirik, esaten eutsela gura lelengoko guraso edo Ama Ebari: Jaten badozu jardin orretako arbole eragotziko frutua, izango zara zorionekoa, izango zara Jangoikoa beste, bada, jakingo dozu zer dan ona ta txarra. *Eritis sicut Dii*. Sinasturik gura guraso lelengokoak guzurrazko sirpiearen promesari engañaturik, izengo zala Jangoikoa beste, jan eban jardin atako arbole eragotz[i]lko frutua Adanegaz batera; eta orra non ausirik Jangoikoaren agindua, kopau bakar bategaitik geratu ziran desterraturik Paradisuko Jardin atatik. Galduteko au Diabruaren obrau gura Jangoikoak, edo pekatuau, ifini euskun bere jakituri neurrigabiagaz beste kopau bat, zein izen liten medizina kenduteko arako bereno mortala jan genduna gura lelengoko gurasoetan. Konbidetan gaituz, bada, kopau zorionez beteriko onetara Jangoikoak, egijagaz prometiduten deuskula guzurragaz Diabruak gura gurasoai prometidu eutsena<sup>9</sup>, au da, izango zirala Jangoiko beste jaten baudien frutau. Jangoikoaren dibinidadiaren parte izaitiagaitik, izen arrik engañaturik, jan baudien gura lélengoko<sup>10</sup> gurasoak fruta eragotzija, ara emen non ifiniten beste bat nok benetan egin gaituen bere dibinidadiaren parte. Jan daigun bada, eta Berak egingo gaitu Jangoiko, bada, Zeruko Ogijau ezta gitxiago Jangoikoaren Gorputz ta Odol alkarregaz bat eginik dagozanak<sup>11</sup>. Ondo jaten badogu, eztau eukiko inoz gura eriotziak parterik.

Eldu gai[tezan] arima garbi bategaz, fede bizi, esperantza oso ta kariadadiaren amudijo andi bategaz. Onelan eldurik, Lurreko janarijak gura gorputzian egiten dabena osasunegaz jaten dogunian, au berau egingo dau Zeruko janari Aingeruak inbidija daukenonek gura animetan.

Au da Santo Tomas gloriosoak Zeruko janari onetan ondo esperimentaduak erakusten deuskuna. Sakramento onek dirausku, iraun ereiten deusala gura arimiaren bizitziari, zeinde Lurreko ogijak gure gorputzeri: *Sustentat*. Azi gura animako bizitzia, Lurreko ogijak gura gorputza sendatuten dauena legez: *Augeat*. Argaldurik dagoana sendotu, Lurreko

<sup>8</sup> Zentzurik ez duela eta, ez dugu zuzenketa hau transkribatu: *Oneik > Au*.

<sup>9</sup> Ostean zuzenduta: *prometiduten deusena > prometidu eutsena*.

<sup>10</sup> Horrela, tilde eta guzti.

<sup>11</sup> Ostean zuzenduta: *dagozana > dagozanak*.

janari onak egiten dauena legez gure gorputz len indergaturik dagoana: *Reparat*. Eta azkenian, emoten deutso gure arimiari gozotasun<sup>12</sup> andi bat, Lurreko ogijak gose danian gure gorputzeri emoten dautsena<sup>13</sup> legez: *Delectat*. Ze marabilla ifini leike<sup>14</sup> neurribagiagorik au baño gizonarentzat<sup>15</sup>? Eta nor izango da ontasun ta miserikordija neurribageko obrau azaldu edo espliketako kapaz? Baña, alan bere misterijo eta sakramento onen ezaura puska bat euki dagizuen, esango dautsuet S(a)n Juan Krisostomo ta Santo Tomas Billanuebakoagaz batera, Jangoikoaren konsejua<sup>16</sup> etzala izen beste gauzarik ezpada gu aberastutia, Ogi Zeruko onegaz beragaz bat egiten gaituela. Zer egiten dabela uste dozue<sup>17</sup> bere karidade neurribagiak, kunplietarrik gugaz bat egiteko euken gogo? Egiten dau bere gizetasun edo humanidade dibinizaduagaz janari bat, eta guk Bera janagaz, Bera gugez bat egin din, edo igaro din gugaz bat izatera, esplikadu ezin leijen modu mirarizko baten. O zorionez beteriko Sakramentua! Emen bai erakutsi zendula zeura karidadearen<sup>18</sup> anditasuna gizonaganako! Baña, Jauna, nondi autsari, nondi gizon pekatarijari etorri letxikio ainbeste ditxa, ainbeste zorion? Nori akordauko letxikion zuri ezpada, ain modutan Zu ogi eginik gura estamengura igarota janari izatia? Zelan da, Kristinau[alk, gura oztasuna? Zelan bada, ezkara geijago enpeñetan Sakramento Santua disposiziño santuagoakaz artzera?

Eldu biar dogu, bai, Kristinauak, errez Sakramento Santo onetara<sup>19</sup> Zeruko Ogija artzera, oraindio disposizino santuagoakaz, beste denpora baten Israeltarrak Zerutiko inontzagaz batera artuten eudien janari mirariz beterikora elduten ziran baño. Zenbat ta<sup>20</sup> Ogi Santua neurri bagarik santuago ta miragarrijago dan, eta Israeltarrak, Ogi Santua artzen eldu<sup>21</sup> ziran denpora guztijan<sup>22</sup> biar zan moduan, ez eudiena legez ezautu euren gorpetzeko gesorik berroge[i] urteren denporan ermu edo basa-

<sup>12</sup> Ostein aldatuta: *atsegin* > *gozotasun*.

<sup>13</sup> Ostein zuzenduta: *dautsen* > *dautsena*.

<sup>14</sup> Ostein erantsita: *Ze marabilla* > *Ze marabilla ifini leike*.

<sup>15</sup> Ostein zuzenduta: *Ze marabilla neurribagiagorik au baño aurkitu leike gizonarentzat?* > *Ze marabilla ifini leike neurribagiagorik au baño gizonarentzat?*

<sup>16</sup> Geuk zuzenduta: *konsejua* > *konsejua*.

<sup>17</sup> Ostein zuzenduta: *dozu* > *dozue*.

<sup>18</sup> Ostein aldatuta: *jakituriar[en]* > *karidadiaren*.

<sup>19</sup> Ostein zuzenduta: *Bai, Kristinauak, errez elduko gara Sakramento Santo onetara* > *Eldu biar dogu, bai, Kristinauak, errez Sakramento Santo onetara*.

<sup>20</sup> Ostein erantsita.

<sup>21</sup> Ostein aldatuta: *joaten* > *eldu*.

<sup>22</sup> Ostein ezabatutako esaldia: *Ogi Santua artzen eldu ziran denpora guztijan, jateko gose andijagaz* > *Ogi Santua artzen eldu ziran denpora guztijan*.

mortu itza[l] atan; alan, Kristinaua, elduten bazara<sup>23</sup> Komunio Santu onetara biar diran preparazino edo prestaera santuakaz, eztozu ezautu zure ariman gaisorik, eta beteko dau zura arimia zorionez. O zorionez beteriko arimia dan arako zura Ogi Santua artuteko biar diran alegin guztijak egiten dituzena! O nor prestau alitekean nira Aita S(a)n Fr(anzis)k[ola] bere denporan legez, bada, gelditurik konsideretan nor naz ni ta nor zu, bakarrik humildade onek ekarri eutsezan ain zorion andijak! Nor eldu alitekean zura Mai Santura zura Ama Birjina garbija prestatuten zana legez, Zu sakramentadurik bere biotzian artzeko! Baña Kristinauak, Jaungoikoa ain ardura andikoa izaiten badogu<sup>24</sup> desierto edo basamurtuan Israelgo errijari emon eutsen ogi mirarizkoaren, memoriya galdu etzin aginduten eutsela Moise[se]ri gorde leijela basu baten atariko puska bat, eskerrak emotia aitzu ez zekijoen beraganik artuko mesediagaitik, zelango eskerrak eztautseguz emon biar guk aren Majestadiari, izenik gu are[el]k baño obeto bere erri maitia eta eginik guri are[eli] baño ontasun, mesede andijagoak? Bada, are[el]na izan zan<sup>25</sup> bakarrik gorpuztena, ta bakarrik berrogei<sup>26</sup> urtian, basamurturik urten euren prometiduko errijan sartu artian; baña guria arimaren onerako, zein dan ilezkor edo imortala, ta ainbeste urtian. (Ze zorion andijagorik gura zinaike<sup>27</sup>? Ezta kontentetan zugaz etxe<sup>28</sup> baten bizi izanagaz, mai bate[n] janagaz, zugaz adiskide bat, beste bere adiskida bategaz egon litekena legez. Urrago euki gura zaitu; gura dau zu bere bizileku izan zaitezana, gura dau zura biotzian sarturik zugaz gauza bat izan.)

Ze zorion<sup>29</sup> andijagorik? Inoz euki dozu Apostoluen inbidijarik, Jesukristogaz ibili, bizi ta berba egitia merezidu izan ebelako? Bada, au baño askoz geijago emoten deutsu Jangoikoak. Ezta kontentetan zugaz etxe baten bizijagaz gure ogi eginda, gure janari eginda gura auan sartu daigun, eztarri edo samatik igaroz bulerrera beragaz gauza bat izan gaitezana, bere bizitziazagaz bizi gaitezana. Inoz ifini zara pensetan, komulgadu ezkerero zer daukazun ez zeura etxian, ez zeura alboan, ezpada zeugaz bat eginik? Egon zara nozbait adi ezagututeko zugan jazo dan Jangoikozko mirari sini[s]lezgarrija? Bada, erraz esan daikezu Zeruko Ogijau

<sup>23</sup> Ostein zuzenduta: *eldu zaite > elduten bazara*.

<sup>24</sup> Ostein aldatuta: *Jangoikoak ain kuidadu andija ifini beeban > Jaungoikoa ain ardura andikoa izaiten badogu*.

<sup>25</sup> Idem: *zirian > zan*.

<sup>26</sup> Geuk zuzenduta: *berregoi > berrogei*.

<sup>27</sup> Ostein aldatutako esaldia: *Emetik ezautu biar dogu > Ze zorion andijagorik gura zinaike?*

<sup>28</sup> Ostein aldatuta: *mai > etxe*.

<sup>29</sup> Idem: *amodijo > zorion*.

artu ezkerro, etzariala lurra ez autsa, ezpada Jesukristoren gorputz nai bere azurraren azur, aragijaren aragi: bizi naz ni, baña ez ni, ezpada Jesukristo bizi da nigan; beragan bizi naz, eta Bera bizi da nigan. Onelan berba egin biar dogula dirausku S(a)n Juan Krisostomok, bada, au ta ez gitxiago jazoten dala Jesukristoren Gorputz sakramentadu onetan artuten dabenagaz. O Jangoikoaren gizonaganako amodijoaren ezaugarri edo señalearik andijena! Nok sinastu leikian? Nok uste leikian? Nori gogora bere eldu leikion, Jangoiko batek ain modutan estutu, batu eta beragandu gurako eba[la] simaur edo lur zati bat baño etzan gizona? Bedeinka milla bidar izan dilla ainbeste maitetu gaituzan Jangoiko ona. Orra, Kristinauak, zelako ondasun ta zorionak beraganduten dituan arako Kristinau arima garbijagaz Komunioko Mai Santura elduten danak.

Emetik ezagutu biar dogu ze esker andijak emon biar deusaguzan, eta au egin<sup>30</sup> biarrian ezpadogu<sup>31</sup>, zelako desbenturak eztitu mereziduko konbit sagradu onetara pekatu mortalagaz elduten danak? Gura badozu, bada, jakin garbitasuna zeinegaz eldu biar zarian Sakramentu onetara, zorigaizto eta desbentura ikaragarrijak zura ganera jausi ezтитеzan, begiratugizu Jangoikoak bere Atxinako Legian eskatuten zituanak sakrifizijoko aragijak edo okelak artuteko. Moises[elk bere Libru Lebitikuan aginduten dau eztila inor atrebidu ostija pazifikua artzera ez eukirik arimia garbi (legiak) orban guztijetarik, eta baldin inor arima loijagaz ostija pazifikuau artzera atrebietan bada, instante beratan ilgo dala. Eta Atxinako Legian sakrifizijo[ko] aragi edo okelak jatera elduten zirianak arima loi edo mantxaz beterikoakaz, elduten ziran bertan ilda geratuten baziran, atrebimentu<sup>32</sup> beragaitik, ze kastigu eztabe mereziduko Komunio Santura pekatuz beterik, zauriz estaldurik, eta guztija loitu ta orbanez bete edo ezañdurik elduten diranak? Ze desakato edo injurija andijagorik egin leijo gizonak Jangoikoari, arturik bere eskuetatik ain doi miragarrijak?

Benetan Jangoikoa prestua, frankua bada<sup>33</sup>, liberal ta miserikordio-soa da bere mesede ta miserikordijetan, baña bai bere da guztiz ardua andikoa eskatuten Berak emon deuskuzan gauzaren eskerrak, dino Fr(ai) Luis Granadako beneragarrijak<sup>34</sup>. Zabaldu dagiguzen begijak Eskritura Santutik eta pausuan-pausuan ikusiko konfirmadurik egijau. Ataraten dau bere Erri maitia Egiptotik, eta orra non aginduten dautsen

<sup>30</sup> Geuk zuzenduta: *egian* > *egin*.

<sup>31</sup> Ostein aldatuta: *Eta* > *Emetik ezagutu biar dogu ze esker andijak emon biar deusaguzan, eta au egin biarrian ezpadogu*.

<sup>32</sup> Geuk zuzenduta: *atribementu* > *atrebimentu*.

<sup>33</sup> Ostein erantsita: *Benetan Jangoikoa* > *Benetan Jangoikoa prestua, frankua bada*.

<sup>34</sup> Ostein zuzenduta: *beneragarrija* > *beneragarrijak*.

fiesta solemne bat urtian-urtian, mesedeonen memorijagaz eskerrak emon daijozan. Biralduten dautse Zerutik Ogija eta aginduten dautse gorde daijela basu baten Testamentoko Kaxa edo Arkan. Arik egun gixi barru, irabazi ereiten deutse bitorija andi bat Amalezitaren kontra, eta aginduten deutso Jaunak Moise[se]ri, betiko aitzu ez tin eskribidu dagijela libru baten eta entregau Josueri. Emetik ezautuko dozue ze kuidadu andije dauken gizonak eskerronekoak izan ditian Jangoikoaganik artu dituen mesedetara. Orain, bada, ikusirik Jangoikoa ain enpeñadurik gu nondi zorionez beteko gaituzen batetik, eta bestetik, erakutsirik ain egarri andija eskerronekoak izen gaitez an beragandik artuko mesedietara, eta izenik mesederik andijena Bera gura janaritzat ematia, egin lekikio injuria andijagorik, bere konbit sagradura pekatuz beteriko arimiagaz joatia baño? Arritu ta ikeraz bildur gaitez an pekatu andijau ikusirik. Ezta zer miraritu gugaz ain aserre egotia, ikusirik atrebimintu<sup>35</sup> bildurgarrijau. Zeruko Santuai gli[txi] baderetxoe eternidade bat Berari eskerrak emoten egoteko, zer da zer miraritu, dinot bigarrenez, ikusirik ain eskergeztoagaz azpiratu ta zapaldurik bere tesorurik miragarrijenak? Kriatura guztijak erakusten deutsee beraganik artu dituen mesediaren agradezimintua, ta bakarrik gizona izango da, kriatura guztijen artian, kondezinorik gel[ztokoena? O gizonaren gogortasuna! Begira Jangoikoa bera kexetan dan bere Profeta Isaias Santutik zitetan dituzela onetarako, gizonaren bildur geijagorako, ez Aingeruak, ez Santuak, ezpada kriatura arimarik eztaudienak: Zeruak, Lurra eta aberijak. (\*)<sup>36</sup>

Zuek, Zeruak izerrakaz; zu, Lurra, Zeruak Lurragaz batera: erdue testigu izatera gizonaren kontra. Kriadu nendu[an] gizona neura irudi edo antzera, eta azi, munduan amarik samurrenak euren s[e]metxu maitiak egiten dituen baño amudijo andijagoagaz; eta ama maite batek be[re] bulerreko ugetz gozoagaz azten dituen modura egin naz euren janari ta edari, n[i] arima garbijagaz jan ta edanagaz, bizi ditian bizitza santu bat. Baña, arritu zaitte ik[ul]sirik elduten dirala Mai Santu edo Komuniora euren biotzian be[re]no andije nira kontra daudela, pekatuz loiturik, atsiturik, eta euren osasuna edan biarrian, erijotzia edaten daudiela. Euren biotz Diabruak bere tronua ifinirik daukenian, antxe<sup>37</sup> ifiniten n[a]be. O pekatarijak<sup>38</sup>! Errez bildur izango zaree zuekgaitik esan eztagijen beste denpora baten berfe] dizipulo Judas traidoriagaitik esan ebena. Ai aren

<sup>35</sup> Alternantzia: *atrebimintu / atrebimintu*.

<sup>36</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez ditugu albo ohar hauek transkribatu: *O ze deungaro pagetan deusagun mesederik andijena!* [Aurrerago:] *Gu izanik ain eskergeztokoak, ezta zer miraritu azpiraturik eukitia.*

<sup>37</sup> Geuk zuzenduta: *antxe > antxe*.

<sup>38</sup> Ostean erantsitako esaldia.



tristia! Oba izango eban jaijo izen ezeit[a]. Bai, pekatari sakrilegua; deungaro Komunio Santura elduten bazara, Jangoikoaren Gorputz ta Odolak zeura biotzian ain injurija andijagaz ifini dozunak deadar egingo dau zure kontra, Abel justuaren odolak bere anaje Kain[en] kontra egin eban baño indar andijagogaz, eta Jangoikoak entzun bazituan Abelen odolaren deadarrak, eta izan bazan kastigatua Kain, obeto entzungo ditu bere seme maitiarenak; eta neurri bage izango da andijagoa zugana etorriko dan kastigua. Odolonegaz eskribiduko da zure azkenengo kondenazinoaren sentenzija. Au da S(a)n Pablo Ap(ostolu)ak esaten deusuna: jan ta edaten dauenak arima loijagaz Jesukristoren Gorputz ta Odola, jan ta edaten dauela bere kondenazinoia. Ezin artu zinaike bere-no andijagorik<sup>39</sup>, deungaro Komunio Santua artutia baño. Bakizu zer dirauskun Libru Sagraduak? Apenas Judas madarikatuak bere Maisua sakramentadurik artu eban, arik laster joan zala Eskribu ta Fariseogana bere Maisua entregetara, eta Sakramento Beneragarri oni egin[ik]lo injurijagaz zarratu zirala beretzat miserikordijaren atiak. (\*)<sup>40</sup>

Erdu Zeruak, ikustera arrigarrizko pekatuau! Zuek, gizonaren partez, sikiera<sup>41</sup> bedeinkatugizue Jangoikoa. Erdue Eguzkija, Irargija ta izarrak, ta lutuz jantzi zaiteze; erakutsigizue zuen sentimentua, gordegizue zuen argijak, bildurtugizue gizona atrebimentu andijau ikusirik! Kristinauak, zelan lotsaturik lurrera jausten ezkara, ikusirik kriatura arima bagiak<sup>42</sup> Glorijaren kapaz eztiranak, eta guri legez prometidu eztautsienak betiko zorionik, gau ta gabardi dagozala euren Kriadoria glorijak emoten, ta gu izanik ain mesede andijak beraganik artuak, eta gugaitik eginik beste kriaturak euren argi ta elemento guztijakaz serbietan gaituzala sei milla ta geijago urtian, ain esker deungakoak izatia eta Berak egiten deuskuzan mesederik andijenera ain lotsabag[eltasunagaz joatera? Erdu zu bere, Lurra, ta izen zate testigu gizonaren kontra, ikusirik bentaja andija egiten deusazula gizonari, zeura Kriadoriaganik artu dozuzen medioren eskerrak emotera. Zuk obedidu zendun zeura Kriadoriaren agindura, suzko atxarritik ura emoten zendula Mo[i]se[se]n aginduz, eta onelan Jangoikoaren errijari egarrija ilteko. Eta a Jangoiko zuri ura emon zinaijela<sup>43</sup> agindu eutsuna, eginik orain gizonaren ogi, au gizonau atrebidu da lekurik loijena Jangoikoari emotera, komunio sakrilegiozko andi bat Diabrua baño azpirago ifintera. Erdu Itsas gorrija, erdu Jordango

<sup>39</sup> Geuk zuzenduta: *andijagoarik* > *andijagorik*.

<sup>40</sup> Atal horretako albo oharrak: *Bada, dino S(a)n P(a)blo[k]*. [Aurrerago:] *S(a)n Jua[n] Eban(jelis)ta*.

<sup>41</sup> Ostein erantsita: *Zuek sikiera* > *Zuek, gizonaren partez, sikiera*.

<sup>42</sup> Ostein zuzenduta: *kriatura arimiaren kapaz eztiranak* > *kriatura arima bagiak*.

<sup>43</sup> Idem: *daizula* > *zinaijela*.

errekia; zeuen ur itzaltsuak siketurik Jangoikoaren agindura obedezidu<sup>44</sup> zenduen, bere Errija beste aldera igaro artian kale eder bat eginik, zeu[e]n ur kristaltsuekaz muralla eder bat egiten zenduela. Erdue, noa bigarrenez, esaten deusuet: Izan zaiteze testigu pekatari sakrilegu madarikatuaren kontra, lotsatugizue, biortu zaiteze euren kontra eta kastigadugizue, esangiozue zelan dauken atrebimintua bere Ongilliari ain injuria andija egiteko. Idigi zaite zu, Lurra, eta iruntsigizuz gizon madarikatuak bizirik Infernura, beste denporan Datan, Abiron ta Kore atrebidu ziralako zura altarako ofizijoak egitera ez eurei jetorkiela, desiartuen egin zenduna legez zeura Erri guztija arriturik ifiniten zendula. Egli]zu, dinot, bada. Neurri bage da andijegua pekatari madarikatuak egiten deusuen gaur, arturik Komunio Santuan zura Gorputz ta Odola pekatuan.

Erdue zue[k] bere, idi nagi ta asto sa[l]bajeginokoak; begiratugizue, bada, arako Belengo portalian zeu[e]n arnasiagaz aska triste atan berotu ta al zendu[e]n posibilitadian neguko otzaren gogortasunerik jagon ta ondo artu zenduena, eginik orain gizonaren janari, au gizonau atrebidu ain injurija andija egitera, bere etseko lekurik loijenian, bere anima pekatara sujetu dagoanian azpiraturik ifinitera. Erdu zu<sup>45</sup> bere, aberija garratza, leoi itzaltsua; begiratugizu arako noren agindura obedidu zenduan, jan bage (goserik andijena zenduena) itxiten zendula Daniel Profeta Santua. Au zuri agindu eutsun Jangoikoau, obedidu zinajela bere mandamintura, gaur gizonaren janari eginik, Sakramento beneragarri baten gizon madarikatuakganik da gaur ostiko artian zapaldua. Bior-tu zaite gizon madarikatu onen kontra, kastigadugizu bere atrebimentua, urtengizu zeure Egilliaren onriaren bando. Baña, nor izengo da kapaz espliketako, Komunio Santura arima orban edo mantxaz beterikoakaz artutera atrebietan danak egiten dauen pekatu arrigarrija? Baltasar Erregiak Jerusalengo tenplo santu[ko] basu sagraduak bere maien profana zitualako merezidu izan beban ain kastigu arrigarrija, egun beratan ilten ebela, zer mereziduko eztau, ez basu sagraduak, ezpabere Tenplo Santuaren jabia, Jangoikoa bera, pekatarija aberastutarrik bere anditasun guztij[a] gitxiturik ostija konsagradu baten, arima loijagaz artuten dabe-na[k]? Antioko Erregia ezaindu ebelako elexa santua, il bazan atsiturik arrak janik; Betsanitarren errija arpegi ilunagaz artu ebelako testamento argia, izan bazan guztija destrozadua; Eliodoro agintarija sartu zalako errespeto bage Jerusalengo tenplora, izen bazan gogortasun andijagaz

<sup>44</sup> Alternantzia: *obedidu* / *obedezidu*.

<sup>45</sup> Ostean erantsita.

azotadua ainger[ul] bateganik, zelako azote, destroz, eta zelan kastigadua izango ezta Sakramento Santuau pekatuz kiresturik artzera elduten dana? Madalena Santiari bere ezpanakaz mun egiten ezpautsen itxi Jesukristok erresuzitau zanian ilen arterik, anbeste negarregaz garbitu ezkerro pekatuak, bere pasinoan inok ez legez lagundurik, orregaitik ukatuten badautso Santa oneri bere oin santu ta gloriaz beterikoetan mun egitia errespeto andijegaz izen arren, zelan zu pekatari zikin ta desonestua, elduten zara gaur ainbeste pekatu eginik, bijer ostija konsagradua zeura ao ta ezpan zikinakaz artutera? Zelan zeura pekatuak ondo konfesadu arrik, lenengo zura amistade loa ausi bage urreratuten zara Mai Sa[n]tu orretara? (\*)<sup>46</sup>

Bada, kuidadu zugaitik esan eztagijen orrelan elduten bazera, beste denpora baten<sup>47</sup> Isai[al]s Profeta Santuen aoti esan ebena Judeguaren sakrifizioakgaitik: Uste dezu orrako Altara aurrorretan ofrenda andijakaz dagozan sakrifizioa[k] atseginen bat emoten deustiela? Ba, ez; jakingizu euren ofrendak niretzat bomitu batzuk diriala. *Omnnes mensæ repletæ sunt vomitu sordiumque*. Zelan bada, ezta gure kontra egongo ain aserraturik Jangoikoa, Berak gu osatuteko ifiniko osagarri edo medizinarik onenak geura gestokerijagaz beneno<sup>48</sup> biortuten badoguz? Ze gauzatarra eskua ezarri lei beragana gu biortuteko? Artu gaituz onez; guztija alperrik galduten dogu, ostiko artian sartu. Artu gatuz gatxez, persekuzinoak biralduten deuskuzela Manases Errege ta beste askori biraldu eutsezana legez<sup>49</sup>. Baña, biortu gara? Ondu gara, urten dogu pekatuak? Esan begii bakotzak ondo eskua bulerrian ifinirik. (Biraldu dautsu semiaren erijotzia, otsaiñaren gexoa, zeura alabaren desgrazia, beste denpora baten zenturionen edo eskoadr[o]li bat soldaduaren<sup>50</sup> agintarijari legez; baña, biortu zara Jangoikoagana?) (Biraldu dau gosia, egarrija, gerra gogor ta ikeragarrija, entregau ditu zure emazte ta alabak nazino geztokeen eskura, il ditu zuen semiak, gure anajiak, lengusu ta adiskidiak, ostu ditu zure ondasunak, erre etxiak eta desierto ifini ditu auzunak, erre

<sup>46</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu albo ohar hau transkribatu: *Ikusirik gixtiagoga[it]lik ain kastigu andijak egin zituala?*

<sup>47</sup> Ostein zuzenduta: *beste denpora baten orrelan elduten bazera beste denpora baten Isai[al]s Profeta Santuen aoti esan ebena > orrelan elduten bazera, beste denpora baten Isai[al]s Profeta Santuen aoti esan ebena.*

<sup>48</sup> Alternantzia: *bereno / beneno.*

<sup>49</sup> Ostein aldatutako esaldia: *Biraldu deuskuz nezesidade, estura, persekuzinoak, beste denpora baten Jeriko itsu, Manases Errege ta beste askori biraldu eutsezana legez > Artu gaituz onez; guztija alperrik galduten dogu, ostiko artian sartu. Artu gatuz gatxez, persekuzinoak biralduten deuskuzela Manases Errege ta beste askori biraldu eutsezana legez.*

<sup>50</sup> Geuk zuzenduta: *salduduaren > soldaduaren.*

edo galdu urijak. Oneik guztijok eta geijago biraldu deuskuz irazarri gaitian gera pekatu-rik, eta biortu-rik beragana betiko galdu ez gaitian, atara gaitu oneik guztio-tarik; baña, ikusten dogu ekanduetan erreformarik? Eztakusgu mundua gaur inoz baño deungago? Eztakusguz tenploak desi-ertu eginik, altara santuak profanadu-rik, Jesus sakramentadua ostiko artian zapaldu-rik? Eztakusgu mundu guztija odijo ta enemistadez bete-rik, plaza guztijetan zar-da gazte guztijak berba loijetan eta zikinkerije-tan sartu-rik? Non da arako donzella batek biar dauen onestidedia? Ezta-kusguz, asko eurakgaiti... (\*)<sup>51</sup>

Bai, Kristinauak; ondo begiratu-ko bagendu deungaro komulgetan dir[ia]nak Jesus sakramentaduari egiten dau-sen injurija ta Berak artuten daben aserria pekatariaren kontra, arritu-rik, itzaldurik geratu-ko giñate-kez. Ik[ul]siko geunka zelan bere ezpata billosagaz kastigaduten daben onelako pekatari-ja, eta bere aotik urteiten dabeen suzko errekiak erre ta kiskeldu gure izenik, arritu-rik gelditu-ko litzate. Berba baten guztija aka-badu daigun esanagaz, izenik gizonak egin aleijen pekatu-rik andijena pekatuan Komunio Santura elduta, alan da kastigurik itzalena Jangoiko-ak sakrileguaren kontra egingo dabena. Oraindio eztozu gura urten zeu-ra sakrilegijoetatik? Gura dozu zure ganera etorri din Jangoikoaren odol guztijaren kargia? Eztira ni pekatari andionen berbak zu biortuteko? Bada, niriak ezpada-ri asko, begira zelango sentimentuak dirautsuzan Jesus maitia-ki: *Popule meus, quid feci tibi?* Neure erri maitia, dirautsu-ki kurze onetatik, zer egin dot zura kontra zuk ain gaizto artuteko?

#### [AMAIERAKO ERANSKETA]

##### EFEKTOS DE LA BUENA COMUNIÓN, Y DE LA SACRÍLEGA REC[E]PCIÓN

Eta nok onelan artu-rik emon leizuzen, Jauna, Santuak emon eutsue-zan eskerrak? Bai, Kristinauak; ez bakarrik artu biar dogu disposiziño santuakaz, baita bere esker andijak emon biar dautseguz artu ezker-ko, bada, da gauza guztiz ezaiña, artu-rik biotzian arako Jangoiko andi Zeru ta Lurraren jaubia, gauza guztijak bere berbiaren indarragaz bakarrik egin zituzena, Angeruak lurreragino makurtu-rik adoretan daudiena, ara-ko Jangoiko andi gure konbidadu izatiagatik ostija txiki baten bere andi-tasun ta majestade guztija biortu dabena, ain konbidadu miragarri bat bere biotzian artu-rik eskerrak emoten paretan eztana. Eta Jangoikoa bes-te denpora baten izan bazan ain ardura andikoa, aginduten eutseela<sup>52</sup>

<sup>51</sup> Atal horretako albo oharra: *Probau gaitu onagaz ta gatzagaz.*

<sup>52</sup> Ostean zuzenduta: *eutsela > eutseela.*

gorde leijela Zerutik artuten euden janari miragarrija basu baten, emetik ezautu leijen euren seme ta oñekoak zelango mirarijak egin zituan Jangoi[ko]lak basamurtuan euren gurasoakaz, emetik artu leijen okasinoa Jangoikoari eskerrak emoteko, askoz errazoa geijagogaz biortu biar gara, Kristinauak, Sakramento miragarrijonetan emoten jakuzen ondasunakgaiti eskerrak emotera, zenbat eta guri egiten jakun mesedia andijagoa dan arefeli egin jakeena baño; bada, arefeli emonikoa zan bakarrik guri emoten jakunen geriza, arena bakarrik izan zan berrogei<sup>53</sup> urterako eta gorpetzeko<sup>54</sup> osasunerako, baña guria betiko eta arimako osasuna eternidade baten emoteko.

Ze zorion andijagorik onelan ifinirik euren gogoan euren libertadeko eguna, artu leijen okasinoa Jangoikoari eskerrak emoteko! (Pausuan-pausuan ikusiko dogu klaruago arturik egijau.) (Egijonen prueba andijak) ondo agerturik...

*Substantia enim tua dulcedinem tuam, quam infilios habes, ostendebat; et deserbiens uniuscujusque voluntati, ad quod quisque volebat, combertebatur.* Sapientia, capite 16, v. 21.

---

<sup>53</sup> Geuk zuzenduta: *berregoi* > *berrogei*.

<sup>54</sup> Alternantzia: *gorputz* / *gorpetz*.

## [MISINO SANTUKO KONSEJUAK]

*S(anc)ta in proposito vocationis vel in sorte.*

Erakutsirik misino santu onetako denporan pekatuan sarturik dagoanen pausuak zelakoak izan biar daben grazijako estadura biortuteko, eta ikusirik zuetariko geijenak, Jangoikoen grazija ta zeu[e]n neke ta alleginagaz naste, pekatuzko eriotzatik grazijako bizitzera biortu zariala ostera lengo eriotzara biortu bagarik, artu dozuen grazijan firme egoteko zer egin biar dozuen erakutsitera nator gaur pulpitu onetara. Asko dira onetarako Jakintsuak emoten deuskuezan consejuak, eta ez izanik ainbesterako denporarik, kontentauko naz, biarren dirianak erakutsijagaz. Dira, bada, one[e]lk: Lelengo, zeuen aurrian Jangoikoa beti presente eukitia. Bada, au egiten badozu, ez dozu zetan izen bildurrik pekatuan jausteko; Bera zer zuk egiten dozun begira jagotzula pensetiak, pekatuen bildur santu bat ifiniko deutsu? Eta benetan, nor izango litzateke arako pekatarija, uste izanik bere gaiztakerijari begijak zabalik begira jagokala, gera aren kontu estu bat artuteko eta kastigu itzal bat emoteko, egingo leukiana? Inor ez, gezto izanagatik. Bada, pekatarija, zuk fedeko argijagaz au sinesturik gogoz pensetan badozu, pekatutik beti asago iges egingozu.

Bigarren consejua da Espiritu Santuak berak emoten deuskuna, au da, geure azkenen gauzak Eriotzia, Juizijoa, Infernua ta Glorija pensamentuan sarturik erabilitia; eta one[e]lk presente gogoan badarabilguz, ez dogula sekula pekatuak egingo dirausku Jangoikoak. Eta benetan, Eriotzara ondo begiraten badau, berak erakutsiko deutso ze engañagarriak dirian berak orain ain maite dituzen gauzak, guztijak axiaren inderrak eroan daroezan lañoak legez igoroko diriala, eta engañau<sup>1</sup> zala esan biarko dabela, eta orain au kontuau ateraten ez badau, orduan alperrikoa izan leitiala... Juizijoak, egunen baten bere lotsagarrizko gauzak ondo agirijak izango diriala, orain lengoak negarturik aurrerantzian onduten ez bada, arako eskerreko aldian betiko sentenzija zorigaiztokoa entzun biar dabela, ta beste onelakoak... Infernua, ze itzel ta arrigarrija izango dan, emen buruko ala bat ezin iga[ro] badau, zelan igoro<sup>2</sup> alei-

<sup>1</sup> Ostean zuzenduta: *engaña* > *engañau*.

<sup>2</sup> Alternantzia: *igaro* / *igoro*.

kezan ango tormentuak, eta ez egun batekoak, ezpada Jangoikoa Jangoiko dan artekoa, ze itzala izango dan pensetia berak ain erraz irabazi al izanik, ain gauza zikin batzukgatik galdu ebela, bere lagun asko bera-gaz batera bizi zirianak, Zeruan ikustiak emon biarko deutzan penia bera bere zorion andiz izan al izanik, Maria Santisimiaganik, Santuakganik, Angeru, ta Santu guztijen Santu dan Jangoikoa danagandik diabruakaz batera egon biarko dabela...

Irugarrena, pekatuen okasiñotatik iges egitia. Au bere da lengoa legez Espiritu Santuak emonikoa; bada, berak diño peliburue maite dabenak, peliburuen jausiko dala, eta okasinotik urten gure ez dabenak, maite izenik peliburu, gauza agirija da ez emetik iges eginik gox edo belu jausiko dala. Okasino onetatik iges egiteko ondo da liburu onak irakurritia, edo berak es badaki<sup>3</sup>, besteri ereitia; lagun onakaz batutia, alperkerijetatik iges egitia. Bada, fiñak, langillak euren obligazinoetan dagozanentzako diabru bat badago tentagarri, alperrentzat milla dira. Orregatik, baktotxa bere obligazinoetan; ezpabere, nekerik igeska bazabiltz, alperkerijak neke geijago ekarriko deutsu, ez an beste Munduan, baita bere emen Lurrian.

Laugarren konsejua, orain artian baño sarijago konfesau<sup>4</sup> ta komulgetia. Sarri soñekoak garbitu daroezanak soñian garbijago ibili doaz luzarorik luzarora garbitu oi dirianen aldian. Auxe da, bada, arimiagaz jazoten dana bere. A Kristinauak! Gorputzagaz artu daroagun arduria artuko bagendu arimiagaz, obiak izango ginateg. Gorputzian min dogunian, arik eta min atati urten, ez dogu beste gauzarik gomuta izaten ezpada osasuna; eta arimia zauriturik, usteldurik eukiarren, ezta ardura. Ze itsumena<sup>5</sup>! Posible balitz aurkitutia iturri bat ain osasunerako birtute andikoa, zeinda iturri atako ura edatera elduten diran guztijak euren gatx guztijetati osaturik ifiniten dituzena, ez litzateke aurkituko gaixorik kostala kosta iturri atako urak edan naiko ez leukena, ain da estimagarrija gorputzeko osasuna. Eta izanik arimakoa neurri bage estimagarrija-goa, baita Sakramento Penitentzajakoa izanik iturri bizija arimako zauri guztijak kenduteko inderra dabena, ez da ikusten onetarako ardurarik artu daroela, zauri ustelez beterik iketza bera baño balzagorik arimia eukiarren. Ez jatzu, bada, pekatarija, onetarako eskatuten ez diru moltsorik, ez ondasun andirik; ez dozu onetarako zetan igaro itsaso peliburu-zkorik, ez bakarleku andirik, ez beste neke andiko gauzarik.

<sup>3</sup> Geuk zuzenduta: *badagi* > *badaki*.

<sup>4</sup> Ostein zuzenduta: *konfesa* > *konfesau*.

<sup>5</sup> Ostein erantsitako esaldia.

Ez, Kristinau, ez ifini atxakija geztorik; ez dozu besterik elexara joan ta konfesore baten oñetara joatia, ta zeure pekatuak biotzeko negarragaz konfesore orri esatia baño besterik. Baña orregaitik, zenbat eskusa ta atxakija ez da ekarten onetarako. Gaixorik bazagoz, botike ta dirua falta badozu bere, kanpoan billatuten dozu; konfesetako onelakorik biar ez dozu, eta orregatik beti atzera egunerik egunera, asterik atera, illerik illera, urterik urtera luzetu daroazu. Asko dira urte luzeetan bere konfesadu bagarik igoroten dirianak; beste asko konfesetan badira bere Elexiak aginduten dabenian, egingo ez balira obe leukianak. Pekatuakaz joan, andijagokoakaz biortu; eta zegatik euren bizitza pekatuzkoari itxi gure izen ezagatik. Onelantxe dakust gaurko egunian mundurik geijena, eta au, nok ondo gatx guztijok biotzian begiratu daigizen ez egotiagatik.

Orregatik, misiño santu onetan desgrazia guzti one[le]tatik urtenda ederturik arimetan gelditu zarenoi esan biar deusuet, esker andijak Jan-goikoari emon biar deutsezuezela<sup>6</sup> orain artekoen parkaziñoogatik, eta eskatu grazija aurrerantzian firme jagotea [a]rtu dozuen grazijan. Ezautu biar dozue, orain garbi lotu arren, argalak zareela, ta okasiñotik iges egin ez badozue, len legez edo geijago jausi al ziñatezela. Soñian orain ifiniten dozun jantzija zuri ta garbirik ifini arren, gauza loi baten kontra ifiniten badozu, mantxa ta orbanez beterik laster ikusiko dozu. Auxe da arimiagaz jazo oi dana; orain garbirik ifini arren, puntuko lagun geztoakaz batuten bazara, len legez loirik ifiniko zara. Orregatik, gorputza edo jantzija garbirik erabili gura dabenak, ez bakarrik loitu aleikezan lekue-tatik iges egin daroiena legez, baita bere sarri garbitu alan zuek bere<sup>7</sup>, ez bakarrik lagun ta peliburu geztoetatik iges egin biar dozue, baita bere konfesadu edo garbitu penitenzijako iturrijan. Eta, jauna, zenbat denporarik zenbatera konfesau algiñatez garbitasun orretan ibiliteko? Onetarako guztijentzat erregela bat ifini al neke, baña nire konsejua da illerik illera konfesau zaitiela guztijok; etarako bizitza perfeziño geijagoti<sup>8</sup> bide egin gure dabenak, sarrijago, euren konfesorien agi[n]dura obedidurik. Ondo gogoan dot gatzetxutan gure gurasoak euren a[lu]rreti alantxe ilian eroaten genduzela, ez ni bakarrik, baita auzotegikoak; baña orain gurasoak ain modutan alperdu dira, ze konfesetara ez eze, meza nagosira bere ozta biralduten dituez, eta emetik mundua geroag[o] [ta] deungago... (\*)<sup>9</sup>

<sup>6</sup> Ostein zuzenduta: *deutsezuela* > *deutsezuezela*.

<sup>7</sup> Ostein ezabatuta: *ez diriana le[gez]*, *alan zuek bere* > *alan zuek bere*.

<sup>8</sup> Geuk zuzenduta: *geijakoti* > *geijagoti*.

<sup>9</sup> Atal horretako hasiera oharra: *vuelta*.



Zer ikasiko dabe umetxuak<sup>10</sup>, exenplo txarra baño besterik etsian ikusten ez badabe? Aita jai ta domeka guztijetan ozta goxian meza bat entzunik, arratsaldean, bezperetara bagarik, zuzen tabernara; andik ez dago gau guztijan nok atera aleijen, arik taberneriak kontu emoitenganian aserratu ta krusulu-mutillagaz golpez atera artian. An<sup>11</sup> dator bidian juroka lur guztija madarikatuten dabela, etsian Jangoikoak daki zer jazo oi doian! Errosarijorik sekula errezetan ez da. Semiak bere aitarren bidien jarrai dabil, ama biraotija, alabia noz, nogaz ta gure daben guztijan berak nai dabenagaz, meza nagosi bitartean auzoko gizon gaztiagaz; amak au ikusi arren ez dautso eragotziten, ta sarriten, libertade geijagogaz gaztiak egon ditizan kanpora iges egin daroa. Auzo ta bazterretan murmuretan da, eta emetik arako gauza nagosijagoak. Eta zegatik one[e]k guztijok? Aberija batzuk legez bizi diralako, edo are[e]k baño bere azkoz deungago, Sakramentuetatik<sup>12</sup> igeska dabiltezelako. Ha tristiak onelakoen umiak<sup>13</sup>! Nozbait etorri oi dira tristiak, deseo santuz beterik, onelakoren batzuk negar egin eragin leijoela, euren gurasoak modubakoak badira bere, orregatik edo auzoan onak dakusdezelako, edo beste modutan, guraso geztoak euren aurrian lotsatu biar leukeenian. Milla bide[r] [bedei]nkatuak seme-alaba etsian gauza onik ikusi ez-da bere Jangoikoen bildurrian bizi zareenak. Glorija geijagoko koroi bat beste askorentzat baño izango da zuentzat, arantza artian larrosia legez, pekatu artian obra onakaz argi egin zenduelako. Baña bestiak arako gurasoen borondatian kontra nondik-nai dabiltezeanak...

Ze zorigeztokoak izan biarko daben! Gurasoak batetik, konfesorik bestetik, predikadoriak pulpitutik, Jangoikoen deijak, konzienzijaren tapadak, guztijetatik deika egon urten deijela pekatutik, ainbeste konbientzija izan eta ez gure orregatik? Itxozu, itxozu, etorriko jatzu eguna naiko dozuna, negarturik eskatuko dozuna, baña emongo ez jatzuna, eta orain zu anbeste deitara gortu zariana legez, Bera bere zure deijetara gortuko jatzuna. Zer? Uste dozu orrelan bizi ta azkenian azaletiko negar bat asko dala? Ez, engañua da<sup>14</sup> Diabruarena. Ori es da zuk pekatuai itxitia, ezpada pekatuak zuri. O mundutarren zoramen andija! Aixiaren inderrak arinka daroazan lañoak baño ariñago igoroten diran gustu minberaz beteriko batzuketatik guztija galdu nai izatia. Gure dozu salbaidu, artugizu biz[i]tza barri bat aurrerantzian, enkomendau zakijoz Jan-

<sup>10</sup> Jatorrizkoan: *bumetxu*.

<sup>11</sup> Idem: *Han*.

<sup>12</sup> Ostean zuzenduta: *Sakramentutatik > Sakramentuetatik*.

<sup>13</sup> Ikus 10. oharra.

<sup>14</sup> Ostean erantsita.

goikoari. Debozinoko bizitza bat artugizu; bada, izanik deboziñoa Zerutiko inontz santu bat Kristinauaren biotzetik epeltasunak kendurik, amodijozko su santu bategaz exeturik Jangoikoaganako infiniten dabena, su santuau ez dabena ibili biarko dau guztija epeldurik ta otziturik.

Debozino guztijen artien onena, aparte itxirik Jesusena, da Maria Santisimiena, zegatik dirauskun S(a)n Anselmok, Birjiniaren deboto egijazko dana Zeruko bidian jarririk dagoala. Eta S(a)n Buenabenturak, beraganik igeska dabiltzen guztijak galduak izan biarko dabena legez, alan bere debotoak, bere bitartekotasunagaz batera, Zeruan argituak izango diriala. Baña deboziño onek ez dau izan biar azaletikoak bakarririk, baita bere barrenetikoak. Zer balijoko deutso bateri azaletiko oraziño batzuk Birjiniari errezetiak, beste aldetik pekatuakaz bere Semia Kurtzian josten badau? Asko dira munduan onelan egin daroenak, ta munduak ontzat euki dagizen azaletiko gauzakaz kontentetan dirianak. Baña one[elk ez dabe uste izan biar diriala debotoak, ezpada hipokritak, mundua engañatzailliak, arako Jesusen Ebanjelioen iges, onelako azaletik ardi mantsoen narruagaz baña barrutik otso ardi-iltzalak diranetatik dirauskuzenak. Debozino egijazkoa finjimentu bakoia da; ez dau bururik okertu biar biotza zuzen erabiliteko, modestija euki biar da, baña ez ainbestekoa, zeinda aurrian dagoan gizon prudentiak bera dan baño geijago erakutsi nai dabela igerri lejona. Barau egiten dozunian, (dirautsu Jesusek) ez zaitekez<sup>15</sup> agertu lagun artera arpegi tristeturik, burua beraturik; orduan geijago garbituko dozu arpegi, onelan ez mundukoak, ezpada Aita Zerukoak ontzat artu deijen zure obra ona eta gorde dagizun bere sarija. Limosna egin daikezunian (bardin dirautsu), ez daikezu la tronpetarik jo auzokoak baturik ikusi dagijen zure limosnia ta limosneratzat euki zaizeen; ez, al dozun ixillen, zure esku ezkerak eskoiak egiten dabena ez dakizu egitera egin eukezu. One[elk dira konsejuak Jesusek berak Ebanjelioan ain kontu andijagaz aginduten deuskuzan gauzak, zein egiten dogunaz, moduz egin ez egitiagatik galdu ez gaitetzan.

Azkenez, S(a)n Josepeganako debotoak izen zaitezala esan biar deusuet, zegatik Santu andija dan bere bitarteko andija. Eta Maria Santisimiak berak bere dizipula Maria Jesus Agredakoari irakasten deusden doktrina baten dirautso, Patriarka Santu oneri emoneko eskubidiak diriala guztizko bere andijak, eta aparteko bat eriotzako ordurako. Santuau da kastidadiaren doia bere debotoai emoten deusena, estadukoai bendizinozko frutuak arkantzarozoten deutsezana, eta berba baten<sup>16</sup>

<sup>15</sup> Osteen aldatuta: *ez eikezu > ez zaitekez.*

<sup>16</sup> Geuk zuzenduta: *berbaten > berba baten.*

guztija esatiarren, bere bitarteko arturik konbenidu jakon gauzarik ukatuten ez deutsena. Eta benetan, zer ukatu leijo Aita Eternoen Semiaren aitaordezko, Seme Jesusaren mantentzaille ta Espiritu Santu Esposaren gordetzalle fiel izan zan Santu miragarrijaoni? Eta zenbat estimauko ez dau Birjiñak bere [E]sposo garbija guk ondretia? Ea, bada, guztijok arturik debozino egijazko bat goazan aurre, sermoiari jarraituteko grazijen billa...

#### [AMAIERAKO ERANSKETA]

Arratsalde onetan, ez naz etorri bakarrik misino onetan ondo konfesau ta grazijaz beterik gelditu zareenoi konsejuak emotera, baita bere ardi erren edo beste onelako pekatariaren bat edo batzuk lotsaz bildur-turik gelditu badira, Jangoikoen partez konbidetara. Erdu, onelan Diabruaren engañuz edo lotsaz gelditu zareen tristiok; oraindio zeu[elk] gure badozue, ez dago denpora galdurik, bakiak egin zinaijez. Posible izango da zuen ainbeste lagun, benturaz zuek zarien baño pekatari andijagoak izanik, ondo gelditu ta bakarrik zu orrelan gelditutia? Erdue egunik galdu bagarik bakiak egitera, pozik artu zaituguz. Eta zuek misiño santu onetan ondo gelditu zareenok, eskerrak...

Asko dira debototzat burua dauken artian, azaletiko errezu batzuk egin ezkerro obligazinokoakaz aitzuten dirianak; beste asko, debozino ta obligazinoen distinzinorik egin bagarik, debozinoak egitiarren obligazinokoak izten dituezanak; beste batzuk, isilian meritu geijagogaz egin leikezan gauzak mundu guztijek jakin dagijoen nai dabenak. Guztirako exemplo ta doktrinak ifiniten deuskuz Kristo gure Salbatzailliak, esaten deuskula limosna egin dagigunian, sunurik jo ez dagigula auzokoak ikusi daije[n]t zat limosneruak gareala, ezkerreko eskuak eskoiak zer egiten daben jakin ze dagijela; barau<sup>17</sup> egiten dogunian, buruak ta arpegijak tristeturik besteri iragarri ereiten ibilli ez gaitezala. One[elk] dira Jesusek Ebanjelijoan arduraz ifiniten deuskuzan konsejuak, zein egiten dogunagaz salbau biarrian, banidadia dala medijo Diabruak eroan ez gaizen. Azkenez, S(a)n Josepen debozinoa...

---

<sup>17</sup> Idem: *buru* > *barau*.

## [JAUNAREN MISERIKORDIJA I]

*Super tribus sceleribus Damasci,  
super quator autem non conbertam eum.* Am. 1, 3

Gutziz arriturik, bildur ta ikaraz beterik agertuten naiz arratsalde onetan pulpitu onetara, Fe[del]ko egi andi baten ganian berba egitera. Zeruko angle[ru] batek, arturik gizonaren etxura edo formia, predikadu biar baleu gizonaren onerako egiren bat, gaurko sermoiaren geija dere-txat izango litekiela ondo etorriko lekiona, bada, izen arren berez bil-durgarrija, da bestetik animarentzat probetxu andikoa. Bai, neura Kris-tin[al]uak. Nik ezatuten dot Kristinauen artian asko ta asko bizi dirala pekatu ta gaiztakerijetan sarturik sosegu andi beten, urteiteko gogo bagari[k], Jangoikoaren anditasunian konfiadurik; orregaitik<sup>1</sup>, gura neun-ke arratsalde onetan irazartu lo mortal ta itzaltsu onetatik, ainbeste akor-detan diran ezkeru bere miserikordijan, ezautu<sup>2</sup> dagijen bere bere justi-zija aserria euren begijaren aurrian ifinirik. Egija da, dala neurribagia Jau-naren miserikordija], eta asko eta andijak; alperrik izango dira pekatarijen orban eta zaurijak, guztirako dago erremedijoa ta miserikor-dija parkatuteko bere miserijak, esaten deuskuna legez Eskritura Santuak ainbeste lekuten. Bada, beste modutan Jaunaren miserikordija ez balitz ain andija, non aurkituko giñatekez orain elexa onetan gagozan guztijok edo gei[je]nok? A, antxinatik biarko genduan egon Infernuan! Bai, one-lan autortu bier dogu Jaunaren glorijs ta honria berari bakarrik datorkio-na. Baña onezaz ganetik, ikusi biar dogu bere justizija<sup>3</sup> eta beragaz egin dituan kastiguak, Eskritura Sagraduak ainbeste lekutan dirauskuna legez. Orregaitik, bata da beragan konfiendarik galdu eztaigun, andijak izan arren pekatuak; bestia, larregi konfiadurik pekatuak urten bage erijo-tziak aurkitu ez gaizan. Gizon-da enbra pekatuan bizi zarenak, begi gal-dutera zoazela, urtenik pekatuti biortuten ezpazara Jangoikoagana. Eta zer da erantzun daroana? Zerutik Lurrera ni salbetarrik etorri zan, eta<sup>4</sup>

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Ostean aldatuta: *baña* > *orregaitik*.

<sup>2</sup> Ostean zuzenduta: *ezau* > *ezautu*.

<sup>3</sup> Ostean aldatuta: *miserikordija* > *justizija*.

<sup>4</sup> Idem: *baña* > *eta*.

alan eztau naiko ni galdutia. Nire pekatuen parkazinoia eskatu daijodan bertan eukiko dot errukiturik<sup>5</sup> Jangoikoa. Onela berba egiten dabe pekatarijak, onelan bizi dira, eta onelan eriotzak aurkituten ditu, eurek konfianza larregigaz<sup>6</sup> des[e]aduten<sup>7</sup> eudena inoz arkanzau bage.

Baña, ai pekatarija, zer da esaten dozuna? Oraingino Jangoikoak parkatu dautsalako alan aurrera izango dala? Bada, oraindio sufridu edo itxoron arren, ez fijau onik aurrera bere alan izango dala; bearbada urrengo pekatua azkenengoa izango da, eta biarbada onen begira egongo da kas[ti]getako. Eta bakizu zegaitik? Señaladurik daukezalako Jangoikoak bakotxari sufriduko dautsezan pekatu (numero eta egunak) guztijak. Ara zer Jangoikoak esaten dautsun Amos Profetiaren aotik: Iru pekatu parkatuko dautsadaz Damaskoko erriari; baña laugarrenian jausten bada, ezta nigana biortuko. *Super tribus*. Au berau esaten dausku guri: Onenbeste pekatu parkatuko dautsuet, baña ez geijago. Neurri onetatik aurrera igaroten bazera, eztautsut parkatuko ta galdurik geratuko zera. Orra, N.K., nira Jangoikoaren<sup>8</sup> justizijaren sente[n]zija eta neura sermoiaren lana gaurko arratsalde onetan izango dana. Begira, neura Kristinauak; gura Jangoikoak neurturik ditu zenbat<sup>9</sup> pekatugino parkatu dauskuzan, baña emetik igaro ezkeru, ezta izango gureztat parkazinorik eta alan erremedijo bage galduak izan biar dogu. Egi bildugarrija berez, baña txito probetxu andikoa arimarentzat, ondo konsideradu edo aitu-te[n] bada. Eskatuten dautsuet Jesus maitiaren ta zeuen animaren amoriagatik<sup>10</sup>, ondo aitu dagizuela arratsalde onetan neura sermoian esango dautsuedana.

Gauza ikaragarrija benetan<sup>11</sup>, pekatu rik urten ta berriz pekatu ra bior-tutia. Ez jakinik noz artian biziko garian, alan ezta kigu zenbat pekatu ra-giño parkatuko deuskuzan. Bein betetan badogu pekatuaren neurrija, betiko zorizetokoak izango gera. Neurriau ezta guztijen bardina: bati-ri onenbestegino parkatutia asmu edo gogoa arturik dauko, beste bati gitxiago. Kontu egin daigun bada, N.K., Jangoikoak daukala determinadurik zuri ogeta amar pekatugino<sup>12</sup> parkatutia, niri amabost. Geijago egiten ezpadogu, parkatuko deusku Jaunak ta salbaduko gera. Egiten dozu gero beste bat, nik bere bai; orra non zuk dituzuzen ogeta amar, nik

<sup>5</sup> Geuk zuzenduta: *errekturik* > *errukiturik*.

<sup>6</sup> Idem: *lerrigigaz* > *larregigaz*.

<sup>7</sup> Ostean aldatuta: *eskat[uten]* > *des[e]aduten*.

<sup>8</sup> Idem: *sermoiaren* > *Jangoikoaren*.

<sup>9</sup> Ostean zuzenduta: *zen* > *zenbat*.

<sup>10</sup> Ostean aldatuta: *onerako* > *amoriagatik*.

<sup>11</sup> Idem: *porzierto* > *benetan*.

<sup>12</sup> Ostean zuzenduta: *pekatu* > *pekatugino*.

amabost. Geijago egiten ezpadogu, parkatuak izango dira zuriak, baita bere niriak; bada, bere neurri[ti]k ezkara igaro. Igaroten zara bat geijago egitera, ni bere bai; bada, zuria ta niria egin zan. Galduak gera betiko, eztausku Jaunak parkatuko, ez gaitu beragana biortuko. *Et super cuatuor*. Doktrina bildurgarrija baña Jangoikoak bere Eskrituran Santuan erakutsiten deuskuna.

Begiratugizue zer besteren artian jazo zan. Jangoikoak Abran Patriarka Santuari egin eutsezan promes asko ta andijen artian bat zan, bere oin edo ondorengokoak<sup>13</sup> promesa lur dioxsoaren jabe izango zirala laurun urte igaro ezkerro. Eta zergaitik uste dozue ez autsela emon lur zorionekoau prometidurik beingoan, onenbeste urte igaro bage? Ara zer esan eutson Abraneri Jaunak berak: Ofendidurik nauke ondasun andi orrefe[n] jabiak lur zorioneko orretan bizi dirianak, baña ezta oraindio bete euren pekatuen neurrija; bete dinian, zura ondorengo edo semiarrena izango da. *Necdum enim complete sunt iniquitates Amorreorum usque ad presens tempus*. Gen. cap. 15, v. 1[6]. Berba oneikaz adierazoten emoten deuskula dino S(a)n Agustinek, Jangoikoak bere jakiturija neurribagiagaz daukezala<sup>14</sup> neurturik zenbat pekatugino bakotxari parkatuko deutsezan; onetara igaro<sup>15</sup> ezkerro, ze zorigeztokoa dan pekatarrija, bada, betiko galdu biarra dauko. *Et super cuatuor*. Arritu gaitezen, ikaratu gaitze[n], N.K.M., eta bildur izan gaitezen pekatu mortal bakar bat aurrera egiteko, zergaitik oraingino parkatu badausku bere Jangoikoak ainbeste pekatu egin ezkerro, urrengo egin leitekeana<sup>16</sup> izan leiteke neurrija beteko dauena. Ara geijago. Aurkituten zare, N.K., ain estadu doatsuan, zeinda eztozuen galdu Ba[ultismo Santuen artu zenduen grazija, bizi izan zarela Jangoikoaren bide santuetatik alde egin bage, ondo zeura obligazio[ak] jagon dozuzela? Au onelan izenik, duda bage zera zorionekoa, eta inbidijagarrija zure suerte eta adu ona. Alan bere, bildurrez beterik bizi izan zaite, eta larregi fijau ez zaitiala esaten dautsut; bada, pekatu mortal baten jausten bazera, oraindio izan zinatekez kondenadua, eta bai ber[e] kontra asko eginik, salbadu zinateke, zergaitik pekatuaren neurri ta ta(...) ezta bardina guztijetan. Gauza arrigarrija, N.K., baña ez ain bakar da ba(...)ja zeñda jazo eztan; bada, Eskritura Santuak irakasten dausku batzuk pekat[u] [ba]kar bategaitik galduak izan zirala, ta beste asko txito asko eginda [sal]badu zirala. Nozbait emen munduan ikusi izango dozue, lapur ba[tzuk] eginik bere lapurrerija,

<sup>13</sup> Idem: *ondorengoan* > *ondorengokoak*.

<sup>14</sup> Idem: *daukela* > *daukezala*.

<sup>15</sup> Ostean aldatuta: *eldu* > *igaro*.

<sup>16</sup> Ostean zuzenduta: *leitekena* > *leitekeana*.

zelan lelengo lapurre[ril]jan kosi daudiela, eta berag[ai]tik bakarrik karzela baten sarturik ondo kastigaduten daudiela; eta beste [as]ko milla lapurrerija egin artian inok ezautu edo kosidu bagarik ainbelste] urtian bizi dala, baña alan bere denporiagaz, kosidurik edo eldurik bere pekatu lapurrerijakoaren neurri[lan] jausten dala. One[e]lk bijok eztozue ikusi zelan artu daben batak ta bestiak euren merezidua, batak lenago bestiak [baño], batek gitxigaitik, bestiak askogatik? (\*)<sup>17</sup>

Modu onetan jazoten da Jangoikoaren Justizija adoragarrijagaz. Batzuek jausten dira Jaunaren eskuetan eta gero Infernuan, milla pekatu egin ezker; beste asko, [pe]katu mortal bakar bategaitik<sup>18</sup>. Gizon-da enbra pekatari asko artzen ditu eriotziak, zartzaroen geztokerija asko eginda; baña beste asko, gatzetasunian, denporarik sendoenian pekatu gitxigaz. Bost urte bakarrik zituala arako mutilkotxuak esaten deusku S(a)n Gregoriok, bere juramentoagaitik bere aitaren besartetik eroan ebenian Diabruak Infernura. Begira juramento ta biraolarijak, begira guraso zeuen umetxu<sup>19</sup> samurra[i] exenplo txarra emoten dautsezuenak, zer kontu emongo dozuezan zeuen eriotzan. Eta zuek mutilkotxuek, bildur izen zaiteze; beste onenbeste ja[zo] ez tin zuekaz, zuen aita madarikatuaren exenplo txarrerik alderatu zaiteze, bada, orre[e]lk ez tira zuen gurasuak, ezpada berdugu madarikatuak zuen arimak galduten dituenak. Baña, Jauna, zelan da au, batzuei ainbeste pekatu parkatu ta beste asko ain gitxigaitik kondenetiau? Au da, Kristinauak, ezin jakin dogun misterijo arrigarrija eskatutia. Baña alan bere erantzungo deusut S(a)n Pab[ol]ogaz: Jangoikoa dana legez kriatura guztijen jaubia, Berak gura dabenagaz egiten nai dabena, *cujus vult miseretur*, bere miserikordijaren bitartez; gura eztabenagaz ezta errukituten, bere konbersino edo biorkerarako grazija espezial edo indartsurik biraldu bag[e], *et quen vult indurat* (ad Rom. 9).

Jangoikoak Apostoluen irudijan egiten dau telleru edo lapikogin batek lur zati bategaz egiten dabena. Lapikogin batek lur-masa bategaz egiten [dituz] batzuk sukaldeko serbitziorako edo lapikoak, beste batzuk plater-jarrak<sup>20</sup>; eta onelan asko destinu garbirako, eta beste asko

<sup>17</sup> Atal horretako hasiera oharra: *Lo de Baltasa[r]*.

<sup>18</sup> Lekuz aldatutako esaldia (atal batetik bestera): *One[e]lk bijok eztozue ikusi zelan artu daben batak ta bestiak euren merezidua, batak lenago bestiak [baño], batek gitxigaitik, bestiak askogatik? Modu onetan jazoten da Jangoikoaren Justizija adoragarrijagaz > Modu onetan jazoten da Jangoikoaren Justizija adoragarrijagaz. Batzuek jausten dira Jaunaren eskuetan eta gero Infernuan, milla pekatu egin ezker; beste asko, [pe]katu mortal bakar bategaitik.*

<sup>19</sup> Jatorrizkoan: *humetxu*.

<sup>20</sup> Ostean zuzenduta: *plater-jarra > plater-jarrak*.

destinu edo ofizijo loijetarako. Au guztijau masa bat da, eta orregaiti ez-ira are[elk lapiko ta beste jarro ta beste ganekoak kexetan lapikoginen kontra, ontzi loradunak eta beste serbitzijo bagetarako guztijak dira masa bat. One[lek] guztijok eztau preguntetan: zergaiti egin nai izan nozu onetarako? Misterio ikaragarrija porzierto, ondo begiratuten dabenentzat. Nok esango eutsen Damas[k]lotarrai, eurek egin zituan pekatuaren ganian beste bat bakarrik egiten beudian, euren neurrija izango zala eta desanparadurik geldituko zirala? Bada, onelan izan zan, K., Amos Profeta Santuak esan eutsiena legez: Iru pekatu parkatuko dautsadaz Damas-kotarrai, iru Tirotarrai, baña ez laugarrenik. *Super cuatuor*. Eta bakizue zuei au jazoko bajatzue? Bakizue zuen azkenengo pekatuak eginak badira? Baki[zue] zuen azkenengo abisuek misino santu oneta[k]oak izango badira? Bada, errez jakinda egongo zaree, emen zagozen asko-renzat izango gariala, Amos Profetia Damaskotarrentzat legez, azkenen-ngo abisua. Ze desgrazia biortuten ezpazara, pekatari tristia! Zer erantzun-ngo dautsazu Jangoikoari? Nok abisadurik euki eztozula? Erantzun-ngo dautsazu denpora geijago eukiko zendun esperantzan bizi izan zariela? Eta izango da bere justiziatik libretako?

Ai pekatarija! Ez, ez, etzaite engañadu, urtengizu pekatu-rik; bada, bestelan galdu[k]o zara. Paziencia andijagaz egon zan Jangoikoa isilik Noen denporan, euren pekatu ikaragarriak disimuladuten zituela; baña arako bete<sup>21</sup> zanian Berak ifinirik euken neurri edo numeroa, orra non Zeruak zarraturik asi zan arako [Uriola] ikaragarrija, eta Uriola<sup>22</sup> ikaraga-ri-jagaz estaldurik Lurra, mundu guztija uragaz irato eban. Denpora luzian begira egon zan paziencia andijagaz Sodoma ta Gomorratarren pekatuak; baña bete zanian, guztijak suagaz erre zituan. Kristinau peka-tarija, au berau jazo liteke zugaz. Andija da bere ontasuna, bere miseri-kordija; baña ainbeste dei, ainbeste grazija arturik oster aurrera eroan gura badozu zeura pekatuaren bidea, galdua izengo zera. Baña, nor izango da Jangoikoari itandutera asartu edo atrebiduko dana, zergaitik bekatari<sup>23</sup> bateri geijago parkatuten dautsen bestiari baño? Iru pekatu parkaturik, zergaitik laugarrena parkatuko eztautsen? One[eli] parkatuten dautseena are[eli] parkatuten eztautsen? Eta nor zera zu Jangoikoari orre-la erantzuteko?, esango deusut Apostoluagaz. Bakizu zegaitik Luzifer ta bere angeru gaiztoak benturaz Zerutik jausi ziran betiko Infernura? O ze ikaragarriak diran Jangoikoaren juizijoak! Pekatu bat bakarrik señaladu eutsen bakotxari euren pekatuaren neurritzat, eta beterik zorigalduko

<sup>21</sup> Ostein aldatuta: *eldu* > *bete*.

<sup>22</sup> Ostein zuzenduta: *uriolako* > *uriola*.

<sup>23</sup> Alternantzia: *pekatari* / *bekatari*.



Aingeruok euren pekatuaren neurrija soberbija pekatu bate[glaz, euren galbidearen motibo izan ziran, non ainbeste milla urtian dagozan palgletan, eta egon biarko daben Jangoikoa Jangoiko dan artian, demoniño ezain<sup>24</sup> eginik.

Esangidazu gizon-da enbra gaiztoa, ainbeste pekatu berbaz, obraz ta pensamentuz egin<sup>25</sup> dozuzena; gorro[to] ta enbidijan zeuk dakizun personiagaz bakiak egin bage bizi zariana ainbeste urtian; zeura zorrak pagau al izen, da biortu edo pagau bagarik bizi zariana; akrefe[doriak zura nagitasunagaitik ainbeste kalte igaroten dituzela ikusirik, eta orregaitik bere gogorik biortuteko artu bage bizi zariana; lapurreta, juramentu, birao ta inbid[ij]az beterik zagozana; pekatu orreitatik urtengo dozula Jangoikoari ta konfessoriari laster urtengo dozula ainbeste berba emon dautsazuna<sup>26</sup>, eta inoz konplidu bage bizi zareana...

---

<sup>24</sup> Zalantzazkoa.

<sup>25</sup> Ostean zuzenduta: *egite[n]* > *egin*.

<sup>26</sup> Ostean ezabatuta: *ainbeste urtengo dozula* > *urtengo dozula*.

[MISTERIOA JANGOIKOAREN SEMIA MARIAREN ENTRAÑETAN  
ESPIRITU SANTUEN OBRAZ GIZON EGIN ZANEKOA]

Gaur Elixia Ama Santak zelebratzen duan misterioa, zeña dan Jangoikoaren Semia Mariaren entrañetan Espiritu Santuen obraz gizon egin zanekoa, da gure Erljio Santuko beste Misterio Santo guztien prinzipioa, zeñean Jangoikoak erakutsi zuan bere poderio eta eskubide guztiaren anditasuna, zeñagandik datorkiguzan guri zorion guztiak. Allegaturik, bada, arako zorionez beterikako instantia eternidade batetik dekretaturik zeukana Jangoiko eta gizonakiko pakiak egiteko, agertu zan arako S(a)n Gabriel Angerua, laurun urtez lenago Daniel Profeta Santuari Mesiasen jaiotza, pasio eta eriotza erakutsi zitzaizkona bera; arako Profeta Zakarias Santuari agertu zitzaiona<sup>1</sup>, Añgeru<sup>2</sup> Santuau berau agertu zitzaion Mariari enbajada santoaz, Jangoikoen partez esaten ziola nola Zeruak eskojitu zuan Jangoikoen Amatzako, salutatzen zuala itz santo oi[e]lkin: Abe Maria graziaz betia, Jauna da zurekin, bedeñketia zera andre guztien artian.

Angeruaren enbajadak, gizonaren idurian, pizka bat turbatu zuan lenbiziko sarraieran, eta bere aurpegia guztia lotsa santoz bete zan. Eta Añgeru Santoak au erreparaturik, esan zion: Etzaita Maria bildurtu, zerren Jangoikoen begietan arkitu dezun grazia. Jaun onek nai du bere Ama izan zaitian dontzellatasunik<sup>3</sup> galdu bage. Konzebituko dezu, eta zure erraitako frutuari Jesus deituko diozu. Bera izango da gauza guztietan andia, eta Berak egingo dituben milagroak Jangoikoen Semetzako ezauteraziko<sup>4</sup> due.

Zer sentimentuak Mariaren biotzean igaroko ziran instante artan! Ezin siñastu<sup>5</sup> zuan Jangoikoak bere begiak beragan anbeste misterio eta sakramentorako paratu zituanik. Au zan alde batetik bere humildadeak erakutsi ereitzen ziona, eta beste aldetik Amaren izenak bildurtzen zuan, zerren bere birjindade Jangoikoari lenagotik eskañi zion. Eta onek obli-

<sup>1</sup> Osteen zuzenduta: *zitzakona* > *zitzaiona*.

<sup>2</sup> Alternantzia: *angeru* / *añgeru*.

<sup>3</sup> Geuk zuzenduta: *dontzellatutasunik* > *dontzellatasunik*.

<sup>4</sup> Osteen zuzenduta: *ezautuko* > *ezauteraziko*.

<sup>5</sup> Osteen aldatuta: *ezautu* > *siñastu*.

gatu zuan Añgeruari galde egitera, esaten ziola: Nola ori izango da, bada ez det gizonik ezautzen? Onetara Angeruak erantzun zion Espiritu Santuen birtutez milagrosamentian egingo zala, eta beragandik jai[olko zana Jangoikoen Semia izango zala, non dibinidade, santidade eta jakinduriaren tesoroak aurkituko ziran. Eta egi onen testigantzarako esaten dizut<sup>6</sup> Jangoikoak zure lengusurekin egiñ duan milagroa, zeñek bere zartzarozan konzibitu duan, milagroez ez izanik, ezin izan zezakiana<sup>7</sup>; eta arako milagroez zure lenkusu<sup>8</sup> zarrari, fruturik eukitzeko sekula kapaz izan ez danari eman dionak, egin dezake Jangoikoren Ama dontzellatasunik galdu bage zu izatia. Angeru Santoau Mariarekin izketa<sup>9</sup> santo onetan zeguala, sentitu zuan Mariak bere biotzian ezin esanezko argi sobrenatural edo Jangoikozko bat, zeñekin ezautu zuan misterio santo artan sartzen ziran beste misterio guztiak, eta humildadez beterik esan zuan: Ara emen Jaunaren esklaba, egin bedi nigan Jangoikoaren itzak nai duan bezela. Eta onekin beste bage ezkutatu zan Angerua. Eta instante berian Espiritu Santuak formatu zuan Mariaren erraietan bere odol garbiaz gorputz bat; eta instante berian kriatu zuan sekula bera bezalako kriatu ez zuan anima perfekto bat. Biltu zituan gorputz ta anima alkar-gana; unio santo onekin batera Jangoikoaren Semia gelditu zan gizon egiñik.

Apenas Jangoikoaren Semia gizon egin zan, Angeru guztiak adoratu zuen Jangoiko gizon eginau. Instante onetan Mariaren err[aliak Jangoikoaren kutxa santo eta sagrario biortu ziran; instante onetan kunplitu ziran Mesiasen gañian Profeta Santoak esan zituben profezia guztiak. O zenbat miragarritzko misterio emen kunplitu ziran! Zer amodio andiagorik erakutsi zezakegun? Atrebituko zan gizona sekula ere onenbeste eskatzera? Egiaz andia misterio miragarri onetan Jangoikoak erakutsitzen diguna!

Eta au añ andia izan bazan, etzan izan txikiagoa gure amodioz kurutzte baten illik gure pekatuen zorrerako entregatu nai izan zuana, zeñ dan gaur Elixia Ama Santak zelebratzen duan Bigarrengo Misterioa. Zeñ diferentia izan zan, Maria, Angeruen enbajada Enkarnazioko Misterioa<sup>10</sup>

<sup>6</sup> Argi ez dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *esaten dizut* > *A.M.E.K.*<sup>11</sup> *esaten dizut*.

<sup>7</sup> Ostean zuzenduta: *ezin milagroez ez izanik, izan zezakiana* > *milagroez ez izanik, ezin izan zezakiana*.

<sup>8</sup> Alternantzia: *lengusu* / *lenkusu*.

<sup>9</sup> Ostean aldatuta: *konferentzia* > *izketa*.

<sup>10</sup> Ostean zuzenduta: *misterio* > *misterioa*.

Santua zelebratu zanekoa, Zeruak eta Lurrak pozturik gelditu ziranekoa, gaur anbeste penaren erdian ilten ikusi zenduanetik!

Bai, K(ristaoa)k. Arako ezpata gogorra Mariaren biotza partitu ziona, etzan izan besterik ezpada amorioa.

[HASIERAKO ERANSKETA]

Konbeni zan arako arbole baten gure gurasoak benzitu zituan etsaia, beste arbola baten izan zeitian benzitua Jesusgandik. Konbeni zan arako arbole batetik etorri zitzagun bezela guri eriotza, beste arbole bate-tik etortzia bizitza. Zeñ pentsamento diferentiak presentatzen zaskidan, ikusiaz Jesusen amodioa gure onerako añ enpeñatua! Jesukristo da padezitzaera dijoana, jakintsuena, santuena, Santuen argitasuna dana, Angeruen Erregia, eta Infernuaren bildurra dana: gure Jauna, Jueza eta amodiozko Aita. Anbestekoa da gizonen delituak<sup>11</sup> Jesusen biotzian para duen errukia eze, ikusiri[k] ge[u]ndela Infernuaren burlagarri egi-nik; eta bere Aita gure Jangoikoa añ aserria, urrikitzen da erori ez dedin gure gañera Aitaren aserre andia. Begirutzen du siglu guztietara eta ikusi-tzen ditu gizonen pekatu guztiak, gure soberbiak, gure engañoak, gure lapurreta eta beste ganekoak. Ikustsen ditu Kain eta onen [on]dorengo gizon iltzalliak; Salomonen Seigarrengo pekatuak eta onetan erregeoni jarraituko zioenak; Akab Erregiaren, eta aren ondorengo Kristao, mundutar eta sazerdote geztoren sakrilegioak; Jerusalemaren beren Jangoi-koa illik egingo zueben pekatua; Sodomatarren esaten bere lotsatu bage ezin atrebitu leitiakiana, baña anbeste pekatari geztok lotsa galdurik egingo zebena; eta beste munduko estadu eta kondizioetako askok egingo zietekana. Ok<sup>12</sup> guztiok presentatzen zaizka Jesusi Baratz Santuan alde batetik.

Eta beste aldetik, anbeste Santuen merezimentuak, Jeremias Santuen suspirioak, S(a)n Juan Bautistaren penitentzia, Madalenaren negarrak; arako Tebaidako desiartuetan Santuak egingo zituen mortifikazioak, Eli-xaren lelengoko semeren humildadia; anbeste komunidadetan egingo ziran obra on guztiak. Onefe[k] guztiok eta geiago Baratz Santuan presentatzen za[i]zka Jesusi, eta emeti[k] ikusi dezakegu nolako pena izan-go zan emen igaroko zuana. Ok guztiok...

Ikusirik zuanian anbeste gizonen baliautu naiko ez zuala eta peka-tuz betiak ilko zirala, onek bildurtu zuan Jesusen biotza, eta onek esan

<sup>11</sup> Geuk zuzenduta: *dilutuak* > *delituak*.

<sup>12</sup> Jatorrizkoan: *Hok*.

erain zion: Baratz Santuan igaro bedi nigandik kaliz gogorra, anbeste Kristaorentzat erremedioa izan biarrik, kondenazio geiagorako beren maliziagatik izango danau.

Zugatik, pekataria, anbeste tormentuzko<sup>13</sup> itsas andian sartu dala esaten dizu. Nik uste nuan anbeste penaren erdian nork konsuelo eman izango nindula, Profeta baten aotik esaten dizu, baña ezin arkitu det au egin nai duanik. Mundutarrik geienak beren desgraziak negar egiten ditue, baña pekatuakgatik ez da nor egingo duanik. Bakarrik penarik geien eman biar digunagatik ez degu egiten negarrik.

Judasek entregatzen du etsaien eskuetan, esaten diela ondo lotzeko; laztan ematen dio traizio geiagokin entregatzeko. Orregatikan ere Jesusen biotza biguntzen da Dizipulo geztoentzako.

Zenbat Kristaoen artekoak, Judasen traizioa miraritzen duenak ogeita amar dirugatik? Eta zenbat onelako ez dira, diruakgatik etsaiari anima entregatzen ez dienak?

---

<sup>13</sup> Ostean aldatuta: *pekatuzko* > *tormentuzko*.

## INTEGRIDAD. CUARTA CIRCUNSTANCIA DE LA CONFESIÓN

*Pro anima tua non confundaris dicere verum; est enim confusio.*

Eccll. 4, 24

Esplikadurik irago diran egunetan Konfesino on baterako biar diran iru zirkustanzija edo kondezinoiak, diriana legez Examina konzienzija-rena, Damuarija eta Propositu sendoa edo egijazkoa, gaur esango deustubet dotrinatzat laugarren kondizino edo zirkustanzija, zein dan Osozko konfesinoia. Osozko konfesino edo pekatu guztijaren konfesinora ekarri gura gaitu<sup>1</sup> Espiritu Santuak, esaten dauskula: *Pro anima tua ne confundaris dicere verum*; zegizu, diño, lotsarik euki egija esateko zeura arimaren onerako. Bada, dago lotsari geztoa<sup>2</sup> edo arimiari pekatu barrija ifinten deusana; eta au da arako lotsari madarikatua pekatuak isildu ereiten deuskuzana Konfesinoian. Eta dago bere beste lotsa santu bat grazija ta glorija arimiari ekarri ereiten dautsena; eta au da arako lotsa humilde eta santua, zein negaz erakutsirik gura pekatuak e[dl]urra baño zurija geratuten diran gura arimak. Eta ala, Konfesino osozkoa<sup>3</sup> ezta beste gauzarik ezpada<sup>4</sup> erakustia bere pekatu guztijak konfesoriarri pekatuaren parkazinoia arkanzetako esperantziagaz baño.

Pekatuaren akusaziñoa[k], dino San Buenabenturak izen biar dabela garbijak<sup>5</sup>, egijazkoak eta osozkoak, konfesino frutuzkoa izengo bada. Izen biar dau konfesinoak garbijak<sup>6</sup>, konfesau biar doguzelako geura pekatuak biotzeko pureza edo garbitasunagaz<sup>7</sup>, humildade andi bategaz eskuseu bagarik, buelta bagarik, inori errurik ifini bagarik. Ez Adan eta Ebak konfesadu ebena legez Paradisuko Jardinian, Adanek Ebari errua ezarten eutsela; kargu eginik zetako ausi eben bere mandamintua, erantzun eutsen Adanek Jangoikoari: Zuk laguntzet emon deustazun Ebak ausi erein deust. Eta kargu eginik Ebari, esan eutsan: Sierpiak engañau nau, Jauna. Eta orra ez Adan, ez Ebak zelan ez eben konfesau biar zan

<sup>1</sup> Ostein aldatuta: *exortetan gaitu* > *ekarri gura gaitu*.

<sup>2</sup> Idem: *bizioso* > *geztoa*.

<sup>3</sup> Ostein erantsita.

<sup>4</sup> Idem.

<sup>5</sup> Ostein aldatuta: *puruak* > *garbijak*.

<sup>6</sup> Idem.

<sup>7</sup> Ostein zuzenduta: *garbitusenegaz* > *garbitasunagaz*.

moduan euren pekatua. Ez gitxik gaurko egunian euren pekatuak aku-setan ditue Adan ta Ebak legez, euren eskusa ta inori errua ezartiagaz ondo erakusten dabela, dirala leलगoko guraso Adan ta Ebaren seme egijazkoak. Badakusgu egunian-egunian errua ezarten dautseela batzuk euren nezesidadiari; beste batzuk euren inklinazio geztoari, bestiak Demonioaren tentazinoari, senarrak emaztiari, emaztiak senar eta famelijari, seme eta krijaduak euren guraso ta uezabai. Beste batzuk, geienian<sup>8</sup> enbra asko, datoz kontetan ain historiija luze batzuk, ze baleuko pazienzija entzuteko eragotzi bagarik konfesorik, egun guztija emongo leuke eta azkenian bere konfesinoa ez litzateke izango beste gauzarik bere burua santutu ta inoren faltak agertu baño. Onelan konfesetan dirianak dino Santo Tomas Billanuebakoak, deungago urteiten dabela konfesorik sartu ziranian baño. Esango deutso konfesorik: itxiozu orrefelji kontuoi ta akusa zaitez zeura pekatuetatik? Bai, orretako dago; alper da guztija. Erantzungo dautso: Bai jauna, bay. Baña beti euren kordela aurrera. Job Santua bera balego bere pazienzija guztijagaz konfesorarijoan, aterako leuke pazienzijati, beste ondo konfesaduko litekezan askori obra gaiztoa egiten dautsela. Onelakoak noramala ordu geztoan bota biar dira leku sagradu atatik, bada, eztatoz akusetan, ezpada esku-setan euren pekatuak; dira penitente kasta geztokoak, datoz profanetan puestu edo leku santua. Eta euren proximuaganako karidade faltiak ondo erakusten dau absoluzinoaren inkapazak dirala.

Konfesetara asi baño lenago esan oi daroazue: Jauna, neuria da errua, neuria erru guztija. Bada, orise esan biar dozue konfesetan asi zaittezanian: Pekatu egin dot, jauna, neura erruz. Eta eztozu esango: Egin dot senarren erruz pekatu, auzo, seme ta krijaduen erruz. Bada, inok eztau egiten pekatuak gura ez izanik. Eldurik pekatari bat, sarri jazo oi dana legez, bere senar da auzoaren pekatuak konfesetara, beriak guztiz txikituten zituala, emon eutsen penitenzija gustu andija, eta esanik konfesorikari "Jauna, orrenbeste penitenzija nira pekatuakgaitik?", erantzun eutsen: Akordau zaite andria, senar ta auzoarenak bere konfesau dozula eta bein konfesadu dozuzen ezkerro, penitenzija ifini biar jatzula, orrela ikasi dagizun zeura pekatuak bakarrik konfesetara, inoren faltak agertu bage. Onelan, konfesorik sarri egingo bagendu<sup>9</sup>, ez litzateke ainbeste penitente kasta geztoko egongo. Kuidadu, bada, emen enbrak; konfesadu zeuen pekatuak inorenetan sartu bage, bada, alperrik ez, ze asko izango dozuez zeurenak.

<sup>8</sup> Ostean aldatuta: *partikularmentian* > *geienian*.

<sup>9</sup> Geuk zuzenduta: *bagendo* > *bagendu*.

Bere kontra akusaduten zan Dabid Erregia esaten ebenian: *Confitebor adversum me injustian meam*; neura buruaren konfesaduko dautsat neura injustizija Jangoikoari. Eta bere kontra akusadu edo konfesadu zalako urten eben garbitu edo justifikadurik Jaunaren aurretik. Akusadu daiguzen guk bere gure pekatuak errege santu onen exenplora, eta ez gura lelegoko gurasoak legez, Adan ta Ebak legez. Eta onelan konfesadurik gura pekatuak, mereziduko dogu esatia konfianza oso bategaz Dabid Erregiak esan ebena: Zuk, Jauna, parkatu zendun nira pekatuaren inpiedadia<sup>10</sup>, ezaintasun guztija. Konfesino onen akusazinoiak izenik humilde ta puruak, biar dau bere izen egijazkoak; bada, konfesinon gauza grabien ganien egijera faltetan dauenak pekatu mortala egiten dau, eta sakramentorik egiten eztau, edo alperrikoa egingo dau. Eta onelan konfesetara doianak ez bakarrik pekatu bat, baita bere bi egingo ditu: bata, egijaren kontrakoa; bigarrena, erlijinoiaren kontrakoa edo sakrilegijokoa, sakramento utsa egiten dabela. Baita bere pekatu mortala egiten dabe egijaren kontrakoa eta erlijinoren kontrakoa, ezauera edo adbertenzija osoagaz isilik itxi edo ukatuten dabenak pekatuaren kostunbria, izanik preguntaduak konfessoriagandik; eta bai bere sententzia seguruan, eta bai bere niretzat probabiliagoan, ez izen arren konfessorianik itanduak, dauke obligazinoa pekatu mortalen beian esateko aita espiritualari bizi badira peka[tu], kostunbra ta peligru urrian sarturik. Bada, modu diferentian izen biar dabe osatuak<sup>11</sup> onelan bizi dirian pekatarijak okasino ta kostunbria geztoan sarturikoak, beste pekatari<sup>12</sup> kostunbra geztorik eztaukenetarik; eta origaiti ezingo deutso aplikadu erremedio biar dabenelakoa konfessoriak, ezpadautso espliketan kostunbre<sup>13</sup>, ekandu<sup>14</sup> eta pekatuaren okasino proximu edo urrekoa zeinetan bizi dan. Baita bere egiten dabe pekatu mortala erlijino ta egijaren kontrakoa, arako penitente adbertenzija osoagaz konfesetan daudienak pekatu mortal dudosoia ziertutzat, eta ziertua dudosotzat; bada, daukegu obligazinoa gura pekatuak konfesetako, Trentoko Batzarrak erakusten dauskuna legez, ondo examina eginik gura konzienzija[n] daukeguzen moduan. Eta adbertenzija osoagaz pekatu mortal dudosoia ziertutzat legez konfesetan dauenak, eta ziertua dudazko legez, eztitu konfesetan bere konzienzijan daukezan moduan, ezpada bera buru edo antojuak emoten dautsen moduan, guzurra esaten dauela bata eta bestian. (\*)<sup>15</sup>

<sup>10</sup> Ostean erantsita: *inpiedadia > nira pekatuen inpiedadia*.

<sup>11</sup> Ostean aldatuta: *kuraduak > osatuak*.

<sup>12</sup> Ostean zuzenduta: *pekatari > pekatarijetarik*.

<sup>13</sup> Alternantzia: *kostunbra / kostunbre*.

<sup>14</sup> Ostean ezabatuta: *kostunbre edo ekandu > kostunbre, ekandu*.

<sup>15</sup> Atal horretako albo oharra: *Jarraitu daijogun Dabid Santuari*.



Azkenez, konfesinoak izan biar dau osoak, bada, bestela egingo dogu konfesino sakrilegiozkoa. Eta alan, daukagu obligazinoa konfesetara examina prudente bat eginik, gura gogo edo burura ekarri doguzenak: ziertuak ziertuak legez, eta dudakoak dudako legez, espliketan doguzala pekatuaren numero, espezie eta zirkustanzija guztijakaz. Asko bildurtuten dira entzunagaz gagozala obligadurik pekatu guztijak konfesetara. Baña au ondo entendidu edo begiraturik, ezta ain gatx zeinde eurei deretxoen, bada, lenengo obligazinoau ezta pecatu. (Ezta bear-bearra<sup>16</sup> berba eginik, pekatu benialak konfesetako eztaukagu obligazinoarik. Esan dot absolutamente berba eginik, baña<sup>17</sup> batek usteko baleu ignorantzijaz pekatu mortalen beian obligazioa daukela benialak konfesetara, pekatu mortala egingo leuke ez konfesatzia. Eta aunke<sup>18</sup> esan dodan eztagoala obligazinoarik pekatu benialak konfesetara, beti da gauza andija benialak konfesetia, eta probetxu andikoa gura arimarentzat, alan satisfazino denporazkoagoa emoten deusagulako eurakgaiti, baita bere obeto onelan jagoten garialako pekatu mortaletatik.) Bada, Espiritu Santuak dinoiena legez, pekatu txiki edo lebiak despreziatuten [di]tuzenak geldi-geldi etorriko da andijetan jaustera. Ondo begiraturik badogu, pekatu benialak, eta oneik badira<sup>19</sup> kostunbre edo ekanduzkoak, dira arimako kalentura txiki batzuk legez, dira lainotxu batzuk kenduten dituenak birtutiaren argitasunak, igual zein láño<sup>20</sup> txikijak, aunke guztiz eztaben kenduten eguzkijaren argitasuna; baña beti, baña alan bere beti kenduten dautse bere edertasuna. Dira artxu batzuk birtutiaren una jaten daudena, dira sitsak<sup>21</sup> legez, ezautu bage Karidadiaren sua epelduten dabeena eta andijagoetara preparentan dabena pekatarija. Emetik ezautuko dozue ze probetxu andijak arimiari etorri al lekiozan ondo konfesaurik, kentzen dituela oneik ar gezto eta lañotxu txikijok, obeto argi egin daijen euren ariman birtute santuaren eguzkijak; baña ezтира obligazinokoak.

Bigarren go dinot, pekatu mortalak konfesetia ez tala ain gogor ta garratza zeinda asko uste edo pensauko dozuen; bada, eginik pekatuaren examiña ardura eta kuidadu andi bategaz, pekatuaren bat edo batzuek aitzuten baldin bajatzue, sarri jazo oi dana legez, ezta izango posibla pekatu aitzu oetatik akusatia edo konfesetia. Baña orregaitik ezta izango geztoa edo utsa zuen konfesino, beste dolore, propositu

<sup>16</sup> Ostean aldatuta: *Absolutamentian > Ezta bear-bearra.*

<sup>17</sup> Idem: *bada > baña.*

<sup>18</sup> Jatorrizkoan: *haunke.*

<sup>19</sup> Idem: *partikularidadez > eta oneik badira.*

<sup>20</sup> Horrela, tilde eta guzti.

<sup>21</sup> Ostean zuzenduta: *tsak > sitsak.*

egijazkoa eta bila[r] diran zirkustanzijak badaukez. Kontu orregaitik, esaten dogunian gagozala obligadurik pekatu guztijak batxu bere itxi bage konfesetara, obligazioau entendietan da, arako pekatu examina ondo eginik bururatu edo gogora diteneana, baña ez arako pekatu ondo<sup>22</sup> examinaturik bere konzienzijaren bazterrak, kulpa bage aitzurik geratu diranena. Eta okasino onetan parkatuko dira zuen pekatu mortal, ez bakarririk konfesadu dozuezanak, baita bere deskuiduz aitzurik itxi dozuezanak eta konfesadu bagiak; baña gero akordetan bazaree aitzurik itxiko pekatu orrein, daukezu obligazino konfe[se]tako eta elexako giltzetara sujetetako urren konfesinora zoazanian. Begira emen ze dulzia, ze sua-bia dan Konfesinoaren agindu edo mandamentua; bada, bertan etxaku aginduten konfesau daiguzala baño arako pekatu examina diligente bategaz gogoratu edo bururatu doguzan pekatu mortalak<sup>23</sup>, seguru ta konsueluz beterik geratuten zariala, baldin zeura erru bage aitzurik geratu bajatzu bat, edo batzuk, oneetatik bere parkaturik geratuten zariala. Ze lege amoretsuagorik!

Baña onetarako, konfesau edo akusau biar gara gogoratu doguzan pekatu mortal guztietik klaridade andi bategaz eta distinziñoz, nastitu bage pensamintuko pekatuak berbazkoakaz, ez berbazkoak obrazkoakaz, espliketan doguzela espezija, nume[ro] ta zirkustanzijakaz. Eta numero edo zenbatik ezin akordau bazaree, konputo prudentzial bat ezarriko dozue, zenbat egin izango dozuezan gitxi gorabera: egunian onenbeste, astian, illian<sup>24</sup>, urtian. Baña kontu<sup>25</sup>; au berba gitxi goraberau ezator<sup>26</sup> ondo beti, ezpada ondo begiraturik ezin akordau garianian ziertu zenbat izan zatekezan pekatuak egin dozuzenak. Exenplorako: eginik zuk kuidadu guztizko bategaz zura Konzi[en]zijaren Examina, ziertu ezin bururatu edo gogora ekarri dozu, ziertu dozuzen pekatuak izan badira amar ala amabi, mandamentu<sup>27</sup> onen edo besteren kontra. Orduen akusauko zera ondo, esanagaz: Akusetan [n]az, jauna, birtute edo mandamento onen kontra faltau dodala amar edo amabi bidar gitxi gorabera. Bada, onelan konfesetan dozuz zeura pekatuak al dozuzen moduan. Baña ziertu badakizu amar dirala pekatuak, esan biar dozu amar izan ziriala, eta amabi izan baziran, esango dozu amabi determinaduak, agotan artu bage gitxi goraberarik. Onetara faltetan dabee penitente guztiz askok, bada, usti izaiten dabe: guztijak esaten badautsedaz,

<sup>22</sup> Idem: *on* > *ondo*.

<sup>23</sup> Idem: *pekatuak* > *pekatu mortalak*.

<sup>24</sup> Ostean erantsita.

<sup>25</sup> Ostean aldatuta: *kuidadu* > *kontu*.

<sup>26</sup> Idem: *ezta* > *eztator*.

<sup>27</sup> Geuk zuzenduta: *mandimentu* > *mandamentu*.

ikeratuko da konfectoria. Eztau biar ikeratu konfettoriak; esangizuz konzienzijan daukazuzen moduan, bada, ori da zura obligazinua. Eta au dala medijo, askok jakinik lau pekatu izen diriala onestidadiaren kontra-koak, lau beste birtute baten kontrakoak, iru izango ziran gitxi gorabera, eta eztira ondo konfesetan. Bada, ziertu dakijenak lau izen diriala ziertu bere pekatuak, ezta ondo konfes[el]tan iru gitxi gorabera esanagaz, bada, eztitu konfesetan bere konzienzijan daukezan moduan; bada, ziertu jakinik la[ul] diriala dudan ifiniten dauela irugarren ta laugarrena, zein dan konfectoria ziertuak dudosotzat.

Kontu orregaiti, ez artu aotan gitxi gorabera ez izenik ondo arakaturik examina<sup>28</sup> diligente bategaz, ezin ziertu akordau zarianian zenbat ziertu izen zaitekezan. Bada, perejilla saltsa guztietarako ez oi dana legez ondo etorten, alan gitxi gorabera bere ezta ondo etorten guztirako, ezpada ondo begiraturik zeura konzienziljaren bazterrak, ezin ziertu akordau zarianian zenbat izan zatekezan. Eta artu biar dogunian, ezin beste modutan esplikau doguzan pekatuak izan biar dau<sup>29</sup>. Baita bere ondo emen begiratugizue. Ezin beste modutan esplikau edo erakutsi dozuezanian bere, esan dausuet, eretxi baten prudenzija andigaz<sup>30</sup> esan biar dozuela gitxi gorabera, ez edozein modutan askok esan daroiana<sup>31</sup> legez, esaten dabeela: Akusetan naz, jauna, amar edo ogei, ogei edo berrogei, berrogei edo larogei gitxi gorabera pekatu egin dodazala. Zegatik eze, aunke<sup>32</sup> dan egija gitxi goraberak beragan artu ed[o] enzerretan dauen gitxi edo geijago<sup>33</sup>, segun da penitentiak akusetan<sup>34</sup> dauen pekatuaren numero edo kantidadia, baña alan bere beti izen biar dau prudente eta proporzionadua, edo gitxi goraberiak eskatuten da[ul]ena lezkoa, bere pekatuen numero edo kantidadiak. Orregaitik, akusazino modu onekoa ezta esaten dauenian amar edo ogei, ogei edo berrogei, bada, amarrerik [o]geire eztoa gitxi, asko baño; berrogeirik larogeira<sup>35</sup> alanbere. Etzaitu eskusaduko esatiak: gurago dot esan geijago dirala gitxiago baño. Bada, bardin faltetan da emen geijago esanagaz zein gitxiagogaz, eta guztija erremedijetan da bakotzak esanagaz urren bere konzienzijek esaten dausenenak konformaduagaz; bada, onelan al dauen moduen konfesaduko ditu bere pekatu guztijek, alan espezie, numero ta zirkustanzijetan.

<sup>28</sup> Idem: *examinina* > *examina*.

<sup>29</sup> Ostein erantsitako esaldia.

<sup>30</sup> Ostein erantsita: *prudenzija andigaz* > *eretxi baten prudenzija andigaz*.

<sup>31</sup> Geuk zuzenduta: *doriana* > *daroiena*.

<sup>32</sup> Ikus 18. oharra.

<sup>33</sup> Geuk zuzenduta: *giejago* > *geiago*.

<sup>34</sup> Idem: *akusten* > *akusetan*.

<sup>35</sup> Idem: *laoregeira* > *larogeira*.

Ardura beragaz konfesadu biar dira pekatuaren zirkustanzijak. Pekatuaren zirkustanzija zein espliketara noian, ezta beste gauzarik ezpada gauza azidental edo azaletiko bat gizonaren obra edo egikerai lagun egiten dautsen[a]. Eta zirkustanzijau izan leite modu bitekua: bata, pekatua bere espezijaren erraijan geitu, edo bere malezijaz andijago edo astunago egiten dabena. Exenplorako: gizon aberats bat lapurrerijera joatia beste nezesidadian dagoan bateganik. Bijak dira pekatu, baña andijago aberatsak egiten doialako bizioz, beste pobrien alderik. Klaruago: ostuten dau batek zortzi erreal, eta beste kondezino igoaleko batek ogei ezkuto. Bijak egin dabee pekatu Zazpigarren Mandamentuen kontra edo justezijaren kontra. Baña ogei eskudo ostu zituanak egin eben pekatu andijagoa, zortzi errial ostu zituanen alderik, zergaitik ze, ogei eskudok zirkustanzijak geitu edo azijago<sup>36</sup> egiten dau pekatuaren malizija ostu zituenenian, zortzi errialak bestienian baño. Baña zirkustanzijak gitxi geitu edo gitxituten dauenian, eztago pekatuaren malezija, eztaukagu obligazinatorik konfeseetako; baña asko geituten dabenian malizija pekatuarena, daukagu obligazinoia, ogei eskudoko exenploan esan dodana legez, aunke<sup>37</sup> askok dinoien eztagoala obligazinatorik. Bada, bestela ezingo gintekez konfesorik etorriko ain ondo penitenteen estadia ezaututera, eta alan ezingo ge[ul]nka emon euren pekatuai datorkijoen lezko penitenzija, zein dan sentenzija onen fundamentua.

Beste zirkustanzija batzuk dagoz malizija barrija pekatuari ezarri edo ifiniten dautseenak, au da, pekatuaren egikeriari lenen ganera ezaintasun azaletiko diferente bat ifiniten dautseela. Eta pekatuaren zirkustanzija edo malizija barrijau izen leite modu askotakoa, edo pekatu egiten dabenen personaren partetik, edo norberak zelako personiagaz pekatu egiten daben. Exenplorako: pekatu egiten badau ezkonduak ezkonduagaz, ezkonduak libriagaz, boto kastidatekoa daukenagaz; izen bada leku sagraduan, edo kenduten dala gauza sagradurik edo Elexiaren gordekizunera dagoanik, eta beste ainbeste modutara pekatuari malizija barri mortala ifiniten dautsala. Bada, boto kastida[de]koti konsagradurik dagoanak nai onegaz pekatu egiten dauenak, egiten ditu pekatu bi: bata, kastidadiaren kontra, bestia, erlijinoen kontrakoa botoaren zirkustanzijagaitik. Igualmente, bazara ezkondua, egingo dozuz pekatu bi: bata, kastidadiaren kontra, bigarrena, justizijaren kontra. Aida bazara, bardin: bata, kastidadiaren kontra, bigarrena, piedadiaren kontra. Eta one[e]k zirkustanzijok zelan geituten dirian, alan geituten dira bere

<sup>36</sup> Ostein zuzenduta: *azigo* > *azijago*.

<sup>37</sup> Ik. 18. oh.

pekatuak, pekatu egiten dozun le[k]uaren<sup>38</sup> zirkustanzijagaitik, exenplorako, il, eridu edo ostuten dozula elexan edo beste aziño indezenteren bat; eta alan jazo [le]ite pekatuaren egikera baten (esaterako) zirkustanzija asko egitia, eta orregaitik pekatu asko. Onelako zirkustanzijak konfesetara daukagu obligazioa disputa bagarik, bada, obligazioa dauko deklaradurik Trentoko Batzar santuak. Eta onen errazoi<sup>39</sup> da zirkustanzijok ifiniten dautselako pekatu barrija, diferentia lengo pekatuaren egikerakoren motibotik; eta alan, ez konfesatzia izengo litzateke pekatu bat akusadurik ez bigarrenen akusau gura izaitia, eta alan, izango litzateke faltetia deretxo dibinura, zeinek aginduten deuskun konfesetia pekatu guztijak osorik eta arian bere itxi bagarik, Konzilio santua deklaradurik daukena legez.

Baita bere esplikadu biar dira Konfesinoian arako bide edo medijo madarikatuak, arako pekatari desonestuak sarriten balijetan dirianak euren pekatuak irugarren personagaz, errekadu, billete eta beste gauza pekatuak serbitzen dirianak, onelan arkanzetan daudela, akaso beste modutan arkanzauko ez leuken gustu loi ta pekatuz beterikoa, isten eztabela ez donzaila, ez ezkondu, ez alargun, ez beste lorarik euren gustu zikinetara obligau ta zapalduten eztaudenik. One[le]k guztijok ondo konfesaduko badira, euren pekatuez ganetik akusau biar dira zenbat persona topau daben euren deseo loijak kunplietako, eta zenbat bidar, bada, zenbat bidar pekatuak topau dituan, ainbat bidar pekatuak bidia emon eutsen. Baita bere ezkonduak akusau biar dabe zenbat bidar lizentzija larregigaz pekatu egin daben, urteten dabela euren estaduak<sup>40</sup> permitietan dautsen erraijatik. Zer, jauna, ezkonduen artian egon liteke bere pekatua? Baita, sarriten aurkituten dira pekatu itzel ikaragarrikoak. Alperrik izengo da bere zagiko ardaoa edaten dabena, bada, larregi edaten badau, ordituko dau. Onetariko bat izan zan arako señoira italiana, izenik beste aldetik guztizko limosnera eta Sakramentoak sarri artzen zituana, bere famelijaren edukazioa kuidadu guztiz andikoa, kondenadu zan matrimoninoan eginiko pekatu loijak<sup>41</sup> lotsaz itzi zitulako. Ezta konbenidu esatia zelako pekatuak izen doazan matrimoninoan egiten dirianak, loitu eztaiden nagoan puestu sagrauau. Aurkituten bada elexa onetan onen ganian errezelo edo dudaren bat daukeneren bat, konsultau begi bere konfesoriaz, zeinek emongo dautsen bere erremedijoa.

<sup>38</sup> Osteen erantsita.

<sup>39</sup> Osteen zuzenduta: *errazoi* > *errazoi*.

<sup>40</sup> Osteen erantsita.

<sup>41</sup> Osteen zuzenduta: *pekatuak* > *pekatu loijak*.

Azkenez esan gura dautsuet Espiritu Santuagaz, eztaizuela euki bil-durrik zeuen pekatuak konfesetako, *non confundaris etc.*, guztijak bat itxi bagarik konfesetan dozuezala konzienzijan daukezuezana legez. Bada, eun pekatu mortaletatik bat itxiten baldin badozu konfesatu bage ezaueriagaz, zura konfesinoia izango sakrilegua, eta ez bakarrik ez ja-tzuz parkatuko zeura pekatuak konfesadua, baita bere lenen ganera egingo dozu pekatu sakrilegijoko itzaltsu bat. Ez isilik geratu diranak, ez konfesadu dozuzenak, ez-da zuek egiten dozuezan obra onak eztautsue balijoko zuen meriturako; baña beti alegina egin biar dozue obra onak egitera pekatuan egon arren, bada, onelan obeto biortuko dozue Jangoi-koa grazija edo ausilijoak zuei ematera, zeuen pekatuetati urten eta beragaz bakiak egiteko. O zenbat pekatari dagoan Infernuan deadar itzaltsuetan pekatuak isilik itzi zituelako! Zenbat emakumeri jazo dakijo-en euren lotsaz itziko pekatuakgaiti kondenatzia! Zenbat exenplo one[-]tariko! Eta ze erremedio au jazo eztakigun? Goitu edo benzidu lotsia, eta konfesadu pekatuak humildade ta lotsari santu bategaz. Ezta ez mirari-tuko konfesia zuen pekatuakgaiti, bada, ezautzen dogu pekatarijen miserija, ezereztasuna. Eta baldin onelan egiten ezpadozue, begira zer dirautsuen Jangoikoak: Nik, diño, agertuko dodaz zuen lotsarizko peka-tuak mundu guztijaren aurrian; nik erakotsiko<sup>42</sup> dot<sup>43</sup> zuen billoztasuna munduko erreinu guztijaren aurrian. *Revelabo pudenda tua etc.*

Erbestetu daigun, bada, gura biotzetatik lotsari pekatuz beterikoau, bada, izenik ain lotsabagak Jangoikoa ofendietako, bakarrik lotsorrek gura miserijak konfesetako; eta izenik gura soberbija gura lotsarijaren kausa, jua gaitezana humildadearen iturri kaudaltsua zein dan gura Ama du[[]ze Angeruaren Erregiña ta pekatari guztijaren Ama piedadez betia, eta bere humildade parebagiak altzau eben legez Birjina maitia Jangoi-koare[n] Ama izatera, alan guk bere bere exenplora humillaturik konfe-setan doguzala gura pekatuak, merezi izan daigun Ama maita onegaz batera bere Seme eder Jesukristo justizijaren eguzki ederra Angerukaz batera ikustera. Abe Maria.

#### [AMAIERAKO ERANSKETA]

Neura kontra esango ditut Jangoikoari eginiko okerrak, esaten eban Dabid Santuak. Eta onelan akusadu zalako merezidu izan eban parkazi-noa.

<sup>42</sup> Alternantzia: *erakutsi / erakotsi*.

<sup>43</sup> Ostean erantsita.

Esan dot berez obligazinatorik eztaukegula<sup>44</sup> pekatu arin edo benialak konfesetako, baña<sup>45</sup> onetarako jakin biar dogula<sup>46</sup> pekatu beniala baño ezuala egin dogun utsegitia edo faltia. Zenbat engaño eztago onetan? Zenbatek arin edo benialtzat daukaz mortal ta astunak dirian pekatuak? Barriz, zenbatek pekatu ezterian gauzak daukaz mortaltzat, ta gero lotsaz itxi ta kondenetan dira berez sustraijan ezterian pekatuakgaitik? Baña au argiroago ezagutu dagizuen, obeto izango da erakutsi exenploakaz. Edozeiñek daki guzur txiki bat esatia, eta onen modura beste gauza batzuk, bakarrik diriala pekatu arin edo benialak. Itxiko balitu onefelk ezaueraz, nai dan moduan dala, ez litzateke konfesino geztoa izango, beste bide batzuk dagozala zegaz kendu.

Baña, o zenbat pekatu arintzat eurek daukezanak izango diran mortal ta astunak Jangoikoaren aurrian! Zenbat pensamento loi borondatezko edo deseo<sup>47</sup> osozko arintzat daukeezanak izan doaz astunak? Zenbat berba zikin, ezain, zantar, lotsagarri ta arima askoren galgarriak begiraturen jakelako, ez ebela gogo deungiagaz esan barre eragiteko edergarritzat baño, geratuten dira konfesadu bagarik, edo konfesaduten badozuez, pekatu arintzat, berez mortalak dirianak? Zenbat danza nastuetan, eskuka tentagarriez ta onen modura adikuna ta mobimento luxuriaz beteriko, berez mortal dirianak, ez aurrerago igoro<sup>48</sup> arren, arintzat itxirik konfesadu bage gelditu oi dira gazte artean? O zenbat pekatu onefeltan! Baña eztaukezue onetan eskusarik, bada, alan pulpitan, baita konfesonarijoan entzun daroazue diriala mortalak; eta onegaitik egiten dirian konfesino geztoak eztauke neurririk. Guraso asko dira guztiz nagijak, alperrieriaz ikasi nai eztabeenak<sup>49</sup> euren obligazinoak, eta emen egon oi dirian faltak konfesetan eztituezanak. Tratuetan egin oi dira irabazi bidebagiak, tranpak egiten dituela edo prezijoan, neurrijan, pisuan, jenero ain ona eztana nasturik ontzat emanian, eta bizi diriala konfesadu bage onefeltan egin daroegan kaltiak eta pekatuak. Eta onen modura beste gauza askotan. Orregaitik da gauza azertadua konfesetia argiro bere tentaziño, mobimentu, inklinazino ta beste pekatutzat eztaukezan asko; bada, askotan eurek benialtzat daukezan asko, aurkituten doguz diriala guztiz astunak.

---

<sup>44</sup> Idem: *Berez obligazinatorik eztaukegu > Esan dot berez obligazinatorik eztaukegula.*

<sup>45</sup> Ostean aldatuta: *bada > baña.*

<sup>46</sup> Ostean zuzenduta: *dogu > dogula.*

<sup>47</sup> Ostean ezabatuta: *gura edo deseo > edo deseo.*

<sup>48</sup> Alternantzia: *irago / igoro.*

<sup>49</sup> Ostean zuzenduta: *eztabenak > eztabeenak.*

Ez dago obligazinerik konfesetako pensamento loi bat argiro, ezauturik lekurik emon eztautsela; baña alan bere, ondo da konfesetia konfesoriarik konseju santuekaz animau dedin benziatara, ez geijegi larrituteria eta sarijaren esperanziagaz Diabruaren kontra gerra egitera. Kristinaurik onenak dira geijago tentaduak gazkinaren aldetik, bada, geztoak beragandurik daukezana legez, eztau oneitan ainbeste biar egiten.



## SERMÓN DE NO CALLAR LOS PECADOS

Gaur, N.E. maitiak, nator pekatari askoren biotzak zabalduera, aspaldiko urteetan pekatuen katiar ondo lotu ta esturik bizi dirianen grillubak ausi ta urraturik libre ipini gure izatera. Eta zer diriala uste dozue añ estu loturik pekatariak daukezan kateak<sup>1</sup>? Ez besterik ezpada arako lotsa pekatuzkoa, Konpeseñoan pekatuak ixillik eta konpesau bagarik pekatuak itxi erañ, eta len baño deungago, baita pekatu geiagogaz ipiñiten dituzana. Auxe da katiar asko ta asko pekatari ezin urraturik ondo estu ta larririk bizi dituana. O zeñ neke andia<sup>2</sup>...! Egia da gorputzeko begiakaz bakarrik obligaziño oni begiratuten badeutsagu, guztiz neke ta astun egingo jakula, baño ez fede ta arimakoakaz begiratuten badeutsagu. Onelan begiraturik guztiz erraz egingo jaku, zegatik konpeseño on baten ordeaz pekatuak garbitutiak lotsatzen dituen Diabruak, egin gizon ta Jangoikoen arteko bakiak, erbestetu pekatuak, biztu birtutiak, itxi Infernuko atiak eta idigi Zerukoak. Baña frutu santu guzti one[el]k irabaziteko, guztiak batxu bere itxi bagarik konpesau biar dira. Eta onelan egiten ez badogu, ez dago parkaziñorik, ez Zeru, ez Gloriarik. Eta au onelan bada bere, ez dago geiago pekatarietan ikusten dogun gauzarik, lotsaz pekatuak Konpeseñoan konfesatiage itxitia baño. Au da, bada, zubei erakutsitera natorrena<sup>3</sup>.

Añbestekoa da lotsa onek pekatarien biotzetan egiten daben kaltia eze, berak bakarrik gerra geiago egiten deutso pekatariari ez konpese-tako bere pekatua, tentaziñorik andienak jausi ereiteko baño, diño S(a)n Gregoriok. (\*)<sup>4</sup> Au da, pekatariak, zubek denpora santu onetan irabazi biar dozuen kastillorik andiena, murallarik fuerteena eta exerziturik bildurgarriena: lotsa geztoa kendurik, humildade santu bategaz Dabid Erregiaren antzera zuben pekatuak konpesadu eta autortutia. Baña lastima gogorrez emen dira pekatarien larriak, emen askoren lotsa ta bildurrezko izardiak: nik konpesadu biarko dodala (esaten dabe pekatariak), ara-

<sup>1</sup> Geuk zuzenduta: *katea añ estu loturik pekatariak daukezan kateak* > *añ estu loturik pekatariak daukezan kateak*.

<sup>2</sup> Ostein erantsitako esaldia.

<sup>3</sup> Idem.

<sup>4</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Ez dabe euki*.

ko pekatua neure bakarrian gogoratuten jatanian bere<sup>5</sup> koloriak arpegi-  
ra urten bagarik ezin egon izaten nazana, arako pekatua sekula biarba-  
da bestek egin izango ez dabena? Ez da posible nik au egitia. Nik neu-  
re burua lotsatu biarko dodala, kreitua ta ondria kenduko deusedala?  
Ezin nik egin neukian gauzia da; beragaitik konpesadu bagarik ez bada-  
go salbazinorik, nik galdu biarko dot. Beste edozeñbere gauza bai, baña  
ez da posible arako urlija denporan Urliagaz edo abere mutuakaz egi-  
neko pekatuak. Onelan, pekatari tristiak Jangoikoaren grazia eta Dia-  
bruaren tentaziñoak emoten deutesen lotsegaz dabiltz guztiz galdurik,  
euren konzi[en]lako arra guztiz miñ emoten deutesena ixildu ezinik. O  
Diabruaren tentaziño gogorra anbeste arime galtzen dozuzana! Alperrik,  
pekataria, Konfesinoa ez dan bidetik pena orretatik urten gureko dozu.  
Pekatuaren biozketiak beti naitanaiezian eguzkiten bide egiten dabenari  
jarraituten deutesena legez, zuri bere pekatuen pena orrek jarraituko  
deutsu.

Jesukristo gure Jaunak bere Elexako giltzak emon eutsezan S(a)n  
Pedrori eskubide guztiekaz pekatuak parkatuteko, esaten eutsala: Zuk  
Lurrian parkatuten dozuzan pekatuak parkatuak izango dira Zeruan, eta  
parkatuten ez dozuzenai parkatu bage geldituko dira. (\*)<sup>6</sup> Au da Fediak  
erakutsiten deuskuna, eta au siñastu gura ez daben guztia ez da Kristi-  
naua. Orañ bada, Kristinaua, egiau Fediak zuri erakutsirik Kristinautza-  
ko ezauten bazara, zer erantzungo deutesazu Jesukristori itendu dagizu-  
nian: izan<sup>7</sup> zirian parkatuak munduan zure pekatuak? Konfesadu ezpa-  
dozuz, ezin bai[eltzik] esango deutesazu, eta etziriala izan parkatuak  
erantzun biar izanik: Bada Zeruan bere ez dira izango parkatuak, era-  
ntzungo deutsu. Argumentu oni erantzun biar deutse pekatuak konpese-  
tako obligaziño onetatik iges egin gure daben guztiak. Parkatu bajatzu-  
zan munduan pekatuak<sup>8</sup>, izango dira Zeruan; baña ez jatzuz Lurrian,  
parkatu bagiak izango dire bere Zeruan. Eta baldin<sup>9</sup> izango baliz<sup>10</sup>  
añbestekoa pekatarien atrebimentua ukatu gureko leukena obligazino-  
au, edo<sup>11</sup> Jesukristoren Legia etzala izan Jangoikoaganik datorkiguna?  
Oni bere esango deutesagu esan dagigula atxinako Patriarka ta Profetak

<sup>5</sup> Ostein erantsita.

<sup>6</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Erabagirik dauko Elixiaik. Erremedio au da Sakr(amen)to Peni(tenziakoa)... dagoala erre-medio pekatuak parkatzeko Eliz(a)n.*

<sup>7</sup> Ostein aldatuta: *Itendu > Izan.*

<sup>8</sup> Geuk zuzenduta: *parkatuak > pekatuak.*

<sup>9</sup> Ostein erantsita.

<sup>10</sup> Ostein zuzenduta: *balego > baliz.*

<sup>11</sup> Ostein erantsita.

esan eben guztia, mundua salbetako Jang(oikoa)k<sup>12</sup> prometidu edo opa izan euskun Mesiasen ganian jazo zirian edo ez Jesukristogan. Edo ez? Judugiñoko guztiak autortuten dabe egiau, gauza onen ganian estuten dirianian. Eta gaurko gizon Jangoiko bagiak zer erantzunik ez deukela geldituten dira. Gure denporako moda barriko filosofoak, liburu txiki azaletik ederretan, gauberik goxera jakintsuren izena artu gura daben askok, euren pasiño ta libertade pekatuzkoak obligaziñorik ez deuken Kristinauen artian, euren esakunakaz gerra egiten deutse Jangoikoari, euren doktrina geztoakaz; baña leiduko balitubez Jangoikoen Libru Santuak añbeste egarrigaz, zeñda leiduten dituen libru geztoak, pekatuak ipiniten deutesen entendimentuko laño ilunak kendurik etorriko litekez, arako eurek baño jakitunago izan zirian Santuak S(a)n Agustin, S(a)n Pablo ta beste asko legez Jesusen Lege Santura, eta pekatuzko bizitzia bertutezkoagaitik itxirik, are[elk legez konpesau pekatuak emen munduan eta parkaturik, Zeruan bere parkatuak izango diriala entzutera. Egizue, bada, onelantxe; argitu egizuez zuben entendimentu arinak, eta zuben obra onakaz exenploa emonik Zerurako irabazigizuez len galduko arimak. Baña, o Diabruaren tentazio<sup>13</sup>! (\*)<sup>14</sup>

Jangoikoak Konpesinoari ipini beutsen bere esperantzia eta pekatuari lotsea, Diabruak kontrara one[elk biok ipiniten dituz: pekatuari ipiniten deutso esperantzia eta Konpesiñoari lotsea. O zenbat arima lotsazko zubi onetan Diabruak atrapetan dituban! Orregaitik, galdu gure ezpadozu, lotsa-bildurak kendurik guztiak ondo konpesau eikezuz. (\*)<sup>15</sup> Ez dago beste biderik Zerurako pekatuen konpesiñotik ez bada. Nai zure bizi guztian barau gogorrian bizi izan zaitezela, nai katia ta urkia iduretik dozuzela zabiltzela, nai mendi bakarretako atx-bitartetan bizi nai izan dagizula, pekatuak konpesetan ez badozuz, guztiak alperrik egingo dozuz, ta galdua izango zara. Baña au guztia ez da asko izango lotsazko katiagaz dagozan pekatari askorentzat. Ez da posible, Jauna, erantzuten dabe onelakoak, nire pekatu lotsagarriak konpesetia. Askoren artian bat dauket añ esaña eze<sup>16</sup>, ezin alegiñak eginda bere neure biotza berotu dot konpesetako, eta nik galdu biar dot. Zer da bada, pekataria, pekatu ori konpesau ezin izateko anbeste lotsatuten zaituana? Bildur zare konpesoriak pekatu ori agertu zeñ dakizun? Urrun zugandik orrelako

<sup>12</sup> Idem.

<sup>13</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>14</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Elixako S(an)to andi batek esaten digu...*

<sup>15</sup> Ostean ezabatutako esaldia: *Bai, pekatari argala.*

<sup>16</sup> Ostean erantsita.

pentamentua; ez-da bere bizitzia gordetako biar baleu bere, ez dau egingo orrelakorik. Izan dira konpenseruen artian gizon geztoak, eskandalosoak, burutik erañak, euren pekatuak fedetik kanpora atera ta Konpeseñoen kontra eskribidu dabenak. Orregatik bere, ez dituz inok agertu eurai konpessauko pekatuak; eta au ez eskrupuluagaitik, ezpada Jangoikoak onetarako aparteko arduraATEGAZ alakorik egiten itxi ez deuteselako, añ da andia Jangoikoak sakramento oni gorde deutesan errespetoa! Orregaitik bada, lotsa-bildurrak kendurik konpessaugizuz aspaldian biotzian min emoten deutesuzan pekatuok. Orrelan egiten badozu, Zeruan parkatuak izango dire zure pekatu orre[elk, baita munduan bere biotzeko bake andiATEGAZ biziko zara, gorputzeko osasunerako asko lagun egingo deutesu. (\*)<sup>17</sup>

Bestean<sup>18</sup>, ez dire gitxi orañdio<sup>19</sup> azta laburragoko atxakiakgaz konpessau gure ez ditubenak euren pekatuak. Nik ondo dakit, esaten dabe beste askok euren artian, nire pekatuak inori esaten ez doiala konpessera; baña diriana legeZ añ lotsagarriak, arrituko da, pekataria[ri] aserratuko jako, eta ez nau artuko, botako nau bere oñetatik. Ai nok ondo konpessauta leukezan! Ez da arrituko, pekataria, ez da bildurtuko<sup>20</sup> zure pekatuakaz, etzaitu oñetatik botako ordu berian borondatezko okasiñoan bazagoz, eta bai errukiturik artuko zaituz. Eta len beragaz konpessau ta lotsaz itxi badautsazuz, ez jatzu aserratuko; anbeste urtian konpessau bagarik berari itxi badautsazuz, ezautuko dau gure argaltasuna onenbeste ta geiagorakoa dala, eta Jangoikoak zukanako estimaziño santuago bat bere biotzian ipiniko deuteso. Eta alan egin bere biar dogu konfessore guztiok, bada, au da arimak irabaziteko biderik onena; eta bestetik, ezautu biar dogu beste onenbeste ta geiago geuri bere jazo bekigula. Alantxe egin Santuak, zenbat argalagoak, anbat eta biguntasun geiagogaz artuten zitubela. Alan egin S(a)n Bizente Ferrerrek; amabost urtian konfessau bagarik egon zan soldadu bizitza galdukoATEGAZ, eta bere pekatuen anditasunak bateti, ta konpessorien amodio eta biguntasun santuak alako moduan bere biotza urtu eben eze, damuariaren inderrez bizitzia galdurik beñingoan Zerura joan zan soldaduau. Beste onenbeste egin eban S(a)n Luis Beltranek, gizon bizitza galdukoATEGAZ. Ioan zan bere oñetara, asi zan bere pekatu andiak ikaraz esatera; uste eben botako ebalat oñetatik añ galdua izan zalako, baña ikusirik zenbat esa-

<sup>17</sup> Atal horretako albo oharra: *Liburu geztoZ (< geztoZ) eta zuben arimaren kaltez alperrik denp(or)a galduten zabiltzena.*

<sup>18</sup> Ostein erantsita.

<sup>19</sup> Ostein aldatuta: *beste > orañdio.*

<sup>20</sup> Geuk zuzenduta: *bilturko > bildurtuko.*

nagaz, anbat eta biguntasun geiagogaz artuten ebela, eta ondo. Orrelan-txe esangizuz, arpegi atsegin bategaz zirautsela, guztiak garbitu ta salba-zinoko bidean ipini eban. Eta añ pazienza andiagaz entzun eutsezala ikusi ebenian, Santu onen ganian konfesetan egoala etorri jakon pentsa-mentu oker bat konpesau eutsan, esaten eutsala: Bada, Jauna, anbeste pazienziagaz entzun deustazan ezkerro neure pekatuak, mesede egin biar deust. Berorren oñetan nagoala berorren kontra etorri jatan juzgu edo peko gezto bat. Nire pekatuak añ andi ta ezañak izanik anbeste pazienziagaz entzun deustezanian, gogoak emon deust ezingo dala izan añ Santu andija, zeñda munduak antzekotzat daukan, eta nozbait bere nire pekatuen antzekoren batzuk egin izango dituala. Bestelan, zelan ni añbeste pazienziagaz artuko nenduan? Onetara erantzun eutsan Santuak: Ai pekataria, ez; Jangoikoak gaztetatik ekarri nendun Erlijiñora, eta Bera graziak libre nago zure moduko pekatuetatik. Baña, zer gura dozu nik beste gauzarik pekatariakaz egitia orrelan datorkidezanian? Zeruan pekatari bat konbertietan danian Angeru ta Jangoikogiñokoak poztuten badira, zegatik nik poztu biar ez dot pekatarien pekatutik Jangoikoaga-nako biorkeran? Jarraitugiozu grazia santu gaur artuten dozunari, eta Zeruan biok gagozania eskerrak emongo deusaguz. Onelan Santurik andienak egin dabe, eta alantxe egin bere biar dabe: ez bildurtu, ezpa-da errukitu ta jausita dagoan lekutik altzetan lagundu. [Gurutzea]

(\*)<sup>21</sup> Onelako gauzak<sup>22</sup> urte luzetan ofizio onetan dabilzanai beñ baño geijagotan jazoten jakez. Ikusi doguz ezkondu, baita persona libriak, guztiz arriturik, barbarik egiteko inder bagarik pekatuen ikera-ren bildurrez, Jangoikoak bere aserrea erakutsita gaixoturik, eskeleto biorturik pekatariak panparroienak, sazerdotia komulgeta-orduan ostia konsagraduak entzuten eben moduan, esan eutsena: Ez deustut geiago parkatuko. One[e]tariko bi gaur eternidadian dira eta ustez Zeruan, pekatari andiak izan bazirian bere. Eta zer? Onelan datozenak eta one[e]n modukoak gogortasunagaz artu biar al doguz? Ez beñtzat. Gogortasuna erakutsi biar deusague bakarrik pekatu ta bere okasiñoai itxi gure ez deusenai; baña bestiai, negarrez damututa badatorkiguz, biguntasuna, amodio, erruki ta karidadia. Zelan artu eban Madalena Jesukristok? Garratz eta gogor? Ez beñtzat, ondo bigun ta errukirik. One-lan artuko zaituguz etorriten bazare damuturik. Jazo lekigu guri bere beste edozeñ gure oñetara etorri oi dirianai jazo jakena; eta jausi bage bagagoz, Jangoikoari eskerrak. Beragaitik ez lotsatu, ez bildurtu, peka-

<sup>21</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Jangoikoa bere ase-  
rre guztiagaz...*

<sup>22</sup> Zentzurik ez duela eta, ez dugu aldaketa hau transkribatu: *gauzak > pekatariak*.

tariak. Zure konpesoria ez da aingerua, ezpada zu baixen argala, eta biarbada argalagoa. Mirarituko gara elorri-arantzan punta zorrotzak ikus-tean edo ikusijagaitik? Ez gara<sup>23</sup>. On[do] dakigu sasiko arantziak ze fru-tu emon aleikian. Ikaratuko gara esku artian erabili oi dirian basu bite-tik bat jausi ta ausita ikusijagaz, eta bestia ez? Ez beñtzat, bada, jausi zana legez, bestia bere jausi zeitekian. Konpesoria ta zu, biok basu arga-lak gara, eta jausi baziñian, ni bere alantxe egin nintekean; eta zu jausi zarealako, ez dot zure kontra ezer artu biar, ezpada zuri osatuten lagun-du; eta jausi ez nazalako, Jangoikoari eskerrak emon, bada, ni baño obiagoak jausi dira. Elexako Santurik andiena Pedro jausi zan, Judas Apostolutik<sup>24</sup> bere Maisuaren merkataritza traidore biortu zan, eta onelan beste estaduetan dakusguz. Beragaitik, Jangoikoen juizioak benerau dagiguzan. Eta jausita dagozanak, altzau zaitezze Pedro legez, eta ez des-esperau Judas legez erremedioa Jangoikoak opa deutsuen artian.

(\*)<sup>25</sup> Benetan miseria andia zuria, pekataria, pekatuak Konpesiñoan ixillik itxi nai izatia. Len zuk, (dirautsu S(a)n Ju(an) Krisostomok), ez dozu izan bat bere lotsarik pekatu egiteko, eta orañ anbeste lotsa peka-turik urteiteko. Len bat ere bildurrik ez<sup>26</sup> zure arimia pekatuz gaixotute-ko, eta orain lotsa-bildur andiak osatuteko. Bat bere bildurrik, ardurarik ez, guztiori loiturik ariman, eta orain anbeste atzerakuntze Sakramen-to ur garbietan kristaldu ta ederrik ipiñiteko. Plaza, kalle ta bazter guz-tietan lotsaren tanta edo errasturik ez eskandaluan ibilliteko, eta orañ isi-llian indarririk ez orretatik garbituteko. Mundu guztien aurrian len eder eretxi deutzazu arpegia jausi biar jatzun lotsagarritzko pekatuak egiteko, eta orañ Sakramentu Santuko sekretoan lotsa zara konpesore prudente bati esateko<sup>27</sup> erremedietako. Burutik erañde zagozala esan leike, peka-taria. San Agustin<sup>28</sup>. Esan egidazu, nozbait konpesetako pekatu orre[elk] ala beti konpesa bage eukiteko ustiak dozuz? Iñoz bere konpesau ezei-teko, eta Judas legez desesperadurik ilteko ustiak badozuz, ondo; zoaz aurrera, asetu zaitez pekatuz, bada, eternidade bat dauko Jangoikoak gorderik zure pekatuak kastigetako. Baña nozbait konpesau ta salbeta-ko ustiak badozuz, zegatik orain egingo ez dozu gero egin gure dozu-na? Bakizu zuk orañ gogoan daukazun denporia elduko jatzula? Ez daki-zu lenago zuri iltia jazo lekizula? Ez dakizu zure pentsamentu orre[elk]

<sup>23</sup> Osteen erantsitako esaldia.

<sup>24</sup> Geuk zuzenduta: *Apostulitik* > *Apostolutik*.

<sup>25</sup> Atal horretako hasiera oharra: *La Egipciana de 17 hasta 29 y...*

<sup>26</sup> Osteen zuzenduta: *Len bat bildurrik* > *Len bat ere bildurrik* ez.

<sup>27</sup> Zentzurik ez duela eta, ez dugu zuzenketa hau transkribatu: *esateko* > *esan*.

<sup>28</sup> Osteen erantsita.

geiago ta geiago Jangoikoa zuri graziak emoteko atzeratuten dabela? Ez dakizu galdu izan dirian pekatarien kontuak orre[e]k diriala?

(\*)<sup>29</sup> Eta bestetik, zenbat biorketa ez deutsu bien bitartian emoten kon[zien]ziaren pekatuzko suge gezto orrek? Lanian, bidian eta pausu guztietan beti jarraituko deutsu; ezin alegin guztiak kenduteko eginda bere, zugandik alde eraño deutsazu, pizkaren baten nozbait ixildu arren, andik lasterrian len baño indar geiagogaz biotzian kin emongo deutsu. Eta azkenian, zuk uste izan zenduan denporia baño lenago eriotzako estu-larriak artuta galduko zara, asko galdu diriana legez. (\*)<sup>30</sup> Ez, arren, izan asko legez burubagiak, pekatu orrefelk ixillik gorde arren salbauko zarela uste izanik zuben limosna edo beste obra onen batzuekaz. Munduan orañ artian Santurik andienak egin dituen penitentzia guztiak egin arren, etzare Zerurako izango, galduko zaree. Arako S(a)n Antonino Florenziakoak dakusgun exenploko mojiari jazo jakona jazoko jatzue. Onek, dama gazte zala, egin eban bere buruagazko pekatu loi bat, eta andik lasterrian damutu bajakon bere, anbestekoa izan zan bere biotzian izartu zan lotsea eze, batetik ondo gura izanagatik, bestetik lotsa-bildurrez atzeratuten eben. Onelan ebillen bere konzienzian Jangoikoa konfesadu leiejala indar andiegaz esaten eutsala, eta bestetik lotsiaren katiak egiten isten ez eutsala. Eta alako batian, Diabruak buruan ipini eutsen konpesau bagarik bere penitentiaren bidez parkatuko jakola. Enemigoaren tentaziño oni leku emonik asi zan ezin esanezko penitentiak egiten, baita one[le]i gitxi eretxirik pentsau eban konbento batian monja<sup>31</sup> sartutia. Eta bere deseoau beterik, izan zan guztiak baño penitentiagoa eta birtu[elko] bideetan leलगokoa. Onenbeste prenda beragan komunidadiak ikusirik, egin euren agintari edo abadesa. Baña beti bere biotzian gordeta eukan gaztetan egin eben pekatua, beti min emoten eutsela. Baita agintari egin artian lotsa izan bazan konpesetako pekatua, geroa[n] inder geiago artu eban bere lotseak. Eldu jakan azkenian guzt[i]loi elduko jakun eriotzako ordua; konpesau zan, baña txarto orduan bere. Orandio Jangoikoa deituten eutsan konpesau leijela, baña alperrik guztia. Orregaitik bere, il-orduan deitu eutsan konpesoriari, esan eutsan kezka bat eukala, entzun leiola. Baña nonbait bere pekatuen neurria beteta euki biar eben. Konfesorik Santatzat eukena legez, uste izanik eskrupulu inpertinenteren bat zala, ez eutsan entzun gura izan, eta alan il zan konpesau ba[ge]. Sentimentu andiak jo zituzan mon-

<sup>29</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Konpesetan ez dezun bitartian*.

<sup>30</sup> Ostein ezabatutako esaldia: *Bai, pekatariak*.

<sup>31</sup> Alternantzia: *moja / monja*.

jak alako abadesa santa bat il jakelako. Eta gau<sup>32</sup> entierrukoan egoan moja bat orazino aparteko batian aren arimagatik, eta orra itzalgarrizko forma batian agertu jakan garra zerijola, ta lelengoa bidurtu bazan bere, Jangoikoagan indarrak arturik itandu eutsan: Nor zara, edo zer biar dozu? Orduan berak: Gaur enterrau nazan zuben abadesia naz. Ez egin nigaitik oraziñorik. Infernuan nago eta beti egon biarko dot, ez emen egin dodazan pekatuakgatik, ezpada gazte nintzarian pekatu loi bat egin nendun, eta Jangoikoak anbeste bider deitu badeust bere, ez dot egin engañaurik penitentzia andiakaz salbauko nazala, eta galdu naz.

Anbeste urtian lotsaz pekatuak konpesau bage daukazun pekataria, zer dinozu? Baukezu biotzik Infernuan betiko egoteko, indar geiago zure pekatua konpesetako baño? Bada gordegizu, konpesau zegizu orañ, Luziferreri beti konpesetan eta berak emongo deutsun penitentzia egiteko. Baña Jaunaren amodiozko gaurko konbitera gaur erantzun ezeitia zuri ondo damutuko jatzu. Alper izango dozu, bada, beste bide-tik Zerura gura izatia. Jesukristok esango deutsu: Nik Elexiari emon neuntsan eskubide guztiak pekatuak parkatuteko munduan. Etzirian munduan zure pekatuak parkatu, bada ez dira Zeruan bere parkatuak izango, Jesukristok esango deutsu. Jesukristoren Sakramentoa ukatu dozu, bada bera bere ukatuko jatzu. Nai maliziaz ukaturik Sakramentu Penitentiakoa itxi dozula, nai lotsa-bildurrez dala, etzirian parkatu munduan, ez dira parkatuko Zeruan. Au da zuk entzun biarko dozuna. Ez dago beste erremediorik: edo konpesau au, edo betiko penau. Zen begira zagoz, bada? Nox egiteko ustiak dozuz? O zeñ burubagia zarian, pekataria, bake santu bat Mundurako ta Zerurako añ neke gitxigaz emon al izanik, ez gura izatiagaz!

Zuben pekatuak ukatuagaz Konpesiñoan konpesoria bakarrrik engañoauko bazendue, gatx erdi izango liteke; baña jakinik Jangoikoa ezin engañoau ziñaikiela, orrelan nondik ezkutauko ibillitia lastimagarritzko gauzia. (Ea bada, neure biotzeko pekatariak), beranduago baño ezpada bere, artu dagiguzan propositu benetako batzuk anbet lasterren pekatu guztiak konpesetako, (zegaitik ez dagoan beste biderik Zerurako konpesino on batetik baño). Pekatari biotzekoak, konpesetako pekatuak mutu eginik bizi izan zareonok, urratu lotsa pekatuzko orren katieok. Aditu dozue ez dagoala zetan bildurrik artu, alan konpesoriaren aldetik, zeñda zubenetik. Entzun dozue zein bizitziagaitik bere iñori zuben miseriok esan eziñ legozala, baita erruki ta karidadez artungo zaitubela; eta konpesetan ez badozuez, bide ta leku guztietan biotzian min emongo

---

<sup>32</sup> Geuk zuzenduta: *gua* > *gau*.



deutsuela, beti martiri eginik ibilli biarko dozuela, eta atzenian galdu biarko dozuela. Zen begira zagoze, bada? Lotseak indar geiago<sup>33</sup> artu artian, neurria bete ta galdu artian? Eriotzako tranze-estura artian? Deituten deitsu, konbidetan zaituz, galduteko zorian ipiñi baño lenago erantzun daiozula dirautsu. Zer miserkordia andiagorik egin leikezu? Eta orregaitik bere, bere dei ta grazietara erantzun gure ez deitsazu? Zure biotza gogorturik ezetz dirautsazu. Galduten zareanian, norena izango dan errua ondo begiratu eikezu. Zeruak eta Lurra testigu izango dira, baita nire gaurko berbak, zure Jangoikoaren paltarik izan etzala.

Baña ez, pekatariak, ez dot uste orren gogorak zuben kaltian izango zareela, ezpada lenago bere deitara erantzun eza damaturik etorriko zareala Jaunon oñetara Madalenia denporan bezela, eta negarragaz damaturik, bere oñetan biotzak urturik obligauko dozuela zuben erruki artutera. O miserkordia, Jaun maitia, zara niretzako! Apenas izango da kastigurik nire pekatuak merezidu deben beste kastigetako, eta zuk kastigau biarrian errukiagaz ni konbidetara etortiak, urratuten dau biotza lenago zugana etorri ez nazalako.

#### [HASIERAKO ERANSKETAK]

Zer dinozue, pekatariak? Biotz geiago dozube Luziferri Infernuan konpesauta bere penitentzia eternidadian egiteko, orain konpesauta Zerura joateko baño? Baña jakinda egon zaitia: Jangoikoaren gaurko konbit amudiosoa despreziadu biar izana ondo damu izango dozue. Ez dira parkatuko zuben pekatuak Jangoikoak Elexiari emoneko baño beste bidetik. Nai maliziaz, nai lotsa ta argaltasunaz isten dozuzela, ez dire beste bidetik garbituko. Ez dago beste biderik: edo konpesadu, [edo] kondenadu. Zen begira...? Alperrik beste erremediorik. Badirade bai, eta ez gitxi, Kristinauren izenekoak doktrina geztoak franku zabaldu ditubena. Baña one[e]k ez ditu ezautzen Elexak bere semetzat. (\*)<sup>34</sup>

(...) euren pekatuak ta konfesoría ikaraturik, baña (...) negar ta damuaría ikusirik, ezin ukatu absoluzi(...) eta esan: Ai pekataria! Nik ezin ukatu neikezu bendizino santua, baña zu izan zariana ikusirik, galduko zara leenera biorturik. Orduan berak: Ai konpesore biotzekoa! Nik ori eginik ziertu dakit lelengokoan galduko nabela, Jangoikoak berak niri esanik urlia gau pekatu eginde nentor[re]njan.

<sup>33</sup> Ostein zuzenduta: *geugo* > *geiago*.

<sup>34</sup> Atal horretako hasiera oharra: *N*.

Ez uste izan, pekatariak, zerbait panparroi zareela uste izanagatik, Jangoikoak humilletan ez dakiela. Ikusi dogu.

[Gurutzea] (Ikusi doguz pekatariak oker izateko aparteko enpeñua erakutsi dabenak, gure oñetara Jangoikoak ekarten alako moduan pekatu-  
turako biotza illik eze, esaten baño ekusten errazago da. Bai, ikusi  
doguz. Jangoikoa guztia lurrera botarik, bere aserria erakutsi eta il agi-  
ñik, gizonen etxura bage, eta eztakit S(a)n Pabloren golpia baño izan  
zitekiala txikiagoa.) (\*)<sup>35</sup>

Orregatik bere, zenbat eta zenbat, ez bakarrik lotsazko katiakaz lotu-  
ta bizi dirianak, bait[a] bere malizia osoagaz, Jesusen iturri santu oneta-  
ra etorri ezagaitik (aspaldian...).

Ez dago beste biderik zure pekatuen zauriak osatzeko, Jesukristok  
S(a)n Pedrori eta ondorengo izango ziran mediku espiritualai erakutsi-  
tzia baño. Iturri onetan garbitu ezik, alperrik negar egingo dezu. Eta  
konpesatu gabe ilten bazera, Jesukristok kargoau egingo dizu, esaten  
dizula: Urlia...

Baña gure denporako gizon gezto askok obligazino osotik iges egi-  
teagatik, lege santu guztiak ukatuten ditubez. O zenbat onela aleginak  
egiten dituben, Kristinauak Konfesinoko Sakramentotik alderatutiarren!  
Edo ukatu Erejuakaz batera, Montano, Nobatio, Tertuliano *y con los  
demás Luteranos y Calvinistas*; edo irten Elexatik kanpora, edo konpe-  
satu.

Ez bakarrik Fediak ta Elexako Santuak..., baita ere<sup>36</sup>...

Erlijiño santuaren areriorik andienak, Boltaire, Lutero eta beste ezin  
kotalak batera, alde batetik añ gerra andi egin badeutse bere, autortu-  
ten dabe ezin gauza obeagorik munduan izan leitekiala pekatuen kon-  
pesiñoa baño. Au dala frogarik santuena gizonak birtuoso egiteko, au  
erremediorik onena biotzeko zauriak osatuteko. Olandesak eurak Espa-  
ñaiko Erregeren mende edo agindupetik, eta Jesukristoren teniente Aita  
Santu Erroma[k]loen legiak ostikopian sartutera etorri zirianian, alako  
moduan erriko kostunbre santuak galdu zituben eze, ikusirik ez sena-  
rrak emazte garbirik, ez emaztiak senar fielik ez eukela, baita euren  
seme-alaba guztiak alako moduan usteldu ta korronpidu ebela, etorri  
zirian konpesiñoau barrero lege biartzako eskatutera. Adison filosofo  
jakintsuak Kristinau baten legetik urruti bizi zanak, ikusirik beñ batean

<sup>35</sup> Idem: *Ojo, luego arriba.*

<sup>36</sup> Ostean erantsitako esaldia.

eskribidurik konpesonario baten buruan ipiñita egozala Eskritura Santuko berba one[elk]: begir[altu konpesore edo neure aita espiritualala, ni galdu al neikian gauzaren bat nigan badago, eta ipini nagizu eternidadian zorioneko egingo naberen bide santuan; biotza bigundurik negarrak egin zituben. *Vide si via iniquitatis in me est; et deduc me in via eterna*. Añ dira... Lastima andia gure denporetan jazoten dana: Kristandadian jaijo ta azirik, Jangoiko bageko g[il]zonak baño okerrago euren arimako zauriak osatu, euren kostunbre zantarrak ondu eta euren erria garbituteko Sakramento Santuaren kontra beti egon biar izatia. Ez bakarrik kontentua dira euren loiak izanagaz, baita bere alantxe gura dabe bestiak bere euren loian bardiñak izan ditezen. Ez dabe topetan gauzarik geiago gorroto deutzanik, miseriakordiazko sakramentoau baño. Baña biar[balda esan leiket: nozbait konpesonariotik okerrak bere jazo dira? Ezingo dot esan nozbait orrenbe[ste] bere jazo izan ez dala. Baña, zer? Janak eta edanak bere ez dozube ikusi norbait gaixotu ta il bere dituela? Eta are[elk] biar dan baño geiago janik eta edanik, galdu dirialako itxiten deutzue jatiari eta edatiari. Argumentu asta<sup>37</sup> laburrekoak, baña ez zuben paltak estaldu eta bai agiriago ipiniten ditubenak. Alde, bada, onelako-akgandik; eta baldin balego onenbeste esan ta eginagaz pekatu egin dabenik, arren, oker egiñok damaturik ondu zaiteze...

Añ gauza biarra da Konfesinoko Sakramentoau, gizonak birtuoso egiteko eze, Fediak, baita bere Fedien kontrako gizonak, Bolter, Lutero ta besteak, esan dabe ez daguala lege oberik berau baño. Olandesak Erromako Obispo Jesukristoren Elexatik urten ebenian protestanziara eta konpesinoa galdutera, alako moduen gaiztotu ta lotsagarrikotu zirian eze, *ut supra*... Adison filosofoak...

Au izan oi da askoren argumento andia: Jauna, entzutia daukagu nozbait Konfesiñoan gauza okerren bat jazo dala? Eta erantzun nik: Ez neunke ezetzi[k] esango. Baña bago gauza onik nozbait oker usau ez danik? Ze gauza biarragorik bizitzarako jan ta edan biarra baño? Eta ez dozuez nozbait ikusi jan larregiagaz eta edanagaz gorputzari gatx egin ta bizitzia bere galdu dabela? Eta orregatik itxiten deutzazu konfesetiari legez, izanik añ biarra salbauko bazare, zeñda bera bagarik galdu biar-ko dozuen?

Añ bigunak dira Elexa Ama Santiak Konfesiñoari<sup>38</sup> apliketan deutzazan berba gozoak eze, leidurik beñ baten Adison filosofo...

<sup>37</sup> Jatorrizkoan: *basta*.

<sup>38</sup> Ostean zuzenduta: *Kopesiñoari > Konfesiñoari*.

[AMAIERAKO ERANSKETAK<sup>39</sup>]

Fediak erakutsitzen deusku Erejuen kontra dagoala Elix A Ama Santan erremedioa batiatu ezkeru pekatuak garbituteko. Erremedioau da Sakramentu Penitenziakoa edo Ko[n]pesiñokoa, Florenziako eta Trentoko Batzarrak Kalbino ta Luteroren kontra. Au Elixako Santoak: Origensek, S(a)n Ziprianok, Atanasiok, Krisostomok, Agustino[k], Jeronimo[k] ta ganeko guztiak. (\*)<sup>40</sup>

Elixa onen<sup>41</sup> kanpotik ezin izan ginai osasunik. Jesukristok bere Elixako giltzak emon eutsezan S(a)n Pedrori...

Eta Fediak au erakutsitzen badigu ere, ez dira falta Elexa Amaren seme bortak Diabruaren apostolu gezto eginik euren doktrinakaz asko arima galtzen dabiltenak, esanaz ez dala Jang(oikoa)k ipiniko legia.

Jesukristo gure Jaunak itxi euskula erremedioa Bateoa<sup>42</sup> Santua artu ezkeru pekatuan jausi dirianentzako erakutsitzen digu Fediak. Eta erremedioau dala Sakramentu Penitenziakoa Florenziako eta Trentoko Batzar santuak erakutsitzen deusku, Kalbino ta Lutero Erejuen kontra. Ez dago, bada, beste erremediorik salbetako beñ batiatu ezkeru pekatu mortalian jausi dirianentzako, Jesukristok itxiko iturri onetan bere zauriak agertu ta garbitutia baño. Eta beste modutan salbau leitiala uste izatia da Elixiaren seme ez izaitia, nondik kanpora ez dagoan osasunik, au da, salbazinorik.

Jesukristo gure Jaunak bere Elixako giltzak emon eutsazan S(a)n Pedrori, esaten eutsala...

Bateti lotsa gezto onek, bestetik doktrina santo onen kontrako Infernua[k] eregi dituben Elixaren seme bor[ta]k]...

Eta Elix Santiak Fedeko egitzat erabagita badauko bere, ez dira paltta Elixaren seme bortak doktrina santo onen kontra Diabruaren apostolu eginik esaten dabenak, eta prinsipiorik ez daben jente asko nondi alderatuko dituben alegiñak egiten ditubenak, esanaz Konpesinoko Sakramentoa ez dala Jesukristok ipinia, ezpada fraille ta abaderen inbenziñoa. Baña<sup>43</sup> Infernuak eregiko gizon gezto oneek leiduko balitubez Jangoikoaren Libruak anbeste egarrigaz zeñda leiduten dituben libru geztoak Elix A Ama Santak kondenaduta daukezanak, alperrik izango litzatekez<sup>44</sup> Agustino ta Pablo baño bere buru argiagokoak. Are[e]n

<sup>39</sup> Azkeneko orrialde biak erantsitako paper-zati batenak dira.

<sup>40</sup> Ostean ezabatutako esaldia: *Jesukristo gure Jaunak bere Elixako giltzak...*

<sup>41</sup> Ostean aldatuta: *Onezaz > Elixa onen.*

<sup>42</sup> Geuk zuzenduta: *batia > bateoa.*

<sup>43</sup> Ostean erantsita.

<sup>44</sup> Ostean zuzenduta: *alperrik eze, etorriko liteken > alperrik izango litzatekez.*

modura etorriko litekez euren illuntasunak kendu ta Elixaren doktrina santuau konpesetara, eta euren okerrak ezaturik penitentzia egiazkoa egitera, zeñ dan guk Jangoikoari eskatu biar deutzaguna, bitartiak euren doktrina ta konseju geztoetatik peste gezto batetik bezela iges eginik. Biortu gaitezen gure asuntora, zeñ dan lotsa guztiak kendurik Jangoikoak konpesiñoari<sup>45</sup>...

#### TERCERA DOM(INI)CA DE CUARESMA

Misterio asko ta andi[alk dakazkigu gaurko ebanjelioak. Jesukristok Madalenaren konbersio milagrozkoa egin zuebenetik, jente andiak jarraitzen zion beren gatxetan erremedioa billatzeko. Oien artian gizon mutu ta itxu batek. Gizon au bereanez itxuba ezpazan izan ere, ta añ gitxi mutuba, antxinatik zeukan Etsaiak artua. Munduko erremedio guziak ezin libratu izan zuen trabaju artatik. Esanarekin bakarrik pakian gizon (...)a utzi zezala beste bage, libre gelditu zan gizon gaxoau. Au ikusirik miraritu ziran presente zeudenak, ta zabaldu zan mundutik milagroau. Gizon mutu onekin egin zuan milagroa egunero egiten du espiritualmentian Sakramentu Penitenziakoan. Asko dira gere denporetan Etsaiak mututzen ditubanak ez konpesatzeko beren pekatuak, urrikarriago bizi dirala beren animan itxubak ta mutuak, Ebanjelioan Jesusi presentatu zitzaiona baño. Oie[k] osatzeko gauza biarra beren pekatuak garbiro humildadez konpesatzia, eta au izango da sermoiaren gaia. Doktrinatzat[er] zer dan meza... Txit misterio asko ta andiak gaurko ebanjelioan enzerraten dira. Jesukristok egin zuan ezkeron milagrozkon konbersio ura Madalena Santarena Simeon Faris[eloen] etxian, jente guztiak jarraitzen zion konfiantzaz betia beren trabajue[n] konsuelo artzera; eta askoren artian bat izan zan Etsaiak artua zeguana eta erremedio guziakin ezin libratu izan zebena. Eta gizon gaixoau bereanez argia bazan ere, artua zeukan Etsaiak, itxu ta mututurik denpora luzian zeukan. Kendu zuan Etsaiu Jesusek eta gelditu zan gizona libre. Au ikusirik miraritu ziran presente zeudenak.

Gizon gaixo onetan Jesusek eg[er]in zuan mila]groa egunero egiten du Sakramentu Penitenziakoan. Ikusirik Etsai<sup>46</sup> Kristo(...) andia, eta birtutezko irabaziak bere konpesero ta direktoriari bere esp(...) [mi]lseria ta penak erakutsiaz, enbidiaturik bere zorionez, enpeñatzen da nondi irabazi aiek galeraziko diozkan; eta ezaturik onetarako biderik onena dala

<sup>45</sup> Idem: *konpes(...)* > *Jangoikoak konpesiñoari...*

<sup>46</sup> Ostean erantsita.

lotsa-bildurra sartzia bere animako pekatu ta zauriak erakutsitzeko, mututurik paratzen du Ebanjelioko gizon gaixoa bezela<sup>47</sup> bere pekatuak konpesatzeko.

Beragatik au izango da nere sermoiaren gaia, ez duala eduki biar Krist[a]loak bere pekatuak Konpesioan azaltzeko. Doktrinatzat zer dan meza...

---

<sup>47</sup> Idem.

## DOCTRINA. [MARIA SANTISIMIARI BENETAKO DEBOZINO BAT]

Jangoikoak egin zuanian gizona, ifini zuan naturaleza ta grazijaren doi ederrez apaindua. Baña andik laster, Diabruaren inbidijaz engañaturik erori zan pekatuan, pekatu onekin galtzen zuala grazija guztija, onela gelditzen zala guztiz makurra gaitzerako. Urrikariturik Jangoikoa jatsi zan Zerutik gizonen makarrak kendurik berriz Zeruko bidian ifintzera, au da, bere anima Jangoikoen<sup>1</sup> amoriozko su santu baten irazakitzero. Su santuau da debozioa. Eta debozioa, esaten digu Santo Tom(ase)k ez dala beste gauzarik ezpada birtute bat gizona gauza on ta santuak egi-tera prestatzen dabena. Da Espiritu Santuen doe bat, Zerutiko intz santo bat Kristoaren anima Jangoikoaganuntz jarririk paratzen duana. Berau da zabartasunak kendurik zenzuna argiturik gizonaren biotza<sup>2</sup> amodijo santoz irazakitzen duana, onela sendaturik etsaijen kontra gerra eginik bitorijak irabazi ditzen. Eta Sansonek illiak bulerrian epaki gabe zeuzkanian sendotasunez jantzirik Filisteoai irabazitzen ziozkan bezala, ala debozio santua duanak, sendaturik biotza amorijo santuz irabazitzen diozka etsaiari bitoria andijak; eta illiak ari epaki ziozkanian indargaturik ta flakua peleatzeko gelditu zan bezala, ala debozio gabia epeldurik etsaijen kontra peleatzeko gelditzen da. Orregatik, debozio santua iduki nai badezu, saiatu biar dezu pekatu-aterarik Jangoikoaganatzera. A<sup>3</sup> zan Santuak egin zutena, eta au<sup>4</sup> nire Aita S(a)n Fr(anzis)ko ain miragarriko santidadera ekarri zuana. Santidadea<sup>5</sup> au<sup>6</sup> adierazotzeko biar det Jan(goikoare)n laguntasuna, eta onetara lagun zadazute guziok Jangoikoaren Ama bitarteko ifintzera.

Birjina garbi... Baña<sup>7</sup> alperrik usteko du batek debozio duala, azale-  
tiko orazio batzuekin konte[n]tatzten bada; bada, sarri konfesatu, geijago-  
tan komulgatu, ta andik etxera dijoanian len bezela etxeokakin armoni-  
ja, auzokin murmurazioa, au ezta debozio, baizikan ipokresia. Baña  
debozio guztijen artian andijena da Maria Santisimarena, Jesusena ez iza-

<sup>1</sup> Ostean zuzenduta: *Jangoikoenganako* > *Jangoikoen*.

<sup>2</sup> Ostean aldatuta: *anima* > *biotza*.

<sup>3</sup> Jatorrizkoan: *Ha*.

<sup>4</sup> Idem: *bau*.

<sup>5</sup> Geuk zuzenduta: *Santirarea* > *Santidadea*.

<sup>6</sup> Ikus 4. oharra.

<sup>7</sup> Ostean erantsita.

nik. (\*)<sup>8</sup> Bada, bere deboto izatea da señaile ta ezaugarrija salbazinorako. Jakintsu batek dino: Birjina eder onen debozinoan jarri[rik] egotia da Zerurako izango danen señailea. S(a)n Buenabenturak: Beragandik igeska dabilztenak naitanaiez galdu biar daben legez, alan beragana debozino santuagaz etxuten dirianak, eta berak begi errukiorrakaz begiratu ten deutse, miserikordija izango dabe. Santu andijonen ustez ezingo da inor galdu Marija Santisimiari benetako debozino bat azkenera artian dautsena. Baña deboziño onek ez dau izan biar bakarrik aozkoak, ezpada obrazkoak. Orregatik, debozinoau ezpada Mandamentu Santuen laguntasunagaz, alperrikoa izango da. Ze atsegin artuko dabela uste dozue Ama on onek zuen salbe, abemaria ta errosarijoakaz, beste alde tik bere Seme maitia jositen badautsezue zeuen pekatu andijekaz? Gordegizue, bada, lelengo Lege Santua, ta gero onegaz naste errezetan dozuen abemarija baktotxeko irabaziko dozuez grazija andijak. Abemarija baktotxa izango da zuretzako lora eder bat bere denporan koroi eder bategaz zure burua Zeruan gordeko dabena, ederto apaindurik ifiniko zaituzana. (\*)<sup>9</sup>

Bera da arako uri santue alde guztijetati muralla sendo ta altuekaz gordeta dagoana, uri eder onetan sarturik gorderik egon ditezan Adanen seme guztijek, uri alde guztijetati jagonda dagozanetan an<sup>10</sup> sartuten dirianak jagonik egon oi diriana legez. Alperrik gure arerijoak inder egingo da[u] gu galduteko, uri onetan sartuten bagara; ezingo gaituz emeti atera arerijo guztijak, bada, ezingo dau iñok Jangoiko ez izanik, bere indarrakaz irabazi alde guztijetati Jangoikoen eskuak gordeta daukan uri miragarrijau. S(a)n Juan Ebanjelistiak dirausku uri onek amabi ate dituzala, onegaz ezautu daigun beragana benetan joan gura daben guztijentzat bere miserikordijazko atiak zabalik dagozala, nai izen justu, nai pekatarija edozeinbere estadukoak. Ate baktotxian amabi angeru, ez bakarrik Maria jagoteko, baita bere Birjina onen beneraziño eta amudijoan bizi dirianak Maria Santisimiaganatuteko, ta euren arerijoakganik gordetako. Ez dozue zetan miraritu Birjina miragarrijonen eskubide neurribakoa entzu[n] deustazuenian, bada, au<sup>11</sup> ta geijago, posible balitz, datorkijo Jangoikoak bere Amatzat ta gizonen Gorde[t]zalletzat eternidatetik eskojidurik eukan kriatu[ra] parebako oni. Bada, berak bere Semiaz naste gizonen errendenzinorako lagun egin ebena legez anbeste

<sup>8</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu albo ohar hau transkribatu: *Salbazinoko bidian sarturik egotia*.

<sup>9</sup> Atal horretako albo oharra: *S(a)n Anselmo*.

<sup>10</sup> Jatorrizkoan: *han*.

<sup>11</sup> Ik. 4. oh.



pena ta senti[mentu]gaz, alan bere Semiagaz batera lagunduriko merezi-mentuz aberasturik, gure izen eben Seme onek gelditu zedilla bere Ama bere eskuetatik zabaldu leizen ondasun andijok bere debotoakgana. O Birjina aberats Zeruko ondasuntegi guztijen giltzeria! Ze ondo gorderik dagozan Zeruko ondasun miragarri orre[e]k zure esku Jangoikozko orre-tan, pozik emoteko ugari zuri debozinoz eskatuten deutsuenai! Aberastu gagizuz ondasun orre[e]kaz, onelan kendurik gure munduko gauzaetarako egarrija, bakarrik orre[e]kaz asetuak betiko izan gaitian. (\*)<sup>12</sup>

Orregatik, gure estutasun ta premina guztijetan joan biar dogu bitarteko andijonegana bioztz humilde ta konfientza osoATEGAZ, aurkitu<sup>13</sup> dagigun Ama errukitsu onetan gere atsegin ta olgura santu bat. Onestidadien kontrako tentazinoak estutu ta nekatuten bazaitu, esangiozu izar argi eder oni lagun dagizula, eta irabaziko dozu bitorija. Zure pobreza, gorputzeko gatx ta munduko estutasunian bazagoz, dei egingiozu, eta errukiturik zugaz gordeko zaituz. Egunian-egunian bere errosarijo santua errezetia ezegatik bere aztu ezpekizu, ta alan bedeinkatuko dituz zure nekiak. Bere egun santuetan konfesau ta komulgetako ardura andi bat euki eikazu, ta koro andi eder bat zuretzat Zeruan gorderik eukiko deutsu. Gure dozue, bada, Kristinauak, izan Birjiniaren debotoak? Artugizue bitartekotzat bere esposo S(a)n Jose. Guztiz dira asko ta miragarriak Jangoikoak Patriarka Santu oneri emonik deutsezan eskubide ta pribilegijoak<sup>14</sup> bere benetako deboziño bat dauken pekatarijentzako. Lelengoa, kastidadiaren deia arkantzetako. Bigarrenkoa, pekatutik urteiteko grazija artuteko eta lengo Jangoikoaganako adiskidetasunian ifiniteko, Maria Santisimiaren laguntasuna irabaziteko eriotza on bat egiteko, grazijaren doi preziosoa Diabruaren kontra gerra eginik bitorija irabaziteko; bere Izen Santuaren indarragaz bizitzan bere deboto izan bazara, eriotzako orduan diabruai iges ereiteko, emen Lurrian gorpetzeko osasuna, estutasunian laguntasuna, matrimoninoan seme onak artuteko grazija, zeure famelijan atsegina, ta Zeruan zeure neke guztijen koroia. One[e]k ta beste nire zenzun laburrak ezin ezautu aleizan miragarrizko doiz beteko zaitu, Santu andijoneri deboziño benetako bat artuten badautsazu.

Orregatik, esan biar dautsut gaurganik ez jatzula igaro biar egunik zeure neke ta atseginetan Santu oni<sup>15</sup> biziro eskatu bagarik, arimako

<sup>12</sup> Atal horretako albo oharra: *Ez dau Infernuak indarrrik, Jangoikoen kontrakorik.* [Aurrerago:] *¿Quién podrá explicar el poder[r] de María para con sus escogidos?*

<sup>13</sup> Jatorrizkoan: *haurkitu*.

<sup>14</sup> Ostean erantsita: *emonik deutsezanak > emonik deutsezan eskubide ta pribilegijoak.*

<sup>15</sup> Ostean aldatuta: *au > oni*.

aberastasanak<sup>16</sup> nai badozuz. Errezau zinaijoe egunian zazpi pater ta abemarije bere gozu ta dolorien ondrarako, ta<sup>17</sup> bere esposa garbijen deboto izateko zoriona merezidu izan dagizuentzako. Poztu zaitez zu gaztea tentazino loiz alde guztijetati Diabru ta aragijak gerra bizi bat egiten deutsuna; indar egingizu arerijo gogor orre[e]n kontra, eta gerra orretako gordetzailletzat artugizu S(a)n Josepe Birj(iniare)n esp(o)so garbija; ta siñastugidazu zure neke orre[e]k, tentaziño gezto orre[e]k zeure indar ta Santu onen laguntasunagaz ostikopian sarturik, zenbat andijagoak izan dirian zure tentazino orre[e]n gerrak, ainbat andijagoak izango dira Glorijan artuko dozuzen graduak. Negar garratzak egin biarko dituezala dino Maria[k], Infernuan kondenaduak, euren pekatuakgaitik bidiau ezaututia<sup>18</sup> merezidu izen ez ebelako, izenik S(a)n Josepen bitertekotasuna biderik zuzena Zerurako ta Jesusen adiskidetasuna irabaziteko. Mundutar guztijak, dirautso Maria Jesus Agredakoari Maria Santis(imi)ak doktrina baten, guztiz gitxi jakin dabe nire esposo garbijari Jesusek emoniko grazijak, eta zenbat al daben bere enpeñuak nire Seme ta nigazko; bada, dirautsut, esaten deutso Birj(inia)k Ma(ri)a Jesus Agredakoari, Jangoikoen Justezijen aurrian berau dala bere justezijaren aserriak geijen lotuten dituzen Santurik geijen al daben bat pekadorearen bando. (\*)<sup>19</sup>

Bedeinkatua izan zaitia gizon<sup>20</sup> guztijen artian, Josef! Mundu guztijak bedeinka zaizala ta ezagutu guztijen gordetzalle ta abogadutzat Jangoikoen aurrian! Bada, zu Patriarka Santua, izen zinian famelijarik sagra-duenen gordetzalle fiela, Jesus ta Marijarena; arkantzaugiguzuz grazija zure semeordeko Jesusen grazietara izen gaitezan eskerronekoak, begiratu dagigun bere Ama ta zure esposiak errukijagaz. Orain, Birjina ederra, zuri konfientza osoagaz eskatuko deusugula, orain zure esposoren deboto izateko proposituak arturik gakusguzuzenian<sup>21</sup>! Eta zugana benetan eldu dirianak izan badira beti zuganik ondasunez betiak, zer eztoгу uste izan biar gaur zeur[e] esposoen debozinoz beterik ta bera bitarteko ifinirik eskatuten deusugunian? Biralduiguzuz, Erregiña andija, gure animetara Zerutiko grazijaren euri ugarijak, onelan lengo epeltasunak kendurik, grazijaren euri onegaz arimetan indar barrijak arturik obra santuetan gaurgandik denporia igarorik, euren sari[a]k artutera joatia merezidu dagi[gun] Famelija Sagra-duen laguntasanian beti-betiko. Amen.

<sup>16</sup> Geuk zuzenduta: *aberastusanak* > *aberastasanak*.

<sup>17</sup> Ostean erantsita.

<sup>18</sup> Ostean zuzenduta: *ezautu ez eitia* > *ezaututia*.

<sup>19</sup> Atal horretako albo oharra: *Mist(.) 2 p.<sup>n</sup> 802*.

<sup>20</sup> Ostean erantsita.

<sup>21</sup> Ostean zuzenduta: *artu doguz* > *arturik gakusguzuzenian*.

## [KONBERSINOA]

*Non tardes converti ad Dominum, et ne diferas de die in diem,  
subito enim veniet ira illius, et in tempore vindictæ disperdet te.*

Eccll. 5, 8

(\*)<sup>1</sup> Gauza dolorosoa da porzierto, neura entzulak, izenik gizonaren bizitzia ain laburra, ez jakinik erijotzaren denporia<sup>2</sup>, ain balijo andikoak<sup>3</sup> insta[n]tiak bizitziarenak, ain gitxi eta kontaduak pekatarijen pekatutik urteikerak<sup>4</sup>, ain asko eta egunian-eguniango<sup>5</sup> exenplar andijak erijotziak usti бага artzen dituzanak<sup>6</sup>, eta ain asko galtzaizko bide zabaleti bide egiten da<sup>7</sup> eta, en fin, ain itzaltsu<sup>8</sup> eta bildurgarrije memori[e]k[<sup>9</sup>] il-da laster zer jazoko jakun ez jakitia<sup>10</sup>, one[e]lk onelan izenda, eukitia baloria<sup>11</sup> gizonak atzeratu edo dilatetako bere bizitziaren mudanza edo konbersinoa. Beste amenazetan gaituzan peligruetan, osasun edo azi[e]ndan, gara guztiz diligentiak, erremedio guztijak ifiniten doguzela aun<sup>12</sup> darian dudosoa peligrua; eta Salbazinoko asuntoan, non peligrua dan ziertua, diligenzijak dira dudosoak geijenian. Baiña gauza guztijen artien geijen<sup>13</sup> admiretan<sup>14</sup> dauena guztijek konben[z]jietia konbertietako dauken<sup>15</sup>

<sup>1</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu hasiera ohar hau transkribatu: *Nok esan leike, Kristaoak...*

<sup>2</sup> Ostein aldatuta: *ain dudosoa erijotziaren denporia* > *ez jakinik erijotzaren denporia*.

<sup>3</sup> Idem: *ain preziosoak* > *ain balijo andikoak*.

<sup>4</sup> Idem: *pekatarijen konbersinoak* > *pekatarijen pekatutik urteikerak*.

<sup>5</sup> Ostein erantsita: *ain asko* > *ain asko edo egunian-eguniango*.

<sup>6</sup> Ostein aldatuta: *derrepentian ilten dirianenak* > *erijotziak usti бага artzen dituzanak*.

<sup>7</sup> Idem: *numero bagiak kondenetan dirianak* > *ain asko galtzaizko bide zabaleti bide egiten da*.

<sup>8</sup> Idem: *terrible* > *itzaltsu*.

<sup>9</sup> Ostein erantsita.

<sup>10</sup> Ostein aldatuta: *zer azertau edo etorriko jakune aurrerantzian* > *il-da laster zer jazoko jakun ez jakitia*.

<sup>11</sup> Ostein erantsita: *eukitia baloria* > *one[e]lk onelan izenda, eukitia baloria*.

<sup>12</sup> Jatorrizkoan: *haun*.

<sup>13</sup> Ostein zuzenduta: *gei* > *geijen*.

<sup>14</sup> Geuk zuzenduta: *admeratan* > *admiretan*.

<sup>15</sup> Ostein erantsita.

nezesidadian eta orregaitik egotia euren konzienzijen estadu deungan, guztijek aituten dauksiela erijotziari estadu deungan bildur andijegaz, bai orregaitik atzeratutia geroko euren konberzinoa.

Idigi begiek, pekatarijek, diño Jangoikoak bere Profeta Jeremiasti, zabiltzezanok okasino eta kostunbra deungetan sarturik; ezpabere esan-gidezue: ze arte edo diligenzijekaz uste dozu gizon baltz batek kendu<sup>16</sup> leijela bere ball[z]tasune? Ezegaz bere. Ezetz esango daustezue, dalako beragan naturala. Bada, ikusi daizuenian orreik koloriok mudetan diriala, orduen ikusiko dozue kostunbra deungan dagoana konbertiduko<sup>17</sup> dala, dino Jangoikoak berak. Modu orretati, jaune, imposible da pekatari kostunbre<sup>18</sup> deungan dagoana konbertietia? Ai neure enzulak! Ezta imposible, bada, eztago Grazijentzat imposiblerik. Bai dagoz ainbeste enbarazu<sup>19</sup> ekandu<sup>20</sup> deungen parteti, ze orregaitik dei egiten dau<sup>21</sup> Jangoikoak imposiblek, dino S(a)n Jeronimok, ain da bada gatxa eta neke andikoa ekandu deungia<sup>22</sup>. Eta zegizue onetan ifini dudaren apurrik<sup>23</sup>; bada, Espiritu Santuak esan euen legez, denpora gitxiko gaiso batek eztautso zeregin andirik emoten medikueri, baie luzaroko gaiso batek bai. Eta zegaiti? Berez eskura<sup>24</sup> dator errazoia. Gaiso denpora gitxikoak, alperrik izango da<sup>25</sup>, beti itxiten dau inderragaz osagarriak naturalezagaz<sup>26</sup> obretako. Baie gaiso denpora luzekoak itxiten dau gaiso inder bagarik guztiz debil, eta emen ezin mediziniak ondo obratu lei; eta alan, ez eretxon arren medikuari dala i[n]posible baño bere kuria<sup>27</sup>, alan bere asko dudetan bere debilidada andije dala mediante. Au da medikue aflijetan dauena, esperienzijek ireksten dauskuna legez; eta au<sup>28</sup> da kausarik prinzipalena pekatari kostunbra deungan sartu[ta] dagoanena bere osasun espiritualerako edo bere pekatuko<sup>29</sup> gaisorik urteiteko. Artikulue

<sup>16</sup> Geuk zuzenduta: *kendo* > *kendu*.

<sup>17</sup> Idem: *konbertiku* > *konbertiduko*.

<sup>18</sup> Alternantzia: *kostunbra* / *kostumbre*.

<sup>19</sup> Ostean aldatuta: *difikultade* > *enbarazu*.

<sup>20</sup> Idem: *kostunbre* > *ekandu*.

<sup>21</sup> Idem: *usetan dau* > *dei egiten dau*.

<sup>22</sup> Idem: *Ain da, bada, difikultoso eta bildur izaitekoa kostumbre deungia* > *Ain da, bada, gatxa eta neke andiko ekandu deungia*.

<sup>23</sup> Idem: *difikultaderik* > *dudaren apurrik*.

<sup>24</sup> Ostean erantsita.

<sup>25</sup> Ostean aldatuta: *izan arren andije bere* > *alperrik izango da*.

<sup>26</sup> Idem: *medizinek* > *osagarriak naturalezagaz*.

<sup>27</sup> Ostean zuzenduta: *eta alan, aunke ezteritxon medikuek imposible bere kuria* > *eta alan, ez eretxon arren medikuari dala i[n]posible baño bere kuria*.

<sup>28</sup> Jatorrizkoan: *bau*.

<sup>29</sup> Ostean zuzenduta: *pekatu* > *pekatuko*.

da Fedekoa, Treentoko seigarren Konzilijo santuen deklaradue, osatuteko pekatarije bere arimeko gatzetarik, dala gauza indispensabilia grazijegaz batera konkurridu biar izaitia pekatarijen libertadiak. Grazije da medizinie, eta libertadie gaisoa; bada, au<sup>30</sup> libertadiu badago debil edo inderga, zelan obrauko dau mediziniak, zein dan Grazije, badago debil libertadie? Eztakit, izan leiteke<sup>31</sup>. Erida fresko baten emoten jako lekue mediziniari, baie [e]z regularmente bada zarra eta badago kanzeraurik. Zelan bada, konzienzija zar edo kanzeraduan kostunbra eta bizioz kargauta dagoanian, zelan emongo dau lekue kurazinarako? Aurrera segitako biar dot Grazije. Abe Maria.

Benetan gauza agirija da<sup>32</sup>, neura enzulak, gizon pekatari benturaz<sup>33</sup> bere denpora guztijen, gatzetxuterik zar egin artien, pasino guztije libertadie emon dautsen batek bein bere euki bagarik<sup>34</sup> sekiera bere denpora guztijen konbertietako pensamintu bat, gizon batek zeinek eztauen itxi pekatuak kometidu bagarik, noen bizitze guztije eztan izen beste gauzerik pensamintu torzidu, entretenimintu laszibu, injurije, benganza eta pensau alegizen oker<sup>35</sup> guztijek baiño. Zelan izengo da posible osatuta mediko soberanuen afu]xilijo partikular bagarik bere estadu miserableri? Ondo izen litez andijek medikamentuek apliketan jakozanak, baiña ezto urteiten fijedore urtego dauela osasunegaz. Esangidazu ezpabere, zuk pekatari: ezta gerra andija<sup>36</sup> zuk orain sentietan dozun difikultadie, ain nagi aurkituten zariana, pekatuak urteiteko<sup>37</sup>, zeñtzuetan jausi zarian miserijez? Nok bada, eztau sinestuko zenbat geijago amentetan dirian pekatuak, amentauko dala difikultadie eurei itxiteko? Erreka<sup>38</sup> bat urak txiker doazanian pasau ezin badau, gitxiago al<sup>39</sup> izengo dau urek azi ditezanien. Ja dakutsu guztiz gatx<sup>40</sup> andije daukezune benzieta pasino bat, v.g., guzurak esateko, murmurazino, maldezino, eta juramentuak egiteko; aun<sup>41</sup> ifinirik kuidadu andije, benzie-

<sup>30</sup> Ikus 28. oharra.

<sup>31</sup> Ostein erantsitako esaldia.

<sup>32</sup> Ostein aldatuta: *Eztago dudarik* > *Benetan gauza agirija da*.

<sup>33</sup> Idem: *gizon batek, zeinek akaso* > *gizon pekatari benturaz*.

<sup>34</sup> Ostein erantsita: *euki bagarik* > *bein bere euki bagarik*.

<sup>35</sup> Geuk zuzenduta: *okerre* > *oker*.

<sup>36</sup> Ostein zuzenduta: *ezta andije* > *ezta gerra andija*.

<sup>37</sup> Ostein erantsita: *pekatuak urteiteko* > *ain nagi aurkituten zariana pekatuak urteiteko*.

<sup>38</sup> Ostein zuzenduta: *Errega* > *Erreka*.

<sup>39</sup> Jatorrizkoan: *bal*.

<sup>40</sup> Ostein aldatuta: *difikultade* > *guztiz gatx*.

<sup>41</sup> Ik. 12. oh.

tan zaituz sarriten kostunbra deungiak. Aitu bada, Kristinau, zeura buruari egiten dautsezuzen kaltiak atzeratutiagaz zeura pekatuen enmiendia, ze<sup>42</sup> zenbat atzeratuten dozuzen, ainbat geijago atzeratuten zarien, ainbat eta argalago paretan zara pekatu rik urteiteko.

Eta egija da, berez begiraturik ekanduak eztabela gizonari kenduten<sup>43</sup> libertaderik absolutamentian, berba egin ezkerok; alan bere ifiniten dau grillu borondatezkoagaz amarraurik[k], ain moduten ze inozko denpora baten gure badau urten, eztautso itxiten urteiten, dino S(a)n Gregoriok. Baie egin begi berba S(a)n Agustinek, eta entzun daijogun zelan euki euen Santu andijau konbertidu baino lenago kostunbra tirano onek. Egoan denpora atan Agustino bizijo deungan sarturik eta estragadurik; argi egiten eutsen bere inguru guztijetati Zeruko argijek, poderosamentien geituten eutsela Jangoikoagana; baña bardin eutsun beste aldetik gorturik entzuteko, ez lekurik emoteko<sup>44</sup> edo jaramonik egin ezeiteko llamamintu ai, amarraurik ez burrinezko katiakaz, ezpada borondate gogor bategaz, Demoninoak berak kati a formetan euela eta beragaz amarretan euela. Aitu zelan berak diñoien borondate perbersoa obedidu<sup>45</sup> zan apetitu desordenadure, borondatiak serbietan eutsela apetitu desordenaduoneri, enjendrau zan borondate deungan pekatuen errepetizinoikaz; eta ara emen non borondate deungiari gerra egin ezeitiagaitik, lelengoan konsentimentu libre bategaz abijau zana, konbertidu zan nezesidade edo kati a borondatezko batera. Au<sup>46</sup> da kati a poderosoa pekatuena, zeñeri bildur izen biar dautsegun. O nok ikusi leukian S(a)n Agustin gerra atan borondate zar eta barrijenian! Alan geituten eutsen S(a)n Agustinek: borondate barrije, zein zirian bere dese o santuek, eta zarra, zein zan kostunbra deungia, zeinek euken amarraurik egiteko<sup>47</sup> barrijak esaten eutsena, konbertidu zitela. Ea Agustino, argije daukezu dese o santuek bere bai segietako, resolbidugizu urteitia estadu orretarik. Ai, dino Agustinok, kostunbre deungiak inder geijago dauko nire dese o ak baiño! Alan dino S(a)n Agustinek, borondate zarrak, zein dan kostunbra deungia, ezeutsela itxiten segietan borondate barrijek zirautsena. Baie a[un]ke dinoen S(a)n Agustinek, ezpalegi esan bere, esperienzijak esaten dausku. Eta ezpabere esangidezu, pekatari kostunbre deungan

<sup>42</sup> Ostean erantsita.

<sup>43</sup> Ostean aldatuta: *Eta aunke (< haunke) kostunbriak eztauen kenduten > Eta egija da berez begiraturik ekanduak eztabela gizonari kenduten.*

<sup>44</sup> Idem: *bai igualmente amarraurik desentendietako > baña bardin eutsan beste aldetik gorturik entzuteko, ez lekurik emoteko.*

<sup>45</sup> Idem: *sujetau > obedidu.*

<sup>46</sup> Ik. 28. oh.

<sup>47</sup> Ostean erantsita.

sartuta zagozana, zenbat propositu eztozu egin urteiteko kostunbra orretarik? Tokamintu loi, deseo inpuru! Eta zenbat ez, urteiteko arako etse non daukezun tratu eta komerzijo desonestue?

Zenbat propositu itxiko dautsazula ordikerija, maldezino, juramento eta joko infamiari, non galduten dozun zeura famelija tristiak biar dabena mantenietako, menturaz zer jan ez zer euren soinian ifini eztaukiela? Konfesetan zarie zirkustanzikaz? Gitxi, edo baperez. Eta ara emen non zeuek eztakizuela zaukizan<sup>48</sup> preso zeuen kostunbra deungiak. Ara emen nira bildurraren fundame[n]tue, etzariela ondo konfesetan; eztuzue, bada, ifiniten diligenzijek, artuten dozuezala bide batez legez zeuen<sup>49</sup> salbazinoko gauzak. Zer izango da zugaz orain biortuten ezpazara? Ze medijo egongo da zuretzat konbertietako? Bi dira Jangoikoak usetan dituzen medijoak pekatarijekaz euren konbersinorako: benefizijoak eta trabajuek. Baie pekatari bat akostunbretan bada gogortuten pekatuegaz, ez benefizijo ez tra[ba]ljuek eztaude balijo bere bijotza bigunduteko, eta bajatorkoz deseo santuek konbertietako, bere kostunbre deungiak apenas itxiko deutso biortuten. Ezpabere ikusi daigun zer pekadore andi bigaz azertadu zan, eta oneik zirian Nabukodo[n]sor eta Faraon. Oneik bijok zirian erregiak dignidadian, bai[a] a[i]tuten badautseg[u] euren kostunbretara, zirian guztiz deungak, bada, aflijidu eudien Jangoikoaren Pueblue. Eta aituten bagoaz Jangoikoak oneigaz usau zituzen medijoak konozimintu egijezkora erreduzietako, bijek esperimintau zitue[n] benefizijoak eta kastigiek. Eta izenik au<sup>50</sup> onan, zelan euki zituezan ain fin kontrarioa[k]? Nabukodonosorrek egiten dau penitenzije, eta salbetan da; Faraonek eztau arrepentidu gure, eta kondenetan da. Zein da motibue? Ai Katolikuek! Nabukodonosor eztago gogorturik eta alan errezibietan dituz Jangoikoen auxilijoak. Baña Faraonek eukena legez gogorturik bijotza, eztituz admitietan Jangoikoen auxilijoak: biralduten dautsez trabajuek, eztau jaramonik egiten, biralduten dautsez benefizijoak, geratuten da ain gogorturik; eta ara emen ezeuelako egin penitenzije non topetan dauen ete[r]nidade baterako kondenazinoie. Zegatik Judas, errezibidurik ainbeste auxilijo eta fabore Jesukristoganik, ezta konbertietan bere Maisuegana? Zegatik Saul, errezibidurik ainbeste Jangoikoen abisu Samuel, Dabid eta Jonatasen bitertez, etzan emendatu? Baie, zetan kansetan naz? Judas zan pekatari obstinadu bat, Saulek ezarri zituzen sustrai andijek bizijo eta desordenetan, Eskrituriak diraus-

<sup>48</sup> Osteen zuzenduta: *zakizan* > *zaukizan*.

<sup>49</sup> Idem: *zeun* > *zeuen*.

<sup>50</sup> Ik. 28. oh.

kuna legez; eta au<sup>51</sup> zan motibue zegaitik errezibidurik ainbeste grazije eta auxilijo, etzirian Jangoikoagana konbertidu, geijago gura eudielako euren kostunbra deungiaren katiari segidu eta kondenau betiko. O estadu infeliza! O estadu odolezko negarragaz negar egin biar litekena! Aitu pekatarije, peligru andijek dakazanak pekatuaren katia gezto ta ekanduak<sup>52</sup>, bada, eldu zintek ez estadure zein etarik urteitia kasi imposible egin lekizuen. Bada, orain esangidazu: gura dozu ikusi zeura burua estadu negargarriorretan? Gauza klarua da ezetz. Bada, zelan etzara determinetan bizitza barri bat artuten<sup>53</sup>, experimentau zedagizuzen oneik daiñuok? Zegatik bada, eztozuz urrututen zeure pekatu guztijen lazuek, kostunbra deunga baten sartu baiño lenago? Elefantiak gaztetxuten dobletan dituz bere belaunak, baie andi egin dinian ezin dau onelango-rik, gogortuten jakozalako junturetako nerbijoak, eta alan biar izaiten dau egin loo zutunik arbole baten kontra. Bada, Kristinaue, orain ezaututen badozu apenas oneik errazoiok zeura bijotza konbertietan daudie-la, zer izengo da pekatuak lenen ganera aumentau ditezanian? Zer izango, kostunbra deungiagaz zura libertadie gaisoturik geratu diñian Demoniñoari gerra egiteko eta korrespondietako Jangoikoaren deijeri? Zer izango da elduten bazara estadura zeinetan<sup>54</sup> gura izan arren, urten eztautsun itxiko kostunbra deungiak? O zedagijela permitidu orrelako gauzarik!, esango deustazu. Baie, zeuk gura dozu. Jangoikoak gura dau pekatari guztije konbertidu din, baie gura dau bere krijaturiak beragaz batera lagun daijen. Bada, zegaitik zagoz atzera eta erresolbietan gaurganik bizitza barri bat artutia, okasinoko etserik urteiten dozula kenduten duzula eskandalua, zeinegaz ainbeste arima Infernura biraldu dozun? Posible izengo da gura izaitia ezarri zeura buruari eta idunari kordel bat, zeinegaz jausiko zarian abismuetara? Posible izango da zeura pasinoak egingo dañulela geijago errazoiak baiño? Zer adelantetan dozu ibilijegaz lengo pekatuen bide tristietati? Zer aurretuten dozu ibilijegaz orain artian legez, Demoniño, mundu eta zeura pasino gaiztoen azpijen? Eta zer adelantetan dozu pekatu geijago egin egaz, zeuk ezaututen badozu dala egunia[n] baiño egunian difikultade geijago Zerurako ifinitia eta enojau Jangoikoa kastigurako?

Eta beste aldeti, bazenki ze asko zor dautsezun zeura<sup>55</sup> Jangoikoari! Konserbau zaituz eta bai bere jagon ordu presente onetara artien aitzu-

<sup>51</sup> Idem.

<sup>52</sup> Ostein aldatuta: *konbersinoa atzeratutiak > pekatuaren katia gezto ta ekanduak*.

<sup>53</sup> Ostein zuzenduta: *etzara determinetan bizitzia mudetan > etzara determinetan bizitza barri bat artuten*.

<sup>54</sup> Ostein erantsita.

<sup>55</sup> Idem.



rik zure desakato eta deslea[ll]tadiek. Osatu zaituz zeura pekatuen lliga guztijetarik bere odol preziosoen balsamuegaz. Libradu zaituz Infernuko penetati, zeinzuek zeura<sup>56</sup> borondatez gura izen dozuzen zabiltzela zeura bizijoetan aitzurik Jangoikoaren bidiak, borondatez sartuten izen zariala okasino deungetan. Geitu dautsu txistu amoroso bategaz Pastore Dibinuek legez, noz zeuk<sup>57</sup> ifiniten izen dozuzen tapaurik belarriek ez entzuteko bere deijek. Berba baten: enpeñau duzu salbetan gal zein zaitzean, noz zeuk porfijarik geijen euki dozun zeu galduteko eta konde-netako. Posibla izango da, ikusirik ainbeste fabore, grazija eta mesede Jangoikoak egiten dautsula, zeura burua nondi galdu eztakizula zabil-tzen denporan ez ezaututia zeura korresponde[n]zija faltia eta malezija ingratoa, bai bere fidelidade faltia ain ongilla andijeganako? Non kabietan dau ainbeste desatino? Non ezpada bijotz obstinadu baten, zeinetan eztaudien egiten mellarik desengaiñu guztijek? Ea bada, pekatarijek, idigi begijek zeuen onerako, bada, zagoze adbertidurik peligru andijek dakazanak atzeratutiek zeu[el]n konbersinoa, eta suerte tristie esperetan daudiena pekatari espezialmente euren pasinoai itxiten dautsienak joa-ten nondi gure kostunbra deunga baten sartu artian.

Zen begira zagoze, bada, konbertietako? Zelan zuen begijak eztira konbertietan negarrezko iturrijetan? Negar daigun, bada, bizitza onetan ezpadogu gura egin erremedijorik eztagoanian; bada, daukagu zegatik negar egin. Eldu gaitezana Salbadoriaren oñetara eta protestau daigun eztugula aurrentzian ofensa geijago egingo: lar da sobra dira, Jauna, orain artian eginak, zeintzukaz zaukeguzen ofendidurik. Baiña zeura miserikordija andijagaz agoant[alu] gozuz eta itxoron dauskuzu peniten-zijera, eztuzalako gura pekatu rik galdu diten, ezpada guztijek penitenzi-je eginik konbertidu ditezan. Nor izengo da, bada, a<sup>58</sup> pekatarije barriz Kurzian jositen atrebiduko dana untze gogorragaz, ikusirik ainbeste miserikordijegaz itxoron dautsezula? Posible<sup>59</sup> izengo da neu, Jesus amorosoa, onelakorik egiten atrebietia, pekatarija? Ez Jesus amorosoa, zegizu permitidu onelangorik; eta ja ke auditorioau dagoan dolorez beterik zeura ofensakgaiti, zeura grazijagaz lagundugiguzu geura propo-situak izen ditezan konstantiak eta firmiak orainginoko guztijak baiño, onetarako dolorez beterik[el] esaten dautsugulla] konfianza osoagaz: Neura Jesukristo etc.

<sup>56</sup> Ostean zuzenduta: *zera* > *zeura*.

<sup>57</sup> Geuk zuzenduta: *zeuz* > *zeuk*.

<sup>58</sup> Jatorrizkoan: *ba*.

<sup>59</sup> Alternantzia: *posibla* / *posible*.

## [AMAIERAKO ERANSKETAK]

Zeuk ondo dakutsu<sup>60</sup>, bada, ain gatx egiten jatzula ekandu deungetati urteitia, konturako, guzurak esateko, murmureta, birao ta mald[e]zino deungetatik urteiteko; orain ezautu biar dozu zenbat eta geijago atzeratuten zarian, ainbat gatxago egingo jatzula pekatu orreitatik urteitia.

Baña esan begigu<sup>61</sup> au S(a)n Agustinek, bada, ezaturik bere denporan pekatuaren katiu inok baño obeto, entzun daijogun zelan euki eban katiu gezto oneek amarraurik. Egoan denpora atan Agustino... Eta geldika pekatuaren egikeraz len bakarrik gauza txiki bat izan zana, eldu zan ekandu deunge batera borondatiak lenengoan ekandu geztoen kontra indar ez egitiagatik.

Au da arako katiu bildurgarrija ainbeste pekatari azpiraturik daukezana, eta bere a[z]pijan urten gure eta ezin urterik ainbeste desbenturaduk negar egiten; katiu itzala beragaz amarretan bazara, beste asko eronan dituzena legez, zu bere alantxe amarraurik Infernuko presondegira eroango zaituzana. O nok ekusi eukian Agustino orduan!

Bada, orregatik bildur izen zate pekatuaren ekanduan jausten; bada, bein atara elduten bazara, alperrik egingo dozuz inder andijak, ezingo zara urten Jaunaren grazi andi baten bitartez ezpada. Bada, orain esangidazu...

Epai fresko bat lenago etorri oi doa eskura eta osatutera, zauri zar bat baño. Modu onetan, pekatari pekatu egin barrija lenago osatu oi dua, pekatari pekatuz beteriko zauri zarrez beterik dagoana baño.

Pekatuaren bidetik urteiteko daukien biarra salbaduko badira...

Baña emen egin begi berba Agustinok, pekatuaren ekanduan ondo esperimentaduak, Jangoikoagana biortu baño lenago.

O atzerakuntze madarikatua<sup>62</sup>, ainbeste arima Infernuan sartu dozuna eta sartuten zagozana! Ze zorionekotzat emongo nitzateken arratsalde onetan, ifinirik neure entzularen aurrian berak munduan egin dituen kaltiak, artu erein al banaijoe gorroto santu bat, onelan idigirik begijak desengañadu ditian nozbait eta ifini erremedijoa! Idigi begi...

<sup>60</sup> Osteen aldatuta: *Ezaturik* > *Zeuk ondo dakutsu*.

<sup>61</sup> Osteen zuzenduta: *begi* > *begigu*.

<sup>62</sup> Osteen erantsita.

Sentenzija arrigarrija bizitzarik santuenak<sup>63</sup> bildurtuten dituzena, baña guztiz egijazkoa eta faltau ezin leijena, dalako Espiritu Santuena. [Mo]du orretati, Jauna,...

Bada, au da jazoten dana arimako gaxtetan. Ezta mirarrituten konfessoria ikusi arren pekatu<sup>64</sup>. Norbait jausi liteke pekatu andi baten, begiraturik gizonaren argaltasunera, paretan bada okasino ta peliburuan; eta<sup>65</sup> urten leike Jangoikoaren osagarrijagaz, izen arren neke andiz. Baña ekanduan luzero sarturik badago, dago zer begiratu geijago; gaxtango da urteiten, ez grazijaren aldetik, ezipabere ekandu zitelaren aldetik, dagoalako gaisotua ta erkindua, eta osagarrijak ezin ondo sustraija ezarri dituzelako. Artikulua da Fedekoa...

Epai fresko baten lenago oratuten dau osagarrijak eta sendatu epaija, zar zauritu baten baño. Orain bada, pekatari pekatuz beterik zauriturik zagozana, zelan uste dozu zure pekatuaren zaurijetarik urteitia, Jangoikoaren grazija partikular bat bagarik?

Orain ikusten dozu guztiz gatx egiten jatzula guzurra esateko dozun ekandua. Epai fresko batek lenago emoten dau lekua osatuteko osagarrijari<sup>66</sup>, epai zar zauritu batek baño. Bada onelan, konzienzija denpora luzeko pekatuaren ekanduagaz zauriturik dagoanak, eztau emoten ainbeste leku Jangoikoaren grazijak beragan ain erraz obrau dagijen, bada, ezarririk ekandu geztoak sustrai andijak, alperrik kenduko dituz pekatu onen lakatzak. Ustirik gitxien dauenian urtengo dabe sustrai atatik pekatuaren landara barrijak.

Esangidazu pekatari ekandu geztoan sarturik zagozana, zeure pasino deunge guztijai pekatuak bidia denpora guztijen emon dautsezuna, zeure bizi guztijen pekatu urteiteko gogo santu bat artu eztozuna, pekatu genero guztijetan sarturik zagozana, zeura bizi guztija pensamento gezto, batzar peliburoso, malizija, inbidija, injurija eta pekatuaren katia bat izan dana, zeura biotzian Jangoikoan erein dituen azi santu ta grazijaz beterikoai leku emon biarrian, ordu gaiztoan bota dozuzena; esangidazu, zelan uste dozu zeure arimeko gatx ta zauri usteletatik osatu al zintekezala, mediku soberanuen osagarri partikular bat bagarik? Eztakit. Andijak izan leitekez zuri ifini aleizuezan osagarrijak, baña nik eztot urteiten fijadore ondo urten edo zure osasunaren.

<sup>63</sup> Osteen ezabatuta: *baña bizitzarik santuenak* > *bizitzarik santuenak*.

<sup>64</sup> Osteen erantsitako esaldia.

<sup>65</sup> Osteen aldatuta: *baña* > *eta*.

<sup>66</sup> Osteen erantsita.

## SOBRE EL NÚMERO DE LOS PECADOS. SERMÓN O BORRÓN

J(esús), M(aría) y J(osé)

*Super tribus esceleribus Damasci super quatuor autem non convertam.*

Am. 1, 3

Gutziz arriturik, bildur ta ikaraz beterik agertuten naz arratsalde onetan pulpitura, gura Fede Santuko misterijo arrigarri baten ganian berba egitera. Zeruko angeru batek arturik<sup>1</sup> gizonaren formia predikadu biar baleu arratsalde onetako sermoia, berez izen arrik bildurgarrija, izango liteke arimen probetxurako guttiz frutu andikoa. Bai, N.K. Nik ezaututen dot pekatari asko bizi dirala pekatuan sarturik sosegu andi baten, urteiteko gogo bagarik, Jangoikoaren ontasunian esperantzia ifinirik larregi. Orregaitik, nai neuke arratsalde onetan irazartu pekatarija bere lo astunerik, ainbeste esperantza ifiniten dauen ezkeru bere miserikordijan, ezautu dagijen bere justizija. Egija da neurribagia dala Jaunaren miserikordija; alperrik izango dira asko ta andijak bere pekatuak, guztirako aurkituko dau erremedio, humildadez beterik biortuten bada pekatarija Jangoikoagana. Au Eskritura Santuak pausuan-pausuan irakasten deusku. Eta benetan, ezpalitz bere miserikordija ain andija, gaur tenplo santu onetan gagozanok non izango ginian? Duda bage geijenok Infernuan. Bai, Kristinauak, egijau autortu biar dogu<sup>2</sup> Jaunaren glorijarako. Baña alan bere, onezaz ganetik ikusi biar dogu bere justizija neurribagia eta beragaz eginiko kastigu bildurgarriak. Beti edo geijenian ibili doa miserikordijagaz batera justizia; miserikordija, pekatu andijetan sarturik egon arren, galdu eztaijen esperantzia bere pekatuaren parkazinoiena; bere justizija, barriz, esperantza larregijegaz pekatara etxinik galdu ez tin.

(\*)<sup>3</sup> Pekatarija, biortuten ezpazara Jangoikoagana ainbat lasterren, galdua zara, entzuten dau. Eta zer da berak erantzun daroiana? Zerutik Lurrera ekarri eban nira amoriak Jangoikoa, ez nau galdu gurako; denporia dago oraindio, arako esturan dei egin daijodanian, nira errukituko da. Onelan berba egiten dau pekatari geztoak, onelan sinastuten dau,

<sup>1</sup> Osteen zuzenduta: *artu* > *arturik*.

<sup>2</sup> Osteen erantsita.

<sup>3</sup> Atal horretako hasiera oharra: *Dicele el pre(dica)dor*.

onelan vizi da, eta berak ain erraz arkanzauko dabenik ikusi bage kosi-rik erijotziak, joten dau Infernuko ondarretan. Zer da esaten dozuna, pekatarija? Ain isil dagoalako orain, beti uste dozu alan egongo dala? Bada, orain artian isilik sufridu bazaitu<sup>4</sup>, jakinda egon zaite zugaz ase-rretuko dala beste bizitza bat artuten ezpadozu. Bearbada zura urrengo pekatuaren begira dago zu kastigetako, eta bera izen leiteke zure azke-nengoa. Eta zegatik bakizu? Jangoikoak bere jakiturija neurribag[il]agaz izentadurik ditu zenbat pekatu bakotxari parkatuko dautsezan. Begira zer esaten daben Amos Profeta Santuaren aotik: Iru pekatu parkatuko dautsedaz Damaskoko erriari, iru Tirokoai, iru Gazako ziudadiari, baña ez laugarrenik. Bada, [a]uxe berau da guri esaten deuskuna: Onenbes-te<sup>5</sup> pekatu parkatuko dautsut, baña onetik igaroten, eztautsut parkatu-ko. Bai, Kristinaua, (sentenzija arrigarrija, baña probetxu andikoa ondo begiratuten badogu). Berak ifinite deuskun neurri edo numerorik urtei-ten, ezta egongo miserikordijarik guretzat, erremedio bage galduak izan biarko dogu. Egi bildurgarrija, baña txito probetxu andikoa ondo begi-raturik. Arren bada, Jesus mait[il]a, ta zeuen arimen amoriarren begiratu-gizue atenzino andi bategaz arratsalde onetan. (\*)<sup>6</sup>

Gauza arrigarrija benetan pekatu-rik urten ta pekatu-ria barrero biortu-tia, ez jakinik noz artian biziko garian, ez noz zenbat pekatugiño parka-tuko deuskun. Bein betetan bada neurrija, zorigaldukoak izatia dauke-gu. Neurrija ezta guztijetan bardina: bateri onenbeste parkatuteko asmua dau, beste bati gitxiago. Kontu egin dagigun, pekatarija, zuri oge-ta amar pekatugino parkatuko deusula, niri amar baizen ez. Zuk egin dozuz ogeta bederatzi, nik bederatzi; igaroten zara bat geijago egitera eta elduten zara ogeta amarrera, nik egiten dot beste bat eta ija niriak bere amar dira. Oraindio geijago egiten ezpadogu, parkatuko deusku Jangoikoak. Egiten dozu aurrera beste bat, nik bere bai bat; igaro dogu neurrija? Bada, egin dau guriak, ja galduak gera, ezkara biortuko Jangoi-koagana, eta pekatuan iltia daukagu. Doktrina bildurgarrija, baña Jangoi-koak berak Eskritura Santuan irakasten dauskuna. *Super quatuor non*. Jangoikoak Abraan Patriarka Santuari egin eutsezan promes askoren artian bat izan zan, bere oin, odoleko edo semeai emongo eutsela ara-ko erri ondasunez beterikoa, baña lenago igaroko zirala laurun urte. Eta zegatik Jangoikoak, ain zorioneko egiteko gogoa eukirik Abranen semiak, ain plazu luzia emoten dautsiela uste dozue? Jangoikoak berak begira zelan esaten dautsan Abran Patriarka Santuari. Ofendidurik, ase-

<sup>4</sup> Ostean zuzenduta: *badautsu* > *bazaitu*.

<sup>5</sup> Geuk zuzenduta: *onesbeste* > *onenbeste*.

<sup>6</sup> Atal horretako albo oharra: *Asunto*.

rreturik naukee, dirautso, ondasunez beteriko lurren jaubiak, baña ezti-ra oraindio euren pekatuak eldu nik ifinirik dautsedanginoko neurrira; baña eldu ditezarian, galduko dodaz eta zura semiak izango dira ango ondasunen jaubiak. *Necdum completæ sunt iniquitates Amorreorum usque ad presens tempus*. Berba oneitan dino S(a)n Agustinek, adierazoten emoten deuskula neurturik dituela Jangoikoak zenbat pekatugino parkatuko deuskuzan. Onetatik igaroten bagara, zorigaldukoak izango gara.

Bildur bada, pekatari pekatu andijetan sarturik zagozana, izen zaite pekatu bakar bat egiten, bada, eztakizu zura azkenengo izango bada. Pazienzija andijagaz egoan Jangoikoa Noe Patriarkaren denporan isilik, ikusten zituala mundutarren pekatu ikaragarriak. Baña arako Berak ifiniko neurrija bete ebenian, orra non Zeruak laño itzaltzuz zarraturik biralduten daben arako euri ikaragarrija, eta altzaurik urak mendi guztijak baño askoz gorago, azpiraturik, estaldurik Lurra ondatuten ditu pekatari guztijak. Deadar egiten dabe, dei egiten dautse Jangoikoari, baña alperrik: bete da euren pekatuaren neurrija, galduak izatia daukee. Luzero egon zan Jangoikoak begira Sodomatarren pekatuak, arako lotsa guztija galdurik, onestidadiaren kontrako pekatu loijak ikusten zituela pazienzija andijagaz. Bañ[al], zer jazo jaken neurrija bete ebenian? Biraldu eutsen Zerutik su abrasadoria, eta bertan guztijak erre ta kiskeldu zituan, ez bakarrik pekatarijak, baita bere erri guztija, probinzija guztija. Ontzi andi batek erdigiño bete arren, eztau erakusten ondora joateko pelibururik; baña guztija puntegino betetan badebe, laster joan oi da ondarrera, zergaitik eztagoalako neurririk, artu ala baño geijago ifiniten bajako (ondora joango eztanik), ganez egiten eztabenik. Bada, pekatarija, au berau jazoko da zugaz. Egin dozuz ogei pekatu mortal, oraindio bizi zara; elduten zara ogeta amarrera, oraindio bere bai. Eldu zara geijagora, bete da neurri, ganez egiten dau ontzijak; ja joan biar dozu ondarrera, ja galdu zara, eta zorigaiztokoak izan biar dozu ontzija ondarrera joan doiena legez bere neurririk geijago ezarten bajako. Onelan joan biarko dozu, igaroten bazara Jangoikoak ifini deutsun neurririk. (\*)<sup>7</sup>

Eta bazara ain zorionekoa zeinda eztozun galdu Bautismo Santuan artu zendun grazija, bizi izan zariela Jangoikoaren bide santuak ausi bage? Au onelan izenik, benetan zara zorionekoa, eta inbidijagarrija da zura adu ona. Baña orregaitik, bildur izan zaite pekatu mortal bakar bat egiten, zegaitik ezalako guztijetan bardina neurrija, eta alan jazo liteke pekatu mortal bakar bat zura neurrija izatia, eta beragaitik kondenetia. Gauza bildurgarrija, baña ez ain bakar ta barrija zeinda jazo eztan; ezpa-

<sup>7</sup> Idem: *Despreciaron sus avisos*.

bere ikusigizu zelako kastigua egin eban Jangoikoak kriptura ain eder eta nobliakaz<sup>8</sup>, eta ainbestegaz, bada, Zeruko irugarren partia pekatu Soberbijaren bakar bategaitik erbestetu eban Infernuko presondegi itzaltsura. Emen munduan bertan ikus[i] izango dozue nozbait, gizon bat zelan lelengo lapurretian bere lapurrerija eskuen dabela arturik justezijak kastigetan daben, eta beste bat<sup>9</sup> sarri lapurretan egin arren, guztiz libre; baña alan bere, joan denporia etorri jausten da bigarrenau bere. One[e]k bijok, batek lenago bestiak baño, batek gitxigatik bestiak askogatik, pagetan dabe pekatuaren sarija; bada, guk gorputz ilkor edo mortal onetan ezin ezautu izen arrik zelan dan justezija, irudi onen modura izango doa. Batzu[k] jausten dira Jaunaren justizijaren eskuetan pekatu asko eginik, beste asko pekatu bakar bategaz.

Nok esan euskijoen Damaskotarrari urrengo pekatua izengo zala azkenengoa, eta beragaz neurrija beterik, miserikordija bage galduak izango ziriala? Ai zer deskuidaturik zeuden, baña ala gertatu zitzaien<sup>10</sup>! Bada, alan jazo zan Amos Profetiak esan eutsiena legez: Iru pekatu partakutuko dautsedaz errijoni, baña laugarreni[k] ez. *Super etc.* Eta bakizue zuei au jazoko bajatzue? Bakizue zuen azkenengo pekatuak egin badozue? Ze gauza negargarrija izango liteken azkenengoa izenik, biortu bagarik Damaskoarrak legez kosiduko bazen[ndue]z; bada, bildur emen<sup>11</sup> zagozien askori jazo eztakizuen. Bost urte bakarrik zituela (arako S(a)n Gregoriok esaten deuskunak) kondenadu zanian, maldizinoiagaitik bere aitaren besartetik eroaten ebela Infernura, nor ezta bildurtuko ikusirik onelako kastiguak? Begira guraso biraolari ta maldizientiak zuen umetxu<sup>12</sup> samurrai exenplo txarra emoten deutsezuenak, ze kontu estuba emon biariko deutsezuen Jangoikoari zeuen famelija emen munduan ondo ifiniteagaitik ainbeste arrastaka; baña euren animia bide txarrian ikusi arren, ez]tago ardurarik. Eta zuek umetxu<sup>13</sup> samurrak, bildur zuei beste ainbeste jazo eztakizuen, aldera zaiteze euren exenplo gaiztorik, eztabe merezi gurasoen uzetik, ezpada berdigo gogorrena. (\*)<sup>14</sup>

Esangidazu pekatari pensamentu, berba ta obrazko pekatuetan ainbeste denporan sa[r]turik bizi zariana; injurija ta gorrotoz beterik bakiak egin gura ezik, arako zeuk dakizun personiagaz ainbeste denpora zago-

<sup>8</sup> Ostein zuzenduta: *nobliagaz > nobliakaz*.

<sup>9</sup> Ostein erantsita.

<sup>10</sup> Ostein erantsitako esaldia.

<sup>11</sup> Geuk zuzenduta: *emon > emen*.

<sup>12</sup> Jatorrizkoan: *humetxu*.

<sup>13</sup> Idem.

<sup>14</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Nor ezta bildurtuko ikusirik...*

zana; ainbeste inbidija, lapurrerija eta beste pekatu loiz atsiturik zagozana, ez bakarrik ariman, baita bere gorputzian; ainbeste bider urtengo dozula pekatu orreitatik berba emon dautsezuna zeura Jangoikoari eta inoz kunplidu bage bizi zariana, esangidazu: orre[elk pensamentu, berba, obra, gorroto ta injurijazko pekatuok azkenengoak izango ez<sup>15</sup> diriala, eta eurekaz zura pekatuaren neurrija beteta Infernura biraldua izango ez zariala, nok esan dautsu zuri? Bago munduan au esan aleizunik? Jangoikoak bakarrik, ez bestek. Baña nik bere, ministroa nazan partez, izen arrik pekatarija, esan biar dautsut gauginoko pekatuak azkenengoak izen alitekezala, eta alan, erraz bildur izango zare pekatu mortal bakar bat egiten aurrerantzian. O gauza bildurgarrija ez jakitia eginda badauko azkenengo pekatua, zein dan neurrija nogino parkatuko jakon, eta orregaitik ain bildur gitxigaz mundutarrak pekatua etxinik bizi izatia! Non da gure zenzuna<sup>16</sup>? Dabid Erregia gigante Goliaten kontra joan zanian gerra[ra] esperantza guztija ifinirik Jangoiko egijazkoagan, berba egin eutsela<sup>17</sup> onelan Goliateri: Zu, soberbijaz beterik, zeura inderrian esperantza guztija ifinirik zatoz gaur nira kontra, gitxitzat daukuzula nigez gerran sartutia; baña ni enator neura indarrian esperantzia ifinirik, ezpada Israelgo exerzituaren Jangoiko egijazkoen izenian, zein gaur ainbeste injurijagaz ofendidu dozun. Baña, zer da esaten dozuna, Dabid? Gaur bakarrik ofendidu dauela? Kargu egijozu ija dala gaur berrogeigarren eguna, goz-da arratsalde, zura Jangoikoa ainbeste injurijagaz aserratu dauela. Esangijozu bete dala bere neurrija gaurko pekatuagaz, eta alan, bere pekatuak zura eskuetan entregauko daudiela. Alan jazo zan bere kotamalla, bere amabost<sup>18</sup> oñeko gizetasun ikaragarrija eta bere lantza ta guzti, arri bategaz jo ta ezarririk lurreera, bere ezpatiaz bere iduna ebagiten eutsela. Goliatek ogeta ainbeste egunian urten arren, ezpaleu urten berrogeigarrenian, etzan beteko bere pekatuaren neurrija, eta eukiko eben beragaz miserikordija; baña azkenengoagaz galdu eban guztija. Bada, pekatari zeuk dakizun per[so]na urlijagaz ainbeste pekatu egin dozuna, urren egin aldaizun pekatua benturaz izango da zuri ifinirik deutsun neurrija; betetan bada, jazoko jatzu gigante Goliateri jazo jakona. Alperrik izango zara gazte, ta sendo edo fuertia; bete bada neurrija, laster etorriko da Zerutik kastigua, eta Dabidek Goliat baño errazago ezarriko zaitu, eta joan biar izango dozu Infernura. (\*)<sup>19</sup>

<sup>15</sup> Osteen erantsita.

<sup>16</sup> Osteen erantsitako esaldia.

<sup>17</sup> Geuk zuzenduta: *eutselan* > *eutsela*.

<sup>18</sup> Jatorrizkoan: *hamabost*.

<sup>19</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Aintzekotzat*.



Errukiturik<sup>20</sup>... Zer uste dezu gertatuko dala zurekin<sup>21</sup>? Aterarik Jangoikoak bere esku sendo edo poderosoan inderrez Faraon Erregiaren azpitik Israelgo bere erri maitia, jakin ebenian Egiptoko Erregiak urten ebela Israeltarrak euren errirako, bitorija andi bat arkanzauko ebelako ustijegaz pozez beterik eurei kenduko eutsezan ondasunekaz aberastuko zala, urteiten dau exerzitu ikeragarri bategaz euren ondorik persekuzinoan. Sartuten da bere tropa guztijakaz itsasoan, arako itsaso Jangoikoak bere mirariz bere erri maitia beste aldera igaro zin sikaturik, bide<sup>22</sup> zabal bat eginik ifini ebenian, urak alkarregana baturik kalle eder bat egiten ebeela. Itxozu puska bat, Faraon, nora zoaz ain prisa andijagaz? Eztakizu Israeltarren Jangoikoa dala guztiz poderosoa edo guztija al dabena? Eztozu ikusten orreik urok milagroaz alkarregana baturik, Israeltarrai igara ditezan zura perseku[zi]norik bidia egin deutsiela? Eztozu ikusten sartuten<sup>23</sup> bazara exerzitu ta guzti, ondatu ziñatekezela? Bada, zelan zoaz aurrera? Baña, ai<sup>24</sup> Kristinauak! Nik uste dot Faraonek kontuau ateraten dabela: ondo dakit, diño bere artian, Israeltarren Jangoiko poderosoa dala. Ondo dakit oneik urok mirariz onela ifini diriala murla eder bat eurekaz eginik. Baña dakit bere, Isr[al]elgoen Jangoikoa guztiz miserikordiosoa dala. Amar bidar kastigua biraldu deust: bein urak odol biortuten zituala, beste bein zauriz betetan genduzala, aberijak ilten euskuzala, abazuze, arri bildur, trumoi ta erraio-zentella, eta onen modura beste anbeste plagaz; baña arako estutasunian eskatuten genduenian miserikordija, beingoan altzau eban bere kastigua. (\*)<sup>25</sup>

Amar bidargino librau nau, bada, amar egiten dituenak amakagiño bere libraduko nau; eta alan, goazan aurrera ardura bage. A Faraon! Kontu alegriak aterarik sartuten zara, bada, begira karu kostako jatzula. Eta alan jazo zan apenas bere exerzitu guztija itsasoak egineko bide ederenian sartu zan eta Israelgoak beste aldera igaro zirian. Orra non are[e]k urak alde bijetatik bide zarraturik, ez atzera ez aurrera egiteko lekurik itxi bage, geldi-geldi urak euren ganera datozan, eta Faraon bere poz guztijak galdurik, bere gloriya guztija bere exerzitu ikaragarrijagaz betiko ondatu zan. Eskatuten dau miserikordija, baña alperrik: bete da neurrija, eztauko galdu baño erremedijorik. Bada, pekatarija, au berau

<sup>20</sup> Ostein erantsita.

<sup>21</sup> Ostein erantsitako esaldia.

<sup>22</sup> Geuk zuzenduta: *bider* > *bide*.

<sup>23</sup> Ostein aldatuta: *igaroten* > *sartuten*.

<sup>24</sup> Jatorrizkoan: *bai*.

<sup>25</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez ditugu eransketa hauek transkribatu: *Ze itsumendi andija pekatari batena!* [Aurrerago:] *Inbidioso batena!* [Aurrerago:] *O Faraonen itsutasuna!*

izango da zugaz jazoko dana. Bizi izan zara ainbeste urtian pekatuan sarturik, atara zaitu bere mirariz Faraon Infernukoaren katiaperik. Ezaututen dozu Jangoikoaren esku poderosoak libradu zaituala, jausi zara barriro pekatua; biraldu dautsu gexo bat, erakutsi deutsuz zeura pekatuaren odoldurik; ikeraturik dei egin deutsazu, librau zaizela esaten izan dautsazula, atatik librau bazagiz, bizitza barri bat artuko dozula. Libra zaitu onetarik bere, baña eztozu egiten prometidu dozunik, jausten zara barriro ainbeste pekatutan. Oraindio pazienzija euki dau zugaz, atera zaitu peliburuti, baña zuk kontu alegriak aterarik beste Faraon bat legez, zoaz barriro pekatuaren itsas andira, esaten dozula amar bidar parkatu deutsula, eta alan, amakagarrenetik bere libraduko zaituela. Sartuten zara? Bada, begira urtengo eztozula. Eta alan jazoten da: zura pekatu andijak itsas andija eginik, azpiratuten zaitue eta bota ondarretara. Dei egiten dozu, baña alperrik: bete da zura pekatuaren neurrija. O pekatarri tristiak! Noz irazarriko zare, erremedijorik eztagoanian? Ain itsuak izengo zare?

Nok esan euskijon Babiloniako Baltasar Erregiari bere konbitik andijenian kontentuz beterik, erreinuko nagosi eta bere deseo lojjak kumprietako eukezan dama ederren erdijan egoanian, ikusiko ebela bere konbiteko salan bere erijotza gorputz ta arimakoaren sentenzija, Jangoikoaren eskubak eskribidu ebena, zeinek esplikadurik errege onen aginduz Daniel Profetiak zinoian: Neurtu ditu, (nira Errege), Jangoikoak zura egunak, el[du] da azkenengoa; pisatu zura obrak eta aurkitu ditu falta andijak, eta gaur zura erreinua beste bategana joango da. Alan jazo jakan Danielek esan eutsan moduan, eta betiko galdu zan. A errege desgraziadua, ain konseju faltaz isten zaitu sustuak! Eztautsu leidu zer eskritura orrek esan gura daben? Bada, zergatik etzara biortuten Jangoikoagana? Zergaitik eztautsezu eskatuten zeura bizitziaren luze bidia, Ezekias Errege ta zeura aitobe Nabukodonosorrek legez? Baña ai, dino, akabau ziran nira egunak! Baña begiratugizu, Baltasar, akabadu badira zura egunak bere, begiratugizu arratsarteko bizija dozula. Biortu zaite, etzaite il aberija bat legez. Bildurtuten bazaitue zure pekatu andijak, begira etziralala izen txikijagoak zura aitobenak. Zuk pekatu andijak egin badozuz basu sagraduak profanadurik, begira zura aitobek kendu zituala Jerusalemgo tenplo santuan, baña orregaitik biortu zan Jangoikoagana.

#### [HASIERAKO ERANSKETAK]

Eta ezin esan giñai bete dala arako konfesinoetan, isilik itxirik pekatuak lotsaz eg[il]niko konfesino ta komunino sakrilegijokoakaz? Eta ezin lei bete dala arako guraso deungiaren pekatuen neurrija, berak eragotzi

biarrian, joan eztila urlija batzar edo personagana, bere alabia bestiaz ezkondu din egarrijagaz biralduten dabena, joan dilla ta ondo olgau dagijela, eta bere konseju madarikatuagaitik ainbeste Jangoikoen ofensa ereiten dautsena? Eta beste birao... eskandalua emoten daubena? Baña noz a[z]kenduko neunke, esan bear banitu mundutarrak sarturik onango pekatu andijetan eginiko pekatuakgaitik Diabruak daroazana?

O ze, Jauna, ze garratz ta bildurgarrija<sup>26</sup> dan zure justizija! Zu zara arako munduko soberbijoak noz euren ondasun-aberastasunian geijago esperantza ifinirik bizi dirian urte luziatako kontuak ateraten dagozan esku utsetan itxiten dozuzena. Zer da au, Kristinauak, ardua bagarik pekatuan sarturik bete neurrija? Ai pekatari amanzebamentuan sarturik zagozana, ainbeste eskandalu, murmurazino ta geztokerija guztijetan desbenturadua zuria, bada, anbeste milla parkaturik, urrengokoa benturaz izango da zure neurrija bete ta kondenaduko zariana! Erantzungidazu Jangoikoen amodijoagatik. Aurkitu lei zuria lezko itsumendirik, galdu biarrik? Gureko dozu egon Infernuan eternidade baten orain gustu bat egitiagatik, pekatuti urten gure ezagatik? Bada, nok esan dautsu beteko ezta zure urrengoko pekatuagaz, eta eriotziak artuko etzaitula? Bildur bada, ta biortu zaitez Jaun miserikordioso onegana zure begira dagoan artian. Erdu ardi galdua, otso infernalaren agotik urtegitu.

Zer da au? Ezaututen dau munduak, medikuak erratu dau, kontrako erremedijoakaz il dau...

Gizon guztijaren gaiztokerijak ta diabru guztijaren malizijak batera pillo andi bat eginik, geztokerija ta malizija guztijak arturik gizon bakar batek beragan, gizonau joango balitz miserikordijaren billa, beti eukiko leukez zabalik bere miserikordijaren atiak. Au... Benetan... (\*)<sup>27</sup>

*Mane, Thecel, Fares, Mane numeravit.* Neurtu ditu zure agintaritasun edo erregetasuneko egunak, eta gaur da azke[na].

Pazienziya andijagaz itxoron daroejoe Jangoikoak onelango pekatari gogorrai, eta zer da jazoten dana? Arturik okasinoa bere pazienzijati, artuten dabe prisa andija ainbat lasterren euren pekatuakaz neurrija beterik euren arimiagaz Infernuko ondarretan sartuteko. Begira ondo esaten noenera. Urteiten dau enbra lotsa gitxiko ta desonesta batek

<sup>26</sup> Geuk zuzenduta: *bildurgarrijan* > *bildurgarrija*.

<sup>27</sup> Ondo lotzerik izan ez dugula eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Pekatus ganezturik*.

dantza geztu batetik, non saltu ta brinkoka bere gorputz guztija izarditu ta galdu daben. Dator bere etsera guztiz pasau ta galdurik izarditurik, edaten dau ur tragu bat, joten dau gaixo batek, eta denporarik emongo konfesau ta sakramentorik artuteko, il doa. Zer da [a]u? Zer izango da? Zirujauak sangri biar etzarian emotarren, medikuak gauza okerrekoa agindutarren, lastimaz il da, dinue. Baña, o ze diferentia dirian Jangoikoaren juizijoak mundutarrenetarik! Neurrija bete zan bere pekatuarena ta alan galdu biar dau desbenturaduak. Arako dantzatan egin zituzan begirakuna, bere postura geztu, pensamentu ta eskuka lojjakaz, eta jatsi da Infernura Infernuko ilinti gori artera. Beste dabil gauzez errondan kostunbrez daukena legez, beste bat doa jokora edo Urlija bisitatzera, nogaz deungaro bizi dan, eta beste bera lezko zeloso batek urtenik eskina batera, estokada bategaz il daroa. Sakramento bagarik, zer da [a]u<sup>28</sup>? Zer izango da? Mundutarrak dinoe abadia etsian egon etzala, sakristauak jai-gi gure ez ebela, eta bitertian il zala. Baña ez, bete zan bere neurrija arako errondan egin dirian pekatuakaz, berba lojjekaz, kanta desonestuakaz eta Urlijagaz egineko pekatuagaz; bete zan neurrija, ta joan zan kanta egitera errondan beti ibili biarko daben gau batera, non sekula egunik ikusi bagarik kantauko dituzan arako kantak: Madarikatua izan dilla nira ama, m(adarika)tua aita, m(adarika)tua Jangoikoa, m(adarika)tua Santuak, m(adarika)tua Maria Santisimia. Au da Infernuko gau ilunian sarturik kantauko dabena, kalob[o]zo ilun ta itzaltsuetan sarturik. Urtengo dau bestiak tabernarik guztija galdu ta orditurik, birao, maldizino, blasfemija ta desonestidadia baño beste gauzarik entzuten ez jakola; jau[s]ten da pozo baten, edo zubibetik, edo mure bateti: bertan ilten da pekatuan. Zer da au? Zer izango da? Neurri bete eban pekatu aiekaz, eta joan zan Infernuko bodegara, non edango daben Dragoi itzelaren beaztuna eta zeinegaz eternidade baten egon bi[ar]lko daben orditurik. (\*)<sup>29</sup>

Urteiten dau bestiak amanebamentuan bere krijeda, auzoko etsealaba edo andra ezkonduagaz daguan elixarik, non konfesorik esan dautsen ez dagila geija[go] egin ta bota dagila etsetik. Bajet[z] esan dautso, baña laster damaturik doa beingoan pekaturako ustijagaz: bidian jausten da ilik. Zer da au? Bete zan bere neurrija, ez ebelako gura izan aprobetxau Jangoikoak emoniko grazijakaz. Dator beste enbria bere nobijoaganik, zeindegaz euki dituzen ainbeste pensamentu loi, ainbeste berba, zikinkerija ta torpeza: gau atan konfesetako leku bagarik ilten da. Zer da au? Aspaldijen gaixokarik ibili da ta bart txarraldijagaz ilik parau

<sup>28</sup> Osteen zuzenduta: *Zer da au? > Sakramento bagarik, zer da [a]u?*

<sup>29</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *O nok negar egin leijen odolezko negarragaz gaur jazoten dana!*

da. Baña ez, bete da neurri. Bizi da arako enbria D(o)n Fulanogaz komerzijo torpian sarturik. Berak jantziten dau, berak erregalau, berak ifini deutso etsea jantzirik, paga errentia: bizi da errija eskandaluz bete-rik ifiniten dabela. Jausten da gaixorik, dirautso eztagoala oraindio peli-bururik, eztille oraindio konfesadu, eta esperantza onegaz gauerik goxe-ra berbia joan ta ilten da. Zer da au? Baña, zetan kansaduko naz len esan deutsuedan...?

[AMAIERAKO ERANSKETAK<sup>30</sup>]

Baña guztija da alperrik. Bete da bere pekatuaren neurrija, ja eztago beretzat erremedijorik, jausi da ber[e] kondenazinoaren sentenzija[n], ezin dau urten pekatutik. Bada, pekatari munduko olgura, erromerija ta bisitetan arako banketetan kontentuz beterik ibili zariana, ainbeste enbraren erdijan berba loi ta desonestu, baita bere aragizko pekatuetan, zugez jazoko da Baltasarregaz jazo zan beste ainbeste: leiduko jatzu arako eskrituria non esango jatzun akabadu ziriala zure egunak, eldu dala azkenengoa, neurtu diriala zure obrak ta aurkituten zariala falta andijakaz, zeure<sup>31</sup> munduko ondasunak beste bategana joango diriala. Nori dei egingo deutsezu orduan? Eskatuko dozu miserikordija, baña alperrik; joan zan, igaro zan denporia, bete zan neurrija, eta zure estura ta tristeziak kenduko deutsu zenzuna, eztozu gauza onik egitera azertaduko. Etorriko dira zugana zeure senidiak, esango deutsue bildurtu etzaitiala, zure adiskidiak pena artu eztagizula; baña ikusirik, begiraturik zeure atzeko bizitzara ta pekatu andijak, begijen bistan daukezun eriotzia, guztijak izango dira zure kondenazinoaren abisuak ta berdugu<sup>32</sup> krue-lak. Ze g[il]txi kontua gaur ateretan da? Urtengo dau...

Jaun miserikordijaz betia, arren, libradu gagizuz larri ta ikara gogor onetatik, ezautu erain egiguzuz gere faltak, lagundugiguzu zeure grazijagaz euren damuari egijazko bat aurrerentzian artutera, oraingoakgatik negar egin ta aurrerantzian peliburu guztietatik alde egitera.

Nor arrituko ezta Jangoikoe[n] just[e]zija ikusirik?

Nok sinastuko leuke S(a)n Gregorijo Elexako Santu andijak esango ezpaleusku, bost urte bakarrik baño etzituen umetxu<sup>33</sup> bat eroan ebela

<sup>30</sup> Azkeneko orrialde biak erantsitako paper-zatiak dira.

<sup>31</sup> Geuk zuzenduta: *zuere* > *zeure*.

<sup>32</sup> Alternantzia: *berdigu* / *berdugu*.

<sup>33</sup> Ikus 12. oharra.

bere aitaren besarteti birauagatik? Nok esan leike Jangoikoaren ontasuna pekatarija andi batzuentzat, ta ain gogorra apenas pekatu egin daberen beste batzuentzat? Nor arrituko ezta justizija aserriau ikusirik? Nor izango larregi esperantzia ifini bere miserikordijan, ta pekatuan sarturik gura daberen artian bizi eta Zeruan sartuko, da ain ustija osoagaz ardura bagarik egongo dana?

Begira gurasoak<sup>34</sup>. Zure idi, mando edo zaldija peliburuen bada, alderatzen duzu; zure ardi, auntza iluntzerako etxian ez bada, ateraten zara<sup>35</sup> bere billa; ta zure seme, alaba falta bada, ez duzu ardurik artzen, ez konturik nundik eta norekin. O ab[e]l[er]ija baño geztoagoak!

Bada, pekatari erromerija non, zu an sarturik zagozana, zeura deseo loijak kunplietako erabili daroazuzen lagunekaz olguraz jan ta edanik batera konbitetan andik pekatara zoazana, begira zuretzat bere etorriko dala plazua, beste Baltasar batentzat eldu zana legez. Agertuko da arako eskrituria esango dabena kunplidu ziriala zure egunak, eta eldu azkenengoa, neurtu zure obrak; da aurkituko dira pekatuak, eta zure munduko ondusunak janik beste bategana, gorputza sepulturera ta arimia Infernura. (\*)<sup>36</sup>

Ain andija izan zan Dabidek<sup>37</sup> artu eban enoju justua Goliaten kontra, arako paraurik gizon gerreru ta soberbijaz beterikoan, Israel exerziatuaren aurrian ifinirik desafijetan zituanian Israelgoak, ezin sufridurik bere arrotasuna, ta gura izanik erreparadu euren Jangoikoari egiten eutsen injurija, fede bizi bategaz ta esperantza firme bategaz doa bere aurrera ta berba egiten deutso onelan.

Bada, pekatari beste Goliat legez Jangoikoaren tentagarri egunian-egu[n]lian bizi zariana, ta zeure pekatuaren neurrija betetako puntuan aurkitu arrik aurrera segiduteko ustija dozuna, zetan aurkituko zara, urrengoko pekatua azkenengoa izanik erijotziak aurkiturik, kontu emotera gle[j]itua bazara? (Alperrik...) (\*)<sup>38</sup>

Eta zuk, pekatari kontu alegriak atera ta pekatuan azkenera artian sarturik egoteko ustija dozuna, nozbait entzun dozu Jangoikoak<sup>39</sup> Faraonegaz egin eben kastigua? Bada, kontu beste ainbeste zure ganera jausi ez tin. Pazienezija andijagaz egoan begira Far[al]onek bere errijari emoten eutsan tratamentu geztoa, baña ara eldu zanian denporia agindu (...) urten dagizela... (\*)<sup>40</sup>

<sup>34</sup> Ostein erantsitako esaldia.

<sup>35</sup> Geuk zuzenduta: *atzerantzera* > *ateraten zara*.

<sup>36</sup> Atal horretako amaiera oharra: *No, ojo*.

<sup>37</sup> Ostein zuzenduta: *Dabid* > *Dabidek*.

<sup>38</sup> Atal horretako amaiera oharra: *Vuelta*.

<sup>39</sup> Ostein zuzenduta: *Jangoikoak* > *Jangoikoak*.

<sup>40</sup> Atal horretako albo oharra: *Colocarás esto antes de Faraón*.

Eztozu gure ainbeste abisugaz orandio urten pekatutik? Gure dozu bizi pekatuan sarturik, batzar peliburuen, dantza-erromerijetan, konbit andijetan? Bada, erreze sinasturik biziko zara orrelan bazabitz, zugaz jazo ko dala arako Baltasar Babiloniako Erregiagaz jazo zana. Poz, olgura ta atsegin<sup>41</sup> andiz beterik egon zan erregiau kastigu asko gogoan ez ebela, bere konbit andiko maijen erreinuko agintari, personaje noblenen erdijan, baita bere ainbeste dama nondi gustuak emongo eutsezan bere albuan zituzala, gusturaz jan ta olguraz edaten ebela ardao Jerusalemgo tenplo santuan kenduriko basu sagraduetan, profanau ta loituten zituezala usu sagraduetarako konsagraduko pekatuz beteriko konbit oneetan. Eta orra non konbiten erdijan dakusen agertuten zala bere mai aurreko orman Jangoikoaren eskuak ifinija. Larrituten da, estuten da, ezin artek artu da[ul] Baltasar; dirautse bere adiskidiak sosegadu dilla, pazienzijak artu dagijela, eztala, baña bera ezin artek artu dau. Jagiten da leidutera, eta ezin leidurik geijago estuten da. Biralдутen dau mago edo jakintsuen billa esan dagijon zer esan gura daben, baña onek bere ezin leidu dau; biralдутen geijagoen billa, datoz palazijora, baña one[elk bardin dira, ezin leidu daude. Emen geijago larrituten da. Ain estutu ta larriturik ikusi ebenian erregiñak erregiau, dirautso: Ez bedi estutu<sup>42</sup> Zure Majestadia, topauko da gizona orrek zer esan gura daben erakutsiko dabena. Errijan da Daniel Profetia, onek esango dautsu eskritura orrek dirautsuna; bera izan zan Nabuko zure aitoberi beste igarri ezin ebana igerri ebena. Dator Daniel, eta leidurik begira zer dirautsen: Eskritura onek dinoena da, (dirautso Baltasarrerri), Errege jaunaren egunak bete diriala, gaur azkenengoa dala, zure obra guztijak neurturik falta andijak aurkituten diriala, eta gaur Zure Majestadia ilik zure erreinu ta korona beste bategana joango diriala. Eta guztija alan jazo jakon. O zelango larri itzelak joten dau bere biotza! Nor izengo da sentenzija itzaltsu onetatik iges egingo dabena? Posible izengo da, errege desbenturadua, ain moduten itsuturik sentenzija orregaz zeure salbazinoagaz atinauko eztozula? Zergatik bada, etzara biortuko Jangoikoagana? Zergatik eskatuten eztautsezu bizitziaren luze bidia, zeure aitobe Nabukok legez eta Ezekiassek legez? Baña, ai, dino desesperazinoz beterik, irago dira nire egunak, nire gustuak! Eta konsiderazino onek kenduten deutsa juizijoa eta ezin azertadu dau Jangoikoagaz. Posible izango da, Baltasar, aberi bat legez il gureko dozuna? Biortu zaite Jangoikoagana, etzaiz bildurtu zure pekatuak ain modutan zeinda esperantzia galduko dozun.

---

<sup>41</sup> Geuk zuzenduta: *atse egin* > *atsegin*.

<sup>42</sup> Ostean zuzenduta: *estu* > *estutu*.

Andijak badira zure pekatuak, begira txikijagoak izan etzireala Nabukoenak; Jerusalengo basuak<sup>43</sup> loiturik eginikoak andijak baziran, etzirian txikijagoak zure aitobek eurak kendurik egin zituenak, eta orregaitik biortu zan Jangoikoagana. Baña alperrik da guztija, igaro da neurrija. Zer egin zan bere albuak puntuan egon zirian personajiakaz? Zer bere dama, nondi gustu loi guztijak nondi errege oni emongo eutsen, bere alboan egonikoakaz? Guztijak iges egin dabe, bakarrik esturan itxi dabe, desanparadu dabe guztijak; bere glorijak mundukoak akabauta ta eriotzaren larrijagaz ikusi dabenian, bata bateti, bestia besteti. O mundutarren zora-kerija! Au da, Kristinauak, gaur bere jazoten dana. Ez gera, bada, orandio desengañaduko? Ain burubagiak izango gera? Biortu gatian, bada, guztiok beragana denporea dogun artian, neurrija bete baño lenago.

Nok esan euskijon Goliat gigantiarri arako burlezar etorri eta zematurik Jangoikoen Erri Santua egin eban pekatua izango zala bere azkenengo, ta n[el]urrija beragaz beterik artzaintxu baten eskuetan galduko ebela bere bizitza? Bada, alan jazo jakon desbenturadu ari. Arritu ta larriturik euken gigante onek Israelgo erreinu guztija; etorri[rik] egunian birriten desafijora, ez egoan bere kontra emon aleijen soldadorik. Eta orra non esturirik andijenian egoan erreinua ustirik gitxien eukienian, biralduten dautso bere erriari erremedijoa. Eta onelan kendurik bere erri[er] eskandalua, erakutsiten deutso Jangoikoa bere dala euren jago-lia, estutasunian biotzak beragan altzaurik eta esperantzia beragan ifinirik, makurtu zitezana bere aginduak egitera, eta jagonik bere Lege Santuak merezidu leijen betiko zoriona. Begira zelan jazo zan. Pazienzijak ezin arturik Dabid orandio artzainak arako ikusi ebenian Goliaten soberbija, ta Jangoikoari kendurik bere glorija, eta bildurturik bere euren arerijoak artuten ebela atrebimentua euren Jangoikoa azpiratuteko, dino bere artian: izango ete da gizon itzalau, nire ardi-bandara etorri doazan otso, leoi eta beste aberi garratzak baño<sup>44</sup> bere garratz ta sendoagoa? Ez, ezta izengo, dino bere artian; bada, nik are[e]k beste arma bagarik arri ta makillia baño il daroadaz, ta kenduten dautsedaz lapurretako ardi guztijak. Noian, bada, gizon soberbijo onen kontra, bada alperrik eze<sup>45</sup>, bera galduko dot. Eta ifinirik esperantza firme bat Jangoikoagan joan zan bere kontra, beste arma bagarik bost arri garbi baño. Aintzekotzat eztau artuten Goliateg; dirautso kendu dilla, eztala beretzako, bere aragijak txorijentzat janari ifiniko dituzela. Baña ez jaramonik eginik beste-

<sup>43</sup> Idem: *basuetako* > *basuak*.

<sup>44</sup> Ostein erantsita: *etorri doazan baño* > *etorri doazan otso, leoi eta beste aberi garratzak baño*.

<sup>45</sup> Idem.



en arrokerijan, jaurt egiten dautso arrija, joten dau bekokijaren erdijsa, ta ausi ta zapaldurik garaunetara, jausten ilik gigante arrigarrija. Elduten da beragana eta kendurik bere ezpata itzala, ebagiten dautsa iduna, eta onelan kendurik bere erriko eskandalua, ifiniten dau bakia euren arerijo guztijak iges egiten ebela. Gigante onek berrogei egunian etorri zana legez Jangoikoen Errijaren desafijora, gox ta arratsalde, ogeta emeretzi egin zituzanian, ezpalitz geijago, etzan etorriko bere neurrija betetera, eta etxakon jazoko ain kastigu arrigarrija. Bada, pekatari Goliat legez pekatuan sarturik Jangoikoen tentagarri eginik bizi zariana, urteiteko gogo bagarik aurrera jarraituteko ustijagaz, urrengoko benturaz izango da neurrija beragaz beteko dana, eta jazoko jatzu Goliateri jazo jakona. Alperrik izango zara fuertia, etzara, alperrik eze, a lezkoa izango; baña beterik neurrija, a baxen erreztasunagaz jausiko lurrera.

**SERMÓN SOBRE CUÁN VANA SEA LA PENITENCIA DE LA HORA  
DE LA MUERTE PARA EL PECADOR QUE HA VIVIDO ANEGADO  
EN UN SINNÚMERO DE PECADOS**

J(esús), M(aría) y J(osé)

*Laxati sumus in via iniquitatis et perditionis. Sap. 5, 7*

Ze itzala dan eriotzaren gomutia! Et[a] ainbat itzalagoa, zenbat eta gaztiagoa dan gomuta onetan dagoana. Baña gure eskuan ez egonik gure dogun artiangoa bizitzia, eta izanik Espiritu Santuen konsejua ondo il gura dabenak eriotzaren gomutia erabiliteko, ondo izango da gomuta santuau gugan eukitia, ez bakarrik ondo ilteko, baita bere eriotza aurreko larrietatik iges egiteko. Eta egiaz, ze itzalgarrizko gauzia<sup>1</sup> pekatari batentzat, bere denpora guztija igororik pekatuzko katia bat eginik, entzutia prestau dedilla eriotzarako! O eriotza gogorra, ze laster ta isilik etorri zarian! Ze andija dan zure indarra, bada, munduko andikijak zugandik ezin egin dabe igesik! Jakintsu ta indartsuak, jakiturija ta indarrak galdurik, jausten dira zure oñ aurrian. Zegatik etzara errukiorragoa zure bian daukezuzenakaz? Zu zara, usterik gitxian daukanean pekatarijak, bere ganian jausirik lapurrak legez ainbeste urtian irabaziko ondasunak kenduten deutzazuzena ta burlaturik itxi daroazuna. O zenbat gauza datozkidazan instante onetan neure ganera onelako pekatarijen eriotzaren ganian! Baña ez da nire gogoa eriotzaren ganian berba egiteko, ezpada esatia onela bizi geztoan denporia igaro daroianari, esatia ezingo deutzala begiratu ordu atan Jangoikoak begi<sup>2</sup> errukizkoakaz. Bai, pekatarija; eriotzaren aurrian ikusirik zuri esaten atrebiduko ez nintzatekena, bildurturik esperantzia galdu ez zinaijen, nator esatera, bizitza geztoari bildur bat arturik ondo zaitezen, ordu atan Jangoikoen aserririk libre aurkitu zaitezen.

Gauza agirija da, izanik Jangoikoa grazija guztijan iturrija, emon diokela edozeinbere pekatari salbe ta beste grazija eriotzako orduan, artian gaiztoa izanagatik. Ez dakigu zer jazo al leitekian pekatari ta Jan-

---

<sup>1</sup> Osteen erantsita: *Ze itzalgarrizko gauzia > Eta egiaz, ze itzalgarrizko gauzia.*

<sup>2</sup> Idem.

goikoen bijen bitartian ordu atan, ez dakigu noraino eldu leitekian Jangoikoen ontasuna gizon pekatarijakgazko; ez dakigu bere Jan(goikoa)k ontzat emongo badau guk añtzekotzat emoten doguna. Au da nik pekatarijen bando esan al neikian guztija, baña dakust Ama Elexa Santiak bere semiak onelako pensamentuti atera nai dituzela. Au da bere Elexako Santuak dirauskuena. S(a)n Agus(tine)k diño eriotzara artian gaiztoa izan danen eriotza aurreko negarrak ez dautsala beintzat emon biar poz andirik. Eta auxe da nik esan biar deutsudana, pekatarija: ondaturik ibili gure badozu eriotzara artian, alperrik izango da orduan negar egitia. Egija da Jang(oikoen)tzat ez dagoala gauza gatzik. Berak dirausku edozeinbere ordutan, bere pekatuak ondo negaturik badoa, bere lengo pekatuak gatzik egingo ez deutsela ta aen gomutarik geija[go] izango ez dabela. Ezin berba gozoagorik berba one[elk] baño esan leikeguz. Baña orregatik, ez dirautso pekatari oni berak nai dabenian Jangoikoagana biortuteko eskubidia eukiko dabela. Au ez, eta gitxiago esperantza onetan pozturik pekatu andijegoetan sarturik egon bada. Gauza diferentia da opa izatia Jangoikoak pekatuen parkazinoa beragana biortuten bada, berak nai dabenian nai daben legez Jangoikoagana biortuteko eskubidea eukiterik. Eta benetan, pekatarija, zure bizi guztijan Jangoikoa grazia opaka egonik, eta grazija onegaz balijau biarrian geijago ta geijago Jangoikoen tentagarri eginik ibili baño ez badozu, zelan uste izan zinaike orduan zure eskuan euki zinaijela beraganatuteko grazija? Ez dakit. Egija da errukiorra dala pekatarijakganako; baña zeure bizijan osasun sendoagaz egon zarianian ainbeste grazija g[iltxi] izan badira, eriotza aurrian oi baten ganian zeure nekiakaz artegaturik zagozarian gitxi al izango dozu, orduan arimak gauzak lelengokoak izan biar bada bere. Zure umiak<sup>3</sup>, señidiak ta beste bitarteko askok estutuko zaituez, munduko gauzan bere zuzendu biar diriala, ta guztijak guztijetatik estutuko zaitue, benturaz prinzipalenari itxi ereiten deutsuela. Eta dei egitekoa adineko egon arren bere, erantzun leikezu: Nik denporaz dei egin neuntsun, zuk onetara burla ta barre egiten zendun, gurago zeuntzala jarraitu bide pekatuzkoai; ba nik bere orain burla ta barre egingo dot zure deijetara, eta galdu biarko dozu. Oi ze larrija onelako pekatariena!

Zer erantzuten dozu onetara, pekatarija? Esangidazu, zer erantzunik badozu. Baña etzaitetz nekatu, bakit zer erantzun gure deustazun. Jauna, dantzut dirautazula: Fediak irakatsiten deusku, Jangoikoak eriotzako orduan pekatariarik andijenakaz erruki andi bat euki daroa, eta egi onen testigurako begiratu begi zer egin eban arako lapur Kurtzia Jesusegaz

---

<sup>3</sup> Jatorrizkoan: *bume*.

batera il zanagaz, bada, izanik Kurtzera artian pekatari andi bat, asko izan lapur onek esatia beragaz aitzu ez<sup>4</sup> zedilla, erantzuteko eskari onetara esaten eutsala: Gaur neugaz Parabisuan izango zara. Ze gauza agirijagorik au baño, esateko erraz dala eriotzako orduan pekatuen parkaziñoa arkantzetako? Auxe da pekatari geztoen argumentua, edo obeto esateko Diabruaren tentazinoa, onelan obeto kattia ifinirik ardura bagarik pekatu egin dagijen.

Baña engañetan zara<sup>5</sup>. Egija da, pekatarija, lapur zorionekoagaz alan jazo zala, baño lapur ori bat bakarrik da, ta lapur ori etzan izan pekatari gogorra; bada, Lapur onak ezauben ezautu egun atari[k] artian Jesus Salbadoria, etzituzan bere ikusi an egozan askok ikusiko mirarijak: ez arako Naingo alargunen seme bakarren biztuera, ez Lazaro Marije Madalena ta Martaren neba lau egunian usteldurik egoanen biztuera mirarizkoa, ez bost ogigaz bakarrik ainbeste millari naiko beste janari emon ta sobra gelditu zanekoa, eta ez beste asko esan biar banitu luze egingo jatana. Ez, etzituzan one[elk] guztijok ikusi; bakarrik Kurtzian ikusirik bere pazienzija miragarriak mirariturik erruki<sup>6</sup> bat legez bere biotzian ezautu ebaneko, orra non idigiten deutsezan lapur oni arimako argitasunak<sup>7</sup> eta asi zan eurekaz salbazinoko gauzak egitera. Baña zuri, pekatarija, anbeste bider dei eginik eta dei onetara erantzun biarrian pekatu geijagotan ondaturik, ez deustu emon biar esperantza andirik, eta bai jazo lekizu zuk testigutzat dakazunori akusadore biortutia.

(\*)<sup>8</sup> Ezta txikijagoa beste askoren tentaziñoa. Beste askok<sup>9</sup> esan daroe: Jauna, ikusten dira pekatari andijak izan dirianak ustez eriotza exenplo andikoak ta inbidijagarriak egiten dituezala, eta benturaz ontzat egon dirianak baño obiak santu batzuk legez munduen exenplo eginik ilten diriala. On ta santua izateko denpora gitxi biar da. Eta deretxazue one[elk] tentaziño txikijak diriala? Egija da santu biortuteko denpora gitxi biar dala. Baita bere eriotzako gaixora artian gaizto andijak izan dirian batzuk ikusten dira guztiz negaturik, ustez propositu egijazkoen irudiz beterik<sup>10</sup> ilten diriala; baño etzirian il Kristinau egijazkoak legez, bada, Kristinau onak ez dabe isten eriotzako estu-larrira artian Jangoikogana biortutia, beti dabiltezez igeska pekatuen okasiñoetatik. Eta noz-

<sup>4</sup> Ostein erantsita.

<sup>5</sup> Ostein erantsitako esaldia.

<sup>6</sup> Geuk zuzenduta: *eurruki* > *erruki*.

<sup>7</sup> Idem: *argitusanak* > *argitasunak*.

<sup>8</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Orandik iruritzen zat esaten dezula... Jauna...*

<sup>9</sup> Ostein aldatuta: *One[elk]* > *Beste askok*.

<sup>10</sup> Ostein zuzenduta: *egijazkoz beterik* > *egijazkoen irudiz beterik*.

bait argalak legez jausten badira, beingoan datoz negarturik euren pekatuen negarrez penitenzijako iturrietara. Baña geztoak ez; onelan, konfientza pekatuz beteriko bategaz dabiltz<sup>11</sup> ondaturik eriotzako puntura artian, eta pekatuak ezin leijenian negar egitia asko dala uste izenik, onelantxe Diabruak bere nasan gorderik daukez. O zenbat onelako arime ez estadu baten, baita bere estadurik andijenetan! Esangidazu, engañuz onelan Diabruak bere zaukezan pekatarija, nor uste dozu izango litekela arako pekatarija, ondaturik pekatuz bere bizitzia eukirik eta ilten doiala ezaturik, konfesore bati deirik egin bagarik il nai leukiana? Gitxi dira onelakoak; eta asko onelan euren burua ikusirik konfesorerik onenai deituten deutseenak, orduen prisat arturik deungaro irabazijak biortuteko, arerijoai parka eskatuteko, ta beste onelako asko egiteko... Erregututen deutsee sazerdotiai, arren, beraganik alde ez dagijela. Konfesau ta komulgetan dira, Jesus ta Marijaren<sup>12</sup> izen gozoak esaten dituez, Santo Kristoa laztandu daroe, eta onela ilten dira. Baña, ondo guztijak? Ez, ez da onaxiago bere; bada, au baño geijago biar da, eta geijago biar ez balitz santuen eriotzia egiteko, oian ilten dirian geijenak Zerurako izango litzatekez. Au alan izanik, ez leuskigu esango arako sententzija, berari bizitzan burla egin deutsenai berak bere eriotzan beste añbeste egingo deusala. *Ego quoque in interitu vestro ridebo.*

Jangoikoen sententzijau egija izanik, esan giñaike ordu atako penitenzijak asko ez diriala egijazkoak. Negar, sentimentu ta beste gauza asko eginagaz ordu atan, munduen begijetan izan leitez onak, baña ez beti Jangoikoenetan. Eta bai askotan izan oi dira Diabruaren tentazinoak, ikusirik beste askok euren legez pekatari andijak dirianak, onen azaletiko penitenzijak uste izen deijen erraz dala eriotza ona egiten; tentaziño onetan siñasturik geijago ta geijago ondatu ditezen euren<sup>13</sup> pekatuetan, obeto artuteko neurrija bete dagijenian euren nasan. Ez uste izan, pekatarija, deungaro eriotzako ordura artian bizirik, orduan azale-tiko negar batzuk asko diriala. Ez, au egin arren, galdu liteke. Au ta geijago egin dabe askok eriotzako orduan, baña Infernuan datzaz. Geijago egin eban Antioko<sup>14</sup> Erregiak, baña galdu zan. Antioko Erregiak Jerusalemen lelengo kalte andijak egin eutsezan: egin zituzan eriotza errubakoak, ostu elexa santu atan ondasun andijak, basu sagraduak eta beste sakrifizioetarako egozan guztiak. One[li] guztijoi gitxi eretxirik, bere gauzak bera[k] gure eban baño ain ondo ez urtenik, etorren bigarrena

<sup>11</sup> Ostean aldatuta: *dagoz > dabiltz.*

<sup>12</sup> Geuk zuzenduta: *Mariajaren > Marijaren.*

<sup>13</sup> Ostean zuzenduta: *eun > euren.*

<sup>14</sup> Ostean aldatuta: *Faraon > Antioko.*

Jerusalenen kontra, soberbijaz beterik esaten ebela Jerusalemek beintzat ondo pagau biar eutsala, uri onetako auzo<sup>15</sup> guztijak zar-da gazte inori bere parkatu bagarik ilgo zituzala, ta azkenez uri ederraerrerik bertako auzo guztijen sepultura biortuko ebela. Pensamentu gezto onetan etorrela kotxe eder baten ganian, orra non dakusen bere ganian Jangoikoen eskua; jausten da kotxeagaz naste lurrera, gaixotuten da, ta oi baten ganian etxunik, guztija atsiturik atsen indarrez ezin bere burua sufridurik, bere kapitai ta nagosi guztijai dei eginik, guztiz negarturik dirautse: Ai zelan datorkidezan orain neure gogora Jerusalemeneri eginiko gatzak, ango eriotzak, ango elexako lapurreta ta sakrilegijoak! Biortuten da negarrez Jangoikoagana; dirautso, arren, gaixo atatik libra daijela, ta berak an eginiko gatzak bardinduko dituzela, elexa atatik kendu zituzan beste baño geijago ta basu obiak ifiniko zituzala, bertako errentak geituko zituzala, baita berak bere ango erlijijñoa arturik Jangoikoen predikadore biortuko zala, eta alan berak alegin guztijak egingo<sup>16</sup> zituzala egijazko erlijijñora biortuteko bere beian egozan guztijak.

Zer diñozu onetara? Eskatu leiyo errege pekatari bateri geijago Jangoikoaganatuteko? Ustez, deretxat, ezetz diraustazuela. Baña, zer jazo zan? Miserikordijarik izen eben? Ez, Kristinauak. Ondatu zan bere promes-da guzti Infernuan, ta an da[bil]tz bere lagun eriotzara ordura artian pekatuetan ondaturik ibili zirianakaz naste, uste izanik orduko negarrak librauho zituzala. Eta zegatik uste dozue etzituzala nai izan entzun Antiokoren negarrak? Bere negarrak etzirialako pekatuen damuak ereiten eutsezanak, eta bai bere gorpetzeko gatzak. Onen modura pekatari askok negar egin daroe eriotza aurrian propositu ta agintiak egiten dituezala. Baña, zegatik? Aurre obiak izatiagatik? Lengoen damuakgatik? Ori balitz, ondo litzate; baño ez, ezpada euren konbenientzizjak ikusirik igaro jakezala, burladurik gelditu dirialako. Eta iñozko alditan osatu badira onenbeste eginik, ikusten dira len baño geztotuagorik bizi diriala obetu biarrian, zein dan señaie ziuorra ordu atako euren negarrak benetakoak izan ez ziriala. Zenbat onelako emen berton aurkituko ez dira gaur gaixoren batek arturik propositu modu one[le]k egin zituzanak! Baña, ondu zare? Len baño pekatu gitxiagogaz zagoze? Ez; eta len andijakaz egon bazinian, orain andijagoakaz ezaututen dozuez zeuen ari-mak. Eta urrengoko egunen baten gaixo barri batek arturik asten bazaree lengo propositu muduetara<sup>17</sup>, uste dozue errukituko jatzuela? Ai, bildur naz esaten, baño bildurragaz naste esan biar deusuet zuen negarrai

<sup>15</sup> Osteen zuzenduta: *azo* > *auzo*.

<sup>16</sup> Geuk zuzenduta: *egungu* > *egingo*.

<sup>17</sup> Alternantzia: *modu* / *mudu*.

barre egingo deutsela, eta neurrija beterik Antiokori legez, berari lagun-arazoten bialduko zaituezala!

[Gurutzea] Ez da nire gogoa pekatarijen biotzetik parkaziñoen esperantzia kendutia<sup>18</sup>, baña dantzut benturaz zuetarikoren batek bere artian diñoala: ete izan dira predikadoriak dirauskuzan gauzak alan, edo esango ete dituz geijago gu bildurtutiarrik? A pekatarija, eta zelan dakusdan Diabruak oraindio katiati urten ez dagizun gerra andija egiten deutsula! Egija da nik ez deutsudala onegaz erakutsi gure eriotzara artian gezto izan danik salbau ezin leitela, bada, Fediak berak dirausku Lapur ona kurtzera artian pekatarija izanik, antxe irabazi eben bere salbaziñoa. Baña bai dirautsut ordura artian istia peliburu andiko gauzia dala, eta bizitzan onelako izan danari eriotzan beraganatuteko grazija eukitia milagro andi bat dala, eta zure salbazinoa milagroen pentzuetan ifinitia gizonak egin aleikia[n] zorakerijarik andijena dala. Ez dau, ez, ordu atan Jangoikoak egingo egin aleikian guztija; bada, begiratu nai badogu Jangoikoen egitetara, ikusiko dogu Jangoikoak il geijago biztu dituzala, eriotzara artian gezto izan dirianak salbadu dituzan baño: iru dakusguz il ezkeru biztuak, ta bat bakarrik eriotzara artian gaizto<sup>19</sup> izan dirianik salbadu zana, eta au arako Lapur ona. Eta esangidazu: gure dozu zuk bizi pekatuan ondaturik Diabruak puzturik, zugaz bere alantxe jazoko dala? Urrun Jangoikoak zugandik pensamentu zantar orre[elk] dagizala, eta zure salbaziñoa erraz pekatuak alderatu ta bizi izanik irabazi al zinaijena, milagro penzuetan ifini biar dozun asmuetatik jagon zaizala.

Ez dira txikijagoak beste askori Diabruak gogora bialduten deutseezan tentazinoak. Jauna, esan daroe onetariko askok, Jangoikoak anbeste eskubide deuko pekatarijak beraganatuteko eriotzako orduan, zeinde beste edo Kain bere denporatan, eta ordura artian egin nai izan ez dabena, orduan nai izan leike, aita on batek errukiturik semiari, onek eskaturik libra dagijela bere pekatuakgaitik mereziduko urkamenditik, al izanik egingo leukiana legez, askoz obeto Zeruko Aita errukitsuak. Egija da errukitsua dala, baña bai bere justizierua. Jangoikoak eginala guztija egin biar baleu, zuk lenengo pekatu egin zendunian kastigadu al izanik, kastigauko zenduzan eta atxinatik Infernuan egon biarko zenduan. Baña etzaituz kastigau errukiz begiraturik, eta kastigua merezidu baña kastigu bagarik itxoron deutsuna legez, parkatu al izan arren zure pekatuak kastigua merezi izanik, orduan kastigau zinaikez. Eta ainbat bildur geijago euki biar dabe, zenbat eta emen munduan aberatsago izan dirian. Bada,

<sup>18</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>19</sup> Alternantzia: *gezto* / *gaizto*.

arturik ondasunak<sup>20</sup> errazago pobriak baño Zerua irabazteko, pobriak baño pekatu geija[lgoltan mundua igaro dabelako. Bai, munduko aberatsak: zenbat eta geijago artu dozuen Jangoikoagandik, anbat obeto erantzun biarren zagoze; eta au egin biarrian gitxi artu dabenak baño bere deungago erantzun badautsazue, kastigu andijagoak merezidu dozuez. Zenbat ete dira gaurko egunian ondasuntsu[el]n artian batetik Kristinauen izana euki arren<sup>21</sup>, besteti Jesukristoren Ebanjelijoko agindu ta konsejuak aintzekotzat artu bagarik bizi dirianak, Ebanjelijoko aginduetati iges egiten dabela eskandalu bateti legez? Zer dauke zerikusi gaurko eguneko banerija... ta beste begijen aurrian dakusguzan pekatuzko gauzak, Ebanjelijo Santuan pobre nai aberatsentzako aginduten jakuzanakaz?

Asko dira aberats artian esan da egin daroenak: ondasunak doguz ta munduari aprobetxau biar gatxakaz... Bai, ondasunak dozuez Jangoikoak eta askok Diabruak emonak, deungaro irabazijak. Gastadu biar dozuez, baña zelan? Banerijetan, komedijetan... ta beste gurari geztoetan? Ez; eta bai dezenzijan igarorik limosnak egiten, pobriak jazten ta karidadezko obratan gastadurik Zerua irabaziten. Au... Gogorak dirala diñozuez nire berbak? Zoaze, leidugizue Ebanjelijo Santua, eta an<sup>22</sup> ikusikozuez egijak badira berba one[el]k, eta ezautuko dozue engañuz betirik bizi zareela ta salbau nai badozue, beste bizitzarik artu biar dozuela. Beste modutan bizirik salbauko<sup>23</sup> zinatekezala esango baneuskizue, engañauko nintzateke eta engañauko zendukedaz. Eta nik gaur ain argiro berba egitia ontzat artu biar deustazue, bada, Jangoikoak ondo dakus zeuen onerako, zeuen salbazinorako beste interes bagarik diñodazala. Erdi billozik banerijaz jantzirik, Ebanjelijoko aginduetatik iges eginde salbako zareela uste izatia tentaziño bat da, Diabruak bere bitartez eroran gure zaituzena arako Ebanjelijoko aberats zorigaiztokoa eroan eben lekura, presondegi ta kalobozu itzaltsura, non zuen olgurak eternidade bateko negarrian biortuko dirian.

Eta zer esan ginaike ainbeste serbitzaille<sup>24</sup>, zapatatako ozta irabazirik, euren etxeko uezabandra ta señoarak ballitzen leku guztijetan ederto apaindurik agertu oi dirianak? Nondi orrenbeste jantzi, orrenbeste banerija? Zeuen gurasoak ozta artotako eukirik, ta zeuek prinzesa<sup>25</sup> batzuk legez? Nondi orrenbeste in[bil]dija? Diruren batzuk etorri al jatzuez?

<sup>20</sup> Geuk zuzenduta: *ondusanak* > *ondasunak*.

<sup>21</sup> Ostein zuzenduta: *izan arren* > *izana euki arren*.

<sup>22</sup> Jatorrizkoan: *ban*.

<sup>23</sup> Ostein zuzenduta: *salbau* > *salbauko*.

<sup>24</sup> Geuk zuzenduta: *serbaitzaille* > *serbitzaille*.

<sup>25</sup> Idem: *prinzeptsa* > *prinzesa*.



Ez dakit nik zer esan, ez zer pensau onen ganian; eurek jakingo dabe zelan egin daroezan. Baña nik esan biar deutset bide oneti anbeste ezin zinezela, ta bide oneti egiten badozuez bere, orregatik munduari zeresanak emoten deutsezuezala. Guk sentimentuz entzun daroagu, zuek askori murmureta-bide emonik, one[el]k inozko alditan etorri oi diriala, esan dabela Seigarrengo edo Zazpigarrengoti egin ezik, ezin orrelakorik egin zinaijela esan daroela. One[el]k pekaturako bide andijak emon daroez, eta andijagoak arako alargun, zoro guztijak baño zoroagoturik, bazterretan, plazetan ta bizitzetan zeresanak emon daroezanak. A! Zenbat onelako euren lagunak oraindio sepulturan odola darijela usteldu bagarik dagozanak, aizturik are[el]i jazo jakena laster eurai jazo biar jakela, pekatu[an] ondaturik bizi dira?

[Gurutzea] Azkenez, biortu gaitezan arako zar zoro euren urte luze Jangoikoak gatzetan egineko pekatuak garbituteko zartzaroko urtiak miserikordijaz artu dituezanetara, eta bedeinkaturik arako zar beneragarriak, madarikatu dagiguzen euren miserikordijarako urtiak justezijarako emoten dituezanetara<sup>26</sup>. Esan daijogun one[el]i arako Salomonegaz jazo zana, gatzetasuna Jangoikoen bide santuetan igarorik, zartzaroa luxurijetan emon ebelako bere salbazinoaren duda andi itxi beban, zer izango ete dan one[el]kaz gatzetasun ta zartzaroa pekatuan igarorik eriotziaz artu dagizenian... Eta guztijok bildurturik gure pekatuak, proposituz beterik biortu gaitezan. Esan leike benturaz emen dagoanen batek pekatarijen gogotik esperantzia kendu nai dodala. Baña ez, urrun niganik orrelako pensamentuak.

Zenbat aberatsen artian, Dabid Erregia legez humillak, biotz biguneakoak izan biarrian, gogorak, garratzak Antioko legez, besteren gazkilla eginik bizi gure dabenak? Zenbat onelakok, Sakeok legez euren deungaro irabazijak, euren pekatuak limosnakaz garbitu biarrian, Ebanjelijoko aberats kodiziosoa legez zelan gastauko dituezan asmo billa dabiltezanak? Pekaturako bada, ogeiko bat, bi nai... Badira bere etxia galtzeko bildurrik ez dabenak, ta pezeta bat pobrientzako iñoz emon badabe, etsia galtzen dabela uste dabenak. Esan daro[el]: ondasunak doguz...

---

<sup>26</sup> Esaldi iluna.

## [HASIERAKO ERANSKETAK]

*Quia vocavi et renuistis extendi manum meam, et non erat  
qui aspiceret: ego quoque in interitu vestro ridebo,  
et subsanabo cum id quod timebatis advenerit.* Prov. 1, 24-26

Eta egiaz, ze gauz bildurgarriagorik gaizki bizi izan dan pekatari batentzako aditzia ilteko presta dedilla<sup>27</sup>, testamentua egin biar duala Sakramentuak artzeko, gauza ostuak biortu, eta beste orduan ez gaxoaren burua, baizikan ere sendo daudenakoak alez betetzen dituzanak? O eriotza gogorra...!

Nor izango da ordu artan pekatari baten burua okupatuko duen bildurgarritzko gauzak<sup>28</sup> biar bezela erakutsiko dituzana? Orregatikan, nere gaurko sermoia ez da anbeste izango eriotzaren gañekoa, eta bai geijago, aditzen eman naiko derana zein estu-larri andiak artuko duan arako pekatari bere denpora guztien pekatuz ondaturik, zauriz estaldurik, pekatutik irtetzeko gogo bage ainbes[te] urte igaro ta eriotza aurrian egon biarko duenekoa, batetik bere pekatuzko mendiak ikusirik, bestetik Juezen aserre andia, eternidadiaren pensamentua, Infernuko penaren bildurra eta beste anbeste gauzaz ezin kontala ikusiaz. Bai, pekatar[ia]...(\*)<sup>29</sup>

Ez dago gauza obiagorik gure bizitza arreglatzeko eriotzaren pentsamentua baño. Egia da<sup>30</sup> itzal dala pentsamentuau; eta anbat itzalagoa, zenbat eta gaztiagoa dan peliburu onek arturik pentsatzen duana. Baña...

## [AMAIERAKO ERANSKETAK]

Eta zuk milagro z biztuko zaituezan esperantzia goiti-beti gorputzeko bizitzia galduko ez zeunkena legez, gitxiago egin biar dozu arimakoa. Orregatik, urrun zugandik...

Munduko aita on batek bere seme gezto bat bere pekatuakgatik urkamendi onian ikusiko baleuke, negarrez aita oni esaten deutsala, arren, andi al badau librau dagijela, aita onek bere semiaganako biotza

<sup>27</sup> Ostean zuzenduta: *dilla > dedilla*.

<sup>28</sup> Ostean erantsita.

<sup>29</sup> Oharra: *Nota: el "leitekean" de Bizkaia, es "ditekean" de Gipuzkoa.*

<sup>30</sup> Ostean erantsita.

urruturik, alegin guztijak egingo lituke bere semia urkamenditik ateratiarrik, ain da andija aita baten semiaganako amudioa. Eta ez munduan oraindio izanik aitarik bere semien bizitziagatik kurtze baten il danik Jesukristo gugatik legez, ikusirik pekatarija il aurrian onela negaturik miserikordija billa, ezingo deutse itxi, bere errai bigunak ordu atan ainbeste kostariko galdutera joanik, miserikordija bagarik ilten. Au da pekatarijen argumentua.

Bakarrik lapur onek, Jesus Kurtzian ikusi ebeneko bere pazienzija miragarrizkoagaz mirariturik, ezautu eban justo andiren bat<sup>31</sup> zala. Emetik erruki andi bat izan eutsan Jesuseri, eta Jesusek bere errukijen sari-rako idigi eutsezan arimako begijak; ezaututen dituz misterijo andijak, damututen da bere pekatuen, konfesetan dau beragaz batera kurtzian egoana Jangoikotzat, eta grazija oni lagundurik egin zituzan salbazinoko lanak, ta merezidu izan eban egun atan Jesusegaz Glorijan egotia. Baña zuk...

Onetara dirautsut len esan dodana: orduan bere Jangoikoagan bior-tuten bazara, baijetz; baña etzara onetara etorriko ta galduko zara... Au da lelengo dirautsudan errazoia; bigarrena, Zeru...

Baña Zeruko Jangoikoak Lege Santu guztiai<sup>32</sup> bardin begiraturik, miserikordijaren lege santuari, justezijakoaren kalte bagarik, milagroez ez izanik, ezin egin leike onelakorik. Eta onelan beti deungaro bizirik, zugatik milagro egitera etorri al izen arren, etorriko dala uste izetia ez da besterik, ezpada Diabruaren putz gezto bat, atxakija onegaz bere katiapian euki gure zaituzena.

A pekatarija! Zu Jangoikoak bere irudira eginik, beragaz betiko zorioneko izateko ainbeste zorionegaz emen munduan bete zenduzan, eta zu<sup>33</sup> guztijetara eskergeztokoa alde batera Jangoikoa itxirik, pekatua-ren jarrai ibili ziñan. Baña zu onetara gortu zinian<sup>34</sup>; dei andijak beraganatuteko egin eutsuzen, baña zu onenbeste deira gortutu ziñan<sup>35</sup>. Zema-tu zenduzan kastiguakaz, onetara bere barre egin zenduan; predikadu jatzun, eta predikadorien kontra jaigi zinian. Bada, zu alderatu zinian

<sup>31</sup> Geuk zuzenduta: *andirenbat* > *andiren bat*.

<sup>32</sup> Ostein zuzenduta: *Lege Santuai* > *Lege Santu guztiai*.

<sup>33</sup> Idem: *zuk* > *zu*.

<sup>34</sup> Ostein aldatuta: *munduko kreaturetan zeure begijak ifini zenduzan* > *pekatua-ren jarrai ibili ziñan*. Baña zu onetara gortu zinian.

<sup>35</sup> Idem: *orregatik, ez zeuntsen nai itxi bide gaizto orri* > *baña zu onenbeste deira gortutu ziñan*.

nigandik, ni bere alderatuko naz zugandik; kriaturak baño atzerago ifini nenduzun, bada, kriaturak izango dira zure suerte ta kastiguak; zuk betiko bizitzia euki bazendu, betiko nire gorrotoan biziko zinian, bada, nik betiko bizitzia eukirik, betiko eriotziagaz kastigaduko zatut, esango deutso. Ez uste izan, pekatarija, Jangoikoak eginala guztija orduan egingo dabela; Jangoikoak eginala guztijak egingo balituz, zuk lelengo pekatu egin zenduzanian kastigauko zenduzan, baño etzenduzan, ezpada erruki andiagaz itxoron eutsun beragana biortu zaitez. Ez dozu gura izan onelakorik, bada orregatik, orduan kastigetako eskubidea eukirik parkatu eutsuna legez, orain parkatu al izanik kastigau zinaikez. Eta bildur geija[go] euki biar dabe aberatsak ainbeste ondasun errazago Zerua irabazteko Jangoikoak emonik pekatu geijagotan gastau daroazanak. Zenbat ez dire aberatsen artian azaletik Kristinauen izena ondratzako eukirik, Kristoren Dotrina Santuari obrakaz gerra bizi bat egiten deutse-nak, eta Kristoren Ebanjelijoko agindu ta konsejuetati, Judegu ta Jentillak legez, zorakerija ta eskandalu bateti legez igez egin daroenak? Asko ta asko. Ondasunek doguz, dinoe, gastau biar doguz. Bai, ondasunak dozuez ta gastadu biar dozuez, baño zetan? Banerijetan? Gau baten dantzata batera urteiteko ainbeste milla errealeko trajiak egiten? Errefresko baten ainbeste gastu egiten? Au da Bautismu Santuan prometidu zenduena, munduko ponpa ta banerijai istia? Zer deretxazue? Gogor berba egiten dodala? Kristoren liburuetan leidugizu, ta onek ta geijago aurkituten ez badozuz, zegidazu siña[stu]; baño antxe aurkituko dozuz, onex[ek d]lira zuen obligazinoak, be(...) (...)dutan bere egingo banendu(...) alek(...).

Ez dago bide obeagorik gure bizitza ontzeko eriotzaren pentsamentua baño. Egia da itzala dala pentsamentuau; eta anbat itzalagoa, zenbat eta gaztiagoa dan peliburu onetan jarririk pentsatzen duana. Baña ez egonik<sup>36</sup> gure eskuan nai degun arteko bizitza, baita izanik Espiritu Santoen konsejua ondo il nai badegu sarri onetan pentsatzeko, txit ona ta probetxu andikoa da pentsamentuau, ez bakarrik ondo ilteko, baita ere arako pekatarien eriotza aurreko larrietatik libratzeko. Eta egiaz, ze gauza itzalagorik bere bizitza guztia pekatuan igaro duen pekatari batentzako, esatia baño gaizki dagoala, iltera dijoala eta beingoan prestatu deitjala, Konpesio, Komunio, testamento eta beste gauza guztiakin<sup>37</sup> prestatu deitjala?

<sup>36</sup> Idem: *eukirik* > *egonik*.

<sup>37</sup> Geuk zuzenduta: *guztiakakin* > *guztiakin*.

O zeñ larriak joten duan bere biotza! Bai; arako Isaias Profeta Santoa Ezekias Erregiari esan zionian prestatzeko, il biar zuala, ta guztia larriturik izardi andi batek arturik, ezurretaraño bildurra sartu bazitzaion, eta au izanik erregia txit santua, nolako bildurrak joko ez du arako sekulan gauza on bat egin bagarik bizi izan da[n] pekatari galdua? O eriotza gogorra!, esaten du orduan. Zeñ laster ta isillik etorri zeran! Zeñ gogorra zeran Adanen seme-alabarentzako! Andia da zure indarra, inori parkatu bage guztiak azpiratzen dituzuna, ez aberats ez jakintsuak parkatzen ez diozuna, guztiak burlaturik azpian sartzen dituzuna. Zu zera gaubian bezela etorririk anbete urtian irabaziko interesak kentzen dizkazuna, eta bere baneriazko alaja guztiak kendurik sitsa ta arren artian sepultura triste baten sartzen dezuna. Beragatik, nator gaur, pekataria, itz egitera arratsalde onetan ez eriotzaren ganian, ezpada esatera biz[i]tza pekatuz betia igoro nai bade[zu], (...)dizula eriotzan (...)go pozik, ezpada tristeza zure (...) [zag]lita bat bezala ebagiko duana. Bai, (...).

## LA ASCENSIÓN DEL S(EÑ)OR

*Recumbentibus illis undecim discipulis apparuit.* Mc. 16, 14

Jesukristo gure Erredentoriek Zeru igon euen pestia gura Erlijiño Santuko Misteriyoen artien glorijoso eta beste guztijan artian konsuelurik<sup>1</sup> geijen akarrietan deuskuna. Jangoikoaren Semiak bere Enkarnazioan deklarau eutsien gerra Infernuko potestade guztijai, asijera edo prinzipijoa emoten eutsela gura erredenzinoko obra andijari. Bere bizitze santua etzan izen beste gauzarik ezpada gerra kontinuadu bat bere erijotzara artian. Bere Erresurrezino glorijoso izen zan egun ditxoso bat arkanzau euben bitorijena; eta igoa zein konkistadore batzuk atzeratuten dituezan egun batzuk kapital edo ziudade batera sartuteko, denpora onetan artuten dituezala euren preparatiboak, modu onetan gura Salbadoriak ez euen gura izan sartu<sup>2</sup> beingoan, arik eta igaro artian berrogei egun bere Erresurrezino glorijosorik Zerura, zein zan ziudadia non egingo eban mansino edo paradia bere glorijena. Oneitan berrogoi<sup>3</sup> egunoneitan emon eutsezan gura Salbadoriak lekzino andijek bere Erresurrezinoenak: emon eutsien entendietan zelan egoan bizirik; jan euen sarri askotan euregaz egiten eutsiela berba Zeruko Erreinuen ganian, irekatsiten eutsiezala<sup>4</sup> misterijo andijel[k], zeintzuen kapaz egin zirien. Oneitan berrogei egunoneitan instruidu zituzan Apostoluak Elexia gobernetako jakin biar zituel[zan] gauzaetan. Eta eldurik ije denporia igoteko Zeruetara, geitu edo konbokau zituzan Apostoluak Galilearik<sup>5</sup> Judeara; eta Zeruetara igon biar eban egun beratan, zein zan bere Erresurrezino berrogeigarrena, egezala guztijak batera maijen jateko, agertu jaken eta parau zan euragaz jaten batera. Jan euen akostunbretan euen legeaz agertu jakien guztijetan, ez nezesidaderik eukelako, ezpada emotarrik entendietan bere Erresurrezino glorijoso eta erakutsitarrik bere poderijoa, eta bai bere bere prezencijaren errealidadie. S(a)n Agusti-

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Ostean zuzenduta: *konsuelu* > *konsuelurik*.

<sup>2</sup> Ostean ezabatuta: *sartu Zerura* > *sartu*.

<sup>3</sup> Alternantzia: *berrogei* / *berrogoi*.

<sup>4</sup> Ostean zuzenduta: *eutsiela* > *eutsiezala*.

<sup>5</sup> Ostean aldatuta: *Judearik* > *Galilearik*.

nek dinoiena legez, akabaurik jatekoa, egin eutsien sermoi largu bat, zein izen zan konpendijo bat ordura artien irekatsi eutsien guztijena: zer egin eta zer a[ur]rerantzien azertauko jakien, prometietan eutsiela biralduko eutsiela Espiritu Santua egun gitxi barru eta beragaz jakingo eudielaguztija. Ja dakizue zelan daukedan potestadie Zeruen<sup>6</sup> eta Lurrien; joan, bada esan dautsuedana legez prediketetan Ebanjelijo Santue nazinoguztijai, distinziño bagarik, bautizetan dozuezala Aitien, Semien eta Espiritu Santuen uzienien. Sinestuten dauenak eta bautizetan [dan]lak arkanzauko dau salbazinoa, eta ez sinestu, ez bautizau gura eztaudienak kondenauro dira erremedio bagarik. Eta onetan biar egin gura daudienai fazilidade geijagogaz konbertidu daijezan Jentilek, emongo dautset potestadie milagroak egiteko: nira uzienien demoninoak gizonetarik kenduko dituez, berba egingo daude inoz jakin eztaudien lengoagien, serpiente benenoso guztijek ilgo dituez eta eurai edan erei[n]go dautsien edari benenosoak gatxik eztauegingo, osatuko dituez gaiso guztijek eskuek ifinijegaz bakarrik euren ganien. Alan azertau zirian oneik guztijok. Au<sup>7</sup> milagroen promesau egin eutsen Elexiari enkomun eta okasinobatzuetarako, eta alan ikusi dogu. Au promesau kunplidurik, biar izen danien Elexien eta Erlijinoinen adelantaminturako, denpora guztijetan egon dira, eta<sup>8</sup> dagoz, Santuak milagroko birtutetan erresplandezidu daudienak; baie bakarrik Elexiari eta ez beste erlijinoko sektari<sup>9</sup>, zisma[ri] emon jako onelango fakultaderik oraingino. Ezin autorizau legi Jangoikoak guzurra eta erroria. Egundonetan erreprendidu zituzan gura Salbadoriak bere di[zi]pu[lu]lak suabidade akostunbradugaz, izen zirielaoko atzeriak sinestuten bere Erresurrezinoko testimoninora. Ekarri eutsien euren memorijsa il baiño lenago emon edo esan eutsien doktrinera, bere Erijotza eta Erresurrezinoinen ganien, eta zelan guztije ekusdien kunplidurik. Ifini eutsien bere Elexien plan bat; esan eutsien zelan biaroko zirian predikadorie[k], zeintzuek instruiduko zituzan nazinoguztijek habijetan ziriela Jerusalemgo bezino edo habitantiakganik, exortau leigijezala penitenzijera, eta konbertietan zirienei prometidu leijsola pekatuen parkazinoie bere partez, eurei esaten eutsiela: Eta ministerijo<sup>10</sup> onetarako eskojidu zaituedaz zuek. Zoaze eta predikedugijozue mundu guztijeri irekatsi dautsuedan doktrinie eta nigan ikusi dozuezan marabilla andijak. Neuk emongo dautsuedaz berbak eta sabidurije bat zeineta[n]

<sup>6</sup> Ostean zuzenduta: *Zeren* > *Zeruen*.

<sup>7</sup> Jatorrizkoan: *Hau*.

<sup>8</sup> Ostean erantsita.

<sup>9</sup> Geuk zuzenduta: *segtari* > *sektari*.

<sup>10</sup> Ostean erantsita.

ezingo daudien kontradezidu munduek. Guztijek zuen kontra armetan badire bere, eta euren inder guzt[ij]lek zuen kontra juntetan badire bere, eztautsue buruko ulle baten gatzik egingo, bada, noa egun gitxi barruen birelduten zuen ganera Espiritu Santue; eta ordura artie[n] egon zaiteze enzerradurik orazinoan, onan disponieta[n] zariela errezibietara Espiritu Santuen doie. Au<sup>11</sup> espiritu konsoladoriau jatsiko da zuen ganera suzko erreka bat legez abrasetan zaituezala, eta inundau ur bizi onetako grazijen, eta su fortalezije andiko onetan. Salbadorien dizipulu guztijek eta Apostoluek, zeintzuek zirien eun eta ogeigino, ezautu eudien eldu jakola denporie euren Maisueri eurekganik ausentetako eta bere Erreinure joateko. Akabaurik diskursue edo sermoie a<sup>12</sup>, Apostolu eta Dizipuluen konpanie guztije eroa[n] zituzan ziudaderik Betanijeko parterantza<sup>13</sup>, eta eroan zituzen Olibeteko mendire brimille pausu Jerusalemenerik distante. Eldurik mendi santu onetara, altzetan zituzala bere begijek Zeruetara, eta bai bere bere eskuek, bota eutsien bendezinoa Apostolu eta Dizipulu bere inguruen egozanai. Eta denpora onetan, noz geijen egozan erretan euren bijotzak Jangoikoen amorien, tronu edo silletzat jetsiten jakola Zerurik odoi eder bat abijau zan altzetan Zerura geldi-geldi, bere Dizipuluetarik ausentetan zala eta euren bistetarik estalduten<sup>14</sup> zala. Egongo zirien denpora luzien arrebatadurik Dizipuluek Zerure adi, ezpazirien jatsi angeru bi Zerurik, esaten eutsiela: Galileako baroiek, zer egiten dozue or Zerura adi arri bat eginik? Jesus zuen Maisue, zein euki dozuen ditxie ikusten Zerure igoten eta gozau dozuen bere konpainie amorosoa ainbeste denporan munduen, itxirik munduari joan da bere Erreinura posesinoa artuten. Zegizue sinestu orregaitik desanparauko zaituezala; zuekgaz izengo da Eternidade batera artien prometidute dautsuena legez, lagunduten dautsuela oraingino baino bere geijago, begijekgaz ikusi ezin leijen modu baten. Noz etorriko dan joaten ikusi dozuen moduen, izengo da Judezijoko egun terriblien; orduen ikusiko dozue jasten bere ponpa eta gloriye andijegaz, igoal zein gaur zeuen begijokaz ikusi dozuen igoten. Entzun eudien Dizipuluok Angerue[n] err[a]zonamintue, eta aunke<sup>15</sup> asko sentietan eudien apartetia leku atarik, obedidu eudien eta joan zirien Jerusalem[ra] Jesukristok esan eutsien moduen egiten orazinoa gau ta egun, orazino egiten eudiela Marija Santisimia lagun eudiela, zeinek bere asistidu euen bere Seme Santi[si]moen Aszen-

<sup>11</sup> Ikus 7. oharra.

<sup>12</sup> Jatorrizkoan: *ba*.

<sup>13</sup> Ostean zuzenduta: *ziudaderik Betanijera, zeinek distetan dauen Jerusalemenerik... > ziudaderik Betanijeko parterantza.*

<sup>14</sup> Idem: *estaduten > estalduten.*

<sup>15</sup> Jatorrizkoan: *haunke*.



siñora Dizipuluegaz batera, zein zan a<sup>16</sup> Elexa barrijen konsuelua. Ze bil eta despreziabilia etza[n] ordurik aurrera eurentzat mundua! Bere banidadiagaz ze min andija kausetan dautsien Jangoikoen glorija apur bat probau daudienai! Bada, biar dira biraldu apartau daijezan<sup>17</sup> euren begijak Zerurik angeru bi. O ze kastigu andi esperetan daudien arako Kristinau Jangoikoen gauzetara euren begijak altzau gura eztituezanak, eta inoz altzetan badituez, egiten daudienak bide batez inok konturik artuko ezpalleutsien, beti munduen izengo billitzen! Salbadoriek Zeru igon euenian itxi zituzan bere oin sagraduen señaliek Olibeteko mendijen, eta aun gaur konserbetan dira.

---

<sup>16</sup> Ik. 12. oh.

<sup>17</sup> Ostean zuzenduta: *apartetako* > *apartau daijezan*.

## SERMÓN DE LA PASIÓN DEL SEÑOR I

*Recogitate eum qui talem sustinuit a peccatoribus adversum semetipsum contradictionem: ut ne fatigemini, animis vestris deficientes.*

Hebr. 12, 3

*Uno*<sup>1</sup>.– Jangoikoak berak esan, eta Fediak erakutsiko ezpalesku Jangoiko Benetakoa irago zuela gizonak irago al leikian pasinorik minbera ta kruelena, ez litzateke aurkituko misterijo arrigarriau sinastu gurako leukianik. Arako agindu eutsan Jangoikoak Isaias Profetiari predikadu ta eskribi egiela bere Seme maitiak artuko zituzan zauri, azote, neke ta larri gogorak, uste izan zuan ez zuela inok sinastuko bere esana, eta alan zirautsan Jaunari: Jauna, nok [sin]astuko dau nira esana? *Domine, quis credit auditui nostro?* Eta benefita<sup>n</sup>, Federik ezpagaunka, nondik nora sinestu alginaike orrako kolumna orretan dagoanori<sup>2</sup> dala Jangoiko andijaren Seme Benetakoa, be[rag]az izaite bat daukana? Nor eskan[d]alizaduko ez lizateke enzu[ni]k orrako kolum[n]a orretan dagoanori dala orrako azotez aserik, zauriz est[a]ldurik, guztij[a] or zatitu ta ezaindurik dagoa[n]ori, odolez tapaurik dagoa[n]ori dala arako Jangoiko Zeru ta Lurrak eze[r]bere[le]zetatik egin zituena, Egu[z]kija, Ilargija ta izarrak argiz janzi zituzana, eta mundu guztija bere eskuan barruan estutu ta k[abi]letan dabena? Alantxe uste izan eben Judegu ta Jentilak, norentzat [J]esus kruzifikadua zan zorakerija eta eskandalua, dino S(a)n Paulo Apostoluak. Orregaitik dino S(a)n Juan Krisostomok ain dala gatx misterijoau<sup>3</sup> gizonari adierazotia, ze sinestuko bazan Elexa Santan, biar izan zala Espiritu Santua etortia; bada, guk artu dogun ezkeru Espiritu Santua Bautismo Santuan, sinastu biar dogu zauritu ta azotadurik dagoanori dala Jangoikoa<sup>4</sup> berbera. Arritu ta mirariz bete biar ginakez; baña sinastu biar dogu, konfesatu biar degu esklabo zital bat legez<sup>5</sup> dakuskunori, zauriturik dagoanori dala arako Jangoiko Angeruak lurreraño makurturik adoratzen dabena.

<sup>1</sup> Ostein erantsitako atalburuak.

<sup>2</sup> Ostein zuzenduta: *dagoana* > *dagoanori*.

<sup>3</sup> Idem: *misterijoa* > *misterijoau*.

<sup>4</sup> Idem: *Jangoiko* > *Jangoikoa*.

<sup>5</sup> Ostein aldatuta: *eginik* > *legez*.

*Dos.*– Baña oraindion bere arrituago ta mirariz betiagorik ge[ratu]lko gera, begiratu nai badogu zegaitik ainbestera humillatu nai izan (...). Itandu egizazube Isaias Profetiari zegaitik dagoan ain zatiturik, ain zaur[iturik, eta] erantzungo dizu, gura pekatuagaitik. *Ypse autem vulneratus est propter in[i]quitates nostras, atritus est propter scelera nostra.* Itandugiozue Aita Betiko edo Etern[oari] zergaitik nai izan zuen ain gogor azotadu zien bere Seme maitia, eta esango dizu zura pekatuak zauritu dabela. *Propter scelus populi mei percusi eum.* Onexek benetan arritu ta mirariz bete biar gaitu. Auxe benetan beti euki biar dogu gere gogoan, bada, emetik ezautuko dogu ze kastigu merezi dogun geura pekatuakgaitik, eta ikas[i]lko degu pazienzija eukiten Jangoikoak pekatuakgaiti bialduten deuskuzan gatx, neke ta lanetan. Auxe da S(a)n Pablo Apostoluak Hebreoarrai ziratsena: Gomuta egizue zelako gatxak irago zituzan Jesukristok, dirautse, pazienzija galdu eztagizuen. *Recogitate etc.* Auxe berau da esan gura neuskizuen: Jesukristok bere Pasinon irago ebenetik ezaututen da pekatuaren anditasun eskergia, eta anditasu[n] onetatik ikusten da ze txikijak dirian Jangoikoak bialduten deuskuzan gatxak; eta ezauera onek garoaz mun[duan] jazoten jakuzan neke eta lanak pazienzija ta pozik eraotera.

*Tres.*– Egija da; Jangoikoak gura izan baleu, bere berbiaren indarragaz atera al gengizan gura pekatuetatik bere Seme ma[i]ltiari ainbat pena, neke ta zauri artuerazo baga. Baña gura izan zuen modu onetan egin gura erredenzinoia obeto eta obeto ezagutu gengijen pekatuaren ikaragarrizko astuntasuna, ezauera onegaz bildurturik azartu ez gaitazan geure ganian bere pisu eskergia artutera. Benetan ezta ezetan ain ondo ikusten zelakoak dirian pekatuaren gatxak, Zeruko Erregiari iragoerazo eutsezan neke, zauri eta tormentuetan baño. Andijak dira pekatuak munduari ekarri dautsezan gatxak: Zeruba zarraturik geratu bazan, Urolak luur guztija estaldu beben, Sodoma ta Gomorraren ganian Zerutik sua jatsi bazan eta guztijak erreta, kiskildurik itxi bazituan, eta beste gatxik munduan badogu, pekatuaren egikerak dira. Baña au guztijau zer da, one[elk] guztijok zer dira... Jangoiko benetako bat esklabo zital bat bezela azotez zatiturik ikusijaz? Eta zelako krueldadiagaz! Gura badogu azpiratu pekatuaren astuntasun ikeragarritzkoa, begiratu biar degu ondo Kurze ta Kalbarijora. Bada, onelan tratetan bada inozente ta santua, zelan tratauko da pekatuz beterikoa? Pekatuaren antza artutia bakarrik bada asko bere Seme maitia ain gogor kastigetako, zer izango da bere denpora guztijen pekatuan sarturik egon danagaz?

*Cuatro.*– Eskritura Santuak Erregiaren egikera edo istorijako laugarren libruko irugarren kapituluaren ifinten dauz gizonaren gogora etorri al litakian pensamenturik ikeragarriena, eta da: begiraturik Moabgo erre-

giak bera ta bere jente guztija egoala estura andijan euren animak salbatzeko esperantza бага, alde guztietatik zerkaurik egozala Israelgo exerzituagandik, igon zuen bere murallarik altuenera, eta arturik bere seme nagusija, il edo sakrifikadu zuen Israelgo exerzitu guzijak ekusela; bildurtu ta arriturik Erregek egin zuen sakrifizioakin, altzau zuen euren zerkoa Israelgoak, libre geratuten zirala Moabgo errege ta basalloak. Antz eta irudi andi bat dauko onek gaur Ama Elexa Santak Jesukristoren<sup>6</sup> Pasinoian zelebretan daben misterijo andijagaz. Zeguan mundu guzija al[de g]uztijetatik zerkaurik Luziper gura etsaiagandik bizitzaren esperantza bagarik, ez amenaz[etan] genduzela gorputzeko eriotzagaz, baite ere animakoagaz; baña urrikariturik, Ait[a Be]ltikoak entregatu<sup>7</sup> zuen bere Seme bakar maitia erijotzara, Luzi[per] gura etsai [ma]darikatuaren<sup>8</sup> eskuetatik libratzen ginduzela betiko galduak izan ez gintezan. *Sic Deus dilexit mundum ut filiū suum [un]igenitum traderet.* Orra, Kristinauak, egun oneta[n] Ama Elexa Santiak gura begijen aurrian ifiniten deuskuna, sermoi, prozesio ta beste eglun] onetako ibilera guzi oneitan ifiniten deuskuzala gura gogoan Jesus maitaren<sup>9</sup> pasino ta [eriotza gogorra, ezautu dagiguzen pekatuaren ikaragarritzko kaltiak ta gura animari dakarriozan gatxa[k], ezauera onegaz euki daijogun gorroto andi bat, gorroto onegaz [ur]ten daigun pekatuaren azpitik, onelan aurkitu daigun bere pasinoaren frutua. Abe Maria.

#### TEXTUS UT SUPRA

Jangoikoak Zeruak<sup>10</sup> ezerbe[r]jeztatik egin zizala, Eguzkija, Ilargija ta izarrak argiz jantzi edo apaindu zizala, bakarrik bere itzaren indar edo sendotasunegaz, ezta zer miraritu, bada, dira gauza oiek bere anditasunari datorkiozan obra edo egik[er]ak; baña Jangoiko bat bera bakarrik izanik i[n]mortal edo ilezkorra<sup>11</sup>, eriotzia gustatzera elduko zala, au da gauza bat gizon [ta] Aingeruk sekula ezautuko eztabena. Dedar egin nezake Jeremias Profetarekin: Arritu zai[te], Zeruak, gauza bildurgarrijo-nekin! Guazen esatera al dedan arintasanakin.

*Cinco.*– Azkendu (...)ik arako afari misteriooa bere Dizipuluakin ostegun santu gabian, non erakut[si zion g]lizonari bere amudijoaren

<sup>6</sup> Ostean zuzenduta: *Jekristoren* > *Jesukristoren*.

<sup>7</sup> Ostean aldatuta: *biraldū* > *entregatu*.

<sup>8</sup> Ostean zuzenduta: *[ma]darikaturen* > *[ma]darikatuaren*.

<sup>9</sup> Alternantzia: *maitia* / *maita*.

<sup>10</sup> Geuk zuzenduta: *Zerueak* > *Zeruak*.

<sup>11</sup> Ostean zuzenduta: *ilkorra* > *ilezkorra*.

anditasuna, ematen ziola bere gorputz<sup>12</sup> preziosoa janarizat ta bere orola edarizat, onela geratuten zirala kunplidurik Lege Zarreko figura ta zeremonina guztijak, ezauturik eldu zala Aita Betiko edo Eternoak dekretadurik eukan denporia, nai izan zuen preparatu orazino largu betegaz, onelan erakusten zigula nola preparatu biar degun gera eriotzarako. Baña eriotzara partidu baño lenago<sup>13</sup>, nai izan zuen bere Ama maitagandik despe[di]tu eta artu azkenengo bendizioa, esaten ziola: Nere Ama ona, eldu denporia, A[ita] Betiko edo Eternoak ifiniko denporia egin din gizonaren osasuna; arr[a]zoia da obedezitu dezadan Aitaren borondatera, eta alan nator zu despeditzera ta zura bendizioa artzera. Jesus maitia laztan dezuen kriaturak, begiratugizue nolako sentimentuak artuko zuan Ama errukitsua[k] notizia trista au entzun zuenian. Guztija negarrez beterik, etzin zan Seme maitaren oñetara eta esan zioz[k]lan sentimentuz beteriko errazoiak<sup>14</sup>, esaten ziola: Jangoiko guziz Altua gauza guziaren Kriadoria, egija da zarela neur[a] azaleko frutua gizon zaren partez, baña begiraturik zarela bere Trin[id]adeko Bigarren Personia Aita Eterno ta Espiritu Santuagaz izaite bat eta bardina daukazuna, ezautzen det nazala zura sierba edo kriadia; obeditzen det Aitaren borondatera. Nira penarik andijena izango da zeugaz batera neu ez iltia, eta ezpada posibla ni zugaz batera Kurzian iltia, egin naizu zeura penaren parte. Eta ezauturik eldu zala bere Seme maitaren denporia, eman zion bendizioa. (\*)<sup>15</sup> Aurkitu lezake dolore andiagorik ama maita batentzat, bere seme maitia ikustea urteiten eriotza kruek batera<sup>16</sup> baño? Esangidazue, zuek ama zarenok ta zuen semiak maita dozuenok, nolako izango litzaten zuena, eta lagun egidazue negarrez Birjina Mariak euki zuena. (\*)<sup>17</sup>

*Seis.*— Grezijako destruzioan bata bestiaganik despeditze-orduan ilda geratu baziran aizta dama bi kautiba joateko despeditze-orduko azkeniko laztanian, historijak dirauskona bezela, zer i[z]ango zan ama ta semerik munduan izan ta izango diran guztien artian maiteenak despeditu ziranian? O Ama Santisima, errazoa andijakin esango dezu beg[il]ra daijela bideazkoak, baldin badago zure doloriagaz konparatu aleien dolorerik! *O vos omnes...!* Nai dozu, pekatarija, Ama do[lo]rez betia alibijatu? Urtengizu pekatutik, bada pekatuak ifin[i] dau ain tristuraz beterik.

<sup>12</sup> Idem: *gor* > *gorputz*.

<sup>13</sup> Idem: *baña lenago* > *baña eriotzara partidu baño lenago*.

<sup>14</sup> Alternantzia: *arrazoi* / *errazoi*.

<sup>15</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu albo ohar hau transkribatu: *Ez dago miñik (<berbarik) Amaren biotzian*. [Aurrerago:] *Berba one[e]k ifini eben sentimentua, erakutsi...*

<sup>16</sup> Geuk zuzenduta: *eriotzara kruek batera* > *eriotza kruek batera*.

<sup>17</sup> Atal horretako amaiera oharra: *O despedida!*

Geratu zan Ama piadosia beste emakume<sup>18</sup> piadosa batzukin; eta urten zuen gura Salbatzailliak, Judas ez baña beste Dizipuluakin Olibeteke mendira, non ortu<sup>19</sup> santu bat nora kostunbra zeukan orazino egitera joatia. Apenas sartu ta puska bat bere iru<sup>20</sup> Dizipulu maitakin alderatu zan orazio egitera, idigi ziran tristura ta larritasunaren atiak, bere Pasino kruelen aurretiko sentimentuak, golpez tormenta ta itsas andi bat etorri doiena bezela, laster Jesus maitaren animara iragoten zirala, Dabid Profeta Erregiak esan zuena bezela. Eta alan, beingoan azi zan agoniñako larri itzaltsuak sentitzera, esaten zuela: Triste dago nira anima eriotzara arte. Nola, Jesus maitia, larrituten zara erakutsirik orain arte guztijan gizonaren osasunagaiti daukazun<sup>21</sup> e[glarri andija? Baña, ai pekatarija, aditugli]zu ondo eztinoiala bildur dala edo larri dagoala eriotzagaitik, ezpada eriotzara arte, onelan adierazoten digula bere sentimenturik andiena zela ikusi edo ezaututia anima askok gurako ez zuela aprobe txatu bere Pasinoiak. Onegaitik, il biarririk larrituten dau Salbatzaillia. O pekatari Jaunaren Pasino Santuko meritu andijaren balsamo osasuntsuagaz balijatu eztezuna, begira nolako larrita[su]nlan ifinte[n] dezun Jangoikoaren Semia! Baña, o Jaunaren ontasun ta miserikordija neurribagia! Erakutsi zuen estura ta tensio guzjetan oraziora jua gintezela, ta orain azkenengo orduan erakusten deusku bere exe[n]ploakin. Paratu zan orazio egitera arri gogor baten ganian, zein bigundu zan argizei bigun bat bezela ezautzen zuela bere Egilia, geratzen zirala bere belaunaren<sup>22</sup> señaliak, Beda beneragarriak dirauskuna<sup>23</sup> bezela. O bijotz arri gogorrek baño ere gogorragoak! Noz bigunduko zerade Jaunaren deijetara? Eta ez bakarrik belaunbiko paratu zela dirausku S(a)n Mateok, baita ere auspaz lurrian jarri zela.

*Siete.*– Nor ezta mirarrituko ikusirik Aita Eternoaren Semia gura pekatuakgaitik au[s]paz lurrian jarririk? Nok, Jesus maita, ifini zaitu orrela<sup>24</sup> azpiraturik? Isaiasek erantzungo dizu zura pekatuak azpiratu dabela. Izan leite atrebimentu andijagorik au baño? Onelan jarririk Zeru ta Lurra-  
ren Jabia, asi zan orazio egitera, esaten ziola: Aita, posible<sup>25</sup> bada, irago bidi nigandik kalix garratzau. Aita S(a)n Leon gloriosoak dirausku bere erijotzen bildurak, zein dan gauza naturala, esan erañ ziola, aunke bes-

<sup>18</sup> Geuk zuzenduta: *emekame* > *emakume*.

<sup>19</sup> Jatorrizkoan: *bortu*.

<sup>20</sup> Ostein erantsita.

<sup>21</sup> Ostein aldatuta: *erakatsi dezun* > *daukazun*.

<sup>22</sup> Idem: *bnaren* > *belaunaren*.

<sup>23</sup> Geuk zuzenduta: *diriausuna* > *dirauskuna*.

<sup>24</sup> Jatorrizkoan: *borrela*.

<sup>25</sup> Alternantzia: *posibla* / *posible*.

te aldetik zeguan sendo Aitaren borondatera. Baña esan lezake S(a)n Hilariogaz, esan nai izan zuela pasatu zezala bere Pasinoaren frutua gura animetara. Orazioau egiten zegoala, artu zuen Jesus maitia ain estura ta larri andijak, ze sarturik kongoja onetan, bota zuen bere gorputz guztitik odolezko izardi andija, ze bere dibinidadiak jagon ezpalua bere humanidadia, bertan ilik geratuko zan. Zer? Odolezko<sup>26</sup> izardija Jesus maitiak? Eta lurreño? Baita misterio andijakin, adierazoten euskula nolako borondate andijagaz emoten zuen arantza, azote ta untza gogorrak atera baño lenago; bai bere gutxi eretxolako<sup>27</sup> bakarrik begijekaz negar egitia gizonaren galtzaia. Zer izango da, pekatarija, odolezko baño osasuntsu onek garbitzen ezpazaitu? (\*)<sup>28</sup>

*Ocho.*— Postura onetan geratzen zala Salbatzaillia, Judas traidoriak urten zuen prisa andijakin Eskriba ta Farisioetara, zeintzuekaz aurreko egunian egin zuen bere Maisuaren tratua ain prezio bil ta bajuan, zein izan zan ogetamar diru, esaten ziola ura zela denpora preso artzeko bere Maisua, bada, zegoala Getsemaniko ortuan bere Dizipuluakin. O Dizipulo traidoria! O Judas aleboso! Zeru ta Lurraren Egilia, zura Maisu nogandik ainbeste ontasun artu dozun, ain prezijo bajuan saltzen dezu? Baña, Kristaia, Judasen traizinoak miraritzen bazaitu, nola zuriak andi-  
goa izanik bildurtzen etzaitu? Eginik Judas eskuadroi bat soldaduen<sup>29</sup> kapitai demoninuak baño deungaguen, juan zan bere Maisua eguan lekura, (bada, ordurako irazarririk irugarrenez bere dizipuluak, esaten ziela: Altzau zaiteze ta botagizu loori, bada urrian da ni entregaduko

<sup>26</sup> Idem: *orol / odol*.

<sup>27</sup> Ostean zuzenduta: *eretxola > eretxolako*.

<sup>28</sup> Ostean ezabatutako atalak: *No se haga caso*. [Aurrerago:] *Onelan zegoala gura Salbatzaillia Olibet[ek]lo mendijan bere Aita[ri] glizonaren salbatzinoia eske, orra non etorren Judas aleboso ta traidoria bere Maisu gura Salbatzaillia entregatzera, eginik kapitai, ministro ta soldadu demonioak eurak baño deungaguen, bada, orduko salduta eukan ain prezio bil ta bajuan, zelin dan ogetamar diru. Eta eldurik Maisuagana, esan zion Jangoikoak salbau zizkala*. [Aurrerago:] *Jaikirik irugarrenez, garbiturik bere odol-izardiak, joan zan dizipuloakgana ta lo billaturik, antz andiko itzakin esan zien: Bai, ardura gabe lo eginzazue. Ez due, bada, guztiak lo egiten. Jaiki zaitezte, loori bota izazue. Allegatu Gizonaren Semia eriotzara entregatua izango dana, urrian da salduta naukana. Eta presaturik asi zan ertetzen, eta orra non Judas geztia...* [Aurrerago, buruz behera:] *Jangoiko benetako bat esklabo zital bat legez azotetzatitirik ikusijagaz? Eta zelako krueltasunagaz! Bai, Kristinauak; gura badegu azpiratu pekatuaren malizija, Kalbario ta Kurzean biar degu ondo begiratu pekatuaren astuntasun ikeragarrikoa. Bada, onelan tratatzen bada pekatubage ta santua, zelan tratatuko dabe pekatuz beterikoa? Ain gogor kastigatuten badau Aita Betiko edo Eternoak bere Seme maitia bakarrik pekatuaren antza artu ebalako, zelan kastigatuko dau bere denpora gutzitan pekatu kontinuadu bat izan dana?*

<sup>29</sup> Ostean zuzenduta: *soldaduaren > soldaduen*.

nuena;) eta emon zion laztan traizinoz beterikoa, zein zan adierazotia bere preso artzen etozanai a zala Maisua preso artu biar zuena, esaten ziola: Jangoikoak salbau zaizala, Maisua. Jesus Maisuak esan zion kariño andi batekin: Judas nira Dizipula, zer dakazu, edo zer egiten zatoz nigana? Begiratu zazu ondo zer egiten dezun Jangoikoaren Semia orrellan saltziagaz; biortu zaite, bada, oraindio bago, zeuk gura badozu, erre-medio. Ez auturik Judasen gogortasuna, biortu zan beragana etozan soldaduetara eta esan zien: Noen billa zatoze ona? Jesus Nazarenuaren, erantzun zien. Ba, neu naiz, esan zuen Jesusek, ta onegaz batera jausi zan kanalla guztija lurrera. Altzaurik laster Jaunaren prometimentuz, barriro esan zien: Noren billa zatoze? Jesus Nazarenoaren. Esan dizuet neu naizala. Eta emanik lekua artarako, kanalla guzijak ezarri eutsezan eskuak txakur amurrutua<sup>30</sup> bezela Jesus maitari...

*Nueve.*– (\*)<sup>31</sup> O neura Jangoikoa! "Neu naz" bakarrik erantzunegaz jausi ziran lurrera, eta beste "neu naiz" batekin permititzen dau preso artu daijela. Bai, Kristaoa, eta ezta zer miraritu; bada, lenengo "neu naiz" esatiagaz erakutsi zuen bere dibinidadiaren poderia. Neu naiz, dijo lenengo erre[s]puestan, neugandik izaitia dedana, eta kriatura guzijak nigandik artzen dabena; neu naiz Lurra guzija odolagaz<sup>32</sup> tapatu nebe-na; neu naiz arako Jangoiko Zerutik biralduko zuagaz erre ta kiskeldu<sup>33</sup> nituana<sup>34</sup> Sodoma, Gomorra eta Pentapolikoa pais ederrak. Ni naiz, nai badet, ezerbereezera biortuko zaizkidana, baña eztet nai egin, bada, naiz Jangoiko gizon egina eta gizona erremedijatzera mundura etorrija; naiz Bildots manso munduko pekatuak kentzera etorri naizana, eta alan itxi biar naiz sakrifiketzera. Erdue, estu naizue, bada, orain da zuen denporia eta Infernu[ko] Demoninoaren poderioa. (\*)<sup>35</sup> Eta arturik Jesus gura Salbatzailia are[e]k gizon madarikatuak, estu ta amarratu zien onetarako preparaturik eukezan kordelakin; eta onela amarraturik, batzuk tiratze[n] zien aurrera, beste askok atzera, onelan golpe andijak arrarazoten ziozkala piedade bage, txakur il bezela eroaten ziela arrastaka, sartu ziran Jerusalemenean ziuadade guzija alborotatzen zuela. Esaten zien guztiak: Au da bost egun orain danian Jerusalemenean biba andijakin sartu zana? Kapa ta erramuak iraoko zan lekura botaten ziozkana? Bai, au da,

<sup>30</sup> Geuk zuzenduta: *amurruatua* > *amurrutua*.

<sup>31</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Bi gauza bata bestigandik diferentiak miraritzen nue: bata, zure poderioarena, dibinidadearen aldetik; bigarrena, humanidaderenetik, lelekoekin desegiten dituzu...*

<sup>32</sup> Geuk zuzenduta: *ogolagaz* > *odolagaz*.

<sup>33</sup> Alternantzia: *kiskildu* / *kiskeldu*.

<sup>34</sup> Ostein zuzenduta: *nuena* > *nituana*.

<sup>35</sup> Esaldi horren albo oharra: *A que es el sablazo de Pedro*.



erantzuten zeben arefelk gizon madarikatuak; baña ezautu dabe gaizkin edo maletxore andi bat dala, erantzuten zien. O min madarikatuak! Nola, Jauna, eztezu Zerutik biltzen sua kastigatzeko ain min madarikatuak? Baña, Kristaoa, onek miraritzen bazaitu, nola zura pekatuak izenik andijagoak miraritzen etzaitu? Zenbat bidar adoraturik Elizan, bost egun baño lenago zura pekatu andi ta loijakin Bildots manso au Judijoak baño bere deungago tratatu dezu? Eta onek miraritzen etzaitu? Begira, gero, zura gaiñera kastigo andijagoak jausi eztitezan.

*Diez.*– Onelan amarraturik eraman zuen Jesus Anasen etxera; eta aunke etzan urte artako pontifiza, zana legez Kaifasen aitagierraba, eta bidian zeguana legez, eman gura zien gustuau. Eta eseririk, arrotasun ta so[ber]bija andijakin itandu zion bere dotrina ta dizipuluagaitik. Erantzun zion humiltasun andi batekin: Nik beti predikatu det tenploan ta publikuan, isilik eztet ezer esan, eta alan preguntatuzazu entzun didenai. Errespueta onekin batera bere sierbo madarikatu batek altzau zuen bere esku madarikatua, eta jorik bere aurpegi ederrian, bota zuen lurre-raño. Jauna, nolako pekatuak dira niriak bada, ain krueldade andijakin erori due lurrera? Nira amoriak ainbestera humillatu zaitu? Begira, pekatari, nola arako Job Santuak bere indarraren kontra Lurraren ganian ezin emon inok leikiana<sup>36</sup> esan zuena dagoan eskla[bo] baten golpiak lurre-ra azpiraturik. Bildurtu zaite, Angeru Santuak, ikusirik gauza arrigarrija! Mututurik dagoz, zer egin ez zer esan eztakijela! Bañ[la], zergaitik Jesus maita ainbestera humillatu nai dezu? Zer gizonagandik esperatzen dezu orrenbeste amorekin? Nola eztira urratzen gura biotzak? (\*)<sup>37</sup>

*Once.*– Ez zuen gura Salbatzailiak egin beste gauzarik. Amudijo andi batekin begira[tu] gizon gezto oni, esaten ziola: Gaizki berba egin badet, esangidazu zergaiti; baña ondo egin badet, zergaiti onela tratatzen nozu? O Jesusaren humiltasuna! Nok usteko ez zuen Jaunak Zerutik bialduko ez zuela erre zin gizon madarikatuau? Beste denpora baten agindu zuelako Jeroboanek Profeta bat preso artzeko, bertan besoa igartu bajakan? Nok esan ez zuen orain beste ainbeste jazo ez zala? Por bentura gitxiagokoa da gizon madarikatuonen atrebimentua? Ez porzierto, baña orain da andijago bere miserikordijaren enpeñua, dino S(a)n Agus(tin)ek...

Anasetik eroan zuen Kaifasenera, non egozan begira Eskriba ta Farisioak, Salbadoriaren begira, arturik testigu falsoak eriotzara Jesus kondenatzeko. Itandu zion Kaifasek baldin bazan Jangoikoaren Seme bizija. Entzun zuenian Jesusak Jan[goil]koaren Izen Santua<sup>38</sup>, adonatu

<sup>36</sup> Ostean zuzenduta: *leikian* > *leikiana*.

<sup>37</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Humildadezko errespueta onek ez zuan nonbait ondo artu beragatik bere (...)*.

<sup>38</sup> Ostean zuzenduta: *santu* > *santua*.

zuen eta erantzun: Zeuk dijozu neu naizala, ta neu naiz. Inkomodaturik Kaifas errespuesta onegaz, esan zuen: Blasfemadu dau gizon onek, eztegu testigo biarrik. Eta zuek zer dinozue? Eran[tzun] zien guztijak: Eriotzaren duin du, il dilla Jesus. Onela erantzuten dezu, Kristaoa, pekatu egiten dezunian? Onela juramento falso...? Onela murmurazinoakin<sup>39</sup> kreitua lagunari kentzen dezunian? Onela itz loi, ipun loi, kantu desonestukin proximuari eskandalua ematen diozunian?...

*Doce*– (\*)<sup>40</sup> Baña etzen geratu euren gogortasuna, bada, len gaiñera eman zizkin tratamiento gogorra, itz gaizto, golpe afrentoso ta txu euren ao madarikatutik bere aurpegira bota ziozkazanagaz, arik ezin geijago eginik euren etxetara juan arte, entregatzen ziela soldadu madarikatuaren eskuetara, sartzen zebela presondegi atzitu ta ustel baten. Ain ziran andijak injuriya, tratametu geztoak Jesus maitari gau onetan eman ziozkanak soldadu madarikatuoiek, ze dijo S(a)n Jeronimok, baita beste kontenplatil[bo] batzuk ere, eztirala jakingo Juizio finalgo egunera artian. Andijlak] ziran penak emon erain ziozkanak Salbatzaliari, baña oraindio geijago sentitu zuen bere Dizipulo maitiak bera ukatzia. Eta zergaiti<sup>41</sup> uste dezu jausi zala Pedro pekatu onetan? Ez zuelako egin Maisuak esan ziona, etzalako orazioan egon, larregi beragan fijaturik peliburura joan<sup>42</sup> zelako. Eta nok ifini zuen estura onetan? Zerbitzailla edo emakume atia idigitzera etorri zan zantar batek. Emakume onek beste Eba bat bezela tentatzen du beste Adan berrijaue eta aiztu erain zion obligazioa. Jausi zan Pedro pekatuan baña, apenas begiratu zion Maisuak, urten zuen kanpora ta negar egin zuen; lotsatzen da Pedro, begiratu Maisuari, esan ziola beste guztijak eskandalizazen baziran ere, bera etzala eskandalizatu, ta lotsa santuonekin bere pekatuaren damuak urratzen zion biotza. O zenbat gauza era batera etorri ziozkan Pedrori bere pensamintura! Akordatzen da bere pekatuaren, baña ez arako pekatari geztoak bezela, euren pekatuak burura ekartzen diela eta ezin berriro eginik, eure[n] biotzian gusto loijak artzeko zerbitzen diela, non ta nogaz egin zituen akordaturik erre ta abrasatzen dirala. Akordu madarikatua gizonaren biotza pozoitzen dabena berrizaturik euren antxinako pekatuak gustu igaroakaz<sup>43</sup>, Jangoikoa obligatzen diela esatera oiekgaiti beste denpora baten beste pekatarioie[k] bezelako madarikatuakin esaten zuena: Zer-

<sup>39</sup> Geuk zuzenduta: *murmurazinoakin* > *murmurazinoakin*.

<sup>40</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Eta ezin sufridurik ainbeste humiltasun, golpe ta txu geztoaka asi ziran, arik eta ezin geijago eginik soldaduekgana entregadu artian, non...*

<sup>41</sup> Ostean zuzenduta: *gaiti* > *zergaiti*.

<sup>42</sup> Alternantzia: *juan* / *joan*.

<sup>43</sup> Idem: *irago* / *igaro*.

gatik akordazen zare zeuen antxinako pekatuaren? Zergaitik publikatzen diozute<sup>44</sup> lotsa bage zuen torpezak<sup>45</sup>, egiten dozuela<sup>46</sup> zeben konbersazioaren motibo? Orregaiti esango dizkizuet entregatuko zaizkidela zeben etsaijaren eskuetara. Lujurioso, bengatibo<sup>47</sup>, murmuradore proximuaren kreitu ta onra zura min madarikatuakin kentzen diozuna, konbersazio inpuruoak txistetzat kontatzen dizuna, bildur izan zaite, bada, zuri obetuago jausiko jatzu maldizioa Judijoai baño; begiratugiozu Pedrori akordatzen dala. Baña, zertako<sup>48</sup>? Egunian-egunian negar ugari egiteko. O Jauna zenbat on ateratzen dizun Pedroren<sup>49</sup> pekatuakin!

*Trece.*– Iragorik ostegun<sup>50</sup> gaua soldadu madarikatuakin, barijeko goizian barriz egin zue[n] batzarra Eskriba ta Sazerdoteak eriotzara Je[sus] entregatzeko. Baña ez eukeena legez fakultaderik inori eriotza emateko, eraman zuen Pilatosegana; examinaturik Jesusen kausa eta ez aurkiturik beragan kausarik, libratu nai izan zuen, esaten ziela: Nik eztet<sup>51</sup> gizon onegan au[r]kitzen. Eta gura izanik libratu Pilatosek, artu zituan onetarako mediyo asko. Bat zan bialtzia Herodesgaña, zein asko alegratu zan uste zuelako milagroren batzuk egingo zituala bere aurrian, eta bai bere ekijalako zala errege madarikatuonek degollatu zuen Bautistaren adiskidia; baña ez zion ezer erantzun, ez barbarik egin Salbatzailiak Herodeseri, eta trata zuen eskomulgadu bat bezela Bautista Santua degollaturik eginiko pekatuakin. Begiraturik Herodesek ez ziola itzi[k] egiten, biraldu zuen atzera Pilatosegana jantzirik tunika zuri bat zoro bat bezela. Ezauturik Pilatosek pensamento onek eriotzatik Jesus libratzeko balijo ez ziola, artu zuen barri bat, zein zan kompetenzijan ifinitia Jesus Barrabasekin, esaten ziela Pilatosek Judeguai: Ondo dakizue nola Judeguren artian dan kostunbra edo oitura Paskuaren solemnidadian preso bat libratzea; zein nai dezue libradu dezadan, Jesus ala Barrabas lapur famosua? Ea arima<sup>52</sup> debotak, alegrau zaiteze, bada, duda bage esan lezake Jesus maitiak libre urtengo duela. Baña, o itsutasun ezin esplikatu lezakena! Guztijak altzau zuen deadarra<sup>53</sup>: Ez Jesus, ezpa-

<sup>44</sup> Ostean zuzenduta: *dizute* > *diozute*.

<sup>45</sup> Geuk zuzenduta: *zeben torpezak lotsa bage zuen torpezak* > *lotsa bage zuen torpezak*.

<sup>46</sup> Ostean zuzenduta: *dozuezala* > *dozuela*.

<sup>47</sup> Geuk zuzenduta: *bengantibo* > *bengatibo*.

<sup>48</sup> Idem: *zertzako* > *zertako*.

<sup>49</sup> Ostean zuzenduta: *Pedro* > *Pedroren*.

<sup>50</sup> Ostean erantsita.

<sup>51</sup> Geuk zuzenduta: *eztek* > *eztet*.

<sup>52</sup> Alternantzia: *anima* / *arima*.

<sup>53</sup> Idem: *dedar* / *deadar*.

da Barrabas; libratu bidi Barrabas, il bidi Jesus Nazarenoa. Nor ezta mirarrituko Judegu madarikaturen kontra? Baña, pekatarija, biortuzazu zeugana mirariori. Begiratu zaitetz Jesus ta Diabruaren erdijan, Jesusen seme izateakin grazijagaz eta Demonioaren esklabo<sup>54</sup> pekatuagaz; eta zer eskojitzen dezu pekatu egiten dizunian? Eskojitzen dezu [Jesus] ala Barrabas? O gizonaren malizija ikeragarrija! Apenas pekatu egiten dezun, eskojitzen dezu Barrabas ta izten dezu Jesus: il bidi Jesus, izen bidi kruzifikatua, nik egin dezadan nai dedana. O pekatarijak, begiratuazue onetara, pekatuan jausi nai ezpadezue!

*Catorce.*— Ikusirik Pilatosek medijo onek ere ez ziola balijo Jesus libratzeko, artu zuen beste bat gizonen pensamentuen jausi al zin gogorena, zein zan azotatzia gura Salbatzaillia. Olgura andi batekin sei borregu kruelek, euren erdijan Bildots mansua, kentzen dijuez ber[el] janzijak edo soinekoak, eta orra non billoz-billozik ifini zuen, lotsaririk andijenian ainbat milla jenteren artian, lotutzen ziela arako Jangoikoa metarri edo kolumna sendo baten kontra ondo amarraturik. Abijetzen dira euretatik bi azotetan; ematen deutsez azotiak azotiaren ganian, eta egiten dituez baltzune ta orolbatu ikeragarrijak. Izerditzen dira one[elk], euren besuak daukez adin edo podere бага. Alderatzen dira one[elk] bijok eta artzen dabe one[el]n lekua beste bik; emoten deutsez golpiak golpeen ganian, urratutzen dituez lenengoak egli[n]iko baltzunak ta orolbatuak. Abijetan da pilloka urtaitzen orola gorputz guztitik, jausten dira aragi-zatijak lurrera, egiten dira zulo andijak gorputzian, eta lur guztija dago bere odolaren erretenez beterik. Eztauke bigarrenok bere adin edo podererik aurrera iragoteko, bada, guztiz dagoz adikatu edo inderbagaturik. Sartzen one[el]n orde besta bi. One[elk] ez zuen jotzen Jesus maitaren gorputza, ezpada bestiak eginiko zaurijak; emoten dautsez azotiak azotiaren ganian. Egiten da gorputz guztija zauri andi<sup>55</sup> bat, ezta agiri alde guztietatik azur-aragi baño, ezteuka gizonaren antzik bere, Isaias Igarliak esan zuena legez. Zuaze a[u]rrera gizon kruek ta errukibagok; baña ezin dezue, borondatea badezue, baña adin edo podererik eztezue. Askatu edo libratu zuen metarri edo kolumna artarik.

*Quince.*— Ain geratu zan argal, ain kaden gura Salbagilia, ze oñen ganian ezin egonik, jausi zan bere odolagaz lurrian eginiko lupetzan. Eldu zaitte pekatarija, ondo begiratuazazu zeura pekatuaren pisua. Begira, begira nola Jangoikoa baten Seme Benetakoa billosik, guztija zauritu, zatitu ta birrindurik luze-luze datzan bere odolagaz lurrian eginiko

---

<sup>54</sup> Ostean erantsita.

<sup>55</sup> Idem.

basatzen, jaigiteko indar bage. Itanduzazu antxina Zakarias Profetiak bezela: Ze zauri dira bere gorputzian dakusdazanok? Eta erantzungo dizu: Gogortasun onegaz azotatu nue maita nabela dinuen semiak. Itandugiozu Isaias Profetakin: Nola dauka, Jauna, odolez gorriturik berorren gizatasun edo humanidadiarene soñekoa? Eta erantzungo dizu: Gerra gogor bat euki dot pekatubakin, ta ain izan da sendo ta errutsua nira etsaia, ze ezin aurkitu al izan det indarrrik bera azpiratuteko; ibili naiz lagun billa, baña eztet iñor topatu, bakar-bakarrrik zapaldu al izan det, baña berak ere ara nola ifini nuen, guztijau zatitu ta ezaindu ed[o] itsusirik. Emetik ezautugizu, pekatarija, pekatuaren karga ikaragarrija, bada, zuen pekatuakgaitik ain garrat[z] Aita Zerukoa nirakin<sup>56</sup> aserratu ta irritu bada, zer izango da zubekin? Pekatu antzeko aragija artzia edo aragiz janzirik egotia asko izan bada ni negar ta errukigarri modu onetan ifinteko, zer kastigu jausiko ezta ainbat pekatuz beterik zagozanetan? Izanik ni lora ederrez janziriko arbola ezia, ain modutan isio bada sua nigan, Aita Betiko justiziaren suba, nola erre ta auts biorturik geratuko eztira pekatuz igertuko arbolakin?

*Dieciséis.*– Geratu ziran azotiak, baña ez Judijoaren krueldadia. Eraman zuen preso salara Jesus maitia ta janzi zuen erropa guri urratu batekin, bere buru sagraduan arantzazko koroi kruel bat gogortasun andi batekin sartzen ziozkala. Oi ze doloria! Nor izango da kapaz esplikatzeke Jesus laztanak emen sentitu zuen doloria? Bada, sartu ziozkan punta zorrotz askokin buru guztija partitzen zuela, bere aurpegi eta begi eguzkija baño ere argijagoak burutik etorren odolakin ilunduten ziela! Zetrotzat ifini zien eskomako eskuan kañubera bat eta onelan burlazko errege janzirik, eseri zuen silla baten errege guziaren erregiakin entremes burlazko bat egiten zutela aiek gizon demoninoak baño ere deungogokak, batek begijak tapaurik jotzen zuela, beste askok burla, barre ta injurijakin tratatu ta esalten] ziela: Jangoikoaren Seme bizija bazera, esangizu nok jo zaituzen. Zek, Jauna, obli[ga]tzen zaitu orrenbeste nigatik iragotera? Nigaitik, Jauna, orrenbeste desprezio? Ez zendun ikusi nola korresponditu ez nendun zura amodijora? Ez zendun ikusi pekatuakin ja guztija galduko nendula? Baña, ze enkantu da niria? Nola atrebitu naiz zu ofensera? Zergaitik, Jauna, ez zengidan kendu bizitza, pekatuakin zu ofenditu baño? Ai Jauna, emen urratzen nira anima; eztet ja zentzunik, guztija faltatzen jat eta gaisoturik nira arima, zura amodijoan nira biotzeko negarrezko urak urraturik<sup>57</sup>, euren presa datoz begijetara.

<sup>56</sup> Ostean zuzenduta: *nira* > *nirakin*.

<sup>57</sup> Idem: *urraturik negarrezko urak* > *negarrezko urak urraturik*.

*Diecisiete.*– Uste izan zuen Pilatosek, negargarrizko postura onetan ikusirik Jesus maita bigunduko zirala Judeguaren biotzak, eta alan atera zuen, esaten ziela: *Ece homo*. Begiratuazute ondo eta bildur bazerade, esaten badezute Jangoikoaren titulua beragantzen duela; begira, bada, apenas dauka gizon-itxurarik<sup>58</sup>. Baña txakur amurratu ta madarikatuak baño ere<sup>59</sup> gizonak etziran asetuten bere eriotzakin baño, eta alan deardar egin zuten "kruzifikadu bidi, kruzifikadu bidi", esaten ziola Pilatose-ri. Ezaturik Pontifizak Eskriba ta Farisioak libratu nai zuela Pilatosek, eta alan esan zien: Libre izten badezu g[il]zon au, etzara izan Zesarren adiskida. Bildurturik amenaza onekin, munduko koroia galdu ez zeijen bildurrakin, ematen deuta eriotzako sententzija Jesus maitari. Baña lenago esan zion: Ara emen zuen Erregia. Kenduzazu; kruzifikatuzazu, erantzun zeuben Judijo madarikatuak; betor ardura bage gura gañera bere odola eta gura semien gañera. O jenerazio madarikatua jazotzen jaken zeuben semiai maldizio bildurgarriau! Azpiraturik Pilatos erreinua galdu ez zeijen bildurrakin, ematen du sententzija.

*Dieciocho.*– Entzun zuen sententzija, eta aunke<sup>60</sup> injusto ta kruela, obeditu zuen bildots manso bat bezela. Kendu zien burlazko erregiri bezela ifiniko<sup>61</sup> jantzija, eta apaindu zuen bere jantzijaz ezaunago izan zidin<sup>62</sup>, bada, ain itsusirik zeguan Salbatzailia, ze ezin ezautu zizaken bere jantzitik ez izanik. Ekarrri zizan<sup>63</sup> iru kurze beragaz batera beste lapur bien erdijan<sup>64</sup> joan zezan, onela geijago estaltiarrik bere famia, edo injurija geijago egiten ziela. Ifini zuen Kruze astuna bere gañian, entzuten da pregoia, eta urten zuen Aita Eternoaren Semiak Jerusalengo kale-etatik Kurze astuna sorbaldetan zuela lapur bijen erdijen, ainbeste jente, tumultu, soldadu gezoakin eginiko prozesio edo konfusio andi batekin Kalbarioko mendira. Ene enzula maitiak, posibla izango da urtengo duela, kruzifikatua izaiteko Lurra guzija bere odolakin loitzen duela gura pekatuakin? Urtengo du maletxore bat bezela Maria Santisimiaren Semiak kale publikuetatik? O gauza miragarrija sekula gizonaren pensamentuan jausi ez zana! Baña, o gizonaren gogortasuna ikusirik bera eriotzatik libra[t]zeko Jan[goi]ko baten penak, onela ontasunen pensamentu bagarik pekatuan sarturik bizi gura izaitia! Kruze astunaren kansazioakin eta soldadu madarikatuak ematen zuen prisakin ain geratu zan

<sup>58</sup> Jatorrizkoan: *bitxura*.

<sup>59</sup> Ostean erantsita.

<sup>60</sup> Jatorrizkoan: *haunke*.

<sup>61</sup> Ostean zuzenduta: *ifiko* > *ifiniko*.

<sup>62</sup> Ostean aldatuta: *lezaken* > *zidin*.

<sup>63</sup> Idem: *ditue* > *zizan*.

<sup>64</sup> Ostean zuzenduta: *erdija* > *erdijan*.

indargabaturik<sup>65</sup>, ain galdurik, ze pensatu zezaken etzala Kalbariora bizitzakin igongo, eta orregaitik eman zien Simon Zirinko laguntzat. (\*)<sup>66</sup>

*Diecinueve.*– Onelan etorren gura Salbatzailia, eta orra non Amargurako kalia alkarrekin topatu zuen Jesus ta Mariak. Nor izango da esplikatzeko kapaz Ama ta Semeren biotzian aurkituko zan doloria? Emen galdu zeben Zeru ta Lurreko argi ederrak euren klaridadea, emen barriztatu zira[n] Ama ta Semek ordura artian zuen sentiment[ua]. Nolako sentimentuz beteriko itzak esango ziezan alkarri! Nora zatozte, (esango zion Seme maitiak), nigana? Zura doloriak amentatzen du niria, zura tormentuak iragoten dira nira animagino. Zoaz, Ama maita, zeura erretiro edo gelara; ezta konbeni zuratzat, ez zure dignidadeari ez jako toketan, lapur ta gizon madarikatu oien konpañia. Onela baldin egiten badezu, nira pena alibijatuko dezu. Ai Seme maita, esan zion Amak, zu orrela ikusijak ain modutan urratuten du nira biotza ze, Jaunaren esku poderosoak gordeko ez baldin baleu, nira bizitza duda bagarik ez litzateke bizitzakin geratuko. Neura prenda maita, zergaiti diraustezu zugandik igas egin dezadala? Zuk ondo dakizu zu bagarik inora juan ezin nindekela. Nola apartatuko naiz zugandik? A nor legokian zura biotzian<sup>67</sup>! Sartuko banintz, orduan izango ninteke zu kruzifikaduagaz<sup>68</sup> kruzifikadia, zu sepultadorekin sepultadia; zugaz batera edango nezake ozpiña edo binagria, zurekin penatuko ninteke Kruzian eta zurekin ilgo ninteke.

*Veinte.*– Onelan dijo Fr(ai) Luis Granadako beneragarriak, Ama dolorez beterikoak berba edo itz egingo zuela biotzian barruan. Sentimentuz beteriko errazoiakin segitzen zion bere Seme maitari Kalbarioko mendira. Eldu zan Isaak dibinua Kalbarioko mendira, eta apenas eldu zan aiek soldadu madarikatuak kendu ziozkan bere erropak edo tunika; eta zeguana legez oraturik bere gorputzian azotiak eginiko zaurijakin, barriztatu ziozkan guztizko dolore<sup>69</sup> andijak ematen ziozkala. Eta kendurik erropak, agindu zien etzin zilla Kurtzaren ganera; luzatzen ditu bere esku sagra duak, eta krueldade andijakin josten dautsez. Eta lenengoko eskua untze gogorrekin malluko pasatu zienian nerbijo guztijak alde [b]atera egin zuena legez, bigarren besua jostera ziranian ez etorren justo barrenoakin eginda zuenakin; eta berdinduteko tiraturik piedade bage, nerbijo ta azurrak guztiz euren lekutik etera<sup>70</sup> ziozkan. Irago

<sup>65</sup> Alternantzia: *indarbagaturik / indargabaturik*.

<sup>66</sup> Atal horretako albo oharra: *Asi zan pregoia*.

<sup>67</sup> Ostein erantsita: *Zura biotzian > Nor legokian zura biotzian*.

<sup>68</sup> Ostein zuzenduta: *zugaz > zu kruzifikaduagaz*.

<sup>69</sup> Idem: *dolo > dolore*.

<sup>70</sup> Alternantzia: *atera / etera*.

ziran onetara; berdin egin zuen untza andi batekin oin bijak josten zioz-kala. Onela josirik, ifini zien<sup>71</sup> Kruzea enarbolatu edo zutunik, onelan geratzen zala gura osasun egijazkoa dandillika edo esegirik iru untzeta-tik. Iru orduan egon zan esegirik ain pena andijakin, ze bere Aitagino-koak ez zion jaramon, eta bere Ama maita Kurziaren ondoan zeguanak amentatzen zion bere penia.

*Veintiuno.*– O pena, pena guzijaren artian parebagia! O martirio (munduan ordura artian ezagutu etzana), Ama ta Semeren biotzak ordu-ra artian igaroko zuena! Nor izango da, Jesus maita, zura biotzak artuko zuen sentimentua, begiraturik zura Ama maitiak bere biotzian iragoko zituan penak? Eta nolako penia izango zan zuria, o Birjina dolorez bete-rikua! (Nok erakutsi al leike nogino igongo zuen zura biotzeko senti-mentuak, ikusirik ain afrenta andijakin zure sabeleko Fruto gozua ta bedein[kal]tua kurze baten ilten zeguala)? Eta ze errazogaitik, Birjina gar-bija, etorriko dira paretara zeugan eta zeura Seme maitagana, izenik zu ta zure Seme errubakoak, eta eukirik guk errua guzija? Biralduzazu, gu gera zura penaren kalix garratza; errazoia<sup>72</sup> da guk eroan daigun penia, bada, guria da kulpa. Baña, ai Ama maita! Nola gogortu da nira biotza ez sentimentu geijago erakusteko? Beste gitxi inportatzen gauzagaitik izenik ain biguna zuretzat, zura doloriagaitik ez negar egiteko izango naiz gogorra? Postura onetan esegirik Kurzean zegoalla<sup>73</sup>, esan zituan arako zazpi itz misterioz beterikoak, eurretan eskazen ziela Aitari bere etsalijjen parkazioa, iskindu edo prometitu zion lapurrari Zerua, enkar-gatu S(a)n Juaneri bere Amaren kuidaia eta Amari S(a)n Juanena, era-kusten dio Aitari bere desanparua, erakutsi zuen gizonaren salbat[z]lioaren euki zuen egarrija, dijo egin dala gizonaren erremedioja. Eta azke-nian dedar andi batekin esaten zuela (*consumatum est*, il zan): Jauna, zura eskuetan entregatzen det ene anima, azkenengo arnasakin il zan Jesus maita. Il Jesus maita? Nor ezta entzunakin bakarrik bildurtzen? Nola doloriaren anditasunakin ez gera iltzen? Urratzen tenploko beloia edo tapa, eta nola nira biotza penaren andiakin ezta zoratzen? Arrijak austen dira, eta ni izango naiz oiek baño gogorrago? O pekatarijak! O biotz arrijak baño ere gogorragoak! Begira dezagun nola itzaldurik ifin[i] daben Jangoikoaren Semia gura pekatuak. Nor ezta bildurtuko pekatu egitera, pensaturik pekatuak il dabela Jangoikoa?

*Veintidós.*– Bai, Kristoak, il zan Jesus gura erremedijorako. Il da Zeruko edertasuna! Il da Birjiniaren Seme maita! Eta gu bizirik gefra]tuko

<sup>71</sup> Osteen aldatuta: *zuen* > *zien*.

<sup>72</sup> Geuk zuzenduta: *errozaia* > *errazoia*.

<sup>73</sup> Osteen zuzenduta: *Postura onetan zegoalla* > *Postura onetan esegirik Kurzean zegoalla*.



gera aurrera ofen[di]ltzeko? Arima kristaoak, zer Jesus[ek] egin dizute onela tratatzeko? Zer esaten dizu, pekatarija? Oraindio ere nai dozu egon gorturik Jaunaren dei amorosoetara? Bada, nira itzak zugan zurekin ezpad[a]luka indarrrik, nira kexak ain otz ta indarbagakoak badira, nira prendatara<sup>74</sup> irazarri n[al]i ezpozu, begira zer dirautsun, zer itanduten dizun eta nola kexa andijak dituzen Jangoiko beronek, Jesus zugaiti kru-zifikaduak. *Popule meus quid feci tibi*. Neura errija, dijo, zer gatx egin dizut? Biotzeko semiak, nortzuegaiti padezitzen dedan ainbeste pena ta dolore, nere entrañetako semiak, zentzugaitik billozik nagoan eta josirik Kurze gogor onetan, eta milla bizitza ball[di]n) biar balitz emango neza-ken, esangidazue artez: zertan ofenditu zaitu? Zergaitik tratatzen nozu etsai gezto bat bezela? Delituren bat izan zan eternidade batetik zu maita izaitia? Agrabijo andiren bat egi[n] nizun ain izaita noblia emanakin? Ofensia izan zan zugaiti, zu libratzearren nira esku ta kaderak unte gogorrez josten iztia? Burua arantsa gogorrekin eta nere bulerra lantza gogor batekin idigitia zuri dizudan amudijoa erakusteko? Zuri Zeruko atiak idigi ta Glorijera eroateko? *Quid feci tibi?* Esangidazu zer egin dizudan onela tratatzeko. *Responde michi*. Erantzungidazu, zer esan badeukazu, pekatarija. Eta zer erantzun ezpadaukazu, nola benzizat ematen etzara? Nola zura begijak eztira negarrezko iturri biortuten? Nola zura pekatu andijakgaitik ikusirik ilik Jangoikoa eztozu negar egiten? Negar daigun guziok, bada guziok daukagu zergaiti, guztijok ofenditurik daukagu Jangoikoa. *Pecabimus*. Ez, Jauna, geijago pekaturik barriz orainginoak. Eztaukagu zer erantzun beste gauzarik, Jesus maita, humillatzen garela zeugaiña, gura biotzak zuriak diriala. Bai, Jesus maita, zura amoriak garuaz zugana, esaten dizugula sarri ofenditu zaituguzala. Asko da pekaturik, asko itsutasunik, asko zorakerijarik, ez ofensa geijago zura grazijagaz batera, eta oraingoagaitik humillaturik eskatzen dizugu euki daizula gurekin miserikordija... (\*)<sup>75</sup>

#### [HASIERAKO ERANSKETAK]

Ni naiz nigandik izatia dedana, ta guziak nigandik artutzen duena. Ni Lurra Ugoldez estali nuana, ni suarekin Sodoma ta ganeko erriak Zerutiko suarekin erre nituana. Ni naiz, nai banu betiko desegindu zinduzkedana nere dibinida[di]alren aldetik, baña humanidad[er]en aldetik ni naiz zuben pekatuak bizkarrian artu ditudana eta pakiak egin nai

<sup>74</sup> Zalantzazkoa.

<sup>75</sup> Amaiera oharra: *Zeinengatik* = *Norengatik*. [Aurrerago:] *Criada* = *Neskamia*.

ditudana. Baña ez dezue nai. Naiz Bildots mansua. Jaigi zan Jesus orazino egin zuenian, eta ezauturik Judas traidoria urrian zala bere soldadu-patrulla madarikatuakin, juan zan iru Dizipulu maitakgana, ta aurkiturik tristiak lo<sup>76</sup> zegozala, bada etzan zer miraritu begiraturik euren kansa[n]zioa, eta alan esan zien: Asko da lorik, bada, eztagoz guztijak; altzau zaiteze; urrian ni galdu, entregatu nuena etsaijen eskubetan, bada, nauko saldurik. Eta arik laster esnatu zituan beste zort[z]irak, eta entzunik eurak artzera etozan tra[n]pa madarikatuaren bulia, etzan bildurto Salbatzailia, dirausku S(a)n Juanek, ezpada animo andi batekin aurretik edo arindu zuen bere pausua Dizipuluakin batera.

Eginik Judas...

Orañ da nonbait zuben denpora nik padezitu biarrekoa. Ni biar banuzue, emen naukazute, preso artu nazazue, baña itxi nerekin daudenoi<sup>77</sup>. Artu zuben preso gogortade neurribagiaz, lotu krueldade andiaz soka gogorrakin gorputz guztitik bere esku Zeruak egin zitubanak; alako moduan lotu zituben, ezen zañak urratzen zaizka. Eta ikusirik bere trato gogorra, ezin Pedroren amodioak au sufriturik, pentsatzen du defenditzia, eta atef[ra]rik sablia... (\*)<sup>78</sup>

Eldu zan Getsemaniko Ortura bere Dizipuluekaz, eta esanik itxoron leijela puska baten orazino egin artian, eta beragaz batera arturik lagun Pedro, Juan eta Diego dizipulurik maiteenak, asi zan bildurtuten, eta tristurez beterik esan: Triste dago nire arimia eriotzara artian. (\*)<sup>79</sup> Eta puska bat aurreraturik, auspaz lurrian jarri[r]ik orazino egin eben; biortu zan Dizipuluekgana ta lo aurkitu zituzan<sup>80</sup>. Esan eutsan: Pedro, ezin ordu batian alerta egon izan zara? Egizue oraziño tentazinoak artu ez zaizien. Bigarrenez orazino eginik, barriro biortu zan eta orduan bere lo aurkitu zituzan, bada, loak guzti[z] astundurik eukezan, eta errukiturik irazartu bagarik itxi zituzan. Irugarrenez joan zan oraziño egitera, eta agerturik Zerutik angeru bat, konsolau eban esaten eutsala Aitaren borondatia zala gizona Zeruan sartuko bazan, eriotzia igaro biar izatia; eta orazino onetan larriturik, odol moduko izardija bota eban.

Jaigi zan irugarrenez, eta loo aurkiturik orduan bere, esan eutseen: Loo egizue ardura bagarik, ara emen non eldu dan ordua Birjiniaren

<sup>76</sup> Geuk zuzenduta: *logo* > *lo*.

<sup>77</sup> Albo oharra: *Dejadlos a éstos*. [Aurrerago:] *Itxi zaizkiozute nirekin dagodenoi*.

<sup>78</sup> Ostein erantsitako atala.

<sup>79</sup> Testu barruko oharra: *Ojo*.

<sup>80</sup> Ostein zuzenduta: *aurkitu zan* > *aurkitu zituzan*.

Semia pekatarijen eskuetan entregadua<sup>81</sup> izango dan. Jaigi zateze, ta goazan, bada, urrian da ni arerijoen eskuetan ifiniko nabena. Eta orra non Bera berbaz egoala, eldu zan Judas traidoria eskuadroi bat soldaduen buru eginik.

Estuten deutseez bere esku santuak otso gogorra[k], eta korradizu gogorraz esturik, zanak etenduten deutsez odolak urten artian, eta onelan daroe Jerusalemgo kalletatik afrentaz beterik. O ikusgarri miragarria! Esangidazue: eroango balebe erri onetako maisu jauna edo fiela gezto batzuk esku ta gorputza sokaz esturik arrastaka, ze sentimentu artuko etzeunken? Eta igongizu zeure gogoagaz eta begiratugizu Zeruko Erregia zelan zugatik daroen erakutsi ezin leijen modu gogor baten.

Ainbeste golpe, berba astun, txu ta sentimentuzko gauza esaten berantadurik, gizon geztoai eldu jakeen etseera joateko denporia. Eta euren eskuetati iges egin ez leijen, ifini eben soldadu gezto batzuen guardijapian, ta sartu eben kaloboza ustel ta ilun baten, non igaro erein eutseezan ainbeste pena ta neke, zeinda ez dirian jakingo Juizijoko egunera artian, dino S(a)n Jeronimo andijak. Eta andijak bazirian gau atan karzelan igoro erein eutseezanak bere, etzirian ezer S(a)n Pedrok ukaturik bere Maisua artu eban sentimentuagaz.

Eroan eben Kaifasenetik Pilatosenera. Esaminaurik, eztau aurkituten sentenzijarako gauzarik, baña bateti nai izanik iges egin Judeguen eriotzaren eskakizunetik, ta bestetik jakinik Jesus Galileakoa zala, biralduten dau Pilatosek Herodesegana. Poztuten da erregiau uste izanik bere aurrian milagoren batzuk egingo zituzala; baña barbarik bere ez eginik, artuten dau zorotzat, ta burlezko tunika bategaz jantzirik zoro bat ballitzen, biralduten dau atzera Pilatosegana. Erdue, munduen antzekotzat euki zaizentzat banidadez beterik zagozenok, filosifijau ikustera. Eukigizu gitxitzat mundua[n] zure kontra esan aleijen guztija], bada, ez dabe esango gauzarik zure Maisuagatik esan ez ebenik.

Irudi bizija Jangoiko ta gure artian jazo zanena: egoan munduan... Orr[al], Kristinauak, Jangoikoak gugandik gaur atera gure dabena. Jesusen eriotzati erakusten deusku pekatuen astuntasuna, onelan gorroto arturik pekatuari arkantzau dagigun<sup>82</sup> bere pasinoen frutua. Abe Maria...

Egin eben arako afari misterioso...

<sup>81</sup> Idem: *entregadu* > *entregadua*.

<sup>82</sup> Ostein aldatuta: *egin gaitazan* > *arkantzau dagigun*.

## [AMAIERAKO ERANSKETAK]

Kristinau pekatari munduko gauzataraz itsuturik zagozana, gelditu zaite tanga bat emen eta ondo begiratugizu, bada, gaur Jangoikotzat munduak ezaututen dabenari bost egun barru eriotza bat emoten badautse, begira zetan geldituko dirian zure ondasun, anditasun ta gane-ko gauzak!

Ebak Adan legez...

Eta doian bere Maisuari laztan emotera, zein zan esatia beragaz etozan soldaduak a zala Maisua eurek preso artu biar ebena; eta esaten eutsala, Jangoikoak salbau zaizala, Maisua, laztan emon eutsan.

O gizon sakrilegua! O esku madarikatua! Ze erruki gitxigaz loituten dozun Angeruak Lurreraño humillaturik adoretan daben aurpegija! Zer ikusi dozu beragan, ain modutan etxura<sup>83</sup> bagarik ifiniteko Zeruko edertasuna dana? Eseuen: O Aita Eternoa, zegatik urteten eztozu zeur[e] Semien hondriagatik? Itsuturik guztijak Jangoikoaren erresposta santuen argitasunez, jaigiten dira guztijak txakur amurrutuak legez bere kontra, zeingeijagoka joten dabe bere arpegi ederra, isten deutsez begijak, egiten deutsez txu ta gorro andijak. O Jangoikoaren Semien pazienzija! O Angeruen argitasuna! Zelan gelditu da munduen soberbijarik exenplo onen aurrian? Osatu nagizu, Jesus ona, zeure humildadien exenploagaz. Berantadurik geztokerija onetan, biortu zirian euren etxetara goxian goxeti jaigiteko asmuakaz, isten ebela munduko Erredentoria soldadu geztu batzuen eskuetan, zeintzuek ifini eben kaloboza ustel baten, ta euren loa kendutiarren artu eben burla astunak egitia munduko Salbadoriari. Ain izan zirian andijak Jesuseri igaro erein eutsezan penak, ze dino S(a)n Jero(ni)mok ez diriala jakingo Juizijoko egunera artian. O gau iluna ta deskantsu bakua, zeinetan Jesusek ez eben egin lorik, ez beragaz egozanak deskansurik bera penetarren! Ze diferentiak izan zirian maitin orre[e]k Zeruan Ang[e]ruak kantetan eutsuezanetik! Zeruan esaten eutsen: Santua, santua; ta kaloboza atan: Il bedi traidoria. Ang[e]ruak guztijak entzuten zengozienak, zelango sentimen)tua izango zan zuena, ikusirik ain gaizto tratetan ebela kartzelan zeguan zuek ain erreberentzija andijagaz adoretan zenduena! Andija[k] baziran bere soldaduen trabajuak, andijago izan z[ir]lan S(a)n Pedro[ren] ukakizunak.

---

<sup>83</sup> Jatorrizkoan: *betxura*.  
Alternantzia: *itxura/etxura*.

## SERMÓN DE PASIÓN II

[...] Nolako suspirioak izan ziran emen Ama gozoa zuriak! Arren, Ama gozoa, ez [e]zazu irten zere Semiagana, bada, añ dator galdurik ezik, ikusten badezu añ lastimagarriturik, doloreren indarrez geldituko zera illik. Baña alperrik guztia. Mariaren amodioak artzen ditu inder berriak, eta arturik lagun S(a)n Juan eta emakume piadosak, ateratzen da bere Seme nekegarria ikustsera. Baña arako bere Semeren odola ikusi zuanian anbeste gizon geztoen oñ azpian, zer negarrak Mariarenak! O orol prezioso, esaten zuan, Espiritu Santoen obraz nere erraietan formatua gizonen osasunerako! Ezautuko balebe gizonak zure prezioa, zein beste modutan tra[ta]tuko zinduken!

Onela pasatu zan kale batetik bestera, nondik pasa biar zuan bere Semiak, eta ikusirik anbeste penaren erdian, zauritzen zaio bere biotza. Emen ilundu ziran Zeruko argi biak, mututu beren mingaňak, bakarrik gelditzen zirala beren biotzak pena geago alkarri emateko. O nolako kexa amodioz beterikakoak eman dizkan Jesusek bere Amari! Zerk ekarri zaitu, Ama maitia, gela santotik otso gezto oien artera? Ez dezu ezautzen zu ikustsiak<sup>1</sup> berriz penaz betetzen duala nere biotza? Zoaz, arren, zure gelara. Baña, ai zeñ dolorez beterik erantzuten dion Amak Semiari! Nola nai dezu bestela egin dezadan? Nora joan nintzake zu ez zeuden lekura? Onela segitzen zion Kalbarioko bidian. Eldu zan Jesus anbeste bidar bidian eroririk Kalbarioko mendira, eta emen bere Amak uste bazuan ere konsuela pizka bat emango ziola, arako ikusi zuanian bere soñeko, tunika ta koroia kentzen zioela eta bere zauriak berritzen zituala, ikusi zuanian bere oňak eta eskuak loturik, ikusi zuanian kurutze baten jasorik, ikusi zuanian egarriturik, *sitio*, eta añ edari gaziz aoa mortifikaturik, ikusi zuanian agoninan larriturik, eta esanik arako zazpi itzak begiak ilundurik, *consumatum est* esan ta illik pena andia ta...

---

\* Legajoa.

<sup>1</sup> Ostein aldatuta: *zure biotzak* > *zu ikustsiak*.

## [HASIERAKO ERANSKETAK]

Anbestekoa izan zan Jesusen biotzak irugarrengo orazino onetan artu eban tristuria eze, lurreraño etorri zan botatera bere gorputz guztitik odola, bildurren anditasunetik etorri jakon larria eta emetik agonina itzala; eta ipinirik begien aurrian laster bere ganera jausi biar zirian tormentuak, bere gorputza onen bidez etorri zan odol-izardia emotera. Bai, Jesus, obetuago Saulek bere illaurrian baño esan zeunkian alde guztietati pena ta angustiako urgaziak artu zenduzala. *Undique angustie me tenent.*

Jesusen oraziñoko denpora-bitartian urreratu zan Judas<sup>2</sup>, batoz bere enemigoak, presentetan dira soldaduak. Ez dago Jesusen ja denporarik bestetarako: edo itxi gure erredenziñoko obra Santuari, gugaitik arerioen eskuetara presentetiari, edo iges egitari. Estura onetan Jesus ipinirik bildur ta amodioen bitartian, benzidu eban amodioak<sup>3</sup>; eta arako odola bildurren indarrez biotza gordetera joan zana atzera lengo gorputzaren lekuetara bihurturik indar andiagaz, urratu zituzan zanak eta asi zan odolutsituten. Lotuko bazina emen, pekataria, ondo-ondo pentsetan ez zala izan Jesusen odolutsitutia tormentu ta eriotzaren bildurratik, ezpada pekatuen ofensagaitik, eta orregatik bere ez dozula odolok eze sentimenterik bere erakutsiten, arriak legez geldituten zareala, eta beragaitik zuri etorri biar jatzun kastigua, ondo negar egingo zenduke.

Ez dau sekula juezek emon sententzia justuagorik Kaifasek Jesusen kontra emon ebena baño. Ez ikaratu esan dodana entzunagaz, alantxe da: Jangoikoaren Semiak gu eriotzatik librauko bagenduzan, gure pekatuagaz merezidu izan genduan eriotzia artu biar eban. Alan dekretau eban Jangoikoak, ontzat artuten dau bere Seme gure Libertadoriak, eta alan sentenzietan dau Kaifasek, emen sartuten zan misterioa ezautu ez beban bere. Bai, pekatariak, gu gara eriotzara sententzia genduenak: pekatuan jausirik librauko baginian, bere amodioak gure eriotzia beragan artu biar eban, eta Jesusek il biar eban. O miserikordia zuria, Jesus maitia! Negar dagigun, suspirioak bota dagiguzan.

Jesusen orazinoko denpora-bitartian zur ebillen Judas traidoria bere Maisua arerioen eskuetan ifiniteko, eta ezauturik ja<sup>4</sup> laster etorri biar

<sup>2</sup> Ostean zuzenduta: *Bere oraziñoko larri onetan egoan bitartian, urreratuten da Judas > Jesusen oraziñoko denpora-bitartian urreratu zan Judas.*

<sup>3</sup> Ostean ezabatuta: *Estura onetan Jesus ipinirik bildur ta amodioen bitartian, au da esturarik andieneko tranzea, benzidu eban amodioak > Estura onetan Jesus ipinirik bildur ta amodioen bitartian, benzidu eban amodioak.*

<sup>4</sup> Geuk zuzenduta: *ija > ja.*

ebala, gure osasunaren amodioak bildurrak botarik, jaigi zan auspaz etxunda egoan lekurik, garbitu eban bere odol-izardia eta joan zan bere dizipulu maitiakgana irugarrenez...

O ikusgarri miragarritzkoa! Nok sekula usteko eban, nori gogora bere etorri lekiokian, Zeruko Midikua jatsiko zala gizon gaixoa bisiteta[n], eta bere odolagaz pekatuan osagarri ta balsamu santuagaz gure pekatuen zauriak osatutera? O karidadearen labe gorria! O gizonaren eskergeztokeria!

Baña, pekataria gomutadu egizu odolezko izardi onetan sartzen dan misterioa, bada, Jesusek odola emoten badau, begiratugizu dala borondatez emoten dabela zuri adierazotarren, azoteren golpeak naitanaiezian atara erañ baño lenago. Al eban ondoen garbitu zan...

Ze deskargu obeagorik, errespuesta humilde ta desinteresaduagorik<sup>5</sup>! Baña inbidia, gorrotoa ta ezinikusia dagoan biotzean ez deuko ez egiak, ez birtute[ak], ez humildadeak lekurik; eta Anasen biotza egoana legez Diabruen presondegi eginik, ez eutsan Jesusen berbai emon lekurik, ta bai gelditu zan saminduagorik. Eta uezaba geztoonon kriadu gogor batek bere nagosiari gustu emon nairik, altzetan bere beso gogor deskargetan ebala golpe bildurgarrizko bat, bere arpegi eguzkiak argitasun guztia artu ebenian, anbeste Patriarka ta Profetak suspirioz bera ikustia nai ebenian, eta arako bere iru atzetan mundua sostenietan dabena, golpe onen indarrez jausten da lurrera. Non zare tximistak, non erraio ta zentellak, gizon madarikatu onen atrebimentua kastigetako? Beste denpora... Noraño<sup>6</sup> da, Jauna, zure humildade ta pazientzia?

#### [AMAIERAKO ERANSKETAK]

O Pedro egiazko penitenteren ispillutzako Jesusek guri itxi Santu miragarria! Okasinoko lekuan estutasunaz bildurturik argaltasuna erakutsi bazindun bere, zure negarragaz okasinoko lekuari itxiagaz, merezidu izan zenduan ez bakarrik zure pekatuen parkaziñoa, baita bere birtute ta santidadeko mendira igonik Zeru ta Lurreko giltzaren jabe izatia. Zure exenplora pekatuan jarraitu deusugunok, penitenzian bere jarraiturik, zu bitarteko zaitugula merezi dagigun, ez bakarrik len eginen parkaziñoa artutia, baita bere birtuteko mendira igotia. Ara emen, pekatariak, ara emen, jausiak, zeñ exenplo bizia! Baña begira onetarako atzeraka

<sup>5</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>6</sup> Geuk zuzenduta: *Noraño* > *Noraño*.

egon biar ezkariala, ezpada laster Pedro legez okasiñoai iges eginik, biortu gaitezen beragana.

Kaifasek Aita gu[re] Je[s]usi egin eutsan examinatik konturatu zan zala Galileakoa; beragaitik uste izan eban Judeguen enpeño geztozik libretia biralduri[k] Herodesegana. Eta eretxi batian Pedroren defensia bere Maisuaganako justua<sup>7</sup> zala esan baleike bere, ez eban emon ontzat Jesusek, eta ipinirik bere lekuan belarria, baita bere osaturik arimia, erreprensino bat emon eutsan Pedrori.

Anas arroturik, silla eder batian jarririk Jesus bere aurrian, preso maletxore eginik sazerdote geztoa justiziaren kapiagaz, santidade guztien iturria zan Jangoikoen Semiari karguak egiten asi jakan bere doktrina ta santidaderen ganian. Beste modu bat diskurridu eban libretako, Barrabasegaz konparaurik eta<sup>8</sup>...

Erresposta humildia, baña alperriko, lenez ganera Anas ta bere otsaiñak kolore bizian ipini zitubena, eta beragaitik otsain gezto batek bere ugazabari gustu emotiarren, bere beso gogorra gora jasorik, golperen indarragaz arpegi urratuagaz lurreraño bota eban.

Baita eriotzako sentenziari gogor eretxirik, azotaduagaz kontentauko zala<sup>9</sup>...

O Jesus maitia nira pekatuen golpez añ lastimagarriturik lurrian jausirik zakusdana! Nok, Jauna, lagun lekizun altzetara pekatuak emendaturik? Zegaitik orrenbeste...? N(...) joten dau ollarrak, begiratuten deutso Maixuak, gogoratuten jako bere pekatua, emen dira Pedroren negarrak. Ez dago beretzat konsuelorik. Urteiten dau... Aditu eban parkatu zala bere pekatua, baña añ lotsaturik...

---

<sup>7</sup> Idem: *juastua* > *justua*.

<sup>8</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>9</sup> Idem.



## SERMÓN DEL PATRIARCA S(A)N FR(ANCIS)CO

[...] iduri bizi eginik gure Erredenzioko lлага preziosoren ezaugarriak[in seña]aturik, artzen zuala mesedeau bere deseo santoren saritzako, onell[a<sup>1</sup> on]dratzen zuala Jesusek bere sierbo piela, besterik ez bezela Jesusen (...) izaten enpeñatu zalako. O Jesusen iduriko Santo miragarria! Zeñ andi[ak zu]re biotzeko ferboriak, bada, mesede parebageko orretara obligatu zinduen, [Er]redentore santoa! Eg[il]n, arren, gure biotzetan gor[de] dedin Jesuskiko amodioa. E(...) erraz erakutsitzen<sup>2</sup> zeñ lan andi[a]k izan zituben Franziskoren humildadiak lлага pre[zio]so oiek, nondik munduari erakutsi bage gordeko zituben. Ordea, bere humildadiak artu zituben bide guzia orol traizio santo eginik, agertu ziran mu[n]duaren begietara bere humildadia geiago exerzitatzeko eta munduaren exenplorako.

Emendik aurrerako bizitza, ez mundukoa, baizikan Zerukoa izan zan, zerren amodiozko arrebato extasi santozko milagro uts bat besterik ez zan. Bete zan munduko destierro-denpora Franziskorentzat, eta urreratu Zerukoa; g[ai]xotu zan geiago amodio<sup>3</sup> santoren indarrez, beste munduko trabajoz baño. Eta iltzera zijoala ezauturik, agindu zuan eraman zeie la Porziunkulako konbentora Kolonbiakotik; apenas allegatu agindu zuan tunika kentzeko, billutzik Jesus idurira iltziagatik. Egin zuben bere agindua; ordea, apenas billuztu denpora berean bertako guardianak eman zizkan tunika eten ta kordel urratu bat, esaten ziola: Ematen diozkat karidadez pobre bati bezela tunika ta kordela[u]; artu obedienciaz. Obedienziara begiak itxirik jantzi ziozkan. Atzenez bere esku ta besoak kurtze modura ipinirik, erregela santoa gordetzera Aita [San]toren obedienciaza eta alkarkiko karidadera exortaturik, emanik (...) bere bendizio santoa, agindurik leitu zeioela S(a)n Juan Ebanjelistal zan gizon Zerutiko justoa. Orra nere Aitaren bizitza preziosoa, (...)tza santoz koroatua; orra guziok nai deguna, justoen eriotzarekin iltzia, au da deseatzan dan zorionik andiena. Mundu guzia[k] inbidiatzen due, guztiak nai du[e] ondo iltia; nola, ordea? Munduari bere banidadetan

---

\* Legajoa.

<sup>1</sup> Jatorrizkoan: *bonell[a]*.

<sup>2</sup> Osteen zuzenduta: *erakutsi > erakutsitzen*.

<sup>3</sup> Geuk zuzenduta: *amodioz > amodio*.

jarraiturik? Ez justuak bezala, baizikan munduko pekatu ta atseginetan bizi-tza emanik? Erli-ji-jo sa[ntu]ko gauzak atzenerako itxirik? Zu gau ta egun nundik mundurekin kunpl[itzen] dezun, betiko mundurako jaioa izan baziña bezela bizi zerana, zu bestiori es[kan]dalo utsa besterik ez dana..., nola uste dezu bide orretatik justoen bizi[tzia] egitia? Fr(anzis)ko nere Aita, zu izan ziñan pekatarien biotzak<sup>4</sup> argitz[eko] eskojitua. Argitu, arren, anbeste pekatarien begiak, munduak itx(...)ak galdu ez ditezen; onela merezi izan dezagun zure bitarteko bizi-tza on baten bidez eriotza preziosoarekin<sup>5</sup> mundutik ertetzia eta Zeruarekin betiko izatia. Amen.

#### [HASIERAKO ERANSKETAK]

[...] santorik nere Aita baixen humillagorik, ez bere buruak[in] laburrago pentsatu duanik. Ez da ere munduko desprezia[ga]rriak obetuago despreziatu dituanik, o!

Asko ta andiak dira nere Aitak burlatu zituben etsaian lakioak. Ezin sufriturik etsaiak nere Aitaren birtutiak, lakio andiak para ziozkan; orde, guziak burlatu zituben bere birtuteren kreiturako eta munduaren exenplorako. Esan biar banitu guziak, bere nekeak, bere izardiak, bere milagroak, ezingo nuke egun guzian ere akabatu sermoia. Nor erakutsitzeko Jesukristoren soldado santo onek arturiko nekeak, ez bakarrik Italian, baizikan Alemania, Franzia, España ta Portugalen, ta beste ezin kontalatan? O gizon egiaz apostolikoa, tunika bakarrakin, oñutsik, mutxilla bagarik nekatu zinana! Zeñ izango da zuk pekatarien onerako eman zinituben pausuak erakutsiko ditubena?

Onenbeste trabajorekin...

1. Enpeñatu zan Fr(anzis)ko beste Santoren artian Jesusen imitatzalle egiazko izaten; enpeñatu zan ere Jesus bere zerbitzioen saritzako beste Santo askoren artian seinalatzian<sup>6</sup>.

Bigarrenian, enpeñatu zala Jesus bere ser(...) biotzaren saritzako bere iduriko...

1. Izan zan Franzisko Jesusen imitatzalle egiazkoa. 2. Argatik merezi izan zuan Erredentzioko señaile santuakin hondratzia.

<sup>4</sup> Idem: *biotzat* > *biotzak*.

<sup>5</sup> Ostean zuzenduta: *zure bitarteko bid[ez] bizi-tza on baten eriotza preziosoarekin* > *zure bitarteko bizi-tza on baten bidez eriotza preziosoarekin*.

<sup>6</sup> Ostean aldatuta: *bonduatzen* > *seinalatzian*.

1. Gorde zituan Franziskok Jesusek Ebanjelioan beriak izan naide(...) eskatzen diztenak. Beragatik merezi izan zuan hondratua izatia gure Erredenzioko señaile preziosoakin.

2. Enpeñatu zan nere Aita Jesusen iduri bizi bat mundu onetan izaten; enpeñatu zan Jesus Fr(anzis)ko nere Aita<sup>7</sup> gure Erredenzioko lllaga prezios[oa]kin] hondratu t[a] señailatzen.

Oiek asko ta andiak izan baziran ere, animatu zan<sup>8</sup> bere biotzian animak zeruratzeko zeguan zuba. Eta ikusirik estadu ta kondizio guzietako (...) zeto[ze]lla perfezio geiagoko bizitza eskatzen, beren ferboriai lag[un](...)an Terzera Ordena santoa, non anbeste anima santu(...), (...) anbeste exenplo eman dion. Onela saiatu zan Jesusen idurik[o San]toau, beragatik merezi izan z[uan]...

---

<sup>7</sup> Osteen erantsita: *Enpeñatu zan Jesus > Enpeñatu zan Jesus Fr(anzis)ko nere Aita.*

<sup>8</sup> Osteen aldatuta: *ezin itzali izan zebeñ > animatu zan.*

**DECIMONOVENO DESPUÉS DE PENTECOSTÉS.  
[AMARREN PRIMIZIAK]**

Eginik Jesusek bere Dizipuloai ta berekin batera ezin kontala jentერი ura sermoe miragarria, mendi andi baten barrenian eta landa zabal ederrian orazio andi baten ondoren, erakutsirik bizitza espiritualen iturriak, nondik zorion guziak etorri biar zaizkigun, prebenitu zituben gorde zitezela erejiaren lakiotarik, zeñek iduri eder engañosoakin egingo zituben alegiñak guziak apartatzeko Elix Santaren doktrinatik, eta nondik eta nola ez zekiala Elix ta erlijio gabe utz[il]ko zituen. Kristaorik onentzat daudenetan ere<sup>1</sup> sartuta dakust peliguruau, alako moduan, ezik nago pentsatzen iñor salbatuko ote dan. Añ komun ta familiar egin dira Elix Ama Santaren prezeptoren kontra itz egitia, beldur guzia ausitzera etorri zerate Elixaren prezepto guziaz, eta urraturik agindu santoaren atiak, egitera etorri zerate Erejo guziak erakutsi duana eta Elix Ama Santak betiko<sup>2</sup> madarikaziopean kondenatzen duana.

Sekula erri onetan pekatu onen kontra predikatu biarrak izango ez nuala uste izan dedanian, onetara gaur igo biarrak erri onetan bizi izateko gogorik gabe para n[al]u, eta nere bakarrian anbat lasterren sartuta, eta geiago agertu ez eiteko deseo biziz nago. Beragatik sekula agertu naizen gogo txarrez igon det pulpitura neretzako añ odioso dan mandamento baten ganian. Ez nator iñoren aginduz, eta bai obser[ba]ltu dedalako eskandaloau erri guzitik zabaldu dala<sup>3</sup>, eta izandu dalako persona nere oñetan esan didana ez duala pagatuko amarren primiziarik. Ez? Ez entzun ere mezarik, erantzun nion, ez etorri ere konpesatzera, ez egin ere orazio ez erlijioiko gauzarik; kendu bitez orretatik ministro guziak, itxi bitez Elixako atiak, ez eskatu eriotzako orduan ez konfesiorik ez unziorik, ez bedi ere izan ez Elix ez bere opiziorik. Bada, orretara dator zure esatia, orretara datoz erejia guziak<sup>4</sup>, eta beste guziak. Bide onetatik baliatu dira Erejuak, Elix Amaren semiak, Jesukristo bere burugan...

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Ostean erantsita.

<sup>2</sup> Idem.

<sup>3</sup> Ostean zuzenduta: *obser[ba]ltu dedalako eskandaloau zabaldu dalako errian > obser[ba]ltu dedalako eskandaloau erri guzitik zabaldu dala.*

<sup>4</sup> Ostean ezabatuta: *erejia guziak orren kontra > erejia guziak.*

Sekula erri onetan onenbesteko eskandalorik sartuko zala ikusiko ez banu, siñastuko ez nuan<sup>5</sup>. Beti izan da Jangoikoz etorria, eta ez gizonak ipinia, amarren primiziak pagatzea. Munduaren lelekitan asi ziran gizonak Jangoikoari amarrenak pagatzen. Orandik ez zeguan Adan ta bere semeak baixen Elixirik munduan, eta orregatikan frutu guzietatik pagatzen zeben, eta zeñ atsegiña bere begietan ondo pagatzea eta zeñ sentimentuko gauza ez ondo pagatzea erakutsi zuan Kain<sup>6</sup> ta Abel Adanen lenengo semeetan. Bada, Abeli Jangoikoak bere ganado ta frutuak txit aumentatu zitzaiozkan pagatzalle ona izan zalako, eta Kaini gitxituaz zijoazkion bere frutuak gogo txarrarekin ta frutorik okerrenak ematen ziozkalako. Emendik etorri zan ura inbidia Kainek bere anaia Abelen kontra artu zuana, aberastua ganadoz ikusi zuanian eta bera egunero ta pobriago. Emendik ere etorri zan munduan leleko ikusi zan eriotza inbidiaz Kainek bere anaia Abelekin egin zuana, begi atseginagaz Jangoikoak Abeli begiratzen ziolako. Eta emendik azkenian, Kainen kondenazioa ta Abelen salbazioa.

Andik onuntzagoko denporetan<sup>7</sup>, mundua jentez betetzen asi zanian, eta Jangoikoak Israeldarrak Egiptotik atera ta milagroren puruz beren errira eraman zituenian, Sazerdoteentzat puska aparteko ta lurra<sup>8</sup> berentzat señalatu zituen, egunero erriak beren sakripizioetan egin oi zituben ofrendaz gañera. Beste onenbeste ikusten degu ugolderen kastigoz mundutarrak ito ta Noe pribilegioz libratu zanian; leleko gauza izan zan sakrifikatzea Jangoikoari errerik bere frutuak, aien inzenso eta keia eskini zizkan. Eta añ atsegiña izandu zan sakripizioau ezen, prometituz ez zuala geago mundua galduko urarekin.

Onela, jatsiten gera leleko<sup>9</sup> denpora guzietatik Jesukristoren Legea. Eta arteko lege ta sakripizioak añ perfektoak ez ziranian anbeste kuidado sazerdote, sakrifikadore ta Jangoikoaren serbizioarako destinatuak izandu ziranakin, ez zuan gitxiago nai izan graziazko lege onetan. Leleko egunetan persekuzioren beldurrez bizi ziranian persona piadosoren limosnaz Jangoikoak mantentzen bazituan ere, persekuziotik ertetik milagroren indarrez, ta Konstantinoren denporan lustre santora... (\*)<sup>10</sup>

<sup>5</sup> Ostein erantsitako esaldia.

<sup>6</sup> Geuk zuzenduta: *Kañ* > *Kain*.

<sup>7</sup> Ostein aldatuta: *Andik gero aurrerago ikusten da* > *Andik onuntzagoko denporetan*.

<sup>8</sup> Idem: *probinziak* > *lurra*.

<sup>9</sup> Ostein erantsita.

<sup>10</sup> Amaiera oharra: *Vuelta*.

**DECIMOSEXTO DOMINGO DE PENTECOSTÉS.  
[OGI MILAGROZKOREN IGANDEA]**

Gaurko igandeari Ogi milagrozkoren igandea deitzen zaio<sup>1</sup>, Jesukristok zazpi ogirekin lau milla ta geiago mantenu zitubena. Diferentia S(a)n Juanek esaten digun milagrozkotik, bada, an<sup>2</sup> bost ogirekin mantenuak izandu ziran zazpi millagiño<sup>3</sup>; emen, zazpi ogitik bost milla. Orregatikan milagro biak dijoaz batera, bete ondoren nekatzen diranekin daukan kuidadora. Jesukristo[k] egin zituban milagro guziak gorputzeko premi eta munduko gauzaetan<sup>4</sup>, daukate iduri bizi bat egunero espirituan egiten ditubenekin. Aitarik onenen bere semiakiko kuidadorik andienakin begirutzen digu sokorritzeko gure premietan. Ordu guzietan mesede andiak artzen gaude, eta orandik andiagorekin begiratu likigu fede ta konfianza geiarekin eskatuko baginioke. Gure ferbore falta da debozio falta atzeratzen duana.

Gaurko ebanjeliokoak gorputzeko premiak azturik Jesusen ondoren eraman zituben pediak, segitu zien Jesukristori<sup>5</sup> alako pede ta esperantzaz betiak ezen, ez zebe izandu beste pensamenturik, beste kuidadorik Berari aditzea baño. Al[a]ko moduan gosiak artu ta galduak izan al zitezken kuidadorik bage jarraitu zien desertora; beragatikan es[ka]ltu zuan Jangoikoaren berekiko kuido ta probidenzia. Zerbitu dezagun fidelidiaz, para dezagun konfianza, ta Bera izango da guraso gure kuidadu artuko duana pekatuak erbesteturik. Proximukiko karidadez betiak jarraitu diozagun eta egingo gaitu parte bere Elix Santoan bere fieltzako gordeta dauzkan zorionetan. (\*)<sup>6</sup>

Ja desprezioz begirutzen diezue Elixako Mandamentoai. Meza entzuzia, bada, asko da, konbenientziatzko biaje bat. Entzun gabe gelditzeko

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Ostean erantsita: *Gaurko igandeari deitzen zaio* > *Gaurko igandeari ogi milagrozkoren igandea deitzen zaio*.

<sup>2</sup> Jatorrizkoan: *ban*.

<sup>3</sup> Geuk zuzenduta: *zazpilla giño* > *zazpi millagiño*.

<sup>4</sup> Ostean erantsita: *milagro guziak munduko gauzaetan* > *milagro guziak gorputzeko premi eta munduko gauzaetan*.

<sup>5</sup> Idem: *Gaurko Ebanjeliokoak gorputzeko premiak azturik Jesusen ondoren eraman zituben pediak, segitu zien Jesukristori*.

<sup>6</sup> Amaiera oharra: *Zer dan Santoren Komunioa. Doktrina*.

lana publikuan egiten asi zerate, alako moduan eze, Kristao on asko kexatu dira. Amarren premiziak pagatu biar ez dituzuela aditzen da, ta allegat[ul] (...) etorri zanian, Elixako sazerdote ta fabrikatarako pielak beren interesekin laguntzen zebe<sup>7</sup> alako moduan ezen, utsa da orañ ematen dan guzia orduan pielak ematen zebenen parian. Obligazioau dator Jangoikoagandik. S(a)n Pablok dio Elixan zerbitzen duanak Elixatik mantenitu biar dala; bestetik, kontratu bat pielak daukate egiña sazerdotiak mantentzeko. Eta mantenimentuau, begiraturik beren estadu sagadura, izan biar du dezentiak, ez or zubetatiko askok oraño Erejuakin batera naiko zenduken bezelakoa, ezpada onesto ta dezentia. Sazerdotetan paltak ikusten diralako kendu biar badira, ezkondu ta beste estadukoak ere kendu biarko dira<sup>8</sup>.

Eta alperrik esan naiko didazue ez duela limosnarik egiten, bada, nik beti ikusi dedana, ala emen nola beste toki guzietan, iduki berdinian, beste pielak onen-onenak izanda ere, erdirik egiten ez duela. Ordea, zube<sup>9</sup> nai dituzube nonbait eskian edo miserian ikusi Elixako gizonak; eta Elixaz Jangoikoen etxiak eskatzen duan moduan, ezpada okollubak bezela, au da gaurko Erejuak nai duena. Ez due Elixan gauza prezioso bat ekusi nai, eta beren etxeetan guztia sobra, ta nola, pobreren orola zurraturik. Nik badakit zer nai dan; nai dana da argi bat Elixan ego[n] ez dedilla, eta bere eske sazerdotia lotsagarriturik ibilli dedilla.

Jangoikoak kastigatzen bagaitu sazerdotiak errietatik kendurik, edo milla animentzako bat bakarrik itxirik, ez dire erriak obetuago ikusiko, ez da bazterretan pobreren artian premia gitxiago izango. Ordea, gaur moda egin da Elixaz persegitzia, eta nonbat zuek au ere beste moda guziak bezela jantzi biar dezue.

Ez dezue eskubiderik esaten dezuben bezela egiteko, eta egiten ezpadezue, zetako Jesukristok S(a)n Pedrori, eta bere ondorengo obispo Erromakoai, eman dio<sup>9</sup>?

(\*)<sup>10</sup> Godoien denporan eskatu zitzaion kapillaniak saltzeko errefilnuko premiak estaltzeko; eman zuan obligazioak denporaz elixari biortzeko. Saldu ziran..., baña ez da pagatu. Errege-etxiak, nobenoak ta milloiak kendu zitzaiozkon, ez da premietatik erten Konstituzioko... Otsuaren otsari obetuago aditu nai diozue artzaia(...)?

<sup>7</sup> Osteen aldatuta: *zortean izan zituben > laguntzen zebe*.

<sup>8</sup> Osteen erantsitako esaldia.

<sup>9</sup> Osteen erantsita: *esaten dezuben bezela egiteko, Jesukristok S(a)n Pedrori, eta bere ondorengo obispo Erromakoai, eman dio? > esaten dezuben bezela egiteko, eta egiten ezpadezue, zetako Jesukristok S(a)n Pedrori, eta bere ondorengo obispo Erromakoai, eman dio?*

<sup>10</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Zenbat eta geiago Elixari kentzen zaion...*

**REGINA MARTIRUM**

Jesús, María y José

Viva Jesús

Zeñ izango da biotz añ gogorrekoa, eta biotzau bigunduko ez zitziona, aditzean munduan igaro zan gauzarik ikusgarririk lastimagarriena? Zegoan munduan ama noble ta santa bat seme bakar bat zeukana, zeñ izan pensau al diteanik maitegarriena, kulpagabia, birtuoso, eder ta amaren amodioz maitegarriena; alako moduan ona, sekula sentimentorik txikienen motiborik eman ez ziona, eta bai beti errespeto ta benerezio andi bat iduki ziona, obediencia ta afekto neurrigabe bat amari izan ziona. Beragatik amak bere amodio guziak zeuzkan ipiniak bere semian. Eta zer berarekin uste dezube suzeditu zitzaiola? Semiau añ ona ta santua izanagatik, izan zan akusatua bere etsaiakgandik, eta juezak ezautu ta aitortu zuan bere inozentzia; orregatik ere seme onen etsaiari sentimentua eman ez eitiagatik, kondenatu zuan eriotzarik gogor ta lotsagarrienera.

Ama gaixo onek sufritu biar izan zuan pena ta dolore neurrigabia ikustean errazoe guztien kontra kentzen zioela seme maitegarrioni bizitza bere bizitzako urterik onenetan, bada, tormentoren indarrez illerazi zuen azotez zauriz odolutsiturik bere amaren begien aurrian kurtze gogor ta lotsagarritzko batian. Anima debotoak, zer derizkatzue ikusgari negargarrizko oni? Izan leiteke ama urrikarriagorik au baño? Bada, añ urrikarri bizitza kendu zienau izan zan Jesus gure Erredentore maitia. Eta ama au izan zan<sup>1</sup> Maria gure Ama zoriotsua, zeñek gure onerako ikusi nai izan zuan Jangoikoen Justiziagandik sakrifikatua Semia. Ama Santisima onek gugatik igaro zuan pena au, milla eriotza baño geiago kosta zitzaionau, da gure urriki ta atenzio guztiak gaur eraman biar dituen, eta zeñek merezi dituben gure esker on guztiak. Eta anbeste amodiogatik ezin besterik eman badiogu, gutxienez gelditu gaitian pizka bat gaur pena ta doloreren gogortasuna konsideratzen. Berau izandu zan Martiri guztien Erregina, bere martirioak bentaja andia egin zion

---

<sup>1</sup> Ostein erantsita.



Martiri guztien pena ta tormentoai. Ala bada, sermoiaren gaia izango da erakutsitzia punto labur bitan bere Semeren eriotza izan zala bere Amarentzat martirio egiazkoa: lelekoan, esango dizuet izan zala martiriorik andiena bizitza guztian begien aurrian euki zualako; bigarrenian, beste guztiena baño anditasunerako motibo geiagokoa izan zalako. Ea bada, Ama naigabez betia, zure laguntzaren biarra nago, eta lagundu biar didazu zure debotoetan zure doloreren debozio bat jarriteko eta ni debozio santo onetara bizi guztian amodioz errerik bizi izateko. Au da eskatzen dizudan grazia bitarteko pararik zure Seme nigatik padezitu zuana, eta geiago obligatzeko salutatzen zaitut Ang[e]ruaren agurrarekin: Abe Maria...

### PRIMER PUNTO

Jesus maitiari Errege dolozeko eta Martiri guztien Errege esaten diogun bezela, bizitza onetan Martiri guztiak igaro zituan baño pena ta tormento geiago igaro zualako, alaxen Maria ere arrazoe andiz da deitua Martiri guztien Erregina, igaro zualako martirio bat pentsau al ditekeanik andiena. Eta ala, esan deiteke beragatik Isaias Santoak esan suana: Etorri zaitzeze bidiazkoak, eta ikusi badago pena ta dolorerik nere pena ta dolorerekin konparatu dezakegunik. Eta Elixia Santoak zebratzen badu S(a)n Juan Ebanjelista Martiritzat, olio irazakizko tinan sartuagatik il etzalako eta sartu zuenian baño atera zebeñian ederragorik ta senduagorik ikusi zalako, obetuago esan dezakegu Maria izan zala Martiri egiazkoa, mi[lla] bizitza galtzeko beste pena igaroagatik bizirik gelditu zalako<sup>2</sup>. S(an)to Tomasek esaten digu, bat Martiri izateko asko dala batek obedizitzia eta ofrezitzia eriotzara, obedienziaren sakripizio onetan bizitza galdu ezagatik. Maria, dio S(a)n Bernardok, izan zan Martiri egiazkoa, bere gorputza izan ezpazan eritua borregoren golpez, anima izan zan bere Semeren Pasioko tormentuak ebakia. Eta au ez ordu batian, ez egun batian, baizik Jesusen Pasioa, dio S(a)n Bernardok, bere jaietzatik, ala Mariarena izan bizitza guztikoa<sup>3</sup>. Bere bizitza guztian euki zuan ondo samindurik biotza, beti bere begien aurrian ikusten zualako bere Seme maitiak igaro biarko zuan eriotza itsugarria.

Mariak<sup>4</sup> Profeta guztiak baño obetuago ezautzen zituan Mesiasen ganian eskribituta zeudenak. Aditu zuan obetuago Berbo Dibinuak, edo

<sup>2</sup> Ostean zuzenduta: *geldituagatik > gelditu zalako*.

<sup>3</sup> Ostean erantsita: *Jesusen Pasioa, dio S(a)n Bernardok, bere jaietzatik, ala Mariarena izan bizitza guztikoa > Eta au ez ordu batian, ez egun batian, baizik Jesusen Pasioa, dio S(a)n Bernardok, bere jaietzatik, ala Mariarena izan bizitza guztikoa*.

<sup>4</sup> Ostean aldatuta: *Ez dago dudarik > Mariak*.

Jangoikoaren Seme<sup>5</sup> gugatik gizon egingo zanak, gugatik igaro biarko zituan sakripizio andiak, eriotza gogor batekin atormentatua izango zala besteren pekatuakgatik. Au guztiau ezautu zuan Jangoikoaren Ama izan zan baño lenago, eta ordutikan asi zan Ama Santissima martirio samiñau padezitzen, eta dolorea geitu zan Jangoikoaren Ama izatera allegatu zanian. Orregatikan, Santo batek esaten zuan Mariaren izenian: Anima debotoak, ez zatezte urrikitu nitzaz bakarrik nere Semia ilten ikusi nuanian artu nuan penagatik, zergatikan dolorezko ezpata Simeon Santoak profetizatu<sup>6</sup> zidanak bizitza guztian urratu zidan nere biotza. Nere Semiari bularra ematen nionian, nere besartian estutu ta laztentzen nuanian, orduan ere begian aurrian neukan nere Semeren eriotza samiña. Emendik ezautu dezakezue, nere debotoak, zeñ luzea izan zan nere dolorea. Bai, Mariak egiaz esan zezakian Dabidek<sup>7</sup> esan zuana: Nere bizi guztia igaro zan negar ta dolorian, zergatikan nere doloria izan zan nere Semeren urrikia, zeñ sekula apartatzen ez zan nigandik, eta beti nere begien aurretik kendu gabe nengua]n ikusten nere Semiak igaro biarko zituben penak. Eta orandik Zerura bere Semiak igota ere, beti biguntzen zuan memoria onek Amaren biotza. S(an)ta Brigida: Eta itz batian esatiarren, bere bizitza guztia dolore uts bat izan zan, zergatikan bere biotza<sup>8</sup> etzan beste gauzatan okupatzen, bere Seme maitiak igaro biar zituben tormento ta pasioan baño. Bai, larrosa bat arantza artian azitzen dan bezela, ala Maria azitzen zan bizitzako urte guzietan pena oien arantza artian. Eta larrosa bat azitzian bere arantza-puntak azi oi diran bezela, ala Maria zenbat urteetan zijoaan aurrego, ala azitzen ziran bere biotzian dolore oien arantza-punta zorrotzak. Ara emen erakutsirik leleko puntua.

## SEGUNDO PUNTO

Maria ez bakarrik izan zan Martirien Erregiña bere martirioa bizitza guztikoa izan zalako, baita ere izan zalako munduan ikusi dan andiena. Ordea, nor izango da bere anditasuna erakutsiko duana? Konsideratzean Jeremias Santoak Mariaren pena bere Semeren eriotzan, ez du billatzen norekin konparatu. *Cui anparabo te vel asimilabo te Filia Jerusalem?* Bai, Maria, itxasoaren samintasunak bentajutzen dituen bezela beste guziak, ala zure doloriak bentajatsen ditu beste guziak. Jangoikoak

<sup>5</sup> Osteen erantsita.

<sup>6</sup> Geuk zuzenduta: *prefezitatu* > *profetizatu*.

<sup>7</sup> Idem: *Dabiden* > *Dabidek*.

<sup>8</sup> Idem: *biotzia* (< *biotzian*) > *biotza*.

milagroz gorde ez balu bere bizitza, instante guzietan etorriko zan bizitza galtzera. S(a)n Bernardok dio: Mariaren dolorea zabaldu balitz gizon guztietara, guztiak etorriko zira[n] bizitza galtzera. Martiri guzien pena izan gorputzekoa, Mariarena animakoa. Ala esan zion Simeonek: *Tuam ipsius animam pertra[n]sibit gladius*. Zan esatia: Martiri guztiak izango dira beren gorputzetan burniazko ezpataz ebakiak, baña zu zure Semeren eriotzako ezpataz animan<sup>9</sup>. Zenbat eta<sup>10</sup> anima nobliagoa dan gorputza baño, anbat andiagoa izan zan Mariaren pena gorputzian padezitu zubenakgandik. Bai, penau ikusiko genduan Altarean egon bagiña<sup>11</sup>. Denpor[al] batian ikusiko ginduen bi sakripizio: bat Jesusen gorputzian, bestia Mariaren animan. Bere Semia padezitzen ikustiak Mariari pena geiago ematen zion bizitza galtziak baño. Azotiak, arantzak, iltzeak, Jesusen gorputza atormentatzen zebenak, igaro ziran Mariaren animara. Itz batian: Mariaren biotza egin zan bere Semeren tormentozko ispillu bat. Jesusen gorputz guztiti zabalduak ikusten ziran zauriak, guziak biltuak ikusten ziran Mariaren animan. Eta ala, Maria izan zan animan azotatua, koroatua eta Kurtzean josia. (\*)<sup>12</sup>

Ordea, au guzia ezer ez esatia da, bada, Berak padezitzen ikustez geiago igaro zuan, Berak izan balitu baño. Eta Maria geiago bizi izan bazan Jesusen bizitzan, ala aparteko penaz padezitu zuan bere eriotzan.

Egia da Santoak igaro zituben pena ta tormentoak tiranoakgandik txit andiak izan zirala, orregatik ere, Jesusen amodioak gozoerazitzen zitzen guziak. Ez onela guziak, bere Semeren gisa alde egi[n] zeben konsuelo guziak. Padezitu zituban S(a)n Bizente batek ezin esanezko tormentoak, eta orregatik despreziaturik tormentoak animo andiak<sup>13</sup> erantzuten zion tiranoari, S(a)n Bonifazio, S(a)n Marko ta<sup>14</sup> Marzeliano eta beste askok, esaten zien: Padezitzian ez degu sekulan izan gusto geiagoko janaririk, Jesusgatik zuk asmatu al dituzuen penak sufritzia baño. Padezitzen zuan S(a)n Lorenzok parrilla gori batian, ta guztia erretzen zeguala burlatzen zituen atormentatzalliak, eta au guztiau egiten zuan barrunian zeguan amodiozko sua andia zalako. Itz batian: zen-

<sup>9</sup> Idem: *baña zu animan zure Semeren eriotzako ezpataz animan > baña zu zure Semeren eriotzako ezpataz animan*.

<sup>10</sup> Ostein erantsita.

<sup>11</sup> Ostein zuzenduta: *Bai, Altarean egon bagiña, au ondo ikusiko genduan > Bai, penau ikusiko genduan, altarean egon bagiña*.

<sup>12</sup> Atal horretako amaiera oharra: *Sigue el párrafo*.

<sup>13</sup> Ostein zuzenduta: *animo andi batekin despreziaturik tormentoak > despreziaturik tormentoak animo andiak*.

<sup>14</sup> Geuk aldatuta: *y > ta*.

bat geiago Jesus amatzen zuen, anbat gitxiago padezitzen zuen. Jesus kruzifikatuen prezentzia asko izaten zan konsolatzeko.

Ordea, Ama S(anti)s(i)mari konsueloa faltatu zitzaion, zergatikan padezitzen zeguan Semia izan zan bere pena geituzten zituen; eta Mariak zion amodioa borregurik gogorrena, zergatik Mariaren martirioa izan zan bere Seme inozentia anbete padezitzen ikustia. Beragatik zenbat geiago amatzen zuan, anbat kruelago bere pena. A Martirien Erregina! Beste Martiriai zure Semeren amodioa gozorazitzen zizten penak, ordea, zuri geitu zure espirituko kongojak. Zuk maite zinduan Semia izanik bakarrik konsuelo eman al zitzakuna, izan bazan geien penatzen zinduen, norik konsolatuko zaitu?

Ez dago dudarik: zenbat andiago dan gauzaren bati diogun amodio, anbat andiagoa izan oi da bere galdu biarrak ematen duen pena. Eta ez izanik munduan kriaturik bere Semiari izan zion beste amodio izan diotik, emetik ikusten da ez tala penarik Mariak berak maiten zuan Semia ilten ikusi zuanian artu zuanarekin konpara deza[ke]gunik. Emendik ikusten da Martiri guztiak igaro zituben penak utsak izan zirala Mariak igaro zituenen parian. Zergatik, ordea, anbete oñaze? Zekialako Berak padezitzen zuan guzia bere Semeren idurir[a] gure onerako zala. Eta ala, egin zan moduren batian gure Erredentore, zeñegatik izan biar geran eskerronekoak, gau ta egun erabillir[rik] pena oiek gure memorian bere bidez irabazitzeko...

[SANTUEN EXENPLOAK<sup>1</sup>]

*Gaudete, et exsultate, quoniam merces vestra copiosa est in caelis.*

Mt. 5, 12

Bedeinkatua milla bider izan dedilla Jangoikoaren ontasuna, ez bakarrik añ zorion andirako deitu gaitualako, baita bere zorionetara eron biar gaituan bidia erakutsi deuskulako, emonik laguntzako bideau ondo dakien, ezetan utsik egin bage zorionetara sartuko gaituenak. Zorion andiau, zeñetarako Jangoikoak egin genduzan, da arako Zeruko Gloria gure begiak ikusi, gure belarriak entzun eta gure biotzak deseadu al leikian baño neurri bage andiangoa. Zorionetarako bideau erakutsi euskun Jesukristo gure Jaunak, esaten deuskula ez dagoala onetarako beste biderik bat baño, eta au ez zabala, ezpada estua eta neketsua, bakarrik beti ondo<sup>2</sup> inder egiten dogula, eta ez beste mudutan ibilli ginatekezana, gure apetitu deungai, gure buruari geiegi eretxitiari eta munduko egite edo obra geztoai gerra bizi bat egiten deusagula, anditasun eta soberbiari humildadigaz<sup>3</sup>, baneriai biotzeko pobreziaz, biotzeko sendotasun bategaz pena, neke eta trabajuak pazienza baten igaroten dituguzala. Au<sup>4</sup> da arako sermoia Jesusek Dizipul[ul]ai eta aetan guri egin euskuna, berba gitxitan Zerurako bidia erakutsi euskuna, eta ez bakarrik berbaz, baita bere obraz.

Bide estu onek bildurtu biar gaitu, ez bakarrik bide zabaletik ibilli nai dabenak, baita bere estu samarreti bide egiten dabenak, esan ereiten deusela euren biotzaren barruan: Nor izango da mendi altu Gloria-kora bide pendiz, aldastu eta peliburuz beteriko onetati igongo dabena? Nor da Gloriako mendi-gallur atara igongo dabena? *Quis ergo poterit salvus esse?* Baña etzaitze estutu; arako Jangoiko maitiak bere ontasan neurribagiagaz añ zorion andirako geitu gaituanak berak gure argaltasuna sendatuteko emongo deuskuz gia onak, au da, gu orañ legez, orduan eurek bere gu lezko argalak izan zirian Santuak, Jangoi-

---

<sup>1</sup> S. *Ju(an) Baupista. Año 1811* dakar izenburutzat eta predikazio-datatzat, baina ez ei dira sermoi honenak.

<sup>2</sup> Ostein erantsita.

<sup>3</sup> Ostein aldatuta: *pobreziaz > humildadiagaz.*

<sup>4</sup> Jatorrizkoan: *Hau.*

koen graziaren laguntzeagaz batera bide neketsutik guztiz erraz igon ebenak, euren exenploakaz ta laguntzeagaz batera gelulk onetara inder egiten dogula Zeruko bidian ifiniko gaituenak.

Au da Elexa Ama Santiak gugandik atera gura dabena Santu eta errietako Patroien fiestetan, eta au izan zan gure guraso zorionek egin ebena Santuak Patroitzat arturik<sup>5</sup>. Au izango da nire sermoiaren geia. Gure bado-gu ibilli<sup>6</sup> Zeruko bidetati, euki biar doguz gogoan Santuen exenploak, are[e]k egin ebena guk bere aleginez egiteko. Onetarako biar det Jaunaren grazia; lagun egidazue biotzetik esaten deutzagula: Abe Maria.

Biaje luze eta inportanzia andiko batian bide ezaunik ez dagoanekoen, baita non galdu andiak bideau ondo ez dakien, lagun artien ez bada, galduteko peliburuan bat ifiniten da. Zer izango zan Israelgo erriagaz, desierto ikaragarritzko atan biderik inondik bere agiri etzarian, Jangoikoak berak argi egin ez baleutso su miragarritzko kolumna bategaz igaro biar eban bidetik euren errirako? Zenbat peliburuetara<sup>7</sup> arrisgauko etzan Tobiasen semia, Mediako bide inondik bere ez ekienian angerua bide laguntzat izan ez baleu? Auxe berau, bada, da, N(eure) K(ristinau)ak, konsuelo miragarria Jangoikoak Kristinauoi emoten deuskuna Santuen exenploakaz. Ezin izen leiteke biaje guri geiago doakunik, ez peliburu geiagokorik, Zeruko bidiau baño. Bere bidia bakarra eta anbeste peliburuz betia da Jesukristok erakutsi euskuna. Baña añ dauko ilundurik bidiau gure ignoranziak, gure pasiñoak eta mundutarren baneria eta ekandu geztoak eze, esan ginaike ez dala ezauna ta bai peliburu andi galtzeko bide egiten doguna. Lelenko Kristinauen denporetan, Jesusen oñtzak<sup>8</sup> egin barriagoak zirinian, Kristinau artian Ebanjelioen pausu eta bidiak besterik ezaututen etzarian, orduan ondo ezaunak zirian Zeruko bidiak, eta bide onetati bide egiten ez eban guztia atzagaz erakutsia legez zan, esaten zala ak bide urratutik bide egiten ebela. Baña orain bide one[e]k aitzu dirianian, orain onenbeste biderik piedade faltia, erlijjiño faltia, kudizia, eskandalu eta libertadia besterik ikusten ez danian, orain debozinoagaz moda gezto bat nasturik dakusgunian, baneria eskandaloso bat pobreginokoetan ikusten dogunian, komedia, joko eta dantzia batera deboziño egiazko bat daukela siñasturik bizi dirian denpora negargarritzkoan, orain errosario bat errezaue ezkeroguztia eginda daguala uste danian, orañ bakotzak bere modurako bide bat

<sup>5</sup> Ostean ezabatuta: *Santuak Patroitzat arturik, Zerurako giatzat euren exenploak > Santuak Patroitzat arturik.*

<sup>6</sup> Idem: *ibilli seguru > ibilli.*

<sup>7</sup> Ostean aldatuta: *arrisgetara > peliburuetara.*

<sup>8</sup> Idem: *pausuak > oñtzak.*

Zerurako egin dabenian, nok billatuko dau aparteko Jangoikoen argi bat bagarik bide bakar Jesukristok erakutsi euskuna?

Onetarako, bada, denpora onetan emon deuskuz anbeste Santu gu legez izan zirianak, euren exenploakaz erakutsiten deuskula nondi bide egin biar dogun. Baña ez deusague jarraitu gure bide one[el]i, Balan legez guztiok ondo iltea gure dogu, baña justuen bizitzari guztiok begi illunakaz begiratu. Are[el]n konseju, exemplo ta exortuak aparteko indar bat dauke gure biotza are[el]n egiteak egitera eroateko.

#### [HASIERAKO ERANSKETA]

Arako Alejandro andiak eroaten zituan bere soldaduak gauza andiak egitera, diskursu andiakaz, promesa] eta bere exenploakaz bere exenplora soldaduak animetan zituan mendiak igorotera, ibai eta erreka, edur eta lei andiak pasetara. Eta nok Makabeoak eroan zituen ezpada exenploak añ gauza andiak egitera? Eta nok gaurko Santua birtutea egitera?

Jesukristo gure Jaunak beñ batian bere Dizipuluai egin eutsén<sup>9</sup> sermoi miragarrian, esan eutsen ez dagoala Zerurako beste biderik bat bakarra baño, eta au ez zabala, ezpada estua ta neketsua, bakarrik beti ondo bide egiten dogula ez beste modutan eldu al giñatekezena, gerra bizi bat egiten deusaguela gure biotzak instantero eskatuten deuskun gurari geztoai: arrotasun ta soberbiari humildadiagaz, ondasunen gurari ta kodiziari pobreziagaz, neke, pena ta trabajuai pazienziagaz. Au da Jesusek erakutsiten deuskun Zerurako bide bakarra, ez bakarrik berbiagaz, baita exenploagaz. Zerurako bide bakar eta estu onek bildurtu biar ditu, ez bakarrik arako euren denpora guztien pekatuen gurari eta atsegin guztietatik<sup>10</sup> dabiltzenak, baita bere bide estu samarretatik ibilli dirianak. Eta gure argaltasunari begiraturik, bide pendiz, estu eta peliburuz beteriko onetati bide egin biarrak bildurtu biar bagaitu bere, arako Jangoiko Gloriako zorion andirako egin genduzanak bere graziaren argiagaz lagun egiten deusku; eta gure bildurrak kenduteko, gu baixen argal zirianak bide egin ebela dirausku, eta galdu ezkaitian aren birtu[te] eta exenploak bide-laguntzat emoten deuskuz. Au izan da Zeruko bidetik ibilli zirian guztiak egin ebena. Onetarako artu eben zuben guraso birtuteen bideetati Gloriara igon ebenak Patroitzat N., bere exenploai jarraituteko, berak erakutsiten deuskuzan bidetati joateko. Eta au da zubek gaur zelebretan dozuena...

<sup>9</sup> Horrela, tilde eta guzti.

<sup>10</sup> Ostean zuzenduta: *atseguztietatik* > *atsegin guztietatik*.

## [ERREGE JUSTO BATEN GOBIERNOA]

*Laudate, cœli, et exsulta, terra. Iubilate, montes,  
laudem quia consolatus est Dominus populum suum. Is. 49, 13*

Urte luzeetan negar egin zuan Israelek Babilondar gogorren mendian, luzaro burniazko katiak arrastaka eraman biar izan zituban biotza ondo samin ta begiak negar-malkoz bustirik. Baña azkenian, urrikiturik Jangoikoa bere pena ta trabajoz libre atera zuanian, zenbat eta andiagok izan ziran bere trabajuak, anbat andiagok izan zan beren atsegin ta alegria. Trabaju, neke ta arazu<sup>1</sup> andiak izan dira zuk, N., aspaldian zure etsaien mendian igaro dituzunak; ez da izan neke, pena, presondegi, destierro ez eriotza gogorrik igaro ez dezunik (\*)<sup>2</sup>. Betiko nai izan zaitu kattia gogorrekin betiko lotu, baña eskerrak Jangoikoari libre ipini gaituzan ezkerok, zenbat andiagok izan diran aspaldiko trabajuak, anbat andiagok izan biar du gure atseguñak.

Bai, ondo erakutsi digu Jangoikoak zeñ poderio andikoa dan bere besoa. Bera izan da nekazale biargin<sup>3</sup>, pobre ta argalai sendotasuna eman diena, atxur ta azkora beren lanerako besterik manejatu ez duenai. Erreinu guztiko soldadeska eta gerra egiteko jeneral ta ofizialen jakituria ta sendotasuna kendurik, guztiak ikaraz bildurrak artu ditu<sup>4</sup>; atxurlar[en] oñetan<sup>5</sup> soberbo erituak humillatu ditu<sup>6</sup>, erakutsirik etsaiak ez daguala indarririk ez konsejurik Jangoikoaren kontra. Alperrik armaren indarrarian esperantza[z] gloriatu dira<sup>7</sup>; alperrik desafio arroak egingo dituzte, beren kañoa, metralla ta lanzaren zorrotasunakin mundu beren oñak mun egitera obligatuko duela pensaturik. Ez, Jangoikoak erakutsi-

<sup>1</sup> Ostein erantsita: *Trabaju > Trabaju, neke ta arazu.*

<sup>2</sup> Ondo lotzerik izan ez dugula eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Biotza samindurik suspirioak, negar-malkoak bota izan...*

<sup>3</sup> Ostein ezabatuta: *nekazale ta biargin > nekazale biargin.*

<sup>4</sup> Ostein zuzenduta: *ikara ta bildurrak arturik > ikaraz bildurrak artu ditu.*

<sup>5</sup> Ostein aldatuta: *euren aurrian > atxurlar[en] oñetan.*

<sup>6</sup> Ostein zuzenduta: *dituana > ditu.*

<sup>7</sup> Idem: *Alperrik Filisteo ta Goliat arroak bezela (< Filisteo ta Goliat arroak) beren indar ta armaren abillidarian gloriatuko dira > Alperrik armaren indarrarian esperantza[z] gloriatu dira.*



ko deutse zeñ utsak diran euren asmuak<sup>8</sup> bakarrik beren sendotasunian esperatzen deunai, eta Bera dala bitoria ematen duana<sup>9</sup>. Alperrikoak beren armaren sendotasunak. Ez dala erakutsi du gaur<sup>10</sup> Jangoikoa poderio gitxiagokoa, Goliaten arrotasuna artxaitxu baten bidez humillaturik, lepoa ebakirik, Israeli pakia ta Filisteoai lotsa ta afrenta ekarri zionekoa baño. Au da, nere N. maitiak<sup>11</sup>, zubekin Jangoikoa baliatu dana. Humillatu ditu Goliat arroak, erakutsi die blasfemoai<sup>12</sup> Jangoikoa dagoala eta Bera izan dala zubei sendotasuna eman dizuena soldado arro, sendo ta armatuak humillatzeko. Jangoikoak aditu ditu anima on askoren orazioak<sup>13</sup>.

Beragatik, eskerrak Jangoikoari, graziak Maria S(anti)s(im)ari bere anparuan daukan Españako erreñua ez dualako nai izan gizon arro Jangoiko bagekoen mendian gelditu dedin, eta bai argi egin dagien erlijioño santoak errege justo baten gobernoari, bere basalloak Zeru ta Lurreko zorion ta pakian emen bizirik, betiko koroiarekin edertuak izan ditezen. Ala bada, nere sermoiaren g[le]lia puntu labur bitan ipiniko det. Lelekoan esango dizuet zeñ mesede andiak diran erregerik justuena tronuan ipiniarekin ekarri dizkigun gure armaren bitoriak. Bigarrengoan, nola mesede onetara izan biar degun eskerronekoak. Aurrera... Abe Maria.

*Laudate, Cæli, lætetur et exulta, terra. Jubilate, montes...* Is. 49, 13

Ainbat andiago izaten da mesede bat, zenbat andiagoak izan oi diran berak dakarkiguzan zorionak; eta anbat estimagarriagoa, zenbat eta oker andiagotatik libratzen gaituban. Zorion bi oiek ekarri dizkigun ezkerok gure bitoriak, poz ta atseginez betiak ipini biar dire gure biotzak. Ez da mesederik Zeruaren beian, etsai azpiratuak<sup>14</sup> ta erriak libre ipinirik erregerik justoena tronuan ipinikoarekin<sup>15</sup> konpara dezakegunik. Au ondo ezautzeko, jakin biar da zeñ andiak diran erreinu ta erriai datozkiozkan zorionak errege on baten tronutik. Bera da tribunaletako juezai zuzen justizia eginerazorik, inozenziari bere saria emanik<sup>16</sup>, pobreak bere gerizpan gordetzen dituen. Errege buruon<sup>17</sup> batek nekazari ta biarginai ondo ezaturik berak dirala erreinuari izate guztia ematen diena, bere

<sup>8</sup> Ostein aldatuta: *Jangoikoaren kontu gabe > euren asmuak*.

<sup>9</sup> Idem: *utsak dirala beren asmo guztiak > eta bera dala bitoria ematen duana*.

<sup>10</sup> Ostein erantsita: *Ez da gaur > Ez dala erakutsi du gaur*.

<sup>11</sup> Geuk zuzenduta: *maitiea > maitiak*.

<sup>12</sup> Ostein erantsita.

<sup>13</sup> Ostein erantsitako esaldia.

<sup>14</sup> Ostein erantsita: *etsaiak > etsai azpiratuak*.

<sup>15</sup> Ostein aldatuta: *jarriakako > ipinikoarekin*.

<sup>16</sup> Ostein zuzenduta: *ematen diona > emanik*.

<sup>17</sup> Idem: *on > buruon*.

biotzian estimaziorik andiena ematen die, eta beren pretensio justuak aditurik anparoa ematen die. Bera izaten da komertzioari seguridadia emanik aberastasunak ekarten dituana, eta beste estatu guziko kontratuak fede onekoak izan ditezen eginik, erreinu bat zorioneko izateko biar dirian gauzaz aberastzen duana. Iruditzen iturri ugari bat erreinua-  
ren erdian ipinirik, bere ur ugariakin igarotzen dan probinzia guztiak erregadio ederrez freskaturik, frutu ugariak lurrari emanarazi ta aberastzen dituan bezela, ala errege on batek gobernu on baten bidez zabaldu-  
rik erreinu guzitik, estatu guzi[k]oak zorionez betetzen ditu. Guzia batian esatiarren, familiako aita arduratsu ta ondraduak bere etxe<sup>18</sup> ta fameliaren onerako nekaturik nondi aren ona billatuko duan ibilli oi dan bezela, ala da errege on<sup>19</sup> bat bere tronuan bere erreinuarentzako. Berak konpontzen ditu anaia-arrebaren artian erne oi diran errieltak; kastigatzen badu seme nabarmena, da kastigu prudente batekin arraiara ta arrazoara ekarteko, ta seme humil ta obedientiaren deretxoak errespetoz begiratuak<sup>20</sup> izan ditezen.

Aita on batek onela nekiak artuko ez balitu fameliaren onerako, zenbat errielta, eskandalu ta kalte bere familian izango ez litzateke? Ondo dakizue aita burugalduko batetik etorri oi jakezan kaltiak fameliari, eta zenbat zorion aita buruoneko ta justo batekotik. Bada, famelieta izan oi dana, au da erreinuetan jazoten dana. Burugalduko aitaren familian, pobrezta ta auzoen burugarri eginik bizi izatia; buruoneko aita gobernu-  
nauko familia, estimagarria, errespetoz begiratu. Beste onenbeste erreinuetan: burubageko erreinuan, pobrezta ta errielta franko barruan, buru-  
la ta barre alberreinuak kanpoan; buruoneko erregeren gobernu onian gobernatzen diranak, pakia ta ondasuna barruan, estimazio ta errespetoa kanpoan. Makina andi bateko errueda prinzipalak ondo dabiltzanian bere mobimentuarekin beste guztiak erabilli oi dituen bezela, ala errege justoren mobimentoak erreinukoai izatia ematen die. Anbestekoak dire, zeñ dira zorionak, ala dira libratzen gaituan kaltiak<sup>21</sup>.

Esan dizuet ere dala mesede bat anbat estimagarriagoa, zenbat kalte andiagotatik gordetzen gaituban. Ondo izango da ere au erakutsitia. Ez dago gizona baño abere itsuagorik, bere soberbia guztiari agindu naita-  
koa kendu ta besteren obedientzia ta agindupean ikusten danian. Ezin inundik ere artek artu izaten du arik eta urratu artian ura legeko katia, naitanaiezian loturik daukana, eta billaturik bere irudiko lagun<sup>22</sup> oke-

<sup>18</sup> Jatorrizkoan: *betxe*.

<sup>19</sup> Ostean erantsita.

<sup>20</sup> Geuk zuzenduta: *bagiratuak* > *begiratuak*.

<sup>21</sup> Ostean erantsitako esaldi iluna.

<sup>22</sup> Ostean erantsita.

rrak, ez dago beretzat arma eragotzirik baliatzen ez danik bere asmu deungak aurrera eramateko. Egi onen testigu dira erreinu ta probintzia guztietako historiak. Guztiak ikusten dira mantxa onekin gitxiago edo geiago illunduak. Baña lastimaz au geiago ikusten da gure denporetan. 1600 sigloren erdian, beti izan badire ere, agertu zan abere au munduan Europan. Abere itsubau burua jasotzen asi zan, eta agertu zaneko burua ausi biarran, ondo esan jakan<sup>23</sup>. Eta igaro dan sigloren erdian zabaldu rik Europa guztitik ta<sup>24</sup> indarrak arturik beldur gabe erakutsi zan Franzian, eta anbestekoa izan bere furia ezen, errege illik tronua galdurik, erlijioa oñazpiraturik milloaka gizonak il zituzan eta erreinurik onen bat betiko lutuz betia itxi zuan. Ez zan asetu bere furia Franzian eginda[ko] kalte bildurgarrizkorekin; igaro zan eta zabaldu beste erreinu guzietatik, desegin zituben erregiak, preso ipini Aita Santoa<sup>25</sup>, ostikoperatu erlijinoa, erre elixak, millaka il sazerdotiak, loitu donzellak. Onenbeste kalte beste erreinuetan eginik, troparik onenak Franziaera eramani[k]<sup>26</sup>, nok berari arpegi emon ez zeguala uste izan zuanian etorri zan España, eta engañuz gure erregiak eta bere familia guztia Baionara eramani, preso artu zituzan, bete España<sup>27</sup> tropa bildurgarrizkoz, ipiñi Murat jenerala erreinuko gobernadore. Andik laster erregalau genduzan Napoleonek bere anaia Jose Botellagaz. Emendik etorri ziran oker andiak geuk ikusi genduzan: anaiak illik, erriak sakeaturik, donzellak loiturik, guztia galdurik<sup>28</sup>... Baña azkenian begiak idigirik eta lozorro batetik bezela esnatu ta jaigirik, errege<sup>29</sup> ta erregeren amudioz, anbeste odol ta sakripizioen kostuz izan bazan ere, kendu genduzan gure arerioak, baztertu Napoleoau ta bere aguazilak. Oneleñ artian ez ziran gitxi Español traidoriak, gloriáz beterik gelditzen zala España<sup>30</sup> ta guziakgandik inbidiatua.

Nok esango ez zuan onenbeste desengañurekin esnatu ez zirala Españolak, aurrerantzian España ipini alekian kaltetatik gordetako? Baña, ez. Alan biar bazan ere, ez zan egin; eta Franziaera iges egin eben

<sup>23</sup> Ostein zuzenduta: *Lengo sigloren erdian agertu zan abere au munduan Europan, eta agertu zaneko burua ausi biarran, ondo esan jakan > 1600 sigloren erdian, beti izan badire ere, agertu zan abere au munduan Europan. Abere itsubau burua jasotzen asi zan eta agertu zaneko burua ausi biarran, ondo esan jakan.*

<sup>24</sup> Ostein erantsita.

<sup>25</sup> Idem: *desegin zituben erregiak > desegin zituben erregiak, preso ipini Aita Santoa.*

<sup>26</sup> Idem: *Onenbeste kalte beste erreinuetan eginik > Onenbeste kalte beste erreinuetan eginik, troparik onenak Franziaera eramani[k].*

<sup>27</sup> Jatorrizkoan: *Hespaña.*

<sup>28</sup> Ostein erantsitako esaldia.

<sup>29</sup> Edo, *erreinu?*

<sup>30</sup> Ikus 27. oharra.

Español afranze[sa]duak, Españian isillik ezkutau ta gelditu zirianakin, minau zuen berriz España Konstituzioko Lege Franziaakoarekin, eta Errege Franziaoko presondegitik etorri baño lenago, naitanaiezian proklamadu eben erreinuko legetzat Konstituziñoa iruraunda geiago artikulukoa, Maomen El Coranen<sup>31</sup> irudikoa. Prisa andia artu eben El Coranau<sup>32</sup> erne ebenak parrokia guztietan erreinuko legetzat ezautu leien, zer zan jakin bagarik juramentoa eskaturik. Au emon zan eskola-maixuai erakutsiteko doktrina santua baño premiña geiagogaz, au errietako abade maisuai Ebanjelio alderaturik fielai prediketako. Desterrau ziran onetara gogor egin eben obispoak, eriotzaz persegidu abade maixu jaunak. Baña onetatik bere libra ginduzan Jangoikoak Fernando Erregeren etorreriaz, eta biortu ziran gauzak lengo modura. Asko al ziran, bada, Españolentzat onenbeste desengaño kontu geiagorekin bizi izateko. Baña ez, etzan garbitu orandio biar bezela España, eta geldi-geldika untzurri geztoa ormiari<sup>33</sup> oratu oi jakan bezala, oratu jakazan Español len ixilik gelditu ziranak: kendu gobiernotik gizon onak, ipini beren aldekoak; kendu Errealistak, ekarri zirian Franzian iges eginde egozan traidore guztiak, eta erregina argal baten gerizpian guztia lengo modura biortuteko artu zirian bidiak. Eta au obetuago egiteko, desterrau eben deretxoz etorkion Karlos Infantia, eta protestau ebelako etorri zirian deretxo guztietatik deseredetara. Gizon on guztiak egozan sentimentoz beterik emetik etorri biar eben okerrak ezauturik. Nai zeukian alto egin, baña esku utsetan arma bage itxi zituban. Zorionez Bizkaia izan kendu ez zitubena, asmorik asko onetarako egin beben bere. Anbeste peliburuen erdian problemau zan Zeruak gure erregetzat señalaturik zeukana. Sakrifikau dira onetarako interes guztiak, Bizkaiko seme on guztiak, eta anbeste kosta bada ere, ontzat ematen ditu guztiak, ikusirik Zeruak aprobau duala berak egin duana. Zorionak betiko Bizkaiari eta bere seme sendo nobleai, ezingo deuta inok kendu gloria, onetan bere lelengoko alarma gloriosorena. Au da zubek N. egin dezuena; askorentzat zorakia zanari, zubek arpegi obiagoarekin begiratu diozue, eta zuen kausari Jangoikoak lagunduko zionen esperantzaz sendo peliatu dezube. Orra zuben armaren bitoria, zorion guztiaren iturria. Igaro gaitian bigarrengo puntu labur batera, zeñ dan erakutsitia zeñ motibo andiak daukaguzan onenbeste mesedera esker onakin erantzuteko.

---

<sup>31</sup> Geuk zuzenduta: *Alcoran > El Coran*.

<sup>32</sup> Idem.

<sup>33</sup> Jatorrizkoan: *borma*.

## SEGUNDO

Nai izanik Profeta [ta] Erregeak izan zitezen eskerronekoak Jangoikoagandik arturiko mesedetara, konbidatzen ditu kriatura guztiak alegria santo bat erakutsitera, Siongo gloriako triunfoko egunian himno santok kantaturik zelebratzera. Jangoikoaren aginduz erri biotz gogorrekoak au egin bazuan atxinako legian, arrazoa geiagorekin alkargana biltu biar gera esker onakin Jangoikoagandik arturiko mesede miserikordiaz beterikoai erantzutera. Onela ez egitia deritxot izango litzetela eskergeztokoren mota edo mantxa loiturik gelditzea. Jesukristok egiau erakutsitzen digu arako amar leproso osatu zituanian, ikusirik eurektatik bat esker ematen joan jakala, alabatu zuan aren esker ona, eta erakutsi sentimientua beste bederaziaren esker deungarena. Eta S(a)n Jeronimok esaten digu, bere denporako Judu guztiak siñastuak zegozala Ezekias Erregeren eriotza peligroko gaixoa izan zala, eskerrak eman ez zizkalako Jangoikoari, Angeru Santuak Jangoikoaren aginduz gau baten illik eun da larogeta bost milla (bere etsai) Senakeriko exerzitutik irabazi erein zion bitoriagatik. Beste ezin kontala beste exenplo ikusten dira Libru Sagra-duetan. Peliburu andian egoan Betuliako erria, ija Olofernes jeneral arroen eskutan jausirik kautibo izateko zorian, baña milagrozu Judit emakume alargun santa batek jeneralari lepoa ebakirik libre gelditu ziranian, erri guztia baturik alkargana egun askotan fiesta santo bat egin eben, ofrenda santoakin ondratzen zebela. Ez dira gitxi izan Olofernes lagunak, beren soldadeskaren indar ta soberbiarekin betiko kautibo ipinirik Bizkaiko izen ona betiko illundu nai izan duenak. Jangoikoak, bada, libratu bagaitu, Betuliarren irudira batu gaitian Jangoikoari esker santok ematera.

Zeñ modutakoak izan biar duen gure eskerrak iñok baño obetuago erakutsiko digu S(an)to Tomas gloriosoak. Iru modutakoak esaten digu izan biar duela gure eskerrak: 1. Biotzetikoak, ezautu ta estimatzen degula mesederen anditasuna eta beraganako obligatuak gelditzen gerala; 2. Itzezkoa, aoz eskerrak emanik alabatzen degula gere Ongillia; 3. Obrazkoa, obra onakin mesedeai erantzuten diegula. Bestela, zer baliatuko digu mesedeak ezautzia[k], obra onakin erantzun biarran, Jentillak bezela edo gaizkiago erantzuten badiegu? Au izango litzateke kastigo geiagorekin kastigatuak izateko zoria[n] Jangoikoa paratzia. Beragatik, pekatuak baztertu eta obra onak egin, au da eskerrak Jangoikoari emateko modua. Ez da mesederik andiena bitoria onen bidez gure foru ta libertadeen gozamina; orandik andiagoa Erlijiño Santoa, gure guraso santoagandik arturiko maiorazgia eternorakoakin gordetia gure erriak. Au da orandik guzien ganian mesedegarriena. Zer egin ez debe au kentzeko? Tirorik prinzipalenak onen kontra izandu dira. Testigo egi onen,

Madrid, Malaga, Zaragoza eta beste konbento askotan degollatu dituen erlijiosoak, batzuk koruan, elixan, ofizio dibinoak erreza[tzen], ta beste al zituben tokietan. Ez degu aditu guk ere besterik: il bedi erlijio, ill bitez fraille ta abade guziak. Au da erregiña argal baten gerizpan gorderik egin duena. Ez da besterik biar Jesukristoren etsai eta erlijioen persegi-salliak diriala<sup>34</sup> aditzen emateko. Eta prueba geiago biar balira, sobratuak dauzkagu beren arpegien esateko, Elixako sakramentorik benegarrienakin egin dituenak. Eta au Euskal Errian, eta Euskaldunak. Esker-rak, bada, Jangoikori milla bidar, eta gure soldado ta agintari balienteai oker guztietatik libratu gaituelako...

---

<sup>34</sup> Geuk zuzenduta: *dira* > *diriala*.

**[JANGOIKOEN PAZIENZA TA MISERIKORDIA]**

*Venite ad me omnes qui laboratis et onerati estis, et ego reficiam vos.*

Mt. 11, 28

Jangoikoari eskerrak, bere miseriordiari laudarioak, zorione[z] beteriko egunok erakutsiten deuskusalako. Zeñ diferentia egun one[ek] igaro dituzuben adu geztokoetatik! Benetan motibo andiak atsegin santoz beterik eskerrak Jangoikoari emoteko. Zorionez beteriko libertadeko egunak ekarri ditu zuben fediak, biotzeko sendotasunak eta arime on askoren oraziño santuak. Bakarrik euren indarrarian esperantza ipiñi dabenak Jangoikoagaz kontau bage azpiratu ditu; betiko zubeak katipean ipini gure izan zaitubenai erakutsi deutse Jangoikoak ez daguala indarririk bere kontra. Atxinatik esan eban Berak desegingo zituala munduko jakintsuen jakituria ta prudenteren prudentzia guztia; eta alako moduan oraño gerra onetan erakutsi deutse eze, guztiz itsuba izan biar da au ezautu ezeiteko. Guztia izan da milagro uts bat. Eskubete gizonek, (esaterako moduan), arerioen parian, atxurra ta laijia besterik eskuetan artu ez ebenakaz, humillatu ditu Jangoikoak Faraon denporan legez zuben kontra agertu ziran jeneral soberboak. Bizkaian ta beste probinzietan jakintsutzat igaro diranak, zorakeriatzat, burubagekotzat artu ditube zuben libertadeko gerra onetako asmu santuak, euren poderio ta interesak enpeñau ditube zubei soldadeska guztiak baño gerra biziago bat egiteko. Ez dabe ezautu zuben gerra santuan sartuta egoan Jangoikoen interesa, munduko jakituria utsagaz baliu dira, ez dabe Jangoikoagaz kontau; beragatik, desegin dituz euren pentsamentuak eta jausi dira zuei armauriko lakioan. Beragatik, gloria Bizkaiko gobernadore noble, soldadu sendo eta ganeko gerra onetara bizkarra ipiñi dozuen guztiai.

Orregatik bere, esan<sup>1</sup> biar deusubet gure pekatuen zijorra izan dala gerrau<sup>2</sup>... Añ da santua gure erlijioa eze, ez dago okerririk geuk gure izan ezkeron onera ez dakarrenik. Igaro dogun gerra edo Zeruko ziorra, gauza biterako erakutsi deusku Jangoikoak: 1. Gure pekatuak zeñ ase-

---

<sup>1</sup> Geuk zuzenduta: *izan > esan*.

<sup>2</sup> Ostean erantsitako esaldia.

rratua daukan ezauturik, euren penitenzia egin ta aurrerantzian obetua-go biziteko; 2. Zeñ dirian pede<sup>3</sup> firmekoak ta zeñ azaletikoak erakutsiteko. Len otsoa ta ardia batera nastian ikusi[al]gatik, zeñ zeñ dan ezin igarri izan dogu, askotan otsoa arditzat eta biarbada ardi irudikoa otsoak ezautu ez doguz. Baña gerra onek ipar axiak gari ona lodozdunetik garbitu oi daben legez, alantxe gerra onek zeñ zeñ dan erakutsi deusku. Ikusirik orregatik ere<sup>4</sup> fede aldeko soldaduak zuek izanagatik, gerra luze batek erakutsi oi dituben okasiño askoren erdian, argaltasun, pazienza palta edo beste onelako gizonaren miseriari dagozkiozan paltaren batzuetan jausi al izan ziñatekezala, erri onetako kabildu, justizialako jaun prestu ta beste erriko auzo ondradu guztiak deitu deuskue misiño san[tu one]tara, zuben munduko interesetan añ ondo urten dozuen ezkerro, (...)etan alantxe garbirik ta osorik (...). Orregatik, gaur zuben biotzak zabaldu dagizuezan, erakutsiko dizuet zeñ andia dan Jangoikoen pazienza pekataria penitenziara itxorotean eta bere miseriakordia neurribagia pekatariarik andienai parkatzean. Jangoikoen pazienza ta miseriakordia, zeñ itz gozuak! Ai! Nok egun onetan ekarri lleilkezan munduko pekatari guztiak euren biotzian ondo eskribiturik ipintzeko eta bere bidez salbazioko bidian paratzeko! Baña onenbeste ezin dedan ezkerro, neure biotza Jangoikoagana jasorik esango dizuet Jeremias Profetarekin: Zuk Gizona, zuk Lurra, aditu humildadez Jangoikoaren itza. Bera da zuri deitzen dizuna, esanaz: Konberti zaitea nigaña, eta prest nago zure pekatuak parkatzeko.

O Jangoiko andia! Zeñ gortuko da zure amodiozko deseotara, eta zeñ erakutsiko duana noraño allegatzen dan zure pazienza ta miseriakordia pekatariakiko! Pekatuen pisuz<sup>5</sup> beldurturik biot[z] erori[ri]k eta salbazioren esperantza galdurik zeudenak, anima zaiteze, sendatu zuben biotz ta belaun-ikarak, ipiñi zaiteze bere miseriakordiaren gerizpan, eta Berak enterratuko<sup>6</sup> ditu bere miseriakordiaren enterrorioan aien akordurik sekula geiago ez izateko. Gure Jangoiko maitea pekatarien Jangoikoa da, urrikitsua, pekatarien bakegillia, ardi galduen billa anbeste pausu nekezko eman zituena. Gizona pekataria izanagatik, Jangoikoen kria-tura okerra izanagatik, bere semia da<sup>7</sup>; (eta zenbat galduago ikusten duan, anbat geiago nondik onduko duan alde guzietatik alegiña egiten dabil). Akordatzen da bere amodioak ekarri zuala Lurrera, beregatik

<sup>3</sup> Alternantzia: *fede* / *pede*.

<sup>4</sup> Ostean aldatuta: *bada* > *orregatik ere*.

<sup>5</sup> Ostean ezabatuta: *Pekatarri pekatuen pisuz* > *Pekatuaren pisuz*.

<sup>6</sup> Ostean aldatuta: *estalduko* > *enterratuko*.

<sup>7</sup> Ostean erantsita.



bere zañetako orol guzia eman zuana. Zenbat gaixoagorik, mediku onak bezela egarri andiaz billatzen du bere osasuna.

Eskritura Santo guzian au besterik ikusten ez degu; Dabid, Pedro, Madalena, Zakeo ta beste askorekin egin zuan miserikordiak au besterik esaten ez digu. Au berau Elixia Ama Santaren Libruak S(an)ta Maria Egip[z]iakoren bizitzan. Ez da ikusi eskandalu geiagoko pekatarririk S(an)ta Maria Egipziaka baño. Bere amabi urtetik ogeita bederatziraño-ko guztia, Jerusalem ta Alejandriako eskandalu bat izan zan. Jaio zan Santa au Egipton, amabi urte zituanian gurasoen lizenziaz igaro zan Alejandriara, non egin zituan frenubako gazte odol biziko eta lotsabageko emakumerik okerrenak [eg]in aleikezan pekatarririk andienak. Andik igaro zan Jerusa[le]nera itsasoz Kurtze Santua ikustera joan ziran askogaz, ez Kurtzif[a ikusti]agatik, ezpada bere deseio zantarrak kunplitzeagatik.

(\*)<sup>8</sup> Guztia lotsa santu bateaz negarrez urturik, esaten zion bere aita espiritual Zosimo Abatari: Noren mingañoak erakutsi ta noren belarriak adituko ditu nere pekatu itxaso ta lurrez egin ni[tua]nak? Neu izan nintzan bestiak pekatarrako obligatzen nituana, [ta] barkutik urten orduko zoro bat eginik Jerusalem guztiti asko galtzen ibilli nintzana. Egiar andia bere miserikordia Jangoikoarena<sup>9</sup>, bere galtzaibide deunge onetati atera, eta anbeste santida[de]ko bidera ekartian. Begira nola Kurtze Santuen egunian deboziñoaz baño kuriosidadez sartu nai du[an]<sup>10</sup> bestiak bezela Jerusalemgo elixan Kurtzia adoratzeko; baño eragotzitzen dio barrutiko kontrako indar batek, bigarren ta irugarrenez enpeñatzen da, eta ikusirik ezin sartu zala, geldituten da guztia negarrez portiko bazterrian, ezautzen da galdutzako, sentimento suspirioak emen dira. Onetan ebillela, erreparatzen dio elixako ate barruan egoan Ama Santisimaren imaginari, negarrez proposituak egiten dizka; eta ezautzen beinguan bere biotzian aparteko indar santu bat, eta dei bat esaten ziona sartu ta adoratu zezala Kurtze Santua. Asiten da bildurrez sartzen, eta ikusirik bere biotzian indar aparteko santu bat, negarrez deseginik adoratzeko du, bustiten du bere anima Zerutiko graziaren euri santos; eta arturik Zerutik ordena, igoroten Jordan ibaiko andiko aldera, non basamurtu batian bizitza guztiko estaldu zan, beste lagun bage animalia itzugarri desierto artan zeudenak baño. Emen Santa onek egin zituan penitenziak, igaro

<sup>8</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *ñok baño obetua-go berak erakutsiten zeñ pekatari arina izan, Zosimo Abateri konpes(...).*

<sup>9</sup> Ostean aldatuta: *Baña, zeñ miserikordia andia Jangoikoarena! > Egiar andia bere miserikordia Jangoikoarena.*

<sup>10</sup> Ostean erantsita: *Deboziñoaz baño kuriosidadez sartu nai du[an] > Begira nola Kurtze Santuen egunian deboziñoaz baño kuriosidadez sartu nai du[an].*

zituben gerra biziak lengo bide okerrera biortzeko, irabazi zituen bitoriak<sup>11</sup>, angeruen laguntza ta ganekoak ez dira erraz erakutsiten. Modu onetan pekatariarik andionekin erakutsi zan Jangoikoen pazientzia ta miserikordia.

Santa au ipini zuan Jangoikoak bere Elixan bere miserikordiaren kreiturako, eta pekatariak argal ta galduak izanagatik, ez bere miserikordiaren esperantza galtzeko, bai berarekin geiago ta geiago baliatzeko. Bada<sup>12</sup> elixa onetan S(an)ta Maria Egipziako besteko lotsagarritzko pekatuak egin dituanik? Ez det uste; baña balego, ez anbeste egin duana, baita bere doble ta doble egin duanik, askori pekatuak bidia emon diotnik. Au guztiau ezer ez da Jangoikoen miserikordiaren pareko. Balitz bat Judas bera izan bestekoa bere, damutu gura badau ta balia bere miserikordiarekin, prest dago Jangoikoa pekataria artzeko. Eskritura Santuan Jak[ob Patri]arkaren semiak<sup>13</sup> ikusi ebenian Jose euren anaia traiziñ[ol] (...) izan zanian, traiziñoz saldu ebena Erregen urren[go] (...) eginik, bildurtu ziran. Baña esanik Josek "ni naiz zube(...), ez zaiteze bildurtu, ez dizubet gaitxik egingo", sosegatu ziran. B[aña], pekataria, zuk openditu dezuna Jangoikoa izanagatik<sup>14</sup>, Berak [esa]ten dizu lenak damuturik ondu nai badezu, ez zaitiala bildur[tu], ez dizula gaitxik ekarriko orangiñoko opensak. Eta Joserren anaiak bildurrez egonagatik, aditu zubenian ez bildurtzeko, ez ziela gaitxik egingo, sosegatu baziran, geiago ta geiago milla bider sosegatu biar zera esanik zuri ez Egiptoko agintariak, eta bai<sup>15</sup> Jangoikoak.

(\*)<sup>16</sup> Au guztia gitxi bada zure biotzetik deskonfiantza kendu ta esperantza bizi bat artzeko, izan bedi Jangoikoak berak esaten dizuna: Nik nere itza enpeñatzen dizut ez dizudala ukatuko<sup>17</sup> eska[i]ntzen didazun (...)zari, ondu nai badezu. Eta au ere gitxi bada, egi eternoa da. Jangoikoak, ez bera engañatu, añ gitxi besterik engañatu ez lezakenak, juramentoarekin eskaintzen dizu Berak osatuko dituala zure

<sup>11</sup> Ostein aldatuta: *penitenzial[k]* > *bitoriak*.

<sup>12</sup> Geuk zuzenduta: *Baia* > *Bada*.

<sup>13</sup> Ostein erantsita: *Jak[ob Patri]arkaren semiak* > *Eskritura San[tua]n Jak[ob Patri]arkaren semia*.

<sup>14</sup> Ostein zuzenduta: *zuk openditu dezuna ez ei da Jose, bai Jangoikoa* > *zuk openditu dezuna Jangoikoa izanagatik*.

<sup>15</sup> Ostein erantsita.

<sup>16</sup> Ondo lotzerik izan ez dugula eta, ez ditugu eransketa hauek transkribatu: *Eta oni gitxi baderitxazu kentzeko deskonfiantza, begira zer...* [Aurrerago:] *Gura dozu orandik geiago? Begira zer dirautsun: Nere itza enpeñatzen dizut, dio Jangoikoak, ez dizula gaitxik...* [Aurrerago:] *Nai dezu orandik Jangoikoen miserikordiaren kreiturako geiago aditu?*

<sup>17</sup> Ostein zuzenduta: *ukatu* > *ukatuko*.

pe(katu)zko<sup>18</sup> zauriak. Eta orañdik geiago esaten dizu: Nik erri oso bat galtzeko sententzia emanagatik, erriau damuturik etorriko balitz penitentzia egitera, ausiko det nere sententzia; eta bere kontra emaneko maldizioa, bendiziora bi[o]rtuko diot. Auxe da egin zuana arako Ninibeko erri pekatariak. Arako errian gizon zar gezto, emakume libre, guraso ardurabageko, ume<sup>19</sup> desobediente, otsain lotsabagekoz beterik egoanian, bertako Errege Sardanapaloren exenplo txarrai guztia jarraiturik Zeruko kastigua besterik eskatzen etzuanian, zematu bazituan ere Jonas Profetaren bidez berregei egun barruan Ninibe guztia desegingo zuala, arri bat besteren gañian itxi bage zar ta gazte umegiñokoak<sup>20</sup> galduko zituala, sententzia gogor orregaz bildurturik, negarrez penitentzia egiten ikusi [zi]tuanian gizon zarrak sepulturetan etxunik, señoira ta damak buruak autsez beterik, umiak<sup>21</sup> negarrez amak penitentziarako bulerrak ukaturik, penitentzia negargarriau ikusi zuanian, guzti[a] parkatzera etorri zan. Ala bada, zuri pekataria, zure pekatuak andiak izanagatik, zure kontra sententzia emanagatik, damuturik guztia Jaunaren miseriordiaren besartera etxuten bazera, zu[re] kontrako sententzia ausiko du, ez da etorriko ondu nai dua(...) konfianzarako egindako juramentoa ausitzera. (\*)<sup>22</sup> Ez bedi (...) elixa onetan Jangoikoen miseriordiaren etsairik, Kainek (...) esango duanik andiagoak dirala bere pekatuak, Jangoikoak bere [miseriko]rdiarekin parkatu al dizkana baño, zerren au dan pekatariak egin al dezaken[a].

---

<sup>18</sup> Osteen erantsita.

<sup>19</sup> Jatorrizkoan: *bume*.

<sup>20</sup> Idem.

<sup>21</sup> Idem.

<sup>22</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Zu p(ekatari)a, [zure] pekatuen pisuz ikaraturik Kainen denporan bezela esaten dezuna, andiagoak dira zure p(...).*

**[BIRALDU EBAN BERE SEMIA GIZONA ERREMEDIETARA]**

*Venite ad me omnes qui laboratis, et onerati estis, et ego reficiam vos.*

Mt. 11, 28

Arako mundua inoz baño galduagorik egoanian, pekatuaren laño baltzak besterik ikusten etzanian, birtute ta santidade guztia erbesteturik, Jangoikoari etorkion adorazinoa gizonak soberbia ta banidadez eurekganaturteko bidiak egiten ebiltzezanian, bere ezauerarik justu gitxi batzuk baño bestek ez ebenian, guztiak itsuturik kudizia, gorroto ta gaiztakeria guztiai jarrañituten eutsenian, pekatu onen zaurietatik osatu biar zituben erremedioz azturik<sup>1</sup>, ez eskatu, ez billatu, añ gitxi gogorik bere onetarako ez ebenian, orduan ikusirik Aita Zerukoak erremedio bage galdu biar ebela, gizonen galdu biarraz lastimaturik bere biotz errukiorra guganaturik, biraldu eban bere Semia gizona erremedietara. Jatsi zan Zerutik Lurrera, artu eban Birjiña garbi baten gizontasuna, jaijo zan pobrezarik andienian, igaro eban bizitza nekezko bat; ibilli zan erririk artzain maiten ardi galduen billa ibilli oi dan modura, bere bizker ganian ardi galduak artu eta beraganaturteko. Bere arma pekatariak irabazitekoak izan zirian esatia pekatari galduai pekatuari itxirik bizitza santuago bat, birtutezko pausuai jarraitu leijoela. Bere berbak beti Jangoikoaren Semienak lezkuak, añ indar bizi ta andikoak, eta anbeste itzalekoak eze, pekatariarik andienak arritzen zituban. Bere amodioa damaturik etorrentzako anbestekoa eze, besoak zabaldurik, biotza samurturik, pekatu ta gaiztakeriak azturik, bere seme-alaba maiteak legez bakiak eginik, konsueloz ganezturik Zeru eginik biralduten zituban.

Eta inok bere pekatuz beterik egonagaitik salbazinoen esperantzarik galdu zeleyen, pregoi jeneral bat bota eban konbidetan zituala guztiak, esaten eutseela: Erdue nigana pekatuen katiapean galdurik zagozen guztiok; nik kateoorrefelk urratuturik, zauriok osaturik deskantsu emongo deusuet. Ara emen Jangoikoren Semiak mundura agertu zanian egin ebena; eta beste onenbeste dator gaur zubekaz egitera pekatuen bizi

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Ostein ezabatuta: *zaurietatik erremedioz azturik* > *erremedioz azturik*.

zareon askogaz, misino santu onen bidez. O Jangoikoaren pekatarien-tzako miserikordia! Bai, noz pekatuak andienakaz aserratuagorik dauka-zuen, noz kastigurik andienakaz kastigetia merezidu dozuen<sup>2</sup>, noz bere miserikordia gitxiago merezidu dozuen, gorturik eta gogortuagorik<sup>3</sup> zuben gaiztakerietan ondaturik, arima ederrak, Jesusen odol preziosoagaz irabaziak zauritu, gaixotuago[rik] betiko galtzeko zorian, zauri orrefe]tatik osatuteko (...) [b]agarik. Ikusirik zuen biotzera egineko (...), (...) zuben betiko galdubiarrak (...), (...) [d]lirausku gaur bere miserikor-diaren konbit eta pregoi jeneral bat zubei egiteko.

Bai, N.K. Jangoikoaren Semiak mundura etorri zanian mundutarra-igin eutsen konbita bera, gatoz gaur zubei bere bere partez barrizteta-ra, au da, erakutsitera nola Jangoikoa zuben miseriaz<sup>4</sup> errukiturik, enpe-ñadu dan bere miserikordia eta graziaren euri santuagaz aberastuteko. Anbeste urtian pekatuen zauriz galdurik, zuben erremedioen esperantza guztia galdurik, Jangoiko biotz samurrekoari miserikordia bage justizia utsagaz begiratuta, Kainek denporan legez esaten dozuenok andiangoak diriala zuben pekatuak, Jangoikoak bere miserikordiagaz parkatu aleike-zanak baño, poztu zaitezze. Bada, Berak dirautsue etzala etorri Zerutik Lurrera justuen billa, pekatarien ezpada. Etzan jatsi Zeruko Artzain maitia bere Aitaren artaldian gordeta zegozan ardien billa, ezpada arako mendi erratuetatik galdurik otso geztoen agin artian jausteko zorian ego-zanen billa. Onexen billa biraldu eban Aita Zerukoak; biralduten gaituz gu bere gaur zubekgana betiko galdu etzaitien, bere artaldi santura bior-tu zaitian. Ze miserikordia, ze ontasuna Jaun Zeruko maiteena!

Zeñ izango da konbit onetara ukatuko dana? Esan egidazu. Zure auzoko etsia suak artuko baleu<sup>6</sup> bertakoak lo gogorrian dagozala, eta lo onetan iñok irazartu ez eitiagatik etxiagaz batera erreko balira guztiak, baita igoroko balitz su ori zure etxera, zu bere are[elk] legez lo gogorrian zagozela, baita ikusirik zure a[ul]zoko batek erretara zoazala, erre etzai-tian amodioz deituko baleuskizu eta irazartu, esaten deutsula: Urli, gora agudo, bestelan zoaz erremedio bagarik erretara. Bestiak irazarturik eta peliburuori zuk ikusirik, nagika geldituko zinateke jaigi gura bagarik eta zure burua galdutera? Ezetz esaten deustazu. Bada, jakinda egon zaite su Inpernukuak erre dituela zure auzoko lagunak, zurekin batera peka-tuan puntuan ibillikoak; eta zu bere erretako zorian egonik, datorkizu

<sup>2</sup> Geuk zuzenduta: *dezu* > *dozu*.

<sup>3</sup> Ostean zuzenduta: *gogor* > *gogortuagorik*.

<sup>4</sup> Idem: *miseri andiaz* > *miseriaz*.

<sup>5</sup> Geuk zuzenduta: *belau* > *baleu*.

dei egitera, pekatuen zu orretati agudo iges egin dagizula esatera. Eta añ nagia izango zara, pekatuen zu orretatik jaigi ta iges egin gureko ez dozuna? Ezetz uste dot.

Irazartu zaitte, bada, aspaldian pekatuan lo zagozana, anbat lasterren iges egingizul, su Inpernuakoak erre baño lenago. Etzaitte izan bur(...) (...)uteko gaur (...) galdu etzai(...).

## [ESKER GEZTOZ]

Konbeni izan zan, arako etsaia<sup>1</sup> gure lelengoko gurasoak arbole baten bidez engañatu zituana<sup>2</sup>, beste arbole batian izan zeitian benzitua Jesusgandik. Arrazoia zan arbole batetik etorri zitzaigun bezela eriotza, ala beste arbole batetik etortzia bizitza. Baña, zer kostatu etzaio gure Jesus maitiari gu eriotzatik libratu eta bizitzara biortzeau? A! Nik erakutsi nezaken<sup>3</sup> baño obetuago esango digu Jesus<sup>4</sup> dibinuaren erretratu Kurutze orretan dakuskun orrek. (\*)<sup>5</sup> Zeñena da Kurutze Santu orretan dakuskun iduriori? Nere aditzaille maiteak, ori da anbete milla urtian munduak anbete negarrekin deseatua? Ori arako Jesus Marian Semia, Nazaretgo Profeta andia, itz eta obretan añ poderoso, gaixo guztiak osatu eta illai bizia ematen ziena? Fediak erakutsiko ez baligu, ezingo giñake siñastu ori dala eta gizonak añ esker geztoz erantzungo ziela.

Jesukristo gure Jaunak<sup>6</sup> esan zuan konbeni zala Bera kurutze batera jasotia, Moisesek desiertuan metalezko sugarrasta jaso zuan bezela. Eskritura Santuak numeroko Liburu Santuko og[elita batgarrengo kapituluan esaten digu, Israelgo erriak bere Jangoikori<sup>7</sup> adoratzeari utzita, Berak egif[n]dako metalezko txekor bat Jangoikotzat artu ta adoratu zue-nian, aserreturik Jangoikoa bere Erri ingratoren kontra, suge itzalgarrizko plaga batekin ezin kontala Israeldar il zituala, eta geien edo guztiak galtzeko zorian egonik, guztiak negarrez Moisesgana<sup>8</sup> joan zirala; eta urrikiturik Moises bere erriaz, bere besoak jasorik Jangoikoen bitarteko eta enpeñutzat paratu zala Jangoikoen kolera justua itzalitzeko. Eta adi-turik Jangoikoak Moisesen orazioa<sup>9</sup>, agindu zion egiteko metalezko sugarrasta bat, eta jasorik desiertu artan sugarrastau, sugarrastak ozka egineko guziak begiraturik fede bizi-az metalezko sugarrasta oni, osatuak izango zirala.

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Ostein erantsita: *Konbeni izan zan > Konbeni izan zan, arako etsaia.*

<sup>2</sup> Geuk zuzenduta: *zitian etsaia > zituana.*

<sup>3</sup> Ostein zuzenduta: *nezakean > nezaken.*

<sup>4</sup> Ostein ezabatuta: *arako Jesus > Jesus.*

<sup>5</sup> Testu barruko oharra: *Corren la cortina.*

<sup>6</sup> Geuk zuzenduta: *Jauanak > Jaunak.*

<sup>7</sup> Ostein zuzenduta: *Jangoikor > Jangoikori.*

<sup>8</sup> Idem: *Moisesen kontra > Moisesgana.*

<sup>9</sup> Idem: *orazioari > orazioa.*

Jesukristo gure Jauna Kurutze orretan jaso<sup>10</sup> da iduri bizia; arako Moisesek desiartuen Israeldarren osasunerako jaso zuen pekatuzko sugarrastaren ozkaz<sup>11</sup> eriturik gelditu giñanen osasunerako<sup>12</sup> paratua. Fede bizi bateaz begiratzen badiogu, betiko eriotzatik libratu betiko bizitza izango degu; eta osasun obiagoa Israeldarrak desiartuan izan zuen baño izango degu. Fede bizi onek eraman biar gaitu gaur Kalbarioko mendi santo orretara<sup>13</sup>, Kurutze santo orretan gure amodioz il zan Jesus maitiori ikustsera, arako Zeruak gaurko egunez, gure miseriaz<sup>14</sup> urrikiturik, Kalbarioko mendian erakutsi ziguen bezela. *Cum exaltatus fuero omnia traban ad vos.*

Jesusen esana da<sup>15</sup>: Kurutzean jaso izaten naizanian, eta Zeru-Lurra-  
ren bitartian paratua gizon eta Jangoikoren pakegilla eginik, orduan guz-  
tiak nereganatuko ditut amodio bizi baten señalearaz. Besoak<sup>16</sup> zabaldu-  
rik, burua beraturik, biotza idikirik konbidatuko ditut, eta amodioren  
indarrez neroneganatuko ditut pekatariak. Osatuko ditut pekatuen zau-  
rietatik, eta betiko bizitza emango diet. Au<sup>17</sup> da Elixia Ama Santak Mis-  
terio Santo onen bidez egin dezagun nai duana. Onetarako paratzen  
digu Kurutze orretan<sup>18</sup>, bere bista urrikarriakin bigundurik gure biotzak,  
pekatuen negarrak erakutsi dezagun, eta gure erredenzioko obraren fru-  
tua, zeñ dan gure salbazioa, merezi dezagun.

Baña, ai<sup>19</sup>! Zeñ da gaur arako Kristoa onenbeste zorionetara esker  
onakin erantzuten<sup>20</sup> diona? Zenbat gortu ta gogorturik pekatuan bizi ez  
dirade? Au da gure Jesusen biotza penatzen duana, anbeste miserikor-  
diazko zorionetara obra onakin erantzun biarrian, pekatuakin erantzu-  
tiak. Eta au<sup>21</sup> izango da nere sermoiaren gaia.

<sup>10</sup> Idem: *jasorik* > *jasoa*.

<sup>11</sup> Idem: *jaso zuenena osasunerako izen bezela, ala gure osasunerako Kurutze orre-  
tan dakusguna pekatuaren sugarrastaren ozkaz* > *jaso zuen pekatuzko sugarras-  
taren ozkaz*.

<sup>12</sup> Geuk zuzenduta: *osasunerako* > *osasunerako*.

<sup>13</sup> Ostean aldatuta: *Bai, fede biziakin begiratzen badiogu, betiko bizitza arkantz-  
tuko degu* > *Fede bizi onek eraman biar gaitu gaur Kalbarioko mendi santu orre-  
tara*.

<sup>14</sup> Idem: *amodioz* > *miseriaz*.

<sup>15</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>16</sup> Geuk zuzenduta: *besosak* > *besoak*.

<sup>17</sup> Jatorrizkoan: *Hau*.

<sup>18</sup> Ostean ezabatuta: *paratzen digu Kurutze orretan begien aurrian* > *paratzen digu  
Kurutze orretan*.

<sup>19</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>20</sup> Geuk zuzenduta: *erantzuten* > *erantzuten*.

<sup>21</sup> Ikus 17. oharra.



O Kurutze Santua, paraizkidazu nere biotzian<sup>22</sup> zuri biar dizkitzudan amodiozko sentimenduak! Beti izan zera gure konsueloa, baña gaur zure bitoriaren egun santo onetan, iñoz baño geiago eskatzen dizut graziau<sup>23</sup>, nere biotzeko gogortasunak zukanako<sup>24</sup> kendurik bitoria<sup>25</sup> irabazi dezazun, Jesusek egun onetan mundu ta Inferuari irabazi zion bezela; eta orrako zure<sup>26</sup> odol santuak, zeñaz estalirik zauden<sup>27</sup>, argitu ditzen nere aditzaillaren belarriak, eta garbitu nere mingaña.

Bai, Jesus maitia, konsideratzian<sup>28</sup> zu nere amodioz errerik ikustsen zaitudanori openditu zaitudala, ezin zure amodiozko bista santo orri begiraturik, urratzen zat biotza. Ni naiz, nere Jesus maitia<sup>29</sup>, Kurutze orretan josi zaitudana. Eta zergaitik etorri naiz au egitera? Ai nere pena<sup>30</sup>! Ez det lotsa-bildurrik izan<sup>31</sup>. Aixiaren indarrez igaro oi diran llañoak baño arintasun geiagorekin igaro diran pasatienpoakgaitik; añ gauza gitxigatik galdu det nere Nagusirik onena eta Erregerik poderosoena. Nik au<sup>32</sup> zure kontra egiñik, ez zat beste gauzarik gelditzen, zu neretzat añ ona openditu biar izana negar egitia baño. Onek<sup>33</sup> obligatu n[au] emendik aurrera eskerrobeagokoa izatera. Eta nere biotzian paratzen ditudan proposito santo oek nai nituke paratu nere aditzalletan, guztiok batera zu openditu biar izana negar eginik merezi dezagun Kurutzeko arbole orretatik eskañtzen dizkiguzun frutuak], gure pekatuen parkazioa. Onetarako biar det Jan[goikoaren]...

---

<sup>22</sup> Osteen erantsita: *paraizkidazu > paraizkidazu nere biotzian*.

<sup>23</sup> Osteen aldatuta: *sokorroau > graziau*.

<sup>24</sup> Osteen erantsita.

<sup>25</sup> Osteen aldatuta: *nere biotzian bitoria > bitoria*.

<sup>26</sup> Osteen erantsita.

<sup>27</sup> Osteen zuzenduta: *estalirik ikustsen zaitudan > estalirik zauden*.

<sup>28</sup> Idem: *Bai, amodioz errerik > Bai, Jesus maitia, konsideratzian (< konsideratziak)*.

<sup>29</sup> Osteen aldatuta: *Jangoikoa > Jesus maitia*.

<sup>30</sup> Osteen erantsitako esaldia.

<sup>31</sup> Idem.

<sup>32</sup> Osteen erantsita.

<sup>33</sup> Osteen aldatuta: *Oek > Onek*.

## LLAGAS

*Si quis vult post. Mt. 16, 24*  
*Discite a me quia mitis sum. Mt. 11, 29*

Elixa Ama Santak beneratzen dituben Santoen artian atenziorik<sup>1</sup> geien merezitu duana da nere Aita S(a)n Fr(anzis)ko. Bere bizitza, biotzeko ferbore, birtuteren usai, milagro a[n]di ta fama imortala dirade beste anbeste testigo esaten diguenak, bera izan zala Elixako Santoren artian Jangoikoaren begietan atseginena ta eskubiderik andienekoa. Erri, probinzia ta erreinoak, baita ere mundu guztian, au konpesatzen debe<sup>2</sup>. Bakarrik bere penitentzia<sup>3</sup> izan milagro bizi<sup>4</sup> bat, mundua bere amatzalliak kondenatu zuana. Munduak anditzat daukan guztia, bere interesak, bere atsegiñak, estimatua izatia, adiskida asko eukitzia, ta beste onelako guziak, zeñen<sup>5</sup> egarrrian bizi oi diran mundutarrak, bere biotzian ez zeben ostarurik. Jesukristoren Kurtzia, bere pausuai jarraitzia bere gloria. (\*)<sup>6</sup> Ikustean mundutarrak geienak zeñ Jangoikoz aztuak bizi izan oi ziran, ta bakarrik probetxorik ez dagoanian nai izaten zebela, ordea, alperrik birtutiari tributu pagatu, oker mundua igaro ta esku utsetan obra on bage pekatuz betia betiko kontu ematian sentimentuz suspirioak biotzetik ateratzen zituban. Bere mortifikazioak<sup>7</sup> ez zeben neurrik. Ez da ikusten Elixa berak bestian gorputza mortifikatu duanik, Jesukristoren Kurtzia berak bezela eraman zuanik, ez bizkarrian, baita ere gorputz santuan, mesede parebagekoau egiten ziola beste Santori ez bezela.

Bere pentsamento ta deseo guziak nondik Kurtzeren imita[tza]lle egiazko egingo zan besterik ez ziran. Ebanjelioko kontseju santoak ezertan ere utsik egin<sup>8</sup> bezela aditu ta gordetzen zituban. Aditurik esaten zio-

---

\* Testuaren orri-hegalak apurtuta daude.

<sup>1</sup> Geuk zuzenduta: *atzenziorik* > *atenziorik*.

<sup>2</sup> Ostean aldatuta: *ez da Santo au beneratzen ez duanik* > *au konpesatzen debe*.

<sup>3</sup> Idem: *bizitza* > *penitentzia*.

<sup>4</sup> Idem: *uts* > *bizi*.

<sup>5</sup> Ostean zuzenduta: *noren* > *zeñen*.

<sup>6</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Animak irabazi...*

<sup>7</sup> Ostean aldatuta: *penitentziak* > *mortifikazioak*.

<sup>8</sup> Idem: *bakarrik beretzako ipini* > *ezertan ere utsik egin*.

la Jesusek "etorri nigana, ikasi nig[an]dik, egiaz zorioneko izan nai dezubenak, pobre, humil, ta bigun izaten ezingo zerate be[ste] bidetik egiaz zorionekoak izan", gorde zituban bere original sagraduan ezautzen zi[tuan] moduan. Bide onetatik etorri zan alako moduan Kurtzea laztantzera ezik, ez zuan b[este] jan-edan, ez beste amesik nondik Kurtzeren amatzalle egingo zan edo nola obetu[ago] bere biotz ta gorputzian Jesusen iduri bizi egingo zan. Beragatik nere sermua[ren] gaia<sup>9</sup> izango da punto labur bitan erakutsitzia distingitu zala Franzisko penitenziatik<sup>10</sup> Je[susen] iduri bizi izaten, eta disting[itu] zuala Jesusek Franzisko beste Santuen artian. Doktrina(...). Abe Maria. 1. Beragatik esango dizuet humildade ta penitenzi[aren] bidetik Jesusi jarraitzen distingitu zala<sup>11</sup>. 2. Distingitu zuala beste Santo ez bezela Errede[nzio]ko señaliakin<sup>12</sup>...

#### TESTUS UT SUPRA

Penitentzia egiazkoa, N(ere) A(ditzallea)k, ez da besterik openditu dalako Jangoiko(...) [da]muari egiazko bat biotzian eukitia. Edo S(a)n Agustinek dioan bezela, bere buruare(...) aserre bioturik, pekatuan emandako egunak ondo kastigatzean. Jangoikoa openditu (...)lako pekataria bere buruaren kontra jarriten danian, ez da kontentatzen negar eglinalrekin bere pekatuak, ez da ere biotzian pena bizi bat artuarekin; baizikan as(...) ere bere buruaren borrego gogor eginik, kruzifikatzen ditu bere griña gezto guzi(...) bere gorputz ta beste sentiduak espirituko legera ekarririk, onela pekatuzko sepultu[ran] Jangoikoakiko illa zegoana graziazko piztuerara etorri dedin. Au izan zan nere Aitak egin zuana, onetan distingitu zan beste zenbait Santo baño geiago. Bere atsegin ta gloria guzia Jesukristogatik bere idurira padezitzian para zuan. Beragatik munduak eskañtzen zion gloria guztia begi beltzekin begiratu zion, ostikopeko auf[sa] [ba]lixen ere gutxiagoztat estimatzen zuala. Zeñ diferentia diran munduko legia[k] Jesusek Kurtzeko katredatik erakutsiten ziozkanetik ezautu zuanian, munduko atseg[lin] [gu]lziak naigabe andi bat bere biotzian besterik ematen ez zien. Munduak, egia da, lakio asko para zizkala, ta ordea, guziak benzutu zituban Jesusen soldado sendo onek<sup>13</sup>. Benzidu zituban gra-

<sup>9</sup> Geuk zuzenduta: *sernua[ren] guia* > *sernua[ren] gaia*.

<sup>10</sup> Ostein zuzenduta: *distingitu zala Franzisko, zala Franzisko* > *distingitu zala Franzisko penitenziatik*.

<sup>11</sup> Ostein erantsitako esaldia.

<sup>12</sup> Idem.

<sup>13</sup> Ostein zuzenduta: *Lakio asko ta (...) (...)tatu ziozkan nere Aitari munduak > Munduak, egia da, lakio asko para zizkala, ta ordea, guziak benzutu zituban Jesusen soldado sendo onek*.

ziaz<sup>14</sup>. Zan bereanez afablea, etxura txit ederre[koa ta] [bu]ru argikoa, bere lagunen artian [at]lenziorik onenak gaztetan izan[ekoa], (...) [ba]lita ere dibersiozalea, ez (...) (...)tatiko askok pelibrurik (...) (...) nai izan oi dituzuben modukoak. Ez zuan olakorik izan nere Aitak; ordea, bai (...) bezelakoa izan balitz, galtzeko bestekoa. Gaztetasunak, aberastasunak eta bere edadeko (...) [gu]lzien enkantu bat bezela izan zanak ekarri al izan zaiozkanak; ordea, Jangoikoaren pentsa[mentoak] nere Aitakiko besterik ziran.

Onenbeste naturaleza ta fortunaren erdian<sup>15</sup>, egin zuan biotz urriki-koa. Beti gorde zuan pobriakiko limosna egiteko borondate andi bat, nondik Jangoikoa zijoan Franziskorekin nai zuana egiteko bidiak presatzerara. Geldi-geldika etorri zan bere aitak nai zuan baño limosna [geia-go] egitera eta aitaren desafektora, eta graziak aurrera bidiak eginik, munduko interesen amodioa kendurik animakoetan paratzerara; baita lasterrian munduko interesen merkataria baño Zerukoen deseo bizi baten sarturik, bere aitarekin urratu zuan. Urraturik bere aitak seme Franzisko-ekin, preso para zuan gogortade pare bagekoaz. Eta Franziskok pobriarekin gastatu zitubenak osatzeko, obligatu zuan bere legitima edo senipartera zeukan deretxo guztia itxitzera Asisko Obisparen aurri[an]<sup>16</sup>. Pozik Franzisko aitaren pretensioaz, ez bakarrik senipartia, baizikan bere soñean zeukan jantzia utzi zion, esaten zuala ez zuala nai beste aitarik munduan Aita Zerukoa besterik. Au guzia igaro zan Asisko Obispo jaunaren aurrian, zeñ mirariturik nere Aitaren desinteresaz, eta billoxik gelditu zala, estali zuan kapote pobre bat, kordel gogor bateaz gerritik loturik. Pozak erten zan, libre munduko interesetatik Jangoikoari jarraitzeko eta espirituiko dei santoai obetuago erantzuteko. (\*)<sup>17</sup>

Emendik aurrerako pentsamentoak ez ziran besterik nondik obetuago perfezioko bidian aurretuko zuan. Ez zuan gustorik billatzen orazio, bakardade ta mortifikazioan baizik. Desegiten zan negarrez bere bizitzako paltak konsiderazian, eta bereanez ziran baño indar geiago bere humildadiak emanik, suspirio andiak egiten zituban. Ez ziran izan alperrik eta fruto bagiak nere eta bere saritzako<sup>18</sup>; merezitu zuan Jesus Kur-

<sup>14</sup> Osteen erantsitako esaldia.

<sup>15</sup> Osteen aldatuta: *enkantoren erdian > naturaleza ta fortunaren erdian*.

<sup>16</sup> Osteen erantsita: *deretxo guztia itxitzera > deretxo guztia itxitzera Asisko Obisparen aurri[an]*.

<sup>17</sup> Amaitu gabe daudela eta, ez ditugu eransketa hauek transkribatu: *Ezautu zuan*. [Aurrerago:] *Pekataria Jangoikoren dei santuak biotzeko atiak itxirik, eskandalu...* [Aurrerago:] *Zeñ...!* [Aurrerago:] *O zenbat bider zuri ere...!*

<sup>18</sup> Osteen erantsita: *eta bere saritzako > ez ziran izan alperrik ta fruto bagiak nere eta bere saritzako*.

tzian ilten zeguan moduan agertzia, eta onekin gelditu zan bere biotza alako mo[du]lan Jesusen Pasio Santoren amodioz gaixotua ezik, andik aurrera negar andi gabe ez [zulan azertatzen itzik egiten<sup>19</sup>. Bizit[z]a santoa egin zuan Franziskoren biotzian aurrerago igaro zan, bada, andik aurrera alako moduan ikusi zuan biotza Jesusen idurira pobre ta mortifikatua izateko ezik, ezin besteren konpañian guztorik, pobre leprosoen konpañian baizik, artu izan zuan; eta amodionek indar berriak arturik, hospital batian lepradunak zerbitzen para zan. (\*)<sup>20</sup> Ordea, Jesusek ots eginik erreparatzeko S(a)n [Da]mi[a]ngo ermita, peoitzen bera leleko zala, ermita berritatzen jarri zan; eta onetan [zeb]illala, Porzionkulakoan beste anbeste ta geiago Zerutiko abisuak arturik, ongillen artif[an] limosna billaturik, obra ura ere akabatu zuan, non<sup>21</sup> jarri zuan bere gogo guzia. [Ga]lu ta egunak Ama Santisimaren debozioan Zerutiko konsuelo andian ematen zituban, eta (...) artu zuan bere erljio santoko prinzipalenzat, non artu zituban Zerutiko konsuelo (...) ta graziaz miragarriak perfeziorik altuenerako. Alako suak bere biotza erretzen zuan ezik, emendik aurrera ezin bere barrunian gorderik Apostolo bat, animak Zerurako irabazitzen asi zan, eta len despreziatu zezen guziak Santotzat publikatzen asi ziran<sup>22</sup>. Eta exenploari obrak lagun eginik<sup>23</sup>, ezin esanezko konbersioak egin zituben pekatarietan. Nork, ordea, erakutsitzeko Fr(anzis)koren biotzetik erten zan sua<sup>24</sup>? Eta fletxa, zagita santoak biotzak eritzeko<sup>25</sup>? Nork bere konbersioak<sup>26</sup>? Korritzen du mundu guziak Zeruko pre(...)<sup>27</sup>.

Anbestekoa izan zan Jangoikoak Franziskoren itzai ematen zion indarra, guziak negarrak ta suspirioz betiak ertentzen; eta ez bakarrik

<sup>19</sup> Ostean zuzenduta: *itzik ere egitia ez zuan > itzik egiten.*

<sup>20</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez ditugu eransketa hauek transkribatu: *Alako modu... frutoa.* [Aurrerago:] *Ezan kontentatzen orazio ta mortifikazioaz, baite ere... modutan sosegaturik pasa zan Erro.<sup>a</sup>* [Aurrerago:] *Proximuen probetxurako deitua zala ezautu zuan; berak Er(...)* [Aurrerago:] *Jangoikoen pentsamentoa Franziskoki[n]* [Aurrerago:] *Emen ordena artu zuan bere errira biortzeko ta...* [Aurrerago:] *Nai zuan izan zeitzan animako gaixon mediko.*

<sup>21</sup> Ostean aldatuta: *eta emen > non.*

<sup>22</sup> Ostean zuzendutako esaldia: *Alako suak bere agotik erten zuan emendik aurrera ezik, alako indarra bere itzai ematen zion ezik, guziak mirariturik Santotzat publikatzen asi ziran > Alako suak bere biotza erretzen zuan ezik, emendik aurrera ezin bere barrunian gorderik Apostolo bat, animak Zerurako irabazitzen asi zan, eta len despreziatu zezen guziak Santotzat publikatzen asi ziran.*

<sup>23</sup> Ostean zuzenduta: *lagun zioen bezela obrak > obrak lagun eginik.*

<sup>24</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>25</sup> Idem.

<sup>26</sup> Idem.

<sup>27</sup> Idem.

konbertitu, baita ere bere Zerutik arturiko bizimoduari jarraitu zeuken guzia pobriai utzirik, zeñen lelekokoa izan zan Fr(ai) Bernardo Kintabal, bigarrenko kanonigo bertako bat, Fr(ai) Pedro Kataneo, ta irugarrena, Fr(ai) Gil, zeñ beti izan bere laguna. Emendik etorri zan Franzisko modu miragarri baten bere Ordena santoa zabaltzera. Au izan zan iturria nondik anbeste Santo munduari, eta pekatari konbertitu Zeruari eman diozkan. (\*)<sup>28</sup> Au da ura baratz santo(...) Jesukristoren porziorik eskojituen bat, seirfe]un ta geiago urtian munduaren benerazio ta (...)(...)zio izan dana, eta nondik e[rt]len diran anbeste aita santo, arzobispo, obispo, p(...), [karde]nal Elixaren lustre iz(...) (...)ak. Eta onenbeste fruto santo m(...) (...) bazion, guztiak santotza[t] (...)n bazuen ere, anbesteko hum(...) munduagandik despreziatua izatia beste egarririk ez zuan. Ez zan kontento be(...) izatiaz, baizikan baita bera zebillen desprezioen billa, bere Maisuaren idurira (...). Guztien oñ azpikotzat ezautzen zan; onetan zeukan bere gloria, bere ontzat zeukat(...) (...)ak berak naigabe andi bat ematen zion. Eta ezin beste modutan despreziatua izateko (...)txi zuanian, soka gogor bat lepotik zuala plaza ta kaletara agertzen zan, mundulko peka]taririk andientzat bera predikatzen zan.

Bere pobreza alakoa ezik, munduko interes guziak, urre, zillar ta gañekoak, ez berak ez bere sem[ia]k izango ziranak ukitzia bere nai ez zuan. Erljio santo baten fundadore egiten bada, bakarr[ik] nai du pobrena. Birtute onen amodioz errerik biotza, amodiozko itzak in erakutsitzen zuan zeñ maite zuan bere erregiña, bere señoira, bere esposa deitzen zion pobrezari, eta alako moduan maite izan ezik, lenago iltera, berari zion afektoa galtzera baño, etorriko zan. Jesukristo Kurtzian billoza izan bere atsegina, eta interesen ondoren zebillen munduari gorroto bizi bat, eta eriotzari baño begi beltzagoakin begiratzen zion. Bere kastidadia, Angeruen parekoa eta oker askok maliziaz paratu zizkan okasioak burlatu zitubena, brasa gorien gañera saltaturik. Bere baraurra, bere gaixo ta nekerik andienetan dispensatu gabia. Bere penitentzia, admiratzekoa geiago imitatzekoa baño. Alako moduan kastigatu zuan ezik, etorri zan bizitza laburtzera, eta bere illaurrian parka eskatu zion berak eman zizkan tratameto gogorrrakgatik. Eta guzia itz batian esatiarrik, ez da izan Santorik Jesusen imitazio egiazko ta santo baten geiago disting[i]tu danik nere Aita baño, noren merezimento santoak obligatu zeben Jesus besten Santoren ar[t]ian distingitzera Erredenzioko seña]lakin.

<sup>28</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez ditugu eransketa hauek transkribatu: *Porziunkulako elixetxo onetatik, iturri lelekoan (...) txikiari, beste iturri asko bilturik ibai andia bezela, ala Franziskoren Porziunkulatik asi zan...* [Aurrerago:] *Emendik la(...)rri...*

## SEGUNDA

Ez dirade ikusi etsai gogorrako bi<sup>29</sup> alkarkiko, mundua ta nere Aita baño. Desafliatu] zuan munduak Franzisko interes ta konbenientziakin, ponpa, banidade ta h[on]drarekin; baita ere Franziskok erantzun desafio oni: interesai pobrezakin, [ba]nidade ta ponpai humildadiarekin, atseginai penitentiarekin, hondrai des[pre]zioakin. Doktrinau ikasi zuan Ebanjelioan bere Maisu Jesusgandik, jarraitu doktrina oni Franziskok dizipulo fiel batek bezela. Au izan zan Jesus bere eskolan para zuana bere eskolakoren ezaugarritzako, eta nere Aitak [ja]rraitu zion Jesusen Dizipulo egiazko eginik. (\*)<sup>30</sup> Ordea, non geiago seinalatu (...) Jesusen Pasio Santoren meditazioan, edonon begiak jasotzen zitubela, ez (...) ekusten besterik, bere Maixu Jesus bere amodioz Kurtzian ilten, bere iltzeak, koroa, azote ta zauriak. Ez zuan ere beste deseorik, bere agoniña mortaletan [Jesusen idurira padezitzia.

Anbesteko egarria sartu zan nere Aitaren biotzian Jesusgatik padezitzeko ez[i]k], nondi bere amodioz odola emango zuan billa zebillen. Deseo santo onek eraman [zu]lan Sultanen aurrera, predikatu zion zeñ faltsoa zan berak gordetzen zuan Maomen legia, ez zeguala beste biderik Zerurako Jesukristorena baño. Nork esango ez zuan aginduko ez zuala bizitza bertan nere Aitari ken[tze]lko, ikusirik añ atrebimento santoa? Ordea, Jangoikoak gordeta zeukan nere Aita beste martirio baterako. Mirariturik Sultan nere Aitaren santi(...), eta bere konbersazioz enamoraturik, interes ta presente andiak eskañi ziozkan, zeñetara ukatu zan Fr(anzis)ko eta biraldu zuan esaten ziola, Jangoikoari beraga[tik] erregutu zeiola. (\*)<sup>31</sup> Jesusen soldadu distingituau erlijioako kargo guztiak (...)irik libriago ber[e] espirituko ferboriai erantzuteko, erretiratu zan bi ur(...) (...)o Alberneko mendira, non egunak ta gabak igaroten zituben exercizio (...)oso ta santoenetan; eta emen [me]rezitu izan zuban Zerutiko mes[e]de (...) (...)n santo baten bidez bere gorputzian egin ziozkan llaga preziosoena, bere (...)tiko suaz erreten zeguan denpora berian lurreko Serafin eginik. O Franz(is)ko (...) Serafin miragarria, nolako lllama ta labe gori egiña ikusten zaitudan! Zeñ zorio[n]ekoltzat emango nintzakian, su orren izpi txiki baten parte bakar bat mereziko ba(...)! [E]npeñatu, arren, Jesusen aurrian, kenduak izan ditezen gure biotzeko

<sup>29</sup> Osteen erantsita.

<sup>30</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Birtute guztiak nere Aitegan ekusten (...) jardin eder baten bezela.*

<sup>31</sup> Idem: *Anbeste neke arturik mundu guztitik Jesusen erlijioari irabaziaz eman (...) España, Franzia, Alemania ta munduko bazter guzietan bere erlijioa, deitzen zion Jan(goikoa)k bere sar(...).*

epeltasun [guz]iak, bere bidez aurrera izan gaitian beroagoak Jesusen zerbitzio santotan.

Nere Aitaren humildadiak lanik asko egin bazuan ere, munduaren begitatik Zeruturiko mesedea, lllaga preziosoetatik isuritzen zitzaion orolak traizio santoa egin zion, agertzen zala munduaren begitan milagro parerik bagekoau. Emendik aurrerako nere Aitaren trabajuak alako moduan geitu ziran ezik, milagroez bezela bizi izan zan. Emendik aurrerako bi urtiak ez ziran izan besterik, dolore, tormento, milagrozkoko arrebatu edo extasi santuak bizitza kendu zioenak. Artu zuan atzenengo gaitxoak, eta agindu zien bere semiai Porziunkulako konbentora eramateko, non anbeste Zerutiko mesede artu zuan eta zeñ bere erlijio santoko fundamentoa izan. Eta apenas allegatu zan, agindu zuan kendu zeioela bere tunika, zerren pobre ta billuzik Jesusen idurira il nai zuan. Bete zeben bere deseoa, orde, denpora berean guardianak arturik tunika eten bat eta kordoe erabildu bat, eskua luzatu zion, esaten ziola: Eman ten dizut limosnaz pobre bati bezela, artu obedienciaz. Obe[de]zitu zion guard[i]anari, eta komunidadea guzia au ikustean negarrez zeguala, eskuak Zerura jasorik exortatu zituben bere erregelaren guarda ta amodiora, Aita Santoren fede ta obe[de]nziara, eta Maria Sant[i]simaren debozio egiazkora, eta beren arteko bake ta amodiora. Bere besoak kurtzetara ipiniri[k], eskatu zion Jangoikoari pota zezala bere semien [ga]nera Zerutik bendizio santoa. Atzenez, agindu zuan leitu zeioela Jesusen Pasio Santoa S(a)n Juan Ebanjelistarena. Bitartian, Jesusen amodioan errerik bere biotza, [es]laten zuala "atera, Jauna, nere anima gorputz onen kartzelatik eternidadian [b]edeinka dezadan zure izena, eraman nazazu justoen arterik", eman zion bere anima Jesus maitiari.

Itzan nere Aita justoen eriotza preziosoaz. Guztiak inbidiatzen due [be]re eriotza, ez da inor bere modura il nai ez duanik, guztiak aitortzen due ez dala munduan f[ortu]na andiagorik. Guztiak ezautu ondo ilteko sekretoau, guztiak dauzkagu gure eskuban oneta[rak]lo bidiak. Nola gera, bada, añ itxubak bide oiei jarraitu ez eiteko? Orandaño bideak izan dira bizitza santo baten bidez zorioneko portura eriotza on baten bidez eramatekoak. Gure orandañoko obrak dira justoen numeroan ipiniko gaitubenak? Egia da mezara, sermoetara etorten gerala eta orazio batzuk egiten ditugula. Baña, etorten gera humildade santo bateaz, modestiaz? Zenbat eta zenbat tokirik santoenetara soberbiaz arrotuak, banidandez itxutuak, nondik berak ez dirana erakutsiko diran munduen begietan.

Ezautu zuan nere Aitak Zeruko jakinduriaz munduko fortuna guzia<sup>32</sup>

<sup>32</sup> Ostean erantsita: *Ezautu zuan nere Aitak munduko fortuna guzia > Ezautu zuan nere Aitak Zeruko jakinduriaz munduko fortuna guzia.*



enganioa besterik, munduko gloria<sup>33</sup>, anditasun, fama guzia eriotzaren putz batez sepultura triste baten betiko aztutzen dira[la]; munduan ots andia egin zebenen merkatari maiorazgo, markes, konde, prinzipte ta ganeko guzien arrot[sun] guzia aztu zala, eta bakarrik justoak zirala betiko bizi diranak; egiazko fortuna ta jakif[n]duria dagoala denporaz erremedioak aplikatzean, gerra bizi bat egitean bitoria betikoa au irabazitzeko anbeste zauri egindako grinai. Bakarrik zirala zorionekoak ez munduko urre, zillar ta interesen ondoren zebiltzenak, birtuteren bidetik Zerukoan merkatari egiten ziranak.

#### [AMAIERAKO ERANSKETAK]

Ikusirik Bernardinok, Franziskoren aita Bernardinok, pobriai limosna egiten, bere lonjako jenero, zaldi ta beste gauzaren batzuk eman zituala, aserratu zitzaion eta etxea galdu zelean bildurraz urratu zuan.

Zan merkatari noble ta aberatsen semia, buru argikoa, etxura ederrekoa, graziosoa<sup>34</sup>, lagun artian majoagorik (...)ti (...)aikoa ta graziosoa guziakiko. Au izan bere paltarik andiena eta beste zenbatentzat galtzeko a(...).

Segitu zion Franzisko[k] penitenzia egiazk[oa]z bere Maixu Jesus maitiari. Beragati[k] (...) se~nalatua izatia beste Santo ez b[ezela].

---

<sup>33</sup> Ostean ezabatuta: *munduko interes ta gloria > munduko gloria*.

<sup>34</sup> Ostean erantsita.

## [INDULJENZIEN GANIAN]

Gaur, neure entzule onak, nator zubei erakutsiten Bulda Santuak opa deuskuzan induljenzien ganian. Eta berak opa deuskuzan induljenziak zubei esan baño lenago, deretxat ondo izango dala esatia zer dirian induljenziak. Induljenziak, bada, ez dira beste gauzarik, ezpada Elexa Ama Santiak Santuen merezimentuko dispentsan guretzako gordeta daukazan aberastasunak, errazago pagetako gure pekatuen zorrak. Erri gobiernu ona dauken batek euki daroazana legez bere komunian aberastasunak, noxbat erritarrak esturaren batek artu dagizienian eurekaz balietako, alan Elexa Santiak bere daukez bere ondasun espiritualak, pekatuen zor eta preminetatik eurekaz baliau eta ondo izateko. Aberastasun one[e]k dira Santuen Komuniñoko edo merezimentuko eskapalot ederrian gordeta dagozan graziak, erraz gure pekatuen zorrak pagadu eta ariman aberasturik ipiniteko. Au da Elexa Ama Santiak erakutsiten deuskuna, Aita Santu Erromako Jesukristoren bikario Klemente Seigarrenak, eta aren modura beste aita santu askok, mundu guztiti euren dekretuak zabaldurik guztioi erakutsiten deuskun legez.

Eta zeñ uste dozue dala zorion ta aberastasun guzti one[e]k datorkiguzan iturri bizi, garbi ta ederra? Arako Jesukristo Aita Eternoaren Seme bakarra, gure galdu biarren errukiz urturik Birjina garbi baten erraitan gizon egin zana, eta bere Pasino Santuko tollaran estuturik bere odol sagraduagaz batera zorionok ekarri eskuzana, Bera izanik ez bakarrik Santua, baita bere santidade guztien iturria, ez euken zer pekatuen zorrik pagau. Baña ikusirik gizonak bere zorrak<sup>1</sup> pagau ezin eikezala, egin zan gure bitarteko, artuten zitubela bere bizkerrian gure pekatuen zorrak, onetarako guri apliketan euskuzala bere bizitza[ko] Pasiño ta Eriotzako merezimentuak, gure pekatuen zorren alderako baldin baliau gure bagenduan eurakaz. Eta ez bakarrik emen sartuten dira Jesusenak<sup>2</sup>, baita bere Maria Santisimiarenak eta beste Santu guztienak.

Kristinau ontzat emon dirian guztiak beti baliau dira merezimentu one[e]k. One[e]k izan dira Santurik andienak usau dituezan erremediorik onenak, pekatuz kargadurik etorri jakezarian oñetara pekatari arga-

---

<sup>1</sup> Ostean zuzenduta: *berak > bere zorrak*.

<sup>2</sup> Ostean erantsita: *Eta ez bakarrik Jesusenak > Eta ez bakarrik emen sartuten dira Jesusenak*.

lak; ezin botikeko obeagorik billatu izan dabe eurek osatuteko eta konfientzaz beterik aurrerantzean geldituteko. Au San Pablok Elixiairen lelengoko egunetan egin eban, eta beste obispo santu askok, ezauturik euren pekatuen penitentzia osoa emoten beutsen, onenbesterako indarrik eukiko ez [eb]jela, eta [biar]bada galduagorik geldituko ziriala. Eta benetan, arako lelengo [pek]latariari emoten jakezan penitentiak emon biar bagenduz ga[ur gu]lre oñetara datorkiguzan penitentiai, zer izango giñatekez? [Elexa Am]la Santiak induljenzia santuakaz bigundu deuskuz orduan (...) izaten zirian penitentiak. Auxe da, ba, N.E., induljenti(...) (...)bena, zeñtzuek irabaziteko alegiñak egin biar dog[uzan], (...) induljenzia guztien artien andienak dira.

### [AMAIERAKO ERANSKETAK<sup>3</sup>]

Asko dire munduan pekatarien artekoak esaten dabenak, munduau ezer ez dala, engaño bat baño besterik ez dala, eta zoro burubagiak diriala, añ laster itxi biariko ditugun gauzakgatik nekatuten dirianak. Baña esakuntze guztiak ekanduzko esakuntze batzuk dire, eta arako axearen indarragaz joan oi dirian lañoak legez joaten dire. Beste asko dire engañoz beterik gure Ama Eba legez, betiko biziko diriala uste ize-nik, eriotziaren kontu bagarik bizi dirianak munduko gustu-atseginetan sartuta. Baña alperrik guztia, bada, eriotziaren sententzia emonda dago. Alan irakurriten dogu Liburu Santuetan: bizi izan zan Adan, bizi Enos, bizi Set, bizi Matusalen, baña il ziran. Baña Eskritura Santuak eta munduko historia guztiak, non irakurriten doguzan munduan izan dirian gizonik entzunenak, batzuek birtute ta santidadian, bestiak konkista ta bitoria andietan, diriana legez Alexandro, Dario, Pompeio eta beste asko, liburu one[elk], bada, esango ez baleuskigu bere onelakorik, munduak berak bere erakutsiko<sup>4</sup> ez baleuskigu señaletarik, non izan zirian arako uri eta erreinu andirik, one[elk] guztiok faltauko baleuskigu bere, geure begiak, belarriak eta sentidu guztia[k] il biarrau erakutsiten deuskue: begiak anbeste gure lagun ilda ikusiarekin, belarriak kanpa[ea]lk entzunarrekin. Esan<sup>5</sup> guztiak esaten deuskue are[el]i atzo jazo jakena guri biar jazoko jakula.

Baña au alan izanagatik bere, ezin kontala pekatari bizi dira Jangoikoen tentagarri eginik, sentimentuak emoten deutsezala Jangoikoa ase-ratatuten. Ala kexetan da penaz.

<sup>3</sup> Ez datoz gaiarekin bat.

<sup>4</sup> Ostean aldatuta: *esango* > *erakutsiko*.

<sup>5</sup> Zalantzakkoa.

Bide edo ate estuti sartun gaitiala dirausku Jesusek, guztiz asko diriala ate zabaletik sartuten dirianak. Guztia mirariturik diño Berak: O zenbatak ate zabal onetik bide egiten daben! Anbeste bider entzunik sententzia arrigarri onék<sup>6</sup>, itendu eutsen bein baten: Ja[ul]na, ain estuba bada Zeruko bidea, eta anbeste bide zabaletik bide egin ta galduten dirianak, nor izango da salbauko dana? Onetara erantzun eutsén<sup>7</sup>: Indar egingizue ate estutik sartzera; bada, dirautsuet askok gureko dabela, baña ezingo diriala. Eta ate estu onetati igaro gure dabenik asko ezingo bada, zer anbeste pekatari ate estu onetati igaro gure izan bage bizi izan dirianakin jazoko da? Berba arrigarriak, baña, Jesusenak.

Isaias Profeta Santuak konparetan dituz salbauko dirianak, arako mindemina eginik mastian aztuta gelditu oi dirian mats-mardoakaz. Zenbat geiago izaten ez dira arako mats-marduak, aztuta gelditu oi dirianen parian! Ez dago Zerurako beste biderik bide bi onefelk baño: edo ez pekatu rik egitia, edo beiñ eginik, pekatuaren gorroto ta negarreti bide egitia. Baña, nortzuk dire onefelk? Asko konpese tan dira, baña ikusten da oneetan arako Publikanuen humildadea? Asko lapurretako konpese tan dire, baña gauza ostuak Zakeok legez biortuten dira? Enbra askok Madalenaren modura negarrez Seigarrenian akusetan dira, baña aren irudira okasinotik betiko<sup>8</sup> iges egiten da? Salbaduko bada, munduko ponpa ta banidadeak itxi biar dira, eta baneriai itxiten dire?

---

<sup>6</sup> Horrela, tilde eta guzti.

<sup>7</sup> Idem.

<sup>8</sup> Geuk zuzenduta: *betieko* > *betiko*.

**DOMINICA SEPTIMA POST PENTECOSTES.**  
**[AMARREN PRIMIZIAK PAGATZEA]**

*Attendite a falsis prophetis, qui veniunt ad vos in vestimentis ovium.*

Mt. 7, 15

Eginik Jesusek bere Dizipulo maiteai, ta abekin batera<sup>1</sup> bere ondo-  
ren zijoazan ezin kontala jenteri, ura sermoe miragarria, non erakutsi  
zizten bizitza espiritualaren dokumento santoak, igaro zan prestatzera  
zeñ kuido andia euki biar zeben Erejuaren lakiotatik gordetzeko,  
zeñek itz gozo engañosakin alegin andi[alk] egingo zituben Elix Santa-  
ren doktrinatik apartatzeko, eta nondik eta nola ez dakiela erlijio gabe  
utzitzeko. Kristaorik onenentzat daudenetan ere peligro onetan sartuak  
ikusten ditut, eta pentsatzen nago ezen, ia<sup>2</sup> zeñ izango ote da[n] gaur  
salbatuko dana. Añ komun ta jeneral egin da Elix Amaren kontra itz  
egitia, añ atsegin andiagaz aditzen dituzube bere kontrako doktrinak  
ezen, ja beldur guzia ausitzera Elixaren prezeptoai etorri zerate, eta ausi-  
rik errespetoko atiak, egitera Ereju guziak erakutsi duena eta Elix Ama  
Santak betiko madarikazioz kondenatu duana.

Sekula erri onetan onen ganian predikatu biarko nuala uste izan  
dedanian, ikusirik onetara obligazioz premiatua, sentimento andi bat ar-  
tzen du nere biotzak. Beragatik gogoren kontra nator pulpitura, añ neke  
egiten zatadan Mandamentuaren kontra. Baña nai izanik ere, utzi ezin  
nezake nere obligaziori kalterik egin gabe, ikusten dedalako<sup>3</sup> Elixaren  
Mandamento guziai lotsa ausirik oñ azpian guziak zapaltzen dituzuela.  
Meza entzutiari izteko asko da konbenientziazko biaje bat; lan igande-  
an egiteko ez dezube beldurrik, alako moduan Kristao onak zuben  
eskandaluz kejatzen zaizkigu(...). Ordea, non eskandaloau geiago  
zabaldu dan izan da amarren premiziaren gañian. Onenbeste eskanda-  
lora gure denporetan allegatuko giñala ez nuan siñastuko, esperenziaz  
ikusiko ez banu. Allegatu nere oñetara noizbat esan didana ez duala

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Geuk zuzenduta: *bateren* > *batera*.

<sup>2</sup> Idem: *eja* > *ia*.

<sup>3</sup> Ostean zuzenduta: *dedala* > *dedalako*.

amarren premiziarik pagatuko. Onetara erantzun diot: Bada, ori egiteko asmoak badituzu, ez mezarik ere entzun, ez konpesatu, gitxiago komulgatu; itxi elixako atiak, kendu sazerdotiak, ez deitu eriozko orduan Jaina errezibitzera, ez Unzio Santora; ilten zeratenian ez elixara ekarri, enterratu zuben t[x]akur ta animaliak bezela, bada, onetara dijoa zure esate ta egitia. Egiaz eskandaloa Elix Santaren seme danetan doktrina jakin sinastu ere ezin dezakeguna; ordea, sobra egia.

Beti izan da Jangoikoz etorria, eta ez gizonak ipinia, amarren primizia pagatzea. Munduaren lelekotikan ezitu ziran gizonak Jangoikoari amarrenak pagatzen. Orañdik ez zeguan munduan Adan ta bere seme Kain<sup>4</sup> ta Abel baño gizon, ez Elixarik, eta orregatikan frutu guzietatik amarrena pagatzen zuan; eta zeñ atsegiña ondo pagatzia ta sentimentua gaizki pagatzia Jangoikoen begietan, ondo erakutsi zuan Adanen leleko seme biarekin egin zuanetik. Kain<sup>5</sup> izandu zan nekezaria, Abel artzaia. Abelek borondate onez eta ondo pagatzen zuan amarrena, Kainek borondate txarrez eta frutorik txarrenak. Beragatik Abel aberastu zuan Jangoikoak bere onari obetuago emanaz, ta Kain pobretu zuan bere borondate gal]ztoz ta fruturik txarrenak eskañtzen ziozkalako. Emendik etorri zuan inbidiaz Kainek<sup>6</sup> Abeli begiratzea, Jangoikoak begi atseginakin begiratzen ziolako; eta emendik ura leleko eriotza munduan izandu zana, inbidiaz Kainek anaia Abel illik, eta emendik Kainen kondenazioa ta Abelen salbazioa...

Andik onuntzagoko denporetan mundua gizonez betetzen asizanian, Jangoikoak bere Erri Israelgoa Egiptotik atera ta Berak eskañiko erri ugarira eraman zuanian, erri ta lurraren partikuntzak Jangoikoren aginduz egin ziranian, sazerdotekiko kuidadu andi bat artu zuan; eta dezentzia geiagorekin bizi izan zeitzan Elixako destinatuak, erri ta lurpuska edo porzio andiagoak señalatu ziozkan, eta au egunero erri ark egin oi zitul[an] sakripizioetan zeuzkan parteak aparte zirala. Au ikusten da munduaren lele[ko] edade edo denporan, Ugoldez mundua pekatuakgatik ondatu baño leenago. Eta munduaren bigarren edadian, Ugoldez pekatuakgatik guztiak kastigatu zitubanian eta aparteko pribilegioz bere santidadiagatik Noe milagroaz libratu zuanian bere iru seme ta beren emazterekin batera, Noe justuak egin zuan leleko lana izandu zan, bere leleko frutuak Jangoikoari konsagrazia; eta zeñ atsegiña Jangoikoen begietan obra santoau izan zan Jangoikoak erakutsi zion Patriarka

---

<sup>4</sup> Geuk zuzenduta: *Kaïn* > *Kain*.

<sup>5</sup> Idem.

<sup>6</sup> Idem.

Santoari, esanik bere sakripizionen usaia atsegiña izandu zitzaiola eta ala geiago gizona ugotdez ondatzera etorriko ez zala.

Onela jaxirik Jesukristoren Legera, ikusten da ere emen añ kuido andikoa antzinako sazerdoteren dezentziazko mantenimenturako izandu bazan, ez dala gitxiagoko Jesukristo Jangoikoaren Semea sazerdote ta sakrifika]dore egiñik perfezio geiagoko Elixan. Egia da lelekoko sazerdotiak Elixaren persekuzioko denporan, bakotxak nola [a]l zuan gorde-rik, Kristao piadosoren limosnaz mantenitzen zirala. Baña gero Elix milagroren bidez lustre santora allegatu zanian, batez ere Konstantinoren denporan, Eli[xa]lko sazerdote ta fabrikatarako borondatez laguntzen zeben, eta alako moduan ezen, utsa da orañ ematen dana aienen parian. Itz batian: jatorrizko obligazioa da amarrenak pagatzea. S(a)n Pablok dio Altarean zerbitzen duanak, Altaretik bi[zi] biar duala; eta bere mantenimentuak, begiraturik beren estadu sagadura, ez du izan biar miseriazkoak, ta mendekua Erejuak nai duen bezela, eta bai dezentiak. Bestetik, kontrato bat du egiña Españaik Elixarekin, non fabrika ta ministroren dezentziarako obligatu zan amarren ta primiziak pagatzera.

Esan nai badezue sazerdotetan paltak ikusten dituzuela, eta beragatik libratzen zeratela, edo kendu biar dirala, beste orrenbestegatik zuek ere kendu biarko zerate mundutik, zergatik obra onak baño eskandalok geiago ikusten ditugun. Esan nai badidazue limosnarik egiten ez dubela, esango dizuet ni ez natorrela aien kondu[k]ta justifikatzera gaur pulpitura; badakit paltak dirana, ni lenengo<sup>7</sup> naizala; ordea, esan biar dizuet ni ibilli naizan toki guzietan, geien partian, askoz limosna geiago egiten duela, ala ixillik ta baita ere agirian. Ez dago besterik: nai dituzube ikusi miserian sazerdotiak ta elixak, ez Jangoikoaren etxiari datorkion errespetoz, zuben okolluak bezela. Ez da nai erlijiorik, ez dalako nai nork zuben pekatuben kontra zaunka egin dezeen; eta nai badira, zuben mendian ego[n] ditezen, elixako errentak zubez manejatu, elixako funzio bateko argiak eskasak ta biarbada erretxinak naiko zinduzke. Au da Erejuen kondukta: ezin Elixan preziosida[de]rik ikusi due, ta beren etxetan lujorako ta baneriarako preziosidade andia.

Jangoikoak, askok nai dezuben bezela, sazerdotiak kendurik kastigatzen bazaituzte, orregatik ez da erri onetan ez pobretan limosna geiago izango. Elixari persegitzia moda egin da, ta zubez beste moda guziazkin bezela onakin jantzi nai dezube. Godoiren denporan saldu ziran kapillenia, errege-etxiak, nobenoak... Konstituzioko denporan kendu amarren erdiak; ordea, Aita Santuak ez zuan...

---

<sup>7</sup> Alternantzia: *leleko* / *lenengo*.

## [PURGATORIJOKO ARIMAK]

Iru jente genero aurkituten diriala ilten dirianen artian, dino S(a)n Agustin andijak. Batzuk onak, eta santubak, beste batzuk txarrak eta geiztuak, eta irugarrenak suerte bijonetako jentiaeren artian erdiko bidia edo ekilibrijoa gordetan dabenak. Iru kondizinoe onetako arimentzat disponidu zituban Jaungoikoak, bere probidenzijaren bitartez, iru habitazinoe diferentiak. Bai, N.E.M., arako justubak, arimako arerijoaren kontra biar sano egiten ebeela, euren karrerria akabatu eta fedia gorde ebanak, garbituten zitubezala mundu onetan mantxa eta pekatuak txikijanak. One[elk] justubok artez-arte eta arin-arinka duaz erreziatzen justizijako koroia, au da, Zeruko Glorija. Arako bestiak euren gustu zitakal egitarren Jaungoikoaren mandamentu edo agindubak gorde etzitzenak, one[elk] jau[s]ten dira prisiak eta berpertati iluntasunez beteriko eta espantagarritzko paraje<sup>1</sup>, esan gurot, Infernuko garretan. Baña pekatu mortalen mantxa bagarik il zirianak, esan gurot, graziazko estuan akabatu ebeenak<sup>2</sup> euren bizitzia ondo edo biar zan moduban pagatu bagarik euren pekatubaren zorra, one[elk] duaz purgatorijora, nun dagozan eta egon biar daben urten bagarik azkenengo zor txikijena pagatu artian, dino S(a)n Mateo Apostoluak. Baie paraje ilun onetan, kartzela ikaragarri onetan dagoz detenidurik arima tristiak. Eztauke beste deskansurik doloria baño, eztauke beste alibiorik brasa bizijak baño, eztauke beste klaridaderik iluntasuna baño; ez beste sokorurik euren adiskide eta senidiaren esperanza laburra baño. Oneiri dirautse diadarez eta negarrez: *Miseremini mei, miseremini mei*; artu egizube gure tristiaren errukija. Zubek, zeintzubekaz denpora baten ain adiskidiak izan ginzan eta alkar ainbat ametan genduban, gure miseria eta pena gogorren errukija artu egizube, bada, Jaungoikoaren Justizijak heridu gatu. *Quia manus Domini tetigit me*.

Baña negarretan eta zizpuruetan arima tristiak urtuten badira bere, zer jazoten da, N.E.M.? A! Ezer bere ezpalitz lege, geijago eta geijago gogortuten da gure biotza eurakganako, agurtu ezin dirialako euren aurrian, ez erakutsi bere euren tormentubak. Orregaitik bada, purgato-

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Ostean zuzenduta: *espantagarriko parajera > espantagarritzko parajea*.

<sup>2</sup> Idem: *ebanak > ebeenak*.



rijoko arimaren errukija artu dagizuben eta karitatiboak izan zaitezcan eurakganako, al daidan moduban adierazoten emongo deustubet euren estadu tristia, euren konformidade andija tormentu ain ikaragarrizkoe-tan, eta eurak sokorridubagaz itxaron biar dozubezan mesediak. Puntu bi izango dituz orazinoe onek. Purgatorijoko arima bedeinkatubak merezidu dabe gure biguntasuna, errukija eta sokorruba, izango da lenango puntuba. Purgatorijoko arima bedeinkatubak eskatuten dabe gure anparuba<sup>3</sup> eta auxilihoa, asko eta asko balijo deuskulako eurek alibijetiak, izango da bigarren puntuba.

Baña, jakin gura dozube ze pena dirian purgatorijoko arimak aflijietan ditubezanak? Pena genero bi dagozala dinue teologuak: dañuko penia eta sentiduetakoa. Lenengoa da, Jaungoikoa eta bere edertasuna ikusi ezin izaitia. Bigarrena da, dino S(an)to Tomasek, arima tristiak igaroten ditubezan tormentubak, abrasetan diriala llama bizijetan eta beste tormentu ikaragarrijetan, zeinzubek eztauken konparazinoerik mundu onetan sufridu algengizan penarik andijenakaz. Dino S(a)n Bernardino de Senak: Dira gitxi<sup>4</sup>, eta guztiz gitxi<sup>5</sup>, purgatorijoko penetati libretan dirian Kristinaubak, mantxia daukan arimarik ezin sartu leitikialako Zeruko Erreinuban. Izanik, bada, ain asko preso dagozan arimak eta aiñ gogorrak euren penak, jakina da eurak sokorrietako daukagula obligazinoe guztiz andija. Obligazinoe au askoentzat da justizijazkoa, edo porfuerzakoa, eta guztijentzat karidadezkoa. Eta alan pekatu mortala egiten dabe (euren flojedade edo ardura bagiagatik) testamentarijo edo testamentuben kargua daukenak ainbat lasterren bete edo kunplietan eztitubezanak defuntubaren dispozizinoak, eurai jatorkezan entierru, honra, mezak eta beste sufragajoak; euren zorrak eta agindubak pagetan eztitube.

---

<sup>3</sup> Ostein erantsita: *arima bedeinkatubak gure anparuba > arima bedeinkatubak eskatuten dabe gure anparuba.*

<sup>4</sup> Geuk zuzenduta: *gitzi > gitxi.*

<sup>5</sup> Idem.

## [KONPESIÑO ON BAT]

Bizi izan pekatari bat bein baten, asko lastimaz egon oi dirian legez, bere etxian pekatuko laguna ebela. Bere adiskide batek bein baño geifalgotan esaten eutsan itxi ejola pekatuari, atera leijela, eta konpesiño on bat egin leiela. Baña okasiño onetan itsuturik, ez egoan nok atera leien. Denporia joan, denporia etorri, eldu jakon eriotzako ordua. Esan eutsan adiskide onek atera leijela eriotzarako [Kon]pesiñoa baño lenago. Atera eban, eta andik beingoan deitu eutsen konpesore bati. Esan eutsezan konpesoriari bere pekatu guztiak, baita aren ustez guztiz ondo. Onela konpesauta, joan zan konpesoria bere etxera; eta urrengoko goxian entzun ebenian il zala, gogo artu eban aren arimen sufragiorako meza esateko. Eta jazten asirik, ikusi eben esku batek kenduten eutsela amitua; bildurtu zan, eta asi zan pentsetan ete egoan pekatoren batian, baña examinaurik, ikusi eban miñik konzienzian emoten ez eutsala. Asi zan bigarrenez jaztera, eta agertu jakan su ta garra botaten eben arime bat, esaten eutsala: Zer egitera zoaz? Erantzun eutsan: Urliaren arime sufragion meza esatera. Itxigiozu, bada, neu naz, kondenatua nago. Guztiz arriturik esan eutsan: Zer? Bada, etziñan ondo konpesau? Bai, baña andik lasterrian Diabruak esan eustan: Zer, ain laster itxi deutzazu zure lagunari? Oraindio osatuko zera. Orduan konsentidu ne[n]dun, eta onegaz batera pekatua[n] il nintzan.

## [AMAIERAKO ERANSKETA]

S(a)n Jeronimok esaten deusku bizi izan ziriala aizta [bi] ustez bizi-modu onian, baña bein batian bata jausirik Seigarrengoan, anbestekoa izan zala bere biotzian sartu zan lotsea eze, ezin atrebidurik konfesatza-ge il zan. Aiztiak guztiz meza ta oraziñoak ateratan zituzan aren sufragioan. Gau batian orazino egiten egoala, agertu jakan su ta garrez beteriko arime bat, eta esan eutsan: Zer egiten dozu? Erantzun eutsan: Neure aitzaren arimiagaitik nago Jangoikoari erreguka. Orduan bestiak esan eutsan: Alperrik nekatuten zara, neu naz, baña kondenatu[a] nago lotsaz pekatu itxi nendulako. Eta au esanagaz batera, gela guztia atsiturik isten

---

\* Ez da osoa.

ebela iges egin eban. O zenbat onelako gaurko egunian sartzen dirian pekatuak konpesau ezeitiagatik! Gureko dozu zuk bere au jazo dakizun?

Alcalako konbentuan bein batian jatsi zan errilijoso santuen opiniñoan il zan bati jazo jakon gauza ikaragarriau. Komunioa eskaturik joan zan emotera, eta orra non emakume batek ostia santua emotera joiala, esan eutsan: Jauna, berba bat lenago esan nai neuskio. Erantzun eutsan: Ez da au ordua, akto kontriziñoako bat egizu eta komulgau zaite. Komulgau zan, baña apenas egin zan, orra non (...)tenda eginik gelditu zan, arpegian ederturik gelditzen zala. Enterrau eben guztiak Santatzat eukela. Gau beratan bildurturik erlijioso santuau bere faltaz il ete zan, joan zan oraziño egitera. Eta [o]rra non berba bat aditu eban esaten eutsena: Ez [e]gizu orazinorik egin; zoaz sakristiara, artugizu sagrarioko giltza, idigigizu sepulturea, eta golpe bat emonik kopoirs sartugizu aren agoan dagoan forma konsagrada. Joan zan eta egiñik atera eban esan eutsana legez, eta sartu eban bere lekuan guztia itzalgarriturik gelditzen zala, eta orra non demoniño bik artu ta eroan eben.

**[ESKERGEZTOKERIA]**

...bada, eurek izan dira zure Zeruko Maisuari bizitzia kendu deutse-  
na, zu asko ta askotan oi bigunetan pekatuz asetan, eta zure pekatu  
orrefelk garbituko bazirian, Kurtze gogorreko oian il biar izan eban. O  
zorigaiztoko pekatua, zeñ as[tuna] dan zure pisua! Nor izango da peka-  
tuak munduari (...) eutsazan kaltiak erakutsiko ditubana? Mundua (...)  
(...)datu beban, pekatuen kaltez izan zan; Sodoma, Gomorra suagaz erre  
bazirian, eta besterik izan bazan, pekatuen saria izan zan. Onefelk guz-  
tiok andiak izan zirian, baña Jangoikoen Semia Kurtze baten iltiaren  
parian ezer ez zirian. O Jesus maitia, nor izango da orrenbeste zure  
mesederen esker on biarrerako, esker geztoz erantzungo deutsuna? Ez  
nau ni anbeste bildurtuten Jesusen eriotzau, sentidurik ez daben kriatur-  
rak sentimentuaren señaliak emotiak: Eguzkia estaldurik, Ilargia ilundu-  
rik, Zeruak odeiturik, Lurra ikaraturik, arri eta atxak puskaturik, Elexako  
beloa urraturik, eta beste elemento guztia[k] nasturik ikustiak. Ni arritu-  
ten nabena eta guztiok ikaratu biar gaituena da, beste sentidu bageko  
kriaturak euren Egilliaren eriotzan anbeste sentimentu erakutsirik, baka-  
rrik gizonak, zeñen salbazinorako egin ziran gauza onefelk, au izatia,  
eskergeztokoa, eta sentidurik, ez-da aren señalerik emon ezeitia.

Au da geien Jangoikoa aserratuten daben gauzia<sup>1</sup>. Ez dago gauzarik  
geiago Jangoikoa aserra[tul]ten daben, bere mesedeetara eskergeztoko  
izatiak baño. Alan erakutsiten deusku Berak bere Liburu Santuetan pau-  
suan-pausuan. Alan ikusten dogu Jangoikoa beti ardua andikoa eskatu-  
teko eskerrak beragandik artuten doguzen mesederen sarirako. Eta  
benetan, emen munduan mesede andiren sarirako eskerdeungakoa iza-  
tia sentimentuko gauzia bada, zer izango ez da zorion guztien sariko  
Jaunari pekatu ta esker geztoz erantzutia? Baña, Jauna, gizonak anbeste  
ardurakoak badira bere bata bestiaganako, bakarrik esan leike zuretzat  
gorde dituezala<sup>2</sup> eskergeztokeria guztiak.

Au da, Jesus, zuri zure erritarrak denpora batian egin eutsubena,  
zure mesederen sarirako eriotzaz persegietan zinduezala; eta au ez bes-  
terik gaurko Kristinau geztoak egiten deustubena. Asko izan (...) esatia

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Ostein erantsitako esaldia.

<sup>2</sup> Geuk zuzenduta: *dituebala* > *dituezala*.

zu ziñiala Patriarka ta Profetak (...) anbeste bider euren salbazinorako etorriko ziñiala (...), zure kontra jaigiteko; eta au berau asko da (...) Kristinaurik geienai zu ona, biguna ta errukiorra zariala pekatuak parkatuteko, bizitza on bategaz erantzun biarrian, pekatuak ugarijago egin<sup>3</sup> ta zu ofendietako. Judegu ta Jentillak zure siñasterik ez dabenak alan egitia ez gaitu miraritu biar; baña Kristinauak zure odolagaz irabazikoak Zerurako, onelan siñastu eta egitia benetan zure biotzarentzako sentimentu andiko gauzia, erakutsi zinduna legez antxinati zeure profeta santu baten bidez. *Si inimicus meus maledixisset michi sustinuisen utique, tu vero dux meus et Notus meus.*

Aita munduko batentzat sentimentu andiko gauzia izaten da, bizitza guztia neke-izardietan igaro nondi ipiniko dituben ondo<sup>4</sup> eta emonik gauza guztiak obetuago izan ditezenentzat, azkenian aleginik ez daukanean etsetik atara ta kale gogorrian ipiñitia. Neurri bage andiago, Zeruko Aitak bere bizitzako neke-izardiak eta zanetako odol guztiak emon, gu Zeruan maiorazgo andi eginik ipinteko; eta azkenian onenbesteren sarirako, bere seme onak legez bere aginduan bizi biar gendukenian, orduan ez Aitatzat ez gure Ongillatzat ezautu gura, Berari gugaitik bizitzia kendu eutsen, eta gu betiko galdu gure gaituan arerioa obeagotzat eta ugazabatatzat artu ta ibillitia. Izan leiteke eskergeztokeria andiagorik au baño? Orregaitik bere, obetuago ezaututeko norañokoa dan gure eskergeztokeria, ondo izango da beragandik artu ditugun mesediak gomutara ekartia. Eta ikusirik ez daguala zorionik, ez arima ez gorputzekorik, beragandik artu ez dogunik, inondi baño obetuago emetik ikusiko dogu ez daguala gure eskergeztokeriaren parekorik.

Jangoikoak Angeruak...

---

<sup>3</sup> Ostein zuzenduta: *egi > egin*.

<sup>4</sup> Geuk zuzenduta: *nondi ondo ipiniko dituben ondo > nondi ipiniko dituben ondo*.

## [ESKER ONAK]

Gaur da eguna, zeñean Jangoikoak g(...) [de]uskun mesede asko ta andienen artian apar(...) (...) aberastu gaituana, eta gure memorian aztu bage euki dagu(...) nai duana. Bere mesede guztiak<sup>1</sup> obligetan gaituz eskerronekoak izatera; baña orregatik ere, lenez ganera gure denporan guri egindako miserikordiak obligatzen ditu gure biotzak aparteko eskerak ematera. Au obetuago ezautzeko ekarri daiguzan memoria[ra] arako larri ta esturak, neke, pena ta trabajuak Bizkaian bere mendiak ipini zirianik eta ona ikusi ez dituanak. Eta onek obligatuko gaitu eskerronekoak izatera<sup>2</sup>. (Bada, anbat andiagoa da mesede bat, zenbat eta andiagok izan oi diran berak dakarguzan zorionak; eta anbat estimagarriagoa, zenbat eta oker andiangoetatik libratzen gaituban zorion bi oiek.) Au da beti erri eskerronekoak<sup>3</sup>...

Nai izanik Dabid Erregeak bere erria izan zeitian eskerronekoa Jangoikoaren eskutik arturiko mesedetara, konbidatu zituan kriptura guztiak alegriazko himno ta kanta santoakin Jangoikoa alabatzena. Baita ez izanik txikiagoak egun onetan Jangoikoen eskutik artu dituguzan mesediak, ala guk ere alegria santo ta atsegin andiakin zelebratu dezagun gure libertade santua. Bada, ez dago Jangoikoen begietan sentimentu geiagoko gauzarik, bere mesedetara eskergeztokoa izatia baño. Egiaue Jesukristok Ebanjelio Santoan erakutsitzen digu. Ekarri zituben Jesusen aurrera amar leproso; guztiak negarrez eskatzen zieoen, arren, trabaju artatik libra zitzala, eta urrikiturik guztiak osatu zituben. Ordea, nork sinastuko anbestetatik<sup>4</sup> bat bakarrik izan eskerronekoa? Bat bakarrik etorri zitzaion eskerrak ematen, eta txit zelebratu zuan bere ezauera. Ordea, gizon bakar onen esker ona zelebratu zuan bezela, ala izan zan erakutsi zuan sentimentua beste eskergeztokoakgatik. Mesedetara<sup>5</sup> eskerronekoa dana bere Ongilliagandik geiago artzeko bidian<sup>6</sup> gelditzen da[n]

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Ostein aldatuta: *Egun guztietako* (< *Egun guztietan*) > *Bere mesede guztiak*.

<sup>2</sup> Ostein erantsitako esaldia.

<sup>3</sup> Idem.

<sup>4</sup> Ostein erantsita: *Anbestetatik* > *Ordea nork sinastuko anbestetatik*.

<sup>5</sup> Ostein zuzenduta: *mesede batera* > *mesedetara*.

<sup>6</sup> Idem: *geiago artzeko zorian* > *bere Ongilliagandik geiago artzeko bidian*.

bezela<sup>7</sup>, ala eskergeztokoak ez du merezi izaten beste saririk, beragazko betiko aztutia besterik. Au asko biderretan<sup>8</sup> ikusi da<sup>9</sup>. Peligro andian zeguan Ezekias Erregia, bere bizitzaren esperantza guztia galdua; eta S(a)n Jeronimok esaten digu peligr[ulau izan zala, eskerronekoa izan ez zalako Jangoikoak Angeru baten bidez etsaiak gau baten illik<sup>10</sup> ekarri zion libertade santora. Izanik, bada, andia guri Jangoikoak etsaiak (...), beldur izan biar gera esker (...) berriz kastigatu ez gaitzan. Peligro an[dil]an zeguan Betuliako erria, betiko galtzeko zorian, libratu zuan emakume santa Juditen bitartez, Olofernes jeneralari burua ebakirik; baita mese[de] onen saritzako Jangoikoari esker onak eman ziozkan. Asi ziran Jangoikoagan fede ta esperantza geiago paratzen, eta Jangoikoaren opensak kendurik Bera alabaten, beren pekatuen penitentzia egiten, Jangoikoaren aginduak obetuago gordetzen.

Peligro andian ikusi gera, gure Legea ta Erlijio galtzeko zorian; milagro z Jangoikoak libratu gaitu, bada, aurrerantzian eskerronekoak izan gaitzan, Jangoikoa aurrerantzian obetuago zerbi dezagun, gere pekatuen penitentzia egin dezagun, zeñ gure esker geztoren sariz<sup>11</sup> oker andiagorik etorri ez dezakegun.

Esker oiek izan biar due iru modutekoak<sup>12</sup>, S(an)to Tomas gloriosoak erakutsitzen digun bezela. Izan biar due biotzetikoak, aozkoak eta obrazkoak: estimazio santo bat biotzian eman biar diogu, aoz alabatu biar degu gure Ongillatzat Jangoikoa, eta obra santoakin erantzun. Au da mesede onen saria, au eskerronekoa izatia. Gure denporan anbeste bider milagro z bezela libratu gaitu; eta estura berriatara berriz ekarri bagaitu, ez dago dudarik dala eskergeztokoak izan geralako. Ontzeko motibo andiak izan di[tu]be Bizkaiko erriak. Errietako abade maisu jaunaren platika ta exenploak, predikadoreren sermoiak, misioetako Jangoikoaren deiak aditu dira. Baña, ai! Otzitu da txit fedia, otzitu dira jenteren meza nagosietarako asistentzia, gurasuaren umiakiko<sup>13</sup> exenploa, umen<sup>14</sup> gurasoakiko errespetua. Ez da zuben soloetan aditzen konbersazio garbirik, ez zuben etxe ta kamaretan usain-atsa botatzen ez d[ul]an

<sup>7</sup> Osteen erantsita.

<sup>8</sup> Osteen zuzenduta: *bider* > *biderretan* (< *bidertan*).

<sup>9</sup> Osteen erantsitako esaldia.

<sup>10</sup> Geuk zuzenduta: *Jangoikoak gau baten Angeru baten bidez etsaiak gau baten illik* > *Jangoikoak Angeru baten bidez etsaiak gau baten illik*.

<sup>11</sup> Osteen zuzenduta: *sariak* > *sariz*.

<sup>12</sup> Idem: *Iru modutera datoz gure eskerrak* > *Esker oiek izan biar due iru modutekoak* (< *modetokoak*).

<sup>13</sup> Jatorrizkoan: *bume*.

<sup>14</sup> Idem.

it[z]lik; eta zuben biotzak, mingaÑak eta obrak esaten digue zuben erlijioa txit azaletikoa dala. Au baserrietan, non pekaturik gitxien ikusten dan. Eta erri batuetan, zer? A! Emen mututzen da nere mingaÑa. Jangoikoa openditzeko, ostikopean lege santo guztiak sartzeko aginduko balitz ere, zer oker geiago ikusiko litzateke? Zenbat okasioetan sarturik ezkonduak, alargunak, libriak, nola bizi zare? Bildur naiz Españatik...



## [KONZEPZIÑO GARBIKOA]

Gure Elexa Ama Santiak Mariaren<sup>1</sup> festibidadien artian ez dau zelebretan andiagorik, ez-da atsegin geia[go]korik, bere Konzepziño Garbikoa baño; beragaitik ez gaitu geiago onetara obligadu biar beronek baño. Egun onetan zelebretan dogu arako instantia zeñean Maria Santisimiak ezerezetatik arturik bere izatia, Jangoikoen aparteko grazia parebageko bategaitik ikusi zan bere begien aurrian ederra, bere ordura artaraño obra guztien artien onena, kunpliduen eta beste guztiak atzera isteko bestekoa. Gure konzepziño instante fatal onetan, zeñean Adanen seme-alaba guztiak Jangoikoen aserrian izaten garian eta Diabruaren mendian, instante onetan agertu zan Maria graziaz apaindua, Jangoikoen Alaba, Zeruko Heredera, Espiritu Santuen Esposa eginik. Bai, Maria bakarrik izan zan dispensadia lege pekatuko onetaltik aparteko pribilegio bate[n] birtutez<sup>2</sup>. Alan dekretadu eban Jangoikoak, au da, ukutu ez leion bere Ama izango zanari pekatuaren mantxiak, eta alan erakutsi bere eban bere Patriarka, Profeta eta Antxinako Legeko Santuen bidez. Eta au esan gure eban anbeste nazinoren<sup>3</sup> suspirio eta negarrak, zeñtzuek ez zirian besterik laño santu batzuk, zeñen barruan gordeta egoan arako uri santu ta graziazkoa mundua pekatutik salbadu biar ebena.

Espiritu Santuak alantxe dibujadu eban arako Testamentoko Arka edo Kutxa barrutik eta kanpotik urre ederrez apainduan, Isaiasek bere tesoro[ro]ren zijorra lora ederrez apa[li]ndurikoan; eta Salomon ta beste ganekoak onela erakutsi euskuen emakume miragarriau. Trinidadeko Bigarren Personiak ikusi ebenian eldu za[lla] bere Ama izan biar ebenen konzepzinoko instantia, ezautu eben bere obligazinotzat legez eta non-di gloriarik geien etorri biar jakon bere animazinoko instantian aberasutia, bere andita[su]nari etorkiozan graziazko doi ta graziaz aiztuten (...) bere Amagazko arako lege jenerala beste Adanen (...) [g]uztientzako ipini ebana. Alan etorkion Jangoikoen Ama (...) ebenari, eta eukirik one-

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Ostean aldatuta: *Santuan > Mariaren*.

<sup>2</sup> Ostean zuzenduta: *pribilegio bategaitik > pribilegio bate[n] birtutez*.

<sup>3</sup> Ostean erantsita.

tarako<sup>4</sup> biar zirian esku (...)iak, bere Amari bakarrik eta ez besteri etorri jakazanak, ordura arteko Santu guztienak aitzu biar zitubanak, egin eban guztion artien apartekoa eta Jangoikoen Amari etorkion lezkoa. Modu onetan Jangoikoen Semiak apartadu eban Maria pekatuen lepra originaletik, emoten eutsela Jangoiko batek emon aleikion grazia guztia eta kriatura batek artu aleikiana.

Ze ditxa ta zorion andiagorik! Andia izan zan ditxa ta pribilegioa Noe Patriarka Santuari egin eutsena beste mundutar guztiak...

---

<sup>4</sup> Ostein zuzenduta: *onetara* > *onetarako*.

## [JESUKRISTOREN ETORRERAKO FESTA]

Jesukristoren etorrerako festa alegriaz beterikoetan ez da konbeni alegria santuau lutuarekin nastutzea; beragatik Inozente Santoaren ganian itz bi esango dizkitzuet. Elix Ama Santak motibo bage ez du determinatu Jesusen jaoerako pestari laguntzea Inozente Santoaren pestak, S(a)n Esteban ta bere Dizipulo maiterena. Jaiio dana da Jangoikoa, eta beragatik kontsagratzen dizka hostia garbiak sakrifiziotzako.

Salbazaillia Belenen jaiio zanian erakutsi zien Jangoikoak Errege Magoai Izar milagrotsua, zeñek ekarri zituzan aiek Jerusalemenera, uste izanik pesta andiak Jerusalemene izango zirala Mesiasen jaoeragatik, zeñ Juduak esperatzen zeben. Ordea, ikusirik<sup>1</sup> añ otzak zeudela Jerusalem-darrak, miraritu ziran. Galdetzen due non jaiio dan Juduan Erregia, noren señalliak Izar ederrak argi eginik zetozan adoratzera. Galde onek bildurtzen du Herodes, eta Jerusalem nobedade onekin mobitzen da. Eta beldurturik jaiio zan aurrak kendu ez zeion koroa, beinguan biraltzen du Sazerdote ta Jakintsuakgana; baita jakinik Juduen Erregia jaiio bazan bere koroa galdu biar zuala, zergatikan ez zan Herodes Judua baizikan Idu-meo edo Jentilla, isillik deitu zituban bere palaziora jakintsuak, eta beste itzik nastu bage bakarrik galdetu zien bere Eskriba... non jaiio biar zuan Mesias Legia[k] prometitua. Guztiek ao batien erantzun zien Herodesi Belen[en] jaiio biar zuala, ala Jangoikoak Profeta Santuetatik erakutsita zeukala. Errespuesta onekin konte[n]tatu zan erregeau ta maliziaz zirkunstantzia guztiak jakin zituban isillian, onela berak zeukan intenzio geztoarekin aurra degollatzeko. Eta erantzunik Errege Magoai "joan zaitie, adorazazue, eta etorri nigana nik ere adonatu dezadan", au guztia zan bere malizia okultatzea.

[AMAIERAKO ERANSKETAK<sup>2</sup>]

Erri onetako abade maixu jaunak, justeziako jaun prestuak eta beste erri onetako auzo noble ta on[ak]<sup>3</sup> alan gure izanik, eta Obispo Jau-

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Osteen ezabatuta: *nobedade andi bat ikusirik > ikusirik*.

<sup>2</sup> Lehenengo eransketa, bizkaieraz.

<sup>3</sup> Jatorrizkoan: *bon*.

nak agindurik, ez gatoz nere laguna ta ni auzi balio andiko bat<sup>4</sup> galduak emen munduan zubei ekarri aleikezuezan kaltia[k] erakutsitera, emen munduan pobre edo aberats izatetik datozan diferentziaren ganian berba egitera. Onefe]k guztiok egia da ondo begiraturteko gauzak diriala, baña orregatik bere erremedioa daukenak, bizitziagaz akabetan dirianak. Baña nire laguna ta ni gatoz orandio balio andiagoko auzi baten ganian berba egitera, eta galtzen baldin bada<sup>5</sup> sekula ezin erremediau leijen auziaren ganian, zeñ dan Salbaziñoko auzi baliosoen ganian. Au da Jangoikoak biralduten gaiten enbajadia zuben eta gure ardura edo atenziño guztiak eskatuten ditubena. Ezpabere esan egidazue: Zer balio izango deutse erri onetan izan diran abade maisu jaunai, justiziakoai eta zuben guraso emen izan diranai, etxe beroak<sup>6</sup>, solo ederrak eta baso zabalak eurek gozau ta zubei itxitiak, euren animak galdu baldin badi-tuez? Eriotziagaz guztia galdu eben, ames bat igaro oi dana legez igaro jaken. Onak izan bazirian, guztia irabazi eben; baña oker akabau bazirian, ez zubek ez zubei<sup>7</sup> eurek itxiko etxe beroak, solo ederrak ez baso zabalak ezingo dituez Infernurik atera, galdu bazirian. Arefe]i jazo jaken okerra<sup>8</sup> jazoteko zorian zagoze, zuben umiak<sup>9</sup> eta ondasunak ezin osatuko dituben kalteren zorian zagoze, auzi eternidadekoa galtzen badozue. Eta kalte negargarriok zuben ganera etorri baño lenago Jangoikoak biralduten gaitu, bere partez esan dagizuguela arimako begiak argiturik.

Gaurko ebanjelioak esaten digu gizon aberats batek maiordomo bat euki zuala, noren eskuetan zeguan hazienda guziaren kuidadoa; eta biar bezela kontu egin ez ziolako<sup>10</sup> deitu zuala kontuetara, enpleo kentzeko ustiaz. Ikusi zanian maiordomoau estura onetan, ez zualako kontu onik emateko modurik, esaten zuan bere artian: zer egingo det nik? Ni agertu biar naiz, kenduko dit maiordomotzea, eztakit lanik egiten, lotsa naiz eskian joaten. Zer egingo det?, esaten zuan estura artan.

Onetan zeguala, pentsatu zuan deitu biar ziela nagusien ma[i]ztarrari, eta deiturik esan zien: Zenbat zor diozu nagusiarri? Batek era[n]tzuten zien: Nik eun anega gari. Eta berak: Orra erreziboa, ta parazazu berro-

<sup>4</sup> Ostein aldatuta: *zubei esatera* > *auzi balio andiko bat*.

<sup>5</sup> Ostein erantsita.

<sup>6</sup> Ostein aldatuta: *zabalak* > *beroak*.

<sup>7</sup> Ostein zuzenduta: *bei* > *zubei*.

<sup>8</sup> Idem: *jazo jakena* > *jazo jaken okerra*.

<sup>9</sup> Jatorrizkoan: *bume*.

<sup>10</sup> Ostein aldatuta: *eitiagatik* > *ziolako*.

geta [amar]. Eta onela, bakotxari erdia kendu zien erreziboarekin, bere nagosiak botatzen zuanian ma[i]ztarren artian mantenitzeko.

Egiaz malizia andi ta okerra; ordea<sup>11</sup>, zelebratu zuan bere nagusiak bere prudentzia gosiak ematen zionian zerekin mantenu<sup>12</sup> izateko.

Bada, mundutarrak beren okerrarako duen prudentzia au berau prokura dezagula. Zuk aspaldian kontu onik ez diozu ema[n] Jesusi, bada, arturik<sup>13</sup> onetarako Jesusen...

---

<sup>11</sup> Idem: *Malizia andiarekin ibilli bazan ere, zelebratu zuan* > *Egiaz malizia andi ta okerra; ordea, zelebratu zuan.*

<sup>12</sup> Geuk zuzenduta: *mantinutu* > *mantenitu*.

<sup>13</sup> Ostean aldatuta: *izanzazu* > *arturik*.

## [LUXURIJAN]

Nork errango zion Goliati, Jangoiko ta bere Erri maitaren tentagarri eginik, bere pekatuaren neurrija bete ta artzaintxo baten eskuetan bere bitzta entregatu biarko zuela? Eta nor[k] erran dizu zuri, luxurijan sarturik zaudena, zure gaztetasunian esperantza ifinirik, geroko konbersio utxirik, orrela<sup>1</sup> bere tentagarri eginik zabiltzena, pekatuen neurrija betetarik eriotzak artu ta kondenatuko etzarella? Bada, begira orrela<sup>2</sup> pekatuan gogortzen bazara, zurekin gertatuko dala Faraonerekin gertatu zana<sup>3</sup>.

Denpora luzian pazienziya andijakin zeguan begira Jangoikoa Faraon Erregiak Israelgo erri maitiari ematen zion tratamen[to] geztoa; abisatu zion libratu ziela bere menpetik, ez zuan nai izan, biraldu ziozkan anitz kastigo ta plaga. Azkenez bildurturik Faraon anbeste kastigukin, itxi zien Isra[el]tarrai libertadia joatzeko euren errira, baña damutu zaion<sup>4</sup> bereala<sup>5</sup> libertade emana ta itzuli zan lenbiziko pekatua. Irten zuan Israelgo erriaren ondorik exerzitu andi batekin, il ta akabaturik guziak euren ondasunakin betiko aberasteko pozez beterik. Eldu zan Itsas Gorriko ibai barrenera, non uste izan zuan akabatu guziakin, eta orra non dakutsen itsasoaren erditik oñak busti gabe pasatzen dan Israel guzia andiko aldera Jangoikoak mirariz liortuko bide batetik. Itsututen zaio Faraoni ta agintzen dio bere exerzituari sartzeko barrura. O itsutasun andija Faraonena! Zer da egitera zoazana? Ez dozu ikusten ondatzeko peliburuan paratzera zoazena? Ez dakusu Jangoikoak mirariz zure gogortasunetik libretzeko egin duela bideori? Bai, erraten du, baña dakit miserikordio-soa dala Jangoikoa Israeltarrena. Anitz aldiz erran zidan libratzeko bere Errija, anbeste aldiz ez nai nuan beste anbeste kastigo igorri zidan. Baña libratuko nuela erratzen nuen bakoitxian parka zidan; amar aldiz parkatu dit, bada, amaikagarrenian ere parkatuko dit. Kontu alegriok aterarik sartzen da Faraon bere exerzituakin itsaso artan, eta orra non apenas

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Jatorrizkoan: *borrela*.

<sup>2</sup> Idem.

<sup>3</sup> Geuk zuzenduta: *zurekin gertatuko dala Faraonerekin gertatu zana gertatuko dala > zurekin gertatuko dala Faraonerekin gertatu zana*.

<sup>4</sup> Ostein aldatuta: *zion > zaion*.

<sup>5</sup> Ostein erantsita.

Israelgo erriak irtetzen duen, orra non bide ura kastigatzen dan eta non ur len Jangoikoak zabaldu zituzanak mirariz, alkarregana baturik ondutzen dan Faraon exerzitu guziakin itsaso artan. Deadar egiten dute, miserikordija eskatzen dute, baña alperrik: bete zan euren pekatuen neurria, ta galdu biar dute betiko Infernuan. Bada, pekatari pekatua pekatuaren ganian egiten dozuna, au da zurekin gertatuko dana.

Pekatu andijetan sarturik egon zera, Jangoikoak bere miserikordijarekin atera zaitu, baña ostera itzuli zera, ostera Bera[k] atera zaitu. Eta onela anitz aldiz aterarik, erran duzu: anbeste aldiz libratu nuen ezkerro, ez du naiko ni galtzia. Ta berriro zoaz ardura gabe lenbiziko pekatuetara, eta orra non len ta oraingo pekatuaren ur gaziak alkarregana baturik, zure pekatuaren neurrija beterik, azpijan artu ta ondutzen zeran. Miserikordijaren dei egiten dozu, baña alperrik, bete zan neurrija. O pekatari tristia! Noz<sup>6</sup> ernatuko zera lozorro mortal orretatik? Erremedijorik ez dagoanian? Añ itsuba izanen zara? Ez duzu nai itzuli anbeste abiso ta grazijarekin?

Orandaño nai dozu batzar peliburuso, konbit ta erromerijetan? Bada, begira: zurekin gertatuko da Baltasar Erregiakin<sup>7</sup> gertatu zana. Poz, olgura ta atsegin andiz beterik, kastigu askoren<sup>8</sup> uste gabe zegoan errege ura, olguraz jan ta kontentuz eraten zuela arnoa bere aitobek Nabukok Jerusalem[en] kenduko baso sagraduetan, bere erreinuko ainbeste agintari ta beste bere gusto zikinak kunplitzeko zeukezan anbeste dama ederreren erdijan. Baña, zer zan gertatu zitzaiona? Orra non konbiteren erdijen non dakutsen bere konbiteko ormaren aitzinian beatz batzuk eskribitzen zutenak. Arritzen ikusgarri arekin, jaikitzen da jakitera zer erran nai duen, baña ezin konprenditurik, dei egitzen die bere erreinuko jakintsuai. Are[e]k ere ezin konprenditurik, dei egiten dio Danieleri, ta onek erraten<sup>9</sup> dio: Eskritura onek erran nai due[n]a au da, Baltasar; kontatu du Jangoikoak zure erreinua ta bete du; izan zera pisuan paratua ta arkitu zera obra on gitxiago duzula gaizto baño; partitu du Jangoikoak zure erreinua ta eman die Medoai ta Persai. Ta arrat[s] atan izan zan illa Baltasar. O sentenzija itzala, Baltasar, izan zan zuria, ta apelazino bagekoa! Non, non dira zure puntuko olgurak? Non zure adiskidiak? Non zure dama galant ta ongi apainduak, gusto zikinak zure gorputzari emateko zeunkazanak? Guztijak irago ziran, iges egiten dute, ta al balute sartuko litzateke lurraren ondarrera guztijak arriturik. Bada, begira zu peka-

<sup>6</sup> Geuk zuzenduta: *Ñoz* > *Noz*.

<sup>7</sup> Idem: *Erregiariakin* > *Erregiakin*.

<sup>8</sup> Ostein zuzenduta: *askiren* > *askoren*.

<sup>9</sup> Ostein aldatuta: *aditzen* > *erraten*.

tari meza ta pestatik<sup>10</sup> sekula irten gabe zure manzebarekin konbitetan maijan jarririk pozik<sup>11</sup> jan ta olguraz edaten<sup>12</sup> duzunak, ta andik txuzen luxuriara zoazena; ezta faltako zuretzat beste eskritura bat zure kontra-ko sentenzijarena, ez da faltako ere beste Daniel Baltasarrereri bezala leiduko dizuna bete dirala zure bizitza olguraz beterikoaren egunak, pisatu zure obrak, ta aurkiturik obra on bage pekatuz ganezturik, zure munduko egunak akabaturik Infernuko demonioekin batera, non zorigeztoko konbit atan eternidade batian egonen biarko duzun. Zer izango da orduan zure konbitakin? Zer zure pesta lagunakin? Zer itzaldurik agoninako tranzean, anbeste demonio zure oatz inguruan ikusi ditzazuzenian noiz irtetzen duen anima otso amorrotuak bezala euren ortz artian partitzeko? Ai zori geztoke olgurak!, erranen duzu. O adiskidetahun madarikatuak!

O nork<sup>13</sup> orolezko negarrarekin erakutsi leijen gaur gertatzen dana! Ibiliko da neskatx bat korruan dantzan, izardituko anbeste pekatuz beteriko mobimentu bere gorputzeri eraginik; dator etxera, artzen du ur trago bat, bera pasatzen du, eritzen da, dei egiten diote barberuari, gau artan biarbada konfesatu gabe iltzen da. Zer da au?, erraten dute. Zer izango? Mediko edo barberoak kontrako erremedio eman dio, ta il da. Baña, o zer diferentziak diran Jangoikoaren juizioak! Ez da alan. Neskatx urak bere jantz, mintz ta postura pekatuz beterikorekin bete zuen neurrija ta joan zan Infernura, non Demonioarekin eginen duen...

---

<sup>10</sup> Ostean zuzenduta: *pesta* > *meza ta pestatik*.

<sup>11</sup> Geuk zuzenduta: *pozin* > *pozik*.

<sup>12</sup> Alternantzia: *eran* / *edan*.

<sup>13</sup> Ostean zuzenduta: *nok* > *nork*.



## [AMUDIOZKO SAKRAMENTUA]

(\*)<sup>1</sup> Gure izanik erakutsi jakintsuak zelan izan biar dogun eskerronekoak Jangoikoaganako, dirausku añ diriala andiak bere eskuetatik artu doguzan mesedeak eze, alperrik egingo dogula alegina jakiteko, ezingo dala gure entendimentu laburra eldu onef[elk jakitera; eta asko ta andiak badira bere guk beraganik artuta daukaguzan mesediak, askoz diriala andiagoak guri okultetan jakuzanak. Baña non geiago erakutsi eban Jangoikoak gizonaganako amudioa, izan zan Sakramento Altarako Beneragarrian, bada, emen bere karidadeak<sup>2</sup> artu su geiago beste Sakramentu guztietan baño. Beste Sakramento guztietan emoten jaku Jangoikoa gauzaren baten<sup>3</sup> bitartez, Batioan uraren bidez, Konfirmazinoian Krisma Santuen bitartez, baña Altarako Sakramentu Beneragarrian emoten jaku bitarteko bage Jangoikoa berbera. Orregaitik, jakin gura badogu sakramento onetan emoten jakuna, ikusiko dogu ez bakarrik dala gure entendimentu laburrak arkantzau<sup>4</sup> ala, baita bere esan biar deusuet Jangoikoak berak bere jakituria ta poderioa guztiagaz ezin emon eikegula geiago onetan emoten deuskun baño, bada, emen emoten jakuna Jangoikoa berbera da.

Orregaitik, Trentoko Batzar santuak esaten deusku Jangoikoa[k] emen erakutsi ebala gizonarentzako gordeta daukan aberastasun guztia. Zelako prestaera santuagaz, bada, ez dogu eldu biar errezibietara Zerutiko Ogi Santuau? Gatx andiak eta kalte neurribagiak izan zirian Adanen frutak ekarri euskuzanak; baña andiagoa osagarria, gatx guztietatik osatu ta Jangoikoturik ipiniten genduzana<sup>5</sup>. Diabruaren konbitez engañadurik jan beben gure gurasoak fruta eragotzia, ara emen non benetan konbidetan gaituzan, Jangoikozko fruta[k] opa deuskula betiko bizitzia, ondo jaten badogu. Eldu gaitian fede bizi[z], arima garbiagaz, eta izango gara benetan Jangoiko, Santo Tomasek esaten deuskun legez. Ze ogi

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Hasiara oharra: *Asunto: Sermoi onen geia izango zelako prestaerak biar dituguzan euki Amudiozko Sakramentua artuteko.*

<sup>2</sup> Ostein aldatuta: *amudioak > karidadeak.*

<sup>3</sup> Geuk zuzenduta: *batez > baten.*

<sup>4</sup> Ostein zuzenduta: *arkantza > arkantzau.*

<sup>5</sup> Ostein aldatuta: *euskuna > genduzana.*

miragarriagorik? Ze sakramento beneragarriagorik? Eta zeñ izango da emen guri emoten jakuna biar dan legez erakutsiko dabena? Ez iñor. Orregaitik bere, euki dagizuben Ogi Santu onen ezauera pizko bat, esan biar deusuet S(a)n Juan Krisostomo ta Santo Tomas Billanuebakoagaz, Jangoikoak onetarako euki eban motibo guztia etzala<sup>6</sup> besterik, ezpada erakutsitia<sup>7</sup> gizonari eutsan amodioa. Zer egiten dabela uste dozu bere karidadiak erakutsiteko guri deuskun amudi[ola]? Egiten dau Jangoikozko Ogi miragarri bat, alako modu miragarrian eze, guk bera janik gure izan eban Jangoiko biorturik gelditu gintekezan.

O zorionez beteriko sakramentu[a]! O Jangoikoaren gizonarentzako amudio neurribagia! Emen bai erakutsi zendula gizonari zeuntsan amudio neurribagia! Nondik, Jauna, pekatari eskergeztokoai onenbeste amudio izatera etorri zinian? Eta zelan gu zuretzako añ eskergeztokoak? Zegaitik gu añ epelak eta otzak onenbeste zorioneko Sakramento Santurako<sup>8</sup>? Eldu gaitezaz gaurrik aurrera prestaera geiagogaz, eta beste denpora baten Israeldarrak Zerutik artuten eben Ogi milagrozkoua baño geiagogaz, eta arefe]k onelan arturik merezidu izan eben baño osasun obiagoa mereziduko dogu.

Bai zorioneko zure Mai Sagradura biar dan lezko prestaerakaz elduten dirianak! Nok euki leukian arako prestaerea eta garbitasuna zu biar dan garbitasunagaz artuteko? Nok arako amudioa Serafinek Zeruan zuri deusuen? Eta ez bakarrik artzeko, baita bere beiñ arturik zuri eskerrak emoteko. Bai; Israeldarrak añ arduratsuak izan bazirian basamurtuan Zerutik artu eben Ogiagaitik eskerrak emoteko, askoz geiagokoak izan biar do[gu] guk onetarako. Bada, arefe]n Ogia bakarrik izan zan gorputzeko osasunekoa, guria arimekoa; arefe]n Ogiak bakarrik berrogei urte iraun eban, guriak eternidadiau. Ze zorion andiagorik, bada, au baño emon leigu? Nozbait euki dozu Apostoluen inbidiarik, Jesusegaz bizi, ibili ta beste gauza asko egitia merezidu izan ebelako? Bada, begira zuri geiago egin eutsula; bada, ez bakarrik zugez ibilli ta berba egin gure dau, baita bere zu bere bizileku izan zaitezaz gure dau. Gelditu zara nozbait pentsetan komulga[u] ta lasterrian zugaz jazo dan Jangoikozko biorkera miragarria? Bada, ondo artu badozu, erraz esan deikezu zarea-la Jangoiko, bere azurraren azur eta aragiaren aragi. Nok sekula usteko eban onelakorik? No[ri] gogora bere onelakorik Jangoikoari baño? Bedeinka milla bidar zure ontasuna eta karidade neurribagia. Orra zeñ

<sup>6</sup> Ostean zuzenduta: *ez dala* > *etzala*.

<sup>7</sup> Geuk zuzenduta: *erakutsitiak* > *erakutsitia*.

<sup>8</sup> Ostean aldatuta: *Ogi Santura* > *Sakramento* (< *Sakramentora*) *Santurako*.

zorion andiak! Eta anbestekoak badira zorionak, alantxe dire bere kaltiak deungaro erreziñetan daben arimien ganera etorri oi dirianak.

Gure badozue jakin zelako garbitasunagaz eldu biar dogun Sakramento Altarakora, begira zelakoak izan zirian Jangoikoak bere erri Israelgoari eskatuten eutsazan prestaera santuak. Aginduten eutsen, bada, sakripizioak aragiak jan gure zitubenak ondo garbirik, pekatubak kontriziñoz kendurik eldu zitezela; eta baldin garbitu bagarik edo pekatuz loiturik elduten bazirian, illak izango ziriala. Orañ, bada, aitzina Judeguak onenbeste garbitasun biar beben sakripizioko animalia batzuen aragiak jateko, izanik are[*e*]k irudi bakar batzuek, Altara[*ko*] Sakramentean gure amudioz ipiniten jakun Jesusanak, zer biarko ez da Altarako Maira elduteko? Eta ondo garbitu bage joaten ziriantzako añ zemakuntze andiak eta kastigu bildurgarriak begozan, zer egongo ez da arako pekatuz loiturik iñoz biar dan legez garbitu bage doazenentzako? Benetan injuria andia onelan elduten danena. Bai, ezautuko bazendu, onelan zoazena aspaldian Sakramento Santu orretako Maira, zeñ kastigu andiak opa deutzuzan, arriturik geldituko ziñatekez. Ikusiko zenduka zure ezpata billozagaz zure atrebimentua kastigetako, eta bere aotik urteiten dabela suzko erreka bildurgarria, erre ta desegiteko onelako atrebidua.

Benetan, Jauna, atrebimentu andia, ezin esanezko eskergeztokeria, zugandik<sup>9</sup> artu ginaien ondasunik andiena onelan gaizto eginik eta arimia loirik artutia. Baña begira, añ prestua bada bere, dala ardura andikoa mesediak eskatuten; alan ikusten dogu Eskritura Santuan pausuan-pa[*l*]suan. Zabaldu dagiguzan Jangoikoen Libru Santuetara begiak eta ikusiko dogu bere Israeldarrak ateretan badituz Egiptoko kautiberiotik, beingoan eskatuten deutzela mesede onen saritzako fiesta andiak zelebrau leiezala, onelan gurasoetatik umeetara beti igororik, zegaitik egiten zitubezan beti ezautu leiejn euren libertadoretzako. Gosiak ilteko zorion badagoz, eta negarrez eskaturik Zerutiko Ogia biralduten badeutse, orra non aginduten deutzan Ogi miragarrizko atatik zati bat gorde leien basu eder batian, onelan denporarik denporara erakutsirik euren semeai, guztiak etorri le[*l*]teze[n] Jangoiko zorion guztiaren emolaritzako. Ikusirik anbeste enpeñukoa gu zorionez betetako, añ arduratsua mesede onen eskerrak eskatuteko, ondo arimia garbituta artu biarran, pekatuz beterik guztia loiturik joaten bada, ze kastigu mereziduko ez dau? Bai, onelan presentetan zariana, bildur izan biar dozu, zeñ Jangoikoren odol orrelan artuten<sup>10</sup> dozun orrek, zure kontra deadar egin

<sup>9</sup> Idem: *beragandik* > *zugandik*.

<sup>10</sup> Ostean zuzenduta: *artute* > *artuten*.

zedagien, Abelenak Kainen kontra legez. Eta Jangoikoak entzun bazituben Abelen odolenak, obetoago entzungo ditu bere semeenak, anbeste injuria zuk eginik.

Baña ez, pekatariak, ondo prestau gaitian eta obligau dagigun ez justizia, ezpada miseriardiara...

**[MARIAREN DEBOZIOA]**

## PRIMERA. INTRODUC[C]IÓN

Kristao fededun guziok sinastuak gaude debozio egiazkoak bere izatia dakarrela Jangoikoari diogun amodiotik. Ordea, Jangoikoari diogun amodio onek ez digu eragotzitzen beste Santoai debozioa izateko. Esan nai det, Jangoikoari zor diogun<sup>1</sup> aparteko amodioak ez digula debekatzten Zeruko Glorian berarekin dauden Santoai debozio eukiteko. Firme doktrina onetan Kristao fededun guziak gaude siñastuak Maria S(anti-si)mari zor diogula aparteko debozio bat beste Zeruko Santoai baño askoz andiagoa, Jangoikoak beragan ipini zituen aparteko grazia miragarrizkoakgatik. Eta alako moduan dago doktrinau Elixia Santan artua ezen, ez dago Kristao fededunik kontra pentsatzen duanik.

Erakutsiteko Mariaren debotoai ez daguala fundamento geiagoko deboziorik Mariarena baño, asko da esatia debozioau Elixarekin batera datorrigula, au da, Elixia Santa fundatu zebeu Apostoloakgandik; eta au berau Apostoloren ondorengo izandu ziran Elixia[ko] aita santo ja Griego ja Latinoakgandik. Doktrinau erakutsiten digu ere Elixako Historia Santaok; au Mariaren deboziora konsagratuko anbeste erlijio santok, non anbeste Santok argi egin duan; au anbeste kofradia, hermandade anbeste induljenziaz Aita Santuakgandik aberastuak; au anbeste ermita milagroso, non Mariak bere debotoak milagroez osatu ta konsolatu dituenak. Oek guziok eta beste ezin kontala luzatu ezeitiagatik utzitzen ditudanak, argiro erakutsitzen digue ez dagoala Elixia Santoan debozio fundamento geiagokorik.

Alperrik Mariaren etsaiak nekatu dirade bere kontrako lotsagarrizko doktrina zabaltzen, alperrik blasfematzen. Izandu ditu ta izango ere ditu Mariak deboto egiakoak bere gloria ta pekatarien onerako. Bai, ondraituko zaitue, eta zuk zorionez bete<sup>2</sup> orren zaritzako zure debozioren zabaltzalle ta predikadoriak. Ala bada, sermoren geitzat bi gauza esan-

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Ostean aldatuta: *izan oi diogun > zor diogun*.

<sup>2</sup> Ondo lotzerik izan ez dugula eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Eta zu izango zera gure anparua...*

go dizkitzuet: 1. Nol[a] Zeruak graziaz apañdu zuan Maria. 2. Zeñ indar andikoa dan bere debozioa.

*Fecit mihi magna qui potens est. Lc. 1, 49*

Ant[z]inako Legean ikusi ziran irudi guzien artian, ez zan obetuago Maria S(anti)s(i)ma iruditzen zuanik Testamentoko Kutxa<sup>3</sup> Santoa baño. Zedrozko olak sitsak beragan zerikusirik ez debenak eta noren kearekin izan ziran egiñak, argiro erakutsitzen zezen Maria Kutxa Misterioso eta Santoa pekatuaren sits geztotik libre izan biar zana. Urrezko plantxa eder ta miragarriak barrutik ta kanpotik aforraturik añ miragarri edertzen zitubenak, iruditzen zezen Espiritu Santoaren doeak Mariaren anima Jangoikoen Kutxa izango zana apañduko zeбенak. Amar Legeko Mandam[entoak]<sup>4</sup>, beste anbeste oletan Kutxa artan gordiak zeudenak, Moisesek Jangoikoen ordenaz Orebgo<sup>5</sup> mendian Israelgo erriari tximista ta trumoi bildurgarrizkoen erdian eman zizkanak, Zerutiko Ogi Santoa milagro z gabero biraldurik goixero erri ark artzen zuana eta berrogei urtian berarekin desiertoan mantenitu zituana, Moisesen ziorra Egipton, desiertoan, eta Jordango ibaian anbeste milagro egin zituana; oek guziok Kutxa artan gordiak zeudenak, guziak iruditzen zezen Berbo Dibinoa, Jesukristo Trinitate Santoko Bigarren Persona Espiritu Santoren birtutez<sup>6</sup> Mariaren entraña garbietako Kutxan gordeko zana.

Jangoikoaren Semia gizon eginik Mariaren entraña garbietako Kutxan gordia izango zanaren Kriaturaren jaie<sup>7</sup> Zerurako igoera<sup>8</sup> Zeruak pesta andiak in zelebratu bazuan, arrazoia da guk ere emen munduan alegria santoz<sup>9</sup> zelebratzia. Ala bada, sermoaren gaitzat...

S(a)n Antonino Florenziakoak esaten digu zeñ esperantza andiak Mariaren debotoak euki biar duen Jangoikoen tribunalian ondo urteiteko. Santo onek dio pekatari andi bat eta urte askotan Jangoikoaren eskuetatik kanpora bizi zan batek, baña beti Mariari gitxiago bazan ere debozioa izan ziona, pekatu andi baten ondoan ikusi zuala nola deitua zan Jangoikoen tribunalera; Diabruak bere pekatuak akusatu ta bere presatzat eskatzen ziola Jangoikoari, Mariak alegin santuak gordetzeko

<sup>3</sup> Geuk zuzenduta: *Txutxa* > *Kutxa*.

<sup>4</sup> Ostein aldatuta: *olak* > *Mandam[entoak]*.

<sup>5</sup> Geuk zuzenduta: *Orekgo* > *Orebgo*.

<sup>6</sup> Idem: *birtuten* > *birtutez*.

<sup>7</sup> Zalantzakoa.

<sup>8</sup> Geuk zuzenduta: *igoera* > *igoera*.

<sup>9</sup> Idem: *alegriaz santoz* > *alegria santoz*.

bere debozio txikia baño beste arma gabe, azkenian ipiñirik balanzan bere pekatuak eta obra onak, balantzak Diabruaren aldera egin zuala. Baña, zer uste dezue orduan Mariak egin zuala? Bere mantuarekin gelditu zuan balantza, eta Zeruko Erregiña ta pekatarien Amak bezela, eman erañ zion urte batzuetako bizitza. Eta ikusgarri onekin pekatuen kastiguz beldurturik eta Mariaren mesede miragarri onegaz esker onera obligadurik, egin zuan bizitza santo bat, eta etorri eriotza on baten bidez salbazioa irabazitera.

Doktrina: Nola Maria dan ez bakarrik gure bizitza, bere enpeñuz pekatariak irabazi ereinik grazia bizitza espiritualera ekarri oi gaituelako, baita ere grazia onetan iraun ereiten digulako. Perseberantziako grazia da borondatezko doe bat Jangoikoagandik etorri biar zakuna, (esaten digu Trentoko Konzilio santoak), eta guk inondik ere ezin genzakena. Zeruko doe santoak billatzen debenak egiaz iritxiten due, eta egia izanik grazia guztiak Mariaren eskuetati etorri ditezen pekatariakgana, egia izango da ere perseberantziako doe santoau inondik ere ezingo degula obetuago iritxi Mariaren deboziotik baño. Berak graziau eskañtzen digu, konfianzaz eskatzen badogu. Graziazko bizitzan perseberatzeko biar degu fortaleza edo sendotasun espirituala etsa(...) (...)nizitzeko, eta Mariaren bidez irabaziko degu. Zer izango litzake...?

## [SAN JUAN BAUTISTA I]

*Non surrexit maior Ioanne Baptistæ. Mt. 11, 11*

S(a)n Juan Bautistaren sermoia predikatzean ez gaitu lotu biar predikadoriak beñ baño geiagotan lotu oi gaituban bildurrak, zeñ esan ez dezagun datorkion baño geiago ez gitxiago kalte egiten diogula<sup>1</sup> gure opizio santuari. S(a)n Juan Bautistaren ganian<sup>2</sup> Jesukristok berak erakutsitzen digu munduko predikadorerik andijonenak esan al dezaken baño geiago, esanaz S(a)n Juan Bautista izan zala gizon guztian artian andiena, beragatik Santo guztien artian miragarriena. Emetik ekusten da<sup>3</sup> ere, nik esan al nezakian, ez bakarrik igaroko ez dala berak izan zuan santidadetik, baizikana baita ere allegatua ez dala, eta obetuago esateko, utsa izango dala esan al dezakedan guztia. Beragatik, sermoiau egitian nere lanak izan biar du Jesukristoren itzak esplikatzia. Ez dago Kristaorik<sup>4</sup> Jesukristo dala santidade guztien ispillu ta originala ez dakienik, noren antzera gere bizitzako pausuak eta obra guztiak ordenatu biar ditugun, baita santidaderik andiena daguala bere bizitza ta birtutiak anbat ondoren imitatu edo egitian, ta bere santidadiari ondo ez datozkiozkan okerretatik alde egitian, gaurko Santua bezela. Ez da izan Santorik Jesusen idurira<sup>5</sup> bere bizitzako obrak obetuago ordenatu zituanik S(a)n Juan Bautista baño; beragan anaiatu ziran birtute guztiak, bista lustroso batekin<sup>6</sup> argi egiten zebela mendi baten gallurrian fundaturiko erri eder batek argi egin oi duan bezela. Zerua ta Lurra, eternidadia ta denpora, Jan[goikotasuna]<sup>7</sup> ta gizontasuna Jesukristogan biltu ziran bezala, S(a)n Juanegan Jesusen kopia eder batian bezela biltu ziran inozentzia penitziarekin, eta anditasuna humildadiarekin. Au izango da nere sermoia- ren geia punto labur bitan. Abe Maria.

Kulparik ez dan tokian penitentzia egitia eskusatua izan biar lukiala esan badezakegu ere, inozentziako estaduan negar egin biarrik gizo-

<sup>1</sup> Ostean erantsita.

<sup>2</sup> Idem.

<sup>3</sup> Idem.

<sup>4</sup> Ostean zuzenduta: *Kristao* > *Kristaorik*.

<sup>5</sup> Idem: *iduri* > *idurira*.

<sup>6</sup> Geuk zuzenduta: *batekian* > *batekin*.

<sup>7</sup> Ostean aldatuta: *dibinidadia* > *Jan[goikotasuna]*.



nak ez zualako, pekaturik ez duanak damutu biarrik ez dualako, Adanegan ekusten degun bezela, zeñek ez zuan ziliziorik jantzi grazia edo justizia originala galdu artian. Ordea, izanik S(a)n Juan Bautista guztian milagro utsa eta Jesukristoren iduri bizi bat, izan zan<sup>8</sup> penitente egiazko pekatubagia: eraman zituben trabajo ta miseriak, egin<sup>9</sup> badaur gogorra-goak<sup>10</sup> antzinako padar ta basamurtorik andienetan bizitu izan ziran guziak baño. Eta obetuago ezautzeko bere penitentzia zeñ<sup>11</sup> andia izan zan, ikusi dezagun leleko bere inozentzia ta santidadia. Bere konzepzioa konte[n]platzean esan dezake[gu] graziak parte geiago izan zuala naturalezak baño, eta jai<sup>12</sup> zala ama aurrik izateko kapaz ez zan bategandik, aditzen emateko jai<sup>12</sup> zeitekiala Jesukristo ama donzella garbi bategandik. S(a)n Agustinek esaten digu Santoau izan zala Jesusen idurikoa, S(a)n Juanen konzepzio miragarriak prestatu zitzen mundutarrak beste konzepzio miragarriagoko bat siñastera. S(an)ta Isabel konzebitzeko kapaz ezana, eta Zakarias edade andikoa, biak aditzen ematen digu naturalezak baño graziak bere konzepzio[al]n parte izan zuala. Orandik ozta amaren erraietan bere gorputza formatu zan, Mariaren bizitzarekin santifikatua izan zan; orandik ezekien itzik egiten, ordea bai amaren erraietatik pozezko saltoz bere Egille ta Ongilla adoratzen<sup>13</sup>. Maria Santisima izan zan<sup>14</sup> bezela argitua Zerutiko argiz errai[el]tan zeukan Jesusen birtutez, ala Isabelek ikasten zuan Juanen graziaz aur bi aietan sartzen misterioak. Beragatik, esan dezakegu S(a)n Agustinekin S(a)n Juanen jai[ol]tzan milagro asko ta andiak egin zitubela, bada, ez bakarrik S(an)ta Isabel konzebitzeko kapaz ez zana onetarako graziaz abilitatu zuan seme santo bat izateko; baita ere santidadian Angeruakin berdin izateko, gizonen<sup>15</sup> artian onena izateko, Aita Eternoaren Profeta izateko, Seme Jangoikoaren prekursore ta bere bidiak irikitzeko, Espiritu Santoren Tenplo, Juduen Maisu, Jentillen Predikadore, eta guztia batian esatien, graziako legeren lazo eta korapilloa izateko.

Eta gloria<sup>16</sup> andia iza[n] bazan San Juanentzat Santu jaiotzia, duda gabe andiagoa bizitza guztian izatia, sekulan kulparik txikien bat egin bage bizi izatia. Ez dago gauza delikaduagorik inozentzia baño; pekatu-

---

<sup>8</sup> Ostean erantsita.

<sup>9</sup> Idem.

<sup>10</sup> Geuk zuzenduta: *gogorrakgoak* > *gogorrangoak*.

<sup>11</sup> Ostean erantsita.

<sup>12</sup> Ostean zuzenduta: *jai* > *jai*.

<sup>13</sup> Ostean erantsita: *adoratzen* > *bere Egille eta Ongilla adoratzen*.

<sup>14</sup> Idem.

<sup>15</sup> Ostean zuzenduta: *gizon* > *gizonen*.

<sup>16</sup> Ostean erantsita.

rik txikien bat asko da edertasun kendurik illuntzeko. Garbitu ditzakegu pekatuen mantxak kontrizio ta pekatuen penitentzia egiazko batetik, biltu gitzatezke Jangoikoagana desgraziaz apartatu bagera, baita atera ditzakegu ere gere pekatutik Jangoiko maitiago izateko bidiak. Ordea, inozentia ta donzellatasuna dira birtute bi atzera irabazi ezin ditzakegunak. Orregatikan, anbeste delikade[za]tasunen erdian S(a)n Juanek gorde zuan bere bizi guztian. Nai izanik Zeruak egin santidadeko milagro bat, apartatu zuan mundotik eta eraman zuan desiertoa, emen peligrue-tatik iges eginik gorde zezan bakardade artan birtute inozentziakoa, penitentiakorekin anaijatzen zuala. Anbestekoa izan zan Bautistaren santidadia ezik, ez zuan sekula bizitza guztian pekaturik txikien bat ere izan, ez da Kristaorik onenak libre egon ez oi di[r]jani[k]. Sekulan [ez zuan] pekaturik txikien bat egin bere janian, man[ten]tzen zala desiertoan billatu oi zituben langostakin; ez jantzian, zerren bere bizitzako jantzia beti izan zan zilizio bat; ez-da ere itzetan, beti bizi izan zalako desiertoan, ez zuan iriki mingañik pekatariak konbertizeko bazik. Izanik añ santu pentsamentuetan, garbia itzetan, justoa obra guzietan, esan ezin dezakegu orregatik izan bazan garbiagoa peni[ten]tiagoa baño. Bere gurasoen etxia [itxi] zuan, ez anbeste Herodesen persekuziotik iges egitiagatik, eta bai geiago bizitza penitentiagoa egitiagatik. Bere kunatik izan zan penitentia; txit denpora gitxian artu zuan amaren bulerra, ume<sup>17</sup> izatiari itxi baño lenago sartu zan desiertoan. Ez zuan beste jantzirik zilizioa ba[i]zik, ez beste janaririk langostak baizik, ez eraririk ura besterik, ez beste oirik lur santua ba[i]zik, ez almuadarik arri gogorra besterik, ez beste lagunik artzak, otsoak ta leoiak ba[i]zik. Itz batian: Espiritu Santuak esaten digu agertu zala jan ez eran [bage]. *Venit Juane neque manducans neque bibens*. Esan dezakegu S(a)n Juan izan zala gizonaren naturalezaren indarra baño geiagokoa, angerua geiago gizona baño. Angeruai baño kuidado geiago ez zion eman ez jantzi ez janariari<sup>18</sup>, beti bere mantenimentua Jangoikoaren kontenplazioan gaubak ta egunak ematia Angeruak bezela. Eskritura Santuak nik baño egiau esaten digu, bada, bera predikatzer a biraldua izango dala esatian, esaten du<sup>19</sup> Angerua biralduko duela bere aurretik bidiak Mesiasi preparatze-ko. O Santo miragarria, eta nola kondenatzen dituzun munduko banidiak! Abe Maria.

<sup>17</sup> Jatorrizkoan: *bume*.

<sup>18</sup> Geuk zuzenduta: *janiria > janariari*.

<sup>19</sup> Idem: *dua > du*.

[TARTEKATUTAKO ERANSKETA<sup>20</sup>]

## SEGUNDA PARTE

Anditasuna humildadiarekin biltzia gauza añ erraza ez bada ere, ala Añgeruetan nola gizonetan ekustsen degun bezela Zeruan Angeruakin ta munduan gizonakin igaro zanetik, zeñtzubek andi ikusi ziranian soberbiak arturik galdu ziran, ala ere<sup>21</sup> Jangoikoaren Semiak guziz ederki beragan biltu zituban mendekotasuna seme ta herederoren deretxo guziakin.

Jesusek beragan egin zuana<sup>22</sup>, bere exemplo ta irudira gere Santuak egin zuan, onela erakutsitzen zigula ez dala posible ez dan gauza, anditasuna humildadiarekin batera toki batian egotia. Ez da izan munduan gizon andiagorik<sup>23</sup> ez humillagorik Juan Bautista izan zan baño. Bere anditasunak ez du erakutsi biarrik, zerren argiro erakutsitzen digun Jangoikoaren Semiak bere anditasuna, erakutsi nairik *inter natos mulierum...*, emakumegandik jaioriko gizon guztia txikiagoa Juan Bautista baño. Elixako Santo guztiak Jesusen itz oietan fundatuak bere jakinduria guzia eman zuen Juan Bautistaren birtute ta santidadia erakutsitzen. Guztiak erakutsitzen digue ez dala gizon andiagorik birtute guzietan ikusi munduan S(a)n Juan Bautista baño, ez izanik Jesus eta M(ari)a S(anti)si)ma. S(a)n Pedro Krisologok ezin billaturik Lurraren ganian bere parekorik, esaten digu S(a)n Juan Bautista Angeruen parekoa izan zala, lege santo guziak osoro ezertan ere utsik egin gabe bete zitubala, bera Apostoloen otsa eta Profeta guziak ixildu zitubana. Bai, izan zan Angeruen parekoa, izan zalako gizon guztiak baño andiagoa; beragan bete zan Legiak agintzen zuan guzia, berak eman zigulako lege onek eskeñtzen ziguna; eta izan zan Apostoluen otsa edo boza, oiek bere predikazioa fundatu zeben S(a)n Juanen predikazioaren santidade eta autoridadian, Ebangelistak beren ebanjelioak bere esanian. Beragan isildu ziran Profeta guziak, berak bakarrik esan zualako bestiak esan zeben eta esan al zeikien guzia, zerren erakatsirik munduari Jesukristo Zeruak gizonai eskañiko Libertadoria, bete ziran guziak, ordu artara artian esanak guziak.

<sup>20</sup> Gorputzaren erdian, 2. eta 3. orrialdeen artean, tartekatutako orriak.

<sup>21</sup> Ostean erantsita.

<sup>22</sup> Ostean aldatuta: *Jesusek egin zuana > Au berau S(a)n Juanek egin zuan > Jesusek beragan egin zuana.*

<sup>23</sup> Ostean ezabatuta: *gizon andiagorik izango bere ez da > gizon andiagorik.*

S(a)n Agustin orandik aurreragoz igaroten da S(a)n Pedro Krisologo baño, ordea luzatu ez eitiagatik, utzitzen ditut bere esanak.

Munduak anditzat daukan guztia ez da besterik, argi falso ta engañagarria besterik; beragatik, gizonak egin oi dituben pensamentuak munduko gauzen ganian ez dirade zierto ta egiazkoak. Bakarrik Jangoikoa da gauzak merezi duen bezela estimatzen dakiena. Beragatik, ezin obetuago Eskritura Santuak<sup>24</sup> erakutsi zezakian S(a)n Juanen<sup>25</sup> meritua, Jangoikoen begietan andia izan zala esanagaz baño, zerren esatian Jangoikoak andia dala gauza bat, beste guztiak aren konparazioan txikiak zirala dan esatia. Bada, Jangoikoen begietan munduko gauzarik andienak ondar garau bat apenas dira, eta Berak andia dala esaten duana da benetan andia. Eta zer prueba andiagorik S(a)n Juanen anditasunerako, zeñen<sup>26</sup> aurrian Zeru ta Lurreko anditasuna utsa besterik ez dan? Zer garbiagorik izan leiteke, noren begiak Angeru ta izarretan mantxak billatzen dituben? Eta egiaz, zer gizon andiagorik, jaijo baño lenago arrazoez argitua izan zana baño? Gaztetako umekerietatik<sup>27</sup> libre izan zana baño? Itz egiten jakin zuan baño lenago profetizatu zuana baño? Eta Jesusen idurira amaren erraietan gizon perfekto izan zana baño?

Ordea, gizonen begietan S(a)n Juan Bautista añ andia izan ere, alaxen izan ere guztien artian humillena. Iñoz ere humildadiak ez du peli-gro andiagorik, anditasun ta gloriarekin<sup>28</sup> bilturik peliatzen dagoanian baño. Au da bere etsairik andiena; beragatik milagroz bezela bentzitzen du, iñoz bentzitzen badu. Añ da enkantu andia munduko gloria eta alako moduan apañdurik prestatzen da ezik, aurrian ez danian deseaten ezpada ere, presente dagoanian ozta-ozta posible izaten da bentzitzia; munduko gloria andiak konbidatzen gaitubengan, sendotasun andia bat eta aparteko grazia bat bere lazuan ez erortzeko, bere edertasunen enkantoz engañatua ez izateko. Leleko, angeruak ikusi zuan ta bere amodioz engañaturik itsutu zan. Gizonak ikusi zuan Lurrian, Adanek Paradisuban, eta esan zionian etsaiak izango zala Jangoiko beste, engañatu zan. *Eritis sicut Dii*. Añ gatx andia sartu zuan gure gurasoetan ezik, bere ondorengo guztiak min artzen degu orandik, eta miseriaz betiak bagera bere semiok ere, apenas da guzien artian bat Adan bezela Jangoiko nai izan ez duanik.

<sup>24</sup> Osteen aldatuta: *Jangoikoak > Eskritura Santuak*.

<sup>25</sup> Osteen zuzenduta: *S(a)n Juan > S(a)n Juanen*.

<sup>26</sup> Osteen aldatuta: *noren > zeñen*.

<sup>27</sup> Ikus 17. oharra.

<sup>28</sup> Osteen erantsita: *anditasunarekin > anditasun ta gloriarekin*.

Orde[a]<sup>29</sup>, S(a)n Juan Bautista gorde zan desprezios begiraturik munduko gloriari. Sekulan ez zuan artu bere dignidade ta santidaderen laudoriorik, geiago humillatzeko zerbitu ez zionik. Munduak honratzen bazuan pekatariak bere oñetan belanbikoturik, humillatzen da esanaz ez zala bera ezer. Bere ba[ultismoa zelebratzen badue, esaten die urrian dala andiagoa, berea urrezko utsa zala, eta beren artian zeguala suzko batioarekin bataiatuko zuana. Jerusalendarrak diputazio bat zeñ jakiteko bialtzen badebe, bakarrik desierto artako ots uts bat besterik ez dala esaten die. Bere santidadiaz itsuturik mundua[k] Mesias artu ta Judutarrak erregetzat jaso nai badebe, aserre santo bateaz despre[zialtzen du. Ezin tentazio andiagok gerra egin ziezakian Juan Bautistaren humildadeari; ordea, ondo goguan gordeta zeukan Santo onek zeñ kalte andiak egin zituben soberbiak Zeruan Luziferrerekin, baita Lurrian Adan gure leleko aitarekin. Beragatik, anbeste santi[da]dian Jangoikoak egina izanagatik bildurtzen da, ta galdua izan zeitekialako tentazioz, begiratzen dio desprezios eta aserre santoz munduko anditasun guziaz. O Santo...!

#### [AMAIERAKO ERANSKETA]

Eta nondik uste dezube obetuago erakutsi dezakegula bere penitentzia bere santidadetik baño? Ez da ikusten Santu onetan milagoro ez dan gauzarik. Begiratu nai badegu bere konz[e]pziara, ikusiko degu emen parte geiago euki zuala graziak naturalezak baño; batetik, sortua izan zalako bere ama Santa Isabel aurrik izateko kapaz izan ez zana gandik; bestetik, bere izatia artu zualako Zakarias edadian aurretua izan zana gandik. Orandik ozta sortua izan, eta orra non Zerua santifikatu zuan Zeruko Erregiñak bere erraieran zeukan Jangoiko gizon eginare(...) zitarekin, aur biak...

---

<sup>29</sup> Idem.

**VARIAS IDEAS PARA ROGATIVAS EN TIEMPO DE AFLICCIÓN  
U OTRAS QUE PUEDEN PRESENTARSE**

Ez dago euririk. Erriak guztiak negar egiten dabe premiña onetan, eta zergaitik ez dogu euririk? Jaunaren solo egiazko gu izanik, bere erent[z]ia izanik, Berak digun amodioa pekatuen bidez gorrotora biortu dogulako, bere Lege Santua ausi dogulako. Bere esana da, bere Lege Santua gordetan badogu: *Dabo vobis pluvias temporibus suis*. Gure pekatuak dira atzeratzen diguenak. Arako bere odolagaz busti genduzenak ezin ukatu leikegu Zeruko euri[ri]k. Baña gure arimako soloa Jangoikoenak bakarrik izan biar leukena, ostu deutsagu bere Jaube danari eta saldu Diabruari. Ezin giñaike pekatuen gagozan artian Jangoikoenak izan<sup>1</sup>, eta ez beriak izanik, zer dago zer miraritu gugaz aztutiagaz? Bakotxak berak bere soloen arduria artzen dau. Zure ortuan urak palta egiten deutsunian, ez zara joaten auzokoari urik egitera, zeuriari bakarrik begiratzen deutsazu. Ez Jangoikoenak; urten dogu bere solo eta erentziatik, eta ez dago zer miraritu bere soloak ez dituenai begiratu ez eitiagaz. Biortu gaitian bere solo izatera eta orduan...

Gure kulpak diriala dirausku Dabidek: *Posuit flumina in desertum*. Au Jeremiasek: *Herba sicabitur propter maliciam habitantium*. Betuliako uriko iturriari kendu eutsazan H[o]lofernes[ek] kainuak nondik joian ura, eta estutu eban uriau egarriaz. Ez eban iturria kendu, ezpada urratu kañuak; ez da Jaunaren iturria agortu, ezpada kañuak nondik etorri biar jakun ura. Bere Mandamentuak dira kañuak, urratu ditugu, eta Jangoikoen iturriko presako urak galdu ditugu. Guazan Mandamentuen kañeria santua ondo ipinitera, eta etorriko jakuz urak.

Nok urratu zituban Betuliako urak? Holofernes desonestuak. Nok gosia ekarri Seme Galdu edo Prodiguari? Bere ondasunak luxurietan gastatziak. Bago inguru onetan Holofernes desonesturik? Bago Seme Galdu Prodigurik? Bago komunikazino edo tratu geztorik? Bago eskandalurik? One[ek] dira Jangoikoen iturriko kañuak urratu ditubenak. Orre[ek] dira kastigu bagarik erriak gelditu ez ditezan Jangoikoa oblige-

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Geuk zuzenduta: *gariala* > *izan*.

tan dabenak.

Pekatu egin eban Dabidek Uriasegaz, pekatu egin eban bere seme Absalonek amar emakumegaz. Dabidek izaten dau miserikordia; eta irudi baten, zarra zalako esan giñaike Dabiden pekatua andiago zala, Absalon oraindio zaldun gaztenena baño. Zegatik Absalon galdu ta Dabid ez? Dabidek pekatu egin beben bere, ixillian eta eskandalurik emon bage egin ebelako. Baña Absalonek eguzki-argitan guztiak ekusela, eskandalaria emoten ebala. Bago Absalon eskandalosorik? Bide orretan kale ta plaza one[elk] dira Jangoikoari euria kendu ereiten deutesnak.

Ez ditu entzungo Jangoikoak gure oraziñoak, ez ditugulako entzun gure pobriaren negarrak. Emongizue eta nik emongo deutesuet, dino Jangoikoak. Bata bestiarekin dabiltzen anaiak dira. Jauna, ez dogu zer emonik<sup>2</sup>. Billatuten dozu orrako zurekin eskandaluan bizi danentzako; badozu jokorako, badozu tabernarako, badozu tertulian onenbeste egunian ardura bage gastetako, badozu zaldietako, txakurrentzako, badozu banidaderako, komedierako, zezenetarako, erromerian pekatuen gastetako, eta bakarrik falta pobrientzako. Eta zer dira one[elk] guztiok, ezpada Jangoikoen iturri santuko<sup>3</sup> kañeriak urraturik, erria egarria<sup>4</sup> eta gosia, peste eta beste askora obligetia? Exemplo. S(a)n Gregoriok esaten deusku bein batian pobre batek marinel batzue[il] eskatu eutsela limosnia, eta erantzunik arriak baño ez eukezala ontzian, esan eutseen pobre onek: Ori alan bada, dozuen guztia arri biortu dakizuela. Eta esan da egin: aragia, ogia eta beste gauza guztiak arri biortu jakezan.

Jakintsua izan zan arako Ninibeko erregea, arako berrogei eguneko espazioa baño besterik emon ez eutsenian beragana biortuteko, ag[il]ndutean ez bakarrik zar ta gazte gizonak, baita bere asto, zaldi, txakur eta beste animaliai iru egunian ez jaten emoteko esatian. Eta zegatik zaldi, txakurrak jan bage egon biar dabe, gizonak pekatu eginik? Barau egin begie, diño errege jakintsuak, bada, ez dirudi ondo gizonentzako ezer ez dagoanian, orre[elk] ase ta beterik ibilli deitian. Ez dirudi ondo, pekataria, zure auzoan pobria pad[lez]ietan dagoanian, zure txakur[ur]rentzako eukitia, eta ari, zure anaie pobreari, orrelan itxitia. Kendu banidadiak dezenziaren atxakiaz edertuten diranak, baña Jangoikoen begietan pekatu diranak, biortu gaitian Jangoikoagana, eta biralduko deusku euria.

Baña Jauna, inuzenteren amoriaren baño ezpada bere, ez deusku biralduko euria? Zetan one[elk] ofendidu dabe Jangoikoa? Bere miseri-

<sup>2</sup> Idem: *eremonik* > *emonik*.

<sup>3</sup> Idem: *santuako* > *santuko*.

<sup>4</sup> Idem: *egarria erria* > *erria egarria*.

kordia gaitik, ez bestegaitik. Zegatik biraldu eban Jangoikoak Ezekiel Santua kautibo Babiloniarra? Etzan izan guztiz santua? Errurik euki eban? Ez, baña orregatik bere, emen bere miseriak erakutsi eban. Gure dau Ezekiel justuak padezi dagien, ikusirik kulpa bage padezietan dabela, justuonen nekeak errukiturik Jangoikoa andik ateratera obliga daien, eta beragaz batera bere amorez pekatariak bere urten dagien. Au da justuak inozentiai padezitu ereinagaz Jangoikoak gure dabena. Au<sup>5</sup> da Joel Profeta Santuak Israelen egin ebena: estura andian egoan erriau, deituten ditu juezak kontsejura, eta dirautse errogatiba bat egin biar dala, eta onetarako guztiak, ama guztiak bullerreko umetxuginokoagaz<sup>6</sup> etorri ditezela. Umetxuak<sup>7</sup> errogatibara? Bai, euren negarrak obligadu dagien Jangoikoa miseriak artutera. Ez bakarrik deiak, baita askoz geiago negarrak obligetan dabe Jangoikoa erruki artzera. S(a)n Pedrok ez eutsen eskatu bere Maisuari pekatuen parkazinerik ixillik, negar egin eban, eta parkatu eutsan; Madaleniak negar egin eban Jesusen oñetan, eta beste eskari bagarik parkatu eutsan. Guk eskari eta negarragaz, umetxuak<sup>8</sup> beren suspirioak obligaduko dogu Jangoikoa errukituta.

Baña orandio bere geiago biar dogu egin: gure pekatuen negarrak<sup>9</sup> kostunbre geztoai itxiteko borondate bizikoak izan biar dau. Askok eskatuten deutso Jangoikoari euria, baña zelan? Biotz pekatuzkoagaz. Eta onek ez dau obligaduko Jang(oiko)a; itxi dagiguzan pekatuak eta onetarako bidiak, eta errukitu dira Jaunare[n] erraiak. Desiertu[ko] atxak Moisesen zijorragaz ukaturik atera zituen urak, iturri kaudaltsuak; suarria izan ur one[elk] emon zituana, baña arako kaltzaiduagaz sua ateraten ebenak zijorrakin urak emoten ditu, entendidu dagigun gure pekatuen negarrezko zijorragaz uku[tu]ten badeutsagu, urak emongo deus-kuzala.

Guztiok prestau gaitian gure pekatuen negarragaz, baxotxa bere obligazinoak ondo kunpliduagaz. Justiziakoak errietatik pekatuak kentzeko proposituagaz, sazerdotiak sakrifizio santuetara biotz kristalezkoakaz, gurasuak umien<sup>10</sup> doktrina onagaz, umiak<sup>11</sup> obedientzia guraso eta Jangoikoari zor deutenagaz, eta onela guztiok biortu gaitazan Zeruko Aita amorosen solo egiazko egitera.

<sup>5</sup> Jatorrizkoan: *Hau*.

<sup>6</sup> Idem: *bume*.

<sup>7</sup> Ikus 6. oharra.

<sup>8</sup> Idem.

<sup>9</sup> Ostean zuzenduta: *negarragaz > negarrak*.

<sup>10</sup> Ik. 6. oh.

<sup>11</sup> Idem.



## EXORDIO

Alperrik izango da gaixoari erremedioak ipini gure izatia, lenengo ondo examinetan ez bada zetatik datorcion gatxa. Oñian arra daukanak bere doloreak kenduko baditu, gauza biarra izango da arra ateretia, beste erremedio guztiak alperrikoak izango dira. Alperrik nekatuko ziran Jonas Profetia barkuan zeroen marinelak, ezautu ez balebe barruen egotan Profetia zala tormenta artan ipini zituzana. Ez nator, Kristinau[alk], zuben kuriosidadeari gustu emon gurarik, eta bai zetan dagoan gure anbeste miseriaren sustraia erakutsi gurarik. Gaur anbeste tormentan sartu [ta] padezietan dagoan ontzia da probinzia N. guztia; onenak dira gosiak, onenak enfermedaderen tenpestadiak, onenak euri falta, onenak guztiak.

Onenak umen<sup>12</sup> negarrak, zarren suspirioak. Tenpestada guztiak artu gaitu. Zer da [a]u? Ontzia tormentak artu. Zek ekarri deusku tormenta au? Isaias Santuak esango deusku: *Yniquitates nostrae cuasi ventus abstulerunt nos*; gure pekatuak, gure biotzetik urteniko aixe geztoak ipini gaitu tormenta onetan. Pekatuak dira Jangoikoa gu kastigetara obligetan dabenak. Guk pekatu egin dogu, eta aspaldian beragana biortu gaitezaz pazienziak itxodonik, ikusi dabenian aurrerako gogoak ditugula eta pagetako gogorik ez dogula, Berak bidera urteiten deusku. O Jangoikoa! Abisurik asko biraldu deuskuzu pagau dagiguzula. Pazienziak denpora luzian itxon<sup>13</sup> deuskuzu; errazoia zan zuk guri noizbait pagarazo gura izatia. Pagadore txarrak izan gara, Jauna, baña arren, guztiori aserratu etzaite. Eta zeñ pekatu dira onetara obligetan dabenak? Geienak biarbada esango dabe errietako gobernadorianak, guztiak juezen juez eginik, bere pekatuen errua proximuari ezarririk. Egia da askotan eguzkia eklipsekaz zerbait ilundurik egon doiala, baña au ilunduten dabena, izaten da arako irargia bitartian gerixiak eginik, bere argitasunak kentzen deusazana. Ez naz ni sartuko kastigu one[e]k gobernadoreren pekatuak diriala esaten; eta alakorik balitz bere, ondo dakit erriko pekatuakgaitik Jangoikoak biralduen dituala juez gezto eta gobernadoriak onela kastigetako, Isaias Santuen bidez esaten digun legez Jangoikoak. *Qui regnare facit hominem hipocritam propter peccata Populi*. Job 30<sup>14</sup>.

Eta gure gobernadoriak santuak balire bere errazoia dana legez izatia, Jangoiko erratueraziko deutse gure pekatuen kastigurako. Alan ikus-

<sup>12</sup> Idem.

<sup>13</sup> Alternantzia: *itxodon* / *itxon*.

<sup>14</sup> Geuk zuzenduta: *Isaie 10* > *Job 30*.

ten dogu Jangoikoen Libruetan Josias Erregia izan santua, bere erreñuen Jangoikoen hondra ta bildur santua egon zeitian biar asko egin ebena, idolatriak, Diabruen sakrifizio eta altarak bota zituena. Baña orregaitik bere, Egiptoko Erregiari bere erreinutik Asirioen kontra igaroten itxi gura ezik, urten exerzituagaz aren kontra eta eridurik il zan. Eta zergatik uste dozue? Oraindik bere erria etzan pekatu egitetik atzeratu, eta aren kastigurako egiten dau.

Gere pekatuakgaitik biraldurik ministro geztoak kastigetari gaitu<sup>15</sup>. Bada, Jauna, ez ditu oneek Errege[k] biralduten? Ez, ez dau gure Erregek pobriak azpiratu ditezan justiziako legiak ausirik enpeñuari begiratu dakion. Auxi dogu Jangoikoen Legea eta alan, orregaitik biralduten deuskuz ministro edo justizia geztoak, guk Jangoikoari egin deusaguna guri pagaraziteko...

[AMAIERAKO ERANSKETA]

*Pluviam voluntariam segregabis Deus hereditati tuæ.* Ps. 67, 10

Zeruak metalezko bihurturik, Lurra arriak legez gogortu ta idikirik eroan biar ditue gaur gure atenziñoak. Au da, Krist(aua)k, ikusten doguna. Baña, zer esan gure deuskue oneek? Erakutsi ereñ zelan izan biar dogun eskerronekoak, ezauturik gure esker geztoen sarirako biralduten deuskuzala. Eskuak betian biralduten deuskunian, ez bakarrik kontentuz izaten ezker, baita bere lanak alperrik egiten dituguzala esan oi dogu ez gitxik kudiziaz beterik; au da nekazaliak arto-gariz kamari[alk] beterik daukazanian esan oi dabena, eta beste jornaleruak, eskerrak emon biarrian. Ardura bage pekatu andiagotan sarturik biziten da. Ez dago inor nok eskerrak emon dagiozan Jangoikoari, naiko beste eta geiago emoten deuskunian. Onenbestegaz aserraturik gizonen kontra, diño orain Jangoikoak: Falta begio gizonari ogia, ea onekin ikasi al badau eskerro-beagokoa izatera.

Ez uste izan euria falta dala Jangoikoen ontasunen aldetik, ezpada ez garialako gu bere soloa, bere Mandamentu Santuak eten ditugulako. Urten daigun pekatuko bidetik, biortu gaitezana bere solo egiazko izatera, eta Jangoikoak aginduko deutse Zeruai euria egiteko. Baña, zetan emoten dogu denporea?... Eta au beste gauzarik gure aldetik ez arturik, zer egin aleikegu? Bere mesedeak, bere kastiguak, guztiak burlatuten

<sup>15</sup> Osteen zuzenduta: *Ez gutxitan ministro geztoakgaitik biralduten ditu kastiguak > Gere pekatuakgaitik biraldurik ministro geztoak kastigetari gaitu.*

ditugu. Biortu gaitezan guztiok, eta gu sazerdotiok lenengo... Baña, zer da guk egiten doguna? Komedia... Biortu gaitezan Jangoikoagana, eta ezta faltako Daniel bat estura onetatik aterako gaituana. Arako Jangoiko Zerutiko ogiagaz bere erria mantenu ebena, arako atx gorietatik ura ateraten dakienak aterako gaitu; arako Ezekias Erregiaren denporan Jerusalem Asirioen eskuetatik librau ebena Dabid Santuen amodioagati[k] librauko gaitu.

Bedeinkatu dagigun Jangoikoa, ez bakarrik aola[al]gaz, baita biotz guztiagaz. Ofrezidu dagioguzan, ez Kainek legez Jangoikoak aitzekotzat artuko ez dituzan sakrifizioak, ez arako pekatuen bedarrak, ezpada Abel Santuak legez gure biotzeko sentimentuak, pekatuzko bedar bage, gure biotzaren sakrifizioak ofrezietan deusaguzala.

Eta ez bakarrik one[e]k opa izan, baita bere eskerronekoak aurrerantzian izan biar dogu. Baña, zer egiten dogu mesedea arturik geiago eske?

## [SAN JUAN BAUTISTA II]

Miragarria da Jangoikoak kriptura guztiakaz dauken arduria bakotxari emoteko arako medioak, eurekaz baliaurik arkantzau dagijen arako fin santua zeñetarako kriadu zituben<sup>1</sup>. Eta kriptura guztiai anbeste arduragaz Jangoikoren probidenziak emon beutsezan arako medioak euren finek arkantzetako biar zitubenak, orregatik bere, bere jakituria, ontasun<sup>2</sup> ta poderioak aparteko ardura bategaz argi egiten dabe, emoten gizonari bide, medio eta graziak arkantzetako arako fin santua zeñetarako egin eban gizona. Guztiak egin zituben bere eskubide ta poderioagaz bere gloriaren anditasuna erakutsiteko, guztiai erakutsi eutsezan medioak euren finek arkantzetako; orregaitik, gizonak altzau zituban euren fin ta gloria geiagorako Jangoikoagaz batera bere Glorian zorionez beterik betiko izateko, emoten eutsezala grazia ta bidiak au arkantzetako biar zitubenak.

Ikustia Jangoikoa añ arduratsua añ zorion andirako biar dituguzan bide ta graziak emoten, eta onetara bidiak errazago izan deiezan bere jakituria, poderio ta beste ganekoak enpleetan, benetan ontasun neurri-bagia beria guretzako. Asko ta andiak dira Jangoikoak guri emoten deuskuzan onetarako graziak, baña orregaitik bere, andienak dire Santuen bizitza, exenplo ta birtutiak. Onetarako gure dau Elexa Ama Santiak leidu dagiguzan Santuen bizi[tzak] zelebrau dagiguzan euren fiestak, eta deboziñoz beroturik biotzak jarraitu daiguzan eurek Zerura erakutsiten deuskuzan bidiak. Eta au ez besterik da erri noble onek [be]re Patroi S(a)n Juan Bautistagan egin biar dabena. Zu[k] bere bizitza imitau; bigarrego, zu[k] berak gorrotau zitubanatik iges egin.

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Ostein zuzendutako esaldia: *Miragarria da Jangoikoak kripturakaz dauken arduria, emoten deutseta bakotxari berak biar dituen finak arkantzeta[ko]... > Miragarria da Jangoikoak kriptura guztiakaz dauken arduria bakotxari emoteko arako medioak (< ipiniten deutsezala bakotxari arako medioak), eurekaz baliaurik arkantzau dagijen arako fin santua zeñetarako kriadu zituben.*

<sup>2</sup> Ostein aldatuta: *borondate > ontasun.*

## [PEKATUEN PISUA]

Pekatuaren anditasuna, pekatu oni biar deutsalgun bildurra, Jangoikoaren gureganako amudioa eta gure beraganako eskergeztokeria inondi bere ez da obetuago ezaututen, Jangoikoaren Seme Jesus gure amodioz errerik Kurtze baten ilda ikustean baño. Eta benetan, nor arrituko ez da entzunagaz gure pekatuak izan ziriala abere uzuak Jesusi bizitzia kendu eutsenak? Eta zelako kaltiak ez dira pekatu onek guri ekarri euskuzanak? Guztiok Adanegan il giñiala pekatu egin ebenian esaten deusku S(a)n Pablok. Eta ez dauke neurri[ri]k pekatu onek guri ekarri euskuzan kaltiak. Berak itxi euskuzan Zeruko atiak, idigi Infernukoak, eta aserratu ereiñik Jangoikoagaz, betiko eriotzarako kondenadu genduzan. Añ argal, kaden ta erkin gelditu zan gizona, anbestekoak ipiñi eutsezan zauriak eze, ez<sup>1</sup> egoan zaurione[elk] osatuko zituban kriaturarik Zerulurraren gañian.

Etorri zan Moises Santua Jangoikoaren Legiagaz, eta legiau añ santu eta Jangoikoagandik artuba izan bazan bere, ez eukan pekatubak gizonari ipiñi eutsan zauriak osatuteko indarririk. Biraldu eban Aaron Sazerdotia sakripizioakaz, baño onek bere ez eukan onenbesterañoko indarririk. Alperrik orduko sakripizio guztiak, Añgeru ta Santu guztien merezimentuak bat egingo ziran, guztiak gitxi zirian pekatuak gizonari ipiñiko zauriak osatuteko, diño Apostoluak. One[elk] guztiok eta geiagogaz bere pekatuen kateapian egotia eukan, bada, guztiak gitxi zirian gizonari pekatuak ipiñiko kateak austeko.

Bake andi baten bere katearen mendian gendukezan. A gizon gaxoa, zeñ negargarria zan zure estadia! Izango ete da zu estadu negargarritzko orretatik libre ipiñiko zaituenik, edo kate orre[elk] urratuko deutsalzanik?

Ikusten Jangoikoak gizona zeñ peliburuan egoan, gure eban libre ipiñi, bere seme ta Zeruko herederu egin, baño ez egoan Adanen seme guztien artian pekatuen bidez gizonak Jangoikoari eutsan zorra nok pagadu. Ebillen, esaterako moduan, nondi zorioneko egingo eben pensamentuetan, eta ikusirik alde guztietati gizonak galdu biar ebela, bere

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Ostean erantsita.

galdubiarren sentimentuz penaz beterik esaten eban bere artian: zer egin neike nik añ maite dodan gizona salbetako? Legiak ez deuko indarrik, sakripizioak asko ez dira, Patriarka ta Profetaren merezimentuak gitxi dira. Galdu biar dau nik añ maite dodan gizonak. Zer egingo dot, bada, nik añ laztan dodan gizonau galdu ez eiteko?

Zer uste dozue, gizonak, zer pentsamentu artu eikiala gizonak zorionekotuteko? Zer peliburu onetatik atera ta salbetako? O Jangoikoaren gizonaganako amodioa! Nok sekula onelakorik usteko eban! Nori gogoratu bere Jangoikoari baño! *Mitam filium meum dilectum*, diño: biralduko dot neure Seme bakarra. Baña, Jauna, zetarako biralduko asmuak artuten dozuz? Izango ete da bere gaiztakeriakgaitik Noenen denporan legez uriolaren bategaz ondatuteko, Sodoma ta Gomorra legez Zerutiko suagaz erreteko, edo gura ezin etorri leiteken kastiguren bategaz galdu-teko? Ez, neure entzula maitiak; bigunegiak dira bere erraiak orretarako, samurregia bere biotza gizona orren gogor kastigetako. Biralduko dau, bai, Jang(oikoa)k bere Semia mundura, baña ez kastigetako, ezpada zorionetuteko, Zeruko atiak idigi ta salbetako.

Eta biraldu bere, zelan uste dozue biralduen dabela? Zeruko Erregiari datorkion anditasunez beterik? Ez, ezpada gorputz argal ta aragizkoz jantzirik, gure pekatuak bere bizkarrian artu ta guztia puskatu ta zauriturik il Kurtze baten, ta gu salbetako. Erdu ardura bagarik pekatuan bizi zariana, begira emen zure pekatuen pisua.

## [SAN LUIS]

*Sicut divisiones aquarum, ita cor regis in manu Domini.* Prov. 21, 1

Munduko erregiak bakarrik gizonen eskuetan beren biotzak paratzen ditubenian, zerbait buru argiko ta borondate onekoak izanagatik, oker andiak egiteko zorian paratzen dira. Ordea, Jangoikoenetan paratzen duenian beste deseoa gabe bere gloria eta estaduen ona beste gabe, Jangoikoa izaten da beren bidiak argiturik<sup>1</sup> Zerurako pausoak txu[txen]tzen dituen. Ala egin zuan S(a)n Luisek. Bere biot[z] ta esperantzaz guziak Jangoikoagan para zituben, bere neke guziak bere gloria-ra ta estaduaren onera konsagratu; eta sakripizio oiek atsegiñegoak Jangoikoaren begitan izan zeitian, Salomonen gisa jakinduria santo bat eskatu zion erreinoa ondo gobernatzeko, eginkizun guziak ondo erabakitzeko, eta grazia au merezitu izanik, Zeru ta Lurreko zorionez bete zuan.

Ez munduko gloriak arrotu zuan, ez fortuna geztoak bajatu; fortuna onian eta txarrian, erreinuko<sup>2</sup> glorian ta presondegiko trabajuetan bere biotzeko osotasun ta anditasunik galdu ez zuan. Guzian Jangoikoaren probidenziara jarri zan, eta Berak egiten zuana ontzat emanik adoratu zuan. Ala ba, nere sermoaren geia punto labur bitan par[al]tuko dizuet. Lelekokoan esango dizuet S(a)n Luisen prudenzia sa[n]toa erreinuaren gobiernoan. Bigarrenian, bere egarri santoa Erlijio Santoa mundutik zabaldu nai izatian. Dotrinatzat, humildadia. Aurrera segitzeko grazia eskatu diozagun pararik bitarteko Ama Santisima. Abe Maria.

Ez zituban Jangoikoak egin erregiak munduan besteren buru eta agintari izateko bakarrik, baita ere munduari Jangoikoaren aginduak gorderazitzeko: erriai justizia, pobriai karidadia, okerrai kastigua, onal[i] sari ona, eta Jangoikoari gloria emanerazitzeko. Bazekian zeñ karga andia zan erreino baten gobierno, ondo gobernatzeko asko ez zala munduko prudenzia itsu. Ikusten zuan batetik gaztia ta esperenziagabia zala, eta bestetik inbidioso askok alkarrekin aditurik urratu ta galtzeko zorian zeukatela. Peligruzko estadu onetan txit pisua egin zitzaion Lu[i]si

---

<sup>1</sup> Ostean aldatuta: *zutzendurik* > *argiturik*.

<sup>2</sup> Alternantzia: *erreino* / *erreinu*.

koroa. Beragatik, saiatu zan geiago Jangoikoagan gizonen prudenzian baño erremedioa billatzen, gau ta egun eskatzen zion bere bakarrian eman zeiola ondo gobernatzeko orazi[ol]a. Eta zeñ atsegiñak izandu ziran bere orazioak Jangoikoen begietan, ondo erakutsi zeben Franzinari etorri zitzaizkon zorionak.

Ord[ela], obetuago adierazotzeko zeñ sakripizio andiak egin biar izan zituben Luisek tronora igo zanian, jakin biar da, bere aitaren paltan Luisek tronora igoteko urtiak bete bitartian, Franziaiko gizon andi askok traizioz beste Inglaterrako prinzipa askorekin aditurik, nola guztia galtzeko zorian zeukaten. Anbesterañokoa izandu zan beren arrotasun ta nabarmenkeria ezen, laster saiatu ez balitz, koroa ta erreinoa galdu biarko zituen. Baña Luisek ezauturik etsaien asmo geztoak, neke ta peligro guziak despreziaturik, ipini zan exerzitu errespetozko baten aurrian buru eginik; eta bere balorearekin desegin zituban bere etsaiak, ta<sup>3</sup> alako moduan burlatu beren esperantzak ezen, guztiak negarrez miserikordia eske ipini zituban. Eta beren pekatuak kastigo andi ta eskarmentagarri bat merezi izan bazuen ere, parkatu zien, alako moduan ezen, sekula sentimento aren señaletik geiago erakutsi ez zien. Bitoriarekin pakia emanik, aurrera geiago okerrik etorri ez zeitian bidiak artzen asi zan; eta ezauturik oker guztiak etorri zirala bere tribunaletan gizon okerrak eukitetik, lenak guztiak kendurik, gizon justoak para zituben. Bere prudenziak lan oietan alako moduan argi egin zuan ezik, guzien biotzak beraganatu zituan, bere modestiak edifikatu, bere osotasunak konfianzaz bete. Pobriakiko urrikiak<sup>4</sup> erretzen zion biotza, eta anbesteraño ezik, bere tribunalak ustez gizon justoz para bazituan ere, ezauturik pobreren arrazoe ta suplikak geienero ondo adituak izaten ez<sup>5</sup> zirala munduko andietan, eginkizun neketsuau beretzako gorde zuan. Eta beragatik, ez bakarrik bere palazioko atiak zeuden beti irikiak, baita ere pasio publikoetan gustoz artzen zituban beren memorialak, eta beren gauzai epakiak emanik gustoz biraltzen zituben, guztien Aita eta anaia eginik.

Bere karidadiak, esaterako, ez zuan neurrik; ordea, non geiago argi egin zuan bir[tu]te onek, izan zan arako Franziaiko erririk geienak gose ta peste ilkarriz bete ziranian. Emen zan ikustea errege santoau bere interes teiuzko<sup>6</sup> kutzak irikitzen, bere alaja prezioso guztiak saltzen, erreinuko aberats ta gizon andiak limosna egitera exortatzen. Eta ikusirik oiek guztiak asko ez zirala pobre ta gaxoren premiak erremediatze-

<sup>3</sup> Ostein erantsita.

<sup>4</sup> Ostein aldatuta: *karidadiak* > *urrikiak*.

<sup>5</sup> Ostein erantsita.

<sup>6</sup> Zalantzazkoa.



ko, negarrari eman zion; eta bere humildadiak idurierazirik kastigo guzi aiek bere kulpakgatik zirala, beste denpora batean Dabidek bezela esaten zion Jangoikoari: Ez, Jauna, erriau kastigatu, ez du erriak kulparik, neronenak dira guziak. Onela negarrean penitentzia egin zuan.

O Santo miragarri, eta nola zure bizitza santoak lotsatzen duan gure bizitza zabarra! Zure pobriakiko karidadiak akusatu anbeste kudizioso, pobriai limosnarik egin ezaz gañera, beren premiatik baliatzen diranak beren orola zurrapatzeko, justo ez diran tratoetan irabaziak egin ta aberastseko. Badira, bai, sobra ere zenbait onelako errietan, eta iñoz baño geiago obserbatzen ditugu inguro oietako<sup>7</sup> errietan. Esanzadazu zuk, premia baten ezer zerbait lagun proximoari prestatzeagatik, konturako ogei ezkutoko bategatik, illako pagatu artian bost pezetako bat, baita ere bi pagatzera obligatzen dituzuna, anega bat arto ematen baldin badiozu, beste anbeste gari ta geiagora obligatzen dezuna, norako ustiak dituzu? Zer izango da zure pobreren orolezko diruakin? Bakit zer izango dan, esana dago antxinatik: zure orolezko interesak brasa ta txingar Infernuko itzuliko zaizkizu.

Ez bakarrik gorrotu izandu zion kudiziari Luisek, baita ere moda ta banidadiai, etxiak pobretu, eskandaluak zabaldu ta animak Infernura-tzen dituenari. S(a)n Luis dezentiago jantzitzen zenbait zuetatiko baño: ura erregia, zubeak pobriak; ura interes andien jabia, zubeak tranpaz ta zorrez betiak. Ura izanagatik erregia, goixian goixago jaikitzen ta prestatu Terzeroko komunioetarako; zubeak aren parian utsak, konbenientziaz oian egon nai dezube eta galdu komunioak, ez artu nai ere Terzera Ordenako opizi[ol]ak jaiki nai ez eitiagatik. Ura Terzeroa, zuek ere bai izenian, ez ordea izatian. Onela, San Luisek bizitza santo ta prudente-akin gobernatzeko zuala erreinua, utzi zizkigun birtute guzien exenploak, zeña dan leleko puntua. Igaro gaitian bigarrenera, erakutsitera erlijioaren egarri santoa.

## SEGUNDA

Beti munduak, birtute egiazkoren akusatzaliak, birtutiari begi beltz-akin begiratu dio; orregatikan ere, ez dago birtutia baño gauza estimagarriagorik munduan. Alperrik gizon birtu[te]tsuak buru gitxikotzat ta biotz laburrekotzat eman naiko ditu. Birtutia da gizonak biotz andikoak egiten dituen, birtutia entendimentuari bere eginkizunetan azierto nobliak ematen dizkana, eta birtutia gauzarik pisuenak arinerazi ta erraztzen

<sup>7</sup> Geuk zuzenduta: *oietanko* > *oietako*.

dituena. Ala izandu zan San Luisengan egin zuana. Bere birtutiak azierto nobliak izan zituan eta eginkizunik pisuenak erraztu zituan. (\*)<sup>8</sup> Bere birtutiak bere palazioa ez bakarrik santutu zuan, baita birtu[te] aien usaia kanpora zabaldurik, munduko prinziipe askoren etxiak len banidadera jarriak zeudenak, santidadezko jardín ta lorategi izatera itzuli zituan. Bere birtutia izan zan Infernuari gerra bizi bat eginik Elixá Santari gloria aparteko bat eman ziona. Berak gorderik Elixaren aginduak, atxaki gixirenik munduko andiak utzi oi dituenak bere exenplorekin ekarri zituben kuidadotsuagoak izatera. Bera aurrerena ikusten zan meza nagosietan, bezperetan, sermoetan eta Elixak egin oi dituben prozesio, errogatiba ta beste erlijioeko obretan. Gaztetxotatik pekatuari gorroto<sup>9</sup> artu zion, alako moduan ezen, ez da izan munduan gizon bildur geiago animaliarik itzugarrienari, nonda gure Santoak pekatuari izandu zion. Beldur santoa bere ama d(o)ña Blankak ipinierazi zion, nondi ikusten dan zenbat balio duan gurasuaren umiakiko<sup>10</sup> kuidado santoak. Ama Santisimari beti bere amari bezelako debozio bat gorde zion, ta bere eginkizunetako<sup>11</sup> aziertua bere eskuetan paratzen zuan. Urteetan aurrerago igaro zanian, opizio dibinoa egunoro errezatzen<sup>12</sup> zuan. Terzera Ordenako ordenantza guziak, konfesioak, komunio Terzeroko igandetakoak, baraurrak ta beste gordekizunak egiten zituan; eta egun andietan Terzeroko abitoz janzia komulgatzen zan, baita beste eginkizun apartekorik ez bazuan, eguerdi igaro artian ibilliten zan. Zubek banidadez jantzitzen ez bazerate, ez zaudete ondo. Eta itz batian: bere debozio guziak, espirituko ferboriak, orazio[a]n artzen zituban konsuelo espiritualak erakutsitzia ez da posible sermoi labur batian.

Esan ditudan birtutiak bakarrik dira Santuak beren estadu komunean izan oi dituanak, eta gure Santoak beste ez bezela gorde zitubanak. Ordea, badaude beste birtute batzuk erregiai<sup>13</sup> bakarrik datozkienak, eta oie[k] dira Elixá erlijioaren etsaiz libratzia, erreinotik Herejuak desterratzia, ta hospitale, miserikordiazko etxiak, seminarioak fundatzia, beste onelakoak, eta oietan erakutsi zan gure Santua txit egarri andikoa. Bada, ez bakarrik hospitale, miserikordiazko etxe<sup>14</sup>, fundazio andiak egin zitu-

<sup>8</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Ekarrierazi zizkan, errazak irudierazi...*

<sup>9</sup> Alternantzia: *gorroto / gorroto*.

<sup>10</sup> Jatorrizkoan: *hume*.

<sup>11</sup> Geuk zuzenduta: *eginkizunentako > eginkizunetako*.

<sup>12</sup> Idem: *errezazetzen > errezatzen*.

<sup>13</sup> Idem: *erregiak > erregiai*.

<sup>14</sup> Idem: *zetxe > etxe*.

ban, baita ere erlijioaren etsaiak persegitu zituan, erreinoa Erejuetatik garbitu zuan, blasfemoak kastigatu, eskandaluak kendu, kurziak jaso kalbarioetan, eta zabaldu erreinutik predikadore santoak guziaz santutzeko bidea para zuan. (\*)<sup>15</sup> Ezauturik Luisek Franziaiko koroa artu zuala geiago Jangoikoren gloriarako bere kreito ta hondrarako baño, garbitu zuan erreino ura ereja, blasfemia ta beste eskandaloetatik, onetarako asiten zala gizonik andienetatik errespetoai begiratu gabe. Emendik asitu zan Elixaren onerako biar ziran bidea prestatzen, zeñ ezautu zuan zala gauza biarra erreino artan gauza onik izango bazan, noren paltak ekarri zituan okerrak ikusten zegan. Beragatik, enpeñuari baño birtute ta santidaderen informei geiago begiraturik, atera zituben erlijioiko ilunpean mundoz azturik zeuden gizon jakintsu ta santo asko, eta jasorik Elixako dignidaderik andienetara, argiturik beren birtutiakin Elix ta Estuadiari zorion andiak ekarri ziozkaten. Eta emendik Elixari ekarri ziozkan mese-deak andiak izan baziran, orandikan ere<sup>16</sup> bere biotzian gorderik zeukan erlijioaren amodiozko su guzia. Aditzen zuan zeñ gogortade andiaz nai zuan<sup>17</sup> su santua mundutik zabaldu zeitian; onen egarriak artuerazi ziozkan neke ta sakripizio andiak, biraltzen<sup>18</sup> zituala exerzitu andiak ez beñ bakarrik, baita ere bi alditan, beñ Levantera, bestian Afrikara.

Esan biar banitu emen Luisen birtutiak, bere modestia bitorian, bere pazientzia fortuna txarrian, bakarrik birtu[te] bi oiek asko izango lirake sermoe baten geirako ta geiagorako. Nork esango zuan anbeste sakripizio erlijioaren onerako egin zituban errege santo bati, emen munduan ere zorion bat emango ez ziola? O zeñ diferentia gizonen pentsamento ta prudenzia Jangoikoenagandik! Faraon Egiptokoren presondegian zeganian Jose justoa, beste kulpaa gabe bere etxeko andreakin pekatu egin nai izan ez zualako, au izango zala laster Faraonen urrengoko egin zuan bidia, munduko prudentiak ez zuen onelako biderik artuko añ dignidade altura igoteko; ordea, Jangoikoaren prudenzia bide onetatik baliatu zan Jose Egipto[ko] nagosi izatera jasoteko. Ala, S(a)n Luisen prudenzia santoa bere tropakin mundu guztitik erlijioaren gloria zabaltzeko artu zuana, Franziaiko gizon andi askogandik erreprobatua, izan zan Jangoikoen begietan atsegiña bide artatik bere pazientzia probatzeko eta Franziaiko exerzituaren lizenzia pekatuzkoa kastigatzeko. Bada, zenbat Luisek geiago Zerua obligatzen zuan bere birtutiakin, anbat eta orduan liberta-

<sup>15</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Garbiturik erreino) a iga...*

<sup>16</sup> Ostean aldatuta: *ez zan orandik itzali > orandikan ere.*

<sup>17</sup> Ostean erantsita: *Nai zuan > Aditzen zuan zeñ gogortade andiaz nai zuan.*

<sup>18</sup> Ostean aldatuta: *destinatzen > biraltzen.*

de guziaz pekatu ta eskandalorik andienian nastu zan. Zeñ diferentiak Luisen bidiak mundukoenekoetatik!

Ordea, arteko birtutiak anbestekoak izandu baziran, guztiak aztutze-ko eriotza ordukoak. Anbeste neke ta trabajo Afrikako espedizio[a]n igarorik, bere seme erederoa illik, Franziko prinzipalenak troparik geif[e]narekin galduta ikusirik, alde guzietatik angustiaz beteena zeguanian erakutsi zuan sendatasun ta konformidaderik andiena. Baita ezautu zuanian iltzera zijoala, deitu zuan bere konpeseroa; konpesio jeneral batekin prestatu zan pekatari andi bat izan balitzen bezela, pekaturik ezautu ez zuana. Artu zituban Elixako<sup>19</sup> sakramento guziak, eskerrak eman zizkan Jangoikoari, deitu onen ondoren erederutzat<sup>20</sup> izten zuan bigarren semiari, konsejoak emanik nola erreinua Jangoikoen beldurrian gobernatu biar zuan, eman zion azkenengo bendizioa. Eta au eginik eskatu zuan oitik lurrera ateratzeko, non Aita S(a)n Franziskoren gisa anima Kriadoriari eman nai izan zion, eta esaten ziola Jangoikoari "zure eskuetan entregatzen det nere anima", il zan S(a)n Luis bizitza obeago baten betiko bizitzeko. Emen ziran bere errfe]inuko aurrian zeuden gizon andi askoren negarrak, emen suspiri[ol]ak. Au da, nere Terzera Ordenakoak, S(a)n Luisen bizitza ta eriotza; jarraitu diozagun bizitza santo batetik eriotza onera pausoak, bide onetatik merezi dezagun berekin batera eternidadian bizi izatia. Amen.

#### [AMAIERAKO ERANSKETA]

(\*)<sup>21</sup> Ez dago humildadia baño birtute biarragorik Zerua irabazitze-ko. Birtuteau bage ezingo degu pa[u]so bat eman salbazioko bidean. Au da Jangoikoen begietan atsegiñena, eta pekatari andietatik Santo andiak egitera ekarri dituena. Ezauturik Jesukristok birtute onen ginduen premia, jaiot[z]latik il arterañoako pauso guziak humildaderen exenplo biziak izan baziran ere, mundutik bere Aitagaña joan zanian, birtute onen aparteko exenplo bizi bat eman zigun bere Dizipuloren oñak garbitzean; eta erakutsi zigun bere Dizipulo izango ziranen señailea zeguala humillak izatean. Eta beti humillakin naieria guziak, eta baliatu izanda berekin bere gauzarik andienetarako. Humildadeau da guri miseriak ezauerazirik zeñ utsak geran gauza on guztietarako adierazitzen diguna; eta munduak, beti arrotasunez itxutuak, esan nai izanagatik gizonak laburrak

<sup>19</sup> Osteen zuzenduta: *Eliko* > *Elixako*.

<sup>20</sup> Alternantzia: *eredero* / *erederu*.

<sup>21</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Humildadia da birtute bat, zeñ uts ta ezerezak geran on guztirako adierazorik Jangoikoa...*

egiten dituala, esango degu ez daguala gauzarik gizona geiago altxatzen duanik humildade egiazkoak [baño]. Guzien ustez munduan izan dan gizonik andienen bat S(a)n Agustin izandu zan, eta bera baño humillagorik ez da Elix Santan izan, beste Santoren humildadiari kalterik egin gabe. Humildadia da ere gure biotzak pake santoz betetzen dituena eta proximoaren amodiora garamazena. Eta guzia batean esatiarrik, humildadia gabe ez dago obra onik; baraur, orazio, naiz beste guziak utsak dira au gabe. Birtuteau izan zan gaurko Santoak izan zuana, eta beragatik etorri zan Jang(oikoare)n begitan andia izatera.

**[PEKATUAN DAGOANAREN ITXUSITASUNA]**

*Arguam te et statuum contra faciem tuam.* Ps. 49, 21

Viva Jesús

Gaur, N.A., erakutsi nai dizuet zeñ gorroto andia deutsan pel[ka]tuari, zeñ bildurgarriak bere zamak<sup>1</sup>, zeñ gauza itxusia, ezaña dan pekatuan dagoanen anima eta zeñ eder ta miragarria grazian dagoana, baten itxusitasunarekin beldurturik eta besteren edertasunarekin pozturik, pekatuari itxi ta graziara biortu zaitezten. Au obetuago egiteko ondo izango da erakutsitia Jangoikoak onen gañian Dabiden bidez esaten diguna. Jangoikoak Profeta Santo onen bidez pekatariari bere pekatuak bere aurrian ipiñirik, modu onetan kargu egiten dio: Zuk, pekata(ri)a, nere doktrinari gorroto izan diozu, nere aginduak ostikopean erabilli dituzu, lapurrak ikusten bazinduzen berakgana joaten ziñan, desonestorik bazan berakin laguntzen ziñan, zure aboa maliziaz betia mingaña engañioz inguratua iduki dezu, eta batean guzia esatiarren, zure obra guziak proximoaren eskandaloa besterik izandu ez dira. Ordea, zer? Au guzia eginda, uste zenduan ni beti ixilla egongo nintzala? Nere sufrimento ta disimuloakin zure pekatuak ontzat emango nituala? Itxo zu; jakin dezazun zeñ gorroto andia diodan zure pekatuak, nik begien aurrian bere ezañtasuna ta zure animari ekarri dizkan kaltiak paratuko dizkitut, onekin etorri zaitian pekatuak utzitera edo betiko galdutzera. Ondo ezautzen det zeñ gauza gaitxa dan au biar bezela erakutsitia. Au ondo erakutsiteko biar luke batek, posible balitz<sup>2</sup>, artu bere eskuetan anima graziaren edertasunian dagoanian eta erakutsi erria; eta andik lasterrian pekatu itzulitzen danian bere itxusitasunarekin, orduan bai, batek erakutsiko lukena batik bestera dagoan diferentzia, pekatuaren ikaraz alde eginik grazia billatzeko. Piztu dezagun fedia, ta guazen albait ondoen erakutsitzera. *Si vis Av[e] Maria.*

<sup>1</sup> Osteen erantsita: *Gaur, N.A., erakutsi nai dizuet zeñ gorroto andia deutsan pel[ka]tuari > Gaur, N.A., erakutsi nai dizuet zeñ gorroto andia deutsan pel[ka]tuari, zeñ bildurgarriak bere zamak.*

<sup>2</sup> Idem: *biar luke batek > biar luke batek, posible balitz (< balizt).*

Añ eder ta miragarria da grazian dagoanen anima ezen, Jangoikoak munduan egindako kriatura guziak bere parian ezer ez dira. Eguzkia bere argitasunarekin, Ilargia edertasunarekin, izarrak eta Zeruan ikusten dira[n] kriaturarik ederrenak ez daukate zerikusirik bere paria[n].

Ekarri gomutara munduan ikusi dituzuben gauzarik ederren guziak, finjitu edo iruditu al dituzubenak, biltu oietara jardín, soro, pradu ta mendietan dauden lora ederren edertasunak, pillatu guziak batera, eta egin edergarri guzi oekin kriaturarik miragarrien bat. Au guzia utsa da, gauza itxusia ta beltza, barreg[e]ia, grazian dagoan animaren parian. Era-kutsi zion beñ batian Jesukristoren Majestadiak S(an)ta Katalinari anima bat grazian, eta anbesteko miraritasuna izandu zan Santa onek artu zuana ezen, ikusiaz batera laster ezkutatu ez balio, ilda eroriko zan. Ez dago onekin zer miraritu, zerren anima grazian dagoanian Jangoikoaren iduri bizia dan, eta gure begiak be[re] edertasuna sufritu ezin due. Eta egiaz, zer izango da S(a)n Agustinek esaten digun edertasun ura, amatu, dese-atu ta gozatu dezakeguna, baña zer izan bestian ez erakutsi ta ezin konprendituko deguna, onetarako S(a)n Agustin, S(a)n Juan Krisostomo ta beste Elixako Santo guziak baletoz ere? Jangoikoa bere izatez añ eder ta miragarria bada, guk ezin konprenditu deza[ke]lguna, zer izango da grazian dagoan animaren edertasuna? Jangoikoaren irudi bizia. O graziaren edertasuna gizonakgandik añ gutxi estimatua!

Eta anbestekoa bada grazian dagoan animaren edertasuna, ala da ere pekatuan daganaren itxusitasuna. Eskritura Santoan egiau ikusiko degu Jangoikoak Nabukodonosor Erregiarekin egin zuan kastiguan. Dan. 4. Zeguan erregiau Jangoikoaren aserrian bere pekatu desonestoak zira[la] medio, eta nai izanik erakutsi errege oni nola ego[n] zeitekian bere anima, miserikordiazko golpe batekin erakutsi nai izan zion. Ebi-llen beñ batian askotan bezela paseatzen erregeau bere palazio ederreko galerietan, koroa inperialarekin koroaturik, bere sonian purpura edo jantzi gorri kolorezko ederrezko apandurik, guztia urria, zillarra, perleriaz estalirik, bere erreinuko gizon andien erdian; eta orra non Jangoikoak golpe batian biortzen duan animaliarik itzugarri[en]aren iduru. Bere arpegi eder ura zerdaz lauonëkoren idurira<sup>3</sup>, bekoki edo kopeta adar ikaragarrikoz, bere eskuak erpa itzugarrikoz, eta onan, animaliarik it[z]uena bezela lau onian orroaka bere lagun guziak bildurtzen zituala, erten zan mendira, non zazpi urtian belarra besterik jaten ez zuala bizi izan zan Jangoikoaren sententzia bete artian. Ikaragarria Jangoikoak Nabukorekin egin zuan kastigua. Ordea, bere itxusitasun guziak ez du

<sup>3</sup> Alternantzia: *iduru* / *iduri*.

zerikusirik pekatuak animan egiten duanen parian, bada, len Jangoikoaren iduri ederra zana, etsai biortzen du. Anbesterañokoa da ezen, moduren batian Jangoikoa bere ezin ezautu izatera etorri oi da, Adanekin ikusi zan bezela.

Adanek pekatu egin zuanian, igeska Jangoikoagandik lotsaturik zebillenian, galdetzen zion Jang(oikoa)k: Nun zera, Adan? Ondo zekien non zeguan, baña ikusirik Berak egin zuanetik añ itxusia ta ezaña, ezautzen ez bazuan bezela galdetzen zuan: Nun zera? Nonbait, ondo itsusia para biar izan zuan gure lelekoko gurasoa desobedientziako pekatuak, egin zuan Jangoikoak ezin ezautu izan zuanian. Ez da au nik egindako kriatura, ez det ekusten nik beragan ipiniko edertasunik, guzia galdurik, etsai biorturik ekusten det, esaten zuan Jangoikoak. Au egin zuan pekatuak Adanekin, ta egiten du pekatuan zaudena zurekin soberbia(re)n pek(atu)ak<sup>4</sup>. Jangoikoak Zeruan egin zuan kriaturarik ederrena Luzifer Angerua soberbiako pekatuak etsai biortu zuan bezela, ala desobedientziakokin Adan etsai biortu zuan, beste onenbeste gertatzen dala Jangoikoaren aginduau [au]sitzen dituben pekatari Adanen seme guziakin. Añ beldurgarria da pekatuak animan paratzen duan etxura, bakarrik bere ekustia asko izango litzateke besterik gabe gizonik sendoenak bizitza galtzeko. S(a)n Bernardo ta Eusebio Nierenbergekek esaten digu, ikusirik beñ batian monje bate[k] etsaia alako moduko deadarra egin zuala ezen, monasterio guzia gau erdian esnatu ta beldurtu zuala; eta izanik pekatuan dagoan Kristaoa etsaia baño itsusiagoa, beste anbeste edonor ekarri luke bizitza galtze[ra] bere ezañtasunarekin ikusiko balitz. Añ bildurgarria da ezen, ez dago munduan gizon añ biotz andikorik, bere burua laberik gorienera botako ez lukenik bera ekusi ez eitiagatik.

(\*)<sup>5</sup> Benetan gauza arrigarria Jangoikoaren aserriak pekatariari paratzen diona. Grazian bazeunde, Jangoikoaren adiskida izango ziñate, aitarik maiteenen bere semiakiko amodioz begiratuko lizuke. (Eta zer au baño zorion andiagorik? Espiritu Santuaren esatez, ditxa andia bada emen munduan adiskide<sup>6</sup> on bat, bereanez gizonen poderioa añ laburra izanagatik, zer izango da Jangoikoa adiskide eukitia, poderosoa anparatzeko, jakintsu akonsejatzeko, firme ta sendoa bere adiskidiak gordetzeko?) Ez dagoan bezela gauza bilduragarriagorik Jang(oiko)ren

<sup>4</sup> Ostean erantsita: *zurekin > zurekin soberbia(re)n pek(atu)ak*.

<sup>5</sup> Amaitu gabe daudela eta, ez ditugu eransketa hauek transkribatu: *O zeñ diferenzia grazia ta pekatu...!* [Aurrerago:] *Orduan ziñen bere adiskida, gaur etsai; ordu[an] ez zeguan zorionik zeñekin nai ez...*

<sup>6</sup> Alternantzia: *adiskida / adiskide*.



aserrian, et[a] ez dago Jangoikoren adiskidetasunarek(i)n konpara deza-kegu[nik]<sup>7</sup>. Munduko amodio guztiak, senar-emaztienak, gurasoenak u[me]lantzako<sup>8</sup>, anaia ta adiskiderik maiteenenak, ez dauke zerikusi Jangoikoaren bere adiskidazkoaz. Adiskidatasunau ez da itz utsetan gelditzen, eta bai pasatzen da obra miragarrietara. Ezpaere ikusi zer egin duan Jangoikoak bere adiskidiak anparatzeko. Zenbat milagroekin libratu bere Israelgo erria?

Itxasoko urak sikatzen ditu Egiptoarrakgandik libratzeko, Zerutik ogiakin mantenitu 40, atx legorretatik iturri ugariak ateratzen ditu, Eguzkiaren berotik libratu laño miragarritzkoz, bidia erakutsi desiertoan Zeruko argiz, Eguzkiak karrera gelditzen du beren amodioz, tronpetaren soñu utsaz erortzen dira Jerikoko murallak, entregatu etsaiak... Nork libratu zituan iru galai santoak Nabukodonosorren labe goritik<sup>9</sup>? Daniel leoi gose amurratue[ta]tik libretzen du, Eliasi Zeruak obiditzen dio, ta beste ezin kontala. Au Antxinako Legian.

Graziazkoaz orandik geiago egin du bere adiskide santoagaitik. Zer egin ez du S(a)n Fr(anzis)kogatik? Zenbat milagro S(an)to Domingo, S(a)n Bizente, S(a)n Antonio, S(a)n Fr(anzis)ko Xabier... Apostoloak al ez dirala? Zenbat pekatarik Santuen enpeñuagatik libratu dira Infernutik ta salbatu Zeruan? Au orandik geiago da. Zer izango litzateke gutzaz anbeste Santok lotuko ez balu bere aserria? (\*)<sup>10</sup>

---

<sup>7</sup> Osteen erantsitako esaldia.

<sup>8</sup> Jatorrizkoan: *bu[me]*.

<sup>9</sup> Osteen zuzenduta: *Nabukodonosorren labe goritik gordetzen ditu iru galai gaztiak > Nork libratu zituan iru galai santoak Nabukodonosorren labe goritik?*

<sup>10</sup> Amaitu gabe daudela eta, ez ditugu eransketa hauek transkribatu: *O Jangoikoa bere adiskidakiko amodioa...!* [Aurrerago:] *Jangoikoarekiko aserria Dabidek...*

## [ZUBEN ESKERGEZTOKERIA]

Emendik ikusten da ere ez dagoala geiago Jangoikoa aserraten duan gauzarik pekatuak baño<sup>1</sup>. Ezin kontala lekutan Elix A Ama Santak esaten digu munduan ikusi diren oker guztiak, gerra, erreboluzio, peste, gaixo, erriak erre, ta beste plaga ta azote guztiak, pekatuen zariak diriala, Jangoikoaren Legia ausirik bere aginduetatik erten, kostunbre santuak eten ta urratu ditugulako. S(a)n Pablok Korintoarrai erakutsitan zeñ kastigo gogorak izan ziran Juduakin<sup>2</sup> egin zituanak, esaten zien guztiak izandu zirala eskergeztokoak Jangoikoaren mesedetara izan ziralakako. Ikusirik Jangoilkoa enpeñu andikoa erri ura zorionez aberastsen, eta mesede oien eskerronekoak izan zeitian nai izanik, zenbat eta bere mesedeak andiangoak ziran, orduan geiago esker geztokoak ekusi zuanian erantzuten zioela, aserratu zitzaion eta kastigatu zuan anbat kastigo andiagorekin, zenbat ta<sup>3</sup> eskergeztokoak bere mesedetara erantzun zien edo izandu ziran. Eta aurrerago igororik, esaten die Apostoloak aiekiko kastigoak ez zirala besterik, gurekin egingo zitubanen iduri bat; zergatikan Graziatzko Legian guk artzen ditugun mesediak izanik aiek artu zitubanen asikarriak, ala izango dirala ere gurekin egingo dituben kastigoak, esker onakin erantzun biarrian, aien modura eskergeztokoak izaten bagera.

S(a)n Pablo Apostoloak Korintoarrai eta aietan guri egiau<sup>4</sup> predikatzean, ez zuan beste pensamentorik, ez baizikan ipini begien aurrian nola eskerronekoak izan biar gendun Jangoikoagandik artzen gauden mesedetara. Korintoarrai S(a)n Pablok txit maite zituben bere predikazioren graziaz Jesukristoren Lege Santora berak irabazi zitualako. Txit Kristao onak ziran, txitozko ere birtutez beteriko obra santoeta[n] bizi ziran, eta zorion guz(tia)kgaz anbeste obra santoz beterik ikusirik<sup>5</sup>,

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Ostean zuzenduta: *Ez dago pekatuak baño geago Jangoikoa aserraten duan gauzarik > Emendik ikusten da ere ez dagoala geiago Jangoikoa aserraten duan gauzarik pekatuak baño.*

<sup>2</sup> Idem: *Juakin > Juduakin.*

<sup>3</sup> Ostean erantsita.

<sup>4</sup> Ostean aldatuta: *sermoiau > egiau.*

<sup>5</sup> Ostean zuzenduta: *eta anbeste santoz beterik ikusirik > eta anbeste obra santoz beterik ikusirik > eta zorion guz(tia)kgaz anbeste obra santoz beterik ikusirik.*

humildade paltaz arrotu ta galdu ez zitezen, esaten zien: Zuben gurasoak Jangoikoak maite izan zituben, guziak Faraonen mendetik milagroz atera zituben, itxaso bildurgarrizko batetik urak legorturik, oñik busti gabe iru eguneko bidetik, beren enemigoak ondatzen zituala, salbo atera zituan bere errialdera, odoi zuri eder batekin Eguzkiaren bero geiegitik egunaz libratzen zituala eta gaubaz suzko kolumna bateaz guzien argi zuri eginik bidea erakutsitzen ziela desiertoetik. Gosez il etzeitezan intzaren gisa Zerutik ogia biraldurik, gosez egarriz ito ez zitezen desierto toko atx legorretatik urak ugari ta osasuntsuak aterarazitzen zitzela, eta beste ezin kontala milagroren indarrez gorde zituan. Orregatikan ere, guziak edo geienak kastigatu zituan desierto artan, bi ez gañekoak ziran, eta au izan zan Jang(oikoare)n kontra jaigi(...).

Beragatik, gorde zaiteze Jangoikoaren opensatik; ez arrotu, ez soberbiarik<sup>6</sup> artu zerbait maite Jangoikoak zaituztela uste izanagatik. Grazia onek bildur santoago baten ipini biar zaituzte, ikusirik añ maite zuan erria kastigaturik maitetasuneko grazian konserbatzen jakin ez zuala, eskerronekoa gorde biarran arrotu ta soberbiaz beterik opensarik andienetara<sup>7</sup> etxin zalako. Bai, beldur izan, zeñ aiek<sup>8</sup> izan zituben mesede parebagiak izan ziran bezela Graziazko Legian zubek artzen dituzubenen iduriak, ala aien eskergeztokeria eta kastiguak izan ez ditezen zuben eskergeztokeria, eta beragatik zu[rel] gañera etorri al ditekezenen kastigoren iduriak. Jangoikoen erria bide santoetatik apartatu zuan tentaziorik andiena izan zan euren lagun onetatik apartaturik lagun geztoakin biltzea. Aien<sup>9</sup> exenplo geztoak aztuerazi zizten beren Jangoikoakiko obligazioak, atzeratu zituben artian Jangoikoari egin oi zizkaten orazio ta sakripizioetatik, eta ez zebeu besterik pensatu urrezko idoloaren aurrian danzazia baixen. Emendik igaro zan desonesti[dadia]kiako pekatu rik andienetara; beragatik, aserraturik Jangoikoa antxe bertan jolaseko landan ogeita iru milla bere erri maitearrak il zituban, eta anbestekoa izandu zan bere aserrea ezen, ogeita iru milla il zituban bezela guztiak ilko zituban Fine[els] erri artako prinzipte bategatik eze, bada, prinziptean erriaren eskandaloa ikusirik aserre santo baten sarturik, Jangoikoaren kreituagatik erten zan, eta ezpatarekin pekatu publikoan zeuden[ak] atrabesatu ta bertan illik etorri zan beste ganekoai paratzera. Bildur naiz beste onenbeste jazo ez dedin gurekin, batez ere zuben erromeria ta andik etsera bidean<sup>10</sup>. Ez, arren, tentatu Jangoikoa, alde egin lagun gez-

<sup>6</sup> Geuk zuzenduta: *soberbiariak* > *soberbiarik*.

<sup>7</sup> Ostein zuzenduta: *andieneta* > *andienetara*.

<sup>8</sup> Ostein erantsita: *Zeñ aiek* > *Bai, beldur izan, zeñ aiek*.

<sup>9</sup> Idem.

<sup>10</sup> Ostein erantsitako esaldia.

toetatik, jolas pekatukoetatik, non desonestukeriak beste pekatu guztien erdian erregiña eginik arrazoe ta lotsa galdurik agintzen duan, egunero berriztaten ditubela Jangoikoaren erriarekin berriztatu edo egin zituben kastigoak, noren frutuak Españian ikusi ditugun guzia odol errekatzen duala. Desonestokeria da geien gizonak itxutzen ditubena, Jangoikoa geiago aserretzen duana, eta au da kastigua urrenen duan pekatua. (\*)<sup>11</sup>

S(a)n Pablo Apostoloak Korintoarrai esaten ziena Jesukristok berak esaten digu, eta orañdik obetuago nere ustez, Jerusalemen aurrian negar ikustean lastimaturik bere biotz santua beren pekatuakgatik, bere gañera laster etorri biar zitzaizkan kastiguak konsideratzean. Azkenengo, bere Pasio aurrian erriau ikusirik negar-malko andiak bota zituban, esaten zuala: Ai bada, Jerusalem, ezautuko bazendu zu zorioneko egin nai zaituben Jangoiko Salbatzallearen zuregañako amodioa, ez zenduzkioz atiak itxiko, eta bai ondo besoak zaiballik artuko zinduke zure Errege ta Salbatzalletzat. Baña itsuturik lengo pekatuaren gañera, zure Salbatzallia ilteko prest ikusten zaitut, eta beragatik etorri biar zaizkitzun<sup>12</sup> kastiguak zuri ondo negar erazi ta pagarazi ereingo dizkitzunak dirade. Bai, orañ erri guztien señora zarena, guztien burlagarri egitera ekarriko zaitu, zure muralla zure etsaiak alde guzietatik estuturik desegingo ditu, zure bizilagun guziak, zar-da gazte, inori ere parkatu gabe ilko ditu, tenplo santo ta beste sagradu guziaz parkatu gabe, oker guztiak zure ganera etorri zaizkitzu ni despreziatu nazulako.

Bete ziran Jerusalemaren pekatuak eta arekin bere kastiguak. Irudi bizia Jangoikoagandik apartatzen diran erriai goix edo etorri biar zaizten kastigorena; eta irudi bizia anima Jangoikoaren deietara gorturik pekatuan bizi diranai etorri oi zaiztena, burlatu zitalako Jangoikoaren deiak, Berak bisitatu nai izanagatik biotzeko atiak itxi diozkelako Jerusalemek Salbatzailliari bezela. (\*)<sup>13</sup> J(a)n(goiko)a<sup>14</sup> bizitzako ordu guzietan deika badagokigu ere salba gaitezen amodioz, orregatikan badira dei aparteko<sup>15</sup> batzuk Jangoikoak bere probidenzia apartekokin<sup>16</sup> deitzen dizkigunak, zeñetara<sup>17</sup> ez erantzutia dan kondenazioko arriskuan paratzea. Aparte (...) zu aspaldian pekatuan bizi zareana, au da zuri egingo

<sup>11</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Jakin egizube, bildur ez lotsa bagarik orrelan bñlzi zareanak, goix edo belu Jangoikoaren ziorrak...*

<sup>12</sup> Ostein aldatuta: *jatzazu > zaizkitzun*.

<sup>13</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez ditugu eransketa hauek transkribatu: *Deitu dizut eta ez didazu erantzun ordu guzietan*. [Aurrerago:] *Zer izan dire...*

<sup>14</sup> Ostein aldatuta: *Eta > J(a)n(goiko)a*.

<sup>15</sup> Ostein zuzenduta: *aparteko zanena > dei aparteko*.

<sup>16</sup> Idem: *aparteko > apartekokin*.

<sup>17</sup> Idem: *zeñeta > zeñetara*.

deutsun deirik andiena. Begira zelan erantzuten deutzazu, zeñ alperrik negar egin ez dagizun erantzuten ezpadeutzazu, betiko galduko zera. Baña erantzuten badeutzazu, andiak izanagatik zure pekatuak, salbauko zera<sup>18</sup>, ondo pekatuz betia egoan Samariako neskatxa galduak bere biotzeko sekretoak igarririk billatu zuanian erantzun zion bezela<sup>19</sup>. Zer izango zan arekin, bere pekatu andien sekretoak igarririk deitu zionian erantzun ez balio? Betiko galdu ta kondenatu. Zakeo bere etxian Jesukristo ostaturik artuarekin bakarrik kontentatu balitz, bere graziari biotzian tokirik eman gabe, ez zan etorriko oker irabaziak biortutzera eta lau bider geiago okerreko bidetik egin zituzan irabaziak pobriai ematera, eta pekatuan eriotzak arturik galduko zan, ezin<sup>20</sup> kontala egunero kudiziazko bide onetatik galtzen diran bezela. Zer balioko zien S(a)n Pedro, S(a)n Andres ta beste Apostoloai Jesukristok deitutziak, bere deiari erantzunik guztia bertan itxita segitu ez balie? (\*)<sup>21</sup>

Eta zer balioko dizu gaur zere biotzera Jesusek ots egitia[k], erantzuten ez badiozu? Zenbat oker Jerusalem etorri ez zaizkon, bere Salbatzaliak bisitatu zuanian ez erantzutetik! Zenbat negar alperriko sekula erremediatuko ez dituanak! Jan(goikoa)k<sup>22</sup> galdu ez ziten amodioz, aitarik onenak bere seme bide okerretatik dabilena andik alderaturik ondu dedin, bere maiorazgoren erederio izateko deretxoa galdu ez dezan alegiñak egin oi dituen bezela, ala Salbatzaliak Jerusalemendarrakin egin zuan; baña bere malizian itxuturik Salbatzaliak Zerurako atiak irikitzen zituan denporan, orduan beren malizia doblaturik eriotza makinatzen zebiltzen. Eta emendik etorri zitzaizten oker guziak, erre, il, abrasatu ziran guziak ñori ere parkatu gabe. Ikara santo batek artu biar zaitu<sup>23</sup>.

<sup>18</sup> Idem: *Gaur biar bada izan leiteke, pekatari anbeste denporan pekatuaren katiapen zaudena, Jangoikoak zuri aparteko probidenziaz deitzen dizuna, eta ez erantzutetik zure kondenazio, salbazioa erantzutetik bezela. Ez erantzutia, guztia galtzia, eta erantzutia, zure zorionezko irabazia > Aparte (...) zu aspaldian pekatuan bizi zareana, au da zuri egingo deutsun deirik andiena. Begira zelan erantzuten deutzazu, zeñ alperrik negar egin ez dagizun erantzuten ezpadeutzazu, betiko galduko zera. Baña erantzuten badeutzazu, andiak izanagatik zure pekatuak, salbauko zera.*

<sup>19</sup> Idem: *pekatuz betia egonagatik ez da ardura, erantzun zaiozu Samariako neskatxa galduak erantzun zion bezela, bere biotzeko sekretoak igarririk billatu zuanian erantzun zion bezela > ondo pekatuz betia egoan Samariako neskatxa galduak bere biotzeko sekretoak igarririk billatu zuanian erantzun zion bezela.*

<sup>20</sup> Ostean erantsita.

<sup>21</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu eransketa hau traskribatu: *Ez dago zure zoriona deitutian, ezpada erantzutian. Zer baliuoko eutsen...*

<sup>22</sup> Ostean erantsita.

<sup>23</sup> Ostean erantsitako esaldia.

(\*)<sup>24</sup> Orra pekatuaren sariak; Jangoi[ko]lari erantzun biarran, esker gez-toko bidetik ibillitaki dakazan okerrak. Ez dituzu ikusten are[eli] gertatu zaiena egunoro<sup>25</sup> Kristaoetan gertatzen dala<sup>26</sup>? Zer di[ra]de gure egune-tako kastiguak? Zer anaia anaiaren kontra alkar ilten ikusteak? Z[er] anbeste etxe erretziak? Zer il bitez sazerdote guziak, erre bitez elixak, Jerusalemarrakaz egineko kasti[glu]en irudiak<sup>27</sup>, galdu bedi Jesukristo, Maria Santisima, ostikopean zapaldu ditzagun forma sakramentatuak? Gitxiago dira oiek Jerusalemarren pekatuak baño, zeñegatik etorr[i] zitzaizten kastigu guziak? Ez da au plaza publikuetan gau ta egun peka-tu gu[z]tietan, orditurik ots andiak erakutsi dana? Lotsagarritzko peka-tuetan e[z] dira ikusi gizon beste aldetik arrazoi andikoa dirudienak. Bai, onetan ikusi zerate, eta lotsagarritzko libertadera jarri<sup>28</sup> pekatu guztiai belauna inkatu diezue, (Israelek okerrik andienak egin zituenian baño idolo geiago adoratu dezue). (\*)<sup>29</sup> O zenbatek atxina Jerusalem[n] bizio guztiai jarraitu diozue[n]<sup>30</sup>, zuben (...) kodizia, inbidia, gorrotoa, eta animalia lotsagabea baño lotsagabeturik ixillian ta agirian, ez estadu ta kondizino guztiai begiratu gabe!

Onenbeste pekatuaren erdian anima on batzuen, arren erremediatu ditzela oker oiek negarrez Jangoikoari egin ez balie, birtutez beteriko erregeren santidade ta exenploak, beste denpora baten Fineesek beze-la, Jangoikoaren kolera, aserria lotu ez baleu, Sodoma ta Gomorra beze-la erre ta abrasatuko ginduzen. Bai, Jauna, zuk gorde deuskuzu gere Errege Karlos Bostgarren santoa, zure aserriak kendurik bere birtutiakin, bere justiziaren administra(...) erreinua ta Elix bere edertasunera bior-tzeko. Beragatik, itxi pekatu[ali], ez dagigun denpora santou alper[rik galdu]<sup>31</sup>. Au da Jangoikoak aparteko probidenziaz opa<sup>32</sup> egiten digun deia. Ezautu zeñ oker andiak etorri<sup>33</sup> lekiguzan ez bere deiai

<sup>24</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Alan bada, zuri bere gaur Jerusalemen...*

<sup>25</sup> Geuk zuzenduta: *egunora > egunoro*.

<sup>26</sup> Ostean zuzendutako esaldia: *Are[eli] gertatu zaiena egonoro Kristaoetan gertatzen dala ikusten gaude > Ez dituzu ikusten are[eli] gertatu zaiena egunoro Kristaoetan gertatzen dala?*

<sup>27</sup> Ostean erantsita: *erre bitez elixak > erre bitez elixak, Jerusalemarrakaz egineko kasti[glu]en irudiak*.

<sup>28</sup> Idem.

<sup>29</sup> Testu barruko oharra: *Obar*.

<sup>30</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>31</sup> Ostean aldatuta: *Ea bada, Pekatariak > Beragatik, itxi pekatu[ali], ez dagigun denpora santou alper[rik galdu]*.

<sup>32</sup> Ostean erantsita.

<sup>33</sup> Idem.

erantzu[te]tik, eta [a]urrera pekatuai jarraitzetik. Zubek gaur bezela Jangoikoak deitu zituanak, baña len bezela pekatuai jarraitu ta kondenu ziranak, negar esaten daude ta esan biarko due: Ai zeñ txoroak izandu giñan anbeste graziasko otsetara ez erantzuteko! Gaur Zeruan egongo<sup>34</sup> [gi]ñan, eta orra betiko galdu giñan. Ai eta zeñ zorionez betia izango nintzan! Urlia sermoetan<sup>35</sup> Jangoikoak neroni egindako deia ondo bizia izan zan, baña ondu naiagatik, pekatuari utzi gabe nai izan nuan, ez nintzan biar bezela esnatu, eta orra betiko galdua naiz. Ala negar egiten due, ta ala egin biarko dezu, bizitza berri bat artzen ez badezu.

Zergatik bada, amodiozko deietara erantzungo<sup>36</sup> ez dezu? Noz bere desetara esnatuko zera? Zergatik Dabidek bezela zure animari esango ez diozu "*et dix nunc cepi hæc mutacio destere excelsi*", ordu onetatik gero-ko luzatu gabe, instante onetatik geiago gogortu gabe? Propositu onekin goazen<sup>37</sup>. Misericordia, Jauna, miseriaz beteriko pekatari onezaz. Au da Jangoikoa gugaz errukitutera [ekarteko] bidia: esan dagigun benetan onduko generala, bere kastigua altzau dagila<sup>38</sup>. Kendu, Jauna, nigandik pekatuen mantxa; egin, Jauna, gaurrik aurrera izan nadin bakarrik zuria. Begiratugiguzu, Jauna, zure begi errukiorrakin; (\*)<sup>39</sup> altzagizu, Jauna, anbat lasterren zure esku sendoa, eta humillatu zure izen santoren etsaiak. Zenbat oker zure izen ta tenplo santoren kontra egin ez ditue? Zure arerioak ipini ditue euren bandera ta estandartiak zure etxe santuko lekuri agirienetan, leku santo ta profanoen distinziorik gabe. Zure Elixako atiak urratu ta bota ditube, askoraren golpez mendian egurra ebagi oi dan bezela. Oker guztiak alkargana pillaturik matxinatu dire, eta esan due: Kendu dagiguzan mundutik Jangoikoaren piesta guztiak. Akorda zaitte, arren, beste denpora baten gure gurasuakin egindako promes santoz, akorda zaitte gure fabore egindako milagroakin, akorda zaitte zariala gure Kriadoria, Gordetzalle ta Salbatzallia. Ez bekizu aztu zariala gure Jangoikoa, ta gu zure erria generala. Zergatik annbesteraño aitzu gozuz, zugandik zer esperau ezpag[e]ndukan bezela? Ez dabe eukiko gure kastiguak azkenik? Bai, Jauna, ezautuko degu gure pekatuen azotia dala, emendatuko gera ta misericordia, arren, gu[gaz]. Eta au

<sup>34</sup> Ostein aldatuta: *ibilliko* > *egongo*.

<sup>35</sup> Ostein erantsita: *Ai urlia sermoetan* > *Ai eta zeñ zorionez betia izango nintzan!*  
*Uria sermoetan...*

<sup>36</sup> Geuk zuzenduta: *erantzuko* > *erantzungo*.

<sup>37</sup> Ostein erantsitako esaldia.

<sup>38</sup> Idem.

<sup>39</sup> Ondo lotzerik izan ez dugula eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Gordegizu erlijio...*

zegatik? 1<sup>40</sup>. Añ pozez beterik<sup>41</sup> erten ziran, itxi zeben Egiptoz laster akordatu ziralako, ostera bideko nekez asperturik, laster atzera biortzeko asmuak artu zituelako<sup>42</sup>. 2<sup>43</sup>. Desiertoko nekez ta trabajos asperturik, Zerutiko ogiz ere disgustaturik<sup>44</sup>, Moises ta Aronen kontra, eta bai Jangoikoen kontra ere murmuratu zebelako, lagun deungen exemplo geztoz guztia galtzera etorri ziralako. Zenbat kalte etorri ez jakon erri ari emetik? Beragatik, bideko nekez naigabeturiki, Zerutik artzen zuen ogiz asperturi[k], Moises ta<sup>45</sup> Aronen kontra murmuratu[rik]...

#### [AMAIERAKO ERANSKETAK]

Orandik umia<sup>46</sup> zala erten zan S(a)n Juan desiertoa, non igaro zitzuzan ogeta bost urte, eta ogeta bederatzigarrenian artu eban Zerutik ordenia desierto atatik urteiteko eta Jordan aldian pekatariari prediketako. Orduan izan zan Salbadoriaren pregonero santuau, milagrozkonzebidua, Mesiasen predikadorea asi zana Zeruak emoneko enkargua betetan. Bere bisitza milagroso ta predikazioak añ kreitu andia artu eban, guztiak etozan beragana beren erremedio billa. Zabaldu zan anbestera eta añ kreitu andia artu eban eze, Jerusalem guztia estutu zan, eta uste izanik Mesias zala, biraldu eben arako diputaziño munduan ikusi zanik andiena. Itendu eutsen zeñ zan, ea bazan Elias<sup>47</sup>.

Sekula munduan ikusi dan enbajadarik entzunena ta nobleena ipiniten deusku Ebanjelista santuak gaur begien aurrian. Beterik S(a)n Juan Bautistak ogei eta bost urte desierto itsalgarrietan, bere ogeita bederatzigarren urtian artu eban Zerutik ordena mundura agertuteko eta Zeruak ordenatu eutsan opizioa betetako. Pekatuaren penitentzia izan ziran bere armak, zeñegaz arriturik guztiak, mundu guzitik etorkiozan Zeruko erremedio[ren] billa. Añ izan bizia bere predikaziñoa, alako moduan arriturik gelditzen ziran eze, Jerusalendarrak informaurik bere predikaziño ta bizitzagaz, uste izen eben bera zala Mesias egiazko munduaren Salbatzallia. Emendik etorri ziran biralduera enbajadoreak, itenduten zeñ zan. Alako moduan egozan prestauak Jerusalendarrak bere

<sup>40</sup> Ostein erantsitako zenbakia.

<sup>41</sup> Ostein zuzenduta: *terik* > *beterik*.

<sup>42</sup> Ostein erantsita: *ostera atzera biortzeko asmuak erakutsi zituelako* > *ostera bideko nekez asperturik, laster atzera biortzeko asmuak artu zituelako*.

<sup>43</sup> Ikus 40. oharra.

<sup>44</sup> Ostein aldatuta: *enfadaturik* > *disgustaturik*.

<sup>45</sup> Ostein erantsita.

<sup>46</sup> Jatorrizkoan: *hume*.

<sup>47</sup> Ostein aldatuta: *Mesias* > *Elias*.



esana siñastutera eze, itendu eutsenian zeñ zan, etorri balitz baietz esatera, Jerusalemek Mesiastzat artuko eban. Bere humildadia beti aparteko, euren preguntera etorri zan gezurrik erantzun bagarik, bere anditasuna estaldutera, esanarekin ez zala eurek uste ebana, ezpada boz ta tronpe-ta bat pekatariak irazartutekoa.

Au da gaur Ebanjelioko pediak erakutsitzen diguna.

Zorionekoa, zu, pekatuz betia egonagatik ondo erantzuten badiozu. Ondo pekatuz betia egoan Samariako neskatalia Jesukristok deitu eutsanian; bost gizonezkogaz oker bizi izan zan, baña Jesusen deiai leku emonik, guztiak itxi zituan eta bere eskandaluak negar eginik salbau zan. Deungaro bizi izan zan S(a)n Mateo Jesusek deitu eutsanian, kudi-zia ta lukurrerian, baña grazia[ri] leku emonik Santo andi bat izan. Asko erri onetan egon zare neskatalia artian Samariakoa legez edo okerrago bizi zarenak, baña ondo erantzuten badiozube, zuben zorionekoak.

Nonbait, Jauna, ondo aserratua zagoz gure kontra, bada ez dago kastigurik gure gañera biraltzen ez dozunik. Orañ<sup>48</sup> koleriagaz, orañ gerriagaz, eta beste azote ta plaga guztiakaz probetan gozuz. Zergatik ainbesterañoko kastigugaz probetan gozuz, zugandik zer esperau ez bagle[nduka] legez? Ez dabe eukiko gure kastiguak azkenik? Akorda zaitte gu zure erria gariala, eta zu gure Salbatzallia.

Au da Jangoikoa<sup>49</sup> gugaz erruki[tu]tera ekarteko bidia. Au da bere kastigatzen gaituen<sup>50</sup> gerra gogor onetatik anbat lasterren libretako biarren doguna. Beti Jangoikoaren biotza, bere aserrerik andienian bere, bigundu dabe pekatarien negarrak<sup>51</sup>, eta ekarri dabe bere esku pisua altzaurik miserikordia erriakaz egitera. (\*)<sup>52</sup> Kexa amodiozko batzuk erakutsi daijoguzan, esan daijogun: Zegatik, Jauna, anbesteraño kastigetan gaituzu? Ez dira akabauko? Noiz<sup>53</sup>? Ez dabe gure kastiguak izango azkenik? Beti eukiko gozuz areriopean? Ez dozu ikusten gure arerioak erlijio santuen kontrakoak dirala? Ez dozu ikusten zenbat oker egin daben? Euren estandarte ta banderak zure Elexako lekurik sagraduenetan ipini ditube zuri gloria kendurik. Zure Elexako atiak urratu ta bota ditube,

<sup>48</sup> Idem: *Beñ* > *Orañ*.

<sup>49</sup> Idem: *bere* > *Jangoikoa*.

<sup>50</sup> Idem: *ikusten gagozan* > *kastigatzen gaituen*.

<sup>51</sup> Ostean erantsita: *bigundu dabe* > *bigundu dabe pekatarien negarrak*.

<sup>52</sup> Amaitu gabe daudela eta, ez ditugu eransketa hauek transkribatu: *Negar da...*  
[Aurrerago:] *Bigundu...*

<sup>53</sup> Ostean erantsita.

egurra<sup>54</sup> azkoriagaz basoan<sup>55</sup> ebagi ta bota oi dan moduan. Oker guztiak alkargana pillaturik gure kontra matxinatu dira. Ai ze dolorea! Eta esan dabe: Kendu dagiguzan fiesta santu guztiak Elexatik, il dagiguzan erlijiooko ministro guz(ti)ak<sup>56</sup>!

Ez dago, Jauna, nor gugaz<sup>57</sup>... Akorda zaite, arren, beste denpora baten gure gurasoai egindako promesakaz. Akorda zaite zareala gure Kriadoria, Gordetzalle ta Salbatzaillia. Ez bekizu aztu zu zareala gure Jangoikoa, ta gu zure erria. Bakit gugaz errukitutia besterik nai ez dozula, baña gure pekatuak desobligetan zaitubela. Baña, Jauna, gaugandik emoten deusugu berbia onduko gareala, oranginokoak garbiturik, aurrerantzian bizitza barri bat eginik erri santua izango gareala. Propositu one[el]kaz zure oñetara gatoz, eta ez gara altzauko miserikordiau zugandik irabazi bagarik.

Bai, Jesus gozoa...

---

<sup>54</sup> Osteen zuzenduta: *egurrak* > *egurra*.

<sup>55</sup> Osteen erantsita.

<sup>56</sup> Osteen erantsitako esaldia.

<sup>57</sup> Osteen erantsitako esaldi amaigabea.

## [SAKRAMENTO PENITENZIJAKO]

*Adbuc eo loquente ecce nubes lucida obunbrabit eos.* Mt. 11, 5

Ze arrigarriak diran gaurko ebanjelijoan dantzuguzan mirarijak! Bertan ifinten jaku inoz Lurrian ikusi dan Zerubaren irudirik betiena. Au erakusteko Jesukristok eruan zituzan beragaz mendi txito eregi batera bere iru ikaslak, Pedro, Jakobe eta onen anaje Juan, eta artu zuan beste irudi bat edo transfiguratu zan euren aurrian. Ifini zan bere arpegija Eguzkija baño argijago eta bere soinekuak e[d]urra baño zurijago. Ager-tu ziran Moises ta Elias Jesusegaz izka. Ikusirik S(a)n Pedrok ainbeste argi, ainbeste edertasun, ainbeste gloriya, esan zion Jesusi: Jauna, emen-txe egon biar geunke<sup>1</sup>. Nai badezu, egin dezaguzan iru txabola, zuretzat bat, Moisesentzat bat eta beste bat Eliasantzat. Au Pedrok zinuela, orra non odei zuri eder miragarri batek artu zituzan bere gerizpian, eta entzun zan odoiti boz batek zinuela: Auxe da neura Seme maitia, nogan daukadan neura poz ta atsegin guzija. Bera enzunza[zu]be. Au entzunik iru Apostoluak, jausi ziran auspaz lurrian bildurren bildurraz ikara. Eldu zan Jesus eurakgana eta esan zien: Gora, ez bildurrik euki. Jausi ziran baña ez zien besterik ekusi Jesus[ek] bakarrik baño. Mendirik bera eto-zala, esan zien Jesusek ez ziela inori esan ikusi zuena Gizonaren Semia ilen arterik biztu artia[n]. Erraz jakan Salbatzailiari ibar zelai baten era-kustia bere gloriya Dizipuluai, mendi txito altu baten ganera eroan bage bere gloriyaren irudija erakustera, ainbeste aldats garratz irago erein bage. Baña erakutsi nai izan zigun<sup>2</sup>, ezin eldu giñatekezala Jaunaren glo-riya ikustera Sakramento Penitenziako aldats garratz ta nekeztsuti baño. Alperrik, pekatariya, ibili zara beste bideren billa, eztozu aurkituko berau baño Zerura daroianik. Auxe da artu biar dozuna, na[i] badezu betiko zorioneko izan. Baña jakin dagizun nola ibiliko zarian bide onetik, entzunzazu zer dan Penitenziako Sakramentoa.

Penitenziako Sakramentua ezta beste gauzarik, ezpada Jesukristok bere Elexan ifiniriko Sakramento bat<sup>3</sup> parkatzen dituenen Bautismo ostian

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Ostein zuzenduta: *gaunke* > *genke* > *geunke*.

<sup>2</sup> Ostein aldatuta: *zuen* > *zigun*.

<sup>3</sup> Idem: *Bautismo ostian itxiko sakramento bat* > *Elexan ifiniriko sakramento bat*.

eginiko pekatuak, nai dirala mortalak, nai benialak. Eta ain da biarra Penitentziazako Sakramentoa Bautismo osteko pekatuak parkatzeko, zeinda Bautismoa Pekatu Originala kentzeko. Eta alan ba[ultizadu ezkerok, pekatu egin duenak (bada mortala), nai badau parkatu dakion, konfesatu biar du, edo gitxienez konfesatzeko gogoia artu biar du Elexa Ama Santuak agintzen duenian; bada, borondate au baga eztautsa Akto Kontriziokoak parkatuko, edo obeto esateko, eztago Akto Kontriziokorik borondate au baga, edo Elexa Santiak aginduten duenian<sup>4</sup> konfesatzeko propositu baga.

Eta zein zura konfesioa txarra izan ez tin bera datorkion kondizioen baten faltagaitik, esango dizut nolako izan biar dan zuk konfesatzeko ondo egin biar dezu[n] lelengoko gauza, zein dan Examina... (\*)<sup>5</sup>

Askok geiago esango neuke Examinaren ganian, baña esan nai dizuet zerbait larregi Jaunaren miseriakordijan fijaturik zagozanai, pekatuaren egikeratara sartuten zarianai ardura, arreta bage pekatura etxiten zarella: ainbat lasterren urten daizuela, na[il] ezipadezue zebe ganera jausi din Jaunaren Justizija. Onetarako biar det Jaunaren grazija, eta lagun dezadazue eskatzera, onetarako bitarteko ifini daigun Birjina Marija, esaten deguzela[la]...

[AMAIERAKO ERANSKETA<sup>6</sup>]

*Cum sublevasset ergo oculos Iesus et vidisset quia multitudo maxima venit ad eum dicit ad Philippum unde ememus panes ut manducent hii. Ioan 6, 5*

Igo zan Jesus gura Salbatzailia mendira, eta ikusirik jente andijak jarraitzen ziotela, esan zion Feliperi: Non erosi genzake ogija one[eli] jaten emateko? Berreun diruaren ogija, erantzun zion Felipek Maisuari, ezta asko izango puska bat bakotzari emateko. Simonen anaija Andresek esan zion: Emen dago, mutiltxo batek daukaz bost garagar ogi ta arraintxo bi; baña, au zer da ainbesterent[z]at?

Esan zien Jesusak bere Dizipuluai: Egizazue gizonok erori<sup>7</sup> ditezala. Bedar andija zeguan leku atan eseri<sup>8</sup> ziran bost milla gizon bezela, emakume ta famelijakin kontatu bage. Artu zituzen Jesusek ogijek eskuetan,

<sup>4</sup> Ostean erantsita.

<sup>5</sup> Atal horretako amaiera oharra: *Luego el asunto del sermón.*

<sup>6</sup> Zalantzazkoa eta buruz behera idatzita.

<sup>7</sup> Ostean aldatuta: *iarri* > *erori*.

<sup>8</sup> Idem: *ero[ri]* > *eseri*.

eta eman ziozkan Aita Betiko edo Eternuari grazijak, ta bere Dizip[ul]oen eskuetatik banakatu edo partitu ziozkan gizon urai, ta berdin arrantxo bijak. Jan zuen guztijak naiko beste, eta asebete zirenian, esan ziozkan Jesusek Dizipuloai: Batuzazue sobratuko ogi puskak galdu eztezean. Baturik bete zituzen amabi.

Ikusi zuenian gizon aiek mirari aien anditasun arrigarritzkoa, esan zuen edo asi ziran esaten: Auxe da benetan mundura etorriko dan Profeta andija. Ezauturik Jesusek etorriko zirala Errege egitera, igon zuen bakarrik mendira. Ebanjelijo santu onek esaten digun mirarionek adierazoten digu, nolako arreta daukan, *vel* deuzkan bere kriaturakin, erakusten digula nola etzin biar degun bere probidenzijera, eta obedituten diguzala bere dekreto mirariz beterikoak, artzen deguzela gura bizimodua zuzenduteko erregla edo zuzenbidetzat<sup>9</sup>.

Baña, o pekatarijen eskergabetasuna! Zer egin due one[el]k Jaunak emaniko ainbeste grazijakin? Ez beste gauzarik, ezpada balijatu eurakin Jauna g[el]ijago ofen[di]ltzeko. Bada, Kristaua, au egiten dezu Berak emanik denpora ta grazija pekatutik urteiteko, larregi fijaturik bere miseri-kordian arreta bage pekatuta etziten zarenian, usti edo esperantzakin Jaunak emongo dizula<sup>10</sup> grazija azkenengo orduan. Au erakustia izango da nira sermoiaren lana; eta doktrinatzat esango dizuet Konfesino frutuzko bat egiteko lenengo kondizioa, zein dan Examina.

Examina Konzienzijako ezta beste gauzarik ezpada pekatu guztijak burura ekartia, astiro ta kontuz begiratzen<sup>11</sup> duela Jangoikoaren Mandamentue[ta]tik, Elexa Santakotatik, obra miseri-kordijekuetatik ta norberen estadu ta obli[ga]ziotatik animan egon leiken pekatu eta orbanen bat konfesoriarri konfesatzeko ustijagaz.

<sup>9</sup> Ostean zuzenduta: *bidetat* > *bidetzat*.

<sup>10</sup> Geuk zuzenduta: *emongiduzula* > *emongo dizula*.

<sup>11</sup> Idem: *bigarentzen* > *begiratzen*.

## [SAN LUISEN BIZITZA TA BIRTUTEAK]

(\*)<sup>1</sup> Beti izan da Jangoikoa bere Santuetan miragarria, eternidadetik destinatzen zitubela bere gloriarako, ta beren exenplo gure begien aurrian, beren exenploz gizonak santifikatzeko<sup>2</sup>. Beragatik, Ama Elixar San(ta)k asko bidar presentatzen dizkigu birtute ta santidadian aparteko izar batzuk bezela argi egin diguenak, denpora aien gloriara ta gure lotsagarriako<sup>3</sup> konfusiorako. Santu aien artian aparteko argi bategaz argi egin zuana eta erreino andi baten errege ta agi[n]tari eginik mundua ta erlijioak birtutezko exenploz aberastu zitubana, izan gaur anbeste gloriagaz Terzera Ordenako hermano-hermanak zelebratzen dezubena, S(a)n Luis Franziko Errege izan zana eta nere Aita S(a)n Franziskoren habitu pobria ondratu zuana, ta zeaztasun guziak Terzera Ordenako aginduak gorde zitubana. Santu gloriosoau etzan izan bakardadian<sup>4</sup> gorderik beretzako bakarrik santutu zana, besteren akuerdo<sup>5</sup> bage bizi izan zana, baizikan kandeleroan bezela pararik, bere birtute ta exenploen usai santoz estadu guztiko personai Zerura bideak erakutsi zizkana. Eta ikusirik nola<sup>6</sup> Santu miragarri onek, erregeren anditasunari pizkarik kendu bage, bete zituen nere Aita S(a)n Franziskoren ordenantza edo agindu guztiak, beragaitik Ordena santu onetako hermano-hermana guztiak arrazoe andiz beren Patroe, gia ta bideurrekotzat artu zuben, beren birtuteak ispillutzako arturik bere glorian parte izateko. Ala bada, nere sermoiaren gai guztia ez da izango besterik, ezpada begien aurrian paratzia bere bizitza ta birtutiak, onela erakutsirik Santo miragarriau edertu zuben birtutiak, ikusi ditzatzuen zuben paltak, eta zeñ gitxi merezi deuzen, askok beñtatzat, Terzera Ordena onetako hermano ta hermana izatia, zerren geienok nai dezuben parte izan Gloriako atseginetan, onetarako nekerik artu bage bertara eraman biar gaituben bideetan. Baña

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Ondo lotzerik izan ez dugula eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Eta guri beren bidez Zerurako exenploak emateko, guri ere Zerurako [b]ideak...*

<sup>2</sup> Ostein zuzenduta: *baita ere paratzen zitubela gizon[en] begien aurrian, beren exenploz santifikatzeko > ta beren exenplo gure begien aurrian, beren exenploz gizonak santifikatzeko.*

<sup>3</sup> Idem: *lotsagarriko > lotsagarriako.*

<sup>4</sup> Ostein aldatuta: *soleda[dian] > bakardadian.*

<sup>5</sup> Ostein zuzenduta: *akordo > akuerdo.*

<sup>6</sup> Ostein erantsita.

nekezariak ezin artu izan oi duben bezela ereitzen ez duben azien fruturik, ala oek ere<sup>7</sup> ezingo dabe artu Gloriako fruturik. Beragatik, orandik azi onik eman ez dezubenak, aurrerantzian ematia nai badezue, S(a)n Luisen bizitza ta birtutetan lezio santubak artu itzatzube, bizitza santo baten bidez aparteko debozio bat artzen diozuela.

Eta jakin nai badezube zer dan debozioa, esango dizubet S(an)to Tomas gloriosoaz batera, ez dala besterik ezpada Zerutikako graziaren intz santo bat, gure biotzetatik epeltasunak kendurik.

Ez, ordea, uste izan gaur anbeste<sup>8</sup> enpeñatuko nazala bere egunero ko debozioak zubei erakutsitzen, zeñ diran arako lezio ta orazioak<sup>9</sup> kanal batetik bezela gure biotzetara Jangoikoak bere argi santuak biraltzen ditubenak; ez arako ko[n]bersazio espiritualak egun one[an] bere denporako Santorik andienakin izaten zitubenak, ez bere erretiro espiritualak bere okupazioen izan oi zitubanak, ez mortifikazio obligazioztat bezela artuak zeuzkanak, ez bere limosna ta karidadiak mundua mundo dan arteko zeleb[r]atuak izango diranak. Ez, ez naiz anbeste onetan geldituko. Oek guztiok beste Santuetan ere komunak izaten dira; izaten dira ere beste birtute aparteko batzuk bakarrik errege-enperadoreai datozkionak, beren<sup>10</sup> poderioa erlijioaren glo[r]iarako enpleaturik. Oek dira Jangoikoar[en] enemigoak bentzitzea, Elixaren etsaien kontra gerra egitia. Beragaitik, nere se[r]moaren<sup>11</sup> gaia izango da, erakutsi[ti]a S(a)n Luisen biotza erretzen zuan birtuterik andiena izan zala Jesusen erlijioaren etsaiak azpiraturik, ez bakarrik erreinuan, baita ere mundu guztian, Kurutze Santoaren adorazioa mundu guztitik zabaltzea.

#### [AMAIERAKO ERANSKETA]

(\*)<sup>12</sup> Zorionez irabaziak ikusten ditugu nere Aita S(a)n Franziskoren neke ta izardiaren sariak, Terzera Ordenako baratz eder ta birtutez betirikakoan<sup>13</sup>. Bere orazioaren ferbore[a]ri<sup>14</sup> eta negar-malkozko<sup>15</sup> euri ede-

<sup>7</sup> Idem.

<sup>8</sup> Idem.

<sup>9</sup> Idem: *arako lezio ta orazioak > zeñ diran arako lezio eta orazioak*.

<sup>10</sup> Ostean zuzenduta: *bere > beren*.

<sup>11</sup> Alternantzia: *sermoia / sermoa*.

<sup>12</sup> Ondo lotzerik izan ez dugula eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Au nola egin Zerutik ikasi ta munduari erakutsirik*.

<sup>13</sup> Ostean zuzendutako esaldia: *Zorionez logratuak ikusten ditugu nere Aita S(a)n Franziskoren zelo andiko neke santuaren sariak, Terzera Ordenako baratz eder ta birtutez beterikoan > Zorionez irabaziak ikusten ditugu nere Aita S(a)n Franziskoren neke ta izardiaren sariak, Terzera Ordenako baratz eder ta birtutez betirikakoan*.

<sup>14</sup> Ostean aldatuta: *Bere doktrinaren lan santuari > Bere orazioaren ferbore[a]ri*.

<sup>15</sup> Ostean zuzenduta: *malkoren > malkozko*.

rrari zor diozkagu anbeste frutu santo, zeñekin aberastu due<sup>16</sup> Ama Elixa Santa. Arako birtute<sup>17</sup> munduak banidadez itsututa<sup>18</sup> erbestekotzat bezela ordu artaraño euki zituanak, eta ez beretzako ezpada eremu ta konbentoeta[n]<sup>19</sup> baixen ezin gorde zeitekezala pentsatzen zituenak, estadu guztietara ekarri zituben. Ez degu joan bearrik bakarleku eta mendi eremuetara birtute oiek ikusten, plaza ta palazioetan ja ikusten dira; nere Aita S(a)n Franziskoren injenio santuak etxeratu ditu len mendietan bakarrik ezautzen ziranak. Ja ez degu joan biarrik exenplo billa mendietara<sup>20</sup>, zerren nere Aita S(a)n Franziskoren Terzera Ordenak plaza, kale ta palazioetan erakutsitzen dizkigun. S(a)n Luis Errege Franziakoa birtu[te] guztiaz ederturikoa da Terzera Ordena onetako lora santua, korte ta palaziko peliburuetan erregla santoau ezerta[n] ere utsik egin bage gorde zuana<sup>21</sup>. Eta ekusirik nola S(a)n Luisek, erregeren anditasunari pizkarik kendu bage, Aita S(a)n Franziskoren Terzer[a] Ordenako gorde zitzen agindu<sup>22</sup> beragatik Ordena santo onetako hermano-hermanak beren Patroe, gia ta bideaurrekotzat artu zuben, bere birtuteak ispillutzako arturik bere glorian parte izateko. Onetarako ondo izango da bere bizitza santo ta birtuteak zubei erakutsitzia. Esango dizuet bere bizitza izan zala Jesukristoren graziaren milagro uts bat eta erlijio santoaren prueba egiazko bat, eta zeñek eraman biar dituben gure biotzak debozio egiazko batera. Eta onetarako doktrinatzat[te] esango dizubet zer dan debozioa.

Bere bizitza santo debozior berotua, erlijio santoren aparteko<sup>23</sup>... Baña gairik serm(oiare)n prinzipalena izango da, erakutsitia zeñ erria zeukan bere biotza errelijio santoaren<sup>24</sup> debozio egiazko bat mundutik zabaltzeko, zeñetarako artu zuan instrumentotzat Jan(goikoa)k.

Beragaitik, nere gaurko [geia] ez da izango bakarrik bere bizi ta birtutiak zubei erakutsitia, baizikan baita ere Jesusen erlijio santoa mundutik zabaltzeko zelo ta egarria. Au<sup>25</sup> izango da sermoi onen geia. Doktri[na]...

<sup>16</sup> Idem: *duela* > *due*.

<sup>17</sup> Ostein ezabatuta: *birtute andiak* > *birtute*.

<sup>18</sup> Ostein zuzenduta: *itsuturik* > *itsututa*.

<sup>19</sup> Ostein erantsita: *ezpada konbento, bakarleku soledadean* > *ezpada konbento bizi ziranak basamortueta[n]* > *ezpada eremu ta konbentoeta[n]*.

<sup>20</sup> Idem: *Ja ez degu joan biarrik mendietara* > *Ja ez degu joan biarrik exenplo billa mendietara*.

<sup>21</sup> Ostein aldatuta: *erregla santoen ordenantzen bidez pekatuen mantxarrik irudirik ere bage gorde izan zan* > *erregla santoau ezerta[n] ere utsik egin bage gorde zuana*.

<sup>22</sup> Ostein erantsita: *Terzer[a] Ordenako agindu* > *Terzer[a] Ordenako gorde zitzen agindu*.

<sup>23</sup> Ostein erantsitako esaldia.

<sup>24</sup> Ostein ezabatuta: *Jangoikoen errelijio santoaren* > *errelijio santoaren*.

<sup>25</sup> Jatorrizkoan: *Hau*.



## [LINBOA]

*Amen, amen dico vobis, quia venit hora, et nunc est, quando mortui audient vocem Filii Dei: et qui audierint, vivent.* Ioan 5, 25

Eg[i]laz dirautsuet etorri dala arako ordua zeñian adituko duen illak Jangoikoaren deia, eta aditzen duenak biziko dira, esaten digu S(a)n Juanek. Gaur zorionez da egun au. Gaur Xto Zeruko Bildots santuaren odol garbiak, Abelenak baño ere indar gei[al]gogaz altara santo onetatik ots egiten dio Aita Zerukoari Elix a onetan enterratuak dauden illen<sup>1</sup> animakgatik; eta allegatu zaije ordu ura zeñean adituko duben pagatu dala beren zorra, eta betiko pizturik igongo duela Gloriako errira, betiko deskantsura. Onetarako biltu gera, onetarako izan dira aditu dituzuben sazerdoteren eskariak, mezako sakripizio, eta zuben argi, ofrenda ta orazioak. Bai, biltu gera purgatorioko animai egun on bat ematera, beren zorra gure kontura arturik presondegi purgatoriokotik atera ta Zerura eramatera. Eta zer gauza atsegiñagorik Jangoikoren begietan au baño? Jesukristok berak exemplo santoau eman zigun.

Jesukristo gere Jaunak il-da bertatian egin zuan lana izan zan, linboan edo Abranen senoan anbeste urtian bere etorrera santuen zai zeuden animak bizitatzia eta berarekin Gloriara eramatia. Beragatik, anima purgatoriokoakgatik orazio egitia da Xtoren antzera karidadia are[e]kin eukitia. Berak egin zuben obra artatik ikusten da zeñ deseño bizia zeukan aiek andik libratzeko eta zeñ asko estimatzen zituban, bada, beste lan guztiak geroko itxirik, atenzio guztiak an zeuden presoen libertadia izan zan. Emen munduan ere au besterik ikusten ez degu. Ala ikusten degu errege batek bere tronura igoten duanian, bere lelekoko lana izaten da bere amodioz bere kausagatik preso egon diranak libratu eta ondratzia. Purgatorioko presondegian gaur daudenak, daude zai gure orazio ta sakripizioen bidez noiz angeru bat joango zaien bisitatzera eta beren katiak urraturik eramango dituben Gloriara, linbokoak Xtoren bisita ta etorrera santuen zai egon ziranak bezala. Padezitzen dituben penak ez dirade gitxiagoak, geiagoak baixen; añ maite ditu Xtok, zeñda maite izan zituben linboan zeudenak, eta are[e]gatik enpeñatzia zeñ

---

<sup>1</sup> Ostein erantsita.

atsegiña<sup>2</sup> dan ikusten degu Jesusek egin zuenetik. (...) añ atsegingarria bada are[e]lgatik oraziño egitia, alantxe da bere biotz gogorrekoa izatia, are[e]kin erruki gitxikoa izatia. Eta benetan, zer gauza<sup>3</sup> gogorragoko gauzarik egon liteke, siñasturik dagoala purgatorioa, ikusi fedetik are[e]n penak, aditu are[e]n sokorru-deadarrak, itxi Jangoikoak gure eskuetan are[e]n libertadia libretia, eta añ erraz egin al izanik, ez guk are[e]n akordu edo gomutarik artzia baño? An dagozanak diriana legez gure senide ta adiskidiak, izango balira bere gure areriorik andienak, arrizkoak ez izanik gure biotzak, errukituko litekez gure biotzak; baña an<sup>4</sup> dagozanak ez dire arerioak, ezpada gure gurasuak gure fortuna guztia eurek-gandik datorkigunak, gure konsuelo izan zirianak. Bai, arako zure aitaren arimia, noren ondasunak gozetan zagozan, arako aitarena zu ondo ipinitiatatik anbeste nekatu ta eten zanena, da anbeste penaren erditik erreguka dagokizuna bere arimiagatik enpeñau zaitiala. Eta zu arentzako añ biotz gogorrekoa?

Beragatik enpeñetiagatik ezer galduko bazendu, gatxerdi izango litzateke beragaz añ azturik bizi izatia. Baña ez galdu, ezpada irabazi egiten dozu zeuretzako beragatik zerbait egiten dozunian. Bada, ez dago irabazi andiagorik arima bat purgatoriorik ateratia baño, eta jakitia atera dozun arimia zure aitaren arimia dala, ezian geiagoko atsegina. Jakin bazendu zure bidez zure aitaren arimiak igon dabela Zerura, ez zeuzkio konfianza andiagaz eskatuko zugaz bere Zeruan enpeñau deitiala, beragatik egin dozun legez? Bada, biarbada au egin dozu, eta ez bakarrik zure aita ta amarena, baita beste askorena arimakin errukitsua izan bazara; eta beragatik, zuk are[e]lgatik egiten dozuna zeuretzat egiten dozu. Au ondo pentsatuko bagendu, ez genduke biarko are[e]n sokorru-deirik, eta kontu geiagogaz ibilliko giñatekez are[e]lkgatik enpeñau bizian. Ez dira aztuko, ez, zugaitik Zerura doozanak zure mesedeagaz, zuk baño bere kontu geiago eukiko dabe zugatik enpeñetako galdu etzaitian. Ez dira izango eskergeztokoak Faraonen koperua, dispentserua legez, Jose Justuare[kin] legez...

Baña zenbat dirian munduan defuntuakin gogor (...), [se]me-alabai zer begiratu munduan<sup>5</sup> daukelako kudiziazko atxak[iagaz]! Zenbat seme geiago dozuen, anbat geiago biar dozue Jangoikoaren laguntzea, (diño S(a)n Ziprianok). Eta Jangoikoa zuben alde eukiteko ez dago bide obia-gorik, animakaz errukitsua izatia baño. Maite dozuez zuben semiak, izan

<sup>2</sup> Ostein zuzenduta: *atsegin* > *atsegiña*.

<sup>3</sup> Ostein aldatuta: *biotz* > *gauza*.

<sup>4</sup> Jatorrizkoan: *ban*.

<sup>5</sup> Ostein erantsita.

biar dozubez bere izatia emon eutsuenak, orrelan zuben semiak bere izango dira zubekez errukitsubak.

Eta au oker egiña bada, orañdik okerragoa gure denpora onetan dakusguna; bada, ez bakarrik arima purgatoriokoentzat limosnarik egi-ten ez da, bestek egin ez daijoen bere enpeñu bizi bat askogan ikusten da. Defuntuen aginduak zela[n] betetan dira? Defuntu santuak emen munduan anbeste agintza egiñagatik penetan zagozenak, zuben penak, zuben negarrak eta eskari guztiak baño indar geiago dauke zuben here-deru kudiziak. Pekatu onek itsutu ditu adituteko zuben agintzak, zubez ag[i]ndu zenduen baño beste modutan. Alan, ez dago erremediorik. Pagau biar dituzube tormento orretan zuben pena guztia. Zuben peka-tuen parkaziñoko interesa baño andiago dauke.

## LA GRAVEDAD DEL PECADO Y SUS EFECTOS<sup>1</sup>

*Scito et vide, quia malum et amarum est,  
reliquisse te Dominum Deum tuum. Ier. 2, 19*

Pekatuaren anditasuna, pekatu oni biar deusagun bildurra, Jangoikoaren gureganako amodioa, eta gure beraganako eskergeztokeria, ez da iñondi bere obetuago ezautzen, Jangoikoaren Seme Jesus Kurtze batian gure amodioz ilda ikustetik baño. Eta benetan, nor arrituko ez da, entzunarekin bakarrik gure pekatuak izan ziriala arako abere uzoak Jesusi bizitza kendu eutsenak? Eta zelako kaltiak ez dira izango gure arimiari pekatuak ekarri deusazanak? Guztiok Adanegan il giniala pekatu egin genduanian, esaten deusku S(a)n Pablok. Ez dabe neurririk pekatu onek guri ekarri e[ul]skuzan kaltiak. Berak itxi euskuzan Zeruko atiak, idigi Infernukoak, eta Jangoikoarekin aserraturik betiko eriotzara desterradu genduzan. Añ argal, kaden ta erkin gelditu zan gizona, anbestekoa izan zirian egin eutsezan zauriak eze, ez egoan Zeru-Lurraren ganian zauri one[e]k osatuko zitubanik. Biraldu eban Moises Santua bere legiarekin, eta legiau ona eta santua izan bazan bere, ez eban anbesterako indarririk. Biraldu eban Aaron Sazerdotia sakrifizioakin, baño one[e]k bere ez zirian asko gure zauriak osatuteko. Bada, S(a)n Pablok dirausku: Atxinako Sakrifizio guztiak ez eben onenbesterako indarririk. Alperrik orduko lege, sakrifizio ta Patriarka Santuen orazinoak bat egin zirian, ez ziran prestu pekatuagaz egin zan zorra pagetako.

Bake andi baten gendukezan Diabruak bere mendian; ez egoan, ez egoan katea one[e]k urratuko zitubanik. Ai gizon gaixoa, zeñ negargarria dan zure estadia! Izango ete da zugaz errukituko danik? Kateape orretatik aterarik libre ipiniko zaituanik? Egin gure eukian Jangoikoak gizonak bere seme maite eta Zeruko erederu, baño ez egoan pekatuaren zorrau pagau eikianik. Ebillen ardura andiagaz Jangoiko ta gizonen bitarteko edo bakigillaren billa, eta Adanen semeren artian ezin inor billaturik, gizonaren galdubiarrez sentimentuz beterik esaten eban bere artian: zer egin neike añ maite dodan gizonau zorionez betetako? Legiak ez dauko indarririk, Patriarka ta Profetak prestu ez dira. Zer egingo dot,

---

<sup>1</sup> Azken orrialdearen amaieran, buruz behera.

bada, enemigoak engañuz galdu deustan gizonau salbetako? Zer uste dozue egingo dabela? Ze pentsamentu artuko dabela gizon galduau salbetako? O Jangoikoaren gizo[nal]rentzako amodioa! Nori onelako gogoraturako jakon Jangoikoari ezpada? *Mitam filiūm meum* diño; biralduko dot neure Seme bakarra. Baña zetarako, Jauna, zure Semia biralduko dozu? Izango da<sup>2</sup> kastigu bildurgarrizkoren bategaz pekatuakgaitik galduteko? Uriolagaz mundua ondatuteko, edo gure buruak asmau ezin leijen kastiguren bategaz zuri egiñeko ofensak kastigetako?

Bigunegiak dira Jesusen erraiak<sup>3</sup>. Ez, N.K., ez; andiegia da bere gureganako amodioa orrenbesterako. Biralduko dau, bai, bere Semia, baña ez gu kastigetako, ezpada Aita Zerukoagaz gizonaren bitarteko bakiak egiteko, gure pekatuak itxi zituben Zeruko atiak idigiteko. Eta biraldu bere, zelan uste dozue biralduen dabela? Zeruko Erregiaren anditasuneri datorkion zorionez apañdurik? Ez, ezpada pekatuzko aragiz jantzirik gure pekatuak bere bizker ganian arturik, Kurtze baten gure amodioz josirik ilteko, eta onelan gizonaren Jangoikoen bitarteko zorra pagau ta bakiak eginik, Zeruko erederu izatera gu biortuteko. (\*)<sup>4</sup> Erdu ona, pekataria, lotu zaite pisko bat pasu onetan zure pekatuen astuntasuna ikusteko. Zu itsuturik aspaldian nondi Jangoikoa ostikopean sartuko, eta zure Jangoikoa, zure errukiz kalteorreflek erremediauko badituz, zauriz beterik eriotzagino humillaturik. (\*)<sup>5</sup>

O pekatuaren astuntasuna! O gizonaren itsumena! Zeñ gogorrek pekatuaren kaltiak! Bada, Uriolagaz mundua ondatu beban, Sodoma ta inguruko erri ederrak suabagaz erre bazituan, eta beste kalterik munduan izan bada, guztiak dira pekatuaren sariak. Baña kastigu guzti one[lek] zer dauke zerikusi Jangoikoaren Semia Kurtze baten ilteko egin zituban kaltiakaz? Eta nok siñastu, kalteau ikusi, anbeste mesede Berak egin eta añ esker geztoz erantzungo geuntsala? Ez nau arritzen Jesusen eriotzan kriatura guztiak sentimentuko señailliak ematen ikusiak, ez Eguzkia estaldurik, Illargia illundurik, Zeruak odeiturik, atxak eta arriak ausirik ikustiak, ez-da bere elemento guztiak nasturik<sup>6</sup> begiratutiak. Arritzen nabena da, izanik gizona beste gauza guztietarako biguna eta alkarrentzako<sup>7</sup> mesederik geien artu ditubena, añ eskergeztoz izatia.

<sup>2</sup> Geuk zuzenduta: *eta > da*.

<sup>3</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>4</sup> Amaitu gabe daudela eta, ez ditugu eransketa hauek transkribatu: *O amodio neurri... Bedeinka izan... gelditugizu zure pentsamentua, amodio parebageko misterio onetan...* [Aurrerago:] *Aspaldian peka... pekatuko la... pe(katuare)m astun...*

<sup>5</sup> Idem: *Zeñ izango da...*

<sup>6</sup> Geuk zuzenduta: *nasturiak > nasturik*.

<sup>7</sup> Ostean erantsita.

(\*)<sup>8</sup> Ez, ez dago geiago Jangoikoa aserratuten daben gauzarik, beragandik arturiko mesedeetara eskergeztokoa izatiak baño. (\*)<sup>9</sup> Alan esaten deusku Jangoikoak berak bere Eskritura Santuko anbeste pausutan, eta alan esperfilentziak<sup>10</sup>. Ikusten ditugu gizonak eurekgandik arturiko mesedeetarako dirala ardura andikoak, eta bakarrik esan giñaike eskergeztokeria guztiak Jangoikoarentzako gorde ditubela. Ez dirade orañgoak, antxinatik da<sup>11</sup>.

Arren bada, bada, au izan zuretzako gauza barria<sup>12</sup>. Kalte<sup>13</sup> au izan zan zure erri Israelgoak lelengotik egin eutsuna, eta au da gaur Kristinau geztokak egiten de[utsu]na. Mesede andiak egin bazeuntsezan bere zure Erriari, gaisoak osatu, itsubak argitu ta illak biztu bazenduzan (\*)<sup>14</sup>, zure pagua eriotza gogor bategaz egin eban zure Erriak; eta are[elk] anbeste egin beutsuben, ez dira obeak gaurko Kristinauak eta asko maite zaitubela esaten dabenak. Ondasunik badogu, osasunik badogu, eta ariman beste zorionik; pekatuen gaisoak osatu, Zeruko maiorazgu gu Zuk egin nai, eta gure zureganako pagua zeñ da? Untze pekatuzkoz, ez beñ bakarrik Judeguak legez, ezpada asko biderretan Kurtze gogorrian josi<sup>15</sup>. Au da, neure Jesus ona, nik beñ baño geiagotan egin dodana, eta egunian askotan emen dagozan askok egin deutsuna.

(\*)<sup>16</sup> Sentimentu andia, Jesus ona, zuria, maite zaitugula esan eta beti zure opentsetan, zure Jangoikotasunen ezauerarik ez daukenak beze-

<sup>8</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *B.D. Au da geife/n Jangoikoa aserratzen...*

<sup>9</sup> Testu barruko oharra: *B.D.*

<sup>10</sup> Ostein erantsita: *Alan esaten deusku Jangoikoak berak bere Eskritura Santuko anbeste pausutan > Alan esaten deusku Jangoikoak berak bere Eskritura Santuko anbeste pausutan, eta alan esperfilentziak.*

<sup>11</sup> Ostein erantsitako esaldia.

<sup>12</sup> Ostein zuzendutako esaldia: *Baña, Jauna, ojala balitz au zuretzako gauza barria > Arren bada, bada, au izan zuretzako gauza barria.*

<sup>13</sup> Ostein erantsita.

<sup>14</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Eta beste ezin kontala mesedegaz obli...*

<sup>15</sup> Ostein zuzendutako esaldia: *Osasun ta ondasunez bete munduan, pekatuen gaisoak osaturik, Zeruko maiorazgu gu Zuk egin nai, eta gure zureganako pagua, untze pekatuzko, ez beñ bakarrik Judeguak legez, ezpada asko biderretan Kurtze gogorrian josi > Ondasunik badogu, osasunik badogu, eta ariman beste zorionik; pekatuen gaisoak osatu, Zeruko maiorazgu gu Zuk egin nai, eta gure zureganako pagua zeñ da? Untze pekatuzkoz, ez beñ bakarrik Judeguak legez, ezpada asko biderretan Kurtze gogorrian josi.*

<sup>16</sup> Amaitu gabe daudela eta, ez ditugu eransketa hauek transkribatu: *Jangoikotzat ezaututen etzaitu beñ erri salbaje batek...* [Aurrerago:] *Bakarrik au egingo baleuskide nere arerioak...*

la<sup>17</sup>. Zuri au egitia gatxerdi da<sup>18</sup>; baña Kristinauak zu Jangoikotzat ezaututa bere, ez bakarrik argaltasunez, eta bai bere ugari malizia osoz opendietia, au da zure biotza minberatuten daben ezpata zorrotza, esanda daukazuna legez Profeta Erregeren aotik: *Si inimicus maledixisset michi sustinuisen utique*. Munduko aita batek bere semia ondo ipiniteko eginala guztiak eginik uste izanik eskerronekoa izango jakola, eta kontrara jazo jakola ikusten dabenian negarrari esetsiten deutso. Beste onenbeste gugaz Jangoikoen bitartian jazoten dana. Ez dauko zerikusirik onek<sup>19</sup>. Aitarik onenen eginala guztiak ez dira, kontuko, Jesusek gu zorioneko egiteko egin zituben eginalak. Ez da izan aitarik añ onik, bere semiarri bizitzia emoteko eriotzara entregau danik, entregau zana legez Jesus gure Salbadoria. Esker onak emotia merezidu badau bere, ez dago okerrik zeñegaz deungaro erantzun ez deusagun. Onek negarrari emon erañ eutsan, onek odolezko izardia botarazi eutsan; bete bere pena ta trabaju guztiak baño, ikustiak izango zirala Kristinauak bere odolagaz zorioneko izan biarrian okerragora biortuko jakela. Ez dago kriaturarik gizonari beste amodio erakutsi deusanik. Egia da Angeruak kriatura nobliagoak gizonak baño egin zitubala; orregatik bere, pentsamentuak gizonagazko nobliagoak izan zirian Angeruentzako baño. Bada, arako Angeruak Zeruan soberbiaz eta gizonak desobedientziagaz jausi zirian, gizonarentzako erruki arturik, Angerubak penitenziarako lekurik emon bage galdu zituban, eta ez angeruaren naturaleza, ezpada gizonarena artu eban. Jangoikoen gau[za] guztiak obligetan zaitube eskerrak emotera<sup>20</sup>.

Bai, pekatariak, Jangoikoak egin zituben gauza guztiak gizonaren amodioz egin zituban. Zerubak egin bazituban, gu zorioneko egiteko egin zituban. Eguzkia, Irargia<sup>21</sup> ta izarrak egin bazituban, gure serbitziarako egin zituban. Mendiak eta basoak, iturri, erreka, ibai ta itsasoak, eta beste ganeko Jangoikoagandik kanporako gauza guztiak, gure zorionerako egiñak dira. One[e]k guztiok Bera maite izatera obligadu biar bagaitube bere, ez dago gitxiago egiten dogun gauzarik. Beti izan da gizona Jangoikoaren mesedetara eskergeztokoa<sup>22</sup>. Ezin<sup>23</sup> enpeñu andi[agola] benetan Jangoikoarena izan zan Egiptoko Faraonen mendetik aterateko. Ez eban itxi milagro ez kastigurik, Moisesen bidez Egiptoarrakin egin ez

<sup>17</sup> Osteen erantsita.

<sup>18</sup> Osteen aldatuta: *ez da zer miraritu > gatxerdi da*.

<sup>19</sup> Osteen erantsitako esaldia.

<sup>20</sup> Idem.

<sup>21</sup> Alternantzia: *Illargi / Irargi*.

<sup>22</sup> Osteen erantsitako esaldia.

<sup>23</sup> Osteen erantsita.

ebanik bere erria ango presondegitik aterateko. (\*)<sup>24</sup> Soñeko utsagaz euren er[r]lra etorten itxiagaz beste bagarik kontentu izango ziran Israel-darrak. Baña etzan onegaz kontentu izan Jangoikoa, bada, ez bakarrik eurek, baita bere ondasun andiakaz atera zituban Egil[ɸ]toko ganadu, urre-zillar ta alaja baliosoakaz. Eta ze esker izan zan bere erriak onenbeste mesederen sarirako emon eutsana? Ez besterik ezpada pekatu rik andienak egitia. Alaja ta urre-zilarrerijagaz batera guztiakaz Jangoikoa ofendietan asi zirian. Noe Patriarka santuaren denporan beste onenbeste egin eban gizonak. Bai, mundu guztia itoten ebillenian, bera bakarrik bere semiakaz kastigu onetatik libretia, parerik bageko mesedia eurentzat. Nok esango ez eban, euren begiakaz ikusirik, eurek ez ze beste ganeko guztiak ito ziriala ikusirik, euren bizi guztian mesedeau gogoan eukiko ez ebela eta eskerrak emongo ez eutsezala? Ala izan biar eban, baña guztiz kontrara egin eben. Bada, ozta urak kendu, lurra sikatu eta itota gelditu ziran gorputzen usain geztoa kendu zan, orra non Noenen semiak Uriola aurrian baño pekatu andiagoak egin zituben. Biarbada esango dozue ondo biotz gogorrekoren batzuk biar ebela izan añ laster Jangoikoz aztuteko. Eta alan izan zan bere, baña are[ɸ]k egin eben guztia zubek egiten dozuenen irudi bat bakarrik izan zan.

Ezpabere esan egidazue: dozuezan ondasunak, osasun ta ganekoak, nondik artuak dozuez? Jangoikoagandik, erantzuten deustazue. Zetan bada, enpletan dozuez mesede Jangoikoagandik artu orreek? Bera serbietan? Ez, ezpada ofendietan. Zuk, gizona, zetan enpleau dozuz zure indarrak eta ondasunak? Berari eskerrak emoten? Ez, [ɸ]pada batorrek gorrotoan, bestiorrek Seigarrengoan, eta ez gitxik pekatu guztietan. Au da zuk Jangoikoari emon deutzazun eskerra. Beragatik, esan biar deutzut esker obiagokoa dala zuretzako zure animalia mutua, zu zeure jakituria guztiagaz Jangoikoarentzat baño. Bada, zure idiari eta beiri jaten emoten badeutzazu, idiak lanagaz eta beiak esne ta umiagaz<sup>25</sup> mantentidu ta aberastuten zaitu; baña zu animalia orre[ɸ]k zuretzako baño esker deungagoko zara zure Jangoikoentzat, Berak emoneko guztiakaz Berari eskerrak emon biarran, esker geztoakaz pekatuakaz erantzuten deutzazulako. Nonbait ez zure Jangoiko, ezpada zure pekatuak dira zu zorioneko egin biar zatubenak, bada, zure ofrendak pekatuari, ez Jangoikoari opa deutzazuz. Egon leiteke esker deungagorik au baño? Ai, eta ezautuko bazendu zuk, pekataria, zeñ aserre daukasun eta zer dan Jan-

<sup>24</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Esan balitxague are[ɸ]i...*

<sup>25</sup> Jatorrizkoan: *bume*.



goikoen aserrian egotia<sup>26</sup>, ze bildurrak artuko zendukezan! Dabidek Saul Erregia bere aserrian egoala jakin ebenian, ez beban izaten gaubaz lorik ez egunaz sosegurik basoak eta mendiak non ezkutauko zan billatuten, zer izango da Jangoikoa zure aserrian egotia, noren begie[alt]tik ezin iñora ezkutau zinaitezala? Nok au erakutsiko dau biar dan legez? Iñok bere ez, Dabidek berak baño pekatu eginik Jangoikoen aserrian jausi zanian. Berak diño: Saulen aserrian jausi nintzanian, berak persegiatan nendunian<sup>27</sup>, mendiak, basoak eta atx-bitartiak ezkutetan ninduen. Baña Jangoikoagandik nora iges egingo dot Berak topau ezin neikian lekura? Zerura joan gura badot, an billatuten dot; Infernura jatsiten banaz, ara bere jarraituten deust; itsasoan sartzen banaz, an dekust. Mendietan ezkutau gure izanagatik, bere begiak guztia dakusde. Nora bada, iges egin nekike Jangoikoen aserrierik? Ez iñora<sup>28</sup>.

Baña pekatuen dagoanak, ez bakarrik Jangoikoa, baita bere Angeru ta kriatura guztiak ezin ikusi dabe<sup>29</sup>, arerio daukaz. Añgeruak<sup>30</sup> ezin ikusi dabe<sup>31</sup>, agur egiten deutse. Zeruak gorroto, itxasoak ondatu gure dau, lurak ito, subak erre, eta ez dago kriaturarik Jangoikoren zelo santuz galdu gure ez dabenik. One[el]k guztiok baño deungagokoa da konzienziaren arra, eta ezta gitxiago bere buruari pekatariak emoten deustan pena<sup>32</sup>. Ze gauak pekatarienak, beti bildurrak, beti ikara, Kainen<sup>33</sup> modura ezin inon sosegurik billatu dau. Gaixoak artuten badau larriturik bere konzi[en]ziako juizioz<sup>34</sup> kondenaunik, doian leku guztira jarraituten deutse p(ekatura)k<sup>35</sup>, gerexiak eguzkiten bide egiten debenari legez. O bizitza galdua, bizitzia baño eriotzia obetoago deitu ginaijona!

Posible izango da, pekataria, Jangoikoaren aserrian bizi gurako dozula? Zure kontra Zeruko Angerubak, Santu guztiak, Maria Santisimia

<sup>26</sup> Osteen zuzenduta: *Ezautuko bazendu zuk, pekataria, Jangoikoen aserrian egotia zer dan > Ai, eta ezautuko bazendu zuk, pekataria, zeñ aserre daukazun eta zer dan Jangoikoen aserrian egotia.*

<sup>27</sup> Osteen aldatuta: *Saul Erregia arerio nendunian > Saulen aserrian jausi nintzanian, berak persegiatan nendunian.*

<sup>28</sup> Osteen erantsitako esaldia.

<sup>29</sup> Osteen erantsita: *Angeru ta kriatura guztiak > Angeru ta kriatura guztiak ezin ikusi dabe.*

<sup>30</sup> Alternantzia: *angeru / añgeru.*

<sup>31</sup> Osteen erantsita: *Añgeruak > Añgeruak ezin ikusi dabe.*

<sup>32</sup> Osteen zuzendutako esaldia: *One[el]k guztiok asko dira, eta ezta gitxiago bere buruari pekatariak emoten deustana > One[el]k guztiok baño deungagokoa da konzienziaren arra, eta ezta gitxiago bere buruari pekatariak emoten deustan pena.*

<sup>33</sup> Geuk zuzenduta: *Kaïnen > Kainen.*

<sup>34</sup> Osteen zuzenduta: *juizioak > juizioz.*

<sup>35</sup> Osteen erantsita.

eta beste kriatura guztiak? Bizitza batian, zeñen azkena Infernua dan? Zorigaitzoko izan nai badozue, jarraitugiozue bizitza eskandalu ta pekatuzko orri. Baña zorioneko izan gure badozue, zegatik konfessore prudente baten oñetara etxunik Madalenaren irudira negarrez, pekatu orre[el]k garbituko ez dozuez?

Anbeste urtian pekatuzko zauriz gaixoturik, zuben arimen erremedio guztiaren esperantza galdurik zagozena, Kainek denporan legez esaten dozuenok andiagoa dala zuben malizia Jaunonen miserikordia baño, poztu zaitezze, bada, etzan etorri Artzañ maitiau ardi galduen billa ezpada. Orañgiño seme galduak izan bazare bere, damaturik bazatoze, pozik besoak zabalik artuko zaitubez. Nor da konbit onetara pozturik etorriko ez dana? Eta zer da, pekatariakin egon nai doz[ue]<sup>36</sup>?

Gogora datorkidan bakotxian zer ete dan Jangoikoak anbeste gorroto deutzan pekatua, eternidade guztian beragaz bakerik egin ezin dabene gauzau, esaten dot: zelan da posible, Jauna, gu au egitera atrebietia? Posible balitz eza[ultzia]<sup>37</sup> Jangoikoari egiten jakon injuria ta arimiari dakarriozan kaltiak, ez litzate izango au egitera atrebiduko litzatekeanik. Pekatuen anditasunau ezautu belebe berau egin baño lenago, munduko interes guztiak ez litekez asko izan[go] onetara pekatariarik ekarteko. Eta egin-da lasterrian ezautu dabena bere ezañtasuna, estadu atatik urten ta garbitu arteko instante guztiak urte luzeak egin jakez. Baña lastima negargarrizkoa zuria, pekataria, bildur gitxiago izatia munduko kalte txiki bati baño. Ikusten dogu zelan iges egiten dozun abere uzo bategandik, ze bildurragaz begiratuten deutzazun gaixo, trabajo eta eriotzari. Zelako negarrak zuriak seme-alaba, senar edo emaztia, edo adiskidia ilten jatzunian, eta ez egitia onelakorik pekatuagaz arimia ilten dozunian!

Gaixoak artzen bazaitu, beñgoan dinozu "betor medikua, edo ni osatuko nabena"; ez deutzazu begiratuten ez nekiari, ez lana galdu biarrari, ez gastuari. Neke andiak artu [ta] zor andiak eginda bere osatu bazara<sup>38</sup> ze, esaten dozu: ez da ardura. Eta pekatuakin arimia gaixotuten dozunian, orrelakorik egiten dozu? Ez, ez da onaxiago bere. Ez dozu oian egon biarririk, ez lanik galdu biarririk, ez etxia zorrakaz me[ta]tuteko bildurrik, doa-doa-rik daukazu guztia, diru bagarik mediku ta osagarria. Eta orregatik, ze neke deritxazun osatuten etorri biarrari, urte osoan, eta beñ baño geiagotan urte askotan, guztiori galdurik osatuteko ardura bagarik, ez gitxitan eriotzako peliburura artian, zeñen konpesiñoak eta penitentzia dirauskun S(a)n Agustinek geienian alperriko dala. Gizon

<sup>36</sup> Ostein erantsitako atala.

<sup>37</sup> Ostein erantsita.

<sup>38</sup> Geuk zuzenduta: *bazera* > *bazara*.

biotz gogorrekoak, nozbait bada, beranduago baño ezpada, erdue Jaunonen oñetara.

[AMAIERAKO ERANSKETAK]

O Jangoikoaren miserikordia neurribagia! Bedeñkatu zaiz, Jauna, zure miserikordia andiak. (\*)<sup>39</sup> Baña zu, pekataria, Jaunaren miserikordiau ostikopean sarturik aspaldian bizi zareana, eta pekatu geiagorako baliatzen zareana, erdu, ipini zaite pizko bat pentsatzen. Zu Jaunau ostikopian zapaltsen, eta zure Jangoikoa zugatik Kurutze baten ilten.

Ez dago munduan kalte geiago egiten daben gauzarik pekatuak baño. Au ondo ikusten da pekatarien arimetan. Ez dago gauza ederragorik arima bat grazian dagoana baño. Eguzkia bere argitasun guztiagaz, Iragia bere edertasunagaz, eta beste izer guztiak ez dauke zerikusi grazian dagoan arimiagaz, bada, one[elk guztiok...

Anbestekoa da Jangoikoak pekatuari deusan gorrotoa eze, ez bada bere gauza ederragorik ez miragarriagorik bere grazian dagoan arimia baño, pekatu mortalian jausten dan instantian, one[elk guztiok galdurik, Diabrua bere besteko etxura geztogoan ipiniten, alako moduan eze, Jangoikoak berak bere ozta ezaututen dau, Adanegaz jazo zanian ikusten dogun legez. Bada, añ ederra egin beban grazian sortu ebenian, desobedienciaz galduteratu zanian ezin ezaturik lena zanik, itenduten eban, esaten ebela: Non zara, Adan? Egin ebena legez añ ederra, ikusirik andik laster añ fortitza, esaten eban: Au ez da nik egin dodana, ez dauko nik egin dodanaren señalerik. Posible balitz ikustia arima bat pekatuan, ez litzateke izango au ekustera iñor etorri bizitza galdu bagarik.

Anbestekoa da pekatuak arimiari egiten deusan kaltia eze, ez bada bere munduan gauza ederragorik grazian dagoan arimia baño<sup>40</sup>, Eguzkia bere argitasunik andienian dagoanian baño argiago egonagatik, pekatu egiten daben instantian Infernua bera baño bere illunagorik ipiniten dau. Arako arimia len Espiritu Santuen bizileku zana, Diabruaren kalabozo ustel egiten da. Len Zeruko erederua<sup>41</sup> zana, Diabruaren mendekotuten da. Andiak dira kalte one[elk (...) obetuago...

<sup>39</sup> Amaitu gabe daudela eta, ez ditugu eransketa hauek transkribatu: *Zeñ izango zure miserikordia!*... [Aurrerago:] *Daukazu biotza!*...

<sup>40</sup> Ostean ezabatuta: *ez badago bere munduan gauza ederragorik grazian dagoan arimia baño, orregatik bere anbestekoa da egiten daben kaltia > ez badago bere munduan gauza ederragorik grazian dagoan arimia baño.*

<sup>41</sup> Geuk zuzenduta: *eredura > erederua.*

**CUÁN DIFÍCULTOSA SEA LA CONVERSIÓN  
DEL INVETERADO PECADOR**

Viva Jesús

*Usquequo piger dormies? Quando consurges e somno suo?*

Prov. 6, 9

Gaur, N.A., zubekiko afekto diferentez inguratua<sup>1</sup> ikusten det gaur nere biotza. Sentimento oiek dira amodiozko ta penazkoak. Amodiozkoak, zuben pekatu ta okasioak itxitzeko pentsamentoz sermoa aditzera etorri zeranentzako. Penazkoak, len bezela pekatuai jarraitzeko asmorekin zaudenentzako. Onela, lengo pekatoai<sup>2</sup> jarraitzeko asmoz etorri zeranoi<sup>3</sup> sermoara, esan biar dizuet zuek bezelakoakgatik Espiritu Santoak esaten duana: *Usqueco...* Noiz artian, pekataria, pekatuan lo egongo zera? Noiz irikiko dituzu zure animako begiak? Zeren zai zaude, edo zer geiago egitia nai dezu zure Jangoikoak zure konbertsiorako? Zer[k] zauzka orren preso, edo zer katia dira preso zaukatenak? A! Nik ondo dakit zer diran katia oriek; ordea, obetuago S(a)n Agustinek erakutsiko dizu, zeñek bestek baño geiago ezautu zituan beragan, gero Santo andi bat izatera etorri bazan ere. Onela, len askoren eskandaloko arri izan zana gero Jangoikoagana biorturik, izan zeitian ispillu ta exenplo bizi, animatzeko ez esperantza galtzera pekatari andiak izanagatik, pekatuoi utzirik bizitza berri santu bat artu nai bazeben. Beragatik, gaurko sermoiaren<sup>4</sup> gaia izango da erakutsitzia pekatariari, zeñ neke andiko gauza dan luzaroko pekatuaren kostunbria ausitzia, zeñ Jangoikoaren dei ta graziak biar diran oiek Jangoikoaren bidera ekarteko. Eta au S(a)n Agustinen testimonioz edo erakutsitez esango dizuet.

Zeguan Agustino bere gazte-denporan pekatuaren okasio ta kostunbre lotsagarritzkoan sarturik, bere ta askoren animak galtzen zituala. Eta

---

<sup>1</sup> Ostein zuzenduta: *Zubekiko sentimentu diferentez inguratua* > *Gaur, N.A., zubekiko afekto diferentez inguratua*.

<sup>2</sup> Alternantzia: *pekatu* / *pekato*.

<sup>3</sup> Geuk zuzenduta: *zeronai* > *zeranoi*.

<sup>4</sup> Alternantzia: *sermoa* / *sermoia*.

nola Jangoikoa gauza andietarako seinalatua zeukan, grazia andiarekin deitzen zion biotzera, esaten ziola utzirik pekatuak beragana biortu zeituala. Sentitzen zituban Agustinok graziaren dei oiek, erantzun nai zeukian dei aietara; ordea, luzaroko pekatuen kostunbrez gaixoturik okerrera, ezin ekarri zuan bere borondatia graziaren esana egitera. Zenbat eta aurrerago graziak indar geiagorekin biotzian ots egiten zion, ala zijoan kostunbre geztoz bere borondatia okerrian gogortzera. Emen ziran Agustinoren espirituko gerrak, grazia ta kostunbre geztoa burrukan bezela ikusten zituala. Agustinok erantzun nairik Jaunaren deiai, ekitzen zion bere buruari onela: Agustino, Jangoikoak indar andiarekin [deitu] dizu, zuk ere nai dezu; zergatik bada, Jangoikoak indar andiaz deiturik, zuk ere nai izanik, Jangoikoaren esana egiten ez dezu? Baña, ai!, dio Agustinok, anbestekoa da nere kostunbre geztoak artu duan indarra ezen, nai izan, negar andiak naiz egin ta ere, ezin urratu det kostunbre geztoen katia, anbestekoa da artu duan indarra. O pekatuaren katia, zeñ argaldurik ta galdurik itxi dezun nere borondatia, ezin egin izateko nai neukiana! Noiz urratuko det, noiz utziko diot lotsagarritzko katia oni? Noiz etorriko naiz Jangoikoak aspaldian anbeste inderrekin deitzen didana egitera? Onela Agustinok negar egiten zuan kostunbre geztoen mendian erten nai ta ezin ertenik.

Bere ama S(an)ta Monika negarrez bere ondoren zebillela bizitza santoagora biortu nairik, Agustino bere semia erten zan ama burlatu edo engañaturik Erromatik Milanera Erretorika erakutsitera, non Zeruak prestaturik zeukan bera Jangoikoaganatzeko izan biar zan instrumentua: S(a)n Anbrosio Milango Obispoa. Eta anbeste pekatuaren katiak lotuta bazeguan, bisitatu zuan Agustinok Obispo santoa, eta txit ondo errezi-bitu zuan. Ikusirik Agustinok Obispo Jaunaren atenzioa, aurrera ere jarraitu zion bisitatzari, eta etorri zan Obispo santoren estimazio andi bat egitera, baita bere sermoiak ere gustoz entzutera. Ordea, sermoiak aditzen zituban ez konbertitzeko borondatez, baizikan kuriosidadez, zeñ ondo predik(azioa)k<sup>5</sup> egiten zuan ikusteagatik. Orregatik, golpe andiak sentitzen zituban bere biotzian, añ gogor pekatuan katiak lotua egon ez balitz konbertitzeko asko beste ziranak. Baita guztiz konbertitu ez bazuan ere, obligatu zeben bere katiaren malla gogor bat urratzera, apartatu zeben Manikeo erejuren tratu ta konbersaziotatik. Emendik igaro zan sazerdote santo batekin S(a)n Sinplizianorekin adiskide izatera; aditzen zituban bere konsejo santuak, baita ere ikusi zuan bere lagun bi bera baño asko obiagoak ez ziranak bataio santo artu zuela eta mun-

---

<sup>5</sup> Ostein erantsita.

dua[n] exenplo onian bizi zirala. Oiek guziok amaren orazio ta negarra-kin batera txit bigundu zeбен bere biotza, eta eskatu zituben S(a)n Pabloren karta ta S(a)n Antonioren bizitza miragarria, orduan munduan anbeste konbersio egin zuala. Ordea, au guziau ere ezan asko Agustino ontzeko. Palta zan prinzipalena, ez zeguan pekatuak zeukan emakumiakiko okasioa kenduko zionik. Asitzen zan kendu biar zuala, ordea, pekatuak esaten zion ezin bera bage izango zala. Alako moduan zeukan pekatu onek lotua. Onela, grazia ta pekatuaren gerra bitartian, erten nai baña ezinik, gelditzen zan beti pekatuan.

Iduri bizia, pekatuan aspaldian zaudena, ikusteko zergatik zuri anbeste dei Jangoikoak egiñagatik, pekatuari okasioari utzitzen ez diozun. Aspaldiko pekatuaren kostunbriak para dizu kattia gezto bat, gaixotu dizu borondatia eta gogortu biotza, alde batetik nai izanagatik, bestetik ezinik, pekatuan beti gelditzeko, Agustineri gerta zitzaion bezela. Emen dira zure espiritu gerrak, Jangoikoaren dei ta graziaren bitartian... Egiuz estadu lastimagarria zuria, eta galduko zaituana indar egiten ezpadezu ertetzera. Zer biarko ez da zu estado urrikari orretatik ateratzeko? Jangoiko santoa, nor gaur euki lezakian ura grazia S(a)n Anbrosiok iduki zuana, zure entendimentuko laño ilunak argitzeko ta zure borondatia debozio santora ekartzeko? Lotsagarritzko pekatuaren lakiotik, eskatzen zion Agustineri Jangoikoari, libranazu, arren, Jauna, lakio gezto onetatik. Ikusten dezu nai dedala eta bizitza santogo batekin zerbitu nai zaitudala. Ordea, au ere etzan asko urratzeko bere kattia geztoa. Ala esaten digu Agustineri, luzaroko pekatuaren kostunbriak ekarri zuala bere borondatia alako moduan gaixotzera ezen, gero bera[k] naita ere ezin egin izaten zuala nai zeukiana. Au berau da, aspaldian pekatuan zaudena, zuri igaroko zaizuna. Zorionekoa zu, betiko urratzen badezu, baña zorigeztoko, lengo pekatuari gitxi eretxirik malla pekatuzko berriekin kattia ori pisua egiten adi zerana.

Ames pisu batek bat artzen duanian egon oi dan bezela, orañ begiak iriki, andik lasterrian nola eztakiala loak artu, ala esaten digu Agustineri zeguena pekatuaren lozorro pisan, esaten zuala orañ "pekatuari utzi deiotan", andik laster "e, nagoan orañdik, laster itxiko diot, bigar biortuko naiz". Baita ikusirik onela denpora luzatzen zala, Jaunaren dei miserikordiosoak alperrik galtzen zituba[n], zeñ bere eskergeztoeria usterik gitxien zeukanian kastigatua izan zeiteken bildurrez, esaten zion bere buruari: Agustino, zer izango da zutzaz? Noiz artian pekatuan lo egin naiko dezu? Noiz toki obetuago emango diezu Jaunaren deia? Ez al da esnaordu? Ez al zera pekatuz asetu? Zertan geldituko dira grazia egiten diozun gerra? Bigar ontzeko asmuak artzen badituzu, zergatik gaugandik asiko ez zera? Gero izango bada, zergatik gaur ez? Onela,

graziak armonia oiek egiten ziozkan okasiotik erten zeitian amodioz; ordea pekatuak, "orañdik ez, bigar onduko naiz".

O biarko<sup>6</sup> eguna askorentzat sekula agertu ez dana, eta beste anbeserentzat berdin izango dana, zenbait anima galdu dituzuna ta galtzen zaudena! Bigar ontzia nai badezu, zertako gaugandik ez? Orañ deitzen dizu, bigar egin[go] badizu eztakizu. Gaur konbidatzen zaitu, bigar onelakorik egingo badizu eztakizu. Orrela pentsatu ta atzeratu ziran asko, eriotzak prestatu gabe arrapaturik galdu ziran. Tentazio onetan erori ez zaitian, Jesukristok esaten dizu beti prest egon zaitiala, usterik gitxien dezunian bere Tribunalera deituko zaituela; lapurra etorri oi dan bezela noiz etxeoak deskuidatuagorik dauden, ala eriotzak zuri ere salto egingo dizula. Au berau ez dezu ikusi zeuk ezautu dituzun askorekin? Zenbat urte luzeetan bizitzea pentsatzen zeбенak, atseginez betiak biziko ziralara uste zeбенak, ez dituzu ikusi eriotzak arrapatu ta burlatu dituala? O zenbat nere egunetan ikusten ditudan gertatu zeila Ebanjelioko aberatsari gertatu zitzaiona! Oker askoren pentsamenturik ez zuala, oi bigunen barrunian olanda ta gasazko izara pinez ingaraturik<sup>7</sup>, bere buruari esaten zion: poztu zaitia, nere anima, bada zerekin ondo bizi izan urte luzeetan. Onela zeguala aditu zuan: A zoroa, zertarako dituk interes oriek? Gaur gabian ilko aiz, norenak izango [di]tuk interes oriek? Alaxen aditu zuan bezela, gau artan il zan ta betiko galdu. Eta au berau da ezin kontala pekatari egunero gertatzen zitzaiona. (O zenbat neuk ere ezautu ditudan, eriotzaren pentsamento gabe munduko dibersioan bizi izatia besterik pentsatzen ez zeбенak, lapurrak bezela arrapatu dituala eta oe bete lurrarekin asko ta mortajatzeko toki bage joan dirala!) O zer desengañoa<sup>8</sup> animako begiak esnatzeko asko bestekoa! Oiei gerta zaie Ebanjelioko donzalle inprudentiali gertatu zitzaiena. Donzalle aiek ondo zekien beren esposoak usterik gitxien zeb[el]nian bere atiak joko ziozkaitela, baita ere lanpara piztuekin, au da obra onakin, itxaon biar zioela, ondo ibilliko baziran. Ordea, kontu zabarrak atera zituben: lanparak piztuteko denpora emango ziela uste izanik, loak artu zituban. Ta orra lo zeudela esposoak atiak jorik, esnatu ziranian presako olio billaka ibilli baziran ere, artan zebiltzen artian barrunera sartu ta kanpoan itxi zituan. Beste onenbeste anbeste munduko gusto-atseginez itsutuak bizi diranai gertatzen zaie. Badakie prest egoteko Zeruko esposoak esaten diela, obra onezko lanpara piztuakin noiz atiak joko dituan esna egin ditezela. Ordea, berak kontu alegriak ateratzen dituzte, gero orretarako den-

<sup>6</sup> Alternantzia: *bigar* / *biar*.

<sup>7</sup> Idem: *inguratu* / *ingaratu*.

<sup>8</sup> Osteen zuzenduta: *engañoia* > *desengañoia*.

porarik asko izango duelako tentazioari toki emanik, lapurrak bezela eriotzak arrapatzen ditu. Orduan "betor konpeseroa, betoz sakramentuak", estuka esaten due. Ordea, lenago prestatu ez ziralako, berak len despreziatu zeben konfesioa orain eskatuagatik, ez die lekuri ematen lengoren sariz. Zenbat onelako ez degu ikusten?

Ez, bada, arren<sup>9</sup>, geroko itxi Jangoikoagana biortzia. Jangoikoak esaten dizu: Gaur nere deiak aditzen badituzu, ez luzatu biar arte zeñ bitartian gogortu ez zaitian. Israelgo erriak atzeratu zualako Jangoikoaren esana, Moises Santuaren bidez agindu ziona txit kastigatua izan zan. Beragatik, beldur Jangoikoaren aserrian zaudena, atzeratzen badezu; zeñ zure ganera etorri ez dedin bere ziorra, egun onetan, ordu onetan, instante onetan biortu zaitia. (Zurekin miseriakordia andia usatzen dago aspaldian Jangoikoa, zure pekatuagatik kastigua merezi izanik miseriakordiarekin konbidatzen zaitualako.)

Zu kudiziosoa, itxuturik justo ez diran bidetatik aberastsen zabiltzana<sup>10</sup>, ez zaitia baliatu bere ontasunaz Bera geiago openditzera oraiñ artian itxaon dizulako edo kastigatu ez zaitualako, gerta ez dakizun askori gerta zitzaiona. Okerrik etorriko zitzaion beldur andi gabe segitzen zion Baltasar Erregiak bere pekatuko bidiai, baña orra non usterik gutxien zeukala, bere anbeste dama gusto-atseginak kunplitzeko zeuzkanakin aparitzen zeguala, bere alegria lutura biortu zitzaion. Ikusi zuan Jangoikoaren eskuak bere komedor paretian bere kontrako sententzia eskribitu zuala, eta gau artan kunplitu zan sententzia arrigarri ura, gorputza sepulturara, anima Infernurako kondenatzen zituala. Aspaldi da, pekataria, zu ere oker andirik etorriko zitzatzun bildur gabe zure gusto-atsegiñak kunplitzen zeudela; aspaldi da erria eskandalizatzen, zure etxeoai sentimentuak ematen bizi zerala. Ordea, ez uste Jangoikoen ziorretik alde egingo dezula: zure gelako paretian edo beste geien openditzen dezun tokian eskribituko du Jangoikoak zure pekatuoi datorkien saria. Orduan damuko dezu, ordea alperrik, zerren lenago abisatu ta konbidaturik burla besterik egin ez diozun. Ez bakarrik eskritura santoa onelako kastigoz betia ikusten degu Amnon ta beste askoren eriotza desgrazia beteterikoetan, baita ere Elixako historian, batez ere Santoren bizitzetan. S(a)n Gregoriok esaten digu Paskua gau batian gizon batek neskata bat loitu zuala, eta urrengoko egunian bildurrez elixara joan bazan ere zeñ Zerutiko kastigoren bat etorri zekion, ikusirik lelekoko ta bigarren egunian okerrik etorri ez zitzaiola, noix bildurra kendu zuan,

<sup>9</sup> Ostein aldatuta: *Beragatik, ez arren > Ez, bada, arren.*

<sup>10</sup> Idem: *Beragatik > Zu kudiziosoa, itxuturik ez diran bidetatik aberastsen zabiltzana.*



zazpigarren gabian ezertarako tokirik eman bage eriotzak arrapaturik kondenuatu zala. Baña S(a)n Gregoriok esango ez baligu ere, gere denporan gure opizioak ala eskaturik onelakorik asko ikusi degu, desgraziaz illak izan diranen pekatuko lagunak guri esanik. Beragatik, ez luzatu Jangoikoagana biortzia.

Esanzadazu ezpaere, zu aspaldian Jaunaren deitara gorturik esaten dezuna<sup>11</sup> "nagoan pizka batian pekatuan, laster ertengo naiz", esan arren, orañdañoko pekatuen karga ezin kendu badezu, karga ori pisua egiten dezunian, nola egingo dezu? Orañdañokoakin zure borondatia añ gaixoa ona egiteko ipiñi badezu, nola geiago eginik indarrak izango dituzu? Orandañoko pekatuen karia urratu ezin badezu, nola kariaorri malla berriak pararik urratuko dezu? Onela Agustinok egiten zion bere buruari okasioak ta kostunbre geztoak okerrera grinatzen zebenian, onela etorri zan urratzera. Ordea, nolako indarrak, nolako biolentziak egin biar ez zituben len amatu zituzanai alde egiteko? Pekatuari itxitzeko propositoak egiten asiten zanian, len amatu zituzan pekatu guztiak bidera ertentzen zioen, esaten zioela: Eta, Agustino, orañ itxi biar gaituzu? Eta betiko? Anbeste urtian añ maite izanik onela itxiten gaituzu? Ezingo zera izan gu bage, eta gu ere ez zu gabe. Egiaz tentazio kruela Agustinoren grazia ta fortaleza edo sendotasuna biar izan zana, urratuko bazan. Au da zurekin ere aspaldian gertatzen dana. Zuk okasioa urratu naiagatik, len pekatuz amatu dituzun guztiak bidera ertetzen dizube, esaten dizubela: Ezin gu bage izango zera. Anbeste urtian añ adiskide izanik ez gaituzu aztuko, ez betiko itxiko. Onela, lamia zital enkantagariak bidiankoari erthenik bere bidia galerazitzen dien bezela, ala zure orandañoko lagunak pekatuak izan dituzunak ertetzen dizube Agustino bezela, ez urratzeko pekatua, ez kentzeko etxian dezun pekatuko laguna. Ordea, egiaz utzi nai badiozu, Agustino izan zuan grazia paltako ez dezu, eta zenbat andiakoak tentazioak, triunfo geiagorako izango dituzu, Agustino bezela.

Grazia ta tentazioaren bitarteko gerra bizi baten zeguala, agertu zitzaion Agustino birtutia edergarri miragarritzeko apandurik, eta alako moduan irabazi zion bere biotza eta mudatua ikusten zan ezen, ezin inundik ezautu zuban lena zanik. Bere deseo guztia inbidia santos gaisoturik ipini zan. Esan zion birtutiak: Agustino, ez zaitia beldurtu, ez bitez ere erori zure biotzeko egalak onenbesteko edertasunez janzi ezin go zeralako deskonpia[n]zaz. Andik lasterrian ikusi zituban ezin kontala

<sup>11</sup> Idem: *Esanzadazu ezpaere, zu Agustino denporan bezela pekatuan egonik, aren gisa Jangoikoaren deitara atzeraturik esaten dezuna > Asp(aldia)n p(ekatu)an egonik > Esanzadazu ezpaere, zu aspaldian Jaunaren deitara gorturik esaten dezuna.*

Santo-Santa Zeruko gloriaz apañduak, eta aditu zuan ots bat esaten ziona: Agustino, ok<sup>12</sup> guztiok zu bezelakoak izandu ziran: asko ta asko erregalo ta munduko konbenientzian jaiok, dama ta galai bigunak, ez gitxi zu orañ bezela pekatari izandakoak. Eta zer? Ez dezu egingo oiek egin zebena? Uste al dezu ez zitubela egin biarko indar andiak, munduan amatu zituben pekatuko lagun ta okasioak urratzeko? Betiko munduari ta bere dibersioari itxitzeko? Beren gurasuakgandik apartatzeko? Eta zuk ez dezu egingo oie[k] egin zebena?

Emen urraturik bere biotza ematen dio negarrari, ez dago konsolatu duanik. Alde egiten du bere lagunakgandik, deitzen dio bere ama konbersio onetan parterik prinzipalena iduki zuanari, bere konsejoz kentzen du etxian zeukan pekatuko emakumea, eta bataiatzen da, eta asi bizitza santo bat laster santidaderik andieneko gallurrera eraman zuana. Eta<sup>13</sup> bere triumfua andia izan zeitian, artu zituzan bere pekatuko laguna Jan-goikoarentzat irabazitzeko bidiak, eta ura ere etorri zan Santa bat izatera. O graziaren triumfua! Zeñ mesede andiak emendik etorri zitzaozkan Elix Ama Santari! Au da Elixak zelebratzen duan andien artian bat, zerren ekarri zuan madarikaziorik andienetik bedeñkaziorik andienara, erejiako ta Seigarrengo izan oi dituen entendimentuko iluntasun ta biotzeko gogortasunetik, argitasun ta biguntasunik andienara. Ez n[al]u ni miraritzen anbeste beste Santo asko, konturako S(a)n Pedro, beren bizi guztian negarrez ikustiak, bada, S(a)n Pedrok bazekien zeñ ona zan bere Maisua. Berak artu zituben mesederik andienak, oiek berez bezala negar egiten obligatu biar zeben; ordea S(a)n Agustino, bere entendimentua erejiuz ilundurik zeukana, bere biotz ta borondatia lotsagarriz luzaroko pekatuz gaixotua, au etortia graziatzko au argi izatera, eta bere bizi guztian deboziozko malko gozoz betetzera, au da ni miraritzen nuana. Ez zan kontentatu Santoau kontrizio egiazkoz beterik bere pekatuak konpesioan konpesatuaz, baita ere Ipona Obispo egin zuenian, noiz Zeruak eta munduak parerik gabeko Santo ta Elixaren defentzalle publikatzen zuan, orduan bere pekatuak munduen guztien aurrera agertu zituban. O S(an)to humildadian parerik gabia! Eta nola zure konfesio humillak lotsatzen dituben, askoren lotsa pekatuzkoak bere konfesioan konfesatu gabe eukitzeko! Bai, zu noiz santuago, orduan munduari adierazo ezinik ez zerala santua, gu noiz okerrago, orduan enpeñatuago munduak ontzat euki gagizan. Zure humildadiaz kondenatzen ditu gure buruari diogun amodio larregiak.

---

<sup>12</sup> Jatorrizkoan: *bok*.

<sup>13</sup> Ostean erantsita.

Arren, S(an)to miragarria, lagunduzaiguzu pekatuaren lakioak urratu ereiten, eta bete itzatzu gure biotzak humildade santoz. Zorionekoak gu, Santuau bezela Jaunaren deitara esnaturik bizitza santu batian sartu ta akabatzeke bidian paratzen bagera. Au zugandik Jangoikoak atera nai duana. Onetarako, pekatari galduak animatzeko ipini zuan Agustino bere Elixan. Jarraitu diozu pekatuaren katian, jarraitu bere imitazioan. Onetarako, zuri aspaldian parkatzen dizu ez aurrera pekatuak eramateko. Akorda zaitia zenbat zuk ezautu dituzunak, eta biarbada pekatuan lagun izan dituzunak, il ziran, asko konpesatzeko lekuri bage. Ipiñi zaitia zeñ miserikordia andia egiten dizun, merezi izan dezun bezela eternidade guzirako Inpernuan<sup>14</sup> egotia. Oiek guziok obligatzen zaitube bizitza berri batera. Beragatik, ez arren luzatu. Infernua geien befteltzen duana anima kondenaduz, da egun batetik ta besterako luzatziak; lengo pekatu guzietan ez dago anbeste peliburu. Emen bakarrik ipini biar dezu guztia. Baña au<sup>15</sup> da negar orolezkoz erakutsi biar litzatekeana. Ez gaur, esaten dezube, gaur ez det betarik, lasterregi da. Orañdik gaztia naiz, munduari eman biar diot berea, dio gaztiak; umiai<sup>16</sup> estadia eman artian ez det betarik, dio gurasuak; auzia akabatu artian, auzilari gorrotuan bizi oi diranak; nere etxe berria akabatu ta fortuna geitu artian, kudiziosoak. Ja, Jesus, ez dago egiaz maitetu nai zaituanik, bakotxak bere konbenientziak besterik maite ez due; zu beti atzenengo, zu ostikopian. Jesus maitia<sup>17</sup>, anima onik elixan bada, berekin batera negar egin nai det, mundutarren itxutasuna ikusirik, zu illik gure amodioz, ta pekatariak...

[AMAIERAKO ERANSKETA<sup>18</sup>]

Gutzizko bere afekto diferente bik ingaratuten dabe instante onetan nere biotza. Onék<sup>19</sup> dira: zubekganako amodiozko eta sentimentuzkoak. Amodiozkoak...

<sup>14</sup> Alternantzia: *Infernu* / *Inpernu*.

<sup>15</sup> Jatorrizkoan: *bau*.

<sup>16</sup> Idem: *bume*.

<sup>17</sup> Geuk zuzenduta: *maitiak* > *maitia*.

<sup>18</sup> Sermoiaren lehenengo esaldia bizkaieraz idatzita.

<sup>19</sup> Horrela, tilde eta guzti.

## [JANGOIKOEN JUSTIZIA]

Viva Jesús

*Tunc videbunt filium hominis veniente in nube,  
cum potestate magna, et maiestate. Lc. 21, 27*

Munduaren asieratik eta orain artian zer munduan jazo izan dan ondo dakienak, ezingo dau obetuago beste gauzagaz munduau konparatu, kanpo zabal baten emon oi dan batalla batera baño; non alde bate-tik ifinirik Jangoikoen justizia pekatua betiko azpiratuteko, eta bestetik gizonen gaiztakeria gogortasun ikaragarri bategaz pekatuau jagoteko, alde bi one[el]tatik gorde oi dan gerra bizia. Egia da beti pekatariak Jan-goikoak baño arma txikiagogaz<sup>1</sup> jokaturik, sarri galdurik, eridurik<sup>2</sup> eta ebagiz beterik gelditu diriala: bein Zerutiko suagaz errerik, beste bein Urioliagaz ondaturik, gose ikaragarritzkoagaz estuturik, peste bildurgarriakaz g[e]ljenak gaixotu eta illik, eta beste ezin kontala gatx eta plaga geztogaz, beste añbeste Jangoikoen aldetiko justizien<sup>3</sup> exertzitu eta eskuadroegaz legez ondaturik. Eta orregatik, nok siñastu leike? Beti gizonak egunian baño egunian<sup>4</sup> gogortuagorik, berriz ta berriz biztuten dabe batalla geztoua itsutasun zoragarritzko bategaz libertade<sup>5</sup> pekatuz-ko bategatik, eta dagoz beti prest gerra geztoua oñian jagoteko<sup>6</sup>, iñoz itxiteko gogo bagarik. Baña alperrik, bada Jangoikoen justiziak esanda dauko ez dautsela gizonari itxiko bere tema geztouarekin urteiten. Orre-gatik gordeta dauko gizon geztou onen kontra azkenengo batalla bat, (zeñetan) egingo daben aparteko kastigu eskarmentagarri bat, guztiak<sup>7</sup> birrindurik betiko galdurik eta aurrera bururik g[e]liago altzetako adin bagarik itxiko dituan. Aparteko batalla au da arako Juizio jeneraleko eguna, zeñetan Jangoikoak erakutsiko daben bere eskubide eta poderio guztia.

---

<sup>1</sup> Ostean erantsita: *arma txikiagogaz* > *Jangoikoak baño arma txikiagogaz*.

<sup>2</sup> Idem.

<sup>3</sup> Idem.

<sup>4</sup> Ostean aldatuta: *anbat* > *egunian baño egunian*.

<sup>5</sup> Ostean zuzenduta: *liberta* > *libertade*.

<sup>6</sup> Idem: *jagotera* > *jagoteko*.

<sup>7</sup> Ostean ezabatuta: *zeñetan guztiak* > *guztiak*.

O ikaragarritzko eguna, zu izango zera gure betiko zorion edo zorigaiztoko suertia<sup>8</sup> erabagiko dozuna! Benetan<sup>9</sup> egun andi eta bildurgarria, zeñetan sartuko dirian siglu guztiak, munduen asieratik eta orain artian, eta emeti Azkenengo Juizioko instantera artian<sup>10</sup> igaro biar dabenak, zegatik egun onetan emon biarko daben Adanen seme guztiak ordu atara artia[n] (...) kontuak. Egun onetan erakutsiko dau gizonaren kontra<sup>11</sup> ordu atara artian gordetako aserre guztia, eta urtengo dau bere agotik arako suzko erreka arrigarriak, pekatari gezto gaiztakeria<sup>12</sup> guztiakin akabaduko duana. Orregatik, errazoe andiagaz deitzen deutso Profeta Santu batek egun oni Jangoikoen aserre andiko eguna, egun ilun eta laño beltzez beterikoa, soñu bildurgarritzko ariturik uririk andienak desegingo dituena. O egun ilun bere gomutiak bakarrik larritzen duana! Zer egun onetan gugaz izango ete da? S(a)n Jeronimo arritzen bada, Job Santua bildur[tu] ta Dabid beragaz kontuan sartu ez deitiala badirautso Jaunari, zer gugaz jazoko ete da?

Jangoikoa munduari kastigu andiren bat biraldu izan deutsan guztian, kastiguau biraldu baño lenago beti biraldu deutzaz señaleari andiak aurretia gotik, onelan lenago abisu eman eta emendatuten ez badira, eskusarik izan ez dagien. Onelan egin eban Jerusalemgo uri zorigaizto-koagaz urtebetez lenago, Erromatarrak autsera biortuko eben baño lenago, erakutsitzen eutsela ezpata gogor baten irudiko izar bat, zeñek zematuten zituen Jerusalemarrak laster euren ganera etorri biar eban kastiguagaz, Josefo Jakintsu antzinakoak dirauskuna legez, baita bere idigiten zala Salomonen elexako egunsenti aldera egoan ate brontzezkoa kaltzaiduzkua bein batian berez, biar izanik bera idigiteko ogei gizonen indarrak, onetarako beti beste lan bagarik egon oi ziranak. Baña Judioak beti gorrak Jangoikoen agindura, ezautzen ez bazituen bere onenbeste señaleari eta abisu, oraindio klaruago erakutsi eutsén<sup>13</sup> agertu ereiten eutsela aidian zorigeiztoko erriaren ganian anbeste gizezko tropa alkarrekin gerra gogor baten ebiltzenak, eta entzuten zala elexiaren parian airian<sup>14</sup> lastimagarritzko deadar ziñoenak "goazen emetik, goazen emetik", sekula iñok jakin bagarik nortzuk zirian alkarrekin<sup>15</sup>

<sup>8</sup> Ostein zuzenduta: *zorigaiztoa* > *zorigaiztoko suertia*.

<sup>9</sup> Ostein erantsita.

<sup>10</sup> Ostein aldatuta: *eta denpora guztietan* > *Azkenengo Juizioko instantera artian*.

<sup>11</sup> Ostein erantsita: *erakutsiko dau* > *erakutsiko dau gizonaren kontra*.

<sup>12</sup> Idem.

<sup>13</sup> Horrela, tilde eta guzti.

<sup>14</sup> Alternantzia: *aidia* / *airia*.

<sup>15</sup> Geuk zuzenduta: *alkerrikin* > *alkarrekin*.

Zeruan gerra[n] ebiltzenak, ez nogandik urteitzen zan lastimagarrizko deadarra. Señale guzti one[el]k eta beste anbeste mirari one[el]n moduko biraldu zituan Jangoikoak Jerusalenera, zeñegaz zirautsen biortu zeitiala bakia egitera azkenengo kastigura itxoron bagarik... Orain, bada, uri bakar baten galtzairako onenbeste señale erakutsi bazituan Jangoikoak, emetik ezagutu dagigun zenbat g[el]iago izango dirian munduen akaburako biralduko dituanak. Orduan jazoko da arako Joel Profeta Santuen esana: *Dabo prodigia in celo et in terra antecuan veniat dies Domini magnus*. Ikusiko dira señale arrigarriak Eguzkian, Ilargian, izarretan, baita munduko kriptura guztietan, zegatikan guztiak sentimentua erakutsiko deben euren betiko<sup>16</sup> galdu aurrian, dardar ikaratu, lokatu diriala guztiak<sup>17</sup> eta jausten asiten diria[la] lenago guztiz jausi baño<sup>18</sup>. Bai<sup>19</sup>, ikusiko dira gizonak igarturik legez euren juizio aurrian, entzunik arako itsasoak aterako dituan orroe arrigarriagaz. Onelan, ibiliko dira gizonen etxura bagarik guztiak<sup>20</sup> galdurik eta bellegiturik, eriotzia baño lenago illik, juizio arrigarriazkoan sartu baño lenago sentenziadurik, euren bildurragaz neurtuten dituela euren peliburuak, eta bakotxa berriagaz bes-terenen añ azturik, zeñda inor proximuan gomutarik ez dabela, ez aitak semerenenik, ez semiak aitarenenik.

O egun andi eta arrigarria gizonaren kontra añ aserraturik Jang(oiko)a agertuko dana<sup>21</sup>! Zeñ zorionekoak arako Kristinau onak, euren estaduko obli[ga]zione[el]tan sendo Jaunaren bideetatik ibili dirianak! Bai, guraso ona, anbeste exenplo santorekin seme-alabak Zerurako azi dituzuzena, zure zorioneko orduan, zelan bedeinkatuko dituzun orduan umiak<sup>22</sup> Zerurako aziten eman zenduzan neke-izardiak! Baña zorigeztoko, zeuen bizi guztian gauza onik ez esan, ez egin ez dozuezanak, negarra eta garrasija ez da faltako orduan zuekan eta zuen umietan<sup>23</sup>. Ez da izango asko orduan esatia zeuen borondatien kontra izan zala aren exenplo geztoa, onak izan leitezala esaten zeuntseela. Arako gau ta eguneko ibillera geztoak, arako auzokoa zuk ondo zenkiana ama-

<sup>16</sup> Osteen erantsita.

<sup>17</sup> Osteen zuzenduta: *ikaratuten diriala guztiak > dardar ikaratu, lokatu diriala guztiak*.

<sup>18</sup> Idem: *eta lenago jausiten asi, guztiz jausi baño lenago > eta jausten asiten diria[la] lenago guztiz jausi baño*.

<sup>19</sup> Osteen erantsita.

<sup>20</sup> Osteen zuzenduta: *guztiak gizonen etxura bagarik > gizonen etxura bagarik guztiak*.

<sup>21</sup> Osteen erantsita: *O egun andi eta arrigarria (< arrigarriaga)! > O egun andi eta arrigarria gizonaren kontra añ aserraturik Jang(oiko)a agertuko dana!*

<sup>22</sup> Jatorrizkoan: *hume*.

<sup>23</sup> Idem.

bosteko errosario errezetara ez etorrela, eta bai zeuk ondo zenkiena zure alaba ikustera, eta zeuk eragotzi al izanik, ez bide onetik ezpada eskandalokoti suintzat izatia jazo lekizun nai zenduna, onék<sup>24</sup> zure gogotik igaroko pekatuak larrituko dabe zure biotza. (\*)<sup>25</sup> Zer izango ikustea<sup>26</sup> arako suzko erreka andia mundu guztitik zabaldurik, uri, erri eta baso-mendiak erriaz guztiak galduko dituana! Eta arako tronpetaren soñu itzalgarria, bere birtutez Adanen seme guztiak leku batera batuko dituana! Eta beste guztien ganian, arako Jangoikoak ordura artian ain humillik parkatu gura izen e[ulskuzanak gure pekatuak, erakutsiko daben anditasun, majestade eta aserre arrigarria! Naun Profeta Santuek esaten deusku berba bildurgarri one[e]kaz<sup>27</sup>.

Agertuko da egun atan Jangoikoa itsas aserriaren gogortasunen modura, bere oñ azpian guztia birrindurik auts gauza guztiak biortuten dituala. Itsaso eta ibaiak bere aurrian sikatuko dira, mendiak bildurtu, Lurra bere bizilagun guztiakaz bere aurrian dardar ikaratuko da. Nor izango da bere arpegi aurrera agertuko dana? Nor bere aserre arrigarria lotuko dabena? Bere koloreak su irikiñaren modura mundu guztitik zabaldurik<sup>28</sup>, arri-mendi guztiak ura legez bigunduten ditu<sup>29</sup>. Zer gugaz egun larri atan jazoko da? Ze kontu emon al izango deusagu ordu aserre atan? Pekatari blasfemo Jangoikoen kontra jaigirik beti bizi izan zariana, zer erantzungo deusazu esan dagizunian: ze gatx nik egin neutsun zu nire ez bakarrik aserria, baita bere nere kontra gorroto bizi baten bizi izateko? Zure pekatu ta gaiztakerien errua niri botatzeko? Birtute eta santutasunaren kontra ain deungaro berba egiteko? Zeru ez Infernurik ez dagoala, zeura geztakeriak aurrera eroatarrik, askori erakutsi ereiteko? Santutasuna erejiatzat emon eta erejia birtutetzat<sup>30</sup> nire Elexan sartu nai izateko?

Nire Ebanjelioko doktrina eta konsejuak Elexa Santutik ateratzeko, eta nire Esposa garbi Elexa Ama Santia pekatuzko abere geztoen berezi illun biortuteko? Ni ez nintzan bakarrik kontentatu zuri izatia emonagaz, baita bere ausirik pekatuen katiak nire odolagaz idigi deusudaz Zeruko atiak, egin zaitut Diabruen mendekotik nere seme maite eta Zeruko ondasunen erederu. Zegaitik bada, orren gogor nire kontra jaigi gura

<sup>24</sup> Ikus 13. oharra.

<sup>25</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Erdue mendiak...*

<sup>26</sup> Ostean aldatuta: *Baña, zein arrigarria > Zer izango ikustea.*

<sup>27</sup> Ostean zuzenduta: *Zein Profeta Santu haunek erakutsiten deuskun berba bildurgarri one[e]kaz > Naun Profeta Santuek esaten deusku berba bildurgarri one[e]kaz.*

<sup>28</sup> Idem: *zabalduko da > zabaldurik.*

<sup>29</sup> Idem: *dituala > ditu.*

<sup>30</sup> Geuk zuzenduta: *birtutetzak > birtutetzat.*

dozu? Begira, pekatari itsuba, zeñ eskubide andia emon deutzazun zu kastigetako. Baña, o Jaunaren ontasun eta miserikordia neurribagia pekatari gezto oni parkatu nai izateko! O Jesusen errai bigunak eta amodioz zaurituko biotz samurra! Orrenbeste eskubide zu galduteko emon badeutzazu bere, etzaitu oraindio galdu nai; ez dator denpora santo onetan zure<sup>31</sup> kastigura, ezpada errukira, gure izan baleu; askotan enpeñau zara zu galdu zagizen, eta Berau zu galdu ez zaitez enpeñadu da. Oraindio ez galdu, bai salbadu nai zaitu. Gogoratuten jako zeñ prezio andia zugatik emon biar izan eban, Kurtze gogor baten odolutsituta zugatik il zan. Egia da, dirautsu, pekataria, ni zure Jueza nazala, baña bai bere zure Aita, eta zu odolez irabaziko semia. Jueza nazan partetik nire justiziak zure kastigua eskatuten badau bere, Aita nazan partez zure errukiak astu erein gura deustaz zu[re] pekatu ta gatzakeriak. Erdu oraindio nigana, ardi galdua, artzain maite bizker ganian ifinita otsoen agin artetik aterata, neure Zeruko artegi santura eroan zagidazan. Zer dirautsazu zeure Jangoiko maitiari? Nai ez dozula, gorturik dei onetara bide gezto orreleli jarraitu nai deutzazula. Anbestekoa bada zure enpeñua, gitxi bada Jangoiko baten biguntasuna zure gogortasuna samurtuteko, zeuria izan dedilla beti-betiko bere aserre eta kastigua. Zeruak zuretzat kaltzaiduzko biortu ditezala, lurra arrizko, eta bere suzko penak zugandik iges ez dagiela.

Arako Eguzkian, Irargijan eta izarretan ikusiko diran señalliak igaro ta bertatijan, itsasoen orroe ikaragarritzkoen bazterrian, azkeno mundu guztia erriaz, gizonda animaliaz bat bere itxi bage guztia bakarturik eta bildurgarritzkoeturik gelditu diñian, joko dau Jaunaren Angeruak arako tronpeta bildurgarria, zeñen soñuaren birtutez biztuko dira anbeste milla urtian munduaren asieratik. Eta ordura artian izan zirian guztiak batuko dira leku batera, euren egiteren kontua emonik bakotxaren sari justua artutera. Egun bildurgarritzko atan ikusiko dira ondo larririk munduan agintaritasuna izen eben errege-enperadoriak, aita santu, obispoak, baita beste arako munduan izen andia irabazi ebenak. *Stulti principes Taneos*<sup>32</sup>. Alexandro, Dario eta ganeko konkistadoriak egun atan larriagorik eta bildurrez betiagorik ikusiko dira, arako munduan egon zirianian euren sententzia begira egon biar izan eben guztiak baño. Ai ze larria pekatari geztoenena! Zeñ poz eta atsegiña justuena!

Guztiak onelan Josefateko ballian alkarganaturik, idigiko dira Zeruak, agertuko da Majestade bildurgarritzko bategaz odoi zuri baten, jarriko da bere tronuan, artuko dau eskuetan Liburua, leiduko dau kon-

<sup>31</sup> Ostean zuzenduta: *zu* > *zure*.

<sup>32</sup> Ostean erantsitako latinezko zita.



tu andi bategaz, eta kargu eginik gure obra on ta geztoren, pisatu[ko] ditu bere pisu santuetan. Igaroko ditu onak alde eskoakora, deungak ezkerrekora, eta prestatuko da azkenko sententzia emoteko. O zein larribildurrak artuko dituan orduan ezkerreko alde jazo jakenak! Zeñ ai trisiak, ezpan-jate eta desdixak! Jaigiko dira arako euren galtzaira lagundu eutsenen kontra, madarikatuko dituez euren gurosoak<sup>33</sup>. Esan biarko deutse euren gorputz madarikatu izatera doazenai: Zuriak izan ziran gustuak, bioenak betiko pena ta tormentuak. Bein baño geiagotan esan neutsun pekatura joan oi ziñanian etorriko zala egun au emendatuten ez baziñan, eta orra non eldu dan zori gogorrek[o] egun nai anbeste bider esan neuntsunau. Zuk zeure gustuen saria betiko penia artu biar izatia ez da mirarituteko, baña nik zugatik betiko galdu biar izatia, nik betiko Jangoikoen arpegirik ikusi bage egon biar izatia, au da nire penarik andiena.

Baña, Jauna, posible izango da zure odolagaz irabazi zenduzan gizonak betiko galduak izatia? Ez nire partetik, diño Jangoikoak. Nik deituko deusét<sup>34</sup>, egingo dot alegiña ez galduak, bai zorionekoak izan ditezan. Baña nire amodiozko deietara gortuten badira, nire anbeste miseri-kordiaz beteriko grazietara biotz gogortuten badira, galduak izan biarko dabe. Au da dirautsuna Jangoikoak. Sententzia aurreko estu-larrietan biortuko dira euren Angeru Guardiazkoagana. Deituko deutse, arren, gorde dagizen Infernuko otsoren agin artetik. Baña erantzungo deusé<sup>35</sup> añgeru<sup>36</sup> onek: Ondo gogoan daukat zelan deitu neuntsun, eta bai bere esan iges egin ziñaiela arako pekatuko lagunetik, baña nire esanari begiratu bagarik jarraitu zeuntzan zeure pasiño geztuari. Zuria zan errua, ikustia zenduan egun au etorriko jatzula. Biortuko dira Maria Birjinagaña. Deituko deutse euren estu-larrian, baña Mariak iges egingo dau eurekgandik, zegatik denporan iges egin eben beragandik. O pena pena guztien artien andiena, Birjiña Mariaren laguntzerik iges egin biar izatia, eta ez egun baterako, bai betiko. Nor zugaitik enpeñauko da, Maria enpeñetan ez bada? Nok Jesusen aserria bigunduko dau, Mariak egiten ez badau?

Agertuko dira zure testigu ta akusadoriak. Diabruak esango deutse Jaunari: Zuria da pekatari au zuk egin zendualako, baña guria zugandik iges egin ta gure aginduak egin zitualako, zure odola pekatuakaz azpiratu ebalako. Alde guztietatik ilundurik pekataria, eta nok bere bando

<sup>33</sup> Alternantzia: *guraso* / *guroso*.

<sup>34</sup> Ik. 13. oh.

<sup>35</sup> Idem.

<sup>36</sup> Alternantzia: *angeru* / *añgeru*.

urteiteiaren esperantza guztia galdurik, bere pekatu ta gaztak[er]iak<sup>37</sup> probaurik, ezautuko dau berea zala errua; eta orduan jaigirik Juez ase-  
rria bere kontra, emongo deutso arako sententzia beragaz betiko galdu-  
ko dauena, esaten deutsal: Zuk nire odolagaz baliu izan<sup>38</sup> ez dozu,  
zuk nire grazietara burla ta barre beti egin dozu. Zoaz betiko nigandik  
Infernura zure pekatuen saria artzera. O arrigarrizko sententzia bere pen-  
samentuak bakarrik arrituten dabena! Beti-betiko, Jangoikoa Jangoiko  
dan arteko. Arren, Jauna, libradu gagizuz sententzia orretatik. Egia da,  
bai, orain artian pekatariak izan gariana, beti zure kontra ibilli garia;la;  
baña orain artian añ gaiztoak izan bagara, ez, Jauna, gaurrik aurrera.

Bai, Jesus ona...

#### [AMAIERAKO ERANSKETAK]

Eta Judeguak egunian baño egunian Jangoikoen abisuetara itsuago-  
ak, ezautu gure izan ez bazituen bere Jaunaren abisu one[el]k...

Eta alako moduan baktxari jazotera joakenagaz euren buru eta  
memoria arturik, beste inoren bere akordu bagarik, ez da orduan izan-  
go aitak semien akordurik, ez semiak aitarenik. Bakotxa bere esturiak  
aztu ereingo deutse guztia. O egun iluna, o egun itzala eta larria, zu iku-  
si ez eitiagatik anbeste Santuk Juizio egunera arteko Infernuko penak  
pozik artu gura izan dituen! Zer izango da pekatariakaz? Erdue men-  
diak...

Zeñ zorionekoak...

Baña, Jauna, damutuko gara, entzungo ditugu zure deiak, bigundu-  
ko ditugu gure biotzak, biortuko gara zure aginduak egitera, negar egin-  
go ditugu gure pausu erratuak; eta errukiturik gugaz aiztu<sup>39</sup> dozuz gure  
pekatuak, artuko gozuz zure seme-alabatzat, eta bedeinkatuko gozuz  
zure azkenengo bendiziñoagaz zugaz batera zorioneko izateko. Zuk  
gurasoai emongo deutzazu grazia euren umiak<sup>40</sup> obetuago aziteko, Zuk  
umiai<sup>41</sup> pekatuen okasinoai itxiteko; Zuk gorrotudunai<sup>42</sup> indarra alkarre-

<sup>37</sup> Idem: *geztakeria / gaztakeria*.

<sup>38</sup> Ostean erantsita.

<sup>39</sup> Alternantzia: *aztu / aiztu*.

<sup>40</sup> Ik. 22. oh.

<sup>41</sup> Idem.

<sup>42</sup> Alternantzia: *gorroto / gorrotu*.

gazko bakiak egiteko. Guztiok eglijngo gara zure seme-alaba, guztiok zure Erri biortuko...

Baita aditzen ziran erriaren parian goian soñu<sup>43</sup> ta durundio bildurgarriak, exerzitu bildurgarri baten gisa gerran zebiltzan modukuak; baita ere aditzen zan<sup>44</sup> denporarik denpora Salomonen elixaren parian goian ai bildurgarritzko bat guztiak bildurtzen zituana, esaten zuala: Guazen emendik, desanparatu dezagun lekuau.

Baita ere berez<sup>45</sup> iriki ziran Salomonen tenploko eguzki aldeko atiak, ogei gizonen indarra onetarako biar oi zanak. Eta ikusirik oek guztiok gitxi zirala, aditzen ziran erriaren parian goian soñu bildurgarriak, exerzitu bi alkarren kontra ibilli oi diranian izan oi diran modukoak, aditzen zala ere denporarik denpora ai itzalgarrri bat, esaten zuana: Guazen emendik, desanpara dezagun tokiau. Señale guzti oek, eta beste asko onefelñ gisakoak, beste anbeste izpia bezela biraldu zizten Jangoikoak Jerusalemarrai, etsaia beren ganera etorri baño lenago kapitulaturik libratu zeitian.

Orain, bada, erri bakar bat kastigu aurrian anbeste...

Zen<sup>46</sup> ez bakarrik zure pekatuak, baita bere zure Batioan profesadu zendun Fedia zure kontra jaigiko da. Fedeonek<sup>47</sup>, bada, dino S(a)n Agustinek, Jesukristok egun atan bizturik zure kontra justizia eskatuko dau, justizia zure obra geztoakaz afrentau dozulako, justizia eskandalizadu dozulako, justizia berak santu egin al izanik zu, zure guraz galdu gura izan dozulako. Eta ez bakarrik Fediak, baita bere errazoiak eskatuko deutso. Zure bizitzia errazoizkoa izan bada, zegatik zure errazoiak ontzat<sup>48</sup> ezin emon izan dituan gaiztakeriak egin dozuz? Zegatik arako deseorik loienak? Zegatik gala egin dozu eskandalurik andienen? Guztiak ipiniko deutzaz begien aurrian eta esango deutzaz: Zure...

---

<sup>43</sup> Geuk zuzenduta: *suño* > *soñu*.

<sup>44</sup> Ostean erantsita.

<sup>45</sup> Idem.

<sup>46</sup> Idem.

<sup>47</sup> Geuk zuzenduta: *Fediauk* > *Fedeonek*.

<sup>48</sup> Idem: *ontzak* > *ontzat*.

## [LIMOSNAKO OBLIGAZINOA]

...eta bai euren kudizijak ereiten deutsena, estadu onetan ez Jangoikoak eta bai euren pekatuak ifinirik. Zuen estadu altua ta bizitzia da Jangoikoak emona. Gure dau Berak jagon dagizuen estadu orrek eskatuten daben legez; baña zeuen estaduak eskatuten daben baño geijagotan sarturik, jazo oi jatzuena legez pekatu ta geztokerijaz, one[e]k ez dira Jangoikoen obrak, eta bai zeuen pasiñoenak, zeuen pekatuenak. Jangoikoak ez deutsue emon estadu ori, ez-da ondasunak bere, orrelan biziteko; eta Jangoikoak zuei emona bere gloriya, ta zuen onerako, zuek biortuten dozue galtzairako. Au da aita-semien artian auzijak ifiniten dituzena, zuen alaben artian negarrak, estadu bat emon bagarik naitanaiezko kastidade gogor batera alabak obligetan dozuezala, eta senar-emazteetan bizitza geztuak guztirako sobra euki biarrian, guztirako falta jatzuela, guztija izanik zeuen errua. Eta alan, beste askori jazoten jako bizitzan aberastiak eukijak il detezanian, itsaso bat bete zor agertutia, euren herederuetan auzija, eta one[e]lntzat izan biar eukian ondasunak justezijak jatia. Eta non geldituten da arako pobriakganako eukeen obligazino?

Erantzungidazue ordu onian ez dozuela ondasun sobrarik, baña nik erakutsiko deutsuedaz zuen ondasun andijen sangraderak<sup>1</sup>, nondi zuen ondasun andijen andapararak siketurik geldituten jatzuezan. Zelan izango dira ondasunak, jokorako ainbeste, bisitarako, erregalurako, banidade, zaldi, txakur eta beste onelakoetan gastetan badozuez, zeuen estaduak eskatuten dabe askoz geijago<sup>2</sup>? Emeti dator anbeste pobreren negarra, euren preminetan sarturik eta nora begijaz aurre limosna baten billa joateko ez eukirik, padezietan egon biar izatia, zuen zaldi ta aberijatan gastaturik one[e]n preminak bardinduteko Jangoikoak emonikoa. Ifiniguezue pisu baten alde bateti zuen gustu, olgura, erregalu ta ondasunak, bestetik zuen auzoetako pobreza, gose<sup>3</sup> ta negarrak; eta onela ifinirik gauza bijok, pensaugizue zuen artian, eta esan: zer egin dabe one[e]l pobre tristiok Jangoikoen kontra, ain gosez beterik egoteko, eta gu ain

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Ostein zuzenduta: *sagraderak* > *sangraderak*.

<sup>2</sup> Ez ote du zer edo zer falta?

<sup>3</sup> Ostein erantsita.

erregaluz beterik egoteko, beste aldetik izanik gu pekatari andijagoak pobriok baño?

Erraz jakinik egongo zaree, pobria billozik ta gosez beterik ikusi ta oneri al izanik sokorru emon ez eitia, da onetara obligadurik dagozanak egin aleijen gogortasunik andijena. Ez egizue uste izen, aberats zaree-nok, aberastasun guztijak zuenak diriala zeuek nai dozuen moduan gasetetako, ezpada jakin biar dozue ondasun orre[e]k artu zenduezala pobriai limosnia egiteko kargiagaz. S(a)n Jeronimok dino limosna egin biar izatia dala aberatsen ondasunetan Jangoikoak ifiniko tributu bat. Tributu onen deretxoa emon eutsen pobriai. Eta alan, limosna ez egitia da pobria[i] zor dauksena ez pagetia. Ze gitxi pensetan daben obligaziño ikaragarrizko onen ganian arako aberats pekatuetan gastau daroezananak pobriai datorkijezanak. Berba baten: ez da ezer bere zuena, arik eta biar ez dozuezan gastuetarik urtenik<sup>4</sup> zeuen dezentzia jagoteko bakarrik gorderik, pobrentzako gordetan ez badozue. Obligazinoau aberatsentzat da pekatuen bekoa, eta ez bakarrik arako pobria azkenengo premiña estuan dagoanian, zeinñetan limosnia egiten ez bajako alan aurkituten dana il leitikian, baita bere premiña grabian dagoanian. Bada, Jesukristok bere Ebanjelijo Santuen dino limosna egiteko: *Date eleemosinam*. Danielek dirautse limosnak pekatuak<sup>5</sup> garbituteko edo pagetako. S(a)n Pablok dirausku munduko aberatsai limosnak egin dagijezala aginduteko. Nok bada, uste leike ainbeste agindu ikusirik, limosnako obligazinoia ez dala ainbestekoa, eta iñoz obligetan badau dala bakarrik azkenengo estueran, eta ez egitetik<sup>6</sup> proximuak il biar dabenian?

Pobre lotsako asko ikustia euren gauza guztijai itxirik azkenengo miserijan ez jausitiarrik, ainbeste persona urte andijetako ikustia euren pobreziak ainbeste gatxetan sarturik<sup>7</sup>, eta beste onelako asko zuek egunian-egunian ikusi daroazuezanak, one[e]k guztijok ez dira azkenengo premiñara daroazana pobre triste are[e]k? Arako Lazaro zauri ta miserijaz beterik, Ebanjelijoko aberats kudiziosoren atetan luze etxunik<sup>8</sup> zatzana aberats aren biotza bigundu ta errukituteko, baña orregatik, gogorturik jaramonik egin ez eutsena, ez da iru[di] bizi bat, zuena ainbeste pobre miserijaz beterik zuen atetan ikusita, gogorturik a<sup>9</sup> legez jaramonik egin bagarik itxi oi daroazuna? Pobre aren premiña izan zan azke-

<sup>4</sup> Idem.

<sup>5</sup> Geuk zuzenduta: *pekatuak limosnak > limosnak pekatuak*.

<sup>6</sup> Idem: *egiteatik > egitetik*.

<sup>7</sup> Ostean aldatuta: *itxirik > sarturik*.

<sup>8</sup> Ostean zuzenduta: *etxun > etxunik*.

<sup>9</sup> Jatorrizkoan: *ba*.

nengoa, baña ez eben uste izan aberatsak anbestekoa zanik. Il zan pobretxua, ta joan zan Zerura; il zan aberatsa, ta joan zan Infernura. Eta zegatik? Uste izanik pobretxu aren premiña ainbestekoa, baña alan izanik, ta aren premina sokorridu biarreko obligazinora uts egin ebelako. Eta ezta jazoko gaurko egunian beste ainbeste aberats askogaz, ainbeste pobre ikusirik are[e]n nezesidadia kendu biarrian, gogorturik limosna egin bagarik gelditu oi dirianakaz? S(a)n Mateok dirausku Juizijoko egunian artu deusela kontu estu bat gizonai limosniaren ganian, limosneruai<sup>10</sup> esango deusela: Erdue nire Aitaren bedeinkatuak, bada zuek gose izanik, jaten emon zeusteen, egarri, ta edaten emon. Baña biotz gogorrekoai: Zoaze madarikatuak, betiko surtera; gose izanik, ez deustazue jaten [emon], egarri, ta ez edaten emon. M[ateo] 25<sup>11</sup>. Erantzungo deutse biotz gogorrekoak: Jauna, noz ikusi gendun goseturik eta gelditu ginian jaten emon bagarik? Erantzungo deutse: Arako pobretxuak gosez ikusirik, are[eli] egin ez zeuntsana niri egin deustazue. Zer erakutsi nai deuskula Jesusek sentenzija one[e]k az uste izan ginai, ezpada Jangoikoak ondasuntsu biot[z] gogorrekoai artuko deusena, kontu ikaragarrikoa azkenengo kontuan limosnaren ganian? *Sitivi, esurivi...* "Gose nintzan, egarri nintzan, bizilekurik ez neukan, billozik, gaixorik nengon", onelan berba egiten deusku Jesusek Ebanjelioan. Ez dino "iltzen nengon, azkenengo preminan nengon". Eta orregatik, premina onetan ikusirik limosna egin ez ebenari dirautso iges egin dagijela Infernuko surtara, nondi ikusten dan limosna egiteko obligaziñoa dala pekatu mortalen bekoa, ez bakarrik eriotzako premina azkenengoan pobria dagoan, baita bere premina grabian eta ainbesteko ez danian bere; bada, onelan ez balitz, ez leuke zematuko betiko Infernuagaz. Etzaite izan, pekatarijak, arako aberats gogor Lazarori preminan limosnarik egin gure ez eutsen lezkoak, S(a)n Lukas 12<sup>12</sup>, zeinek bere buruari esaten eutsan itsuturik interesen<sup>13</sup> kodizijaz: zer egingo dozu ainbeste ondasunegaz? Zer egingo dot?, esaten eban. Zer egingo dozun? A zorigaiztokoa! Kudzizjak itsutua ez bazengoz, bazenduan zetan enpleau zeure ondasun orre[e]k, eta bizitzia luzeturik eriotza on bat erein eukizuen, baña galdu dozu guztija zeure gogortasunagaz, eta orain ikusten zara ur-tanta bat nok emon ez dozula ao madarikatu ori ezatuteko, Lazaro pobriari miseri-jaz beterik ikusirik emon gure izan ez zeuntsalako. Zenbat dirian gaurko egunian aberats zorigaiztoko onen lagunak, ainbeste ondasun izanik,

<sup>10</sup> Osteen aldatuta: *onai* > *limosneruai*.

<sup>11</sup> Osteen erantsitako iturria.

<sup>12</sup> Idem.

<sup>13</sup> Osteen zuzenduta: *interen* > *interesen*.

ugari pekatuetako izanik..., pobriai biarbada miserijen ilten isten deutesnak!

## SEGUNDA PARTE

Zemakuntzaz beterik dago Eskritura Santua aberatsen kontra; eta limosnia da zemakuntza onetatik libradu leitena, onetati ez bakarrik beretzako ona ateretan dabela, baita bere pobria beragaz bardindurik moduren baten ifiniten dabela. Errazoa andijagaz dei egiten deutsee Ebanjelijoak<sup>14</sup> aberastasunari gaiztakerijaren tesorerua, *mamona iniquitatis*, askotan deungaro irabazijak izan oi dirialako, tratu gezto eta pekatuzkoak onetarako egiten dirialako<sup>15</sup>, pekatuak bidea emoten dabela deungaro usadurik munduan, baita bere pekatuaren lakijo ta okasinoak dirialako euren amudijo larregijagatik. Pekatua egon doa eurek irabaztean, euren usuan, baita bere eurekganako amodijo larregijan. Ze erremedijo, ondasunok pekatu onetatik garbituta ifiniteko? Aberatstuteko milla modu dira: engainua, lapurretia, tratu gezto eta beste asko. One[le]ntzat ez dago beste erremedijorik, zein dan biorkeria. Eta zelan biortu nori kendu deutsezan eztakijenak, ez izanik limosnati? Non izango litzateke aberats one[le]ntzako salbazinoen esperantzarik, euren limosna ta karidadiak garbituko ez balitu irabazi one[le]k euren arimetan egineko kaltiak?, dino S(a)n Juan Krisostomok. Izango litzatekez ez bes-tetarako ezpada lenez ganera pekatuen zeboan sarturik euren kondena-zinorako instrumentugarri. Dakus Jangoikoak asko diriala, baita neurri-bagiak, munduko pekatuak, iñoz baño peliburu geijago egonik eurek gordetako ta iñoz baño egarri andijagoa irabaziteko. Gaur da eguna inozko geijen aberatsak oneik deungaro usaurik pekatuak geijen egiten dabena. Au dala medijo gaur ikusten dira pobre geijago leku guztijetan iñoz baño, eta ikusirik ezin pekatarijen biotzetik ondasunen kudizija kendu dabela, ainbeste pobre begijen aurrien ifiniten deuskuz, one[le]k aurrien ikusirik, limosna errukiturik egin dagijen, ta ostian pekatuetan gastaduko zeukiana one[le]tan gastadugaz pekatu gitxiago izen dagizuen, ta zuen ondasunek euren benetako destinue izen dagijen, baita garbitu pekatuen mantxatatik. Eta benetan, zer gauza andijagorik limosnia egitia baño? Berau da pekatuak kenduten dituzena, Kristinauen obligazinoak ondo jago[n] ereiten dituzena; berau Zeruagatik ondasun one[le]k aiztu ereiten dituzena, ta proximua ondasun guztijak baño maitetuagorik, Jangoikoen agindu santuagaz jagoten dabena.

<sup>14</sup> Ostean aldatuta: *Libru Santuak > Ebanjelijoak*.

<sup>15</sup> Idem: *dituezala > dirialako*.

Gauza agirija da ondasun andijak olgurazko bizitzarako lagun egiten dabela, ta pekaturako bere eskubide g[el]ijago emon daroela. Baña Kristinau prudentiak jakinik Zerua dala bere errija, eta au aberats izanik ezin limosna bage irabazi leijela, zabaldu daroaz bere ondasunak, eurekaz pekatuak garbiturik izen ditezan Zeruko giltzak, mundu onetatik urten dagijenian aurkitu dagizen bertako atiak zabalik ur eder atan sartuteko. Baña aberats karidaderik ez dabenen arimia da arako mendi siku ta itzelen irudikoa, bakarrik urregorrija baño besterik emoten ez dabena, alde guztijetati area ta atx ikeragarritz beterik, ez bedar ez arbole bakoa, onetarako biar leuken humedade guztija bere biotzian dauken urria gorde-tan igoroten jakona. Ez da onangoa limosnerua, ezpada alde guztijetati karidadiaren euri santuak botarik, anbaste limosnaren frutukaz bizturik Zeruginokoak beraganduten dituzena. Pekatuz beterik zagoz? Egizu limosna ta obligaduko dozu Jangoikoa zugaz miserikordija eukitera. Itanduten dau Ezekielek: Zein zan Sodomatarre[n] pekatua? Eta dino: Soberbija, gula, olgurazko bizitza luxuriosoa. Baña onen ganeti, diño Profeta onek, pobrientzako gogorak ta...



**[GORROTOA]**

Viva Jesús

*Ego autem dico vobis: Diligite inimicos vestros,  
benefacite his qui oderunt vos. Mt. 5, 44*

Gaur, neure aditzalle maitiak, nator Jangoikoaren Lege Santuko Mandamentorik andienen batian gañian itz egitera. Iñoz biar izan badot Jangoikoaren aparteko grazia ta laguntasuna, ez iñoz geiago gaur baño, zerren natorren gorrotodunen ganian itz egitera, iñondik ere ezin alkar ekusirik dabilztenen ganian itz egitera, nondi alkar galduko duen eta gaxkik andiena alkarri egingo dioen, gorrotoan bizi diranak pakian ipini nai izatera. Baña, zer biarko ez da onetarako? Nork bigunduko ditu arriak bezela gorrotoan gogorturikoen biotzak? Nork siñastu ereño alkar ezin ikusirik dabilztenai, alkarri parkaturik pakian bizi biar diriala? O zeñ filosofia ikasten gaitxa gaurko sermoia ezin kontala pekatarienzako! Baña gauza biarra salbaduko badira.

Beste pekatari modu guztietakoak, nai Seigarrenian sarturik, nai Zazpigarrenian lapurretaz ondaturik, nai beste diran moduko pekatuz betiak egonagatik, ikusten dogun misinoiko denporetan okasiñoak urraturik, ostuak biorturik, da beste ganekoak deseginik, negarrez biotzak urraturik graziaz betiak, eta pekatuetatik garbit[ul]ak geldituten diriala; baña ez onela gorrotodunak. Gorrotodunakin<sup>1</sup> jazoten da arriakaz euria danian jazoten dana, azaletik busti arren, ez bigundu; eta iñozko alditan zerbait bigunduten asiten badira, laster lenera edo deungagora biortuten dira. Orregatik, ondo pozik itxiko nioke gaurko sermoiarri eta jarraitu beste bati. Baña ikusirik neure opizioak eskatuten dabela, baita asko pekatu onetan jausteko peligruan daudenak jausi gabe gelditu litezkiala, eta anima bakar bat baño ezpada ere gorrotoan egonagaitik Jangoikoen graziak ukaturik santutu leitiala, anima bakar onegatik baño ezpada ere, pozik artuko dot arratsalde onetako nekeak, siñasturik Jangoikoak neure pekatuen deskargurako artuko deustala.

---

<sup>1</sup> Alternantzia: *gorrotodun / gorrotudun*.

Bai, gizon gorrotoduna, enbra bengaia, zure amudioz errerik, zu Zeru(...) (...)gatik, Kurtz(...) tormentorik andienetara (...)tra(...) dira (...)zure proximuari parkatuteko, eta baldin egiten ezpadozu, zuri ere pekatuak parkatu ezingo jatzuzela. Eta zure biotzari añ neke andia Mandamentoau egiten bajako ere, agindua da Mandamenturik santuena, dalako Karidadeko birtuteren ezaugarririk onena. Eta neke andiko zuri egiñagatik, agindu leikezu Jangoikoa dan partez, Aita dan partez eta Jueza dan partez. Jangoiko<sup>2</sup> dan partez, izanik guztioen Ja[ul]na, justu dalako gure borondatiak bere aginduari obeditia. Aita dan partez, ez beti gauza ariñak, baita noizbait gogortxuagoak agindu leikeguzalako, aita batek bere humiak<sup>3</sup> maite izanagatik egin daroan bezela, ez beti bigunak, baita ere gogorak, etxia ondo ibiliko bada, biar izaten ditu. Eta zer munduko guraso batek bere etxe ta fameliaren onerako egin daroan eskubidia ez dau eukiko, guztien guraso eta amodioso dan Jangoikoa-aren Semiak? Bai, beñtzat. Eta Jueza dan partez, agindu leikegu bere aginduak egiten badoguz, Berak bere guri pekatuak parkatuko deuskuzalako, edo au opa deuskulako.

Alperrik, bada, gorrotudunak esan gurako dabe Israeldarrai atxiña Jangoikoak esaten eutseela "maite izango dozu zure ongillia, ta gorroto eukiko deutzazu gazkilliari". Bada, S(a)n Agustinek guziz ederto esaten deusku etzala au Jangoikoak lelengoko gizon edo gure gurazo Adani emon eutsan Legia, ez-da ere Moises Santuari Sinaiko mendian Amar Legeko Mandamentuak arrizko ol gogorretan eskribidurik anbeste tximista ta trumoiren erdian emon eutsanian. Ez, ezpada au izan zan Judeguen Legeko Fariseoak edo Jakintsutzat<sup>4</sup> eukezanak asmauko gauzia. Uste izan eben Jakintsu arro arefe]k, agindurik Jangoikoak Legian proximuari ondo egiteko, eskubidia emoten eutsela kaltegiiliari gorroto izateko, kaltegiiliak proximutzat ere ez artzeko. Baña etzan au Jangoikoak gure guraso lelengokoai agindua, ezpada Legeko Jakintsuak euren modura asmauba. Orregatik, Jesukristok agindu ebenian arerioai parkatuteko, kaltegiiliari onagaz erantzuteko, ez euskun ipini len gizonari ipini ez jakon lege barririk, ezpada barriztadu eban lelengoko gizonari eman jakana, ta gero euren maliziaz aztutera etorri. Orregatik, (...)errik, bada, gorrotodunak euren gorrotoai jar[rail]tu gu(...) (...), [Parkazi]ñoko M[a]ndamentua bakarrik kontsejuzkoa dala esan gurako dabe. Jangoikoa-aren agindua da Jesukristorena. Jauna, nik ez deusat okerrik opa, diño bestiak. Baña ez da ori asko, maite izan biar dozu zure proximua; eta

<sup>2</sup> Ostean aldatuta: *Aita* > *Jangoiko*.

<sup>3</sup> Jatorrizkoan: *bume*.

<sup>4</sup> Geuk zuzenduta: *Jakintsutzak* > *Jakintsutzat*.

au bere orandik ez da asko, on egin biar deutzazu zure arerioari, edo okasiñoak ala ekarriko baleu, ondo egiteko bidean zure biotza euki biar dozu. Ori, Jauna, nik neure biotz argalagaz egin al neikian baño geiago eskatutia da. Ori bere biotz gogorreko ta gorrotudunen atxakia labur bat da. Ondo dakigu gure biotza zeñ argala ta okerrera griñaz betia dan, baña Jangoikoak ez deusku eskatuten gure biotz argalagaz bakarrik egiteko, ezpada bere graziaren laguntzeagaz, zeñ iñori ez deuszen ukatuten berari benetan eskatu gurarik. Orregatik, arako Kristinau onak Jangoikoen agindua dalako beste bagarik parkatutera etorri oi diranak, dira Zerutiko ta Espiritualak; baña atxakiaz beterik gorrotoan bizi diranak, lurrezkoak eta karnal edo aragizkoak. Parkatzalliak Jesusen antzekoak, gorrotzaliak Diabruaren antzekoak.

O zenbat atxakiagaz Mandamentu onetatik iges egin gure izaten daben gorrotodunak! Jauna<sup>5</sup>, esaten dau batek, anbestekoa da neure biotzian ezaututen dodan oztasuna eze, ezin iñondik bere berotu naz parkatutera. Ak niri egiñeko kaltiak, neroni egiñeko negarrak, niri asmauko falso testimoniak, ezin aztu ditu neure biotzak sentimentu one[elk]. Ordu onian izan bitez justuak zure sentimentuak, ez jakoz igaroten orre[elk] Jangoikoari; orre[elk] guztiok ondo ezautu zituzen Jangoikoak Mandamentoau ipiñi orduko, orregatik Jangoikoaren agindua da. Egizu beragatik, Berak osatuko dituz irabaziagaz zure sentimentu, kalte ta ganekoak. Jangoikoak asko biderretan gere pekatuakgatik merezi doguzan kastigu andiagoak, proximuen gure kontrako oker gitxi batzuzkaz bardindu gura deuskuz. Ezautuko bagendu Aita dala guri oker one[elk] biralduten deuskuzana eta pazienziaz igarorik irabazi andiagaz geldituko gariala, beste modutan proximuen okerrak artuko geunkaz. Baña ezauera palta onek eta Jangoikoaganako amodio epelak dakarri-guz one[elk] guztiok.

Baña, Jauna, zer munduak esango dau parkatuten badeutsat? Kristinau ona zariala, ondo egiten dozula, eta orregaz beste askori bere beste anbeste egiteko bidia emoten deutzazula. Eta alan egin nai ez bada-be, an konpon dabela, zuk Jangoikoaren agindua eginik salbauko dozu arimia, munduak esan al daienari begiratu bage. Jauna, nik ori egiten badot, ezereztat artuko nabe. Ai bada, pekatari biotzekoa! Ezautuko bazendu ori dala enemigoen sarea m(...) bat anbeste Kristinau ontzat munduak (...) tentaziñozko atxakia orretatik, deretxat iges egingo zeunkiala. Kristinau guztiak jakinda egon biar gara gure kreitu ta ondrarik onena daguala Jesukristoren antzera parkatutian, eta ez Judegu gaiztoen

---

<sup>5</sup> Idem: *Juana > Jauna*.

modura gorrotoagaz erantzutian. Zer erantzuten dabe Jesusen doktrina onetara, euren puntuaren atxakiagaz, gat[x] erdi bategatik proximua negarrez ostikopean, berba erdi bati milla injuriagaz, gorrotoan orditurik, itsuturik zer egiten, besteren odola al baleie txakur edo otso gosiak legez bizi dirianak? Auxibide bageko kerella ta bengaiä beste pentsamentorik ez dabenak? One[elk, eta one[en irudikoak otso gosia ardien odolena gosez legez, ez Jesukristoren ardi, bai Diabruaren otso egiñik bizi dira. Ez dabe izango parterik Jesusegaz Eternidadian, sekula aren irudirik izan ez ebelako. Beragatik, ez dago atxakijarik gorrotudunen-tzat, edo parkatu edo kondenadu.

Ez da askok uste daben besteko gogorra parkaziñoko aginduu. Jangoikoaganako amodio paltiak gogor egiten dau. Egia da gorputzeko inderrakaz edo begiak[az] begiraturen badeutsagu, gogor egiten jakola gure biotzari, ezin, onelan begiraturik, gure biotzak billatu dabelako gozotasunik bere kaltegiñari on egiteko, ezpada samintasun bat biotz guztia ozpinduten deitsana. Baña, zer uste dozue Jangoikoak egiten dabela gure biotzeko samintasunau gozotuteko? Bera bitarteko ta enpeñutat ipiniten da zure arerio ta zure bitartian, eta esaten dizu bere enpeñua dala eta parkatu deiozula, zu bere parkatu biarreko premian ikusiko zareala, biotz bigunekoak Jangoikoaren seme atsegiñak diriala, Zeruko zorionak eurai oparik dagozala. Ez deitsu eskatuten egin dagizula esan au eurak onak dirialako, ez-da bere eurek<sup>6</sup> merezi dabelako, ezpada Jesusen enpeñua Aita Zerukoena dalako.

Modu onetan obligadu eben Jakob Patriarkaren semiak euren anaia Jose tra[i]ziñoz diruakgatik ta gorrotoz saldu ebena txikitxutan, euren kontrako aserria kendutera, ipinirik bitarteko enpeñu beren aitaren esana, modu onetan esaten eutsela: Zure aita ta guriak emoneko enpeñu bat dakargu, zeñ dan, arren, guk zuri egindako okerren gomuta guztia aitzu dagizula. Aditu zituanian Josek Egipton bere aitaren enpeñuko berbak bere anaiaren bidez, etorri zan ez bakarrik parkatutera, baita bere euren oker egiñetik eskusau gura izatera, esaten eutsela: Ez, neure anaiak, ez zare zubek izan ni saldu ninduzuenak, Jangoikoa modu onetatik ibilli da, Bera izan da nire onerako au egin daben[a]. Beragatik, ez bildurtu, ez dau subset<sup>7</sup> gatxik egingo; ekarri ona neure aita, zuben ume<sup>8</sup> ta emaztiak, zuben ganadu ta guztiak, nik emongo deitsubet bizi izateko bidia. Onelan, negarrez amodiozko laztan gozoz biraldu zituben Josek bere anaiak.

<sup>6</sup> Idem: *euren* > *eurek*.

<sup>7</sup> Idem: *dautsubset* > *dautsubet*.

<sup>8</sup> Ikus 3. oharra.

Zeñ zorionekoa [proxim]muakgandiko okerrak Josek bezela artuko bagenduz<sup>9</sup> Jangoikoak biralduko mesedetzat, nondik irabazi andiak egin giñazen! Au da, bada, gaur nik zubekgandik atera nai dodana, arefelk euren anaia aserrerako bidia emon eutsena bigunduteko baliau ziriana legez aita bitarteko ta enpeñutzat ipintera, alan nik bere zubei aserrerako bidia emon deustubenai aserriak kendurik, parkatutera etorri zaitezzen Aita Zeruko enpeñua dakart, etorri zaitezzen zube bere aren modura zubei oker egin deustubenai parkatutera. Ez dot uste Zeruko Aitaren enpeñura bigunduko etzarella, biotz gogorragoak Jose Justua bere aitaren enpeñura izan ziran baño izango zareala. Zorionekoak zube, sentimentu guztiak Jesusen oñetan itxirik, bere enpeñu ta agindua dalako egiten badozue. Zuk biarbada beñ baño geiagotan zure pekatuen anditasunez bildurturik esan dezu zure artian: zer egin ote nezake nere pekatuen parkazioa irabazitzeko? Zer? Nik esango dizut. Zuade, parkatu zure arerio okerrik geien egin dizunari. Au da biderik onena pekatuen parkaziora Jesus maitia obligatzeko, zerren ez dago gauzarik Jesusen biotza gureganatzeko proximuakin karidadezko birtutiau baño, bada, onetara ez gaitu ekarten beste gauzak Jangoikoaren aginduari diogun errespetoak baño. Bide onetatik obligatuko dezu graziaren txatar santoak zure biotzian erretzera, eta grazia oni zuk lagundurik bake santo batzuk berarekin zugazko egitera.

Ez dakit, N(ere) A(ditzallia)k, zube ondo aditzeko bestian esplika-tu banaz, eta baldin añ ondo erakutsi ez banaz, beste modu baten orañ erakutsiko naiz. Ezin batek munduan izan leike atsegin andiagorik, benetan Jangoikoak maite dabela jakitia baño. Eta jakiteko Jangoikoak bat benetan maite dabela, ez dago gauza obeagorik proximuari<sup>10</sup> okerrak parkat[z]ia baño, zergatik onetara ez gaitu bestek ekarten Jangoikoaren aginduari diogun errespetoak baño. Eta egiaz, zer atsegin andiagorik<sup>11</sup> batek izan dezake, benetan Jangoikoa maite dabela jakitia baño? Bere biotzak esatia bati: nik mundu guztiagatik Urliari parkatuko ez niona, Jangoikoagatik parkatzen diot. Zer atsegiña bati biotzak au esatia! Ordea, gure okerrak guziak datoz Jangoikoaren agindu oni begiratu biarrian, gure proximuaren okerrari begiratzetik. Emendik ez bakarrik aiek-galtik] guk deungaro esatia, baita ere guztia gaizki esan dezen nai izatia. Au da anbeste anima galtzen dituana. Zuk, pekataria, ezin inondik igaro dezu zugatik bestiak okerrik txikien bat esatia, zu ordu guzietan Jangoikoa openditzen bizi zera. Zuk nai dezu zuri pekatuak parkatzia;

<sup>9</sup> Ostean erantsita: *artuko bagenduz > Josek bezela artuko bagenduz.*

<sup>10</sup> Geuk zuzenduta: *proximuarik > proximuari.*

<sup>11</sup> Ostean erantsita.

onetarako Jangoikoak eskatzen dizu proximoari<sup>12</sup> parkatzeko, bada, zuk nai izanik zu parkatua izan [zai]tiala, eta onetarako kondiziotzat Jangoikoak eskaturik zuk (...) (...)tzeko, nai ez badiozu parkatu<sup>13</sup>, zure pekatuen kondenatzioa eskatzen diozu, Jesukristok Ebanjelio Santoan esaten digun bezela.

Jesukristok esaten digu S(a)n Lukasen Ebanjelio Santoan, errege batek bere maiordomoari kontuak eskatu zizkala, eta ezin kontu onik emanik, txit artzeko andiak egin ziozkala. Baita nai izanik anbat lasterren pagatzia, agindu zuan bere interesetatik pagatzeko, eta baldin bere interes guziak asko ezpaziran, emaztia ta umiak<sup>14</sup> saltzeko eta aien saria-kin osatzeko. Ekusi zanian maiordomoau estura onetan, negarrez joan zan Erregeen aurrera, eta belauniko<sup>15</sup> jarririk eskatzen zion, arren, berarekin miserikordia egin zezala, denpora eman zeiola eta guztia pagatuko<sup>16</sup> ziola. Onela negarrez ikusi zuanian, Erregeau urrikitu zan, eta ez bakarrik itxadon, baizikan guzia parkatu zion. Ordea, zer uste dezube gizon eskergeaitoko onekin gertatu zala? Apenas miserikordia artu ta jai-ki zan, orra non bere maiordomo lagun bategana presaka joan zan, eta berari zion artzeko txiki bat gogor eskatu zion. Erantzunik be[re] maiordomo lagunak, arren, denpora pizka bat eman zeiola, guztia pagatuko ziola, bere biotza gogorturik ezetz erantzun zion, eta gogortade paregabiaz justiziariku emanik, aguazilen eskuetatik karzelan para zuan preso zorra pagatu artian. Eta beste beren maiordomo lagunak jakinik zer igaroten zan, parte Erregeri eman zien. Aditzean Erregeak sierbo gezto onen gogortadea bere miserikordiaren aurrian, txit aserraturik deitu zion eta esan: Gizon biotz gogorrekoa, etzan arrazoia nik zurekin miserikordia izan dedan bezela zuk ere zure lagunarekin izatia? Ez dezu zuk merezi miserikordiarik, paga nazazu zor guzia, eta bitartian eskuak eta oñak katiatz loturik joan zaitia preso. Errege onek maiordomoarekin gogor<sup>17</sup> egin zuana, dio Jesukristok bere Aita Zerukoak egingo duala; berak zor andiak izanik eta parkatua izan dedin nairik bere proximuari parkatu nai ez dionak, ez miserikordiarik, eta bai kastigo ta justizia bere ganera etorriko dala, eskuak eta oñak loturik betiko Infernuko karzelan egon biarko duala.

Zu, pekataria, zera Zeruko Erregeren maiordomoa, bere ondasuntegiko interes guziak zure eskuetan ipini dituana, eta Berak zuri egindako

<sup>12</sup> Alternantzia: *proximu* / *proximo*.

<sup>13</sup> Geuk zuzenduta: *parkatu nai ez badiozu parkatu* > *nai ez badiozu parkatu*.

<sup>14</sup> Ik. 3. oh.

<sup>15</sup> Ostean zuzenduta: *beniko* > *belauniko*.

<sup>16</sup> Geuk zuzenduta: *parkatuko* > *pagatuko*.

<sup>17</sup> Ostean erantsita.

mesede ta interesen kontu eskatzen dizuna, eta errege Ebanjeliokoren maiord[omoak] baño ere kontu okerragoak dauzkatzuna. Zeruko Errege<sup>18</sup> zu nondik (...) izan naz, eta esker onakin erantzun biarran, nere kontra jagi ziñan, eta nondi nere zurekiko miserikordia agortuko dezun bizi izan zera. Orregatikan nik zu kastigatzeko eskubide andia idukirik, ekusi dezu nola guzia parkatu nai izan dizudan. Zer gogortasun da, bada, zuria, nik zuri anbeste parkatu nairik, zuk zure proximuari parkatu ez [el]iteko? Ez dezu zuk biar nere miserikordiarik izatia, baizikan eskuak ta oñak loturik betiko Infernuan pagatzia. (Eta parkatzalle egiazkoa Jesukristoren promesak beste guztien gañian onetara obligatu biar badu ere, Mandamentuau gordetziak orañdik emen munduan ere atseginez betetzen du.) Ez degu ere<sup>19</sup> munduan gauzarik gure biotza geiago atsegiñez betetzen duanik, gorrotoak kendurik parkatzia baño. Atsegin santoau ezautu due, ez bakarrik Kristao biotz bigunekoak, baizikan Jentil fedebagiak. Oiek arrazoe utsarekin etorri ziran ezautzera ez zeguala gauza nobliagorik, proximuari bere oker egiñak azturik parkatzea baño. Eta Jentil pedebagiak<sup>20</sup> arrazoe utsarekin, erlijio bage egitean gauza noble, atsegin eta gure biotzari bitoria andi bat irabazitzia ezautu badue, zer egin biar ez due Kristao fededunak? Zer bere iltzalliakgatik parka eskatzen ikusirik<sup>21</sup>?

Biarbada gorrotodunak esango due: Nik pagarazitzen badiot, nere kreituari begiratu ez diot. Eta zer? Jesusen agindua egitiagatik kreitua<sup>22</sup> galduko dezula uste al dezu? Ez arren uste izanik, ori erantzuten due gorrotodunak; ordea, ez du iñork galdu kreiturik proximuari parkatziagatik. Izan zan Jesukristo zure beste kreitukoa? Galdu zuan ezer parkatzegaz? Ez, beregatik Aita Zerukoak erten zuan bere Semeren kreitura, eta pizturik guztien Juez egin zuan. Izan zan Dabid zure beste kreitu ondreakoa? Bai. Eta galdu zuan ezer parkatuarekin bere persegitzalliar Sauli? Ez, ezpada irabazi andiak. Mesede andiak Dabidek Sauli egin ziozkan: berak il zuan Goliat gigante bildurgarria Israel guztiak ikaraz eukana, berak] garbitu eben Erreñu guzia etsaiakgandik, berari zor ziztaion bake guzia. Oiek guziok eskatzen zebe esker onarekin erantzutia Dabidi; ordea, esker geztoa besterik ez zuan izan. Beñ il nai izan zuan lantza gogorragaz, eta denpora luzian mendirik mendi soldadeska-

<sup>18</sup> Ostein aldatuta: *Ni beti > Zeruko Errege*.

<sup>19</sup> Ostein erantsita.

<sup>20</sup> Alternantzia: *fede / pede*.

<sup>21</sup> Geuk zuzenduta: *Zer ikusirik bere iltzalliakgatik parka eskatzen ikusirik? > Zer bere iltzalliakgatik parka eskatzen ikusirik?*

<sup>22</sup> Idem: *kriatua > kreitua*.

rekin persegi[iltua izan zan. Anbeste persekuzio ta guzia ere, nai izan balu, etorri zitsaion okasioa Saul ilteko; ordea, ez zuan il, eta il zala aditu zuanian sentimentua erakutsi zuan, eta beragatik lutua jantzi ta baruak atera zituan. Eta zer kreitu galdu zuan Dabid[lek] bere persegitzalliarri au egiñarekin? Ez galdu, bai irabazia [a]rtu zuan, zerren beragatik munduaren Erredentoria bere odoletik jaiotzia mer[fez]li izan zuan.

Zer galdu zuan S(a)n Estebanek arrika ilten zeudenakgatik orazio egitiaz? Zeruak zabalik, Añgeruak bere zai ikustia ilten zanian (...)ra er[am]lateko. Zer galdu zuan S(a)n Juan Gualbertok (...) Iraba[zi a]ndiak. Baña au ez bakarrik Santuak, baita ere Santu izan ez diran Kristao hondradu askok egin dabe. Alfonso Españako Erregiak ez eban ezer galdu bera traiziñoz ilteko asmuagaz atrapau eben moro bati parkatuagaz eta ondo eginagaz. Uste izan eben jeneral, ofiziale eta ganeko soldaduak eskarmentu bildurgarriren bat egingo ebala, baña ez il, ezpada ondo gorde ondo arturik, etorri zan Kristinau izatera Batio Santo arturik. Orandik neure ustez andiagoa Italian señore prinzipal alargun batek egin ebana. Bere lagun oker batek il zion<sup>23</sup> bere seme bakarra, eta justiziak persegidurik zer egiten ez ekiala, sartu zan il eben lagunen etxian. Ez da erraz erakutsiten zelako biozketia artuko zuan amak ikusirik bere seme bakarren iltzallia. Zer egin ez jakinik, edo justiziari entregau edo parkatu, joan zan Santo Kristo baten oñetara eta erakutsirik bere esturia, esan zion zer egin<sup>24</sup> biar ote zuan. Eta orra guzia bere semeren iltzalliarri parkatuteko indar eta aparteko grazia ikusi zan, eta ezkutaurik edo gorderik justiziaren eskuetatik, iges erañ zion beste erreinu batera bere kostuz. Bitartian alkantzau eban parkatuteko eta ondasun andien erederu egin eban. Benetan exenplo andia eta Kristinau zekenak lotsatu biar dituen. O emakume, parkatzean Jesusen iduriko zeñ gloriak betia ikusten zaitudan gloriako Erregeren aurrian eternidade baterako!

Parkaziñoko Mandamentoau ez bakarrik da arimaren onerako ipinia, baita ere da gauza biarra mundua ondo bakian gobernauko bada. Bakotxak eukiko baleu eskubidea bere gura daben bezela bere etsaia kastigatzeko, justiziak eskubiderik izango ez luke okerrak kastigatzeko; gizonik hondradu ta prestuenak beti gizon galduen oñ azpian ibilli biarko leuke, eta jarraiturik bakotxak gorrotozko lege geztoari, beñgoan mundua lenez gañera galduko liteke. Ezaturik Jangoikoak zeñ oker andiak etorri biar eben bakotxak bere eskutik justizia egiteko eskubidia gizonai ematen bazitzaion, oker oiek kentzeko, munduko gobiernu

<sup>23</sup> Ostean aldatuta: *il eutsan > il zion*.

<sup>24</sup> Geuk zuzenduta: *egian > egin*.



onak eskatzen zuan ez eukitia eskubiderik nai zeben bezela justizia egiteko. Beragatik, guztiz ondo aginduko<sup>25</sup> legia da au, zeñetara obligatutzen gaituan arrazoiak, konzienziak eta munduko goberno onak. Parkalari onentzako asko da jakitia Jangoikoen agindua dana beste bage gordea izan deitien. Eta zuri, gorrotuduna, Mandamentoa gogor egiten bajatzu bere, Mandamentoau beti izango da santua, eta ezingo zera salbadu, ez ortik etorri jatzuzan kalteren atxakiaz, ez kreituari begiratu biar deutzazunagaz. Zu besteko kreitukoak ori egin dabe, zuk ere egin deza kezuz. Bai, gorrotodun biotz gogorrekoak, sentimento andi bat daukat neure biotzian, zuben munduko puntuakaz Jesusen agindurik egiten] ez dozuelako eta galduak izango zareela ikusten dodalako...

---

<sup>25</sup> Ostean zuzenduta: *agindu* > *aginduko*.

## [ESKER ANDIAK]

*Sicut Moyses exaltavit serpentem in deserto, ita exaltari oportet filium hominis. Ut omnis qui credit in ipsum, non pereat, sed habeat vitam æternam.* Ioan 3, 14-15

Eskerrak Jangoikoari, bada, etorri arako zorionez beterikako eguna anbeste Patriarka Santok anbeste suspiriorekin deseatu zubena. Egin da gure erredenzi[ola, ja urratu dira guri pekatuak para zizkigun katia gogorak. Baña, zenbat kostatu ez da gure libertadeau? A! Ez naiz ni kapaz au erakutsitzeko. Nik baxen obetuago erakutsiko dizue Kurutze orretan anbeste penaren erdian<sup>1</sup> defuntu eginik dagoan Jesusek. Irikizazue kortina ori ikusi dezagun zeñ sari andia Jesusek eman biar izan duen gu libratzeko. Norena da añ negargarrizkoturik ikustsen degun figura ori? Nere aditzailliak, au da arako Jesus Mariaren Semia, Nazaretko Profeta andia, itzetan eta obretan añ poderosoa illak piztu eta gaixo guztiai osasuna ematen zioena? Au da arako elemento guztiak obeditzen izan die-na? Au Zeruak eta Lurra bere esku poderosoarekin fabrikatu zituena? Abran, Moises, Dabid, Daniel eta beste antxinako Patriarka eta Profetak ikustsea deseatu zuena? Au Jesukristo betiko Jangoikoa Aita Eternoaren Semia? Au Espiritu Santuagandik konzebitua eta bere etorrerakin munduaren Salbadoria?

O gizon ta angeru guztien pentsamentora sekula onelakorik etorri ezin zeitekian misterio arrigarria, eta biar bezela inola bere gizonak korresponditu ezingo duena! Beñ baxen geiagotan Jesusek berak esan zuan konbeni zala Bera Kurutze batera jasotzia, Moisesek sugarrasta desiertuan bezela, onela sugarrastak janak sugarrastari begiraturi[k]<sup>2</sup> osatzen ziran bezela, ala Jesusi Kurutzean begiraturik osatu zeitezen pekatuan sugarrasta[k] guri egindako zauriak. Eskritura Santuak esaten digu Israeldarrak anbeste bitoriagaz Jangoikoak beren etsaietatik libratu bazituen ere, arako bidian zerbait nekatuak ikusi ziranian, murmuratzen asi zirala Moises eta Jangoikoen kontra, eta esaten zuela: Zergaitik aterra gaituzu Egiptotik desiertu onetan iltzeko? Ogia falta degu, urikan ez

<sup>1</sup> Ostein ezabatuta: *amodioz anbeste penaren erdian > anbeste penaren erdian.*

<sup>2</sup> Ostein zuzenduta: *sugarrastari begiraturik sugarrastaren janak > onela sugarrastak janak sugarrastari begiraturi[k].*

degu eta galdu biar degu janari faltaz. Eta aserraturik Jangoikoa erri eskergeztoko aren kontra, kastigatu zituben sugarrastazko plaga gezto batekin, arefe[n] janaz asko milla illik gelditzen zala. Eta bildurturik guztiak kastigu onekin etorri ziran Moisesengana, esaten zebela: Pekatu egin degu; arren, erregutu zaiozu<sup>3</sup> zeñ guztiok illak gelditu ez gaitezen. Errukiturik Moises, erregutu zion; eta aditurik bere eskariak, esan zion Jangoikoak egin zezala metalezko sugarrasta bat: Eta señaletzat ipinizazu<sup>4</sup> berari begiraturik osatuak gelditu ditezen berak janak. Egin zuan Moisesek metalezko sugarrastau, eta ipini zuan Jangoikoak esan zion bezela, zeñi begiraturik Jangoikoagan konpianza ipiniak beste bag[el] osatuak gelditzen ziran. Jesukristo gure Jauna Kurutzean da iduri bizia Moisesek desiertuan jaso zuanena. Presenta zaigu Kurutzeko arbola orretan, Inpernuko sugarrasta pekatuaz gaixotuak diranak Bera begiraturik<sup>5</sup> osatu ditezen eta betiko bizitzaz bizi ditezen.

Fede bizi bateaz joan gaitian Kalbarioko mendira gure amodioz errikerik, eta onek erakutsiko digu Jesus txintxilika illik Kurutze batian, arako il zanian eta Zeruak Jangoikoaren anditasuna erakutsi zigunian egon zan bezela, non erakutsitzen digun bere amodio eta miserikordia, eta justizia. Bi gauza<sup>6</sup> oen bidez fede bizi bateaz lagunduak<sup>7</sup>...

Fede biziagaz begiratzen dienak osatuak izango dira eta betiko bizitza izango due. Fede biziak eraman biar gaitu Kalbarioko mendira eta erakutsi Jesukristo Kurutzean illik, arako Zeruak Jangoikoen anditasuna, bere miserikordia eta justizia erakutsi zigun egunian egon zan bezela. Bere miserikordia eta justiziaren bidez fede bizi bateaz lagunduak badijoaz, kunplituko da gugan arako Jesusek egin zigun promes konsolagarria. *Cum exaltatus fuero*. Kurutze batera igoten dedanian eta Zerulurraren erdian paratzen naizanian<sup>8</sup> nere Aitak pekatuen kontra artu zuan aserria kentzeko, orduan guztiak nereganatuko ditut amudiozko señaile andi bateaz. Besoak zabalik, buru makurturik eta biotza idikirik konbidatuko ditut, eta amodioen indarrez nereganatuko ditut. Osatuko ditut pekatuen sugarrastaren [za]urietatik eta betiko bizitza emango diet.

Au berau da gaur gure Elixia Ama Santak nai duana Misterio Santo onen bidez. Bere zeremoniña guztiak datoz onetara, gure animako eta gorputzeko begien aurrian Jesukristo gure amodioz illik paratzera<sup>9</sup>, one-

<sup>3</sup> Geuk zuzenduta: *zaiuzo* > *zaiozu*.

<sup>4</sup> Ostein aldatuta: *jasozazu* > *ipinizazu*.

<sup>5</sup> Ostein ezabatuta: *begiraturik fede bizi bateaz* > *begiraturik*.

<sup>6</sup> Ostein zuzenduta: *Gauza bi* > *Bi gauza*.

<sup>7</sup> Ostein ezabatutako atala.

<sup>8</sup> Ostein zuzenduta: *paratu nadiñian* > *paratzen naizanian*.

<sup>9</sup> Ostein aldatuta: *illik gure pekatuen parkaziorako* > *illik paratzera*.

la gure amodioz illik ikusiarekin, gure biotzak pekatuen damu egizkoz prestatu ditezen Jesusen Erredenzioko frutu santuak artzera. Ea bada, pekatari biotzekoak, ez zaitezte gortu Jaun onen amodiozko deietara, ez gogortu bere justiziaren golpe gogorretara. Begira zuk, pekataria, zeñ andia dan zure pekatuen pisua, bada, zure pekatuak dirade zure Salbatzaillia dakutsun bezela paratu duenak. Eta arbole ezian santidadezko iturri bizian añ kalte andia egin badue, begira pekatuzko arbole ezian nolako egin izango duan. Begira zeñ esker andiak zor dizkatzun zu betiko penetatik libratziarren Kurutze orretan illik ikusten dezun Jesus maitiari. Pekatuen kaltetatik libratu zaituan Jaun orri zeñ asko zor diozun eta zeñ gitxi erantzuten diozun adierazotzia izango da gaurko sermoia-  
ren gaia.

## [SEIGARRENGOEN KONTRA]

Jesús, María y José

*Lætare ergo, iuuenis, in adolescentia tua;  
et in bono sit cor tuum in diebus iuuentutis tuæ,  
et ambula in viis cordis tui, et in intuitu oculorum tuorum,  
et scito quod pro omnibus his adducet te Deus in iudicium.*

Eccl. 11, 9

Olgaugizu, pekatarija, dino Jangoikoak, poztu zaite orain gazte zarion artian, zabiltz aragijaren gustu zikin ta zantarretan ondaturik, emongiozu gorputz orri gure daben beste<sup>1</sup> kontentu; baña jakinda egon zaite nire Juizio<sup>2</sup> itzalian ondo pagau biarko dozula. Jangoikoaren berbok zemakuntze andija adierazoten deuskue, aita batek bere seme bide onetati eztabilen bateri esango baleuzkijona legez "zabiltz, zabiltz, ardurara bagarik olgaugizu, gero egingo ditut nik zugez kontuak". Ai ze juizijo garratza gordeta dagokijon arako pekatari luxurijako pekatu loi bere zenzunginokoa kenduten dautsenian sartute dabilenari! Ze kontu gogorra eskatuko jakon arako gizon-da enbra Jangoikoaren eskutik urtenik lotsagarritzko pekatuen sarturik dabilenari, eta bere aragijari nai daben beste gustu emonik ezer ukatuten eztautsen bateri! Eta alan dirautso Jan(goiko)ak: Olgaugizu orain eskubidia dozun artian, baña nire Tribunalian ondo pagaduko dozu. *Letare etc.* Olgaugizu, bada, zure pensamentu guztijak, berba ta obrak, zure eskandalu guztijak, okasiño ta zuk besteri ereineko pekatuak, zure pausu guztijak, urteijera ta sarraijerak, zure begirakuna eta gorpetzeko mobimentoginokoa ondo eskribidurik dagoz, il zaitezaneko guztijen kontua artu dakizun. Eta zer gero zugez jazoko da? Jul[i]zijo ikaragarrija, kontu garratza eta besteai baño estuagoa, zenbat eta zure bizitzia eskandaluz betiagoa izan dan.

O neure Jesus gozua! Zelan egongo da zure Tribunalian desonestu bat bere begi loi ta luxuriosoak zure begi garbijen aurrian ifini ditezarian, bere ao ta min nasaijak zuriaren parian, bere gorputz ainbeste zikinkerija eginikoa zure gorputz beragaitik ainbeste azote eroanekoa-

<sup>1</sup> Ostean erantsita.

<sup>2</sup> Idem.

ren aurrian? Neke ta pena andijago emongo dautso pekatari bateri ainbeste pekatu loigaz bere aurrera agertu biarrak, Infernuko penak baño, dino S(a)n Jeronimok. Jeronimus c. 22<sup>3</sup>. Ezin miraritu bagarik itxi ginaikeez Jangoikoak desonestuen kontra egiten dituzan zemakuntzak ikusirik, ez bakarrik mundu onetan baita bestian bere, nozbait idigi dagijezan begijak ta urten pekatu onen lakijo geztotik. Ain gorroto andija deuto Jan(goiko)ak pekatu oni, ze ez bakarrik mundu onetan kastigu andijak bere kontra ifinten ditu, baita bere bestian, dino Jan(goiko)ak, Berak nekez parkatuko dituzela. Orregatik arrat[s]alde onetan nire sermoia puntu biten ifinirik esango deutsuet, bere kontra ifiniko kastiguetatik Lurrean, ta pekatuau parketako neketasunetik ezautuko dozuela<sup>4</sup> bere malizija. (\*)<sup>5</sup>

#### ABE MARIA

Pekatu onen anditasuna lenengo ezaututen da Jangoikoak bere kontra ifiniko kastiguetatik. S(a)n Jeronimok dino ez dala<sup>6</sup> sekula Jangoikoa ain garratz erakutsi beste pekatuen kontra, zeinda Seigarrengoen kontra. Au dala dino (Santu onek) Jan(goi)koa geien aserratuten daben pekatua; eta alan, ez dau sekula bere Justizijaren ezpatia atera ain erruki gixigaz, zeinda luxuriosoen kontra. Nor izango da kapaz erakutsiteko Jan(goiko)ak onefejn kontra biralduko kastigu arrigarriak? Eskritura Santura joan gura badogu, ikusiko dogu au izan zala arako pekatua zeinegatik Urijoliagaz ondatu eben mundua. Oneen kontra Zerutik Sodoma ta Gomorraren ganera biraldu eban suba, guztiz erreten zituala. Pekatu onegatik erre eban ta ezarri lurrera Sikengo uriya ta erreinua, bertako erregiaren seme nagosi edo prinzipiak naitanaiez zikindu ta loitu ebalako Dina Jakob Patriarkaren alabia. Madiango enbraren amodijo ez garbijan jausi zirialako Israelgo soldaduak, ermu edo basamurtuan ogeta lau milla soldadu ezpata agotik igaro zituan. Benjamingo probinzijako gazte loi luxurioso ta ez garbi batzuk eldu ziriala Lebata baten andra ezkonduagana, uste-uste bage jausi ziran illik ogeta bost milla bertako gizon. Dabid ta Salomonen luxurija ta eskandaluakgatik nekatu eben Israelgo erriya ezin esanezko bere pena ta zotin gaiztoz. Pekatu au egiten egozala illik gelditu ziran Zanbri ta Madiango dama nagosi bat. Pekatu onetan bere gustu loiya artzen egoala Jangoikoak eridu eban,

<sup>3</sup> Ostean erantsitako iturria.

<sup>4</sup> Ostean zuzenduta: *dozue* > *dozuela*.

<sup>5</sup> Atal horretako amaiera oharra: *Para misión no se haga caso del Ave M(ar)ía*.

<sup>6</sup> Ostean zuzenduta: *da* > *dala*.

onan illik isten ebela. Onegatik illak izan ziran zazpi Zararen senarrak demoninoen eskuetan. Pekatu onegatik il zituzan Jangoikoak Opini ta Finees sazerdote loi ta eskandaloso Helien semiak. Amnon Prinzipia, Dabid Erregiaren seme nagusija<sup>7</sup>, il eban konbitian Absalon bere anaijiak, loitu ebelako bere arreba Tamar naitanaiez gustu zikin bat bere aragijari emotiarren. Eta azkenez, arako Juez zar gezto bijak Susana garbija loitu nai izan ebenak, pekatu onen zariz izan zirian arrika illak erri guztijagandik. Baña, zenbat kastigu, eriotza ta beste zorigaizto eztitu biraldu pekatu onegatik Jangoikoak mundura? Guztijak, dirausku Eskritura Santuak izan zirala desonestidadiaren sarijak ta kastiguak. (\*)<sup>8</sup>

Irakurri daiguzan erreinuetako istorijak, eta negartu bagarik ezingo doguz irakurri, ikusirik ainbeste erreinu onegatik galdurik. Ikusiko dogu Europako ainbeste erreinu Fedia galdurik, herejijaz beterik, kanpañak odoldurik, exerzitu andijak gaisotu ta illik, Jangoiko ez Lege bagarik. Inlaterra, Alemanija, Dinama[r]ka ta Suezija Lutero, Kalbino ta beste askoren dotrina geztoz beterik; España D(o)n Rodrigo Erregiaren luxurijak zirala mediyo moroz beterik. Guazan uri ta erri guztijetara eta apenas aurkituko da bat pekatu onegaitik kastigu bagarik. Emen ikusiko dogu pekatu onegatik urlija maijorazgija<sup>9</sup> beste etxe batera aldaturik, pekatu onek euren gorputzetan ifiniko gaisoz seme faltaz. An urlija dama edo neskatilla bestegaz<sup>10</sup> aurkitu dauelako ezpatiagaz illik, beste neskatillia burledurik; bestian, Urlijaren bentanatik pekatura doiala eskua faltau edo kordel urrutu ta jausirik, bere garaunak zabaldurik ta illik. Neuk ondo dakit non au jazo dan bost urtez onantza; ta arako dama noen amore loijak au ekarri eban, aurkituten da gaur Madalena bat eginik bere pekatu andijen penitenzija egiten konbento estu baten sarturik. Zenbat etxe ondasunez beterik egon biar leukianak, eztira gaur aurkituten zorrez beterik euren famelijari estadia<sup>11</sup> emaiteko adin bagarik, pekatu euren zenzunginokoa kenduten deuten loijonegatik? Au zeuek ondo ikusten dozue jazoten dala zeuen errietan, baita bere etxe askotan. Eta ez bakarrik ondasunian, baita bere osasun da bizitzan. Zenbat gaixorik alaz beterik, kolorez jausirik, humore, sarna ta zauriz atziturik ordubeteko osasun bagarik eztira<sup>12</sup> aurkituten orrako bideetan, kalle, plaza ta bazterretan, euren buruen berdigu gogor eginik, denpo-

<sup>7</sup> Alternantzia: *nagosi / nagusi*.

<sup>8</sup> Atal horretako albo oharrak: *Genesis 19*. [Aurrerago:] *Gen. 34*. [Aurrerago:] *Nun. 25*. [Aurrerago:] *Jud. 20*. [Aurrerago:] *Reg. 11*. [Aurrerago:] *Num. 25*. [Aurrerago:] *Tob. 3*.

<sup>9</sup> Geuk zuzenduta: *maiजारozgija > maijorazgija*.

<sup>10</sup> Ostean zuzenduta: *beste > bestegaz*.

<sup>11</sup> Idem: *estadurik > estadia*.

<sup>12</sup> Ostean aldatuta: *eztozuez > eztira*.

ria baño lenago bizitzia euren buruai pekatu loijau dala medijo kenduten dautsenak? Zer da au<sup>13</sup>? Zer izango da? Jangoikoen zijor gogorrak jarraituten deutse onelan luxurijan sarturik dabilzenai, eta zenbat eta geijago ondatuten dirian, ainbat eta beste aldetik nekez betetan dituz Jangoikoak, onelan emen munduan bere ondo pagadu dagijen euren gustu zikiñen sarija eurekganik kendu ezin dabela. *Sed hæc initia sunt dolorum pro[p]ter hæc enim venit ira Dei in filios difidentie*. Ef(esios) 5<sup>14</sup>. Eztitu erre gure den[poran] uri andijak ta probinzija osoak peste gaizto onek? Eztoguz ekusten sarri geure errijetan ainbeste gatx, medikuek ezautu orduko ondo familia osoak, errijak, urijak ta probinzijak guztijak edo geijenak erraz daroazala?

Noz gure denpora artian ikusi dira ainbeste peste, gose ta gerra<sup>15</sup>, mendijak, bidiak, plazak ta etxeginokoak, auzo, adiskide, senide, anaije ta gura[sol]ginokoak illik dakusguzela? Zer dira one[elk] guztijok? Ez beste gauzarik ezpada Jangoikoaren Justizija ta aserria, ainbeste desonestukerijagaz gure kontra makurtua ta irritua. Esangidazu zuk, gizon desonestua, enbra eskandalosia, ukatu zinaike one[elk] kastigu ta golpiak zure pekatuen saritzat Jangoikoak biraldu ezta[ul]tsazuzela? Pauso loi ta gezto orreetan zabiltzezanik ona, zenbat sentimen[tu], atsakabe ta zorigeztokerija ez jatzu jazo? Zenbat deskreditu zure ondran, murmuraziñoa auzoetan, sosi[elgo] falta etxian, ondasunen galtzai, ta beste zuk ta Jangoikoa berak bakarrik dakizen gorpetzeko osasun faltak, konzienzijaren erremordimentu ta usika andijak, gau ta egun etxean, kanpoan, basoan, soloan, zure biotza mingosturik asensijoz garrazturik? Ezautu dozu ordu uts bat deskansu osokorik? Urten deusue zeure tratuek, zeure gauzak eskuerara zeure gozura? Ez, Jauna, guztijak edo geijenak bijozketaz ta atsakabez beterik baixen. Baña, zer daukezu zer miraritu Jangoikoak desanparadu bazaitu? Alde batera itxi bazaitu zeure pekatu andijak diriala medijo? Apenas Sanson itsuturik joan zan pekatu loijak Dalilagaz egitera, dirausku Eskritura Santiak Jangoikoak bere eskuti itxi eutsela, beraganik alderatu zala. Ta emeti gero etorri jakozan itsutasun, pobrezak, desondrak, presondegijak, ta eriotzia azkenez. Ara emen, N.E., negargarizko egokeria zeñetara ekarri daroien arima bat desonestukerijak, beraugatik edo bere sariz Jangoikoa aldatuten dala beragandik. O estadu negargarizkoa luxurioso batena! O peliburu andija bere salbazinoena! Eta zegatik ainbeste irritu ta aserre andiz beterik ifini daroa Jangoikoa pekatari desonestu ta luxuriosoak? Ez bestek ezpada pekatu onen

<sup>13</sup> Jatorrizkoan: *bau*.

<sup>14</sup> Ostean erantsitako iturria.

<sup>15</sup> Ostean erantsita: *ainbeste peste, gerra > ainbeste peste, gose ta gerra*.



astuntasunek. Bada, ain da ze, Jangoikoak berak Eskritura Santuan andijagoa dala diño idolatrija edo Jangoikotasuna besteri emotia baño, deungago dala. Eta benetan infiel Idolatra guztijak eztabe ainbeste gatx egiten seinde desonestuak. Hereju, Infiel ta Idolatrakaz ibiliko da bat askotan, ta one[e]n laguntasunak ikusten dogu ezituezala ainbeste Fede Santurik, zeinda desonestu ta luxuriosoak. Luxuriosoai lagun egiten bazatxakoz, laster euren gatxa[k] erasoko dautsue. Orregatik, S(a)n Paulok itxi arren Korintoarrai Jentillakaz ez bakarrik eurekaz berba egitia, baita bere eurekaz mai batian jatia konbidetan bazituezan; baña luxuriosoakaz, dirautsie batera ez ditezala jarri<sup>16</sup> Kristinauak izen arren. Ain da andija pekatu onen astuntasuna, eta ainbeste aserratuten dau Jangoikoa ze, pekatu onen kontra azotia ateraten dabenian ez dagoz seguru bere azotetik pekatubagiak bere. Alan jazo zan Urioliagaz mundua ondatu ebelian; ez bakarrik zeintxu zenzunbagiak, baita aberija guztiginokoak kastigadu zituzen erru bagarik. Gure dozue libre egon azote onetarik? Alde, iges egingizu luxurioso ta desonestuetarik, dirautsu, ez nik, ezpada S(a)n Paulo Ap(ostolu)ak. Zaldijakaz, txakurrakaz, asto, lauõneko, bela baltz ta beste aberija loijen parian ifiniten dituz Eskritura Santuak ainbeste lekuta[n] ta Profeta askoren aotik. Hondra ta lotsa puska bat balebe, berau asko litzateke pekatu loi onetatik aldera egiteko.

Baña alan bere<sup>17</sup>, askoz geijago, ondo gogoango balebe ze neke andiz ta gatx parkatuten daben Jainkoak pekatuau. (\*)<sup>18</sup> Arriturik naukee S(a)n Pablo Apostoluaren sentenzija luxuriosoen kontrakoak. Luxuriosoak ez desonestuak Zerutik ikusiko ez daudela dino S(a)n Pablok. Misino santu baten lapurrak, eriotzagilliak, bengatibo, sakrilego ta Herejuek biortuten dira, baña luxuriosoak guztiz nekez. Jangoikoak au<sup>19</sup> berau Oseas Profetaren aotik bere dirausku: *Non dabunt cogitaciones ut revertantur ad Deum suum*. Ez pekatuau ezin parkatu leijelako, ezpada onelakoen biotzak sustrai geztoaetatik urteitia guztiz gatx egiten jakelako. Experientzijak au irakasten deusku egunian-egunian. Arriturik, bildurturik ta ikerez beterik geldituten dira entzun dagijonian predikadore bateri Infernu, Juizijo ta Eriotzaren ganian prediketari daudienian; baña euren pekatu loijai itxi, ori ez. S(a)n Juan Bautistiaren predikazinoiagaz bildurturik Herodes Erregiak limosna ta obra on asko egiten eban, baña bere koñeta Herodias aren tratu loijari itxi? Ori inondik bere ez. Au<sup>20</sup>

<sup>16</sup> Osteen zuzenduta: *ez ditezala jarri batera > batera ez ditezala jarri*.

<sup>17</sup> Osteen erantsita.

<sup>18</sup> Tartekatutako zenbakia: 2.

<sup>19</sup> Ikus 13. oharra.

<sup>20</sup> Idem.

berau jazoten da egunian-egunian onelako desonestuekaz. Trumoi, erraijo, zenteilla, ta uste-uste bako eriotzakaz bildurtuten dira, misino santu bategaz bigundu ta urteiteko gogoak artzen dituez pekatuetatik; baña ez urten ara[ko] etxe ta urlija personaren adiskidetasun loitik. Eleixako prezepto ta eriotzako peliburuen konfesaduko dira, baña benetan biortu Jangoikoagana bat berez, bada, euren dolore ta proposituak bildurrezkoak ez benetakoak dira, eta denpora gitxi barru lengo pausuetara biortuten dira. Eta zegatik? S(a)n Paulok dirausku: *Voluntarie peccantibus, jan non relinquitur hostia*; borondatez pekatuta etziten diranentzako eztago parkazinorik. Eta izanik pekatuau bestien artien borondate andi edo bizijagoagaz egiten dana, ainbat eta nekezago biortuko da; edo eztau urtengo, edo urteten badau, laster jausija izango da. Au da ainbeste negar Jeremiaseri ereiten eutsena. *Videte dolorem meum. Virgines m[e]l[e]æ et juvenes mei abierunt in captibitalem*. Nire donzella ta gazte kautiba jausi zirian, dino S(an)to onek. Eta urtengo dabe? Ez. Eta zegatik? *Virgines ejus squalidæ*. Indergaturik gelditu dirialako, eta iges egiten badabe, laster euren arerijoen eskuetan jausiko dira.

O zenbat onelako arima ikusi daroagun geure oñetan egunero euren pekatuek konfesetan dituezanak, ainbeste urtian pekatupian datzazanak! Gizon gazte, zenbat denpora da pekatu isilekoan<sup>21</sup> zatzazala? Jauna, gattetxuterik ona. Eta noz emendatuko zara? Jauna, ain da andija ekandu zitelonena ze, eztaikit zer esan bere. Andra ezkondu, noz itxiko dau-tsezu zeure auzoko mutil, gizonaren erreguoi ta urtengo dozu pekatu orretatik? Noz asiko [za]ra zeure arimiari ondo begiratuten? Noz begiratu-tuko deutsezu zeure onriari, eta mugarrija ifiniko deutzazu eskandalo ta murmurazinoiai? Ezin nai, Jauna, ainbeste zor deutset ze ezin nekike. Zuk, gizon ezkondua, noz urtengo dozu Urlijegaz deukazun tratutik? Ez sepult[ur]lera artian? Jauna, errazoa leiteke, baña eztaikit zer izango dan. Bada, nik bere eztaikit zer zukgatik esan, zoaz Jangoikoagaz ta bere Amak lagun begizu. Nik eztaikit zugatik zer esan, eztaikit beste erremedijorik. A triste zorigaiztokoa! Infernura zoaze zuzen-zuzen, eztozu urtengo ta galdue zara betiko. Beste pekatutik urten leije, baña oneek ez. Zenzun bagarik ta bijotz bagarik geldituten dira bere pekatuko laguna euregandik biralduteko. Luxuriosogan beste pekatu asko bere beti edo geijenian aurkitu oi dira: soberbija, banidade, gala zorigarrizko ta gorputzeko konposture faltia. Eta onen ondorik edo jarrai, deseo loi, begirakune ta exenplo deungak, berak legez beste askok artu dagijen. Bake geztoa etsian bada, jant[z]ireko zorrak egingo badire bere, eztau

<sup>21</sup> Ostein aldatuta: *orretan > isilekoan*.

faltau biar nagitasune; bada, eukirik ordu luziak ispilluan inoren lakijo izateko apain ta ulliak ki[z]kortuten, konbersazino ez garbi ta laguntasun peliburuzkoetan, eztaukie denporarik urtian bein konfesetako, sermoi bat entzuteko, libru deboto bat artu ta Eriotza, Juizijo ta Eternida[diaren] ganian puska bat pensetako. Pekatu au oñian eukiteko ez dago bildurrik tratuetan bier ez dan beste bestiari eroateko, lapurretak egiteko, etseetan sartuteko ta bidietara urteiteko; zelo geztoetan sarturik egoteko, emaztia senarren kontra, senarra emaztiaren kontra etsia infernu bizi bat eginik ifiniteko, ta guztija berba baten<sup>22</sup> esatiarren: luxuriya da burdi bat beragaz naste beste peka[tu] guztijak daroazana.

O arima zorigeztokoa, arime galdua, anima demoniñoz betia! Infernura bide egiten dozu, bertako tormentuak zure begira dagoz, iziorik dago orainganik zuretzat bertan zu ondo erreko zaituzena. Agur egiozu orainganik Jangoikoari, agur Birjinari, agur Santuai, agur orrako zuri pekatara lagun egiten deutsun galaiari, agur zure etxeoari, agur zeure ondasunai, agur Zeruari, agur Lurrari. Bada, laster Infernuan erreko zara, bada, misino santuau ezta zuretzat, nire arratsaldeko izardija ezta zuretzat, erri onetako ditxa ta zoriona da besterentzat, arako pekatari bere begijak idigi ta pekatuetatik urtengo dabenentzat, bada, zuk urten al izan arren, eztozulako gure urten. Alperrik Jan(goi)koak eun urtian itxoron gurako deutsu, ezt[oz]lu gureko urten; eta alan izango bada, zoaz orainganik Infernura. Ari[me] galdua, zugatik negarka dagoz Zeruko Santu, Lurreko Justu ta Angerugiñokoa. Zu zara luxurijaren semia, luxuriya da zure aita, ama, esposa, adiskide ta Jangoikoa. O gizona! O emakumia! Damu dot zu egina, dino Jangoikoak. *Pœnitēt me fecise eos.* O sekula sortu ezpazendudaz orrelan ni salduteko! Zu neskatilla ain guraso onak nik emoniko azi zengiezan Jangoikoen bildurrian, zu gizon gazte ain maisu onak emonikoa, zuk gizon ezkondu esposa garbi emazteztat emon ta enbra galdu bategatik galdu dozuna, enbra ezkondu ondra andi baten ifini zaitudana ta zeure esposoa itxi ta bestegaz gorputza partietan dozuna, sazerdote erlijioso errijan eskandalu emoten dozuna; zar gezto bizitza guztija pekatuan igaro dozuna, damu dot zuek egina, dino Jangoikoak. *Pœnitēt me.*

Pekatarari bat Jangoikoagana biortuteko gauza biarra da biortu biar izatia bere entendimentu ta borondatia Jangoikoagana; entendimentua, munduko desengañuak ezautu ta Fede Santuak dirautsena egiteko, ta borondatia, entendimentuak dirautsenera makurtu ta pekatuak urteiteko. Baña au da luxurioso batek egingo ez dabena, dino Jan(goi)koak

<sup>22</sup> Geuk zuzenduta: *berbaten > berba baten.*

Oseas Profetaren aotik<sup>23</sup>. Ez entendimentua, bere gogo guztija gustu loijen infinite daukalako, ta gitxiago borondatia, bere jesarlekua pekatuonek antxe infinite daukalako, ta orra non naitanaiez legez pekatuan galdu biar daben. Luxurioso[ari] esaten baldin bajako pekatu atatik atera aleijan conseju bat, aurpegi ilunagaz entzungo dau, ta bere amore ta debanioak poz andi bategaz, bizitziaren laburtasune, erijotzaren garraztasuna, julizioreen bildurtasune ta sepulturako arraen ganian zeinetara etorriko dirian bere edertasun guztijek, iges egiten dau. Jesus, dino, nor egongo orrelako gauza tristiak gogoan dituzela? Orrelako gauza tristiai lekurik emon biar ez jakie. Eta zelan urten leike pekatari onek pekatu onefelatik, pensamentu santuoi lekurik emon bagarik? Baña ontzat emon dagigun pensamentu santu onefelk artu gura dituzela. Ta borondatia, barriz, etorriko gogoak dirautsena egitera? Eztakit. Egunian-egunian ge[ul]gan dakusgu entendimentuak gauza bat agindu arren, borondatia nagi erakotsitia<sup>24</sup> ta ez egin gure izatia. Eta luxurijan sarturik dagoan batek gitxiago egin daroa. Beste pekatu batzuk kendu leiz, baña ez au; alperrik biralduko jakoz grazijak, ezta biortuko. S(a)n Juanek dirausku au Jezabel Erreginaren ganian. Evan(gelis)ta Apoc(alipsis) 2<sup>25</sup>. Erregiñau zan desonesta luxuriosa andi bat askori pekatu ereiten eutse-na, eta dino Jangoikoak asko itxoron eutsala, grazijak biraldu eutsezala biortu ziten Jangoikoagana. Baña ain sartuta egoan pekatuatan ze, ez eban gure alde egin aragijaren gustu zikinetatik; eta bere gorputza txakurren janari, ta arimia Infernuko demonioen presa izan zan, ta izan bere izango da.

Onetara etorriko dira luxurioso ta desonestu bene-benetan Jangoikoagana biortu gure ez daben guztijek. Orregatik, guztiz gauza gatxa da onelakoen salbazinoia. Atziturik dagoz gorputz ta arima. Infernura desonestuak! Eta, jaune, kondenauko gara? Bai. Ta erremedio bagarik? Ez. Gura badozue, ondo salbau zinatekeze. Salbadu zan Madalenia, salbadu zan S(an)ta Maria Egip(zia)ka, S(an)ta Margarita ta beste asko. Baña gazetetasunian ilten dirian asko ta asko doaz Infernuetara; luxurioso gitxi dira Zerura doazanak, ta asko kondenetan diranak ez salbadu ezin litekezalako, ezpada eurek gure eztabelako. O ze kontu estuba eskatuko dautsen desonestu bateri! Ai zelan deadar egingo dauden zure kontra, luxurioso, zugatik gaur Infernuan erretan dagozan askok! "Justizija, justizija!" deadarka dago zure kontra, esaten dau[tso] Juezari: Gu emen bagagoz, Urlijena da errua; bada, ni kondenadu banozu urlija pekatuga-

<sup>23</sup> Albo oharra: *Oseas quinto*.

<sup>24</sup> Alternantzia: *erakutsi / erakotsi*.

<sup>25</sup> Osteen erantsitako iturria.

tik, bestiarena da errua, bere exenplo deungiagaz pekatu onetan ifini nendulako. Betor nigez batera parte Infernuan eukitera, orrako nigaz batera gustu zikinak artu dituzenorrek ta ainbeste pekaturako begijak idigi eustezanorrek. Zelan egon al izango zara eternidade baten Infernuan demoninoakaz batera, zeure denpora guztijen gorputz orreri non-di gustuak emongo deusazuzen baño beste asmurik gogoan erabili ez dozuna? Baña ez, pekatarija; oraindio benetan biortu gura badozu, zuretzat parkazinoa dago.

Ea Jesus gosua, biortugizuz zeura begi errukitsuok<sup>26</sup> negarrez euren pekatuaren damuz aurkituten dirian pekatarijokgana. Andijak dira euren pekatuak, baña neurri bage andijagoa zure miseriordija. Zuk parkatu zeuntsen arako seme luxurioso bere ondasun guztijak pekatu<sup>27</sup> loijetan gastadu zituzenari, bada, parkatugiozue onako pekatari negarrez euren pekatuen damuz datzazeno. Parkatu zeuntzen zuk Magdalenari ta beste askori, parkatu egiozu pekatari oni.

---

<sup>26</sup> Geuk zuzenduta: *errukitsuok* > *errukitsuok*.

<sup>27</sup> Ostean zuzenduta: *peka* > *pekatu*.

## [LIMOSNIA]

Tobias Santuak bere illaurrian agindurik bera il zeitianian enterrau leijela, bere amari errespetoa il artian jagonik beste ainbeste amagaz egin leijala, asten da konsejuak emotera; eta agindurik lelengo beti bere biotzian Jangoikoa maite izan dagijela, bigarrenago dirautso, pobriari daukanetik limosna dagijola eta inoz arpegirik ostu ez dagijola, zein berari Jangoikoak ostu ez dagion arpegija. Tobiaē 4<sup>1</sup>. Limosnia, dirautsa, da arimia Infernutik libretan dabena. Limosniak garbituten dituzala pekatuak<sup>2</sup>, obligetan dabela onegaz miserikordiosoa izatera eta betiko bizitzia irabazi ereitera, S(a)n Rafaelek esan eutsan Tobiaseri. Onegatik agindu eutsan Danielek Nabukori bere pekatuak osatu leijela limosnakin, gure beban libradu Jangoikoak ija zematurik eukan kastiguetati. Dan(iel) 4<sup>3</sup>. Bai, pekatarijak. Limosna ta miserikordijazko obrak dira gizona pekatutik alderaturik aurrez Jangoikoagana ifiniten dabena, baita Jangoikoa bere gizonagatuten dabena. Limosnia da arako orijo santua, Samaritanu piadosoak zaurijak osatu eutsezanak lapurren eskuetan jausi zan tristiari. Limosnia Jordango ura Naaman lepretik garbitu ebana. Maite izengizue miserikordija, dirautse S(a)n Agustinok bere semiai, bada, eztot oraindio ezautu eriotza geztorik egin dabela miserikordioso izan danik. Jangoikoak dino: Zoriontsuak miserikordiosoak, bada eurek dira Zerua irabaziko dabena.

Gaisoak bisitetan badozuz, Jangoikoak bisitauko zaitu zeure gaisoan; billozak jazten badozuz, Jangoikoak jantziko zaituz grazijaren soñekoakaz; pobriari ostatu emoten badaut[se]zu, Jangoikoak Zerua zuri emongo deutsu; tristiak konsoletan badozuz, Berak konsoladuko zaitu; injurijak parkatuten badautsezuz, zuri pekatuak parkatuko deutsuz. One[el]k dira bidiak pekatari bat Jangoikoaganatuten dituzenak, Jangoikoak Libru Santuetan erakutsiten deuskuna legez. Rut 2, n. 8<sup>4</sup>. Emetik ezaututen da ze peliburu andijan bizi dirian arako pobreentzako biotz

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Ostein erantsitako iturria.

<sup>2</sup> Ostein ezabatuta: *esan eutsena legez S(a)n Rafaelek, andik laster limosniak garbituten dituzala pekatuak > limosniak garbituten dituzala pekatuak.*

<sup>3</sup> Ikus 1. oharra.

<sup>4</sup> Idem.

gogorrekoak dirianak, euren gogortasuna kastigetan dabela eurek gogor-  
 rrak izan zirialako, onelan eriotziak arturik gogortasunian illak izan dei-  
 tezan. Gogortasun onen kastigua izan zan arako Nabalegaz jazo zana,  
 bada, eskaturik Dabidek estu gogor baten biraldu leijola jaten beretzat  
 ta beragaz egon ziriantzako, ez eutsan, eta bai erantzun eutsan berba  
 tropiakaz, esaten eutsala: Nor da Dabid nik ogija ta aragija biralduteko,  
 eta ezaututen ez dodanari biralduteko? Baia, zer jazo jakan? Beingoan  
 bere biotza arrija legez gogorturik, Jangoikoen Justezijak amargarren  
 egunian il eban. *Et [e]mortuum est cor ejus, intrinsecus, et factus est cua-  
 si lapis.*

Auxe da, bada, munduko aberats ta ondasuntsu biotz gogorrekoa-  
 kaz<sup>5</sup> jazoten dana. Euren kudizija ta gogortasunagaz itsuturik, ez dabe  
 ezaututen nor dan pobriaren bitartez eskatuten deutsena: Jesukristo Sal-  
 badoria, Dabid egijazkoa. Pobretxu orri egin deutzazuna niri egin deus-  
 tazu, eta orri ukatu deutzazuna niri ukatu deustazu. Niri ori egingo deus-  
 tazu?, dirautsu Jesusek. Niri, zure Egille, Jagole ta gauza guztirako biar  
 nozun oni? Zelan zu izanik ain zabala zeure ondasunak gastetako erre-  
 galu, banerija ta beste gaitzakerijetan, zara ain gogorra nire pobrientza-  
 ko? Pekaturako ain ugari gastetan dozunagaz ezin mantenu zinaiz po-  
 bre asko? Bada, zuk are[le]ntzat daukazu arrizko biotza, alan zuria arri  
 biorturik pekatuan ilgo da. O Jangoikoen kastigua! O juizijo miserikor-  
 dija bagia, miserikordija bage one[le]n ganera etorriko dana! O itsu gogo-  
 rrak Nabal gogorren lagunak! Ezautuko bazendu nor dan zuei eskatuten  
 deutsuenen barruan dagoana, Samaritaniari legez ure emon dagijozuela  
 eskatuten deutsuena, ardura bagarik emongo zeuskijoe eskatuten deu-  
 tsuen guztija; eta zeuek bere eskatu zinajoe emon dagizuela bere ur  
 bizija zuen bi[ol]tzeko kudizija kendu aldagizuea, eta zuen pekatuek  
 orrelan garbiturik Zeruko limosnia artutia mereziduko zendukie.

Eta, Jauna, zelan egin nekike nik limosnia merezimentu geijagogaz?  
 Egizu arako Jangoikoak bere Libru Santuan ifiniten deuskun irudira,  
 Booz eretxon gizon aberats ta piadosoak Rut enbra pobriagaz egin ebe-  
 na; bada, ikusirik ogi puska bat gosia ilteko ez eukela, errukitu zan eta  
 itxoron bagarik eskatutera, berak emon eutsen borondatez. Bada, abe-  
 ratsa bazara ta miserikordiosoa, preminaz ikusirik emon biar deutzazu,  
 bere eskakizunen begira egon bagarik; eta au<sup>6</sup> geijago egin biar dozu  
 pobriori lotsakoa bada, bada, bere agoa lotsaz isilik euki arren, bere  
 miserija zuri eske dago. Orregatik, Dabid Errege Santuak dino: Zorion-  
 tsua pobrerren arduria daukana. Au da zuk zorioneko izen zaitezcan egin

<sup>5</sup> Ostean aldatuta: *pobriakaz > biotz gogorrekoakaz.*

<sup>6</sup> Jatorrizkoan: *bau.*

biar dozuna. Auxe zan bere arako Jangoikoaren adiskide andi Abraanek ta Lotek egin ebeena peregrinuakaz; etzirian egoten one[elk] ostatua eskatu leijoan begira, eurak joaten zirian ta erreguka pobriak etsian sartuten zituezan. Eta zure limosniak aparteko meritu bat euki dagijen Jangoikoen begijetan nai badozu, lotsako pobriakaz au egin dagizula esan biar deusut, bestiakaz aitzu bagarik. Eta emongo deusazuna gozuz emon biar deusazu, eskuak zabalik erruki dozula zeure arpegijagaz esanik, eta ez askok legez emongo deusena lenengo inon dirianak esan ta emon daroijoe. Au ez da modua, eta bai limosniaren frutua galdutia.

Eta aberatsaren limosniak izan biar dau eskuzabalagokoak. Au zan Eskritura Santuko Booz aberatsak Rutegaz egin ebena; bada, eroanik bere etsera etzan kontentau egun atan jaten emonagaz, baita bere esan eutsien bere otsaiñak gari ebaten ebiltsezan guztijan lurrera jausten zirian gari-buruak batu leizela beretzako, esan eutsan otsainakaz batera jaten aginduten eutsala. Eta ez bakarrik asko emonagaz kontentau zan, baita bere modu ondradu baten egin eban, bere gari-ebatzaillai esaten eutsela ugarixuago gari-buruak jausten itxi leijela, onela pobriak zer batu geijago euki leijen; baita doktrina onegaz aberatsai erakutsiten eutsela ez bakarrik pobriai asko aberatsak abegi onekoak izan biar ebela, baita bere euren krijaduai onelan izan ditezan irakatsi biar deutseela. Bada, asko dira otseinen<sup>7</sup> artian euren uezabak izenik pobrientzako argijak ta karidadez beterikoak, otsainak gogorak ta arpegi ilunagaz emongo dabenak. Munduko ondasuntsuak onelan egingo bazendue, ze zorion andijak egiten dozuen limosniaz ganera zeuen m[o]du onak<sup>8</sup> ekarriko leuskizuezan! Eta zuek bere, nekezaliak, etsaguntza ta bazterretse aldietan bizi zarianak, emongo dozuena gozuz emon, eta ez badaukazue, ez igeska atetara doiana lotsatuten dan moduan ibilli, ezpada moduz esan ez daukazuela, edo beste ordu baten izango dala. Eta ez arako neuri bein baten Bilboko Goardianak limosnara biraldurik, ondo oraindio gogoan daukadan etsaguntze baten jazo jatana legez. Etxeko-andriak urruneti nentorrela begiratu eustan, eldu nintzan bada atetara, eta limosna eskaturik mutilkotxu bik urtenik, nagositxuenak esan eustan: Amak esan deust ez dabela artu aurten garirik. Oneta[ra] txikitxua-goak urte[n] eutsan: Ene, guzurra, troxak beterik daukaguz! Barre egin ta kanpora urtenik, ije ninjoala dei egin eustan, ta parka eskaturik ije eroan ala emon eustan. Etzan enbra deungia, baña zenbat geijago ez eban Jangoikoak estimaduko erdija lenengoan borondatez!

<sup>7</sup> Alternantzia: *otsain / otsein*.

<sup>8</sup> Ostein aldatuta: *zorionak > modu onak*.



Azkenez, limosnia ondo egiteko, bardin egin biar jako arerijoari, onela ez bakarrik bere gorputzeko preminetati libretan dozula, baita onela arimia irabazirik Jesusen Doktrina Santua egiten dozula, esaten deutsuna legez Salbadoriak: Izen zaitezze miserikordiosoak Zeruko Aita da[na] legez, on ta geztoai ondo egiten deutsezuela.

[AMAIERAKO ERANSKETA]

J(esús), M(aría) y J(osé)

*Ipse dissipavit excelsa, et contrivit lucos.* IV Reg. 18, 4

Israelgo errija bere Jangoikoag(an)dik artu zituzan mesedeetara eskergeztokoa, bere pekatu andijak ifini zuan alberreñu guzien burlagarritua. Galdu zuan bere Jangoik[ol]ari zor zion errespetua, azpiratu Lege Santua, otzitu debozioa, sakrifizioak pekatuz zikindu; jarri zan jente guzia gezurrezko siñeskeretara, Sazerdotiak pekatuz bete, Testamentoko Kutxa santua erori zan etsaijen eskuetan preso, andik irtenik erratua zebillen Judeako mendietatik. Onela Siongo Alabaren edertasuna ilundu zan, bere pestak lutuz jantzi ziran, ez zuan Israelek norik konsola zezan, Profetak isilduak zeuden erriko pekatuen kontra predikatu gabe, gelditzen zala erri ura etsaien eskuetan. Au zan negargarritzko estadia, bere pekatuak Israel ifini zuana Samuel Profeta biraldu baño lenago. Baña urrikaldurik Jang(oik)oa noiz pekatuak geijen zuan, ta noiz kastigorik andijenak merezitu zituzan, orduan bialtzen dio Zerutik erremedijua Samuel Profeta, pekatuak kendurik lengo edertasunian ifintzeko.

## [JANGOIKOAREN MISERIKORDIA II]

Mundu guzien aurrian aitortzen<sup>1</sup> det, nere pekatuak asko ta andiak izanagatik, Jangoikoak atsegiña duala parkatzean, eta anbat geiago, zenbat andiagoak diran. Nere pekatuen anditasunak desesperazioko bidera ni ekarri naijagatik, beti entzuten nago nere belarrietan Jangoikoaren miserikordiaren durundio santo bat, nere biotza poztzen duana, eta esaten duana ez duala nai pekatarien eriotzarik, baizikan konbertiturik salba deitiala<sup>2</sup>. Ai pekatariak biotzekoak! Konfesadu biar dogu gure lotsa ta Jangoikoen gloria guk arako, añ miserikordiosoa izateko izan biar dala Jangoikoa, eta bere miserikordiak bigundu ez eiteko arrizkoa, diamanitezkoa, edo obetuago esateko, Diabrua bera baño bere gogorragoa. Au da ni geien ikaratzen nuana, ikustia Jangoikoa egarri geiakoa guri parkatzeko, pekataria beraganik artzeko baño, dio S(a)n Agustinek. Zenbat modutera baliatzen ez da gizon pekataria, entendimentua argiturik biotza irabazitzeko? Orañ bildurtzen du, kendurik pekatariari bere anima ta pekatuen bitartian dagoan kortina edo estalgarria; laster ipiniten deuta bere pekatuak gordeta dagokien kastigu betikoa; beste beñ berekin deungaro bizi izan geren eriotza ustebagekoa; ez gitxitan nondik ez daki irabazitzen deutso biotza, eta ez dago biderik pekataria irabaziteko baliatzen ez danik.

Bide guzti<sup>3</sup> one[el]tatik baliatu zan munduan ezautu dan pekatariarik andien bat, S(an)ta Maria Egipziaka, irabaziteko. Esan leike zenbat eta bere pekatuak geitutzen ziran, alaxen geituten zirala Jangoikoaren miserikordiak. Jaio zan S(an)ta Maria Egipton; bere amabigarren urtian erten zan gurasoen etxetik Alejandriara, non etorri zan egitera gazte odolbizi-ko ta frago batek egin eta asmau aleikezan pekatuak. Ikaratzen naiz<sup>4</sup> eta guztia lotsa santo batek<sup>5</sup> artzen n[al]u, Jauna, esaten zion Zosimo Abatari, nere bizitza lotsagarria agertzean. Apenas aitaren etxetik erten nintzan nere onestidadia galdu nuan, eta amazazpi urtian ez dago gauza zantar

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Ostean zuzenduta: *aitortuko* > *aitortzen*.

<sup>2</sup> Idem: *salbatzioa* > *konbertiturik salba deitiala*.

<sup>3</sup> Ostean erantsita.

<sup>4</sup> Ostean aldatuta: *zan* > *naiz*.

<sup>5</sup> Ostean zuzenduta: *lotsa santo bateaz beterik* > *lotsa santo batek*.

ta loirik nik egin ez nuanik. Etzan, Jauna, anbeste diruagatik, eta bai pekatuak berak nigan biztu eban zantarkeriarako grina geztoak. Ogeta bederatzigarren urtian, erreparau neban egun batian jente andia enbarkatzen zala Jerusalenerako, S(an)ta Kurtzeren fiesta santoa ikustera. Are[el]k ikusiak, ni bere ez deboziño, bai neure bide okerrai geijago jarraitzeko enbarkau nintzan. Baña ai nere aita espiritualal, esan eban pauso onetan. Parkatu, Jauna, neure biotzak itxiten ezpadeust biar dan bezela esplika(...), (...) lotsagarriak eze, dardar ikaratzen naiz. Abat (...)esanik, biotz humil bateagaz aurrera akusatzeko<sup>6</sup>, eran(...): Noren mingaña eta noren belarriak aditu al ditzake, nik itxasoz ta erriz Jerusalem<sup>7</sup> biaje artan egindako lotsagarritzko pekatuak? Nor arrituko ez da aditzean, neu<sup>8</sup> nintzala konbidatzen nituzanak lotsagarritzko argaltasunezko pekatuetara? Miraritzen naiz nola itxasoak ondatu gabe gorde ninduan, eta lurra irikirik bere biotzian bizirik enterratu ez ninduan. Ez nintzan kontentatzen nere biajeko lagun guztiak galduakin, baita ere zoro eginik Jerusalemgo uri guztiti ibilli nintzan. Engañatzen nituban Jerusalemarrak, obligatu forasteruak, eta guztiak lotuta estuta paratzen nituban zantarkeriako lokarri edo kordelakin. Asko da, Maria Egipziaka, ezautua dago zer izan zeran; bedeñkatugizu Jangoikoaren pazientzia, zeñ anbeste denporan azturik euki dozun. Orañ bai esan zenzakiala Agustinok bezela: Nik pekatu egiten ninduan, eta Zuk, Jangoiko maitia, disimulatzen ninduzun.

O Jangoiko maitia eta pekatari oni sufritzean pazientzia neurrigabe-koa! Nola anbeste lotsagarritzko pekatu eginik, libratu nazu zure aserretik? Nola anbeste piedade iduki dezu pekatari onekin, anbeste anima Infernura eramanik nere bizitza eskandalosoakin? Ezautzen det ez dezula beste pekatariarekin anbeste miserikordia iduki, nerekin iduki dezula<sup>9</sup> emakume galdu onekin bezela, esaten zion guzia negarrez deseginik. Zu enpeñatua nere oker parebagekoak disimulatzen, eta ni egunian baño egunian okerrago zu openditzen. Zu enpeñatua grazia ta denpora ematen, ni enpeñatuago pekatuen karga pisuago egiten. Ze exemplo biziagorik Jangoikoen pazientzia erakutsiteko au baño, nere aditzalliak! Eta zenbatek gure artian ez ditu ezautu<sup>10</sup> izango Jangoikoen pazientziatzko golpeak, biarbada S(an)ta Maria Egipzi[al]ka bezela izanik lotsagarritz-

<sup>6</sup> Ostean aldatuta: *esplikatzeko* > *akusatzeko*.

<sup>7</sup> Ostean zuzenduta: *nik Jerusalemgo biaje artan itxasoz ta erriz* > *nik itxasoz ta erriz Jerusalemgo biaje artan*.

<sup>8</sup> Idem: *ni* > *neu*.

<sup>9</sup> Idem: *iduki dezun bezela* > *iduki dezula*.

<sup>10</sup> Ostean aldatuta: *entzun* > *ezautu*.

ko bizitzan? Orandik balia gura dozue bere pazienza andiaz pekatuetan zarrago egiteko? Bada gure artian añ pekatari galdurik? Jangoikoen pazienziak konsolatu biar bagaitu, pazienza beronek bildurtuagorik para biar zaitu, ikusirik berarekin baliatu biarrian, aserre geiagoko bidian para besterik ez dezula egin. Ai eta zeñ beldur izan biar zeran zeñ bere pazienza justiziara biortu ez deitian, zure aspaldiko bizitza pekatuzko orrekin neurritz beterik! Posible izango da bere pazienziagaz baliaturik zu pekatu geijago egiteko? Zenbat beste orrenbestegaitik ez daude Infernuan [er]retzen? Eta zu anbeste pekatuarekin betiko galtzeko pendien[te egon]lik, ez dezu ontzeko gogorik? Begira, bada, bere pazien-zian neu[rrija] daukala. Gaur biarbada beteko da zugan neurri ori, eta galduko zaitu zure pekatuak.

Alaxe da, gizon aditzen zaudena, alaxe, emakumea, alaxe esaten dizu Jangoikoak Isaiasen bidez. Bizarra urteten asi zitzatzunik zarrez burua edurtu<sup>11</sup> arteko egunak ni opendietan igaro dituzu. Zure bizitza igaroari begiratzen badiozu, pekatuzko kuadru bildurgarri bat besterik ikusten ez dezu. Animalia loi baten bizitzia baño deungagoko egin dezu. Zure bizitza guztia libre ta ezkonduak loitutean emon dozu. Zure biotza zantarkeriazko sastegi loi bat baño loiagoa izan da. Zure gorputza gus-to-atsegin lotsagarriaz betia, zure interesak irabazi bidebagekoz egiñak, eta guztia batian esatiarren, urte asko da Komunioko Mai Santura Jangoikoen pazienza aserratuten baño allegatu ez zera[na].

Zu, emakumia galdua<sup>12</sup>, aspaldian Jangoikoaren pazienza pisu andi-koa egiten bizi zera. Ez bakarrik S(an)ta Maria Egipziaka bezela ogeita bederatzi urte igaro dituzu askoren lakio izaten, baita bere zure burua edurra legez zuritu jatzunian, lenak negar egin biarrian, zartzako urtiak beste gazte askoren lotsagarritzko pekatuak estaltzen, izpia ta mandatari gezto eginik, firu batetik dindillako Infernura jausteko zorian egonaga-tik, ez zera esnatzen. Sentimentuz betia dezu zuk, alarguna, zure Jangoi-koa; zure familiaren erdian gazte zoro baixen txoroago ikusten zerana, auzoetan murmurazioa, familian eskandalua ematen zaudena, pazienza ausitzeko zorian paratzen dezu zuk ezkondua, moda guzti, gastu ta joko biziosotan etxia galtzen zaudena. Ordea, noz akabatuko nuke esan biar...

Atos Profeta Santoa, begirazaiozu erri oni ote dagoan markatua Babi-lonia, Ninibe, Moab eta Egipto bezela. Ikusi merezi biar badu aiek beze-la kastigua, edo Jerusalem konbertituak bezelako miserikordia. O N., eta

<sup>11</sup> Idem: *zuri* > *edurtu*.

<sup>12</sup> Ostean erantsita.

zeñ ondo datorki[en] zure alabai Siongoai<sup>13</sup> egindako pintura, banidarian, desenfrenuan askorentzat lakio izateko jantzi-moduetan eta kostubre lotsagarritzkoetan! Jantzi (...) zure alabak Siongoren bezela bes-teren lakio izateko... Ai burubagiak! Zuben arrakada eta apañgarriak askore[n] la[k]ioak laster ikusiko dira sepultura ta azurgetan bildurgarriturik. Eta nox akabatuko nuke, argitera atera biar banitu erri onetako pekatu ta eskandalo-modu guztiak, tratu lukreriaz betiak, irabazi injustuak, neurri edo medida palsoak plaza ta etxetan ikusten diranak? Zuben gurasoetan ikusten zan modestia, ziurtasun edo mentasuna baztertu zan, ez da ikusten erri onetan.

O N. erri noble fortunatsua<sup>14</sup>! Altza itzatzu gora begiak, eta esango dizut Jangoikoak Jeremiasen bidez esan zion bezela bere erriari: Altza begiak eta ikusi arako lekuak non pekatuetara etxun zeran eta loitu dozun desonestikeria guztiakin zure erria. Akorda zaitte, ezautu dezazun zeñ andia dan zure eskergeztokeria, zure idolo edo zantarkeria jarraitutiagatik ni saldu nozula. Nik kastigu andiak egin ditut erri askorekin, euren pekatu andiakin pazienza ausi ereñik desegin ditut suagaz, balakaz, bonbakaz, peste, trabaju eta modu guztiko kastiguakaz. Eta zu ez izanik obia, gorde zaitut eta erabilli zaitut ama maite batek bere ume-txua<sup>15</sup> bezela, ez beste finetarako, kontuan jausirik, begiak idiki ta konbertiturik salba zaitian baño. Zure eskergeztokeria andia izan da, orregatik ere, ondu nai badezu, deituzadazu, eta nik erantzungo dizut: Atoz neronegana, nik artuko zaitut. Nire sokorrua eskazazu, eta bigunduko nere aserrea. Baña eskusatzen bazera nere deietara, beatzeko erratzuna ateratzen dan bezela, golpeaz atera ta botako zatut. Zure ganera botako det nere aserrenen sua, negarrak ta desdixak artuko zaitu, miserikordia nik zurekin egin nairik nere txisto amodiosoak burlatu dituzulako.

(\*)<sup>16</sup> Erri onetako pekatu ta eskandaluak ipinirik zuben begien aurrian, zuben pekatuak ontzen ez bazare, itxoroten doguzan Infernuko braseruak; gaur nator bigunta[su]nik andienagaz erakutsiten Jangoikoen pazienza pekatariak penitenziara itxodoten, eta bere miserikordia neurribagia pekatariak andienak parkatuten. Pazienza ta miserikordia Jangoikoarena, ze izen gozoak! Nok ekarri al leikezan egun onetan munduko pekatariak andienak, euren biotzetan miserikordia onen sello san-

<sup>13</sup> Geuk zuzenduta: *Singosai* > *Siongoai*.

<sup>14</sup> Ostein erantsita: *Erri noble fortunatsua* > *O N., erri noble fortunatsua!*

<sup>15</sup> Jatorrizkoan: *hume*.

<sup>16</sup> Ondo lotzerik izan ez dugula eta, ez ditugu eransketa hauek transkribatu: *Beldur-tu, nere aditzalle maiteak, eta ez...* [Aurrerago:] *Datorren egumetarako itxirik ontzen ez bazerate, zeben pekatuak da...* [Aurrerago:] *Erakutsirik itz lastimotsuakin...*

tu bat ipiniteko, ezauturik zeñ andia dan, bildurrak kendurik etorri deitezan beragaz baliatzera! Baña<sup>17</sup> nere dei ta boz argalak munduko bazter guztietan<sup>18</sup> trumoirik jo ezin deben ezkeru, biortuko naiz zubekgana eta esango dizuet Jeremiasen espirituakin, otsik gogorren(...): Zuk, Lurra, entzun atenzioz Jangoikoaren itza, biort(...).

---

<sup>17</sup> Ostean aldatuta: *Au ezin dodan ezkeru > Baña.*

<sup>18</sup> Ostean zuzenduta: *mundu guztian > munduko bazter guztietan[n].*

## [ERROSARIOKO DEBOZIÑO]

Miragarriak izan zirian Simon Onias Beneragarrien semiak Jerusalemgo Elexiari ekarri eutsazan zorionak; eta anbestekoak, eze beragatik merezidu izan eban esatia eguzkiak Zeruan argi egiten dabena legez, alan berak bere Elexan argi egiten ebela. Eta añ izen andia merezidu izan beban Simon Oniasen semiak<sup>1</sup>, ez dau<sup>2</sup> gitxiago merezidu aita Santu Domingo Beneragarriak, Errosario Santuen fundadoriak, Errosario Santuen bidez Kristoren Esposa eder Elexa Ama Santuari ekarri eutsazan mesediakgaitik. Baña Misterio Santu onetan sartu baño lenago, esan biar deusuet zer dan Elexia.

Elexia, N.K., ez da beste gauzarik ezpada Kristinau fededunen batzar bat baño. Elexa onen buru ta nagosi da Jesukristo, Berak ipini ebelako, Berak zaindu ta gobernetan dabelako. Gu Gloriarra joango bagiñan, Elexaren buru Jesusek Zerura igo biar izan eban. Eta Bera Zerura joanik Elexau buru bage gelditu etzaitian, S(a)n Pedro ta bere ondorengo Erromako obispo izango zirianak Elexaren burutzat itxi euskuzan. Onetarako, biar zituben eskubide guztiakin Erromako Obispo Elexiaren buru oni guztiok obedidu biar deusagu, eta añ modutan siñastu biar dogu Aita Santu onek Fediaeren ganian erakutsiten deuskuna eze, berak erakutsiko baleuskigu gauza bat Fediaeren ganian, lenago siñastu biar dogu bere esana, beste munduko jakintsu guztiak onen ganian esan al leikenari baño, zegatik berari emon eutsan Fediaeren ganeko gauzaetan ezin erratuko doia.

Lau dira Elexaren ezaugarriak edo señañiak, eta one[e]k dira: Elexiau bat Bakarra izatia, Katolikua, Apostolikua eta Santua. Da Elexia bat Bakarra, bat bakarrik dalako bere buru Jesukristo gure Jauna, bat bere fedia, bat bere doktrinia, bat Elexa onetarako atia, eta bat adoretan daben Jangoikoa. Da Santua, dalako santua bere buru Jesus maitia, baita santutasunen iturria. Da Katolikoa, dalako guztientzat egina. Da Apostolikua, Apostoluak izan ziralako Elexa onen lenengoko arriak, eta euren bidez mundu guztitik zabaldu ebelako Jesukristok. Jesukristoren

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Ostean zuzenduta: *Eta añ izan beban Onias Beneragarrien semeak > Eta añ izen andia merezidu izan beban Simon Ontiasen semiak.*

<sup>2</sup> Idem: *da > dau.*

Esposa maite Elexa Santau, beti izan da Infernuagandik persegidua; ez uste orain bakarrik izan dala Elexa persegidua, beti izan ditu persekuziño andiak.

Andiak izan zirian Oniasen denporan Jerusalemgo Elexiak igoro zituan persekuzinoak. Ilundurik eta alargundurik legez denpora atan egon bazan bere arerioak ja azpiraturik eukela, errukitu zan Jangoikoa eta ekarri eben lengo edertasunera Simon Oniasen seme santuaren bidez. Eta orduko Elexiaren persekuzinoak andiak izan bazirian, etzirian izan txikiagoak gure Ama Elexa Santarenak Errosarioko Misterio Santuen bidez argitu aurrian.

Bai milla ta berreungarren urtia Elexa Amarentzat ondo ilun ta negargarrizkoa! Denpora negargarrizko atan egoan Jesukristoren Esposa Elexa Santia anbeste arerioen artian ja azpiraturik, anbeste erejiagaz ilundurik: España moro geztoen azpian kautibo eginik, Franzia Albigense, Ubaldense eta beste erejia askorekin azpian ondaturik, Alemania zisma gezto baten sarturik, eta Aita Santu Erromakoa S(a)n Pedroren Sillatik iges eginik Federiko Enperadore gogorren eskuetan jausi ez e[itia]gatik, zeñek eriotzaz persegietan eban. Denpora onetan pekatuzko laño baltzak besterik ikusten etzanean, errukitu zan Jangoikoa bere Elexa Santia lengo edertasunera ekarteko, onetarako balietan zala arako izar argi eta Elexiaren gordetzalle S(an)to Domingogaz.

Neke ta izardi andiak artu zituzan Santu andionek alan predikazinoagaz, baita bere anbeste disputa Erejuen<sup>3</sup> kontrakoakaz. Eta andiak izan bazirian bere artu zituzan frutuak, Jangoikoaganako irabazi zituzan arimak, ez orregatik berak nai zituen bestekoak. Bein batian askotan legez Maria Santisimiaren kapilla baten oraziño egiten egoala, entzun eban berba bat<sup>4</sup>, esaten eutsala gure bazituen frutu andiagoak atera Elexiaren arerriogandik, predikadu leijela Maria Santisimiaren Errosarioko debozino. Guztia pozturik Zerutiko abisu eta argi onegaz, asi zan prediketari Mariaren Errosarioko deboziñoa. Eta anbestekoak izan zirian misterio santu onen debozinoren bidez irabazi zituzan arimak, arako len disputa andiakaz ezin Jangoikoaganatu zituzan Erejuak, baita beste ezin kontala milla pekatari prisaka etorri zirian euren bide geztoak itxirik Mariaren Errosarioko Kofradian sartutera, eta len pekatuz ilunduko gizonik geztoenak eguzkiak legez Elexa Santan argi egitera.

Baña, nok esateko Misterio Santu onen bidez Zeruko bidian sartu ziran pekatari guztiak? Bai, Maria, ondo emen ekusten da zeñ poderio

<sup>3</sup> Idem: *Erjuen* > *Erejuen*.

<sup>4</sup> Geuk zuzenduta: *berbat* > *berba bat*.



andia daukan zure deboziñoak Jangoikoen aurrian. Ez da izan orañdio munduan Kristinaurik, bere esturetan deiturik bere laguntzea ezautu ez dabenik. Mariaren Errosarioko kofraderik, Berari deitu ta eskua emon ez deutsanik. Misterio Santu onen debozinoa asko izan Kristinauak ija Turku geztoen azpian egozanak aren menditi[k] iges egiteko, eta ez bakarrik onetarako, baita bere are[e]n exe[rzitu] [ik]jaragarriak guztiak galdu-rik bitoria andi bat irabaziteko, gaurko egunez irabazi zana legez. Eta zer irabaziko ez dabe Errosario Santuen debotoak? Esan begie au anbeste Kristinau Mariaren debozinoen bidez gorputz eta arimako bitoria irabazikoak. Eta benetan, zer dago zer miraritu onegaz, munduari etorri jakazan zorionak guztiak bere amodioz etorri bajakaz? Ez dago Santurik, ez bakarrik oraingo Legian, baita bere atxinakoan, bere amodioz zorionik etorri ez jakonik, dino S(a)n Bernardok. Orandik etzan munduan Mariarik, baña orregaitik, onen amodioak ekarri eban Jangoikoa munduari anbeste zorion ekartera Urioliagaz mundu ondatu ebenian. Noe bakarrik libratu beban, Mariaren amodioz egin eban; bada, Noek gorde beban Kutxa atan gizonaren azia munduaren konserbaziñorako, Mariak gorde biar eban graziaren iturria, arako mundua pekatutik atera eta Zeruko bidean ipiniko ebena.

Orain, bada, orandio Mariaren izaterik munduan ez egoanian, Mariaren gerixa izango zanen amodioak Jangoikoa anbeste mesede mundutarrak egitera obligadu beban, zer orain anbeste merezimentuz beterik bere Semiaren ondoan egonik, emongo ez deutso bere debotoentzako? Bai, Maria, Zu topetan zaituanak topauko dau argi ederra munduko gau ilunian Zeruko gloriara ondo lagun egingo deutsana. Nor ezta, bada, zure deboto izango? Zeñ pozera biziko da zugaz aztuta dagoana? Zer balioko deutse mundu anditasun guztiak zure deboto izan ez danari, mundu oni agur eginik bestera joan biar dabenian? Ez, Andrea, ezta izango emen Kristinaurik zure Errosarioko Misterioz aztuko danik, eta bere bidez zu eriotzako orduan bitarteko eukiko ez zaituanik.

Baña, nondik nora erakutsi neikez Mariaren anditasun guztiak, eta bere bidez guri datorkiguzan mesedeak? Askok izan zirian, Maria, zure anditasunen ganian Santubak esan zituban gauzak. Alperrik S(a)n Bernar[do]...

## DEVOCIÓN DE MARÍA

J(esús), M(aría) y J(osé)

*Manum suam aperuit inopi, et palmas suas extendit ad pauperem.*

Prov. 31, 20

Jangoikoak gu pekatupetik atera ta Zeruko bidian ifini genduzan obra miragarrijak, mundua ezerezetatik egin eben obra miragarriagaz zenzun andi bat daukala, baita pekatuen munduko sartzejeriak bere erremedioagaz, dirausku S(a)n Bernar(do)k. Bada, gizon ta emakumie izen ziriana lege[z]<sup>1</sup> gure galtzair lagun egin ebenak, konbenidu zan gizon-da emakumiek lagun leijen bere erremedijora. Adan gure lelengoko gurasoak pekaturako laguntzat euki ebena legez Eba gure lelengoko ama, alan gure bigarren Adan Jesusek laguntzat gure erremedijorako euki eben Marija gure bigarren Eba. Eta Eba lelengokoak pekatuta ekarri beban Adan gure lelengoko aita, alan Marijak ekarri eban Jesus gu erremedijetara. Bitarteko zuzen ta eskubide andikoa dei egiten deutso S(a)n Pablok Jesukristori, justizijan arrigarrija, errukijan neurribagia. Bere ontasunak konbidetan gatuz pekatuen parkaziñora; bere justizija guztija erretan daben su ikaragarri bat da, noren aurrian pekatarijak guztijak ezerezera biortuten dirian, nai txiker nai andi, nai pobre nai aberatsak, nai zar nai gazte, gizon nai emakumeak... Baña Birjiña Mariagana bior-tuteko ez dogu euki biar bildurrik, bada, urrun dira beraganik oztasun ta gogortasunak. Guztija da biguna, guztija gozoa eztija lezkoa. Orregatik, Jangoikoak guri egin euskuzan mesede asko ta andijen artien, andijena ta aitzurik euki biar ez doguna da, guri Marija bitartekotzat emotia<sup>2</sup>. Etzan asetu bere amudijoa, (au da Jesusena,) gu semetzat artuagaz. Gixti deretxo oraindio oni, baite bere emoten deusku Marija Amatzako. Baña, zelako Ama? Ama eskubidez beteriko bat, amudijo ta gozota[sul]nez beteriko bat. Ama bigun, gozo, laztan, errukior bat, bere eskuak zabalik nondi gure pobreza ta miserijak estaldu ta jantziko dituzan gogo santuz<sup>3</sup> beterik dagoan bat.

---

<sup>1</sup> Ostean zuzenduta: *bazirian* > *ziriana lege[z]*.

<sup>2</sup> Osten aldatuta: *eukitia* > *emotia*.

<sup>3</sup> Geuk zuzenduta: *gogoz santuz* > *gogo santuz*.

Zelako alegiñak ez zituezan egin Santurik andijenak, Marijaren debozino santu bat pekatarijen biotzetan exetutiarren? Au izan zan S(a)n Bernardok bere denporan nai izen ebena, onetarako ainbeste neke, lan ta izardi emoten zituzala. (\*)<sup>4</sup> Au beste Santurik andijenak, bata baño bestia geijago enpeñetan ziriala pekatarijen biotzetan Marijaganako deboziñoau exetuten<sup>5</sup>. Eta auxe da<sup>6</sup> gaur nik, pekatari andionek, nai neukiana. (Eta zorionekotzat emongo nintzateke, debozino santu bat Marijaganako zuen biotzetan ifini al baineike,) esaten deutsuedala fede bizi, esperantza oso ta karida[del] andi bategaz eskatuten badeutsazue, konbenidu jatzue[n] gauzarik uketuko ez deutsuela. Asko ta andijak dira Ama gozo oneganako deboziño santu bat artutera obligetan gaituezan errazoiak; baña niretzat guztijen artien andijena da, Marija Jangoikoena<sup>7</sup> baita bere guria izatia. Bada, Jan(goiko)en<sup>8</sup> Ama izatiak emoten deutso bere Semien ondasun andijak berak nai dabenari emoteko eskubidia; eta gure Ama izatiak obligetan dau ondasun andi one[elk] gu bere seme-alaba one[el]n artian zabaldutera. Sustrai bi one[el]tati datorkigu ez bakarik Marijari beneraziño euki biar izatia, baita bere biotzetiko debozino bat, zein dan nire sermoiaren lana.

Doktrinatzako berbatxu bi esango ditut Esperantzaren ganian. Esperantzia, N(eure) K(ristinau)ak, da birtute bat, Jangoikoen grazija ta geure obra onakaz naste Zerurako esperantzan ifiniten gaituzana. Esaten da lelengo Jangoikoen grazijagaz naste, ezautu dagigun<sup>9</sup> onegaz gure obrak grazija bagarik prestu ez dirial[a] Zeruko portu seguruan gu ifiniteko. Eta esan dot bere obra onakaz naste, jakin dagigun ez dogula uste izan biar, Jangoikoak destaijuz legez, geuk onetara inderrik egin bagarik naita-naiez legez emongo deuskula Zerua. Alan bada, gauza bijak biar dira, Jangoikoen aldetik grazija, gure aldetik obra onak. Esperantzau frutuzkoa izan dedin, iru gauzatarra begiratu biar dogu. Bata, zer itxorongo dogun; bigarrena, zelan itxorongo dogun; irugarrena, nogandik. Esperantzaren birtutez guk itxoroten dogun gauzia da Zeruko Glorija, betiko zoriona, zeinētara bide egin biar daben gure pausuak, gure neke, izardi ta pensamentuak, destierruan daguan batek euki daroazana legez bere libertade ta bere etxian. Zelan izan biar dabe one[el]k pausuok erri zorionez beterikora er[ol]an biar gaituezanok? Ondo jakin biar dogu diriala

<sup>4</sup> Albo oharra: *Vuelta*.

<sup>5</sup> Ostein ezabatuta: *exetuten pekatari artian > exetuten*.

<sup>6</sup> Ostein erantsita.

<sup>7</sup> Ostein aldatuta: *Jesusen Ama > Jangoikoena*.

<sup>8</sup> Idem: *Jesusen > Jan(goiko)en*.

<sup>9</sup> Geuk zuzenduta: *daigigun > dagigun*.

Mandamentu Santuak jagonagaz, pekatu ta euren okasinoetatik iges egiñagaz, injurija, gorrotoak<sup>10</sup> aldera itxirik Jangoikoen amudijoz parkatua-gaz, eta euri ondo gure izatiagaz... (\*)<sup>11</sup>

One[e]k onelan jagonik, gure zorionen emollia Jesukristo gure Jauna, zorion guztijen iturrija, zeñek ezingo deuskun uketu Berak aginduko gauzarik, gure aldetik egiten badogu dirauskuna. Zeruko Glorijan esperantza ifinirik oraziño egiten dogunian, ez bakarrik eskatu ginaijuz arimako ondasunak, baita bere gorputzekoak, alan konbeni bada. Orregatik, ondo eskatu ginaijuz osasuna, munduko ondasunak..., Bera obeto serbiduteko izango badira. Ez beste modutan, deungaro eurekaz use-tako izango badira, bada orduan konbenidu ez dira, eta konbenidu ez dan gauzarik ez deusagu eskatu biar, eta onelan uketutia ez biar izanik, guri mesede andi bat egitia da<sup>12</sup>. Aurrera jarraituteko biar dot grazija... Abe Maria.

#### TEXTUS UT SUPRA

Nok gaur euki leikian S(a)n Bernardo baten gozotasuna, Marijaren izen gozo anditasunez beterikoen ganian biar dan le[gez] berba egiteko? Egija da<sup>13</sup> borondatiak onetara lagun egiten deustala, baña beste aldetik, ezaututen dot biar dan legez au egiteko minondoko andija dodala. Eta arrazoagaz esan neike Profeta Santu batek beste aldi baten Jangoikoari erantzun e[ul]tsana, biraldurik Josias Judeako erregiagana. Zirautsen Jaunari Jeremias Santuak: Ai Jauna! Seña naz, oraindik ez dakit berbaz, bildur naz. Baña esperantzia ifinirik arako Jangoiko Profelta Santu oni inderra emon eutsanian, premina eukirik, Marijaren anditasunen ganian berba eguiteko alegiña egingo dot zerbait esateko. Eta nondi uste dozue obeto erakutsi neikiala Marijaren anditasun au? Neure ustez ez inondik bere obeto, esanagaz ezpada Marija Jangoikoen Ama dala. Alperrik batek erakutsi naiko dituz Ap(ostolu)ak Marijaren ganian esan zituesan anditasunak, Santuak eskribidu zituesanak, baita Angeruak ezaututen dituezanak. One[e]k guztijok eta geijago esaten da esanagaz Jangoikoen Ama dala. Bada, au<sup>14</sup> esanik esaten dogu Zeru-Lurraren Erregiña dala, eta onetan sartuten dirian ondasun guztijen eskubide osoa daukala, dino S(a)n Bernardiñok. Orregatik esan giñaike S(a)n Bernardogaz,

<sup>10</sup> Osteen zuzenduta: *gorroto* > *gorrotoak*.

<sup>11</sup> Atal horretako amaiera oharra: *Aquí lo que más te cuadre*.

<sup>12</sup> Osteen erantsita.

<sup>13</sup> Idem.

<sup>14</sup> Jatorrizkoan: *bau*.

Marijari ainbeste<sup>15</sup> eskubide zeinde bere Semiari zor deuntsagula; eta Jesusek beragatik esan ebena legez Zeru-Lurraren ganeko eskubide ta agintaritasuna Berari emon jakola, alan esan ginai bere Marijak daukala, bada, izenik ango Erregina, da bertako ondasunen giltzeria, eta alan Marijak egin ezin leijen gauzarik ez dala, ezpada guztija al dabela. (Eta nori ezpada Errosarioko debotoai emongo deutsez zorion ta ondasunok<sup>16</sup>?)

Eta benetan, ze eskubide, ze anditasun ez eutsan emongo Amari bere Semiak? Ukatuko eutsan gauzarik Berak emon aleijonik? Ez, Kristin nauak, ez. Zeruko ondasunetan, batak legez bestiak, ama-semiak esku-bide osoa dauke, amak egiten dabena semiak ontzat artuten dabela. Semiak amari deuntsen amodijoak ezin itxi leijo bestelan egiten. Ezin aztu leiteke semia bere amagaz, bere buruagaz aitzu bagarik; eta aitzuko balitz, edo<sup>17</sup> onelan semia amagaz igoroko ez balitz, ez lituken seme on batek amari<sup>18</sup> zor deuntsazan obligazinoak ondo kunpliduko. Benetan, K(ristinau)ak, esperantzarik baldin badogu, zorionik badatorkigu, guztija Marijaren eskuetatik datorkigu. Zeruko atiak idigi bajakuz, eta beste ondasunik badakusgu, Marijaren bitartez datorkigu. Marija izan zan gure faltaren zorra Berak bere Semiagazko artu ebena bere kontura, fijadoreztat sartuten zala. Demoninoari munduan atxinatik euken agintaritasuna kendu bajako, nor besterik ezpada Marija izan kendu eutsana? Marija da arako emakume sendua Diabruari burua ausiko eutsala atxinatik zema-tu ebena<sup>19</sup>. Jangoiko ta gizonen artian bakiak egin bazirian, Marijaren bitartez egin zirian. Marija da Jangoikoen gure pekatuen kontrako ase-rrer andijaren sua amatetan dabena, bere gerizpa santuan ifiniten gaitue-zala. Zeruko mendi altura egozan aldatsak, nok bardinduko euskuzan? Nok idigi ango atiak? Guztija Marijak. Marija da obra miserikordiazko onefelk guri egin deuskuzana. Bera gure Zeruko atia, eskalera misterio-soa Jakob Patriarka Santuak ikusi ebena, nondik ainbeste pekatarik igon leijen<sup>20</sup> Zeruko uri ederrera. Nok obligau eban Jesus gure pekatuak par-katutera? Marijaren amorioak<sup>21</sup>, Ama gozo, bigun errukior oni eutsan amodijoak. Esan giñaike ondo emen, Aitak Semia bagarik ez beban egin Zeru-Lurraren ganeko gauzarik, ez dabela Semiak bere parkatuko gure oker eginik Ama bitarteko ifini bagarik.

<sup>15</sup> Idem: *bainbeste*.

<sup>16</sup> Ostein erantsitako esaldia.

<sup>17</sup> Ostein erantsita.

<sup>18</sup> Ostein zuzenduta: *bati berak > batek amari*.

<sup>19</sup> Ostein ezabatutako esaldia.

<sup>20</sup> Ostein aldatuta: *eben > leijen*.

<sup>21</sup> Alternantzia: *amodio / amorio*.

Bai, K(ristinau)ak, Marija da guztijentzat egiña, jakintsu, ainbako, pobre, aberatsentzako; guztirako<sup>22</sup> emonda deutzaz bere Semiak ondatsuntegiko giltzak, guztijak beragan erremedioa aurkitu dagijen eta guztijak aintzekotzat ezautu dagijen. O zugar, M(arija) presoan libertadaria, gaixoak osasuna, tristiak konsuelua, pekatarijen pozgarria, Justuak grazija, Angeruak alegrija eta Trinitade Santuak glorijs<sup>23</sup>. Alan gure zatu zeure Semiak ondrau, baita bere gugandik ondradua izan zaitian. Eta ze asko au<sup>24</sup> zugaz egin gure izatia, il-da lasterrian illen artetik biztu ta Zerura eroanik, koroitua Zeru-Lurraren Erregiñatzako izan bazinian! Eta andijak deritxazue diriala bere Amari<sup>25</sup> Semiak eginiko gauzaone[elk]? Bai, alantxe dira, andijak, eta gure zenzun laburrak ezautu aleikezanak baño andiangoak dira one[elk]. Baña ez bakarrik one[elk], baita bere atxinako Patriarka, Profeta ta Santu guztijakaz egiñeko grazija guztijak, Marijaren amodijoz egiñak ziriala dirauskue Santuek. (Bernardino.) Ez eban orandio Marijak izaterik, oraindio jaijo etzan Marija, eta orregatik munduari beraugatik parkatu eutsen. Marija izan zan lelengoko gurasoai euren pekatua parkatutera Jangoikoa ekarri ebena, ikusten ebelako onetatik etorriko zala arako kriatura ederra Trinitade Santuak begijak beragan ifinite eukezana. Mundua Urijoliagaz ondatu ebenian Jangoikoak, nok librau eben Noe kastigu onetatik ezpada Marijak, edo Jangoikoak oni eutsen amodijoak, zeinik etorri biar eben Patriarka Santuaren beleu-netik? Marijagatik librau zan Abran Jordango<sup>26</sup> arerijoen eskuetatik, Israel Egiptotik, Dabid Santua Saulen persekuzinotik, Daniel leoi ikaragarrijen agin artetik eta Nabukodonosorren labe goritik iru gizon gazteak. Berba baten: atxinako Patriarka, Profeta eta beste ganeko guztijakaz egin zituzan miserikordijak, Marijaren amodijoak egin erein eutsezan.

Marija da arako emakume sendoa, zeinik gaz zamatu eban Jangoikoak Diabrua bere<sup>27</sup> engañuz Eba pekatuan jausi zanian, esaten eutsela jaijoko zala oraindio emakumia bere burua ausiko eutsana.

Marija da atxinako<sup>28</sup> Sara Abraanen emazte alegrijazko amaren irudi bizija. Au<sup>29</sup> Noenen Arka misterioa eta Testamentoko Kutxa santuaz

<sup>22</sup> Ostein zuzenduta: *guztijentzat > guztirako*.

<sup>23</sup> Idem: *Marijagan dauke guztijak, presoan libertadia, gaixoak osasuna, tristiak konsuelua, pekatarijak parkazinoa, Justuak grazia, Angeruak alegrija eta Trinitade Santuak glorijs > O zugar, M(arija) presoan libertadaria, gaixoak osasuna, tristiak konsuelua, pekatarijen pozgarria, Justuak grazija, Angeruak alegrija eta Trinitade Santuak glorijs*.

<sup>24</sup> Ikus 14. oharra.

<sup>25</sup> Ostein zuzenduta: *Ama > Amari*.

<sup>26</sup> Geuk zuzenduta: *Joorlango > Jordango*.

<sup>27</sup> Ostein aldatuta: *Diabruaren > bere*.

<sup>28</sup> Ostein erantsita.

<sup>29</sup> Ik. 14. oh.

Marija Dabiden torria, baita bere Salomon egijazko Jesukristo gure Jau-naren sagrarijoa, birtutez edertuko urregorritzko txaplaz kanpotik eta barrutik amudijozko<sup>30</sup> oraziñoz betundua, (baita bere jazintozko korti-naz garbitasunez apaindukoa), noren errai garbijetarako altaran artu eban ostatua, arako Jangoiko andi Zeru-Lurra egin baño lenago Bera beragan glorijaz beterik pasietan ebena. Bai, Kristinauak; Marija da one[elk] guztijok eta beste milla bider geijago nire zenzun laburra ezau-tu ezin leizen beste grazija, anditasun eta pribilegijoz apainduriko Ama gozoa. Marija jaijo baño ainbeste milla urtez aurrerago<sup>31</sup> ainbeste mise-rikordija egin beban Jangoikoak, ainbeste egitera ekarri beban bere amudijoak, zetara ez dau ekarriko gaur ainbes[te] merezimentuz beterik tronu eder baten jarririk, Erreginatzat ezautu eta adoradurik dagoanian? Uketu leijo Amari Semiak, Marija enpeñau aldagijon gauzarik? Eta au<sup>32</sup> onelan siñasturik, izango dogu guk biotzik epel izateko, bere debozino-au ezaturik orain eta beti biar dogula euki geure aldetik, izan deitian bitarteko egunian ainbeste bider bere Semiari egiten deusguzen falta-tan? Nor izango da, Marija, arako pekatarija zukanako (benetako) debo-ziño bat artu nai ez dabena? Ez Ama biguna, ez Ama gozoa. Egija da gure argaltasunak zu aitzu erein deuskula; baña aitzua damaturik eta gure zukanako esker geztoak ezaturik, biotzak onen damuz urruturik etxuten gara zure oñetara, berbia enpeñetan dogula aurrerantzian esker obekoak eta debozino egijazkoak zukanako izango gariala. Ara emen zure errija<sup>33</sup>.

Deboziñoa da<sup>34</sup> gure borondatia gauza on ta santuak egitera eroan daroan Zerutiko axe santu bat, zeinek nagitasun ta atzerakuntza guzti-jak kendurik, ez dautsan itxiten borondatiari egiten arimaren onerako baño ezin izen leiteken gauzarik. Eta alde batera itxirik Jakintsu askok debozinoaren ganian dirauskuzan gauzak, esan biar deusuet bi diriala emen munduan debozino bateri artutera eroan garoezan gauzak. Bata da personiaren meritua; bigarrena, persona aganik artu daroaguzen ondasun edo esker-mesediak. Eta one[elk] bijok aurkiturik Marijagan bes-te edozeinbere kriaturatan baño gradu altuagoan, berez edo naitanaiez legez eroan biar gaituz deboziño santu bat artu biar izatera Berari. Eta benetan, zer meritu andijagorik (onen ganian berba egin gure badogu), Lurraren ganian Marijarena baño, zeinek bentaja andija egiten deusen

<sup>30</sup> Alternantzia: *amodijo / amudijo*.

<sup>31</sup> Ostean zuzenduta: *baño lenago > baño ainbeste milla urtez aurrerago*.

<sup>32</sup> Ik. 14. oh.

<sup>33</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>34</sup> Ostean ezabatuta: *Deboziñoa ez da beste gauzarik ezpada > Deboziñoa da*.

ez bakarri[k] kriatura Lurrekoai, baita Zerukoai? Eta nor ezpada Marija<sup>35</sup> da gure ondasun-emollia? Nok ezpada Marijak ekarriten dituz Zerutiko grazijaren inontz santuak gure arimetara? Nok amatau bere Semiaren gure pekatuen kontrako aserre andijak ezpada Marijak? Baña, zegatik ni nekatuko naz au zuei erakutsi ezinik, guztijak, ez bakarrik Santuak, baita bere pekatarririk andijenak euren egitiakaz egijau argiro erakutsiten badeuskue? Ez dakusguz egunian-egunian pekatarririk andijenak zenbat galduagorik bizi izan dirian, ainbat eta estuagorik Marijaren billa etorri oi diriala, euren esturetan biotzak urraturik, begijak negarrezko konporta eginik erremedio billa<sup>36</sup>? Zek au ereiten deute<sup>37</sup> pekatari oneleji, ezpada Marijagan ifinite deuken fede ta esperantziak, zeinek ezautu ereiten deuten euren pekatuak merezidu ez dabena, Marijaren enpeñuak egingo dabela? Ezta au egiten dozuena batzuk ortozik, beste askok ofrendak dozuezala zeuen esturetan Marijaren Altara-aurretan?... Zenbat bider zuk...? Zenbat bider beste orrek...?

Bai, K(ristinau)ak; autortu biar degu<sup>38</sup> Marija dala gugaz bere Semien arteko bakegillia, Berau guganako bere Semia zamurturik ifiniten dabena, Berau<sup>39</sup> bere Semien Zeruko atiak idigiten deuskuzana. Aitu zenbat gauzak eroan biar gaituzan Birjiniaren debozino santura. Egin bada, alegiña deboziñoau Marijari gaurrik izateko, bada, Marijaren deboto izatia dirauskue Santuak, baita bere Espiritu Santuak berak Ama Elexa Santiak (gaur) berari apliketan deutzazan berbatan, Zerurako izango danen señaliala dala. *Qui me invenerit inveniet vitam, et auriem salutem a Domino*, Marija billatuten dabena osasuna ta betiko bizitzia aurkituko dabela. Marijaren deboto zareanok, poztu biar dozue ondo siñasturik zeuen eriotzako esturan agertuko jatzuela izar argi ederrau, zeinek zuen Eternidadeko bidiak ondo zuzenduko dituzan. Pekatari pekatuen pisuz larriturik<sup>40</sup> zagozana, anima zaite entzunagaz S(a)n Ignazio Marteruak dirautsuna; bada dirautsu, Jangoikoen Justezijak salbau ezin leijena Marijaren errukijak salbetan dabela. Tristeza, sentimentu ta tentazinoen inderez penaz zagozana, zoaz Marijagana, deitu egijozu zeure esturetan, eta ezautuko dozu zure esturak atsegiñera biortuko deutzuzala. Uste dozu Jangoikoak Marijari emoniko ondasun ta eskubidiak alperrik eukiteko dituzala? Ez, ezpada pekatari triste argalen artian zabalduzteko, eta onelan aberasturik ifiniteko. Baña, nok erakutsi dituz Marijak bere deboto-

<sup>35</sup> Idem: *ezpada besterik Marija baño > ezpada Marija*.

<sup>36</sup> Ostean erantsita: *konporta eginik > konporta eginik erremedio billa*.

<sup>37</sup> Horrela, tilde eta guzti.

<sup>38</sup> Ostean zuzenduta: *autortu dagigun > autortu biar degu*.

<sup>39</sup> Idem: *Bera > Berau*.

<sup>40</sup> Ostean aldatuta: *azpiraturik > larriturik*.



entzako gordeta dituzan ondasunak? Nok agortuko dituz bere grazija ta zorionez beteriko itsas andija? Ez beintzat, gure pekatuak asko ta andijak izanagatik, beragana deboziño benetako bategaz etxuten bagara.

Eta au<sup>41</sup> siñasturik, zelan zu, pekatarija, ain atzera Marijaganako? Zelan ain epela? Bai deboziño egiazkoa eskatzen digu, ez azalekoa<sup>42</sup>. Pekatuen pisuak azpijan zaukazana, jaigi zaitez, urtengizu estadu negargarrizko orretatik. Eskatugiozu Birjiña Amari esku santua luzetu dagizula zure pekatuen damuari egijazko bategaz, joan zaitez Bera enpeñutzat arturik bere Semien Sakramento Santu penitenzijakora, eta antxe garbiturik lelengo, debozino santu bat Marijari gordegiozu. Eta dirautsut lelengo ondo konfesaurik garbitu zaitiala, eta onen ostian deboziño bat artu dagiozuela, zegatik benetako debozinorik ez dagoan arimia garbi euki bagarik. Onelantxe egiten badozu, zorionekotzat emoten zaitut. [Gurutzea] (Baña, ai! Beste aldetik, biotza urrututen jat ikusirik Marijaren deboto benetako<sup>43</sup> gitxi diriala eta deboziñorako izan biar leuken bidiak pekaturako biortuten diriala.) Asko dira azaletiko debozino bategaz kontentadurik, noz bere grazia beraganatu biar daben, orduan ainbeste pekatu ta gaiztakerijagaz aserratuagorik ifiniten dabenak. Asko Birjina Errosarijoko Kofradian sartuak; gitxi Marijaren fiestatan ta illian lelengoko domeketan, kofradijekoentzat konfesau ta komulgaurik gordeta dagozan induljentziak irabaztera datozenak. Asko Karmengo abitua azaletik jantzirik, euren barruan amudij[ola ta tratu ez garbijak gordetan dituezenak.

Asko marinelen artian egunian-egunian euren esturetan promesgiñan dabiltezenak; baña orregatik, euren ekandu geztoak, berba loiak, birao, maldiziño, blasfemija... eta beste gaiztakerijaz<sup>44</sup> beteriko bizitzatik urten nai ez dabenak. Zenbat merkatarik ez deutse euren esturetan dei egiten Marijari, baita bere kunplidu euren aginduakaz? Baña ez orregatik bizitzarik emendatu. One[ek] guztijok ez dira Marijaren debotoak, uts egiten dabelako debozino onetarako gauzarik prinzipalenera, zein dan euren bizitza geztotik urten ezeitia. Dama, señora edo besteren batek<sup>45</sup> promes egiten dau eriotzako estura edo beste onelakoren baten<sup>46</sup>, urlija Santa edo Birjiñagana erromerija santu bat egingo dabela, baldin estutasun atati libretan badau. Librau zan, urteiten dau etxetik promesau konplietara, (gauza santua da promesak kunplietia), baña zer

<sup>41</sup> Ik. 14. oh.

<sup>42</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>43</sup> Ostean erantsita.

<sup>44</sup> Geuk zuzenduta: *gaiztakarejaz* > *gaiztakerijaz*.

<sup>45</sup> Geuk zuzenduta: *besterenbatek* > *besteren batek*.

<sup>46</sup> Idem: *onelakorenbaten* > *onelakoren baten*.

jazoten jako? Bere guraso, senar edo bestek nok jagonik euki ezeitiak batetik, bidetako bakartasun, okasiño gezto ta pekatuak bestiak egiten deutzazan erreguak bestetik, guztijak guztietatik jausi ereiten deutse biarbada sekula alakorik egin ez daben pekatu baten; ta gero au garbituko bada, negar garratzak eta beste erromerija santuago bat biar izaten da. Zer diraustazue onetara? Ete diñot jazo ez oi dan gauzarik? Ojala alan balitz, baña alan da lar ta lar berez. Jazoko ete da onelakoren bat zue-tarikoren bategaz? Jangoikoak, arren, bere errukijagaz jagon zaitela, eta jagon zagizen, biortu guztijok Marijaga[na], arren, onelako desgrazijeta-tik gorde gagizan. Bai, Ama errukitsua, jagon egizuz<sup>47</sup>... Zuk ondo daki-zu neure biotzetik eskatu deutzadala, arren, neure entzula guztijok jagon dagizuzela<sup>48</sup> onelako gatxetik, zein dan gatxik andijena. Eta arkantzau-giguzu zeura bitartekotasunagaz, arren, gaur zure Izen Santuari datorki-jozan anditasunak entzutera etorri dirianak elexa onetara, gaur Zu emen ondrau zaituezana legez, alan Zuk betiko ondrau dagizuzela eternidade batian, nik deseetan deutzuedana legez. Amen.

#### [AMAIERAKO ERANSKETAK]

Gauza on ta santua da Marijaren ganian ondo berba egin gure iza-tia; baña, nor da au biar dan legez egin leikiana? Zenbat obeto nik emen esan neikian, Jeremiasek Josias Erregiagana Jangoikoaren partez joateko ordena artu ebenian esan ebena: Jauna, orandik umia<sup>49</sup> naz, barbarik egiten ez dakidana? Ai zenbat obeto esan neikian! Bada, ezauten dot ez bakarrik miñak, baita beste onetarako biar dan moduan egiteko euki biar dituzen prendak urrun diriala nigandik. Baña...

Au erejjak guztija azpiratzekoa. Bada, arma ta beste Erejuga(...) guzia-kin ezin zuana Domingok Zerutiko abisuz, Birjinaren (...) erdetsi zuan.

Nor naz ni, Jauna, errege orren aurrera joan (...) nire esanera ekarteko?

(\*)<sup>50</sup> Baña, o arrigarrija! Eta odolezko negar-malkoaz erakutsi biar [leu]ken Kristaorik geijenen eskergeztokerija! Non dira, [Maria], zere

<sup>47</sup> Osteen erantsita: *Bai, Ama errukitsua* > *Bai, Ama errukitsua, jagon egizuz.*

<sup>48</sup> Osteen zuzenduta: *dagizula* > *dagizuzela.*

<sup>49</sup> Jatorrizkoan: *hume.*

<sup>50</sup> Ondo lotzerik izan ez dugula eta, ez ditugu eransketa hauek transkribatu: *Birjiña lora eder Udiarragakoa.* [Aurrerago:] *Pekatuaren loirik ezautu bakoa.* [Aurrerago:] *Arren, euki egizu gugaz errukia, guri erakutsirik Zeruko Glorija. Amen.* [Aurrerago:] *Devoción de María.* [Aurrerago:] *Bai, Birjina ederra, alan...* [Aurrerago:] *Urregorritzko birtuteren (... )plaz kanpotik edertua, eta an(... ) santuzko orazinoz barrutik b[etia].* [Aurreago:] *Triste guztien iturri konsolagarria, Maria.*

debotoak? Non zere adiskida benetakoak? Non zere egun (...)tuetan Zu enpeñutzat arturik, zere Seme santuen Sakramentoko iturri santuan pekatuak garbiturik, zere deboto izan n[ai] dua[n]ak? Zenbat dira, Maria, gaur erri onetan zere debototzat (...)ten diranak, onelakorik gogotik igarro bage elexa onetan ego[ngo di]ranak? Eta zenbat ez zugaz aserratzeko, pekatuz ofenditzeko, egun askoz aurretik alkar kontuan ifinirik egongo diranak? (...) zere deboto izatia, ezpada noz zuk guretzako ondasuntegiko giltza[k] eman nai dizkiguzun<sup>51</sup>, orduan zere kontra geijago jarririk, aserra[tzia] eta len baño deungagorik gelditzia. Asko dira... *Ut supra.*

Jangoikoak gu pekatupetik atera eta Zeruko bidia[n] ifi[ni] genduzan obra miragarriak, mundua ezere[ze]tik egin zuan obrarekin senitasun bat duan [beze]lla, ala pekatuen munduan sarreierak bere [er]remedioakin, esaten digu S(a)n Bernardok.

Zein zo[rione]katzat emango nintzaken gaur, Mariaren<sup>52</sup> debozioen gañian [itz el]giteko Santurik andienak izan zebeñ doia, et[la ba]ltez ere geiago S(a)n Bernardoren gozotasuna. Bañ[a, au] da Angeruen Erregina eta pekatarien zorione[z be]teriko Ama onen ganian esan al nezakena? [Ez bes]terik, ezpada arako Jeremiasek bein baten Jangoiko[ari] erantzun ziona, biraldu nai izan zuanian Josi[al]s Juldeako erregiagaz. Aurra naiz, Jauna, esan zion (...)ndiak humildade[z] beterik Jang(oikoa)ri, errege(...) itz egiteko. Ez det itzik orrenbesterako (...), (...) ere orduan baño esan ne(...).

---

<sup>51</sup> Ostean zuzenduta: *dizkizun > dizkiguzun.*

<sup>52</sup> Ostean erantsita.

## [KONFESIO ON BATERAKO BOSTGARREN KONDIZIOA]

*Facite fructus dignos poenitentiae.* Lc. 3, 8

Erakutsirik Konpesio on baterako biar diran lau kondeziñoak, gaur datorkit bostgarrengoen ganian itz egin biarra. Konpesio on baterako, bada, biar dan bostgarren kondizioa da, konpeseroak paratzen duan penitentzia kunplitzia edo kunplitzeko borondalte] oso bat artzea. Penitentzia oni beste modu baten deitzen zaijo, satspazioia, berarekin pekatariak pagatzen diolako Jangoikoari pekatuare[ki]n artu zuan zorra. Baña doktrinau obetuago aditu dezazuen, ondo izango da nik orain erakutsitia zubei Pekatu mortal bakotxian gauza bi arkitzen dirala: pekatuen kulpata ta pekatuen pena. Pekatuen erru edo kulpata konpesio ondo egin batek kentzen du; ez ordea pekatuen pena. Pena au emen munduan pagatu biar da, edo konpeseroak paraturikako penitentiakin edo beste geure obra on, limosna ta onelakoakin. Eta au onela egiten ez badegu, purgatorioan ondo penatuarekin, zerren ezingo dan ondo garbitu bageko gauzarik Zeruan sartu.

Satspazioau bi modutakoa izan leiteke: konpeseroak paratuko<sup>1</sup> dion penitentzia kunplitzeko borondate edo intenzioa eukitzia; bigarrena, agindu dion bezela kunplitzia. Eta añ gauza biarra da konpeseroak eman al diozakeen errazuazko penitentzia kunplitzeko intenzio ezik, berau bage ezingo da egin konpesio ondo eginik. Emendik argiro ikusten da, konpeseroak paratu al diozakeen penitentzia justua konplitzeko borondate bage konpesatuko bazina, gero damutuko baldin balitzakezu eramaneza, ta kunplituko bazendu ere, zure konpesioa utsa izan litzateke, zergatikan dan gauza biarra konpesiorako intenzio santoau eramantia. Eta kontrara, konpeseroak paratzen ditzun penitentzia justua kunplitzeko borondaterekin ondo konpesatzen bazera, gero ezin kunplitu izanik eriotzak artu ta ilko baziña ere, Zerurako izango ziñateke.

Doktrinau onela jarriarik, esan biar dizuet gaizki konpesatzen dirala lelengo arako pekatuen okasioetatik iges egiteko borondate firme bat bage konpesatzen diranak, beren pekatua kostunbre zar geztoetatik

---

<sup>1</sup> Idem: *litzateko* > *litzateke*.

irtetzeko proposito edo intenziorik ez duenak, arako jolasik jolas, pestarik pesta beti ibiltzeko gogoagaz konpesatzen diranak, ondo ezaturik beren orañdiñoeko pekatuak okasio oetatik etorri zitzaiztela; baita arako zor egiazkoak pagatzeko borondaterik konpesatzean izaten ez duebenak, eta guztia itz baten esatiarren, beste konpeseroak paratu al diozka-ten penitentzia justuak artzeko borondaterik izaten ez duen guztiak.

Eta egiaz, zer esango ginduke trabaju andi bateaz añ gaixorik dagoan bategatik, deituko balioke medikuari berak eman al diozaken erre-remedioa artzeko borondate bage? Bada, beste onenbeste esan dezakegu animan gaixoa egon mediku espiritualaren billa doianagatik, nai ez izan-rik bere erremedioak artu. Orregatik bada, arako gaixo osasunaren ega-rriri andi bateaz dagoan batek, bera osatzeko agindu al ditzakeen erre-remedioak egiteko egarri andi bat euki oi duan bezela, ala pekatari animan gaixoa dagoan batek, euki biar du deseño bizi bat konpeseroak paratu al diozaken penitentzia justo ta arrazoazkua kunplitzeko. Orregatik bere, ez da izango pekatu, eta bai noizbait konbenidu dan gauza, ezaturik zuk ezingo dezula kunplitu konpeseroak para dizun penitentzia, humildadez eskatzea al badezake beste batera muda dizula. Eta esan det al badezake, bada, asko biderretan gorputzeko mediku edo barberuak bere gai-xoarekin biguña izatia nai izan arren, ezin egin izaten duan bezela, ala animakoak zurekin biguña izan nai arren, ezaturik zeu ta bera galtze-ko bidiak egitia izango litzakela, ezin egin izan daroa. Konpeseroak ez due izan biar kozinerak bezelako, beti nondi gusto emango duen ibilli oi diranak, ezpada probetxura bakarrik begiratzekoak. Bestera, arako mediko beti gauza biguñak baixen agintzen ez duebenak gaixo gutxi osatu oi duen bezela, ala konpesero beti penitenteren gustoari, aren probetxuari baño begiratzen duenak, pekatari gutxi osatuko due, eta penitente ta konpeseroa, biak, itxuaurreko ta itxua putzura erori oi diran bezela, ala Infernuko putzura eroriko dira. Orregatikan, zenbat peniten-te onelako beren gusto ta okasioetan ibilliten utxiko dienen konpesoren ondoren ibilli oi diran! Zergatik Jangoikoaren Legia ta moral santua bat izanik guztioentzako, penitenteren artian añ bide diferentia? Konpese-roen biguntasun pekatuzkoagatik. Gorputzian minen bat dezuenian, min pizka bat g[e]ljiago artuko badezue bere<sup>2</sup>, beti ondoen osasuna emango dizuen osagilleren billa joaten zerate; baño animakoetan, berak nai duen moduan ibilliten izten badizue<sup>3</sup>, ez da ardurarik, ona da. Eta onela bizi izan ta eriotzak artzen duanian: Ai zeñ erratua bizi izan nai-

---

<sup>2</sup> Ostean erantsita.

<sup>3</sup> Geuk zuzenduta: *badieze* > *badizue*.

zan, madarikatua izan dedilla arako nere direktore onela bizi izaten utzi<sup>4</sup> didana!

Pekatoriari para biar diogun penitentzia bi modutakoa izan leiteke, Trentoko Bilkuntzak esaten duan bezela. Bata, lengo pekatuen zorra pagatzera geiago begiratzen duana, eta oni deitzen zaio penitentzia satisfactorioso; bigarrena, osagarri edo medizinala, lengo pekatuen zorraren pagura baño, aurrerantzian euretara joan ez dedin geiago begiratzen duana. Edozeñbere penitentzietan gauza bi onetara begiratu biar du. Orregatik, badira okasioak geiago begiratu biar diranak penitentzia ipinitean, aurrerako bizitzan pekatuen okasiotatik irten dezeen; eta beste batzuk, bakarrik lengo pekatuen zorren pagurako. Lelengokoak, paratu biar dira arako okasioetan sartuak egon diranai; bigarrenak, okasiotik irtenda bizi diranai.

Esan dizuet Konpesio on batek beti kentzen duala pekatuen kulpa; ez ordea beti pekatuen pena guztia. Pena au emen munduen edo purgatorioan pagatu biar da, Zerura sartu baixen lenago. Eta anbeste penaren erdian purgatorioan pagatzen ego[n] ez zaitian, eta errazago emen munduan zauden artian paga dezazuen, pagatzera emen egin biar dezue, konpeseroak paratzen dizuen penitentzia ondo kunpliturik. Eta penitentzia paratzen zaiona pekatoriari txit gutxia izan arren ere bere pekatuak merezi duenen aldean, orregatikan da txit birtute andikoa, bere birtutea artzen duela Jesukristoren merezimento santoti Sakra[mentu] Penitentiakoren birtutez. Orregatik, zuben penitentzia agintzen zaizkizuen aña gutxia izanagatik, alegina eginzazue fede bizi bateaz egiteko, eta orrela egiten baldin badezue, pekatuen parkaziorako asko eginik baño, epel baño geiago merezituko dezue. Penitentzia oek kunplitu ez egitia beti izango da Pekatu grabe edo beniala, nolako dan uts duan penitentzia. Penitentzia grabera uts egin badu, pekatu grabia; eta txikira egin badu, beniala.

Penitentzia grabiak dira pekatu grabiakgatik paratzen diranak; konturako, onenbeste egunian meza entzun dagiala, edo anbeste egunian gox ta arrats onenbeste errosario errezatu dezala edo baruak atera ditzala. Eta penitentzia ariñak dira pekatu ariñakgatik paratzen diranak; estazio bat errezatzeko, edo altarak bisitatzeko, edo beste onelakoak. Aztu bazitatzu zer penitentzia eman dizuen, okasioa badezu, biorturik atzera eskatu biar diozu; eta au ezin badezu, zeuk ondoen deritxazuna eginik urren biortzen zeranian eskatu eikiozu. Konpeseroak paratuko penitentzia andia izanagatik, gauza txikian baño uts egin ez badezu, Pekatu

---

<sup>4</sup> Idem: *utxi* > *utzi*.

benialetik igaroko ez da palta ori. Eta ezin egun baten egin izan badezu, aparteko lanen bat edo biajeren bat izan dezulako, beste egun baterako utzi dezakezu.

Penitentzia kunplitu biar da konpeseroak agintzen duan denporan, eta premia bage denpora luzean zabartasunez izten, pekatu mortala izango da. Konpeseroak aginduko penitentzia ondo kunplitu biar da. Orregatik, meza entzuteko agindu badizu, gorputzaz elixan egon arren biotza pekatuan dezula entzuten badezu, penitentzia kunplituko ez dezu. Ez dezu ere kunplituko penitenziarik, bestela botoz edo obligazioz egin biar dezun gauzaz. Orregatik...

## [LAUGARREN MANDAMENTUA II]

*Honora patrem tuum et matrem tuam.* Ex. 20, 12

Jangoikoak bere Lege Santuko Laugarren Mandamentuan aginduten daben gauzia da gurasoak ondretia. Hondraugizu zeura aita, dino Jangoikoak, baita bere zeura ama, zorientzua izan zaitian urte luzietan Jangoikoak zuri emongo deusun lurren ganian. Iru modutekoak<sup>1</sup> dira aitak: naturalak, espiritualak, ta politikuak edo errijetako buru ta juezak. Aita edo guraso naturalak dira gorputzeko izatia emon deuskunak. (\*)<sup>2</sup> Espiritualak, erriko maisu, predikadore, konfesore eta arimaren mantenimentua emoten deuskuena, Aita Santu, arzobispo, obispo jaunak. Eta politikuak, errege, prinzipe, korrejidore, alkate ta probinzijetako kargua daukenak edo diputadu jaunak<sup>3</sup>. Eta alan, nira arratsalde onetako doktrinia izango guztijen ganekoa. Eta asieria emonik gorputzeko izaitia emon euskun aitatik, dinot diriala lau semearen obligazinoiak euren gurasoakganako: amoria, ondria, obedienezija eta euren arima ta gorputzako sokorrua, aurkituten badira nezesidadian. Eta falta egiten daben semiak lau obligazino onetara, egiten dau pekatu grabe edo beniala, zelangoa dan gauzia uts egiten dabena, nai pensamentuz, obraz, nai berbaz.

Pensamentuz pekatu mortala egiten dau semiak, bere aitari bere biotz edo barruan gauza astunian burla egiten dautsenak, baita bere gorroto deusnak gauza astunian. Eta proximuari gorroto izatia pekatu bada, ainbat andijago izango da gurasoari izatia, edo obeto esateko, pekatu bi dira; baña gauza gitxi edo arinen ganian badira, pekatu benialak bakarrik izango dira. Emen falta egiten daudie arako seme-alaba euren gurasuen eriotzia desietan daudienak euren ondasunen gozame-

<sup>1</sup> Geuk zuzenduta: *mudetoak* > *modutekoak*.

<sup>2</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Gozamenerako*.

<sup>3</sup> Geuk zuzenduta, lekuz kanpora dagoelako: *Espiritualak, erriko maisu, predikadore, konfesore eta arimaren mantenimentua emoten deuskuena. Eta politikuak, errege, prinzipe, korrejidore, alkate ta probinzijetako kargua daukenak edo diputadu jaunak, Aita Santu, arzobispo, obispo jaunak* > *Espiritualak, erriko maisu, predikadore, konfesore eta arimaren mantenimentua emoten deuskuena, Aita Santu, arzobispo, obispo jaunak. Eta politikuak, errege, prinzipe, korrejidore, alkate ta probinzijetako kargua daukenak edo diputadu jaunak*.



nian sartutiarren; eta beste modutan uste izatia, Elexiak kondenako doktrina geztoa da. Baita bere pekatu mortala egiten dabe arako seme bekoiki ilun ta astunagaz beti euren gurasoai begiratuten dautseenak, zegatik euren amoria ez barrutikoa bakarrik izango da, baita bere azaletikoa; baña deskuiduz nozbait au egitia ezta izango pekatu mortala. Pekatu egiten daude arako seme edo alaba berba astunak gurasoai esaten dautsienak, edo lapurra dala, guzurtija edo beste onen modukoak, arako gurasoai gogo osoagaz birao egiten dautsienak. Jangoikoak dino Eskrituran gurasoari madarikazino ezarten dautsana illa izan dedilla, gurasoen kontra murmuretan daudienak edo guzurrazko testimonino eregiten deutsienak; baña murmurazinoia bada gauza arinekoa, ezta izango mortala. Obraz egiten dabe pekatu mortala gurasoari eskuak ezarriten deutsienak, euren agindu artezetara makurtu gura eztaudienak; baña nozbait gurasoak aizturik euren obligazinoak gauza geztoen bat aginduten badautsue, lapurreta proximuari, gorroto edo beste one[e]n modukoren bat, eztaukezue obligazinorik obedezieta, bada, lenago da Jangoikoren agindua gurasoena baño. Baña osterantzeko gauza artezetan beti daukazu obligazinoia. Pekatu egiten daude arako seme ofizijo edo estudijoan gurasoak ifinirik alperrik denporia galduten daudeenak, euren gurasoen izardijan<sup>4</sup> ta euren anajeri kalte egiten dautsenak; arako seme edo alaba gurasoen borondatiaren kontra gauza justuan, bada, matri[mo]ninoko estadu artuten daudienak. Matrimoninoko estadia izanik gauzarik<sup>5</sup> astunena famelijan egon leiteken ganian, experienezjak irakasten deusku egunian-egunian famelijaren artian onelan egiten dirian matrimonioak ekarriten dituezala sentimentu, gorroto, bizitza gezto eta desgrazia andijak, biar dirian astuntasunagaz ez egitiarren. (\*)<sup>6</sup>

Famelijako alabak, loa bota alde batera, irazarri zaitez, eta ondo begiratu esatera noian berbeetara, eta artu nire konsejua engañaduak izan gura ezpadozue. Itsuba da amoria, eta orregaitik erakusten defu[ls]kue begijak estaldurik, ainbeste bidar jausi ereiten dauelako<sup>7</sup>, gero erremedijorik eztagoanian negar biziro ereiteko bakarrik begijak idigi ereiten dituzela. Onelan dagoanak zuzen ibili gura badau, itsuaurrekoa biar dau. Zuen itsuaurrekoa da konseju zeuen gurasoagandik artu biar dozuena; jausi gura ezpadozu, ez zaitez balijau zeura konsejuz, ezpada

<sup>4</sup> Ostein zuzenduta: *izardi* > *izardijan*.

<sup>5</sup> Ostein aldatuta: *negozijo* > *gauzarik*.

<sup>6</sup> Atal horretako albo oharrak: *Inoc(enci)o 14*. [Aurrerago:] *Por palabra*. [Aurrerago:] *Lev(í)tico 20*.

<sup>7</sup> Ostein zuzenduta: *eta orregaitik pintau oi da begijak estaldurik, eta origaitik ainbeste bidar jausi ereiten* > *eta orregaitik erakusten defu[ls]kue begijak estaldurik, ainbeste bidar jausi ereiten dauelako*.

artugizu zuri asko gura izan biar dautsuenena, eta orrelan Jangoikoak gurasoen consejuan aurkituko dau zeura aziertua. Ez siñastu, sai okela ustelzalia<sup>8</sup> lege[z], zuen aragijaren billa ezkontzako berba gozoakaz datozenetara. Eurak esaten deutsue asko gura deutsuela, eta orrelako berbakaz, sinpliook guztiz pagaurik ta sinesturik egoten zare. Baña sinastugidazue deutsuen amoria eztala egijazkoa, edo obeto esateko, da gorroto andija ta mortala, munduko kreitu ta arimako bizitzia kenduten deutsuena. Nozbat eldu konfesetara mutil gaztia, ezkontzako berbiagaz amalau<sup>9</sup> famelijako alaba loitu ta desonradu dituzena guztijai burla eginik; eta ezta au bakarra, onelangoak asko dira. Eskapau bada, donzellak, oi[l]oak arraijaganik egin daroena legez, bada, beste gauzarik eztaude gure, zeuen onestidadia azpiratu eta loikerija ta zikinkerijagaz mantenido baño.

Laugarren obligazinoia semiarena da sokorrua<sup>10</sup>. Pekatu egiten daude semiak euren gurasoak nezesidadian aurkiturik sokorridu bagarik isten dituezanak, ez gorputzeko nezesidadian, baita arimakoetan. Dauke obligazinoia karzelan aurkituten badira bisitetako, gaisorik dagozarian osagarrijagaz ardura eukiteko, Sakramento Santuak denporaz artu ta bai bere testamentoa ereiteko. Gauza oneitan falta egiten daudien semiak, gauza grabian pekatu mortala egiten daudie. Eta onelango semia[i], dino Espiritu Santuak gauza guztijak deungaro urtengo dautsiela. *Filio doloso nil bone erit*. Ain da andija semiaren obligazinoia bere gurasoak sokorrietako eze, dino Santo Tomasek nezesidade] extremu bardinekoan lenago begiratu biar dabela gu[ra]soaren nezesidadia, semiena baño, baita emaztiarena baño, pekatu mortalen bian. Eta g[e]ljiago jakintsu batek, nezesida[de] azkenengoan semiak lenago begiratu] biar dabela bere aitaren nezesidadera, bereanera baño, eta bere agoko ogija kendu biar dabela aitari emoteko. Seme-alaba gurasokin gogorrek, zeuek eta zeuen semiak fanfarroi bizi ta janziten zareenak, eta biarbada guraso zar tristiari neguko denporarik otzenian sukalde-bazterrian ikusirik enbarazu andija egiten deutsuenak eta beste zegaz mantenido eukirik<sup>11</sup> biralduten dozuezanak, zeñ ustijagaz bizi zaree? Usti dozue Jangoikoa orain isilik dagoalako eztala irazartuko zuen gogortasuna kastigetara? Engañadurik bizi zaree. Zenbat bidar zuri gurasoak emon dautsu bere aora eroango eban kopau, zu txikitxuten ikusijagaz jaten<sup>12</sup> konsue-

<sup>8</sup> Ostein erantsita: *okelazalia* > *okela ustelzalia*.

<sup>9</sup> Jatorrizkoan: *hamalau*.

<sup>10</sup> Ostein erantsitako esaldia.

<sup>11</sup> Ostein aldatuta: *eta beste askok eskian* > *eta beste zegaz mantenido eukirik*.

<sup>12</sup> Ostein erantsita.

lo geijago artuten ebela, bera jaten egonagaz baño? Bada, au da zuk egin biar dozuna zeura guraso zarragaz. A ezin jaramon leijo, sinpleturik, gixtiendurik sein biorturik dago. Eta esangidazu, seme geztoa, zer izango zan zugaz negar ta jaten bakarrik baño etzenkijenian jaramonik egin ezpaleutsu edo zuk orain beragaz egiten dozuna zeugaz egin baleu? Noz maña gefiljago zendunian, orduan geijago laztanduten etsenduzan? Andijak badira pekatuok, zer izango eztira arako gurasoen kontra eskua altzau ta eridutiak? O, pekatu madarikatua! Bada, jakingizu, seme madarikatua, zura pekatu ondo kastigadua izango dala. Esan biar banitu kastigu bildurgarriak seme geztoai jazo jakeznanak pekatu onegatik, ikeratu ta arriturik gelditu ziñatekeze. Eta itxirik alde batera istorijak dakarguzenak, ifiniko dodaz Jangoikoak bere Eskritura Santuan dakarguzenak. (\*)<sup>13</sup>

Ze eskarmentu andija[go]rik ikusi giñaike Absalongaz jazo zan baño? Jaigi zan Absalon bere aita Dabid Errege Santuaren kontra; estutu ta larritu eben bere persekuzinoiagaz, baña zetan parau zan desbenturadua? Galdurik bere aita[ren]<sup>14</sup> kontrako batallan, bere jentiagaz batera Efraingo basamurtu itzalt[s]jura eskapan joiela, gelditu zan esegirik bere ulle ederretik arte baten erramarik dandilika, bere mandoa aurrera igaroten jakola, non bere aitaren kapitai jeneralak zalgiltea edo estokadaka il eban. Bada, au jazoko da zugez, pekatari geztoa, zeura aitaren kontra jaigiten bazara. O seme desbenturaduak! Lastima andija dauket zuena, bada, ain aserrerik dakust Eskritura Santuan Jangoikoa zuen kontra, ze beste gauzarik eztot aurkituten seme geztoaren kontrako maldizinoak baño. Bein dirautsue aitari madarikazinoa egiten deutsen argija las[ter] amatauko dala; beste bein, fama geztokoak izango zarela gurasokin gogorak. An ikusten dot amaren biraoak zuen etxia sustraitik ezarriko dauela; emen, zeuen semiakaz fortunarik izango eztozuela, zuen pekatuaren parkazinatorik aurkituko eztozuela, bada, zeuek gogor izan zareena legez zeue[n] aitagaz, alan Zeruko Aita zuekaz izango dala. Baña, nor da esango dituzena onen kontra Eskritura Santuak dakazan madarikazino guztijak? (\*)<sup>15</sup>

Begira bada, zelan aserraturik dagoan Jangoikoa seme geztoen, baña zuek humildiak zarenak, erdue ona entzutera zeuen bandoko bedeinkazinoiak konsuelo ta dulzuraz beterikoak, Jan[goi]koak alan emen zeinda

<sup>13</sup> Atal horretako albo oharrak: *Prob.<sup>m</sup> 14.* [Aurrerago:] *22 Ques. 26 art. 9.* [Aurrerago:] *Abulense in Mateum 19. Que. 13, 4.*

<sup>14</sup> Ostean zuzenduta: *bere aita santuen > bere aita[ren].*

<sup>15</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Zer erantzungo dabe onetara arako seme-alaba[k]?*

Zeruan prometidurik daukezanak. Lenengo prometiduten deutsue bizi-tza luzia. Bigarren, zeuen famelijaren atsegintasuna; bere aita ondretan dabena, bere semiagianik konsueloz beterikoa izango da. Irugarrena, bere aziendia izango da denpora luzekoa; aitaren bendizinoiaz sendatuko da semiaren etsia. Bere pekatuen parkazinoia bere izan zana legez miserikordiosoa, alan izango da beragaz Jangoikoa; eguzkijaren berotasunak leija urtu ta kenduten dabena legez, alan izango diria[la] kenduak bere pekatuak, dino Jangoikoak. Zartzaro ona emen, ta an betiko Glorija Zeruan. Onelan egiten badozu, edo gurosoa<sup>16</sup> onretan badozu, oneik guztijok zure ganera etorriko dira. Animadu zaitez, bada, seme humillak, zeuen gura[so] zar tristiaren konsuelura igarogizuez pazienzia ta amoriagaz euren sinplekerijak; orretan euki al zinajen penia ezta izango luzia, eta zuentzat gorderik dagoan sarija da neurribagia. Eta zuek orain artian gura badozue, oraindio erremedioja dago. Eldu zaitez Sakramento Penitenti[a]lko iturrira, garbitugizuez oraingino eginiko guztijak, artu beste ardurarik aurrerantzian, eta au izango da asko bakiak egin ta zorioneko aurrerantzian izateko. Asko uste dot izango dala oranginoko doktrinia seme-alabarentzat, eta daukat esperantzia Jesus amoro-soagan emendatu zariala. Eta guazan ikustera aita espiritualai biar jaken errespeto andija. (\*)<sup>17</sup>

Doktrina onen asieran esan dot aita espiritualak diriala sazerdote jaunak, arako arimaren zain dirianak, arzobispo<sup>18</sup>, obispo ta errietako kura jaunak, baite bere predikadore ta konfesorikak. Gura obligazinoa da erri-jai janari espiritual edo arimakoa emotia dotrina ta exenploagaz. Baña alan bere, geijago exenplo onagaz doktrina berbakaz baño, bada, berbakaz gauza onak esan<sup>19</sup> ta exenploa jagoten ezpadogu, aserre andijagaz kargu egingo deusku Jesu Xtok bere Tribunalian, errazo andijagaz esango deuskuz arako Jeremias aotiko sentimentuak: *Quare tu enarras justicias meas, et a[d]sumis testamentum meum per os tuum, interea dum ipse odis[t] disciplinam? Ex ore tuo te judico serbe nequam. A Prophetis Jerusalem egressa est polutio super omnem terram. Ruino populi mei Sacerdotes mali.* (\*)<sup>20</sup> Ondo ezaututen dogu, N.E.M., Jangoikoaren ontasun ta miserikordijak, gera obra on bagarik ezpabere falta andijakaz ain dignidade andira altzau gaituzanak, izan biar geunkiala Angeruen garbitasunekoak eta Serafinen amudiokoak, biar dan moduan gere obligazi-

<sup>16</sup> Alternantzia: *guraso / guroso*.

<sup>17</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Emeti ezautuko dozu...*

<sup>18</sup> Geuk zuzenduta: *arzo obispo > arzobispo*.

<sup>19</sup> Ostein zuzenduta: *bada, berbakaz bat esan > bada, berbakaz gauza onak esan*.

<sup>20</sup> Atal horretako albo oharrak: *Jerem(ias) 29*. [Aurrerago:] *Ezequ(iel) 44*.

noiakaz kunplietako, eta errijak Jesu Xtoren odolagaz erri askatuduak<sup>21</sup> Zerura bide artezetati zuzen eroateko. (\*)<sup>22</sup> Eta ezta au asko, bada, arako Jangoiko andija eta Errege soberanua, nor Angeruak adoretan daben eta noren aurrian bildurrez dagozan Zeruko potestadiak, beste denpora baten Zerutik Birjina garbi baten sabelera jatsi zena legez gizonaren naturalezia artutera, alan egunian-egunian dator Zerutik bera edozenbere sazerdoten eskuetara bere biotzian sartu ta errijari janari Zerukoau emoteko. Dignidade andija benetan, baña gefulk bildurtu biar doguna, nondi ikus[i] biar dozuen sazerdote jaunai euki biar deutsezuen nira Aita S(a)n Fr(anzisko)aren exenplora. Bada, ain izan zan andija berak sazerdote jaunai eutsen errespetoa ze, bere seme guztijoi testamento santuan aginduten deusku<sup>23</sup> alan izen daijogula, eta beste gauzarik sazerdotietan begiratu eztaigula, Jangoikoaren Semia eurek egunian artuten daudiena eta bakarrik eurak guztijai emoten deutseena. O dignidade andija! Emongiguzu Jauna, grazija gere obrak dignidadiari dator-kiozan modukoak izen ditiala.

Eta geura gorputzeko izatia emon deuskunai errespeto andija zor badautsegu, ainbet andijago izan biar deusagu geure aita espiritualai, eurak emoten deuskulako arimako janarija bizitza betikoa emoten daena. S(a)n Pablo Apostoluak Timoteo bere dizipuluari eskribietan deusant kartan, dirautso arako sazerdote euren obligazinoak ondo egiten dituezanak biar daudiela errespeto doblia, *maxime qui laborant in verbo et doctrina*, ainbat geijago dotrina ta predikazinoian biar egiten daudienak. Eta errespeto doblionek, dino S(a)n Anbrosiok izan biar dabela bizitzako dezertzija ta alimentua sazerdote jaunak biar dabena, bada, sazerdotiak Lurrian dira Kristoren teniente batzuk errijari emoteko arimako janari ta bizitzia.

Eta errespetoa galduteko sazerdotia[i] ezta eskusa ona euretan ikusi al izango dozun faltaren bat edo batzuk. Zuek deungak bazaree, ta gu bere bai zeuok legez, zenbat eta Jangoikoak emen mesede geijago egin deuskun, ainbat andijagoa izango da gugaz egingo dauen justezija bere majestadeak; eta geura pekatuak guri kenduten eztauskuna legez geura dignidadia, alan zuek bere etzaitue eskusaduko pekatuak errespetoa galduten badautsazue. Orregaitik, sazerdote jaun geztoa bada bere, (Jangoikoak eztagijela onelangorik permitidu), oraindio biar deutsezue

<sup>21</sup> Zalantzazkoa.

<sup>22</sup> Amaitu gabe dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Eta benetan, ze dignidade andi[algorik deseadu edo euki aleike gizonak Lurraren ganian, arako Jangoiko Zeruiak ta Lurrak [elzerezetatik egin...*

<sup>23</sup> Geuk zuzenduta: *aginduten deusku Testamento Santuan > Testamento Santuan aginduten deusku.*

jagon ondria ta erreberentzija, al dozuen moduan bere faltak disimuletan dozuezala. Nira ustez ezta oraindio izan sazerdote geztoagorik Judas baño, eta orregaitik Jesuxtok begiratu euen bere ondriagaitik bere pekatua isilik egoan artian. Eta obeto ezautu dagizuen sazerdote baten ondria, begira zer esaten eban nira Aita S(a)n Fra[nz]liskuak: Ikusiko banitu batera angeru bat ta sazerdote bat, itxirik aingeruari, lenengo benerazinoa egingo neuskijo sazerdotiari, eta gero aingeruari; bada, angeruak bentaja egin arren sazerdotiari naturalezan, baña sazerdotia geijago da dignidadian. Zer erantzungo daude onetara, arako Kristinauak azkenengo lekuan eta desprezioko gauza bat bailirena legez ifiniten daudienak? Maria Santisimiak ain benerazino andija egiten bauen, eurak zapalduten eudien lurginokoari errespetuagaz begiratuten eutsiela eta eurai bendizinoa eskatuten eutseela, zer kargu ez jake egingo, arako persona nondi eurak estimazino onerik ezarriko dituezan, faltaren bategaitik konbersazino guztijetan deungero aitetuten dauela? Sazerdote jaunak, gelulk bere egin dagigun alegina bizitza santu ta exemplo onakaz, ez jentiari<sup>24</sup> deungero esateko motiborik emoten eztautsegula. Asko izan dedilla esan dodan puskau, ezautu dagizuen zelango benerazinoagaz tratau biar doguzan sazerdote jaun edo aita espiritualak.

Eta goazan ikustera orain, azkenez, erriko buru ta gurasoai jagon biar dautsegun errespeto ta obedienezija. Aita politikuak dira arako erreinu ta errijetan zer agindu daukeenak, diriana legez errege, prinzipte ta soberanuak, eta one[le]i zor jake honoria, fidelidade edo lealtasuna, obedienezija, tributu ta orazinoak, euren erreinuko konserbazino espiritual ta tenporalagatik, bada dira Jangoikoaren ministroak, S(a)n Pablok dinoiena legez: *Ministri enim Dei sunt*. Bardin zor jake probinzijetako gobernadore, diputadu jaunai, magistradu, korrejidore, alkate, errejidore fiel ta justezija administretan deuskuen ministro guztijoi onoria, erreberentzija ta obedienezija, bada, euren agindura ez obedezidu gura izatia da Jangoikoarenera ez gura izatia obedidu, S(a)n Pablok dirauskuna legez, Jangoikoaren agindura: *Qui resistit potestati, Dei ordinationi resistit*; (\*)<sup>25</sup> euren kontura dagozan errijen arduria eukitia, begiraturik ez bakarrik euren ondasunetara, baita bere okerkerijak. Eta alan falta egiten daudie onetara<sup>26</sup> arako mendeko erriko guraso eta gobernadoriaren kontra obedidu gura eztabenak, eta pekatua izango da grabe edo beniala zelango dan gauzia errespeto ta obedienezijara faltetan daudien.

<sup>24</sup> Ostean zuzenduta: *jentia > jentiari*.

<sup>25</sup> Albo oharra: *Vuelta*.

<sup>26</sup> Ostean zuzenduta: *Eta alan onetara falta egiten daudie lenengo > Eta alan falta egiten daudie onetara*.

Gobernadore, korrejidore ta errietako gurasoen obligazioa da ondo begiratutia erriren onerako biar egiten daudiela, bakotzari datorkiona emoten dautsela, nai dala kastigua, nai onra ta probetxua; eta alan euren nagitasuna dala medijo erriren jazoten badira lapurreta, eskandalu, nai beste one[en] moduko ordenantza faltaren bat, dauke obligazioa konzienziaren bian. Eta onelakoak uste badabe erriren mirariko eskandalurik egon ezik eztaukela onelakoak kenduteko obligaziorik, engañetan da ta falta egiten dau obligaziora, pekatu grabia egiten daudiela, bada, beste modutan munduan ez litzateke izango eskandalurik. Gauza bat izan dedin eskandalosoa, asko da pekatuaren okasino izatia, edo proximuaren arimerako estropezu edo lazua, mundutarrak jantzi nai izan arren honestidade edo birtutiaren kapiagaz. Bago munduan gauzarik, munduaren amadoriak kolore onagaz jantziten eztabenik? Bago joko, dantza, komedija ta bisita peliburutsurik, euren ustez errekr[e]jazino, dibersino pekatu bagiak ezteriala uste dabenik? Predikadore batek eragotziten baditu<sup>27</sup> pulpiturik, eztira beingoan bere ganian edo kontra guztijak, eta biarbada aurrenengo justezijak, eurak obligazioa predikadorea jagoteko eukirik? Nondi datorrela uste dozue au guztijau, ezpada zeuek uste dozuelako dibertzino pekatu bagiak diriala eta peliburu bagiak? (\*)<sup>28</sup>

Errez bildur izango zaree, erriko buru, gobernadore ta guroso zarenok, arako Jangoikoak bere Tribunal edo Justizijan artu edo eskatuko deutsuen kontu ikeragarrijaren, al izanik kendu justezijako zaren artian ainbeste<sup>29</sup> kostunbre gezto ta pekatuz beteriko zeuen faltaz. Jangoikoak dirautso Pergamoko Obispo jaunari, ezautu arren bere fede ona eta birtutia, kontu andija emon biarko dautsela, bere erruz isten dauelako<sup>30</sup> nok gor[de] dagijen Bala[a]n doktrina geztoa. *Habeo adversus te pauca*. Apocalipsis 2<sup>31</sup>. Balaanek emon eutsan kontsejua Balak Erregiari: gura beeben irabazi edo arkanzau bitorija Israelgo semeen kontra, atara legizela bere bien edo aginduan egozan enbrak dantzara ondo apaindu edo jantzirik, bada, onelan ikusirik enbrak ain ondo jantzirik, biortuko ziriala Israeltarrak euretara. Eta onelan ausirik Jangoikoaren Legia, kastigaduko zituela, bada, beste modutan Jangoikoaren errija sendo begoan pekatu bagarik, beti Israeltarrak irabaziko euela; baña bere ustez au

<sup>27</sup> Idem: *bada > baditu*.

<sup>28</sup> Non kokatu argi ez dagoela eta, ez dugu eransketa hau transkribatu: *Euren kontura dagozan erriren arduria eukitia, begiraturik ez bakarrik euren ondasunetara, baita bere okerkerijak*.

<sup>29</sup> Jatorrizkoan: *bainbeste*.

<sup>30</sup> Ostean zuzenduta: *dau > dauelako*.

<sup>31</sup> Ostean erantsitako iturria.

zala konsejurik onena ausi leijen Jangoikoaren Legia ta kastigadu legizen, onelan jazoten zana legez. Bada, zer dira gaurko eguneko erromerija, dantzak, komedija ta bisita peliburutsuak au baño? Eta orregatik guztija ontzat igaroten da. Gauza agirija da sarri-askotan erriko buruak gizon artez ta Jangoikoen bildur andikoak izaten diriala, eta benturaz beste pekatu andijagotatik alde egitiagatik au egingo daudiela. Baña eztator emetik eurenz onak izatia, eta eztator bere emetik Jangoikoak egingo eztautsela esatia. Pergamoko Obispo jaunari, S(a)n Juan Ebanjelistiak dirauskuna legez, izenik artez ta birtute andikoa esaten badautso zer kargu egin daukala, isten dituzalako Balaanen dotriniari jarraituten dautseenak kastigadu edo enbarazurik ifini bagarik<sup>32</sup>, errijetako buru dirianak erraz bildur izango dira jazo ezta kijen eurai Obispo santuari Jangoiko[ak] esan eutsena, au da, daukala zer esan zerbait bere kontra. Bada alperrik, eze eztira ain onak izango zeinda Obispo Pergamokoa. Bildur bada, bildur, erriko aita edo buru zarenok, sentenzijaonen; bada, ez bakarrik zeuen faltak, baita bere zeuen faltaz errijak egiten dituzen pekatuak zeu[e]n ganera etorriko dira. (\*)<sup>33</sup>

(Enbra galduak permitietan dituez Erre[ge]l Katolikuak, baña eurak-gana elduta beti da pekatu; eta orregaitik, permitidurik egon arren, predikadu biar da euren bizitza geztoen kontra emendatu ditzan, eta ezaurtik euren egokera negargarrija urten dagijen, eta negar eginik euren pekatu loiak Jangoikoagaz nozbait bakiak egin dagiezan. Predikadoriak ekandu geztoen baten kontra predikaduten dabenian, ezta zer esan erriko buru ta nagosijen ezauera ta permitimentuz egiten dala. Au atxakija laburra da.. Predikadoriak prediketean daudienian erriko buruak permitiduten daben kontra, eurek bakiagatik edo gerra geijago euki ez eitiagatik, edo buruko min andijagoetarik alde egitiagatik egiten izten daudiena berez pekatuzko gauzia bada, edo pekatuaren peliburukoak, aren kontra beti predikadu biar da. Bada, predikadoriak ez bakarrik predikadu biar dabe berez gauza geztoen dana, baita bere aren peliburu-koa dana. Ain da egija dinodana, zeinda dan egija erriko juez ta justezijako ministroak dauken obligazinoa eskandaluak eragotzitia, eta erbes-tetu edo desterradu errijetarik kostenbre geztoak ta pekatuaren okasinoak al daben moduan, ondo begiraturik zirkustanzietara. Bada, aleginik ezin badaude, kunpliduko daudie euren obligazinoiakaz; baña alegiñik onetarako egin ez, da euren erruz egiten badira pekatuak, Jangoikoak kontu andija eskatuko deutsee eta kastigaduko dituz erriko pekatuakgati.)

<sup>32</sup> Osteen aldatuta: *ifini eutsielako Jangoikoaren Errijari > ifini bagarik.*

<sup>33</sup> Atal horretako hasiera oharra: *Vuelta al último.*



Pekatu eginik Jangoikoaren erriak, agindu eutsen Jangoikoak Moise[se]ri artu leizela preso Israelgo prinzipe, agintari ta errietako guraso edo buru zirianak; eta onelan preso arturik, urketu leizela guztijak arien bere itxi bagarik, erri guztijek ekusela. *Tole cun[ct]os principes populi, et suspende eos contra solem in patibulo*. Artuten dituz preso eta orra non erri guztijen guztijak urketurik itxi zituen, bateri bere itxi bagarik edo parkatu bagarik. Ze justezija da au? Erriak pekatu egin ta juezak pagauko dau? Bai, din(...) eudielako eragotzi denporaz erremedijau a (...) (...)nua, isten eben (...).

Onelan izango dira urketuak juezak Infernuan, erremedijau al izanik eta kendu al izanik erriko pekatuak egin etzitzuelako.

Ea bada, Jangoikoa, ontzat eukigizu biraldutia grazija gobernadu dagijen munduko juezak euren kargura dagozan obligazinoiakaz, ta bai bere euren aginduan dagozanai ezauera<sup>34</sup> santu bat obedezieta euren aginduak guztijak, onelan zeura Mandamentuak jagon dagijezan. Eta bai bere biraldugidazu aurre[ra] igaroteko biar dodan grazija; onetarako bitarteko ifiniten deusut zeura Ama Santia Angeruaren Erregina andija, Zeruko Kapitana ta gu pekatari guztijoen abogadia, biotz-biotzetik guztijok esaten deusagula Angeruan salba: Abe Maria.

#### [AMAIERAKO ERANSKETAK]

Arako Alexandro Enperadore andijak autortuten badau, geijago zor eutsela bere maisu Aristoteles filosofoari bere aitari baño...

Gurasoen artian irugarren lekua daukee Lurraren ganian agintaritasuna daukeenak. One[e]lk dira errege, prinzipe ta soberanuak, eta one[e]li zor jake...

Pensamentuz pekatu egin daroe arako seme-alabak, euren gurasoai gauza astun ta geztoren bat jazorik, kanpoti erakutsi ez arren, euren barruan olgura arturik burla ta barre egin daroenak.

Famelijako alabak, kontu<sup>35</sup> esaten noen doktrinara ez zaizeen engañadu zeuen pasiño geztuak. Zeuen desgrazija guztijak etorri oi dira ez ondo begiratutiarrrik estadu bat artuteko biar dirian gauzetara, bakarrrik begiratuten dozueta arako aragijaren gustuetara, itsuturik askotan onen promesakaz pekatu eginda, benturaz artez ibiliko bazine arkanzaduko

<sup>34</sup> Ostean zuzenduta: *ezaura* > *ezauera*.

<sup>35</sup> Ostean aldatuta: *begira* > *kontu*.

zendukena pekatuakgatik galduten dozuela. Gura dozue azertadu? Artu zeuen gurasoakgandik konsejua, bada, itsuaurrekoau bagarik bakarrik jarraituten badautsezue zeuen pasinoak dirautsuenera, jausi bako erre-medijorik izango eztozue; eta zuen golpiak ez bakarrik zeuek, baita bere erriek ta bazterrak eskandaluz beteko ditu. Kontu bada, ez poztu berba ederretara.

(\*)<sup>36</sup> Bada, bateti askotan inbidijaz ta gorrotoz testimonino gezto asko eregi oi izaten da, errubagiak errudun ifiniten diriala; ta besteti, alan balitz bere, eztago zure kargura aren pekatuak eragotzitia, ez egizu<sup>37</sup> sartu zeuri ezatorkizun obligazinoan burua.

Irugarren lekuan, gurasoak dei egiten jake arako agintaritasuna erreinu ta errijetan daukenai.

Irugarren moduko gurasoak dira arako agintaritasuna gure ganian daukeenak, ta euren lege ta agindu justuakaz ordea ona ta bakia ifini ereiten daudenak. Oneek, batzuk dira erregiak, prinzipiak, ta one[eli zor jake lotsa, errespeto, amudijo, obedientzija, lialtadia, euren deretxo justuak, baita bere lagundu orazinoakaz grazije Jangoikoak emon dagijoen euren aginduko erreinuak gobernetako, ez bakarrik legiak ifiniten dituezala emen zorioneko egingo gaituezanak, baita bere arako zorionez beteriko Errira, Glorijera eroan biar gaituezanak; bada, onetan dira Jangoikoen ministroak. *Ministri enim sunt*. Beste batzuk, eta euren agindura obedidu ezeitia da Jangoikoen ez gure izatia<sup>38</sup>. (\*)<sup>39</sup>

Falta egiten daudie obligazino onen kontra ez bakarrik juez ta agintari onen kontra emoten daudienak, baita bere arako obedidu eztaجية-la besteri konseju geztoak emoten dautsezanak, ta euren doktrina geztoagaz, alborotu ta ordea geztoakaz, eskandalu, golpe, eriotza ta beste one[eln moduko desgrazija ta kalteren kausa dirianak. Gobernadore, korrejidore, diputado, juez, alkate ta beste agintaritasuna dauken obligazinoa da<sup>40</sup>, lege artez, bizitza santu ta exemplo onakaz erriak bakiaz jagon ta gordetia, justezija artez guztijekaz egiten daudiela, ez batera ez bestera geijago makurtu bagarik. Bada, onetarako leku emoten badau, ez bakarrik Jangoikoaren Legia ausiko dau, baita bere ezingo dau eronan biar dan arteztasunagaz justizija, ez-da jagon bere erri baten euki biar

<sup>36</sup> Hasiera oharra: *Sazer(do)te*.

<sup>37</sup> Geuk zuzenduta: *zaitte > egizu*.

<sup>38</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>39</sup> Atal horretako albo oharra: *S(a)n Pablo*.

<sup>40</sup> Ostean erantsita.

dan hermandadia; eta onegaitik jazo al leitekezan eskandalu ta kalteren kontu estu biarko dau emon Jangoikoaren aurrian. Daukee bere obligazinoa Jangoikoaren Lege Santua jagon erein ta onen estropezu izen al litekezan gauzak kenduteko. Ezta asko justezijako beretzat ona izatia, oraindio geijago biar da au baño; dauko obligazinoa proximuaren pekatuak eragotziteko, ba[da], aita edo ama bat alperrik egongo da elexan sarturik errezu andijak egiten denpora luzian, badaiki bera elexan dagoan artian bere alaba okasino onegaz balijaurik dabilela, edo ibili al litekela pausu geztotan. Eztautso balijoko elexan egotia, egon biar dau etsian ta jagon begi alabia, eta bere alabia jagoten etsian egotia izango Jangoikoen atsegintasunakoa, elexakoa baño. Onen modura justezijakoak; bera denporaz etsera etorri ta bere famelijagaz egotiatatik ezaututen badau taberna ta beste edozein batzarretan pekatuak, eskandaluak eta beste gaiztokerijak jazoten diriala, dauko obligazino, itxirik etseko sosegu, beste zirkustanzija batzuetan ona ta santua izango litzatekena itxirik, etxerik urten ta taberna ta errija garbitutera joateko. Ta onelan egiten ezpadau, ango pekatuaren kausa da, ta eskatuko deutso kontua Jangoikoak. Erraz bildur izango zaree errijetako juez ta buru zareenok, bada, benetan andija izango da zeuroi egingo jatzuen kargua; orregatik, konfesetara zatozezanian beg[iratu] biar dozue ondo utsik oneetan egin (...), [kon]fesetia gizon partikular bat legez, (...) bat justezijako arkituten dan zorigaiztoko (...).

Ain da andija predikadorien obligazinoa errijetan jazo oi dirian pekatu ta ekandu geztorearen kontra predikadu<sup>41</sup> biar izatia, zeinde dan obligazinoa erriko buru diran guztijana, eurek al daben posiblian, ekandu geztuak errijetatik kendutia. Begira, bada egiten ezpadozue, zuen ganera etorriko dan kastigua andija izango da. Eta zelangoa izan alitikian ondo begiratug[il]zue, esaten naijoatzuen Jangoikoak kastigua zuek gaur egin daroazuen baño pekatu txikijagoagatik, eta onegaz azkenduko doktrinau.

(\*)<sup>42</sup> Eta zuek errijetako gazte zoro pekatu andijak egun orreitan egin darozuezanak, zeuen erreku ta biarbada zemakuntzakaz errijetako juezak euren borondatiaren kontra askotan onelango gauzetara obligetan dozuezanak, uste dozue zuen pekatuak juezen kastiguakaz pagaduak izango diriala? Ez, arako Jangoikoak urketu zituenian erriko pekatuakgatik errijak aurrian ikusi biar izan zituena legez, alan Infernura juez kastiguaduak ikustera joan biarko dozue. Ea bada, Birjina gozua, biral-

<sup>41</sup> Ostean zuzenduta: *predika > predikadu*.

<sup>42</sup> Atal horretako hasiera oharra: *Epílogo*.

dugli]zu grazija, aurre[ra]ntzian erriak izan ditian firmiangoak zure Seme Santuaren Mandamentuak jagotera, eta orain biraldugidazu aurrera jarraituteko biar dodan grazija onetarako obligetako.

Inbidijaz beterik Absalon Errege izan, da berak guztija agindu guriaz, eta ikusirik au arkantzetako egozan aldats andijak, asmau zituzan onetarako bidiak, lenengo ekarririk bere grazija ta adiskidetasunera bere aitaren ministro, agintari ta soldaduak. Arako ezautu ebenian oneen grazijan egoala, jagiten da bere tropa guztijagaz, obligetan dituz ezautu dagijela erregetzat, dator bere aitaren kontra Jerusalemenera. Iges egiten bere aita burutik ta oñez bere semiaren persekuzinorik, estutu ta larrituten dau semiak bere aita ain modutan ze, Jangoikoak bere miserikordija andijagaz jagon ezpaleu, ez eukan galdu bako erremedijorik. Baña, o Jangoikoaren jakitura neurribagi[a]! Arako Jangoiko humildietan bere begijak ifinirik daukezanak<sup>43</sup>, ta soberbijoak kastiguz ikaragarritz azpiratuten dituzenak, ezautu ereiten dautsa bere erriari Absalonen pekatua, bere aitaren inozenzija ta errege onegandik artu zituzan zorionak libretan zituzala euren arerijoakgandik. Eta errija jagiten da Absalon ta bere tropiaren kontra, egiten da exerzitu andi bat, emoten daude (...) bat, jausten dira Absalonen soldaduak geije(...), ganekoak iges egiten dabe, ta eurekaz ba(...) (...) mando baten ganian enredetan dira uliak arteerrama baten, ta mandoak er(...) (...)rragaz estributatik urtenik, dandilika (...) (...)toz ilten dau estokadaka.

---

<sup>43</sup> Ostean zuzenduta: *daukenak* > *daukezanak*.

## [PURGATORIOKO ANIMAK]

Errukitu zaiteze, miseriakordija nirekin eukizazue, gitxienez zeuok nire adiskida izan zeratenok, bada azpiraturik nauko Jangoikoaren esku pisutsuak. Begira nolako sentimentua erakutsitzen duan Job Santuak, ura gizon artez Jangoikoaren bildur andikoak, eta Lurraren ganian bera bezelako bat aurkitzen etzanak, biorturik instante baten mundu ondasunik andienen erditik pobreza ta miserijarik andienera; ta ain andija eukirik bere gorputz guztija bururik biatzera zauri bat eginik, ez zuan<sup>1</sup> oirik non<sup>2</sup> bere azur nekatuak deskansatu, saspillo loi bat baizik. Begira, noa bigarrenez esatera nola kejtzen dan bere ondasunen erdijan bere<sup>3</sup> adiskida izan ziran gogortasunaren<sup>4</sup> kontra, bada, ikusirik ain egokera negargarrijan, iragorik zazpi egun euren gaubekin batera itzik berari egin bagarik, azkenian ez zituen<sup>5</sup> iriki beste gauzatarako, sentimentu ta naigabezko arrazoiak esateko ezpada. Sentimentozko itz oiekin baliatu nai neuke egun onetan zeuroen biotzeko gogortasuna biguntzeko, eta arturik itz orre[elk]<sup>6</sup> zebeu guraso, senide ta adiskida purgatorioan penatzen deuden izenian, nator pulpitura gaurko egunian eurek zebeu kontra dituen<sup>7</sup> sentimentuak erakustera; onela esnaturik zeuen biotzeko lozorro itzala, bigundurik, urrikariturik animatu zaitezen orazio, limosna ta sakrifizio santuakin konsolatza purgatorioan dauden anima gesoak. Miseriakordijazko obra onetara guziok gaude obligatuak, ez bakarrik an<sup>8</sup> penatzen deudenak geura guraso, senide ta adiskidiak diralako, baita ere gura erlijino santuko karidadiaren agindua dalako, bada, karidade au da birtute guziaren anima. Birtute andionek ez bakarrik obligadu biar gaitu Zeru ta Lurraren ganian dauden animak maitatzera, baita ere purgatorioan dauden arako pena bildurgarrijak padezitzen dituenak libratu ta maitatzera, zerren eurekin batera konpontzen degun gorputz mistiku

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Ostein aldatuta: *ez euken* > *ez zuan*.

<sup>2</sup> Ostein erantsita.

<sup>3</sup> Idem.

<sup>4</sup> Idem.

<sup>5</sup> Ostein aldatuta: *ez eutsen* > *ez zituen*.

<sup>6</sup> Ostein erantsita: *eta arturik* > *eta arturik itz orre[elk]*.

<sup>7</sup> Ostein aldatuta: *daukeezan* > *dituen*.

<sup>8</sup> Ostein erantsita.

bat Fediak irakasten digun bezela, noren buru dan Jesukristo Jangoiko ta Gizon Egijazkoa. (\*)<sup>9</sup>

Orain, bada, gera gorputzeko esku, oñ edo beste edozein bere lekutan min dogunian ezin sufritu badegu min ura gorputz guziari komunkatu bagarik, edo gorpetzeko<sup>10</sup> parte guzietan min ura sentitu bagarik, S(a)n Paulok ta esperientzia berak esaten digun bezela, posible izango da, izanik purgatorioko anima gesoak gurekin batera gorputz mistikua Jesukristoren buruen beian konpondurik, aren pena ikeragarriak guk ez sentitzia? Bizituzazue, N.K., zebeu fedia, ta entzun presondegi itzal artan anima tristiak egiten dituen negar ta eskariak, gurekin<sup>11</sup> irten dezeen sokorru billa gere usterik gitxian degunian eskatuko degun bezela, aiek orain bezela, emen gelditzen diranak akordatu ditian gurekin. Anima geso aiek igarotzen dituen penak Jangoikoak eurek garbitzeko ifini zituanak, Jangoikoaren justizijaren su abrasadorian erdijan zuuraren egurra berak konserbatzen duela, dira nira entendimento laburrak ezautu alezake[n]<sup>12</sup> baizik milla bidar andijago ta ikeragarriagoak, Elix Ama Santiak erakusten diguna bezela Hereju ta Libertiño madarikatuaren kontra. Eurak alibiatzia ezta konsejua, ezpada moral santuak agintzen digun mandamentoa. Baña predikatzen dedan bezela erri purgatorioko animarentzako karidadez beteriko baten, ez naiz paratuko obligazioau zebei aditzen ematera, bakarrik bai esan biar dizuet, zeuen guraso zar difuntuen exenplora, ezertan aflojatu bage bizioroago egunero zaitu biar dezutela anima geso aien sokorrua billatzera. Eta alan, nira sermoiaren [lana] izango da<sup>13</sup> erakutsi ereitzia, aurrenengoan an igarotzen diran<sup>14</sup> pena ikeragarriak; bigarrenengoan, andik ateratzeko<sup>15</sup> egin biar ditugun obrak. Au izango da nire sermoiaren geija ta zebeu<sup>16</sup> atenzioaren motiboa, eta onetarako biar dedan grazija eskatzera lagunzadazuen, guziok biotzerik eskatzen diogula Jangoikoari ifi(...) ar(...). (\*)<sup>17</sup>

Elix Ama Santiak teologu guziarekin bater[a] erakutsitzen digun doktrina, Martin, Lutero ta bere lagun libertadezale guzien kontra, dirala bi purgatorioan padezitzen diran penak: dañukoa ta sentidukoa. Sentiduko pena da anima gexoak purgatorio[a]n padezitzen dituen bildur-

<sup>9</sup> Atal horretako albo oharra: *Job Santuaren exenplora*.

<sup>10</sup> Alternantzia: *gorputz / gorpetz*.

<sup>11</sup> Ostein zuzenduta: *gure bitertekotasunarekin > gurekin*.

<sup>12</sup> Ostein aldatuta: *aleizen > alezake[n]*.

<sup>13</sup> Idem: *izango zati bitan > izango da*.

<sup>14</sup> Ostein zuzenduta: *diraden > diran*.

<sup>15</sup> Geuk zuzenduta: *atartzeko > ateratzeko*.

<sup>16</sup> Idem: *zueben > zenben*.

<sup>17</sup> Atal horretako albo oharra: *Zati bi eginik nere sermoia aurrenengoan esango*.

garrizko tormentuak igarotzia. Dañukoa, barriz, nai izan arren, ezin ikusi izatia Jangoikoaren aurpegi eder Aingeruak euren argitasun guzija nondik artzen duen. Eta benetan, ze pena andiagorik aurkitu lezake au baizik? Anima izanik espiritu puru bat Jangoikoa ikusteko kriadua ta eternidade baten gozatzeko<sup>18</sup>, ze pena ezta izango ikusi nai ta ikusi ezin<sup>19</sup> izatia? Erritik erbesteturik edo desterradurik daguan Kristao batek ainbeste sentitzen badu ezin bere errija nai izan arren ikustsia, nolako sentimentua eztue izango anima santuak purgatorioan, batetik isiorik Jangoikoaren amudioan, ta bestetik ain pena andijetan aurkiturik, berekin batera bere laguntasun gozuan aurkitzia? Bai, Kristaoak<sup>20</sup>; zenbat eta andijagua dan berekin egotzeko deseoa, ainbat andijagoa<sup>21</sup> da euren pena<sup>22</sup>. Zer pena andijagorik, anima indar guziarekin Jangoikoaren aurpegija nondi ikusiko duen billa da[billen batentzat, zenbat eta<sup>23</sup> geijago zautzedan, orduan geijago eskatutzen zaiola baizik, eta ezautzia alperrik inder egitzen duela? Esanzadazue zebek, munduko banidadearen amadoriak, nolako ezta zuek padezitzen dezuena, pekatuz beteriko amorian aurkitzen zeratenok? Bada, onelako gauza gezto batekoak ainbeste sentimentu emoten badizue, zer izango ura anima garbi Jangoikoaren perfezio guziaren eskura duenak beragana eldu artian eukiko duena?

Anima gexo oien konsuelora gu<sup>24</sup> animatzeko, baliatzen da Elexa Ama Santa lutuzko jantzi oekin, tunba, kanpa ta kantu oekin bigundurik gura animak, egin dezagun justizija- ta karidade-obrak. Gera etsairik andienak ikusiko bagenduz, ain pena ta tormento andietan lastimaturik paratuko giñatekez; ta izanik labe gori artan<sup>25</sup> erretzen deuden anima gexoak gura adiskida, senida ta gurasoak, ta biarbada gure geijegigatik<sup>26</sup> padezitzen deudenak, ezkera bigunduko? Zure laguntasunaren begira dagoz, euren suspira andiak batzen dituela ikusirik gure gogortasuna, eurak munduan guri izan eusken amorian parian. Eurak ezin pagatu lezakee euren zorra<sup>27</sup> bestela, tormentu aietan ongi purgatzan duela baizik, baña guk libratu genzakez asko penatu bagarik orazi[o], limosna,

<sup>18</sup> Ostean ezabatuta: *ta eternidade baten gozatzeko, ta aurkitu ezin izanik biolentzija padezitzen duena > ta eternidade baten gozatzeko.*

<sup>19</sup> Ostean erantsita.

<sup>20</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>21</sup> Ostean zuzenduta: *andijago > andijagoa.*

<sup>22</sup> Geuk zuzenduta: *penak > pena.*

<sup>23</sup> Idem: *bat > eta.*

<sup>24</sup> Ostean erantsita.

<sup>25</sup> Ostean aldatuta: *an > labe gori artan.*

<sup>26</sup> Ostean zuzenduta: *gugatik > gure geijegigatik.*

<sup>27</sup> Ostean erantsita: *ezin pagatu lezakee > ezin pagatu lezakee euren zorra.*

mezarekin. Nor izango litzateke kapaz gure artian, presondegi batera daroen Krist[al]o bat, ezauturik geura enpeñu betekin libratu genzakela, egin ezeitiagatik enpeñuau prisionera eroaten itxiko<sup>28</sup> giniokena? Eta geura aita, senida ta adiskidagatik eztogu egingo beste onenbeste?

Ez, anima gesoak, bada<sup>29</sup>, instante onetatik<sup>30</sup> prome[tiltzen] ditzugu aurrerantzian karidade geijago zebekin eukitzia. Zeben zispuruak urratu ditu gure animak, biotzak. Deboto oien orazioak zabalduko ditu Zeruko atiak, arako Jerusalem ederrekoak. Bai, Kristaoa. Ifiniko dituzue anima geso oiek zeben orazioa, suplika ta sakrifizioakin Aingeruen eskue-tatik Promisioko Errijan, zorionez beteriko uri ederrian, arako erreinu betiko bizitza eukiko duenian. Zebek atarako dituzue arako lurraren zentroko sutegi ederretik, eta an pad[lez]itzen dituen su gorizko llamia ikeragarriak biortuko dituzue atsegin andiko gloriya miragarrijau, non Espiritu Santuaren aixe garbia<sup>31</sup> artuko dezuen. Azkenez, zebek libratuko dituzue Infernuko daragoi ta aberija geztoare[n] agin artetik, ta ifiniko dituzue Zeruko Aingeru, Serafin, Santu-Santaren laguntasunian. Orandio geijago, Maria Santisima ta Jesukristo gure Jaunaren aurrian. Eztezue, ez, gesoak, Infernuko dragoi<sup>32</sup> gori ta aberija geztorik ikusiko. Neurribageko gloriya izango da onik aurreko egokera zebentzat. Emetik ezautuko dezue nolako mirariak egiten dituen zeben orazioak anima trista aien artian. (\*)<sup>33</sup>

Eskatu dezadan nik ere zebekin batera biotza Jangoikoari altzaurik, euki dezala Jangoikoak arefe[kin] gaur miserikordija, euki dezazuen zebek aurkitzen zerenerako Zeruan enpeñua; bada, guk nola portatzen geraden, ala portatuko dira gurekin aiek Zeruan bizi dirianian. Garbitu dezagun geura biotza, arteztu intenzioa, eta onela aurkitu[ko] degu geura bando beti Jangoikoa. Ez bakarrik geura animako emango digu eskatzen dioguna, baita purgatoriokorentzat ere. Biziturik geura fedia enpeña gatian Jangoikoen justiziako prisioneru ondradu oek libratzera, ura sakrifizio santu mantxabagiak ofrezitzen dituguzula geu[k] Altara Sagraduetan, bada, oiek dira biderik artez, seguru ta indartsuenak, ta karidadearen mandatuak agintzen dizkiguzenak ainbat lasterrenen ateratzeko andik. Entzun euren negarrak, geuriak entzunak izan ditian oiek bezela aurkitzen geranian; bada, nolako neurrijakin neurtutzen ditugun, alako-

<sup>28</sup> Ostein zuzenduta: *itxi* > *itxiko*.

<sup>29</sup> Ostein erantsita.

<sup>30</sup> Ostein zuzenduta: *oetatik* > *onetatik*.

<sup>31</sup> Ostein aldatuta: *arnasa* > *aixe garbia*.

<sup>32</sup> Alternantzia: *daragoi* / *dragoi*.

<sup>33</sup> Atal horretako albo oharrak: *Poztu*. [Aurrerago:] *Ez zaitue faltako gaurrik aurre fijadoriak*.



akin neurtuak izango gerade, Jesukristok esaten diguna bezela. *Eadem mensu[ra]. (\*)*<sup>34</sup>

Zuk, Jangoiko andi, Sazerdote Santua, Hostia mantxabagia, artuzazuz geure orazioak<sup>35</sup> sakrifizio agradablian zeura presentzijan. Eukizu miserikordija anima triste oien, entzun<sup>36</sup> tenplo santo onetako sufragioak, negar ta zizpuruak, Terzero Ordeko<sup>37</sup> hermano beneragarrijoen deseo biziak euren hermano difuntuen bando; bada, guziok fede bizi batekin eskatzen dizugu geura biotzaren barruenetik eroan dezazula zeura Glorijan koronatzera difuntuaren animak. Amen.

#### [AMAIERAKO ERANSKETAK]

Erritik kanpora erri erbestian preso daguanen penak andijak badira, gogoraturik noz izan al lezakian ura ordu zoriontsua kartzela artatik irten ta bere guraso ta senide maitare[n] lagunt[as]unian burua ikusiko duena, zer izango ezta anima gexokuek, presondegi itzaltzu artan su abrasadorien erdijan batetik, ta bestetik isiorik Jangoikoaren amudijoan, iragoko duen pena? Bai, *ut supra* esanzadazue, *ut supra*<sup>38</sup>.

Benetan, Jesus maita<sup>39</sup>, andija izango da guk uste degunetik euren pena; bada<sup>40</sup>, eurak maitatzen zaitue, Jesus maita, eurak dabiltz zeura billa, eurak dira zeura esposak, eurak nai due ainbat lasterren zura besarte gozuan izan laztanduak, estutu ta maitatuak.

Dabid Erregiaren seme Absalonek baizik errazua andijagoakin erakutsiko duen euren pena, ain laztan izan ta ikusi izan eze[il]tiagaz?

Absalonek il zuelako bere anaje Amon, Tamar bere arreba traizioz<sup>41</sup> gustu loi bat kunplitiarrik, esaten digu Eskritura Santuak bere aita Dabid Erregiak kondenatu zuela bere aurpegija urte bijan ikusi ez eitera, eta arturik bitarteko Joab bere aitaren kapitan jenerala, biraldu zion esatera: Esanzaiozu nira aitari bere aurpegija ekusi dezadala, ta oraindio aitzu ezpazαιο nire pekatua, bizitza kendu eizadala. Eta onelako sentimentua erakutzen badu seme gezto batek bere aitaren aurpegija ezin duelako ikusi, zer izango ezta? (\*)<sup>42</sup>

<sup>34</sup> Idem: *Devoto*.

<sup>35</sup> Ostean aldatuta: *sakrifizioak* > *orazioak*.

<sup>36</sup> Idem: *artuzu* > *entzun*.

<sup>37</sup> Idem: *animaren bando* > *Terzero Ordeko*.

<sup>38</sup> Ostean erantsitako esaldia.

<sup>39</sup> Ostean erantsita: *Benetan* > *Benetan, Jesus maita*.

<sup>40</sup> Idem.

<sup>41</sup> Ostean aldatuta: *indarrez* > *traizioz*.

<sup>42</sup> Atal horretako albo oharra: *Arturik Absalonek injurija bere anaje Amonen kontra*.

Nondik ikustsen dan klaru ze andijak diran pena dañukoaren sentimentuak, baña orregatik ere txit andijak dira animak sentiduko penaren tormentuak erakustsiko diz(...).

Nor izango da kapaz biar bezela esplikatzeko purgatorioan padezitzen pena bildurgarri aiek? Inok ez. Eta ala ere premiña eukirik zerbait esateko pena oien ganian<sup>43</sup>, saiatu biar naiz sentiduko penatik asiera ematen diodala. Baña obeto ezautu dezazuen sentiduko pena, iruri bat ifiniko dizuet Erromatarrak euren preso delitu andikoai ematen kastigutik.

Baña, nor izango da biar bezela azalduko duena nolako dan pena dañukoak ematen dien...?

Errazoa andijagoakin Absalonek beste denpora baten bere aitaren arpegija baizik<sup>44</sup>, deseatuko due Jangoi(ko)a...

Emetik ezagutuko<sup>45</sup> degu zer dan pena dañukoa. Guazen ikustsera zer dan pena sentiduko[a]. Erromatarrak...

Ura preso delitu andijetan aurkitzen zituen penak...

Surtegi aetatik irtetzen zuan beroakin erretzen zirala.

Konbeni eztana bezela, posible balitz ikustsia, alperrik izango litzateke bat biotz gogorrekoa, eroriko litzateke sentimentuaren indarrez lurrera.

Zer uste dezue dala animak igarotzen duena? Kalobozo artan sarturik Jangoikoaren aurpegija nai izan arren ezin ikusirik<sup>46</sup>, mundutik erbesteturik lurraren erdijan, Infernuaren auzoan dira metalak. Bigarren pena Erromatarrena zan leoi, otso ta beste aberija gezto itzaltsuak zeuden plaza zarratu batera euren janari izatera kondenatzia. Eta zer ikusgarri negar[garrija]...?

Jangoikoaren Justiziaren<sup>47</sup> su abrasadoriaren aurrian...

Ekarri, pillatu dezaguzan Infernuen kondenaduak igaro ta igaro dituezan... Egin dezagun guziekin ura Eskritura Santuak esaten digun suz beteriko espiritua.

Goroztegi[a][k] zurekin garbituko ditu.

<sup>43</sup> Ostein erantsita.

<sup>44</sup> Idem: *beste denpora baten baizik > beste denpora baten bere aitaren arpegija baizik*.

<sup>45</sup> Geuk zuzenduta: *ezaugutuko > ezagutuko*.

<sup>46</sup> Ostein erantsita: *ezin ikusirik > nai izan arren ezin ikusirik*.

<sup>47</sup> Idem.

## [MISERIKORDIAREN GANIAN]

Komunidade beneragarri errespeto andi bat diodan denpora berean, lagunduko ez balit konfientza humil batek, ez nintzate atrebituko itzik ateratzen beroen aprobetxamenturako izanagatik bere, zergatik kontsideratzean itz egin biar dedala birtutean aprobetxaturik dauden erlijiosa batzuen aurrian, kontsiderazionek atzeratzen du nere biotza. Orregatik, are ezagaturik beroen aprobetxamenturako egarri andia, Jangoikoak nere itzai indarra emango diela uste izanik baita onetarako, komunidade one[er]i orazioak eskaturik asiko naiz Jaunaren izenian itz egitera. Ondo dakit ni baixan instrumentu obiagorekin balia zeitekiala komunidade oni bere borondatiak erakutsitzeko. Baña Jangoikoen borondatia dan ezkeron nigaz baliatzia, asiko naiz S(a)n Pedrok bezela predikazioen saria botatzera, birtuteko bidian epeldurik edo paltaren batzuetan sartuta egon al leitekezana esnatzera, eta bere graziaren euri santuagaz bustirik frutu birtutezkoak eman ereitera.

Ez naiz, ordea, ni geldituko beroi erakutsiten konpesio on baterako biar diran doktrinak<sup>1</sup>, bada, au uste det denpora alperrik ematia izango litzatekela. Zeren gañian, bada, uste dube nik itz egin nezakela denpora santo onetan, Jesukristoren bikario santoak, Erromako obispo eta Aita Santo jaunak mundu guztitik anbeste miserikordiazko grazia bota duanian, miserikordiaren ganian baño? Eta anbeste miserikordia opa badie pekataririk andienai, askoz geiago bere esposai, beste aldetik faltatxoren batzuk izanagatik bere, anbat lasterren beragana biortu nai badue.

Eta zer miserikordia andiagorik konbidatzea, exerzizio santuakin konbidatzea baño? Zer izango zan miserikordiagaz konbidatzera etorri dan bezela, bere Juizio ta Justiziara deituak iza[n] balira? Zeñ izango zan komunidade onetan bildurtuko etzana? Ai, onen-onenak bere zer larriak, zer estutasunak! Ai, zer modu diferentian ordu larri artan ikusten diran faltak! Zenbat falta komunidadeko aktoetan! Zenbat kuriosidade eta mortifikazio palta<sup>2</sup> ja begiakaz, ja belarriakaz! Zenbat kebrantamentu silenzioan eta pobrezan! Zenbat tratu, aprobetxamento espiritualai kalte

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Geuk zuzenduta: *beroi erakutsiten konpesio on baterako biar diran doktrinak erakutsiten* > *beroi erakutsiten konpesio on baterako biar diran doktrinak*.

<sup>2</sup> Alternantzia: *falta* / *paltia*.

andiko! Eta koruan, ofizio dibinoan, orazio mentalian eta mezan! Asko egunen batian erlijioso ta erlijiosa artian konfundiduak izango gera munduan bizi dirianakgandik. Arelelk izango dira gure fiskal ta akusadore, guk baño gitxiago arturik obetuago erantzun eutselako.

Egin begiez, bada, exorzizio santuok, eriotzako orduan egin balituez naiko duen bezela. Onetarako erretiratu biar dabe beste edozenbere denporetan egitia falta izango ez litzauken lanetatik bere, guztiak okupatzen dirala exorzizio espiritualetan, arako komunidaden onetara sartzeko Jangoikoak biraldu zioen grazia santuari jarraitzen, esaten diola baktokalk] bere animari arako beste denpora batean S(a)n Bernardok esaten ziona bere buruari: zetarako etorri nintzan ni Erlijiora? Nere anima salbatzeko. Eta bertan enpleatu ditut anbeste urte. Zer aprobetxatu det anbeste denporan? Biarbada lenengo egunian baño otzago eta epelagoa arkitzen naiz. Zer kontu emango nioke, orañ Jangoikoak kontu eskatuko balit? Zer naiko nuke orduan, anbeste urte alperrik igarotia ala egunerik egunera Jangoikoak bere esposatzat eskojitu ninduan graziari segitzia? Zer balioko dide niri urte asko erlijioan pasatziak, lelengoko egunian baño atzerago, epelago eta otzago banago? O itsutasuna neria<sup>3</sup>!

Baña, Esposo maitia, añ deungaro nik erantzun ta korrespondidua, añ itsuturik eta azturik bizi izan banaz ere gaur artian, anbeste ontasun ta miserikordiaz orain artian itxon badidazu bere, zure ontasunaz ni obetuteko baliatu biarran, Zu ofenditzen enpleatu banaiz ere, gaurrik aurrera nere itsutasun ta zoramenak azturik erretiratuko naiz, ez bakarrak nere animako soleda[de] edo bakartasunera, baita ere utxiko diot munduko komertzio guztiari. Kontu aterako det il naizala, eta nere zelda sepultura biorturik, obetuago kontuak artuko dizkat nere animari, exorzioetan pakiak egingo ditut nere Jangoiko eta Esposo maiteagaz, zeñ añ deungaro korrespondidu dedan, eta aurrerantzian biziko naiz proposituak obetuago gordetzen ditudala.

Onelelk dirade berok eta nik Jangoikoari exorzizio oetan egin biar diozkagun deiak, suspirio eta negarrak. Eta au da modua exorzizio santuetarako biar duena. Modu onetan irabaziko dituez arako indulgentzia guztiak Aita Santo Inozentzio Amaika ta Amabigarrenak konzeditu zituenak exorzio santuetara erretiratzen diraden guztientzako. Onelaxe prestatzen dirade komunidadetik obserbantienak, eta onelan beragantzen dituez Zerutiko graziaren euri santuak. Eta kendurik epeltasunak eta obserbantzia faltak len arako karidade bage, zeñek izan biar daben

---

<sup>3</sup> Ostean erantsitako esaldia.

komunidadetan, bizi izan ziranak, len arako pekatuzko sasi-beresi egin-da egon ziranak, biortzen dire birtutezko lorategi eta jardin eder.

Auxe da modua komunidadate bat Zeru biortzeko, guztiok alkarren borondatera prest egoteko. Onela bedeinkatuak geldituko dirade. Au da berok bier dabena, au Jangoikoak nai duana, eta au nik berokgandik ateratzea uste dedan frutua. Onetarako izango dira nere nekiak, eta pekatari andi bat banaiz ere, an komendatuko ditut nere sakrifizioetan. Bai, komunidadate beneragarria, onetarako eta ez beste gauzatarako nator gaur eurokgaña, beroen animak lenez gañera Jangoikoaganatzera. Beroen animaren kontu eskatuko dit neroni Jesusek.

## [ERROSARIOKO DEBOTOAK]

...eta beste ganekoa Santu guztiak. Nik ondo ezaututen dot Santu are[e]n beste esan ezin neikiana; baña or[re]gatik bere, berba baten esango dot are[e]k guztiak esan eben beste eta geiago, esanagaz bakarrik zariala Jangoikoaren Ama. Bada au esanik, esanik dago Zeru-Lurraren Erregiña zareala, eta onetan sartuten dirian ondasun guztien eskubide guztiak zuk dozu[zalla], eta zuk ezin egin zinaien gauzarik ez dala. Eta nori, ezpada errosarioko debotoai emongo deutzazu zorion andiok? Zer ukatuko deutso Semiak Amari emon aleikion gauzarik? Zeruko ondasunetan Amak legez Semiak eskubide guztia dauko, eztau biralduten ondasunik bere Amaren borondate bage. Semiak Amari deutzan amodioak ezin itxi leikio beste modutan egiten.

Baña zorion guztiok daukaz Mariak bere kofrade benetakoentzat. Eta ez<sup>1</sup> arako kofradian sartu, baña kofradia onek aginduten dituen gauza santuak oñ azpian sartu ta darabiltzenentzat. Erri onetako kofradiai aginduten jakezan gauzak, bere fundazinoiaren bidez<sup>2</sup> ikusten danetik, dira: guztiak alkarrekin bakian Jangoikoaren Lege Santua gordetan dabela bizi ditezala, pekatuko bide guztietatik iges egiten dabela, eta alanbere geiago, alkarganako gorroto, auzi, kerella, juramento alperriko, birao, blasfemia, maldiziño, murmuraziño, desonestidade, falso testimoñio, lapurreta, joko gezto, gaubeko taberna, dantza desonestu eta arako berez pekatuko gauzak dirianetatik. One[e]tatik, bada, iges egin biar dabe kofradiako anaiak. Fundadoriak<sup>3</sup> eskubidea emoten deutz<sup>4</sup> kofradiako kapellau nagosiari<sup>5</sup> bizio onétan<sup>6</sup> eskandalua emoten dabenak... Ez dau Mariak onelakorik bere debototzat artuten.

Onelakoetatik iges egin eta zu, Maria, topetan zaituanak zu arkituko zaitu besoak zabalik bitarteko andi izateko. Zuk gure pekatuen aserrea amatauko dozu zure Semien aurrien. Bai, Ama maitia, zu izango zera zure debotoai Zerurako aldatsak bardinduko deutzazuezana; zu izango

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Ostean erantsita.

<sup>2</sup> Ostean aldatuta: *obispo jaunaren bizitzaren bidez* > *bere fundazinoiaren bidez*.

<sup>3</sup> Idem: *Obispo jaunak* > *Fundadoriak*.

<sup>4</sup> Horrela, tilde eta guzti.

<sup>5</sup> Ostean aldatuta: *erriko abade jaunak* > *kofradiako kapellau nagosiari*.

<sup>6</sup> Ikus 4. oharra.

zera Zeruko atia. Nok zuk ezpada, Maria, ekarri eban zure Semia gure pekatuak parkatutera? Nor bitarteko andiagorik topau neike, nik pekatuakaz egiñeko aserria kenduteko? Bai, Maria, zu guztientzako biraldu bazenduzan Jangoikoak mundura, askoz geiago zeure kofradiako debotoentzako. Idigigizuz bada, Andrea, zure ondasuntegiko giltzak Errosarioko kofradientzako. Zu zara gaixoen osasuna, osatu gaizuz zure Seme-en grazia santuagaz; zu tristien konsuelua, konsolaugizuz zure Errosarioko debotoak; zu pekatarien pozgarria, poztu gaizuz poz egiazkoagaz; zu justuen grazia, bada, bete gaizuz Zerutiko graziaren inontz santuagaz, frutu santutasunez beterikoak emon daioguzan zure Semiari. Konfiantzaz beterik eta zure amudio santuan biotzak beroturik, uste dogu gure oraingiñoko argaltasun, epeltasun eta bes[te] falta guztien erremedioa aurkitutia. Sendatugizuz bada, Andrea, zure kofrade debotoen proposituak, gaurrik aurrerako pausuak izan ditezan santuagoak oraiñ artekoak baño. Graziau eskatuten deusugu, eta esperantza onetan biziko gera, ondo siñasturik azkenengo orduan artuko gaituzuzala zeure besoetan, onelan zure bidez merezidu daigun zure Seme Santuen atsegiñak betiko Glorian Angeruakaz batera gozetia, zein dan nik deseetan deusuedana. Amen.

## [GLORIAKO BILDOTS SANTUA]

Ze itsutasuna neria, nai izatia irabazi Gloria munduko hondra ta atseginetatik, ikusirik Zuk irabazi zenduala anbeste pena ta neke andietatik<sup>1</sup>! Bildur izatekoa da bizitzia emendatu bagarik salbau nai izatia. Nai ditut ipini gaurrik aurrera nere gogo ta de[se]lo guztiak Zeruan, nire tesoroa ez dedin izan Lurrean, ezpada Zeu Zeruko edertasun guztia zeran orretan. Zuk gustatu zinduzten samintasunak, neretzako irabazitiarrrik Zeruko atsegiñak. Nik nai edan Zeruko edari[alk], eta ez nai gustatu zure Kaliz gogorraren edari samiñak. Zuk igon Kurtzeko billoztasunetik, eta nai ez nik billoztu pekatuzko jantzi lotsagarrietati.

O Gloriako Bildots santua, nere amodioz Kurtze orretan sakrifikatu ziñana! Ze itsutasuna neria, nai izatia igon gloriara munduko hondra ta atsegiñetatik, ikusirik Zuk igon dezula Kurtzeko tormentuetatik! Zorakeria benetan bizitza emendatu bage salbatu nai izatia! Zu agoniñako nairgabe ta samintasunetik, Zuk lotsagarritzko billoztasunetik, eta nik nai jantzi banidadezkotik. Asko da, Jauna, zorakeriarrik. Gaorganik berba emoten dot jarraituko dodala Kurtzeko pau[sua]<sup>2</sup>. Ementxe Kurtze santu onen gerizpian jarri nai dot, eta ez dot alderik egingo Gloria irabazi artian. O Kurtze, o arbole santua eta nire deskantsu guztiaren gerizpea! O arbole orrirrik baño misterio geiagokoa, nere osasun ta erremedioa! Zugan billatuko det sendotasuna, gozotasun guztia. Zugandik urteiten daben odolezko<sup>3</sup> iturriak asko izan dira bigunduteko pekatarririk gogorrenak, santu[tu]teko. Ze okasiñoa daukazun gaur nigaz beste anbeste egiteko<sup>4</sup>!

Pena geiago artuten badozu zure odola galdu dan ikustiagaz añ ugari, zure [gor]putztz santuti añ ugari emotiagaz baño, balia gura dot, zure deseoa bete gura dot, baliatzen nazala beragaz garbituteko.

Ez da errazoa ni joatia munduko estimaziñoti<sup>5</sup>, ikusirik Zuk igon

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Ostein ezabatuta: *neke andietatik fundamentu andiagaz > neke andietatik.*

<sup>2</sup> Ostein erantsitako esaldia.

<sup>3</sup> Ostein erantsita.

<sup>4</sup> Ostein ezabatuta: *nigaz beste anbeste egiteko geiago sentietan dozun ezkerro galdutia, emotia baño > nigaz beste anbeste egiteko.*

<sup>5</sup> Ostein aldatuta: *Zu egon zaitian lapur bien erdiko desbodrati > ni joatia munduko estimaziñoti.*



zenduala lapur famoso bien erdiko desonrati. Zu penetatik, ni pekatue[ta]tik; Zu zauri ta ebagi andietati, ta ni...

O Gloriako Bildots santua, nere amodioak Kurtze orretan añ gogor josirik ipini zinduzana! Zorakeria izango litzateke nere bizitzia emendatu bage zure Gloria[ra] igon nai izatia. Justu bere ez litzateke Zu baño kondizino obeagokoa ni izatia; ikusirik Zuk igon zendula Gloriara Kurtze gogorreko tormentuetati, nik nai izatia igon munduko gusto-atseginetatik. Zuk lapur gezto bien erdiko deshondrati, eta ni munduko ondra ta estimazinoetati; Zu illuntasunik lotsagarrieneri, ni zorakeriazko jantzi banidandezkoetati. One[elk izan dira nire pausuak, ezautzen dirala guztiz erratuak. Sobra dira, Jauna, (nire orangeñoako zorakeriak), eta pazienza andiagaz Zuk nire itxodonak. Gaurgandik, Jauna, berba emoten dot Kurtzeko arbola santo orretatik erakutsiten deustazun bidiai jarraitutia, lotsagarritzkoai itxirik. Kurtze Santuaren arbolaren gerizpian jarriko naz<sup>6</sup>, katedra santo orretatik erakutsiten deustazuzen Zeruko leziñoak ikasteko. O katedra santua, o arbole miragarria, nere deskantsuko gerizpeko (...) orririk baño misterio geiagokoa, nere gaixo guztien osasun ta erremedioa! Zugandik jatsiriko odol-errekak asko izan badira pekatariarik andienak santututeko, okasiño ederra nigaz beste anbeste egiteko. Zure odol guztia emotia baño pena geiago emoten badeutsu pekatariak ez baliau nai izatia[k], beragaz baliau nai dot, zure deseoa gaugandik bete nai ditut. Eta pekatari onegaz Zuk egindako miserikorriak Zeruan zure Santuakin batera kantatuko ditut. Esperantza onek poztzen du nere anima, eta orandañoako utsak guztiak betetzeko gogo bizi bategaz kontrizioz beterik esango dot: Nere Jesukristo Jauna...

Nor izango da zure Juizio itzalgarriari itzalik artuko ez deutsana, bere señaleark añ bildurgarritzkoak dirianian? Nok gordeko nau zure aserretik, zure kolera ta aserria igaro artian? Zuk bakarrik, orañgiño anbeste parkatu deustazunorrek. Gogora datorkidan bakotxian zure maldizioa nere ganera etorri leitekela, eta zure aotik urtengo dabena, ikariak artuten nau. Ondo dakit, Jauna, nik merezidu izan dedala, bada, nire pekatuak-gatik Zuk Kurt[z]lian entzun zenduan<sup>7</sup>; orregatik bere, nere premia bage zure amodioak entzun erein<sup>8</sup> ezkeru, zure pasiñoako merezimentuak-gati, arren, libradu nagizu madarikaziño atzerengotik. Emen Zeuk gure dozun bestian kastigauko banozu bere, gorde nagizu eta zure adiskideazko bedekaziñoa emon egidazu. Emen zugandik kastigadu naiago dot gure, zugandik despreziadua baño. Gorde, Jauna, niretzako egun

<sup>6</sup> Osteen ezabatuta: *zure Gloriako jarriko naz > jarriko naz.*

<sup>7</sup> Geuk zuzenduta: *entzunduan > entzun zenduan.*

<sup>8</sup> Idem: *erein entzun > entzun erein.*

atan miserikordia, eta libra nagizu zure aserretik. Esperantza onegaz etxuten naz...

[AMAIERAKO ERANSKETAK]

...eta nik anbeste bider oker urteitia merezidu izanik, ez beintzat jui-zioa daukanik.

O ontasun neurribagia! Zenbat diran, Jauna, nigandik artu dozuze-nak! Zenbat billaukeria niriak! Traizino andia pekatari onek zuri egina, geiago estimadurik munduko autsa, eta Diabruaren seme izatia, zure erederu baño. Zu ofendietan sentidu guztiak orañgiño emon dodaz, eta Zuk zeuriak ni libretiarren pekatutik. Zer egin neike onenbeste kalte osatuteko? Zure miserikordiaren gerizpean jarriko naz, Kurtze orren oñetan etxungo naz. Eta nire pekatuak orrelan birrindurik ikusten badodaz bere, bildur santu bat emonagatik zu orrelan ipini zaitudalako, espe-rantza bizi bat dauket zeugan artuko nozula.

Ez zera noizbait kontuan jausiko? Ez zera nozbait sentimentuz bete-rik Jaunaren oñetaratuko? Bai<sup>9</sup>, Jangoiko andi eta ontasun neurribagia, ara emen non datorren arako seme galdua anbeste sentimento neure pekatuakaz emon deusuna. Ondo itsuturik aspaldian zure kontra bizi izan banaz bere, neure sentidu guztiak zure kontra enpleadu badodaz bere, ikusirik nire amodioak Kurtze orretan ipini zenduzala, konfianza andiategaz nator artuko nozula, eta artzain onak ardi galdua bizkarrian artu ta<sup>10</sup> bere txabolara legez erongo nozula. Parkatugidazuz, arren, seme galdu oni nere pekatu andiak<sup>11</sup>, begiraturik ez neure pekatu-ai, ezpada zure miserikordia neurribagiari. Kastigadu nai ditut neure peka-tuak alako moduan, zeñda gelditu dedin mundua bildurturik. Neure pekatu andiakaz, neure eskandaluakaz Zerua ikaratu dodan ezkerero, nai dot egin neure buruagaz anbeste opentsaren satispazinatorako. Kurzian josiko [do]daz neure sentiduak, parkatuak izan deitezan neure pekatuak. O zeñ itsuturik pekatuak euki naben! Uste nenduan libre nenguala, neu-re pekatuak presoago euki nabenian. Uste nendun libre nengoala, neure pekatu-rik lotsagarrienetatik preso egon nintzanian. Uste izan dot sendua nazala, argalago izan nazanian; eta zorionekoa nintzala, zo-rigai[z]torik andienekoa izan nazanian. Ai ze<sup>12</sup> prezio bajuan erosi<sup>13</sup>

<sup>9</sup> Ostean erantsita.

<sup>10</sup> Idem.

<sup>11</sup> Idem: *neure pekatu andiak* > *seme galdu oni neure pekatu andiak*.

<sup>12</sup> Idem.

<sup>13</sup> Ostean aldatuta: *irabazi* > *erosi*.

dodan, Jauna, zure aserrea<sup>14</sup>! Zure amodioa nai dot neure damuarijagaz. Ikusten dozu, Jauna, nire biotzak maite zaituala, eta nai neuke orañdio geiago zure amodioa. Ikusten dozu, Jauna, nor nazan; ezin zaitut amadu neuk [gura] neukian moduan, eta Zuk merezidu dozun moduan. Exetu, Jauna, neure biotza zure amodioan erre nadin.

Ea bada, pekataria sentimentuz biotzak urraturik etxun gaitze[n] Jes(ukristore)n oñetara<sup>15</sup>. Ara emen non datorren zure seme galdua anbeste sentimento neure pekatuakaz emon deutsuna. Ondo itsuturik aspaldian bizi izan banaz bere, neure sentiduak zure kontra enpleatu badituz bere, ikusirik nire amodioak Kurtze orretan ipini zaituala, konfiantza andi bategaz nator semetzat artuko nozula. Parkatu, arren, neure pekatuak, begiraturik zure errukiari. Neure pekatuakaz Zeruak ikartu badituz bere, bizitza santu bategaz garbituko dituz. Kurtzian josiko dituz neure sentiduak, parkatuak izan deituan neure pekatuak. Ondo loturik pekatuak euki nabe, engañuz uste izanik libre nenguala. Uste nendun sendua nintzala, argalen izan nintzanean denpora zorigaiztokoan; zorionekoa nintzala, zorigai[z]torik andienian nenguanian. Ondo prezio bajaran erosi dot zure aserria. Begira, Jauna, gaurrik aurrera zure amodioa besterik nai ez dodala. Ikusten dozu neure biotza Zu geiago maite naiak gaixotu dabela. Zure esana da et[z]iñala etorri justuen billa, pekatarien ezpada; zugana etorrenik botako etzendula, Zu billatuten zaitun[ik] galduko ez dala, pekatarien kon[s]uelua ziñala. Salba nagizu, esperantza neuria, salbau nagizu, arren, nire amodioak idigiko zauri orren barruan, bada zure zauriak dira neure merituak. Ai Jauna, sekula ofendidu ez bazendudaz! O pekatu gogorak, Jangoiko bagarik itxi nozue! Akordau zaite ardi galdu onen amodioak il zenduzala. Au alan izanik, ez da posible ni galdutia. Esperantza onetan bizitzia igoroko dot, zure eskuetan neure arimia entregauko dot, esaten deutsuda[lla] orañ da beti sentimentuz beterik: Neure Jesukristo...

Neure negarrakaz desegingo dodaz neure pekatuak, onelan ekarriko zaituz parkatutera. Nik kastigu exenplar bat egin neure gorputzagaz, zuria neure pekatuakaz orren lastimagarri[tu]rik ipini dodalako. Josiko dodaz neure sentiduak Kurtzian, ez berbiagaz, eta obriagaz. Parkatu, Jauna, nire atrebimentuak, bada lotsaturik nauke neur(...).

Lotsa naz, Jauna, zure aurrera elduteko. Zer gura dozu, Jauna, nik egitia?

<sup>14</sup> Idem: *aborrezimentua* > *aserrea*.

<sup>15</sup> Ostean erantsitako esaldia.

**[NAIGABIAK AMARENAK]**

## QUINTO DOLOR

Gaur Ama Elixak biltzen gaitu martirio modu berriko bat ikusi ta kontenplatzera: Amarik onena Semerik onenen eriotza gogorren bat ikustera sentenziatura. Au ezin<sup>1</sup> beste modutan erakutsi izan zuan S(a)n Juan Ebanjelistak, esanaz Ama Kurtzeren oñian izan zala, berau bakarra esan al dezaken guzia esatia. Allegatu zaneko Jesus anbeste penaren erdien Kalbariora, orra non urriki gabe kendu zizkan bere tunika ta janzi sagraduak; ordea, alako gogortade ta urriki gitxiz ezen, berriztatu zitzaizkan bere zauri guziak, josi Kurze gogorrian, mundu guzien aurrian guztia lotsagarriturik egon zan.

Zer agoñinak Jesusenak, zer naigabiak Amarenak! Ez da posible ama batek ikusgarri urrikarriagorik eukitia. Semiak gorputza sakrifikatzen zeguanian, Amaren anima sakripikatzen zan. Zer pena ura eskatzen ikusi ta ezin eman izatia, deskantsua eman nai ta ezin eman, besartian artu nai ta utzi ez!

Eta orandik penarik andiena, bere Semia bere Aita Zerukoen desanparuz kejatzen ikustia. Alkarren presenziak lenez gañera biotzak urratzen. Bizi zan Maria bere Semiaren aurrian, beti ilten ta ezin iñoz illik.

Atenez bere despedi[da]ko Amari egin zion itza, S(a)n Juan semetzat eman ziona, eta S(a)n Juani amatzat. S(a)n Juan justoa ta maitegarria, ordea utsa Jesusen parian orregatik, semetzat artu bazuan ere, eta onetan gu guziok, zer pena trukadau egitian artuko zuan...!

## SEXTO DOLOR

*O vos omnes qui transitis per viam,  
attendite et videte si est dolor sicut dolor meus!* Lam. 1, 12

Ez nago gaur konsuelorik artzeko bidian, il da<sup>2</sup>. Anima debotoak, aditu zer Ama S(antisi)mak esaten digun: Anima debotoak, ez det nai

---

\* Ez da osoa.

<sup>1</sup> Ostean erantsita.

<sup>2</sup> Ostean erantsitako esaldia.

gaur etorri zatezen konsolatzera, zerren nere biotza ez dan konsueloren kapaz nere Semia il danez ezkerro. Konsolatu nai baldin badezue, itzuli nigana begiak eta aditu izan bada sekulan munduan dolorerik nere dolorekin konparatu dezakenik.

Egun onetan, angustiazko Ama Santa<sup>3</sup>, konsuelorik nai ez dezun ezkerro, esan biar dizut Semeren eriotzarekin ez dirala akabatu zure penak. Gaur izan da zure biotza ebakia beste ezpata diferente batekin. Zure Seme difuntuaren kostadua lantzarekin eritua izango da, eta onen ondoren artuko dezu zure besartian Seme maitia; eta izango da zure sei-garren dolorea.

Gaur artian zure doloriak banaz-banaz etorri zaizkitzu, ordea gaur itsasoaren olatu guziak bezela erabatera dolore guzien ur gaziak, saminak etorriko zaizkitzu.

Apenas bere Semia il zan Kurutzean, bere Semeren penak presentatu zitzaiozan Aita Eternoari. Ja, Jauna, pagatu da gizonaren zorra, bete da zure deseoa, egin da gizonaren erredenzioa zure gloria ta gizonaren salbaziorako. Emendik igaro zan Semeren llaga preziosoak adoratzera. Zubek zerate gizonen anparua, zubenak etorri nai duenentzako, zuben bitartez parkatuko dira gizonen pekatuak. Asko da, nere Semia, penarik, asko da sakripiziorik.

Ordea, oiek esaten zeguala agertzen da soldado bat. Emen ikaritzen da ezurretar[aino]. Ikusten du luzatzen duala lantza gogorra eta bere golperekkin ebakitzen diola bere bular sagradua; eta golperen indarrak partitzen da Semeren biotza, ertetzen zala ur ta orola, esaten zigula onekin ez zuala zer geiago emanik.

Au izan zan, Santuak esaten digunetik, Simeonek profetizatu zion ezpata, noren doloriak geiago ebaki zuan Amaren biotza, zerren emen pena<sup>4</sup> geiago Amak artu zuan, ja il ezkerro ez zalako bere Semia penaren kapaz. O Ama Santa! Nork erakutsiko du zure pena? Begira zure Semerik maitegarrienari ematen dioen pagua. Emanzada[zu] grazia zuri laguntzeko nere pekatuen negarrarekin, eta egin nazazu parte bere grazian...

## SÉPTIMO DOLOR

Ama batek bere semea padezitu ta ilten ikusten duanian pena andia izaten du, ordea, enterratzera daramanian, orduan pentsatziak geiago

<sup>3</sup> Ostean aldatuta: *Ordea, Ama Santa* > *Egun onetan, angustiazko Ama Santa*.

<sup>4</sup> Ostean erantsita.

ikusiko ez duala, emen izaten dira bere naigabeak, au bere ezpatarik gogorrena.

Au obetuago Kalbarioan ikusiko degu. Emen bere Semia besartian duala bere bulerren kontra estuturik, emen bere arpegia, bere llaga preziosoak arpegi Amarena oroldurik, esaten dio Job Santoak esaten diona: Nere seme maitia, nola añ gogor nere kontra itzuli zera? Zure grazia, edertasun, birtute guziak neretzat añ prezioso izan diranak, nola trukatuta dira beste anbeste zagta ta ezpata gogorrera? Zu orañ artian izandu zera<sup>5</sup> nere Aita, nere Esposo, nere Seme ta konsueloa, eta orañ gelditzen naiz aita gabe umezurtza<sup>6</sup>, seme bage bakarra, esposo bage alargundua. Bada nere Semia galdurik, galdu det guzia.

Onela negarrez zeguala, ezauturik Jose ta Nikomedes gizon santo ta piadosoak, allegatu ziran Amagana eta lagundurik bere penan, egin zioen erreberenziaz beteriko relazio bat nola konbeni zan enterratzea, eta ala konbeni zala bere Seme besartian zeukana entregatzia ta Legiak orduan eskañtzen zuan bezela usai gozoz usañdurik ta mandiran bilturik enterratzea. Eta Ama Santisimak soltatu zuan tesoro preziosoa eskerak ematen ziztela. Onela eraman zeben enterratzerara, dizipulo ta beste anima deboto askok laguntzen zioela, bere ondoren emakume piadosoak jarraiturik eta Zeruko Angeruzko eskudroi santoz gorderik. Eta egirik au, esker andiak eman zizten Ama Santisimak guzia[i], esaten zuela Dabidek Saulen gorputz difuntua enterratu zebenai esan ziena: Jangoikoak paga dezazuela zuen obra ona, ez da faltatuko zubek euki dezuen bezela urrikia nork urriki izan zebekin.

Baña, ai zer dolorea bere etsera biortu ta bakarra ikusi zanekoa, errepatatzean bere seme maiteren laguntzan eramaneko ordu gozuak! Emen ilundurik guzia negar egiten zuan. Lagundu nairik angustiazko pausu orretan etorri gera, eta arren, bedeinka itzatzu gure biotzak, obra santo onetan zure lagun munduan izanik Zeruan zutzaz ta Semiaz parte izateko. Amen.

---

<sup>5</sup> Geuk zuzenduta: *zure > zera*.

<sup>6</sup> Jatorrizkoan: *bumezurtz*.